



Iturria: *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa).
CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala.
Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritza, 2004.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/U/UriarteBibliaI.htm>

BIBLIA (I)

Jose Antonio Uriarte

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

JENESISKO LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Asieran egin zituen Jaungoikoak zerua eta lurra.
2. Baña lurra zegoan moldakaitza eta utsa, eta illuntasunak estaltzen zuten lizeko gaiña; eta Jaungoikoaren espiritua zebillan uren gañean.
3. Esan zuen bada Jaungoikoak: izan bedi egiña argia. Eta argia izan zan egiña.
4. Eta ikusi zuen Jaungoikoak ona zala argia, eta berezitu zuen argia illuntasunetatikan.
5. Eta argiari deitu zion eguna; eta illuntasunai gaua, eta arratsalde eta goizarekin egin zan lenbiziko eguna.
6. Esan ere zuen Jaungoikoak: Egin bedi firmamendua uren erdian; eta berezitu bitza urak urak gandik.
7. Eta egin zuen Jaungoikoak firmamendua, eta berezitu zituen firmamenduaren azpian zeuden urak, firmamenduaren gañean zeudenetik. Eta ala egin zan.
8. Eta firmamenduari deitu zion Jaungoikoak zerua. Eta arratsalde eta goizarekin egin zan bigarren eguna.
9. Baita ere esan zuen Jaungoikoak: Berriz batu bitez toki batean zeruaren azpian dauden urak, eta agertu bedi legorra. Eta ala egin zan.
10. Eta legorrari deitu zion Jaungoikoak lurra, eta uren biltzarreai deitu zien itsasoak. Eta ikusi zuen Jaungoikoak ona zala.
11. Eta esan zuen: Eman beza lurrak belar berdea eta azia dakarrena eta landare frutu emalleak, ematen dutenak frutua beren moten araura, eta beren azia beretan izan bedi lurraren gañean. Eta ala egin zan.
12. Eta eman zuen lurrak belar berdea, eta azia zekarrena bere motaren araura, eta zuaitz frutua zekarrena, eta bakoitzak azia zuena bere motaren araura. Eta ikusi zuen Jaungoikoak ona zala.
13. Eta arratsalde ta goizarekin egin zan irugarren eguna.



14. Esan zuen berriz Jaungoikoak: Egin bitez argikariak zeruko firmamenduan, berezkatzeko eguna eta gaua, eta izan ditezten denboren, eta egunen eta urteen ezagungarriak.

15. Distia dezen zeruko firmamenduan, eta argitu dezen lurra. Eta ala egin zan.

16. Eta egin zituen Jaungoikoak argikari andi bi: argikari andiagoa eguna argitzeko; eta argikari txikiagoa gaua argitzeko; eta izarrak.

17. Eta paratu zituen zeruko firmamenduan, distia zitezten lurraren gañean;

18. Eta argitu zitzaten eguna eta gaua, eta berezitu zezaten argia illuntasunetatikan. Eta ikusi zuen Jaungoikoak ona zala.

19. Eta egin zan arratsalde, eta goizarekin laugarren eguna.

20. Eta esan ere zuen Jainkoak: Egin bitzate urak arras anima bizi-koak, eta egaztiak lurraren gañean, eta zeruko firmamenduaren azpian.

21. Egin zituen bada Jaungoikoak bale andiak, eta beren moten araura uretan sorturikako arrai bizia duten eta mugitzen diran guztiak, eta egazti guztiak beren moten araura. Eta ikusi zuen Jaungoikoak ona zala.

22. Eta bedeikatu zituen Jaungoikoak, esaten zuela: Azi eta ugaritu zaitezte, eta bete itzatzute itsasoko urak, eta ugaritu bitez egaztiak lurraren gañean.

23. Eta arratsalde eta goizarekin egin zan bostgarren eguna.

24. Esan zuen ere Jaungoikoak: Egin bitza lurak abere biziak bere motan, etxe abere, eta arrastakari, eta baso abere lurrekoak, beren moten araura. Eta onela egin zan.

25. Eta egin zituen Jaungoikoak lurreko zamariak beren moten araura, eta abereak eta lurreko arrastakari guztiak beren motetan. Eta ikusi zuen Jaungoikoak ona zala,

26. Eta esan zuen: Egin dezagun gizona geure antz eta irudira, eta agindu bitzaie itsasoko arraiak, eta zeruko egaztiai, eta baso abereak, eta lur guztian, eta lurrean mugitzen dan arrastakari guztiari.

27. Eta egin zuen Jaungoikoak gizona bere irudira: Jaungoikoaren irudira egin zuen. Egin zituen gizasemea eta emakumea.

28. Eta bedeikatu zituen Jaungoikoak, eta esan zien: Azi, ta ugaritu zaitezte, eta bete ezazute lurra, eta menderatu ezazute, eta agindu zaiezute itsasoko arraiak, eta zeruko egaztiai, eta lurraren gañean mugitzen diraden abere guztiak.

29. Eta Jaungoikoak esan zuen: Ona non eman dizutedan lurraren gañean azia dakarren belar guztia, eta bere motaren azia berengan duten zuaitz guztiak, izan ditezten zuen janaria.

30. Eta lurreko abere guztiak, eta zeruko egazti guztiak, eta lurrean mugitzen diran guztiak, eta zeñetan dan anima bizia, iduki dezaten jateko. Eta ala egin zan.

31. Eta ikusi zituen Jaungoikoak egin zituen gauza guztiak, eta zira-den txit onak. Eta arratsalde eta goizarekin egin zan seigarren eguna.

BIGARREN KAPITULUA

1. Gelditu ziraden bada bukatuak zeruak eta lurra, eta beren apainduria guztia.

2. Eta osotu zuen Jaungoikoak zazpigarren egunean bere lan egin zuena: eta atsedean zuen zazpigarrenean egin zituen lan guztietatikan.

3. Eta bedeikatu zuen zazpigarren eguna eta santutu zuen; zeren beratan utzi zien Jaungoikoak osoz bukatu artean egin zituen lan guztiak.

4. Au da zeruen eta lurraren jatorria, egiñak izandu ziranean, Jaun Jaungoikoak egin zituen egunean zerua eta lurra.

5. Eta kanpoko landare guztiak, lurrean erne baño lenago, eta lurreko belar guztia moteatu baño lenago; zeren oraindikan etzuen euririk egin Jaun Jaungoikoak lurraren gañean; etzan ere gizonik lurra landutzeko.

6. Baña lurretikan igotzen zan iturri bat, lurraren gain guztia erregatzen zuena.

7. Egin zuen bada Jaun Jainkoak gizona lurrezko loiarekin, eta bota zion bere arpegira bizitzako arnasea eta gelditu zan gizona anima biziarekin.

8. Jarri zuen berriz Jaun Jainkoak asieratikan gozotasuneko paradisuak, zeñean ipiñi zuen egin zuen gizona.

9. Eta Jaun Jainkoak emanerazi zion lurrari zuaitz guztia begiz ederra eta jateko gozoa: baita bizitzako zuaitza paradisuaren erdian, eta jakinduria onaren eta gaitzaren zuaitza.

10. Eta ibai bat ateratzen zan gozotasuneko tokitikan paradisuarengatzeko, andik lau zati egiten zana:

11. Batarri deritza Fison: au da ingurutzen duena Hebilatko erri guztia, non jaiotzen dan urrea;

12. Eta toki artako urrea txit ederra da: an arkitzen da bdelioa (sic) eta arri zaintistea.

13. Eta bigarren ibaiaren izena Jehon: au da ingurutzen duena Ethiopiako erri guztia.

14. Irugarren ibaiaren izena berriz Tigris: au dijoa Asirioen alde-rontz. Eta laugarren ibaia da Eufrates.



15. Eraman zuen bada Jaun Jainkoak gizona, eta jarri zuen gozotasu-neko paradisuan, landu eta zaitu zezan:

16. Eta agindu zion esaten ziola: Jan ezazu paradisuko zuaitz guzietatik;

17. Jakinduria onaren eta gaitzaren zuaitzetik ordea ez ezazu jan: zeren beratatikan jaten dezun edozein egunean ilko zera.

18. Esan ere zuen Jaun Jainkoak: Ez da ongi gizona bakarrik egotea: egin zaiogun bere antzeko laguna.

19. Egiñik bada Jaun Jainkoak lurrarekin lurreko abere guztiak, eta zeruko egazti guztiak, eraman zituen Adan gana, ikusi zezan zer izen ipiñiko zien; zeren Adanek abere bizi guztiari ipiñi zion izena, ori da bere izen adjutua.

20. Eta deitu zien Adanek beren izenakin abere guztai, eta zeruko egazti guztai, eta lurreko etxeabere guztai: Adanentzat ordea etzan arkitzen beraren antzeko lagunik.

21. Argatik Jaun Jainkoak lo pisu batetan ipiñi zuen Adan: lo onetan zetzala, kendu zion saiets ezur bat, eta bete zuen aragiz onen lekua.

22. Eta egin zuen Jaun Jainkoak emakumea, Adani kendu zion saiets ezur onekin, eta eraman zuen Adan gana.

23. Eta esan zuen Adanek: Au da nere ezurren ezurra, eta nere aragiaren aragia: oni deituko zaio gizaemea, zeren gizaarra gandikan izan da artua.

24. Argatik utziko ditu gizonak bere aita, eta ama, eta itsatsiko zaio bere emazteari, eta izango dirade bi aragi batean.

25. Zeuden berriz biak billosik, au da, Adan eta bere emaztea, eta etziran lotsatzen.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Baña sugea zan Jaun Jainkoak egin zituen lurreko abere guztiak baño malmutsagoa. Onek esan zion emakumeari: Zergatik agindu dizute Jaungoikoak ez dezazutela jan paradisuko zuaitz guzietatik?

2. Zeñi erantzun zion emakumeak: Paradisuan dauden zuaitzetako frututik jaten degu;

3. Baña paradisuaren erdian dagoen zuaitzeko frututik agindu zigun Jaungoikoak ez jateko, eta ukiturik ere berari ez egiteko, ill ez gaitzen.

4. Esan zion orduan sugeak emakumeari: iñolaere etzerate illko.

5. Badaki ezen Jaungoikoak aratetik jaten dezuten edozein egunean, idikiko diradela zuen begiak, eta izango zerate Jaungoikoak bezelakoak, dakizutela ona eta gaitza.

6. Ikusi zuen bada emakumeak zuaitza ona zala jateko, eta begientzat ederra, eta irudiz gozagarria, eta artu zuen bere frututik, eta jan zuen; eta eman zion bere senarrari, zeñak jan zuen.

7. Eta zabaldu ziran bien begiak; eta ezagutu zutenean billosik zeudela, josi zituzten piku ostoa batzuek, eta egin zituzten berentzat galtxatxuriak.

8. Eta aditu zutenean Jaun Jainkoaren paradisuan zebillanaren boza aizean egerdi ostean, ezkutatu ziran Adan eta bere emaztea Jaun Jainkoaren begietatik paradisuko zuaitzen erdian.

9. Eta deitu zion Jaun Jainkoak Adani eta esan zion: Non zera?

10. Berak erantzun zuen: Aditu det zure boza paradisuan, eta beldur izan naiz billosik nengoalako, eta ezkutatu naiz.

11. Zeñari esan zion: Nork bada erakutzi dizu billosik zeundela, baizikan jan dezulako, ez jateko agindu nizun zuaitzetik?

12. Erantzun zion Adanek: Laguntzat eman didazun andreak eman dit zuaitzetik, eta jan det.

13. Eta esan zion Jaun Jainkoak emakumeari: Zergatik au egin dezu? Berak erantzun zion: Sugeak engañatu nau eta jan det.

14. Eta esan zion Jaun Jainkoak sugeari: Au egin dekalako madarikatua izango aiz abere eta lurreko zamari guztien artean: ire sabelaren gañean ibilliko aiz, eta lurra jango dek ire biziko egun guztietan.

15. Neronek ipiñiko zetikat etsaitasunak ire eta emakumearen artean, eta ire arrazaren eta aren jatorriaren artean. Berak lertuko dik ire burua, eta i ibilliko aiz aren orpoaren zelatan.

16. Emakumeari ere esan zion: Ugarituko ditut zure nekeak eta izor zeran denborako zure oñazeak: miñez aurrak egingo dituzu, eta egongo zera gizonaren mendean, eta onek aginduko dizu.

17. Adani berriz esan zion: Aditu dezulako zure emaztearen boza, eta jan dezulako ez jateko agindu nizun zuaitzetik, madarikatua izan bedi lurra zugatik: neke andiak aterako dezu beratatik janaria zure bizitzako egun guztietan.

18. Arantzak eta sasilarrak emango dizkitzu, eta jango dezu lurreko belarra.

19. Zure arpegiko izerdiarekin jango dezu ogia, itzuli zaitezen bitartean lurrera, nondik izan ziñan artua; zeren autsa zera eta auts biurtuko zera.

20. Eta Adanek bere emazteari ipiñi zion izena da Eba, bizi guztien ama izango zalako.



21. Baitaere egin ziezten Jaun Jainkoak Adani eta bere emazteari larruzko tunikak, eta jantzi ziezten:

22. Eta esan zuen: Ona non Adan egin dan geu bezelako bat, dakiala ona eta gaitza: orain jaso ez dezan bere eskua, eta artu ere ez dezan bizitzako zuaitzetik, eta jan ez dezan, eta bizi ez dedin beti.

23. Eta bota zuen Jaun Jainkoak atsegiñezko paradisuatik, landu zezan lurra, zeñatetik izan zan egiña.

24. Eta aurtiki zuen Adan, eta ipiñi zuen atsegiñezko paradisuaren aurrean Kerubin bat suzko ezpata jirakor batekin zaitzeko bizitzako zuaitzerako bidea.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Adanek ordea ezagutu zuen bere emazte Eba: au izortu zan eta erdi zuen Kain, esaten zuela: Izan det aurseme bat Jaungoikoaren graziaz.

2. Eta bigarrenez erdi zuen onen anaia Abel. Abel izan zan arzaia, eta Kain nekazaria.

3. Eta gertatu zan igarorik egun asko, eskeintzea Kainek Jaunari emaitzak lurreko frutuetatik.

4. Abelek ere eskeñi ziozkan bere artaldeko lenenetatik eta beren gizenenetatik: eta begiratu zion Jaungoikoak oniritziz Abeli, eta bere eskeñiai.

5. Kaini berriz eta bere eskeñiai ez zien begiratu oniritziz, eta txit aserretu zan Kain, eta jarri zan arpegia berontz zuela.

6. Eta esan zion Jaunak: Zergatik aserretu zera? Eta zergatik zure arpegia dago berontz begira?

7. Ongi egiten badezu, ez al dezu artuko ordaña? Gaizki egiten badezu berriz, ez al da bereala jarriko pekatua zure begien aurrean? Baña bere naia egongo da zure mendean, eta zuk aginduko diozu.

8. Eta esan zion Kainek bere anaia Abeli: Goazen kanpora. Eta kanpoan zeudela, jaiki zan Kain bere anaia Abelen kontra, eta ill zuen.

9. Eta Jaunak esan zion Kaini: Non da Abel zure anaia? Zeñak erantzuen: Ez dakit! nere anaiaren gordetzaldea al naiz ni?

10. Eta esan zion Jaunak: Zer egin dezu? Zure anaiaren odola deardarrez dagokit lurretik.

11. Orain bada madarikatua izango zera lurraren gañean, zeñak idiki zuen bere aoa, eta artu zuen zure anaiaren odola zure eskutik.

12. Landutzen dezunean ez dizkitzu emango bere frutuak: orron ta igesian biziko zera lurraren gañean.

13. Eta esan zion Kainek Jaunari: Andiagoa da nere gaitakeria, barkazioaren diña ni izateko baño.

14. Ona non botatzen nazun gaur lur onetatik, eta ezkututuko naiz zure begietatik, eta ibilliko naiz orron eta igesi lurrean: arkitzen nauen edozeñek bada, illko nau.

15. Eta esan zion Jaunak: iñolaere ez da ala izango, baizik baldin iñork illko balu Kain, zazpi bidar geiago kastigatua izango da. Eta ipiñi zion Jaunak Kaiñi sen bat ill ez zezan arkitzen zuanek.

16. Eta aterarik Kain Jaunaren aurretik, bizi izan zan igesian lurrean Edenen sortaldeko aldamenean.

17. Ezagutu zuen bada Kainek bere emaztea, zeñ izortu zan, eta erdi zuen Henok; eta egin zuen erri bat, eta ipiñi zion bere semearen izena Henok.

18. Eta Henok gandik izan zan sortua Irad, eta Irad gandik izan zan sortua Mabiel, eta Mabiel gandik izan zan sortua Matusael, eta Matusael gandik izan zan sortua Lamek.

19. Onek artu zituen bi emazte: bataren izena da Ada, bestearen izena Sela.

20. Eta Ada gandik izan zan sortua Jabel, zeñ izan zan etxaoletan bizi diranen eta artzaian aita.

21. Eta bere anaiaren izena da Jubal: au izan zan zitaran eta organuan kantatzen dutenen aita.

22. Sela gandik ere sortua izan zan Tubalkain: au izan zan mallukaria eta kobrezko eta burnizko lan guztien egillea. Tubalkainen arreba berriz Noema.

23. Eta esan zion Lamekek bere emazte Ada eta Selari: Aditu ezazute nere boza, Lameken emazteak; entzun itzatzute nere itzak: Neronek ill det gizon bat egin nion zauri batekin, eta gaztetxo bat eman nion kolpearekin.

24. Kain iltzen duena izango bada kastigatua zazpi bidar geiagorekin; Lamek iltzen duena izango da irurogeitaamar zazpi bidar.

25. Adanek oraindik ezagutu zuen bere emaztea, eta erdi zuen semea, eta ipiñi zion izena da Set, esaten zuela: Eman dit Jaungoikoak beste seme bat Kainek ill zuen Abel gatik.

26. Baita Seti ere jaio zitzaion seme bat, zeñi deitu zion Enos. Au asi zan Jaunaren izenari otsegiten.



BOSTGARREN KAPITULUA

1. Au da Adanen jatorria: Jaungoikoak gizona egin zuen egunean, Jaungoikoaren antzera egin zuen.
2. Gizasemea eta emakumea egin, eta bedekatu zituen; eta egiñak izan ziran egunean ipiñi zien izena Adan.
3. Bizi izan zan Adan eun eta ogeita amar urtean, eta izan zuen seme bat bere antz eta idurikoa, eta ipiñi zion izena da Set.
4. Adanen egunak, Set izan zuen ezker, izan ziran zortzireun urte; eta izan zituen semeak eta alabak.
5. Eta ala Adan bizitu izan zan denbora guztia dira bederatzireun eta ogeita amar egun, eta ill zan.
6. Eta Set bizitu zan eun eta bost urtean, eta izan zuen Enos.
7. Set, Enos izan zuen ezker, bizitu zan zortzireun eta zazpi urtean, eta izan zituen semeak, eta alabak.
8. Eta Seten egun guztiak izan ziran bederatzireun eta amabi urte, eta ill zan.
9. Enos bizitu zan larogeita amar urtean, eta izan zuen Kainan.
10. Au jaio ezker bizitu zan zortzireun eta amabost urtean, eta izan zituen semeak eta alabak.
11. Eta Enosen egun guztiak izan ziran bederatzireun eta bost urte, eta ill zan.
12. Bizi ere zan Kainan irurogeita amar urtean, eta izan zuen Malaleel.
13. Eta bizitu zan Kainan, Malaleel izan zuen ezker, zortzireun eta berrogei urtean, eta izan zituen semeak eta alabak.
14. Eta Kainanen egun guztiak etorri ziran izatera bederatzireun eta amar urte, eta ill zan.
15. Eta Malaleel bizitu zan irurogei ta bost urtean, eta izan zuen Jared.
16. Eta Jared izan ezker, bizi izan zan Malaleel zortzireun eta ogeita amar urtean, eta izan zituen semeak eta alabak.
17. Eta Malaleelen bizi guztia izan zan zortzireun eta larogeita amar urtekoa, eta izan zituen semeak eta alabak.
18. Eta bizitu zan Jared eun eta irurogei ta bi urtean, eta izan zuen Enok.
19. Eta bizitu zan Jared, Enok izan zuen ezker, zortzireun urte, eta izan zituen semeak eta alabak.
20. Eta ala Jareden bizi guztia izan zan bederatzireun eta irurogeita bi urtekoa, eta ill zan.

21. Eta bizitu zan Enok irurogei ta bost urtean, eta izan zuen Matusalen.
22. Eta Enok ibilli zan Jaungoikoarekin; eta bizitu zan, Matusalen izan zuen ezker, irureun urte, eta izan zituen semeak eta alabak.
23. Eta Enoken egun guztiak izan ziran irureun eta irurogei eta bost urte.
24. Eta jarraitu zion Jaungoikoarekin ibiltari; eta ezkutatu zan; zeren Jaungoikoak eraman zuen.
25. Matusalen bizi izan zan eun eta larogei eta zazpi urtean, eta izan zuen Lamek.
26. Eta bizitu zan Matusalen, Lamek izan zuen ezker, zazpireun eta larogei eta bi urte, eta izan zituen semeak eta alabak.
27. Eta Matusalenen egun guztiak allegatu ziran bederatzireun eta irurogei eta bederatzirter, eta ill zan.
28. Eta bizitu zan Lamek eun eta larogei eta bi urte, eta izan zuen seme bat,
29. Eta oni deitu zion Noe, esaten zuela: Onek gozatuko gaitu geure eskuen neke eta lanetan, Jaungoikoak madarikatu zuen lur onetan.
30. Eta bizitu zan Lamek, Noe izan zuen ezker, bosteun eta larogei eta amabost urtean, eta izan zituen semeak eta alabak.
31. Eta Lameken egun guztiak izan ziren zazpireun eta irurogei eta zazpi urte, eta ill zan. Noe berriz zala bost eun urtekoa, izan zituen Sem, Kam, eta Jafet.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Asi ezker bada ugaritutzen gizonak lurraren gañean, eta idukirik alabak;
2. Ikusirik Jaungoikoaren semeak ederrak zirala gizonen alabak, artu zituzten emaztetzat, ongien zeritzenak.
3. Eta esan zuen Jaungoikoak: Ez du iraungo beti nere espirituak gizonagan, aragikoia dalako; eta bere egunak izango dira eun eta ogei urte.
4. Egund aietan berriz baziraden erraldoeak lurraren gañean. Zeren naasi ziran ezker Jaungoikoaren semeak gizonen alabakin, eta oiek izortu, oiek dira anziñako denboretako errutsu ospe andiko gizonak.
5. Ikusirik berriz Jaungoikoak andia zala gizonen gaistakeria lurrean, eta bere biotzeko gogorazio guztiak zeudela makurtuak gaitzera, denbora guztian,
6. Damutu zitzaion gizona egin izatea lurrean. Eta biotz barrendiko garbai batekin;



7. Kenduko det, esan zuen, lurraren gañetik egin nuen gizona, gizona gandik abereetaraño, arrastakaritik zeruko egaztietaraño; zeren damu det berak egiña.

8. Noek berriz arkitu zuen onginaia Jaungoikoaren aurrean.

9. Oiek dirade Noeren semeak: Noe gizon ona ta ohea izan zan bere denboran; Jaungoikoarekin ibilli zan.

10. Eta izan zituen iru seme, Sem, Kam eta Jafet.

11. Lurra berriz zegoan Jaungoikoaren aurrean ustelduta, eta gaizta-keriaz beterik.

12. Ikusirik bada Jaungoikoak lurra zegoala usteldurik, zeren lurraren gañean bizi ziran guztiak gaiztotu ziran,

13. Esan zion Noeri: Allegatua da neronek izentaturik nuen denbora, bukatzeko gizon guztiak: betea da lurra beren gaiztakeriaz; eta neronek galduko ditut lurrarekin.

14. Egin ezazu zuretzat kutxa bat zur garlopatuakin: gelatxoak egin dituzu kutxan, eta betunarekin igortzi barrendikan eta kanpotikan.

15. Eta onela egingo dezu: Kutxaren luzeera izango da irureun beso, zabalera berrogeita amar beso, eta beraren altuera ogei eta amar beso.

16. Egingo diozu kutxari leio bat, eta bere gallurra bukatuko dezu beso batean: kutxaren atea berriz ipiñiko dezu aldamenetik, eta egingo dituzu beratan iru bizitza, bat bean, bestea erdian, eta bestea goian.

17. Eta ona nik ekarriko ditut lurraren gañera ugoaldeko urak, iltzeko zeruaren azpian bizitzako espiritua duen aragi guztia. Lurrean dauden gauza guztiak, galduko dirade.

18. Baña ni zurekin batuko naiz, eta sartuko zera kutxan zu, eta zurekin zure semeak, zure emaztea eta zure semeen emazteak.

19. Eta sartuko dituzu kutxan abere mota guztietatik bi, arra eta emea, zurekin bizi ditezten.

20. Egaztietatik bere motaren araura, eta zamarietatik bere motan, eta lurreko arrastakari guztietatik bere motaren araura: bakoitzetik bi sartuko dira zurekin, bizi ditezken.

21. Eramango dituzu bada zurekin jan al ditezken janari guztiak, eta ipiñiko dituzu zeure bizitokian; eta au izango da zuen eta aien janaria.

22. Egin zuen bada Noek Jaungoikoak agindu zion guztia.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Esan zion gero Jaunak: Sartu zaite zu eta zure etxeko guztiak kutxan, zeren zu arkitu zaitut onik nere aurrean gizaldi onetan.

2. Abere garbi guztietatik artuko dituzu zazpiña, arra eta emea; abere loietatik berriz biña, arra eta emea.

3. Eta orobat zeruko egaztietatik zazpiña, arra eta emea, iraun dezan bere kastak lur guztiaren gañean.

4. Zeren emendikan zazpi egunera neronek eragingo det euria lurraren gañean berrogei egunean eta berrogei gautan, eta galduko ditut lurraren gañean egin nituen gauza guztiak.

5. Egin zuen bada Noek Jaunak agindu zion guztia.

6. Zeuzkan Noek seireun urte ugoaldeko urak igo zutenean lurra ezkutetaraño.

7. Eta sartu zan Noe kutxan ugoaldeko urak gatik, eta berarekin bere semeak, bere emaztea eta bere semeen emazteak.

8. Orobat abere garbi ta loietatik, eta egaztietatik eta lurraren gañean mugitzen diran guztietatik.

9. Sartu zizkion Noeri kutxan bina, arra eta emea, Jaunak Noeri agindu zion bezela.

10. Eta igaro ziradenean zazpi egun, ugoaldeko urak igo zuten lurra ezkutetaraño.

11. Noek seireun urte zituanean, bigarren illean, illaren amazapi garren egunean, urratu ziran lize andiko iturri guztiak, eta idiki ziran zeruko uarkak:

12. Eta egin zuen euria lurraren gañean berrogei egunean eta berrogei gautan.

13. Egun artako epe izentatuan sartu zan Noe, eta bere seme Sem, Kam eta Jafet, aren emaztea, eta bere semeen iru emazteak berarekin kutxan.

14. Berak, eta abere guztiak beren moten araura, eta zamari guztiak, beren moten araura, eta lurrean mugitzen dan guztia, bere motan, eta egazti guztiak beren moten araura, eta luma abere mota guztia, eta egoak dauzkan guztia.

15. Sartu ziraden Noe gana kutxara biña biñan bizitzako espiritua zuen aragi guztitik.

16. Eta sartu ziradenak sartu ziraden arra ta emea aragi guztitik, Jaungoikoak agindu zion bezela; eta Jaunak itxi zion kanpoko aldetik.

17. Orduan etorri zan berrogei eguneko ugoaldea lurraren gañera; eta azi ziran urak, eta eraman zuten kutxa lurretik txit gora;

18. Zeren urak txit andizkiro azi ziran, eta ezkutatu zuten lurraren gañean zegoan guztia: kutxa berriz zebillan uren gañean.



19. Eta urak igo zuten txit geiegi lurraren gañean, eta estaliak izan ziran mendirik altuen guztiak zeru guztiaren azpian.

20. Amabost beso altuagora allegatu zan ura, estalirik zeuzkan mendiak baño.

21. Eta galdu zan, lurraren gañean mugitzen zan aragi guztia, egaztiena, abereena, zamariena eta lurraren gañean biurka dabiltzan arrastakari guztiena: gizonak guztiak.

22. Eta lurraren gañean bizitzako asnasea duen guztia guztia galdu zan.

23. Eta desegin zituen lurraren gañean bizi ziran guztiak gizona gan-dik zamarietaraño, bai arrastakariak, eta bai zeruko egaztiak: eta etzan gelditu lurrean beren lorratzik ere bakarrik gelditu zan Noe, eta berarekin kutxan zeudenak.

24. Eta egon ziran urak lurraren gañean eun eta berrogei eta amar egunean.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Oroiturik berriz Jaungoikoa Noerekin, eta berarekin kutxan zeuden abere guztiakin, eta zamari guztiakin, atera zuen aizea lurraren gañean, eta gutxitu ziran urak.

2. Eta itxi ziraden lizeko iturriak, eta zeruko uarkak; eta galerazi zitzaieten jexiera zeruko euriai.

3. Eta biurtu ziran urak lurretik zijoazela eta zetoztela; eta asi ziran gutxitzen igarorik eun eta berrogei ta amar egun.

4. Eta gelditu zan kutxa zazpigarren illean, illaren ogei eta zazpi garren egunean, Armeniako mendien gañean.

5. Urak berriz bazijoazen eta gutxitzen ziran amargarren illeraño; zeren amargarren illean, illaren lelengo egunean, agertu ziran mendien tontorrak.

6. Eta igarorik gero berrogei egun, idikirik Noek egin zuen kutxako leioa, belea bialdu zuen.

7. Au aterarik, etzan itzuli legortu arteraño urak lurraren gañean.

8. Onen ondoren bialdu zuen usoa ere, ikusi zezan aitu bai al ote ziraden urak lurraren gañean.

9. Ez arkiturik onek non ipiñi bere oña itzuli zan beragana kutxara; zeren oraindikan urak zeuden lur guztiaren gañean; eta luzatu zuen eskua, eta eldurik sartu zuen kutxan.

10. Itxedonik oraindikan beste zazpi egun, berriz bialdu zuen usoa kutxatik.

11. Bera berriz etorri zan beragana, zekarrela bere mokoan oliboaren adar bat ostoa berdeakin. Aditu zuen bada Noek alde egin zutela urak lurraren gañetik.

12. Itxedon zuen alaere beste zazpi egun; eta bota zuen usoa; au etzan biurtu geiago beragana.

13. Seireun eta lenengo urtean bada, lenengo illean, illaren lenengo egunean, alde egin zuten urak lurraren gañetik, eta idikirik Noek kutxaren tapa, begiratu eta ikusi zuen leortu zala lurraren gaña.

14. Bigarren illean, illaren ogei eta zazpigarren egunean, leortu zan lurra.

15. Orduan itz egin zion Jaungoikoak Noeri, esaten zuela:

16. Atera zaitte kutxatik zu eta zure emaztea; zure semeak eta zure semeen emazteak zurekin.

17. Atera itzatzu ere zurekin daukazun abere guztiak, kasta guztikoak, naiz egaztietan, naiz zamarietan, eta lurraren gañean arrastaka dabiltzan arrastakari guztietan, eta atera zaitzte lurraren gañera: azi eta ugaritu zaitzte bere gañean.

18. Irten zan bada Noe, eta bere semeak; aren emaztea, eta bere semeen emazteak, berarekin.

19. Baita ere irten ziran kutxatik abere guztiak, zamariak eta lurraren gañean biurtean dabiltzan arrastakariak, beren moten araura.

20. Eta egin zion Noek aldare bat Jaunari, eta arturik abere eta egazti garbi guztietatik, eskeñi ziozkan ofrendak aldarearen gañean.

21. Eta usai egin zion Jaunak usai gozoak, eta esan zuen: iñolaere ez det geiago madarikatuko lurra gizonak gatik; zeren gizonaren biotzaren zentzuna eta gogorazioa gaitzera makurtuak daude bere gaztetasunetik; ez det bada geiago kastigatuko anima bizi guztia egin dedan bezela.

22. Mundua mundu dan artean, ereiteak eta itaiteak, otzak eta beroak, udak eta neguak, gauak eta egunak, elkarri jarraituko die.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Gero bedeikatu zituen Jaungoikoak Noe eta bere semeak, eta esan zien: Azi eta ugaritu zaitzte, eta bete ezazute lurra.

2. Eta zuen izu ta ikara izan bedi lurreko abere guztien gañean, eta zeruko egazti guztien gañean, lurraren gañean mugitzen diran guztiakin.

3. Eta mugitzen eta bizi dan guztia, izango da zuen janaria; barazki berdea bezela eman nizuten guztia.

4. Salbu ez dezutela jango aragia odolarekin.



5. Zeren billatuko det zuen animen odola abere guztien eskutik; eta billatuko det gizonaren anima, gizonaren eskutik, gizasemearen, eta bere anaiaren eskutik.

6. Isuria izango da, gizonaren odola isurtzen duen edozeñen odola; zeren gizona egiña izan zan Jaungoikoaren antzera.

7. Zuek berriz azi, eta ugaritu, eta sartu zaitzete lurraren gañean eta bete ezazute.

8. Oiek ere esan ziezten Jaungoikoak Noeri eta berarekin bere semeai:

9. Ona nik egingo det nere elkartasuna zuekin eta zuen jatorriarekin zuen ondorik.

10. Eta zuekin dan anima bizi guztiarekin, naiz egaztiakin, naiz kutxatik atera ziran lurreko zamari eta abere guztiakin, eta lurreko pistia guztiakin.

11. Egingo det nere elkartasuna zuekin, eta iñolaere geiago ez da illa izango aragi guztia ugoldeko urakin; ez da ere izango emendik aurrera lurra galtzen duen ugolderik.

12. Eta esan zuen Jaungoikoak: Au da nere eta zuen, eta zuekin arkitzen dan anima bizi guztien artean betiko gizaldietarako egiten dedan alkartasunaren señailea.

13. Ipiñiko det nere uztaiā odeietan, eta izango da nere arteko eta lurraren arteko alkartasunaren señailea;

14. Eta estalitzen dedanean zerua odeiak, agertuko da nere uztaiā odeietan:

15. Eta oroituko naiz zuekin eta aragia bizitutzen duen anima bizi guztiarekin dedan nere elkartasunarekin; eta ez da berriz izango ugoldeko urik aragi guztia galtzeko.

16. Eta egongo da uztaiā odeietan, eta ikusiko det, eta oroituko naiz Jaungoikoaren eta lurraren gañean dan aragi guztiaren, anima bizi guztiaren artean egiña dagoan betiko elkartasunarekin.

17. Eta esan zion Jaungoikoak Noeri: Au da nere eta lurraren gañean bizi dan aragi guztiaren artean egiña dagoan elkartasunaren señailea.

18. Ziran bada kutxatik atera ziraden Noeren semeak Sem, Kam eta Jafet; Kam, au da Kanaanen aita.

19. Iru oiek dirade Noeren semeak; eta oietatik zabaldu ziran gizon guztiak lur guztiaren gañean.

20. Eta asi zan Noe, gizon nekazaria, lurra landutzen eta ipiñi zuen masti bat.

21. Eta edanik ardoa, orditu zan, eta billostu bere bizilekuaren erdian.

22. Au ikusirik Kam, Kanaanen aitak, au da, bere aitaren lotsariak zeudela agirian, aterarik kanpora, esan zien bere anaia bai.

23. Sem, eta Jafetek berriz kapa ipiñi zuten beren solbardetan, eta ibi-llirik atzerontz, estali zituzten bere aitaren lotsariak; eta beren arpegiak itzuliak zeuden, eta aitaren lotsariak ez zituzten ikusi.

24. Eta esnaturik Noe ordikeriatik, jakin zuenen zertzuk egin zizkion bere seme txikiagoak,

25. Esan zuen: Madarikatua Kanaan; bere anaien mendekoen mendekoa izango da.

26. Eta esan zuen: Bedeikatua Jauna Semen Jaungoikoa; Kanaan izan bedi bere mendekoa.

27. Zabaldu beza Jaungoikoak Jafet, eta bizi bedi Semen bizilekuetan, Kanaan izan bedi bere mendekoa.

28. Bizi izan zan Noe ugoldea igarota irureun eta berrogeita amar urtean.

29. Eta ala, bere egun guztiak izan ziran bederatzireun eta berrogeita amar urte; eta ill zan.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Oiek dirade Noeren semeen, Sem, Kam eta Jafeten ondokoak; eta jaiō zitzaiezten semeak ugoldearen ondoren.

2. Jafeten semeak: Gomer, eta Magog, eta Madai, eta Jaban, eta Tubal, eta Mosok, eta Tiras.

3. Gomerren semeak: Aszenez eta Rifat, eta Togorma.

4. Jabanen semeak: Elisa eta Tarsis, Zetim eta Dodanim.

5. Oiek partitu zituzten jenedien ugarteak beren alderrietan, bakoitzak bere izkuntzaren eta beren familien araura beren jendeetan.

6. Kamen semeak izan ziran: Kuz, eta Mezraim, eta Fut, eta Kanaan.

7. Kusen semeak: Saba, eta Hebila, eta Sabata, eta Sabataka. Regmarren semeak: Saba, eta Dodan.

8. Eta Kusgandik izan zan sortua Nemrod, au asi zan izaten altsua lurrean,

9. Eta zan eiztari indartsua Jaunaren aurrean. Emendik etorri zan esaera: Nemrod bezela eiztari indartsua Jaunaren aurrean.

10. Eta bere erreinuaren asiera izan zan Babilonia, eta Arak, eta Akad, eta Kalane, Senaarko lurrean.

11. Erri atatik irten zan Asur, eta egin zuen Ninibe, eta erriko plazak, eta kale.

12. Baitaere Resen, Ninibe eta Kaleren artean, au da erri andia.



13. Eta Mesraimek izan zituen Ludim, eta Anamim, eta Laabim, eta Neftuim,

14. Eta Petrusim, eta Kasluim, zeñatatakan atera ziran Filisteoak eta Kaftoreoak.

19. Eta Kanaanen mugak ziran datoztenak bezela Sidondik Jerarara Gaza artean, sartu artean Sodomán eta Gomorran, eta Seboimen, Lesa artean.

20. Oiek dirade Kamen semeak beren senitarte, eta izkuntza, eta jatorri, eta erri eta erreinuen araura.

21. Sem gandik ere, Heberren seme guztien aita gandik, Jafeten anaia nagusia gandik, jaio ziran semeak.

22. Semen semeak: Elam, eta Asur, eta Arfaxad, eta Lud, eta Aram.

23. Aramen semeak: Us, eta Hul, eta Jeter, eta Mes.

24. Arfaxadek berriz izan zuen Sale, zeñ gandik jaio zan Heber.

25. Heberri jaio zitzaiozkan bi seme: bataren izena Faleg, bere egunetan lurra partitu zalako; eta bere anaiaren izena Jektan.

26. Jektan onegandik izan zan sortua Elmodad, eta Salef, eta Asarmot, eta Jare,

27. Eta Aduram, eta Uzal, eta Dekla,

28. Eta Ebal, eta Abimael, eta Saba,

29. Eta Ofir, eta Hebila, eta Jobab; oiek guztiok dirade Jektanen semeak.

30. Eta oien bizilekua izan zan Mesatik sortaldeko mendi Safarrera-giño.

31. Oiek dirade Semen semeak beren senitarte, eta izkuntza, eta errien araura, beren erreinuetan.

32. Oiek Noeren familiak beren erri eta erreinuen araura. Oietatik zabaldu ziran jendeak lurrean ugoderean ondoan.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Zan berriz lurra izketa batekoa, eta itz bat batzuetakoa.

2. Eta atera ziradenean sortaldetik, arkitu zuten lur bat Sennaarko lurrean, eta gelditu ziran an egotez.

3. Esan zien elkarri: Atozte, egin ditzagun adrilluak, eta egosi ditzagun suan. Eta baliatu ziran adrilluakin arrien tokian, eta betunarekin kareoraiaren tokian;

4. Eta esan zuten: Atozte, egin dezagun erri, eta dorre bat, zeñaren erpiña allegatzen dan zeruragiño, eta dezagun geure izena mundu guztitik zabaldu gaitetzten baño lenago.

5. Eta jetxi zan Jauna ikustera, Adanen semeak egiten zuten erri eta dorrea.

6. Eta esan zuen: Ona, bat da erria, eta izketa bat dute guztiak; eta asi dirade au egiten, eta ez dirade atzeratuko beren gogorazioetatik, bukatu ditzaten bitartean.

7. Atozte bada, jetxi gaitezen, eta naasi dezagun an beren izketa, aditu ez dezan batak bestearen itza.

8. Eta onela zabaldu zituen Jaunak toki artatikan mundu guztitik, eta utzi zioten erria egiteari.

9. Eta orregatik deitu zitzaion izena Babel, zeren an izan zan naasia mundu guztiko izkuntza erreinu guztien gañetik:

10. Au da Semen jatorria: Sem zan eun urtekoa izan zuenean Arfaxad, urte bi ugoderean ondoan.

11. Eta bizi izan zan Sem, Arfaxad izan zuen ezker, bosteun urtean, eta izan zituen semeak eta alabak.

12. Eta Arfaxad bizi izan zan ogeita amabost urte, eta izan zuen Sale.

13. Eta bizi izan zan Arfaxad, Sale izan zuen ezker, irureun eta iru urtean: eta izan zituen semeak eta alabak.

14. Eta bizi izan zan Sale ogeita amar urte, eta izan zuen Heber.

15. Eta bizi izan zan Sale, Heber izan zuen ezker, laureun eta iru urtean: eta izan zituen semeak eta alabak.

16. Eta bizi izan zan Heber ogeita amalau urtean, eta izan zuen Faleg.

17. Eta bizi izan zan Heber, Faleg izan zuen ezker, laureun eta ogeita amar urtean: eta izan zituen semeak eta alabak.

18. Eta bizi izan zan Faleg ogeita amar urtean: eta izan zuen Reu.

19. Eta bizi izan zan Faleg, Reu izan zuen ezker, berreun eta bederatzi urtean: eta izan zituen semeak eta alabak.

20. Eta bizi izan zan Reu ogeita amabi urtean, eta izan zuen Sarug.

21. Eta bizi izan zan Reu, Sarug izan zuen ezker, berreun eta zazpi urtean: eta izan zituen semeak eta alabak.

22. Eta bizi izan zan Sarug ogeitaamar urtean, eta izan zuen Nakor.

23. Eta bizi izan zan Sarug, Nakor izan zuen ezker, berreun urtean: eta izan zituen semeak eta alabak.

24. Eta bizi izan zan Nakor ogeita bederatzi urtean, eta izan zuen Tare.

25. Eta bizi izan zan Nakor, Tare izan zuen ezker, eun eta emeretzi urtean: eta izan zituen semeak eta alabak.

26. Eta bizi izan zan Tare irurogei eta amar urtean, eta izan zituen Abram, eta Nakor, eta Aran.



27. Eta au da Tareren jatorria: Tarek izan zituen Abram, Nakor eta Aran. Eta Aranek izan zuen Lot.

28. Eta ill zan Aran bere aita Tare baño lenago, bere jaioterriko lurrean, Ur Kaldeakoan.

29. Eta Abramek eta Nakorrek artu zituzten emazteak: Abramem emaztearen izena, Sarai; eta Nakorren emaztearen izena, Melka, Aranen alaba, Melkaren aita, eta Feskaren aita.

30. Eta Sarai izan zan soilla, eta etzuen semerik.

31. Eta Tarek artu zituen bere seme Abram eta Lot, Aranem semea, bere semearen semea eta Sarai bere erraña, bere seme Abramem emaztea, eta atera zituen Ur Kaldeakotik joateko Kanaango lurrera: eta etorri ziran Haraneraño, eta bizi izan ziran an.

32. Eta izan ziran Tareren egunak berreun eta bost urte, eta bizi izan ziran an.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Jaunak Abrami: Atera zaitte zure erritik, eta zure aideetatik, eta zure aitaren etxetik, eta atoz erakutziko dizudan lurrera.

2. Eta egingo zaitut jende andi baten buru, eta bedeinkatuko zaitut, eta txit altxatuko det zure izena, eta izango zera bedeinkatua.

3. Bedeinkatuko ditut zu bedeikatutzen zaituztenak, eta madarikatuko ditut zu madarikatutzen zaituztenak, eta zugar izango dirade bedeinkatuak lurreko etorki guztiak.

4. Atera zan bada Abram Jaunak agindu zion bezela, eta joan zan berarekin, Lot irurogei eta amabost urtekoa zan Abram atera zanean Harandik.

5. Eta eraman zuen Sarai bere emaztea, eta Lot bere anaiaren semea, eta irabazi zuten azienda guztia, eta Haranen egin zituzten animak, eta atera ziran joateko Kanaango lurrera. Eta ara allegatu ziradenean,

6. Igaro zuen Abramek lurra Sikemgo tokiragiño, ibar argitsuragiño, eta Kanaantarra zegoan orduan lurrean.

7. Eta ajertu zitzaion Jauna Abrami, eta esan zion: Zure jatorriari emango diot lur au. Eta egin zion an aldare bat agertu zitzaion Jaunari.

8. Eta igarorik andik Betelen sortaldean zegoan mendira, zabaldu zuen an bere txosna, sartaldetik zuela Betel, eta sortaldetik Hai, an ere egin zion Jaunari aldare bat, eta otsegin zion bere izenari.

9. Eta jarraitu zion Abramek ibiltetari, eta joateari aurrera egoerontz.

10. Eta izan zan erri atan gosete bat, jetxi zan Abram Ejiptora, an egoteko bideaskoa bezela, zeren erri artako gosetea txit andia zan.

11. Eta Egipton sartzeko zorian zegoanean, esan zion Sarai bere emazteari: Badazaut andre ederra zerala.

12. Eta ijitoak ikusten zaituztenean, esango dutela: Bere emaztea da, eta ni illko naute, eta zu gordeko zaituzte.

13. Erregututzen dizut bada arren esan dezazula, nere arreba zerala, ongi artua izan nadin zure amorioa gatik, eta bizirik gelditu nadin zure begirunez.

14. Sartu zaneko bada Abram Ejipton, ikusi zuten ijitoak emakumea txit ederra zala.

15. Eta andizkiak adirazi zioten Faraoni, eta alabatu zuten bere aurrean, eta izan zan eramana emakumea Faraonen etxera.

16. Eta beraren begirunez ongi tratatu zuten Abram, eta izan zituen ardiak, eta idiak, eta astoak, eta mendekoak gizasemeak eta emakumeak, eta astaemeak, eta gameluak.

17. Baña Jaunak kastigatu zuen Faraon, eta bere etxea gaitzete txit andiak, Sarai Abrahamem emaztea gatik.

18. Eta otsegin zion Faraonek Abrami, eta esan zion: Zer da nerekin egin dezun au? Zergatik ez didazu agertu zure emaztea dala?

19. Zer gauza gatik esan dezu zure arreba dala, artu nezan nere emaztetzat? Orain bada ona zure emaztea; artu ezazu eta zoaz.

20. Eta Faraonek agindu zien bere jendeai Abram zaitzeko: eta lagundu zioten, berari eta bere emazteari, zeuzkaten gauza guztiakin.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Igo zan bada Abram Ejiptotik, bera eta bere emaztea, eta zeuzkan gauza guztiak, eta Lot berarekin, Egoeko aldamera.

2. Eta zan txit aberatsa urrearen eta zillarraren dirutornean.

3. Eta biurtu zan etorri zan bidetik, eguerditik Betelerontz, len bere txosna jarri zuen tokiraño, Betel eta Hairen bitartean,

4. Len egin zuen aldarearen tokian, eta otsegin zion an Jaunaren izenari.

5. Baitaere Abramekin zegoan Lotek, zeuzkan ardien taldeak, eta abereak, eta txosnak.

6. Eta ezin kabitu zituzten lurak, elkarrekin bizitzeko, zeren beren azienda zan andia, eta ezin bizi zitezken toki batean.

7. Argatik errieta izan zan Abramem eta Loten talde zaitzalleen artean, eta denbora artan Kananeok eta Ferezeok bizi ziraden lur artan.

8. Esan zion bada Abramek Loti: Ez bedi, arren, izan erriertarik nere eta zure artean, eta nere artzaian eta zure artzai zeren anaiak gera.



9. Ona emen non dezu lur guztia zure aurrean, erregututzen dizut arren, alde egin dezazula nigandik, ezkerrera joaten bazera, nik artuko det ezkuiea baldin zuk eskuiea aututzen bade.. ni joango naiz ezkerrera.

10. Jasorik bada Lotek begiak, ikusi zuen Jordango erriberako lur guztia, zeñ guztia zan erregaua Jaunak desegin zituen baño lenago Sodomata eta Gomorra, Jaunaren Paradisua bezela, eta Egipto bezela datoztenai.

11. Eta autatu zuen beretzat Lotek Jordango erriberako ibarra, eta alde egin zuen Sortaldetik, eta berezitu ziran anaiak, bata bestea gandik.

12. Abram bizi izan zan Kanaango lurtean: eta Lot gelditu zan Jordanan aldamenean dauden errietan, eta bizi izan zan Sodomatan.

13. Sodomako gizonak berriz ziran txit gaiztoak eta pekatari txit andiak Jaunaren aurrean.

14. Eta esan zion Jaunak Abrami, Lotek beragandik alde egin zuen ezkerre: Jaso itzazu zure begiak eta begiratu ezazu orain zauden tokitik, Nortera, eta Egoera, eta Sortaldera, eta Sartaldera.

15. Ikusten dezun lur guztia emango dizut zuri eta zure jatorriari betiko.

16. Eta egingo det zure jatorria lurreko autsa bezela: baldin gizonen batek kontatu al badu lurreko autsa, zure jatorria ere kontatuko du.

17. Jaiki zaitte, zoaz eta ikusi ezazu lurra bere luzeeran, eta zabaleran, zeren zuri emango dizut.

18. Jasorik bada Abramek bere txosna, etorri zan eta bizi izan zan Manbre ibarraren aldean, zeñ dagoan Hebronan, eta egin zion an Jaunari aldare bat.

AMALAU GARREN KAPITULUA

1. Gertatu zan berriz denbora artan, Amrafel Senaarko erregea, eta Ariok Pontoko erregea, eta Kodorlahomor Elamitaen erregea, eta Tadal jendeen erregea.

2. Gerran aritzea Bara Sodomako erregearen kontra, eta Bersa Gomorrako erregearen kontra, eta Sennaab Adamako erregearen kontra, eta Semeber Seboingo erregearen kontra, eta Balako erregearen kontra, au da Segor.

3. Oiek guztiok elkartu ziran Basoko ibarrean, zeñ dan orain itsaso Gazia.

4. Zeren amabi urte serbitu zuten Kodorlahomor eta amairugarrenean errebelatu zitzaizkan.

5. Beragatik amalaugarren urtean etorri zan Kodorlahomor, eta berarekin zeuden erregeak, eta desegin zituen Rafaimtarrak Astarotkarnaimen, eta berakin Zuzimtarrak, eta Emimtarrak Sabe Kariataimen,

6. Eta Korretarrak Seirko mendietan, bakartadean dagoan Farango landetaraño.

7. Eta biurtu ziran eta etorri ziran Misfatko iturriraño, au da Kades: eta ondatu zuten Amaleziten aldeera guztia, eta Asasontamarren bizi zan Amorreoan.

8. Eta atera ziran Sodomatarren erregea eta Gomorrakoa, eta Adamako erregea eta Seboingo erregea, eta baiere Balako erregea, zeñ dan Segor: eta zuzendu zuten guda beren kontra Landetako ibarrean.

9. Au da, Kodorlahomor Elamiten erregearen, eta Tadal jendeen erregearen, eta Amrafel Senaarko erregearen, eta Ariok Pontoko erregearen kontra, lau errege bosten kontra.

10. Eta Landetako ibarrak zeuzkan betunezko pozu asko. Eta Sodomatarren, eta Gomorrako erregeak, iges egin zuten, eta erori ziraden an; eta bizirik gelditu ziranak, igo zuten mendira.

11. Eta eraman zuten Sodomatarren eta Gomorrako azienda guztia, eta jatorni guztia, eta joan ziran:

12. Baitaere Lot, Adanen anaiaren seme Sodomatan bizi zana, zuen guztiarekin.

13. Eta ona non iges zuen batek, adirazi zion Abram Hebreotar Manbre Amorreoaren Eskolen anaiaren eta Anerren anaiaren ibarrean bizi zanari, zeren oiek elkartu ziran Abramekin.

14. Aditu zuenean au Abramek, au da, Lot bere anaia arrapatua izan zala, kontatu zituen irureun eta emezortzi bere etxeko serbitzari ariñka armatuak, eta jarraitu zioten Daneraño.

15. Eta zabaldurik lagunak, eraso zien gauaz: eta desegin zituen, eta jarraitu zien Damaskoren ezkerrean dagoan Hobaraño.

16. Eta kendu zioten azienda guztia, eta Lot bere anaia aren aziendaarekin; baita ere emakumeak eta erria.

17. Eta atera zitzaion bidera Sodomatarren erregea biurtu zan ezkerre, desegiñik Kodorlahomor, eta berarekin Sabeko ibarrean (zeñ dan Erregeren ibarra) zeuden erregeak.

18. Melkisedek Salengo erregeak berriz, aterarik ogia eta ardoa, zeren zan Jaungoiko txit Altuaren Apaiza,

19. Bedeikatu zuen, eta esan z...: Jaungoiko txit altu, zerua eta lurra egin zituenak, bedeikatua izan dedilla Abram.



20. Eta bedekatua Jaungoiko txit altua, zeñaren laguntasunarekin etsaiak zure eskuetan daude. Eta eman ziozkan guztien amarrenak.

21. Esan zion berriz Sodomatarren erregeak Abrami: Eman zazkida-zu animak; gañerakoak artu itzatzu zuretzat.

22. Berak erantzun zion: Jasotzen diot nere eskua Jaun Jainko txit altu zeruaren eta lurraren jabeari,

23. Irazkaiaren aritik oñetakoaren lokarriraño, ez det artuko zureak diraden gauza guztietatik, esan ez dezazun: Nik aberastu nuen Abram;

24. Salbu gazteak jan zituzten gauzak eta nerekin etorri ziraden gizonen, Aner, Eskol eta Manbreren parteak: oiek artuko dituzte beren parteak.

AMABOSTGARREN KAPITULUA

1. Eta irago ezkeroko gauza oiek, Jaungoikoak itz egin zion ikuskizun batean Abrami, esaten ziola: Etzaite beldur izan, Abram; ni naiz zure goretzallea, eta zure sari txit andia.

2. Eta esan zuen Abramek: Jaun Jainkoa. Zer emango didazu? Ni banoa semerik gabe: eta nere etxeko morroinagusiaren seme Damaskoko au, Eliezer.

3. Baita esan zuen Abramek: Ez didazun ezkeroko eman niri aurrik eta ona emen non nere etxean jaio dan mendeko au, izango da nere primua.

4. Eta bereala itz egin zion Jaunak, esaten zuela: Ez da au izango zure primua: baizik zure erraieratik ateratzen dana, hura idukiko dezu primutzat.

5. Eta atera zuen kanpora, eta esan zion: Begiratu ezazu zerura, eta kontatu itzatzu izarrak al baldin badezu. Eta esan zion: Onela izango da zure jatorria.

6. Sinistu zion Abramek Jaungoikoari eta onera-egokia izan zitzaion.

7. Eta esan zion: Ni naiz Ur Kaldeakotik atera zindudan Jauna, emateko zuri lur au, eta izateko zu bere jabea.

8. Baña berak esan zuen: Jaun Jainkoa, nondik ezagutu dezaket, beraren jabe izango naizela?

9. Eta erantzunaz Jaunak: Ar zadazu, esan zuen, iru urteko bei bat, eta iru urteko auntz bat, eta iru urteko ari bat, usatortola bat ere, eta uso bat.

10. Berak arturik gauza guzti oiek, partitu zituen erditikan, eta ipiñi zituen erdi biak bata bestearen aurrean aldamen bietatik; egaztiak berriz etzitzen partitu.

11. Eta jetxi ziran egaztiak gorputz illen gañera, eta Abram zegoten begira.

12. Eta eguzkia sartzeko zegoala, erori zan Abramena gañera lo gogor bat, eta izu andi eta illun batek artu zuen.

13. Eta esana izan zitzaion: Jakin ezazu oraindik, gertatuko dala zure jatorria egotea arrotzia berea ez dan lurrean, eta menderatuko dituzte, eta atsekabetuko dituzte laureun urtean.

14. Alaere neronek juzgatuko det serbituko duten erreinua: eta oien ondoan aterako dirade aberastasun andiak.

15. Zu berriz joango zera zure gurasoetara pakean, eta izango zera obitua zartza onean.

16. Eta laugarren gizaldian biurtuko dirade onera; zeren oraindikan ez dira bete Amorreoek gaiztakeriak oraingo denboraraño.

17. Eguzkia sartu zanean bada, etorri zan illuntasun andi bat, eta agertu zan labe bat kea zeriola, eta suzko lanpara bat igaroten zana abere partituen artetik.

18. Egun artan egin zuen Jaungoikoak elkartasuna Abramekin, esaten zuela: Zure ondokoai emango diet lur au Egiptoko ibaitikan Eufrates ibai andiraño,

19. Zineoak, eta Zenezeoak, Zedmoneoak,

20. Eta Heteoak, eta Ferezeoak, baitaere Rafaitarrak,

21. Eta Amorreoak, eta Kananeoak, eta Jerjeseoak, eta Jebuseoak.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Saraik bada, Abramena emazteak, etzuen erdi semerik, baña idukirik Egiptoko neskame bat Agar zeritzana,

2. Esan zion bere senarrari: Ona non Jaunak egin nau soilla, erdi ez dezadan: sartu zaite nere neskamea gana, ikusteko bera gandik bederik artu ote ditzadan semeak. Eta oben egiñik berak erregututzen zionari,

3. Artu zuen Agar Egiptokoa bere neskamea, Kanaango lurrean bizi izaten asi ziradenetik amar urte geroago; eta eman zion bere senarrari emaztetzat.

4. Bera bizi izan zan Agarrekin. Eta ikusirik Agarrekin aurdun zegoala, mezipreziatu zuen bere andrea.

5. Eta esan zion Saraik Abrami: Gaizki egiten dezu nere kontra: nik eman nizun nere neskamea emaztetzat, eta ikusirik onek aurdun dala, mezipreziatzen nau, juzgatu dezala Jaunak nere eta zure artean.



6. Eta erantzunik Abramek: Ona emen, esan zuen, zure neskamea zure eskuan dago; egizu berarekin nai dezuna. Atsekabeturik Saraik Agar, iges egin zuen.

7. Eta arkiturik Jaunaren aingeruak urezko iturri baten aldean, Surko bidean eremuan dagoan bakar tadean,

8. Esan zion: Agar Sararen neskamea, nondik zatoz? Eta nora zoaz? Berak erantzun zuen: Nere Andra Sarairen aurretik igesi noa.

9. Eta esan zion Jaunaren aingeruak: Biurtu zait zure andrea gana, eta humillatu zatzakio.

10. Eta berriz: Ugarituaz, esan zuen, ugarituko det zure jatorria, eta ezin kontatuko da ugaritasuna gatik.

11. Eta gero: Ona emen, esan zuen, aurdun zaude, eta erdiko dezu seme bat, eta deituko diozu beraren izena Ismael, Jaunak aditu zaitualako zure estutasunean.

12. Au izango da gizon ezigaitza: jaikiko da bera guztien kontra, eta guztiak bere kontra, eta bere anaia guztien aurkez aurke jarriko ditu bere txosnak.

13. Eta berarekin itz egiten zuen Jaunaren izenari deitu zion: Zu Jaungoiko, ikusi nazuna. Zeren esan zuen: Egiatzki emen ikusi ditut ikusten nabenaren bizkarrak.

14. Argatik deitu zuen pozu hura, Bizi danaren eta ikusten nauenaren pozu. Au dago Kades eta Baraden artean.

15. Eta erdi zion Agarrek Abrami: seme bat zeñak deitu zion bere izena Ismael.

16. Larogeita sei urtekoa zan Abram, Agarrek Ismael erdi zionean.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Sartu zanean bada larogeita emeretzi garren urtean, agertu zitzaion Jauna, eta esan zion: Ni naiz Jaungoiko Guztialduna, ibilli zait nere aurrean, eta izan zait txit ona.

2. Eta ipiñiko det nere elkartasuna nere eta zure artean, eta ugarituko zaitut txit andizkiro.

3. Auzpetu zan Abram bere arpegiaren gañean.

4. Eta esan zion Jaungoikoak: Ni naiz, eta nere elkartasuna zurekin, eta izango zera jende askoren aita.

5. Emendikan aurrera ez da izango zure izen Abram, baizik izango zera deitua Abraham, zeren jarri zaitut jende askoren aitatatzat.

6. Eta azi eragingo dizut txit andizkiro eta jarriko zaitut errien buru, eta erregeak aterako dirade zugandik.

7. Eta jarriko det nere elkartasuna nere eta zure artean, eta zure jatorriaren artean zure ondoan beren gizaldietan, betiko elkartasunarekin, izan nadin zure Jaungoikoa, eta zure jatorriarena zure ondoan.

8. Eta emango dizut zuri eta zure jatorriari arrotz zerala bizi zeran lurra, Kanaango lur guztia, beti bere jabe izateko; eta izango naiz beren Jaungoikoa.

9. Berriz esan zion Jaungoikoak Abrahami: Zuk bada gordeko dezu nere elkartasuna, eta zure jatorriak zure ondoan beren gizaldietan.

10. Au da nere elkartasun gordeko dezutena nere eta zure artean, eta zure jatorriak zure ondoan; zuen arteko gizaseme guztia izango da zirkunzidatua:

11. Eta zirkunzidatuko dezute zuen ganaisalaren aragia, izan dedin nere eta zuen arteko elkartasunaren señaletzat.

12. Zortzi eguneko aurra izango da zirkunzidatua zuen artean, gizaseme guztia zuen gizaldietan; naiz etxean jaiotako mendekoa, naiz errosia, izango da zirkunzidatua, eta zuen jatorrikoa ez dan guztia:

13. Eta egongo da nere egiunea zuen aragian betiko elkartasunerako.

14. Bere ganaisalaren aragia zirkunzidatua ez dan gizasemea, izango da kendua anima hura bere erritik, desegin zuelako nere egiunea.

15. Baitaere esan zion Jaunak Abrami: Sarai zure emazteari ez diozu deituko Sarai, baizik Sara.

16. Eta bedekatuko det, eta beragandik emango dizut seme bat bedekatuko dedana, eta izango da erreinuen asiera eta errien erregeak aterako dirade beragandik.

17. Auzpeztu zan Abraham bere arpegiaren gañean, eta farra egin zuen, esaten zuela bere biotzean: uste al dezu eun urtekoari jaioko zaiola semea? Eta Sara larogeita amar urtekoak erdiko duela?

18. Eta esan zion Jaungoikoari: Arren bada Ismael biziko balitza zure aurrean.

19. Eta esan zion Jaungoikoak Abrahami: Sara zure emazteak erdiko dizu seme bat, eta deituko diozu bere izena Isaak, eta jarriko det nere egiunea berarekin, eta bere jatorriarekin bere ondoan betiko elkartasunerako.

20. Ismaelen gañean ere aditu zaitut: Ona bedekatuko det, eta azieraziko diot, eta txit ugarituko det: amabi agintari izango dira beragandik sortuak, eta egingo det jende andiaren buru.

21. Nere egiunea berriz jarriko det Isaakin, zeñ erdiko dizun Sarak denbora onetan datorren urtean.



22. Eta bukatu zanean berarekin itz egiten zuenaren jolasa, igo zan Jaungoikoa Abraham gandik.

23. Eta artu zuen Abrahamek bere seme Isaak, eta bere etxean jaiotako mendeko guztiak; eta erosi zituen guztiak, bere etxeko gizaseme guztiak; eta beren gainasaleko aragia zirkunzidatu zuen bereala egun artan, Jaungoikoak agindu zion bezela.

24. Abraham zan larogeita emeretzi urtekoa zirkunzidatu zuenean bere gainasalaren aragia.

25. Eta Ismael bere semeak amairu urte bete zituen bere zirkunziosioko denboran.

26. Egun batean zirkunzidatuak izan ziran Abraham eta bere seme Ismael,

27. Eta bere etxeko gizaseme guztiak, bai etxean jaiotak, bai erosiak eta arrotzak, izan ziran berdin zirkunzidatuak.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta agertu zitzaion Jauna Manbreko ibarrean eserita zegoala bere bizilekuaren atean egunaren berorik andienean.

2. Eta jasorik bere begiak, agertu zitzaioten iru gizaseme zutik bere aldean; eta ikusi zituenean, joan zan korrika berai bidera irtetzera bere bizilekuko atetikan, eta makurtu zan lurreragiño.

3. Eta esan zuen: Jauna, arkitu badet onginaia zure begietan, etzaitze irago zure serbitzaria gandik,

4. Baña ekarriko det ur piska bat eta garbitu itzatzute zuen oñak, eta atsedean ezazute zuaiztaren azpian.

5. Eta ipiñiko det ogi mokadu bat, eta indartu ezazute zuen biotza; gero joango zerate aurrera, zeren argatik zeartu dezute bidea zuen serbitzaria ganontz. Berak esan zuten: Egin ezazu esan dezun bezela.

6. Joan zan bada arin Abraham bizilekura Sara gana, eta esan zion: Zoaz arin, oratu itzatzu iru lakari irin lore, eta egiñ itzatzu ogiak suauts pean.

7. Bera berriz joan zan korrika beitegira, eta artu zuen andik txal guri eta gizen bat eta eman zion morroe bati, zeñ joan zan arin eta egosi zuen.

8. Artu ere zituen koipea eta esnea, eta egosi zuen txala, eta ipiñi zuen beren aurrean: bera berriz zegoan zutik beren aldean arbolapean.

9. Eta jan zutenean, galdetu zioten: Non da Sara zure emaztea? Berak erantzun zuen: Or gelan dago.

10. Zeñi esan zion: Ni etorriko naiz zugana denbora onetan, bizitza lagun dedala eta idukiko du seme bat Sara zure emazteak. Au aditurik, Sarak farra egin zuen ate atzean.

11. Bada biak ziran zarrak, eta edade andikoak, eta ez oi zituen onezkerok Sarak ilberak.

12. Sarak farra egin zuen ezkutuan, esaten zuela: Ni atsotu, eta nere Jauna aguretuta, atsegiñez gozatuko al naiz?

13. Eta Jaunak esan zion Abrahami: Zergatik farra egin du Sarak, esaten duela: Egia ote da aurra egingo dedala nik izanik atsoa?

14. Jaungoikoarentzat gauza gaitzik bai al da? Esan dizudan epean berriz biurtuko naiz zugana denbora onetan beronetan, bizia badet, eta Sarak izango du seme bat.

15. Sarak, beldurrez beterik, ukatu zuen, esaten zuela: Ez det farrarik egin. Eta Jaunak: Ez da ala, esan zuen: baizik farra egin dez.

16. Eta jaikirik andik gizonak, zuzendu zituzten begiak Sodomarontz; eta Abraham zijoa berakin, laguntzen ziela.

17. Eta esan zuen Jaunak: Nola estali dezakeot Abrahami egitera noana,

18. Izango bada bera jende andi, eta txit indartsu baten zuzentzallea, eta beragan bedekatuak izango badirade lurreko erreinu guztiak?

19. Zeren badakit aginduko diotela bere semeai, eta bere etxekoai bere ondoan gorde dezatela Jaunaren bidea, eta bizi ditezatela ongi eta zuzen, bete ditzan Jaunak Abraham gatik esan diozkan gauza guztiak.

20. Eta Jaunak esan zion: Sodomako eta Gomorrako deadarra azi da eta beren bekatua geiegi pisutu da.

21. Jetxiko naiz eta ikusiko det, beren obrak ote diran nigana allegatu dan deadarra bezelakoak, jakiteko ala, ote dan ala ez.

22. Eta alde egin zuten andik, eta joan ziran Sodomarontz. Baña Abraham oraindik zegoan zutik Jaunaren aurrean.

23. Eta alderaturik esan zion: Ona gaiztoarekin galduko bai al dezu?

24. Baldin balirade errian berrogeita amar on, galduak izango ote dira batean? Eta ez al diozu barkatuko erri guztiari berrogeita amar on gatik, arkituko balirade an?

25. Urruti zugandik onelako gauzarik egitea, eta iltzea ona gaiztoarekin, eta izan dedilla ona gaiztoa bezela; ez dagokizu au zuri: zuk, lur guztia juzgatzen dezun orrek, iñolaere ez dezu emango erabaki au.

26. Eta esan zion Jaunak: Arkitzen badituz Sodoman berrogeita amar on erriaren erdian barkatuko diot erri guztiari beren amorioa gatik.



27. Eta erantzunaz Abrahamek, esan zuen: Bein asi naizan ezker, itz egingo diot nere Jaunari, autsa eta erautsa banaiz ere.

28. Eta zer, arkituko balirade berrogeita amar on baño bost gutxia-go? Galduko dezu erri guztia, berrogeita bost on baño ez diradelako? Eta esan zuen: Ez det galduko, arkitzen badituz an berrogeita bost.

29. Eta berriz itz egin zion: Eta baldin berrogei on arkituko balirade, zer egingo dezu? Erantzun zuen: Ez det galduko berrogeien amorioa gatik.

30. Erregututen dizut, Jauna, etzaitzela aserretu, baldin itz egiten badizut: Zer, baldin an arkituko balirade ogeita amar? Erantzun zuen: Ez det egingo, baldin arkitzen badituz an ogeita amar.

31. Bein asi naizan ezker, esan zuen, itz egingo diot nere Jaunari: Zer, baldin an arkituko balirade ogei? Esan zuen: Ez det illko ogei gatik.

32. Erregututen dizut, Jauna, esan zuen, etzaitzela aserretu, bein bakarrik itz egiten badizut: Zer, baldin arkituko balirade an amar? Eta esan zuen: Ez det galduko amar gatik.

33. Eta joan zan Jauna, Abrahami itz egiteari utzi zionean, eta bera biurtu zan bere tokira.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta allegatu ziran aingeru biak Sodomara illunabarrean, eta eserita zegoala Lot uriko atetan. Berak ikusi zituenean, jaiki zan, eta irten zitzaieten bidera, eta adoratu zituen makurturik lurrerontz,

2. Eta esan zien: Jaunak, erregututzen dizutet, arren etorri zaitezela zuen serbitzari onen etxera, eta egon zaitezela an, garbitu itzatzute zuen oñak, eta bigar zuen bideari emango zatzaiozka. Berak erantzun zuten: Ez, baizik plazan geldituko gera.

3. Bera leiatu zitzaieten txit gogorki, gelditu zitezten bere etxean, eta sarturik an prestatu zien afaria, eta egosi zituen legami gabeko ogiak, eta jan zuten.

4. Eta etzatera joan baño lenago, uriko gizonak ingurutu zuten etxea aurretatik aguretaraño, erri guztia batean.

5. Eta otsegin zioten Loti, eta esan zioten: Non dirade zure etxean gauaz sartu diraden gizonak? Ekarkiguzu onara, ezagutu ditzagun.

6. Aterarik berak gana Lot, eta itxirik bere ondorik atea, esan zien:

7. Erregututzen dizutet, nere anaiak, ez dezazutela egin gaiztakeria au.

8. Badituz, gizonik ezagutu ez duten bi alaba; aterako dituz zuek gana, eta egin ezazute berakin nai dezuten gaitz guztia, egiten ez badiezute gaitzik gizon oiei, zeren sartu dirade nere tellatuaren itzalean.

9. Baña berak erantzun zuten: Alde ezazu ara. Eta berriz: Sartu zera onara, diote, arrotza bezela; gu juzgatzeko bai al da? Zu tratatuko zaitugu aiek baño gaizkiago. Eta indar txit andia egiten zioten Loti, eta atearik berak zorian zeuden.

10. Eta ona non gizonak luzatu zuten eskua, eta sartu zuten berak gana Lot, eta itxi zuten atea.

11. Eta kanpoan zeudenak, txikienetik andieneraño itsututa ipiñi zituzten, alako modutan non ezin zuten arkitu atea.

12. Eta esan zioten Loti: Badezu emen zuretatikorikan? Atera itzatzu uri onetatik zureak diraden guztiak; suia, edo semeak, edo alabak;

13. Zeren desegingo degu toki au, beren deadarra azi dalako Jaunaren aurrean, zeñak bialdu gaitu, berak galtzera.

14. Aterarik bada Lot, itz egin zien, bere alabak artuko zituzten bere suiai, eta esan zien: Jaiki, eta atera zaitezte toki onetatik, zeren Jaunak desegingo du uri au. Eta iduritu zitzaieten txantxan bezela itz egiten ziela.

15. Eta egunaren sentian, aingeruak leiatzen zitzaiozkan, esaten zutela: Jaiki zaite, artu ezazu zure emaztea, eta daukazun alaba biak, zu ere galdu etzaitzen uriko gaiztakerian.

16. Ikusirik nagitxo zebillala, eldu zioten eskutik berari, bere emazteari, eta bere alaba biak, zeren Jaunak barkatu nai zion.

17. Eta atera zuten, eta ipiñi uritik kanpora; eta an itz egiten zioten, esaten ziotela: Salba ezazu zure anima; ez atzera begiratu, eta etzaitz gelditu inguru guzti onetan, baizik mendian salbatu zaite, zu ere besteakin galdu etzaitzen.

18. Eta esan zien Lotek: Erregututzen dizut, nere Jauna,

19. Arkitu duen ezker onginaia zure serbitzariak zure aurrean, eta erakutzi didazun ezker urrikalmendu ain andia, libaturik nere bizia erioztatik, eta ezin naizan ezker allegatu mendira, noaski kastiguak arrapatu eta ill baño lenago.

20. Bada emen aldean uri bat, zeñean gorde neitekean, txikia, eta an salbatuko naiz. Ez al da bera txikia, eta biziko da nere anima?

21. Eta esan zion: Ona onetan ere ematen dizut eskatzen didazuna, eta ez det desegingo uria, zeñ gatik itz egin didazun.

22. Zabiltz arin, eta salbatu zaite an, zeren ezingo det ezer egin, sartu zaitezten bitartean an. Argatik izan zan deitua uri huraren izena Segor.

23. Eguzkia atera zan lurraren gañera, eta Lot sartu zan Segorren.



24. Orduan Jaunak egin zuen zerutik sufrezko eta suzko euria Jaunaren eskuz, Sodoma eta Gomorraren gañera,

25. Eta desegin zituen uri oiek, eta inguruko alderri guztia, urietan bizi ziran guztiak, eta beren lurreko kanpo berde guztia.

26. Eta begiraturik atzera bere emazteak gatz egiñik gelditu zan.

27. Abraham berriz joanik goizean goiz, Jaunarekin egon zan tokira,

28. Begiratu zuen Sodomara eta Gomorrara, eta alderri artako lur guztira; eta ikusi zituen igotzen lurretik geldoak labe baten kea bezela.

29. Zeren desegiten zituenean Jaungoikoak alderri artako uriak, oroi-turik Abrahamekin, libratu zuen Lot, bizi izan ziraden urien ondamentik.

30. Eta igo zan Lot Segortik, eta gelditu zan mendian, baitaere bere alaba biak berarekin (zeren beldur zan Segorren egoten); eta egon zan lize batean bera, eta bere alaba biak berarekin.

31. Eta esan zion andiagoak txikiagoari: Gure aita zarra da, eta ez da gelditu lurrean gizonik gurekin ezkondu ditekeanik, lur guztian oi dan bezela.

32. Atoz, orditu dezagun ardoarekin, eta lo egin dezagun berarekin, utzi ditzagun geroko aurrak geure aitagandik.

33. Eta eman zioten beren aitari edaten ardoa gau artan, eta sartu zan andiagoo, eta lo egin zuen aitarekin; eta berak etzuen sentitu, ez alaba etzin zanean, ez jaiki zanean.

34. Urrengo egunean ere esan zion andiagoak txikiagoari: Ona nik atzo lo egin nuen nere aitarekin; eman zaigun edaten ardoa gau onetan ere; eta lo egingo dezu berarekin, utzi ditzagun geroko aurrak geure aita gandik.

35. Eman zioten gau artan ere beren aitari edaten ardoa, eta sarturik alaba txikiagoo, lo egin zuen berarekin; eta orduan ere etzuen sentitu etzin zanean, ez jaiki zanean.

36. Eta ala aurdun gelditu ziran Loten bi alabak beren aita gandik.

37. Eta aurregin zuen andiagoak seme bat, eta deitu zion bere izena Moab: au da Moabtarren aita gaurko eguneraño.

38. Txikiagoak ere egin zuen seme bat, eta deitu zion bere izena Ammon, esan nai du, nere erriaren semea, au da Amontarren aita gaurko eguneraño.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta alde egiñik andikan Abrahamek egoe aldera, bizi izan zan Kades eta Surren artean, eta egon zan bidastiz Jeraran.

2. Eta esan zuen Sara bere emaztea gatik: Nere arreba da. Eta Abimelek Jerarako erregeak bialdu zuen bere billa, eta artu zuen Sara.

3. Baña etorri zan Jaungoikoa Abimelek gana ametsetan gauaz, eta esan zion: Begira ilko zerala artu dezun emakumea gatik, zeren senarra du.

4. Abimelekek berriz etzion ukiturik egin, eta esan zuen: Jauna, ilko dezu jende jakiñez eta ona?

5. Ez al zidan berak esan: Nere arreba da, eta emakumeak esan zuen: Nere anaia da? Nere biotzeko senziltasunean, eta nere eskuen garbitasunean, egin det au.

6. Eta esan zion Jaungoikoak: Nik ere badakit biotz senzillarekin egin dezula: eta argatik gorde zaitut, bekatu egin etzenezan nere kontra, eta ez nizun utzi berari ukiturik egiten.

7. Orain bada itzuli zaiozu bere senarrari emaztea; zeren Profeta da, eta erregutuko du zugatik, eta biziko zera; baña itzuli nai ez baldin badiozu, jakin ezazu ilko zerala zu, eta zurea dan guztia.

8. Eta bereala jaikirik gauaz Abimelek, deitu zion bere serbitzari guztiai, eta esan zituen itz guzti oiek beren belarrietan, eta txit beldurtu ziran gizaseme guztiak.

9. Eta deitu ere zion Abimelekek Abrami, eta esan zion: Zer egin dezu gurekin? Zertan bekatu egin degu zure kontra, erakartzeko nere gañera, eta nere erreinuaren gañera bekatu andi bat? Bear etzenduena egin diguzu.

10. Eta berriz kexaturik, esan zuen: Zer ikusi dezu, au egiteko?

11. Erantzun zuen Abrahamek: Uste nuen nere artean, esaten nuela: Aurki ez da Jaungoikoaren beldurrik toki onetan, eta illko naute nere emaztea gatik,

12. Bestela ere nere arreba da, nere aitaren alaba, eta ez nere amaren alaba, eta artu det nere emaztetzat.

13. Eta atera nauen ezkerko Jaungoikoak nere aitaren etxetik, esan nion: Mesede au egin bear didazu, sartzen geran toki guztian, esango dezu zure anaia naizela.

14. Artu zituen bada Abimelekek ardiak, eta beiak, eta mendekoak, gizasemeak eta emakumeak, eta eman ziozkan Abrahami, eta itzuli zion Sara bere emaztea,

15. Eta esan zuen: Zuen begien aurrean dago lurra, bizi zaitte nai dezun edozeñ tokian.

16. Eta Sarari esan zion: Ona milla diru zillarrezko eman diozkat zure anaiari, au izango dezu begien estalki baterako, zurekin dauden guztien



aurrean, eta joaten zeran edozeñ tokian, eta oroitu zaitte arrapatua izan zerala.

17. Eta erregu egiñik Abrahamek, sendatu zuen Jaungoikoak Abimelek, eta emaztea, eta bere neskameak, eta aurrak egin zituzten,

18. Zeren itxi zuen Jaunak Abimeleken etxeko emasabel guztia, Sara Abrahamen emaztea gatik.

OGEITABATGARREN KAPITULUA

1. Eta bisitatu zuen Jaunak Sara, eskeñi zuen bezela, eta bete zituen esan zituenak.

2. Eta aurdun gelditu zan eta egin zuen seme bat bere zartzan, Jaungoikoak lendikan adirazi zion denboran.

3. Eta deitu zuen Abrahamek, bere semearen, Sarak egin zionaren izena, Isaak:

4. Eta zirkunzidatu zuen zortzigarren egunean, Jaungoikoak agindu zion bezela,

5. Eun urte zeuzkanean, zeren aitaren edade onetan, jaio zan Isaak.

6. Eta esan zuen Sarak: Jaungoikoak eman dit poztutzeko bidea, aditzen duen guztia, poztuko da nerekin.

7. Eta berriz esan zuen: Nork usteko zuen adituko zuela Abrahamek, Sarak emango ziola bularra, zarra zala egin zion seme bati?

8. Azi zan bada aurrak, eta titia kendua izan zitzaion, eta Abrahamek eman zuen bazkari andi bat aurrari titia kendu zitzaionean.

9. Eta ikusirik Sarak Agar Egiptoarren semeak burla egiten ziola bere seme Isaaki, esan zion Abrahami:

10. Bota ezazu andre mendeko au, eta bere semea, zeren ez da izango jabegaia neskamearen semea, nere seme Isaakin.

11. Gogor egin zitzaion Abrahami au bere semeagatik.

12. Baña Jaungoikoak esan zion: Ez bekizu iritzi gauza garratza, Sarak eskatzen dizun guztia, aurrak gatik, eta zure neskamea gatik; aditu ezazu esaten dizuna: zeren Isaak da zeñaen bitartez iraungo duen zure jatorriak.

13. Jaiki zan bada Abraham goiz, eta arturik ogia eta larruzko ontzi bat bete ur, Agarrak sorbaldan ipiñi ziozkan, eta eman zion aurrak, eta bialdu zuen. Au joanik, zebillan galdurik Bersabeeo basamortuan.

14. Eta aitu zitzaionean larru ontziko ura, utzi zuen aurrak, an zeuden arbola baten azpian.

16. Eta joan zan, eta eseri zan aurkez urrutian tiruztaiak bota deza-kean bestean. Zeren esan zuen: Ez det ikusiko mutilla ilten. Eta eseririk aurrean, jaso zuen bere boza, eta negar egin zuen.

17. Eta aditu zuen Jaungoikoak mutillaren boza, eta Jaungoikoaren aingeruak deitu zion Agarrak zerutik, esaten zuela: Zer egiten dezu, Agarrak? Etzaitte beldurtu, zeren aditu du Jaungoikoak mutillaren boza dagoan tokitik.

18. Jaiki zaitte, artu ezazu mutilla, eta eldu zaitozu bere eskutik: zeren egingo det jende andiaren buru.

19. Eta idiki ziozkan Jaungoikoak bere begiak, eta ikusirik urezko putzu bat, joan zan, eta bete zuen zagia, eta eman zion edaten mutillari.

20. Eta Jaungoikoak lagundu zion oni, eta azi zan, eta bizitu izan zan basoan, eta izan zan gazte eiztari txit ona.

21. Eta bizitu izan zan Farango eremuan, eta bere amak eman zion emaztea Egiptoko lurretikan.

22. Denbora beratan esan zien Abimelek, eta Fikol bere ejerzituko Prinzipeak, Abrahami: Jaungoikoa zurekin da, egiten dituzun gauza guttietan.

23. Juramentu egin zadazu bada Jaungoikoa gatik, ez didazula gaitzik egingo neri, ez nere ondoreai, ez nere etorkiari, baizik nik zurekin egin nuen urrikalmenuaren araura, egingo didazu neri, eta arrotz bizi izan zeran lurrari.

24. Eta esan zuen Abrahamek: Nik juramentu egingo det.

25. Eta kejatu zitzaion Abimeleki, bere morroiak indarrez kendu zitzaioten urezko putzua gatik.

26. Eta erantzun zuen Abimelekek: Ez det jakin nork egin zuen gauza au, eta zuk ere ez ziñidan adirazi, eta nik ez det aditu gaur artean.

27. Eraman zituen bada Abrahamek ardiak, eta beiak, eta eman ziozkan Abimeleki, eta biak egin zuten batzundea.

28. Eta ipiñi zituen Abrahamek berezian artaldeko zazpi bildotz urruza.

29. Eta esan zion Abimelekek: Zer adirazten dute berezian ipiñerazi dituzun zazpi bildotz urruza oiek?

30. Eta berak erantzun zion: Zazpi bildots urruza oiek artuko dituzu nere eskutik; adirazi ditzadaten, neronek aitzurtu nuela putzu au.

31. Argatik izan zan deitua putzu ura Bersabee, zergatik an biak juramentu egin zuten.

32. Eta egin zuten batzundea juramentuko putzuagatik.



33. Eta jaiki ziran Abimelek, eta Pikol bere ejerzituko Prinzipea, eta itzuli ziran Palestinatarren lurrera. Abrahamek berriz jarri zuen baso bat Bersabeen, eta otsegin zion an Jaun Jainko betikoaren izenari.

34. Eta bizi izan zan arrotza bezela Palestinatarren lurlean denbora luzean.

OGETA BIGARREN KAPITULUA

1. Gauza oiek irago ziran ezkeroz, probatu zuen Jaungoikoak Abraham, eta esan zion: Abraham, Abraham. Eta berak erantzun zuen: Emen nago.

2. Esan zion: Ar zazu Isaak zure seme bakar maite dezuna, eta zoaz ikuskeraren lurrera: eta an eskeñiko dezu dana erreta erakutsiko dizudan mendietatik baten gañean.

3. Eta ala jaikirik Abraham gauaz, tresnatu zuen bere astoa, zera-mazkiala berarekin bi gazte, eta Isaak bere semea. Eta txikiturik egurrak eskeñi dana errerako, abiatu zan Jaungoikoak agindu zion mendirontz.

4. Eta irugarren egunean, altxaturik begiak, ikusi zuen tokia urrutitikan:

5. Eta esan zioten bere mutillai: itxedon ezazute emen astoarekin: ni eta aurre, joanik agudo arañ, adoratu ezkeroz gero itzuliko gera zuekga-na.

6. Artu ere zituen egurrak eskeñirako, eta jarri zituen Isaak bere semearen gañean: berak berriz zeramazan eskuetan sua eta ganibita. Eta zijoazela biak batera,

7. Esan zion Isaakek bere aitari: Ene Aita. Eta berak erantzun zuen: Zer nai dezu, semea? Ona emen, esan zuen, sua eta egurrak: Non da eskeñi gaia?

8. Eta esan zion Abrahamek: Ene semea, Jaungoikoak eratuko du beretzat eskeñi gaia. Bazijoazen bada biak batera:

9. Eta eldu ziran Jaungoikoak erakutsi zion tokira, zeñean egin zuen aldare bat, eta gañean egurrak maneatu zituen: eta loturik Isaak bere semea, ipiñi zuen aldarean egur gabillaren gañean.

10. Eta luzatu zuen eskua, eta artu zuen ganibita, lepoa ebakitzeke bere semeari.

11. Eta ona non Jaunaren Aingeruak zerutik deadar egin zion, zio-tzala: Abraham, Abraham. Eta berak erantzun zuen: Emen naiz.

12. Eta esan zion: Ez ezazu luzatu zure eskua aurraren gañera, eta etzaiozu ere ezer egin; orain ezagutzen det Jaungoikoari beldur zatziola, eta ez diozula barkatu zere seme bakarrari ere nere amorioa gatik.

13. Jaso zituen Abrahamek bere begiak, eta ikusi zuen bere ostein txikiro bat, itsatsia sasian adarretatik, zeñi eldurik eskeñi zuen semearen lekuan.

14. Eta deitu zuen leku aren izena, Jaungoikoak dakus. Argatik gaurko eguneraño esaten da: Mendian Jaunak ikusiko du.

15. Eta deitu zion Jaunaren Aingeruak Abrahami bigarrenez zerutikan, esaten zuela:

16. Ni nerau gatik juramentu egiten det, esaten du Jaunak: Egin dezulako gauza au, eta ez diozulako barkatu zere seme bakarrari nere amorioa gatik:

17. Bedeikatuko zaitut, eta ugarituko det zure ondorea zeruko izarrak bezela eta itsas bazterrean dagoan ondarra bezela, eta zure ondorea izango da bere etsaien ateen jabe.

18. Eta zure ondorean izango dirade bedeikatuak lurreko erreñu guztiak, obeditu diozulako nere bozari.

19. Itzuli zan Abraham bere mutillak gana, eta joan ziran batera Bersabeera, eta bizi izan zan an.

20. Oiek onela igarorik, emana izan zitzaion Abrahami berria, nola bere anaia Nakorrek izan zituen semeak Melka gandik.

21. Hus lenbisisortua sortua, eta Buz bere anaia, eta Kamuel Sirotarren aita,

22. Eta Kased, eta Azau, Feldas ere, eta Jedlaf,

23. Eta Batuel, zeñgandik jaio zan Rebeka: zortzi oiek izan zituen Nakor Abrahamen anaia, Melkagandik.

24. Eta bere emakume bizilagun Roma eritzana gandik, izan zituen Tabee, eta Gaham, eta Tahas, eta Maaka.

OGETA IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta bizi izan zan Sara eun eta ogeita zazpi urtean.

2. Eta il zan Arbee errian, zeñ dan Hebron, Kanaango lurlean: eta etorri zan Abraham negarrez bere elizkizunak eta progua egitera.

3. Eta bukaturik elizkizunak itz egin zioten Heten semeai, esaten zuela:

4. Arrotza naiz eta erromesa zuen artean; indazute obiaren eskua zuekin, lurpetzeko nere illa.

5. Erantzun zuten Heten semeak, ziotela:

6. Aditu gaitzatzu, Jauna, Jaungoikoaren Pinzipea zera gure artean: lurpetu ezazu zere illa gure obia autatuetan, eta iñork ezin galaraziko dizu bere obian lurperatzea zure illa.



7. Jaiki zan Abraham, eta agur egin zion lurreko erriari, au da, Heten semeai:

8. Eta esan zioten: Ongitza baldin badezute lurpetzea nere illa, aditu nazazute, eta izan zaitezte nere bitartekoak Efron Seorren semeagan:

9. Eman dizadan bere soroaren azkenengo aldean zuen bi ziskuko koba, saltzen didala balio duenean, zuen aurrean obia egiteko.

10. Eta bizi zan Efron Heten semeen erdian. Eta erantzun zion Efronek Abrahami, erri artako atetikan sartzen ziraden guztiak aditzen zutela, esanaz:

11. Iñolaere ez da ala izango, nere Jauna, baizikan aditu nazazu eta entzun esaten dizudana: Ematen dizut, eta an dagoan koba, nere erriko semeen aurrean, lurpetu ezazu zure illa.

12. Makurtu zan Abraham lurreko erriaren aurrean.

13. Eta itz egin zion Efron jendez inguraturik zegoanari: Erregutuzten dizut, aditu nazazula. Emango dizut soroak balio duen dirua; ar zazu, eta onela lurpetuko det an nere illa.

14. Eta erantzun zuen Efronek:

15. Nere Jauna, aditu nazazu: Eskatzen dezun lurra, balio ditu laurreun siklo zillarrezko, au da balioa nere eta zure artean. Baña zenbat da au? lurpetu ezazu zure illa.

16. Aditu zuenean au Abrahamek, pisatu zuen Efromek eskatu zuen dirua, Heten semeak aditzen zutela, laurreun siklo zillarrezko merkatuko diru onean.

17. Onenbestekin len Efronena zan soroa, zeñean zegoan bi ziskuko koba bat, Manbrerontz begira, bai soroa eta bai koba, zuaitz guztia-kin bere inguruko alderri guztietan.

18. Eman izan zitzaion Abrahami bere jabe oso izateko, Heten semeak, eta erriartako atetik sartzen ziran guztiak ikusten zutela.

19. Eta onela lurpetu zuen Abrahamek Sara bere emaztea Manbrera begira zegoan bi ziskuko koban, au da, Hebron Kanaango lurrean.

20. Eta Heten semeak sendatu zioten Abrahami soroaren, eta an zegoan kobaren jabetasun osoa, obiak egin zitzaiz.

OGEITALAU GARREN KAPITULUA

1. Eta zan Abraham zarra, eta egun askotakoa, eta Jaunak bedekatu zuen gauza guztietan.

2. Eta esan zion bere etxeko morroe zarrago, zeuzkan gauza guztien kontu artzalleari: ipiñi ezazu zure eskua nere isterraren azpian,

3. Juramentu erazi dizazudan zeru eta lurreko Jaun Jainkoa gatik, ez dezula artuko nere semearentzat emaztea Kanaantarren alabetatik, zeintzuen artean bizi naizan:

4. Baizik joan zaitezela nere errira, eta aideetara, eta andik artu dezazula emaztea nere seme Isaakentzat.

5. Erantzun zuen morroiak: Ez baldin balu nai emakumeak etorri nerekin lur onetara, eraman bear bai al det zure semea, zu atera ziñan tokira?

6. Eta esan zuen Abrahamek: Begira, ez dezazula iñoiz eraman nere semea ara.

7. Zeruko Jaun Jainko ateratu ninduenak nere aitaren etxetik, eta nere jaiotzako lurretik, itz egin zidanak, eta juramentu egin zidanak, esaten zuela: Zure ondoreari emango diot lur au: hurak bidalduko du bere Aingerua zure aurrean, eta artuko dezu andikan emakumea nere semearentzat:

8. Emakumeak berriz ez baldin balizu jarraitu nai, etzera lotua egongo juramentura; baña iñolaere ez dezu eramango ara nere semea.

9. Ipiñi zuen bada morroiak eskua bere nagusi Abrahamen isterraren azpian, eta juramentu egin zion eginbide onen gañean.

10. Eta artu zituen amar gamelu bere nagusiaren taldetik, eta joan zan, zeramatziala berarekin bere gauzarik onenetatik, eta jarririk bidean eldu zan Mesopotamiara Nakorren errira.

11. Eta atsedean eragiñik gameluai errikan kanpora urezko putzu baten ondoan illunabarrean, emakumeak uraen eske joan oi diran denboran, esan zuen:

12. Nere nagusi Abrahamen Jaun Jainkoa, erregutuzten dizut, arren, lagun zadazula gaur neri, eta urrikal zaitezela Abraham nere nagusiarekin.

13. Ona non nagoan ni urezko iturriaren ondoan, eta erri onetan bizi diradenen alabak ateratuzten dirade uraren eske.

14. Arako dontzella bada, zeñi neronek esaten diodan: Beeratu ezazu zure bonbilla edan dezadan: eta berak erantzungo balit: Edan ezazu, baita ere emango diet zure gameluai edaria, huraishe da zure serbitzari Isaaki prestatu diozuna, eta onegatik ezagutuko det urrikal izan zerala nere nagusiarekin.

15. Oraindikan bere artean aitu gabe itz oiek, ona irtetzen zan Rebe-ka, Batuelen alaba, Melkaren semearena, Nakorren emaztearena, Abrahamen anaiarena, zuela bonbilla bere solbardan.



16. Neskatz moduzkoegia, eta donzella txit ederra, eta gizonak eza-gutu gabea, eta jatxia zan iturrira, eta betea zuen bonbilla, eta itzultzen zan.

17. Eta bidera atera zitzaion morroia, eta esan zion: Eman zadazu uraren piskatxo bat edateko zure bonbillatikan.

18. Berak erantzun zion: Edan ezazu, nere Jauna. Eta berealaxe beeratu zuen bonbilla bere besoaren gañera, eta eman zion edaten.

19. Eta ark edan zuenean, esan zuen: Baitaere aterako det ura zure gameluentzat, guztiak edan dezaten artean.

20. Eta usturik bonbilla odietan, itzuli zan putzura ura ateratzera, eta aterarik eman zioten gamelu guztiak.

21. Bera berriz zegokan begira ixillik, jakin nairik Jaunak doatsua egin ote zuen bere bidea, ala ez.

22. Eta gameluak edan zutenean, atera zituen gizonak urrezko belarrietako bi siklo pisatzen zutenak, eta anbat eskumuturretako amar siklo pisatzen zutenak.

23. Eta esan zion: Noren alaba zera? Adirazi zadazu. Bada zure aitaren etxean ostatuz egoteko tokirik?

24. Berak erantzun zuen: Naiz Batuelen alaba, Melkaren eta bere senar Nakorren semearena.

25. Esan ere zuen: Bada ugari gure etxean lastoa eta belar legorra, eta toki zabala egoteko.

26. Makurtu zan gizona eta adoratu zuen Jauna,

27. Esaten zuela: Bedekatua Abraham nere nagusiaren Jaun Jainko, kendu ez duena bere urrikalmendu eta egia nere nagusia gandik, eta ekarri nauena bide zuzenetik nere nagusiaren anaiaren etxera.

28. Korrika joan zan bada neskatz, eta esan zituen bere amaren etxean aditu zituen gauza guztiak.

29. Bazuen berriz Rebekak anaia bat Laban izenez, zeñ ariñ atera zan gizonagana, iturria zegoan tokira.

30. Eta ikusi zituenean belarritakoak eta eskumuturretakoak bere arrebaren eskuetan esaten zituenaren itz guztiak: Oiek esan dizkit gizonak, etorri zan gizonagana, zeñ zegoan gameluen ondoan, eta urezko iturriaren aldean:

31. Eta esan zion: Sartu zaite, Jaunaren bedekatua. Zergatik zaude kanpoan? Gertutu det etxea, eta tokia gameluentzat.

32. Eta sartu zuen arroztegian, eta tresnagabetu zituen gameluak, eta eman zizkieten lastoa eta belar legorra, eta ura garbitzeko beraren, eta berarekin etorri ziraden gizonen oñak.

33. Eta ipiñi zuten bere aurrean afaria. Berak esan zuen: Ez det jango, aliketa esan artean esateko dedana. Erantzun zion: Esan zazu.

34. Eta berak: Naiz, esan zuen, Abrahamen morroia:

35. Eta Jaunak bendizioz bete du nere nagusia, eta txit andi egin du, eta eman diozka ardiak eta idiak, zillarra eta urrea, morroiak eta neska-meak, gameluak eta astoak.

36. Eta aurra egin zion Sara nere nagusiaren emazteak seme bat nere nagusiari bere zartzan, eta eman ziozkan zituen gauza guztiak.

37. Eta juramentu eragin zidan nere nagusiak, esaten zuela: Ez dezu artuko ezkongairik nere semearentzat Kanaantarren alabetatik, zeñtzen artean bizi naizan:

38. Baizik joango zera nere aitaren etxera, eta nere aideen artetik artuko dezu ezkongaiia nere semearentzat.

39. Nik berriz erantzun nion nere nagusiari: Eta zer ez baldin balu nai etorri nerekin ezkongaiak?

40. Jaunak, esan zuen, zeñen aurrean nabillan, bidalduko du bere Aingerua zurekin, eta zuzenduko du zure bidea, eta artuko dezu ezkongaiia nere semearentzat nere aideetatik, eta nere aitaren etxetik.

41. Askatua izango zera nere madarikaziotik, etorrikerik nere aideetara, emango ez baldin balizute.

42. Allegatu naiz bada gaur urezko iturrira, eta esan det: Abraham nere nagusiaren Jaun Jainkoa, zuzendu baldin badezu orain nabillan nere bidea,

43. Ona non nagoan urezko iturriaren aldean; eta ura ateratera irtezen duen donzella, eta nik esaten diodana: Eman zadazu uraren piskatxo bat edateko zure bonbillatik.

44. Eta esaten didana: Edan ezazu zuk, eta aterako det zure gameluentzat, huraxe da Jaunak prestatu duen emakumea nere nagusiaren semearentzat.

45. Eta nengoala gauza oiek ixilean nere artean nerabiltzazala, agertu zan Rebeka zetorrela bere solbardan zeraman bonbillarekin, eta jatxi zan iturrira eta atera zuen ura. Eta esaten diot berari: Ekatzu piskatxo bat edateko.

46. Berak arin beeratu du bonbilla solbardatik, eta esan dit: Edan ezazu, eta zure gameluai emango diet edaria. Edan det, eta eman die edaten gameluai.

47. Eta galdetu nion, eta esan: Noren alaba zera? Berak erantzun zuen: Naiz Batuelen alaba, Nakorren semearena, zeñ erdi zion Melkak.



Eta ala ipiñi diozkat zinzilika belarrietakoak bere arpegia apaintzeko, eta jarri diozkat eskumuturretakoak bere eskuetan.

48. Eta auzpezturik adoratu nuen Jauna, bedeikatzen nuela Abraham nere nagusiaren Jaun Jainkoa, zeñak ekarri ninduen bide zuzenetik, artu nezan nere nagusiaren anaiaren alaba bere semearentzat.

49. Argatik izan nai baldin badezute ongigilleak eta leialak nere nagusiarekin, esan zadazute; baña beste gauzarik nai baldin badezute, au ere esan zadazute, joan nadin eskuiera, edo ezkererra.

50. Eta erantzun zuten Laban eta Batuelek: Jaunaren lana da au, ezin genzake guk zurekin beste gauzarik itzegin, beraren gogoko dana baizik.

51. Ona emen non dezun zure aurrean Rebeka; ar zazu, eta zoaz, eta izan bedi zure nagusiaren semearen emaztea, Jaunak itz egin duen bezela.

52. Aditu zuenean au Abrahamen morroiak, auzpezturik lurrean adoratu zuen Jauna.

53. Eta aterarik zillarrezko eta urrezko txarroak, eta jantziak, eman ziozkan Rebekari doaiñtzat; bere anaiai ere eta amari eskeñi ziozkaten emaitzak.

54. Ipiñirik bazkaria, egon ziran an elkarrekin jaten eta edaten zute-la. Eta jaikirik goizean, morroia esan zuen: Utzi zadazute joan nadin nere nagusiagana.

55. Eta erantzun zuten bere anaiak eta amak: Bego gurekin neskaxa amar egunean bederik, eta gero bijoa.

56. Ez nazazute gelditu, erantzun zuen, zeren Jaunak zuzendu du nere bidea, utzi zadazute joan nadin nere nagusia gana.

57. Eta esan zuten: Otsegin zaiogun neskaxari, eta jakin dezagun beraren borondatea.

58. Eta otseginda, etorri zanean, galdetu zioten: Nai dezu joan gizon onekin? Berak erantzun zuen: Joango naiz.

59. Utzi zioten bada joaten berari, eta bere iñudeari, eta Abrahamen morroiari, eta bere lagunai.

60. Eta zoriontasun guztiak opa ziozkatela beren arrebari, eta ziotela: Gure arreba zera, azi zaitezela millen millatan, eta zure ondorea jabetu dedilla, beren etsaien ateen jabe izan dedilla.

61. Rebeka bada, eta bere neskameak, igorik gameluetan, jarraitu zioten gizonari, zeñ bazijoan arin bere nagusiagana.

62. Denbora artan berriz bazebillan Isaak putzura daraman bidean, zeñen izena da bizi danarena eta dakusanarena, zeren bizi zan egoeko lurrean.

63. Eta atera zan kanpora erregutzera, eguna iya igaroan: eta jasorik begiak, ikusi zituen gameluak urrutian zetoza.

64. Rebeka ere, ikusirik Isaak, jatxi zan gamelutik,

65. Eta esan zion morroiari: Zeñ da arako gizon, datorrena kanpotik guri bidera irtetzera? Eta esan zion: Hura da nere nagusia. Eta bera berea-la eldurik oialari, estali zan.

66. Morroiak berriz kontatu zion Isaaki, egin zuen guztia.

67. Zeñak sartu zuen bere ama Sararen gelan, eta artu zuen emazteztzat; eta ainbesteraño maitetu zuen eze, beraatu zion bere amaren eriotzak eman zion miña.

OGEITA BOSTGARREN KAPITULUA

1. Abraham berriz ezkondu zan beste emakume Zetura zeritzan batekin:

2. Zeñak erdi zion Zamram, eta Jeksan, eta Madan, eta Madian, eta Jesbok, eta Sue.

3. Jesanek ere egin zituen Saba, eta Dadan. Dadanen semeak izan ziran Assurin eta Latusin, eta Loomim.

4. Eta Madiangandik jaio ziran Efa, eta Ofer, eta Enok, eta Abida, eta Eldaa, oiek guztiok Zeturaren semeak.

5. Eta Abrahamek eman ziozkan Isaaki, zeuzkan gauza guztiak:

6. Konkubinaen semeai berriz eman ziozkaten doaiñak, eta apartatu zituen bere seme Isaakgandik, oraindikan bera bizi zala, Sortalderontz.

7. Eta Abrahamen bizitzako egunak izan ziran, eun eta irurogeita amabost urte.

8. Eta indargaturik ill zan zartza onean, eta edade andikoa, eta egunez bete, eta bildu zan bere erriarekin.

9. Eta obitu zuten Isaak eta Ismael bere semeak bi ziskuko koban, zeñ dagoan Efrongo kanpoan, Seor Hetarren semearena Manbreren aurrean

10. Zeñ erosi zioten Heten semeai, an izan zan obitua bera, eta Sara bere emaztea.

11. Eta bera ill ezkeri bedeikatu zuen Jaungoikoak bere seme Isaak, bizi zana bizi danaren eta dakusanaren izena duen putzuren aldean.

12. Oiek dirade Ismaelen Abrahamen semearen, Agar Egiptorarak, Sararen neskameak egin zionaren etorkiak.

13. Eta oiek dirade bere semeen izenak, zeñakin izan ziran deituak bere ondoreak. Ismaelen lenbizi sortua Nabaiot, gero Zedar, eta Abdeel, eta Mabsam,



14. Eta Masma, eta Duma, eta Massa,
15. Hadar, eta Tema, eta Jetur, eta Nafis, eta Zedma.
16. Oiek dirade Ismaelen semeak, eta alakoak gazteluai eta erriai eman ziozkaten izenak. Berak etorri ziran izatera amabi prinzipe bezelakoak, bakoitza bere etxadikoa.
17. Eta Ismaelen bizitzako urteak izan ziran eun eta ogeita amazazpi, eta indargaturik ill zan, eta izan zan bere erriarekin bildua.
18. Eta bizitu izan zan Hebilatik Surreraño, zeñak begiratutzen duen Egiptora sartzen diradenentzat Asiriara. Bere anaia guztien aurrean ill zan.
19. Oiek ere dirade Abrahamen seme Isaaken gizadiak: Abraham gandik izan zan sortua Isaak;
20. Zeñ berrogei urtekoa zala, ezkondu zan Rebeka Batuelen alaba Siria Mesopotamiako, Labanen arrebarekin.
21. Eta Isaakek erregutu zion Jaunari bere emaztea gatik, zalako aurgea: zeñak aditu zion, eta eman zion Rebekari sortzeko ala.
22. Baña elean ari ziran bere sabelean aurrak; eta esan zuen: Baldin onela gertatuko bazatan, sortzearen zer premia zan? Eta joan zan Jaunarekin ituntzera.
23. Zeñak erantzunaz esan zuen: Bi erreinu daude zure sabelean, eta bi erri zure erraietatik berezituko dirade, eta erriak erria garaituko du, eta andiagoak serbituko du txikiagoa.
24. Eldua zan onezkero aurrigiteko denbora, eta ona non bizkiak izan ziran arkituak bere sabelean.
25. Lenbizi atera zana, origorria zan, eta guztia illtsua larruaren antzera, eta bere izena izan zan deitua Esau. Bereala aterarik bestea, anaiairen onpeari zitzekan eskuarekin, eta argatik deitu zion Jakob.
26. Irurogei urtekoa zan Isaak, jaio zitzaiozkanean aurrak.
27. Andi egin ziranean, Esau irten zan mutil eiztari trebea, eta kanpo gizona, baña Jakob mutil tolesgabea bizi oi zan txaoletan.
28. Isaakek maitetzen zuen Esau, bere eizetatik jaten zuelako, eta Rebekak amaten zuen Jakob.
29. Eta Jakobek egosi zuen baratz salda bat, zeñgana etorriarik Esau nekatua kanpotik,
30. Esan zion: Eman zadazu egosi gorri onetatik, zeren txit nekatua nago. Argatik eman zitzaion bere izena Edom.
31. Zeñi esan zion Jakobek: Saldu zaskidazu lenbizitasunaren eskubideak.

32. Berak erantzun zuen: Ona non iltzen naizan. Zer balioko didate lenbizitasunaren eskubideak?

33. Jakobek esan zuen: Juramentu egin zadazu. Juramentu egin zion Esauk, eta saldu ziozkan lenbizitasunaren eskubideak.

34. Eta ala arturik ogia, eta txilista platera, jan, eta edan zuen, eta joan zan, gutxitan zeukala saldu izatea lenbizitasuneko eskubideak.

OGETA SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta etorriarik gosetea lurraren gañera, Abrahamen egunetan gertatu zan ezurtearen ondoan, joan zan Isaak Jerarara, Abimelek Palestinataarren Erregeana.

2. Eta agertu zitzaion Jauna, eta esan zion: Etzaitz jatxi Egiptora, baidzik zaude geldirik esaten dizudan lurrean.

3. Eta bizi zaite arrotza bezela, eta izango naiz zurekin, eta bedeikatuko zaitut, zeren zuri eta zure ondoreari emango dizkizutet alderri guzti oiek, beterik zure aita Abrahami eskeñi nion juramentua.

4. Eta ugarituko det zure jatorria zeruko izarrak bezela, eta emango dizkietet zure etorkiai alderri guzti oiek, eta bedeikatuak izango dira zure jatorrian lurreko erreñu guztiak,

5. Abrahamek obeditu ziolako nere bozari, eta gorde zitualako nire esanak eta agintzak, eta zaitu zitualako zeremoniak eta legeak.

6. Onenbesterekin gelditu zan Isaak Jeraran.

7. Eta nola toki artako gizonak galdetzen zioten bere emazteगतिक, erantzun zuen: Nere arreba da. Zeren beldur zan aitortzen berarekin ezkontzaz lotuta zegoala, errezelaturik aurki illko zutela aren edertasunagatik.

8. Eta iragorik egun asko, eta egonik antxe, begiraturik Abimelek Palestinataarren erregeak leio batetik, ikusi zuen pozkarietan bere emazte Rebekarekin.

9. Eta otsegiñik berari, esan zion: Ezagun da zure emaztea dala, zergatik gezurrarekin esan dezu zure arreba dala? Erantzun zuen: Beldur nintzan illko nintzala bera gatik.

10. Eta esan zuen Abimelekek: Zergatik engañatu gaituzu? Erriko norbait naasi zezakean zure emaztearekin, eta ekarri zenezakean gure gañera bekatu andia. Eta agindu zion erri guztiari, esaten zuela:

11. Gizon onen emazteari ukitutzen diona, ziertoro illko da.

12. Eta erein zuen Isaakek lur artan, eta arkitu zuen eunbidar anbat, eta bedeikatu zuen Jaunak.



13. Eta aberastu zan gizona, eta bazijoan aurreratuaz eta aziaz, aliek-ta txit andia egin zan artean.
14. Izan ere zituen ardi eta ele taldeak, eta mirabe txit asko. Argatik bere ondamuan jarririk Palestinarrak,
15. Estali zituzten denbora artan, Abraham aren aitaren morroiak egin zituzten putzu guztiak, beterik lurraz:
16. Ainbeste eze, Abimelekek berak esan zion Isaaki: Alde ezazu gugandik, zeren gu baño txit altsuago egin zera.
17. Eta berak alde egiñik, etortzeko Jerarako erre kara, eta an biziteko:
18. Berriz egin zituen beste putzu batzuk, zeñak egin izan zituzten bere aita Abrahamen morroiak, eta zeñak, hura ill ezkeru, estali zituzten Filisteoak; eta deitu ziozkaten, aita len ipiñi ziozkaten izenakin berakin.
19. Eta aitzurtu zuten ibarrean, eta arkitu zuten ur bizia.
20. Baña an ere erriertak zeuden Jerarako artzaien eta Isaaken artzaien artean, esaten zutela: Gurea da ura. Agatik, gertatu zana gatik, deitu zuen putzuaren izena Gezurrasmazioa.
21. Aitzurtu zuten beste bat ere, eta augatik ere aserretu ziran, eta deitu zion, Etsaitasunak.
22. Joanik andik aitzurtu zuen beste putzu bat, zeñgatik etzan izan erriertarik, eta argatik deitu zion bere izena, Zabalera, esaten zuela: Orain bai zabaldu gaituala Jaunak, eta jarri gaituala azitzeko eran.
23. Eta igo zan toki artatik Bersabeera,
24. Non agertu zitzaion Jauna gau artan beratan, esaten zuela: Ni naiz, zure aita Abrahamen Jaungoikoa, etzaite beldur izan, zeren ni zurekin naiz, bedekiatuko zaitut, eta ugarituko det zure ondorea nere serbitzari Abraham gatik.
25. Eta ala egin zuen an aldare bat, eta deiturik Jaunaren izenari, zabaldu zuen bere kanpoetxea, eta agindu zien bere morroiak aitzurtutze-ko putzu bat.
26. Eta etorririk toki onetara Jeraratik, Abimelek, eta Okozat aren adiskidea, eta Mikol soldauen agintari nagusia.
27. Itz egin zien Isaakek: Zergatik etorri zerate nigana, gorroto diotuzten, eta zuek gandik bota zenduten gizona gana?
28. Zeñak erantzun zuten: ikusi degu zurekin dala Jauna, eta argatik esan degu: Bego juramentua gure artean, eta egin dezagun elkartasuna,
29. Ez diguzun egin gaitzik, nola guk ere ez diogun ukitu zure gauzari, ez zuri kalte egingo dizun gauzarik egin, baizikan pakean utzi zindugun Jaunaren bendizioz bete.

30. Eman zien bada bazkari eder bat, eta jan, ta edan ezkeru,
31. Jaikirik goiz, egin ziozkaten elkarri juramentuak, eta utzi zien joaten Isaakek pakean beren tokira.
32. Eta ona non egun artan beratan etorri ziran Isaaken morroiak berri ematera berari, aitzurtu zuten putzuaren gañean, eta esaten zutela: Arkitu degu ura.
33. Argatik deitu zion, Ugaritasuna, eta erriari ipiñi zitzaion izena da Bersabee, gaurko eguneraño.
34. Esauk berriz berrogei urtekoa zala artu zituen emazteak, Judit Beerri Heteoen alaba, eta Basemat Elon toki hurakoxearen alaba:
35. Zeñak biak naigabetu izan zuten Isaaken eta Rebekaren anima.

OGETA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Isaak berriz zartu zan, eta bere begiak illundu zitzaiozkan, eta ezin zuen ikusi, eta deitu zion Esau bere seme andiangoari, eta esan zion: Ene semea. Berak erantzun zuen: Emen nago.
2. Zeñi Aitak: ikusten dezu, esan zuen, zartu naizala, eta ez dakidala nere eriotzako eguna.
3. Artu itzatzu zure armak, fletxategia, eta tiruztaia, eta atera zaite kanpora, eta atxitzen dezunean eiz gauzarik,
4. Egin zadazu andik gisatua, nola dakizun nik nai dedala, eta ekarri zadazu jan dezadan, eta bedekiatu zaitzan nere animak il nadin baño lenago.
5. Aditurik au Rebekak, eta hura joanik kanpora aitaren agintea betetzera,
6. Esan zion bere seme Jakobi: Aditu det zure aita izketan zure anaia Esaurekin, eta esaten diola:
7. Ekar zadazu zure eizetikan, eta gisatu zadazu jan dezadan, eta bedekiatu zaitzadan il nadin baño lenago.
8. Orain bada, ene seme oben egin ezazu nere esanetara.
9. Eta joanik auztaldera, ekartzidazu bi antxume obenak, egiteko berakin zure aitari, gogotik jaten dituen janariak:
10. Zeñak zuk eramane, eta berak janik, bedekiatu zaitzan il dedin baño lenago.
11. Zeñi ark erantzun zion: Badakizu Esau nere anaia gizon illetsua dala, eta ni bizargabea:
12. Baldin ukitzen badit nere aitak, eta ezagutzen banau, beldur naiz uste izan ez dezala burlatu nai izan diodala, eta ekarri ez dezadan nere gañera madarikazioa bedekazioaren orde.



13. Zeñi amak: Nere gan izan bedi, esan zion, madarikazio au, ene seme: aditu ezazu bakarrik nere boza, eta joanik ekarzikidazu esan ditudanak.

14. Joan zan, eta ekarri zituen, eta eman ziozkan bere amari. Prestatu zituen berak janariak, ekian bezela nai zituela aren aitak.

15. Eta jantzi zuen Esaturen soñekorik obenakin, zeñak zeuzkan gordeta etxean,

16. Eta ingurutu ziozkan eskuak antxumen larruakin, eta estali ziozkan lepoko biluzak .

17. Eta eman zion gisatua, eta eskuratu ziozkan egosi izan zituen ogiak.

18. Zeñak eramanik, esan zuen: Ene Aita. Eta ark erantzun zion: Aditzen det. Zeñ zera zu, ene seme?

19. Eta esan zuen Jakobek: Ni naiz Esau zure lenbisisortua, egin det zuk agindu izan didazun bezela, jaiki, eta eseri zaite, eta jan ezazu nere eizetikan, bedeikatu naitzan zure animak.

20. Eta berriz Isaakek bere semeari: Nola, esan zion, ain arin arkitu izan al dezu, ene seme? Zeñak erantzun zion: Jaunaren borondatea zan laster neri bidera irtetzea nai nuena.

21. Eta esan zuen Isaakek: Atozkit onara, ukitu dizazudan, ene seme, eta ezagutu zaitzadan ote zeran zu Esau nere semea, ala ez.

22. Urreratu zan hura aitagana, eta ukiturik berari, esan zuen Isaakek: Egiatzki boza, Jakobek boza da; baña eskuak, Esaturen eskuak dirade.

23. Eta etzuen ezagutu, zeren esku illetsuak eman zioten andiagoren antza. Emateko bada berari bedeikazioa,

24. Esan zuen: Zu bai al zera nere seme, Esau? Erantzun zuen: Ni naiz.

25. Eta berak: Ekarzikidazu, esan zuen, janariak zure eizetik, ene semea, bedeikatu zaitzan nere animak. Zeñak eskeñita jan zituenean, eskeñi zion ardoa ere. Zeñ edanik,

26. Esan zion: Alderatu zaite nigana, eta eman zadazu laztan bat, ene semea.

27. Alderatu zan eta laztandu zuen. Eta berealaxe ulertu zueneko bere soñekoen usai gozoa, bedeikatuten zuela, esan zuen: Ona nere semearen usaia, Jaunak bedeikatu duen kanpo loratsu baten usaia bezelakoa.

28. Eman dizazula Jaungoikoak zeruko intza, eta lurreko koipearekin gariaren eta ardoaren ugartasuna.

29. Eta serbitu zaitzateela erriak, eta adoratu balleran, izan zaite zure anaien Jaun, eta makurtu bitez zure aurrean zure amaren semeak. Zu madarikatzen zaituena, izan bedi madarikatua, eta zu bedeikatzen zaituena, izan bedi bendizioz betea.

30. Isaakek itz oiek bukatu, eta Jakobek kanpora irten orduko, etorri zan Esau,

31. Eta eraman ziozkan aitari eizeko janariak egosirik, esaten zuela: Jaiki zaite, ene aita, eta jan zazu zure semearen eizetik, bedeikatu naizan zure animak.

32. Eta esan zion Isaakek: Nor zera bada zu? Berak erantzun zuen: Ni naiz Esau zure seme lenbisisortua.

33. Arritu zan Isaak izi txit andiarekin, eta sinistu al lezakean baño geiago, mirariturik, esan zuen: Zeñ da bada arestian ekarri didana eiz atxittua, eta jan det guztietatik zu etorri baño lenago? Eta bedeikatu det, eta bedeikatua izango da.

34. Aditurik Esau aitaren itzak, orroa egin zuen alarau andiarekin, eta ikaraturik, esan zuen: Bedeikatu nazazu ni ere, ene aita.

35. Zeñak esan zuen: Etorri da somaz zure anaia, eta artu du zure bendizioa.

36. Eta berak esan zuen: Arrazoi andiarekin izan zan deitua bere izena Jakob; zeren ona non bigarren aldiz jarri dan nere tokian; len eraman zidan nere lenen izatea, eta orain bigarrenez ostu dit nere bendizioa. Eta berriz aitari: Ez al dezu gorde, esan zion, bendiziorik neretzat ere?

37. Isaakek erantzun zuen: ipiñi det zure jaun egiñik, eta bere anaia guztiak jarri ditut aren menpetasunaren uztarpean: sendatu det gari ta ardoarekin, eta oien ondorik, zer egingo dizut, ene semea, zuri?

38. Zeñi Esauk: Zer bada, ez al dezu, aita, bendizio bat baizik? Erregututzen dizut ni ere bedeikatu nazazula.

39. Urrikariturik, Isaak, esan zion: Lurreko gizontasunean, eta zeruko goiko intzean,

40. Izango da zure bendizioa. Gerran biziko zera, eta zure anaiaren mendeko izango zera eta etorriko da denbora, astindu, eta askatuko dezuna zure lepotik bere uztarria.

41. Esauk bada beti gorrotatu zuen Jakob aitak eman zion bendizioa gatik, eta esan zuen bere biotzean: Etorriko dira nere aitaren lutoko egunak, eta ilko det nere anaia Jakob.

42. Adirazi ziozkaten oiek Rebekari: zeñak bidaldurik otsegitera bere seme Jakobi, esan zion: Ona non Esau zure anaia zemaiz ari da zu iltzeko.



43. Orain bada, ene semea, aditu ezazu nere boza, eta jaikirik iges ezazu nere anaia Labangana Haranera:

44. Eta biziko zera berarekin egun gutxi batzuetan, aliketa itzali dedin artean zure anaiaren aserrea,

45. Eta baratu artean bere gorrotoa, eta aztu dedin artean egin diozkazun gauzakin: gero bialduko det, eta ekarriko zaitut andikan onera. Zer-gatik galduko ditut seme biak egun batean?

46. Eta esan zion Rebekak Isaaki: Nere biziarekin iguindurik nago Heten alabak gatik, baldin Jakobek artzen badu emaztea lur onetako etorkitik, ez det nai bizi.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Isaakek bada otsegin zion Jakobi, eta bedeikatu zuen, eta agindu zion, esaten zuela: Ez ezazu artu emaztea Kanaango kastatik:

2. Baizik zoaz, eta irago zaite Siriako Mesopotamiara, zure amaren aita Batuelen etxera, eta artu ezazu zuretzat andikan emaztea Laban zure osabaren alabetatik.

3. Eta Jaungoiko guztialdunak bedeikatu zaitzala, eta azi eragin deza-zula, eta ugaritu zaitzala, izan zaitezzen erri askoren gialaria,

4. Eta eman ditzatzula Abrahamen bendizioak, eta zure etorkiari zure ondoan: izan zaitezzen erromes ibilli zeran lurraren, zure aitonari eskeñi zionaren jabe.

5. Eta utzi zionean Isaakek, aterarik etorri zan Siriako Mesopotamiara Laban Batuel Sirokoaren seme, bere ama Rebekaren anaia gana.

6. Eta ikusirik Esauk, bere aitak bedeikatu zuela Jakob, eta bialdu zuela Siriako Mesopotamiara, andik artzeko emaztea, eta bendizioaren ondoan agindu ziola, esanaz: Ez dezu artuko emaztea Kanaango alabetatik:

7. Eta obediturik Jakobek bere gurasoai, joan zala Siriara:

8. Ikusirik ere irago zitzaionaz bere aitak etziela abegi onarekin begiratzen Kanaango alabai:

9. Joan zan Ismaelgana, eta artu zuen emaztetzat, len zeuzkanetatik gañera, Mahelet Abrahamen seme Ismaelen alaba, Nabaioten arreba.

10. Aterarik bada Jakob Bersabeetik, bazijoan Haranerontz.

11. Eta eldurik toki batera, eta atsedan nairik beratan eguzkia sartu ezker, artu zuen lurrean zeuden arrietatik bat, eta ipiñirik bere buruaren azpian, lo egin zuen toki huratan beratan.

12. Eta ikusi zuen ametsetan eskallera bat, zeñaen oña zegoan lurraren gañean, eta beraren goiak ukitzen zion zeruari: baitaere Jainkoaren Aingeruak igotzen eta jatxitzen zirala beratatikan,

13. Eta Jauna eskallerari zitxekala, esaten ziola: Ni naiz zure aita Abrahamen Jaun Jainkoa, eta Isaaken Jainkoa: Lo zatzan lurra, emango dizutet zuri, eta zure ondoreari

14. Eta izango da zure ondorea lurreko autsa bezela: izango zera zabaldua Sartaldera, eta Sortaldera, eta Ifarrera, eta Egoera: eta bedeikatuak izango dira zukan, eta zure ondorean lurreko etxadi guztiak.

15. Eta izango naiz zure zaitzalea joaten zeran edozein tokitan, eta itzuliko zaitut lur onetara; eta etzaitut utziko aliketa bete artean esan dedan guztia.

16. Eta esnatu zanean Jakob lotatik, esan zuen: Egiazki Jauna da toki onetan, eta nik ez niekien.

17. Eta izaturik, esan zuen: Zeñ ikaragarria dan leku au! Ez dago emen besterik, Jaungoikoaren Etxea baizik, eta zeruko atea.

18. Jaikirik bada Jakob goiz, artu zuen bere buruaren azpian jarri zuen arria, eta zutatu zuen oroipengarrizat, isuririk olio gañetik.

19. Eta deitu zuen erriaren izena Betel, zeñi len zeritzan Luza.

20. Egin ere zuen eskeiñtzari bat, esaten zuela: Baldin Jaungoikoa izaten bada nerekin, eta zaitzen banau ni nabillan bidetik, eta ematen badit ogia jateko, eta soñekoa jantziteko,

21. Eta itzuliko banintza ongi nere aitaren etxera, Jauna izango da nere Jaungoikoa.

22. Eta oroipengarrizat zutatu dedan arri au, izango da deitua Jaungoikoaren etxea, eta eskeñiko dizkitzut, ematen didazun guztiaren amarrenak.

OGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Jarraturik bada Jakobek bere bideari, etorri zan Sortaldeko lurre-ra.

2. Eta ikusi zuen putzu bat kanpo batean, eta iru ardien talde zeudela eguerdiera egiten bere aldean, eta beraren aoa arlosa andi batekin itxi oi zan.

3. Eta oitura zan alderagitea arriari, ardi guztiak bildurik, eta edanik abere guztiak, berriz ipintzea putzuaren aoaren gañean.

4. Eta esan zien artzaiai: Anaiak, nongoak zerate? Berak erantzun zuten: Harangoak.



5. Zeñai galdeturik, esan zien: Ezagutzen bai al dezute Labain Nako-
rren semea? Esan zuten: Badazaugu
6. Ongi al da? Esan zuten: Osasunarekin da, diote, eta ona emen
Rakel beraren alaba dator bere artaldearekin.
7. Eta esan zuen Jakobek: Oraindikan egunaren zati andia igarogabe
da, eta ez da giberriak abeletzetan biltzeko denbora, eman zaiezute lena-
go edaria ardiai, eta onela eraman itzatzute berriz bazkatzera.
8. Berak erantzun zuten: Ezin genzake, aliketa abere guztiak bildu
ditezten bitartean, eta kendu dezagun bitartean putzuko aoko arria, edan
dezaten artaldeak.
9. Oraindikan izketan ari ziraden, eta ona non Rakel zetorren, bere
aitaren ardiakin, zeren berak zaitzen zuen artaldea.
10. Zeñi ikusi zuenean Jakobek, eta jakin bere lengusua zala, eta
ardiak bere osaba Labanenak, alderagin zion putzuaren gañeko arriari.
11. Eta artaldeak edan zuenean ura, musu eman zion, eta negar
andiak egin zituen,
12. Eta adirazi zion zala bere aitaren anaia, eta Rebekaren semea, eta
Rakel joanik arin esan zion bere aitari.
13. Zeñak aditurik etorri zala Jakob bere arrebaren semea, korrika
bidera irten zitzaion, eta laztandurik, eta milla musu emanik, eraman zuen
bere etxera. Eta aditurik ara joaeraren arrazoiak,
14. Erantzun zion: Nere ezurra zera, eta nere aragia. Eta bete ziran
ezkero ill bateko egunak,
15. Esan zion: Doan serbituko al nazu, nere anaia zeralako? Esan
zadazu zer sari artuko dezun.
16. Eta zeuzkan bi alaba, andiangoaren izena Lia, txikiagoari berriz
zeritzan Rakel.
17. Baña Lia zan begi bekartsua; Rakel arpegi ederrekoa, eta liraña.
18. Zeñi maiteturik Jakobek, esan zuten: Serbituko zaitut zure alaba
txikiago Rakel gatik, zazpi urtean.
19. Erantzun zuen Labanek: Obe det zuri ematea, beste gizonen bati
baño, gelditu zaite nerekin.
20. Serbitu zuen bada Jakobek Rakel gatik zazpi urtean: eta iduritzen
zitzaiozkan gutxi egunak amorioaren anditasuna gatik.
21. Eta esan zion Labani: Eman zadazu nere emaztea, zeren bete da
berarekin bizitzeko denbora.
22. Zeñak otsegiñik adiskide talde askori janedanera, egin zituen
eztaiak.
23. Eta gabeen sartu zion bere alaba Lia,

24. Ematen ziola alabari serbitzari bat, izenez Zelfa. zeñgana sartu-
rik Jakob oi bezela, zabaldurik eguna ikusi zuen Lia:
25. Eta esan zion aitagiarrabari: Zer da egin nai izan dezuna? Rakel
gatik ez al zaitut serbitu? Zergatik engañatu nazu?
26. Erantzun zuen Labanek: Ez da oitura gure errian, txikiagoak
lenago eman ditzagula eztaietarako.
27. Bete ezazu eztaien onen egunen astea, eta au ere emango dizut,
beste zazpi urtean serbituko nazun lana gatik.
28. Oben egin zuen eskarira: eta iragorik astea, ezkondu zan Rakele-
kin:
29. Zeñi aitak eman zion Bala serbitzarizat.
30. Iritxirik noizbat Jakobek ain nai zituen eztaiak, maiteago izan
zuen bigarrena lenbizikoa baño, serbitzen zuela Labanen etxean beste
zazpi urtean.
31. Baña ikusirik Jaunak mezpreziatzen zuela Lia, izor egin zuen,
aizpa agorra gelditzen zala.
32. Zeñak argitara eman zuen beragan sortua izan zan semea, eta
deitu zuen bere izena, Ruben, esaten zuela: ikusi zuen nere azpiratutasu-
na, orain maitetuko nau nere senarrak.
33. Berriz ere aurdun gelditu zan, eta egin zuen seme bat, eta esan
zuen: Aditu duelako Jaunak mezpreziatua naizela, eman dit au ere. Eta
deitu zuen bere izena Simeon.
34. Irugarrenez ere aurdun gelditu zan, eta egin zuen beste seme bat,
eta esan zuen: Orain ere bilduko da nerekin nere senarra, egin diozkada-
lako iru seme, eta argatik deitu zuen bere izena Lebi.
35. Laugarrenez aurdun gelditu zan, eta egin zuen seme bat, eta esan
zuen: Orain alabatuko det Jauna. Eta argatik deitu zion, Juda: eta etzan
berriz aurdun gelditu.

OGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Ikusirik berriz Rakelek agorra zala, bere aizporen onaren damua
izan zuen, eta esan zion bere senarrari: Eman zaskidazu semeak, bestela
ilko naiz.
2. Zeñi erantzun zion Jakobek aserraturik: Jaungoikoaren, zure sabe-
leko fruturikan gabe utzi zaituanaren, lekuan bai al nago ni?
3. Eta berak: Badet, esan zion, Bala serbitzaria; sartu zaite beragana,
aurregin dezan nere belauen gañean, eta izan ditzadan beragandikan
semeak.
4. Eta eman zion Bala emaztetzat: zeñ,



5. Sarturik beragana senarra, aurdun gelditu zan, eta egin zuen seme bat.
6. Eta esan zuen Rakelek: Juzgatu nau Jaunak, eta aditu du nere boza, emanik neri seme bat; eta argatik deitu zuen bere izena Dan.
7. Berriz ere aurdun gelduturik Bala, egin zuen beste bat;
8. Argatik esan zuen Rakelek: Elear jarri nau Jaungoikoak nere aizparekin, eta garai atera naiz: eta deitu zion, Neptali.
9. Ezaguturik Liak utzi ziola aurregiteari, eman zion senarrari bere serbitzari Zelfa.
10. Zeñak aurdun gelditu ondoan egiñik seme bat,
11. Esan zuen: Galanki. Eta argatik deitu zuen bere izena Gad.
12. Zelfak beste aur bat ere egin zuen.
13. Eta esan zuen Liak: Au nere zorionerako, zeren emakumeak deituko didate zorionekoa, argatik deitu zion, Asser:
14. Eta aterarik Ruben kanpora gariak ebakitzeko denboran, arkitu zituen urriloak; zeñak eraman ziozkan bere ama Liari. Eta esan zuen Rakelek: Eman zazkidazu zure semearen urrilo batzuek.
15. Berak erantzun zuen: Gutxi al deritzazu kentzea neri senarra, gañera eramateko nere semearen urriloak ere? Esan zuen Rakelek: Lo egin beza zurekin gaurko gabea zure semearen urriloak gatik.
16. Eta itzultzen zala Jakob kanpotikan illunabarrean, irten zan bere bidera Lia, eta esan zion: nerekin egongo zera, zeren neronek erosi det eskubide au nere semearen urriloak gatik. Eta lo egin zuen Berarekin gau artan.
17. Eta aditu zituen Jaungoikoak bere erreguak: eta aurdun gelditu zan, eta egin zuen bost garren semea,
18. Eta esan zuen: Eman dit Jaungoikoak saria, eman niolako nere neskamea nere senarrari, eta deitu zuen bere izena, Issakar.
19. Berriz ere Lia aurdun gelditurik, egin zuen seigarren semea,
20. Eta esan zuen: Dotatu nau Jaungoikoak dote onarekin; oraingo aldian ere nerekin izango da nere senarra, egin diozkadalako sei seme, eta argatik deitu zuen bere izena, Zabulon.
21. Seme onen ondoan egin zuen alaba bat, izenez Dina.
22. Oroiturik Jauna Rakelekin ere, aditu zuen, eta izortu zan.
23. Zeñ aurdun gelditu zan, eta egin zuen seme bat, esaten zuela: Kendu du Jaungoikoak nere lotsaria.
24. Eta deitu zuen bere izena Jose, esaten zuela: Eman bizat Jaunak beste seme bat.

25. Eta Jose jaiota, esan zion Jakobek bere aita-giarrabari: Utzi zada-
zu itzuli nadin nere jaioterrira, eta nere lurrera.
26. Eman zazkidazu nere emazteak, eta nere semeak, zeñak gatik serbitu zaitudan, joan nadin; zuk dakizu nola serbitu zaitudan.
27. Esan zion Labanek: Arkitu dezadala nik abegi ona zure aurrean; iragoarekin ikasi det, Jaungoikoak bedekatu nauela zu gatik :
28. Izentatu ezazu, emango dizudan zure alogera.
29. Eta berak erantzun zuen: Zuk badakizu nola serbitu zaitudan, eta zeñ andiak izan diraden zure ondasunak nere eskuetan.
30. Gutxi zenduan ni zugana etorri baño lenago, eta orain aberastu zera, eta bedekatu zaitu Jaunak nere sarreran. Bearra da bada, nik ere noizbait begiratu dezadala nere etxea gatik.
31. Eta esan zuen Labanek: Zer emango dizut? Eta berak esan zuen: Ez det ezer nai. Baña egiten baldin badezu eskatzen dedana, berriz bazkatu eta zaituko ditut zure abereak.
32. Ingurutu itzazu zure artalde guztiak, eta banakatu itzazu ardi pintanu, eta ille nabarreko guztiak, eta jaiotzen diran beltz, natutsu, eta pintanu guztiak, naiz ardietan, naiz auntzetan, izango da nere soldata.
33. Eta bere denboran itz egingo du nere alde nere leialtasunak, alle-gatzen danean epe erabakia, eta pintanu, eta natutsu eta beltzak ez diran guztiak, naiz ardietan naiz auntzetan, lapur egingo naute.
34. Eta esan zuen Labanek: Ongi deritzat eskatzen dezunari.
35. Eta banakatu zituen egun artan auntz, eta ardi, eta aker, eta ari, pintanu eta natutsuak, eta abere kolore bateko, au da, ille zuri edo beltze-ko guztia, jarri zuen bere semeen eskuan.
36. Eta ipiñi zuen iru eguneko bidearen artea, beraren eta suiaren artean, zeñak bazkatzen zituen Labanen beste artaldeak.
37. Arturik bada Jakobek zumarrezko, eta almendrozko, eta plata-nozko zigor berdeak, unetik unera desazaldu zituen, eta kendurik azalak, ziritasuna agertu zan, azalgabetuak izan ziradenetan, osorik utzi zitzaio-tenak berriz berdeak gelditu ziran, eta onela izan zan egiña kolore pinta-nua.
38. Eta ipiñi zituen, ura isuria izaten zan olasketan; zetozonean artal-deak edatera, begien aurrean iduki zitzaten zigorrak, eta berai begira umetu zitezten.
39. Eta gertatu zan, naasierako berotasunean beratzen begiratzea ardiak zigorrak, eta egitea ume natutsu, eta pintanu, eta asko kolorez txi-pristinduak.



40. Eta banakatu zuen artaldea Jakobek, eta jarri zituen zigorrak olasketan arien begien aurrean, eta ziran Labanenak zuri eta beltz guztiak; gañerakoak berriz Jakobek, banakaturik artaldeak beren artean.

41. Ala bada uda berrian arremetzen ziradenean ardiak, jartzen zituen Jakobek zigorrak uren olasketan arien eta ardien begien aurrean, berak gogoan zerabiltzatela umetu zitezten:

42. Zanean berriz udazkenekoa naasiera, eta umetzea atzenekoa, etzituen ipintzen. Eta onela Labanenak ziran udazkenekoa, eta Jakobeknak udaberrikoak.

43. Eta onela txit aberastu zan gizona, eta izan zituen abere talde asko, neskameak, eta morroiak, gameluak, eta astoak.

OGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Aditu zituen ezkerre berriz Labanen semeen itzak esaten ziotenek: Eraman ditu Jakobek gure aitarenak ziran gauza guztiak, eta aren ondasunakin aberastuta, egin da argitsuak:

2. Adbertitu ere zuen, Labanen arpegia, etzala bere alde atzo eta erainegun bezelakoa,

3. Batezere esanik Jaunak berari: itzuli zaite zure gurasoen lurrera, eta zure aideetara, eta izango naiz zurekin.

4. Bidaldu zituen, eta otsegin Rakel eta Lia, artaldeak bazkatzen zituen kanpora,

5. Eta esan zien: ikusten det zuen aitaren arpegia ez dala nereganako atzo eta erainegun bezelakoa; baña nere aitaren Jaungoikoa izan da nerekin.

6. Eta zuek zerok dakizute, nere indar guziakin serbitu dedala zuen aita.

7. Eta zuen aitak ere engañatu nau, eta aldatu du nere soldata amar bidar; eta alaere ez dio utzi Jaungoikoak neri gaitzik egiten.

8. Berak esan zuenean: Kolore askotakoak izango dira zure soldatak; ardi guztiak egiten zituzten kolore askotako umeak. Bestera berriz esaten zuenean: Zuri guztiak artuko dituzu soldatatzat, artalde guztiak egin zituzten zuriak.

9. Eta Jaungoikoak artu ditu zuen aitaren ondasunak, eta eman dizkit niri.

10. Zeren ardiak umetutzeko denbora allegatuta laister, altxatu nituen nere begiak, eta ikusi nituen ametsetan emeen gañera igotzen ziran arrak zirala pintanauak, eta natutsuak, eta kolore askotakoak.

11. Eta esan zidan Jaungoikoaren Aingeruak ametsetan: Jakob? eta nik erantzun nuen: Emen naiz.

12. Zeñak esan zuen: Altxatu itzatzu zure begiak, eta ikusi itzatzu emeen gañera igotzen diraden ar guztiak, nabarrak, natutsuak, eta mantxatuak. Zeren ikusi det Labanek zuri egin dizun guztia.

13. Ni naiz Betelgo Jaungoikoa, non untatu zenduan arria, eta egin zinidan eskeñtzari bat. Orain bada jaiki zaite, eta atera zaite lur onetatik, itzultzen zerala zure jaioterriko lurrera.

14. Eta erantzun zuten Rakelek, eta Liak: Kondarraren piskaren bat bai al degu gure aitaren etxeko ondasunetan eta senipartean?

15. Ez al gaitu iduki arrotzak bezela, eta saldu, eta jan gure balioa?

16. Baña Jaungoikoak artu ditu gure aitaren ondasunak, eta eman dizkigu guri, eta gure semeai; argatik egin ezazu Jaungoikoak agindu dizun guztia:

17. Jaiki zan bada Jakob, eta jarririk bere semeak, eta emazteak game-luen gañean, joan zan.

18. Eta eramane zituen bere ondasun guztiak, eta abereak, eta Mesopotamian irabazi zuen guztia, zuzentzen zala bere aita Isaak gana Kanaango lurrera.

19. Denbora onetan joana zan Laban ardiak moztutzera, eta Rakelek ostu zituen bere aitaren idoloak.

20. Etzion adirazi nai Jakobek bere aitagiarrabari, iges egitera zijoala.

21. Eta joanik bera, bereak ziran gauza guztiakin eta iragorik ibaia, zijoala Galaadko mendirontz,

22. Adirazi zitzaieten Labani irugarren egunean, nola Jakob igesi zijoan.

23. Zeñak, arturik bere anaiak, jarraitu zion zazpi egunean, eta atzitu zuen Galaadko mendian.

24. Eta ikusi zuen ametsetan Jaungoikoa esaten ziola: Kontu gero itz egitearekin Jakobek gaitzerako izan lezakean gauzarik.

25. Eta Jakobek zabaldu zuen mendian etzauntza, eta nola Labanek atzitu zuen bere anaiakin Galaadko mendi artan beratan jarri zuen etzauntza.

26. Esan zion Jakobi: Zertarako onela egin dezu, ixillean eramaten dizkidazula nere alabak, ezpatarekin katibatuak balirade bezela?

27. Zergatik neronek jakin gabe nai izan dezu iges egin, eta ez adirazi neroni, laguntzeko pozarekin, eta kantakin, eta panderoakin, eta gitarrakin?



28. Ez didazu utzi laztantzen nere semeak, eta alabak; eroen gisara egin dezu, orain egiazki,
29. Badu nere eskuak indarra itzultzeko zuri gaitza gaitza gatik; baña zuen aitaren Jaungoikoak atzo esan zidan: Kontu gero ez dagizula esan Jakobek gaitzean izango dan itzik.
30. Ongi da; nai zenduen joatea zureetara, eta zure aitaren etxearen guran zeunden. Zergatik ostu dituzu nere Jaungoikoak?
31. Erantzun zuen Jakobek: Zuk jakin gabe atera nintzan, zeren beldur nintzan kenduko zinizkidala zure alabak.
32. Lapurreta gatik esaten didazunaren gañean berriz, gutariko edozeñi arkitzen baldin badiozkazu zure Jaungoikoak, illa izan dedilla gure anaien aurrean. Billatu ezazu, eta eraman, arkitzen baldin badezu nigan zurea dan gauzarik. Oiek esaten zituenean, etzekien Rakelek ostu zituela idoloak.
33. Eta sarturik Laban Jakobek eta Liaren, eta neskame bien etzauntzan, etzituen arkitu. Eta sartu zanean Rakelen etzauntzan,
34. Berak agudo joanik ezkutatu zituen idoloak gameluaren tresnen azpian, eta eseri zan gañean, eta etzauntz guztian billa ebillanari, eta ezer arkitzen etzuenari,
35. Esan zion: Ez bekio aserretu nere Jaunari, zure aurrean jaiki ezin naizalako, zeren emakumeen oituraren gisara gertatu zat oraintxe. Onela izan zan burlatua billariaren arreta.
36. Eta asarreturik Jakob, garrazki esan zion: Zer nere hoben, eta zer nere bekatu gatik etorri zera ain irazekia nere ondoren,
37. Eta aratu dituzu nere etxetresna guztiak? Zer arkitu dezu zure etxeko aberastasun guztitik? ipiñi ezazu emen nere anaien, eta zure anaien aurrean, eta juzgatu dezatela nere eta zure artean.
38. Onetarako egon naiz zurekin ogei urtean? Zure ardiak eta auntzak etziran izan umegabeak, ez det jan zure artaldeko aririk:
39. Ez dizut ere erakutzi pistiak arrapatuakakorik, kalte guztia neronek osotzen nuen; ostua gatik galtzen zan guztia, lazki eskatzen ziñidan.
40. Gau ta egun erretzen nintzan beroarekin, eta izotzarekin, eta iges egiten zuen loak nire begietatikan.
41. Eta onela ogei urtean zure etxean serbitu zindudan; amalau, alabak gatik, eta sei, zure artaldeak gatik, aldatu ere ziñidan nere soldata amar bidar.
42. Nere aita Abrahamen Jaungoikoak, eta Isaaken beldurrak lagundu ez baldin balit, aurki orain billosik bidalduko ninduzun; Jaungoikoak

begiratu zion nere estutasunari, eta nere eskuen lanari, eta atzo agiraka egin zizun.

43. Erantzun zion Labanek: Nere alabak eta semeak, eta zure artaldeak, eta ikusten dezun guztia, nereak dirade: zer egin dezakiotet nere seme eta illobai?
44. Atoz bada, eta egin dezagun elkartasuna; izan dedin agiria nere eta zure artean.
45. Artu zuen bada Jakobek arri bat, eta zutatu zuen agiritzat:
46. Eta esan zien bere anaiai: Ekarki itzatzute arriak. Zeñak bildurik egin zuten arri munto bat, eta jan zuten bere gañean:
47. Zeñi deitu zion Labanek: Lekukoaren arrimuntoa, eta Jakobek, Agiriaren arripilla, biak beren izkuntzaren erara.
48. Eta esan zuen Labanek: Arrimunto au izango da gaur lekukoa nire eta zure artean, eta argatik izan zan deitua bere izena Galaad, au da, Lekukoaren arrimuntoa.
49. Begiratu eta juzgatu beza Jaunak gure artean banakatzen geroan bata bestea gandikan:
50. Atsekabetzen baldin badituzu nere alabak, eta artzen baldin badituzu orrezgañera beste emazte batzuek, gure itzen beste lekukorik ez da, emen begira dagoen Jaungoikoa baizik.
51. Eta berriz esan zion Jakobi: Ona arrimunto au emen, eta nire eta zure artean zututu dedan arria,
52. Lekuko izango da: Arrimunto au, diot berriz eta berriz ere, eta arria izan bediz agiritzat, baldin edo nik iragotzen badet zugana joateko, edo zuk iragoten badezu, niri gaitz egiteko asmoarekin.
53. Abrahamen Jaungoikoak, eta Nakorren Jaungoikoak, juzgatu beza gure artean; beren aitaren Jaungoikoak. Juramentu egin zuen bada Jakobek bere aita Isaaken beldurra gatik:
54. Eta egiñik eskeñtzariak mendian, deitu zituen bere anaiai ogia jateko. Zeñak jan zutenean, gelditu ziran an.
55. Labanek berriz jakirik gauaz, laztandu zituen nere semeak eta alabak, eta bedeikatu zituen: eta itzuli zan bere tokira.

OGEITA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Jakob ere joan zan, asi zuen bidetik, eta Jaungoikoaren Aingeruak atera zitzaiozkan bidera.
2. Zeñak ikusi zituenean, esan zuen: Jaungoikoaren egonlekuak dirade oiek. Eta deitu zuen toki huraren izena, Mahanaim, au da, Egonlekuak.



3. Bidaldu ere zituen mandatariak bere aurretikan bere anaia Esau gana Seirko lurrera, Edomgo alderrian:
4. Eta agindu zien, esanarekin: Onela itz egingo diozute nere Jaun Esauri: Oiek esaten ditu zure anaia Jakobek; Labanen etxean arrotz izan naiz, eta egon naiz gaurko eguneraño.
5. Badituz beiak, eta astoak, eta ardiak, eta morroiak eta neskameak: eta bidaltzen dituz orain mandatariak nere Jauna gana, arkitu dezadan abegi ona zure aurrean.
6. Eta itzuli ziran mandatariak Jakob gana, esaten zutela: Allegatu gera zure anaia Esau gana, eta ona non agudo datorren zuri bidera irteztzera lareun gizonekin.
7. Txit beldurtu zan Jakob, eta iziturik partitu zuen berarekin zeukan jendea, abereak ere, eta ardiak, eta beiak, eta gameluak, bi taldetan,
8. Esaten zuela: Etorten baldin bada Esau talde batera, eta zauritzen baldin badu, gelditzen dan beste taldeak, iges egingo du.
9. Eta esan zuen Jakobek: Nere aita Abrahamen Jaungoikoa, eta nere aita Isaaken Jaungoikoa, Jaun, esan zidana; itzuli zaite zure lurrera, eta zure jaioterriko tokira, eta ongi egingo dizut:
10. Zure urrikaltasun guztien, eta zure serbitzari oni, egin ziozkan eskeñiak bete diozkazun leialtasunaren diña ez naiz ni. Nere artzaimakilla onekin irago nuen Jordan au, eta orain biurtzen naiz bi talde oiekini.
11. Gorde nazazu nere anaia Saulen eskutik, zeren txit bere beldur naiz; noaski etorririk zauritu ez dezan ama semeakin.
12. Zuk esan zenduen ongi egingo ziñidala, eta zabalduko zenduala nere ondorea itsasoko ondar, ugaritasuna gatik kontatu ezin lezakeana bezela.
13. Eta lo egiñik an gau artan, berezitu zituen zeuzkanetatik, eskeñtzariak bere anaia Esaurantz,
14. Berreun aunts, ogei aker, berreun ardi, eta ogei ari,
15. Ogeita amar gamelu eme erdiak beren umiakin, berrogei bei, eta ogei zezen, ogei astaeme, eta amar beren ume.
16. Eta bidaldu zituen bere serbitzarien eskuz talde bakoitza berezian, eta esan zien bere morroiak: Zoazte nere aurretikan; eta bego artea talderik taldera.
17. Eta lenbizikoari agindu zion, esaten zuela: Arkituko baldin bazendu nere anaia Esau, eta galdetuko balizu: Norena zera? edo, nora zoaz? edo, norenak dirade aurrean daramazkizunak?
18. Erantzungo dezu: Dirade zure serbitzari Jakobek nere nagusi Esauri bidaltzen diozkan emaitzak, eta bera ere badator gure ondoren.

19. Aginte aiek berak eman ziezten bigarrenari, eta iru garrenari, eta taldeen ondoren zijoazen guztiai, esaten zuela: itz aiek berak esan zaiozute Esauri, arkitzen dezutenean.

20. Eta gero esango dezute: Zure serbitzari Jakobek berak ere bada-rraika gure bideari, zeren esan zuen: Bigunduko det nere aurrean dijoazen eskeñtzariakin, eta gero ikusiko det, noaski ongi artuko nau.

21. Onela joan ziran bere aurretikan eskeñtzariak, bera berriz gelditu zan gau artan kanpoko etzalekuean.

22. Eta goiz jaikirik, artu zituen bere emazte biak, eta beste ainbeste neskame, amaika semeakin, eta irago zuen Jabok-ko ubera.

23. Eta irago eragiñik bereak ziraden gauza guztiak.

24. Gelditu zan bakarrik: eta ona non gizon bat burruka ari zan berarekin goizeraño.

25. Zeñak ikusirik ezin zuela garaitu, ukitu zion bere istarreko zañari, eta bereala igartu zitzaion.

26. Eta esan zion: Utzi nazazu, egun sentia da ta. Erantzun zuen: Etzaitut utziko, bedekaitutzen ez nazun artean.

27. Esan zuen bada; Zer izen dezu? Erantzun zuen: Jakob.

28. Berak esan zuen: iñolaere ez da izango deitua zure izena Jakob, baizik Israel; zergatik eze Jaungoikoaren kontra ain sendo eraso badezu, nola gizonak garaituko ez dituzu?

29. Galdetu zion Jakobek: Zer, izenekin deitua zera? Erantzun zuen: Zergatik jakin nai dezu zeñ dan nere izena? Eta bedekaitu zuen toki artan beratan.

30. Eta deitu zuen Jakobek toki huraren izena, Fanuel, esaten zuela: ikusi det Jaungoikoa arpegiz arpegi, eta bizirik gelditu naiz.

31. Eguzkia irten zitzaion bereala, Fanuel irago ezkerro: berak berriz oiñ batetikan erren egiten zuen.

32. Argatik ez dute jaten Israelko semeak, Jakob en istarrean igartu zan zaña, gaurko eguneraño, ukitu ziolako bere istarreko zañari, eta sortu zitzaiolako.

OGETA AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta altxaturik Jakobek bere begiak, ikusi zuen bazetorrela Esau, eta berarekin lareun gizon, eta jarri zituen bere eran Liaren eta Rakelen, eta neskame bien semeak:

2. Eta lenengo jarri zituen neskame biak, eta beren semeak: Lia berriz, eta bere semeak, bigarren lekuan, eta Rakel eta Jose atzenean.



3. Eta bera aureraturik, auzpeztu zan zazpi bidar makurtzen zala, aliketa alderatu artean bere anaia.
4. Eta korrika joanik Esau bidera irtetzera bere anaiari, laztandu zuen; eta estuturik bere lepoa, eta musu emanik, negar egin zuen.
5. Eta altxaturik begiak, ikusi zituen andreak, eta aien aurrak, eta esan zuen: Zeñ dirade oiek? Zuri bai al dagozkizu? Erantzun zuen: Jaungoikoak niri zure serbitzari oni eman zizkidan aurrak dirade.
6. Eta alderaturik neskameak eta beren semeak, agur egin zioten.
7. Alderatu zan Lia ere bere aurrakin, eta orobat eginik, atzanean Josek, eta Rakelek ere agur egin zioten.
8. Eta esan zuen Esauk: Zer dirade bidean arkitu ditudan talde oiek? Erantzun zuen: Arkitzeko abegi ona nere Jaunaren aurrean.
9. Eta berak esan zuen: Badet, ene anaia, ondasunik asko; izan bediz zureak zuretzat.
10. Eta esan zuen Jakobek: Ez ezazu, arren, orrelakorik egin; baizik ongi nai baldin badidazu, artu ezazu nere eskuetatik eskeñtzaritzo au, zeren ikusi det zure arpegia, Jaungoikoaren arpegia ikusi banu bezela, egin zadazu mesede au,
11. Eta ar zazu ekarri dizudan bendizioa, eta zeñ eman zidan Jaungoiko gauza guztien emalleak. Nekez arturik anaiaren erregu geiegiak gatik,
12. Esan zuen: Gabiltzan elkarrekin, eta izango naiz zure bidelaguna.
13. Eta esan zuen Jakobek: Badakizu, nere jauna, nerekin ditudala aur gaztetxoak, eta ardiak, eta bei umedunak, zeñak geiegi nekatzen baldin baditut ibillian, illko dira egun batean artalde guztiak.
14. Bijoa nere Jauna bere serbitzariaren aurretikan, eta nik geldika geldika jarraituko diet bere aztarnai, nola ikusten dedan ditzakela nere aurrak, allegatu artean nere Jauna gana Seirren.
15. Erantzun zuen Esauk: Erregututzen dizut, nerekin dan jenededitikan lagun batzuk bederik gelditu ditezuela zure bidelagun izateko. Ez da, esan zuen, premiarik: gauza bat bakarrik bear det, ongi nai izan zadazula, nere jauna.
16. Itzuli zan bada egun artan Esau Seirra, etorri zan bidetikan.
17. Eta Jakob etorri zan Sokotera, non egiñik etxe bat, eta jarririk kanpoetzauntzak, deitu zuen toki huraren izena Sokot, au da, barrakak.
18. Eta irago zan Salem Sikemtarren errira, zeñ dagoan Kanaango lurreen, itzuli zan ezkerreko Mesopotamia Siriakotik, eta bizitu izan zan erriaren aldean.

19. Eta erosi zien etzauntzak jarri zituen kanpoaren zatia, Hemorren Sikemen aitaren semeai, eun arkume gatik.

20. Eta egiñik an aldare bat, otsegin zion bere gañean Israelgo Jaungoiko txit sendoari.

OGEITA AMALAUARREN KAPITULUA

1. Eta atera zan Dina Liaren alaba, alderri atako emakumeak ikustera.
2. Zeñ ikusirik Sikem Hemor Hebetarren seme, lur artako Prinzipeak, amatu zuen; eta ostu zuen, eta berarekin lo egin zuen, indarrez galtzen zuela neskatxa.
3. Gelditu zan bere biotza neskatx onen amoriozko lokarriakin txit estuturik, eta ikusirik triste zegoala, gozatu nai zuen pozkeriakin.
4. Eta zuzendurik bere aita Hemor gana, esan zion: Artu zadazu neskatx au emaztetzat.
5. Aditurik au Jakobek, semeak urruti zeudela, eta ari ziradela abereak bazkatzen, ixilik egon zan aliketa itzuli ziraden artean.
6. Eta aterarik Hemor Sikemen aita, Jakobi itz egitera,
7. Ona non bere semeak zetozten kanpotik, eta aditurik gertatu zana, txit aserretu ziran, gauza itsusia egin zuelako Israelen, eta bortxatuaz Jakobena alaba, gauza debekatua egin zuelako.
8. Ala bada Hemorrek esan zioten: Sikem nere semeak txit maite du zuen alaba; eman zaiezute emaztetzat:
9. Egin ditzagun elkarrekin ezkontzak: eman zazkiguzute zuen alabak, eta artu itzatzute gure alabak.
10. Eta bizitu zaitezte gurekin: zuen agindura dago lurra, landu ezaizute, egin itzatzute saldu erosiak, eta beraren jabe izan zaitezte.
11. Sikemek ere esan zioten aitari, eta bere anaiai: Egin zadazute mesede au, eta erabakitzen dezuten guztia, emango det.
12. Geitu ezazute dotea, eta eskatu itzatzute emaitzak, eta pozik emango det eskatzen dezutena, bakarrik ematea gatik neskatx au emaztetzat.
13. Erantzun zien Jakobena semeak Sikem eta bere aitari marroarekin, aserreturik arrearen bortxarekin:
14. Ezin egin dezakeguzute eskatzen dezutena, ez eta eman ere gure arreba zirkunzidatu gabeko gizon bati; gauza debekatu eta nazkagarria dalako gure artean.
15. Baña elkartuko gera zuekin, izan nai baldin badezute gure antzeakoak, eta zirkunzidatu izan dedilla zuen artean gizaseme guztia;



16. Orduan eman eta artuko dieztegu elkarri zuen alabak, eta gureak: eta biziko gera zuekin, eta izango gera erri bat,

17. Eta baldin ez badezute zirkunzidatu nai, artuko degu gure alaba, eta alde egingo degu.

18. Ongi iritzi zitzaioten beren eskeñia Hemor, eta bere seme Sike-mi,

19. Eta etzuen luzatu gazteak, bereala egitea eskatzen zitzaiona; zeren txit maite zuen neskatxa, eta bera zan argitsua bere aitaren etxe guztian.

20. Eta sarturik erriko atean, itz egin zioten erriari:

21. Gizon oiek paketsuak dirade, eta nai dute bizi gurekin: iduki bitzate saldu erosiak lurrean, eta landu bezate, zeren izanik ain andia ta zabala, lantzalleen premia du; artuko ditugu beren alabak emaztetzat, eta emango diozkagute gureak.

22. Gauza bat da luzatzen diguna on ain andia; zirkunzidatu ditzagu-la gure gizasemeak, imitaturik erri onen zirimonia,

23. Eta beren ondasunak, eta abereak, eta duten guztia, gurea izango da; onetan bakarrik oben egin dizaiogun, eta bizirik, elkarrekin egingo degu erri bat.

24. Guztien gogokoa izan zan eskabide au, eta zirkunzidatu zituzten gizon guztiak.

25. Eta ona non, irugarren egunean, zaurien oñazea txit andia danean; Jakobean bi seme Simeon eta Lebi Dinaren anaiak arturik ezpatak, sartu ziran errian azarri, eta illik gizon guztiak,

26. Hemor, eta Sikem ere ill zituzten, artzen zutela Dina bere arreba Sikemen etxetikan.

27. Oiek aterarik, egotzi ziran illen gañera Jakobean beste semeak, eta ondatu zuten erria bortxaren bengantzan.

28. Artu zituzten beren ardiak, eta beiak, eta astoak, eta desegin etxeetan eta kanpoan zan guztia:

29. Beren aurrak eta emazteak ere katibu eraman zituzten.

30. Oiek egiñik ausarkiro, Jakobek esan zien Simeon eta Lebiri: Jarri nazute estura andian, eta egin nazute gorrotogarri Kanaantar, eta Ferezetar, lur onetan bizi diradenai. Gu gutxi gera; berak bildurik esetsiko didate eta izango naiz galdua ni, eta nere etxea.

31. Erantzun zuten: Zer bada! Gaizki usatu bear al zuten gure arre-baz bordion batez bezela?

OGEITA AMABOSTGARREN KAPITULUA

1. Bitartean esan zion Jaungoikoak Jakobi: Jaiki zaite, eta igo Betela, eta bizitu zaite an, eta egin zaiozu aldare bat, zure anaia Esaturen igesi zin-joazenean agertu zitzaizun Jaungoikoari.

2. Eta Jakobek, bildurik bere etxeko guztiak, esan zien: Bota itzatzute, zuen erdian dauden Jaungoiko arrotzak, eta garbitu zaitezte, eta aldatu itzatzute zuen soñekoak.

3. Jaiki zaitezte, eta igo gaitetzten Betela egitera an aldare bat, nere estutasuneko egunean aditu ninduen Jaungoikoari, eta nere bideko lagun izan zanari.

4. Eman ziozkaten bada, zeuzkaten Jaungoiko arrotz guztiak, eta beren belarrietan zeuden sarzilloak, eta lurpetu zituen, Sikemgo erria baño arontzago dan terebintoaren azpian.

5. Eta joan ziradenean, Jaungoikoaren bildurra erori zan ingurueta-ko erri guztien gañera, eta etziraden ausartatu jarraitzen bazijoazenai.

6. Etorri zan bada Jakob Luzamera, zeñ dagoan Kanaango lurrean, izengoitiz Betel; bera eta erri guztia berarekin.

7. Eta egin zuen an aldare bat, eta deitu zuen toki huraren izena, Jaungoikoaren Etxea, zeren an agertu zitzaion Jaungoikoa, bere anaiaren igesi zijoanean.

8. Denbora artan berean ill zan Debora Rebekaren iñudea, eta obitua izan zan Betelen oñean, arte baten azpian, eta deitua izan zan toki huraren izena Lantuko artea.

9. Eta ajertu zitzaion berriz Jaungoikoa Jakobi, Siriako Mesopotamiatik itzuli zan ezkerro, eta bedeikatu zuen,

10. Esaten ziola: Gaurgero etzera deitua izango Jakob, baizik Israel izango da zure izena. Eta deitu zion Israel,

11. Eta esan zion: Ni naiz Jaungoiko guztialduna, azi eta ugaritu zaite; erreñuak eta erri taldeak jaioko dirade zugandik, Erregeak aterako dirade zure odoletik.

12. Eta Abrahami eta Isaaki eman nien lurra, emango dizut zuri eta zure etorkiari zure ondoan.

13. Eta alde egin zuen beragandikan.

14. Berak berriz altxatu zuen arrizko oroipen garri bat, Jaungoikoak itz egin zion lekuan, eskeñirik bere gañean emaitzak, eta isuririk olioia:

15. Eta deitzen zuela leku huraren izena, Betel.

16. Eta aterarik andikan etorri zan udaberriko denboran Efratarra dijoan lurrera; zeñean aur miñak arturik Rakel,



17. Asi zan perillean aurregite nekeza gatik. Eta esan zion aurregiten lagutzen zion emakumeak: Etzaitze beldurtu, zeren seme au ere izango dezu.

18. Eta irtetzen zitziola anima oñazearen indarrez, eta iltzeko zorian zegoala, deitu zuen bere semearen izena, Beroni, au da, nere oñazearen semea; aitak berriz deitu zuen Benjamin, au da, Eskuiearen semea.

19. Il zan bada Rakel, eta obitua izan zan, Efratara, au da, Belenera dijoan bidean.

20. Eta egin zuen Jakobek oroipen garri bat bere obiaren gañean, au da Rakelen oroipengarriaren izena, gaurko eguneraño.

21. Aterarik andikan, jarri zuen bere etxe aldakorra Abere dorrea baño arontzago.

22. Eta alderri artan bizitu zala, joan zan Ruben, eta lo egin zuen Bala bere aitaren bigarren mallako emaztearekin, zeñak jakin zuen. Ziraden berriz Jakobek semeak amabi.

23. Liaren semeak: lenijaioa Ruben, eta Simeon, eta Judas, eta Issakar, eta Zabulon.

24. Rakelen semeak: Jose eta Benjamin.

25. Bala Rakelen neskamearen semeak: Dan eta Neptali.

26. Zelfa Liaren neskamearen semeak: Gad, eta Asser; oiek dira Jakoben seme, Siriako Mesopotamian jaio zitzaiozkanak.

27. Etorri ere zan bere aita Isaakgana, Manbren, Arbeeko errian, au da, Hebron, zeñean arrotzak bezela bizi izan ziraden Abraham eta Isaak.

28. Eta allegatu ziran Isaaken egunak eun eta larogei urtera.

29. Eta erkiturik edadeaz il zan, eta izan zan bere erriari bildua zarra eta egunez betea, eta obitu zuten bere seme Esau eta Jakobek.

OGEITA AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta oiek dirade Esaturen, Edom hura bera danaren ondoreak.

2. Esauk artu zituen emazteak Kanaango alabetatik, Ada Elon Heterarraren alaba, eta Oolibama Ana Sebeon Hebetarraren alabaren alaba:

3. Basemat ere Ismaelen alaba Nabaioten arreba.

4. Eta aurregin zuen Adak, Elifaz; Basematek aurregin zuen Rahuel:

5. Oolibamak aurregin zituen Jehus, eta Yhelon, eta Kore. Oiek dirade Esaturen seme, Kanaango lurrean jaio zitzaiozkanak.

6. Artu zituen bada Esauk bere emazteak, eta semeak, eta alabak, eta bere etxeko lagun guztiak, eta atzienda, eta abereak, eta Kanaango lurrean iduki litzakean gauza guztiak, eta joan zan beste alderri batera, eta alde egin zuen bere anaia Jakob gandikan.

7. Zeren ziran txit aberatsak, eta ezin bizi litezkean elkarrekin, eta bazkatu ere ezin zituen arrotzak bezela zeuden lurrak beren abereen ugaritasunagatik.

8. Eta bizi izan zan Esau Seirko mendian, hura bera da Edom.

9. Eta oiek dirade Esau Edomen aitaren ondoreak Seirko mendian.

10. Eta oiek bere semeen izenak: Elifaz Adaren Esaturen emaztearen semea; Rahuel ere Basematen bere emaztearen semea.

11. Eta izan zituen Elifazek semeak: Teman, Omar, Sefo, eta Gatam, eta Zenez.

12. Eta Tamna zan Elifazen Saulen semearen bigarren mallako emaztea, zeñak erdi zion Amalek. Oiek dirade Adaren Esaturen emaztearen semeak.

13. Eta Rahuelen semeak: Nahat eta Zara, Samna eta Meza. Oiek Basematen Esaturen emaztearen semeak.

14. Oiek ere ziran Oolibamaren Anaren alabaren, Sebeonen alabaren, Esaturen emaztearen semea egin ziozkanak, Jehus, eta Yhelon, eta Kore.

15. Oiek Esaturen semeen kidariak: Elifazen Esaturen lenijaioaren semeak: Teman kidaria, Omar kidaria, Sefo kidaria, Zenez kidaria,

16. Kore kidaria, Gatam kidaria, Amalek kidaria. Oiek Elifazen semeak Edomgo lurrean, eta oiek Adaren semeak.

17. Oiek ere Rahuelen Esaturen semearen semeak, Nahat kidaria, Zara kidaria, Samna kidaria, Meza kidaria. Eta oiek Rahuelen kidariak Edomgo lurrean, oiek Basematen Esaturen emaztearen semeak.

18. Eta oiek Oolibamaren Esaturen emaztearen semeak: Jehus kidaria, Yhelon kidaria, Kore kidaria. Oiek Oolibamaren Anaren alabaren Esaturen emaztearen kidariak.

19. Oiek dirade Esaturen semeak, eta oiek beren kidariak; hura bera da Edom.

20. Oiek dirade Seir Horrekoaren semeak, erri artan jaiok, Lotan, eta Sobal, eta Sebeon, eta Ana,

21. Eta Dison, eta Eser, eta Disan. Oiek Horreko kidariak, Seirren semeak, Edomgo lurrean.

22. Eta Lotanen semeak izan ziraden: Hori eta Heman; eta Tamna zan Lotanen arreba.

23. Eta oiek Sobalen semeak: Alban, eta Manahat, eta Ebal, eta Sefo, eta Onam.



24. Eta oiek Sebeonen semeak: Aia, eta Ana. Ana au da arkitu zituen ur beroak eremuan, zaitzen zituenean bere aita Sebeonen astoak, eta izan zuen seme bat Dison, eta alaba bat Oolibama.

25. Eta oiek Disonen semeak: Hamdan, eta Eseban, eta Jetram, eta Karan.

26. Oiek ere Eserren semeak: Balaan, eta Zaban, eta Akan.

27. Eta Disanek izan zituen semeak: Hus, eta Haram.

28. Oiek Horretarren kidariak: Lotan kidaria, Sobal kidaria, Sebeon kidaria, Ana kidaria,

29. Dison kidaria, Eser kidaria, Disan kidaria: oiek Horretarren, Seirko lurrean agintatu zutenen kidariak.

30. Eta Edomgo lurrean erreinatu zuten erregeak, Israelko semeak errege iduki zuten baño lenago, ziraden oiek:

31. Bela Beorren semea, eta bere erriaren izena Denaba.

32. Eta ill zan Bela, eta bere lekuan erreinatu zuen Jabab Zara Bosakoaren semeak.

33. Eta ill zanean Jobab, erreinatu zuen bere lekuan Husam Temanarren lurrekoak.

34. Au ere illik, erreinatu zuen onen lekuan Adad Badaden semeak, zeñak desegin zuen Madian Moabko alderrian, eta bere erriaren izena, Abit.

35. Eta ill zanean Adad, agintatu zuen bere lekuan Semla Masrekoak.

36. Au ere illik, erreinatu zuen bere lekuan Saul Rohobotko errekoak.

37. Eta au ere ill zanean, jarraitu zion erreinuan Balanan, Akoborren semeak.

38. Au ere illik, erreinatu zuen bere lekuan Adarrek, eta bere erriaren izena Pau, eta bere emazteari deitzen zitzaion Meetabel, Matreden Mezaaben alabaren alaba.

39. Oiek bada Esauren kidariak izenak beren ondoreetan, eta lekuetan, eta izenetan: Tamna kidaria, Alba kidaria, Jetet kidaria,

40. Oolibama kidaria, Ela kidaria, Finon kidaria,

41. Zenez kidaria, Teman kidaria, Mabsar kidaria,

42. Magdiel kidaria, Hiram kidaria: oiek Edomgo kidariak bizi ziradenak bere agintaritzako lurrean, au da Esau Idumetarren aita.

OGEITA AMAZAPIGARREN KAPITULUA

1. Eta bizi izan zan Jakob Kanaango lurrean, zeñean bere aita arrotz egon zan.

2. Eta ona bere etxeoetan gertatu zana: Josek amasei urtekoa zala, bazkatzen zuen abere taldea bere anaiakin, oraindikan mutilla, eta zegoan Balaren eta Zelfaren bere aitaren emazteen semeakaz, eta salatu zituen bere anaiak aitaren aurrean bekatu txit gaizto batezaz.

3. Eta Israelek maite zuen Jose bere seme guztiez gañetik, sortua izan zalako zartzan, eta egin zion jantzi nabar bat.

4. Eta ikusirik bere anaiak, beste seme guztiak baño geiago bere aitak maitetua zala, gorroto zioten, eta ezin itzik egin zioten garratz baizikan.

5. Gertatu ere zan kontatzea bere anaiak ikusi zuen amets bat, zeñ izan zan gorroto andiogoaren sukarrria.

6. Eta esan zien: Aditu ezazute ikusi dedan nere ametsa:

7. Iduritzen zitzadan, geundela soroan lotzen garibalak, eta nere garibala jaikiko balitza bezala, eta zuzen zegoala, eta zuen garibalak inguruan jarriker agur egiten ziotela nere garibalari.

8. Erantzun zuten bere anaiak: Gure errege izango ote aiz? Edo ire mendeko izan bearko ote gaituk? Ala bada amets eta izketa oiek, ematen zioten errekiña ondamu eta gorrotoari.

9. Ikusi ere zuen beste amets bat, zeñ kontatzen ziela anaiak, esan zuen: ikusi det ametsetan, eguzkiak, eta illargiak eta amaika izarrek adoraturako banindute bezela.

10. Zeñ adirazirik bere aitari, eta anaiak, errierta egin zion bere aitak, eta esan: Zer esan nai du ikusi dezun amets orrek? Nik neronek, eta zure amak, eta senideak adoraturako ote zaitugu lurraren gañean?

11. Eta ala bere anaiak beraren ondamuz zeuden; baña aitak jertaera ixillean gogoan zerabillan.

12. Eta bere anaiak zeudela Sikemen aitaren abereak bazkatzen,

13. Esan zion Israelek: Zure anaiak daude Sikemen ardiak bazkatzen, atoz, bidalduko zaitut berak gana. Eta erantzunik berak:

14. Prest naiz, esan zion. Zoaz, eta ikusi ezazu ongi ote dauden zure anaiak, eta abereak, eta adirazi zadazu igarotzen dana. Bidaldukerik Hebrongo ibarretik, etorri zan Sikemera:

15. Eta arkitu zuen gizon batek kanpoan orremen zebillala, eta galdetu zion zeren billa zebillan.

16. Eta berak erantzun zuen: Nere anaien billa nabil, erakutsi zadazu non bazkatzen dituzten artaldeak.



17. Eta esan zion gizonak: Alde egin zuten toki onetatikan, eta aditu diotet esaten: Goazen Dotainera. Joan zan bada Jose bere anaien ondoren, eta arkitu zituen Dotainen.

18. Zeñak ikusi zutenean urrutitikan, berak gana alderatu baño lenago, erabaki zuten iltea:

19. Eta esaten zioten elkarri: Ara, ametslaria badator:

20. Ots, il dezagun, eta bota dezagun putzu zulo zar onetara, eta esango degu: Pisti txit gaizto batek iretsi du, eta orduan agertuko da, zer balio dioten bere ametsak.

21. Eta aditurik au Rubenek, alegiñak egiten zituen gordetzeko beren eskuetatik, eta esaten zuen:

22. Ez zaiozute kendu bizia, eta ez bere odolik isuri, baizik bota eza-zute, eremuan dagoan putzu zulo onetara, eta gorde itzatzute zuen eskuak kutsutu gabe, eta au esaten zuen, kendu nairik beren eskuetatik, eta itzuli bere aitari.

23. Allegatu zaneke bada bere anaiak gana, bereala, erantzi zioten soñeko luze eta nabarra:

24. Eta bota zuten, urik etzuen putzu zulo zar batera.

25. Eta eseririk jateko ogia, ikusi zituzten Ismaeltar bidaztiak zetoztela Galaadtikan, eta beren gameluak zeramatzitela usaigozoak, eta erre-sina, eta mirralika Ejiptorako.

26. Eta esan zioten Judasek bere anaiari: Zer balio digu gure anaia il, eta bere odola ezkutatzeak?

27. Obe da saldu dizaiogutela Ismaeltarrai, eta gure eskuak ez ditez-tela kutsutu, zeren gure anaia eta aragia da. Anaiak etorri ziran bere arra-zoietara.

28. Eta iragotzen zirala Madiantar merkatari batzuek, aterarik putzu zulotik, saldu zioten Ismaeltarrai, ogei zillarrezko dirutan, zeñak eraman zuten Egiptora.

29. Eta itzulirik Ruben putzu zulora, etzuen arkitu mutilla:

30. Eta urraturik soñekoak, joanik bere anaietara, esan zuen: Mutilla ez da agiri; eta ni nora joango naiz?

31. Eta artu zuten bere soñekoa, eta bustirik il zuten antxume baten odolean:

32. Bialdurik bere aitari, eta esan erazirik zeramatenai: Soñeko au arkitu degu; ikusi ezazu ote dan zure semearen soñekoa, ala ez.

33. Zeñ ezagutu zuenean aitak, esan zuen: Nere semearen soñekoa da, pisti txit gaiztoren batek jan du, larrabereren batek iretsi du Jose.

34. Eta urraturik soñekoak, jantzi zan zilizioz, negar egiten zuela bere semea gatik denbora askoan.

35. Eta bildurik bere seme guztiak gozatzeko aitaren oñazea, etzuen artu nai poztasunik, baizikan esan zuen: Jatxiko naiz nere semea gana, negarrez obira. Eta zirauela berak lantuan,

36. Madiantarrak saldu zioten Jose Ejipton Putifarri Faraonen txikirtuari, soldauen agintariari.

OGETA EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Denbora onetan, Juda, bereziturik bere anaiak gandikan, egon zan ostatuz, Odollamgo gizon baten, Hiram zeritzanaren etxean.

2. Eta ikusi zuen an kanaantar baten alaba bat, Sui zeritzana, eta arturik emaztetzat, berarekin bizi izan zan.

3. Zeñ aurdun gelditu zan, eta aur bat egin zuen, zeñi deitu zion Her.

4. Berriz ere aurdun gelditu zan, eta izan zuen semeari deitu zion Onan.

5. Irugarren bat ere egin zuen, zeñi deitu zion Sela; au jaiorik, utzi zion berriz aurrak egiteari.

6. Eta Judak eman zion emaztetzat, Her bere lenbizi sortuari emakume bat Tamar zeritzana.

7. Eta Her Judaren lenbizi sortua izandu zan gaiztoa Jaunaren aurrean, eta berak illa izandu zan.

8. Esan zion bada Judak Onan bere semeari: Sartu zaite zure anaiaren emaztea gana, eta bizitu zaite berarekin, eman dizaiozun etorkia zure anaiari.

9. Berak jakiñik etziradela beretzat jaioko semeak, sarturik bere anaiaren emaztea gana, isurtzen zuen lurrera azia, jaio etzitezten semeak anaiaren izenarekin.

10. Eta argatik zauritu zuen Jaunak, gauza gorrotogarri bat egiten zuelako.

11. Argatik esan zion Judak Tamar bere errañari: Egon zaite alargun zure aitaren etxean, aliketa azi dedin bitartean Sela nere semea; zeren bel-dur zan au ere ill etzedin, bere anaiak bezela. Bera joan zan, eta bizi izan zan bere aitaren etxean.

12. Eta igarorik egun asko, ill zan Sueren alaba Judaren emaztea; zeñ progua egin ezker, gozaro jarririk, igotzen zan bere ardiñ mostzalletara, bera eta Hiras Odollamtarra, artaldearen arzainagusiarekin, Thamna-sera.



13. Eta adirazi zioten Tamarri, bere aitagiarraba bazijoala Thamnase-ra ardiak mostzera.

14. Zeñak utzirik alarguntzako soñekoak, artu zuen mantu bat; eta aldatu jantzia, eseri zan Thamnase-ra dijoan bidearen bidagurutzean; zergatik Sela azia izanik, etzuelako senartzat artu.

15. Judak ikusi zuenean, sospetxatu zuen emakume galduren bat zala, zeren estali zuen bere arpegia, ezagutua izan etzedin.

16. Eta alderaturik beragana, esan zuen: Utzi zadazu biziten zurekin, zeren etziekien bere erraña zala. Zeñak erantzunik: Zer emango didazu zure naia egitea gatik?

17. Bidalduko dizut, esan zuen, antxume bat nere abere taldeetatikan. Eta berriz berak esanik: Emango dizut nai dezuna egiteko baia, ematen baldin badidazu prenda bat, bidaldu artean eskeiñtzen dezuna.

18. Esan zuen Judak: Zer nai dezu eman dezazudan prendatzat? Erantzun zuen: Zure erraztuna, eta eskumuturretakoa, eta eskuan dezun makilla. Naasi batean bada emakumea aurdun gelditu zan,

19. Eta jaikirik joan zan, eta utzirik artu zuen soñekoa, estali zan alarguntzako jantziakin.

20. Eta Judak bidaldu zuen antxumea bere artzai Odollamtarrekin, artu zezan emakumeari eman zion prenda, zeñak ez arkiturik emakumea,

21. Galdetu zioten toki artako gizonai: Non da bidagurutzean eserita egon oi zan emakumea? Guztiak erantzunik: Toki onetan ez da izan emakume galdurik;

22. Itzuli zan Juda gana, eta esan zion: Ez det arkitu emakumea; eta toki artako gizonak ere esan zidaten, etzala an iñoiz eseririk egon emakume galdurik.

23. Esan zuen Judak: Ar dezala, egiazki ezin gezurtatuko gaitu; neronek bidaldu nuen eskeñi nuen antxumea, eta zuk ez dezu arkitu.

24. Eta ona non iru illabeteren buruan adierazi zioten Judari, esaten zutela: Thamar zure erraña aragizko bekatuan erori da, eta dirudi bere sabela aziaz dijoala. Eta esan zuen Judak: Atera ezazute kanpora, errea izan dedin.

25. Bazeramatela penara, bidaldu zion mandatu bat bere aitagiarrabari, esaten zuela: Prenda oien jabea dan gizona gandik, gelditu naiz aurdun, ezagutu ezazu zeñena dan erraztun au, eskumuturretako au, eta makilla au.

26. Judak, ezaguturik prendak, esan zuen: Ni baño justuago da, ez didalako eman nere seme Sela. Alaere etzuen berriz ezagutu.

27. Eta alderaturik aurgiteko denbora, agertu ziran birokiak sabelean, eta aurrak egiteko une artan, batak atera zuen eskua, zeñean auringilleak lotu zuen granazko ari bat, esaten zuela:

28. Au lenbizi aterako da.

29. Baña nola berak atzeratu zuen eskua, atera zan bestea, eta esan zuen andreak: Zergatik urratu da zugatik esia? Eta gauza augatik deitu zuen bere izena Fares.

30. Gero atera zan bere anaia, zeñaren eskuan zegoan granazko ari: zeñ deitu zuen Zara.

OGETA EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Jose bada izan zan eramana Ejiptora, eta erosi zuen Putifar Faraoenen txikiratuak, ejerzituko agintariak, gizon Ejiptoarrak Ismaeltarren eskutik, zeñak eramana, izan zan.

2. Eta Jauna izan zan berarekin, eta zan gizon bat gauza guztiak ongi irtetzen zitzaiozkana, eta bizi izan zan bere nagusiaren etxean,

3. Zeñak txit ongi ezagutzen zuen Jauna zegoala Joserekin, eta egiten zituen gauza guztiak ziradela Jaungoikoak zuzenduak bere eskuan.

4. Eta Josek arkitu zuen grazia bere nagusiaren aurrean, eta serbitzen zuen; zeñak ipiñirik guztien gañetik, gobernatzan zuen bere kontura utzitako etxea, eta emanak izan zitzaiozkan gauza guztiak.

5. Eta bedeinkatu zuen Jaunak Ejiptoarraren etxea Jose gatik, eta ugaritu zuen bere aziendea, bai etxeetan eta bai kanpoetan.

6. Eta etzuen beste gauzatan aditzen, jaten zuen ogian baizik. Zan berriz Jose arpegi ederrekoa, eta irudi onekoa.

7. Eta egun askoren buruan, bere etxeko andreak ipiñi zituen bere begiak Josegan eta esan zion: Lo egin ezazu nerekin.

8. Zeñak iñolaere oben egin gabe gaistakeria andira, esan zion: Ona non nere nagusiak ipiñirik nere eskuetan gauza guztiak, ez daki zer duen bere etxean:

9. Eta ez da nere eskuan ez dan, edo neri eman ez didan gauzarik, baizik zu bere emazte zerana; nola bada egin nezake gaitz au, eta bekatu egin nere Jaungoikoaren kontra?

10. Eta egunoro onelako itzakin andreak atsekabetzen zuen gaztea, eta beronek etzuen nai egin itsuzkeriarik.

11. Eta gertatu zan egun batean, sartzea Jose etxean, eta lan batean aritzea bakarrean:



12. Eta ark, eldurik bere soñekoaren ertza, esatea: Lo egin ezazu nerekin. Zeñak, utzirik bere kapa aren eskuan, iges zuen, eta atera zan kanpora.

13. Eta ikusi zuenean andreak soñekoa bere eskuetan, eta mezpreziatua izan zala,

14. Otsegin zituen beragana bere etxeko gizonak, eta esan zien: Ona sartu du etxean hebreotar mutil au, gu burlatzeko; sartu da nigana nerekin bizitzeko, eta nik deadar egiñik,

15. Eta berak aditurik nere boza, utzi du neronek atzitua nuen kapa, eta iges egin du kanpora.

16. Eta bere leialtasunaren ongigarriztat, senarra etxera itzuli zanean erakutzi zion kapa, zeñarekin gelditu zan,

17. Eta esan zion: Zuk ekarri zenduan morroi hebreotar au, sartu zan ni nengoan tokira, ni burlatzeko:

18. Eta aditu zuenean nik deadar egiten nuela, utzi zuen atzituta nuen kapa, eta iges zuen kanpora.

19. Aditurik oiek Jaunak, eta siniskorregia emaztearen itzetara, txit aserretu zan:

20. Eta sartu zuen Jose, erregek lotuta zeuzkanak gordeak ziraden presoindegian, eta an zegoan itxia.

21. Eta Jauna izan zan Joserekin, urrikariturik berarekin egin zuen karzelazaiaren gogoko.

22. Zeñak utzi zituen bere eskuan, karzelan lotuta zeuden guztiak; eta egiten zan guztia, zan bere aginduz.

23. Eta etzuen karzelazaiak ezeren ajolarik, utzirik guztia Joseri, zeren Jauna zan berarekin, eta zuzentzen zituen bere lan guztiak.

BERROGEIGARREN KAPITULUA

1. Oiek onela iragorik, gertatu zan txikiratu bik, Ejiptoko erregeren kopazaiak, eta ogigiñak bekatu egitea beren nagusiaren kontra.

2. Eta aserreturik Faraon beren kontra (zeren bata zan kopazaien agintaria, eta bestea ogigiñena).

3. Sartu zituen soldauen agintariaren presoindegian, zeñean zegoan lotuta Jose ere.

4. Baña karzelazaiak eman zizkieten Joseri, zeñak serbitzen ere zituen. Denboraren piska bat iragoa zan, eta oraindikan berak zeuden presoindegian.

5. Biak gau batean egin zutenean amets bat bakoitzaren egoerari zegokana:

6. Zeñakgana sarturik Jose goizean, eta ikusirik triste zeudela,

7. Galdetu zioten: Zergatik daude gaur zuen arpegiak oi baño tristeagoak?

8. Zeñak erantzun zuten: Amets egin degu, eta ez da inor azaldu dezakegunik. Eta esan zien Josek: Ez al dagoka Jaungoikoari azaldaera? Esan zadazute ikusi dezutena.

9. Kopazai nagusiak kontatu zuen aurrea bere ametsa: ikusten nuen nere aurrean zepa bat,

10. Zeñak zeuzkan iru txirmendu, azitzen zala geldika geldika moteak bota artean, eta loraen ondoan matsak zoritzen ziradela;

11. Eta Faraonen edanontzia nere eskuan: atxitu nituen bada matsak, eta lertu eskuan nuen edanontzian, eta eman nion edaten Faraoni.

12. Erantzun zuen Josek: Au da ametsaren azaldaera: iru txirmenduak, oraindikan dauden iru egunak dirade;

13. Zeñaren buruan oroituko da Faraon zure langintzarekin, eta itzuliko zaitu lengo egitekora; len egin oi zenduen bezela.

14. Bakarrik erregututen dizut oroitu zaitezela nerekin ongi zaude-nean, eta urrikal zaitezela nerekin, oartarazitzen diozula Faraoni atera nazala presoindegi onetatikan:

15. Zeren lapurretaz izan nintzan arrapatua hebreotarren lurretikan, eta emen bidegabe izan naiz presoindegian sartua.

16. Ikusirik ogigiñen nagusiak zeñ ongi azaldu zuen ametsa, esan zuen: Neronek ere amets egin det, nere buruaren gañean neuzkala iru saski iriñezko:

17. Eta gorengo zegoan saski batean, neramazala ogigiñaren lanean egiten diraden janari guztiak, eta egaztiak beratatik jaten zutela.

18. Erantzun zuen Josek: Au da ametsaren azaldaera: iru saskiak, oraindikan dauden iru egunak dirade,

19. Zeñen ondoan ebakiko du Faraonek zure burua, eta esekiko zaitu gurutzetik, eta egaztiak puskatuko dituzte zure aragiak.

20. Iru egunen buruan zan Faraonen urteen betea: zeñak emanik bazkari andi bat bere andizkiai, oroitu zan jan edanen artean kopazai nagusiarekin, eta ogigiñen buruarekin.

21. Eta bata itzuli zuen bere tokira, eman zitzaion kopa.

22. Bestea eseki zuen urkamendian, azaldariaren egia ziurtatzeko.

23. Eta alaere etorririk egun onak, kopazaien nagusia aztu zan bere azaldariarekin.



BERROGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Urte biren buruan egin zuen Faraonek amets bat. Iduritzen zitzaion zegoela ibai baten aldean,
2. Zeñatitikan igotzen ziran zazpi bei, ederrak eta gizen gizenak, eta bazkatzen ziran toki urtsuetan.
3. Beste zazpi ere ateratzen ziran ibaitikan, itsusiak, eta argalez aituak; bazkatzen ziran ibaiaren urbazterrean beratzen, toki berdetuetan.
4. Eta iretsi zituzten, gorputzen gizentasun eta edertasun miragarria zeukatenak. Esnaturik Faraon,
5. Berriz loak artu zuen, eta egin zuen beste amets bat: lasto batek zeuzkan zazpi galburu, beteak eta ederrak:
6. Beste ainbeste galburu ere erretzen ziran, meeak eta erreak joak,
7. Itsusiten zutenak lenbizikoen edertasun guztia. Esnaturik Faraon atsedenenaren ondoan,
8. Eta eguna zabaldurik iziaz ikaraturik, deitu zituen Faraonek Ejiptoko azaldari eta jakintsu guztiak: eta zeudela bildurik adirazi zioten ametsa, eta etzan azaldu dezakeanik:
9. Orduan atzenean oroiturik, kopazaien nagusia, esan zuen: Aitor-tzen det nere bekatua.
10. Aserreturik errege bere morroiakin agindu zuen sartzeko soldauen agintariaren presoindegian ni eta okiñ nagusia:
11. Non biok gau baten egin genduen geroko gertaeren amets bat.
12. Zegoan an hebreetar mutil bat, soldauen agintariaren beraren morroia, zeñi esaten giñozkala ametsak,
13. Aditu genduan, gero gertatu zitzagun guztia, zeren ni izan nintzan itzulia nere lanera, eta hura izan zan esekia gurutzean.
14. Bereala aterarik Jose presoindegitik erregeren aginduz mostu zuten; eta aldaturik soñekoak, eraman zioten.
15. Zeñi ark esan zion: Egin ditut ametsak, eta ez da argitu ditzakeanik. Aditu det zugatik argi andia dezula azaldatzeko.
16. Erantzun zuen Josek: Ni gabetanik Jaungoikoak erantzungo diozka gauza doatsuak Faraoni.
17. Kontatu zion bada Faraonek ikusi zuena: iduritzen zitzadan nengoala ibaiaren bazterrean gañean,
18. Eta ibaitikan igotzen ziradela zazpi bei txit ederrak, eta aragi gizenekoak, zeñak jaten zuten belar berdea aintziradietan.
19. Eta ona non oiei zerraizkieten beste zazpi bei ain itsusi eta argalak, Egiptoko errian iñoiz ikusi ez ditudan bezelakoak:
20. Zeñak, iretsi eta desegiñik lenbizikoak,

21. Etzuten eman asetasunaren aztarnik batere, baizikan zeuden astunak lenbizikoaren antzeko argaltasun eta zikiñarekin. Esnaturik, eta berriz lozorroak arturik,
22. Amets egin nuen: Nola lasto batek zeuzkan zazpi galburu beteak, eta txit ederrak.
23. Beste zazpi mee eta gorniak joak ere, ateratzen ziran lasto batetik:
24. Zeñak iretsi zuten lenbizikoen mardultasuna. Kontatu nien aztiai, eta ez da argitu dezakeanik.
25. Erantzun zuen Josek: Erregeren ametsa gauza bat da, agertu dio Faraoni Jaungoikoak egingo duena.
26. Zazpi bei ederrak, eta zazpi galburu beteak, ugaritasuneko zazpi urte dirade, eta ametsaren indar hura bera dute.
27. Baitaere zazpi bei argal eta mee aien ondoren atera ziradenak, eta zazpi galburu mee, eta aize erregarriak joak, etorriko dan goseteko zazpi urteak dirade.
28. Zeñak onelan beteko dirade:
29. Etorriko dirade aurrena ugaritasun andiko zazpi urte Ejiptoko lur guztian;
30. Zeñai jarraituko diote beste zazpi urte urritasun ain andikoak non, aztu eragingo dute lengo ugaritasun guztia, zeren goseak ondatuko du lur guztia,
31. Eta urritasunaren anditasunak galduko du ugaritasunaren anditasuna.
32. Egin dezun bigarren amets gauza huratara beratara jotzen duena berriz, sendotasunaren ezagugarria da, egiaztuko dala Jainkoaren itza, eta lenbaitlen beteko dala.
33. Orain bada arkitu beza erregek gizon jakintsu eta artetsu bat, eta eman bizaio Ejiptoko lurreko agintaritzan,
34. Ipiñi ditzan gobernariak alderri guztietatik, eta zazpi urteko ugaritasuneko laboreen bostgarrenak,
35. Zeñak oraindik izango diran, bildu bitza ganbaraetan, eta ale guztia ipiñi bedi Faraonen mendean, eta gorde bedi errietan.
36. Eta bego gertuturik etorriko dan zazpi urteko gosete, Ejipto estutuko duenerako, eta ez da aituko lurra urritasunarekin.
37. Ongi erori zitzaion Faraoni esana, eta bere morroi guztiai:
38. Eta itz egin zioten: Arkituko bai al degu onelako gizon, Jaungoikoaren espirituz bete dagoanik?



39. Esan zion bada Joseri: Jaungoikoak agertu dizkizun ezker esan dituzun gauza guzti oiek, arkituko al det nik zu baño jakintsuago eta zure antzekorik?

40. Zu izango zera nere etxeko gobernaria, eta zure aoaren agindura erri guztiak obedituko du, ez naiz zu baño geiago izango, baizik erreinuko esertokian.

41. Eta berriz esan zion Faraonek Joseri: Ona non jarri zaitudan Ejiptoko lur guztiko errege ordeko.

42. Eta kendu zuen erraztuna bere eskutik, eta ipiñi zion Joseri, eta jantzi zuen lino txit fiñezko soñeko luze batekin, eta jarri zion bere leporean inguruan urrezko lepande bat.

43. Eta igoerazi zion bere bigarren karrozara, deadarrez eraldo batek ziola, guztiak bere aurrean belaunikatu zitezela, eta jakin zezatela Ejiptoko lur guztiko gobernari jarria zegoala.

44. Esan ere zion erregek Joseri: Ni naiz Faraon, zure agindu gabe ez du mugituko iñork esku edo oñik Ejiptoko lur guztian.

45. Aldatu ere zuen bere izena, eta deitu zion Ejiptoko izkuntzan, Munduaren Salbagillea. Eta eman zion emaztetzat Asenet, Putifarren Heliopoliko sazerdotearen alaba. Atera zan bada Jose Ejiptoko lurrera.

46. (Eta ogeita amar urtekoa zan, Faraon erregearen aurrean egon zanean) eta ingurutu zituen Ejiptoko alderri guztiak.

47. Eta etorri zan zazpi urteko ugaritasuna; eta gariak gabilla egiñik izan ziraden bilduak Ejiptoko aletegietan.

48. Eta erri bakoitzean gorde zan garia ugari.

49. Eta ain andia izan zan gariaren ugaritasuna non, berdintzen zuen itsasoko ondarra, eta zan neurritz gañetikoa.

50. Gosetea etorri baño lenago jaio zitzaiozkan Joseri bi seme, zeñak egin ziozkan Asenet Putifar Heliopoliko sazerdotearen alabak.

51. Eta lenbisisortuaren izena deitu zuen Manasses, esaten zuela: Aztu eragin dizkit Jaungoikoak nere neke guztiak, eta nere aitaren etxe-koak.

52. Eta bigarrenaren izena deitu zuen Efraim, esaten zuela: Jaungoikoak aberastu nau, ezeukia sartu nintzan lurrean.

53. Igarorik bada Ejipton izan ziran ugaritasuneko zazpi urteak,

54. Asi ziran etorten Josek profetizatu zituen urritasuneko zazpi urteak, eta gosetea zabaldu zan mundu guztitikan, baña Ejiptoko lur guztian bazan ogia.

55. Zabaldurik Ejipton gosetea, zuzendu zan erria deadarrez Faraon-gana, janarien eske. Zeñai berak erantzun zien: Zoazte Josegana, eta berak esaten dizuten guztia, egin ezazute.

56. Aziaz zijoan bada egunerik egunera gosetea lur guztian: eta Josek idiki zituen aletegi guztiak, eta saltzen ziezten Ejiptoarrai, zeren berak ere estutu zituen goseteak.

57. Eta probinzia guztiak zetozten Ejiptora, eroatera bazka orniak, eta ez-urteen gaitza arintzera.

BERROGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Eta aditurik Jakobek janaria saltzen zala Ejipton, esan zien bere semeai: Zergatik zaudete elkarri begira?

2. Aditu det garia saltzen dala Ejipton: jatxi zaitzete, eta erosi ezazute bear dezutena, bizi gaitzeten, eta gosez il ez gaitzeten.

3. Jatxirik bada Joseren amar anaiak Ejiptora gari alea eroatera,

4. Gelditurik etxean Benjamin Jakobek, zeñak esan zien bere anaiak: Ezbearren bat bidean gertatu ez dakion:

5. Sartu ziraden Ejiptoko lurrean eroatera zijoazen beste batzukin. Eta Kanaango errian bazan gosetea.

6. Eta Jose zan agintaria Ejiptoko lurrean, eta bere naira garia saltzen zitzaieten erriak. Eta bere anaiak adoratu zutenean,

7. Eta Josek ezagaturik berak, itz egiten zioten garrazkiago arrotzak bezala, galdetzen ziela: Nondik zatozte? Berak erantzun zuten: Kanaango lurretikan, jateko bear deguna eroatera.

8. Eta alaere ezagaturik Josek anaiak, etzan izan berak ezagutua.

9. Eta oroiturik noizbait izan zituen ametsakin, esan zioten: Zelatarriak zerate: etorri zerate ikustera lurreko errazenak.

10. Berak esan zuten: Ez da ala, Jauna, baizik zure serbitzariak etorri dirade zer jan eroatera.

11. Guztiok gera gizon baten semeak; pakea dakargu, eta zure morroiak ez dute gaitzik egiteko asmorikan.

12. Zeñai berak erantzun zien: Bestela da, etorri zerate ezagutzera lur onetako toki sendatu gabeak.

13. Eta berak: Amabi anaia gera, diote, zure serbitzariak, gizon baten semeak Kanaango errian; txikiena gure aitarekin da, bestea il zan.

14. Au da, erantzun zuen, nik esan dedana hura bera; zelatarriak zerate.

15. Orain noa zuen billabidea egitera. Faraonen biziagatik etzerate aterako emendikan, alik eta etorri artean zuen anaia txikiena.



16. Bidaldu ezazute zuetatik bat, eta ekarri beza, eta zuek egongo zerate presoindegian, jakin artean, egiak ala gezurak diran esan dituzuten gauzak; bestela Faraonen bizia gatik zelatariak zerate.

17. Bidaldu zituen bada presoindegira iru egunerako.

18. Eta irugarren egunean aterarik presoindegitik, esan zioten: Egin itzatzute esan ditudan gauzak, eta biziko zerate, zeren badet Jaungoikoaren beldurra.

19. Pakea badakatzute, zuen anaietatik bat gelditu bedi lotuta presoindegian, eta zuek zoazte, eta eraman itzatzute erosi dituzuten aleak, zuen etxeetara,

20. Eta ekarri zadazute zuen anaia txikiena, egiazkotzat ezagutu ditzadan zuen itzak, eta il etzaitezten. Egin zuten esan zuen bezela,

21. Eta elkarri esan zioten: Bidez padezitzen ditugu oiek, zeren bekatu egin genduen gure anaiaren kontra, ikusirik bere animako larritasuna, erregutuzten zigunean, eta ez giñon aditu; argatik etorri da gure gañera naigabe au.

22. Zeñatetik batek Rubenek, esan zuen: Ez al nizuten esan: Ez dezazutela gaiztakeria au egin mutillarekin, eta ez ninduzuten aditu? Ona nola dan eskatua bere odola.

23. Eta etziekiten Josek aditzen ziotela: azaldariaren bitartez itz egin ziotelako.

24. Eta alde egin zuen piska bat, eta negar egin zuen, eta itzulirik itz egin zioten.

25. Eta eldurik Simeoni, eta loturik beren aurrean, agindu zioten morroia betetzeko gariz beren zakuak, eta ipintzeko bakoitzaren diruak zaku bakoitzean, emanik gañera janaria biderako, zeñak ala egin zuten.

26. Eta berak zeramazkitela aleak beren astoetan, joan ziraden.

27. Eta idikirik batek zaku emateko astoari jataldia ostatuan, ikusirik dirua zakuaren aon,

28. Esan zien bere anaia: itzuli didate ene dirua, ona non dagoan zakuan. Eta izutu eta ikaraturik, elkarri esan zioten: Zer da Jaungoikoak gurekin egin duen au?

29. Eta etorri ziraden bere aita Jakob gana Kanaango lurrera, eta esan ziozkaten gertatu zitzaizkaten gauza guztiak, esaten zutela:

30. Garrazki itz egin zigun lur artako jaunak, eta uste zuen giñala probinziako zelatariak.

31. Zeñi erantzun giñon: Paketsuak gera, eta ez gabiltza gaitz egiteko asmoetan.

32. Amabi anaia gera aita baten semeak, bat ez da bizi, txikiena gure aitarekin da Kanaango lurrean.

33. Zeñak esan zigun: Onela ezagutuko det paketsuak zeratela, zuen anaia bat utzi ezazute nerekin, eta artu itzatzute bear dituzuten janariak zuen etxeetarako, eta zoazte,

34. Eta ekarri zadazute zuen anaia txikiena, jakin dezadan etzeratela zelatariak, eta eraman dezazuten presoindegian gelditzen dan au, eta gaurgero izan dezazuten eskubidea erosteko nai dezutena

35. Oiek esanik, uztutzean aleak, bakoitzak arkitu zituzten zakuen aon diruak loturik, eta izaturik guztiak batera,

36. Esan zuen aita Jakobek: Zuek utzi nazute seme gabe, Jose ez da bizi, Simeon gelditu da presoindegian, eta Benjamin kenduko didazute, nere gañera erori dirade gaitz guzti oiek.

37. Zeñi erantzun zion Rubenek: ill itzatzu nere bi semeak, itzultzen ez baldin badizut; jarri ezazu nere eskuan, eta nik biurtuko dizut.

38. Eta berak: Ez da jatxiko, esan zuen, nere semea zuekin: bere anaia il zan, eta bera bakarrik gelditu da; ezbearren bat gertatuko baldin balitzaio zoazten lurrean, eramango dituzute nere ille urdiñak penarekin obira.

BERROGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Bitartean goseteak txit estutuzten zuen lur guztia.

2. Eta aiturik Ejiptotik ekarri zituzten janariak, esan zien Jakobek bere semeai: itzuli zaitetze, eta erosi zaguzute janarien piskatxo bat.

3. Erantzun zuen Judak: Esan zigun gizon ark juramentuaren bean, ziola: Ez dezute ikusiko nere arpegia ekarten ez baldin badezute zuekin zuen anaia txikiena.

4. Baldin bada nai badezu bidaldu gurekin, joango gera batean eta erosiko dizugu bear dezuna,

5. Baña ez baldin badezu nai, ez gera joango, zeren gizon ark, maiz esan degun bezela, adirazi zigun, esaten zuela: Ez dezute ikusiko nere arpegia zuen anaia txikiena gabe.

6. Esan zien Israelek: Nere zorigaitzerako ezagutu erazi ziñoten, beste anaia bat ere bazendutela.

7. Eta berak erantzun zuten: Galdetu zigun gizonak banan banan zeñ zan gure etorkia; aita bizi bazan: beste anaiarik bagenduen, eta guk erantzun giñon bear bezela, galdetu zigunaren araura. Nola jakin genzakean esango zigula: Ekarri ezazute zuekin zuen anaia?



8. Judak ere esan zion bere aitari: Bidaldu ezazu nerekin mutilla, joan gaitetzen eta bizi al gaitetzen, il ez gaitetzen, gu eta gure aurrak.

9. Neronek artzen det mutilla, nere eskutik eskatu ezazu; Atzera ekarten ez baldin badizut, eta itzuli zuri, izango naiz pekaturaren obendun zure kontra denbora guztian.

10. Izan ez baldin balitza luzapenik, onezkero beste batean etorriko giñan.

11. Israel beren aitak bada esan zioten: Ala bear baldin bada, egin ezazute nai dezutena; artu itzatzute lurreko fruturik ongienetatikan zuen ontzietan, eta eraman zaiezute gizon hurari eskeñtzariak, erretxiñaren eta eztiaren, eta estorakearen, estaktearen, eta terebintoaren, eta almendren piska bat.

12. Eraman ere ezazute zuekin birritan anbat diru; eta berriz eraman ezazute zakueta arkitu zendutena, begitazioz gertatu baldin bada ere,

13. Artu ere ezazute zuen anaia, eta zoazte gizon huragana.

14. Eta nere Jaungoiko guztia dezakeanak egin bizaikitutela ongi eginkorra, eta bidaldu dezala zuekin bere mendean daukan zuen anaia, eta Benjamin au, eta ni geldituko naiz semerik gabe bezela.

15. Eraman zituzten bada gizonak eskeñtzariak, eta birritan ainbat diru, eta Benjamin, eta jatxi ziran Ejiptora, eta egon ziraden Joseren aurrean.

16. Zeñak ikusi zitueneko, eta Benjamin berakin, agindu zion bere etxeko morroi nagusiari, esaten ziola: Sartu itzatzu gizon oriek etxean, eta il itzatzu abereak, eta gertutu bazkaria; zeren nerekin jango dute eguerdian.

17. Berak egin zuen agindu zitzaiona, eta sartu zituen gizonak etxera.

18. Eta an beldurturik, esan zioten elkarri: Sartu gaituzte, len gure zakueta eraman genduen dirua gatik: gezurren bat guri asmatzeko, eta indarrez menderatzeko gu, eta gure astoak.

19. Argatik ate ateetan alderaturik etxeko morroi nagusiagana,

20. Esan zioten: Erregututzen dizugu, jauna, arren aditu gaitatzula. Len ere etorri giñan janariak erostera:

21. Oiek erosiak, allegatu giñanean ostatura, idiki ginduzten gure zakuak, eta arkitu genduen dirua zakuen aoan; zeñ orain pisu berean dakargu berriz.

22. Beste diru bat ere badakargu, erosteko bear deguna, ez dakigu nork ipiñi zuen gure zizkueta.

23. Eta berak erantzun zuen: Pakea zuekin, etzaitzete beldurtu; zuen Jaungoikoak, eta zuen aitaren Jaungoikoak, eman zizkitzuten ondasunak

zuen zakueta, zeren eman zizkidaten dirua, nik kontuan jarria det. Eta atera zuen Simeon berak gana.

24. Eta sarturik etxean, ekarri zuen ura, eta garbitu zituzten beren oñak, eta eman zion janaldia beren astoentzat.

25. Eta berak gertutzen zituzten eskeñtzariak, alik eta sartu artean Jose eguerdian, zeren aditu zuten an jango zutela.

26. Sartu zan bada Jose bere etxean, eta eskañi zizkioten emaitzak, beren eskueta zituztela, eta adoratu zuten makurturik lurrera.

27. Eta berak agur txit lanotsua egiñik, galdetu zion, esanaz: Ongi bai al da zuen aita zarra, zeñ gatik itz egin zidaten? Oraindikan bizi al da?

28. Berak erantzun zuten: Ongi da zure serbitzari gure aita, oraindik bizi da. Eta makurturik, adoratu zuten.

29. Eta altxaturik Josek begiak, ikusi zuen Benjamin bere anaia sabel batekoa, eta esan zuen: Au al da zuen anaia txikiena, zeñ gatik itz egin zidaten? Eta berriz: Jaungoikoa, esan zuen, urrikaritu dedilla zurekin, ene semea.

30. Eta agudo joan zan, zeren ikaratu zitzaiozkan bere erraiak bere anaia gatik, eta malkoak zeriozkan, eta sarturik gelan, negar egin zuen.

31. Eta aterarik berriz, arpegia garbituta, indar egin zuen, eta esan zuen: Ipiñi ezazute bazkaria.

32. Zeñak jarririk, Jose berezian, eta anaiak berezian, elkarrekin jaten zuten ijitoak ere berezian (zeren ez da zillegi ijitoentzat jatea Hebreoakin, eta gaizkia dala uste dute onelako jatea),

33. Eseri ziran bere aurrean, lenbizisortua lenbiziko sorreraren araura, eta txikiena bere edadearen araura.

34. Eta txit andizkiro miraritzen ziran,

35. Arturik berak emaniko parteak, eta zatirik andiena etorri zan Benjamin gana, alako moduan non, zan bost zatiz andiagoa. Eta edan zuten, eta gozatu ziran berarekin.

BERROGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta agindu zion Josek bere etxeko morroi nagusiari, esaten zuela: Bete itzatzu gariz beren zakuak, kabitu al ditzaken ainbestean, eta jarri ezazu bakoitzaren dirua zakua gorenean.

2. Eta jarri ezazu nere zillarrezko kopa, eta garia gatik eman duen dirua, txikienaren zakua aoan. Eta ala egin zan.

3. Eta allegaturik goiza, bidalduak izan ziran beren astoakin.

4. Eta ateratuak ziraden erritikan, eta ibilli ziraden zertxobait; orduan Josek otsegiñik etxeko morroi nagusiari, zoaz, esan zion, eta jarraitu zaio-



zu gizon aiei, eta iritxirik esan zaiezu: Zergatik itzuli dezute gaitza onagatik?

5. Ostu dezuten kopa, da hura bera, zeñean edaten duen nere nagusiak, eta zeñean aztiazten duen; egin dezute gauza txit gaizto bat.

6. Berak egin zuen, agindu zuen bezela. Eta iritxirik itz egin zioten banan banan.

7. Berak erantzun zuten: Zergatik gure Jaunak onela itz egiten du, zure serbitzariak gaiztakeria ain andia egin dutela?

8. Zakuen gorenean arkitu genduen dirua, berriz eraman genduen zugana Kanaango lurretikan; nola bada izan dezake ostutzea guk zure nagusiaren etxetik urrea edo zillarra?

9. Zure serbitzarietatik edozeñ, zeñagan arkitzen dan billatzen dezuna, illa izan bedi, eta gu izango gera gure jaunaren menpekoak.

10. Zeñak esan zien: Egiña izan bedi zuen erabakiaren araura; nik beragan arkitzen dedan edozeñ, bera izango da nere menpekoa, eta zuek izango zerate obengabeak.

11. Ala bada agudo utzirik lurlean zakuak, idiki zuen bakoitzak berea.

12. Zeñak araturik andienetik asita txikieneraño, arkitu zuen kopa Benjaminen zakuan.

13. Eta berak, urraturik soñekoak, eta zamaturik berriz astoak, itzuli ziran errira.

14. Eta aurrena Juda anaiarekin sartu zan Josegana (zeren etzan mugitu tokitikan), eta guztiak batera bere aurrean auzpeztu ziraden lurlean.

15. Zeñai berak esan zien: Zergatik nai izan dezute egin onela? Ez al dakizute ez dala nere antzekorik azti jakindurian?

16. Zeñi Judak esan zion: Zer erantzungo diogu nere jaunari, edo zer esango degu, edo bidez aurkaratu genzake? Jaungoikoak agertu du zure serbitzariaren gaiztakeria, ona guztiok gera nere jaunaren menpekoak, bai gu, eta bai hura zeñegan arkitua izan dan kopa.

17. Erantzun zuen Josek: Urrutian ni gandik orrelakorik egitea, kopa ostu duena, bera izan bedi nere menpekoa, eta zuek joan zaitezte libreak zuen aita gana.

18. Eta alderaturik geiago, Juda alairo esan zuen: Erregututzen dizut ene Jauna, utzi dizaiozula arren zure menpeko oni itz bat esaten zure belarrietan, eta etzaitezela aserretu zure serbitzari onekin, zeren zu zera Faraonen ondoan.

19. Zuk, nere jauna, gadetu ziñioten lenbiziko aldian zure serbitzariari. Badezute aitarik, edo anairik?

20. Eta guk erantzun giñizun zuri nere jaunari: Badegu aita zar bat, eta anai txiki bat, bere zartzan jaio zizaiona; zeñen anai sabelkidea illa da, eta au bakarrik gelditzen da bere ama gandik, eta bere aitak samurkiro maitatzen du.

21. Eta esan ziñioten zure serbitzariari: Ekarki zadazute onara, zeren ikusi nai nuke.

22. Adirazi giñion nere jaunari: Ezin dezake mutillak utzi bere aita, zeren utziten baldin badu, illko da.

23. Eta esan ziñioten zure serbitzariari: etorten ez baldin bada zuekin zuen anaia txikiena, ez dezute berriz ikusiko nere arpegia.

24. Allegatu giñanean bada gure aitaren, zure serbitzariaren etxera, kontatu giñiozkan nere jaunak esan ziñizkigun gauza guztiak.

25. Eta esan zuen gure aitak: itzuli zaitezte, eta erosi zazkiguzute gariaren piska bat.

26. Zeñi esan giñion: Ezin gaitezke joan; gure anai txikiena joaten baldin bada gurekin, elkarrekin joango gera; bestela bera gabetanik, ez gera ausartatzen ikusten gizon huraren arpegia.

27. Oietara berak erantzun zuen: Zuek badakizute, bi egin zizkidala nere emazteak.

28. Atera zan bata, eta esan zenduten: Pistia batek iretsi zuen, eta oraindaño ez da agiri.

29. Au ere eramaten baldin badezute eta ezbearren bat gertatzen bazaio bidean, eramango dituzute nere ille urdiñak atsekabearekin obira.

30. Sartuko baldin banintza bada zure serbitzari nere aita gana, mutil au eraman gabe (aren bizia onena gandikan esekita nola dagoan),

31. Eta ikusiko baldin balu berau ez dala gurekin, illko da, eta zure serbitzariak eramango dituzte bere ille urdiñak atsekabearekin obira.

32. Ni nerau izan nadin zure menpekoa, bere fiatzalle jarri nintzan an, eta eskeñi nuen, esanaz: Erakartzen ez baldin badizut izango naiz bekatuaren obendun nere aitaren kontra denbora guztian.

33. Geldituko naiz bada ni zure serbitzari au mutillaren tokian nere jaunaren morroitzen, eta mutilla bijoa bere anaiakin.

34. Zeren ezin nenzake itzuli nere aitagana mutilla gabe: izan ez nadin, nere aita estutuko duen naigabe andiaren ikuslea.

BERROGEITA BOSTGARREN KAPITULUA

1. Onezkero barrenak ezin artu zuen Jose an zeuden askoren aurrean; argatik agindu zuen atera zitezteela guztiak kanpora, eta etzedilla arrotzik batere egon elkarren ezagueran.



2. Eta altxatu zuen boza negarrarekin, zeñ aditu zuten Ejiptoarrak, eta Faraonen etxe guztiak.
3. Eta esan zioten bere anaiak: Ni naiz Jose. Oraindikan nere aita bizi bai al da? Ezin zuten erantzun anaiak ikaraturik izu geiegi batekin.
4. Zeñai berak gozoro esan zioten: Alderatu zaitetze nigana. Eta alle-gaturik aldera, esan zioten: Ni naiz zuen anaia Jose, Ejiptorako saldu zen-dutena.
5. Etzaitetze ikaratu, eta ez ere atsekabetu saldu ninduzutelako alde-ri oietarako, zeren zuen osasuna gatik bidaldu nau Jaungoikoak zuen aurretik Ejiptora.
6. Zeren bi urte dirade asi zala gosetea lurrean, eta oraindikan bost urte falta dirade, zeñean ezin goldeatu, ez igitaituko al dan.
7. Eta Jaunak aurretikan bidaldu ninduen zuek bizirik izan zaitetzen lurraren gañean, eta iduki al dezazuten zer jan bizitzeko.
8. Ez naiz izan bidaldua onera zuen asmoz, baizik Jaungoikoaren borondatez, zeñak egin ninduen Faraonen aita bezela, eta bere etxe guz-tiko jauna, eta Ejiptoko lur guztiko Prinzipea.
9. Agudo ibilli zaitetze, eta igo nere aitagana, eta esango diozute: Oiek bidaltzen dizkitzu esaten zure seme Josek: Jainkoak egin nau Ejiptoko lur guztiko jaun, jatxi zaitte nigana, ez luzatu,
10. Eta bizituko zera Jessengo lurrean, eta izango zera nere aldean zu, eta zure semeak, eta zure semeen semeak, zure ardiak, eta zure eleak, eta dezun guztia.
11. Eta an bazkatuko zaitut (zeren oraindikan bost urteko gosetea falta da), galdu etzaitetzen zu, eta zure etxea, eta dituzun gauza guztiak.
12. Ona non zuen begiak, eta nere anaia Benjaminen begiak, ikusten dute nere aoak itz egiten dizutela.
13. Adirazi zaiozute nere aitari nere gloria guztia, eta Ejipton ikusi dituzuten gauza guztiak; ibilli zaitetze agudo, eta ekarri zadazute nigana.
14. Eta utzirik erortzen bere anai Benjaminen lepora, laztandurik asi zan negarrez; berak ere berdin negar egiten zuela Joserren lepoaren gañean.
15. Eta laztandu zituen Josek bere anai guztiak, eta negar egin zuen bakoitzaren gañean, zeñen ondorik ausartatu ziran itz egiten berari.
16. Eta aditua izan zan, eta zabaldua erregeren jauregian guztien artean berri au: Etorri ziraden Joserren anaiak, eta poztu zan Faraon, eta bere etxeko guztiak.
17. Eta esan zion Joseri agindu dizaiotela bere anaiak, esaten ziotela: Zamaturik abereak, zoazte Kanaango lurrera,

18. Eta artu ezazute andikan zuen aita, eta aideak, eta atozte nigana, eta nik emango dizkizutet Ejiptoko ondasun guztiak, jan dezazuten lurre-ko muña.

19. Agindu zaiozute ere, artu ditzatela gurdiak Ejiptoko lurretikan, ekartzeko beren semeak, eta emazteak, eta esan zaiozute: Artu ezazute zuen aita, eta ariñ ibillirik etorri zaitetze anbat lasterrena.

20. Eta ez ezazute utzi zuen tresnarik batere, zeren Ejiptoko aberas-tasun guztiak zuenak izango dirade.

21. Eta egin zuten Israelko semeak agindua izan zitzaioten bezela. Zeñai eman zizkioten Josek gurdiak, Faraonen aginduaren araura, eta janaria biderako.

22. Agindu ere zuen ateratzeko bakoitzarentzat bi soñeko. Eta Ben-jamini eman ziozkan irureun diru zillarrezko, bost soñeko txit ederrakin:

23. Bidaltzen ziozkala bere aitari orobat diru eta soñeko, eta gañera amar asto ar, eramateko Ejiptoko ondasun guztietatikan, eta beste ain-beste asto eme, eramateko garia eta ogiak biderako.

24. Bidaldu zituen bada bere anaiak, eta zijoazenean esan zioten: Etzaitetze aserretu bidean.

25. Zeñak igorik Ejiptotikan, etorri ziran Kanaango lurrera beren aita Jakob gana.

26. Eta eman zioten berria, esaten zutela: Jose zure semea bizi da, eta bera da agintzen duena Ejiptoko lur guztian. Au aditurik Jakobek, lozorro astun batetik esnatuko balitz bezela Jakobek, oraindikan etzioten sinistzen.

27. Berak bestera kontatzen zuten gertatu zitzaioten guztia. Eta ikusi zituenean gurdiak, eta bidaldu ziozkan gauza guztiak, berriz piztu zan bere espiritua,

28. Eta esan zuen: Aski da neretzat nere seme Jose oraindikan bizi baldin bada; joango naiz, eta ikusiko det ill nadin baño lenago.

BERROGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta aterarik Israel zeuzkan gauza guztiakin, etorri zan juramentu-ko Putzura: eta eskeñirik an emaitzak Isaak bere aitaren Jaungoikoari,

2. Aditu zuen gaueko ikusketa batean otsegiten ziola, eta esaten: Jakob, Jakob. Zeñi erantzun zion: Ona non nagoan.

3. Esan zion Jaungoikoak: Ni naiz zure aitaren Jaungoiko txit sendoa; etzaitte beldur izan, jetxi zaitte Ejiptora, zeren an egingo zaitut erri andi baten buru.



4. Ni jetxiko naiz zurekin ara, eta nik andikan ekarriko zaitut itzultzen zeranean, eta Josek itxiko dizkitzu begiak iltzen zeranean.
5. Jaiki zan bada Jakob juramentuko putzutik, eta eraman zuten semeak bere aurrakin eta emazteakin, Faraonek zarra eramateko bidaldu zituen gurdietan,
6. Eta Kanaango lurtean zeuzkan gauza guztiak; eta etorri zan Ejiptora bere ondoko guztiakin,
7. Bere semeak eta illobak, eta senide guztiak elkarrekin.
8. Eta oiek dirade Ejipton sartu ziran Israelen semeen izenak, bera bere semeekin: Lenbisisortua Ruben.
9. Rubenen semeak: Henok, eta Falu, eta Hesron eta Karmi.
10. Simeonen semeak: Jamuel, eta Jamin, eta Ahod, eta Jatxin, eta Sohar, eta Saul, Kanaantar baten semea.
11. Lebiren semeak: Jerson, eta Kaath, eta Merari.
12. Judaren semeak: Her, eta Onan, eta Sela, eta Fares eta Zara; baña Her eta Onan ill ziraden Kanaango lurtean. Eta Faresi jaio zitzaizkan: Hesron eta Hamul.
13. Issakarren semeak: Thola eta Fua, eta Job, eta Semron.
14. Zabulononen semeak: Sared, eta Elon, eta Jahel.
15. Oiek Liaren semeak, erdi ziozkanak Siriako Mesopotamian Dina bere alabarekin; Bere erdi eta alaba guztiak ziran, ogeita amairu.
16. Gaden semeak: Sefion eta Hagji, eta Suni, eta Esebon, eta Heri, eta Arodi, eta Areli.
17. Asserren semeak: Jamne, eta Jesua, eta Jesui, eta Beria, eta Sara beren arreba. Beriaren semeak: Heber eta Melkiel.
18. Oiek Zelfaren, Labanek bere alaba Liari eman zionaren, semeak, eta oiek egin ziozkan Jakobi, amasei lagun.
19. Rakelen Jakobek emaztearen semeak: Jose eta Benjamin.
20. Eta Joseri jaio zitzaizkan semeak Ejiptoko lurtean, zeñak egin ziozkan Aseneth Putifar Heliopoliko sazerdotearen alabak:
21. Benjaminem semeak: Bela eta Bekor, eta Asbel, eta Jera, eta Naaman, eta Eki, eta Ros, eta Mofim, eta Ofim, eta Ared.
22. Oiek Rakelek Jakobi egin ziozkan semeak; anima guztiak amalau.
23. Danen semeak: Husim.
24. Neptaliren semeak: Jasiel, eta Guni, eta Jeser, eta Salem.
25. Oiek Balaren, Labanek bere alaba Rakeli eman zionaren semeak, eta oiek egin ziozkan Jakobi; anima guztiak, zazpi.
26. Jakobekin Ejipton sartu ziraden anima guztiak, eta bere istarretik atera ziradenak, bere semeen emazteak gabetanik, irurogeita sei .

27. Eta Joseren seme jaio zitzaizkanak Ejiptoko lurtean, bi anima. Jakobek etxeko anima guztiak Ejipton sartu ziradenak izan ziran irurogei eta amar.

28. Eta bidaldu zuen Juda bere aurretikan Josegana, adirazteko nola zetorren eta bidera ateratzeko Jessenera.

29. Ara allegatutik, igorik Jose bere kotxera joan zan bere aitari bidera irtetzera leku beretara, eta ikusirik bera, egotzi zan bere lepora, eta lantanen artean negar egin zuen.

30. Eta esan zion aitak Joseri: Onezkero pozik ilko naiz, ikusi dedalako zure arpegia, eta bizirik utzitzen zaitudalako.

31. Eta berak itz egin zioten bere anaiak, eta bere aitaren etxe guztiari: igoko naiz, eta adiraziko diot Faraoni, eta esango diot: Kanaango lurtean ziran nere anaiak, eta nere aitaren etxea, etorri dira nigana:

32. Berak dirade ardiak zaitzalleak, eta abereak azitzen ari oi dirade; ekarri dituzte berekin beren artaldeak, eta abereak, eta iduki al izan zuten guztia.

33. Eta deitzen zaituztenean, eta esaten dizutenean: Zertan ari oi zerate?

34. Erantzungo dezute: Gizon artzaiak gera zure serbitzariak, gure aur denboratik oneraño, eta gu eta gure aitak. Eta oiek esango dituzte bizi al izan zaitzeten Jessengo lurtean, zeren gorroto diote ijitoak ardiak zaitzalle guztiai.

BERROGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Sarturik bada Jose adirazi zion Faraoni, esaten zuela: Nere aita, eta anaiak, beren ardiak, eta abereak, dituzten gauza guztiakin, etorri dira Kanaango lurtean, eta ona non gelditu diran Jessengo lurtean.

2. Eta bere anaieatik azkenengo bost gizonak eraman zituen erregeren aurrera:

3. Zeñai berak galdetu zioten: Zertan ari oi zerate? Erantzun zuten: ardiak gordetzalleak gera zure serbitzariak, bai gu, eta bai gure aitak.

4. Etorri gera egotera denbora zati batean, zure lurtean; zeren ez da belarrik zure serbitzarien abereentzat geitzen dalako gosetea Kanaango lurtean, eta eskatzen dizugu agindu dezazula egon gaitzela gu zure serbitzariak Jessengo lurtean.

5. Eta esan zion erregek Joseri: Zure aita eta zure anaiak etorri dirade zugana.

6. Ejiptoko lurra zure aurrean da; egizu bizi ditezela tokirik onean, eta eman zaiezu Jessengo lurra. Eta baldin ezagutzen badezu badi-



radela beren artean gizon zintzoak, ipiñi itzatzu nere abereen artzainaguztat.

7. Oien ondoan sartu zuen Josek bere aita erregegana, eta jarri zuen bere aurrean, zeñak agur egiñik,

8. Eta izanik erregek galdetua: Zenbat dirade zure bizitzako urteen egunak?

9. Erantzun zuen: Ni mundu onetan bidartziz bizi naizan egunak eun eta ogeita amar dirade, laburrak eta nekez beteak, eta ez dirade allegatu nere aitak mundu onetan bidartziz bizi izan ziraden egunetara.

10. Eta agur egiñik, atera zan kanpora.

11. Eta Josek eman zion bere aitari eta anaia Ramessesko lurra, toki txit ugaria Ejipton, Faraonek agindu zuen bezela.

12. Eta bazkatzen zituen berak, eta bere aitaren etxe guztia, emanik janaria bakoitzarentzat.

13. Zeren mundu guztian falta zan ogia, eta goseteak zeukan estuturik lurra, batezere Ejiptokoa eta Kanaangoa.

14. Zeñatetik bildu zuen diru guztia saldurik garia, eta sartu zuen erregeren gordairuan.

15. Eta aiturik dirua erosleai, etorri zan Ejipto guztia Jose gana, esaten zuela: Eman zazkiguzu ogiak, zergatik utziten diguzu illten zure aurrean, dirurik ez degulako?

16. Zeñai berak erantzun zioten: Ekarrri itzatzute zuen abereak, eta berak gatik emango dizkitzute bazkorniak, dirurikan jeiago ez baldin badezute.

17. Oiek ekarririk, eman ziezten janariak, zaldiak, eta ardiak, eta idiak, eta astoak gatik, eta jaten eman zien urte artan abereak gatik.

18. Etorri ere ziraden bigarren urtean, eta esan zien berari: Ez diogu estaliko gure jaunari ez degula abererik, ez dirurik, eta argiro ikusten dezu ez degula gorputzak eta lurra baizik.

19. Zergatik bada illko gera zuk ikusten gaituzula? Eta gu eta gure lurra zureak izango gera, erosi gaitzatzu erregeren menpekotzat, eta eman zaizkiguzu aziak, galdurik nekazariak, lurra eremu itzuli ez dedin.

20. Erosi zuen bada Josek Ejiptoko lur guztia, saltzen zituztela bakoitzak zeuzkan lur guztiak, gosete andia gatik. Eta jarri zuen Ejipto guztia Faraonen mendean,

21. Eta bere erri guztiak, Ejiptoko asieratik bere amairano,

22. Salbu sazerdoteen lur, erregek berai emana, zeñai ere ematen io ziozkaten janari izentatuak guztien aletegietatik, eta argatik etzituzten saldu bear izan beren lurak.

23. Esan zien bada Josek erriai: Ona non, ikusten dezuten bezela, Faraonenak zerate zuek, eta zuen lurra; artu itzatzute aziak, eta ereiñ kanpoetan,

24. Frutuak iduki al izan ditzatzuten. Bosgarren partea emango diozute erregeri, lan gañerakoak utzitzen dizkitzute azitako, eta zuen etxeko eta semeak jateko.

25. Zeñak erantzun zuten: Bizia eman diguzu; bakarrik ongi begiratu bizagu gure nagusiak, eta pozik errege serbituko degu.

26. Denbora artatik gaurko eguneraño, Ejiptoko lur guztian, erregeai pagatzen zaiote bosgarren partea, eta etorri zan legea bezela izatera, salbu sazerdoteen lur, pagu au gabe gelditu zana.

27. Bizitu izan zan bada Israel Ejipton, au da, Jessengo lurrean, eta izan zan bere jabe, eta geitu zan, eta txit ugaritu.

28. Eta bizitu zan beretan amazapi urtean, eta bere bizitzako urte guztiak izan ziran eun eta berrogeita zazpi urte.

29. Eta nola ikusten zuen alderatzen zala bere eriotzako eguna, deitu zion bere seme Joseri, eta esan zion: Egiaz maite baldin banazu, jarri ezazu zure eskua nere istarraren azpian, eta mesede egin zadazu eskeñtzea egia guztiarekin, ez nazula obiatuko Ejipton;

30. Baizik joango naizala atsedetera nere gurasoakin, eta aterarik lur onetatik, jarriko nazula nere anziñakoen obian. Zeñi erantzun zion Josek: Nik egingo det agindu dezuna.

31. Eta berak esan zion: Juramentu egin zadazu, bada. Zeñak juramentu egiñik, adoratu zuen Israelek Jaungoikoa, itzulirik oearen burura.

BERROGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Oiek onela iragota, adirazi zitzaioten Joseri bere aita eririk zegoala, zeñ, arturik bere bi semeak Manasses eta Efraim, jarri zan bidean.

2. Eta esan zitzaioten zarrari: Ona zure seme Jose dator zugana. Bera sendaturik eseri zan oean.

3. Eta sarturik Jose aitagana, esan zion: Jaungoiko guztia dezakena agertu zitadan Luzan, zeñ dagoan Kanaango lurrean; eta bedeinkatu ninduen,

4. Eta esan zidan: Nik geitu eta ugarituko zaitut, eta egingo zaitut erri askoren buru, eta emango dizut betiko lur au zuri eta zure etorkiari zure ondoan.

5. Argatik zure bi semeak, jaio zitazuzanak Ejiptoko lurrean, ni onera zugana etorri baño lenago, nereak izango dirade: Efraim eta Manasses, ain neretzakotzat iragoko dirade, nola Ruben eta Simeon.



6. Baña emendikan aurrera dituzun besteak, zureak izango dirade, eta dituzten lurrak, eramango dute beren anaien izena.
7. Zeren nentorrenean Mesopotamiatik ill zitzadan Raket bidean beratan, eta zan udaberria, eta sartzera nijoan Efratan, eta obiatu nuen, Efratarako bidearen beste izen batez Belen deitzen zaionaren aldean.
8. Eta ikusirik Joseren semeak, esan zion: Zeñ dirade oiek?
9. Erantzun zuen: Dirade nere semeak, eman zizkidanak Jaungoikoak toki onetan. Alderatu zaizkidazu, esan zion, bedeinkatu ditzadan.
10. Zeren Israelen begiak illundu ziran zartza geiegia gatik, eta ezin ikusi zuen argiro. Eta alderaturik beragana musu emanik, eta laztandurik berak,
11. Esan zion bere semeari: Noizbait ikusten zaitut, gañera erakutzi dizkit Jaungoikoak zure semeak.
12. Eta eramanik Josek bere semeak aitaren besartetikan, adoratu zuen makurturik lurreraño.
13. Eta jarri zuen Efraim bere eskuetik, au da, Israelen ezkerretik, eta Manasses bere ezkerretik, au da, aitaren eskuetik; eta alderatu zituen biak beragana.
14. Zeñak luzaturik eskuieko eskua jarri zuen Efraim anai txikiagoaren buruaren gañean, eta ezkerre Manassesen buruaren gañean, zeñ zan edadez andiagoa, aldaturik eskuak.
15. Eta bedeinkatu zituen Jakobek Joseren semeak, eta esan zuen: Jaungoikoak, zeñen aurrean ibilli ziran Abraham eta Isaak nere aitak, Jaungoikoak, nere gazte denboratik gaurko eguneraño jaten ematen didanak:
16. Gaitz guztietatik gorde ninduen Aingeruak, bedeinkatu ditzala aur oiek, eta izan bedi deitua, nere izena beren gañean, baitaere Abraham eta Isaak nere aitaen izenak, eta ugaritu bediz geiagoko ta geiagoko lurraren gañean.
17. Eta ikusirik Josek bere aitak jarri zuela eskuieko eskua Efraimen buruaren gañean, damu andia artu zuen, eta eldurik aitaren eskua jaso nai izan zuen Efraimen burutik, eta eraman Manassesen buruaren gañera.
18. Eta esan zion aitari: Ez da orrela bear, aita, au dalako lenbisor-tua, jarri ezazu zure eskuieko eskua bere buruaren gañean.
19. Berak etzuen nai, eta esan zuen: Badakit, ene semea, badakit; au egiaz izango da errien aita, eta ugarituko da, baña bere anai txikiagoa, bera baño andiagoa izango da, eta bere etorkia aziko da erreinuak egiteraño.
20. Eta bedeinkatu zituen denbora artan, esaten zuela, Jose gatik: Zugan izango da bedeinkatua Israel, eta esango da: Egin zaitzala Jaungoi-

koak Efraim bezela, eta Manasses bezela. Eta jarri zuen Efraim Manasses baño lenago.

21. Eta esan zion bere seme Joseri: Badakizu aurki ill bear dedala, eta Jaungoikoa izango da zuekin, eta berriz eramango zaituzte zuen aiten lurrera.

22. Ematen dizut zure anaien gañera, Amorreoen eskutikan nere ezpata eta uztaiarekin artu nuen zatia.

BERROGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta Jakobek deitu zituen bere semeak, eta esan zioten: Bildu zaitzte, adirazi dizazutedan zer gertatuko zazuten atzenengo egunetan.
2. Bildu zaitzte, eta aditu ezazute Jakobek semeak, aditu ezazute Israel zuen aita:
3. Ruben nere lenbizisortua, zu nere sendotasuna, eta nere penaren asiera; lendabizikoa emaitzetan, andiagoko agintaritzan.
4. Isuri zera ura bezela, etzaite azi: igo ziñalako zure aitaren oera, eta loitu zendualako bere gela.
5. Simeon eta Lebi anaiak: gaiztakeriako tresna gerrariak.
6. Nere anima ez dedilla sartu beren asmoetan, eta nere gloria ez dedilla izan beren batzarrean, zeren beren asarrean ill zuten gizona, eta beren borondatean zulapetu murrua.
7. Madarikatua beren sumiña, dalako setatia: eta beren aserrea, dalako gogorra; berezituko ditut Jakobgan, eta zabaldu Israelen;
8. Juda, alabatuko zaituzte zure anaiak; zure eskua zure etsaien leporetan, adoratuko zaituzte zure aitaren semeak.
9. Leoiaren umea Juda, arrapatzera igo ziñan, ene semea; atsedenez etzan ziñan leoia bezela, eta leoi emearen gisan, nork esnatuko du?
10. Ez da kendua izango urrezigorra Judatik, eta kidaria bere istarretik, alik eta etorri dedin bitartean bidaldua izango dana, eta bera izango da erreinuen itxedopena.
11. Lotzen diola mastiari bere astoa, eta aienari, o ene semea, bere astoemea. Garbituko du ardoan bere soñekoa, eta matsaren odoletan bere mantua.
12. Ederragoak dirade bere begiak ardoa baño, eta bere ortzak zuria-goak eznea baño.
13. Zabulon biziko da itsasoaren bazterrean, eta ontzien portuan zabalzen dala Sidoneraño.
14. Issakar asto sendoa etzina mugaen bitartean.



15. Ikusi zuen atsedena ona zala, eta lurra txitez ona zala: eta beera-tu zuen bere sorbalda zamak eramateko, eta menderatu zan petxuak pagatzera.

16. Danek juzgatuko du bere erria, beste edozeñ tribuk bezela Israelen.

17. Izan bedi Dan sugea bidean, ondar ziraua bidetxigorrean, utsikitzen dituen zaldiairen beatzalak, erori dedin atzerontz bere gañekoa.

18. Nik, Jauna, itxedongo det zure osasuna.

19. Gad, gerria armaz beterik gudan ariko da bere aurrean, eta hura bera izango da armatua atzerontz.

20. Aser, bere ogia guritsua, eta emango diozka gozotasunak erregeai.

21. Neptali, oreñ askatua, eta ematen dituen edertasuneko esanak.

22. Seme azten dana Jose, seme azten dana, eta irudi ederrekoa; alabak korrika joan ziraden murraren gañera.

23. Baña mindu zuten, eta erriertak izan zituzten, eta ondamu izan zioten dardoak zeuzkatenak.

24. Jarri zuen sendoan bere tiruztaia, eta bere besoen eta eskuen lokarriak izan ziran askatuak Jakoberen sendoaren eskuan bitartez: andikan atera zan artzaitzat, eta Israelko arritzat.

25. Zure aitaren Jaungoikoa izango da zure laguntzalea, eta guztialdunak bedeinkatuko zaitu goiko zeruko bendizioekin, bean datzan leizearen bendizioekin, bularren eznearen eta emasabelaren bendizioekin.

26. Zure aitaren bendizioak izan dirade sendatuak bere aiten bendizioekin; etorri dedin artean betiko muñoen opatua; egiazta bediz Joseren buruan, eta Nazarenoaren buruaren erpiñean bere anaien artean.

27. Benjamin otso arraparia, goizean jango du ostu duena, eta arratsaldean emango ditu kondoak.

28. Oiek guztiok dirade Israelko amabi Tribuen kidariak, oiek esan ziozkaten bere aitak, eta bedeinkatu zuen bakoitza, zegoan bendizioekin.

29. Eta agindu zioten, esaten zuela: Ni biltzera noa nere erriarekin; obiatu nazazute nere aitakin, Efron Hetetarraren kanpoan dagoan lurruspe bitan anbatean.

30. Manbreren aurrean Kanaango lurrean, zeñ erosi zion Abrahamek kanpoarekin Efron hetetarrari bere obien tokitzat.

31. An obiatu zuten, baita Sara bere emaztea ere; an izan zan obiatua Isaak bere emazte Rebekarekin; an ere datza obiatua Lia.

32. Eta bukaturik aginteak, zeñakin argituzten zituen semeak, bildu zituen bere oñak oearen gañean, eta ill zan, eta izan zan bere erriarekin batera jarria.

BERROGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Au ikusirik Josek, erori zan aitaren arpegiaren gañean negarrez, eta musu ematen ziola.

2. Eta agindu zioten bere serbitzari osagilleai baltzamutu zezatela aita.

3. Zeñak beterik aginduak, irago ziraden berrogei egun: zeren au zan gorputzil baltzamutuen oitura; eta negar egin zuen beragatik Ejiptok irurogeita amar egunean.

4. Eta bukaturik proguko denbora, esan zion Josek Faraonen fami-liari: Arkitu baldin badet grazia zuen aurrean, itz egin ezazute Faraonen belarrietan.

5. Nere aitak juramentu eragin zidala, esaten zuela: Ni illtzen naiz, obiatuko nazu, Kanaango lurrean neretzat aitzurtu nuen nere obian. Igoko naiz bada, eta obiatuko det nere aita, eta itzuliko naiz.

6. Eta esan zion Faraonek: igo zaite, eta obiatu ezazu zure aita, juramentu egin zenduen bezela.

7. Zeñ igorik, joan ziraden berarekin Faraonen etxeko zar guztiak, eta Ejiptoko lurreko edade andiko guztiak:

8. Joseren etxea bere anaiakin, aurrak, eta artaldeak, eta abereak gabe, zeñak utzi zituzten Jessengo lurrean.

9. Izan ere zituen laguntzan kotxeak eta zaldiak, eta bildu zan jende talde ez txikia.

10. Eta allegatu ziran Ataden larrañara, zeñ dagoan Jordanen beste aldean, non irago zituzten zazpi egun proguan negar andi eta mingoitza-kin.

11. Ikusi zutenean au Kanaango lurrean bizi ziradenak, esan zuten: Progu andia da au Ejiptoarrentzat. Argatik izan zan deitua toki aren izena, Ejiptoko Progua.

12. Egin zuten bada Jakoberen semeak agindu zioten bezela:

13. Eta eramanik bera Kanaango lurrera, obiatu zuten lurruspe bitan anbatean; zeñ erosi zion Abrahamek kanpoarekin bere obiak izateko Efron Heteoarrari Manbreren aurrean.

14. Eta itzuli zan Jose Ejiptora bere anaiakin, eta laguntza guztiarekin, obiatu aitak.



15. Zeñ illik, bere anaiak beldur izanik, eta elkarri ziotela: Nork daki oroituko ote dan Jose sufritu zuen irainarekin, eta itzuliko digun egin giñion gaitz guztia?

16. Bidaldu zioten esatera: Zure aitak agindu zigun, ill baño lenago,

17. Oiek bere izenean esan giñizkizula: Erregutuzten dizut aztu zaitzela zure anaien gaitzakeriarekin, eta zurekin egin zuten bekatu eta bidegabetasunarekin. Guk ere erregutuzten dizugu barka zaiezula gaitzakeri au zure aitaren Jaungoikoaren serbitzariai. Zeñak aditurik, Josek negar egin zuen.

18. Eta etorri ziraden beregana bere anaiak; eta adoratzten zutela makurturik lurrerontz, esan zuten: Zure serbitzariak gera.

19. Zeñai berak erantzun zioten: Etzaitzete beldur izan. Gu jaiki al giñizaiokie Jaungoikoaren borondateari?

20. Zuek uste zenduten niri gaitz egitea; baña Jaungoikoak itzuli zuen onera, ni goratzeko, orain ikusten dezuten bezela, eta salbatzeko erri asko.

21. Etzaitzete beldur izan; nik emango dizutet jaten zuei eta zuen aurrai, eta poztu zituen, eta itz egin zioten beraatasun eta biguñitasunarekin.

22. Eta bizitu izan zan Ejipton bere aitaren etxe guztiarekin, eta bizitu izan zan eun eta amar urtean. Eta ikusi zituen Efraimen semeak irugarren gizaldiraño. Baitaere Matxirren Manasseren semearen semeak jaio ziran Joseren belaunetan.

23. Zeñak iragorik, itz egin zioten bere anaiai: Nere eriotzaren ondolan Jaungoikoak bisitatuko zaituzte, eta igoeraziko zaituzte lur onetatikan, Abraham, Isaak, eta Jakobi juramentuarekin eskeñi zien lurrera.

24. Eta juramentu erazirik berai, eta esanik: Jaungoikoak bisitatuko zaituzte; eraman itzatzute nere ezurrak zuekin lur onetatikan.

25. Ill zan, bere bizitzako eun ta amar urteak beterik. Eta balsamaturik, izan zan ipiñia kutxa batean Ejipton.

EXODOKO LIBURUA

LELENGO KAPITULUA

1. Oiek dirade Jakobekin Ejipton sartu ziraden Israelko semeen izenak; bakoitza sartu zan bere etxeokoin,

2. Ruben, Simeon, Lebi, Judas,

3. Issakar, Zabulon, eta Benjamin,

4. Dan, eta Neptali, Gad, eta Asser.

5. Ziraden bada irurogeita amar, Jakoberen etorkiko anima guztiak: Jose alabaña zegoan Ejipton.

6. Illik au, eta bere anai guztiak, eta jatorri guzti hura,

7. Israelko semeak azi ziraden, eta ugaritu belarra bezala, eta txit geiturik, bete zuten lurra.

8. Bitartean jaiki zan Ejipton Errege berri bat, Jose ezagutzen etzue-na.

9. Eta esan zion bere erriari: Ona, Israelko semeen erria txit ugaria da, eta gu baño sendoagoa.

10. Atozte, estutu dezagun ezarian, noaski, ugaritu ez dedin: eta izango baldin balitza gerraren bat gure kontra, elkartu ez dedin gure etsaiakin, eta garaiturik gu, atera ez dedin lur onetatikan.

11. Argatik jarri ziezten lanarizaiak, atsekabetu zitzaten zamakin, eta egin ziozkatzten Faraoni dendaen erriak Phiton, eta Ramesses.

12. Eta zenbat geiago atsekabetzen zituzten, anbat geiago ugaritzen, eta azitzen ziraden:

13. Eta ijtoarrak gorroto ziezten Israelko semeai, eta atsekabetzen zituzten inakintzen zituztela,

14. Eta irago erazitzen ziezten bizitza mingoitx bat neke andiak in karoraia eta adrilluak egiten, eta morroitza mot guztiarekin, zeñarekin ziran estutuak kanpoko lanetan.

15. Esan ere zien Ejiptoko Erregek Hebreotarren emagiñai, zeñatit bati zeritzan Sefora, besteari Phua,

16. Agintzen ziela: Laguntzen diezutenean emagintzan Hebreotar emakumeai, eta aurgitzeko denbora allegatzen danean, baldin bada aur semea, il ezazute, baldin bada aur alaba, gorde ezazute.

17. Baña emagiñak Jaungoikoaren beldur izan ziran, eta etzuten egin Ejiptoko erregearen agintearen araura, baizik bizirik utziten zituzten aur semeak.



18. Zeñak beragana otsegiñik, erregek esan zuen: Zer egitea nai izan dezute, utzirik bizirik aur semeak?

19. Zeñak erantzun zuten: Hebreotar emakumeak ez dirade Ejiptoko emakumeak bezelakoak, zeren berak badute emagintzako jakinduria, eta berakgana allegatzen geran baño lenago, aurregiten dute.

20. Jaungoikoak bada ongi egin zioten emagiñai, eta azi zan erria, eta txit sendatu.

21. Eta Jaungoikoaren beldur izan ziradelako emagiñak, egin ziozkaten etxeak.

22. Agindu zion bada Faraonek bere erri guztiari, esaten zuela: Jaio-tzen dan aur seme guztia bota ezazute ibaiera; aur alaba guztiari utzi zaiozute bizirik.

BIGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoan atera zan Lebiko etxeko gizaseme bat, eta artu zuen bere jatorriko emaztea.

2. Zeñak sortu zuen, eta aurregin zuen seme bat; eta ikusirik zala ederra, ezkutatu zuen iru illabetean.

3. Eta ezin onezkero ezkutatu zuenean, artu zuen izko saskitxo bat, eta kalafateatu zuen betunez eta pikez, eta jarri zuen barrenen aur seme-txoa, eta utzi zuen ibai ertzeko kañaberadian,

4. Zegoala zutik urrutian bere arreba bat, eta gauza onen gertaeraren zelatan.

5. Eta ona non jatxitzen zan Faraonen alaba bat garbitua izatera ibaiean: eta bere damak zebiltzan ibaiearen ertzean. Zeñak ikusi zueneko saskitxoa kañaberadian, bidaldu zuen bere neskameetatikan bat, eta erakarririk,

6. Idikirik, eta ikusirik an aur seme bat negarrez, kupiturik berarekin esan zuen: Hebreotarren aurren bat da au.

7. Zeñi aurraren arrebak esan zion: Nai dezu joan nadin, eta otsegin dizazudan Hebreotar iñude bat, azi dezakeana aurtxo au?

8. Erantzun zuen: Zoaz. Joan zan neskatxa, eta otsegin zuen bere ama.

9. Zeñi itz egin zion Faraonen alabak, esaten ziola: Ar zazu aurseme au, eta azi zadazu; nik neronek emango dizut zure saria. Artu zuen andreak aurra, eta azi zuen, eta andi egin zanean, eman zion Faraonen alabari.

10. Zeñ berak artu zuen semearen lekuan, eta deitu zuen bere izena Moises, esaten zuela: Uretikan atera nuelako.

11. Egun batean Moises andi egin zanean, atera zan bere senideetara, eta ikusi zuen beren estutasuna eta ijitotar batek jotzen zuela bere anaia Hebreotar bat.

12. Eta begiraturik aldamen guztietara, eta ikusirik etzala iñor agiri, ill zuen ijitoa, eta ezkutatu zuen ondarrean.

13. Eta aterarik biaramonean, ikusi zituen bi Hebreotar despitan, eta esan zion iraiña egiten zionari: Zergatik jotzen dezu zure lagun urkoa?

14. Berak erantzun zuen: Nork jarri au prinzipte eta jueztzat gure gañean? ik ill nai al nauk, atzo ill enduan bezela ijitoa? Beldurtu zan Moises, eta esan zuen: Nola zabaldu ote da gertaera au?

15. Eta aditu zuen Faraonek itz au, eta ill nai zuen Moises, zeñak iges egiñik bere aurretik, bizitu izan zan Madiango lurtean, eta eseri zan putzu baten aldean.

16. Eta Madiango apaizak zituen zazpi alaba, zeñak etorri ziran ura ateratzera, eta beterik olaskak, edaten eman nai zioten beren aitaren abereari.

17. Ondoren etorri ziraden artzai batzuek, eta bota zituzten neskatxak, eta jaiki zan Moises, eta jarririk neskatxen alde, eman zioten edaten beren ardiai.

18. Zeñak itzulirik beren aita Ragelgana, esan zioten neskatxai: Zergatik zatozte oi baño lasterrago?

19. Erantzun zuten: Gizon ijito batek libratu gaitu artzaien eskutik; gañera atera ere du ura gurekin, eta eman diote edaten ardiai.

20. Eta berak esan zuen: Non da? Zergatik utzi diozute joaten gizon orri? Deitu zaiozute ogia jan dezan.

21. Eta juramentu egin zuen Moisesek, berarekin biziko zala. Eta artu zuen emaztetzat bere alaba Sefora,

22. Zeñak egin zion aur seme bat, zeñi deitu zion Jersan, esaten zuela: Arrotza izan naiz besteren lurtean. Eta beste aur bat egin zion, zeñi deitu zion Eliezer, esaten zuela: Zeren nere aitaren Jaungoikoak, nere laguntzalleak, atera ninduen Faraonen eskutikan.

23. Eta denbora askoren buruan ill zan Ejiptoko erregea, eta Israelko semeak negarrez beren lanak gatik, deadar egin zuten, eta beren deadarra igo zan Jaungoikoagana beren lanetatik.

24. Eta aditu zuen beren negarra eta oroitu zan Abraham, Isaak, eta Jakobekin egin zuen elkartasunarekin.

25. Eta begiratu zien Jaunak Israelko semeai, eta ezagutu zituen.



IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta Moisesek bazkatzen zituen bere aitagiarraba Jetro Madiango apaizaren ardiak, eta eramanik abere taldea basomortuaren barrena, etorri zan Horeb Jaungoikoaren mendira.

2. Eta agertu zitzaion Jauna suzko garrean sasiaren erditikan, eta ikusten zuen sasiari zitzekala, eta erretzen etzala.

3. Esan zuen bada Moisesek: Joango naiz, eta ikusiko det ikusketa andi au, zergatik erretzen ez dan sasia.

4. Eta ikusirik Jaunak bazijoala ikustera, deitu zion sasiaren erditik, eta esan zuen: Moises, Moises. Zeñak erantzun zuen: Emen naiz.

5. Eta berak esan zuen: Ez urreratu onara: kendu itzatzu zure oñetakoak, zeren zauden lekua, lur santua da.

6. Eta esan zuen: Ni naiz zure aitaren Jaungoikoa, Abrahamen Jaungoikoa, Isaaken Jaungoikoa, eta Jakoberen Jaungoikoa. Estali zuen Moisesek bere arpegia, zeren etzan benturatzen Jaungoikoa ganontz begiratzen.

7. Zeñi esan zion Jaunak: ikusi det nere erriaren estatusuna Ejipton, eta aditu det bere deadarra langillazaien gogortasuna gatik:

8. Eta jakiñik bere pena, jatxi naiz, libratzera ijitoen eskuetatikan, eta ateratzera lur artatikan lur on, eta zabalera, eznea eta ezitia darian lurrera, kanantarraren, eta hettarren, eta amorreotarren, eta fereztarren, eta hebertarren, eta jebustarren lekuetara.

9. Israelko semeen deadarra bada allegatu da nigana, eta ikusi det beren estatusuna, zeñarekin diraden ijitoak menderatuak.

10. Baña atoz, eta bialduko zaitut Faraon gana, atera dezazun Ejiptotikan nere erria, Israelko semeak.

11. Eta esan zion Moisesek Jaungoikoari: Nor naiz ni joateko Faraon gana, eta ateratzeko Israelko semeak Ejiptotikan?

12. Zeñak esan zion: Ni egongo naiz zurekin, eta au izango dezu nik bidaldu zaitudan señaletzat. Ateratzen dezunean nere erria Ejiptotikan, egingo diozu Jaungoikoari eskeñtzaria mendi onen gañean.

13. Esan zion Moisesek Jaungoikoari: Ona non ni joango naizan Israelko semeak gana, eta esango diotedan: Zuen gurasoen Jaungoikoak bidaldu nau zuek gana. Esango baldin balidate, zeñ da bere izena? Zer esango diet?

14. Esan zion Jaungoikoak Moisesi: Ni naiz naizana. Esan zuen: Onela esango diezu Israelko semeai: Danak, bidaldu nau zuek gana.

15. Eta esan zion berriz Jaungoikoak Moisesi: Oiek esango diezu Israelko semeai: Zuen gurasoen Jaun Jaungoikoak, Abrahamen Jainkoak,

Isaaken Jainkoak, eta Jakoberen Jainkoak bidaldu nau zuek gana, au da nere izena betiko, eta au da nere oroikarria gizaldien gizaldian.

16. Zoaz, eta bildu itzatzu Israelko zarrak, eta esango diezu: Zuen gurasoen Jaun Jaungoikoa, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa, eta Jakoberen Jainkoa, agertu zitzadan, esaten zidala: Ni etorri naiz zuek bisitatze-
ra, eta ikusi ditut Ejipton gertatu zitzatzuten gauza guztiak:

17. Eta esan det aterako zaituztedala Ejiptoko estatusnetikan, kanantarren, eta hettarren, eta amorreotarren, eta ferezetarren, eta hebertarren, eta jebusetarren lurrera, eznea eta ezitia darion lurrera.

18. Eta adituko dute zure itza, eta sartuko zera zu, eta Israelko zarrak, Ejiptoko errege gana, eta esango diozu: hebreotarren Jaun Jaungoikoak otsegin digu, joango gera iru eguneko bidean basomortura, egitera gure Jaun Jaungoikoari eskeñtzaria.

19. Baña nik badakit ez dizutela utziko joaten Ejiptoko erregeak, esku sendoaren bitartez baizikan.

20. Zeren nik luzatuko det nere eskua, eta zaurituko det Ejipto, beren erdian egingo ditudan mirari guztiakin. Oien ondoan utziko dizute joaten.

21. Egingo ere det erri orrek arkitu dezala grazia ejiptotarren begietan, ateratzen zeratenean irten etzaitzen utsik:

22. Baizik emakume bakoitzak eskatuko diozka bere auzoko emakumeari, eta bere ostatuemalleari, zillarrezko eta urrezko ontziak, eta soñekoak, eta jarriko dituzute zuen semeen eta alabaen gañean, eta ustuko dezute Ejipto.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Erantzunaz Moisesek, esan zuen: Ez didate sinistuko, ez dute ere adituko nere itza, baizikan esango dute: Ez zatzu agertu Jauna.

2. Esan zion bada: Zer da zure eskuan dezuna? Erantzun zuen: Zigor bat.

3. Eta esan zuen Jaunak: Egotzi ezazu lurrera. Egotzi zuen, eta suga biurtu zan, alako moduan non iges egiten zuen Moisesek.

4. Eta esan zuen Jaunak: Luzatu ezazu zure eskua, eta eldu zaiozu bere isasetikan. Luzatu zuen, eta eldu zion, eta zigor itzuli zan.

5. Sinistu dezaten, esan zuen, agertu zatzula beren gurasoen Jaun Jaungoikoa, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa, eta Jakoberen Jainkoa.

6. Eta esan zion Jaunak berriz: Sar zazu zure eskua zure kolkora. Zeñ sarturik kolkoran, atera zuen legenez beterik elurra bezela.

7. Berriz sartu ezazu, esan zion, zure eskua zure kolkoran. Berriz sartu zuen, eta atera bigarren aldiz, eta zan beste aragiaren antzekoa.



8. Ez baldin badizute sinisten, esan zuen, eta ez baldin balute adituko lendabiziko señalearen bozera, sinistuko dute bigarren señalearenera.

9. Eta ez baldin balute sinistuko señale bi oiekin ere, eta ez balute adituko zure itza, ar zazu ibaieko ura, eta isuri ezazu lurraren gañean, eta ibaietikan ateratzen dezun guztia odol biurtuko da.

10. Esan zuen Moisesek: Jauna, erregutuzten dizut, oroitu zaitezela ez naizala iñoiz izan iztun ona, eta zure serbitzari oni itz egiten diozun ezkerero ere arkitzen naiz motelago eta mingaiñ astunagoarekin.

11. Esan zuen onetara Jaunak: Nork egin zuen gizonaren aoa? Edo nork moldatu zuen mutua, eta gorra, ikusten duena, eta itsua? Ez al naiz izan ni?

12. Zoaz bada , eta ni izango naiz zure aolan, eta irakatsiko dizut zer itz egingo dezun.

13. Eta berak: Erregutuzten dizut, Jauna, arren bidaldu dizazula bidalduko dezuna.

14. Aserreturik Jauna Moisesekin, esan zuen: Aaron zure anaia Lebi-k semeak, badakit izketan ongi egiten duela; begira, bera badatorrela zuri bidera irtetzera, eta ikusten zaituenean, biotzez poztuko da.

15. Itz egin zaiozu, eta jarri itzatzu nere itzak bere aolan; eta ni izango naiz zure aolan, eta huraren aolan, eta erakutsiko dizudet, zer egin bear dezuten.

16. Berak itz egingo dio zugatik erriari, eta izango da zure aola, eta zu izango zera beretzat Jaungoikoari dagozkion gauzetan.

17. Artu ere ezazu zure eskuan zigor au, zeñean egingo dituzu mirariak.

18. Joan zan Moises, eta itzuli zan Jetro bere aitagiarraba gana, eta esan zion: Joango naiz , eta itzuliko naiz nere anaiak gana Ejiptora, ikusi dezadan oraindikan bizi ote diran. Zeñi esan zion Jetrok: zoaz ordu onean.

19. Esan zion bada Jaunak Moisesi Madianen: Zoaz, eta itzuli zaite Ejiptora, zeren illak dirade zuri bizia kendu nai zizuten guztiak.

20. Artu zuen bada Moisesek bere emaztea, eta bere semeak, eta jarri zituen asto baten gañean, eta biurtu zan Ejiptora, zeramala Jaungoikoaren zigorra bere eskuan.

21. Eta esan zion Jaunak, itzultzen zanean Ejiptora: Begira, egin ditzatzula Faraonen aurrean, zure eskuan jarri ditudan izukari guztiak; nik gogortuko det bere biotza, eta ez dio utziko erriari joaten,

22. Eta esango diozu: Au esaten du Jaunak: Israel da nere seme lenbizisortua.

23. Esan dizut: Utzi zaiozu nere semeari serbitu natzan; eta etziñon utzi nai izan; ona emen non nik illko dedan zure lenbizisortua.

24. Eta zegoala bidean, atera zitzaion Jauna bidera ostatuan, eta ill nai zuen.

25. Bereala Seforak artu zuen arri txit zorrotz bat, eta zirkunzidatu zuen bere semea, eta ukiturik Moisesen oñak, esan zion: Zu zera neretzat odolezko senar bat.

26. Eta utzi zion, esan zuenean: Odolen senarra, zirkunzisia gatik.

27. Eta esan zion Jaunak Aaroni: Zoaz Moisesi bidera irtetzera baso mortura; eta joan zan berari bidera irtetzera Jaungoikoaren mendira, eta musu eman zion.

28. Eta kontatu zion Moisesek Aaroni, Jaunak esan zion guztia bidaltzean, eta nolako mirariak egiteko agindu zion.

29. Eta etorri ziraden elkarrekin, eta bildu zituzten Israelko semeen zar guztiak.

30. Eta Aaronek esan zituen, Jaunak Moisesi esan ziozkan itz guztiak, eta egin zituen mirariak erriaren aurrean,

31. Eta sinistu zuen erriak. Eta aditu zuten Jaunak bisitatu zituela Israelko semeak, eta begiratu ziola beren estutasunari, eta auzpezturik adoratu zuten.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoan sartu ziraden Moises eta Aaron, eta esan zioten Faraoni: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jaungoikoak: Utzi zaiozu nere erriari sakrifikatu dizadan baso mortuan.

2. Baña berak erantzun zuen: Zeñ da Jauna, aditu dizadan bere boza, eta utzi dizaiodan joaten Israeli? Ez det ezagutzen Jauna, eta ez diot utziko joaten Israeli.

3. Eta berak esan zuten: hebreotarren Jaungoikoak ots egin digu, joan gaitezen iru eguneko bidean baso mortura, eta egin dizaiogula eskeñtzaria gure Jaun Jaungoikoari, etorri ez dedin gure gañera izurria, edo gerra.

4. Esan zien Ejiptoko erregeak: Zergatik Moises eta Aaron, alde erazitzen diozute erriari beren lanetatik? Zoazte zuen eginkizunetara.

5. Eta esan zuen Faraonek: Erri au txit ugaritu da toki onetan; ikusten dezute nola azi dan jendedia, zenbat geiago utziten baldin badiozute aisian eta lanik egin gabe?

6. Agindu zioten bada egun artan langillezai, eta erriko eskalei, esaten zuela:



7. Iñolaere berriz ez diozute emango erriari lastorik adrilluak egiteko len bezela, baizik bijoazte berak, eta bildu bezate galondoa.

8. Eta eskatuko diezute oraindano egiten izan duten adrilluen neurria, ezertxo ere gutxitu gabe, zeren alperkerian daude, eta argatik deadar egiten dute, diotela: Goazen, eta egin dizaiogun eskeñtzaria gure Jaungoikoari.

9. Izan bitez lanez lertuak, eta bukatu bitzate, sinisterik eman ez dizaieten gezurrezko itzai.

10. Aterarik bada langillezaiak, eta eskaleak, esan zioten erriari: Onela esaten du Faraonek, ez dizutet ematen lastorik;

11. Zoazte, eta bildu ezazute baldin inon arkitu al badezakezute, ez zatzute ere gutxituko ezer zuen lanetikan.

12. Eta barraiatu zan erria Ejiptoko lur guttitikan lastoa biltzera.

13. Eta langillen zaiak estututzen zituzten, esaten zutela: Bukatu eza zute zuen egunoroko lana, len egin oi zenduten bezela, ematen zatzute nean lastoa.

14. Eta Faraonen eskaleak azotatu zituzten Israelko semeen langillezaiak esaten ziotela: Zergatik ez dezute betetzen adrilluen neurria, len bezela, ez atzo ez gaur?

15. Eta etorri ziraden Israelko semeen langillezaiak, eta deadar egin zioten Faraoni, esaten zutela: Zergatik onela gaizki darabilzkizu zure serbitzariak?

16. Ez digute ematen lastorik, eta agintzen digute egiteko adrilluak len bezela, begira ezazu azotatuak gerala zure serbitzariak, eta gaizki egiten dute zure erriaren kontra.

17. Zeñek esan zuen: Alperkerian zaudete, eta argatik diozute: Goazen, eta egin dizaiogun eskeñtzaria Jaunari.

18. Zoazte bada, eta lanean ari zaitezte, lastorik etzatzute emango, eta egingo dezute, oraindano oi zenduten beste adrillu.

19. Eta Israelko semeen langillezaiak ikusten ziraden larri, esaten zitzaiztelako: Ez da ezer ere gutxituko egunoroko adrilluetatik.

20. Eta bidera irten zion Moisesi eta Aaroni aurkez zeudenai, Faraon gandikan ateratzen ziranean:

21. Eta esan zioten: Jaunak ikusi, eta juzgatu beza; zeren zuek jarri gaituzute Faraonen, eta bere serbitzarien gorrotoan, eta eman diozute ganibita, gu illtzeko.

22. Eta itzuli zan Moises Jauna gana, eta esan zuen: Jauna, zergatik estutu dezue erri au? zergatik bidaldu nazu?

23. Zeren sartu nintzan ezker Faraon gana, zure izenean itz egiteko, estutu du zure erria, eta ez dituzu libratu.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Orain ikusiko dezue zer egingo dio dan Faraoni, zeren esku sendo baten bitartez utziko diote joaten, eta esku indartsuan botako ditu bere erritikan.

2. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela: Ni naiz Jauna,

3. Agertu nintzaiona Abrahami, Isaaki, eta Jakobi Jaungoiko guztia dezakeanagan, eta nere izen Adonai ez nien agertu.

4. Eta egin nuen elkartasuna berakin, emango niela Kanaango lurra berak arrotzurik ibilli ziraden lurra, zeñean egon ziraden erdaldunak bezela.

5. Nik aditu det Israelko semeen negarra, zeñarekin ejiptoarrak estutu dituzten, eta oroitu naiz nere elkartasunarekin.

6. Argatik esan zaiezu Israelko semeai: Ni Jauna aterako zaituztedana Ejiptoko ziegatikan, eta libratuko zaituztet katiberiotik, eta erreskatatuko zaituztet emanik ots andiak nere beso altxatuarekin.

7. Nik artuko zaituztet nere erritzat, eta izango naiz zuen Jaungoikoa, eta jakingo dezute ni naizala ejiptoarren ziegatik atera zinduztedan zuen Jaun Jaungoikoa:

8. Eta sartu zinduztedana arako lurrera, zeñaen gañera jaso nuen nere eskua, emateko bera Abraham, Isaak, eta Jakobi, eta emango dizutet bera bere jabe izateko, ni Jauna.

9. Kontatu zizkieten bada Moisesek gauza guzti oiek Israelko semeai, zeñak etzioten sinisterik eman, zeuden estutasun eta larria gatik neke geiegiakin.

10. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

11. Sartu zaite, eta esan zaiozu Faraon Ejiptoko erregeari utzi dizaiotela Israelko semeai joaten lur onetatikan.

12. Erantzun zuen Moisesek Jaunaren aurrean: Ona non Israelko semeak ez nauten aditzen, eta, nola adituko nau Faraonek, batezere izanik ni motela?

13. Itz egin zien Jaunak Moisesi eta Aaroni, eta agindu zien joateko Israelko semeen, eta Faraon Ejiptoko erregearen billa, ateratzeko Israelko semeak Ejiptoko lurretik.

14. Oiek dirade etxeetako buruak beren familien araura. Ruben Israelen lenbiziortuaren semeak: Henok eta Falu, Hesron eta Karmi,



15. Oiek Rubenen senideak. Simeonen semeak: Jamuel eta Jamin, eta Ahod, eta Jatxin, eta Soar, eta Saul kanaantar emakume baten semea. Oiek Simeonen jatorriak.

16. Eta oiek Lebien semeen izenak beren senitartetatik. Jerson, eta Kaath, eta Merari. Eta Lebiren bizitzako urteak izan ziran eun eta ogeita amazazpi.

17. Jersonen semeak: Lobni eta Semei, bere senitartetatik.

18. Kaathen semeak: Amran, eta issaar, eta Hebron, eta Oziel. Eta Kaathen bizitzako urteak eun eta ogeita amairu.

19. Merarien semeak: Moholi, eta Musi. Oiek Lebiren senitarteak beren familietatik.

20. Eta Amramek artu zuen emaztetzat Jokabed bere lengusua, zeñak egin ziozkan bi aur Aaron eta Moises. Eta Amramen bizitzako urteak izan ziraden eun eta ogeita amazazpi.

21. Eta Isaarren semeak: Kore, eta Nepheg, eta Zetxri.

22. Eta Ozielen semeak: Misael, eta Elisafan, eta Setri.

23. Eta Aaronek artu zuen emaztetzat Elisabet, Aminadaben alaba, Nahassonen arreba, zeñak egin ziozkan Nadab, eta Abiu, eta Eleazar, eta Ithamar.

24. Eta Koreren semeak: Aser, eta Elkana, eta Abiasaf. Oiek dirade koritarren senitarteak.

25. Baña Eleazar Aaronen semeak artu zuen emaztea Futielen alabetatik, zeñak egin zion Finees. Oiek dirade Lebitar familien buruak beren senitartetatik.

26. Au da, Aaron eta Moises, zeñai agindu zien Jaunak ateratzeko Israelko semeak Ejiptoko lurretik zabaldurik taldeetan.

27. Oiek dirade itz egiten diotenak Faraon Ejiptoko erregeari, ateratzeko Israelko semeak Ejiptotikan, au da, Moises eta Aaron,

28. Jaunak Moisesi Ejiptoko lurtean itz egin zion egunean.

29. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela: Ni Jauna: esan zazkiozu Faraon Ejiptoko erregeari nik esaten dizkizudan gauza guztiak.

30. Eta esan zuen Moisesek Jaunaren aurrean: ikusten dezu motela naizala, nola adituko nau Faraonek?

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Ona non egin zaitudan Faraonen Jaungoiko, eta Aaron zure anaia izango da zure Profeta.

2. Zuk esango diozu, nik esaten dizudan guztia, eta ark itz egingo dio Faraoni, utzi dizaiela joaten Israelko semeai bere erritik.

3. Baña nik gogortuko det bere biotza eta ugarituko ditut nere mirari eta izukariak Ejiptoko lurtean,

4. Eta etzaituzte adituko. Baña nik luzatuko det nere eskua Ejiptoren gañera, eta aterako det nere ejerzitu eta erria, Israelko semeak, kastigu andien bitartez.

5. Eta adituko dute ejiptoarrak ni naizala Jauna, luzatzen dedanean nere eskua Ejiptoen gañera, eta ateratzen ditudanean Israelko semeak beren erditikan.

6. Egin zuten bada Moisesek eta Aaronek, Jaungoikoak agindu zuen bezela; ala egin zuten.

7. Zan berriz Moises larogei urtekoa, eta Aaron larogei ta irukoa, itz egin ziotenean Faraoni.

8. Eta esan zien Jaunak Moisesi eta Aaroni:

9. Esaten dizutenean Faraonek: Agertu itzatzute ezagugarriak, esango diozu Aaroni: Ar zazu zure zigorra, eta bota ezazu Faraonen aurrean, eta suga biurtuko da.

10. Sarturik bada Moises eta Aaron Faraon gana, egin zuten Jaunak agindu zioten bezela. Eta artu zuen Aaronek zigorra Faraonen eta bere serbitzarien aurrean, zeñ suga biurtu zan.

11. Eta deitu zituen Faraonek jakintsuak eta sorgiñak, eta berak ere orobat egin zuten ejiptotarren sorginkeriakin, eta gauza estali batzuekin.

12. Eta bota zituzten bakoitzak bere zigorrak, zeñak iransuga biurtu ziran; baña Aaronen zigorrak iretsi zituen beren zigorrak.

13. Eta gogortu zan Faraonen biotza, eta etzituen aditu, Jaunak agindu zuen bezela.

14. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Astundu da Faraonen biotza, eztio utzi nai joaten erriari.

15. Zoaz beragana goizetik, begira, aterako dala uretara, eta egongo zera zai ibai bazterrean, iransuga biurtu zan zigorra eskuan dezula.

16. Eta esango diozu: Hebreotarren Jaun Jaungoikoak bidaldu nau zugana, esatera: Utzi zaiozu joaten nere erriari egin dizadan eskeñtzaria basomortuan, eta oraindano ez dezu aditu nai izan.

17. Oiek bada esaten ditu Jaunak: Onetan jakingo dezu Jauna naizala; begira, joko dedala ibaieko ura nere eskuan dedan zigorrarekin, eta odol biurtuko da.

18. Ibaiean dauden arraiak ere illko dirade, eta atsituko dirade urak, eta ibaieko ura edaten duten ejiptotarrak naigabetuko dirade.

19. Esan ere zion Jaunak Moisesi: Esan zaiozu Aaroni: Ar zazu zure zigorra, eta luzatu ezazu zure eskua Ejiptoko uren gañera, eta beren



ibaien gañera, eta erreka, eta putzu, eta aintzira guztien gañera, odol biur-tu ditezen, eta izan dedin odola Ejiptoko lur guztian, ala zurezko ontzie-tan, nola arrizkoetan.

20. Eta egin zuten Moisesek eta Aaronek, Jaunak agindu zioten beze-la: eta jasorik zigorra, jo zuen ibaiko ura Faraonen eta bere serbitzarien aurrean: zeñ odol biurtu zan.

21. Eta ill ziran ibaiean zeuden arraiak, eta usteldu zan ibaia, eta ezin zuten edan ejiptotarrak ibaieko ura, eta izandu zan odola Ejiptoko lur guztian.

22. Eta orobat egin zuten ejiptotarren sorgiñak beren enkantuakin; eta gogortu zan Faraonen biotza, eta etzituen aditu, Jaunak agindu zuen bezela.

23. Eta atsea eman zioten, eta sartu zan bere etxean, eta etzan bere biotza bigundu oraingo aldian ere.

24. Eta ejiptoar guztiak aitzurtu zuten ibaiaren ingurutikan ura eda-teko; zeren ezin edan zuten ibaiko ura.

25. Eta zapi egun osoak irago ziraden, Jaunak ibaia jo zuen ezkeru.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Esan ere zion Jaunak Moisesi: Sartu zaite Faraon gana, eta esango diozu: Oiek esaten ditu Jaunak: Utzi zaiozu joaten nere erriari, egin diza-dan eskeñtzaria:

2. Eta naiko ez baldin baziñoke utzi, ona non nik kastigatuko ditu-dan zure alderri guztiak igelakin.

3. Eta ibaia gelditzaka egongo da igelakin, zeñak igoko dira, eta sartu zure etxean, eta zuk lo egiten dezun gelan, eta zure oian; baita ere zure serbitzarien etxeetan, eta zure erri guztiarenean, eta zure labeetan, eta zure janarien gordelekuetan:

4. Eta igelak sartuko dira zugana, eta zure erria gana, eta zure serbi-tzari guztiak gana.

5. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Esan zaiozu Aaroni: Luzatu ezazu zure eskua ibaien gañera eta erreken eta aintziren gañera, eta atera itzatzu igelak Ejiptoko lurraren gañera.

6. Eta luzatu zuen Aaronek eskua Ejiptoko uren gañera, eta igo zuten igelak, eta estali zuten Ejiptoko lurra.

7. Eta orobat egin zuten sorgiñak beren enkantuakin, eta atera zituz-ten igelak Ejiptoko lurraren gañera.

8. Eta otsegin zioten Faraonek Moisesi eta Aaroni, eta esan zioten: Erregutu zaiozute Jaunari, kendu ditzala igelak nigandik, eta nere erria gandik, eta utziko diot erriari, egin dizaiola eskeñtzaria Jaunari.

9. Eta esan zion Moisesek Faraoni: izentatu zadazu noiz erregutuko dedan zu gatik, eta zure serbitzariak gatik, eta zure erria gatik, botaak izan ditezen igelak zugandik, eta zure etxetik, eta zure serbitzariak gandik, eta zure erritik, eta bakarrik gelditu ditezen ibaiean.

10. Zeñak erantzun zuen: Biar. Eta berak: Egingo det, esan zuen, zure itzaren araura, jakin dezazun, ez dala gure Jaun Jaungoikoa bezela-korik.

11. Eta alde egingo dute igelak zu gandik, eta zure etxetik, eta zure serbitzariak gandik, eta zure erritik, eta bakarrik ibaiean geldituko dirade.

12. Eta atera ziraden Moises eta Aaron Faraon gandik, eta Moisesek deadarrez erregutu zion Jaunari, Faraoni egin zion eskeñtzariaren beteta-suna gatik igelen gañean.

13. Eta kunplitu zuen Jaunak Moisesen itza, eta ill ziran etxeetako, eta baserrietako, eta kanpoetako igelak.

14. Eta bildu zituzten muntoi neurri gabeetan, eta usteldu zan lurra.

15. Baña ikusirik Faraonek bere burua gaitzetik libaturik, astundu zuen bere biotza, eta etzituen aditu, Jaunak agindu zuen bezela.

16. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Esan zaiozu Aaroni: Luzatu ezazu zure zigorra, eta jo ezazu lurreko autsa, eta jaiio bitez eltxoak Ejiptoko alderri guztian.

17. Eta ala egin zuten. Eta luzatu zuen Aaronek eskuan zuen zigorra, eta jo zuen lurreko autsa, eta gizonak, eta abereak gelditu ziraden eltxoz beterik, eta lurreko auts guztia eltxo biurtu zan Ejiptoko alderri guztian.

18. Eta orobat egin zuten sorgiñak bere enkantuakin, ateratzeko eltxoak, eta ezin zuten, eta gizonak eta abereak zeuden eltxoz beterik.

19. Eta esan zioten sorgiñak Faraoni: Au Jaungoikoaren beatza da. Eta gogortu zan Faraonen biotza, eta etzituen aditu, Jaunak agindu zuen bezela.

20. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Goiz jaiki zaite, eta jarri Faraonen aurrean; zeren aterako da uretara, eta esango diozu: Oiek esaten ditu Jau-nak: Utzi zaiozu joaten nere erriari egin dizadan eskeñtzaria.

21. Zeren utziten ez baldin badiozu joaten, ona non nik bidalduko dedan zure gañera, eta zure serbitzarien gañera, eta zure etxeen gañera euli mota guztia, eta ejiptotarren etxeak beteko dirade mota askotako euliz, eta bizi diraden toki guztiak.



22. Eta egingo det miragarria egun artan Jessengo lurra, zeñean dagoan nere erria, ez egonik an eulirik, eta jakin dezazun, ni Jauna bizi naizala lur aren erdian.

23. Eta nik egingo det distinzioa nere erriaren eta zure erriaren artean; biar izango da mirari au.

24. Eta ala egin zuen Jaunak. Eta euli gogaikarri eta kaltegilla talde andiak etorri ziran Faraonen etxetara eta bere serbitzarienetara, eta Ejiptoko lur guztira, eta izurritu zan lurra onelako euliakin.

25. Eta otsegin zioten Faraonek Moisesi, eta Aaroni, eta esan zioten: Zoazte, eta egin zaiozute eskeñtzaria zuen Jaungoikoari lur onetan.

26. Eta esan zuen Moisesek: Ezin lezake ori egin, zeren eskeñiko diozkagu gure Jaun Jainkoari, ejiptotarren artean iltzea sakrilejioko bekatua dan abereak. Eta baldin beren begien aurrean illko bagenduzke berak adoratzen dituzten abereak arrika egingo lizkigute.

27. Ibilliko gera iru eguneko bidean basomortura, eta egingo diogu eskeñtzaria gure Jaun Jainkoari, agindu zigun bezela.

28. Esan zion Faraonek: Nik utziko dizutet joaten egin dizaiozuten eskeñtzaria zuen Jaun Jaungoikoari basomortuan; baña etzaitzete urrutia-go joan, erregutu ezazute ni gatik.

29. Eta esan zuen Moisesek: Ateratzen naizenean zu gandikan, erre-gutuko diot Jaunari, eta biar aldeko dute euliak Faraon gandik, eta bere serbitzariak gandik, eta bere erritik; baña ez nazazu engañatu berriz utzi-ten ez diozula joaten erriari, Jaunari eskeñtzaria egitera.

30. Eta aterarik Moises Faraon gandik, erregutu zion Jaungoikoari.

31. Zeñak egin zuen Moisesen itzaren araura, eta kendu zituen euliak Faraon gandik, eta bere serbitzariak gandik, eta bere erritik; etzan gelditu ez da batere.

32. Eta astundu zan Faraonen biotza, alako moduan non etzion utzi erriari joaten oraingo aldian ere.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Sartu zaitte Faraon gana, eta esan zaiozu: Oiek esaten ditu hebreotarren Jaun Jaungoikoak: Utzi zaiozu joaten nere erriari, egin dizadan eskeñtzaria.

2. Zeren baldin oraindik ez badezu nai, eta gelditzen badituzu:

3. Ona non nere eskua izango dan zure kanpoen gañean, eta bidalduko det zaldien, eta astoen, eta gameluen, eta idien, eta ardien gañera izurrite txit andi bat.

4. Eta egingo du Jaunak mirari bat Israelko gauzen, eta ejiptoan gauzen artean, ez dala galduko ezertxo ere Israelko semeai dagotenik.

5. Eta Jaunak izentatu zuen epea, esaten zuela: Biar egingo du Jaunak mirari au lurrean.

6. Ala egin zuen Jaunak biaramonean, eta ill ziran ejiptotarren abere guztiak, baña Israelko semeen abereetatik bat ere etzan galdu.

7. Eta bidaldu zuen Faraonek ikustera, eta arkitu zan etzala il Israelena zan gauzarik batere. Eta astundu zan Faraonen biotza, eta etzion utzi joaten erriari.

8. Eta esan zioten Jaunak Moisesi eta Aaroni: Artu itzatzute eskuak bete auts labe batetikan, eta zabaldu beza Moisesek zerurontz Faraonen aurrean.

9. Eta zabaldu bedi auts au Ejiptoko lur guztitik, eta izango dira gizonetan, eta abereetan zauriak, eta bisiga andituak Ejiptoko lur guztian.

10. Eta artu zuten autsa labe batetik, eta jarri ziraden Faraonen aurrean, eta zabaldu zuen Moisesek zerurontz, eta agertu ziraden bisiga andituen zauriak gizonetan, eta abereetan:

11. Eta sorgiñak ezin agertu ziran Moisesen aurrean, berak eta Ejiptoko lur guztikoak zeuzkaten zauriak gatik.

12. Eta gogortu zuen Jaunak Faraonen biotza, eta etzitzen aditu, Jaunak Moisesi esan zion bezela.

13. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Goiz jaiki eta jarri zaitte Faraonen aurrean, eta esango diozu: Oiek esaten ditu hebreotarren Jaun Jaungoikoak: Utzi zaiozu joaten nere erriari, egin dizadan eskeñtzaria.

14. Zeren oraingo aldian bidalduko ditut nere gaitz guztiak zure biotzaren gañera, eta zure serbitzarien gañera, eta zure erriaren gañera, jakin dezazun ez dala nere antzekorik mundu guztian.

15. Zeren orain luzaturik eskua zaurituko zaitut zu, eta zure erria izurritearekin, eta galduko zera lurretikan.

16. Onetarako gorde zaitut bizirik, agertzeko zugaran nere sendotasuna, eta alabatua izan dedin nere izena mundu guztian.

17. Oraindik gelditurik daukak nere erria, eta ez diok utzi nai joaten?

18. Ona non nik biar ordu ordu onetan egingo dikat arri txit ugari bat, nolakoa izan ez dan Ejipton, egiña izan zan egunetik, gaurko egunera.

19. Bidaldu itzak bada oraindik, eta bildu ire zamariak, eta kanpoan dauzkan gauza guztiak, zeren gizonak, eta abereak, eta kanpoan



arkitzen ditukan gauza guztiak, eta kanpotik bilduak izan ez ditukanak, illak izango dituk, erortzen baldin badek beren gañera arria.

20. Faraonen serbitzariatikan Jaunaren itzaren beldur izandu zanak, bilduerazi zituen bere mirabeak, eta abereak etxeetara;

21. Baña mezpreziatu zuenak Jaunaren itza, utzi zituen bere mira-beak, eta abereak kanpoetan.

22. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Luzatu ezazu zure eskua zerurontz, erori dedin arria Ejiptoko lur guztian, gizonen gañera, eta abereen gañera, eta kanpoko belar guztiaren gañera Ejiptoko lurtean.

23. Eta luzatu zuen Moisesek zigorra zerurontz, eta Jaunak egin zituen turmoiak, eta arria eta tximista batetikan bestera zebiltzanak, eta egin zuen Jaunak arria Ejiptoko lurtearen gañean.

24. Eta arria eta sua erortzen ziran naasiak beren artean, eta ain andia izan zan, non etzan len inoiz alakorik ikusi Ejiptoko lur guztian, erreinu hura egiña izan zanetik.

25. Eta arriak zauritu zituen Ejiptoko lur guztian, kanpoetan zeuden gauza guztiak, gizona gandik abereraño, eta kanpoko belar guztia zauritu zuen arriak, eta alderriko zuaitz guztia autsi zuen.

26. Bakarrik Jessengo lurtean, non zeuden Israelko semeak, etzan erori arririkan.

27. Eta bidaldu zuen Faraonek, eta deitu zituen Moises eta Aaron, esaten ziela: Bekatu egin det orain ere, Jauna justoa da, ni eta nere erria, gaiztoak.

28. Erregutu zaiozute Jaunari gelditu ditezela Jaungoikoaren turmoiak, eta arria; joaten utzi dizazutedan, eta inolaere geiago etzaitzen gelditu emen.

29. Esan zuen Moisesek: Erritik ateratzen naizenean, luzatuko ditut nere eskuak Jaunagana, eta geldituko dira turmoiak, eta ez da izango arri-rik; jakin dezazun Jaunarena dala lurra;

30. Baña badakust ez zuk, ez zure serbitzariak ez dezutela Jaun Jaungoikoaren beldurrik.

31. Liñoak bada, eta garagarra izan zituzten kalteak, garagarra berdetzen zegoelako, eta liñoa lekatxoetan moteatzen zan, onezkero;

32. Baña garian eta galtxurian etzuen kalterik egin ziradelako beran-korrak.

33. Eta aterarik Moises Faraon gandik erritik, luzatu zituen eskuak Jauna ganontz, eta gelditu ziran turmoiak eta arria, eta etzan berriz erori euriaren tantorik lurtearen gañean.

34. Eta ikusirik Faraonek gelditu zirala euria, eta arria, eta turmoiak, geitu zituen bekatuak;

35. Eta astundu zan bere biotza, eta bere serbitzariena, eta txit gogortu zan, eta etzioten utzi joaten Israelko semeai, Jaunak agindu zuen bezela Moisesen eskuz.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Sartu zaite Faraon gana, zeren nik gogortu det bere biotza, eta bere serbitzariena, egin ditzadan nere mirari oiek beragan,

2. Eta kontatu dezazun zure semeen, eta zure illoben belarrietan, zenbat aldiz zeatu nituen ejiptoarrak, eta egin nere mirariak berakgan, eta jakin dezazuten ni naizala Jauna.

3. Sartu ziran bada Moises eta Aaron Faraon gana, eta esan zioten: Oiek esaten ditu hebreetarren Jaun Jaungoikoak, Noiz arteraño nai dezu egon nere mendean jarri gabe? Utzi zaiozu joaten nere erriari, egin dizadan eskeñtzaria.

4. Baña baldin oraindik aurkaratzen bazatzaio, eta ez bazinioke utzi nai joaten, ona non nik sartuko dedan biar langosta zure alderrietan:

5. Zeñak estaliko duen lurtearen gaña, beraren piskarik agertu ez dedin, baizik izan dedin jana, arriak utzi duen guztia. Zeren ortxikatuko ditu, kanpoetan moteatzen diraden zuhaitz guztiak.

6. Eta beteko dituzte zure etxeak, eta zure serbitzariena, eta Ejiptoko guztienak; ainbeste, non ikusi ez duten zure gurasoak, eta aitonak, lurtearen gañean jaio ziradenetik, gaurko eguneraño. Eta alde egin zuen, eta atera zan Faraon gandik.

7. Esan zioten bada Faraoni bere serbitzariak: Noizarteraño sufrutiko degu galtzepen au? Utzi zaiezu joaten gizon oiei egiten eskeñtzaria beren Jaun Jaungoikoari. Ez al dezu ikusten galdu dala Ejipto?

8. Eta berriz otsegin zioten Moisesi, eta Aaroni Faraon gana, zeñak esan zien: Zoazte, egin zaiozute eskeñtzaria zuen Jaun Jaungoikoari, zeñ dira joango diranak?

9. Esan zuen Moisesek: Joango gera gure aurrakin, eta zarrakin, semeakin eta alabakin, ardiakin eta eleakin, zeren gure Jaun Jaungoikoaren jaia da.

10. Eta erantzun zuen Faraonek: Ala izan bedi Jauna zuekin, nola utziko dizutedan joaten zuei, eta zuen aurrai. Nor jarri dezake zalanza txit gaizki pensatzen dezutela?



11. Ez da ala izango, baizik zoazte gizonak bakarrik, eta egin zaiozute eskeñtzaria Jaunari, zeren au da zuek zerok eskatu zendutena ere. Eta bereala izan ziraden aurtikiak Faraonen aurretik.

12. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Luzatu ezazu zure eskua Ejiptoko lurraren gañera langostara, igo dedin bere gañera, eta iretsi dezan, arriak utzi duen belar guztia.

13. Eta luzatu zuen Moisesek zigorra Ejiptoko lurraren gañera, eta Jaunak bidaldu zuen aize erretzalle bat egun guzti artan, eta gauean, eta etorririk goiza, aize erretzalleak jaso zituen langostak,

14. Zeñak igo ziran Ejiptoko lur guztiaren gañera, eta jarri ziraden Ejiptoko alderri guztietan ezinkontatualak, nolakoak izan etziran denbora hura baño lenago, eta izango ere ez diran gero.

15. Eta estali zuten lurraren gañ guztia, ondutzen zutela guztia. Iretsia izan zan bada lurreko belarra, eta zuaitzetan zan arriak utzitako fruta guztia, eta gauza berdearen deusik ere etzan gelditu zuaitzetan, eta lurreko belarretan, Ejipto guztian.

16. Argatik Faraonek txit agudo otsegin zioten Moisesi eta Aaroni, eta esan zioten: Bekatu egin det zuen Jaun Jaungoikoaren, eta zuen kontra.

17. Baña orain barka zadazute bekatua oraingo aldian ere, eta erre-gutu zaiozute zuen Jaun Jaungoikoari kendu dezala ni gandikan eriotza au.

18. Eta aterarik Moises Faraonen aurretik, erregutu zion Jaunari.

19. Zeñak atera zuen aize txit andi bat sartaldetikan, eta arturik langostak bota zuen itsaso Gorrira, etzan gelditu bat bakarria ere Ejiptoko alderri guztietan.

20. Eta gogortu zuen Jaunak Faraonen biotza, eta etzien utzi joaten Israelko semeai.

21. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Luzatu ezazu zure eskua zerurontz, eta egon bitez illuntasun ain trinkoak Ejiptoko lurraren gañean, non uki-tuak izan ditezkean.

22. Eta luzatu zuen Moisesek eskua zerurontz, eta egiñak izan ziraden illuntasun izugarriak Ejiptoko lur guztian iru egunean.

23. Etzuen ikusten batak bestea, etzan ere iñor mugitu zegoan tokitik, baña Israelko semeak zeuden edozeñ tokitan, argi zegoan.

24. Eta otsegin zioten Faraonek Moisesi eta Aaroni, eta esan zioten: Zoazte, egin zaiozute eskeñtzaria Jaunari; bakarrik gelditu bitez zuen ardiak, ata eleak, zuen aurak bijoaz zuekin.

25. Esan zuen Moisesek: Ostiak eta holokaustoak ere emango dizkiguzu eskeñi dizazkiogun gure Jaun Jaungoikoari.

26. Abere guztiak joango dirade gurekin, ez da geldituko beretatik beatzalik ere, zeñak premiazkoak dirade gure Jaun Jaungoikoaren adorazioarako; batezere ez dakigun ezkerero zer izan bear duen eskeña, toki bera-tara allegatu gaitezen bitartean.

27. Gogortu zuen bada Jaunak Faraonen biotza, eta etzioten utzi nai joaten.

28. Eta esan zion Faraonek Moisesi: Alde ezak nigandikan, eta gorde adi ikusi ez dezakan berriz nere arpegia; nere aurrean jartzen aizan edozeñere egunean, illko aiz.

29. Erantzun zuen Moisesek: Ala izango da, itz egin dezun bezela, ez det ikusiko berriz zure arpegia.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Oraindikan zaurituko ditut Faraon eta Ejipto gaitz batekin, eta oien ondoan bidalduko zaituzte, eta estutuko zaituzte ateratzeko.

2. Esango diozu bada erri guztiari, eskatu dizaiola gizaseme bakoitzak bere adiskideari, eta emakume bakoitzak auzoko emakumeari, zillarrrezko, eta urrezko gauzak.

3. Eta Jaunak emango dio grazia bere erriari ejiptoarren aurrean. Eta Moises izan zan gizon txit andia Ejiptoko lurrean, Faraonen serbitzarien, eta erri guztiaren aurrean.

4. Eta esan zuen: Oiek esaten ditu Jaunak: Gauaren erdian aterako naiz Ejiptotik ibiltzera.

5. Eta illko da lenbizisortu guztia Ejiptoko lurrean, Faraonen lenbizisortu, bere tronuan eserita dagoanetik, errotarria darabillan neskame mendekoaren lenbizisorturaño, eta abereen lenbizisortu guztiak.

6. Eta izango da Ejiptoko lur guztian deadar andia, nolakoa izan ez dan len, eta gero ere izango ez dan.

7. Israelko seme guztien artean berriz gizona gandik abereetara ez du txistatuko txakur batek bederik, jakin dezazuten nolako mirariarekin berezitzen dituen Jaunak Ejipto eta Israel.

8. Eta zure serbitzari guzti oiek etorriko dirade nigana, eta belauniko erregutuko didate, esaten dutela: Atera zaite zu, eta zure mendean dan erri guztia, oien ondoren aterako gera.



9. Eta atera zan Faraon gandik txit aserretua. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Etzaituzte adituko Faraonek, egin ditezen asko mirari Ejiptoko lurrean.

10. Eta Moisesek eta Aaronek egin zituzten Faraonen aurrean, eskribituak gelditzen diraden mirari guztiak. Eta gogortu zuen Jaunak Faraonen biotza, eta etzioten utzi joaten Israelko semeai bere lurretikan.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Esan ere zioten Jaunak Moisesi eta Aaroni Ejiptoko lurrean:
2. Ill au, zuentzat illen asiera, izango da lendabizikoa urtearen illetan.
3. Itz egin zaiozute Israelko semeen batzarre guztiari, eta esan zaiozute: ill onen amargarren egunean artu beza bakoitzak arkume bat familia bakoitzarentzat eta etxe bakoitzarentzat.
4. Baldin etxeren bateko lagunak ez balirade, arkume bat jateko asko izan lezakean beste, artuko ditu bere etxearen alderengo dagoan auzotik, arkumea jateko bear dan beste lagun.
5. Eta arkumea izango da mantxa gabea, aria, urte barrukoa, zere-
monia onen araura artuko dezute antxumea ere.
6. Eta gordeko dezute ill onen amalau garren eguneraño, eta illik eskeñiko du Israelko semeen talde guztiak arratsaldetik.
7. Eta artuko dute bere odoletikan, eta jarriko dute abe bien gañean, eta jango duten etxeen ataburuetan.
8. Eta gau artan jango dituzte aragi suan erreak, eta ogi legami gabeak baso urrazakin.
9. Ez dezute beretatik jango jauza gordiñik, ez urean egosirik, baizik suan errea bakarrik, jango dezute burua bere oñakin eta esteakin.
10. Ez da geldituko beretatikan ezer biaramonerako, ezer sobratzen baldin bada, sutan erreko dezute.
11. Eta onela jango dezute. Lotuko dituzute zuen gerriak, eta iduki-
ko dituzute zapatak oñetan, eta makillak eskuetan, eta agudo jango dezute, dalako Jaunaren Phasoa (au da iragoera).
12. Eta igaroko naiz Ejiptoko lurretik gau artan, eta eriotzaz zaurituko det lenbisisortu guztia barkatu gabe gizasemeri, ez abereri: eta kasti-
gatuko ditut Ejiptoko jaungoiko guztiak, nik, Jaunak.
13. Eta odola izango da zuentzat señaleara zaudeten etxeetan, eta ikusi-
siko det odola, eta iragoko zaituztet, eta ez da izango zuekgan gaitz onda-
tzallerik zauritzen dedanean Ejiptoko lurra.
14. Eta idukiko dezute egun au gogoangarritzat, eta zelebratuko dio-
zute beti beti Jaunari elizkizunakin jai andia bezela zuen gizaldietan.

15. Zazpi egunean jango dezute legami gabeko ogia; lenengo egune-
tik ez da izango zuen etxeetan legamirik, legamidun ogia jaten duen guz-
tia, lenengo egunetik zazpigarreneraño, anima ura izango da ebakia Israel-
tik.

16. Lenengo eguna izango da santua, eta jai, eta zazpigarren eguna jai eta elizkizun berdiñakin beneragarria; ez dezute egingo beretan lanikan batere, salbu janariari dagoztenak.

17. Eta gordeko dezute legamigabeen jai, zeren egun huratan bera-
tan aterako det zuen erria Ejiptoko lurretik, eta gordeko dezute egun au beti beti zuen gizaldietan elizkizunakin.

18. Lenbiziko illean, illaren amalaugarren egunean, arratsaldetik jango dituzte legamigabeak, il aren beraren ogeita bat garren eguneraño arratsaldetik.

19. Zazpi egunean ez da arkituko zuen etxeetan legamirik, jaten duena legamitua, galdua izango da bere anima Israelko batzarretik, naiz izan arrotza, naiz berez errikoa.

20. Ez dezute jango gauza legamiturik, zuen bizileku guztietan jango dituzte legamigabeak.

21. Eta otsegin zioten Moisesek Israelko semeen zar guztiai, eta esan zioten: Zoazte, artzen dezutela aberea zuen familia bakoitzarentzat, eta egin ezazute Pazkoa.

22. Eta urdingorriaren txortatxo bat busti ezazute atearen azpian dagoan odolean, eta berarekin odoliztatu itzatzute ataburua, eta abe biak, ez bedi atera zuetatik iñor bere etxeko atetik goizeraño.

23. Zeren iragoko da Jauna ejiptotarrak zauritua, eta ikusten duenean odola ataburuan, eta abe bietan, iragoko da etxearen atetik, eta ez dio utziko zauritzalleari zuen etxeetan sartzen, eta kalte egiten.

24. Gorde ezazu aginte au izango dana lege bat bezela zuretzat eta zure semeentzat beti betiko.

25. Eta sartzen zeratenean Jaunak emango dizuten lurrera eskeñi zuen bezela, gordeko dituzte zeremonia oiek.

26. Eta galdetzen dizutenean zuen semeak: Zer esan nai du elizkizun onek?

27. Erantzungo diezute: Jaunaren iragoerako eskeñtzaria da, irago zanean Israelko semeen etxeetatik Ejipton, zauritua ejiptotarrak, eta gure etxeai kalterik egin gabe. Eta makurturik erria, adoratu zuen.

28. Eta aterarik Israelko semeak, egin zuten Jaunak Moisesi eta Aaroni agindu zioten bezela.



29. Eta gertatu zan gauaren erdian, zauritu zituen Jaunak lenbizi sortu guztiak Ejiptoko lurreen, Faraonen lenbizisortu, bere tronuan eserita zegoanetik, presoindegian zegoan andre mendekoaren lenbizisorturaño, eta abereen lenbizisortu guztiak.

30. Eta jaiki zan, Faraon gauaz eta bere serbitzari guztiak, eta Ejipto guztia, eta atera zan garrasi andi bat Ejipton, zeren ez zan etxerik, zeñean ez zegoan illen bat etzanik.

31. Eta otsegiñik Faraonek Moisesi eta Aaroni gauaz, esan zioten: Jaiki eta atera zaitzete nere erritik, zuek eta Israelko semeak, zoazte, egin zaiozute eskeñtzaria Jaunari, esaten dezuten bezela.

32. Artu itzatzute zuen ardiak eta eleak eskatu dezuten bezela, eta zoaztenean bedeinkatu nazazute.

33. Eta ejiptotarrak estututzen zuten erria ateratzeko agudo beren lurretik, esaten zutela: Guztiok il bear degu.

34. Erriak bada artu zuen iriñ orratua, legamia jarri zitzaion baño lenago, eta loturik burusietan, ipiñi zuen bere solbarden gañean.

35. Eta egin zuten Israelko semeak Moisesek agindu zioten bezela, eta eskatu ziezten ejiptotarrak zillarrezko eta urrezko ontziak, eta soñeko txit asko.

36. Eta Jaunak eman zion grazia erriari ejiptotarren aurrean prestatu zitzaiezteen, eta aingabe utzi zituzten ejiptotarrak.

37. Eta joan ziraden Israelko semeak Ramessestik Sokotera, sei eun milla gizon oñezko bezelatsu aurrak kontatu gabe.

38. Baitaere atera zan berekin naasirik erriko jende talde neurri gabe bat, ardiak, eta abere andiak, eta asko motako pisti txit ugaria.

39. Eta egosi zuten arestian Ejiptotik atera zuten iriñ orratua, eta egin zituzten sutauspeko ogi legami gabeak, zeren ezin izan zioten bota legamirik, ejiptotarrak obligatzen zituztelako ateratzera, eta gelditutxo bat ere egin gabe ibiltzera, ez zitzaizuten ere gogoratu janariaren piska bat prestatzea.

40. Eta Israelko semeak Ejipton bizi izan ziran denbora da, lareun eta ogei ta amar urtekoa.

41. Zeñak beterik, egun bat batean atera zan Ejiptoko lurretik Jaunaren ejerzitu guztia.

42. Gau au diña da iragotzeko Jaunaren izenean, zeñean atera zituen Ejiptoko lurretik Israelko semeak, eta zelebratu bear dute emendikan aurrera beti Israelko seme guztiak.

43. Eta esan zioten Jaunak Moisesi eta Aaroni: Au da Pazkoa zelebratzeko modua. Ez du arrotzek jango beretatikan.

44. Eta mendeko erosi guztia izango da zirkunzidatua, eta ala jango du.

45. Arrotzak eta alogerekoa ez dute jango beretatikan.

46. Etxe batean jango da, eta ez dituzute eramango kanpora bere aragiak, ez dezute ere autsiko bere ezurrik.

47. Israelko semeen batzarre guztiak zelebratuko du Pazkoa.

48. Eta baldin arrotzen batek nai balu biurtu zuen federa, eta zelebratu Jaunaren pazkoa, lendikan izango dirade zirkunzidatuak gizaseme guztiak, eta orduan zelebratuko du legearukiro; eta izango da errian jaioa balitza bezela; baña zirkunzidatua ez danak, ez du pazkoa jango.

49. Lege bat gordeko du zuen artean bizi dan erritarrak, eta arrotzak.

50. Eta egin zuten Israelko seme guztiak, Jaunak Moisesi eta Aaroni agindu zioten bezela.

51. Eta egun haratan berean atera zituen Jaunak Ejiptoko lurretik Israelko semeak beren taldeetan.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Eskeñi zadazu bere amaren sabela idikitzen duen lenbizisortu guztia, Israelko semeen artean, bai gizonetatik eta bai abereetatik, zeren guztiak dirade nereak.

3. Eta Moisesek esan zion erriari: Oroitu zaitzete egun onekin, zeñean atera ziñaten Ejiptotik eta katiberioko etxetik, zeren esku sendoa-ekin atera zinduzten Jaunak toki onetatik, ez dezazuten jan legamidun ogia.

4. Gaur ateraten zerate uzta berrien illean.

5. Eta sartzen zaituenean Jaunak kanaantarren, eta hettarren, eta amorreotarren, eta hebeotarren, eta jebustarren lurrera juramentuarekin eskeñi ziotenera zure gurasoi emango zizula zuri, eznea eta eztia darion lurra, zelebratuko dezu zeremonia santu au ill onetan.

6. Zazpi egunean jango dituzu legamigabeak, eta zazpigarren egunean izango da Jaunaren egun andia.

7. Jango dituzute legamigabeak zazpi egunean, ez da agertuko zugar legamidun gauzarik; ez eta zure aldamen guztietan.

8. Eta kontatuko diozu zure semeari egun artan, eta esango diozu: Au da Jaunak egin zidana Ejiptotik atera nintzanean.

9. Eta izango da señalea bezela zure eskuan, eta oroipena bezela zure begien aurrean, eta Jaunaren legea beti izan dedin zure aoan, zeren esku sendoa-ekin atera zinduzten Jaunak Ejiptotik.



10. Gordeko dezu zeremonia au denbora izentatuan egunetatik egunetara.

11. Eta sartzen zaituenean Jaunak kanaantarren lurrean, juramentu egin zuen bezela zuri eta zure gurasoai, eta ematen dizuean:

12. Berezituko diozu Jaunari lenbizisortu guztia, eta zure abereetan lenenjaioa, dezun arki guztia, eskeñiko diozu Jaunari.

13. Astoaren lenbizisortua ganbiatuko dezu ardi batekin; erreskatatzen ez baldin bedezu, illko dezu. Baña zure seme lenbizisortu guztiak erreskatatuko dituzu diruarekin.

14. Eta galdetzen dizuean zure semeak biar, esaten duela: Zer da au? Erantzungo diozu: Esku sendoarekin atera ginduen Jaunak Ejiptoko lurretik, katibutasuneko etxetik.

15. Zeren nola gogortu zan Faraon, eta ez utzi nairik guri joaten, ill zuen Jaunak lenbizisortu guztia Ejiptoko lurrean, gizonaren lenbizisortutik abereen lenbizisorturaño: argatik eskeñtzen diot nik Jaunari lenengo jaiotzen dan ar gauza guztia, eta nere semeen lenbizisortuak erreskatatzen ditut.

16. Izango da bada señaile bat bezela zure eskuan, eta zinzili bat bezela zure begien aurrean, oroipengarriztat; esku sendoarekin atera ginduelako Jaunak Ejiptotik.

17. Utzirik bada irtetzen Faraonek erriari, etzitzen zuzendu Jaungoikoak Filistotarren lur aldean dagoanetik, damutu etzekion beldurrez, baldin ikusten bazuen gerrak jaikitzen ziradela bere kontra, eta itzuli etzedin Ejiptora.

18. Baizikan zuzendu zuen basamortuko bide, itsaso gorriaren aldean dagoanaren txirkuetatikan, eta Israeleko semeak igo ziran Ejiptoko lurretik armakin.

19. Eraman ere zituen Moisesek berekin Joserren ezurrak; zeñak juramentuarekin eskeñi erazi zioten Israelko semeai, esaten ziotela: Jaungoikoak bisitatuko zaituzte, eraman itzatzu emendikan nere ezurrak zuekin.

20. Eta berak joanik Sokotikan jarri zituzten etzauntzak Ethamen basomortuaren atzenegu mugetan.

21. Eta Jauna zijoan beren aurretikan erakusteko bidea, egunaz odeizko abe batean, eta gauaz suzko abe batean, izateko bideko zuzentzalea denbora bietan.

22. Etzan iñoiz faltatu odeizko abea egunaz, ez eta suzko abea gauaz, erriaren aurrean.

AMALUGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Esan zaiezu Israelko semeai: itzuli ditezela, eta jarri ditzatela etzauntzak Fihahiroten aurrean, zeñ dagoan Magdaloren eta itsasoaren bitartean, Beelsefonen aurrean, bere aurrean jarriko dituzute etzauntzak itsasoaren aldean.

3. Eta esango du Faraonek Israelko semeak gatik: Estutuak daude lurtartean, eta basomortuak ingurutu ditu.

4. Eta gogortuko det bere biotza, eta persegituko zaituzte, eta izango naiz gloriar bete Faraongan, eta bere ejerzitu guztiagan. Eta jakingo dute ejiptoarrak ni naizala Jauna. Eta ala egin zuten.

5. Eta adirazi zioten ejiptoarren erregeari iges zuela erriak, eta aldatu zan Faraonen, eta bere serbitzarien biotza erriagatik, eta esan zuten: Zer egitea nai izan degu Israeli joaten utzitearekin, serbitu ez gengizkan?

6. Uztartu zituen bada zaldia, itsatsi kotxeari, eta artu zuen berekin bere erri guztia.

7. Eta eraman zituen sei eun kotxe autatu, eta Ejipton arkitu ziraden kotxe guztiak: eta ejerzitu guztiko agintariak.

8. Eta gogortu zuen Jaunak Faraon Ejiptoko erregearen biotza, eta persegitu zituen Israelko semeak, baña berak atera ziran esku indartsu baten laguntasunarekin.

9. Eta jarraiturik ejiptoarrak aurretik zijozenen aztarnak, arkitu zituzten etzauntzetan itsasoaren aldean, Faraonen zaldizko guztiak, eta kotxeak, eta ejerzitu guztia zeuden Fihahirothen Beelsefonen aurrean.

10. Eta alderatu zanean Faraon, Israelko semeak altxaturik begiak, ikusi zituzten ejiptoarrak beren ondoren, eta txit beldurtu ziraden, eta deadarrez asi ziran Jaunari erregututzen,

11. Eta esan zioten Moisesi: Noski etzan Ejipton obirik, argatik ekarri gaituzu ill gindezen basamortuan: Zer egin nai zenduen Ejiptotik gu ateratzearekin?

12. Ez al giñizun esaten oraindikan Ejipton geundela: Alde ezazu gu gandik, serbitu ditzagun ejiptoarrak? Zeren askoz obeago zan berak serbitzea, basamortuan iltzea baño.

13. Eta esan zion Moisesek erriari: Etzaitetze beldur izan, zaudete sendo, eta ikusiko dituzute Jaunak gaur egingo dituen mirariak; zeren ikusten dituzuten ejiptoarrak, iñolaere berriz ez dituzute ikusiko sekula geiago.

14. Jaunak gudaduko du zuek gatik, eta zuek issilik egongo zerate.



15. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Zergatik deadar egiten didazu? Esan zaiezu Israelko semeai dijoazela.

16. Eta zuk altxatu ezazu zure zigorra, eta luzatu ezazu zure eskua itsasoaren gañera, eta berezitu ezazu, joan ditezen Israelko semeak itsasoaren erditik leorreen.

17. Eta nik gogortuko det ejiptoarren biotza, persegitu zaitzateen, eta izango naiz gloriatz betea Faraongan, eta bere ejerzitu guztiagan, eta beraren kotxeetan, eta zaldidien.

18. Eta jakingo dute ejiptoarrak ni naizala Jauna, gloriatz betea naizanean Faraongan, eta bere kotxeetan eta zaldidien.

19. Eta jaikirik Israelko ejerzituaren aurretik zijoan Jaungoikoaren aingerua, jarri zan beren atzean, eta orobat berarekin odeizko abea, utzirik aurrea,

20. Jarri zan atzealdetik ejiptoarren ejerzituaren, eta Israelko ejerzituaren bitartean; eta zan odeia illuna, eta argitzen zuen gaua alako moduan, non ezin zitezkean elkargana alderatu.

21. Eta luzaturik Moisesek eskua itsasoaren gañera, idiki zuen Jaunak erditikan, eta nola zerabillan gau guztian aize sendo eta erretzalle bat, leortu zuen, eta urak gelditu ziran berezituak.

22. Eta sartu ziraden Israelko semeak itsaso leorraren erditikan, zeren ura zegoan murrua bezela beren eskuetik eta ezkerretik.

23. Eta persegitzen ziezuela ejiptoarrak sartu ziraden beren ondoren, eta Faraonen zaldidi guztia, bere kotxeak eta zaldizkoak, itsasoaren erditik.

24. Eta allegatua zan onezkero goizeko beilla, eta ona non begiraturik Jaunak ejiptoarren ejerzituaren gañera suzko eta odeizko abetikan, il zuen beren ejerzitua:

25. Eta autsi zituen gurdien kurpillak eta eramanak ziraden itsasoaren ondora. Esan zuten bada ejiptoarrak: iges dezagun Israelgandik, zeren Jauna ari da gudan beren alde eta gure kontra.

26. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Luzatu ezazu zure eskua itsasoaren gañera, itzuli ditezen urak ejiptoarrak gana beren gurdien eta zaldien gañera.

27. Eta luzaturik Moisesek eskua itsasorontz, itzuli zan egunsentian leengo tokira, eta urak bidera atera zitzaiezten igesi zijoazen ejiptoarri, eta Jaunak ondatu zituen baguen erdian.

28. Eta itzuli ziraden urak, eta estali zituzten Israeltarren ondoren itsasora sartu ziran Faraonen ejerzituko gurdi eta zaldi guztiak, eta bere-tatik bat bakarra ere etzan gelditu.

29. Israelko semeak ordea irago ziraden itsaso leorraren erditikan, eta urak ziraden berentzat murrak bezela eskuetatik, eta ezkerretatik:

30. Eta Jaunak libratu zuen egun artan Israel ejiptoarren eskutikan.

31. Eta ikusi zituzten ejiptoarrak illik itsasoaren bazterraren gañean, eta Jaunak berakin egin zuen kastigu andia, eta erria Jaunaren beldur izan zan, eta sinistu zioten Jaunari, eta bere serbitzari Moisesi.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Orduan Moisesek eta Israelko semeak kantatu zioten kanta au Jaunari, eta esan zuten: Kantatu dizaiogun Jaunari, zeren argitu erazi dio bere gloria eta anditasunari, eta aurtiki ditu itsasora zaldia eta zalduna.

2. Jauna da nere sendotasuna, eta nere alabantzen gaia, zeren bera izan da nere salbagillea; au da nere Jaungoikoa, eta nik zabalduko det bere gloria, nere gurasoen Jaungoikoa, eta goitiltzatuko det.

3. Jauna da gizon gudari errutsu bat bezelakoa, bere izena guzialduna.

4. Aurtiki zituen itsasora Faraonen gurdiak; eta bere ejerzitua; bere kapitan autatuak izan ziraden ondatuak itsaso gorrian.

5. Ossiñak estali zituzten, jatxi ziran ondora arria bezela.

6. Zure eskuia, o Jauna, erakutsi du bere sendotasun andia: zure eskuia, o Jauna, zauritu zuen etsaia.

7. Eta zure gloriaren ugaritasunarekin botatu dituzu zure etsaiak; bidaldu zenduen zure aserrea, zeñak iretsi zituen lasto bat bezela.

8. Eta zure aserreko aizearekin montoitu ziraden urak; gelditu zan bazijoan бага, montoitu ziraden ossiñetako urak itsasoaren erdian.

9. Esan zuen etsaiak: Jarraituko diet, eta arrapatuko ditut, emango dieztet gauza arrapatuak, asetuko da nere anima, biluztuko det nere ezpata, ilko ditu nere eskuak.

10. Atera zuen zure aizea, eta estali zituen itsasoak; ondatu ziran beruna bezela ur txit andietan.

11. Zeñ zure antzekoa sendoen artean, Jauna? Zeñ zure antzekoa, ain andia santutasunean, ikaragarria, eta alabagarria, eta mirarien egillea?

12. Luzatu zenduen zure eskua, eta iretsi zituen lurrak.

13. Zure urrikaritasunean izan ziñan, erosi zenduan erriaren zuzentzalea, eta eraman zenduen zure sendotasunarekin, bere bizileku santura.

14. Jaiki ziran erriak, eta aserratu ziran; gelditu ziran miñ andiak in Palestinan bizi ziranak.

15. Orduan izutu ziran Edomgo prinzipiak, eta ikara jaubetu zan Moabko errutsuakin; illotzik gelditu ziran Kanaan bizi ziran guztiak.



16. Erori bedi beren gañera beldurra eta izua, zure besoaren andita-sunagatik; gelditu bitez mugitu eziñak arri bat bezela, iragotzen dan artean, o Jauna, zure erria; iragotzen dan artean, zuk irabazi dezun zure erri au.

17. Eramango dituzu barrena, eta jarriko dituzu zure primezako mendian zure bizileku txit sendo, zuk egin zenduenean, Jauna: zure eskuak sendatu zuten santulekuan, Jauna.

18. Jaunak erregiñatuko du beti eta geiago.

19. Zeren Faraon sartu zan zaldiz itsasoan bere gurdiakin eta zaldiz-koakin, eta Jaunak botatu zituen beren gañera itsasoko urak; Israelko semeak berriz ibilli ziraden leorretik beraren erdian.

20. Artu zuen bada Maria emakume profeta, Aaronen arrebak, zaldabaia bat bere eskuan, eta atera ziraden emakume guztiak bere ondoren zaldabaiakin eta dantzakin,

21. Zeñai asten zitzaieten kantatzen, esaten zuela: Kantatu dizaiogun Jaunari, zeren argitu erazi dio bere gloria eta anditasuna, eta aurtiki ditu itsasora zaldia eta zalduna.

22. Eta eraman zuen Moisesek Israel itsaso gorritik, eta atera ziraden Surko eremura, eta ibilli ziraden iru egunean eremutikan, eta etzuten arkitzen urik.

23. Eta etorri ziraden Marara, eta ezin zituzten edan Marako urak ziradelako samiñak; argatik jarri ere zion tokiari izen egokia, deitzen ziola Mara, au da, samintasuna.

24. Eta gaizki esaka ari zan erria Moisesen kontra, esaten zuela: Zer edango degu?

25. Baña berak deadar egin zion Jaunari, zeñak erakutsi zion zur bat: zeñ botarik uretara, gozotu ziran. An eman ziozkan Jaunak erriari aginteak, eta legeak, eta an probatu zuen,

26. Esaten zuela: adituko baldin bazendu zure Jaun Jaungoikoaren boza, eta egingo baldin bazendu bere aurrean ona dana, eta obedituko baldin baziñiozke bere aginteai, eta gordeko bazinduzke bere aginte guztiak, ez det botatuko zure gañera Ejiptoren gañera botatu nituen gaitzik batere, zeren ni naiz zure sendatzalle Jauna.

27. Eta etorri ziraden Elimera Israelko semeak, non zeuden amabi iturri urezko, eta irurogeita amar palma, eta jarri zituzten etzauntzak uren aldean.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta joan ziraden Elimdik, eta Israelko semeen talde guztia etorri zan Singo eremura, zeñ dagoan Elim eta Sinairen bitartean; bigarren illaren amabosgarren egunean, atera ziraden ezkeroko Ejiptoko lurretik.

2. Eta gaizki esan zuen Israelko semeen batzarre guztiak Moises eta Aaron gatik eremuan.

3. Eta esan zioten Israelko semeak: Arren bada il izan bagiña Jaunaren eskuz Ejiptoko lurrean, esertzen giñanean aragien eltzen gañean, eta jaten genduenean ogia ase arteraño! Zergatik atera ginduzuten baso mortu onetara, il zenezaten talde guztia gosearekin?

4. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Ona non nik bidalduko dizkizuten ogiak zerutik; atera bedi erria eta bildu beza asko dana egun bakoitzera; tentatu dezadan ote dabillan nere legean, ala ez.

5. Baña seigarren egunean prestatu bitzate gordeko dutena, eta izan bedi egunoro bildu oi zutena baño birretan geiago.

6. Eta esan zioten Israelko seme guztiak Moisesek eta Aaronen: Gaurko arratsaldean jakingo dezute Jaunak atera zinduztela Ejiptoko lurretik:

7. Eta biar ikusiko dezute Jaunaren eskua, zeren aditu du beragatik kejatzen zeratela; gu berriz zer gera, gure kontra eraunsian aritzeko?

8. Eta esan zuen Moisesek: Jaunak emango dizkizute arratsaldean aragiak jateko, eta goizean ogia ase arteraño; aditu dituelako zuen gaizki esateak, zeñakin gaizki esan dezuten bere kontra, zeren, zer gera gu? Ez da ere gure kontra zuen gaizki esatea, baizik Jaunaren kontra.

9. Esan ere zion Moisesek Aaroni: Esan zaiozu Israelko semeen batzarre guztiari: Atozte Jaunaren aurrera, zeren aditu du zuen gaizki esatea.

10. Eta itz egiten zionean Aaronen Israelko semeen batzarre guztiari, begiratu zuten eremura, eta ona, non Jaunaren anditasuna agertu zan odeiaren erdian.

11. Eta Jaunak itz egin zion Moisesi, esaten zuela:

12. Aditu ditut Israelko semeen gaizki esanak, esan zaiezu: Arratsaldean jango dituzute aragiak, eta goizetik aseko zerate ogiz, eta jakingo dezute ni naizala zuen Jaun Jaungoikoa.

13. Allegatu zan bada arratsaldea, eta igorik galeperrak, estali zituzten etzauntzak: goizetik ere zegoan zabaldurik lurrean intz bat kanpoen inguruan.

14. Eta estalirik lurraren gaña, agertu zan eremuan gauza txee bat, eta motrairuan matxakatua bezela, inziarraren irudian lurraren gañean.



15. Zeñ ikusi zutenean Israelko semeak, esan zioten elkarri: Manhu? Zeñak esan nai duen: Zer da au? Zeren etzekiten zer zan. Zeñai esan zioten Moisesek: Au da Jaunak eman dizuten ogia jateko.

16. Ona Jaunak berak agindu duena: Bildu beza bakoitzak beretatik jateko aski duena; lakari bat buru bakoitzarentzat, etzauntzean bizi diraden zuen animen kopuruaren araura, ala artuko dezute.

17. Eta ala egin zuten Israelko semeak, eta bildu zuten, batak geiago, besteak gutxiago.

18. Neurtu zuten gero lakariarekin, geiago bildu zuenak, etzuen argatik geiago iduki; eta gutxiago prestatu zuenak ere, etzuen arkitu gutxiago, baizik bakoitzak bildu zuen jan al zezakeanaren araura.

19. Eta esan zioten Moisesek: Ez beza iñork beretatik utzi biarko.

20. Zeñak etzuten aditu, baizikan beretatik batzuek gorde zuten biaramonerako, eta asi zan arrez betetzen, eta usteldu zan, eta aserretu zan Moises beren kontra.

21. Biltzen zuen bada bakoitzak goizean, jateko aski izan zezakean beste, eta eguzkia berotzen asten zanean, urtutzen zan.

22. Eta seigarren egunean bildu zuten birretan ainbat janari, au da, bi lakari gizon bakoitzarentzat, eta etorri ziraden erriko buru guztiak, eta kontatu zioten Moisesi.

23. Zeñak esan zioten: Au da Jaunak esan duena: Biar da larunbateko egunaren atsedena, Jaunari santutua; egingo dan lan guztia, egin eza-zute, eta egosiko diraden gauza guztiak, egosi itzatzute, eta sobratzen dan guztia, gorde ezazute biar arte.

24. Eta egin zuten Moisesek agindu zioten bezela, eta etzan usteldu, eta arrik ere etzan beretan arkitu.

25. Eta esan zuen Moisesek: Jan ezazute au gaur, zeren Jaunaren larunbata da; ez da arkituko gaur kanpoan.

26. Sei egunean bildu ezazute, zazpigarren egunean ordea Jaunaren larunbata da, argatik ez da arkituko.

27. Eta etorri zan zazpigarren eguna, eta aterarik errikoak biltzera, etzuten arkitu.

28. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Noizarteraño ez dituzute gorde nai nere aginteak, eta nere legea?

29. Begira ezazute Jaunak eman zizutela larunbata, eta argatik seigarren egunean eman zizuten birretan ainbat janari; bego bakoitza bere etzauntzean, ez bedi iñor atera bere tokitikan zazpigarren egunean.

30. Eta atsedean zuen erriak zazpigarren egunean.

31. Eta Israelko etxeak deitu zuen bere izena Man: zeñ zuria martorriaren azia bezela, eta bere gustua iriñ lorarena eztiarekin bezela.

32. Eta esan zuen Moisesek: Au da Jaunak agindu zuen itza: Bete ezazu beretatik lakari bat, eta gorde beti, gero izango diraden gizaldietarako, jakin dezaten zerekin bazkatu zinduztedan eremuan, ateratuak izan zinañatenean Ejiptoko lurretikan.

33. Eta esan zion Moisesek Aaroni: Ar zazu ontzi bat, eta jarri ezazu an, lakari batek kabitu al dezakean mana, eta ipiñi ezazu Jaunaren aurrean, gordetzeko zuen gizaldietarako,

34. Jaunak agindu zion bezela Moisesi. Eta jarri zuen Aaronek utxaren tokian gordetzeko.

35. Eta Israelko semeak jan zuten mana berrogei urtean, etorri ziraden artean lur bizigarrira; janari onekin bazkatuak izan ziraden, ukitu zioten bitartean Kanaango luraren alderriai

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Joanik bada Israelko semeen talde guztia Singo basomortutik, beren egotaldiakin, Jaunak esan zioten bezela, jarri zituzten etzauntzak Rafidinen, non etzuen erriak urik edateko.

2. Zeñek asirik deadarrez Moisesen kontra, esan zuen: Eman zagu-zu ura, edan dezagun. Zeñai erantzun zioten Moisesek: Zergatik gaizki esaten dezute nere kontra? Zergatik tentatzen dezute Jauna?

3. Egarritu zan bada erria uraren urritasuna gatik, eta gaizki esan zuen Moises gatik, ziola: Zergatik atera erazi diguzu Ejiptotikan iltzeko gu, eta gure semeak, eta abereak egarriarekin?

4. Eta deadarrez zuzendu zan Moises Jauna gana, esaten zuela: Zer egingo diot erri oni? Denbora gutxi barru, arrika ere egingo didate.

5. Eta Jaunak esan zion Moisesi: Jarri zaitte erriaren aurrean, eta artu itzatzu zurekin Israelko zarretatik batzuek, eta eraman ezazu zure eskuan zigorra, zeñarekin zauritu zenduen ibaia, eta zoaz.

6. Ona non ni egongo naizen an zure aurrean, Horebko arriaren gañean, eta joko dezu arria, eta bertatikan aterako da ura, edan dezan erriak. Ala egin zuen Moisesek Israelko zarren aurrean;

7. Eta toki ari deitu zion, Tentazioa, Israelko semeen erausia gatik, eta Jauna tentatu zutelako, esaten zutela: Jauna gure artean bai al dago, ala ez?

8. Eta etorri zan Amalek, eta gudatzen zuen Israelen kontra Rafidimen.



9. Eta esan zion Moisesek Josueri: Autatu itzatzu gizonak, eta aterarik gudatu ezazu Amaleken kontra, biar ni egongo naiz muñoaren tontorean, nere eskuan Jungoikoaren zigorra dedala.

10. Egin zuen Josuek Moisesek esan zion bezela, eta gudatu zuen Amaleken kontra, eta Moises, eta Aaron, eta Hur igo ziran muñoaren ton-torraren gañera.

11. Eta jasotzen zituenean Moisesek eskuak, garaitzen zuen Israelek, baña beeratzen zituenean piska bat, garaitzen zuen Amalekek.

12. Eta Moisesek zituen eskuak nekatuak, artzen zutela bada arri bat, jarri zuten bere azpian zeñean eseri zan, eta Aaronnek eta Hurrek sostenitzen zituzten bere eskuak aldamen bietatik. Eta gertatu zan bere eskuak ez nekatzea eguzkia sartu artean.

13. Eta Josuek iges eragin zion Amaleki, eta bere erriari ezpataren aoz.

14. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Eskribitu ezazu au oroipengarritzat liburu batean, eta jarri ezazu Josueren belarrietan, zeren arras kenduko det bere oroizkiña zeruaren azpitik.

15. Eta egin zuen Moisesek aldare bat, eta deitu zion, Jauna nere gloriamallea, esaten zuela:

16. Zeren Jaunaren jargoia eskua, eta Jaunaren gerra izango da Amaleken kontra, gizaldirik gizaldira.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta aditu zituenean Jetrok, Madiango apaizak, Moisesen aideak Jaungoikoak Moisesi, eta Israelko bere erriari egin ziozkan gauza guztiak, eta Jaunak atera zuela Israel Ejiptotikan:

2. Artu zuen Sefora Moisesen emaztea, zeñ bialdu zion,

3. Eta bere bi semeak, zeñetatikan bati zeritzan Jersam, esaten zuela aitak: Arrotza izandu nintzan besteren errian.

4. Besteari berriz Eliezer; zeren, esan zuen, nere aitaren Jaungoikoa izan zan nere laguntzallea, eta libratu ninduen Faraonen ezpatatik.

5. Etorri zan bada Jetro Moisesen aidea, eta bere semeak, eta bere emaztea, Moises gana eremura, non zegoan jarririk etzauntzak Jaungoikoaren mendiaren aldean.

6. Eta bidaldu zion mandatua Moisesi, esaten zuela: Ni Jetro zure aidea nator zugana, eta zure emaztea, eta zure bi semeak berarekin.

7. Zeñ aterarik bidera bere aideari, makurtu zitzaion, eta musu eman zion, eta agurrak egin ziozkaten elkarri itz paketsuakin. Eta sarturik etzauntzera,

8. Kontatu ziozkan Moisesek bere aideari Jaunak Faraoni, eta ejiptoarrai egin ziozkaten gauza guztiak Israelen amorioa gatik, eta bidean irago bear izan zituzten neke guztiak, eta Jaunak libratu zituela.

9. Eta poztu zan Jetro Jaunak Israeli egin ziozkan mesede guztiak gatik, atera zuelako ejiptoarren eskutikan,

10. Eta esan zuen: Bedeinkatua Jauna libratu zinduztena ejiptoarren eskutik, eta Faraonen eskutik, zeñiak atera zuen Faraonen eskutik bere erria.

11. Orain ezagutzen det, andia dala Jauna jaungoiko guztien gañetik; arrokeriarekin jaiki diradelako beren kontra.

12. Eskeñi ziozkan bada Jetro Moisesen aideak Jaungoikoari emaitzak eta opariak, eta etorri ziraden Aaron eta Israelko zar guztiak ogia jatera berarekin Jaungoikoaren aurrean.

13. Eta beste egunean eseri zan Moises erria juzgatzeko, zeñ zegoan Moisesen inguruan goizetik arratsalderaño.

14. Aditu zuenean au bere aideak, au da, errian egiten zituen gauza guztiak, esan zuen: Zer da errian egiten dezuna? Zertarako zaude eserita bakarrik, eta erri guztia dago zai goizetik arratsalderaño?

15. Zeñi erantzun zion Moisesek: Erria nigana dator Jaungoikoaren erabakia billatzera.

16. Eta ezpaitaren bat gertatzen zaiotenean, badatoz nigana juzgatu dezadan beren artean, erakutsi dizaieztedan Jaungoikoaren aginteak, eta bere legeak.

17. Eta berak: Ez da ona, esan zuen, egiten dezun gauza:

18. Alferrikako lanarekin nekatzen zera bai zu, eta bai zurekin dagoan erria; zure indarrez gañetikoa da naia, bakarrik ezin beteko dezu.

19. Baizik aditu itzatzu nere itzak eta esan onak, eta Jaungoikoa zurekin izango da. Izan zaite zu erriaren bitartekoa Jaungoikoari dagozkion gauzetan presentatzen diozkazula egiten zaiozkan erreguak.

20. Eta erakutsi dizaiozkazun erriari zeremoniak, eta nola egin elizkizunak, zeñ bideri jarraitu bear dioten, eta zer dan egin bear dutena.

21. Gañerakoetarako autatu itzatzu erri guztitik gizon sendo, eta Jaungoikoaren bildurrekoak, egia zaleak, zekentasunaren gorrotokoak, eta beretatik jarri itzatzu errizaitzalleak eta eun gizonen, eta berrogei ta amarren, eta amarren kontua dutenak,

22. Zeñak juzgatu dezaten erria denbora guztian, gauza astunagoa dan guztia berriz, ekarri dezatela zugana, eta berak juzgatu ditzatela bakarrik balio gutxiko gauzak, eta eramangarriago izan dedin zuretzat, besteen artean partiturik zama.



23. Au egiten baldin badezu, beteko dezu Jaunaren agindua, eta iduki al izango dituzu oñean bere aginteak, eta erri guzti au itzuliko da bere tokietara pakean:

24. Zeñak aditurik, Moisesek egin zituen ark adirazi ziozkan gauza guztiak.

25. Eta autaturik gizon errutsuak Israel guztitik, jarri zituen erriaren burutzat errizaitzalleak, eta eun gizonen, eta berrogeita amarren, eta amarren kontua zeukatenak.

26. Zeñak juzgatzen zuten erria denbora guztian, eta astunagoa zan guztia, eramaten zioten Moisesi, juzgaturik berak gauza errazagoak bakarrik.

27. Eta bidaldu zuen bere aidea, zeñ aterarik joan zan bere errira.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Ejiptoko lurretikan Israelen ateraeraren irugarren illean, egun onetan etorri ziraden Sinaiko basomortura.

2. Zeren joanik Rafidimdik, eta allegaturik Sinaiko basomorturaño, jarri zituzten etzauntzak toki bertan, eta Israelek an ipiñi zituen dendak mendiaren aurrean.

3. Eta Moises igo zan Jaungoikoa gana, eta Jaunak otsegin zion menditikan, eta esan zuen: Oiek esango diozkazu Jakoben etxeari, eta adirazi diozkazu Israelko semeai:

4. Zuek zerok ikusi zenduten zer egin nien ejiptoarrai, nola eraman zinduztedan agilen egoen gañean, eta artu neretzat.

5. Baldin bada aditzen badezute nere boza, eta gordetzen badezute nere elkartasuna, izango zerate neretzat erri guztien artean zati autatu bat, zeren nerea da lur guztia.

6. Eta zuek izango zerate neretzat apaizen erreinu bat, eta jende santua. Oiek dirade Israelko semeai esango dieztezun itzak.

7. Etorri zan Moises, eta bildurik erriko zar guztiak, adirazi ziozkan Jaunak agindu ziozkan itz guztiak.

8. Eta erantzun zuen erri guztiak batera: Egingo ditugu Jaunak esan dituen gauza guztiak. Eta adirazirik Moisesek Jaunari erriaren itzak,

9. Esan zion Jaunak: Oraintxe etorriko naiz zugana odei illun batean, aditu nazan erriak zurekin izketan ari naizala, eta sinistu dezazula betiko. Moisesek bada adirazi ziozkan Jaunari erriaren itzak.

10. Zeñak esan zion: Zoaz erriagana, eta santutu itzatzu gaur, eta biar, eta garbitu bitzate beren soñekoak.

11. Eta beude gertutuak irugarren egunerako, zeren irugarren egunean jatxiko da Jauna erri guztiaren aurrean Sinaiko mendiaren gañera.

12. Eta izentatuko diozkazu mugak erriari inguruan, eta esango dieztezu: Begira ezazute, etzaitzela igo mendira, eta ez ditzazutela ukitu beraren mugai; mendiari ukitzen dion guztia, illko da ziertoro.

13. Eskuak ez dio ukituko, baizikan izango da arrika, edo saetakin illa, naiz dala aberea, naiz gizona, ez da biziko. Asten danean txaranbela jotzen, orduan igo bitez mendira.

14. Jatxi zan Moises menditikan errira, eta santutu zuen erria. Eta garbitu zituztenean beren soñekoak,

15. Esan zioten: Zaudete jertuak irugarren egunerako, eta etzaitzete allegatu zuen emazteetara.

16. Eta allegatua zan onezkero irugarren eguna, eta goiza arkitua, eta ona non asi ziraden adituak izaten turmoiak, argitzen txismistak, eta odei txit trinko batek estali zuen mendia, eta txaranbelaren soñuak ots egiten zuen gogortasun andiagorekin, eta etzauntzetan zegoan erria beldurtu zan.

17. Eta aterarik berak Moisesek etzauntzen tokitik Jaungoikoari biderra irtetzeko, gelditu ziraden mendiaren ondoan.

18. Eta Sinaiko mendi guztia ketan zegoan, Jauna jatxi zalako bere gañera suan, eta igotzen zalako beratatik kea labe batetikan bezela, eta mendi guztia zegoan ikaragarria.

19. Eta txaranbelaren otsa geldika geldika azitzen zan andiagora, eta urrutiagora zabaltzen zan, Moisesek itz egiten zuen, eta Jaungoikoak erantzuten zion.

20. Eta jatxi zan Jauna Sinaiko mendiaren gañera mendiaren gañ gañean, eta ots egin zion Moisesi bere tontorrera. Igorik ara,

21. Esan zion: Jatxi zaite, eta kontuan ipiñi ezazu erria, ez ditzala irago mugak Jauna ikusteko, eta beretatik talde andiren bat galdu ez dedin.

22. Santutu bitez, Jauna gana alderatzen diraden apaizak ere, zauritu ez ditzan.

23. Eta esan zion Moisesek Jaunari: Ezin igoko da erria Sinaiko mendira, zeren zuk adirazi, ta agindu dezu, esaten dezula: izentatu itzatzu mugak mendiaren inguruan, eta santutu ezazu.

24. Zeñi esan zion Jaunak: Zoaz, jatxi zaite, eta igoko zera zu, eta Aaron zurekin. Baña apaizak eta erriak ez bitzate irago mugak, ez eta ere igo Jaunagana, ill ez ditzan.

25. Eta jatxi zan Moises erriagana, eta kontatu zieten guztia.



OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zituen Jaunak itz guzti oiek:
2. Ni naiz zure Jaun Jaungoiko, atera zindudana Ejiptoko lurretikan, katiberioko etxetikan.
3. Ez dituzu idukiko besteren Jaungoikoak nere aurrean.
4. Ez dezu egingo zuretzat arrizko, ez zurezko Jaungoiko irudirik, ez goian zeruan dagoanaren, ez bean lurrean dagoanaren, ez lurraren azpian uretan daudenen irudirik.
5. Ez dituzu adoratu, ez elizkizunik egingo; ni naiz zure Jaun Jaungoiko sendoa, zelotsua, kastigatzen dedana gurasoen gaiztakeria semeetan, gorroto didatenen irugarren eta laugarren gizaldian:
6. Eta egiten dedana urrikalmendua millatan maitatzen nautenakin, eta nere aginteak gordetzen dituztenakin.
7. Ez dezu artuko alperrikan zure Jaun Jaungoikoaren izena, zeren ez du kastigu gabe utziko Jaunak, bere Jaun Jaungoikoaren izena alperrikan artzen duena.
8. Oroitu zaite santututzearekin larunbateko eguna.
9. Sei egunean ariko zera lanean, eta egingo dituzu zure bear guztiak.
10. Zazpigarren egunean ordea zure Jaun Jaungoikoaren larunbata da; ez dezute egingo lanik bertan, zuk, eta zure semeak, eta zure alabak, zure morroiak, eta zure neskameak, zure abereak, eta zure ateen barrenen dagoen arrotzak.
11. Zeren sei egunean egin zituen Jaunak zerua, eta lurra, eta itsasoa, eta beretan dauden gauza guztiak, eta atsedean zuen zazpigarren egunean; argatik bedeinkatu zuen Jaunak larunbateko eguna, eta santutu zuen.
12. Honratu itzatzu zure aita eta zure ama, urte askoan bizi zaitezen, zure Jaun Jaungoikoak emango dizun lurraren gañean.
13. Ez dezu illko.
14. Ez dezu aragizko pekatuak egingo.
15. Ez dezu lapurretariak egingo.
16. Ez dezu esango zure lagun urkoaren kontra gezurrezko asmaziorik.
17. Ez dezu gutziziatuko zure lagun urkoaren etxea, ez dezu ere opatuko bere emaztea, ez morroia, ez neskamea, ez idia, ez astoa, ez berea dan gauzarikan.
18. Eta erri guztiak aditzen zituen bozak, eta argitasunak, eta txarabelaren otsa, eta mendia keetan: eta beldurturik eta ikaturik, egon zira den urrutian.

19. Esaten ziotela Moisesi: itz egin zaguzu zuk, eta adituko dizugu, ez digula itz egin Jaunak, il ez gaitetzen.

20. Eta esan zion Moisesek erriari: Etzaitzete beldurtu, zeren Jaungoikoa etorri da zuek probatzera, eta izan dedin zuekgan bere beldurra, eta ez dezazuten bekaturik egin.

21. Eta egon zan erria urrutian. Moises berriz alderatu zan, Jaungoikoa zegoan illuntasunera.

22. Gañera esan zion Jaunak Moisesi: Oiek esango diozkazu Israelo semeai: Zuek ikusi dezute zerutikan itz egin dizutedala.

23. Ez dezute egingo zillarrezko jaungoikorik, ez dezute ere egingo zuentzat urrezko jaungoikorik.

24. Egingo didazute lurrezko aldarea, eta eskeñiko dituzte bere gañean emaitza eta hostia paketsuak, zuen ardiak, eta idiak, nere izenaren oroitza dan toki guztian; etorriko naiz zugana, eta bedeinkatuko zaitut.

25. Eta egiten baldin badidazu arrizko aldarea, ez didazu egingo arri landuakin: zeren altxatzen baldin badezu arzirik bere gañean, loitua izango da.

26. Etzera igoko nere aldarera malletatikan, agertu ez dedin zure billostasuna.

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Oiek dirade ipiñiko diozkazun juezlegeak.
2. Erosiko baldin bazendu hebreotar gizaseme mendekoren bat, sei urtean serbituko zaitu, zazpi garrenean aterako da askatua doan.
3. Nolako soñekoarekin sartu zan, alakoarekin atera bedi, baldin sartu bazan emaztea zuela, emaztea ere aterako da batean.
4. Baña baldin bere nagusiak emango balio emaztea, eta egingo baliu semeak eta alabak, andrea eta bere semeak izango dirade bere nagusiarenak, bera berriz aterako da bere soñekoarekin.
5. Eta esango balu gizaseme mendekoak: maitatzen ditut nere nagusia, eta emaztea, eta semeak, ez naiz aterako askatuta:
6. Nagusiak eramango du jaungoikoak gana, eta jarriko du atearen eta abeen kontra, eta zulatuko du bere belarria eztenarekin, eta izango da mendekoa nagusiarentzat gizaldi baterako.
7. Iñork salduko baldin balu bere alaba mendekotzat, ez da aterako beste neskata menpekoak atera oi diran bezela.
8. Ez baldin baderitza ongi emana izan zaion nagusiari bere begietan, utziko dio joaten, baña ez du eskubiderik izango saltzeko erri arrotzi, mezipreziatuko baldin balu.



9. Baña baldin bere semearekin ezkontzitzatuko baldin balu, alaben oituraren araura egingo dio.
10. Baña ezkontziko baldin balu bere semea beste batekin, emango dio neskatxari senarra, eta soñekoak, eta ez dio ukatuko onestaren balioa.
11. Iru gauza oiek egingo ez baldin balitu, aterako da doan dirurikan gabe.
12. Zauritzen duenak gizona iltzeko gogoarekin illa izan bedi.
13. Baña zelatak jarri ez diozkana, baizik Jaungoikoak bere eskuetan paratu duena, izentatuko dizut tokia, zeñara iges egin bearko duen.
14. Baldin inork illko balu bere lagun urkoa berariatz eta zelatakin, aterako dezu nere aldaretik, illa izan dedin.
15. Zauritzen duena bere aita edo ama, illa izan bedi.
16. Gizonen bat ostu, eta saltzen duena, egiazturik gaiztakeria, illa izan bedi.
17. Madarikatzen duena bere aita, edo ama, illa izan bedi.
18. Aserratzten baldin badira bi gizon, eta batak zauritzen badu lagun urkoa arriarekin edo ukabillarekin, eta au illtzen ez baldin bada, baizik egongo balitza oian etzanik:
19. Jaikiko baldin balitz, eta ibilli kanpoan bere makillaren gañean, ez da kastigatua izango zauritu duena, ematen baldin baditu bere alogerak, eta pagatu sendagillen kastuak.
20. Zauritzen duena bere menpeko gizaseme edo emakumea maki-llarekin, eta illko baldin balirade bere eskuetan, izango da gaiztakeriaren obendun.
21. Baña biziko baldin balitz gero egun batean, edo bian, ez da kastigatua izango, zeren bere dirua da.
22. Gizonak despitan ariko baldin balirade, eta beretarikoren batek zaurituko balu andre aurduna, eta aurra galduko balu, eta bera bizirik geldituko balitz, pagatuko du kaltea gatik andrearen senarrak eskatzen duena, eta erabakitzaileak juzgatzen dutena.
23. Baña andrea illko balitz, pagatuko du anima gatik anima,
24. Begia gatik begia, ortza gatik ortza, eskua gatik eskua, oña gatik oña,
25. Errakia gatik errakia, zauria gatik zauria, otsa gatik otsa.
26. Baldin norbaitek zaurituko balu bere mendeko gizaseme edo emakumearen begia, eta okerrak jarriko baliozka, utziko diozkate joaten atera dion begia gatik.
27. Orobat aterako badin balio ortz bat bere mendeko gizaseme edo emakumeari, askatuta utziko ere die joaten.

28. Baldin beiren batek zaurituko balu adarrarekin gizasemea, edo emakumea, eta illko balirade izango da arrika illa, eta ez dirade jango bere aragiak, eta beia jabea ez da kastigatua izango.

29. Baña baldin beia balitza adarkaria lendikan, eta gaztigatua izan balitza bere jabea, eta idukiko ez balu toki itxian, eta ilko balu gizaseme edo emakumeren bat, ez bakarrik izango da beia arrika illa, baita bere jabea ere izango da illa.

30. Ipiñiko baliote kastigutzat dirua pagatzea, emango du bere bizia gatik eskatzen zaion guztia.

31. Eta zaurituko baldin balu adarrarekin semea, edo alaba, erabaki berdiñaren mendean egongo da.

32. Baldin jotzera egingo balio mendeko gizaseme edo emakumeari, emango diozka nagusiar ogeita amar siklo zillarrezko, eta beia izango da arrika illa.

33. Baldin inork idikiko balu urpetegiren bat, eta aitzurtuko balu, eta ez balu estaliko, eta eroriko baldin balitza ara bei edo astoren bat,

34. Pagatuko du urpetegiaren jabeak abereen balioa, baña ill dana, berea izango da.

35. Norbaiten beiak zaurituko balu besteren beia eta ura illko balitz: salduko dute bei bizia, eta partituko dute balioa, eta illaren aragia beren artean partituko dute.

36. Baña baldin bekian adarkaria zala beia atzo eta orainegundikan, eta iduki ez baldin balu bere jabeak toki itxian, itzuliko du beiagatik beia, eta artuko du osorik bei illa.

OGETA BIGARREN KAPITULUA

1. Baldin norbaitek ostuko balu beiren bat, edo ardiren bat eta ill edo salduko balu, biurtuko ditu bost bei, bei bat gatik, eta lau ardi, ardi bat gatik.

2. Baldin arkituko balitz lapurren bat bortxatzen edo lurrean aitzurtzen ari dala, eta arturik zauriren bat illko balitz, zauritu duena ez da izango odolaren obendun.

3. Baña au egingo baldin balu eguzkia atera ezkerro, gaizki ill du gizona, eta bera ere illa izango da. Ez baldin baleuka zer biurtu lapurreta gatik, bera izango da saldua.

4. Arkitu balitz beragan bizirik ostu duena, naiz beia, naiz astoa, naiz ardia; itzuliko du birretan ainbat.



5. Baldin iñork kalterik egiten badu kanpoan, edo mastian, eta utzi-ten badio joaten bere abereari bazkatzen besterenak itzuliko du bere kanpoan, edo mastian duen gauzarik onen guztia, kaltearen araura.

6. Aterarik sua arkitu balitu arantzak, eta suak artuko balitu frutuen gabillak, edo kanpoetan zutik dauden uztak, pagatuko du kaltea su eman dionak.

7. Baldin iñork emango balio dirua edo ontzia adiskideari gordetze-ko, eta ostuko baldin baliozkate artu dituenari, lapurra arkitzen baldin bada, biurtu beza birretan ainbat.

8. Ezkutuan baldin badago lapurra, etxeko nagusia izango da jarria jaungoikoen aurrean, eta juramentu egingo du ez duela luzatu eskua bere lagun urkoaren gauzara,

9. Ez zer ikusirik izan lapurretan, naiz beiarenean naiz astoarenean, naiz ardiarenean, naiz soñekoarenean, naiz kalte egin dezakeen edozeñ gauzarenean; bien auzia eramango da jaungoikoak gana, eta baldin oiek erabakitzen badute, birretan ainbat itzuliko dio bere lagun urkoari.

10. Baldin norbaitek emango balio bere lagun urkoari astoa, beia, ardia, edo edozeñ abere gordetzeko, eta illko balitza, edo elbarritu, edo izango balitza etsaiak arrapatua, eta iñork au ikusiko ez baldin balu:

11. Juramentu egingo du, ez diola luzatu eskua bere lagun urkoaren gauzari, eta jabeak juramentu artuko du, eta bestea ez da beartua izango kaltea osotzera.

12. Baña ostu baldin baliote, osotuko dio kaltea jabeari,

13. Izan baldin balitza pistiak jana, eraman beza jabea gana, illa izan dana, eta ez du biurtuko.

14. Eskatzen dionak bere lagun urkoari prestamenean oietatiko edozeñ gauza, eta elbarritu edo illko balitza, jabea aurrean ez dala, beartua izango da itzultzera.

15. Baña jabea aurrean baldin balego, ez du itzuliko, batezere alkilatu balitza bere lanaren saria gatik.

16. Baldin iñork engañatuko balu birjiña bat, ezkontzaz itztu gabea, eta lo egingo balu berarekin, emango dio dotea, eta artuko du emaztetzat.

17. Baldin birjiñaren aitak ez balio eman nai, pagatuko du dirua, bijiñak artu oi izan duten dotearen neurriaren araura.

18. Ez dezu permitituko bizi ditezela sorgiñak.

19. Aberearekin naasitzen dana, illa izan bedi.

20. Egiten diozkana eskeñtzariak Jaunari bakarrik baño besteri, illa izango da.

21. Ez dezu naigabetu, eta estutuko arrotza, zeren zuek ere arrotzak izan ziñaten Ejiptoko lurrean.

22. Eztiezute kalterikan egingo alargunari eta umezurtzari.

23. Kalterikan egiten baldin badiezute, deadar egingo dute nigana, eta nik adituko det beren deadarra:

24. Eta piztuko da nere aserrea, eta zaurituko zaituztet ezpatarekin, eta izango dirade zuen emazteak alargunak, eta zuen semeak umezurtzak.

25. Ematen baldin badiozu dirua prestamenean nere erri beartsu zurekin bizi danari, ez dezu premiatuko kobratzalleak bezela, ez eta ere estutu lukuruakin.

26. Artuko baldin bazendu zure lagun urkoa gandik soñekoa prendan, itzuliko diozu eguzkia sartu baño lenago.

27. Zeren orixe bera da soñeko bakarra, zeñekin estalitzen duen bere aragia, eta ez du besterik, zeñarekin lo egin; nigana deadarrez zuzentzen baldin bada, adituko det, zeren urrikaltsua naiz.

28. Ez dezu gaizki esango jaungoikoak gatik, eta ez dezu madarika-tuko zure erriko prinzipia.

29. Ez dezu luzatuko pagatzea amarrenak eta lenbiziak, zure semeen lenbizisortua emango didazu.

30. Eta berdin egingo dezu idiakin, eta ardiakin, zazpi egunean bego bere amarekin eta zortzigarren egunean itzuliko didazu.

31. Gizon santuak izango zerate neretzat; abereak lendikan probatua izan dan aragia, ez dezute jango, baizikan aurtikiko diezute txakurrai.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Etzaitz egon jezur asmatzalleai aditzen, ez dezu ere elkartuko zure eskua esateko gezurrezko asmazioa gaiztoaren alde.

2. Ez diozu jarraituko taldeari gaizki egiteko, eta batzarrean ere; ez diozu jarraituko askoren iritziari, aldegitoko egiatik.

3. Pobrearekin ere etzera urrikal izango erabakia ematean.

4. Arkituko baldin bazendu zure etsaiaren bei, edo asto galdua, itzuli zaiozu.

5. Ikusiko baldin bazendu gorroto dizunaren astoa etzinik zamaren azpian, etzera aurrera iragoko, baizik lagunduko diozu altxatzen.

6. Etzera zearkatuko emateko erabakia pobrearen gaitzean.

7. Igesko dezu gezurragandik. Obengabe eta justua ez dezu illko, zeren gorroto diot gaiztoari.

8. Ez dituzu ere artuko emaitzak, zeñak itsututzen dituzten begiratuak ere, eta biurritzen justoen erabakiak.



9. Arrotzari ez diozute gogait eragingo. Zeren badakizute zer dan arrotz izatea, zeren zuek ere arrotz egon ziñaten Ejiptoko lurtean.

10. Sei urtean ereiño dezu zure lurra, eta bilduko dituzu bere frutuak.

11. Baña zazpigarren urtean utziko diozu, eta atsedean eraziko diozu, jan dezaten zure erriko pobreak, eta gelditzen dan guztia, jan bezate kanpoko pistiak, ala egingo dezu zure mastian, eta zure olibadian.

12. Sei egunean ariko zera lanean, zazpigarren egunean jostatuko zera, atsedean dezan zure beiak, eta zure astoak, eta gozatu dedin zure mendeko andrearen semea, eta arrotza.

13. Gorde itzatzute esan dizutedan gauza guztiak. Eta ez dezute juramenturik egingo jangoiko arrotzen izenean, eta ez da aditua ere izango zuen aotikan.

14. Iru alditan urte bakoitzean zelebratuko dizkidazute jaiak.

15. Gordeko dezu legamigabeen jai. Zazpi egunean jango dituzu legamigabeak, agindu nizun bezela, frutu berrien denboran, atera ziñanean Ejiptotik, etzera agertuko nere aurrean utsik.

16. Beste jai izango da zure lanen lenbiziko frutuak ebakitzean, kanpoan ereiñ dezun guztiena. Irugarren jai izango da kanpoko frutu guztiak biltzean, urtearen bukaeran.

17. Iru aldiz urtean agertuko da zure gizaseme guztia zure Jaun Jaungoikoaren aurrean.

18. Ez dezu eskeñiko legamiaren gañean nere emaitzaren odola; ez da ere geldituko nere jai andiko gantza biar arte.

19. Zure lurreko frutuen lenbiziak eramango dituzu zure Jaun Jaungoikoaren etxera. Ez dezu egosiko antxumea bere amaren eznean.

20. Ona non nik bidalduko dedan nere aingerua, joango dana zure aurretik, eta gorde zaitzan bidean, eta sartu zaitzan prestatu dedan tokian.

21. Erreberenziatu ezazu, eta aditu bere boza, ez ezazu uste izan mezpreziaztekoa dala, zeren bekatu egiten dezunean etzaitu utziko, eta beragan da nere izena.

22. Baña baldin adituko bazendu bere boza, eta egingo baziñitu esaten ditudan gauza guztiak, izango naiz zure etsaien etsaia, eta naigabetuko ditut naigabetzen zaituztenak.

23. Eta joango da zure aurretik nere aingerua, eta sartuko zaitu amoreoen, eta heteoen, eta ferezeoen, eta kananeoen, eta hebeoen, eta jebuseoen, nik puskatuko ditudanen lurtean.

24. Ez dituzu adoratuko beren jangoikoak, eta ez diezu ere egingo elizkizunik: ez dezu egingo beren lanik, baizik arrasatuko dituzu, eta autsiko dituzu beren talluak.

25. Eta serbituko dezute zuen Jaun Jaungoikoa, bedeinkatu ditzadan zure ogiak eta urak, eta kendu dezadan eritasuna zure erditikan.

26. Ez da izango zure lurtean aurra galduko duen andrearik, ez soillik; beteko det zure egunen neurria.

27. Bidalduko det nere izua zure aurretikan, eta illko det zu sartzen zeran erri guztia, eta eragingo diet iges zure aurretikan zure etsai guztiai:

28. Bidalduko eultzarrak aurretik, zeñak igeseraziko dioten hebeoai, eta kanaaneoai, eta heteoai, sartu zaitzeten baño lenago.

29. Ez ditut botatuko zure aurretik urte batean, lurra eremu itzuli ez dedin, eta ugaritu ez ditezten pistiak zure kontra.

30. Geldika geldika botako ditut zure aurretik, alik eta ugaritu, eta lurrarekin jabetu zaitzeten bitartean.

31. Eta jarriko ditut zure mugak itsaso Gorritik palestinarren itsasoraño, eta eremutik ibairaño; ipiñiko ditut zuen eskuetan lurtean bizi diradenak, eta botako ditut zuen aurretik.

32. Ez dezu egingo elkartasunik berakin, eztaere beren jaungoikoekin.

33. Ez bitez bizi zure lurtean, pekatu eragin ez dizazun, serbituko baldin baziñitu beren jaungoikoak, zeñ egiazki izango litzakean zure galmena.

OGEITALAU GARREN KAPITULUA

1. Moisesi ere esan zion: igo zaite Jauna gana zu, eta Aaron, Nadab eta Abiu, eta Israelko irurogeita amar zarrak eta adoratuko dezute urrutitikan.

2. Eta Moises bakarrik igoko da Jauna gana, eta aiek ez dirade aldearutuko; eta erria ere ez da berarekin igoko.

3. Etorri zan bada Moises, eta kontatu ziozkan erriari Jaunaren itz, eta erabaki guztiak, eta erantzun zuen erri guztiak itz batean: Egingo ditugu Jaunak esan dituen itz guztiak.

4. Eta eskribatu zituen Moisesek Jaunaren itz guztiak, eta goiz jaikirik egin zuen aldare bat mendiaren ondoan, eta amabi arri Israelko amabi arrien araura.

5. Eta bidaldu zituen Israelko semeetatik gazte batzuek, eta egin zituzten emaitzak, eta illik txal paketsuak, eskeñi ziozkatzen Jaunari.



6. Eta artu zuen Moisesek odolaren erdia, eta botatu zuen ontzieta-
ra, eta gañerakoa isuri zuen aldarearen gañean.

7. Eta arturik elkartasuneko liburua, irakurri zuen erriak aditzen
zuela: zeñak esan zuten: Egingo ditugu, Jaunak esan dituen gauza guztiak,
eta izango gera obedigilleak.

8. Berak berriz arturik odola odoliztatu zuen erriaren gañean, eta
esan zuen: Au da Jaunak zuekin itz guzti oien gañean egin duen elkarta-
sunaren odola.

9. Eta igo ziran Moises, eta Aaron, Nadab eta Abiu, eta Israelko
zarretatik irurogei ta amar.

10. Eta ikusi zuten Israelko Jaungoikoa, eta bere oñen azpian safi-
rozko arriz egindako lan bat bezelakoa, eta zerua bezelakoa, osgarbi
dagoenean.

11. Etzuen ere luzatu bere eskua, urrutira alde egin zuten Israelko
semeen gañera, eta ikusi zuten Jaungoikoa, eta jan zuten, eta edan zuten.

12. Eta esan zion Jaunak Moisesi: igo zaite nigana mendira, eta zaude
an, eta emango dizkizut arrizko olak, eta eskribatu ditudan legea eta agin-
teak, erakutsi dizaieztezun.

13. Jaiki ziraden Moises eta Josue bere serbitzaria, eta igorik Moises
Jaungoikoaren mendira,

14. Esan zioten zarrari: itxedon ezazute emen alik eta itzuli gaitetzen
bitartean zuekgana. Badituzute zuekin Aaron eta Hur, izango baldin bali-
tza ezpaitik, eramango dezute berak gana.

15. Eta igorik Moises, odei batek estali zuen mendia,

16. Eta Jaunaren gloria agertu zan Sinairen gañean, estaltzen zuela
odeiak sei egunean, eta zazpigarren egunean ots egin zion illuntasunaren
erditikan.

17. Eta zan Jaunaren gloriaren irudia, mendiaren tontorraren gañean
irazekita dagoan sua bezelakoa, Israelko semeen aurrean.

18. Eta sarturik Moises lañoaren erdira, igo zan mendira, eta egon
zan an berrogei egunean eta berrogei gauean.

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Esan zaiezu Israelko semeai, artu ditzatela neretzat lenbiziak; artu-
ko dizkiozute bere naiz eskintzen dituen gizon guztiari.

3. Oiek dirade berriz artu bear dituzutenak: urrea, eta zillarra, eta
kobrea,

4. Jazintoa eta purpura, eta grana bi aldiz ganbusia, eta liño fiña, aun-
tzen illeak,

5. Eta arien larru lugorrituak, eta larru morauak, eta Setimgo zurak:

6. Olioia adreztzeko lanparak, aromak okenduarentzat, eta usai
oneko lurrinkaiak:

7. Onixko arriak eta arri baliotsuak apaintzeko efhod, eta razionala.

8. Eta egingo didate eliza bat, eta bizituko naiz beren erdian

9. Erakutsiko dizudan elizaren irudi guztiaren araura, eta bear dituen
ontzi guztienera: eta onela egingo dezute.

10. Egin ezazute Setimgo zurakin kutxa bat, luzeran beso bi, eta erdi
dituena, zabaleran beso bat eta erdi, orobat goibean beso: bat eta erdi.

11. Eta estaliko dezu barrendik eta kanpotik urre txit garbiarekin, eta
egingo dezu bere gañean, urrezko arpain bat inguruan,

12. Eta urrezko lau eraztun; zeñak ipiñiko dituzun kutxaren lau egi-
yetan; bi eraztun egon bitez aldamen batean eta bi bestean.

13. Egingo ere dituzu zigor batzuek Setimgo zurakin, eta estaliko
dituzu urrez.

14. Eta sartuko dituzu kutxaren aldamenetan dauden eraztunetatik,
eramateko beretan:

15. Zeñak egongo diraden beti eraztunetan, eta ez dirade iñoiz ate-
rako bertatik.

16. Eta jarriko dezu kutxan, emango dizudan sinisgaia.

17. Egingo ere dezu estalkia urre txit garbiarekin; idukiko ditu luzee-
ran beso bi eta erdi, eta zabaleran beso bat eta erdi.

18. Egingo ere dituzu, bi Kerubin urrezkoak, eta malluz landuak,
estalkiaren aldamen batetikan eta bestetikan.

19. Kerubin bata bego aldamen batean, eta bestea bestean.

20. Estali bitzate estalkiaren aldamen biak, zabaldurik egoak, eta
estalarik itzlekua eta beude elkarri begira itzulirik arpegiak estalkira, zeña-
rekin estaldua izango da kutxa,

21. Zeñean jarriko dezu emango dizudan sinisgarria.

22. Andikan emango dizkizut aginteak, eta itz egingo dizut estalkia-
ren gañean, eta bi Kerubinen sinisgarriko kutxaren gañean egongo dira-
denen erditik, zure bitartez Israelko semeai aginduko dieztedan gauza
guztiak.

23. Egingo ere dezu mai bat Setimgo zurakin dituena bi beso luzee-
ran, eta beso bat zabaleran, eta beso bat eta erdi goibean.

24. Eta estaliko dezu urre txit garbiarekin, eta egingo diozu urrezko
borde bat inguruan,



25. Eta bordeari berari arpain otallartetu bat, alturan lau beatzekoa, eta beraren gañean, beste urrezko arpaintxo bat.

26. Gertutuko ere dituzu lau eraztun urrezko, eta ipiñiko dituzu maiaren beraren lau egiyetan oñ bakoitzean.

27. Urrezko eraztunak egongo dirade arpañaren azpian, zigorrak sartu ditezten beretatik, eta maia izan dezakean eramana.

28. Egingo ere dituzu zigor oiek Setimgo zurakin, eta inguratuko dezu urrezko plantxakin maia eramateko.

29. Gertutuko ere dituzu urrerik garbienarekin katilluak, eta basoak, eta inzensuonziak, eta kopak, zeñean eskeñiak izango diraden doañiak.

30. Eta jarriko dituzu maiaren gañean proposizioko ogiak nere aurrean beti.

31. Egingo ere dezu urrerik garbienarekin kandelero bat malluz landua, bere kirtena, eta besangak, basoak, eta bolatxoak, eta lirioak beratitan ateratzen diradenak.

32. Sei besanga aterako dirade aldamenetatik, iru aldamen batetik, eta iru bestetik.

33. Besanga bakoitzean egongo dirade iru baso intxaurraren gisara, eta batean bolatxoak, eta lirio bat. Au izango da kirtenetik aterako diraden sei besangen lana:

34. Eta kandeleroan berean egongo dirade lau baso intxaurraren gisara, eta bakoitzean bolatxoak, eta lirioak.

35. Egongo dirade bolatxo batzuek bi besangen azpian iru tokitan, zeñak batean diraden sei kirten batetikan ateratzen diradenak.

36. Bolatxoak bada, eta besangak aterako dirade beratitikan, guztiak malluz urrerik garbienarekin egiñak.

37. Egingo ere dituzu zazpi lanparatxo, eta jarriko dituzu kandeleroaren gañean, argi egin dezaten aurretikan.

38. Despabillakia ere, eta babillak itzalitzeko tokiak, egingo dirade urrerik garbienarekin.

39. Kandeleroaren pisu guztia bere ontzi guztiakin izango da urre txit garbizko talento bat urre txit garbia.

40. Begira, eta egiñ ezazu, mendian erakutsi zitzazun modeloaren araura.

OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Tabernakuloa berriz onela egingo dezu: Egingo dituzu amar kortina liño fiñ biurtuzkoak, eta jazintozkoak, eta purpurazkoak, eta grana bi aldiz bustitakoak, bordatu mot askorekin.

2. Kortina bakoitzaren luzeerak idukiko ditu ogei eta zortzi beso; zabalera, lau besokoa izango da. Neurri batekoak izango dirade kortina guztiak.

3. Bost kortina itsatsiko zaizka elkarri, eta beste bostak itsatsiko dirade modu bertan.

4. Egingo dituzu jazintozko eutskarriak kortinen aldamenetan eta goietan, elkarri itsatsi daitezkean.

5. Kortina bakoitzak idukiko ditu berrogei ta amar eutskarri aldamen bakoitzean, alako moduan maneatuak, non bata besteari doitu dezakean .

6. Egingo ere dituzu berrogeita amar erraztun urrezko, zeñakin bituko diraden kortinen beloak, tabernakulo bat egin dedin.

7. Egingo ere dituzu auntzen illezko amaika pañu tabernakuloaren tellatua estalitzeko.

8. Pañu baten luzeerak idukiko ditu ogei ta amar beso, eta zabalera lau; berdiña izango da oial guztien neurria.

9. Zeñatitikan elkartuko dituzu bost berezian, eta itsatsiko dituzu sei bata besteari, alako moduan, non seigarren oiala tolestuko dezun tellatuaren aurretikan.

10. Egingo ere dituzu berrogei ta amar euskarri oial baten egalean, bitu dedin bestearekin, eta berrogei ta amar euskarri beste oialaren egalean, bestearekin itsatsi dedin.

11. Egingo ere dituzu berrogei ta amar ebilla bronzesko, zeñakin elkartu ditezten euskarriak, guztietatik estalki bat egin dedin.

12. Baña nola tellaturako dauden estalkietatik bat sobratzen dan, onen erdiarekin estaliko dezu tabernakuloaren osteko aldea.

13. Eta beso bat geldituko da zinzilika aldamen batetikan, eta beste bat bestetikan, zeñ sobratzen dan estalkien luzeeran, tabernakuloaren bi aldamenak estaltzen dituela.

14. Egingo ere diozu tabernakuloari beste estalki bat arien larru lugorrituakin, eta onen gañean beste estalki bat larru morauakin.

15. Egingo ere dituzu Setimgo zurakin tabernakuloaren zur, zutik zuzen daudenak.

16. Zeñak guztiak idukiko dituzten amarna beso luzeeran, eta zabalera bana eta erdi.

17. Ol bakoitzaren aldamenetan egingo dirade bi akats, katigatzeko ol bata bestearekin, eta era onetan ipiñiko dirade beste ol guztiak.

18. Zeñatit ogei egongo dirade eguerdiaren aldamen egoera begira dagoanean.



19. Zeñäentzat urtu eta egingo dituzu berrogei ondape zillarrezko, alako moduan non, bi ondape egon ditezen ol bakoitzaren azpian egi bietan.

20. Nortera begira dagoan, tabernakuloaren beste aldamenen ere, ogei ol egongo dirade,

21. Dauzkatena berrogei ondape zillarrezko, bi ondape ipiñiko dirade ol bakoitzaren azpian.

22. Tabernakuloaren sartaldeko aldamenen berriz egingo dituzu sei ol,

23. Eta berriz beste bi, zeñak altxatuko diraden egietan tabernakuloaren ostan.

24. Eta egongo dirade elkaturik beetik goräño, eta lokarri batek idukiko ditu guztiak. Eta elkartasun berdiña gordeko da, egietan ipiñiko diraden ol bietan.

25. Eta guztietan izango dirade zortzi ol beren ondape zillarrezkoak amasei, kontaturik bi ondape ol bakoitza gatik.

26. Egingo ere dituzu bost zearkai Setingo zurakin, sendatzeko, olak tabernakuloaren aldamen batean.

27. Eta beste bost bestean, eta sartaldeko aldamenen beste ainbeste:

28. Zeñak zearkatuko dituzte olak aldamen batetik bestera.

29. Baita estaliko dituzu urrez zurak berak, eta urtu eta egingo dituzu berentzat urrezko arraskak, zeñäen bitartez zearkaiak iduki ditzaten olak; zeñak estaliko dituzu urrezko baldiakin.

30. Eta altxatuko dezu tabernakuloa, mendian erakutsia izan zatzun irudiaren araura:

31. Egingo ere dezu estalkia jazintozkoa, eta purpurazkoa, eta bi aldiz ganbusitako granazkoa, eta liño fiñ biurtuzkoa lan bordaduakin, eta nabarde ederrarekin eoa:

32. Zeñ esekiko dezu Setingo zurezko lau abeen aurrean, zeñak ere egongo dirade urrez estalirik, eta idukiko dituzte urrezko erpiñak, baña ondape zillarrezkoak.

33. Eta estalkia geldituko da zinzilika eratzunen bitartez, eta beraren barrenen ipiñiko dezu testimonioko kutxa, eta zeñarekin berezituak geldituko dirade Santua, eta Santuen Santua.

34. Ipiñiko ere dezu propiziatorioa testimonioko kutxaren gañean Santuen Santuan:

35. Eta maia estalkitik kanpora, eta maiaren aurrean kandeleroa tabernakuloaren eguerdiruntzko aldamenen, zeren maia egongo da Ifarreko aldean.

36. Egingo ere dezu tabernakuloaren sarreran kortiña bat jazintozkoa, eta purpurazkoa, eta bi aldiz ganbusitako granazkoa, eta liño fiñ biurtuzkoa, bordatokiko lanaz.

37. Eta urrez estaliko dituzu Setingo zurezko bost abeak, zeñäen aurrean esekiko dezu kortiña, zeñäen erpiñak izango dirade urrezkoak, eta ondapeak brontzezkoak.

OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Egingo ere dezu Setingo zurakin aldare bat, zeñak idukiko dituen luzeeran bost beso, eta beste ainbeste zabaleran, au da, laukia, eta iru beso alturan.

2. Eta bertatik aterako dirade mutur batzuek lau egitikan, eta kobrez estaliko dezu.

3. Eta egingo dituzu aldarearen bearretarako pertz batzuek autsak biltzeko, eta kurrikak eta iruortzak, eta brasaontziak; ontzi guzti oiek kobrearekin egingo dituzu.

4. Eta sareztatu bat brontzezko sarearen gisara, zeñäen lau egietan egongo dirade lau arraska brontzezko,

5. Zeñak ipiñiko dituzu aldarearen sutegiaren azpian, eta sareztatua allegatuko da aldarearen erdiraño.

6. Egingo ere dituzu aldarerako bi zigor Setingo zurakin, zeñak estaliko dituzu kobrezko plantxakin:

7. Eta sartuko dituzu arrasketatikan, eta egongo dirade aldarearen aldamen bietatik eramateko.

8. Ez dezu egingo utsgabea, baizik utsa eta zakona barrendikan, mendian erakutsi zatzun bezela.

9. Egingo ere dezu tabernakuloaren ataria, zeñäen egoeko aldamenen eguerdiaren aurkez egongo dirade liño fiñ biurtuzko kortiñak; aldamen batak idukiko ditu luzeeran eun beso.

10. Eta ogei abe beste ainbeste brontzezko ondapekin, zeñak idukiko dituzte zillarrezko erpiñak beren moldeerakin.

11. Eta berdin norteko aldamenen luzeeran egongo dirade eun besoko kortiñak, ogei abe, eta beste ainbeste brontzezko ondape, eta beren erpiñak beren moldaerakin zillarrezkoak.

15. Eta beste aldamenen egongo dirade kortiña batzuek, allegatzen diradenak amabost besora, iru abe, eta beste ainbeste ondape.



16. Eta atariaren sarreran egingo da ogei besoko etzauntz bat jazintozkoa, eta purpurazkoa, eta bi aldiz ganbusitako granazkoa, eta liño biurtuzkoa, bordatokiko lana; idukiko ditu lau abe, beste ainbeste ondaperekin.

17. Atariko abe guztiak egongo dirade jantziak inguruan zillarrezko plantaxekin orriz, zillarrezko erpiñakin, eta brontzezko ondapeakin.

18. Atariak idukiko ditu luzeeran eun beso, zabaleran berrogei ta amar, goibeeran bost besokoa izango da, eta egingo da liño fiñ bi alditan biurtuarekin, eta idukiko ditu brontzezko ondapeak.

19. Tabernakuloko ontzi guztiak bere premia eta zeremonia guztietarako, naiz bere estakak, naiz atarikoak, egingo dituzu brontzezkoak.

20. Agindu zaiezu Israelko semeai ekarri dizazutela oliboen zuaitzetatik oliorik garbiena, motrairuan aterea irazekia egon dedin beti lanpara.

21. Testimonioko tabernakuloan, testimonioko kutxaren aurrean esekita dagoan estalkitik kanpora. Eta ipiñiko dute Aaronen eta bere semeak, argi egin dezan goizeraño Jaunaren aurrean. Izango da Israelko semeak beren jatorrietan beti emango duten adorazio bat.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Alderatu ere ezazu zugana Aaron zure anaia bere semeakin, Israelko semeen erditikan, ari ditezten neretzat apaizlanetan: Aaron, Nadab, eta Abiu, Eleazar, eta Itamar.

2. Eta egingo diozkazu zure anai Aaroni soñeko sagraduak gloria eta edertasunerako.

3. Zeñaen gaiñean itz egingo diezu gizon jakintsu guztiai, zeñak bete ditudan nik argitasunez, egin ditzaten Aaronen soñekoak, zeñakin santuturik ari dedin apaizen lanetan.

4. Eta oiek izango dirade egingo dituzten soñekoak. Bularrekoa eta sorbalden gañekoa, tunika eta liñozko estua, burukoa eta gerrikoa. Egingo diozkate soñeko santuak zure anai Aaroni, eta bere semeai, apaizen lanetan ari ditezten neretzat.

5. Eta artuko dute urrea, eta jazintoa, eta purpura, eta bi alditan ganbusitako grana, eta liño fiña.

6. Eta egingo dute sorbalda gañeko jantzia urrearekin, eta jazintoa-ekin, eta purpurarekin, eta bi alditan ganbusitako granarekin, eta liño biurtuarekin.

7. Idukiko ditu bi ertz elkaturik goienen aldamen bietatikan, batera itzuli ditezten.

8. Eoa bera eta lan mota guztiak urrezkoak, eta jazintozkoak, eta purpurazkoak, eta bi alditan ganbusitako granazkoak, eta liño biurtuzkoak.

9. Eta artuko dituzu bi esmeralda arri, eta jarriko dituzu beretan Israelko semeen izenak:

10. Sei izen arri batean, eta sei gañerakoak bestean, beren jaiotzako denboraren araura.

11. Otallugillearen lanarekin, eta artizjakintsuaren eskuz jarriko dituzu beretan Israelko semeen izenak, sarturik eta inguruturik urrez.

12. Eta ipiñiko ditu sorbalda gañeko jantziaren aldamen bietan oroipengarriztat Israelko semeentzat. Eta eramango ditu Aaronen beren izenak Jaunaren aurrean sorbalda bien gañean, oroipenerako.

13. Egingo ere dituzu urrezko kortxeta batzuek,

14. Eta urre txit garbizko bi katetxo elkarri bata bestea baturik, zeñak sartuko dituzu kortxetetan.

15. Egingo ere dezu zentzuneko bularjantzia lan nabarrarekin sorbalda gañeko jantziaren eoaren araura, urrez, jazintoz, eta purpuraz, eta bi alditan ganbusitako granaz, eta liño biurtuz.

16. Izango da laukia eta bitan anbata; idukiko du arra baten neurria, bai luzeeran eta bai zabaleran.

17. Eta jarriko dituzu bertan lau errenkada arrizko: lendabiziko errenkadan egongo da sardioa, eta topazioa, eta esmeragdoa:

18. Bigarrenean karbunkloa, zafiroa, eta jaspea:

19. Irugarrenean ligurioa, agata, eta ametistoa:

20. Laugarrenean krisolitoa, onisa eta beriloa. Urretan sarturik egongo dirade beren errenkadetan.

21. Eta idukiko dituzte Israelko semeen izenak; amabi izenak egongo dirade itsatsiak, arri bakoitzak berea amabi tribuen araura.

22. Egingo dituzu bularjantzirako urre txit garbizko katetxo bi elkarri ditzekanak:

23. Eta urrezko eraztun bi, zeñak ipiñiko dituzu bularjantziaren goiko aldamen bietan,

24. Eta batuko dituzu urrezko kateak, bere ertzetan dauden eraztunakin:

25. Eta kateen beren atzenak elkartuko dituzu bi kortxetarekin bularjantzira begira dagozten sorbaldagañekoaren aldamen bietan.

26. Egingo ere dituzu urrezko eraztun bi, zeñak jarriko dituzu bularjantziaren goenetan, sorbaldagañekoaren aurkez dauden ertzetan, eta begiratuten dute bere osteetara.



27. Baitaere urrezko beste bi eraztun, jarriko diradenak berezian sorbalda gañekoaren aldamen bietan, zeñak begiratzten duen berengo giltzaren arpegirontz, lotzeko sorbalda gañekoarekin.

28. Eta estutu dedin bularreko jantzia bere eraztunakin, eta sorbalda gañeko jantziaren eraztunakin jazintozko kordoi batekin, giltza manearekin egiña geldituko dan eran, eta bularreko eta sorbaldagañeko soñekoa elkargandik bata bestea berezitu ezin ditezken moduan.

29. Eta eramango ditu Aaronen semeen izenak zentzuneko bularjantzian, bere bularraren gañean, sartzen danean santuarioan, betiko oroipengarritzat Jaunaren aurrean.

30. Eta ipiñiko dituzu zentzuneko bularjantzian, ikasikizuna eta Egia, egongo diradenak Aaronen bularraren gañean, sartzen danean Jaunaren aurrera, eta eramango du beti bere bularraren gañean Israelko semeen zentzuna, Jaunaren aurrean.

31. Egingo ere dezu sorbaldaren gañeko tunika, guztia jazintozkoa,

32. Zeñaren erdian goialdetikan egongo da zulo bat burua ateratzeko, eta ertz apaindu bat bere inguruan eoa, egin oi dan bezela soñekoen ertzetan, aisa urratu ez dedin.

33. Eta bean, tunikaren beraren oñetan, inguruan, egingo dituzu granada batzuek bezelakoak, jazintozkoak, eta purpurazkoak, eta bi alditan ganbusitako granazkoak, naasirik erdian arteetan eskillatxoak:

34. Alako moduan non, egon dedilla urrezko eskillatxo bat, eta granada bat, eta berriz beste urrezko eskillatxo bat, eta granada bat.

35. Eta berarekin jantzita egongo da Aaron bere ekintzako lanean, aditua izan dedin otsa santuarioan sartzen, eta ateratzen danean Jaunaren aurrean, eta ill ez dedin.

36. Egingo ere dezu urre txit garbizko plantxa bat, zeñean itsatsiko dezu otallugillearen lanaz, Santutasuna Jaunarentzat.

37. Eta lotuko dezu jazintozko kordoi batekin, eta egongo da burukiaren gañean,

38. Erortzen dala apainnagusiaren kopetaren gañera. Eta Aaronen eramango ditu Israelko semeak egin dituzten pekatuak eskeñi eta santutu dituzten emaitz eta doaiñ guztietan. Beti egongo da plantxa au bere kopetaren gañean, Jauna bere alde iduki dezaten.

39. Eta egingo dezu liño fiñezko tunika estu bat, eta buruki bat ere liño fiñezkoa, eta gerriko nabar bat.

40. Baña Aaronen semeentzat prestatuko dituzu liñozko tunikak, eta gerrikoak eta burukiak, gloria eta edertasunerako,

41. Eta oiek guztiakin jantziko dezu Aaron zure anaia, eta bere semeak berarekin. Eta guztien eskuak konsagratu, eta santutuko dituzu, ari ditezten neretzat apaizen lanetan.

42. Egingo ere dituzu liñozko galtxuriak, estali dezaten bere lotsazko aragia, gerritik istarretaraño:

43. Eta erabilliko dituzte berak Aaronen eta bere semeak, sartzen diradenean testimonioko tabernakuloan, edo alderatzen diradenean alderera santuarioko lanetan aritzeko, gaiztakeriaren obendun egiñik ill ez ditezten. Aginte betikoa izango da Aaronentzat, eta bere ondoren bere jatorriarentzat.

OGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Au ere egingo dezu ari ditezten neretzat apaizen lanetan. Artu ezazu aberetaldetikan txal bat: eta bi aitzakigabeak;

2. Eta ipiñiko dituzu legamigabeak, eta opill bat legamirikan gabe orraturik dagoana olioarekin; lasaña legamigabeakin ere, gantzutuak olioarekin; guztia egingo dezu gari iriñaren lorarekin.

3. Eta ipiñirik saskitxo batean eskeñiko dezu, txala ere eta ari biak.

4. Eta alderatuko dituzu Aaron, eta bere semeak testimonioko tabernakuloaren sarrerara. Eta garbitzen dituzunean urarekin aita bere semeekin,

5. Jantziko dezu Aaron bere jantziakin, au da, liñozkoarekin, eta tunikarekin, eta sorbaldagañekoarekin, eta bularrekoarekin, zeñ doituko dezun gerrikoarekin.

6. Eta jarriko dezu burukia bere buruaren gañean, eta plantxa santua burukiaren gañean.

7. Eta isuriko dezu bere buruaren gañera unzioko olio, eta zermonia onekin izango da konsagratua.

8. Bere semeak ere alderatuko dituzu, eta jantziko dituzu liñozko tunikakin, eta lotu gerrikoarekin,

9. Au da, Aaron eta bere semeak, eta ipiñiko diezu mitrak, eta izango dirade neretzat apaizak jatorriz betiko. Eta konsagratu ezker bere eskuak,

10. Alderatuko dezu txala ere testimonioko tabernakuloaren aurrera. Eta Aaronen eta bere semeak jarriko dituzte eskuak bere buruaren gañean,

11. Eta illko dezu Jaunaren aurrean, testimonioko tabernakuloaren atearen aldean.



12. Eta arturik txalaren odoletik, ipiñiko dezu aldarearen egien gañean zure beatzarekin, eta gañerako odola isuriko dezu bere ondapearen aldean.

13. Artuko ere dezu esteak estalitzen dituen sebo guztia, eta gibela-
ren eutxoa, eta guntzurrun biak, eta beren gañean dagoan seboa, eta
eskeñiko dezu inzensoa aldarearen gañean:

14. Baña txalaren aragiak, eta larrua eta gorotza erreko dituzu etzaun-
tzetik kanpora, zeren pekatuagatik da.

15. Artuko ere dezu ari bat, zeñaen buruaren gañean jarriko dituzte
eskuak Aaronek eta bere semeak.

16. Zeñ ill ezkeru artuko dezu bere odoletik, eta isuriko dezu alda-
rearen inguruan.

17. Baña aria bera ebakiko dezu zatietan, eta garbiturik bere esteak
eta oñak, ipiñiko dituzu aragi zatituen gañean, eta bere buruaren gañean.

18. Eta eskeñiko dezu ari guztia errerik aldarearen gañean, da Jauna-
ri egiten zaion emaitza, Jaunaren eskeñtzariaren usai txit gozoa.

19. Artuko ere dezu beste aria, zeñaen buruaren gañean jarriko dituz-
te eskuak Aaronek eta bere semeak.

20. Zeñ ill ezkeru artuko dezu bere odoletik, eta ipiñiko dezu Aaron
eta bere semeen eskuieko belarriaren atzean, eta beren eskuaren, eta
eskuieko oñaren beatz lodien gañean, eta isuriko dezu odola aldarearen
gañean inguruan.

21. Eta arturik aldarearen gañean dagoan odoletik, eta unzioko oli-
tik, intzatu dezu Aaron eta bere soñekoak, semeak eta beren soñeko-
ak. Eta konsagratu berak eta soñekoak,

22. Artuko dezu ariaren gantza, eta bustana, eta erraiak estalitzen
dituen seboa, eta gibela-
ren eutxoa, eta guntzurrun biak, eta beren gañean
dagoan seboa, eta eskuieko besonda, dalako konsagrazioko aria:

23. Eta ogizko opill bat, pasta mee, olioarekin orratu bat, eta legami-
gabeen saskitxoko lasaña bat, ipiñita dagoana Jaunaren aurrean:

24. Eta ipiñiko dituzu guztiak Aaron eta bere semeen eskuen gañean,
eta santutuko dituzu, altxaturik Jaunaren aurrean.

25. Eta artuko dituzu guztiak beren eskuetatik, eta erreko dezu alda-
rearen gañean eskeñtzaria egiteko, usai txit gozoa Jaunaren aurrean, zeren
bere eskeñtzaria da.

26. Artuko ere dezu ariaren bularra, zeñarekin konsagratua izan zan
Aaron, eta santutuko dezu, altxaturik Jaunaren aurrean, eta izango da zure
elizanoa.

27. Eta santutuko ere dezu bular konsagratua, eta aritik berezitu zen-
duen besonda,

28. Zeñarekin konsagratuak izan ziraden Aaron eta bere semeak, eta
izango dirade Aaronen eta bere semeen elizanoak betiko tokamenez
Israelko semeen eskeñtzarietan, zeren dirade beren doaiñ paketsu, Jauna-
ri eskeñtzen diozkatenen lenbiziak, eta asierak.

29. Eta Aaronek darabillan soñeko santua, idukiko dute bere semeak
bere ondoan berak, jantzita daudela unjituak izan ditezten, eta konsagra-
tuak beren eskuak.

30. Zazpi egunean erabiliko du, bere semeetikan apaiznagusi bere
lekuan jarria izan danak, eta sartzen danak testimonioko tabernakulora,
santuari lanean aritzeko.

31. Eta artuko dezu konsagrazioko aria, eta egosiko dituzu bere ara-
giak toki santuan:

32. Zeñak jango dituzten Aaronek eta bere semeak. Jango ere dituz-
te testimonioko tabernakuloaren sarreran saskitxoan dauden ogiak,

33. Izan dedin bigungarria eskeñtzaria, eta santutuak izan ditezen
eskeñtzalleen eskuak. Arrotzak ez du jango beretatik, zeren santuak dira-
de.

34. Eta geldituko baldin balitz aragi, edo ogi konsagratuetatik zerbait
goizeraño, erreko dituzu kondoak suan, ez dirade jango, zeren dirade
gauza santuak.

35. Agindu dizkizudan gauza guztiak, egingo dituzu Aaron eta bere
semeen gañean. Zazpi egunean konsagratuko dituzu beren eskuak:

36. Eta eskeñiko dezu egunero txal bat pekatua garbitua izan dedin.
Eta garbituko dezu aldarea, egiten dezunean pekatua, garbitua izateko
eskeñtzaria, eta untatuko dezu santutzeko.

37. Zazpi egunean garbitu, eta santutuko dezu aldarea, eta izango da
Santuen Santua; ukitzen dion guztia, izango da santutua.

38. Au da aldararen egingo dezuna. Urte beteko arkume bi egunoro
beti,

39. Arkume bat goizean, eta bestea arratsaldean,

40. Iriñ lora olio zapalduarekin intzatu, neurritzat hinaren laugarren
parte duenaren, amargarren parte, eta berebat ardo eskeñtzarietarako,
arkume bakoitzarekin.

41. Eta arratsaldetik eskeñiko dezu beste arkumea goizeko eskeñtza-
riaren zeremoniaren araura, eta esan degun bezela, usai gozorako:



42. Jaunari beti zuen gizaldietan egingo zaion eskeñtzaria, testimonioko tabernakuloaren sarreran, Jaunaren aurrean, zeñ dan zuri itz egitea erabaki dedan tokia.

43. Eta an emango dieztet nere aginteak Israelko semeai, eta aldarea izango da santutua nere gloriarekin.

44. Santutuko ere det testimonioko tabernakuloa aldarearekin, eta Aaron bere semeekin, apaizen lanetan ari ditezen neretzat.

45. Eta biziko naiz Israelko semeen erdian, eta izango naiz beren Jaungoikoa.

46. Eta jakingo dute ni naizala beren Jaun Jaungoiko, atera nituena Ejiptoko lurretikan, beren artean gelditzeko, ni beren Jaun Jaungoikoa.

OGETA AMARGARREN KAPITULUA

1. Egingo ere dezu aldare bat Setingo zurakin erretzeko lurrinkaiak,
2. Duena luzeeran beso bat, eta zabaleran beste bat, au da, laukia, eta bi beso alturan. Punta batzuek aterako dirade bertatikan.

3. Eta estaliko dezu urrerik garbienarekin, bai bere sareztatua, eta bai paretak inguruan, eta puntak. Eta egingo diozu urrezko koroï bat inguruan,

4. Eta urrezko eraztun bi koroïaren azpian aldamen bakoitzetik, sarzkeo beretatik zigor batzuek, eta eramana izan dedin aldarea.

5. Eta egingo ere dituzu zigorrak berak Setingo zurakin, eta urrez estaliko dituzu.

6. Eta ipiñiko dezu aldarea estalkiaren aurrean, zeñ dagoan esekita propiziatorioaren aurrean, zeñarekin estalitzen dan testimonioa, non itz egingo dizudan.

7. Eta Aaronek erreko du bere gañean usai gozoko inzensoa, goize-tik. Adereztzen dituenan lanparak, erazekiko du.

8. Eta pizten dituenan illuntzean, erreko du lurrinkai betikoa Jaunaren aurrean zuen gizaldietarako.

9. Ez dezute eskeñiko bere gañean beste gairekin egindako lurrinkairik, ez eskintzaririk, ez doaiñik, ez emaitzik.

10. Eta erregutuko du Aaronek bere punten gañean urtean bein, pekatuagatik eskeña, izan zan odolean, eta onekin bigunduko du zuen gizaldietan. Santuen santua izango da Jaunarentzat.

11. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

12. Ateratzen dezunean Israelko semeen kontua beren zenbataren araura, bakoitzak emango dio Jaunari zer bait bere anima gatik, eta ez da beretan izango zorigaitzik, aitezarriak diradenean.

13. Eta kontatua dan guztiak emango du, siklo baten erdia elizako neurriaren araura. Siklo batek ogei ardit dauzka. Siklo baten erdia izango zaio eskeña Jaunari.

14. Arkitzen danak zenbatean, ogei urtez gora emango du prezioa.

15. Aberatzak ez dio ezer geituko sikloaren erdiari, eta beartsuak ez du ezer gutxituko.

16. Eta arturik Israelko semeak eman duten dirua, emango dezu testimonioko tabernakuloko premietarako, izan dedin beren oroipengarri bat Jaunaren aurrean, eta urrikaritu dedin beren animakin.

17. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

18. Egingo ere dezu brontzezko urontzi bat bere ondopearekin garbitzeko, eta ipiñiko dezu testimonioko tabernakuloaren, eta aldarearen bitartean. Eta botarik ura,

19. Garbituko dituzte bertan Aaronek eta bere semeak beren eskuak eta oñak,

20. Sartuko diradenean testimonioko tabernakuloan, eta allegatuko diradenean aldarera, eskeñtzera bertan Jaunari lurrinkaiak,

21. Noaski ill ez ditezen. Betiko lege bat izango da au beretzat, eta bere jatorriarentzat gizaldietatik.

22. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi,

23. Esaten zuela: Artu itzatzu lurrinkaiak, mirrarik obenen, eta autatuaren bost eun siklo, eta zinamomoaren erdia, au da, berreun eta berrogei ta amar siklo, eta berebat kañabera usaituaren berreun eta berrogei ta amar,

24. Eta kanelaren bosteun siklo elizako neurrian, oliboen oliotik hinen neurria:

25. Eta egingo dezu unzioko olio santua, okendu lurrinkaigillearen lanaren araura egiña,

26. Eta untatuko dezu berarekin testimonioko tabernakuloa, eta testamentuko kutxa,

27. Eta maia bere ontziakin, kandeleroa, eta bere usubearrak, lurrinkaien aldareak,

28. Eta holokaustoarena, eta beren premietarako bear dituzten gauza guztiak.

29. Eta gauza guzti oiek santutuko dituzu, eta izango dirade txit santuak; ukitzen diena, santutua izango da.

30. Unjituko dituzu Aaron eta bere semeak, ari ditezen neretzat apaizen lanetan.



31. Israelko semeai ere esango diezu: Unzioko olio au santua izango da neretzat zuen gizaldietan.

32. Gizonaren aragirik ez da berarekin unjitua izango, eta bera egin oi dan erara ez dezute besterik egingo, zeren santutua dago, eta santua izango da zuentzat.

33. Alakorik egiten duen edozeñ gizon, eta bertatik ematen diona erdaldunari, arroztua izango da bere erritik.

34. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Artu itzatzu zuretzat lurrinkaiak, mirralika, beltzurika, usai oneko galbanoa, eta inzenorik goaitargiena, pisu berdiñekoak izango dirade guztiak:

35. Eta egingo dezu lurrinkai bat lurringillearen lanaren araura egiña, txit ongi naasia, eta garbia eta neri eskeñia izateko txit diña.

36. Eta guztia auts txit txean eotu ezker, jarriko dezu bertatik testimonioko tabernakuloaren aurrean, zeñ tokitan agertuko natzatzun. Txit santua izango da zuentzat lurrinkaia.

37. Alakorik ez dezute egingo zuen usantzetarako, zeren Jaunari kon-sagratutako gauza da.

38. Berdiñik egiten duen edozeñ gizon, berari usai egiteko, galdua izango da bere errietatikan.

OGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Ona non, autatuta dedan bere izenez Beseleel, Urien semea, Hurren illoba, Judako tribukoa,

3. Eta bete det Jaungoikoaren espirituz, jakinduriaz, eta adieraz, eta jakindez eskulan guztirako,

4. Asmatzeko egin al dezakean lan guztia urrearekin, eta zillarrarekin, eta kobrearekin,

5. Marmolarekin, eta arri baliotsuarekin, eta zur askorekin.

6. Eta eman zion laguntzat Ooliab Akisamet Dango tribukoaren semea. Eta jarri det jakinduria jakinti guztiaren biotzean, egin ditzaten agindu dizkizudan gauza guztiak,

7. Elkartasuneko tabernakuloa, eta testimonioko kutxa, eta bere gañean dagoan propizatorioa, eta tabernakuloko ontzi guztiak,

8. Eta maia, eta bere ontziak, kandelero txit garbia bere ontziakin, eta lurrinkaiaren aldareak,

9. Eta holokaustoarena, eta bere ontzi guztiak, urontzia bere onda-pearekin,

10. Soñeko santuak Aaron apaiz eta bere semeentzat lanean, beren lanetan ari ditezen gauza santuetan,

11. Unzioaren olio, eta aromaen lurrinkaiak santuarioan, egingo dituzte agindu dizkizudan gauza guztiak.

12. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

13. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu: Begira, gorde dezazutela nere larunbata, zeren da nere, eta zuen arteko señailea zuen gizaldietan; jakin dezazuten ni naizala santutzen zaituztedan Jauna.

14. Gorde ezazute nere larunbata, zeren santua da zuentzat; gaizki iragotzen duena, eriotzarekin kastigatua izango da, lanik bertan egiten duena, bere anima galduko da bere erriaren erditik.

15. Sei egunean ariko zerate lanean, zazpigarren egunean larunbata da, atsedean santua Jaunarentzat, egun onetan lanik egiten duen guztia, illko da.

16. Gorde bezate Israelko semeak larunbata, eta zelebratu bezate beren gizaldietan. Erabaki au betikoa da.

17. Nere, eta Israelko semeen artean, eta señaile iraunkorra, zeren sei egunean egin zituen Jaunak zerua eta lurra, eta zazpigarrenean etzuen lanik egin.

18. Eta bukatu onelako itzaldiak Sinaiko mendian eman ziozkan Jaunak Moisesi testimonioko bi olarrizkoak, eskribatuak Jaungoikoaren beatzarekin.

OGEITA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Baña ikusirik erriak berantzen zitzaiola Moisesi menditikan jatxitzea, bildurik Aaronen kontra, esan zuen: Jaiki zaitte, egin zazkiguzu, gure aurretik joango diraden jaungoikoak, zeren ez dakigu zer gertatu zaion Moisesi Ejiptoko lurretik atera giñituen gizon orri.

2. Eta esan zien Aaronek: Artu itzatzute urrezko zirzilluak zuen emazteen, eta semeen, eta alaben belarrietatik, eta ekarri zazkidazute.

3. Eta egin zituen erriak agindu zitzazkion gauzak, eramanik zirzilluak Aarongana.

4. Zeñak arturik berak, urtuerazi zituen, eta ustu molde baten, eta egin zuen berakin urrezko txal bat. Eta esan zuten: Israel, oiek dirade zure jaungoiko, atera zinduztenak Ejiptoko lurretik.

5. Ikusi zuenean au Aaronek, egin zuen aldare bat bere aurrean, eta deadar egin zuen pregoilariaren bozarekin esaten zuela: Biar Jaunaren jai andia da.



6. Eta goiz jaikitzen ziradela, eskeñi zituzten emaitzak, eta doaiñ paketsuak, eta eseri zan erria jateko, eta edateko, eta jaiki ziraden jostaztera.

7. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela: Zoaz, jaiki zaite; pekatu egin du, Ejiptoko lurretik atera zenduen zure erriak.

8. Laster alde egin dute, erakutsi ziñioten bidetik, eta egin dute txal bat gei urtuaz, eta adoratu dute, eta eskeñitzen diozkatela doaiñak, esan zuten: Oiek dirade Israel, zure Jaungoiko, atera zinduztenak Ejiptoko lurretik.

9. Eta berriz esan zion Jaunak Moisesi: ikusten det erri au lepo gogorreako dala:

10. Utzi zadazu, aserratu dedin nere sumindura beren kontra, eta desegin ditzadan, eta egingo zaitut erri andi baten zuzentzalle.

11. Baña Moisesek erregututzen zion bere Jaun Jainkoari, esaten zuela: Zergatik aserretzen da zure sumindura, sendotasun andiarekin, eta esku indartsuarekin Ejiptoko lurretik atera zenduen zure erriaren kontra?

12. Ez dezatela esan, erregututzen dizut, ejiptoarrak, Marroz atera ditu illtzeko mendietan, eta arras kentzeko lurretik; bigundu bedi zure aserrea, eta barka ezazu zure erriaren gaiztakeria.

13. Oroitu zaite zure serbitzari Abraham; Isaak, eta Israelekin, zeñai juramentu egin ziñien zu zerori gatik, esaten zenduela: Ugarituko det zuen jatorria zeruko izarrak bezela, eta emango diot zuen jatorriari lur guzti au, zeñ gatik itz egin dedan, eta izango da beti zuena.

14. Onenbesterekin bigundu zan Jauna, eta etzion eman bere erriari, esan zuen kastigua.

15. Eta itzuli zan Moises menditik, zeramazkiela bere eskuan testimonioko ol biak, eskribatuak aldamen bietatik,

16. Eta egiñak Jaungoikoaren lanaz, eta Jaungoikoaren eskritura zegoan itsatsia oletan.

17. Eta aditurik Josuek erriaren deadarra ari zanaren iskanbilla, esan zion Moisesi: Gudaren alarua aditzen da etzauntzetan.

18. Zeñak erantzun zuen: Ez da gudara elkar zirikatzen duten jendeen deadarra, ez iges erazitzen dutenen deadardia, baizik nik aditzen det kantarien boza.

19. Eta alderaturik etzauntzetara, ikusi zuen txala, eta dantzak, eta txit aserraturik, aurtiki zituen eskutik olak, eta zatitu zituen mendiaren ondoan.

20. Eta arrapaturik egin zuten txala, erre, eta puskatu zuen autseraño, zeñ zabaldu zuen urean, eta beratatik eman zien edaten Israelko semeai.

21. Eta esan zion Aaroni: Zer egin dizu erri onek, erakartzeko bere gañera pekatu txit andi bat?

22. Zeñi berak erantzun zion: Ez bedi aserratu nere Jauna, zeren zuk ezagutzen dezu erri au, nola dan griñatua gaitzera.

23. Esan zidaten: Egin zazkiguzu, gure aurretik joango diraden jaungoikoak, zeren ez dakigu zer gertatu zaion, Ejiptoko lurretik atera ginduzten Moises oni.

24. Zeñai nik esan nien: Zuetako zeñek du urrea? Ekarri zuten, eta eman zidaten, eta bota nuen sutara, eta atera zan txal au.

25. Ikusirik bada Moisesek billosik zegoala erria (zeren Aaronek utzi zuen ezer gabe loikeriaren lotsaria gatik, eta ipiñi zuen billosik etsaien artean),

26. Eta zegoala etzauntzetako atean, esan zuen: iñor baldin bada Jaunarena, bildu bedi nerekin. Eta bildu ziraden berarekin Lebiren seme guztiak:

27. Zeñai esan zien: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jaungoikoak: Jarri beza bakoitzak ezpata bere aldamenean, zoazte, eta itzuli zaitezte aterik ate etzauntzen erditik, eta ill beza bakoitzak bere anaia, eta adiskidea, eta lagun urkoa.

28. Eta egin zuten Lebiren semeak Moisesen itzaren araura, eta ill ziran egun artan ogeita iru milla gizon bezelaxe.

29. Eta esan zuen Moisesek: Gaur konsagratu diozkazute Jaunari zuen eskuak, bakoitzak bere semea eta anaia, argatik izango zerate bedeinkatuak.

30. Urrengo egunean esan zion Moisesek erriari: Egin dezute pekatu txit andi bat; igoko naiz Jaunagana, baldin nolabait ekarri al badezaket Jauna zuekin errukituztera.

31. Eta itzulirik Jaunagana, esan zuen: Aditu nazazu, erri onek egin du pekatu txit andi bat, eta egin dituzte berentzat urrezko jaungoikoak, edo barkatu zaiezu erru au,

32. Edo, egiten ez baldin badezu, borratu nazazu eskribatu dezun liburutikan.

33. Zeñi erantzun zion Jaunak: Bekatu egiten duena nere kontra, borratuko det nere liburutik:

34. Baña zu zoaz, eta eraman ezazu erri au, esan dizudan tokira, nere aingerua joango da zure aurretikan. Eta neronek bengantzako egunean kastigatuko det oraindikan, egin duten pekatu au.

35. Kastigatu zuen bada Jaunak erria, Aaronen egin zuen txalaren pekatua gatik.



OGEITA AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela: Zoaz, igo zaitetze toki onetatik zu, eta zure erri, Ejiptoko lurretikan atera zenduena, Abrahami, Isaaki, eta Jakobi juramentuarekin eskeñi nien lurrera, esaten nuela: Zure jatorriari emango diot:

2. Eta bidalduko det zure aurretikan aingeru bat, botatzeko neronek kananeoa, eta amorreoa, eta heteoa, eta ferezeoa, eta hebeoa, eta jebuseoa,

3. Eta sartu zaitezen, eznea, eta ezta darion lurrean, bada ez naiz igoko zurekin, zeren lepo gogorreko erria zera, ikusi ez nadin, zu bidean galtzeko premian.

4. Eta aditurik erriak izketa txit garratz au, negar egin zuen: eta etziuen iñork jantzi, oi zituen apaingarriak.

5. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Esan zaiezu Israelko semeai: Lepo gogorreko erria zera, bein agertzen banaiz zure erdian, desengingo zaitut. Orain utzi itzatzu zure apainduriak, jakin dezadan zer egingo dizudan.

6. Utzi zituzten bada Israelko semeak beren apainduriak Horebko menditikan.

7. Eta Moisesek kendurik tabernakuloa, zabaldu zuen urrutian etzauntzetatik kanpora, eta deitu zuen. Elkartasuneko Tabernakuloa; eta zerbaiten gañean ituntzeko premian arkitzen ziraden erriko guztiak, ateratzen ziraden Elkartasuneko Tabernakulora, etzauntzetatik kanpora.

8. Eta ateratzen zanean Moises tabernakulora, jaikitzen zan erri guztia, eta bakoitza zegoan zutik bere etzauntzaren atean, eta begiratzen zioten Moisesen bizkarrari etzauntzean sartzen zan arteraño.

9. Eta sartzen zaneko bera elkartasuneko Tabernakuloan, jatxitzen zan odeizko abe bat, eta gelditzen zan atean, eta itz egiten zuen Moisesekin,

10. Ikusten zutela guztiak nola odeizko abea zegoan Tabernakuloaren atean. Eta berak zeuden zutik, eta adoratzen zuten beren etzauntzen atetatik.

11. Eta itz egiten zion Jaunak Moisesi arpegiz arpegi, gizon batek itz egin oi dion bezela bere adiskideari.

Eta itzultzen zanean bera etzauntzetara, bere serbitzari Josue gazteak Nunen semeak etzuen alderik egiten etzauntzetik.

12. Eta esan zion Moisesek Jaunari: Agintzen didazu atera dezadala erri au, eta ez didazu erakusten zeñ bidalduko dezun nerekin batezere zuk

esan zenduan ezker. Ezagutzen zaitut izenetik, eta arkitu dezu grazia nere aurrean.

13. Baldin bada arkitu badet grazia zure aurrean, erakutsi zadazu zure arpegia, ezagutu zaitzadan, eta arkitu dezadan grazia zure begien aurrean, begiratu zaiozu zure erria dan erreñu oni.

14. Eta esan zuen Jaunak: Ni nerau joango naiz zure aurretik, eta emango dizut atsedena.

15. Eta esan zuen Moisesek: Zu zerori joaten ez baldin bazera aurretik, ez gaitzatu atera toki onetatik.

16. Zeren zertan jakin dezakegu nik eta nere erriak arkitu degula guk grazia zure aurrean, ibiltzen ez baldin bazera gurekin, lurraren gañean bizi diraden erri guztiak onratuak izan gaitezen?

17. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Esan dezun itz ori ere egingo det, zeren arkitu dezu grazia nere aurrean, eta zu zerori ezagutzen zaitut zure izenetik.

18. Zeñak esan zuen: Erakutsi zadazu zure gloria.

19. Erantzun zuen: Nik erakutsiko dizut on guzia, eta esango det Jaunaren izena zure aurrean, eta errukituko naiz nai dedanarekin, eta izango naiz biguña neri deritzadanarekin.

20. Eta berriz esan zuen: Ezin ikusiko dezu nere arpegia, zeren ez nau ikusiko gizonak, ill gabe.

21. Eta beste aldi baten: Ona, esan zuen, toki bat bada nere aldean, eta egongo zera arriaren gañean.

22. Eta iragotzen danean nere gloria, ipiñiko zaitut arriaren zuloan, eta estaliko det nere eskuiarekin, igaro nadin bitartean.

23. Eta kenduko det nere eskua, eta ikusiko dituzu nere bizkarrak, nere arpegia ordea ezin ikusiko dezu.

OGEITA AMALAU GARREN KAPITULUA

1. Eta gero esan zuen: Ebaki itzatzu arrizko bi ol lenbizikoak bezelakoak, eta eskribatuko ditut beren gañean, autsi zitiñtuen olak zituzten itzak.

2. Zaude gertua biarko, igo zaitezen bereala Sinaiko mendira, eta egongo zera nerekin mendiaren erpiñaren gañean.

3. Ez bedi iñor igo zurekin; ez bedi ere iñor ikusi mendi guztitik, beirik eta ardirik ere ez bedi bazkatu bere aurrean.

4. Ebaki zituen bada arrizko ol bi nolakoak, leen izan ziran, eta jai-kirik gauaz igo zan Sinaiko mendira Jaunak agindu zion bezela, zeramaz-kiala berarekin olak.



5. Eta jaxirik Jauna odei batean, egon zan Moises berarekin, deitzen ziola Jaunaren izenari.
6. Zeñ iragotzen zala bere aurretik, esan zuen: Jaun Jaungoiko Agintzallea, errukiorra eta biotzbera, sufritzallea, eta erruki askokoa, eta egitia.
7. Gordetzen dezuna errukia millentzat, kentzen dituzuna gaiztake-ria, eta biurrikeriak, eta pekatuak, eta zeñen aurrean ez dagoan berez obengaberik. Kastigatzen dezuna gurasoen gaiztake-ria semeetan, eta illo-
betan irugarren eta laugarren jatorrirraño.
8. Eta arin Moises, makurtu zan lurrera begira, eta adoratzten zuela.
9. Esan zuen: Jauna, arkitu baldin badet grazia zure aurrean, erregu-
tzen dizut, ibilli zaitezela gurekin (zeren lepo gogorreko erria da) eta bar-
katu ditzatzula gure gaiztake-ria eta pekatuak, eta gurekin jabetu zaitezela.
10. Erantzun zuen Jaunak: Nik egingo det elkartasuna guztien aurrean, egingo ditut, lurraren gañean, ez erreñu baten ere iñoiz egin ez diraden mirariak; ikusi dezan erri onek, zeñaen erdian zauden, egingo dedan, Jaunaren lan ikaragarria.
11. Gorde itzatzu gaur agintzen dizkizudan gauza guztiak. Nik nero-
nek aurtikiko ditut zure aurretikan amorreoa, eta kananeoa, eta heteoa, ferezeoa ere, eta hebeoa, eta jebuseoa.
12. Begira ezazu ez dezazula iñoiz iduki lur artan bizi diradenakin adiskidetasunik, zeren izango da zure galmenerako:
13. Baizik desegin itzatzu beren aldareak, urratu irudiak, ebaki baso-
ak:
14. Ez ezazu adoratu besteren Jaungoikorik. Jaunaren izena da zelo-
tsua; Jaungoikoa da zelotsua.
15. Etzaitz elkartu alderri artako gizonakin, beren Jaungoikoakin usteldu, eta beren irudiak adoratu ezkerro, norbaitek konbidatu etzaitzan gauza eskeñiak jatera.
16. Ez dezuz ere artuko beren alabetatik emazterik zure semeentzat; berak adoraturik gezurrezko jaungoikoak, gertatu ez dedin ekartzea zure semeak ere gezurrezko jaungoikoak adoratzera.
17. Ez dezuz egingo gauza urtuzko jaungoikorik.
18. Gordeko dezuz legami gabeen jai andia. Zazpi egunean jango dituzuz, legami gabeak, agindu dizudan bezela, frutu berrien illaren den-
boran, zeren udaberriko illean atera ziñan Ejiptotik.
19. Emasabela idikitzen duen ar guztia, nerea izango da; abere guz-
tietatikoa, naiz beietatikoa, naiz ardietatikoa, nerea izango da.

20. Astoaren lenbizisortua erosiko dezuz ardi batekin, eta ematen ez baldin badezuz beragatik balioa, illa izango da. Zure semeen lenbizisortua erosiko dezuz; etzara ere agertuko utsik nere aurrean.
21. Sei egunean ariko zera lanean, zazpigarren egunean ez dezuz gol-
deatuko, ez igitaituko.
22. Zelebratuko dezuz Pentekostesko jaiak, zure gari ebakiaren lenbi-
ziakin, eta beste jaiak, urtearen bukaeran guzia biltzen danean.
23. Urtearen iru denboratan presentatuko dirade zure gizaar guztiak, Israelko Jaun Jaungoiko guzialaren aurrean.
24. Zeren kentzen ditudanean zure aurretik erreinuak, eta zabaldu zure mugak, ez diozka iñork ipiñiko zelatak zure lurrari, igotzen zerala zu, eta agertzen zure Jaun Jaungoikoaren aurrean urtean iru aldiz.
25. Ez dezuz eskeñiko legamiarekin nere doaiñaren odola; ez da ere Paskoako emaitz ospetsuarenik geldituko biaramonerako.
26. Zure lurreko frutuen lenbiziaz eskeñiko dituzuz zure Jaun Jaun-
goikoaren etxean. Ez dezuz egosiko antxumea bere amaren eznean.
27. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Eskribatu itzatzuz zuretzat itz oiek, zeñakin egin det elkartasuna zurekin, eta Israelekin.
28. Egon zan bada an Jaunarekin berrogei egunean, eta berrogei gau-
tan, etzuzen jan ogirik, eta etzuzen edan urik, eta eskribatu zituen oletan elkartasuneko amar itzak.
29. Eta jatxitzen zala Moises Sinaiko menditik, zeramazkien testimo-
nioko ol biak, eta etzekien argitua zegoela bere arpegia Jaunaren itzaldia-
ren laguntasunarekin.
30. Eta ikusirik Aaronek eta Israelko semeak Moisesen arpegia argi-
tua, beldur ziran gertura alderatzen.
31. Baña izanik beronek deituak, itzuli ziraden, bai Aaron, eta bai sinagogako lenenak. Eta berai itz egin ezkerro,
32. Etorri ziraden beregana Israelko seme guztiak ere, zeñai agindu ziezen, Sinaiko mendian Jaunari aditu ziozkan gauza guztiak.
33. Eta bukaturik itzaldiak, jarri zuen estalki bat bere arpegiaren gañean.
34. Zeñ, sartzen zanean Jaunagana, eta berarekin izketan ari zanean, kentzen zuen atera artean, eta orduan esaten ziezen Israelko semeak, aginduak izan zitzaiozkan gauza guztiak.
35. Zeñak ikusten zuten argitua zegoela Moisesen arpegia ateratzen zanean, baña berak berriz estaltzen zuen bere arpegia, berai itz egiten zio-
tzen guztian.



OGEITA AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Bildurik bada Israelko semeen talde guztia, esan zien: Oiek dirade Jaunak egiteko agindu dituen gauzak.
2. Sei egunean ariko zerate lanean, zazpigarren eguna izango da zuentzat santua, larunbata, eta Jaunaren atsedena, beretan lanik egiten duena, illa izango da.
3. Ez dezute irazekiko surik zuen bizitoki guztietan larunbateko egunean.
4. Eta esan zion Moisesek Israelko semeen gizaldi guztiari: Au da Jaunak agindu duen itza, esaten duela:
5. Berezitu itzatzute zuen artean lenbiziak Jaunarentzat. Bakoitzak eskeñi bitzazkio Jaunari borondatez eta gogo onarekin: urrea eta zilarra, eta kobrea.
6. Jazintoa eta purpura, eta grana bi alditan ganbusia, eta liño fiña, eta auntzen illeak,
7. Eta arien larru lugorrituak, eta jazinto kolorezkoak, Setimgo zurak.
8. Eta olioia lanparak adereztzeko, eta okendua egiteko, eta lurrinkai txit gozoak,
9. Arri beltzurikak, eta beste arri baliotsuak sorbalda gañekoa eta bularrekoa apaintzeko.
10. Zuen artean jakintsua dan guztia, betor; eta egin beza Jaunak agindu duena:
11. Au da, tabernakulua, eta bere tellatua, eta estalkia, arraskak, eta oltzarrak zearkaiakin, estakak, eta ondapeak.
12. Kutxa eta bere zigorrak, propiziatorioa, eta bere aurrean zabal-tzen dan estalkia:
13. Maia bere zigorrakin eta ontziakin, eta proposizioko ogiak:
14. Kandeleroa lanparak sostentzeko, bere ontziak, eta kriselutxoak, eta olioia argiak iraun dezaten:
15. Lurrinkaiaren aldarea, eta bere zigorrak, eta unzioko olioia, eta aromazko lurrinkaia, estalkia tabernakuloaren atean,
16. Eskeñtzariaren aldarea, eta bere brontzezko saretxoa bere zigor eta pegarrarekin, urontzia eta bere ondopea.
17. Atariko kortiñak abe eta ondopeakin, estalkia atariaren atean,
18. Tabernakuloko eta atariko estakak beren sokakin:
19. Santuariko eliz lanetan erabilli oi diraden soñekoak, Aaron apaiz nagusiaren eta bere semeen jantziak, apaizen lanetan ari ditezten neretzat.
20. Eta aterarik Israelko semeen talde guztia Moisesen aurretik,

21. Eskeñi ziozkaten Jaunari, borondate txit arin eta onarekin lenbiziak, testimonioko tabernakuloko lana egiteko. Eliz lan eta soñeko santuetarako bear zan guztia.

22. Gizasemeak emakumeakin eman zituzten arraskak, eta zirzilluak, eraztunak eta eskuturkiak, urrezko ontzi guztiak ipiñiak izan ziraden berezian Jaunari eskeñtzeko.

23. Iñork baldin bazuen jazintorik, eta purpurarik eta bi alditan ganbusitako granarik, liño fiñik, eta auntzen illerik, arien larru lugorriturik, eta jazintozkorik,

24. Zillarrezko eta kobrezko metalik, eskeñi ziozkaten Jaunari, eta Setimgo zurak usu askotarako.

25. Baita ere iruñ zuten emakume jakintsuak, eman zituzten jazintoa, purpura, eta eskarlata, eta liño fiña,

26. Eta auntzen illeak, beren borondatez ematen zutela guztia.

27. Eta Prinzipeak eskeñi zituzten beltzurien arriak eta beste arri baliotsuak sorbalda gañeko, eta bularrerako,

28. Eta aromak, eta olioia lanparak adereztzeko, eta okendua prestatzeko, eta egiteko usai txit gozoko lurrinkaia.

29. Gizaseme eta emakume guztiak gogo onarekin eskeñi zituzten doaiñak egiteko Moisesen eskuz Jaunak agindu zituen lanak Israelko seme guztiak konsagratu ziozkaten Jaunari borondatezko gauzak.

30. Eta esan zien Moisesek Israelko semeai: Begira, nola otsegin dion Jaunak bere izenez Beseleel Urien Hurren semearen seme, Judako tribukoari.

31. Eta bete du Jaungoikoaren espirituz, jakindeaz, adieraz zintzoe-raz, eta gaikera guztiaz,

32. Asmatu eta egiteko lanak urrean, eta zillarrean, eta brontzean,

33. Eta otallutzeko arrietan, eta arozkintzako lanetan artez asmatu al dezakean guztia,

34. Jarri du bere biotzean, eta berebat Ooliab Akisameken semea Dango tribukoa:

35. Biak argitu zituen jakinduriaz, egiteko lanak zurean, kolore askotako oialetan, jazintozko, eta purpurazko, eta bi alditan ganbusitako grana, eta liño fiñezko bordatuetan, eta eo ditzaten gauza guztiak, eta asmatu edozeñ berri.

OGEITA AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Egin zituzten bada Beselelek, eta Ooliabek, eta Jaunak jakinduria eta adimentua eman zion gizon jakintsu guztiak, jakiteko artez lanean pre-



miazkoak diraden gauzak santuarioko usuetarako eta Jaunak agindu zituenak.

2. Eta otsegiñik Moisesek berai, eta Jaunak jakinduria eman zion gizon aditu guztiari, eta beren borondatez eskeñi ziradenai lana egiteko,

3. Eman ziozkaten Israelko semeen eskeñtzari guztiak. Zeñak ari ziradela gogotikan lanean, erriak eskeñtzen zituen egunero goizetik doaiñak.

4. Argatik langilleak etortzera bearturik,

5. Esan zioten Moisesi: Erriak eskeñtzen du bear dan baño geiago.

6. Agindu zuen bada Moisesek adirazteko pregoiaren bitartez. Ez gizasemek, ez emakumek eskeñi dezala ezer emendikan aurrera santuarioko lanerako. Eta onela utzi zitzaioten doaiñak eskeñtzeari,

7. Eskeñiak asko eta geiegi ziradelako.

8. Tabernakuloko lanetarako gizon gai eta jakintsu guztiak bada, egin zituzten amar errezel liño fiñ biurtuzko, eta jazintozko, eta purpurazko, eta bi alditan ganbusitako granazko, lan, eta bordatu mot askorekin.

9. Beretako bakoitzak zeuzkan luzeeran ogei ta zortzi beso, eta zabaleran lau. Bat bera zan errezel guztien neurria.

10. Eta batu zituen bost errezel bata besteari, eta beste bostak ere elkartu zituen beren artean.

11. Egin ere zituen euskarri jazintozkoak errezel bataren ertzean aldamen bietatik, eta berebat beste errezelaren ertzean,

12. Euskarriak etorri zitezen bata bestearen aurrean, eta itsasteko elkarri.

13. Artarako egin zituen berrogeita amar eraztun urrezko, beretan katigatzeko errezelen euskarriak, eta onela gelditu zedin egiñik etzauntz bakar bat.

14. Egin ere zituen amaika estalki auntzen illezko, etzauntzaren tellatua estalitzeko.

15. Estalki bakoitzak zituen luzeeran ogei ta amar beso, eta zabaleran lau beso, neurri batekoak ziraden estalki guztiak:

16. Zeñatetik bost elkartu zituen apartean, eta beste seiak berezian.

17. Eta egin zituen berrogei ta amar euskarri estalki bataren ertzean, eta berrogei ta amar beste estalkiaren ertzean, bata besteari elkartzeko.

18. Eta berrogei ta amar ebilla brontzeko berakin itsasteko tellatua, estalki guztiakin bat egiteko.

19. Egin ere zuen etzauntzaren estalkia arien larru lugorrituakin, eta gañean beste estalki bat jazintozko larruakin.

20. Berebat egin zituen Setimgo zurakin tabernakuloko ol zuzenak.

21. Amar besokoa zan ol bakoitzaren luzeera, eta beso bat eta erdi zituen zabalerak.

22. Bi lotugarri zeuden ol bakoitzean bata bestarekin katigatzeko. Eta berebat egin zuen tabernakuloko ol guztietan.

23. Oietatik ogei zeuden eguerdi aldamen, egoera begira dagoanean,

24. Berrogei urrezko ondaperekin. Jartzen ziraden bi ondape ol bakoitzaren azpian beren egi bietan, non bukatzen diran aldamenetako lotugarriak egietan.

25. Eta Ifarrera begira dagoen tabernakuloaren aldamenera ere, egin zituen ogei ol,

26. Berrogei urrezko ondaperekin, bi ondape ol bakoitzarentzat.

27. Eta sartalderontz, au da, itsasora begira dagoan tabernakuloaren aldamerontz, egin zituen sei ol,

28. Eta beste bi, tabernakuloaren osteko eskina bakoitzarentzat:

29. Zeñak zeuden elkaturik beetik gora, eta elkaturik zetoztzen gorputz bat egitera. Ala egin zuen eskiñetan aldamen bietatik:

30. Alako moduan non, guztiak elkaturik ziran zortzi ol, eta zeuzkaten amasei urrezko ondape, au da, bi ondape ol bakoitzaren azpian.

31. Egin ere zituen zearkaiak Setimgo zurakin, bost idukitzeko sendo elkaturik olak tabernakuloaren aldamen batean,

32. Eta beste bost idukitzeko sendo elkaturik beste aldamenekoak, eta oiez gañera beste bost zearkai tabernakuloaren sartaldeko aldamenean itsasorontz.

33. Egin ere zuen beste zearkai bat, olen erditik eskiña batetik bestera allegatzen zana.

34. Olezko pareta oiek berok estali zituen urrezko plantxakin, urtuta egiñik bere zillarrezko ondapeak. Egin ere zituen bere arraskak urrezkoak, zeñatetik zearkaiak irago al zezaten, zeñak ere estali zituen urrezko plantxakin.

35. Egin ere zuen estalkia jazintozkoa, eta purpurazkoa, granazkoa, eta liño fiñ biurtuzkoa, kolore nabar, eta gainlora askorekin eoa:

36. Eta lau abe Setimgo zurakin, zeñak beren erpiñakin urrez estali zituen, egiñik beren ondapeak urrearekin.

37. Egin ere zuen tabernakuloaren sarreran estalki bat jazintozkoa, purpurazkoa, granazkoa, eta liño fiñ biurtuzkoa, bordatulariaren lanaz:

38. Eta bost abe beren erpiñakin zeñak estali zituen urrez, eta beren ondapeak egin zituen brontzekoak.



OGEITA AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta egin ere zuen Beseleleek kutxa Setimgo zurakin, zituena bi beso eta erdi luzeeran, eta beso bat eta erdi zabaleran, eta altura ere zan beso bat eta erdikoa, eta estali zuen urre txit garbiz barrendik eta kanpo-tik.
2. Eta egin zion urrezko koroï bat inguruan,
3. Eta bere lau eskiñetan ipiñi zituen lau arrazka, urre urtuarekin egiñak.
4. Berebat egin zituen zigor batzuek Setimgo zurakin, zeñak urrez estali zituen.
5. Eta zeñak sartu zituen, kutxaren aldamenetan zeuden arrasketatik eramateko kutxa.
6. Egin ere zuen propiziatorioa, au da, orakuloa, urre txit garbizkoa, bi beso eta erdikoa luzeeran, eta beso bat eta erdikoa zabaleran.
7. Baitaere bi Kerubin malluz landutako urrearekin, zeñak ipiñi zituen propiziatorioaren aldamen bietan:
8. Kerubin bat aldamen bataren atzenean, eta beste Kerubiña beste aldamenaren atzenean, Kerubin bi propiziatorioaren atzenik altuen bietan,
9. Zabaltzen zituztela egoak, eta estaltzen zutela propiziatorioa, eta elkarri eta ari begira.
10. Egin ere zuen mai bat Setimgo zurakin, luzeeran bi besokoa, eta zabaleran beso batekoa, zeñak zuen alturan beso bat eta erdi:
11. Eta estali zuen urre txit garbiz, eta egin zion urrezko arpaiñ bat inguruan,
12. Eta arpaiñari berari urrezko koroï otallutu bat lau beatzekoa, eta beraren gañean, beste urrezko koroï bat.
13. Urtu eta egin ere zituen urrezko arraskak, zeñak ipiñi zituen lau eskiñetan, maiaren oñ bakoitzean
14. Koroïaren aurrean, eta sartu zituen beretatik zigorrak, eramana izan dezakean maia.
15. Zigorrak berak ere egin zituen Setimgo zurakin, eta urrez estali zituen.
16. Eta ontziak maiko usu askotarako, katilluak, edontziak eta kopak, eta inzensoario urre garbizkoak, zeñetan eskeñiak izango dirade doaiñak.
17. Egin ere zuen urre txit garbizko kandelero bat malluz landua. Zeñaen kirtenetik ateratzen ziraden besoak, kopak, eta bolatxoak, eta liriok:
18. Sei aldamen bietan, iru beso aldamen batetik, eta iru bestetik:

19. Iru kopa intxaurren gisara beso bakoitzean, eta berebat bolatxoak eta liriok; eta iru kopa intxaurren gisara beste besoan, eta berebat bolatxoak eta liriok. Berdiña zan bi besoen lana, zeñak ateratzen ziraden kandeleroaren ondotik.

20. Eta kirtenean bertan zeuden lau kopa intxaurren gisara, eta berebat bakoitzari laguntzen zioten bolatxoak eta liriok:

21. Eta bolatxoak beso bien azpian iru tokitan, zeñak elkaturik dirade sei beso ateratzen ziradenak kirten bakar batetik.

22. Eta bolatxoak bada, eta besoak beratatik ateratzen ziraden guztia-kiak ziraden urre txit garbizkoak, malluz egiñak.

23. Egin ere zituen urre txit garbizko zazpi kriselutxo beren desba-billakiaikin, eta ontziak itzaltzeko desbabillatzen dana.

24. Urezko talentu bat pisatzen zuen kandeleroak bere ontzi guztia-kin.

25. Egin ere zuen lurrinkaiaren aldarea Setimgo zurakin, zuena lau-kiari beso bat, eta alturan bi zeñen eskiñetatik ateratzen ziraden puntak.

26. Eta estali zuen urre txit garbiz sare, eta pareta eta puntakin

27. Eta egin zion urrezko koroï bat inguruan, eta urrezko arraska bi koroïaren azpian aldamen bakoitzetik, sartzeko beretatik zigorrak, eta eramana izan dezakean aldarea.

28. Eta zigorrak berak egin zituen Setimgo zurakin, eta estali zituen urrezko plantxakin.

29. Konpondu ere zuen olio santutasuneko okendurako, eta lurrin-kaia usairik gozoenakin, lurringillearen lanaren araura.

OGEITA EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Egin ere zuen holokaustoko aldarea Setimgo zurakin, bost besokoa laukian, eta irukoa alturan:

2. Zeñen puntak ateratzen ziraden eskiñetatik, eta estali zuen brontzezko plantxakin.

3. Eta bere usuetarako prestatu zituen kobrezko ontzi asko, pertzak, kurrikak, garrangaziak, kakoak, eta brasontziak.

4. Eta bere erreja sarearen gisara egin zuen brontzezkoa, eta bere azpian aldarearen erdian sutegia,

5. Egiñik lau arraska errejaren lau altzoetako atzenetan sartzeko zigorrak eta eramateko:

6. Zeñak berak ere egin zituen Setimgo zurakin, eta estali zituen brontzezko plantxakin:



7. Eta sartu zituen aldarearen aldamenetan ateratzen ziraden arras-ketatik. Aldarea bera berriz etzan barren betea, baizik olezkoa artoa, eta barrendik utsa.

8. Egin ere zuen brontzezko bañutoki bat bere ondapearekin, tabernakuloaren atean begirian egon oi ziraden emakumeen ispilluakin.

9. Ataria ere egin zuen, zeñaen egoeko aldamenean zeuden lino fiñ biurtuzko errezelak, eun besokoak,

10. Ogei abe brontzezko beren ondapeakin, abeen buruak, eta lanaren moldeera guztia zan zillarrezkoa.

11. Berebat Ifarraren aldameneko errezelak, abeak eta ondapeak, eta abeen buruak ziran neurri, lan, eta menasta beratakoak.

12. Sartaldera begiratzan duen aldamenean berriz, baziraden berrogei ta amar besoko kortiñak, amar abe beren brontzezko ondapeakin, eta abeen erpiñak, eta lanaren moldeera guztia, zillarrezkoa.

13. Gañera sortaldearen aurrean ipiñi zituen berrogei ta amar besoko errezelak.

14. Zeñakin amabost besoko tokian zegoan beteta aldamen bat iru abe eta beren ondapeakin.

15. Eta beste aldamenean, (bien artean egin zuelako tabernakuloko sarrera) berebat zeuden errezelak amabost besoko tokian, eta iru abe, eta beste ainbeste ondape.

16. Atariko errezel guztiak, liño fiñ biurtuarekin zeuden eoak.

17. Abeen ondapeak izan ziraden brontzezkoak, eta beren erpiñak beren moldeera guztiakin zillarrezkoak: baitaere atariko abeak jantzi zituen zillarrez.

18. Eta bere sarreran egin zuen estalki bat bordatua jazintoz, purpuraz, eskarlataz, eta liño fiñ biurtuz, zeñak zituen ogei beso luzeeran, altura berriz bost besokoa zan, atariko errezel guztiak zeuzkaten neurriaren araura.

19. Eta sarreran zeuden lau abe beren ondapeakin, eta beren erpiñak, eta moldaerak zillarrezkoak.

20. Tabernakuloko eta atariko estakak ere egin zituen brontzezkoak inguruan.

21. Oiek dirade testimonioko tabernakuloko usubarrak, zeñak izan ziraden kontatuak Moisesek agindu zuen bezela Lebiten lanetarako, Itamar Aaronen seme apaizaren eskuz:

22. Zeñak bukatu zituen Beseleel Uriren Hurren semearen semeak, Judako tribukoak, Jaunak agintzen ziola Moisesen bitartez.

23. Arturik beretzat laguntzat Ooliab Akisameken semea Dango tribukoa, zeñ ere izan zan langille txit ederra zuretan, eta bordatuetan, eta gañak loratzen jazintuan, purpuran, eskarlatan, eta liño fiñean.

24. Santuarioko lanean gastatu zan urre guztia, eta doaiñetan eskeñia izan zana, ogei ta bederatzi talento eta zazpireun eta ogei ta amar siklo izan zan, Satuarioko neurrian.

25. Eta eskeñi zuten kontatuak izatera irago ziraden ogei urtez gorakoak, seireun eta iru milla, eta bosteun eta berrogei ta amar armako gizonetatik

26. Egon ziraden gañera eun talento zillar, zeñatetik egiñak izan ziraden santuarioa, eta sarrerako ondapeak, non dagoan esekita estalkia.

27. Eun ondape egin ziraden eun talenturekin kontaturik, talentu bat ondape bakoitza gatik.

28. Eta milla zazpieun, eta irurogei ta amabostetik, egin zituen abeen erpiñak, zeñak berak ere zillarrez jantzi zituen.

29. Eskeñiak ere izan ziraden bi milla eta irurogei ta amar talentu kobrezko, eta gañera laureun siklo,

30. Zeñakin egin ziraden ondapeak testimonioko tabernakuloko sarreran, eta brontzezko aldarea bere keretarekin, eta bere usuari dagozkion ontzi guztiak,

OGEITA EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta jazintoarekin eta purpurarekin, eta eskarlatarekin eta liño fiñarekin egin zituen soñekoak, zeñakin jantziko zan Aaron ari zanean lan santuetan, Jaunak Moisesi agindu zion bezela.

2. Egin zuen bada sorbalda gañekoa urrearekin, jazintoarekin, eta purpurarekin, eta bi alditan ganbusitako granarekin, eta liño fiñ biurtuarekin,

3. Kolore askoz eoak, eta ebaki zituen urrezko ostoak, eta meetu zituen arietan, biurtu zitzatekean lenbiziko koloreen irazkaiarekin,

4. Eta bi ertz apaindu bata besteari elkartuak, altuen aldamen bietan,

5. Eta kolore beretako gerrikoa, agindu zion bezela Jaunak Moisesi.

6. Prestatu ere zituen bi arri beltzurika, itsatsiak eta sartuak urrean, eta ipiñiak beretan artisjakiñaren lanaren araura, Israelko semeen izenak.

7. Eta jarri zituen sorbalda gañekoaren aldamenetan Israelko semeen oroipengarriztat, agindu zion bezela Jaunak Moisesi.

8. Egin ere zuen bularrekoa, kolore askotako lana, sorbalda gañekoaren gisara urrearekin, jazintoarekin, purpurarekin, eta bi alditan ganbusitako granarekin, eta liño fiñ biurtuarekin:



9. Laukia, birritan ainbat, arra baten neurrikoa.
10. Eta ipiñi zituen bertan arri baliotsuzko lau errenkada. Lenengo errenkadan zegoan sardioa, topazioa, esmeralda.
11. Bigarrenean, karbunkloa, zafiroa, eta jaspea.
12. Irugarrenean, ligurioa, agata, ametistoa.
13. Laugarrenean, krisolitoa, onixa, eta beriloa, inguruturik eta sarturik urrean beren errenkadetan.
14. Eta amabi arri beretan zeuden itsatsiak Israelko amabi tribuen izenak, arri bakoitzean bere izena.
15. Egin ere zituzten bularreko jantzian urre txit garbizko katetxo batzuek, elkar bata bestearekin itsatsiak:
16. Eta bi kortxeta, eta beste ainbeste urrezko eraztun. Gañera jarri zituzten eraztunak bularreko jantziaren bi aldamenetan,
17. Zeñatik egongo ziraden zinzilika isekirik bi urrezko kate, zeñak sartu zituzten, sorbaldagañekoaren egitan ateratzen ziraden kortxetetan.
18. Gauza oiek aurretik eta ostetik ain egoki zetozten non, sorbalda gañekoa eta bularrekoa elkarri lotzen zitzaizkian,
19. Gerrikoari doiturik, eta sendoago baturik eraztunakin, zeñak zeuden lotuta listoi batekin, lasaituta erori etzitezen, eta berezitu zitezen bata besteagandik, Jaunak Moisesi agindu zion bezela.
20. Berebat egin zuten sorbalden gañeko tunika, guztia jazintozkoa,
21. Eta buruzulo bat goiko aldamenean erdirontz, eta ertz apaindu eo bat buruzuloaren inguruan:
22. Eta bean oñetarontz granada batzuek jazintozkoak, purpurazkoak, eskarlatazkoak, eta liño fiñ biurtuzkoak:
23. Eta urre garbizko eskilatxoak, zeñak jarri zituzten granaden artean, tunikaren beeko aldamenaren inguruan,
24. Urrezko eskillatxo bat, eta granada bat, zeñakin apainduta zebillan apaiznagusia bere lanean ari zanean, Jaunak Moisesi agindu zion bezela.
25. Egin ere zituzten Aaron eta bere semeentzat liño fiñarekin eotako tuniak:
26. Eta liño fiñezko buru txapelak beren koroitxoekin:
27. Eta liño fiñezko galtxuriak ere:
28. Baña gerrikoa liño fiñ biurtuzkoa, jazintozkoa, purpurazkoa, eta bi alditan ganbusitako granazkoa, gainlora askorekin, Jaunak Moisesi agindu zion bezela.
29. Egin ere zuten benerazio sagraduko plantxa urre txit garbizkoa, eta eskribatu zuten bertan artisjakiñaren eskuz, Jaunaren Santutasuna:

30. Eta estutua jarri zuten buru txapelari jazintozko listoi batekin, Jaunak Moisesi agindu zion bezela.
 31. Bukatua izan zan tabernakuloko, eta testimonioko tellatuko lan guztia, eta egin zituzten Israelko semeak, Jaunak Moisesi agindu ziozkan gauza guztiak.
 32. Eta eskeñi zuten tabernakulua, eta tellatua, eta usubear guztiak, eraztunak, olak, zigorrak, abeak, eta ondapeak,
 33. Estalki ari-larru lugorrituzkoa, eta beste estalki bat jazintozko larruzkoa,
 34. Beloa, kutxa, zigorrak, eta propiziatorioa,
 35. Maia bere ontziakin, eta proposizioko ogiakin:
 36. Kandeleroa, kriselutxoak, eta beren usubearrak olioarekin.
 37. Urrezko aldarea, eta okendua, eta aromazko lurrinkaia:
 38. Eta beloa tabernakuloko sarreran,
 39. Brontzezko aldarea, erreja, zigorrak, eta bere ontzi guztiak; bañutokia bere ondapearekin, atariko errezelak eta abeak beren ondapeakin:
 40. Beloa atariko sarreran, eta bere lokarriak, eta estakak. Etzan faltatu, tabernakuloko lanerako eta elkartasuneko tellaturako egiteko agindu zan ontzirik.
 41. Santuarioan apaizak usatzen dituzten soñekoak ere, au da, Aaronek eta bere semeak,
 42. Eskeñi zituzten Israelko semeak, Jaunak agindu zuen bezela.
 43. Zeñak, ikusi zituenean Moisesek bukaturik guztiak, bedeinkatu zituen.
- BERROGEIGARREN KAPITULUA**
1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
 2. Lenbiziko illean, illaren lenbiziko egunean, altxatuko dezu testimonioko tabernakulua,
 3. Eta jarriko dezu bertan kutxa, eta utziko diozu erortzen beloari bere aurrean:
 4. Eta sarturik maia, jarriko dituzu bere gañean beren errenkan agindu diraden gauzak.
 5. Eta urrezko aldarea zeñean erretzen dan inzensoa, testimonioko kutxaren aurrean. Jarriko dezu beloa tabernakuloaren sarreran,
 6. Eta bere aurrean holokaustoaren aldarea:
 7. Bañutokia aldarearen eta tabernakuloaren bitartean, zeñ beteko dezun urez.
 8. Eta inguratuko dituzu kortiñakin ataria, eta bere sarrera.



9. Eta arturik unzioko olioa unjitzuko dezu tabernakuloa bere ontzia-kin, santutuak izan ditezen:
10. Holokaustoaren aldarea eta bere ontzi guztiak:
11. Bañutokia, bere ondapearekin, guztia konsagratuko dezu unzioko olioarekin, guztia izan dedin gauza txit santua.
12. Eta alderatuko dituzu Aaron eta bere semeak testimonioko tabernakuloko atetara, eta garbitu ezkerro urarekin,
13. Jantziko dituzu soñeko santuakin, ni serbitu naitzaten, eta beren unzioak balio izan dezan betiko apaiztasunerako.
14. Eta egin zituen Moisesek, Jaunak agindu ziozkan gauza guztiak.
15. Ala bada bigarren urteko lenbiziko illean, illaren lenbiziko egunean, izan zan jarria tabernakuloa.
16. Zeñ altxatu zuen Moisesek ipiñirik olak, eta ondapeak, eta zear-kaiak, eta jarririk abeak.
17. Eta zabaldurik estalkia tabernakuloaren gañean, jarririk gañean beste estalkiak, Jaunak agindua zuen bezela.
18. Jarri ere zuen testimonioa kutxan, sarturik azpitikan zigorrak, eta goian orakuloa.
19. Eta sartu zuenean kutxa tabernakuloan, eseki zuen beloa bere aurrean betetzeko Jaunaren agintea.
20. Jarri ere zuen maia testimonioko tabernakuloan Ifarreko aldame-
nean belotik kanpora,
21. Jarririk aurrean errenkan proposizioko ogiak, Jaunak Moisesi agindu zion bezela.
22. Jarri ere zuen kandeleroa testimonioko tabernakuloan, egoeko aldamenean, maiaren aurkez,
23. Jarririk errenkan lanparak, Jaunaren aginduaren araura.
24. Jarri ere zuen urrezko aldarea testimonioko estalkiaren aurrean, beloaren aurkez,
25. Eta erre zuen bere gañean aromaen inzensoa, Jaunak Moisesi agindu zion bezela.
26. Jarri ere zuen beloa testimonioko tabernakuloaren sarreran,
27. Eta holokaustoko aldarea testimonioko atarian, eskeñtzen zitue-
la bertan holokaustoak, eta emaitzak, Jaunak agindu zuen bezela.
28. Jarri ere zuen bañutokia testimonioko tabernakuloaren, eta alda-
rearen bitartean, urez betetzen zuela.
29. Eta garbitu zituzten Moisesek, eta Aaronek, eta bere semeak beren eskuak eta oñak.

30. Sartzen ziraden denboran elkartasuneko tabernakuloan, eta alde-
ratzen ziradenean aldarera, Jaunak Moisesi agindu zion bezela.
31. Egin ere zuen ataria tabernakuloaren eta aldarearen inguruan, jarririk beloa bere sarreran. Egiñak izan ziraden ezkerro gauza guzti oiek,
32. Estali zuen odei batek testimonioko tabernakuloa, eta Jaunaren gloriak bete zuen.
33. Eta ezin sartu zezakean Moises elkartasuneko tabernakuloan, odeiak guztia estalitzen zuela, eta Jaunaren anditasunak argi egiten zuela, zeren odeiak guztia estali zuen.
34. Odeiak tabernakulotik alde egiten zuen guztian eta beti, joaten ziraden Israelko semeak beren taldetan:
35. Odeia jartzen baldin bazan geldirik gañean, berak ere egoten ziran geldirik leku beratan.
36. Zeren Jaunaren odeia zegoan tabernakuloaren gañean egunaz, eta gauaz su bat, ikusten zituztela Israelko erri guztiak, beren egotaldi guztietan.



LEBITIKOKO LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Eta otsegin zion Jaunak Moisesi, eta itz egin zion testimonioko tabernakulotik, esaten zuela:
 2. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu: zuetako gizona eskeintzen diona Jaunari doia aberetatik, au da, eskeintzen dizkiona doiaik beietatik edo ardietatik;
 3. Bere eskeñia balitz guzia erretzen dana, eta bei taldekoa, eskeñiko du ar errenkura gabe bat testimonioko tabernakuloko atean ematzeko beretzat Jauna:
 4. Eta jarriko du eskua doaiaren buruaren gañean, eta izango da Jaunaren gogokoa eta mesedegarria bera garbitzeko.
 5. Eta illko du txal bat Jaunaren aurrean, eta Aaronen seme apaizak eskeñiko dute bere odola, isurtzen dutela, tabernakuloaren atearen aurrean dagoan aldarearen inguruan.
 6. Eta kendurik larrua abillari, ebakiko dituzte zatietan bizakaiak.
 7. Eta jarriko dute sua aldarearen azpian, ipiñita lendanaz egur mon-toia.
 8. Eta jarriko gañean errenkan, ebakiak izan diraden gorputz zatiak, au da, burua eta gibelari itsasita dauden gauza guztiak.
 9. Garbiturik urarekin esteak eta oñak, eta erreko ditu apaizak aldarearen gañean, egiteko Jaunari usai gozoko eskeñia.
 10. Baña eskeintza balitz giberrietakoa, ardietakoa edo auntzetakoa, eskeñiko du mantxa gabeko arra:
 11. Eta illko du Ifarrerontz begira dagoan aldarearen aldean, eta Aaronen semeak isuriko dute bere odola inguruan aldarearen gañean:
 12. Eta ebakiko dituzte gorputz zatiak, burua, eta gibelari itsasia dagoan guztia, eta jarriko dute egurraren gañean, zeñi azpian sua ipiñiko zaio:
 13. Eta urarekin garbituko dituzte esteak eta oñak. Eta apaizak erreko du eskeñi guztia aldarearen gañean, egiteko Jaunari usai txit gozoko eskeintzari bat.
 14. Baña Jaunari egindako guztia erretako eskeintzaria balitz egaztie-na, usatortolena, edo usakumeena,

15. Eskeñiko du apaizak aldarearen gañean eta txit biurturik burua lepora, eta idikirik zauriaren tokia, korrika joan eraziko dio odolari aldarearen ertzera:

16. Baña aurtikiko ditu zinturreko bisigatxoak, lumak aldarearen aldean sartaldeko aldamenen, autsak bota oi diraden tokian,

17. Eta autsiko diozka bere egoak, baña ez du ebakiko, ez eta ere berezituko ganibetarekin, eta erreko du aldarearen gañean, jarriko sua egurren azpian. Da au, guztia erretzen dan eskeintza, usai txit gozokoa Jaunarentzat.

BIGARREN KAPITULUA

1. Anima batek egiten dionean Jaunari eskeintzaren doia, bere emaitza izango da iriñ lorea, eta isuriko du bere gañean olioak, eta ipiñiko du inzensoa,

2. Eta eramango du Aaronen seme apaizakgana, zeñatetik batek artuko du eskua bete iriñ lora, eta inzenso guztia, eta ipiñiko du oroipengarriztat aldarearen gañean, eta izan dedin usai txit gozokoa Jaunarentzat.

3. Eta sakrifiziotik sobratzen dana, izango da Aaron eta bere semeena, gauza txit santua Jaunaren doiaetatik.

4. Baña eskeintzen dezunean labeen egositako gauzaren baten doia, iriñlorea, au da, ogi legamigabeak, olioarekin orratuak, lasaña legamigabeak olioarekin gantzutuak,

5. Zure eskeintzaria balitz zartagikoa, iriñ lora olioarekin orratua, eta legami gabea,

6. Puskatuko dezu txero, eta isuriko dezu olioak bere gañean.

7. Eta baldin eskeintzaria balitza trillakoa, berebat orratuko da iriñ lorea olioarekin:

8. Zeñ eskeintzen diozula Jaunari, jarriko dezu apaizaren eskuetan.

9. Zeñak eskeñi ezkerro bera, artuko du eskeintzaritik oroipengarriztat, eta erreko du aldarearen gañean Jaunak usai gozokoa izan dezan:

10. Eta sobratzen dan guztia izango da Aaronena eta bere semeena, Jaunaren eskeintzetatik gauza txit santua.

11. Jaunari eskeintzen zaion doai guztia, egingo da legami gabe, etzaio ere erreko eskeintzarian Jaunari legamiaren eta eztiaren kemetzik.

12. Gauza oien primiziak bakarrik eskeñiko dituzute, eta doiaik, ez dirade ordea ipiñiko aldarearen gañean usai gozokoa botatzeko.

13. Doiaztat eskeintzen dezun guztiari, gata emango diozu, eta ez dezu kenduko zure Jaungoikoaren elkartasuneko gata, zure doiaetik. Zure emaitz guztian eskeñiko dezu gata.



14. Eta baldin eskeñiko baziño Jaunari zure lenbiziko frutuen doaia, oraindikan berdeak dauden galburuetatik, txigortuko dituzu suan, eta txeatuko dezu galtxuriaren gisara, eta onela eskeñiko diozkatzu Jaunari zure lenbiziak,

15. Isuririk beren gañean olioia, eta ipiñirik inzensoa, Jaunaren eskeintzaria dalako.

16. Zeñatetik erreko du apaizak doaiaren oroipengarriztat ale txeatuaren, eta olioaren zati bat eta inzenso guztia.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta baldin bere eskeintzaria balitza paketsuen doaia, eta naiko balu eskeñi, idiar aberetatik, eskeñiko du Jaunaren aurrean, ar edo eme mantxa gabea.

2. Eta jarriko du eskua bere eskeintzaren buruaren gañean, zeñ illa izango da testimonioko tabernakuloaren sarreran, eta Aaronen seme apaizak isuriko dute odola aldarearen inguruan.

3. Eta eskeñiko dute paketsuen doaitik ofrendatzat Jaunarentzat, erraiak estaltzen dituen seboa, eta barrenen dan gantz guztia:

4. Guntzurrun biak, saiespeak estaltzen dituen seboarekin, eta gibelaren saretxoa guntzurruntoakin.

5. Eta erreko dituzte guztiz aldarearen gañean, ipiñirik sua egurren azpian, usai txit gozoaren doaitzat Jaunarentzat.

6. Baña baldin bere eskeintzari eta paketsuen doaña balitz ardietaikoa, naiz eskeñi dezala arra, naiz emea, mantxa gabeak izango dirade.

7. Eskeñiko baldin balu arkume bat Jaunaren aurrean,

8. Jarriko du bere eskua bere eskeintzaren buruaren gañean, zeñ izango da illa testimonioko tabernakuloaren sarreran, eta Aaronen semeak isuriko dute bere odola aldarearen inguruan.

9. Eta eskeñiko diote doaitzat Jaunari paketsuen ofrendatik, seboa eta bustan guztia.

10. Guntzurrunakin, eta sabela eta errai guztiak estaltzen dituen baresarearekin, eta guntzurrunto biak saiespearen aurrean dagoan seboarekin, eta gibelaren saretxoa guntzurruntoakin.

11. Eta erreko ditu apaizak aldarearen gañean suaren gaitzat, eta Jaunaren eskeintzariztat.

12. Bere eskeintzaria baldin balitz auntza, eta eskeñiko balio Jaunari,

13. Jarriko du bere eskua bere buruaren gañean, eta illko du testimonioko tabernakuloaren sarreran. Eta Aaronen semeak isuriko dute bere odola aldarearen inguruan.

14. Eta artuko dute bertatik Jaunaren suaren gaitzat, sabela estaltzen duen seboa, eta errai guztiak estaltzen dituen:

15. Guntzurrun biak saiespeen aldean beren gañean dagoen eutxoa-ekin, eta gibelesko seboa guntzurruntoakin:

16. Eta erreko ditu apaizak aldarearen gañean, suaren, eta usai txit gozoaren gaitzat. Sebo guztia izango da Jaunarena.

17. Betiko legez zuen jatorri, eta bizitoki guztietan, ez dezute ere jango odolaren, ez seboaren kemetzik.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Itz egin zaiezu Israelko semeai: Ez jakiñez pekatu egiten duen anima, eta egiten duena, Jaunak ez egiteko agindu zuen aginte guztietatik, zerbait:

3. Pekatuegingo baldin balu unjitua dagoan apaizak, pekatuegingo erazirik erriari, eskeñiko dio Jaunari bere pekatua gatik mantxa gabeko txal bat:

4. Eta eramango du testimonioko tabernakuloa atera Jaunaren aurrera, eta jarriko du eskua bere buruaren gañean, eta eskeñiko dio Jaunari.

5. Artuko ere du txalaren odoletik, sartzen duela testimonioko tabernakuloan.

6. Eta busti ezkerreko beatza, odolean intzatzuko du berarekin zazpi aldiz Jaunaren aurrean santuarioko estalkirontz.

7. Eta ipiñiko du odol artatik bertatik lurrinkaiaren aldarearen, Jaunarentzat txit gogokoaren punten gañean, zeñ dagoan testimonioko tabernakuloan. Eta sobratzen dan odol guztia isuriko du eskeintzariaren aldarearen ondapean tabernakuloaren sarreran.

8. Eta kenduko du txalaren seboa bekatua gatik, bai erraiak estaltzen dituen, eta bai barrenen dauden gaiza guztiak:

9. Guntzurrunto biak, eta beren gañean saiespeen aldean dan eutxoa, eta gibelesko seboa guntzurruntoakin,

10. Kentzen dan bezela paketsuen eskeintzariaren txaletik: eta erreko ditu eskeintzariaren aldarearen gañean.

11. Baña larrua eta aragi guztiak, buru, eta oñ, eta este, eta zimauro,

12. Eta gorputzaren gañerakoarekin, aterako du etzauntzetikan kanpora toki garbi batera, non botatzen diraden autsak, eta su emango dizkio egur montoi baten gañean, zeñak izango dirade erreka auts botatuen tokian.



13. Eta baldin Israelko talde guztiak pekatu egingo balu ezjakiñez, eta oarkabe egingo balu, Jaunaren aginduaren kontra dana,
14. Eta gero ezagutuko balu bere pekatua, eskeñiko du bere pekatua gatik txal bat, eta eramango du tabernakuloaren atera.
15. Eta erriko zarrak jarriko dituzte eskuak bere buruaren gañean Jaunaren aurrean. Eta illik txala Jaunaren aurrean,
16. Unjiturik dagoan apaizak sartuko du bere odoletik testimonioko tabernakuloan,
17. Intzatzen duela zazpi alditan belorontz beatz buztiarekin.
18. Eta ipiñiko du odol artatik bertatik aldarean Jaunaren aurrean testimonioko tabernakuloan dagoanaren puntetan, eta sobratzen dan odola isuriko du eskeintzarien aldarearen, testimonioko tabernakuloko sarreran dagoanaren ondapearen aldean.
19. Eta kenduko du bere sebo guztia, eta erreko du aldarearen gañean:
20. Ala egiten duela txal onekin ere, nola egin zuen leen ere, eta erre-guturik apaizak berakgatik, Jaunak barkatuko diozkate.
21. Eta txala bera aterako du etzauntzetatik kanpora, eta erreko du lenbiziko txala bezela, erriaren pekatua gatik dalako.
22. Pekatu egingo baldin balu Prinzipeak, eta egingo baldin balu ezjakiñez Jaunaren legean galerazita dauden gauza askotakoren bat,
23. Eta gero ezagutuko balu bere pekatua, eskeñiko dio doaia Jaunari, auntz ar mantxa gabeko bat.
24. Eta jarriko du bere eskua bere buruaren gañean, eta ill ezkerdoaia ill oi dan tokian Jaunaren aurrean, pekatua gatik dalako,
25. Bustiko du apaizak beatza doaiaren odolean pekatuagatik, ukitzen diotela doaieko aldarearen puntai, eta gañearakoa isurtzen duela bere ondapean.
26. Baña seboa erreko du gañean, egin oi dan bezela paketsuen eskeintzetan, eta erregutuko du apaizak bera gatik, eta bere pekatua gatik, eta barkatua izango zaio.
27. Eta pekatu egingo baldin balu ezjakiñez lurreko erriko animaren batek, egiten duela Jaunaren legean galerazitzen diraden gauza aietakoren bat, eta pekatu egingo balu,
28. Eta ezagutuko balu bere pekatua, eskeñiko du mantxa gabeko auntz bat.
29. Eta jarriko du eskua, pekatua gatik dan doaiaren buruaren gañean, eta illko du eskeintzariaren tokian.

30. Eta artuko du apaizak odoletik bere beatzean, eta ukiturik doaiaren aldarearen puntak, gañerakoa isuriko du bere ondapean.

31. Eta sebo guztia kendurik, kendu oi dan bezela paketsuen doaietatik Jaunarentzat usai gozoa zabaltzeko, eta erregutuko du beragatik, eta barkatua izango zaio.

32. Baña baldin eskeñiko balu pekatua gatik doaien bat giberrietatik, au da, ardi mantxa gabekoren bat;

33. Jarriko du eskua bere buruaren gañean, eta illko du, doaien eskeintzak ill oi diraden tokian.

34. Eta artuko du apaizak bere odoletik bere beatzarekin, eta ukiturik doaiaren aldarearen puntak, gañerakoa isuriko du bere ondapean.

35. Eta kendurik sebo guztia, kendu oi dan bezela paketsuak gatik illtzen dan ariaren seboa, erreko du aldarearen gañean Jaunarentzat eskeñitako inzenso bat bezela eta erregutuko du beragatik, eta bere pekatua gatik, eta barkatua izango zaio.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Pekatu egingo baldin balu norbaitek, eta adituko balu juramentu egiten duenaren boza, eta testigu izango balitz, naiz berak ikusi duelako, edo dakialako, adirazten ez baldin badu pagatuko du bere pekatuaren pena.

2. Norbaitek ukituko balio gauza loiren bati, naiz pistiak illa izan danari, naiz berez illari, naiz edozeiñ abere arrastakarik, eta aztuko balitz bere loikeriarekin, obendun da, eta pekatu egin du:

3. Berebat ukituko baldin balio gizonen baten loikeriari, edozeñ loikerietan, zeñarekin mantxatu oi dan, eta oartu gabe; baña gero konturatu baldin balitz, pekatuaren obendun izango da.

4. Juramentu egiten duenak, eta esaten duenak bere ezpañakin, egingo duela zerbait ongi, edo gaizki, eta sendotuko balu au bera juramentuarekin edo itzarekin, eta azturik ezagutuko baldin balu gero bere pekatua,

5. Penitentzia egin beza bere pekatuagatik,

6. Eta eskeñi beza abere taldeetatik arkume eme bat edo auntz bat, eta erregutuko du apaizak bera gatik, eta bere pekatua gatik:

7. Baña ezin eskeñi balu abere bat, eskeñi bizazkio Jaunari bi usator-tola, edo usoen bi ume, bat pekatua gatik, eta bestea eskeintzaritzat,

8. Eta emango diozka apaizari, zeñak eskeñirik lenbizikoa pekatua gatik, txit biurtuko du bere burua egotxoetarontz, lepoari itsasia geldituko dan, eta osoz urratuko ez dan eran.



9. Eta intzatu du bere odolarekin, aldareko paretea. Eta sobratzen dan guztiari jario eraziko dio bere ondapera, pekatua gatik dalako.

10. Bestea berriz erreko du eskeñitzat, egin oi dan bezela, eta erre gutuko du apaizak beragatik eta bere pekatua gatik, eta barkatua izango zaio.

11. Baña ezin eskeñi baldin balitu bi usartotola, edo usokume bi, eskeñiko du bere pekatua gatik iriñ loraren ephi baten amargarren partea. Ez du botako oliorik bere gañean, ez du ere ipiñiko inzensozik bere gañean, pekatua gatik dalako.

12. Eta emango dio apaizari, zeñak arturik bertatik eskua bete, erreko du aldarearen gañean, eskeñi duenaren oroipengarrirako,

13. Erregututzen duela bera gatik, eta garbitzen duela, eta gañerako zatia berak idukiko du doaitzat.

14. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

15. Norbaitek, pekatu egingo baldin balu, utsegitez, faltatzen duela Jaunari konsagratuta dauden gauzetako zeremonietan, eskeñiko du bere pekatua gatik aitzakia gabeko ari bat, siklo bian erosi dezakean artaldetik, santuarioko pisuaren araura:

16. Eta osotuko du egin duen kaltea, eta gañera ipiñiko du bosgarren partea, ematen diola apaizari, zeñak erregutuko duen bera gatik, eskeintzen duela ari bat, eta barkatua izango zaio.

17. Norbaitek pekatu egingo balu ezjakinez, eta egingo baldin balu Jaunaren legean galerazitzen diraden gauzaren bat, eta jarririk pekatuaren obendun ezagutuko baldin balu bere gaiztakeria,

18. Eskeñiko dio apaizari errenkura gabeko ari bat, pekatuaren neurri ta anditasunaren araura, zeñak erregutuko duen bera gatik, ezjakiñean egin zuelako, eta barkatua izango zaio,

19. Zeren oker ustean pekatu egin zuen Jaunaren kontra.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Pekatua egiten duenak, eta, mezpreziaturik Jauna, ukatzen dionak lagun urkoari bere leialtasuna gatik gordetzeko eman zitzaion gauza, edo indarrez zerbait kenduko baldin balio, edo gezurra asmatuko balio,

3. Edo gauza galduren bat arkituko balu, eta ukaturik, gañera gezurrarekin juramentu egingo balu, eta egingo balu beste askotatik gauzaren bat, zeñatan gizonak pekatu egin oi duten,

4. Ezagaturik pekatu egin duela, bihurtuko du.

5. Osoz, engañuz beretu nai zuen guztia, eta gañera bosgarren parte, kaltea egin zion jabeari.

6. Eta bere pekatua gatik eskeñiko du ari mantxa gabe bat artaldetik, eta emango dio apaizari, pekatuaren anditasunaren eta neurriaren araura:

7. Zeñak erregutuko du bera gatik Jaunaren aurrean, eta barkatuko zaio pekatu egiñarekin egin zituen gauza bakoitza gatik.

8. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

9. Agindu zaiezu Aaroni eta bere semeai: Au da holokaustoaren legea. Errea izango da aldarean gau guztian goizeraño, sua izango da aldareko beretakoa.

10. Apaiza jantziko da tunikarekin eta liñoizko galtxuriakin, eta artuko ditu autsak, zeñatara su jaleak biurtu izango duen, eta ipiñirik aldarearen aldean,

11. Utziko ditu lenbiziko soñekoak, eta jantzirik beste batzuekin, eramango ditu autsak etzantzetatik kanpora, eta toki txit garbi batean desegin eraziko ditu geldo biurtu ditezen bitartean.

12. Eta beti egongo da sua irazekia aldarean, zeñ piztuko duen apaizak, ipiñirik azpian egurra goizean egun bakoitzean, eta jarririk holokaustoa gañean, erreko ditu bere gañean paketsuen seboak.

13. Au da betiko su, iñoiz aldarean faltatuko ez dana.

14. Au da Aaronen semeak Jaunaren aurrean, eta aldarearen aurrean eskeñiko dituzten sakrifizioaren, eta libazioen legea.

15. Artuko du apaizak eskua bete iriñ lora olioarekin orraturik dagoena, eta iriñ lorearen gañean jarria izan dan inzenso guztia, eta erreko du aldarean, Jaunaren usai txit gozoaren oroipengarrizat:

16. Eta sobratzen dan iriñloreaken partea jango du Aaronen bere semeekin, legamirikan gabe, eta jango du tabernakuloko atariko toki santuan.

17. Eta etzaio legamirikan ipiñiko, zeren bere zati bat eskeintzen da Jaunaren inzensoan. Gauza txit santu bat izango da au, pekatua gatik eta gaiztakeria gatik bezela.

18. Bakarrik Aaronen jatorriko gizasemeak jango dute. Gauza bidezko eta betikoa izango da zuen gizaldietan Jaunaren eskeintzetan. Gauza oiei ukitzen dion guztia, izango da santutua.

19. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

20. Au da, Aaronen, eta bere semeak bere unzioaren egunean Jaunari eskeñi bear dioten doaia. Eskeñiko dute betiko doaiean ephi bat iriñloren amargarren parte, bere erdia goizean, eta bere erdia arratsaldean:



21. Zeñ orraturik olioarekin frijituko da zartagin batean. Eta eskeñiko du berotan, iduki dezan usai txit gozoa Jaunarentzat.

22. Aitaren lekuan tokamenez jartzen dan apaizak, eta guztia erreko da aldarean.

23. Zeren apaizen eskeintza guztia suaz deseña izango da, eta ez du inork bertatik jango.

24. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

25. Itz egin zaiezu Aaroni eta bere semeai: Au da eskeintzaren legea pekatua gatik. Izango da illa Jaunaren aurrean holokaustoa eskeintzen dan tokian. Gauza txit santua da.

26. Eskeintzen duen apaizak, jango du toki santuan, tabernakuloaren atarian.

27. Bere aragai ukitzen dioten guztia, izango da santutua. Baldin bere odolarekin odolizatua izango balitz soñekoa, izango da garbitua toki santuan.

28. Eta bera egosia izan dan lurrezko ontzia, autsia izango da, baña baldin ontzia balitz bronzeko, izango da igortzia, eta garbituko da urarekin.

29. Apaizen jatorriko gizaseme guztiak jango ditu bere aragaiak, zeren gauza txit santua da.

30. Zeren pekatua gatik illtzen dan aberea, zeñaen odola sartzen dan testimonioko tabernakuloan garbitzeko santuarioan, ez da jango, baizik suan erreko da.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Au ere da pekatua gatik eskeñitako doaiaren legea, gauza txit santua da,

2. Argatik guztia erretzeko aberea illtzen dan tokian, illko da pekatua gatik egiten dan doia ere; bere odola izango da isuria aldarearen inguruan.

3. Eskeñiko dituzte bertatik bustana eta erraiak estaltzen dituen seboa:

4. Guntzurruntxo biak, eta saiespeen aldean dan gantza eta gibelaren eutxo guntzurruntxoakin.

5. Eta erreko ditu berak aldarearen gañean, Jaunaren inzensoa da pekatua gatik.

6. Apaizen jatorriko gizaseme guztiak jango ditu aragi oiek toki santuan, zeren da gauza txit santua.

7. Nola pekatua gatik eskeintzen dan doia, ala gaizakeria gatik ere doai bien legea bat izango da, eskeintzen duen apaizari egokiko zaio.

8. Doia eskeintzen duen apaizak idukiko du bere larua ere.

9. Eta labean egosten dan iriñlorazko doai guztia, eta trillan edo zartagiñean prestatzen dan guztia, izango da apaiz hurarena, zeñak eskeñia dan:

10. Naiz izan dedilla olioarekin orratua, naiz idorra, partituko da Aaronen seme guztien artean neurri berdiñean bakoitzarentzat.

11. Au da, Jaunari eskeintzen zaion paketsuen doaiaren legea.

12. Doia baldin balitz eskerrak emateko, eskeñiko dituzte legami gabeko ogi olioarekin orratuak, eta lasaña legami gabeak olioarekin gantzutuak, eta iriñlora egosia, eta orra ostoa naasi eta orratuak olioarekin.

13. Eta legamidun ogiak ere eskerrak emateko doaiarekin, zeñ illtzen dan paketsuak gatik:

14. Zeñatik bat eskeñiko zaio Jaunari lenbiziak gatik, eta izango da eskeintzan abere illaren odola isurtzen duen apaizarena,

15. Zeñaren aragaiak jango dirade egun artan bertan, eta ez da geldituko bertatik ezer biaramonerako.

16. Norbaitek eskeñiko baldin balu doia botoz, edo borondatez, berebat egun artan jango da, baña biaramonerako zerbait geldituko balitz ere, bidezko bitzate jatea:

17. Baña irugarren egunerako sobratzen dana, izango da suaz deseña.

18. Norbaitek jango baldin balitu irugarren egunean paketsuen doaiaren aragaiak, utsa balioko du eskeintzariak, eta ez dio mesederik erakarriko eskeintzen duenari, bestera alako gauzarik jatearekin loitzen dana, fedea austen duenaren obendun izango da.

19. Gauza loiren bati ukitzen dion aragia, ez da jango, baizik suan erreko da, garbi dagoanak jango du bertatik.

20. Anima loitu, jaten duena paketsuen doaiaren aragi Jaunari eskeñia izan zaionetik, izango da bere errietatik galdua,

21. Eta ukitzen diona gizonaren, edo aberearen, edo ezaindu deza-kean edozen gauzaren loikeria, eta jaten duena onelako aragietatik, galdua izango da bere errietatik.

22. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

23. Esango diezu Israelko semeai: Ez dezute jango ardiaren, ta ez beiairen, ta ez auntzaren gantzik.

24. Baña gorde zenezakete usu askotarako abere illkiaren, edo beste abereren batek arrapatua izan dan pistiaren gantza.



25. Iñork jango baldin balu Jaunaren eskeintzarian errea izan bear duen seboa, izango da galdua bere erritik.

26. Ez dezute ere artuko janarian animaliren odolik, ez egaztienik, ez abereenik.

27. Odola jaten duen anima guztia, izango da galdua bere errietatik.

28. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi esaten zuela:

29. Itz egin zaiezu Israelko semeai, esaten diezula: Eskeintzen dionak Jaunari paketsuen doaia, eskeñi beza batean doaia ere, au da, bere emaitzak.

30. Idukiko ditu eskuetan abere illaren seboa, eta bularra, eta konsagratzen dituenean biak eskeñita Jaunari, emango diozka apaizari,

31. Zeñak erreko du seboa aldarearen gañean, eta bularra izango da Aaronena eta bere semeena.

32. Paketsuen abere illen eskuieko besonda ere geldituko da apaizaren lenbizitzat.

33. Aaronen semeen artean eskeintzen duenak odola eta seboa, idukiko ere du berak eskuieko besonda bere elizanoan.

34. Zeren Israelko semeen abereill paketsuen aragitik gorde det nere aurrean goratzen dan bularra, eta berezitu dan besonda, eta eman diet Aaron apaizari, eta bere semeai, Israelko erri guztiaren betiko legetzat.

35. Au da Aaron eta bere semeen unzioa Jaunaren zeremonietan, Moisesek eskeñi zituen egunean, apaiz lanetan aritzeko,

36. Eta au da Jaungoikoak agindu ziena Israelko semeai, eman zitzaioleta betiko legez beren gizaldietan.

37. Au da guztia erretzen dan eskeintzariaren legea, eta doaiarena bekatua gatik eta obena gatik, eta konsagrazioa gatik, eta emaitz pake-tsua gatik:

38. Jaunak Moisesi agindu ziona emateko Sinaiko mendian, agindu ziotenean Israelko semeai eskeintzeko beren doaiak Jaunari Sinaiko eremuan.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Ar zazu Aaron bere semeakin, beren soñekoak, eta unzioko olio, txala pekatua gatik, bi ari, saski bat legami gabeakin,

3. Eta bilduko dezu erri guztia tabernakuloko atean.

4. Egin zuen Moisesek Jaunak agindu zuen bezela. Eta bildurik talde guztia tabernakuloaren atean aurrean,

5. Esan zuen: Au da Jaunak egiteko agindu duena.

6. Eta bereala presentatu zituen Aaron eta bere semeak. Eta garbitu zituenean, berak,

7. Jantzi zuen Apaiznagusia liñoazko alkandorarekin, lotzen ziola gerria uztoidearekin eta jantzitzen zuela jazintozko tunikarekin, eta jarri zion bere gañean efoda.

8. Zeñ estuturik gerrikoarekin doitu zion Bazionalari, zeñean zegoan irakatsia eta Egia.

9. Estali ere zion burua apaizkapelarekin, eta bere gañean, kopetaren aurrean, jarri zuen urrezko plantxa konsagratua santutasunean, Jaunak agindu zion bezela.

10. Artu ere zuen unzioko olio, zeñarekin untatu zuen tabernakuloa bere tresna guztiakin.

11. Eta intzatu ezker aldarea santututzen zuela zazpi aldiz, untatu zuen, baita bere ontzi guztiak ere, eta santutu zuen bañutokia bere onda-pearekin olio.

12. Eta isuririk Aaronen buruaren gañean, untatu eta konsagratu zuen,

13. Baita bere semeak ere presentatu ezker jantzi zituen liñoazko tunikakin, eta lotu ziozkaten gerriak uztoideakin, eta jarri ziozkaten apaiz kapelak, Jaunak agindu zuen bezela.

14. Eskeñi ere zuen txala pekatua gatik. Eta jarririk Aaronek, eta bere semeak beren eskuak bere buruaren gañean,

15. Ill zuen, eta arturik odola, eta bustirik beatza bertan, ukitu ziozkaten aldarearen puntai inguruan. Zeñ garbitu eta santuturik, isuri zuen gañerako odola beren oñetan.

16. Eta erre zuen aldarearen gañean erraien gañean zegoan seboa, eta gibelaren eutxo, eta guntzurruntxo biak beren euakin:

17. Erretzen zuela etzauntzetatik kanpora txala bere larru, eta aragi, eta gorotzarekin, Jaunak agindu zuen bezela.

18. Eskeñi ere zuen ari bat doaitzat, zeñaren buruaren gañean jarri ezker Aaronek eta bere semeak beren eskuak,

19. Ill zuen, eta isuri bere odola aldarearen inguruan.

20. Eta aria bera partiturik zatietan, erre zituen suan bere burua, eta bizikakiak, eta seboa,

21. Garbiturik lendikan esteak eta oñak, eta erre zuen batean ari guztia aldarearen gañean, zalako Jaunarentzat eskeintza usai txit gozokoa, agindu zion bezela.

22. Eskeñi ere zuen bigarren aria, apaizen konsagrazioan, eta jarri zituzten Aaronek eta bere semeak beren eskuak beren buru gañean:



23. Zeñ illik Moisesek, arturik bere odoletikan, ukitu zion Aaronen eskuieko belarriaren ertzari, eta bere eskuieko eskuko beatz lodiari, eta orobat oñekoari ere.

24. Eskeñi ere zituen Aaronen semeak. Eta ukiturik ari illaren odola-ekin bakoitzaren eskuieko belarriaren ertzari, eta eskuieko eskuaren eta oñaren beatz lodiak, gañerakoa isuri zuen aldarearen gañean inguruan:

25. Eta berezitu zituen seboa, eta bustana, eta esteak estalitzen dituen gantz guztia, eta gibelaren eutxoak, eta guntzurrun biak beren seboakin, eta eskuieko besondarekin.

26. Eta arturik Jaunaren aurrean zegoan legamigabeen saskitxotik legami gabeko ogi bat, eta orraosto bat olioarekin orratua, eta lasaña bat, jarri zituen seboen eta eskuieko besondarearen gañean,

27. Ematen ziozkatela guztia batean Aaroni eta bere semeai. Zeñak altxatu ezker berak Jaunaren aurrean,

28. Berriz arturik beren eskuetatik, erre zuen eskeintzako aldarearen gañean, zalako konsagraziooko doaia, usai txit gozoko doaia Jaunarentzat.

29. Eta altxaturik Jaunaren aurrean konsagraziooko ariaren bularra, gorde zuen bere elizanoa bezela, Jaunak agindu zionaren araura.

30. Eta arturik okendua, eta aldarearen gañean zegoan odola, intzatu zuen Aaronen eta bere soñekoen gañean, eta bere semeen eta beren soñekoen gañean.

31. Eta santutu zituenean bere soñekoan, agindu zien esaten zuela: Egosi itzatzute aragiak tabernakuloaren ateen aurrean, eta an jan itzazute. Jan itzazute ere, saskitxoan jarririk dauden konsagraziooko ogiak, Jaunak agindu zidan bezela, esaten zuela: Aaronek eta bere semeak jango dituzte:

32. Eta sobratzen dan aragi eta ogi guztia, suak desegingo du.

33. Etzerate ere aterako tabernakuloko atetik zapi egunean, zuen konsagraziooko denbora betetzen dan eguneraño. Zeren zapi egunean aitzen da konsagrazioa:

34. Orain egin dan bezela, sakrifiziooko zeremonia betetzeko.

35. Gau eta egun egongo zerate tabernakuloan, gordetzen dituzute-la Jaunaren bellak, il etzaitetzen: zeren onela agindua izan zat.

36. Eta egin zituzten Aaronek eta bere semeak, Jaunak Moisesen eskuz esan ziozkatzen gauza guztiak.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta allegaturik zortzigarren eguna, ots egin zien Moisesek Aaroni, eta bere semeai, eta Israelko zarrari, eta esan zion Aaroni:

2. Ar zazu bei taldetikan txal bat pekatua gatik, eta ari bat doaitzat, biak mantxa gabeak, eta eskeñi itzatzu Jaunaren aurrean.

3. Eta Israelko semeai itz egingo diez: Ar zazute antxume ar bat pekatua gatik, eta txal bat eta arkume bat biak urte batekoak, eta mantxa gabeak, doaitzat,

4. Bei bat eta ari bat doai paketsutzat, eta ill itzatzute Jaunaren aurrean, eskeintzen dezutela iriñlora olioarekin orratua bakoitzaren sakrifizioan. Zeren gaur Jauna agertuko zatzute.

5. Eraman zituzten bada Moisesek agindu zituen gauza guztiak tabernakuloaren atera, non erri guztia aurrean zegoala,

6. Esan zuen Moisesek: Au da Jaunak agindu duena; egin ezazute, eta agertuko zatzute bere gloria.

7. Eta esan zion Aaroni: Alderatu zaite aldarera, eta eskeñi ezazu doaia zure pekatua gatik; eskeñi ezazu emaitza, eta erregutu ezazu zugatik eta erriगतिक. Eta eskeñi ezker erriaren doaia, erregutu ezazu beragatik, Jaunak agindu zuen bezela.

8. Eta bereala Aaron alderaturik aldarera, ill zuen txal bat bere pekatua gatik:

9. Zeñaen odola eskeñi zioten bere semeak, zeñean bustirik beatza, ukitu zien aldarearen puntai, eta gañerakoa isuri zuen bere ondapean.

10. Eta seboa, eta guntzurrun txoak, eta gibelaren eutxo, pekatua gatik diradenak, erre zituen aldarearen gañean, Jaunak Moisesi agindu zion bezela:

11. Aragiak berriz eta bere larrua suarekin erre zituen etzauntzetatik kanpora.

12. Ill ere zuen abere bat eskeintzen guztia erretzeko, eta bere semeak eskeñi zioten bere odola, zeñ isuri zuen aldarearen inguruan.

13. Aurrean jarri ere zioten abere illa bera zatietan partitua, buruarekin eta bizikaki bakoitzarekin, zeñak guztiak suarekin erre zituen aldarearen gañean,

14. Garbiturik lendikan urarekin esteak eta oñak.

15. Eta il zuen antxume ar bat, eskeintzen zuela erriaren pekatua gatik, eta garbiturik aldarea,

16. Egin zuen eskeintza,

17. Gañera egiten zituela sakrifizioan libazioak, zeñak batean eskeintzen diraden, eta erretzen zituela aldarearen gañean, utzi gabe goizeko eskeintzako zeremoniak.



18. Berebat ill zituen idi bat eta ari bat, erriaren doai paketsuak, eta bere semeak aurrean jarri zioten odola, zeñ isuri zuen aldarearen gañean inguruan.

19. Idiaren seboa ordea, eta ariaren bustana, eta guntzurruntoak beren seboakin, eta gibelaren eutxo.

20. Jarri zituzten bularren gañean, eta erre ziraden ezkerre seboak aldarearen gañean,

21. Berezitu zituen Aaronen beren bularrak, eta eskuieko besondak, alkahaturik Jaunaren aurrean, Moisesek agindu zuen bezela.

22. Eta luzaturik eskuak erria ganontz, bedeinkatu zuen. Eta bukatu onela eskeintzak pekatua gatik, eta holokaustoak, eta paketsuak, jatxi zan.

23. Eta sarturik Moises eta Aaron testimonioko tabernakuloan, eta aterarik gero, bedeinkatu zuten erria. Eta agertu zitzaion Jaunaren gloria erri guztiari:

24. Eta ona non aterarik sua Jauna gandik, iretsi zituen, aldarearen gañean zeuden emaitza, eta seboak. Eta au ikusirik jende taldeak, alabatu zuten Jauna, eroririk beren arpegien gañean.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Baña Nadab eta Abiu Aaronen semeak arturik inzensarioak, ipiñi zuten bertan sua, eta inzensoa, eskeintzen zutela Jaunaren aurrean su arrotza, zeñ zegoten eragotzia.

2. Eta aterarik sua Jauna gandik, iretsi zituen, eta ill ziraden Jaunaren aurrean.

3. Eta esan zion Moisesek Aaroni: Au da Jaunak esan duena, Santutua izango naiz, alderatzen zitzazkidanetan, eta gloriar bete izango naiz erri guztiaren aurrean. Au entzunik ixillik egon zan Aaron.

4. Eta otsegiñik Moisesek Misael eta Elisafan Ozielen Aaronen osabaren semeai, esan zion: Zoazte, eta kendu itzatzute zuen anaiak santuarioaren aurretik, eta eraman itzatzute etzauntzetatik kanpora.

5. Eta berealaxe joanik, eraman zituzten etzunik zeuden bezela, eta aurtiki zituzten kanpora, agindua izan zitzaioten bezela.

6. Eta itz egin zien Moisesek Aaroni, eta bere seme Eleazar eta Itamarri: Ez itzatzute agertu zuen buruak, eta ez itzatzute urratu zuen soñekoak, ill etzaitzen, eta aserrea zabaldu ez dedin erri guztiaren gañera. Zuen anaiak, eta Israelko erri guztiak negar egin bezate Jaunak erazeki duen suagatik:

7. Zuek ordea etzerate aterako tabernakuloko atetatik, bestela galduko zerate: zeren unzio santuko olio da zuen gañean. Zeñiak egin zituzten gauza guztiak Moisesen aginduaren araura.

8. Esan ere zion Jaunak Aaroni:

9. Ez dezute edango ardorik ta ez beste edari orditu dezakeanik zuk eta zure semeak, testimonioko tabernakuloan sartzen zeratenean, ill etzaitzen, zeren betiko legea da zuen gizaldientzat,

10. Eta iduki dezazuten jakinduria ezagutzeko zeñ dan gauza ona eta zeñ gaiztoa, zeñ mantxatua eta zeñ garbia:

11. Eta erakutsi ditzazkietzuten Israelko semeai nere lege guztiak, zeñiak eman dizkitedan Moisesen bidez.

12. Eta itz egin zien Moisesek Aaroni, eta oni gelditu zitzaiozkan seme Eleazar eta Itamarri: Artu itzatzute Jaunaren eskeintzatik sobratu dan sakrifizioetik, eta jan ezazute legamirikan gabe aldarearen aldean, zeren gauza txit santua da.

13. Eta jango dezute toki santuan, zeren da Jaunaren eskeintzetatik zuri eta zure semeai emandako gauza, agindu zitzaion bezela.

14. Berebat eskeñia izan dan bularra, eta berezitua izan dan besonda jango dituzte toki txit garbian zu eta zure semeak, eta zure alabak zurekin, zeren zuretzat eta zure semeentzat izan dirade gordeak Israelko semeen eskeintza paketsuetatik:

15. Zeren altxatu dituzte Jaunaren aurrean besonda eta bularra, eta aldarean erretzen diraden seboak, eta zuri dagozkitzu, eta zure semeai betiko lege, Jaunak agindu zuen bezela.

16. Gauza oien artean, billatzen zuela Moisesek pekatua gatik eskeñia izan zan antxume arra, arkitu zuen errea, eta aserreturik Eleazar eta Itamar Aaronen seme gelditu ziradenean kontra, esan zuen:

17. Zergatik ez dezute jan toki santuan pekatua gatik eskeñia izan dan doai txit santua dana, eta emana zuei eraman dezazuten erriaren gaiztakeria, erregutu dezazuten bera gatik Jaunaren aurrean,

18. Batezere ez dan ezkerre izan sartua bere odola santuarioaren barrenen, eta jan bear zenduten ezkerre zuek santuarioan, agindua izan zatan bezela?

19. Erantzun zuen Aaronen: Gaur izan da eskeñia doai pekatua gatik, eta holokaustoa Jaunaren aurrean, eta niri gertatu zat ikusten dezu-na. Nola nik jan nezakean, edo oniritzi Jaunari zeremonietan, gogo larrituarekin?

20. Aditurik au Moisesek, ontzat artu zuen erantzueran.



AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zien Jaunak Moisesi eta Aaroni, esaten zuela:
2. Esan zaiezute Israelko semeai: Lurreko abere guztietatik, oiek dirade jan bear dituzutenak:
3. Jango dezute beatzala arrakaturik duen guztia, eta ausmartzen duena abereen artean.
4. Baña ausmar egin, eta beatzala iduki arren, arrakaturia ez duen guztia, gamelua eta gañerakoak bezela, ez dezute jango, eta idukiko dezute ezgarbien artean.
5. Aranzerria ausmar egiten duena, eta beatzala arrakaturik ez duena, ez da garbia.
6. Ez eta erbia ere, zeren ausmar egiten badu ere, ez du arrakaturia beatzala.
7. Ez da txerria ere, zeñak idukirik beatzala arrakaturia, ez du ausmartzen.
8. Oien aragirik ez dezute jango, ez da ukitu ere beren gorputz illak, zeren ez dirade garbiak zuentzat.
9. Oiek dirade uretan azitzen diradenak, eta jatea zillegi danak. Isatsak eta ezkatark dituen guztia, naiz itsasoan, naiz ibaietan eta putzuetan, jango dezute.
10. Baña uretan mugitzen eta bizitu diradenetatik isatsik eta ezkatarik ez duen guztia, izango da zuentzat nagats,
11. Eta nazkagarria, ez dituzute jango beren aragiak, eta iges egingo dezute beren gorputz illetatikan.
12. Uretan isatsik eta ezkatarik ez duten guztiak, izango dirade loiak.
13. Oiek dirade egaztien artean jan bear ez dituzutenak, eta berak gandik iges egin bear dezutenak, Arranoa, eta leoiarranoa, eta miruska,
14. Eta mirua eta saia beren motakin,
15. Eta bela mot guztia bere antzekoakin,
16. Eta saiarrea, eta ontza, eta kaiobeltza, eta mirotza, beren motakin:
17. Mozolloa eta murgilgilea, eta mogitaia,
18. beltzargia, eta astorroa, eta ...igorria,
19. ...rza, eta gautxorioria beren motakin, basollarra ere, eta sagussarra.
20. Lau oñen gañean dabillan egazti guztia, nazkagarria izango da zuentzat.
21. Baña oñen gañean ibilli arren, luzeagoak dituen guztia atzeko anak, zeñakin salto egiten duen lurraren gañean,

22. Jan bear dezute, nola dan galderna bere motakin, eta beldarra, eta txitxarra, eta langosta, bakoitza bere motakin.
23. Baña lau oñ bakarrik dituen egazti guztia, nazkagarria izango da zuentzat:
24. Eta beren aragi illkiai ukitzen dien guztia, geldituko da loitua, eta ez da izango garbia arratsalderarte.
25. Eta eraman bear baldin balu norbaitek oietako abere illen bat, garbituko ditu bere soñekoak, eta loa egongo da eguzkia sartu artean.
26. Beatzala iduki arren, arraskaturik ez duen abere guztia, eta ausmartzen ez duena, loa izango da, eta ukitzen diona, loitua izango da.
27. Lau oñen gañean dabiltzen beste abere guztien artean, eskuen gañean ibiltzen dana, loa izango da, beren aragi illkiai ukitzen diotena, loitua geldituko da arratsalderarte.
28. Eta oiek bezelakoen gorputz illak eramaten dituenak, garbituko ditu bere soñekoak, eta loa izango da arratsalderarte, zeren oiek guztiak loiak dirade zuentzat.
29. Eta lurrean mugitzen diradenetatik oiek ere loitatz idukiko dirade, ogigaztaia, eta arratoia, eta krokodiloa, bakoitza bere motakin,
30. Trikua, eta sugalinda, eta barakulloa, eta barea, eta satorra:
31. Oiek guztiak loiak dirade. Ukitzen diotena beren aragi illkiai, izango da loa arratsalderaño:
32. Eta oien illki gauzaren bat gañera erortzen zaion guztia, loitua izango da, naiz zurezko ontzia, naiz soñekoa, naiz larruak, naiz zilizioak, eta edozeñ gauzatarako bear diradenean, sartuko dirade urean, eta loiak izango dirade arratsalderaño, eta onela izango dirade gero garbituak.
33. Baña onelako gauzaren bat barrena erortzen zaion lurrezko ontzia, geldituko da loitua, eta argatik izan bear du autsia.
34. Jaten dezuten jaki guztia, isurtzen baldin bada ura bere gañera, loitua izango da, eta ontzi oietatik edaten dan edari guztia, loa izango da.
35. Eta bere gañera eroriko baldin balitz onelako illki gauzarik, loitua izango da, naiz labetxoak, naiz irurkoiak, loituak izango dirade, eta desegingo dirade.
36. Baña iturriak, eta urpetegiak, eta uren biltzarreak garbiak izango dirade. Ango illkiren bati ukitzen diona, loitua geldituko da.
37. Eroriko baldin balitz azitekoaren gañera, ez du loituko.
38. Baña baldin norbaitek urarekin intzaturiko balu azitekoa, eta gero gauza illen batek ukitua izango baldin balitz, berealaxe loitua geldituko da.
39. Illko baldin balitz, zuei jatea zillegi zatzuten abereren bat, bere gorputz illari ukitzen diona, izango da loitua arratsalderaño:



40. Eta bertatik zerbait jaten, edo eramaten duenak, garbituko ditu bere soñekoak, eta izango da loitua arratsalderaño.

41. Lurraren gañean arrastaka dabillen guztia, nazkagarria izango da, eta ez da atxituko janarizat.

42. Bularraren gañean dabillen, edo oñ ase dituen, eta lurrean arrastaka dijoan pataririk, ez dezute jango, nazkagarria dalako.

43. Ez itzatzute loitu zuen animak, eta etzaiozute ukitu beretako gauzari, loiak gelditu etzaitzeten.

44. Zeren ni naiz zuen Jaun Jaungoikoa, santuak izan zaitezte, zeren ni santua naiz. Ez itzatzute loitu zuen animak, lurraren gañean mugitzen dan arrastakaritan.

45. Zeren ni naiz, Ejiptoko lurretik atera zinduztedan Jauna, zuen Jaungoikoa izan nendin. Santuak izango zerate, zeren ni santua naiz.

46. Au da abereen, eta egaztien, eta uretan mugitzen dan, eta lurrean arrastaka dabillen anima bizi guztiaren legea.

47. Ezagutu ditzatzuten garbiaren eta loiairen desberdintasunak, eta jakin dezazuten zer jan bear dezuten eta zer ez.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu: Baldin andreak arturik azia egingo balu semea, izango da loaia zazpi egunean, illekoen berezitzearen egunen araura:

3. Eta zortzigarren egunean izango da zirkunzidatua aur semetxo.

4. Bera berriz ogei ta amairu egunean egongo da bere odola garbitzen. Gauza santuri ez dio ukituko, ez da ere sartuko santuarioan, beraren garbituerako egunak bete ditezen bitartean.

5. Baña egingo baldin balu alaba, izango da loaia bi astean, illeko jarioraren oituraren araura, eta irurogeita sei egunean egongo da bere odola garbitzen.

6. Eta betetzen diradenean bere garbituerako egunak, naiz semea gatik, naiz alaba gatik, eramango du eskeintzat urte beteko arkume bat, eta usakume bat edo usatortola bat pekatua gatik, testimonioko tabernakuloko atera, eta emango diozka apaizari,

7. Zeñak eskeñiko ditu Jaunaren aurrean, eta erregutuko du bera gatik, eta onela izango da garbitua bere odolaren jaritikan. Au da semea, edo alaba egiten duenaren legea.

8. Baña baldin onetara allegatuko ez balitza, eta ezin eskeñiko balu arkume bat, artuko ditu bi usatortola, edo bi usakume, bata doaitzat, eta

bestea pekatua gatik. Eta erregutuko du bera gatik apaizak, eta onela izango da garbitua.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zien Jaunak Moisesi eta Aaroni, esaten zuela:

2. Gizona, zeñaen larruan, edo aragian agertzen dan beste kolore bat, edo pustillaren bat, edo gauza argitsuren bat, au da, legenarraren gaitza, izango da eramana Aaron apaizagana, edo bere semeetatik edozeñ gana.

3. Zeñak ikusten duenean legenarra larruan, eta illeak kolore zurira biurtuak, eta legenarraren tokia ondatuago larrua eta gañerako aragia baño, legenarraren gaitza da, eta bere irtzira izango da berezitua.

4. Baña baldin zuritasun argitsu bat arkituko balitz larruan, eta ez balitz egongo ondatuago gañerako aragia baño, eta illeak balirade lenbiziko kolorekoak, idukiko du zarraturik apaizak zazpi egunean,

5. Eta begiratu dio zazpigarren egunean, eta baldin ez balitz geiago zabaldu legenarra, eta irago ez balitu larruan lenbiziko mugak, berriz idukiko du zarraturik beste zazpi egunean.

6. Eta zazpigarren egunean esamiñatuko du, illunago agertuko baldin balitz legenarra, eta azi ez balitz larruan, garbitzat emango du, zeren sarna da, eta garbituko ditu gizonak bere soñekoak, eta izango da garbia.

7. Baña baldin apaizak ikusia izan ezker, eta itzulia garbitasunera, berriz legenarra zabalduko balitz, izango da eramana bera gana,

8. Eta loitzat emana.

9. Legenarraren gaitza duen gizona, izango da eramana apaizagana,

10. Eta ikusiko du. Eta agertzen danean larruan kolore zuri bat, eta aldatu balu illeen kolorea, eta agertuko ere balitz aragi bizia:

11. Idukiko da legendar txit zar, eta larruari itsasitzat. Eta ala apaizak emango du loitzat, eta ez du idukiko zarraturik, zeren loikeria agirikoa da.

12. Baña baldin zabalduko larruan legenarra loratuko balitz, eta estaliko balu larru guztia burutik oñetaraño, begien aurrean dagoen guztia;

13. Begiratu dio apaizak, eta adirazoko du, legenarrik garbiena duela, guztia zuritasunera biurtu dalako, eta argatik garbia izango da gizona.

14. Baña agertzen danean beragan aragi bizia,

15. Orduan izango da loaia apaizaren erabakiz, eta loien artean idukia. Zeren aragi bizia, legenarra uriztatua baldin badago, loaia da.

16. Baña baldin berriz zuritasunera biurtuko balitz, eta gizon guztia estaliko balu,



17. Esamiñatuko du apaizak, eta garbia dala erabakiko du.
18. Aragia eta larrua ordea, zeñean zauria jaioa eta sendatua izan dan,
19. Eta zauriaren lekuan arradiz zuria agertuko balitz, edo zerbait gorria, eramana izango da gizona apaiza gana,
20. Zeñak ikusten duenean legenarraren tokia ondatuago gañerako aragia baño, eta illeak zuri biurtuak, loitzat emango du, zeren legenarren zauria azi eta barrena sartu da.
21. Baña baldin illea lenbiziko kolorekoa bada, eta arradiza zerbait illuna, eta aldeko aragia baño ondatuago ez badago, idukiko du zarratuta zazpi egunean:
22. Eta zabalduko baldin balitz, legenartzat emango du.
23. Baña egongo baldin balitz bere tokian, zauriaren arradiza da, eta gizona garbia izango da.
24. Baña suaz erretzen duen aragia, eta larruan, sendatuta agertuko balitz arradiz zuria, edo origorria,
25. Ezagutuko du apaizak, eta ikusten badu itzuli dala zurtasunean, eta bere tokia ondatuago dagoala gañerako larrua baño, emango du loitzat, zeren legenarraren zauria arradizean agertu da.
26. Baña ez baldin balitza mudatu illeen kolorea, eta zauria ez baldin balego ondatuago gañerako aragia baño, eta legenarraren irudia bera balitz zerbait illuna, zarratuko du zazpi egunean,
27. Eta zazpigarreen egunean berriz ikusiko du; baldin legenarra zabaldu balitz larruan, emango du loitzat,
28. Baña baldin zurtasuna egongo balitz bere tokian ez txit argia, errearen zauria da, eta argatik garbitzat emango du, zeren errearen arradiza da.
29. Gizasemea, edo emakumea, zeñaen buruan, edo okotzean erne dan legenarra, ikusiko ditu apaizak.
30. Eta baldin tokia balego ondatuago gañerako aragia baño, eta illea oria, eta oi baño meago, loitzat emango ditu, zeren buruko eta okotzeko legenarra da.
31. Baña ikusiko baldin balu mantxaren tokia berdiña dagoala aldeko aragiarekin, eta illea beltza, zarratuko du zazpi egunean,
32. Eta zazpigarren egunean begiratu dio. Mantxa azi ez baldin bada, eta illea bada bere kolorekoa, eta zauriaren tokia gañerako aragiarekin berdiña:
33. Moztua izango da gizona, mantxaren tokitik kanpora, eta itxia egongo da beste zazpi egunean.

34. Zazpigarren egunean ikusiko baldin balitz gelditu dala zauria bere tokian, eta ez dagoela ondatuago gañerako aragia baño, garbitzat emango du, eta garbiturik bere soñekoak, garbia izango da.

35. Baña baldin garbitu ezker, berriz zabalduko balitz mantxa larruan,

36. Ez du geiago billatuko illea kolore orira aldatu dan, ala ez, zeren ziertoro loa da.

37. Baña baldin mantxa geldirik balego, eta illeak beltzak balirade, jakin beza gizona sendatu dala, eta itxaropenarekin erabaki beza garbia dala.

38. Gizasemea, edo emakumea, zeñaen larruan agertzen dan zuritasuna,

39. Ezagutuko ditu apaizak. Arkituko baldin balu zurtasun zerbait illunak argi egiten duela larruan, jakin beza ez dala legenarra, baizik kolore zuriaren mantxa, eta gizona garbia dala.

40. Gizona, zeñaen burutik erortzen diraden illeak, kalboa eta garbia da:

41. Eta baldin kopetatik eroriko balitzaiozka illeak, aurrez kalboa eta garbia da:

42. Baña baldin kalban, edo aurreko kalban agertuko balitza kolore zuria edo gorria,

43. Eta ikusiko baldin balu apaizak, erabakiko du dudarikan gabe, dala kalban agertu zaion legenarraz loitua.

44. Ala bada legenararekin loitua dagoenak, eta aldendurik arkitzen danak apaizaren naimenera,

45. Idukiko ditu soñekoak desjosirik, burua utsik, aoa soñekoarekin tapaturik, deadar egingo du ezaindurik eta loiturik dagoala.

46. Legenartsu eta loi dagoen denbora guztian, bizituko da bakarrik etzauntzetatik kanpora.

47. Lanazko edo linozko soñeko legenarra duena,

48. Ari irazkian, eta omenarian, edo ziertoro larrua, edo larruarekin egindako gauzaren bat,

49. Baldin balitz kutsatua mantxa zuriarekin edo gorriarekin, legenartzat idukiko da, eta erakutsiko zaio apaizari,

50. Zeñak esaminaturik, idukiko du zarraturik zazpi egunean:

51. Eta zazpigarren egunean berriz begiraturik, arkituko baldin balu zabaldu dala, legenar itsasia da, loitzat emango du soñekoa, eta bera arkitzen dan toki guztia:

52. Eta argatik erreko da sugarretan.



53. Baldin alabaña ikusiko balu ez dala zabaldu,

54. Aginduko du, eta garbituko dute, legenarra duen gauza ura, eta berriz idukiko du zarratuta beste zazpi egunean.

55. Eta ikusten duenean ez dala egiazki itzuli lenbiziko irudira, baña alaere ez dala zabaldu legenarra loitzat emango du, eta erreko du suan, zeren legenarra zabaldua dago soñekoaren gañean, edo sarturik bere barren guztian.

56. Baña baldin garbitu ezker soñekoa, legenarraren tokia balego illunago, ebakiko du, eta berezituko du osotikan.

57. Eta baldin gero agertuko balitz len garbiak zeuden tokietan, legenar egakoi eta orrona, suan erre bear da.

58. Kenduko balitz, bigarren aldiz garbituko ditu urarekin garbi daukenak, eta garbiak izango dirade.

59. Au da soñeko lanazko eta liñoazkoaren, ari irazkiaren, eta omenariaren, eta larruzko tresna guztiaren legenarraren legea, nola erabaki bear dan dala garbia, edo loa.

AMALAU GARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Au da egin bear dana legenartiarekin, garbitua izango danean. Izango da eramana apaizagana:

3. Zeñak aterarik etzauntzetatik, arkitzen duenean legenarra garbitua izan dala,

4. Aginduko dio garbitzen danari, eskeñi ditzala bera gatik bi txori bizi, zeñetatik jatea zillegi dan, eta zedrozko makilla, eta grana, eta urdin-gorria.

5. Eta aginduko du illtzeko txorietatik bat lurrezko ontzi batean, ur bizien gañean:

6. Eta beste bizia zedrozko makillarekin, eta granarekin, eta urdin-gorriarekin, bustiko du gañetik illa izan dan txoriaren odolean,

7. Zeñarekin intzatu du zazpi aldiz garbitua izango dana, garbitua izan dedin zeremoniaren araura, eta utziko dio joaten txori biziari, egan egin dezan kanpora:

8. Eta garbitzen dituenean gizonak bere soñekoak, arras ebakiko ditu bere gorputzeko ille guztiak, eta garbituko da urarekin, eta garbiturik, sartuko da etzauntzetan, baña egon bearko du zazpi egunean bere dendatik kanpoan,

9. Eta zazpigarren egunean arras ebakiko ditu buruko illeak, eta biza-rra, eta bezintak, eta gorputz guztiko illeak. Eta berriz garbiturik soñekoak eta gorputza,

10. Zortzigarren egunean artuko ditu bi arkume mantxa gabeak, eta urte beteko ardi errenkura gabea, eta iriñlora eskintzarako, olioarekin naasia izan danaren amar zatitikan iru, eta berezikiro olioaren sei zatitatik bat.

11. Eta gizona garbitzen duen apaizak presentatzen duenean gauza guzti oiekin Jaunaren aurrean testimoioiko tabernakuloko atean,

12. Artuko du arkume bat, eta eskeñiko du pekatua gatik, eta olioaren sei zatietatik bat. Eta eskeñirik guztia Jaunaren aurrean,

13. Illko du arkume bat, pekatua gatik eskeintza illa izan oi dan tokian, eta doai dana errea, au da, toki santuan. Zeren pekatua gatik bezala, ala obena gatik eskeintzen dan doaia ere apaizari dagoka, gauza txit santua da.

14. Eta arturik apaizak pekatua gatik illa izan dan aberearen odoletik, jarriko du garbitzen danaren eskuieko belarriaren ertzaren gañean, eta eskuieko eskuko eta oñeko beatz lodien gañean.

15. Eta olioaren sei zatietatik batetik botako du bere ezkerreko eskuaren gañera,

16. Eta bustiko du beratan bere eskuieko eskuko beatza, eta intzatu du Jaunaren aurrean zazpi alditan.

17. Eta ezkerreko eskuan sobratzen dan olio, isuriko du garbitzen danaren eskuieko belarriaren ertzaren gañean, eta eskuieko eskuko eta oñeko beatz lodien gañean, eta pekatua gatik isuria izan dan odolaren gañean,

18. Eta bere buruaren gañean.

19. Eta erregutuko du beragatik Jaunaren aurrean, eta egingo du eskeintza pekatua beragatik. Orduan illko du eskeñiko dan aberea,

20. Eta jarriko du aldarearen gañean bere libazioakin, eta gizona izango da garbitua zeremoniaren araura.

21. Baña baldin beartsua balitz, eta bere eskuak ezin arkituko balitu esan diradenean, artuko du arkume bat eskeintzeko pekatua gatik, erregutu dezan bera gatik apaizak, eta iriñlora eskeintzarako olioarekin naasiaren amar zatitikan bat, eta olioaren sei zatitikan bat,

22. Eta bi usatortola, edo usoaren bi ume, zeñetatik bat izango da pekatua gatik, eta bestea eskeintzarako.

23. Eta eskeñiko diozka apaizari bere garbituerako zortzigarren egunean, testimoioiko tabernakuloko atean Jaunaren aurrean.



24. Zeñak arturik arkumea pekatua gatik, eta seiko olioaren sei zatie-tatikan bat, altxatuko ditu batean.

25. Eta illik arkumea, jarriko du bere odoletik garbitzen danaren eskuiko belarriaren ertzaren gañean, eta bere eskuiko eskuko eta oñeko beatz lodien gañean:

26. Eta olioaren zati bat botako du bere ezkerreko eskura,

27. Zeñean bustirik eskuiko beatz intzatu du zazpi alditan Jauna-ren aurrean:

28. Eta ukituko dio garbitzen danaren eskuiko belarriko ertzari, eta eskuiko eta oñeko beatz lodiai, pekatua gatik isuria izan zan odolaren tokian:

29. Eta ezkerreko eskuan dagoan olioaren gañerako zatia, botako du garbituaren buruaren gañean, biguñtzeko beragatik Jauna:

30. Eta eskeñiko du usatortola, edo usakumea,

31. Bata pekatua gatik, eta bestea doaitzat beren libazioakin.

32. Au da legenarti bera garbitzeko bear diran gauza guztiak iduki ezin dituenaren eskeintza.

33. Eta itz egin zioten Jaunak Moisesi, eta Aaroni, esaten zuela:

34. Sartzen zeratenean Kanaango lurrian, zeñ emango dizutedan bere jabe izateko, baldin balego legenarraren gaitzik etxeetan,

35. Joango da etxearen jabea, adirazten apaizari, eta esango du: Lege-narraren gaitza bezelakoa deritzat dagoala nere etxean.

36. Eta berak aginduko du atera ditzatela gauza guztiak etxetikan, bera sartu baño lenago, ikusi dezan legenarturik ote dagoan, loitu ez ditezten etxean dauden gauza guztiak. Eta sartuko da gero, ezagutzeko etxeko legenarra:

37. Eta ikusiko baldin balitu paretetan zulotxo batzuek, ezainduak kolore orizko, edo gorrizko mantxakin, eta ondatuagoak beste gaña baño,

38. Aterako da etxeko atetikan kanpora, eta bereala itxiko du zazpi egunean ala idukitzeko.

39. Eta itzulirik zazpigarren egunean, ikusiko du; arkituko baldin balu zabaldu dala legenarra,

40. Aginduko du ateratzeko arriak, zeñetan dagoen legenarra, eta aurtikitzeko erritikan kanpora toki loi batera:

41. Eta etxea bera arraskatzeko barrendikan inguruan, eta zabaltzeko arraskatuaren autsa erritik kanpora toki loi batean,

42. Eta jartzeko beste arri batzuek kendu diradenen lekuan, eta zuri-berritzeko etxeko paretak.

43. Baña baldin ateratuak izan ziraden ezkerro arriak, eta autsa arras-katua, eta zuriberritua etxea,

44. Sarturik apaiza ikusiko baldin balu itzuli dala legenarra, eta paretak mantxaz beteak daudela, legendar itsasia da, eta etxea loa:

45. Zeñ bereala desegingo dute, eta botako dituzte erritik kanpora toki loi batera bere arriak, eta zurak, eta auts guztia.

46. Sartzen dana etxean itxirik dagoanean, loa izango da arratsalde-raño:

47. Eta bertan lo egiten duenak, eta zerbait jaten duenak, garbituko ditu bere soñekoak.

48. Baña sarturik apaiza ikusiko balu legenarra ez dala zabaldu etxean, zuriberritu dan ezkerro, emango du garbitzat:

49. Eta bera garbitzeko artuko ditu bi txori, eta zedrozko makilla bat, eta grana eta urdingorria:

50. Eta illik txori bat lurrezko ontzi batean ur bizien gañean,

51. Artuko du zedrozko makilla, eta urdingorria, eta grana, eta txori bizia, eta bustiko ditu guztiak txori illaren odolean, eta ur bizietan, eta intzatu du etxea zazpi aldiz.

52. Eta garbituko du bai txoriaren odolaz, eta bai ur biziaz, eta txori biziaz, eta zedrozko makillaz, eta urdingorriaz, eta granaz.

53. Eta utzitzen dionean txoriari egaan egin dezan kanpora librekiro, erregutuko du etxea gatik, eta izango da garbitua zeremoniaren araura.

54. Au da legendar guztiaren, eta zauriaren,

55. Soñekoen eta etxeen legenarraren,

56. Arradizaren, eta kanpora ateratzen diraden postillen, mantxa argitsuaren, eta mot askotan aldatutako koloreen legena,

57. Jakiña izan al dezakean, zer denboratan dan zerbait garbia, edo loa.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zien Jaunak Moisesi, eta Aaroni, esaten zuela:

2. Itz egin zaiezute Israelko semeai, eta esan zaiezute : Umekai eria duen gizona, loa izango da.

3. Eta orduan erabakiko da eritasun onen mendean dagoala, ume bakoitzean ezaki loa itsasten zaionean bere aragiari, eta gogortzen danean.

4. Lo egiten duen estradu guztia, loa izango da, baita ere esertzen dan toki guztia.



5. Gizonen batek ukitzen baldin badio bere oeari, garbituko ditu bere soñekoak, eta bera urez garbitua, loa izango da arratsalderaño.
6. Esertzen baldin bada bera eseria zegoen tokian, berak ere garbituko ditu bere soñekoak, eta urez garbiturik loa izango da arratsalderaño.
7. Bere aragiari ukitzen dionak, garbituko ditu bere soñekoak, eta bera urez garbiturik, loa izango da arratsalderaño.
8. Baldin onelako gizonak istua botako balu, garbia dagoanaren gañera, garbituko ditu bere soñekoak, eta urez garbiturik, loa izango da arratsalderaño.
9. Basta, zeñaen gañean esertzen dan, loa izango da:
10. Umekai eria daukanaren azpian dagoen guztia, loitua izango da arratsalderaño. Gauza oietatik zerbait eramaten duenak, garbituko ditu bere soñekoak, eta bera urez garbiturik, loa izango da arratsalderaño.
11. Onelako gizonak ukitzen dion guztia, lendikan eskuak garbitu gabe, eta urez garbitu ezker, loa izango da arratsalderaño.
12. Ukitzen dion lurrezko ontzia, autsia izango da, eta zurezko ontzia urez garbitua izango da.
13. Sendatzen baldin bada onelako gaitza duena, kontatuko ditu bera garbitu ezkeroko zazpi egun, eta garbiturik soñekoak eta gorputz guztia ur bizietan, garbia izango da.
14. Eta zortzigarren egunean artuko ditu bi usatortola, edo bi usakume, eta etorriko da Jaunaren aurrera testimonioko tabernakuloko atera, eta emango diozka apaizari:
15. Zeñak eskeñiko ditu bata pekatua gatik, eta bestea doaitzat, eta erregutuko du bera gatik Jaunaren aurrean, garbitua izan dedin bere umekai eritik.
16. Gizonak, zeñ gandik atera dan naasiko azia, urez garbituko du bere gorputz guztia, eta loa izango da arratsalderaño.
17. Urez garbituko ditu soñekoa eta duen larrua, eta loa izango da arratsalderaño.
18. Emakumea, zeñarekin naasitzen dan, urez garbitua izango da, eta izango da loa arratsalderaño.
19. Illeko odolaren jarioa duen emakumea, berezitua izango da zazpi egunean.
20. Berari ukitzen dion guztia, loa izango da arratsalderaño:
21. Eta bera berezitua dagoen egunetan, lo egiten duenean, edo esertzen danean azpian duen guztia, loitua izango da.
22. Bere oiari ukitzen dion guztiak, garbituko ditu bere soñekoak: eta bera urez garbiturik, loa izango da arratsalderaño.

23. Ukitzen dionak, bera gañean eseria dagoan edozeñ ontziri, garbituko ditu bere soñekoak, eta bera urez garbiturik, loa izango da arratsalderaño.
24. Baldin senarra naasiko balitz berarekin illeko odolaren denboran, loa izango da zazpi egunean, eta lo egiten duen estradu guztia, izango da loitua.
25. Odolaren jarioa egun askoan duen emakumea ez illekoen denboraz, edo illeko odolaren ondoren, jarioa gelditzen etzaiona, gaitz onekin dagoan bitartean, loa izango da illekoakin balego bezela.
26. Lo egiten duen estradu guztia, edo ukitzen dion tresna guztia, loa izango da.
27. Oiei ukitzen dioten guztiak, garbituko dituzte bere soñekoak, eta bera urez garbiturik, loa izango da arratsalderaño.
28. Geldituko baldin balitz odola, eta utziko balio jarioak, kontatuko ditu zazpi egun bere garbitueraren ondoren:
29. Eta zortzigarren egunean eskeñiko diozka bera gatik apaizari bi usatortola, edo bi usakume testimonioko tabernakuloko atean:
30. Zeñak bata eskeñiko du pekatua gatik, eta bestea doaitzat, eta erregutuko du bera gatik Jaunaren aurrean, eta bere loikeriaren jarioa gatik.
31. Erakutsiko diezute bada Israelko semeai gorde ditezela loikeriatic, eta ez ditezela ill beren ezaintasunetan zikintzen dutenean beren artean dan nere tabernakuloa.
32. Au da, umekai eria duenaren, eta naasiz loitzen danaren,
33. Eta illekoen denboran berezitua dagoan emakumearen, edo odol jarioak jarraitzen dionaren, edo berarekin lo egiten duen gizonaren legea.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi Aaronen bi semeen eriotzaren ondoren, eskeintzen zutela su arrotza illak izan ziradenean:
2. Eta agindu zion, esaten zuela: itz egin zaiozu zure anaia Aaroni, ez dedilla sartu edozeñ denboratan, propiziatorioaren aurrean, beloaren barrenean dagoen santuarioan, zeñarekin estaltzen dan kutxa, ill ez dedin (zeren odeian agertuko naiz orakuloaren gañean),
3. Gauza oiek lendikan egiten ez baldin baditu, Eskeñiko du txal bat pekatua gatik, eta ari bat doaitzat.
4. Jantziko du liñozko tunika, tapatuko ditu lotsariak liñozko frakaturiak: lotuko du gerria liñozko batekin, jarriko du buruan liñozko



kapela: zeren soñeko oiek santuak dirade, zeñaz guztiakin jantziko da, garbitu ezkeru.

5. Eta artuko ditu Israelko semeen talde guztia gandik bi antxume ar pekatua gatik, eta ari bat doaitzat.

6. Eta eskeintzen duenean txala, eta erregutzen duenean bera gatik, eta bere etxea gatik,

7. Presentatuko ditu antxume ar biak Jaunaren aurrean testimonioko tabernakuloaren aurrean:

8. Eta botarik suertea bien gañean, bata Jaunarentzat, eta bestea auntz ar bidalduko danarentzat:

9. Eskeñiko du pekatua gatik ura, zeñi irten zaion suertea, Jaunarentzat:

10. Eta irten zaiona izateko auntz ar bidalduko dana, presentatuko du bizirik Jaunaren aurrean, erreguak egiteko bere gañean, eta botatzeko eremura.

11. Oiek egiñik zeremonien araura, eskeñiko du txal bat, eta erregutuz duela bera gatik, eta bere etxea gatik, ilko du:

12. Eta arturik intzentsonarioa, zeñ bete izango duen aldareko txingarraraz, eta aterarik eskuaz, intzentsatzeko egindako lurringaia, sartuko da belotik barrena santuarioan:

13. Jarririk suaren gañean aromak, beren keak, eta lurriñak estali dezan testimonioaren gañean dagoan orakuloa, eta ill ez dedin.

14. Artuko ere du txalaren odoletik, eta intzaturiko du beztakin zazpi alditan propiziatorioaren aurretik sortaldeko aldean.

15. Eta illik auntz arra erriko pekatua gatik, sartuko du bere odola beloaren barrenen, txalaren odola gatik agindu zan bezela, intzatu dezan orakuloaren aurretikan,

16. Eta garbitu dezan santuarioa Israelko semeen loikerietatik, eta fedea ausitzearekin egin dituzten gaiztakerietatik, eta pekatu guztietatik. Zeremonia onen araura egingo du beren bizilekuaren loikerien erdian tinkatua dagoan testimonioko tabernakuloarekin.

17. Gizonik batere ez bedi egon tabernakuloan apaiz-nagusia sartzen danean santuarioan, erregutzeko bera gatik, eta bere etxea gatik, eta Israelko batzarre guztia gatik, atera dedin artean.

18. Eta ateratzen danean Jaunaren aurrean dagoan aldaretik, erregutu beza bera gatik, eta arturik txalaren eta auntz arraren odola, isuri beza bere puntuen gañean inguruan:

19. Eta intzaturik beztaz zazpi aldiz, garbitu, eta santutu beza Israelko semeen loikerietatik.

20. Garbitu ezkeru santuarioa, eta tabernakuloa, eta aldarea, orduan eskeñi beza auntz ar bizia:

21. Eta jarririk esku biak bere buruaren gañean, konfesatu bitza Israelko semeen gaiztakeri guztiak, eta oben guztiak, eta beren pekatuak, zeñiak jarririk birauakin bere buruaren gañean, bidalduko du gizon gertutaren bidez eremura.

22. Eta eramanik akerrak beren gaiztakeria guztiak lur bakarrera, eta askatua danean eremuan,

23. Itzuliko da Aaron testimonioko tabernakulora, eta eranzirik, leen santuarioan sartu zanean jantzirik zeuzkan soñekoak, eta utzirik an,

24. Garbituko du bere aragia leku santuan, eta aterarik kanpora eskeñi ezkeru bere doaia eta erriarena, erregutuko du bai bera gatik, eta bai erria gatik:

25. Eta erreko du aldarearen gañean bekatuak gatik eskeñia izan dan seboa.

26. Eta aker mandataria bidaldu duenak, garbituko ditu bere soñekoak eta gorputza urez, eta ala etzauntzetan sartuko da.

27. Eta pekatua gatik illak izan diraden txala eta akerra, eta zeñaen odola sartua izan dan santuarioan barrenen garbituera betetzeko, eramango dituzte etzauntzetatik kanpora, eta suaz erreko dituzte bai beren larruak, bai beren aragiak, eta gorotza:

28. Eta erretzen dituen edozeñek, garbituko ditu urez bere soñekoak eta aragia, eta ala sartuko da etzauntzetan.

29. Eta au izango da zuentzat betiko lege bat. Zazpigarren illean, illaren amargarren egunean, penatuko dituzte zuen animak, eta ez dezute lanik egingo, ez errikoak, ez zuen artean bidantziz dabillan arrotzak.

30. Egun onetan izango da zuen expiazioa, eta zuen pekatu guztiak garbitzea, Jaunaren aurrean izango zerate garbituak.

31. Zeren atsedeneko larunbata da, eta penitentzia egingo dezute beti Jaunaren legearen aginduz.

32. Eta expiazioa egingo du, unjitua izan dan apaizak, eta zeñaen eskuak izan ziraden konsagratuak bere aitaren lekuan apaiz lanetan arietzeko, eta jantziko du liñozko tunikaz eta soñeko santuaz,

33. Eta garbituko du santuarioa eta testimonioko tabernakuloa, eta aldarea, apaizak ere, eta erri guztia.

34. Eta au izango da zuentzat betiko lege bat, erregutu dezazutela Israelko semeak gatik, eta bere bekatu guztiak gatik urtean bein. Eta egin zuen Jaunak Moisesi agindu zion bezela.



AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
2. Itz egin zaiezu Aaroni, eta bere semeai, eta Israelko seme guztiai, esaten diezula: Au da Jaunak eman duen agintea, zeñak esaten duen:
3. Israelko etxeko edozeñ gizonek, illko baldin balu idia, edo ardia, edo auntza etzauntzetan, edo etzauntzetatik kanpora,
4. Eta eskeñiko ez baldin balio tabernakuloaren atean doaitzat Jaunari, odolaren obendun izango da, odola isuri baldin balu bezela, ala izango da galdua bere erriaren erditikan.
5. Argatik apaizari eskeñi bear diozkate Israelko semeak beren emaitzak, zeñak illko dituzten kanpoan, izan ditezten Jaunari konsagratuak testimonioko tabernakuloaren atean, eta eskeñi dizazkioten Jaunari doai paketsuak bezela.
6. Eta isuriko du apaizak odola Jaunaren aldarearen gañean testimonioko tabernakuloaren gañean, eta erreko du seboa usai gozoa bota dezan Jaunarentzat:
7. Eta inolaere berriz ez ditzazkieten eskeñi beren doaiak demonioai, zeñak adoratu dituzten. Au izango da berentzat eta beren ondorengentzat betiko lege bat.
8. Esango ere diezu aiei berai: Israelko etxeko, edo zuen artean bizi diraden arrotzetatik edozeñek, eskeñiko baldin balu doaia edo emaitza,
9. Eta eramango ez baldin balu testimonioko tabernakuloaren atera, eskeña izan dizaion Jaunari, galduko da bere erritik.
10. Israelko etxeko, edo zuen artean bidartziz dabiltzazan arrotzetatik edozeñ gizonek, baldin jango balu odola, nik jarriko det sendo alakoaren gañean nere arpegi aserretua, eta galduko det bere erritik,
11. Zeren aragiaren anima odolean dago, eta nik eman dizutet, bera-ekin pagatu ditzazuten aldarearen gañean zuen animen zorrak, eta odolak balio dezan anima erosteko,
12. Argatik esan diotet Israelko semeai: Zuen arteko batek ere ez du jango odolik, ez eta ere zuen artean bidartziz dabiltzazan arrotzek.
13. Israelko semeetatik, edo zuen artean bidaisariz bizi diraden arrotzetatik edozeñ gizonek, atzituko baldin balu eizean edo egazteizean larrabere edo egazti, beretatik jatea zillegi danen bat, isuri beza bere odola, eta estali beza lurrez.
14. Zeren aragi guztiaren anima odolean dago: argatik esan diotet Israelko semeai: Abereren odolik ez dezute jango, zeren aragiaren anima odolean dago: eta jaten duen guztia, galdua izango da.

15. Gauza illki, edo larrabereak arrapatua jaten duen guztiak, naiz errikoa, naiz arrotza, garbituko ditu bere soñekoak eta bera urarekin, eta loitua egongo da arratsalderaño, eta era onetan garbitua izango da.

16. Eta baldin ez baditu garbitzen bere soñekoak eta gorputza, eramango du beraren gañean bere gaiztakeria.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
2. Itz egin zaiozu Israelko semeai, eta esango diezu: Ni zuen Jaun Jainkoa:
3. Ez diezute jarraituko Ejiptoko lurreko bizitu izan zerateneko usantzai; ez dituzute ere artuko Kanaango lurreko, nik sartuko zaituzte-daneko oiturak; etzerate ere ibilliko beren legeen erara.
4. Egingo dituzute nere erabakiak, eta gordeko dituzute nere agintean, eta ibilliko zerate beretan. Ni zuen Jaun Jainkoa.
5. Gorde itzazute nere legeak, eta erabakiak; zeñak egiñik gizonak, bizituko da beretan. Ni Jauna.
6. Gizonik ez bedi alderatu bere odolaren lagun emakume gana agertzeko bere lotsaria. Ni Jauna.
7. Etzera elkartuko ezkontzaz zure aitarekin, ez zure amarekin, zure ama da; ez dezu beragan ezer agertuko garbitasunaren kaltean izan deza-keanik.
8. Ez dezu zer ikusirikan izango zure aitaren emaztearekin; zeren zure aitaren emaztea izan da bera.
9. Ez dezu ere zer ikusirik izango zure arrebarekin aitaren, edo amaren aldetik, naiz izan dedilla jaiola etxean, naiz etxetik kanpoan.
10. Ez dezu zer ikusirik izango zure semearen alabarekin, ez illobarekin alabaren aldetik: zure odola dalako.
11. Ez dezu ere zer ikusirik izango zure aitaren emaztearen alabarekin, zeñ egin zuen berak zure aitarentzat, eta da zure arreba.
12. Ez dezu zer ikusirik izango zure aitaren arrebarekin; zeren da zure aita beraren aragia.
13. Ez dezu zer ikusirik izango zure amaren aizparekin; zeren da zure amaren aragia.
14. Ez ezazu desonratu zure osaba aitaren aldekoa, ezkontz itza ematen diozula bere emazteari; zeren zure aidea da eskontzaz.
15. Ez dezu zer ikusirik izango zure errañarekin; zeren bera da zure semearen emaztea, eta etzaiozu egin alako desonrarik.



16. Ez dezu zer ikusirik izango zure anaiaren emaztearekin, zure anaiaren aragia dalako.

17. Etzera ezkonduko bere amarekin, ez bere alabarekin. Ez zure emaztearen semearen, edo alabaren alabarekin, egiten diezula alako desonra: zeren zure emazte beraren aragia dirade, eta alako elkartasuna kutsaidea da.

18. Ez dezu artuko bigarrenengo emaztetzat, zure emaztearen aizpa: ez dezu ere idukiko zer ikusirik berarekin oraindikan au bizirik dagoala.

19. Etzaitz alderatu emazteagana illekoak dituen bitartean, eta ez ezazu berarekin zer ikusirik izan.

20. Ez dezu pekatuarekin egingo zure lagunaren emaztearekin, eta etzera ere loituko alako naasiarekin.

21. Ez dezu emango zure semerik Molok idoloari konsagratzeko, eta ez dezu ere loituko zure Jaungoikoaren izena. Ni Jauna.

22. Etzaitz naasi aurrarekin eme naasiz, zeren gorrotogarria da.

23. Abererekin etzera naasiko, ez eta loitu ere berarekin. Ez da ere nahasiko emakumea abererekin: zeren gaiztakeria andia da.

24. Etzaitz ere loitu, nik zuek ikusten dezutela botako ditudan jende guztiak naasi diraden gauza guzti oiekin,

25. Eta zeñakin loitua izan dan lurra, zeñaen gaiztakerien kontu estuak artuko dieztet nik, bota ditzan bera gandik aserrearekin beragan bizi diradenak.

26. Gorde itzatzute nere legeak, eta erabakiak, eta ez ezazute egin alako gaiztakerietatik bat ere, ez errikoak, ez zuen artean bizi diraden erbestekoak.

27. Zeren gauza nazkagarri guzti oiek egin dituzte, zuek baño lena-go lur artan bizitu izan ziradenak, eta daukate ezaindurik.

28. Kontu bada, zuek ere bera gandik aserrearekin bota etzaitzaten, zuek baño lenagoko jendea bota zuen bezela, alako gauzarik egiten baldin badezute.

29. Gaiztakeri oietakoren bat egiten duena, galdua izango da bere erriaren erditik.

30. Gorde itzatzute nere aginteak. Ez ezazute egin zuek baño lena-gokoak egin dutena, eta etzaitz ere loitu alako egiteakin. Ni zuen Jaun Jainkoa.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Itz egin zaiozu Israelko semeen batzarre guztiari, eta esango diezu: Santuak izan zaitzete, zeren ni santua naiz, zuen Jaun Jainkoa.

3. Bakoitza bere aitaren, eta bere amaren beldur izan bedi. Gorde itzatzute nere larunbatak. Ni zuen Jaun Jainkoa.

4. Etzaitzete itzuli idoloetara, eta ez ezazute ere egin zuentzat menasturtuzko Jaungoikorik. Ni zuen Jaun Jainkoa.

5. Baldin eskeñiko baziñokete Jaunari paketsuen doaia, izan dedin ongiroa,

6. Jango dezute illa izan dan egunean bertan, eta urrengo egunean, baño irugarren egunerako sobratzen dan guztia, suaz erreko dezute.

7. Baldin iñork jango balu bertatik bi egunen ondoren, gaizkigillea izango da, eta pekatuaren obendun:

8. Eta eramango du bere gañean bere gaiztakeria, Jaunaren santua loitu zuelako, eta anima ura galdua izango da bere erritik.

9. Igitaizen dituzunean zure lurreko uztak, ez dezu ebakiko azpiraño lurraren gaña; ez dituzu ere bilduko gelditzen diraden buruak.

10. Eta zure mastian ere ez dituzu bilduko mordoak eta erortzen diraden aleak, baizik utziko dituzu, beartuak eta arrotzak bildu ditzaten. Ni zuen Jaun Jaungoikoa.

11. Ez dezute ezer ostuko. Ez dezute gezurrikan esango, eta ez du ere iñork engañatuko bere laguna.

12. Ez dezu gezurrez juramenturik egingo nere izenean, ez dezu ere loituko zure Jaungoikoaren izena. Ni Jauna.

13. Ez diozu gezurrikan asmatuko zure lagunari, ez dezu ere indarrez mendetuko. Ez da ere gelditurik egongo zugar biarko eguneraño, alogerekoaren lana.

14. Ez dezu gaizki esango gorra gatik, ez diozu ere jarriko aurrean itsuari beaztoparik, baizik zure Jaun Jaungoikoaren beldur izango zera, zeren ni naiz Jauna.

15. Ez dezu egingo bidegabea dan gauzarik, ez dezu ere bidegabero juzgatuko. Etzaiozu begiratu beartuaren personari, ez ezazu ere onratu aldunaren arpegia. Bidez juzgatu ezazu zure laguna.

16. Etzera izango gezur asmatzalea, ez iskiña errian. Etzera presentatuko zure lagunaren biziaren kontra. Ni Jauna.

17. Ez diozu gorrotorik izango zure anaiari zure biotzean, baizik errierta egin zaiozu agirikiro, bera gatik pekatu egin ez dezazun.

18. Ez ezazu billatu benganza, etzera ere oroituko zure erritarren irainarekin. Maitatuko dezu zure adiskidea zu zerori bezela. Ni Jauna.



19. Gorde itzatzute nere legeak. Ez diozu naasi eraziko zure astoari beste abere motarekin. Ez dezu ereingo zure soroan azi mota asko. Ez dezu jantziko, birekin egiña dagoan soñekoa.

20. Baldin gizon bat naasiko balitz emakume menpeko onezkero ezkongairen batekin, baña oraindikan erreskatatu eta bere autakeran jarri gabearekin, biak izango dirade azotatuak, baña ez illak, zeren emakumea ez zegoan bere autakeran.

21. Baña gizonak eskeñiko du ari bat bere pekatuagatik testimonioko tabernakuloko sarreran:

22. Eta apaizak erregutuko du bera gatik, eta bere pekatua gatik Jau-naren aurrean, eta berarekin pakeak egingo ditu, eta barkatua izango zaio pekatua.

23. Sartzen zeratenean lur eskeñian, eta ipintzen dituzutenean, ber-tan frutadun zuaizak, botako dituzte lenbiziko frutuak, eta lenbizi ema-ten dituzten frutuak, loitzat idukiko dituzute, eta ez dituzute jango.

24. Baña laugarren urtean beren frutu guztia izango da konsagratua Jau-naren gloriara:

25. Eta bosgarren urtean jango dituzute frutuak, biltzen dituzutela ematen dituzten guztiak. Ni zuen Jaun Jaungoikoa.

26. Ez dezute jango odolarekin. Ez dezute aztiatuko, ez dituzute ere gordeko ametsak.

27. Ez dezute ere ebakiko illea inguruan, ez dezute ere arras kendu-ko bizarra.

28. Eta illa gatik ez dezute epaituko zuen aragia; ez dezute ere egin-go zuen gañean irudirik, ez markarik. Ni Jauna.

29. Ez ezazu arageitu zure alaba, loitu ez dedin lurra, eta gaiztakeriaz bete ez dedin.

30. Gorde itzatzute nere larunbatak, eta nere Elizaren beldur izan zaitezte. Ni Jauna.

31. Ez ezazute alderik egin zuen Jaungoikoa gandik mirakindarreta-ra, etzaiezute ere ezer galdetu aztia, berak gaitik loitu etzaitezten. Ni zuen Jaun Jaungoikoa.

32. Jaiki zaite buru urdiñaren aurrean, eta onratu ezazu zarraren per-sona, eta zure Jaun Jaungoikoaren beldur izan zaite. Ni naiz Jauna.

33. Baldin arrotzik bizituko balitz zuen lurrean, eta egongo balitz zuen artean, etzaiozute bidegaberik egin.

34. Baizik egon bedi zuen artean errikoa bezela, eta maitatuko dezute zuen zerok bezela, zeren zuek ere izan ziñaten arrotzak Ejiptoko lurrean. Ni zuen Jaun Jaungoikoa.

35. Ez ezazute egin gauza gaiztorik erabakian, kanan, pisuan, neu-rrian.

36. Balanza izan bedi justoa, eta pisuak izan bediz berdiñak, lakaria justoa, eta txopiña berdiña: Ni zuen Jaun Jaungoiko, Ejiptoko lurretik ate-rea zinduztedana.

37. Gorde itzatzute nere aginte guztiak, eta nere erabaki guztiak, eta bete itzatzute. Ni Jauna.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Oiek esan zaiezu Israelko semeai: Israelko semeetatik, edo beren artean bizi diran arrotzetatik edozeñek, emango baldin balio bere seme-ren bat Molok idoloari, illa izango da, lurreko erriak arrika egingo dio.

3. Eta nik erakutsiko det nere aserrea bere kontra, eta aterako det bere erriaren erditik, eman dizkiolako bere semeak Moloki, eta loitu due-lako nere Eliza, eta mezpreziatu nere izen santua.

4. Baña baldin erriak malmetitu gabe, eta gutxitan idukirik bezela nere agintea, utziko balu kastigatu gabe bere semeren bat Moloki eman dion gizona, eta ez baldin balu nai ill,

5. Nik erakutsiko det nere aserrea alako gizonaren kontra, eta bere aideen kontra, eta aterako ditut beren erriaren erditik bera, eta Moloken idoloa adoratzea ongitzat eman zuten guztiak:

6. Ni gandik alde egiten duena joateko zerbait galdetzera mirakinda-rrai eta aztia, eta berakin elkartzen dana nik agertuko det nere aserrea bere kontra, eta arrotzuko det bere erriaren erditik.

7. Santutu zaitezte, eta izan zaitezte santuak, zeren ni naiz zuen Jaun Jaungoikoa.

8. Gorde itzatzute nere aginteak eta bete itzatzute: Ni zuek santutzen zaituztedan Jauna.

9. Madarikatzen dituen bere aita, edo ama, illa izan bedi, aita eta ama madarikatu zituen, bere odola izan bedi bere gañean.

10. Baldin norbaitek pekatu egingo balu besteren baten emazteare-kin, eta adulterioko pekatuan eroriko balitz bere lagunaren emaztearekin, illak izan bediz adulterioa egin duen gizona, eta andrea.

11. Bere ugazamarekin bekatu egiten duena, onela desonratzen duela bere aita, biak izan bediz illak, erori bedi beren odola beren gañera.

12. Baldin iñork pekatu egingo balu bere errañarekin, biak izan bediz illak, pekatu andi bat egin dutelako, beren odola erori bedi beren gañera.



13. Pekatu egiten duena arrarekin au emea balitz bezela, biak egin dute pekatu txit andia, eta; illak izan bediz, beren odola izan bedi beren gañean.

14. Idukirik norbaitek emaztetzat alaba, gero onen amarekin ezkonzen danak, egiten du gaiztakeria andi bat, bizirik errea izan bedi berakin, ez bedi gelditu zuen artean pekatu ain andiaren aztarnarik ere.

15. Pekatu egiten duena abereren batekin, illa izan bedi; ill ezazute aberea ere.

16. Edozeñ abererekin pekatu egiten duen emakumea, illa izan bedi aberearekin batean; erori bedi beren odola beren gañera.

17. Iñork egingo baldin balu gauza ezañik bere arrebarekin, bere aitaren edo bere amaren alabarekin, elkar desonratzen dutela, biak egin dute pekatu nazkagarri bat; izango dirade illak erri guztiaren aurrean, batak bestea ezagutu duelako nabarmenkiro eta pagatuko dute beren gaiztake-riaren pena.

18. Baldin norbait elkartuko balitz emakumearekin illeko jarioaren denboran, eta agertuko balu beragan lotsak estali bear zuena, eta emakumeak berak erakutsiko balu bere loikeria, biak izango dirade beren erritikan botatuak.

19. Ez dezu zer ikusirik izango zure izebarekin amaren edo aitarenarekin; alakorik egiten duenak, bere aragia lotsatzen du, biak pagatuko dute beren pekatuaren pena.

20. Pekatu egiten duena aitaren edo amaren aldeko osabaren emaztearekin, begiratu gabe aidetasunaren lotsari, biak artuko dute duiñ diradena, illko dirade semerik gabe.

21. Ezkontzen danak bere anaiaren emaztearekin, gauza gaizto bat egiten du, loitzen du bere anaiaren onra; semerik gabe geldituko dirade.

22. Gorde itzatzute nere legeak, eta erabakiak, eta bete itzatzute: sartu eta bizitzera zoazten lurrak bota etzaitzaten izugarririo zuek ere bera gandik.

23. Etzaiezute jarraitu, nik zuen aurrean bota ditudan erreinuen oiturai, zeren berak gauza guzti oiek egitea gatik, nik gorroto diet.

24. Eta zuei esaten dizutet: Artu ezazute zuentzat beren lur, nik zuei primeztzat emango dizutedana, esnea eta ezitia darion lurra. Ni naiz zuen Jaun Jaungoiko, beste errietatik berezitu zaituztedana.

25. Berezitu ezazute bada zuek ere abere garbia loaia gandik, eta egazti garbia loaia gandik; ez itzatzute loitu zuen animak abereak gatik, egaztiak gatik, eta lurraren gañean mugitzen dirade, eta nik loaia bezela erakusi dizkizutedan gauza biziak gatik.

26. Izango zerate santuak neretzat, zeren ni Jauna santua naiz, eta berezitu zinduztedan beste errietatik, nereak izateko.

27. Pitonen, edo aztinantzaren espiritua duten gizasemea, edo emakumea, illak izan bediz: arrika illko dituzte: beren odola izan bedi beren gañean.

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Esan ere zion Jaunak Moisesi: itz egin zaiezu Aaronen seme apai-zai, eta esango diezu: Ez bedi loitu apaiza bere erriarren eriotzan,

2. Baizik bakarrik aideanean eta aldekoanean, au da, aitarenean, eta amarenean, eta semearenean, eta alabarenean, anaiarenean ere,

3. Eta arreba birjiña, ezkondua izan ez danarenean:

4. Baña bere erriko prinzipearenean ere ez da loituko.

5. Ez dute arras moistuko burua, ez bizarra, eta ez dituzte ere egin-gor beren aragietan epaiak.

6. Zeren santuak izango dirade beren Jaungoikoarentzat, eta ez dute loituko bere izena, zeren eskeintzen dituzte Jaunaren intzentsoa, eta beren Jaungoikoaren ogiak, eta argatik santuak izango dirade.

7. Ez dirade ezkonduko bordionarekin, ez emakume galdu zatarrarekin, ez eta senarrak utzia izan danarekin, zeren beren Jaungoikoari kon-sagratuak dirade,

8. Eta proposizioko ogia eskeintzen dituzte. Izan bediz bada santuak, zeren ni ere santua naiz, santutzen ditudan Jauna.

9. Baldin apaizaren alaba arrapatua balitz pekatuan, onela desonratzen duela bere aitaren izena, bizirik errea izango da.

10. Aita Santuak, au da, bere anaien artean apaiz nagusiak, zeñaen buruaren gañera izan zan isuria olioia, eta zeñaen eskuak izan ziraden kon-sagratuak apaizta artu zuenean, eta jantzia dagoanak soñeko santuakin, ez du agertuko bere burua, ez ditu urratuko soñekoak:

11. Iñolaere ez da sartuko gorputz illa dagoan tokian. Bere aita gatik eta ama gatik ere ez da loituko.

12. Ez da ere aterako toki santuetatik, loitu ez dezan Jaunaren Eliza, zeren bere Jaungoikoaren unzio santuaren olioia bere gañean da. Ni Jauna.

13. Birjiña artuko du emaztetzat:

14. Eta ez du artuko alargunik, ez utzitakorik, ez desonraturik, ez bordionik, baizik bere erriko birjiña:

15. Ez beza nastu bere etorkiko odola bere erriko jendallarekin, zeren ni naiz santutzen dedan Jauna.

16. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:



17. Itz egin zaiozu Aaroni. Zure etorkiko familietako gizon mantxaren bat duenak, ez diozka eskeñiko ogiak bere Jaungoikoari,

18. Ez da ere alderatuko bere lanera; balitz itsua, errena, sudur txiki, andi edo okerrekoa,

19. Baldin oñ etena, baldin esku txangua,

20. Balitz korkobatua, baldin bekartsua, balu begian lausoa, atz iraunkorra, baldin balu supitzairik gorputzean, baldin balitz potraminduna.

21. Aaron apaizaren jatorriko edozeñ gizon mantxa duena, ez da alderatuko eskeintzera Jaunari doaiak, ez eta ere bere Jaungoikoari ogiak:

22. Baña jango du Elizan eskeintzen diraden ogietatik,

23. Sartzen ez bada beloaren barrenen, ez alderatu aldarera, zeren mantxa dauka, eta ez du loitu bear nere santuarioa. Ni naiz santutzen ditudan Jauna.

24. Moisesek bada esan ziozkaten Aaroni, eta bere semeai, eta Israel guztiari, aginduak izan zitazkion gauza guztiak.

OGETA BIGARREN KAPITULUA

1. Itz egin ere zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Esan zaiezu Aaroni eta bere semeai, alde dezatela Israelko semeak egiten dizkidaten eskeintzari sagraduetatik, loitu ez ditzaten, nere onran santututako gauzak berak eskeintzen dituztenak.

3. Esan zaiezu berai eta beren ondokoai: Zuen jatorriko edozeñ gizon, loiturik egonik, alderatzen dana gauza konsagratuetara, eta Israelko semeak Jaunari eskeñi ziozkatenetara, galdua izango da Jaunaren aurrean. Ni naiz Jauna.

4. Aaronen jatorriko gizon legenartia danak, edo umekai eria duenak, ez ditu jango santutuak izan zitazkidan gauza aietatik, sendatua jarri dedin bitartean. Ukitzen diona illen bati ukitu diolako loa danari, eta ukitzen diona azisurtea gatik loitua dagoanari,

5. Eta ukitzen diona arrastakariren bati edo edozeñ gauza likitsi, zeñaen ukitua dan zikiña,

6. Loia izango da arratsalderaño, eta ez ditu jango santutuak izan diraden gauzak, baña garbitzen duenean urez bere aragia,

7. Eta eguzkia sartzen danean, orduan garbiturik jango ditu gauza santutuak, zeren bere janaria da.

8. Ez dute jango gauza illkirik, eta pistiak arrapaturik, ez dirade ere loituko beretan. Ni naiz Jauna.

9. Gorde bitzate nere aginteak, pekatuaren mendean jarri ez ditezen, eta santuarioan ill ditezen, bera loitu ezker. Ni santutzen ditudan Jauna.

10. Arrotzek ez du jango santututako gauzetatik, apaizaren maisterak, eta alogerekoak ez dute jango beretatik.

11. Baña apaizak erosten duenak, eta bere etxean jaioa danak, oiek jango dute beretatik.

12. Baldin apaizaren alaba ezkonduko balitz erriko edozeñekin, ez du jango santutuak izan diraden gauzetatik, ez lenbizietatik.

13. Baña baldin alargun geldituta, edo senarrak utzita, eta semerik gabe biurtuko balitz bere aitaren etxera, izango da bere aitaren janariakin bazkatua, neskata zanean oi zuen bezela. Arrotzek ez du beretatik jateko eskurikan.

14. Jaten duenak gauza santuetatik ezjakiñean, eratxekiko dio bosgarren partea jan duenari, eta emango dio apaizari santuariorako.

15. Ez bitzate bada loitu gizonak, Israelko semeak eskeintzen dituzten gauza santutuak,

16. Artu ez dezaten beren pekatuaren kastigua, gauza santutuak jaten dituztenean. Ni naiz santutzen ditudan Jauna.

17. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

18. Itz egingo diezu Aaroni, eta bere semeai, eta Israelko seme gutiari, eta esango diezu: Israelko etxeko, edo zuen artean bizi diraden arrotzetako gizon, eskeintzen duenak bere doaia, edo kunplitzen dituela emaitzak, edo eskeintzen dituela borondatez, dana dala Jaunari eskeintzen dion doaia,

19. Izan dedin eskeñia zuen bitartez, izango da ar mantxa gabea beietatik, edo ardietatik, edo auntzetatik:

20. Baldin balu mantxarrik, ez dezute eskeñiko, ez da ere izango onirizgarria.

21. Paketsuen doaia Jaunari eskeintzen dion gizonak, naiz promesak kunplitzen dituela, naiz borondatez eskeintzen dituela, naiz beietatik, naiz ardietatik, eskeñiko du mantxa gabea, izan dedin onirizgarria, mantxaren senik ez da beragan izango.

22. Baldin itsua balitz, edo oñ etena, edo arradiren bat duena, edo karetxak dituen, edo atza, edo supitzaiak, ez diozkazute eskeñiko Jaunari, ez dezute ere erreko beretatik Jaunaren aldarearen gañean.

23. Bei eta ardi, belarria eta bustana ebakiak, borondatez eskeñi ditzakezu, baña berakin ezin kunplitu lezake promesik.

24. Ez diozute Jaunari eskeñiko, barrabillak autsiak edo zapalduak, edo ebakiak, edo kenduak dituenik, eta iñolaere ez dezute au egingo zuen errian.



25. Arrotzaren eskutik ez diozute Jaunari eskeñiko ogirik, ez eman nai lukean beste gauzarik, zeren guztia da loia eta zikiña; ez dituzute artuko.

26. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

27. Beia, ardia edo auntza jaiotzen diradenean, egongo dirade zazpi egunean bere amaren erroan, baña zortzigarren egunean eta gero Jaunari eskeñiak izan ditzake.

28. Naiz izan dedilla bera beia, naiz ardia, ez dirade izango illak egun batean beren umeakin.

29. Baldin illko bazendukete aberea Jaunari eskerrak emateko, izan al dezakean onirizgarria,

30. Egun bertan jango dezute, ez da ezer geldituko biaramon goize-rako. Ni Jauna.

31. Gorde itzatzute nere aginteak, eta egin itzatzute. Ni Jauna.

32. Ez ezazute loitu nere izen santua, santutua izan nadin Israelko semeen erdian. Ni santutzen zaituztedan,

33. Eta Ejiptoko lurretik atera zinduztedan Jauna, izan nendin zuen Jaungoikoa. Ni Jauna.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu: Oiek dirade Jaunaren jai santuak deituko dieztezutenak.

3. Sei egunean lanean ariko zerate; zazpigarren eguna, larunbateko atsedena dalako, deitua izango da santua. Lanikan batere ez dezute bertan egingo. Jaunaren larunbata da zuen bizileku guztietan.

4. Oiek dirade bada Jaunaren jai santu, beren denboretan zelebratu bear dituzutenak.

5. Lenbiziko illean, illaren amalagarren egunean arratsaldetik, Jaunaren Paskoa da:

6. Eta ill onen amabosgarrenean, Jaunaren legamigabeen jai andia da. Zazpi egunean jango dituzute legamigabeak.

7. Lenbiziko eguna izango da zuentzat txit ospe andikoa, eta santua, ez dezute bertan egingo morroi lanik batere:

8. Baizikan eskeñiko diozute doaia suaren gañean Jaunari zazpi egunean. Eta zazpigarren eguna izango da ospetsuagoa eta santuagoa, eta morroi lanikan batere ez dezute bertan egingo.

9. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

10. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu: Sartzten zeratenean neronek emango dizutedan lurrean, eta igitaitzen dituzutenean uztak, eramango diozkazute apaizari galburuen eskumenak, zuen uztaren lenbizizat:

11. Zeñak jaiaren biaramonean altxatuko du sortatxoa, Jaunaren aurrean, eta santutuko du.

12. Eta eskumena konsagratzen dan egun artan bertan, illa izango da arkume mantxarrik gabeko urtekoa Jaunaren doaitzat.

13. Eta libazioak izango dirade eskeñiak berarekin, iriñ loraren amatatik bi, olioarekin oratua, errea izango dana usai gozoa bota dezan Jaunarentzat, eta ardoaren libazioa ere, hin baten laugarren parte.

14. Uztazko ogirik, ez airik, ez mamirik ez dezute jango, beratatik zuen Jaungoikoari eskeñitzen diozuten eguneraño. Aginte betikoa da zuen gizaldietan, eta bizileku guztietan.

15. Kontatuko dituzute bada larunbatoren biaramoneko egun lenbizien eskumena eskeñi zendutenetik, zazpi aste beteak,

16. Zazpigarren astea betetzen danetik urrengo eguneraño, au da, berrogei ta amar egun, eta onela eskeñiko diozute Jaunari doai berria.

17. Zuen bizileku guztietan, iriñ loraren bi amarretatik legamiarekin, zeñak egosiko dituzute Jaunaren lenbizizat.

18. Eta eskeñiko dituzute ogiakin zazpi arkume mantxagabeko urte beteko, eta bei taldeko txal bat, eta bi ari, eta izango dirade doaiarako beren libazioakin, usai txit gozorako Jaunarentzat.

19. Eskeñiko ere dezute aker bat pekatua gatik, eta bi arkume urtebeteko paketsuen doaitzat.

20. Eta berak altxatu ezker apaizak Jaunaren aurrean primizien ogiakin, utziko dituzte bere usurako.

21. Eta deituko dezute egun au txitez ospakoi eta santua: morroi lanean batere ez dezute egingo bertan. Erabaki betikoa izango da zuen bizileku, eta jatorri guztietan.

22. Eta igitaitzen dituzutenean zuen lurreko uztak, ez dituzute ebakiko lurreraño; ez dituzute ere bilduko gelditzen diraden galburuak, baik izango dituzute pobre eta arrotzentzat. Ni naiz zuen Jaun Jaungoikoa.

23. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

24. Itz egin zaiezu Israelko semeai: Zazpigarren illean, illaren lenbiziko egunean, izango da zuentzat larunbata gogoangarria; zelebratuko dezute tronpeta soñuakin, eta izango da deitua santua:

25. Morroi lanikan batere ez dezute egingo bertan, eta eskeñiko diozute doaia Jaunari.



26. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
27. Zazpigarren il onen amargarren eguna, izango da barkazioko egun txit ospakoa, eta deitua izango da santua, eta atsekabetuko dituzute bertan zuen animak, eta eskeñiko diozute doaia Jaunari.
28. Morroi lanik batere ez dezute egingo egun onen denboran, zeren barkazioko eguna da, paketu dedin zuekin zuen Jaun Jaungoikoa.
29. Egund onetan atsekabetzen ez dan anima guztia, galdua izango da bere errietatik:
30. Eta lanik batere egiten duena, kenduko det bere erritik.
31. Ez dezute bada egingo bertan lanik batere; betiko legea izango da zuentzat zuen jatorri eta bizileku guztietan.
32. Atsedeneko larunbata da, eta atsekabetuko dituzute zuen animak illaren bederatzi garren egunean. Arratsaldetik arratsaldera zelebratuko dituzute zuen larunbatak.
33. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
34. Itz egin zaiezu Israelko semeai: Zazpigarren il onen amabosgarren egunean asiko dirade tabernakuloen jaiak, zeñak zelebratuko diraden Jaunaren onran zazpi egunean.
35. Lenbiziko eguna izango da deitua txit ospakoa eta santua, ez dezute bertan egingo morroi lanik batere.
36. Eta zazpi egunean eskeñiko diozkazute doaiak Jaunari. Zortzigarren eguna ere izango da txit ospakoa eta santua, eta eskeñiko dezute doaia Jaunaren onran, zeren da jendedi eta batzarre andikoa; ez dezute bertan egingo morroi lanik batere.
37. Oiek dirade Jaunaren jai, deituko diezutenak txit ospakoiak, eta txit santuak, eta eskeñiko dizkiozute bertan Jaunari emaitzak, doaiak eta libazioak egun bakoitzaren zeremoniaren araura.
38. Jaunaren larunbaten, eta zuen doaien, eta Jaunari botoz eskeintzen dizkiozutenen, edo borondatez ematen dizkiozutenen gañera.
39. Ala bada zazpigarren illaren amabosgarren egunetik zuen lurreko frutu guztiak biltzen dituzutenetik, laster zelebratuko dituzute Jaunaren jaiak zazpi egunean; lenbiziko egunean eta zortzigarren egunean izango da larunbata, au da, atsedena.
40. Eta artuko dituzute zuentzat lenbiziko egunean zuaizik ederrenaren frutuak, eta palmen maloak, eta zuaiz orritsuen ostoak, eta erreka-ko sarikak, eta poztuko zerate zuen Jaun Jaungoikoaren aurrean.
41. Eta zelebratuko dezute bere jaiak zazpi egunean urte bakoitzean. Betiko legea izango da zuen jatorrietan. Zazpigarren egunean zelebratuko dituzute jaiak,

42. Eta biziko zerate itzaltokietan zazpi egunean. Israelko etorkikoa dan guztia, biziko da etzauntzetan:
43. Ikasi dezaten zuen ondokoak etzauntzetan bizierazi niela Israelko semeai, atera nituenean Ejiptoko lurretik. Ni zuen Jaun Jaungoikoa.
44. Eta itz egin zioten Moisesek Israelko semeai Jaunaren jai andioien gañean.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
2. Agindu zaiezu Israelko semeai ekarri dizazutela olibozko oliorik garbiena eta argiena idukitzeko lanparak beti irazekiak,
3. Testimonioko beloaren kanpotikan elkartasuneko tabernakuloan. Eta jarriko ditu Aaronen arratsaldetik goizeraño Jaunaren aurrean; au da, zuen ondokoak beti onela gordeko duten zeremonia bat.
4. Egongo dirade jarriak beti kandelero txit garbiaren gañean Jaunaren aurrean.
5. Artuko ere dezu iriñlora, eta egosiko dituzu berarekin amabi ogi, zeñatatikan bakoitzak idukiko ditu bi zati amartatik.
6. Eta jarriko dituzu Jaunaren aurrean mai txit garbi baten gañean sei alde bakoitzean:
7. Eta jarriko dezu beren gañean inzenso txit argia, izan dedin ogia Jaunaren doaiaren oroipenean.
8. Larunbat bakoitzean aldatuko dirade Jaunaren aurrean artzen dituztela Israelko semeak gandik betiko elkartasunaz:
9. Eta izango dirade Aaronenak eta bere semeenak betiko eskubidez, jan ditzaten toki santuan, zeren Jaunaren doaietatik gauza txit santuak dirade.
10. Bitartean gertatu zan Israeltar andre baten seme, Ejiptoar gizon bat gandik izan zuenak, aterarik Israelko semeen artetik, erriertan egitea etzauntzetan Israeltar gizon batekin.
11. Eta nola blasfematu zuen Jaunaren izen santua, eta madarikatu zuen, eramana izan zan Moisesgana. (Eta bere amari zeritzan Salumit, Dabriren Dango tribukoaren alaba).
12. Eta sartu zuten karzelan, ezagutzen zuten artean zer agintzen zuen Jaunak.
13. Zeñak itz egin zion Moisesi,
14. Esaten zuela: Atera ezazu blasfemaria etzauntzetatik kanpora, eta aditu zioten guztiak jarri ditzatela beren eskuak beraren buruaren gañean, eta arrika egin bizaio erri guztiak.



15. Eta itz egingo diezu Israelko semeai: Bere Jaungoikoa madarikatzen duen gizonak, pagatuko du bere pekatuaren pena:

16. Eta blasfematzen duena Jaunaren izena, illa izan bedi. Erri guztiak arrika kenduko dio bizia, naiz izan dedilla erritarra, naiz erbestekoa. Jaunaren izena blasfematzen duena, illa izan bedi.

17. Gizona zauritu eta iltzen duena, illa izan bedi.

18. Aberea zauritzen duenak, itzuliko du bera bezelako beste bat, au da, anima gatik anima.

19. Mantxatzen duena bere errikoren bat egin duen bezela, ala egingo zaio:

20. Autsia gatik autsia, begia gatik begia, ortza gatik ortza biurtuko du. Nolakoa dan egin duen gaitza, alakoa irago eraziko zaio.

21. Zaldia zauritzen duenak, biurtuko du beste bat, gizona zauritzen duena, izango da kastigatua.

22. Berdiña izan bedi zuen artean justizia, naiz izan erbestekoa, naiz errikoa pekatu egiten duena, zeren ni naiz zuen Jaun Jaungoikoa.

23. Eta itz egin zioten Moisesek Israelko semeai, eta atera zuten etzauntzetatik kanpora blasfematu zuena, eta arrika ill zuten. Eta egin zuten Israelko semeak Jaunak Moisesi agindu zion bezela.

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi Sinaiko mendian, esaten zuela:

2. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu: Sartzen zerateanean nik emango dizutedan lurrean, gordeko dezu Jaunaren larunbata.

3. Sei urtean ereingo dezu zure kanpoa, eta sei urtetan podatuko dezu zure mastia, eta bilduko dituzu bere fruituak:

4. Baña zazpigarren urtean izango da lurraren larunbata, Jaunaren atsedena; kanporikan ez dezu ereingo, eta mastirikan ez dezu podatuko.

5. Ez dezu igitaituko lurak berez ematen duenik, eta zure lenbizi-koen matsak ez dituzu bilduko mendaina bezela, zeren lurraren atsedeneko urtea da:

6. Baizik jango dituzute zuk, eta zure menpeko gizasemeak eta emakumeak, eta alogerekoak, eta zurekin bizi diraden arrotzak.

7. Eta lurak ematen duen guztiak serbituko du zure zamari eta abereen janaritzat.

8. Kontatuko ere dituzu zuretzat urteen zazpi aste au da, zazpi alditan zazpi, zeñak batean egiten dituzte berrogei ta bederatzita urte:

9. Eta zazpigarren egunean, illaren amargarren egunean, barkazioko denboran, joko dezu tropeta zuen erri guztian.

10. Eta santutuko dezu berrogei ta amargarren urtea, eta adiraziko dezu barkazioa zure errian bizi diraden guztientzat, zeren au da jubileoa. Itzuliko da bakoitza bere egoerara, eta bakoitza birtuko da anziñako familiara.

11. Zeren jubileoa da, eta berrogei ta amargarren urtea. Ez dezute ezer ereingo, ez dezute ere igitaituko kanpoan berez ermetzen danik, eta ez dituzte bilduko mendainaren lenbiziak,

12. Jubileoaren santutasuna gatik, baizikan jango dezute aurrean jartzen zatzuten lenbiziko gauza.

13. Jubileoko urtean biurtuko dirade gauza guztiak bere jabeetara.

14. Saltzen diozunean zerbait zure errikoari, edo erosten diozunean, ez ezazu tristetu zure anaia, baizik erosiko diozu jubileoko urteen kontuaren araura,

15. Eta uzten kontuaren araura salduko dizu.

16. Zenbat urte geiago gelditzen diraden jubileoaren ondoren, anbat aziko ere da bere balioa, eta zenbat denbora gutxiago kontatzen dezun, anbat gutxiago kostako da erosten dana ere, zeren uzten denbora salduko dizu.

17. Ez itzatzute premiatu zuen tribukoak, baizik bakoitza bere Jaungoikoaren beldur izan bedi, zeren ni zuen Jaun Jaungoikoa.

18. Egin itzatzute nere aginteak, eta gorde nere erabakiak, eta bete itzatzute, bizi zaitezken lurrean beldurrik batere gabetanik,

19. Eta lurak eman bizazkizuten bere fruituak, zeñak jan ditzazuten ase arteraño, iñoren aserrearen beldurrikan gabe.

20. Eta esango baldin bazendute: Zer jango degu zazpigarren urtean, baldin ez badegu ereiten, eta biltzen ere ez baditugu gure uztak?

21. Emango dituzet nere bendizioa seigarren urtean, eta emango ditu iru urteko fruituak:

22. Eta ereingo dezute zortzigarren urtean, eta jango dituzute uzta zarrak bederatzigarren urteraño, berriak erne artean, jango dituzute zarrak.

23. Lurra ere ez da salduko betiko, zeren nerea da, eta zuek zerate arrotzak eta nere maisterrak.

24. Argatik zuek dituzuten lur guziak salduak izango dirade, berriz erosteko kondizioarekin.

25. Baldin premian arkiturik zure anaia salduko balu bere azienda-txoa, eta bere aideak naiko balu, erosi lezake, ark saldu zuena.



26. Baña baldin ez balu aide urrekorik, eta berak arkitu al balu eros-teko balioa:
27. Kontatuko dira frutuak saldu zan denboratik, eta sobratzen dana biurtuko dio erosleari, eta onela artuko du bere azienda.
28. Eta baldin arkituko ez balu bere eskuak balioa biurtzeko, erosleak idukiko du erosi zuena jubileoko urteraño. Zeren onetan saldu guztia biurtuko da anziñako bere nagusi, eta jabea gana.
29. Saltzen duenak etxe bat erriko murrueen barrenen, idukiko du erosteko eskua, urte bat bete artean.
30. Erosiko ez balu, eta iragoko balitz urtea, eroslea, eta bere pri-muak izango dirade beti bere jabeak, eta ezin erosiko da, jubileoan ere.
31. Baña baldin etxea balego murrurik ez duen errian, saldua izango da kanpoko legeen araura, baldin lendikan ez balitz berriz eresia, jubileo-an biurtuko da bere jabea gana.
32. Lebiten etxe errietan daudenak, beti erosiak izan ditezke,
33. Baldin ez balirade berriz erosiak, jubileoan biurtuko dira jabeeta-ra, zeren Lebiten etxe errietakoak aziendatzat iduki oi dirade Israelko semeen artean.
34. Baña beren lur errien aldekoak ez bediz iñoiz izan salduak, beti berenak diradelako.
35. Baldin zure anaia geldituko balitz premiatua, eta indar gabea, eta artuko bazendu arrotza eta erbestekoa bezela, eta zurekin biziko balitz,
36. Ez ezazu bera gandik artu lukururikan, ez eta ere eman ziñon baño geiago. Izan zaite zure Jaunaren beldur, bizi izan al dedin zure anaia zure etxean.
37. Ez diozu emango zure dirua lukuruan, eta aleetan ez diozu eska-tuko emanaz gañetikorik.
38. Ni zuen Jaun Jaungoiko, atera zinduztedana Ejiptoko lurretik, emateko zuei Kanaango lurra, eta izateko zuen Jainkoa.
39. Baldin zure anaia pobrezaz beartuta salduko balitzazu, ez dezu estutuko mendekoen serbizioz,
40. Baizik idukiko dezu alogerekoa eta maisterra bezela, zure etxean ariko da lanean jubileoko urteraño,
41. Eta gero aterako da bere semeakin, eta biurtuko da aideetara, eta bere gurasoen aziendara.
42. Zeren nere serbitzariak dirade, eta neronek atera nituen Ejiptoko lurretik, ez bediz salduak izan mendekoen gisara.
43. Ez ezazu estutu baliaturik zure almenarekin, baizik zure Jaungoi-koaren beldur izan zaite.

44. Morroi eta neskameak izango dituzute, zuen inguruan dauden erreinoetakoak.
45. Eta zuen artean bidartziz dabiltzazan arrotzetatik, edo oietatik zuen errian jaio diradenak, oiek idukiko dituzute mendekotzat:
46. Eta primutzako legez utziko diozkazute ondorengoai, eta beren jabeak izango zerate beti, baña ez itzatzute estutu almenarekin zuen anai Israelko semeak.
47. Baldin arrotz eta erbestekoren bat aberastuko balitz zuen artean, eta zure anai bearturen bat salduko balitzaio berari, edo bere jatorrikoren bati:
48. Saldua izan ezkerro eresia izan lezake. Nai duenak bere anaietatik erosiko du,
49. Naiz osabak, naiz lengusuak, naiz aideak odolez, edo ezkontzaz. Baña baldin berak berez al balu, erosiko da,
50. Kontaturik bakarrik saldua izan zan bere denboratik jubileoko urteraño urteak, eta kontuan idukirik saldua izan zan dirua, urteen zen-bataren eta alogerekoaren gisakoaren araura.
51. Baldin asko balirade jubileoraño gelditzen diraden urteak, oien araura ala pagatuko du balioa.
52. Baldin gutxi balirade, kontuak egingo ditu berarekin urteen zen-bataren araura, eta pagatuko dio erosleari urteetan sobratzen dana,
53. Len alogerean serbitu zituenen kontua egiñik, ez du estutuko bortxaz zure aurrean.
54. Baldin ezin balizake eresia izan bide oietatik, jubileoko urtean aterako da bere semeakin.
55. Zeren nere serbitzariak dirade, Israelko semeak, zeñak atera nituen Ejiptoko lurretik.

OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Ni zuen Jaun Jaungoikoa: Ez dezute zuentzat egingo idolorik ez tallurik, ez dezute ere altxatuko arroiñik, ez ipiñiko arri izentaturik zuen errian bera adoratzeko. Zeren ni naiz zuen Jaun Jaungoikoa.
2. Gorde itzatzute nere larunbatak, eta ikaratu zaitezte nere Elizan. Ni Jauna.
3. Ibilliko baldin baziñate nere agintean, eta gordeko baldin baziñi-tuzke nere mandamentuak, eta beteko baziñituzte, emango dizkizutet euriak bere denboretan,
4. Eta lurak emango du bere alea, eta zuaitzak frutaz beteak izango dirade.



5. Uzten jotzeak iraungo du mendaineraño, eta mendainak eragotzi-ko du ereitea, eta jango dezute zuen ogia ase arteraño, eta beldurrik gabe biziko zerate zuen lurrean.

6. Egingo det pakea izan dedilla zuen inguruetan; lo egingo dezute, eta ez da izango ikaratuko zaituztenik. Kenduko ditut pistia gaiztoak, eta ezpatarik ez da sartuko zuen mugetan.

7. Persegituko dituzute zuen etsaiak, eta eroriko dirade zuen aurrean.

8. Zuetako bostek persegituko dituzte eun arrotz, eta zuetako eunek amar milla, eroriko dirade zuen etsaiak ezpatarekin zuen aurrean.

9. Begiratuko dizutet, eta azi eraziko zaituztet, ugarituak izango zerate, eta sendotuko det nere elkartasuna zuekin.

10. Jango dezute zarren zarrena, eta berriak etorririk zarrak botako dituzute.

11. Ipiñiko det nere eliza zuen erdian, eta etzaituzte botako nere animak.

12. Ibilliko naiz zuen artean, eta izango naiz zuen Jaungoikoa, eta zuek izango zerate nere erria.

13. Ni zuen Jaun Jaungoikoa, atera zinduztedana ejiptoarren lurretik, serbitu ez ziñizten, eta autsi nituena zuen lepoetako kateak, zuzen ibilli zindezten.

14. Baña baldin adituko ez baninduzute, eta egingo ere ez baziñituzte nere aginte guztiak,

15. Baldin mezpreziatuko bazenduzte nere legeak, eta ez estimatu nere erabakiak, ez egiteko nik aginduta dauzkadan gauzak, eta utsera botako bazendute nere elkartasuna:

16. Nik ere oiek egingo dizkizutet. Kastigatuko zaituztet txit arin gosearekin, eta begiak erreko dizkizuten, eta zuen biziak bukatuko dituen bero batekin. Alperrik ereingo dituzute aleak, zeren izango dirade etsaiak iretsiak.

17. Ezarriko dizutet begirakune bat arpegi aserretuarekin, eta eroriko zerate zuen etsaien oñetan, eta geldituko zerate gorrotatzen zaituztenen mendean; iges egingo dezute, iñork persegitu gabe.

18. Eta baldin onela ere obedituko ez baziñidate, itsasiko diotet zazpi aldiz ainbat zuen kastiguai zuen pekatuak gatik,

19. Eta autsiko det zuen gogortasunaren arrokeria. Eta emango dizutet zeru bat goian burnia bezelakoa, eta lur bat bronzekoa.

20. Alperrik izango da zuen lana, lurra ez du emango muskillik, eta zuaizak ere ez dute emango frutarik.

21. Baldin ibilliko baziñate nerekin leian, eta aditu naiko ez baziñidate, itsasiko diotet zazpi aldiz ainbat zuen kastiguai zuen bekatuak gatik.

22. Eta bidalduko ditut zuen kontra kanpoko pistiak, iretsi zaitzaten zuek, eta zuen abereak, biurtzen zaituztela gutxi batera, eta jartzen dituztela eremu egiñik zuen bideak.

23. Eta baldin onela ere ongitu nai ez bazendute, baizik ibilliko baldin baziñate nerekin leian:

24. Ni ere ibilliko naiz leian zuen kontra, eta kastigatuko zaituztet zazpi aldiz zuen pekatuak gatik.

25. Eta ekarriko det zuen gañera nere elkartasunaren ezpata bengatzallea. Eta iges egiten dezutenean errietara, bidalduko det izurria zuen erdira, eta izango zerate jarriak etsaien eskuetan,

26. Utzitzen zaituztedanean zuen ogia gabe gose andiaz, alako moduan, non amar emakumek labe baten erreko dituzten ogiak, eta ematen dituztenean ontzaka, eta jango dezute, eta etzerate aseko.

27. Eta baldin oiek guztiakin ere ez baninduzute adituko, baizik ibilliko baziñate nere kontra:

28. Ni ere ibilliko naiz zuen kontra etsaiaren aserreaz, eta kastigatuko zaituztet zazpi izurriekin zuen pekatuak gatik,

29. Jango dituzuten eran zuen semeen eta zuen alaben aragiak.

30. Desegingo ditut zuen goiak, eta autsiko ditut zuen irudiak. Eroriko zerate zuen idoloen zatien artean, eta nere animak gorrotatuko zaituzte,

31. Alako moduan, non zuen erriak bakartasunera biurtuko ditut, eta zuen elizak jarriko ditut eremu egiñik, eta ez det onezkero ongitzat artuko usai txit gozoa.

32. Eta galduko det zuen lurra, eta arrituko dirade zuen etsaiak bera ikusiaz, sartzen diradenean bertan bizitzera.

33. Zuek berriz barreiatuko zaituztet erreinoetatik, eta desmakiatuko det nere ezpata zuen ondoren, eta izango da zuen lurra eremu bat, eta zuen erriak geldituko dirade desegiñik.

34. Orduan lurra gozatuko da bere larunbatetan, bere bakartasuneko denborak dirauen artean, zuek zaudetenean.

35. Etsaien errian, desnekatuko da, eta atsedengo du, bere bakartasunaren larunbatean, atsedean etzuelako zuen larunbatetan, bertan bizi ziñatenean.

36. Eta zuetatik gelditzen diradenai, emango diet ikara beren biotzetan etsaien errietan, egaan dijoan osto baten otsak ikaratuko ditu, eta ala



iges egingo dute ezpata bat gandik bezela; eroriko dirade iñork persegitu gabe.

37. Eta eroriko da bakoitza bere anaiaren gañera gudatik igesi diojak zenak bezela, zuetakorik batere ez da azartuko etsaiari zemuitzen.

38. Galduko zerate jendeen artean, eta lur etsaiak desegingo zaituzte.

39. Eta baldin oraindik oietakoren batzuek geldituko balirade, ustelduko dirade beren gaiztakerietan, beren etsaien errian, eta atsekabe-tuak izango dirade beren gurasoen pekatuak gatik eta berenak gatik.

40. Aitortu ditzaten bitartean beren gaiztakeriak eta beren gurasoenak, zeñakin autsi zuten nere fedea, eta ibilli ziraden nerekin leian.

41. Ni ere bada ibilliko naiz beren kontra, eta eramango ditut lur etsaira, aliketa beren biotz gogorra lotsatu dedin artean, orduan izango da noiz eskatuko duten beren gaiztakerien barkazioa.

42. Eta ni oroituko naiz, Jakobekin, Isaakekin, eta Abrahamekin egin nuen nere elkartasunaz, Lurrarekin ere oroituko naiz,

43. Zeñ berak utzia danean poztuko da bere larunbatetan, sufritzen duela bakartasuna berak gatik. Baña berak erregutuko dute beren pekatuak gatik bota zituztelako nere erabakiak, eta mezpreziatu nere legeak.

44. Eta oiekin guziakin etsai lurrean zeudenean ere, ez nituen osoro bota, eta ez nituen utzi desegiañak izateko, eta utsean gelditzeko berakin egiñik nuen nere elkartasuna. Zeren ni naiz beren Jaun Jaungoikoa.

45. Eta oroituko naiz nere anziñako elkartasunez, atera nituenean Ejiptoko lurretikan jendeak begira zeudela, izateko ni beren Jaungoikoa. Ni Jauna. Oiek dirade erabaki, eta aginte, eta lege Jaunak jarri zituenak, bere eta Israelko semeen artean Sinaiko mendian Moisesen eskuz.

OGETA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi esaten zuela:

2. Itz egin zaiezu Israelko semeai eta esango diezu: Promesa egingo balu gizonak, eta eskeñiko balio Jaungoikoari bere bizia, emango du balio izentatua.

3. Baldin balitz ogei urtetik irurogeirañoeko gizasemea, emango ditu berrogei ta amar ziklo zillarrezko santuarioko neurrian.

4. Baldin balitz emakumea, ogei ta amar.

5. Baña bost urtetik ogeiraño, gizasemeak emango ditu ogei siklo, emakumeak amar.

6. Ill batetik bost urteraño, gizasemea gatik emango dirade bost siklo; emakumea gatik, iru.

7. Gizaseme irurogei urtekoak, eta andik aurreragokoak emango ditu amabost siklo, emakumeak, amar.

8. Baldin balitz beartsua, eta ezin eman balu izentatua, joango da apaiza gana, eta oni deritzana, eta ikusten duena eman al lezakeala, ainbat emango du.

9. Baldin iñork promesaz eskeñiko balu, Jaunari eskeñia izan lezakean aberea, santua izango da,

10. Eta ezin izan lezake ganbiatua, au da, ez obeagoa gaiztoa gatik, ez gaiztoagoa ona gatik. Baña baldin ganbiatuko balu, ganbiatua izan dana, eta gauza ura zeñagatik ganbiatua izan dan, geldituko da konsagratua Jaunari.

11. Baldin iñork eskeñiko balu, Jaunari eskeñia izan ezin lezakean abere loaia, eramana izango da apaizaren aurrera:

12. Zeñak erabakirik ona ala gaiztoa dan, izentatuko du balioa.

13. Eta baldin eman nai balu eskeiñtzen duenak, geituko dio tasari bosgarren zatia.

14. Baldin gizonak eskeñiko balu bere etxea, eta konsagratuko balio Jaunari, begiratuko du apaizak ona ala txarra dan, eta berak izentatu duen prezioan, saldua izango da:

15. Baña baldin eskeñi duenak nai balu berriz erosi, emango du bosgarren partea izentatuaz gañera, eta idukiko du etxea.

16. Eta baldin eskeñiko balu eta Jaunari konsagratuko balio bera jabe dan kanpoa, izentatuko zaio balioa, ereitzen dan alearen araura. Bear baldin badira ogei ta amar imia garagar, saldu bedi berrogei ta amar siklo zillarrezkoan.

17. Baldin eskeñiko balu kanpoa jubileoko urtea asita bereala, izentatuko zaio balio al lezakeana.

18. Baña balitz denbora piska bat iragota, apaizak izentatuko du dirua, jubileoraño dauden urteen zenbataren araura, eta gutxituko zaio balioari.

19. Eta baldin berriz erosi nai balu kanpoa promesaz eskeñi zuenak, geituko dio bosgarren zatia balio izentatuari, eta beraren jabe izango da.

20. Baña ez baldin balu nai berriz erosi, baizik salduko balio beste edozeñi, eskeñi zuenak ezin erosiko du berriz:

21. Zeren nola datorren jubileoko eguna, izango da Jaunari konsagratua, etaazienda konsagratua apaizai dagokiote.

22. Baldin Jaunari konsagratutako kanpoa izan bazan erosia, eta ez balitz gurasoen aziendakoa,



23. Apaizak ipiñiko dio prezioa jubileora dauden urteen zenbataren araura, eta promesaz eskeñi zuenak, emango dio Jaunari.

24. Baña jubileoan biurtuko da lenbiziko jabe saldu zuenagana, eta iduki zuena gana bere aziendaren artean.

25. Izendatzen dan tasa izango da pisatua santuarioko sikloan. Sikloak ogei obolo ditu.

26. Ezin iñork konsagratuko, ez promesaz eskeñiko ditu Jaunari dagozkion lenbizisortuak; naiz idia, naiz ardia, Jaunarenak dirade.

27. Baña baldin aberea loa balitz, berriz erosiko du eskeñi zuenak, zure iritziaren araura, eta geituko du balioaren bosgarren partea. Baldin ez balu nai berriz erosi, izango da beste bati saldua, zuk erabaki dezunean.

28. Jaunari konsagratzen zaion guztia, naiz izan dedilla gizona, naiz aberea, naiz kanpoa, ez da saldua izango; ezin izango ere da berriz erositia. Bein konsagratua dan guztia Jaunari, izango da gauza txit santua.

29. Eta onela gizon batek eskeñia eta konsagratua dan guztia, ez da izango berriz erositia, baizik illa.

30. Lurreko amarren guztiak, naiz aleak, naiz zuaitzen frutuak, Jaunarenak dirade, eta berari konsagratzen zaiozka.

31. Eta baldin iñork naiko balitu berriz erosi bere amarrenak, geituko du beren bosgarren partea.

32. Artzaiaren zigorraren azpitik igarotzen diraden beien, eta ardien, eta auntzen amarren guztietatik, amargarren datorren guztia, izango da Jaunari konsagratua.

33. Ez da autatuko ez ona ez txarra, ez da ere izango bestegatik gantiatua. Baldin iñork mudatuko balu, geldituko da Jaunari konsagratua mudatua izan dana, baita gauza ura, zeña gatik mudatua izan dan, eta ez da izango berriz erositia.

34. Oiek dirade Jaunak Moisesi Israelko semeentzat Sinaiko mendian eman ziozkan aginteak.

NUMEROEN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Israelko semeak Ejiptotik atera ziradenetik bigarren urtean, bigarren illaren lenbiziko egunean itz egin zion Jaunak Moisesi Sinaiko mendiko eremuan elkartasuneko tabernakuloan, eta esan zion:

2. Kontatu itzatzute Israelko semeen erri guztian dauden gizaseme guztiak, jatorri eta familien araura, bakoitzaren izenakin.

3. Zuk eta Aaronek kontatuko dituzute ogei urtez gorako Israelko gizon sendo guztiak, beren taldeetan.

4. Artarako lagunduko dizute tribu eta familietako buruak beren jatorrien araura,

5. Zeñaen izenak dirade oiek: Rubenena, Elisur Sedeurren semea.

6. Simeonena, Salamiel Surisadairan semea,

7. Judarena, Nahasson Aminadaben semea.

8. Issakarrena, Nathanael Suarren semea,

9. Zabulonena, Eliab Helonen semea.

10. Eta Joseran semeenak, Efraimena, Elisama Ammiuden semea; Manassesena, Gamaliel Fadassurren semea.

11. Benjaminena, Abidam Jedeonen semea.

12. Danena, Ahiezer Ammisadairan semea.

13. Asserrena, Fejel Okranen semea.

14. Gadena, Elisar Duelen semea.

15. Neptalirena, Ahira Enanen semea.

16. Oiek dirade erriko buru txit aitonen semeak, eta Israelko ejerziatuaren beren tribu eta jatorrietatik bereziaren ...tariak.

17. Zeñai artu ziozkaten izenak Moisesek eta Aaronek, eta erriko talde guztiari;

18. Eta bildu zituzten bigarren illaren lenbiziko egunean, kontatzen zituztela beren jatorri, eta etxe, eta familia, eta buru, eta bakoitzaren izenetatik, ogei urtekoak eta gorakoak,

19. Jaunak Moisesi agindu zion bezela. Eta kontatuak izan ziraden Sinaiko eremuan.

20. Rubenen Israelen lenbizi sortuaren tributik, beren jatorri eta familia eta etxeetan eta bakoitzaren izenakin ogei urtetik eta gorako gizaseme, gudarako egokiak ziraden guztiak,

21. Berrogeita sei milla eta bost eun.



22. Simeonen semeetatik, beren jatorri eta familia eta aideen etxeetatik kontatuak izan ziraden bakoitzaren izen eta buruetatik, ogei urteko eta gorako gizaseme, gudara atera zitezkean guztiak,

23. Berrogeita emeretzi milla eta irureun.

24. Gaden semeetatik, beren jatorri eta familia eta beren aideen etxeetatik kontatuak izan ziraden bakoitzaren izenakin ogei urtetik gorakoak, gudara atera zitezkean guztiak,

25. Berrogeita bost milla seireun eta berrogeita amar.

26. Judaren semeetatik, beren jatorri eta familia eta bere aideen etxeetatik, bakoitzaren izenakin ogei urtetik gorakoak, gudara atera zitezkean guztiak,

27. Zenbatuak izan ziraden irurogeita amalau milla eta seireun.

28. Issakarren semeetatik, beren jatorri eta familia, eta beren aideen etxeetatik, bakoitzaren izenakin ogei urtekoak eta gorakoak gudara atera zitezkean guztiak,

29. Zenbatuak izan ziraden berrogeita amalau milla laureun.

30. Zabulonen semeetatik, beren jatorrien eta familien eta beren aideen etxeetatik, bakoitzaren izenakin kontatuak izan ziraden ogei urtetik gorakoak, gudara atera zitezkean guztiak,

31. Berrogeita amazpi milla laureun.

32. Joserren semeetatik, Efraimen aldetik, beren jatorri, eta familia eta beren aideen etxeetatik kontatuak izan ziraden bakoitzaren izenakin ogei urtetik gorako, gudarako egokiak ziraden guztiak,

33. Berrogei milla eta bost eun.

34. Eta Manasserren semeetatik, beren jatorri eta familia eta beren aideen etxeetatik kontatuak izan ziraden bakoitzaren izenakin ogei urtetik gorakoak, gudara atera zitezkean guztiak,

35. Ogeita amabi milla eta berreun.

36. Benjaminen semeetatik, beren jatorri eta familia eta bere aideen etxeetatik kontatuak izan ziraden bakoitzaren izenakin ogei urtetik gorakoak, gudara atera zitezkean guztiak,

37. Ogeita amabost milla eta laureun.

38. Danen semeetatik, beren jatorri eta familia, eta beren aideen etxeetatik, izan ziran kontatuak bakoitzaren izenakin, ogei urtetik gorakoak, gudara atera zitezkean guztiak,

39. Irurogei eta bi milla, eta zazpireun.

40. Aserren semeetatik, beren jatorri eta familia eta beren aideen etxeetatik izan ziran kontatuak, ogei urtetik gorakoak, gudara atera zitezkean guztiak.

41. Berrogeita bat milla eta bosteun.

42. Neptaliren semeetatik, beren jatorri, eta familia eta beren aideen etxeetatik izan ziraden kontatuak bakoitzaren izenakin ogei urtetik gorakoak, gudara atera zitezkean guztiak,

43. Berrogeita amairu milla eta laureun.

44. Oiek dirade Moisesek eta Aaronek eta Israelko amabi Prinzipeak kontatu zituztenak, bakoitza beren aideen etxeetatik.

45. Eta Israelko semeetatik beren etxe eta familietatik ogei urtez gorako, gudara atera zitezkean kontatu guztiak izan ziran,

46. Seireun eta iru milla bosteun eta berrogeita amar gizaseme.

47. Baña Lebitak beren familien tribuan etziraden izan kontatuak berakin.

48. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

49. Ez ezazu kontatu Lebiren tribua, ez dezu ere jarriko beren zentzua Israelko semeakin,

50. Baizik jarri itzatzu testimonioko tabernakuloaren gañean, eta bere ontzi guztiak, eta zeremoniai dagokieten guztia. Berak eramango dute tabernakuloa, eta bere usubear guztiak; eta ariko dirade lanean, eta edukiko dituzte etzauntzak tabernakuloaren inguruan.

51. Joan bear dezutenean, Lebitak bilduko dute tabernakuloa; gelditu bear danean, zabalduko dute. Arrotzik alderatzen baldin bada, illa izango da.

52. Eta Israelko semeak jarriko dituzte etzauntzak bakoitzak ejerzituak dituen talde eta eskudroietan.

53. Baña Lebitak jarriko dituzte etzauntzak tabernakuloaren inguruan, erori ez dedin nere aserrea Israelko semeen taldearen gañera, eta esnaa egongo dirade zaitzen testimonioko tabernakuloa.

54. Eta Israelko semeak egin zuten, Jaunak Moisesi agindu zion guztia.

BIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zioten Jaunak Moisesi eta Aaroni esaten zuela:

2. Israelko semeak jarriko dirade etzauntzetan elkertasuneko tabernakuloaren inguruan, bakoitza bere lagunakin, bere etxe eta jatorriko banderen eta estandarteen azpian.

3. Judak jarriko ditu etzauntzak sortaldean bere ejerzituko taldeekin, eta bere semeen agintaria izango da Nahasson Aminadaben semea.

4. Eta bere jatorriko gudari guztiak izango dirade irurogeita amalau milla eta seireun.



5. Onen aldean jarri zituzten etzauntzak Issakargo tribukoak, zeñaren agintaria izan zan Natanael Suarren semea.
6. Eta bere gudari guztiak izan ziraden, berrogeita amalau milla eta laureun.
7. Zabulonen tribuan izan zen agintaria Eliab Helonen semea.
8. Bere jatorriko gudarien ejerzitu guztia, berrogeita amalau milla eta laureun.
9. Judako etzauntzetan jarri ziraden guztiak, izan ziraden eun eta larogeita sei milla eta laureun, eta lenbizi aterako dirade beren taldeetan.
10. Rubenen semeen etzauntzetan egoe aldean izango da agintaria Elisur Sedeurren semea,
11. Eta bere gudarien, kontatuak izan diradenen ejerzitu guztia berrogeita sei milla eta bosteun.
12. Onen aldean jarri zituzten etzauntzak Simeonen tribukoak: zeñaren agintaria izandu zan Salamiel Surisaddaien semea.
13. Eta bere gudarien, kontatuak izan ziradenen ejerzitu guztia, berrogeita emeretzi milla eta irureun.
14. Gaden tribuan izan zan agintaria Eliasaf Duelen semea.
15. Eta bere gudarien, kontatuak izan ziradenen ejerzitu guztia, berrogeita bost milla seireun eta berrogeita amar.
16. Rubenen etzauntzetan listan ezarriak izan ziraden guztiak, eun eta berrogeita amaika milla laureun eta berrogeita amar beren taldeetan: bigarren tokian joango dirade.
17. Eta testimonioko tabernakuloa izango da altxatua Lebiten lantegien eta beren taldeen araura. Nola izango dan altxatua, ala izango da ere beeratua. Bakoitza joango da bere toki eta balleran.
18. Sartaldean egongo dirade Efraimen semeen etzauntzak, zeñaren agintaria izandu zan Elisama Ammiuden semea.
19. Bere gudarien, kontatuak izan ziradenen ejerzitu guztia, berrogei milla eta bosteun.
20. Eta berakin Manasseren semeen tribua, zeñaren agintaria izandu zan Gamaliel Fadasurren semea.
21. Eta bere gudarien kontatuak izan ziradenen ejerzitu guztia, ogei-ta amabi milla eta berreun.
22. Benjaminen semeen tribuan izan zan agintaria Abidam Jedeonen semea.
23. Eta bere gudarien kontatuak izan ziradenen ejerzitu guztia, ogei-ta amabost milla eta laureun.

24. Efraimen etzauntzetan kontatuak izan ziraden guztiak, eun eta zortzi milla eta eun beren taldeetan, joango dirade irugarrenak.
25. Ifalrraldean jarri zituzten etzauntzak Danen semeak, zeñaren agintaria izan zan Ahiezer Ammissaddaien semea.
26. Bere gudarien, kontatuak izan ziradenen ejerzitu guztia, irurogei-ta bi milla zazpireun.
27. Bere aldean jarri zituzten etzauntzak Asergo tribukoak, zeñaren agintaria izandu zan Fejiel Okranen semea.
28. Bere gudarien, kontatuak izan ziradenen ejerzitu guztia berrogei-ta bat milla eta bosteun.
29. Neptaliren semeen tribuko agintaria izandu zan Ahira Enanen semea.
30. Bere gudarien ejerzitu guztia berrogeita amairu milla eta laureun.
31. Danen etzauntzetan kontatuak izan ziran guztiak, izan ziran eun eta berrogeita amazapi milla eta seireun, eta joango dirade atzenak.
32. Au da Israelko semeen, beren aideen etxez eta taldez berezituena ejerzitu, seireun eta iru milla bosteun eta berrogeita amar.
33. Lebitak berriz etziraden izan kontatuak Israelko semeen artean, zeren onela agindu zion Jaunak Moisesi.
34. Eta egin zituzten Israelko semeak Jaunak agindu ziozkaten gauza guztiak. Jarri zituzten etzauntzak beren taldez eta joan ziraden beren gurasoen familiaz eta etxez.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Oiek dirade Aaronen eta Moisesen ondokoak Jaunak Moisesi Sinaiko mendian itz egin zion egunean.
2. Eta oiek Aaronen semeen izenak: bere lenbisisortua Nadab gero Abiu eta Eleazar eta Itamar.
3. Oiek Aaronen seme apaiz, gantzutuak izan ziradenen izenak, eta zeñaren eskuak izan ziraden beteak eta konsagratuak, apaiz lanetan ari zitezten.
4. Zeren illak izan ziraden Nadab eta Abiu eskeñtzen zutela su arrotza Jaunaren aurrean Sinaiko eremuan, semerik gabe eta jarri ziraden apaizlanetan Eleazar eta Itamar bere aita Aaronen aurrean.
5. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
6. Alderatu ezazu Lebiren tribua, eta egonerazi zaiozu Aaron apaizaren aurrean serbitu dezaioten, eta bella egin dezaten,
7. Eta gorde dezaten jende taldearen elizkizunari dagokion guztia testimonioko tabernakuloaren aurrean,



8. Eta gorde ditzaten tabernakuloko ontziak, serbitzen dutela bere lanean.
9. Eta emango dieztezu doañean Lebitak
10. Aaroni eta bere semeai, zeñai Israelko semeak emanak izan ziozkaten. Aaron berriz eta bere semeak jarriko dituzu Apaiztzaren (sic) lanean. Lanera alderatzen dan arrotza, ilko da.
11. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
12. Neronek artu nituen Lebitak Israelko semeak gandik, Israelko semeen artean emasabela idikitzen duen aur seme lenbizisortu guztien lekuan, eta izango dirade Lebitak nereak.
13. Zeren nerea da lenbizisortu guztia, zauritu nituen ezkerko lenbizisortu guztiak Ejiptoko lurtean: santutu nuen neretzat Israelen lenbizi jaiotzen dan guztia gizona gandik abererañokoa, nereak dirade, ni Jauna.
14. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi Sinaiko eremuan, esaten zuela:
15. Kontatu itzatzu Leberen semeak beren gusaroen eta familien etxeetatik, ill batetik eta gorako giza ar guztia.
16. Kontatu zituen Moisesek, Jaunak agindu zuen bezela,
17. Eta argituak izan ziraden Leberen semeak beren izenakin, Jerson eta Kaat eta Merari.
18. Jersonen semeak: Lebni eta Semei.
19. Kaaten semeak: Amram eta Jesaar, Hebron eta Oziel.
20. Merarien semeak: Moholi eta Musi.
21. Jersongandikan izandu ziraden bi familia, Lebniena eta Semeiena.
22. Zeñaen giza arreko erria kontatua izan zan il batekoa eta gorakoa, zazpi milla eta bosteun.
23. Oiek jarriko dituzte etzauntzak tabernakuloaren ostean sartaldean.
24. Eliasaf Laelen semearen agintariaren mendean
25. Eta idukiko dituzte zaidiak elkartasuneko tabernakuloan,
26. Zaitzen dutela tabernakuloa bera eta bere estalkiak, elkartasuneko tabernakuloaren atearen aurrean ipintzen dan beloa, eta atariko errezelak baitaere tabernakuloaren atariaren sarreran esekitzen dan beloa, eta aldarearen premietarako serbitzen duen guztia, tabernakuloaren lokarriak eta bere usubear guztiak.
27. Kaaten jatorriak idukiko ditu: Amramtarren, Jesaartarren, Hebrontarren eta Ozieltarren familiak. Oiek dirade Kaatitarren familiak beren izenakin kontatuak.
28. Il batetik gorako giza ar guztiak, zeñak diraden zortzi milla eta seireun, zaituko dute santuarioa,

29. Eta jarriko dituzte etzauntzak egoeko aldean.
30. Eta beren Prinzipea izango da Elisafan Ozielen semea,
31. Eta zaituko dute kutxa, eta maia eta kandeleroa, aldareak, eta santuarioko ontziak, zeñaetan serbitzen dan, eta beloa, eta oiek bezelako alaja guztiak.
32. Eta Eleazar Aaron apaizaren semea, Lebiten Prinzipeen artean lenbizikoa, izango da santuarioa gordetzen duten bellarien zaitzalea.
33. Azkenak Merarienak izango dirade Moholtarren eta Mustarren erri beren izenakin kontatuak,
34. Illa betetik eta gorako giza ar guztiak, sei milla eta berreun.
35. Beren agintaria Suriel Abihaielen semea; Ifar aldean jarriko dituzte etzauntzak.
36. Beren kontura egongo dirade tabernakuloko olak, eta zearkaiak, eta beren abeak eta ondapeak, eta gauza oiei dagoten guztia,
37. Eta abeak beren ondapeakin atariaren inguruan, eta estakak lokarriakin.
38. Jarriko dituzte etzauntzak elkartasuneko tabernakuloaren aurrean, au da, sortaldean, Moisesek eta Aaronek beren semeakin, zaitzen dutela santuarioa Israelko semeen erdian. Alderatzen dan arrotz guztia, ilko da.
39. Moisesek eta Aaronek Jaunaren aginduz kontatu zituzten Lebita guztiak, beren familietatik, illa betetik eta gorako giza arrak, izan ziran ogeita bi milla.
40. Eta esan zion Jaunak Moisesi: kontatu itzatzu illa betetik eta gorako Israelko semeen giza arren lenbizisortuak, eta jakingo dezu zenbat diraden,
41. Eta artuko dituzu neretzat Lebitak Israelko semeen lenbizisortu guztiaren lekuan, ni naiz Jauna, eta beren abereak Israelko semeen lenbizisortu guztien lekuan.
42. Kontatu zituen bada Moisesek Jaunak agindu zion bezela, Israelko semeen lenbizisortuak.
43. Eta illa betetik eta gorako gizaarrak izan ziran, ogeita bi milla berreun eta irurogeita amairu.
44. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
45. Ar itzatzu Lebitak Israelko semeen lenbizisortu guztien lekuan, eta Lebiten abereak beren abereen lekuan, eta Lebitak izango dirade nereak. Ni naiz Jauna.
46. Baña berreun eta irurogeita amairu Israelko semeen lenbizi sortu Lebitak baño geiago daudenen erospenerako.



47. Artuko dituzu bost siklo buru bakoitza gatik santuarioko neurrian. Sikloak ditu ogei obolo.

48. Eta emango diezu diru au Aaroni eta bere semeai, geiago dauden lenbisisortuen erospenerako.

49. Artu zuen bada Moisesek geiago izan ziradenean dirua, eta zeñak erosten zitzazkieten Lebitai.

50. Israelko semeen lenbisisortuak gatik, milla irureun eta irurogeita bost santuarioko pisuaren araura,

51. Eta eman zien Aaroni eta bere semeai, Jaunak eman zion agintearen araura.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zioten Jaunak Moisesi eta Aaroni esaten zuela:

2. Kontatu itzatzu Kaaten semeak, aterarik Lebiten erditik beren etxe eta familietatik,

3. Ogeita amar urtetik eta gorakoak, berrogeita amar urteraño, sartuko diraden guztiak egon ditezen eta serbitu dezaten elkartasuneko tabernakuloan.

4. Au da Kaaten semeen ofizioa, etzauntzak erabiliko diradenean.

5. Sartuko dirade Aaron eta bere semeak elkartasuneko tabernakuloan eta Santuen Santuan eta kenduko dute atearen aurrean esegia dagoan beloa eta bilduko dute beratan testamentuko kutxa,

6. Eta estaliko dute berriz larru moraduzko estalki batekin eta zabalduko dute gañean mantu bat guztia jazinto kolorekoa, eta sartuko dituzte zigorrak.

7. Proposizioko maia ere bilduko dute jazinto koloreko oial batekin, eta ipiñiko dituzte berarekin inzensuntziak eta motraitutxoak eta kopak, eta ugaskak libazioak isurtzeko; ogiak beti egongo dira beratan,

8. Eta zabalduko dute gañean granazko mantu bat, zeñ berriz estaliko dute larru morauzko estalki batekin, eta sartuko dituzte zigorrak.

9. Artuko ere dute jazinto kolorezko mantu bat, zeñarekin estaliko dute kandeleroa bere kruselutxo eta kurrikakin eta desbabillakaiakin, eta lanparak pizteko bear diraden olioeko ontzi guztiakin,

10. Eta guztien gañetik jarriko dute larru moraduzko estalki bat, eta sartuko dituzte zigorrak.

11. Berebat aldare urrezkoa ere bilduko dute jazinto kolorezko oial batekin, eta zabalduko dute gañean larru morauzko estalki bat, eta sartuko dituzte zigorrak.

12. Jazinto kolorezko oial batekin estaliko dituzte santuarioan serbitzen duten ontzi guztiak, eta zabalduko dute gañean larru moraduzko estalki bat, eta sartuko dituzte zigorrak.

13. Eta autsa ere kenduko dute aldaretik, eta bilduko dute aldarea purpurazko oial batekin.

14. Eta ipiñiko dituzte berarekin bere lanean darabillezan ontzi guztiak, au da, brasontziak, garrangaziak, iruortzak, kakoak, eta barzunak. Aldareko ontzi guztiak estaliko dituzte batera larru moraduzko estalki batekin, eta sartuko dituzte zigorrak.

15. Eta bildu ezker Aaronen eta bere semeak Santuarioa eta bere ontzi guztiak etzauntzak mugitzen diradenean, orduan sartuko dirade Kaaten semeak eraman ditzaten bilduak, eta ez diozkate ukituko santuarioko ontziaz, il ez ditezen. Oiek dirade Kaaten semeen lanak elkartasuneko tabernakuloan,

16. Zeñean gañean egongo da Eleazar Aaron apaizaren semea, zeñean kontura egongo da olio lanparak pizteko, eta konposizioko inzensoa, eta beti eskeñtzen dan doaña, eta unzioko olio eta tabernakuloari dagokion guztia, eta santuarioan dauden ontzi guztiak.

17. Eta itz egin zioten Jaunak Moisesi eta Aaroni esaten zuela:

18. Ez ezazute jarri Kaaten jatorria Lebiten artetikan galdua izateko irriskuan,

19. Baizik au egingo dezute berakin, bizi ditezen eta il ez ditezen, ukitzen baldin badiozkate Santuen Santuai. Aaron eta bere semeak sartuko dirade, eta berak maneratuko dituzte bakoitzaren lanak, eta berezituko dute nork zer eraman bear duen.

20. Besteak jakin nai batekin ere ez bitzate ikusi santuarioan dauden gauzak bilduak izan ditezen baño lenago, bestela ilko dirade.

21. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

22. Kontatu itzatzu ere Jersonen semeak beren etxe eta familia eta jatorrietatik,

23. Ogeita amar urtetik gora berrogeita amarreraño. Kontatu itzatzu elkartasuneko tabernakuloan sartzen diraden eta serbitzen duten guztiak.

24. Au da Jersondarren familiaren ofizioa,

25. Eraman ditzatela tabernakuloaren errezelak, eta elkartasunaren estalkia, beste estalkia, guztien gañean dagoan estalki moradua, eta elkartasuneko tabernakuloaren sarreran esekia dagoan beloa,

26. Atariko errezelak, eta sarreran tabernakuloaren aurrean dagoan beloa. Aldareari dagokan gauza guztiak, sokak da ministerioko ontziaz,



27. Aaronen eta bere semeen agindura eramango dituzte Jersonen semeak eta bakoitzak jakingo du zeñ dan dagokan lana.
28. Au da Jersontarren familiari dagokana elkartasuneko tabernakuloan, eta egongo dirade Ithamar Aaron apaizaren semearen eskuaren azpian.
29. Berebat kontatuko dituzu Merariren semeak beren gurasoen familia eta etxeetatik.
30. Ogeita amar urtetik eta gorakoak berrogeita amar urterañoakoak, bere langintzaren ofiziora, eta testimonioa elkartasuneko serbiziora sartzen diraden guztiak.
31. Oiek dirade beren lanak: Eramango dituzte tabernakuloko olak, eta bere zearkaiak, abeak eta beren ondapeak,
32. Atariko abeak ere inguruan beren ondape eta estaka eta sokakin. Artuko dituzte kontatuta ontzi eta gauza aldagarri guztiak, eta ala eramango dituzte.
33. Au da Meraritarren familiaren ofizioa eta langintza elkartasuneko tabernakuloan, eta egongo dirade Ithamar Aaron apaizaren semearen eskupean.
34. Kontatu zituzten bada Moisesek eta Aaronen eta sinagogako lenenak Kaaten semeak beren gurasoen senitarte eta etxeetatik,
35. Ogeita amar urtetik eta gorakoak berrogeita amar urteraño elkartasuneko tabernakuloko langintzan sartzen diraden guztiak,
36. Eta arkituak izan ziraden bi milla zazpireun eta berrogeita amar.
37. Au da Kaathen erriaren, elkartasuneko tabernakuloan sartzen diradenen zenbata, oiek kontatu zituzten Moisesek eta Aaronen, Jaunaren agintearen Moisesi emanaren araura.
38. Berebat kontatuak izan ziraden Jersonen semeak beren gurasoen senitarte eta etxeetatik,
39. Ogeita amar urtetik eta gora berrogeita amar urteraño, elkartasuneko tabernakuloan serbitzera sartzen diraden guztiak:
40. Eta arkituak izan ziraden bi milla seireun eta ogeita amar.
41. Au da Jersontarren, Moisesek eta Aaronen, Jaunaren itzaren araura kontatu zituztenen erria.
42. Kontatuak ere izan ziraden Merariren semeak beren gurasoen senitarte eta etxeetatik,
43. Ogeita amar urtetik eta gora berrogeita amar urteraño, elkartasuneko tabernakuloko zeremoniak betetzera sartzen diraden guztiak,
44. Eta arkituak izan ziraden iru milla eta berreun.

45. Au da Merariren semeen, Moises eta Aaronen Jaunaren aginduren araura Moisesen eskuz kontatu zituztenen zenbata.
46. Lebitetatik kontatuak izan ziraden guztiak, eta Moisesek eta Aaronen, eta Israelko lenenak kontatu erazi zituztenak beren izenakin beren gurasoen senitarte eta etxeetatik,
47. Ogeita amar urtetik eta gora, berrogeita amar urteraño, sartzen ziradenak tabernakuloko lanetara, eta zamak eramatera.
48. Izan ziraden guztitan zortzi milla bosteun eta larogei.
49. Jaunaren itzaren araura kontatu zituen Moisesek, bakoitza bere ofizioaren eta bere langintzeen araura, Jaunak agindu zion bezela.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
2. Agindu zaiezu Israelko semeai, aurtiki dezatela etzauntzetatik legenardun guztia, eta humekai eria duena, eta illagatik mantxatua dagonna,
3. Naiz gizasemea, naiz emakumea aurtiki ezazute etzauntzetatik, lortu ez ditzaten, zuekin bizitu izan naizan ezker.
4. Eta ala egin zuten Israelko semeak, eta aurtiki zituzten etzauntzetik kanpora, Jaunak Moisesi itz egin zion bezela.
5. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
6. Itz egin zaiezu Israelko semeai, gizasemeak, edo emakumeak egiten dutenean gizonai gertatu oi zitzaieten bekatoren bat, eta ajolagabetsuna gatik autsiko baldin balute Jaunaren agintea, eta bekatu egingo balute,
7. Aitortuko dute beren bekatua, eta biurtuko diote gaitz egin diotenari kalte guzia, eta gañera bosgarren zatia.
8. Eta baldin ez balitza nork artu, emango diote Jaunari, eta izango da apaizarena, salbu barkazioa gatik eskeñtzen dan aria izan dedin doañ eztingarria.
9. Israelko semeak eskeñtzen dituzten primizia guziak ere apaizari dagozka,
10. Eta bakoitzak elizan eskeñia, eta apaizaren eskuz emana dan guzia, berea izango da.
11. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
12. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu, Gizonak, zeñaen emaztea bidetituko balitza, eta mezpreziaturik senarra,



13. Lo egingo balu beste gizasmeren batekin, eta senarrak ezin ziurtatuko balu au, baizikan adulterioa ezkutuan balego, eta lekukoakin on egin ezinko balitzaio, etzalako izan bekatuan arkitua,

14. Emaztearen kontrako zeloan espirituak senarraz jabetuko baldin balira ez emaztea izan dalako loitua, edo gezurrezko sospetxarekin salatua,

15. Eramango du apaizagana, eta eskeñiko du doaña beragatik, gargar iriñaren sato baten amargarren parte; ez du isuriko bere gañean oliorikan, ez du ere ipiñiko gañean inzenorikan, zeren zeloan eskeñtzaria da, eta adulterio bat agertzeko doaña.

16. Eskeñiko du bada apaizak, eta jarriko da Jaunaren aurrean,

17. Eta artuko du ur santua lurrezko ontzi batean, eta botako du beratan lurraren piskatxo bat tabernakuloaren beetik.

18. Eta jartzen danean andrea Jaunaren aurrean agertuko du bere burua, eta ipiñiko ditu beraren eskuen gañean oroipeneko eskeñtzaria eta zeloan doaña; berak berriz idukiko ditu ur txit samiñak, zeñean bildu zituen nazkarekin madarikazioak.

19. Eta juramentu eragingo dio, eta esango du: Baldin ez badu lo egin zurekin gizon arrotzek, eta ez bazera loitu utzirik senarraren eztaioea, ez dizute gaitzik egingo ur txit samiñ oiek zeñean bildu ditudan madarikazioak.

20. Baña alde egin badezu zure senarra gandikan, eta loitu bazera, eta beste gizasmeren batekin etzan bazera,

21. Madarikazio oien mendean egongo zera, jarri zaitzala Jaunak bere errian guzien madarikazio eta eskarmenturako, usteldu erazi beza zure istarra, eta anditurik zure sabela eztanda egin dezala,

22. Sartu ditezela zure sabelean ur madarikatuak, eta anditurik sabela usteldu dedilla istarra. Eta erantzungo du andreak: Ala izan dedilla, ala izan dedilla.

23. Eta apaizak eskribatuko ditu liburu batean madarikazio oiek, eta borratuko ditu madarikazioz bete zituen ur txit mingoitzakin,

24. Eta edaten emango diozka. Eta edaten ditueanean ur guziak,

25. Artuko du apaizak bere eskutikan andrearen zeloan eskeñtzaria, eta altxatuko du Jaunaren aurrean eta jarriko du aldarearen gañean, baña bakarrik lenago.

26. Artzen badu doañaren piska bat eskeñtzen danetik, eta erretzen badu aldarearen gañean, eta ala eman bitzazkio andreari edaten ur txit mingoitzak.

27. Zeñak edan ezker, loitua izan baldin bada, eta mezpreziaturik senarra adulterioaren obendun, sartuko zaiozka madarikazioko urak, eta anditurik sabela ustelduko da istarra: eta jarriko da andrea erri guztiaren madarikazio eta izi eginik.

28. Baña ez baldin bada izan loitua, etzaio kalterik egingo, eta egin-goto ditu semeak.

29. Au da zeloan legea. Alde egingo baldin badu andreak bere senarra gandik, eta mantxatua izango baldin balitza,

30. Eta senarrak zeloan indarraz mugiturik, ekarriko baldin balu Jaunaren aurrera, eta apaizak egingo baldin balu berarekin eskribatua dan guzia,

31. Senarra izango da obenik gabea, eta emazteak pagatuko du bere bekatuaren kastigua.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion, Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu, Gizaseme edo emakumeren batek egiten dutenean eskeñtzaria santutuak izateko, eta nai balute Jaunari konsagratuak izan,

3. Ez dute edango ardorik, ez orditu lezakean gauzarik batere. Ez dute edango ardoarekin, eta beste edozeñ edarirekin egindako opziñik, ezta ere matsari ateratzen zaion gauzarik, ez dute jango mats freskorik ez leorrik,

4. Eskeñtzariz Jaunari konsagratuak dauden egun guztietan, mastikoa izan lezakean gauzarik, maspasatik asita alzirañokorik ez dute jango.

5. Bera berezitua dagoan denbora guztian ez da iragoko labañarik bere burutikan bete dedin bitartean Jaunari konsagratua dagoan eguna. Santua izango da, bere buruan azitzen zaionean illadatsa.

6. Konsagratua dagoan denbora guztian ez da sartuko illen bat dagoan tokian.

7. Ez da loituko aitaren edo amaren edo anaiaren edo arrearen proguarekin ere, zeren bere Jaungoikoaren konsagrazioa bere buruaren gañean da.

8. Bere berezitzerako egun guztietan santua izango da Jaunarentzat.

9. Baña baldin norbait ilko balitza supituan bere aurrean, loitua geldituko da bere konsagrazioko burua, arras ebakiko du bere buruko illea bera garbitua dan egunean beratan, eta berriz zazpigarren egunean.

10. Eta zortzigarren egunean eskeñiko diozka bi usatortola, edo bi usokume apaizari testimonioko elkartasunaren sarreran



11. Eta eskeñiko ditu apaizak bat bekatua gatik eta bestea holokaustoan, eta erregutuko du beragatik, bekatu egin zuelako il ura gatik, eta santutuko du bere burua egun artan,

12. Eta konsagratuko diozka Jaunari beraren berezitzerako egunak, eskeñtzen duela urte beteko bildots bat bekatua gatik, baña lenengo egunak utsean gelditzen diradela, zeren loitua izan zan bere santutasuna.

13. Au da konsagrazioko legea. Eskeñtzariz erabaki zituen egunak beteak diradenetik laster, eramango du elkertasuneko tabernakuloaren atera,

14. Eta eskeñiko dio Jaunari bere doña, urtebeteko bildots mantxa gabeko bat holokaustoan, eta urte beteko ardi mantxa gabeko bat bekatua gatik, eta ari mantxa gabeko bat, doña paketsutat.

15. Baitaere legamigabeko ogi olioarekin oratutako saskitxo bat, eta legami gabeko lasaña olioarekin untatuak, eta bakoitzaren libazioak,

16. Zeñak eskeñiko ditu apaizak Jaunaren aurrean, eta egingo du eskeñtzaria ala bekatua gatik, nola holokaustoan.

17. Eskeñiko ere dio Jaunari ari doña paketsutat, eskeñtzen dituela batean legami gabeen saskitxoak, eta oituraz bear diraden libazioak.

18. Orduan arras ebakiko zaio Nazareoari elkertasuneko tabernakulo loko atean bere konsagrazioko illadatsa, eta artuko ditu bere illeak eta ipiñiko ditu paketsuen eskeñtzariaren azpian jarria dagoan suaren gañean.

19. Eta ariaren besonda egosia, eta legami gabeko opill bat saskitxotikan, eta legami gabeko lasaña bat, eta jarriko du Nazareoaren eskuetan, arras ebakia izan ezker bere buruko illea.

20. Eta berriz arturik bere eskutikan, altxatuko du Jaunaren aurrean: eta nola diraden gauza santutuak apaizarenak izango dirade, berezitzeko agindu dan bularra eta zankoa bezala. Oien ondoan ardoa edan lezake Nazareoak.

21. Au da Nazareoaren legea egiten dionean bere eskeñtzaria Jaunari bere konsagrazioko denboran, berak egiñ litzakean gauzen gañera, bere biotzean eskeñi zuenaren araura, ala egingo du bere santutasunaren perfekziarako.

22. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

23. Itz egin zaiezu Aaron eta bere semeai. Onela bedekatuko dituzte Israelko semeak, eta esango diezute:

24. Bedekatu zaitzala Jaunak, eta gorde zaitzala.

25. Agertu dizazula Jaunak bere arpegia, eta errukitu dedilla zurekin.

26. Itzuli dezala Jaunak bere arpegia zuganontz, eta eman dizazula pakea.

27. Eta ots egingo diote nere izenari Israelko semeen gañean, eta nik bedekatuko ditut.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan Moisesek tabernakuloa bukatu, eta altxatu zuen egunean, eta untatu zuen eta santutu bere ontzi guztiakin, eta berdin alda-rea eta bere ontzi guztiak,

2. Israelko Prinzipeak eta tribu bakoitzean zeuden familien buruak, eta kontatuak izan ziradenen agintariak, eskeñi zituzten

3. Doñaik Jaunaren aurrean, sei gurdi estaliak amabi idirekin. Agintari bik eskeñi zuten gurdi bat, eta bakoitzak berez idi bat, eta eskeñi zituzten tabernakuloaren aurrean.

4. Eta esan zion Jaunak Moisesi:

5. Artu ezazu berak gandikan, serbitu dezan tabernakuloko lanean, eta emango diozu Lebitai bakoitzaren lanaren araura.

6. Argatik arturik Moisesek gurdiak eta idiak, eman ziozkaten Lebitai.

7. Bi gurdi eta lau idi eman ziozkaten Jersonen semeai, bear zutenaren araura.

8. Beste lau gurdi eta zortzi idi eman ziozkaten Merarien semeai, beren lan eta eginkizunen araura, Ithamar Aaron apaizaren semearen aginduan.

9. Kaathen semeai berriz etzien eman gurdirik ez idirik Santuarioan lanean ari diradelako, eta beren solbardetan zamak daramazkitelako.

10. Agintariak bada eskeñi zuten beren doña aldarearen aurrean aldarearen dedikaziorako, unjituak izan zan egunean.

11. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Agintari bakoitzak egun bakoitzean eskeñi bitza doñaik aldarearen dedikaziorako.

12. Lendabiziko egunean eskeñi zuen bere doña Nahasson Aminadaben seme Judako tribukoak.

13. Eta bere doña izan zan zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, zillarrezko kopa bat irurogeita amar siklo zituena, Sanktuarioko pisuaren araura, bata eta bestea iriñlora olioaz oratuz beteak eskeñtzarako.

14. Amar sikloko urrezko motraitutxo bat inzensoz beteak,

15. Idi bat taldetik, eta ari bat, eta urteko arkume bat eskeñtzarako,

16. Eta aker bat bekatua gatik,

17. Eta paketsuen eskeñtzarian bi idi, bost ari, bost aker, bost arkume urte beteko. Au da Nahasson Aminadaben semearen eskeñtzaria.



18. Bigarren egunean eskeñi zuen Nathanael Suaren semeak, Issakarren tribuko agintariak,

19. Zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, zillarrezko kopa bat irurogeita amar ziklo zituena, Santuarioko pisuaren araura, biak iriñlora olioarekin oratuak eskeñtzarako,

20. Urrezko motraitutxo bat amar ziklo zituena, inzensoz betea,

21. Idi bat taldetik, eta ari bat, eta urte beteko arkume bat eskeñtzarako,

22. Eta aker bat bekatua gatik,

23. Eta paketsuen eskeñian bi idi, bost ari, bost aker, bost arkume urte beteko. Au izandu zan Natharael Suaren semearen eskeñia.

24. Irugarren egunean Eliab Helonen seme Zabulonen semeen prinzipeak,

25. Eskeñi zuen zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, Santuarioko pisuan, biak iriñlora olio oratuak eskeñtzarako,

26. Urrezko motraitutxo bat amar siklo pisatzen zituena, inzensoz betea:

27. Idi bat taldetik, eta ari bat, eta arkume urte beteko bat eskeñtzarako,

28. Eta aker bat bekatua gatik,

29. Eta paketsuen eskeñtzan bi idi, bost ari, bost aker, bost arkume urte beteko. Au da Eliab Helonen semearen eskeñtza.

30. Laugarren egunean Elisur Sedeurren seme, Rubenen semeen prinzipeak,

31. Eskeñi zuen zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, zillarrezko kopa bat irurogeita amar siklo zituena, santuarioko pisuan, biak iriñlora olioarekin oratuz beteak eskeñtzarako.

32. Urrezko motraitutxo bat amar siklo pisatzen zituena, inzensoz betea,

33. Idi bat taldetik, eta ari bat, eta urte beteko arkume bat eskeñtzarako,

34. Eta aker bat bekatua gatik,

35. Eta paketsuen doañtzat bi idi, bost ari, bost aker, bost arkume urte beteko. Au izandu zan Elisur Sedeurren semearen eskeñtza.

36. Bosgarren egunean Salamiel Surisaddairen seme, Simeonen semeen prinzipeak,

37. Eskeñi zuen zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, zillarrezko kopa bat irurogeita amar siklo zituena, Santuarioko pisuan, biak iriñlora olioarekin oratuz beteak eskeñtzarako,

38. Urrezko motraitutxo bat amar siklo pisatzen zituena, inzensoz betea,

39. Idi bat taldetik, eta ari bat, eta urteko arkume bat eskeñtzarako,

40. Eta aker bat bekatua gatik,

41. Eta paketsuen doañtzat bi idi, bost ari, bost aker, bost arkume urte beteko. Au izandu zan Salamiel Surisaddaren semearen eskeñtza.

42. Seigarren egunean Elisaf Duelen seme, Gaden semeen prinzipeak,

43. Eskeñi zuen zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, zillarrezko kopa bat irurogeita amar siklo zituena, Santuarioko pisuan, biak iriñlora olio oratuarekin beteak eskeñtzarako,

44. Urrezko motraitutxo bat amar siklo zituena, inzensoz betea:

45. Idi bat taldetik, eta ari bat, eta urte beteko arkume bat eskeñtzarako,

46. Eta aker bat bekatua gatik,

47. Eta paketsuen eskeñtzat bi idi, bost ari, bost aker, bost arkume urte beteko. Au izandu zan Elisaf Duelen semearen eskeñtza.

48. Zazpi garren egunean Elisama Ammiuden seme Efraimen semeen prinzipeak,

49. Eskeñi zuen zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, zillarrezko kopa bat irurogeita amar siklo zituena, Santuarioko pisuan, biak iriñlora olio oratuak eskeñtzarako,

50. Urrezko motraitutxo bat amar siklo pisatzen zituena, inzensoz betea,

51. Idi bat taldetik, eta ari bat eta urte beteko arkume bat eskeñtzarako,

52. Eta aker bat bekatua gatik:

53. Eta paketsuen doañtzat bi idi, bost ari, bost aker, urte beteko bost arkume. Au izandu zan Elisamma Ammiuden semearen eskeñtza.

54. Zortzigarren egunean Gamaliel Fadassurren seme Manasseren semeen prinzipeak,

55. Eskeñi zuen zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, zillarrezko kopa bat irurogeita amar siklo zituena, Santuarioko pisuan, biak iriñlora olio oratuak eskeñtzarako,

56. Urrezko motraitutxo bat amar siklo pisatzen zituena, inzensoz betea,



57. Idi bat taldetik, eta ari bat eta urte beteko arkume bat eskeñtzarako,
58. Eta aker bat bekatua gatik,
59. Eta paketsuen doañtzat bi idi, bost ari, bost aker, urte beteko bost arkume. Au izandu zan Gamaliel Fadassurren semearen eskeñtza.
60. Bederatzi garren egunean Abidan Jedeonen seme Benjaminen semeen prinzipeak,
61. Eskeñi zuen zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, zillarrezko kopa bat irurogeita amar siklo zituena, Santuarioko pisuan, biak iriñlora olio oratuz beteak eskeñtzarako,
62. Eta urrezko motrairutxo bat amar siklo pisatzen zituena, inzensoz betea,
63. Idi bat taldetik, eta ari bat, eta urte beteko arkume bat eskeñtzarako,
64. Eta aker bat bekatua gatik,
65. Eta paketsuen doañtzat bi idi, bost ari, bost aker, bost arkume urtebeteko. Au izandu zan Abidan Jedeonen semearen eskeñtza.
66. Amar garren egunean Ahiezer Ammisaddaren seme, Danen semeen prinzipeak,
67. Eskeñi zuen zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, zillarrezko kopa bat irurogeita amar siklo zituena, Santuarioko pisuan, biak iriñlora olio oratuarekin beteak eskeñtzarako,
68. Urrezko motrairutxo bat amar siklo pisatzen dituenak, inzensoz betea,
69. Idi bat taldetik, eta ari bat, eta urte beteko arkume bat eskeñtzarako,
70. Eta aker bat bekatua gatik,
71. Eta paketsuen doañtzat bi idi, bost ari, bost aker, bost arkume urte beteko. Au izandu zan Ahiezer Ammisaddairen semearen eskeñtza.
72. Amaika garren egunean Fejiel Okranen seme, Aserren semeen prinzipeak,
73. Eskeñi zuen zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, zillarrezko kopa bat irurogeita amar siklo zituena, Santuarioko pisuan, biak iriñlora olio oratuz beteak eskeñtzarako:
74. Urrezko motrairutxo bat amar siklo pisatzen dituenak, inzensoz betea,
75. Idi bat taldetik, eta ari bat, eta urtebeteko arkume bat eskeñtzarako,
76. Eta aker bat bekatua gatik,

77. Eta paketsuen doañtzat bi idi, bost ari, bost aker, bost arkume urte beteko. Au izandu zan Fejiel Okranen semearen eskeñtza.
78. Amabi garren egunean Ahira Enanen seme, Neptaliren semeen prinzipeak,
79. Eskeñi zuen zillarrezko plater bat eun eta ogeita amar siklo pisatzen zituena, zillarrezko kopa bat irurogeita amar siklo zituena, Santuarioko pisuan, biak iriñlora olio oratuz beteak eskeñtzarako,
80. Urrezko motrairutxo bat amar siklo pisatzen zituena, inzensoz betea,
81. Idi bat taldetik, eta ari bat eta urte beteko arkume bat eskeñtzarako,
82. Eta aker bat bekatua gatik,
83. Eta paketsuen doañtzat bi idi, bost ari, bost aker, bost arkume urte beteko. Au izandu zan Ahira Enanen semearen eskeñtza.
84. Oiek izan ziraden Israelko prinzipeak eskeñiak aldarearen dedikazioan, konsagratua izan zan egunean: Amabi plater zillarrezko, amabi kopa zillarrezko, amabi motrairutxo urrezko.
85. Alako moduan non plater bakoitzak zituen eun eta ogeita amar siklo zillarrezko, eta kopa bakoitzak ogeita amar siklo, au da, zillarrezko ontzi guztiak batera bi milla laureun siklo, Santuarioko pisuan,
86. Urrezko amabi motrairutxo inzensoz beteak, bakoitzak amar siklo pisatzen zituenak, Santuarioko pisuan, au da, batera eun eta ogei siklo urrezko,
87. Amabi idi taldeko eskeñtzarako, amabi ari, amabi arkume urte beteko, eta beren libazioak, amabi aker bekatua gatik,
88. Paketsuen doañtzat ogeita lau idi, irurogei ari, irurogei aker, irurogei arkume urte beteko. Oiek izan ziraden eskeñiak aldarearen dedikazioan, unjituia izan zanean.
89. Eta sartzen zanean Moises elkartasuneko tabernakulora, orakuloarekin ituntzeko aditzen zuen propiziatoriotik berarekin itz egiten zue-naren boza, zeñ zegoan testimonioko kutxaren gañean kerubin bien bitartean, nondik itz egiten ere zion.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
2. Itz egin zaiozu Aaroni eta esango diozu: ipintzen dituzunean zazpi lanparak, jarriko da kandeleroa egoeko aldamenen. Agindu ezazu bada, lanparak begiratu dezatela Ifarrera proposioko ogien maiaren aurkez, kandeleroak begiratzen duen aldamen artarontz argi egin bearko dute.



3. Eta egin zuen Aaronek, eta jarri zituen lanparak kandeleroaren gañean, Jaunak Moisesi agindu zion bezela.
4. Eta onelakoa zan kandeleroaren egiera, urrezkoa malluz landua, bai erdiko eskutokia, eta bai besoen aldamen bietatik jaiotzen zitzaizkan guztiak, Jaunak Moisesi erakutsi zion irudiaren araura, ala egin zuen kandeleroa.
5. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
6. Artu itzatzu Lebitak Israelko semeen artetik, eta garbitu itzatzu
7. Zeremonia onen araura: intzatuak izan bediz ur garbitzallearekin, eta arras ebaki bitzate beren aragiaren ille guziak. Eta garbitzen dituztenean beren soñekoak, eta berak garbituak gelditzen diradenean,
8. Artuko dute idi bat taldetik, eta bere libazioa iriñlora olioarekin oratua, eta zuk artuko dezu beste idi bat taldetik bekatua gatik,
9. Eta alderatuko dituzu Lebitak elkartasuneko tabernakuloaren aurrean, bildurik Israelko semeen talde guztia.
10. Eta Lebitak Jaunaren aurrean daudenean Israelko semeak jarriko dituzte beren eskuak beren gañean.
11. Eta eskeñiko ditu Aaronek Lebitak, Israelko semeen doña beze-la, Jaunaren aurrean, serbitu dezen bere lanean.
12. Lebitak ere jarriko dituzte beren, eskuak idien buruen gañean, zeñatitikan bat eskeñiko dezu bekatua gatik, eta bestea Jaunaren doñerako, erregutu dezazun berak gatik.
13. Eta jarriko dituzu Lebitak Aaron eta bere semeen aurrean, eta konsagratuko dituzu eskeñiak Jaunari,
14. Eta berezituko dituzu Israelko semeen erditikan, izan ditezen nerek.
15. Eta gero sartuko dirade elkartasuneko tabernakuloan, serbitu nazaten. Eta onela garbitu, eta konsagratuko dituzu Jaunaren eskeñtatzat, zeren Israelko semeak doñean neri emanak izan zatzazkidan.
16. Nik artu ditut, Israelen emasabela idikitzen duten lenbisisortu guztien tokian,
17. Zeren nerek dirade Israelko semeen lenbisisortu guztiak, ala gizonetatikoak nola abereetatikoak. Ejiptoko lurrian lenbisisortu guztia zauritu nuen egunetik, santutu nituen neretzat,
18. Eta artu nituen Lebitak Israelko semeen lenbisisortu guztien tokian,
19. Eta eman niozkaten doñean Aaron eta bere semeai erriaren erditikan serbitu nazaten Israel gatik elkartasuneko tabernakuloan, eta erre-

- gutu dezaten berak gatik, izan ez dedin errian izurririk atrebituko baldin balira alderatzen santuariora.
20. Eta egin zuten Moisesek eta Aaronek eta Israelko semeen talde guztiak Lebiten gañean Jaunak Moisesi agindu zion guzia.
 21. Eta izan ziraden garbituak eta garbitu zituzten beren soñekoak. Eta Aaronek altxatu zituen Jaunaren aurrean, eta erregutu zuen berak gatik,
 22. Garbiturik sartu zitezten beren lanetara elkartasuneko tabernakuloan Aaron eta bere semeen aurrean. Jaunak Moisesi agindu zion bezela Lebiten gañean, ala egiña izan zan.
 23. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
 24. Au da Lebiten legea: Ogeita bost urtetik eta gora, sartuko dirade serbitzera elkartasuneko tabernakuloan,
 25. Eta beren edadeko berrogeita amargarren urtea kunplitzen dutenean, utziko diote serbitzeari.
 26. Eta lagunduko diote bakarrik beren anaiai elkartasuneko tabernakuloan, gordetzeko ematen diezten gauzak, baña lanik ez bitzate egin berak. Au da erabakiko dezuna Lebitak gatik beren lanetan.
- ### BEDERATZIGARREN KAPITULUA
1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi Sinaiko eremuan, bigarren urtean Ejiptoko lurretik atera ziraden ezkerreko, lendabiziko illean, esaten zuela:
 2. Egin bitzate Israelko semeak Paskoa bere denboran,
 3. Ill onen amalaugarrenean arratsaldetik, bere zeremonia eta aginte guztien araura.
 4. Eta agindu zien Moisesek Israelko semeai egiteko Paskoa.
 5. Zeñak egin zuten bere denboran illaren amalaugarrenean arratsaldetik Sinaiko mendian. Israelko semeak egin zuten, Jaunak Moisesi agindu ziozkan gauza guztien araura.
 6. Baña ona emen non gorputz ill bat gatik loiak zeuden batzuek, eta argatik egun artan Paskoa zelebratu ezin zezaketanak, alderaturik Moises eta Aaron gana,
 7. Esan zieten: Loiak gaude gorputz ill bat gatik. Zergatik galeraziko zaigu egitea Jaunari eskeñtza bere denboran Israelko semeen artean?
 8. Zeñai erantzun zioten Moisesek: Zaudete itundu nadin Jaunarekin zer agintzen duen zuek gatik.
 9. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
 10. Itz egin zaiezu Israelko semeai: Zuen erriko gizon loa dagoanak gorputz illen bat gatik, edo urrutian bidean, egingo dio Jaunari Paskoa



11. Bigarren illean, illaren amalaugarrenean arratsaldean, ogi legami gabeko eta basa urrazakin jango dute.

12. Ez dute utziko beratatik ezer biaramonerako, eta bere ezurrik ez dute ausiko, gordeko dituzte Paskoako zeremonia guztiak.

13. Baña baldin norbait badago garbia, eta ez bada egon bidean, eta alaere egin ez badu Paskoa, anima hura izango da kendua bere errietatik, zeren etzion Jaunari eskeñi doña bere denboran. Alakoak pagatuko du bere bekatuaren pena.

14. Era berean baldin egongo balitza zuen artean arrotzen bat, edo etorritakoren bat, egingo diote Jaunari Paskoa bere zeremonia eta aginteen araura. Lege bat izango da zuen artean arrotzarentzat eta erritarrarentzat.

15. Ala bada tabernakuloa altxatua izandu zan egunean, estali zuen odei batek, eta arratsaldetik goizeraño zegoan dendan suzko garra bezelako bat.

16. Eta onek jarraitu zuen beti ala. Egunaz estaltzen zuen odei batek, eta gauaz suzko garra bezelako batek.

17. Eta kentzen zanean tabernakuloa estaltzen zuen odeia, orduan joaten ziran Israelko semeak, eta odeia gelditzen zan tokian, an jartzen zituzten etzauntzak.

18. Jaunaren agindura joaten ziran, eta bere agindura gelditzen zuten tabernakuloa. Tabernakuloaren gañean odeia geldirik zegoan denbora guztian, egon oi ziraden toki artan,

19. Eta gertatzen baldin bazan bere gañean denbora luzean egotea, egon oi ziran Israelko semeak Jaunaren belletan, eta ez oi ziraden joan.

20. Odeia tabernakuloaren gañean zegoan egun guztietan. Jaunaren agindura armatzen zituzten dendak, eta bere agindura desarmatzen zituzten

21. Baldin odeia egon bazan geldirik arratsaldetik goizeraño, eta gero egunsentian joaten baldin bazan tabernakuloa utziaz, joaten ziran, eta baldin egun baten eta gau baten ondoan alde egiten bazuen desarmatzen zituzten dendak.

22. Eta baldin gelditzen bazan tabernakuloaren gañean egun bian, edo il batean edo denbora geiagoan, Israelko semeak egon oi ziraden geldirik toki beratan, eta ez oi ziraden joan, baña alde egiten zueneko bereala, jartzen ziran bidean.

23. Jaunaren itzera gelditzen ziran, eta beraren itzera joaten ziran, eta zai egon oi ziran itxedotzen Jaunaren señailea, berak aginduta zeukan bezela Moisesen bitartez.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Egin itzatzu zuretzat bi tronpeta zillar mallutzko, zeñakin bildu dezakezun jende taldea, etzauntzak ibiltzen asi bear dutenean.

3. Eta ots egiten dezunean tronpetakin, bilduko da zugana jende talde guzia elkartasuneko tabernakuloaren atera.

4. Baldin bein bakarrik joko baziñitu, etorriko dirade zugana prinzipeak, eta Israelko jende taldearen buruak.

5. Baña baldin otsa balitza luzeagoa eta aldizkakoa, sortaldean daudenak izango dirade lendabiziak asitzen ibiltzen etzauntzakin.

6. Eta bigarren otsean, eta tronpetaren jotze berdiñean altxatuko dituzte dendak lenbizi egoe aldean daudenak. Eta era onetara egingo dute gañerakoak ere, ots egiten dutenean tronpetak joateko.

7. Baña erria bildua izango danean, tronpeten otsa izango da ishilla-goia, eta ez dituzte joko sendo eta aldizka.

8. Eta Aaronen seme apaizak joko dituzte tronpetak, eta au izango da betiko lege bat zuen gizaldietan.

9. Aterako baldin baziñate zuen erritik gudara zuen kontra gudadzen duten etsaiak esestera, joko dituzte sendo tronpetak, eta izango da zuen oroipena zuen Jaun Jainkoaren aurrean, libratuak izan zaitezzen zuen etsaien eskuetatik.

10. Idukiko baldin bazindukete jan edanen bat, eta jai egunak eta kalendak, joko dituzte tronpetak holokaustoen eta doñ paketsuen gañean, izan ditezen zuentzat oroipengarriak zuen Jaungoikoaren aurrean. Ni zuen Jaun Jainkoa.

11. Bigarren urtean, bigarren illean, illaren ogeigarren egunean altxatu zan odeia elkartasuneko tabernakulotik,

12. Eta Israelko semeak, beren taldetan berezituak joan ziran Sinaiko eremutik, eta odeia etorri zan gelditzera Farango eremuan.

13. Eta asi ziraden ibiltzen lenbiziak, Jaunaren aginte Moisesen bitartez emanaren araura

14. Judako semeak beren taldeetatikan, zeñaen prinzipecta zan Nahason Aminadaben semea.

15. Isakarren semeen tribuan izan zan prinzipecta Nathanael Suarren semea.

16. Zabulononen tribuan zan prinzipecta Eliab Helonen semea.

17. Eta desarmatua izan zan tabernakuloa, zeñ eramaten zutela atera ziran Jerson eta Merarien semeak.



18. Joan ere ziraden Rubenen semeak beren taldeetan eta errenkan, zeñaien prinziptea zan Helisur Sedeurren semea.
19. Simeonen semeen tribuan berriz, prinziptea izan zan Salamiel Surisaddairen semea.
20. Eta Gaden tribuan izan zan prinziptea Eliasaf Duelen semea.
21. Joan ere ziraden Kaattarrak eramaten zutela santuarioa. Eramaten zan tabernakuloa, aliketa allegatu artean altxatua izango zan tokira.
22. Asi ere ziraden erabiltzen etzauntzak Efraimen semeak beren taldeetan, zeñaien ejerzitian prinziptea zan Elisama Ammiuden semea.
23. Manasseren semeen tribuan berriz prinziptea izan zan Gamaliel Fadasurren semea.
24. Eta Benjaminen tribuan izan zan agintaria. Abidan Jedeonen semea.
25. Etzauntz guztien atzenengoak joan ziraden Danen semeak beren taldeetan, zeñaien ejerzitian prinziptea izan zan Ahiezer Ammisaddairen semea.
26. Aserren semeen tribuan berriz zan prinziptea Fejiel Okranen semea.
27. Eta Neptaliren semeen tribuan prinziptea izan zan Ahira Enanen semea.
28. Oiek dirade Israelko semeen etzauntzak eta ibilliak beren taldeetan, ateratzen ziradenean.
29. Eta esan zion Moisesek Hobab Ragelen seme Madiantar, bere aideari: Goazen Jaunak emango digun tokira, atoz gurekin, ongi egin dizaguzun, zeren Jaunak ondasunak eskeñi diozka Israeli.
30. Zeñi ark erantzun zion: Ez naiz joango zurekin, baizik itzuliko naiz jaio nintzan nere lurrera.
31. Eta Moisesek: Ez gaitzatu utzi, erantzun zion, zeren zuk dakizu zeñi tokitan jarri bear ditugun etzauntzak eremuan, eta izango zera gure zuzentzallea.
32. Eta etortzen baldin bazera gurekin, emango dizugu, Jaunak emango dizkigun ondasunetatik ongiena dan guztia.
33. Joan ziraden bada Jaunaren menditikan iru eguneko bidean, eta Jaunaren elkartasuneko kutxa zijoan beren aurretik, adirazten ziela iru egunean etzauntzen tokia.
34. Jaunaren odeia ere beren gañean zan egunaz zebiltzanean.
35. eta kutxa altxatua zanean, esaten zuen Moisesek: Jaiki zaite Jauna, eta desegiñak izan bediz zure etsaiak, eta iges bezate zure aurretik gorroto dizutenak.

36. Eta beeratzen zanean, esaten zuen: itzuli zaite Jauna Israelko ejerzituaren talderontz.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Bitartean jaiki zan errian erausi bat Jaunaren kontra, lana gatik kejatzen diradenean bezelakoa. Au aditu zuenean Jaunak, aserretu zan. Eta irazekirik beren kontra Jaunaren sua iretsi zuen etzauntzen atzenengo partea.
2. Eta nola erriak ots egin zion Moisesi, erregutu zion Moisesek Jaunari, eta lurpetu zan sua.
3. Eta deitu zuen toki huraren izena, Sualdia, Jaunaren sua beren kontra erazekia izan zalako.
4. Zeren gertatu zan jende arrotz berakin etorri zanak, idukitzea gura txit bizi bat, eta negarrez asirik, bildurik berarekin Israelko semeak, eta esan zuen: Nork emango dizkigu aragiak jateko?
5. Oroitzen gera Ejipton doan jaten giñituen arraiakin, gogora etortzen zazkigu luzokerrak eta meloiak, eta porruak, eta tipulak, eta baratzuriak.
6. Gure anima leorra dago, gure begiak ez dute beste gauzarik ikusten Mana baizik.
7. Eta mana zan marterriaren azia bezelakoa, bdelioen kolorekoa.
8. Eta erria joan oi zan etzauntzen inguruetara, eta bildurik iriñ egiten zuen errotan, edo zeatzen zuen motrairuan, egosten zuela eltze batean, eta egiten zituela berarekin opiltxo batzuek ogi oliotuarena bezelako gustokoak.
9. Eta gauaz jatxitzen zanean intza etzauntzen gañera, denbora berean erortzen zan mana ere.
10. Aditu zuen bada Moisesek erriak negar egiten zuela beren familetatik, bakoitzak bere dendako ateetan. Eta txit erazeki zan Jaunaren aserrea, baita Moisesi berari ere iruditu zitzaion ezin sufritu zezakean gauza.
11. Eta esan zion Jaunari: Zergatik atsekabetu dezue zure serbitzaria? Zergatik ez det arkitzen grazia zure aurrean? Eta zergatik ipiñi dezue erri guzi onen zama nere gañean?
12. Nik sortu bai al det talde guzi au, edo emartu bai al det, zuk neri esateko: Eraman itzatzu zure kolkoan, iñudeak erabilli oi duen bezela aurtxoa, eta eraman ezazu beren gurasoai juramentuaz eskeñi ziñioten lurre-ra?



13. Nondik aterako ditut nik aragiak talde ain andiari emateko? Negar egiten dute nere kontra, esaten dutela: Eman zazkiguzu aragiak jan ditzagun.

14. Ezin nik bakarrik sufritu nezake erri guzi au, zeren pisua da nere-tzat.

15. Bestela baldin baderitzatzu, erregutuzten dizut il nazazula, eta arkitu dezadala grazia zure begietan ainbeste gaitz izan ez dezadan.

16. Eta Jaunak esan zion Moisesi: Bildu zazkidazu Israelko zarretatik irurogeita amar gizon, zeñak zuk ezagutzen dituzun diradela zarrak eta erakusleak: eta eramango dituzu elkartasuneko tabernakuloko atera, eta an egon eraziko diezu zurekin,

17. Jatxi nadin eta itz egin dizudan: eta artu dezadan zure espiritutik, eta eman dizaiedan, eraman dezaten zurekin erriaren zama, eta etzaitzen izan zu bakarrik kargatua.

18. Erriari ere esango diozu: Santutu zaitzete, biar jango dituzute aragiak. Zeren nik aditu dizutet esaten: Nork emango dizkigu aragizko jakiak? Ongi geunden Ejipton. Jaunak eman dizazkizuten aragiak, eta jan dizazkizuten,

19. Ez egun batean, ez bian, edo bostean, edo amarrean, ez ogeian ere,

20. Baizik ill oso batean, sudurretatik irten datzakizkizuten bitartean, eta goragalean itzuli datzakizkizuten artean, bota dezutelako zuen erdian dagoan Jauna, eta negar egin dezutelako bere aurrean, esaten dezutela: Zergatik atera gera Ejiptotikan?

21. Eta esan zuen Moisesek: Seireun milla oñazko dirade erri oneta-koak. Eta zuk esaten dezu: Emango diet jaten aragia ill oso batean?

22. Illko bai al da ardi eta idi talderen bat jatekorik asko izan dedin? Edo bilduko bai al dirade toki batean itsasoko arrai guziak berak asetzeko?

23. Zeñi erantzun zion Jaunak: Argala bai al da Jaunaren eskua? Orain ikusiko dezu, egitez betetzen ete dan nere itza.

24. Etorri zan bada Moises, eta kontatu ziozkan erriari, Jaunaren itzak, biltzen zituela irurogeita amar gizon Israelko zarretatik, zeñai egon erazi zien tabernakuloaren aldean.

25. Eta jatsi zan Jauna odeian, eta itz egin zion, artzen zuela Moises-gan zegoan Espiritutik, eta ematen ziotela irurogeita amar gizonai. Eta sartu zanean Espiritua berakgan, profetizatu zuten, eta jarraitu zuten beti ala aurrekoan.

26. Baña etzauntzetan gelditu ziraden bi gizon, zeñatetik bati deitzen zitzaion Eldad, eta besteari Medad, zeñaen gañean gelditu zan Espiritua. Zeren berak ere kontatuak izan ziraden, eta etziraden atera tabernakulo-
ra.

27. Eta nola profetizatzen zuten etzauntzetan, joan zan korrika mutil gazte bat, eta berria eman zion Moisesi, esaten zuela: Eldadek eta Medadek, profetizatzen dute etzauntzetan.

28. Bereala Josuek, Nunen semeak, Moisesek serbitzariak, eta asko-
en artean autatuak, esan zuen: Moises nere Jauna galerazi zaiezu.

29. Eta berak erantzun zuen: Nolako zela agertzen dezu nigatik? Nork eman lezakedan erri guziak profetizatzea, eta Jaunak eman dizaio-
tela bere Espiritua?

30. Eta itzuli ziraden Moises, eta Israelko zar guziak etzauntzetara.

31. Eta aterarik Jaunagandik aize bat, arrapaturik galeperak itsaso-
aren beste aldetikan erakarri zituen, eta utzi zioten erortzen etzauntzetan, beren inguruan, egun batean egin lezakean bidean, eta egaan zebiltzan airean bi besoko alturan lurraren gañean.

32. Jaikirik bada erria egun guzi artan, eta gauean eta beste egunean, bildu zuen gutxienak amar koro galeper, eta leortu zituzten etzauntzen inguruan.

33. Oraindikan aragiak ziraden beren ortzetan, etzan ere aitu onela-
ko janaria, eta ona non Jaunaren aserrea bizturik erriaren kontra, zauritu zuen izurri txit andi batekin.

34. Eta deitua izan zan toki ura, naieraren Odiak, zeren an obitu zuten naierak iduki zituen erria. Eta aterarik naieraren obietatik, etorri ziraden Haserothera, eta gelditu ziraden an.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zuten Mariak eta Aaronek Moisesen kontra bere emazte Etiopiarra gatik,

2. Eta esan zuten: Moisesen bitartez bakarrik itz egin al dau Jaunak? Guri ere ez al digu itz egin era berean? Aditurik au Jaunak,

3. (zeren Moises zan lurrean bizi ziraden gizon guztien artean gizo-
nik otzanena)

4. Bereala itz egin zioten berari eta Aaroni eta Mariari: Atera zaitzete zuek irurok bakarrik elkartasuneko tabernakulora. Eta atera zirade-
nean,

5. Jatxi zan Jauna odeizko abe batean, eta gelditu zan tabernakuloa-
ren sarreran deitzen ziotela Aaron eta Mariari. Zeñak joan ziradenean,



6. Esan zioten: Aditu itzatzute nere itzak, norbait baldin bada zuen artean Jaunaren profeta, agertuko natzaio ikuskeran, edo ametsetan itz egingo diot.

7. Baña ez ala nere serbitzari Moises, nere etxe guzian leialena danari.

8. Zeren nik ari itz egiten diot aoz ao, eta berak argiro ikusten du Jauna, eta ez itanasi eta irudietan. Zergatik bada etzerate beldur izan gaizki esaten nere serbitzari Moises gatik?

9. Eta aserreturik beren kontra, joan zan:

10. Alde ere zuen tabernakuloaren gañean zegoan odeiak, eta ona non Maria agertu zan legendar zuri elurra bezelakoz beterik. Eta begiratu zionean Aaronen, eta ikusi zuenean legendarrez estalirik,

11. Esan zion Moisesi: Erregututen dizut, nere Jauna, ez dezaguzula arren egotzi ezjakinean egin degun bekatu au.

12. Ez bedi gelditu au illa bezala, eta beren amaren sabeletik aurtikitzen dan bertitza bezala. Ona emen non bere aragiaren erdia izan dan legendarrek iretsia.

13. Eta deadar egin zion Moisesek Jaunari, esaten zuela: O Jaungoikoa, erregututzen dizut arren sendatu dezazula.

14. Zeñi erantzun zion Jaunak: Baldin bere aitak istua bota balio bere arpegira, ez al zuen egon bear zazpi egunean bederik lotsaturik? Egon bedi berezitua zazpi egunean etzauntzetatik kanpora, eta gero etorri eraziko zaio.

15. Izan zan bada aurtikia Maria etzauntzetatik kanpora zazpi egunerako, eta erria etzan mugitu toki artatik, alik eta Maria ekarria izan zan artean.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta joanik erria Haserothikan, jarri zituen etzauntzak Farango eremuan.

2. Eta an itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

3. Bidaldu itzatzu gizonak ezagutzera Kanaango Lur, Israelko semeai nik emango diedana, tribu bakoitzetik bat aundienetatikoak.

4. Egin zuen Moisesek Jaunak agindu ziona, bidaldurik Farango eremitikan gizon andienetatikoak, zeñaen izenak dirade oiek.

5. Rubenen tributik, Sammua Zekurren semea.

6. Simeonen tributik, Safat Hurien semea.

7. Judaen tributik, Kaleb Jefonen semea.

8. Issakarren tributik, igal Joserren semea.

9. Efraimen tributik, Osee Nunen semea.

10. Benjaminen tributik, Falti Rafuen semea.

11. Zabulononen tributik, Jeddiel Sodien semea.

12. Joserren tributik, Manasserren zetrotik, Gaddi Susien semea.

13. Danen tributik, Ammiel Jemalien semea.

14. Aserren tributik, Estur Mikaelen semea.

15. Neptaliren tributik, Nahabi Bapsien semea.

16. Gaden tributik, Gel Matxien semea.

17. Oiek dirade Moisesek Lurra ezagutzera bidaldu zituen gizonen izenak, eta Osee Nunen semeari deitu zion Josue.

18. Bidaldu zituen bada Moisesek ezagutzera Kanaango Lurra, eta esan zioten: igo zaitezte egoe aldetikan. Eta allegatzen zeratenean mendietara,

19. Ezagutu ezazute lurra, nolakoa dan; eta bertan bizi dan erria, sendoa dan, ala argala, gutxi al diraden, ala asko,

20. Lurra bera ona dan, ala txarra, nolakoak erriak, murrutuak, ala murru gabeak.

21. Lurra ugaria, ala soilla, basotsua, ala zuaitz gabea. Sendatu zaitzete, eta ekarri zazkiguzute Lurreko frutuetatik. Zan berriz orduan goiz matsak jan litzakean denbora.

22. Eta igo ziranean ezagutu zuten Lurra Singo eremutik, Rohoberaño Emathen sartzen dan tokitik.

23. Eta igo ziran egoera, eta allegatu ziran Hebronera, non zeuden Akimam eta Sisai eta Tholmai Enaken semeak. Zeren Hebron izan zan egiña Tanim Ejiptoko erria baño zazpi urte lenago.

24. Eta jarraiturik mordoaren Errekaraño, ebaki zuten txirmendu bat bere matsarekin, zeñ eraman zuten zardai batean bi gizonen. Eraman ere zituzten toki artako mingranak, eta pikua.

25. Zeñ izandu zan deitua Neheleskol, au da, mordoaren Erreka, Israelko semeak andikan mordo eraman zutelako.

26. Eta itzulirik Lurraren ezagutzalleak berrogei egunen ondoan, alderri guzia inguruturik,

27. Etorri ziraden Moises eta Aaron eta Israelko semeen biltzarre guztiagana Farango eremura, zeñ dagoan Kadesen. Eta itz egiten zutela berakin eta talde guztiarekin, erakutsi ziozkaten Lurreko frutuak.

28. Eta kontatu ziozkaten, esaten zutela: Allegatu giñan bidaldu ginduzun lurrera, zeñi egiazki dariozka eznea eta ezitia, ezagutu lezakean bezala frutu oietatikan.



29. Baña bertan bizi diranak dira txit sendoak, eta ditu erri andiak eta murrutuak. An ikusi degu Enaken arraza.

30. Amalek bizi da egoean, Hetharrak, eta Jebustarra, eta Amorretarra mendietan; Kanaantarra berriz bizi da itsasoaren aldean, eta Jordango erriberetan.

31. Bitartean Kalebek ebakitzeko erriaren Moisesen kontra izketan ari zanaren erausia, esan zuen: igo gaitezen, eta egin gaitezen Lurraren jabeak, zeren badezakegu arrapatu.

32. Berarekin joan ziraden beste batzuk berriz, esaten zuten: inola ere ezin genzake igo erri onetara, zeren gu baño sendoagoa da.

33. Eta gaizki esan zuten Israelko semeen aurrean ikusi zuten Lurra gatik, esaten zutela: ibilli geran lurra iresten ditu bertan bizi diradenak, ikusi degun erria txit aundia da.

34. An ikusi ginduen izugarri batzuek Enaken semeak erraldoien jatorrikoak, zeñakin berdindurik, langostak giñirudien.

AMALAU GARREN KAPITULUA

1. argatik talde guziak deadarrez negar egin zuen gau artan,

2. Eta murmuratu zuten Moisesen eta Aaronen kontra Israelko seme guztiak, esaten zutela:

3. Arren bada il bagiña Ejipton eta galduko al gera eremu andi onetan, eta ez gaitzala sartu Jaunak Lur onetan, eroriak izan ez gaitezen ezpartekin, eta gure emazteak eta semeak katibu eramanak izan ez ditezen. Ez al da obe Ejiptora itzultzea?

4. Eta esan zioten bata besteari: Jarri dezagun agintari bat, eta itzuli gaitezen Ejiptora.

5. Au aditurik Moisesek eta Aaronek auzpez erori ziran lurraren gañean Israelko semeen talde guziaren gañean.

6. Josuek berriz Nunen semeak, eta Kaleb Jefoneren semeak, zeñak berak ere ibilli ziraden Lurrean, urratu zituzten beren soñekoak,

7. Eta esan zioten Israelko semeen talde guziari: ibilli geran lurra txit ona da.

8. Jauna gure aldetikan baldin badegu, sartuko gaitu lur artan, eta emango digu lur bat eznea eta ezta dariona.

9. Etzaitzte jarki Jaunaren kontra, etzaitzte ere Lur onetako erriaren beldur izan, zeren ogia bezala ala iretsi ditzakegu, arkitzen dirade gordebideren deusik gabe. Jauna da gurekin, etzaitzte beldurdu.

10. Eta nola deadar egiten zuen talde guztiak, eta arrika il nai zituzten, agertu zitzaieten Jaunaren gloria Israelko seme guztiak elkartasuneko tellatuaren gañean.

11. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Noizarteraño gaizki esango du nigatik erri onek? Noizarteraño ez didate sinistuko niri beren aurrean egin ditudan mirari guziak gatik?

12. Zaurituko ditut bada eta desegin izurri batekin, eta zu egingo zaitut jende andi, eta au dan baizen sendoago baten agintari.

13. Eta esan zion Moisesek Jaunari: Baña ijitoak zeñan mendetik atera zenduen erri au,

14. Baitaere alderri onetan bizi diradenak, aditu dutenak zu, o Jauna, zaudela erri onen erdian, arpegiz arpegi ikusten utziten diozuna, zure odeiak zaitzen dituela, eta beren aurretik zoazala odeizko abean egunaz, eta suzko abean gauaz,

15. Jakingo dute illerazi dezula ainbeste lagun gizon bat balitza bezela, eta esango dute:

16. Ezin sartu izan zuen erria juramentuarekin eskeñi zion lurrean, argatik il zituen eremuan.

17. Izan bedi bada anditua Jaunaren sendotasuna juramentu egin zenduen bezala, esaten zenduala:

18. Jaun sufrutia eta errukitasun andikoa, kentzen dezuna gaizakeria eta obenak, eta ez dezuna utziten inor obengabetzat kastigatzen dituzuna gurasoen bekatuak semeetan irugarren eta laugarren jatorriaraño

19. Erregututzen dizut, arren barkatu dagizula erri onen bekatua zure errukitasunaren anditasunaren araura, berakin ongi egon zeran bezala Ejiptotik atera ziradenetik toki onetaraño.

20. Eta esan zuen Jaunak: Barkatu diet zure itzaren araura.

21. Nere biziagatik juramentu egiten det, lur guzia Jaunaren gloriak bete izango dala.

22. Alaere nere anditasuna ikusi zuten gizon guziak, eta Ejipton eta eremuan egin nituen mirariak, eta onezkeroko amar aldiz tentatu nautenak, eta nere bozari obeditu ez diotenak.

23. Ez dute ikusiko beren gurasoai juramentuarekin eskeñi nien Lurra, eta nigatik gaizki esan zutenetik batek ere ez du ikusiko.

24. Nere serbitzari Kaleb, zeñak beste espiritu batekin beterik jarraitu zidan, sartuko det Lur onetan, zeñ ingurutu zuen, eta bere jatorria izango da Lur huraren jabe.



25. Zergatik Amalektarra eta Kanaantarra bizi diran ibarretan, biar mugitu itzatzute etzauntzak, eta itzuli zaitzte eremura Itsas Gorriko bidetik.

26. Eta itz egin zioten Jaunak Moisesi eta Aaroni esaten zuela:

27. Noizarteraño talde txit gaizto au ariko da nere kontra gaizki esaten? Aditu ditut Israelko semeen espak.

28. Esan zaiezu bada: Juramentu egiten det nere biagiagatik, dio Jaunak, itz egin dezuten bezela nik aditzen dedala, ala egingo dizutet.

29. Eremu onetan egongo dirade etzinik zuen gorputz illak. Kontatuak izan zeraten guztiok ogei urtekoak eta gorakoak, eta murmuratu dezutenak nere kontra,

30. Etzerate sartuko juramentuarekin bizilekutat eskeñi nizuten lur artan, Kaleb, Jefoneen semea, eta Josue Nunen semea baizik.

31. Zuen aurrak berriz, zeñak gatik esan zenduten etsaiak arrapatuko zituztela, sartuko ditut, ikusi dezaten zuen gogoko izan ez dan lurra.

32. Zuen gorputz illak egongo dirade etzinik eremuan.

33. Zuen semeak ibilliko dirade orron eremuan berrogei urtean, eta artuko dute zuen desleialtasunaren kastigua, alik eta desegin ditezen bitartean gurasoen gorputz illak eremuan,

34. Lurra ikusten irago zenduzten berrogei egunen araura eguna gatik urtea izango da kontatua. Eta berrogei urtean artuko dezute zuen gaiztakerien kastigua, eta jakingo dezute nolakoa dan nere benganza.

35. Zeren esan dedan bezela ala egingo diot nere kontra jaiki dan talde txit gaizto oni, eremu onetan desegiñaz joango da eta an ilko da.

36. Ala bada Moisesek bidaldu zituen gizon guztiak lurra ezagutzera, eta itzulirik murmuratu erazi ziotenak bere kontra talde guziaz, esaten zutela lurra gatik gaiztoa zala,

37. Il ziran eta zaurituak izan ziran Jaunaren aurrean.

38. Josue berriz Nunen semea, eta Kaleb Jefoneen semea bizitu izan ziran lurra ezagutzera joan ziraden guzietatik.

39. Eta Moisesek esan ziozkaten itz guzi oiek Israelko seme guziaz, eta txit negar asko egin zuen erriak.

40. Eta ona non urrengo egunean jaikitzen ziradela igo ziran mendien erpiñera, eta esan zuten: Gertutuak gaude igotzeko Jaunak itz egin zuen tokira, zeren bekatu egin degu.

41. Zeñai Moisesek esan zioten: Zergatik autsitzen dezute Jaunaren itza, zeñak egiazki ez dizute ongi irtengo?

42. Etzaitzte igo, zeren ez da Jauna zuekin erori etzaitzen zuen etsaien aurrean.

43. Zuen aurrean dirade Amalektarra eta Kanaantarra, zeñaien ezpartekin eroriko zerate, ez dezutelako jarri nai izan Jaunaren mendean, Jauna ere ez da izango zuekin.

44. Baña berak lilluraturik igo ziran mendien erpiñera. Jaunaren testamentuko kutzak eta Moisesek berriz etzuten alderik egin etzauntzetatik.

45. Eta jatxi zan mendian bizitu zan Amalektarra eta Kanaantarra, eta zauritzen eta desegiten zituztela jarraitu zieten Hormaraño.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu: Sartzen zerate-nean bizitzera zoazten lur nik emango dizutedanera,

3. Eta egiten diozutenean Jaunari eskeñtza holokaustorako edo doañerako, betetzen dituzutela botoak, edo borondatez eskeñtzen dituzutela doañak, edo zuen jai andietan erre erazitzen dituzutela usai gozoko gauzak Jaunarentzat, idietatik edo ardietatik.

4. Doañen bat eskeñtzen duen edozeñek, eskeñiko du sakrifizioarekin iriñlorazko ephi baten amargarren partea, oliozko hinaren laugarren partearekin oratua,

5. Eta emango du ardozko neurri hura bera libazioak egiteko, holokaustorako edo doañerako. Arkume

6. Eta ari bakoitza gatik eskeñiko dirade iriñlora, olioazko hin baten irugarren partearekin oratua dagoanaren amargarren parte bi.

7. Eta libaziorako ardoarena eskeñiko du neurri huraren beraren irugarren partea Jaunarentzat usai txit gozorako.

8. Baña holokaustoa, edo doaña baldin bada idiena botoren bat betetzeko, edo eskeñtza paketsuren bat egiteko,

9. Emango dituzu idi bakoitza gatik iriñlora olioazko hin baten neurriaren erdiarekin oratuzko iru amargarren parte.

10. Eta neurri artako ardoa libazioak isurtzeko Jaunarentzat usai txit gozoko eskeñtza.

11. Ala egingo dezu.

12. Idi eta ari eta arkume eta antxume bakoitza gatik.

13. Ala erritarrak nola arrotzak.

14. Zeremonia berdiñakin eskeñiko dituzte doañak.

15. Lege eta erabaki bat izango da zuentzat eta arrotzentzat.

16. Itz egin zion Jaunak Moisesi esaten zuela:

17. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu:



18. Allegatzen zeratenean nik emango dizutedan lurrera,
 19. Eta jaten dezutenean alderri artako ogietatik, berezituko dituzute lenbiziak Jaunarentzat
 20. Zuen janariatatik, nola berezituko ere dituzuten lenbiziak larrañetatik,
 21. Ala emango ere diozkazute Jaunari lenbiziak oreetatik.
 22. Eta baldin ezjakiñean utziko bazendute egin gabe Jaunak Moisesi esan ziozkan gauza oietatikoren bat,
 23. Eta bere bitartez zuei agindu dizutenen bat, agintzen asi zan egunetik eta aurrera,
 24. Eta taldeari aztuko balitzaio egitea, eskeñiko du txal bat bestaldetik, Jaunarentzat usai txit gozoko holokaustoan, bere doña eta libazioakin, zeremoniak eskatzen duten bezela, eta aker bat bekatuagatik,
 25. Eta apaizak erregutuko du Israelko semeen talde guzia gatik: eta barkatua izango zaiote, zeren etzuten bekatu egin borondatez, baña alae-re eskeñiko diote Jaunari doña berak gatik, eta beren bekatua gatik, eta beren utsegitea gatik,
 26. Eta barkatua izango zaiote Israelko semeen erri guziari, eta beren artean dabiltzan arrotzai, zeren erri guziaren obena da ezjakiñean.
 27. Baña baldin anima batek ezjakiñean bekatu egingo balu, eskeñiko du urte beteko auntz bat bere bekatua gatik,
 28. Eta erregutuko du bera gatik apaizak, ezjakiñean bekatu egin zuelako Jaunaren aurrean, eta iritxiko dio barkazioa, eta barkatua izango zaio.
 29. Bat izango da legea ezjakiñean bekatu egiten duten guztientzat naiz erritarrentzat naiz arrotzentzat.
 30. Baña arrokeriaz bekatu egin duen anima, naiz izan dedilla bera erritarra, naiz arrotza, galdua izango da bere erriaren erditik, Jaunaren kontra errebelatua izan zalako,
 31. Zeren mezipreziatu zuen Jaunaren itza, eta alferra egin zuen bere agintea. Argatik izango da desegiña, eta eramango du bere bekatuaren kastigua.
 32. Gertatu zan bada, zeudela Israelko semeak eremuan, eta arkiturik gizon bat egurrak biltzen larunbateko egunean,
 33. Eraman zuten Moises, eta Aaron eta talde guziagana.
 34. Zeñak sartu zuten presoindegian ezjakinik zer egin bear ote zuten berarekin.
 35. Eta esan zion Jaunak Moisesi: illa izan bedi gizon au, erri guziak arriz estali beza etzauntzetatik kanpora.

36. Eta aterarik kanpora, arriz estali zuten, eta il zan Jaunak agindu zuen bezela.
 37. Esan ere zion Jaunak Moisesi:
 38. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu: Egin ditzatela berentzat franja batzuek mantuen ertzetan, eta jarri ditzatela beretan jazinto koloreko listoiak,
 39. Zeñak ikusten dituztenean, oroitu ditezen Jaunaren aginte guziakin, eta jarraitu ez dizaieten beren gogorazio eta begi, gauza askotara dijozenai,
 40. Baizikan obeki oroiturik Jaunaren aginteakin bete ditzaten, eta izan ditezen santuak beren Jaungoikoarentzat.
 41. Ni zuen Jaun Jainko, atera zinduztedana Ejiptoko lurretik, izan nendin zuen Jainkoa.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta ona non kore Isaarren, Kaaten semearen, Lebiren semearen semea, eta Datan eta Abiron Eliaben semeak, eta Hon Heleten, Rubenen semeetatikoaren semea,
 2. Jaiki ziraden Moisesen kontra, eta Israelko semeetatik beste berreun eta berrogeita amar gizon sinagogako lenenetatikoak, eta batzarreko denboran beren izenakin deituak ziradenak.
 3. Eta jarririk Moisesen eta Aaronen aurrean, esan zuten: Aski izan bekizute, zeren talde guzia santuzkoa da, eta beretan Jauna da. Zergatik altxatzen zerate Jaunaren erriaren gañera?
 4. Aditu zuenean au Moisesek, erori zan auzpez bere arpegiaren gañean,
 5. Eta itz egiñik Kore eta talde guztiari: Biar, esan zuen, agertuko du Jaunak zeñak diraden berari dagozkietenak, eta alderatuko ditu beragana santuak: eta autatzen dituenak alderatuko zaizka berari.
 6. Egin ezazute bada au: Ar beza bakoitzak bere inzenionarioa, zuze Kore eta zure batzarre guztiak.
 7. Eta biar, arturik sua, ipiñi ezazute gañean, lurrinkaia Jaunaren aurrean, eta aututzen duena, hura izango da santua, asko altxatzen zerate Lebiren semeak.
 8. Eta esan zion berriz Koreri: Aditu ezazute Lebiren semeak,
 9. Gutxi bai al da zuentzat Israelko Jaungoikoak berezitzea zuek erri guzitik, eta alderatzea beragana, serbitu zenezaten tabernakuloko lanean eta egon zindezten erriko jendearen aurrean eta ari zindezten bera serbituzten?



10. Argatik egin bai al du zu eta zure anaia guztiak Lebiren semeak alderatzea beragana, apaizta ere zuentzat arrapatu zenezaten,
11. Eta zure talde guztia egon dedin Jaunaren kontra? Zeren zeñ da Aaron beraren kontra zuek murmuratzeko?
12. Bidaldu zuen bada Moisesek ots egiteko Datan eta Abiron Elia-ben semeak. Zeñak erantzun zuten: Ez gatoz.
13. Gutxi bai al deritzazu ateratzea zuk gu, eznea eta eztia darion lur batetik, iltzeko gu eremuan, gañera jabetzeko ere gurekin?
14. Egiatzki ekarri gaituzu eznezko eta eztizko errekak dariozkan lur batera, eta eman dizkiguzu kanpo eta mastien jabetasunak. Gure begiak ere atera nai al dizkiguzu? Ez gatoz.
15. Eta txit aserreturik Moises, esan zion Jaunari: Etzaiezu begiratu beren eskeñiai, zuk badakizu ez dedala berak gandik iñoiz artu astitxo bat ere, eta ez diodala gaitzik egin beretatiko bati ere.
16. Eta esan zion Koreri: Zu eta zure batzarre guztia egon zaitezte biar berezian Jaunaren aurrean, eta Aaron egongo da bakarrean.
17. Artu itzatzute bakoitzak zuen inzenionarioak eta jarri ezazute inzensoa beren gañean, eskeñitzen diozkazutela Jaunari berreun eta berrogeita amar inzenionario, Aaronek ere iduki dezala bere inzenarioa.
18. Au eginik berak Moises eta Aaronen aurrean,
19. Eta bildurik beren kontra talde guztia tabernakuloko atean, agertu zitzaizoten guztia Jaunaren gloria.
20. Eta itz eginik Jaunak Moises eta Aaroni, esan zioten:
21. Berezitu zaitezte batzarre onen erditikan, galdu ditzadan bereala.
22. Moises eta Aaron auzpeztu ziran bere arpegien gañean, eta esan zuten: Espirituen eta aragi guziaren Jaungoiko txit sendoa, baten bekatua gaitik zure aserrea guzieren kontra suminduko bai al da?
23. Eta esan zion Jaunak Moisesi:
24. Agindu zaiozu erri guziari berezitu dedilla Kore, eta Datan eta Abironen etzauntzetatikan.
25. Eta jaiki zan Moises eta joan zan Datan eta Abiron gana, eta jarraitzen ziotela berari Israelko zarrak,
26. Esan zion taldeari: Berezitu zaitezte gizon gaizto oien etzauntzetatikan, eta etzaiezute ukitu berai dagozkieten gauzai, naasiak izan etzaitezten beren bekatuetan.
27. Eta iges eginik inguruetara beren etzauntzetatik, aterarik Datan eta Abiron zeuden beren etzauntzen sarreran beren emazte eta semeakin eta talde guziarekin.

28. Eta esan zuen Moisesek: Onetan ezagutuko dezute Jaunak bialdu nauela, ikusten dituzuten gauza guziak egitera, eta ez ditudala atera nere biotzetikan.

29. Iltzen badirade oiek gizonak oi diraden eriotzarekin, eta bisitatzin baldin baditu besteak ere bisitatzen dituen izurriak, ez nau bidaldu Jaunak,

30. Baña baldin Jaunak gauza berriren bat egiten badu, alako moduan non idikirik lurra bere aoa iresten baditu... berak, eta berai dagozkieten gauza guziak, eta jatxiko baldin balira bizirik infernura, jakingo dezute blasfematu dutela Jaunaren kontra.

31. Itz egitea bukatu zuenetik bereala bada, iretsi zan lurra beren oñen azpitan.

32. Eta idikitzen zuela bere aoa, iretsi zituen beren etzauntz, eta zituzten gauza guziakin.

33. Eta jatxi ziraden bizirik infernura keez estaliak, eta galdu ziraden taldearen erditik.

34. Baña inguruan zegoan Israel guziak iges egin zuen galtzen ziraden deadarretara, esaten zuela: Gu ere lurra iretsi ez gaitzan.

35. Baña Jauna gandik ateratako suak ere il zituen berreun eta berrogeita amar gizon, inzensoa eskeñitzen zutenak:

36. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi esaten zuela:

37. Agindu zaiozu Eleazar apaiz Aaronen semeari artu ditzala suan dauden inzenionarioak, eta zabaldu dezala sua aldamen batera eta bestera, zeren santutuak izan dirade.

38. Bekatarien eriotzakin, eta egin ditzala berakin plantxak, eta itsatsi bitzazkiola aldareari, beretan Jaunari inzensoa eskeñia izan zaiolako, eta santutuak izan diradelako, Israelko semeak begiratu ditzaieten señaile eta oroipena bezela.

39. Artu zituen bada Eleazar apaizak bronzeko inzenionarioak, zeñatan egin zituzten eskeñiak suak iretsi zituenak, eta egin zituen berakin plantxak, eta itsatsi aldareari,

40. Iduki zezaten gero Israelko semeak, zerekin oroituak izan, alderatu etzedin arrotz edo Aaronen jatorrikoa ez danen bat Jaunari inzensoa eskeñtzera, eta gertatu ez dizaion Kore eta bere talde guziari gertatu zitzaientena, Jaunak Moisesi esan zion bezela.

41. Eta biaramonean gaizki esan zuen Israelko semeen talde guziak Moises eta Aaronen kontra, esaten zuela: Zuek il zenduten Jaunaren erria.

42. Eta jaikirik naspilla bat, eta geiturik matxiñada,



43. Moises eta Aaronek iges egin zuten elkartasuneko tabernakulora. Zeñatara sartu ezker, odei batek estali zuen, eta agertu zan Jaunaren gloria.

44. Eta esan zion Jaunak Moisesi:

45. Alde egin itzatzute talde onen erditikan, orain ere galdu bear ditut. Eta egonik auzpezturik lurtean,

46. Esan zion Moisesek Aaroni: Ar ezazu inzensoarioa, eta aterarik sua aldaretik, jarri ezazu inzensoa gañean, eta zoaz agudo errira erregutu dezazun berak gatik, zeren onezkero ateratua da aserrea Jaunagandik, eta izurria geituaz dijoa.

47. Au eginik Aaronek, eta korrika joanik taldearen erdira, zeñ onezkero galduaz zeraman suak, eskeñi zuen lurrinkaia,

48. Eta jarririk illen eta bizien artean erregutu zuen erria gatik, eta gelditu zan izurria.

49. Eta ziran zaurituak izan ziradenak amalau milla eta zazpireun gizon, Koreren matxiñadan galdu ziradenez gañera.

50. Eta itzuli zan Aaron Moises gana elkartasuneko tabernakuloaren atara, erioatea geldituta gero.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta egin ezazu eman ditzatzutela zigor bat tribu bakoitza gatik, amabi zigor tribuen prinziipe guztiak gatik, eta eskribatuko dezu bakoitzaren izena bere zigorraren gañean.

3. Aaronen izena egongo da Lebiren tribuan, eta zigor bakoitzak idukiko ditu berezian familia guziak,

4. Eta jarriko dituzu elkartasuneko tabernakuloan testimonioaren aurrean, non itz egingo dizudan.

5. Beretatik nik aututzen dedanaren zigorra, loretuko da; eta berezituko ditut nigandikan Israelko semeen kejak, zeñakin murmuratzen duten zuen kontra.

6. Eta itz egin zioten Moisesek Israelko semeai: eta eman zioten prinziipe guziak zigorrak tribu bakoitzak bat, eta izan ziraden amabi zigorrak Aaronen zigorra gabetanik.

7. Zeñak ipiñirik Moisesek Jaunaren aurrean testimonioiko tabernakuloan:

8. Biaramonean itzulirik arkitu zuen loretu zala Aaronen zigorra Lebiren etxean, eta botarik moteak erne ziradela lorak, zeñak, zabaldurik beren ostoak, almendra biurtu ziran.

9. Atera zituen bada Moisesek zigor guziak Jaunaren aurretik, eta erakutzi ziezten Israelko seme guziai, eta ikusi zuten eta artu zituzten bakoitzak beren zigorrak.

10. Eta esan zion Jaunak Moisesi: itzuli ezazu Aaronen zigorra testimonioiko tabernakulora, gordea izan dedin an Israelko seme matxiñadarien ezagungarritzat, eta bukatu ditezen beren kejak nere kontra, il ez ditezen.

11. Eta egin zuen Moisesek Jaunak agindu zion bezela.

12. Baña Israelko semeak esan zioten Moisesi: Ona non izan geran desegñak, guziok galdu gera.

13. Jaunaren tabernakulora alderatzen dan guzia, iltzen da. Guziok desegñak izango bai al gera, iñor bizirik gelditu gabe?

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Jaunak Aaroni: Zuk, eta zure semeak, eta zure aitaren etxeak zurekin erantzun bearko dezute santuarioan egiten diraden bekatuak gatik, eta zuk eta zure semeak batean pagatuko dituzute zuen apaiztzaeren bekatuen pena.

2. Baña artu ere itzatu zurekin Lebiren tribuko zure anaiak, eta zure aitaren urrezigorra, eta beude gertuak, eta lagundu bitzatzute, zu eta zure semeak berriz ariko zerate testimonioiko tabernakuloko lanetan.

3. Eta Lebitak gertuak egongo dirade zure aginteetara, eta tabernakuloko lan guzietarako, baña alaere ez dirade alderatuko santuarioiko ontzietara eta aldarera, aiek ere il ez ditezen, eta zuek batean galdu etzaitzen.

4. Baizik beude zurekin, eta bellan egon bediz tabernakuloko zaitokietan, eta bere zeremonia guzietan. Arrotzik ez da zuekin naasiko.

5. Bellan egon zaitzeze santuarioa zaitzen, eta aldareko lanean, jaiki ez dedin Jaunaren aserrea Israelko semeen gañean.

6. Nik eman nizuten zuen anaiak Lebitak Israelko semeen erditikan, eta eman niozkan doañean Jaunari, serbitu dezaten bere tabernakuloko lanetan.

7. Zuk eta zure semeak berriz zaitu ezazute zuen apaiztza, eta aldrearen lanai dagozkieten, eta beloaren barrenren dauden gauza guziak izango dirade apaizak zaituak. Baldin arrotzen bat alderatzen bada, illa izango da.

8. Eta itz egin zion Jaunak Aaroni: Ona non jarri zaitudan nere lenbizien zaitzalle. Israelko semeak eskeñiak diraden gauza guztiak eman nizkizuten zuri eta zure semeai apaiztza lana gatik betiko legea bezela.



9. Oiek bada artuko dituzu santutuak eta Jaunari eskeñiak diraden gauzeetatik. Eskeñi guzia, eta sakrifizioa, eta bekatua eta obena gatik esnaten zadan guzia, eta argatik gauza txit santua egiten dana, zurea izango da eta zure semeana.

10. Santuarioan jango dezu: gizasemeak bakarrik jango dute beratik, zeren zuretzat konsagratua da.

11. Baña Israelko semeak botoz eraman eta eskeñtzen dituzten lenbiziak eman nizkizuten zuri eta zure semeai eta zure alabai betiko legeaz. Zure etxean garbia dagoenak jango du beretatik.

12. Oliorik, ardorik, eta garirik onenak, Jaunari lenbizizat eskeñtzen zaion guztia, eman dizut zuri.

13. Lurrak ematen dituen eta Jaunari eramaten zaiozkan lenbiziko frutu guztiak, gelditu dira zure premietarako, zure etxean garbia dagoenak jango du beretatik.

14. Israelko semeak botoz ematen duten guztia, zurea izango da.

15. Jaunari eskeñtzen zaiozkan edozeñ motako lenbizi guztiak, naiz gizonenak, naiz abereenak, zuri dagokizutenak izango dirade, baña desberdintasun onekin, non gizonaren lenbizia gatik artuko dezu saria, eta egingo dezu errosia izan dedilla abere loi guztia,

16. Zeñaen erostea egingo da illa bete irago ezker, zillarrezko bost sikloan, santuarioko pisuan. Sikloak ogei obolo ditu.

17. Baña beia, eta ardiaren eta auntzaren lenbizia ez dezu egingo izan dedilla errosia, zeren Jaunarentzat santutuak dira. Bakarrik beren odola isuriko dezu aldarearen gañean, eta erreko dituzu bere gantzak Jaunarentzat usai gozorako.

18. Baña aragiak zure premietarako geldituko dirade, eta izango dirade zureak, nola diraden bular konsagratua eta eskuieko besonda.

19. Eman dizkizutet zuri eta zure semeai, eta alabai betiko legeak, Israelko semeak Jaunari eskeñtzen diozkaten santuarioko lenbizi guztiak. Gatzaren elkartasuna betikoa da Jaunaren aurrean zuretzat eta zure semeentzat.

20. Eta esan zion Jaunak Aaroni: Beren errian etzerate ezeren jabe izango, eta beren artean ere etzerate izango ezeren partill. Ni naiz zure elizanoa eta primeza Israelko semeen erdian.

21. Lebiren semeai berriz eman diotet Israelko amarren guztien jabetasuna, elkartasuneko tabernakuloan egiten dizten lanak gatik,

22. Ez ditezen alderatu berriz Israelko semeak tabernakulora, eta ez dezaten ere egin bekatu mortalik.

23. Lebiren semeak bakarrik serbitzen nautela tabernakuloan, eta eramaten dituztela erriaren bekatuak. Betiko legea izango da zuen gizaldietan. Ez dirade beste gauzaren jabe izango.

24. Kontentaturik beren bear eta premietarako berezitu ditudan amarrenenen eskeñtzarekin.

25. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi esaten zuela

26. Agindu eta adirazi zaiezu Lebitai: Artzen dituzutenean Israelko semeak gandik, eman dizkizutetan amarrenak, eskeñi zaiozkazute Jaunari beren amarrenak, au da, amarrenaren amargarren zatia,

27. Kontatua izan dizazuten lenbizien eskeñtzat, naiz larrañetatik, naiz dolaretatik:

28. Eta lenbiziak artzen dituzuten gauza guztietatik, eskeñi zaiozute Jaunari, eta eman zaiozute Aaron apaizari.

29. Amarrenetatik eskeñtzen dituzuten, eta Jaunaren doañtzat berezitzen dituzuten gauza guztiak, izango dirade txit onak eta autatuak.

30. Eta esango diezu: Baldin amarrenetatik eskeñtzen badezute ederrera eta oberena, izango zatzute kontatua, larrañetik eta dolaretik amarrenak eskeñiko bazinduzte bezela,

31. Eta jango dituzute zuen leku guztietan, bai zuek eta bai zuen familiak, zeren da testimonioko tabernakuloan egiten dituzuten lanen ordaña.

32. Eta ez dezute bekatuak egingo onen gañean, gordetzen dituzutela zuentzat ederrenak eta gizenenak, loitu ez ditzazuten Israelko semeen doañak, eta il etzaitezen.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zioten Jaunak Moisesi eta Aaroni, esaten zuela:

2. Au da Jaunak erabaki duen, doañbiziaren zeremonia. Agindu zaiezu Israelko semeai, ekarri dezatela zugana bei origorri bat edade osokoa, zeñean ez dan orbanikan batere, eta uztarririk erabili ez duena.

3. Eta emango diozute Eleazar apaizari. Zeñak aterarik etzauntzetatik kanpora ilko du guztien aurrean.

4. Eta bustirik beatza bere odolean, intzatu du zazpi alditan tabernakuloko atetarontz,

5. Eta erreko du guztiak ikusten dutela, botarik garrera bai bere larrua eta aragiak eta bai odola eta gorotza.

6. Botako ere du apaizak beia erretzen duen garrean zedrozko zur bat, eta urdingorria, eta grana bi alditan ganbusia.



7. Eta orduan azkenik, garbiturik bere soñekoak eta gorputza, sartuko da etzauntzetan, eta zikindua geldituko da arratsaldera artean.

8. Eta erre duenak ere garbituko ditu bere soñekoak eta gorputza, eta zikindua izango da arratsalde artean.

9. Eta gizon garbi batek bilduko ditu beiaeren autsak, eta isuriko ditu etzauntzetatik kanpora toki txit garbi batean, gorde ditzan Israelko semeen taldeak, eta izan ditezen intzazioko urerako, zeren bekatua gatik beia errean izan zan.

10. Eta garbitzen dituenen bere soñekoak beiaeren autsak eraman zituenak, zikindua geldituko da arratsalderaño. Israelko semeak eta beren artean bizi diraden arrotzak idukiko dute au gauza santutzat betiko legeaz.

11. Gizon illaren gorputzari ukitzen diona, eta argatik zazpi egunean zikindua gelditzen dana:

12. Izango da intzatua ur onekin irugarren eta zazpigarren egunean, eta onela izango da garbitua. Baldin irugarren egunean ez bada intzatua, zazpigarrenean ezin izango da garbitua.

13. Gizon illaren aragiari ukitzen dion, eta naasi onekin intzatua ez dan guztiak, zikinduko du Jaunaren tabernakuloa, eta galdua izango da Israeltik, ez dalako izan intzatua garbitasuneko urarekin, izango da zikindua, eta geldituko da bere gañean bere loikeria.

14. Au da etzauntzan iltzen danaren legea: bere dendan sartzen diraden guztiak, eta an dauden tresna guztiak, izango dirade zikiñak zazpi egunean.

15. Estalkirik ez duen ontzia, eta gañetik lokarririk ere ez duena, zikiña izango da.

16. Baldin iñork ukituko balio kanpoan, norbaitek il duen, eta berez il dan gizonaren gorputzari, edo bere ezurrari edo bere obiari, izango da zikindua zazpi egunean.

17. Eta artuko dituzte errean izan danaren eta bekatuaren autsak, eta botako dituzte ur biziak beren gañera ontzi batean,

18. Zeñean bustirik gizon garbi batek urdingorria, intzatuko ditu berarekin denda guztia, eta tresna guztiak, eta onelako ukituarekin loitu diraden gizonak,

19. Eta onela garbiak garbituko du loa irugarren eta zazpigarren egunean. Eta garbiturik zazpigarren egunean, garbituko da bera eta bere soñekoak, eta zikindua izango da arratsalderaño.

20. Baldin norbait izango ez balitza garbitua zeremonia onekin, galdua izango da aren anima Elizaren erditik, Jaunaren santuarioa zikindu zuelako, eta etzalako izan intzatua ur garbitzallearekin.

21. Au izango da aginte eta lege betiko bat. Urarekin intzitzen duenak ere garbituko ditu bere soñekoak. Ur garbitzallai ukitzen dioten guztia, zikindua izango da arratsalderaño.

22. Zikinduak ukitzen dion guztia, zikiña egingo du, eta oietatik gauzaren bati ukitzen dion anima, zikindua izango da arratsalderaño.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta allegatu ziraden Israelko semeak eta talde guztia Sin-go eremura, lenbiziko illean, eta gelditu zan erria Kadesen. Eta il zan an Maria, eta obitua izan zan toki huratan beratan.

2. Eta arkiturik erria uraen premian, bildu ziran Moises eta Aaronen kontra,

3. Eta matxiñatuta, esan zuten: Arren bada illak izan bagiña gure anaien artean Jaunaren aurrean.

4. Zergatik atera dezute Jaunaren eliza eremura, il gaitezen gu eta gure abereak?

5. Zergatik igo erazi gaituzute toki txit gaizto onetara, zeñean ezin lezakean erein, zeñak ez duen ematen pikorik, ez mastirik, ez granadarik, eta gañera urik edateko ez duenera?

6. Eta utzirik jende taldea, eta sarturik Moises eta Aaron elkartasuneko tabernakuloan, auzpeztu ziran lurreraño, eta deadar egin zioten Jaunari, eta esan zuten: Jaun Jainkoa, aditu ezazu erri onen deadarra eta idiki zaiezu zure tesoroa ur bizizko iturria, aserik, issildu dedin beren murmurazioa. Eta agertu zan Jaunaren gloria beren gañean.

7. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

8. Ar zazu zigorra eta bildu ezazu erria, zuk eta Aaron zure anaiak, eta itz egin zaiozute aitzari beren aurrean, eta berak emango ditu urak. Eta aterarik ura aitzetik, edango du talde guztiak, eta bere abereak.

9. Artu zuen bada Moisesek, Jaunaren aurrean zegoan zigorra, agindu zion bezela.

10. Bildurik taldea aitzaren aurrean, eta esan zioten: Aditu ezazute mendealdetu eta sinisgorrak. Aitz onetatik ura zuei atera bai al dezakeguzute?

11. Eta altxaturik Moisesek eskua, jotzen zuela bi alditan zigorrarekin aitz hura, atera ziraden ur txit ugariak, alako moduan non edan zuten erriak eta abereak.

12. Eta esan zioten Jaunak Moises eta Aaroni: Ez didazutelako sinistu neri santutu nintzazuten Israelko semeen aurrean, ez dituzute sartuko erri oiek, emango diedan errian.



13. Au da matxiñadako ura, non ari zuten elean Israelko semeak Jaunaren kontra, eta santutua izan zan beren artean.

14. Bitartean bidaldu zituen Moisesek mandaturiak Kadestikan Edom erregengana esatera: Oiek esaten dizkizu Israel zure anaiak. Bada-kizu nolako nekeak irago ditugun.

15. Nola jatxi ziran gure asabak Ejiptora, eta bizitu izan gerala an denbora luzean, eta ijitoak gaizki tratatu gaituala gu eta gure asabak,

16. Eta nola deadar egin giñon Jaunari, eta aditu gaituan, eta bidaldu zigun Aingeru bat, zeñak atera ginduen Egiptotikan. Orain bada jarririk Kadesko erri, zure mugaen egalean dagoanean,

17. Erregututzen dizugu utzi zaguzula iragotzen zure lurretik. Ez gerade joango kanpoetatik, ez mastietatik, ez ditugu edango zure putzue-tako urak, baizik joango gera bide berritik, ezkuietara, ez ezkerretara apar-tatu gabe, zure mugak irago ditzagun bitartean.

18. Zeñi erantzun zion Edomek: Etzera iragoko nere lurretikan, bes-tela armatua aterako natzatzu bidera.

19. Eta esan zuten Israelko semeak: iragoko gera bide oinkatutik, eta baldin edango bagiñitu zure urak guk eta gure abereak, emango degu bear dana, ez da izango gauza gaitzik prezioaren gañean, bakarrik agudo irago gaitezen.

20. Baña berak erantzun zuen: Etzera iragoko. Eta bereala atera zan bidera talde neurrigabeko, eta gudari sendozko batekin,

21. Eta etzion eman nai izan eskatzen ziona, utzi zitzaiera iragotzen bere mugetatik. Argatik Israel zuzendu zan beste leku baterontz.

22. Eta altxaturik etzauntzak Kadestik, etorri ziran Horko mendira, zeñ dagoan Edomgo lurreko mugetan,

23. Non itz egin zion Jaunak Moisesi,

24. Eta esan zion: Bijoan Aaron bere errietara, zeren ez da sartuko Israelko semeai eman nien lurrera, sinisgorra izan zalako nere itzera kon-tradizioko uretan.

25. Artu ezazu Aaron eta bere semea berarekin, eta eramango dituz Horko mendira.

26. Eta biluzten dezunean aita bere soñekotik, jantziko dezu berarekin Eleazar bere semea. Aaron ilko da an eta izango da bildua bere asabakin.

27. Egin zuen Moisesek Jaunak agindu zion bezela: eta igo zuten Horko mendira talde guztiaren aurrean.

28. Eta kendurik Aaroni bere soñekoak, jantzi zuen berakin Eleazar bere semea.

29. Illik hura mendiaren erpiñean, jatxi zan Eleazarrekin.

30. Eta talde guztiak ikusirik Aaron il zala, negar egin zuen beragatik ogeita amar egunean beren familia guztietan.

OGEITABAT GARREN KAPITULUA

1. Aditurik au Kananeo Aradko errege, egoean bizi zanak, au da eto-rrri zala Israel zelatarien bidetik, elean egin zuen bere kontra, eta garai ate-rarik, artu ziozkan katibuak.

2. Baña Israelek loturik botoz Jaunari, esan zuen: Baldin jarriko baze-neza erri au nere eskuan, desegingo ditut bere erriak.

3. Eta aditu zituen Jaunak Israelen erreguak, eta jarri zuen bere eskuan Kanaantarra, zeñ berak il zuen desegiñik bere erriak, eta deitu zuen toki huraren izena Horma, hau da, madarikazioa.

4. Joan ere ziraden Hor-ko menditik, itsaso gorriaren daraman bidetik, Edomgo lurra inguratzeko. Eta erria asi zan bideaz eta nekeaz higintzen,

5. Eta itz eginik Jaungoikoaren eta Moisesen kontra, esan zuen: Zer-gatik atera ginduzun Egiptotik, il gindezen eremuan? Ez degu ogirik, ez degu urik, gogobetea ematen digu onezkero indar gabeko janari onek.

6. Argatik bidaldu zituen Jaunak erriaren kontra suge erretzalleak, zeñaen zauri eta askoren eriotzak gatik,

7. Etorri ziraden Moises gana, eta esan zuten: Pekatu egin degu, itz egin degulako Jaunaren eta zure kontra. erregutu ezazu kendu ditzala gugandik sugeak. Eta erregutu zuen Moisesek erria gatik,

8. Eta itz egin zion Jaunak: Egin ezazu bronzeko suge bat eta jarri ezazu señaletzat, zauritua izanik begiratzen diona, biziko da.

9. Egin zuen bada Moisesek bronzeko suge bat, eta jarri zuen señaletzat, zeñi begiraturik zaurituak ziradenak, sendatzen ziran.

10. Eta joanik Israelko semeak jarri zituzten etzauntzak Oboten.

11. Joanik andikan jarri zituzten etzauntzak Jeabarimen, Moabera begiratzen duen eremuan sortalderontz.

12. Eta andikan mugitzen ziradela, etorri ziraden Zaredko errekarra.

13. Zeñ utziten zutela jarri zituzten etzauntzak Arnonen aurrean, zeñ dagoan eremuan, eta ateratzen da besteen gañetik Amorreoan mugetan. Zergatik ere Arnon Moabean muga da, berezitzen dituela Moabtarrak eta Amottarrak.

14. Argatik esaten da Jaunaren gerretako liburuan, nola egin zuen itsaso gorrian, eta egingo du Arnongo erreketan.

15. Erreketako muñoak makurtu ziraden atsedean zezaten Arren, eta etzin zitezen Moabtarren mugetan



16. Toki artatik agertu zan putzu bat, zeñean gañean itz egin zion Jaunak Moisesi: bildu ezazu erria, eta emango diot ura.
17. Orduan kantatu zuen Israelek kanta au: igo beza putzuak. Kantatzen zuten batean.
18. Prinzipeak aitzurtu zuten putzua, eta prestatu zuten taldearen zuzentzalleak lege emallearekin, eta beren makillakin. Eremutik Matanara,
19. Matanatik Nahalielera, Nahalieltik Bamotera.
20. Bamot-tik, bada ibar bat, Moabko alderrian Fagaren erpiñean, eremurontz begiratzen duena.
21. Eta bidaldu ziozkan Israelek mandatariak Sehon Amorreoan erregeari, esaten zuela:
22. Erregututzen dizut utzi zadazula iragotzen zure lurretik, ez degu alderik egingo kanpoetara, ez mastietara, ez degu edango putzuetako urik, joango gera errege bidetikan, irago ditzagun bitartean zure mugak.
23. Zeñak etzion laketu nai izan Israeli iragotzen bere mugetatik, bestera, bildurik ejerzitu bat atera zitzaion bidera eremuan, eta etorri zan Jasara, eta peleatu zuen bere kontra.
24. Zeñak zauritua izan zan ezpataren aoz, eta bere lurraren jabe egiña Armondik Jebok eta Ammonen semeetaraño, zeren Ammontarren mugak zeuden goarnizio sendoz zaituak.
25. Artu zituen bada Israelek bere erri guztiak, eta bizitu izan zan Amorreoaren errietan, au da, Hesebonen eta bere erritxoetan.
26. Hesebon erria izan zan Sehon Amorreo erregearen, Moab erregearen kontra peleatu zuenarena, eta artu zuen bere mendekoa izan zan lur guztia Arnoneraño.
27. Argatik da esaera: Atozte Hesebonera, egin eta jaso bedi Sehongo erria.
28. Sua atera zan Hesebondik, garra Sehongo erritik, eta iretsi zituen Ar Moabtarrena, eta Arnongo goietan bizitu ziradenak.
29. Ai zure zorigaiztokoa Moab! Galdu ziñan Kamosko erria. Jarri zituen igesi bere semeak, eta alabak Sehon Amorreoan erregearen katibetarioan.
30. Beren uztarria galdu zan osaro Hesebondik Diboneraño, nekatuak allegatu ziran Nofera, Medabaraño.
31. Israel bada bizi izan zan Amorreoaren lurrean.
32. Eta bidaldu zituen Moisesek gizonak Jazer ezagutzera, zeñean erritxoak artu zituzten eta an bizi ziradenean jabe egin ziran.

33. Eta itzuli ziran eta igo zuten Basango bidetik, eta bidera atera zitzaieten Og Basango erregea bere erri guztiarekin, peleatzeko Edraien.
34. Eta esan zion Jaunak Moisesi: etzaite bere beldur izan, zeren zure eskuan jarri det bera, eta erri guztia, eta bere lurra, eta egingo diozu egin ziñon bezela Sehon Amorreoan errege Hesebonen bizi zanari.
35. Zauritu zuten bada au ere bere semeekin, eta bere erri guztia iltzeraño, eta bere lurraren jabe egin ziraden.

OGETA BIGARREN KAPITULUA

1. Eta joaten ziradela jarri zituzten etzauntzak Moabko zelaietan, non Jordango beste aldetikan arkitzen dan Jeriko.
2. Eta ikusirik Balak Seforren semeak, Israelek Amorreoari egin ziozkan gauza guztiak,
3. Eta Moabtarrak bere beldur izan ziradela, eta ezin izan ziozkatela jarki bere esetsiai,
4. Esan zioten Moabko zarrak: Ala erri onek desegingo ditu gure lurrean dauden guztiak, nola idiak ebaki oi dituan belarrak sustraietaraño. Bera zan denbora artan Moabko Erregea.
5. Bidaldu zituen bada mandatariak Balaam Beorren seme azti, Ammonen semeen lurreko ibaiaren gañean bizi zana gana, deitu zitzaienten, eta esan: Ona non irten dan Egiptotik, lurraren gaña estalitzen duen erri bat, jartzen dala nere kontra.
6. Atoz bada, eta madarikatu ezazu erri au, zeren ni baño sendoago da, baldin nolabait zauritu eta bota ote dezakedan nere lurretik, zeren badakit bedeikatua dala zuk bedeikatzen dezuna, eta madarikatua zuk bere gañera madarikaziok botatzen diozkazuna.
7. Eta joan ziraden Moabko zarrak, eta Madiango edade geiagokoak, zeramatela eskuetan aztiaren ordaña, eta allegatu ziradenean Balaamgana, eta adirazirik berari Balaak-en itz guztiak.
8. Berak erantzun zuen: Gelditu zaitezte emen gau onetan, eta erantzungo det Jaunak esaten didan guztia. Zeudela berak Balaamen etxean, etorri zan Jaungoikoa, eta esan zion:
9. Zer nai dute gizon oiek zure etxean?
10. Erantzun zuen: Balak Seforren seme Moabtarren erregeak bidaldu ditu nigana.
11. Esatera: Ona non Egiptotik irten dan erri batek, estali du lurraren gaña. Atoz, eta madarikatu ezazu, nolabait peleaturik iges erazi ote dizaiokedan.



12. Eta esan zion Jaungoikoak Balaami: Etzaite joan berakin, eta ez ezazu ere madarikatu erria: zeren bedekiatua da.
13. Zeñak goiz jaikirik esan zioten prinzipei: Zoazte zuen lurrera, zeren galerazi dit Jaunak zuekin etortzea.
14. Itzulirik prinzipeak esan zioten Balaaki: Etzuen nai izan Balaamek etorri gurekin.
15. Berriz ark bidaldu ziozkan len baño asko geiago eta odolgarbiagokoak.
16. Zeñak allegaturik Balaamgana, esan zuten: Onela esan du Balaak Seforren semeak: Ez ezazu luzatu nigana etortzea.
17. Gertutua nago zu honratzeko, eta nai dezun guzia emango dizut. Atoz, eta madarikatu ezazu erri au.
18. Erantzun zuen Balaamek: Baldin emango balit Balaakek bere etxea zillar et urrez betea, ezin aldatuko diot nere Jaun Jainkoaren itza, itz egiteko edo geiago edo gutxiago.
19. Erregututzen dizutet egon zaitezteela emen gaurko gabeen ere, eta jakin dezakedan zer erantzuten didan berriz Jaunak.
20. Etorri zan bada Jaungoikoa Balaamgana gauaz, eta esan zion: Gizon oiek etorri baldin badirade zuri ots egitera, jaiki zaite, eta zoaz berakin, baño neronek agintzen dizudana egiteko kondizioarekin.
21. Goiz jaiki zan Balaam, eta gertuturik bere asto emea, joan zan berakin.
22. Eta aserretu zitzaion Jaungoikoari. Eta Jaunaren Aingerua jarri zitzaion bidean Balaami aurrean. Zeñ zijoan astoaren gañean eseria, eta bi mutil zeramazkian berarekin.
23. Ikusirik astoak Aingerua zegoala geldirik bidean, ezpata billosarekin, alde egin zuen bidetik, eta zijoan kanpotik. Zeñ Balaamek otsak eman, eta bidetxidorrera ekarri nairik,
24. Jarri zan Aingerua bi arriesiren esturetan, zeñakin mastiak zeuden ingurutuak.
25. Zeñ ikusirik astoak, arrimatu zan paretera, eta autsi zion oña gañean eseria zijoanari. Eta ark berriz otsak, ematen ziozkan.
26. Eta alaere Aingerua, iragorik toki estu, ezkuiera ez ezkerredera alde-rik egin ezin zezakean batera, jarri zan bidean.
27. Eta ikusirik astoak Aingerua geldirik, erori zan gañean eseria zegoanaren oñen azpian. Zeñ aserreturik, sendoago jotzen zituen makilla batekin bere saietsak.
28. Eta idiki zuen Jaunak astoaren aoa, eta itz egin zuen: Zer egin dizut? Zergatik jotzen nazu? Ona irugarren aldiz?

29. Erantzun zuen Balaamek: Diña aizalako, eta burla egin didalako, arren bada banik ezpata bati zauritzeko.
30. Esan zuen astoak: Ez al naiz zure aberea, zeñaen gañean eseri oi izan zeran gaurko eguneraño? Esan zadazu egin ote dizudan iñoiz onen antzeko gauzarikan. Eta berak esan zuen: iñoiz ere ez.
31. Bereala idiki zituen Jaunak Balaamen begiak eta ikusi zuen Aingerua zegoala bidean ezpata billosarekin, eta adoratu zuen auzpezturik lurreraño.
32. Zeñi aingeruak esan zion: Zergatik irugarren aldiz ematen diozkazu otsak zure astoari? Ni etorri naiz zure aurrean jartzeko, zure bidea dalako gaiztoa, eta nere kontrakoa.
33. Eta baldin astoak alde egin ez balu bidetik, ematen ziola lekua aurrean jartzen zionari, zu ilko zindudan, eta hura biziko zan.
34. Esan zuen Balaamek: Bekatu egin det, ez jakiñaz zu zeundela nere kontra, eta orain ez baldin badezu nai ni joatea, itzuliko naiz.
35. Esan zuen Aingeruak: Zoaz oiekin, eta begira ez dezazula beste gauzarik esan nik agintzen dizudana baizik. Joan zan bada prinzipeakin.
36. Aditurik au Balakek atera zitzaion bidera Moabtarren erri batean, zeñ dagoan Arnonen azkenengo mugetan.
37. Eta esan zion Balaami: Bidaldu nituen mandatariak zuri ots egitera. Zergatik etziñan bereala etorri nigana? Ote da zure etorreraren ordaña ezin eman nezakealako?
38. Zeñi berak erantzun zion: Ona emen non nagoan. Esan bai al nezake beste gauzarik, Jaungoikoak nere aoan jartzen duena baizik?
39. Ibilli ziraden bada elkarrekin, eta etorri ziraden bere erreinuaren azkenengo mugetan dagoan erri batera.
40. Eta illik Balakek idiak eta ardiak, bidaldu zituen doañak Balaam, eta berarekin zeuden prinzipeak gana.
41. Eta allegaturik goiza, eraman zuen Baalko goietara, eta ikusi zuen erriaren azkenengo zatia.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Balaamek Balaki: Egin zaskidazu emen zazpi alda-re, eta gertutu itzatzu beste anbeste txal, eta beste anbeste ari.
2. Eta eginik Balaamen itzaren araura, jarri zuten batean txal bat eta ari bat aldarearen gañean.
3. Eta esan zion Balaamek Balaki: Zaude piska batean zure eskeñtzaren aldean, joan nadin bitartean ikustera, irtetzen ote didan Jaunak, eta agintzen didan gutzia, esango dizut.



4. Eta joanik agudo, irten zitaion Jaunak bidera. Eta itz eginik bera-ri Balaamek: Zazpi aldare, esan zion, egin ditut, eta jarri ditut gañean txal bat eta ari bat.

5. Baña Jaunak jarri zuen itza bere aoan, eta esan zuen: itzuli zaitte Balaakgana, eta oiek esango diozkazu,

6. Itzulirik arkitu zuen Balak zegoala bere eskeñtzaren aldean, eta Moabtarren prinziipe guztiak.

7. Eta arturik bere itz irudizkoa, esan zuen: Aramdikan ekarri nin- duen Balak Moabtarren erregeak, sortaldeko mendietatik. Atoz, esan zuen, eta madarikatu ezazu Jakob, zabilta arin, eta gorrotatu ezazu Israel.

8. Nola madarikatuko det Jaungoikoak madarikatu ez duena? Zer arrazoirekin gorrotatuko det Jaunak gorrotatzen ez duena?

9. Aitzik goienetatikan ikusiko det, eta muñoetatikan egongo naiz berari begira. Erri au bakarrik biziko da, eta ez da izango kontatua jendeen artean.

10. Nork kontatu dezake Jakobena autsa, eta ezagutu Israelko jato- rriaren zenbata? il bedi nere anima justoen eriotzarekin, eta izan bediz nere azkenak oien antzekoak.

11. Eta esan zion Balakek Balaami: Zer da egiten dezun au? Ots egin dizut madarikatzeko nere etsaiak, eta zuk bestera bedeikatzen dituzu.

12. Zeñi ark erantzun zion: Beste gauzarik esan bai al dezaket, Jau- nak agintzen didana baizik?

13. Esan zuen bada Balakek: Atoz nerekin beste toki batera nondik ikusiko dezun Israelen zati bat, andikan madarikatu ezazu.

14. Eta eramanik bera toki altu batera Fasga mendiaren erpiñaren gañera, egin zituen Balaamek zazpi aldare, eta jarririk gañean txal bat eta ari bat,

15. Esan zion Balaki: Zaude emen zure eskeñtzaren aldean, ni bide- ra irtetzera noan bitartean.

16. Zeñi bidera irtenik Jaunak, eta ipiñirik itza bere aoan, esan zuen: itzuli zaitte Balakgana, eta oiek esango diozkazu.

17. Itzulirik arkitu zuen zegoala zutik bere eskeñtzaren aldean, eta Moabtarren prinziipeak berarekin. Zeñi esan zion Balakek: Zer esan du Jaunak?

18. Eta berak arturik bere parabola, esan zuen: Jaiki zaitte, Balak, eta entzun, aditu ezazu Seforren semea:

19. Ez da Jaungoikoa gizona bezelakoa, gezurra esateko: ez eta ere gizonaren semea bezelakoa, aldatutzeko. Esan zuen bada, eta ez al du egingo? itz egin zuen, eta ez al du beteko?

20. Bedeikatza izan naiz, ekarria, ezin nezake galerazi bedeikazioa.

21. Ez al da idolorik Jakobgan, ez da ere ikusten irudirik Israelen. Bere Jaun Jainkoa berarekin da, eta erregeren garaitzaren otsa beragan.

22. Jaungoikoak atera zuen Egiptotik, zeñaen sendotasuna da adar- bakotxarenaren antzekoa.

23. Ez da asmatzallerik Jakobgan, ez aztirik Israelgan. Bere denbore- tan esango zaitote Jakobi eta Israeli Jaunak egin zuena.

24. Ona emen leoi emea bezela jaikiko dan, eta leoi arra bezela altxa- tuko dan erria, ez da etzingo iretsi dezan artean arrapatua, eta edan dezan artean illen odola.

25. Eta esan zion Balakek Balaami: Ez ezazu madarikatu, ez bedei- katu.

26. Eta ark esan zuen: Ez al dizut esan Jaungoikoak agintzen didan guztia, au egingo dedala?

27. Eta esan zion Balakek: Atoz, eta eramango zaitut beste toki bate- ra, ikustera Jaungoikoak nai ote duen andik berak madarikatzea.

28. Eta eramanik Fogor mendiaren erpiñaren gañera, zeñak begira- tzen duen eremura,

29. Esan zion Balaamek: Egin zaskidazu emen zazpi aldare, eta ger- tutu itzatzu beste anbeste txal, eta beste anbeste ari.

30. Egin zuen Balakek Balaamek agindu zion bezela, eta jarri zituen txalal eta ariak aldare bakoitzaren gañean.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusirik Balaamek Jaungoikoak nai zuela Israel bedeikatu zeza- la, iñolaere etzan joan len joan zan bezela, aztiarekin ituntzera: baizik zuzendurik eremurontz bere arpegia,

2. Eta altxaturik begiak, ikusi zuen Israel zegoala etzauntzetan bere tributetan, eta eroririk beragana Jaungoikoaren espiritua,

3. Arturik parabola esan zuen: Esan zuen Balaam Beorren semeak: esan zuen gizonak, zeñaen begia dagoan estalia.

4. Esan zuen Jaungoikoaren itzen aditzalleak, Guzialaren ikusikizu- na ikusi zuenak, erortzen danak, eta onela idikitzen dirade bere begiak.

5. Zeñ ederrak diraden zure etzauntzak Jakob, eta zure dendak, Israel!

6. Ibarrek basoakin bezela, baratz urezkorak ibaien aldean bezela. Jaungoikoak jarri zituen dendak bezela, zedroak uren aldean bezela.



7. Joango da ura bere uroditik, eta bere jatorria izango da ur askoetan. Bere erregea izango da goratua Agajen bitartez, eta kendua izango da bere erreinua.

8. Jaungoikoak atera zuen Egiptotik, zeñaien sendotasuna adarbako-txaren antzekoa. Iretsiko dituzte jende beren etsaiak, eta beren ezurra-ak autsiko dituzte, eta zulatuko dituzte saetakina.

9. Etzinik lo egin zuen leoi arrak bezela, eta leoi emeak bezela, zeñ esnatzen inor ez dan azartzen. Bedeikatzen zaituena, izango da bera ere bedeikatua; madarikatzen zaituena, izango da madarikatutzat idukia.

10. Eta aserreturik Balak Balaamen kontra, eskuakin otsak eginik, esan zuen: Ots egin dizut madarikatzeke nere etsaiak, zeñak kontrara iru-garren aldiz bedeikatu dituzu.

11. Itzuli zaite zure tokira. Erabaki nuen egiaz txit andizkiro zu onra-tzea, baña Jaunak kendu dizu prestatua zegoan onra.

12. Erantzun zion Balaamek Balaki: Ez al nien esan bidaldu ziztan mandatariak.

13. Baldin emango balit ere Balakek bere etxe zillarrez eta urrez betea, ezin aldenduko naiz nere Jaungoikoaren itzetik, esateko nere bio-tzetik gauza on edo gaiztoaren deusik, baizik Jaunak esaten didan guztia, an esango det?

14. Alaere joatzean nere errira, emango det conseju bat, zer egin bear dion zure erriak erri oni atzenengo denboran.

15. Arturik bada parabola, berriz esan zuen: Esan zuen Balaam Beo-rren semeak: esan zuen gizon batek, zeñaien begia dagoan itxia,

16. Esan zuen jaungoikoaren itzen aditzalleak, dakianak txit altuaren dotriña, eta ikusten dituanak Guzialaren ikusikizunak, erortzen danean begiak idikiak dauzkanak.

17. Ikusiko det, baña ez orain: begiratuko diot, baña ez aldetikan. Jakobgandik jaioko da izar bat, eta Israelgandik altxatuko da zigor bat, eta zaurituko ditu Moaben gjalariak, eta desegingo ditu Seten seme guztiak.

18. Eta bera izango da Idumearen jabea, Seirren primeza utziko die bere etsaiak, baña Israel sendoki portatuko da.

19. Jakobgandik aterako da gañetik jarriko dana, eta galduko ditu erriaren kutsuak.

20. Eta ikusi zuenean Amalek, arturik parabola, esan zuen: Jendeen asiera Amalek, zeñaien atzenak izango dirade galduak.

21. Ikusi ere zuen Zineo. Eta arturik parabola, esan zuen: Sendoa da egiazki zure bizilekua, baña jarriko baldin bazeneza ere zure kabia aitzean

22. Eta bazeneza autatua Zinen jatorritik, noizarteraño iraun zene-zake? Zeren Assurrek arrapatuko zaitu.

23. Eta arturik parabola, berriz itz egin zuen: Ai! Nor biziko da Jaun-goikoak oiek egiten dituanean?

24. Etorriko dirade galeretan Italiatik, garaituko dituzte Asuriatarrak, desegingo dituzte Hebreoak, eta atzenean berak ere galduko dirade.

25. Eta jaiki zan Balaam, eta itzuli zan bere tokira. Balak ere biurtu zan etorri zan bidetik.

OGEITA BOSTGARREN KAPITULUA

1. Eta denbora artan bizi zan Israel Setimen, eta bekatu egin zuen erriak Moaben alabakin.

2. Neskatxak deitu zituzten mutillak beren sakrifizioetara. Eta berak jan zuten, eta adoratu zituzten neskatxan Jaungoikoak.

3. Eta konsagratu zitzaion Israel Beelfegorri. Eta aserreturik Jauna,

4. Esan zion Moisesi: Artu itzatzu erriaren zuzentzalle guztiak eta eseki itzatzu urkamendietan eguzkiaren aurrean apartatu dedin nere ase-rra Israeldikian.

5. Eta esan zioten Moisesek Israelko juezai: il bitza bakoitzak Beel-fegorri konsagratu zitzaiozkan bere aideak.

6. Eta ona non Israelko semeetatik bat sartu zan bere anaiak ikusten zutela emakume galdu Madiantar bat gana, ikusten zutela Moisesek eta Israelko semeen talde guztiak, zeñak negar egiten zuten tabernakuloko atean aurrean.

7. Ikusi zuenean au Finees Eleazarren Aaron apaizaren semearen semeak, jaiki zan taldearen erditik, eta arturik puñal bat,

8. Sartu zan Israeltar gizonaren ondoren burdelean, eta igaro zituen batetik bestera biak batera, au da gizasemea eta emakumea lotsarietan. Eta gelditu zan izurria Israelko semeetan.

9. Eta illak izan ziraden ogeita lau milla gizon.

10. Eta esan zion Jaunak Moisesi:

11. Finees Eleazarren Aaron apaizaren semearen semeak aldendu zuen nere aserrea Israelko semeak gandik, zeren nere zeloaz mugitu zan beren kontra, neronek desegin ez nitzan Israelko semeak nere aserrean.

12. Argatik itz egin zaiozu: Ona non ematen diodan nere elkartasu-naren pakea,

13. Eta izango da bai beretzat, eta bai bere jatorriarentzat apaizta-zen elkartasun betikoa, bere Jaungoikoaren zela iduki duelako, eta garbi-tu Israelko semeen gaiztakeria.



14. Eta Israeltar gizon Madiantar emakumearekin illa izan zanaren izena zan Zabri Saluen semea, Simeonen senitarte eta tribuko zuzentzailea.

15. Eta emakume Madiantar berdin illa izan zanari deitzen zitzaion Kozbi Surren Madiantar prinziipe odol txit garbikoaren alaba.

16. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

17. Ezagutu bitzate Madiantarrak beren etsaiak zeratela, eta zauritu itzatzute.

18. Zeren berak ere etsaien gisan tratatu zaituzte, eta engañatu zaituzte zelatakin Jogor idoloaren bitartez, eta Kozbi bere arreba Madiango prinziipearen alaba zauritua izan zana izurriaren egunean Fogorren sakri-lejioa gatik

OGETA SEIGARREN KAPITULUA

1. Isuria izan zan ezkerro oben kulpadunen odola, esan zioten Jaunak Moisesi, eta Eleazar Aaronen seme apaizari:

2. Kontatu ezazute Israelko semeen zenbat guzia ogei urtetik eta gorakoa beren etxe eta aideetatik, gerrara atera litzaken guziak.

3. Itz egin zioten bada Moisesek, eta Eleazar apaizak Moabko landetan Jordanen gañean Jerikoen aurkez, ziradenai

4. Ogei urtetik eta gorakoai, Jaunak agindu zuen bezala, zeñaen zebata da au:

5. Ruben Israelen lenbizisortua, onen semea Henok, zeñ gandik Henoktarren familia, eta Falu, zeñ gandik Falutarren familia,

6. Eta Hesron, zeñ gandik Hersontarren familia, eta Karmi, zeñ gandik Karmitarren familia.

7. Oiek dirade Rubenen jatorriko familiak, zeñaen zebata arkitu zan berrogeita iru milla zazpireun, eta ogeita amar.

8. Faluen semea Eliab.

9. Onen semeak, Namuel, eta Datan, eta Abiron. Oiek dirade Datan eta Abiron erriko prinziipeak, jaiki ziradenak Moisesen, eta Aaronen kontra Koreren iskanbillan, Jaunaren kontra errebelatu ziradenean.

10. Eta idikirik lurrak bere aoa iretsi zuen Kore, iltzen ziradela asko, suak erre zituanen berrogeita amar gizon. Eta mirari andi bat gertatu zan,

11. Zeren, galdurik kore, bere semeak etziraden galdu.

12. Simeonen semeak beren aideetatik: Namuel, one gandik Namueltarren familia, Jamin, one gandik Jamintarren familia, Jatxin, onegandik Jatxintarren familia,

13. Zare, onegandik Zaretarren familia, Saul, onegandik Saultarren familia.

14. Oiek dirade Simeonen jatorriko familiak, zeñaen zenbat guzia izan zan ogeita bi milla eta berreun.

15. Gaden semeak bere aideetatik, Sefon, onegandik Sefontarren familia, Agji, onegandik Agjitarren familia, Suni, onegandik Sunitarren familia.

16. Ozni, onegandik Oznitarren familia, Her, onegandik Hertarren familia,

17. Arod, onegandik Arodtarren familia, Ariel, onegandik Arieltarren familia,

18. Oiek dirade Gaden familiak, zeñaen zenbat guzia izandu zan laurreun milla eta bosteun.

19. Judaen semeak, Her eta Onan, zeñak biak ill ziraden Kanaango lurrean.

20. Eta Judaen semeak beren aideetatik izan ziraden, Sela, zeñgandik Selatarren familia, Fares, zeñgandik Farestarren familia, Zare, zeñgandik Zaretarren familia.

21. Eta Faresen semeak: Hesron, zeñgandik Hesrontarren familia, eta Hamul, zeñgandik Hamultarren familia.

22. Oiek dirade Judaen familiak, zeñaen zenbat guzia izandu zan irurogeita sei milla, eta bosteun.

23. Issakarren semeak beren aideetatik: Thola, zeñgandik Tholatarren familia, Fua, zeñgandik Fuatarren familia,

24. Jasub, zeñgandik Jasubtarren familia, Semran, zeñgandik Semrantarren familia.

25. Oiek dirade Isakarren aideak, zeñaen zebata izandu zan irurogeita lau milla, eta irureun.

26. Zabulonon semeak beren aideetatik: Sared, zeñgandik Saredtarren familia, Elon, zeñgandik Elontarren familia, Jalel, zeñgandik Jaleltarren familia.

27. Oiek dirade Zabulonon aideak, zeñaen zebata izandu zan irurogei milla, eta bosteun.

28. Joserren semeak beren aideetatik, Manasses eta Efraim.

29. Manases gandik jaio zan Matxir, zeñgandik Matxirtarren familia. Matxirgandik sortua izan zan Galaad, zeñgandik Galaadtarren familia.

30. Galadek izan zituen semeak: Jezer, zeñgandik Jezertarren familia, eta Helek, zeñgandik Helektarren familia.



31. Eta Asriel zeñagandik Asrieltarren familia, eta Sekem, zeñagandik Sekemtarren familia.
32. Eta Semida, zeñagandik Semidatarren familia, eta Hefer, zeñagandik Hefertarren familia.
33. Eta Hefer izan zan salfaaden aita, zeñak etzuen semerik, baizik bakarrik alabak, zeñaen izenak dirade oiek: Maala, eta Noa, eta Hegla, eta Melka, eta Tersa.
34. Oiek dirade Manasseren familiak, eta beren zenbata berrogeita amabi milla, eta zazpireun.
35. Eta Efraimen semeak beren aideetatik izan ziraden oiek: Sutala, zeñagandik Sutralarren familia, Betxer, zeñagandik Betxertarren familia, Tehen, zeñagandik Tehentarren familia.
36. Eta Sutralaren semea izandu zan Heran, zeñagandik Herantarren familia.
37. Oiek dirade Efraimen semeen aideak, zeñaen zenbata izandu zan ogeita amabi milla, eta bosteun.
38. Oiek dirade Joseren semeak beren aideetatik. Benjaminen semeak beren aideetan. Bela, zeñagandik Belatarren familia, Asbel, zeñagandik Asbeltarren familia: Ahiram, zeñagandik Ahiramtarren familia,
39. Sufam, zeñagandik Sufamtarren familia, Hufam, zeñagandik Hufamtarren familia.
40. Belaren semeak: Hered, eta Noeman. Heredgandik Heredtarren familia; Noemangandik Noemantarren familia.
41. Oiek dirade Benjaminen semeak beren aideetatik, zeñaen zenbata izandu zan berrogeita bost milla, eta seireun.
42. Danen semeak beren aideetatik: Suham, zeñagandik Suhamtarren familia. Oiek dirade Danen aideak beren familietatik.
43. Guziak izandu ziraden Suhamtarrak, zeñaen zenbata zan, irurogeita lau milla eta laureun.
44. Asserren semeak beren aideetatik: Jemna, zeñagandik Jemnatarren familia, Jessui, zeñagandik Jessuitarren familia: Brie, zeñagandik Brietarren familia.
45. Brieren semeak: Heber, zeñagandik Hebertarren familia, eta Meltxiel, zeñagandik Meltxieltarren familia.
46. Eta Asserren alabaren izena izan zan Sara.
47. Oiek Aserren semeen aideak, eta beren zenbata berrogeita amairu milla, eta laureun.
48. Neptaliren semeak bere aideetatik: Hesiel, zeñagandik Jesieltarren familia, Guni, zeñagandik Gunitarren familia,

49. Jeser, zeñagandik Jesertarren familia, Sellem, zeñagandik Sellemtarren familia.
50. Oiek dirade Neptaliren semeen aideak beren familietatik, zeñak izan ziraden berrogeita bost milla, eta laureun.
51. Oiek dirade Israelko seme, kontatuak izan ziradenak, seireun eta bat milla zazpireun, eta ogeita amar.
52. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:
53. Oiei partituko zaiote lurra izenen zenbataren araura, beraren jabe izan ditezen.
54. Geiagiagai emango diezu zati andiagoa, eta gutxiagiagai txikiagoa, bakoitzari emango zaio jabetasuna, orain kontatuak izan diraden bezala.
55. Alako moduan non bakarrik suerteak partitu dizaiotela lurra tribuai, eta familiai.
56. Suertez tokatzen zaion guzia, an artuko dute naiz geiagiok naiz gutxiagiok.
57. Au da ere Lebiren semeen zenbata beren familietatik: Jerson, zeñgandik Jersontarren familia, Kaaath, zeñgandik Kaatharren familia, Merari, zeñgandik Meraritarren familia.
58. Oiek dirade Lebiren familiak: Lobniren familia, Hebroniren familia, Moholiren familia, Musiren familia, Koreren familia. Kaathgandik berriz izan zan sortua Amram,
59. Zeñaen emaztea izan zan Jokabed Lebiren alaba Ejipton jaio zitzaiona.
- Onek egin zitzaiozkan bere senar Amrami semeak, Aaron, eta Moises, eta Maria beren arreba.
60. Aarongandik jaio ziraden Nadab, eta Abiu, eta Eleazar, eta Ithamar.
61. Zeñaetatik Nadab eta Abiu il ziraden eskeñi zutenean su arrotza Jaunaren aurrean.
62. Eta kontatuak izan ziraden guztiak, il batetik gorako gizasemeak ziraden ogeita iru milla, zeren etziraden izan kontatuak Israelko semeen artean, eta etzaioten ere eman besteakin jabetasuna.
63. Au da Israelko semeen, Moisesek eta Eleazar apaizak, Moabko landaetan Jordanen gañean Jerikoren aurkez bistan jarri zituztenen zenbata.
64. Zeñaen artean etzan arkitu, Moisesek eta Aaronek Sinaiko eremuan len kontatuak izan ziradenetatik batere.



65. Zeren Jaunak lendikan esan zuen, guziak eremuan ilko ziradela. Eta beretatik batere etzan gelditu, Kaleb Jefoneren semea, eta Josue Nunen semea baizik.

OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta allegatu ziran Salfaaden, Heferren semearen, Galaaden semearen, Matxirren semearen, Manassesen semearen, Joserren semea izan zanaren alabak. Zeñaen izenak dirade, Maala, eta Noa, eta Hegla, eta Melka, eta Thersa.

2. Eta agertu ziran Moisesen, eta Eleazar apaizaren, eta erriko prinzipie guztien aurrean elkartasuneko tabernakuloaren atean, eta esan zuten:

3. Gure aita il zan eremuan, eta etzan arkitu Korek Jaunaren kontra mugitu zuen iskanbillan, baizik bere bekatuan il zan. Onek etzuen iduki giza semerikan. Zergatik bada kentzen da beraren izena bere familiatik etzuelako semerik iduki? Eman iguzute jabetasuna gure aitaren aideen artean.

4. Eta jarri zuen Moisesek beren eskaria Jaunaren erabakian.

5. Zeñak esan zion:

6. Bidezko gauza eskatzen dute Salfaaden alabak: eman zaiezu jabetasuna beren aitaren aideen artean, eta sartu bitez beraren primezan.

7. Eta Israelko semeai oiek esango diozkazu.

8. Gizonen bat semerikan gabe iltzen danean, bere alabagana iragoko da primeza.

9. Alabarik ez baldin balu, izango ditu bere lekuan primezan bere anaiak.

10. Eta baldin anaiarik ez balitza, emango diezute primeza bere aitareren anaiak.

11. Eta baldin aitaren aldeko osabarik ez baldin balu, emango zaiote primeza bere aldekoenak diradenai, eta izango da au Israelko semeentzat erabakia betiko legez, Jaunak Moisesi agindu zion bezela.

12. Esan ere zion Jaunak Moisesi: igo zaitte Abarim mendi onetara, eta kontenplatu ezazu andikan, Israelko semeai emango diedan lurra.

13. Eta ikusten dezunean, joango zera zu ere zure erria gana, zure anaia Aaron joan zan bezela,

14. Zeren iraindu ninduzuten Singo eremuan taldearen jarkieran, eta ez ninduzuten santifikatu nai izan beraren aurrean uren gañean. Oiek dirade jarkierako urak Singo eremuko Kadesen.

15. Zeñi erantzun zion Moisesek:

16. Aragi guziaren espirituen Jaun Jainkoak billatu beza gizon bat talde au zaituko duena.

17. Eta sartu, eta atera alko dana beren aurrean, eta berak sartu edo aterako dituen, izan ez dedin jaunaren erria, artzai gabeko ardiak bezelakoa.

18. Eta esan zion Jaunak: Ar zazu Josue Nunen semea, gizon bat zeñean dagoan espiritua, eta jarri ezazu zure eskua bere gañean.

19. Zeñ agertuko da Eleazar apaizaren, eta talde guziaren aurrean.

20. Eta emango dizkiozu aginteak, guziak ikusten dutela, eta zure gloriaren zati bat, aditu dezaten Israelko semeen Sinagoga guziak.

21. Zerbait egin bear balitza, Eleazar apaiza itunduko da Jaunarekin beraugatik. Bere itzera aterako da, eta sartuko da bera, eta Israelko seme guziak berarekin, eta beste taldea.

22. Egin zuen Moisesek Jaunak agindu zuen bezela. Eta arturik, Josue, jarri zuen Eleazar apaizaren, eta erriko talde guziaren aurrean.

23. Eta jarririk eskuak bere buruan, berriz esan zituen Jaunak agindu ziozkan gauza guztiak.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Esan ere zion Jaunak Moisesi:

2. Agindu zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu: Eskeñi ezazute bere denboretan nere eskeñtza, eta ogiak, eta usai txit gozoko inzensoa.

3. Oiek dirade eskeñi bear dituzuten opariak: bi arkume urte beteko orban gabekoak egunoro, betiko oparizat.

4. Bata eskeñiko dezute goizetik, eta bestea arratsaldetik,

5. Iriñlorazko ephi baten, olio txitez garbiarekin oratuaren, eta hin baten laugarren zatia duenaren amargarren zatia.

6. Opari betikoa da eskeñi zendutena Sinaiko mendian erretikan usai txit gozorako Jaunarentzat.

7. Eta isuriko dezute ardozko hin baten laugarren zatia arkume bakoitza gatik Jaunaren santuarioan.

8. Eta berebat eskeñiko dezute beste arkumea arratsaldetik goizeko eskeñtzako zeremonia guziaren, eta bere libazioen araura, usai txit gozoko eskeñtza Jaunarentzat.

9. Larunbateko egunean berriz eskeñiko dituzute bi arkume urtebeteko orbanik gabekoak, eta iriñlora sakrifizioan olio oratuaren amargarren zati bi, eta libazioak.

10. Zeñak oi bezela isurtzen diraden larunbat guztietan betiko oparizat!



11. Eta kalendetan eskeñiko diozkazute Jaunari oparian beitaldeko txal bi, ari bat, zazpi arkume urtebeteko orbanik gabekoak,

12. Eta iriñlora sakrifizioan olio oratuaren amar zatitatik iru, txal bakoitza gatik, eta iriñlora olio oratuaren amar zatitatik bi, ari bakoitza gatik.

13. Eta iriñlorako amargarren zatiaren amargarren zatia olioarekin eskeñtzarian arkume bakoitza gatik. Da Jaunarentzat usai txit gozoko, eta gauza errezko eskeñtzaria.

14. Eta eskeñtza bakoitzagatik isuriko diraden ardozko libazioak dirade oiek: hin baten erdia txal bakoitzarekin, irugarren zatia ari bakoitzarekin, laugarren zatia arkume bakoitzarekin. Au izango da, urte bakoitza iragotzean bata bestearen ondorik datozen il guzietako eskeñtza.

15. Aker bat ere eskeñiko zaio Jaunari bekatuak gatik, betiko oparian bere libazioakin.

16. Baña lendabiziko illean, illaren amalaugarren egunean, izango da Jaunaren Paskoa,

17. Eta amabosgarren egunean jai andia: zazpi egunean jango dituzte legamigabeak.

18. Zeñatetik lenbiziko eguna izango da beneragarria, eta santua, menpekoen lanik batere ez dezute egingo beratan.

19. Eta eskeñiko dezute Jaunarentzat opari errea, bei taldetik txal bi, ari bat, zazpi arkume urtebeteko orbanikgabeak.

20. Eta bakoitzaren eskeñtzak, olioarekin oratua dagoen iriñloratik, iru amarren txal bakoitzagatik, eta bi amarreko ariagatik,

21. Eta amarretik amarrena arkume bakoitza gatik, au da, zazpi arku-meetatik bakoitzagatik:

22. Eta aker bat bekatua gatik, zuen barkaziorako,

23. Goizeko holokaustoaz gañera. Zeñ beti eskeñiko dezuten.

24. Ala egingo dezute zazpi egunetatik bakoitzean suaren bazkatzat, eta Jaunarentzat usai txit gozorako, zeñ jaikiko dan bakoitzaren holokausto, eta libazioetatik.

25. Zazpigarren eguna ere txit ospatua, eta santua izango da zuentzat; mendekoen lanikan batere ez dezute egingo beratan.

26. Lenbizien eguna ere eskeñtzen diozkazutenean Jaunari frutu berriak, kunpliturik asteak, beneragarria, eta santua izango da; menpekoen lanikan batere ez dezute egingo beratan.

27. Eta eskeñiko diozute Jaunari oparia usai txit gozorako, bi txal beitaldetik, ari bat, eta zazpi arkume urtebeteko orbanikgabeak.

28. Eta beren eskeñtzetan iriñlora olioarekin oratuaren iru amarren txal bakoitza gatik, ariakgatik bi,

29. Arkumeak gatik amarrenaren amarrena, zeñak batean dirade zazpi arkume. Eta berebat

30. Barkaziorako illa dan akerra, betiko eskeñtza eta bere libazioz gañera.

31. Gauza guzti oiek eskeñiko dituzute orbanikan gabe beren libazioakin.

OGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Zazpigarren illaren lenbiziko eguna ere beneragarria, eta santua izango da zuentzat. Menpekoen lanikan batere ez dezute egingo beratan, zeren dan otsaren, eta tronpeten eguna.

2. Eta eskeñiko dezute oparia usai txitez gozorako Jaunarentzat, txal bat beitaldetik, ari bat, eta zazpi arkume urtebeteko orbanikgabeak.

3. Eta beren eskeñtzetan iriñlora olioarekin oratuz iru amarren, txal bakoitza gatik, bi amarren ariagatik,

4. Amarren bat arkumeagatik, zeñak batean dirade zazpi arkume,

5. Eta aker bat bekatua gatik, zeñ eskeñtzen dan erriaren barkaziorako,

6. Kalendetako eskeñtzaz gañera bere opariakin, eta betiko eskeñtzaz gañera oi diraden libazioakin. Zeremonia berekin eskeñiko dezute errea usai txit gozorako Jaunarentzat.

7. Zazpigarren ill onen amargarren eguna ere izango da zuentzat santua, eta beneragarria, eta atsekabetuko dituzute zuen animak, menpekoen lanikan batere ez dezute egingo beratan.

8. Eta eskeñiko diozute Jaunari oparia usai txit gozoan, txal bat beitaldetik, ari bat, zazpi arkume urtebeteko orbanikgabeak.

9. Eta beren eskeñtzetan iriñlora olio oratuaren iru amarren txal bakoitzagatik, amarrenaren bi ariagatik,

10. Amarrenaren amarrena arkume bakoitza gatik, zeñak batean diraden zazpi arkume,

11. Eta aker bat bekatua gatik, obena gatik barkaziorako eskeñiak izan oi diraden gauzak gabetanik, eta betiko oparian, beren doañ eta libazioakin.

12. Eta zazpigarren illaren amalaugarren egunean, zeñ izango dan zuentzat santua, eta beneragarria, mendekoen lanikan batere ez dezute egingo beratan, baizik zelebaturako diozute jai Jaunari zazpi egunean.



13. Eta eskeñiko dezute doña usai txit gozoan Jaunarentzat, beitaldetik amairu txal, bi ari, amalau bildots urte beteko orbanik gabeko,
14. Eta beren libazioetan iriñlora olio oratuaren iru amarren txal bakoitzagatik, zeñak batean dirade amairu txal, eta bi amarren ari bakoitza gatik, au da, ari bietatik bakoitza gatik.
15. Eta amarrenaren amarrena bildots bakoitza gatik, zeñak batean dirade amalau bildots.
16. Eta aker bat bekatua gatik, betiko eskeñtzari, eta doñ, eta bere libazioa gabetanik.
17. Bigarren egunean eskeñiko dituzute beitaldetikan amabi txal, bi ari, amalau bildots urtebeteko orbanik gabeko.
18. Eta zelebratuko dituzute zeremonien araura bakoitzaren eskeñtzak, eta libazioak txaletan, eta arietan, eta bildotsetan,
19. Eta aker bat bekatua gatik, eskeñtza betiko, eta doñ, eta bere libazioaz gañera.
20. Irugarren egunean eskeñiko dituzute amaika txal, bi ari, amalau bildots urtebeteko orbanik gabeko.
21. Eta zelebratuko dituzute zeremonien araura bakoitzaren eskeñtzak, eta libazioak txaletan, eta arietan, eta bildotsetan:
22. Eta aker bat bekatua gatik, betiko eskeñtza, eta doñ, eta bere libazioaz gañera.
23. Laugarren egunean eskeñiko dituzute amar txal, bi ari, amalau bildots urtebeteko orbanik gabeko.
24. Eta zelebratuko dituzute zeremonien araura bakoitzaren eskeñtzak, eta libazioak txaletan, arietan, eta bildotsetan.
25. Eta aker bat bekatua gatik, betiko eskeñtza, eta doñ eta bere libazioaz gañera.
26. Bosgarren egunean eskeñiko dituzute bederatzi txal, bi ari, amalau bildots urtebeteko orbanik gabeko.
27. Eta zelebratuko dituzute zeremonien araura bakoitzaren eskeñtzak, eta libazioak, txaletan, eta arietan, eta bildotsetan:
28. Eta aker bat bekatua gatik, betiko eskeñtzaz, eta doñaz, eta bere libazioaz gañera.
29. Seigarren egunean eskeñiko dituzute zortzi txal, bi ari, amalau bildots urtebeteko orbanik gabeko.
30. Eta zelebratuko dituzute zeremonien araura bakoitzaren eskeñtzak, eta libazioak txaletan, eta arietan, eta bildotsetan.
31. Eta aker bat bekatua gatik, betiko eskeñtzaz, eta doñaz, eta bere libazioaz gañera.

32. Zazpigarren egunean eskeñiko dituzute zazpi txal, eta bi ari, amalau bildots urtebeteko orbanik gabeko.

33. Eta zelebratuko dituzute zeremonien araura bakoitzaren eskeñtzak, eta libazioak txaletan, eta arietan, eta bildotsetan.

34. Eta aker bat bekatua gatik betiko eskeñtzaz, eta doñaz, eta bere libazioaz gañera.

35. Zortzigarren egunean, zeñ dan ospetsuena, ez dezute egingo menpekoen lanikan batere.

36. Eskeñtzen dezutela doñean usai txit gozorako Jaunarentzat txal bat, ari bat, zazpi bildots urtebeteko orbanik gabeko.

37. Eta zelebratuko dituzute zeremonien araura bakoitzaren eskeñtzak eta libazioak txaletan, eta arietan eta bildotsetan.

38. Eta aker bat bekatua gatik, betiko eskeñtzaz, eta doñaz, eta bere libazioaz gañera.

39. Oiek eskeñiko diozkazute Jaunari zuen jai andietan: boto eta borondatezko eskeñtzaz gañera, holokaustoetan, eta doñetan, eta libazioetan, eta opari paketsuetan.

OGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta kontatu ziozkaten Moisesek Israelko semeai Jaunak agindu ziozkan gauza guztiak.

2. Eta itz egin zioten Israelko semeen tribuen prinzipai: au da Jaunak agindu duen itza:

3. Baldin gizonen batek egingo balio botoa Jaunari, edo lotuko balitza juramentoarekin, ez du egingo alferra bere itza, baizik kunplituko du eskeñi zuen guztia.

4. Emakumeren batek eskeñiko balu zerbait, eta lotuko balitza juramentoarekin, bere aitaren etxean dagoala, eta oraindikan aurren edadean: baldin jakingo balu aitak egin duen botoa, eta juramentoa zeñarekin lotu duen kira, emtpa ceáreqiom ñpti diem bere anima, eta ixillik egongo balitza, geldituko da botoaz lotua:

5. Eskeñi, eta juramentu egin duen guztia, egiteaz kunplituko du.

6. Baña baldin adituta bereala, aita jarkiko balitza: bere botoak eta juramentuak izango dirade utsak, eta ez da egongo eskeñtzarekin lotua, aita jarki zaiolako.

7. Baldin senarra balu, eta eskeñiko balu zerbait, eta bein bere aotik itza aterarik lotuko balu bere anima juramentoarekin:

8. Senarrak aditzen dion egunean, jarkiko ez balitzaio, botoaz lotua geldituko da, eta kunplituko du eskeñi zuen guztia.



9. Baña baldin adituta bereala jarkiko balitzaio, eta utsean utziko balitu bere eskeñtzak, eta itzak zefiak lotu zuen bere anima, urrikariz begiratuko dio Jaunak.

10. Andre alargunak, eta utziak, kunplituko dute eskeñtzen duten guzia.

11. Emazte bat senarraren etxean lotuko baldin balitza botoz, eta juramentoz,

12. Senarrak adituko baldin balio, eta ixillik egongo balitza, eta ez balitzaio eskeñtzari jarkiko, kunplituko du eskeñtzen duen guzia.

13. Baña baldin bereala jarkiko balitza, ez du izango eskeñtza kunplitu bearrikan, senarra jarki zaiolako, eta Jaunak urrikariz begiratuko dio.

14. Baldin boto egingo balu, eta juramentoarekin lotuko balitza nekatzeko bere anima baruarekin, edo utziaz beste gauzaren batzuek, senarraren eskuan egongo da egitea, edo ez egitea.

15. Baña baldin aditurik senarrak ixillik egongo baldin balitza, eta atzeratuko balu beste egunerako epaia: kunplitu du eskeñi eta agindu zuen guztia: zeren adituta bereala ixillik egon zan.

16. Baña baldin jarkiko balitza aditutezkero, bere gañean eramango du aren gaiztakeria.

17. Oiek dirade Jaunak Moisesi agindu ziozkan legeak senarraren, eta emaztearen artean, aitaren eta oraindikan aurren edadean dagoan, edo bere aitaren etxean bizi dan alabaren artean.

OGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Artu ezazu benganza aurrena, Madiantarrak Israelko semeai egin diotena gatik, eta gero joango zera biltzera zure erriarekin.

3. Eta bereala esan zuen Moisesek: Armatu itzatzute zuetatik batzuek ateratzeko gudara, egiztatu ditzaten Jaunaren bengantza Madiantarrakgan.

4. Autatu bediz milla gizon Israelko tribu bakoitzetik bidalduak izateko gudara.

5. Eta eman zituzten milla, tribu bakoitzetikan, au da, amabi milla gertuak gudarako.

6. Zeñak bidaldu zituen Moisesek Finees Eleazar apaizaren semearekin, eta eman ziozkan ontzi santuak, eta tronpetak jotzeko.

7. Eta aririk gudan Madiantarren kontra, eta oiek garaituak izanik, il zituzten gizaseme guztiak,

8. Eta beren erregeak Ebi eta Rezem, eta Sur, eta Rebe, erreñuko bost prinzipeak, ill ere zuten ezpataz Balaam Beorren semea.

9. Eta artu zituzten beren emazteak, eta aurrak, eta abere guztiak, eta tresna guztiak. Arrapatu zuten iduki al zuten guztia:

10. Bai erriak, eta bai erritxoak, eta gazteluak garrak desegin zituen.

11. Eta eraman zuten arrapatua, eta atzitu zituzten gauza guztiak bai gizonetatik, eta bai abereetatik,

12. Eta ekarri zituzten Moisesgana, eta Eleazar apaizagana, eta Israelko semeen talde guztia gana. Eta gañerako usubearrak eraman zituzten etzauntzetara Moabko landetan Jordanen aldean Jerikoren aurkez.

13. Eta atera ziraden Moises, eta Eleazar apaiza, eta Sinagogako prinzipte guztiak beren bidera etzauntzetatik kanpora.

14. Eta aserreturik Moises gudatik etorri ziraden ejerzituko prinzipte, tribuno, eta zenturionen kontra,

15. Esan zuen: Zergatik bizirik utzi dituzte emakumeak?

16. Ez al dirade oiek Balaamen asmoz engañatu zituztenak Israelko semeak, eta autsi erazi zituzten Jaunaren fedea Fagorren bekatua gatik, eta argatik erria ere zauritua izan zan?

17. Ill itzatzute bada dauden gizaseme guztiak, baita aurrak ere, eta lepoak ebaki zaiezute naasian gizasemeak ezagutu dituzten emakumeai.

18. Baña gorde itzatzute zuentzat neskatxak, eta emakume donzella guztiak,

19. Eta egon zaitezte etzauntzetatik kanpora zazpi egunean. Iltzen duena gizonen bat, edo illari ukitzen diona, garbitua izango da irugarren, eta zazpigarren egunean.

20. Eta arrapatu duen guztitik, naiz izan dedilla soñekoa, naiz ontzia, eta usubearrerako prestatutako gauzaren bat, larruetatik, auntzen illeetatik, eta zuretik, garbitua izango da.

21. Eleazar apaizak ere onela itz egin zioten ejerzituko gizon, gudan egin zutenai. Au da Jaunak Moisesi eman zion legeko agintea.

22. Urrea, eta zillarra, eta kobrea, eta burnia, eta beruna, eta estañua,

23. Eta garretatikan irago al dezakean guztia, suaz garbitua izango da. Baña sua sufritu ezin duen guztia garbitasuneko urarekin santutua izango da,

24. Eta garbituko dituzte zuen soñekoak zazpigarren egunean, eta garbituta sartuko zerate gero etzauntzetan.

25. Esan ere zion Jaunak Moisesi:

26. Ar zazute arrapatuak izan diraden gauzen zenbata, gizonagandik abereraño, zuk, eta Eleazar apaizak, eta erriko prinzipeak,



27. Eta partituko dezu berdin arrapatua gudatu zutenen, eta gerrara atera ziradenen artean, eta gañerako talde guziaren artean.
28. Eta berezituko dezu Jaunarentzat zati bat, gudatu zuten, eta gerran egon ziradenetik, bosteunetik anima bat, bai gizonetatik, bai beietatik, eta astoetatik, eta ardietatik,
29. Eta emango diozu Eleazar apaizari, zeren Jaunaren lenbiziak dirade.
30. Berebat Israelko semeen beste zati erditikan artuko dezu berrogeita amarretik buru bat gizonena, eta idiena, eta astoena, eta ardiena, abere guziena, eta emango diozkazu, Jaunaren tabernakuloko zaitokietan beillan dauden Lebitai,
31. Eta egin zuten Moisesek eta Eleazarrek, Jaunak agindu zioten bezala.
32. Izan zan bada ejerzituak arrapatua, seireun eta irurogeita amabost milla ardi.
33. Irurogeita amabi milla idi.
34. Irurogeita bat milla asto.
35. Emakumeki, gizasemerik ezagutu ez zutenak, ogeita amabi milla.
36. Eta emana izan zaioten erdia gudan egon ziradenai, irureun eta ogeita amasei milla, eta bosteun.
37. Zeñatetik kontatuak izan ziraden Jaunarentzat seireun eta irurogeita amabost milla ardi.
38. Eta ogeita amasei milla idietatik, irurogeita amabi idi.
39. Ogeita amar milla, eta bosteun astotatik, irurogeita bat asto,
40. Amasei milla gizonen animatatik, tokatu zaiozkan Jaunari, ogeita amabi anima.
41. Eta eman ziozkan Moisesek Jaunaren lenbizi guziak Eleazar apaizari, agindua izan zaion bezala,
42. Israelko semeen zati erdi, gudan egon ziradenentzat berezitu zue-
netik.
43. Gañerako taldeari tokatu zaion zati erditikan berriz, au da, iru-
reun, eta ogeita amazapi milla, eta bosteun ardietatik,
44. Eta ogeita amasei milla idietatik,
45. Eta ogeita amar milla, eta bosteun astotatik (sic),
46. Eta amasei milla gizonetatik,
47. Artu zituen Moisesek berrogeita amarretik buru bat, eta eman ziozkaten Jaunaren tabernakuloan beillan zeuden Lebitai, Jaunak agindu zuten bezala.

48. Eta joan ziradenean Moisesgana ejerzituko prinzipeak, eta tribu-
noak, eta zenturionak, esan zuten:
49. Guk zure serbitzariak kontatu degu gure mendean iduki degun gudarien zenbata, eta bat bakarra ere ez da faltatu.
50. Argatik gutariko bakoitzak eskeñtzen diogu Jaunari doañean, arrapatu degunean arkitu al izan degun urrea, oñapaingarriak, eta esku-
turkiak, eta erraztunak, eta aleztarriak, erregutu dagiozun gugatik Jaunari.
51. Eta artu zuten Moisesek eta Eleazar apaizak urre guztia mot
askotan,
52. Pisuan amasei milla zazpireun, eta berrogeita amar siklo, tribuno,
eta zenturionak gandik.
53. Zeren bakoitzak arrapatua, berea zan,
54. Eta artuta sartu zuten testimonioko tabernakuloan Israelko
semeen oroipengarriz Jaunaren aurrean.

OGEITA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta Ruben, eta Gaden semeak zituzten asko abere, eta ziraden zamari orni neurrigabeko baten jabe. Eta ikusirik Jazer, eta Galaadko lurrak ziradela onak abereak bazkatzeko,
2. Etorri ziraden Moises, eta Eleazar apaiz, eta taldearen prinzipeak gana, eta esan zuten:
3. Ataroth, eta Dibon, eta Jazer, eta Nemra, Hesebon, eta Elkale, eta Saban, eta Nebo, eta Beon,
4. Jaunak Israelko semeen aurrean zauritu zuen lurra, da toki txit ugaria abereak bazkatzeko, eta guk zure serbitzariok ditugu zamari txit asko:
5. Eta erregututzen dizugu, arkitu baldin badegu grazia zure aurrean, eman zatzakigula guri zure serbitzariak, izan gaitezen beraren jabe, eta ez zatzakigula irago erazi Jordana.
6. Zeñai erantzun zioten Moisesek: Zuen anaiak joango bai al dirade gudara, eta zuek egongo bai al zerate emen eserita?
7. Zergatik beldurtzen dituzute Israelko semeak, ausartatu ez ditezen iragotzen, Jaunak emango dioten lurrera?
8. Ez al zuten ala egin zuen gurasoak, bidaldu nituenean Kades bar-
netikan lurra ezagutuzera?
9. Eta etorririk Mordoaren ibarreraño, ibillirik lur guzitikan, nahasi zuten Israelko semeen biotza, sartu etzitezten, Jaunak eman zitzaiozkaten mugetan.
10. Zeñ aserreturik juramentu egin zuen, esaten zuela:



11. Ez dute ikusiko, Ejiptotikan atera ziraden gizon ogei urtetik gora-koak, Abraham, Isaak, eta Jakobi juramentuarekin eskeñia diotedan lurra; ez didaten ezkerro jarraitu nai izan,

12. Salbu Kaleb, Jefone Zenezarren semeak, eta Josue Nunen semeak: oiek egin zuten nere borondatea.

13. Eta aserreturik Jauna Israelen kontra, eraman zuen txirkuan eremitikan berrogei urtean, aliketa aitu zan bitartean, bere aurrean gaizkia egin zuen giza leñu guzia.

14. Eta ona non, esan zuen, zuek jaiki zeraten zuen gurasoen tokian, gizon bekatarien jatorri, eta ikasleak, azitzeko Jaunaren aserrea Israelen kontra.

15. Eta ez baldin badiozute jarraitu nai, utziko du erria eremuan, eta zuek gatik illak izango dirade guziak.

16. Baña berak alderaturik beragana esan zuten: Egingo ditugu tegiak ardientzat, eta estalbeak abereentzat, eta gure aurrentzat erri murrutuak;

17. Gu berriz armatuta, eta gerriak lotuta joango gera gudara Israelko semeen aurretikan, aliketa sartu ditzagun bitartean beren tokietan. Gure aurrak, eta iduki al dezakegun guztia, egongo dirade erri murrutuetan, erritarren zelatadak gatik.

18. Ez gera itzuliko gure etxeetara, aliketa Israelko semeak beren primazaren jabe egiñik gelditu ditezen bitartean,

19. Eta ez degu ezer eskatuko Jordango beste aldamenean, zeren badegu gure jabetasuna bere aldamen sortaldekoan.

20. Zeñai esan zioten Moisesek: Baldin egiten badezute eskeñitzen dezutena, zoazte Jaunaren aurrean gertutuak gudarako,

21. Eta gizon gudari guziak irago beza Jordan armatuta, aliketa Jaunak desegin ditzan bitartean bere etsaiak,

22. Eta lur guzia bere mendean jarri artean: orduan izango zerate obenik gabeak Jaunagan, eta Israelgan, eta iritxiko dituzute nai dituzuten erriak Jaunaren aurrean.

23. Baña baldin egingo ez bazendute esaten dezutena ez du iñork dudarikan, bekatu egiten dezute Jaunaren kontra, eta jakin ezazute, zuen bekatua ez dala geldituko kastigurikan gabe.

24. Egin itzatzute bada erriak zuen aurrentzat, eta tokiak, eta estalpeak ardientzat, eta abereentzat, eta egin ezazute eskeñi dezutena.

25. Eta Gaden, eta Rubenen semeak esan zioten Moisesi: Zure serbitzariak gera, egingo degu gure Jaunak agintzen diguna.

26. Utziko ditugu Galaadko errietan gure aurrak, eta emazteak, eta abereak, eta Zamariak.

27. Eta gu zure serbitzariok gertuturik guziok joango gera gudara, zuk Jauna esaten dezun bezala.

28. Agindu zioten bada Moisesek Eleazar apaizari, eta Josue Nunen semeari, eta familien buruai Israelko etxadietan, eta esan zioten:

29. Baldin Gaden semeak, eta Rubenen semeak iragoko balute zuekin Jordana, guztiak armatuta gudarako Jaunaren aurrean, eta zuen mendean jarriko bazendukete lurra, eman zaiezute Galaad berentzat.

30. Baña baldin ez balute nai irago armatuta zuekin Kanaango lurrera, idukiko dituzte zuen artean tokiak bizitzeko.

31. Eta erantzun zuten Gaden semeak, eta Rubenen semeak: Jaunak itz egin dioten bezela bere serbitzariak, ala egingo degu.

32. Gerok armatuta joango gera Jaunaren aurrean Kanaango lurrera, eta aitortzen degu, artu degula onezkero jabetasuna Jordanen beste aldamenean.

33. Eman ziozkaten bada Moisesek Gaden, eta Rubenen semeak, eta Manasesen Joseren semearen tribu erdiari, Sehon Amortar erregearen erreñua, eta Og Basango erregearen erreñua, eta beren lurra beren errikin inguruan.

34. Eta ala Gaden semeak egin zituzten, Dibon, eta Ataroth, eta Aroer,

35. Eta Etroth, eta Sophan, eta Jazer, eta Jegbaa,

36. Eta Bethnemra, eta Betharan, erri murrutuak, eta tegiak beren abereentzat.

37. Rubenen semeak berriz egin zituzten Hesebon, Eleale, eta Kariathaim,

38. Eta Nabo, eta Baalmeon, eta Sabama, aldaturik izenak, jarririk izenak egin zituzten erriak.

39. Eta Makirren Manasesen semearen semeak irago ziraden Galaadera, eta desegin zuten, illik bertan bizitu zan Amortarra.

40. Eman zion bada Moisesek Galaadko lurra Makir Manasesen semeari, zeñ bizitu izan zan an,

41. Eta Jair Manasesen semea joan zan, eta gelditu zan bere errietan, zeñai deitu zioten Habeth Jair, au da, Jairren erriak.

42. Nobe ere joan zan, eta artu zuen Txanath bere errixarrakin, eta deitu zion bere izenaz Nobe.

OGETA AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Oiek dirade Israelko semeen, Ejiptotikan beren taldeetan Moisesen, eta Aaronen agindura atera ziradenen egotaldiak.



2. Zeñak eskribatu zituen Moisesek, Jaunaren aginduz aldatzen zituzten etzauntzen tokien araura,
3. Aterarik bada Ramessetik Israelko semeak lendabiziko illaren amabosgarren egunean, Paskoako egunaren biaramonean, esku sendoarenkin ijito guziak ikusten zutela,
4. Eta ari ziradela obiatzen seme lenbizisortu Jaunak zauritu zituenak (zeren beren jaungoikoai ere bengatu ziozkaten)
5. Jarri zituzten etzauntzak Sokothan.
6. Eta Sokothikan etorri ziraden Ethamera, zeñ dagoan eremuaren atzeneko mugetan.
7. Aterarik andikan etorri ziraden Fihahiroten aurkera, zeñ dagoan Beelsefona begira, eta jarri zituzten etzauntzak Magdaloren aurrean.
8. Eta joanik Fihahirotik irago ziraden itsasoaren erditikan eremura, eta ibilirik iru egunean Ethamgo eremutikan, jarri zituzten etzauntzak Maran.
9. Eta aterarik Maratikan, etorri ziraden Elimera, non zeuden amabi iturri urezko, eta irurogeita amar palma, eta an jarri zituzten etzauntzak.
10. Eta andikan ere aterarik, jarri zituzten etzauntzak itsas Gorriaren bazterrean. Eta joanik itsas Gorritik,
11. Jarri zituzten etzauntzak Singo eremuan.
12. Andikan aterarik, etorri ziraden Daphkara.
13. Eta joanik Daphkatikan, jarri zituzten etzauntzak Alusen.
14. Eta aterarik Alustikan, jarri zituzten etzauntzak Rafidimen, non erriari aitu zitzaion ura edateko.
15. Eta joanik Rafidimdikan, jarri zituzten etzauntzak Sinaiko eremuan.
16. Baitaere aterarik Sinaiko eremutikan, etorri ziraden guraetako Obietara.
17. eta joanik guraetako Obietatik, jarri zituzten etzauntzak Haserot-hen.
18. Eta Haserohikan etorri ziraden Rethmara.
19. Eta joanik Rethmatik, jarri zituzten etzauntzak Remmonpharsen.
20. Nondikan aterarik, etorri ziraden Lebna.
21. Lebnatikan, jarri zituzten etzauntzak Ressen.
22. Eta aterarik Ressatikan, etorri ziraden Zeelathara.
23. Nondik joanik, jarri zituzten etzauntzak Sepherko mendian.
24. Aterarik Sepherko menditikan, etorri ziraden Aradara.
25. Andikan joatzen ziradela, jarri zituzten etzauntzak Mazelothan.

26. Eta joanik Mazelothikan, etorri ziraden Tahathera.
27. Tahathikan, jarri zituzten etzauntzak Tharen.
28. Andikan aterarik, jarri zituzten etzauntzak Methkan.
29. Eta Methkatik, jarri zituzten etzauntzak Hesmonan.
30. Eta joanik Hesmonatik, etorri ziraden Moserothera.
31. Eta Moserohikan, jarri zituzten etzauntzak Benejaakanen.
32. Eta joanik Benejaakandik, etorri ziraden Gadgadko mendira.
33. Andik joanik, jarri zituzten etzauntzak Jetebathan.
34. Eta Jetebathatik etorri ziraden Hebronara.
35. Eta aterarik Hebronatik, jarri zituzten etzauntzak Asiongaberren.
36. Andikan joanik, etorri ziraden Singo eremura, au da Kades.
37. Eta aterarik Kadestikan, jarri zituzten etzauntzak Horko mendian, Edomgo luraren atzeneko mugetan.
38. Eta igo zan Aaron apaiza Horko mendira Jaunaren aginduz, eta an il zan Israelko semeen irteeratik Ejiptotikan, berrogeigarren urtean, bosgarren illean, illaren lenbiziko egunean,
39. Eun, eta ogeita iru urtekoa zala.
40. Eta Arad Kanaango errege, egoean bizi zanak aditu zuen, Israelko semeak etorri ziradela Kanaango lurrera.
41. Eta ateratzen ziradela Horko menditikan, jarri zituzten etzauntzak Salmonan.
42. Andik aterarik, etorri ziraden Phunonera.
43. Eta joaten ziradela Phunondik jarri zituzten etzauntzak Obothen.
44. Eta Obothikan etorri ziraden ijeabarimera, zeñ dagoan Moabtarren mugetan.
45. Eta joaten ziradela Yjeabarimdikan, jarri zituzten dendak Dibongaden.
46. Andikan aterarik, jarri zituzten etzauntzak Helmondeblathaimen.
47. Eta aterarik Helmondeblathaimdikan, etorri ziraden Abarimgo mendietara, Naboren aurkez.
48. Eta joanik Abarimgo mendietatik, irago ziraden Moabko landetara, Jordanen gañean Jerikoen aurkez.
49. Eta an jarri zituzten etzauntzak Betsimothikan Abelsatimeraño, Moabtarren tokirik lauenetan,
50. Non itz egin zion Jaunak Moisesi:
51. Agindu zaiezu Israelko semeai, eta esan zaiezu: iragotzen dezute-nean Jordana, Kanaango lurrean sartzen zeratela,
52. Desegin itzatzute lur artan bizi diraden guziak, autsi itzatzute aldareak, puskatu talluak, eta arrasatu altura guziak.



53. Garbitzen dezutela lurra, bertan bizitzeko. Zeren nik egin zaituztet beraren jabe.

54. Zeñ partituko dezute suertez. Geiagoai emango diezute zabala goa, eta gutxiagoai estuagoa. Bakoitzari nola irtetzen dion suerteak, ala emango zaio soroa. Tribu, eta familietatik partituko da lurra.

55. Baña baldin ez bazinduzte ill nai lur artan bizi diradenak. Gelditzen diradenak izango dirade zuentzat iltzeak begietan, eta lanzak saietsetan bezela, eta zuen etsaiak izango dirade, zuek bizi zeraten lurrean.

56. Eta berai egitea erabaki nuen guzia, egingo dizutet zuei.

OGEITA AMALUGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi, esaten zuela:

2. Agindu zaiezu Israelko semeai, eta esango diezue: Sartzen zeratenean Kanaango lurrean, eta suertez bere jabe eginik gelditzen zeratenean, oiek izango dirade bere mugak.

3. Egoe aldea asiko da singo eremu, Edomen aldean dagoanetikan, eta idukiko ditu mugatzat sortalderontz itsaso txit gazia,

4. Zeñak ingurutuko dute egoe aldea Arrabioaren igoeratikan, alako moduan non, iragoko dirade Sennatikan, eta allegatuko dirade Egoetik Kadesbarneraño, nondik aterako dirade mugak erri batera izenez Adar, eta luzatuko dirade Asemonaraño.

5. Eta muga joango da inguruan Asemonatikan Ejiptoko errekarano, eta bukatuko da itsaso andiaren bazterrean.

6. Sartaldeko aldamera berriz asiko da itsaso anditik, eta bukatuko da itsaso hurarekin berarekin.

7. Eta Ifarraldetik asiko dirade mugak itsaso anditik, allegatzen diradela mendi txit goiraño,

8. Zeñagandik etorriko dirade Emathera Sedadako mugetaraño.

9. Eta joango dirade mugak Zefronaraño, eta Enango erriraño. Oiek izango dirade mugak Ifarreko aldamera.

10. Andikan izentatuko dirade mugak sartaldetik Enango erritik Sefamaraño.

11. Eta Sefamatik jatxiko dirade mugak Reblara Damningo iturriaren aurkez. Andikan allegatuko dirade Sortaldera Zenerethko itsasoraño.

12. Eta luzatuko dirade Jordaneraño, eta atzenean bukatuko dirade itsaso txit gazian. Lur onen jabe izango zerate beren mugakin inguruan.

13. Eta agindu zioten Moisesek Israelko semeai, esaten zuela: Au da suertez jabetuko zeraten lurra, eta zeñ agindu zuen Jaunak emana izan zekikietela bederatzi tribuai, eta tribu erdiari.

14. Zeren Rubenen semeen tribuak beren familiakin, eta Gaden semeen tribuak bere aideen zenbataren araura, eta Manassesen tribu erdiak,

15. Au da, bi tribu eta erdik, artu zuten bere tokamena Jordango beste aldamera Jerikoren aurkez sortalderontz.

16. Eta esan zion Jaunak Moisesi:

17. Oiek dirade zuei lurra partituko dizuten gizonen izenak: Eleazar apaiza, eta Josue Nunen semea,

18. Eta tribu bakoitzeko prinzipeatatik bat,

19. Zeñaen izenak dirade oiek: Judaren tributik Kaleb Jefoneren semea.

20. Simeonen tributik, Samuel Ammiuden semea.

21. Benjaminen tributik, Elidad Txaselonen semea.

22. Danen semeen tributik, Bokzi Jogliren semea.

23. Joseran semeetatik Manassesen tributik Hanniel Ephoen semea.

24. Efraimen tributik, Kamuel Sephthanen semea.

25. Zabulonen tributik, Elisaphan Pharnatxen semea.

26. Issatxarren tributik, Faltiel agintaria Ozanen semea.

27. Aserren tributik, Ahiud Salomiren semea.

28. Neptaliren tributik, Phedael Ammiuden semea.

29. Oiek dirade agindu ziotenak Jaunak, partitu zitzaietela Israelko semeai Kanaango lurra.



OGEITA AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Gauza oiek ere esan ziozkan Jaunak Moisesi Moabko landetan Jordanen gañean, Jerikoren aurkez:
2. Agindu zaiezu Israelko semeai, jabe diraden gauzetatik eman bitzaieztela Lebitai
3. Erriak bizitzeko, eta beren usak inguruan, berak errietan bizi ditzeten, eta usak izan ditzeten abere eta pistientzat.
4. Zeñak zabalduko dirade errietako murrueetatik kanpora milla pausu artean inguruan.
5. Sortalderontz izango dirade bi milla beso, eta egoerontz izango dirade orobat bi milla, eta sartalderontz begiratzen duen itsasorontz izango da neurri hura bera, eta arte berdiñean bukatuko da Ifar aldea, eta erriak egongo dirade erdian, eta kanpoan usak.
6. Eta Lebitai emango dieztezuten errietatik beretatik, sei egongo dirade berezituak igeslen laguntasunerako, iges egin dezan beretara, odola isuri duenak, eta oiek kontatu gabe, beste berrogeita bi erri,
7. Au da, guztitik berrogeita zortzi beren usakin.
8. Eta Israelko semeak berak jabe diranetatik emango dituzten erri oietatik, artuko dirade geiago, geiago dutenetatik, eta gutxiago, gutxiago dutenetatik. Bakoitzak emango diozkate erriak Lebitai bere soroaren neurriaren araura.
9. Esan zion Jaunak Moisesi:
10. Itz egin zaiezu Israelko semeai, eta esango diezu: iragotzen dezu-tenean Jordana Kanaango lurrerako,
11. Erabaki ezazute zeñ erri izan bear duten, igeslarien, boronderikan gabe odola isuri dutenen, gordelekutzat.
12. Zeñean arkitzen danean igestatua, illaren aideak ezin ilko du, aliketa agertu dedin bitartean taldearen aurrean, eta bere gauza juzgatua izan dedin artean.
13. Eta igeslarien gordelekurako berezitzen diraden errietatik beretatik
14. Iru egongo dirade Jordango beste aldamenean, eta iru Kanaango lurrean.
15. Naiz Israelko semeentzat, naiz arrotzentzat, eta bidaisarientzat, gorde dedin beretan naiezean odola isuri duena.
16. Baldin iñork zaurituko balu burniarekin, eta ilko balitza zauritua izan dana, gizoniltzearen obendun izango da, eta bera ere ilko da.
17. Arria botako baldin balu, eta zauritua ilko balitza, modu berean kastigatua izango da.

18. Ilko baldin balitza makillarekin zauritua, zaurigillearen odolarekin bengatua izango da.
19. Illaren aideak ilko du ilgillea, arrapatzen duenean bereala, ilko du.
20. Baldin iñork gorrotoz emango balio bultzada gizonari, edo botako balu zerbait bere gañera gaiztoz;
21. Edo izanik etsaia, joko balu eskuarekin, eta hura ilko balitza: jo duena izango da gizon illaren obendun. Illaren aideak, arkitzen duenean bereala, ilko du.
22. Baldin ustekabez, eta gorroto
23. Eta etsaitasunikan gabe oietatiko gauzaren bat egingo balu,
24. Eta ziurtatua izango balitza au erriak aditzen duela, eta odolaren ezbai au izango balitza disputatua ilgillearen, eta aidearen artean,
25. Errugabea izango da libratua bengatzallearen eskutik, eta erabakiaz izango da itzulia igesi sartu zan errira, eta an egongo da, aliketa il dedin artean apaiz nagusi, olio santuarekin untatua izan zana.
26. Baldin ilgillea egonik erbestetuentzat izentaturik dauden errietako mugetatik kanpora
27. Arkitua izango balitza, eta odolaren bengatzallea danak illa, izango da obengabe iltzen duena.
28. Zeren igesleak egon bear zuen errian Aita Santua ill artean. Baña hura ill ezker, eraldea itzuliko da bere lurrera.
29. Gauza oiek betikoak izango dirade, eta gordeko dirade legea bezala zuen bizileku guztietan.
30. Ilgillea kastigatua izango da lekukoen esanera; ez da iñor kondematua izango lekuko baten esanera.
31. Ez dezute artuko ordañik, odolaren obendun dan huragandik, baizik bera ere bereala ilko da.
32. Erbestetuak, eta igeslak iñolaere ezin itzuliko dirade beren errietara Aita Santua ill artean.
33. Ez ezazute loitu zuek bizi zeraten lurra, zeñ zikintzen dan obengabeen odolarekin: eta ezin bestela garbitu lezake, baizik besteren odola isuri duenaren beraren odolarekin.
34. Eta onela garbitua izango da zuen lurra, ni zuen artean nagoala. Zeren ni naiz, Israelko semeen artean bizi naizan Jauna.

OGEITA AMASEIGARREN KAPITULUA

1. eta alderatu ziraden Galaaden Matxirren semearen, Manasesen semearen Joseran semeen jatorrikoaren familien buruak, eta itz egin zioten Moisesi Israelko prinzipioen aurrean, eta esan zuten:



2. Zuri gure jauna zeran orri agindu dizu Jaunak, suertez partitu ziñietekeala lurra Israelko semeai, eta Salphaad gure anaiaren alabai eman ziñietekeala aitari zegokion lurra.

3. Zeñak artuko balituzte emaztetzat beste tribu bateko gizonak, jarraituko diote beren lurren jabetasunak, eta aldaturik beste tribu batera, gutxitua izango da gure sorotik.

4. Eta ala gertatuko da, allegatzen danean jubileoa, au da, barkazio-ko berrogeita amargarren urtea, naasiko da suerteen partituera, eta batzuenana dana iragoko da besteakgana.

5. Erantzun zioten Moisesek Israelko semeai, eta Jaunak agindurik, esan zuen: Ongi itz egin du Joseran semeen etxadiak.

6. Eta Salphaaden alaben gañeko lege au Jaunak publikatua da: Ezkondu bitez nai dituztenakin, baña bakarrik beren etxadiko gizonakin.

7. Nahasi ez dedin Israelko semeen soroa etxaditik etxadira. Zeren gizon guztiak artuko dituzte beren etxadi, eta aideetako emazteak.

8. Eta emakume guztiak artuko dituzte senarrak beren etxaditik: soroa gelditu dedin familietan.

9. Eta ez bitez naasi elkarrekin etxadiak, baizik alako moduan egon bitez

10. Jaunak berezituak izan diraden bezela. Eta Salphaaden alabak egin zuten agindua izan zitzaizoten bezela.

11. Eta ezkondu ziraden Maala, eta Thersa, eta Hegla, eta Melka, eta Noa beren osabaren semeakin.

12. Manassesen, Joseran semea izan zanaren familiakoakin: eta berai emana izan zitzaizoten soroen jabetasuna, gelditu zan beren aitaren etxadi eta familian.

13. Oiek dirade, Jaunak Moisesen eskuz Israelko semeai agindu ziozkaten aginteak, eta erabakiak, Moabko landetan Jordanen gañean Jerikoren aurkez.

DEUTERONOMIOKO LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Oiek dirade Moisesek Israel guztiari esan ziozkan itzak Jordango beste aldamenean eremuko landan, itsaso gorriaren aurrean, Pharan, eta Thopfel, eta Laban, eta Haseroth artean, non dagoan urre txit asko:

2. Amabi egutaldi Horebtikan Seir mendiko bidetik Kadesbarne-
raño.

3. Berrogeigarren urtean, amaikagarren illean, illaren lenbiziko egu-
nean esan ziozkaten Moisesek Israelko semeai, Jaunak berai esateko agin-
du ziozkan gauza guztiak.

4. Zauritu zuen ezkerro Sehon Amortarren errege, Hesebonen bizitu
zana, eta Og Basango errege Astarothen, eta Edrain bizitu zana,

5. Jordango beste aldamenean Moabko lurrean. Eta asi zan Moises
azaldatzen legea, eta esaten:

6. Gure Jaun Jainkoak itz egin zigun Horeben, esaten zuela: Ask
dezute mendi onetan egon zeraten denbora,

7. Itzuli zaitetze, eta atozte Amorreoan mendira, eta aldean dituen
beste toki guzietara, landak, eta mendiak, eta toki sakonak Egoerontz, eta
itsasoko erriberaren aldean, Kanaantarren eta Libanoko lurra, Eufrates
ibai andiraño.

8. Begira, esan zuen, eman dizutedala, sartu zaitetze eta egin zaitetz
te beraren jabe, lur bat, zeñgatik juramentu egin zioten Jaunak zuen gura-
so Abraham, Isaak, eta Jakobi, emango ziotela berai, eta beren jatorriari
beren ondoren.

9. Eta esan nizuten denbora artan:

10. Nik bakarrik ezin dizazuteket sufritu, zeren zuen Jaun Jainkoak
ugaritu zaituzte, eta orain zerate txit asko, zeruko izarrak bezela.

11. (Zuen gurasoen Jaun Jainkoak eratxeki bitzaiozka zenbat oni asko
milla, eta bedeikatu zaitzatela esan zuen bezela.)

12. Nik bakarrik ezin nezake eraman zuen lanen eta ezpaiten pisua.

13. Ekarri itzatzute zuen artetikan gizon jakintsuak eta adituak, eta
zeñaen biziera ontzat daukaten zuen etxadiak, jarri ditzatzutedan gialari-
tzat.

14. Orduan esan ziñidaten: Ona da egin nai dezun gauza.



15. eta artu nituen zuen etxadietatik gizon jakitsuak, eta odolgarbi-koak, eta jarri nituen prinzipa, eta tribunotzat, eta eunen, eta berrogeita amarren, eta amarren burutzat erakutsi zitzazkizuteen gauza guztiak.

16. Eta agindu nien, esaten nuela: Aditu itzatzute, eta juzgatu ezazu-te bide dana, naiz izan dedilla hura erritarra, naiz arrotza.

17. Ez da izango personeren distinziorik batere, era berean adituko dezute txikia, zeñ andia, ez dezute ere personaren naikunderik idukiko, zeren erabakia Jaungoikoarena da. Baña baldin zerbait gaitza irudituko balitzatzute, erakarri ezazute nigana, eta nik adituko det.

18. Eta agindu nituen egin bear zenduzten gauza guztiak.

19. Eta aterarik Horebtik, irago giñan eremu izigarri, eta txit andi, ikusi zendutenetik, Amortar mendiaren bidetik, agindu zigun bezela gure Jaun Jainkoak. Eta etorri giñanean Kadesbarnera,

20. Esan nizuten: Allegatu zerate Amortarren mendi, gure Jaun Jainkoak emango digunera.

21. Begiratu zaiozu, zure Jaun Jainkoak emango dizun lurrari, igo zaite, eta bere jabe egin zaite, gure Jaun Jainkoak zure gurasoai eskeñi zioten bezela, etzaite beldurdu, etzaitzala ere ezerk izitu.

22. Eta alderatu ziñaten nigana guziok, eta esan zenduten: Bidaldu ditzagun gizonak aztertzer lurra, eta adirazi ditzagula zeñ bidetikan igo bear geran, eta zeñ erritara joango geran.

23. Eta nola ongi iruditu zitzadan izketa, bidaldu nituen zuetatik amabi gizon, etxadi bakoitzetik bat.

24. Zeñak aterarik, eta igorik mendietara, allegatu ziran Mordoaren ibarrera, eta azterturik lurra,

25. Artzen zituztela bere frutuetatik, erakusteko bere ugaritasuna, ekarri zituzten gugana, eta esan zuten: Ona da, gure Jaun Jainkoak emango digun lurra.

26. Eta etziñaten igo nai, baizik sinisgorrak gure Jaun Jainkoaren itzera,

27. Murmuratu zenduten zuen bizitokietan, eta esan zenduten: Gorrotatzen gaitu Jaunak, eta argatik atera gaitu Ejiptoko lurretik, jartze-ko gu Amorreen eskuan, eta desegiteko.

28. Nora igoko gera? Mandatariak ikaratu dute gure biotza, esaten dutela: Txit andia da dagoan taldea, eta luzeera goratuagokoa gurea baño, erriak dirade andiak, eta zeruraño murrutuak, ikusi ditugu an Enazimen semeak.

29. Eta esan nizuten: Etzaitzete beldur izan, eta ez ezazute ere beren beldurrik iduki,

30. Jaun Jainko, zuen gialaria dana, bera gudatu da zuekgatik, egin zuen bezela Ejipton, guztiak ikusten zutela.

31. Eta eremuan (zuk ikusi zenduen) eraman zinduen zure Jaun Jainkoak, gizon batek bere seme txikitxoaren eraman oi duen bezela, ibilli ziñan bide guzitik, aliketa allegatu ziñaten bitartean toki onetara.

32. Eta alaere etziñioten sinistu zuen Jaun Jainkoari.

33. Zeñ joan zan zuen aurretik bidean, eta markatu zuen etzauntzak jarri bear zenduzten tokia, gauaz erakusten zizutela bidea suarekin, eta egunaz odeizko abe batekin.

34. Eta aditu zuenean Jaunak zuen itzen boza aserreturik juramentu egin, eta esan zuen:

35. Jatorri txit gaizto onen gizonetatik batek ere ez du ikusiko, zuen gurasoai juramentuarekin eskeñi nioten lur ona.

36. Salbu Kaleb Jephoneren semeak. Zeren berak ikusiko du, eta zapaldu zuen lurra emango diot berari, eta bere semeai, jarraitu ziolako Jaunari.

37. Eta ez da miraritzeko Jaunaren aserrea erriaganako, bada niri ere aserreturik Jauna zuek gatik, esan zidan: i ere ez aiz an sartuko,

38. Baizik Josue Nunen seme ire serbitzaria, hura sartuko dek ire lekuan. Eman zaiozka.. oni irakatzia eta sendatu ezak, eta berak suertean partituko zioak lurra Israeli.

39. Zuen aurrak, zeñgatik esan zenduten katubu eramanak izango ziradela, eta gaur onaren eta gaitzaren desberdintasuna ezagutzen ez duten semeak, oiek sartuko dirade, eta berai emango diet lurra, eta beraren jabe izango dirade.

40. Zuek berriz itzuli zaitezte, eta joan eremura itsaso gorriko bidetik.

41. Eta erantzun zidaten: Bekatu egin degu Jaunaren kontra: igoko gera, eta gudatu, Jaunak agindu duen bezela. Eta armatuta zinjoaztela (sic) mendira,

42. Esan zidan Jaunak: Esan zaiezu: Etzaitzete igo, eta ez ezazute ere gudatu, zeren ez nago zuekin, erori etzaitzeten zuen etsaien aurrean.

43. Esan nizuten, eta ez ninduzuten aditu, baizik jarkitzen ziñadela Jaunaren aginteari, eta anditurik arrokeriaz igo ziñaten mendira.

44. Argatik aterarik, mendietan bizi zan Amorreoak, eta irtenik bidera, persegitu zizuten, erleak persegitu oi dute bezela, eta erori ziñaden Seirtikan Hormaraño.

45. Eta itzulirik negar egiten zendutenean Jaunaren aurrean, etzinduten aditzen, eta etzien nai izan oben egin zuen bozari.



46. Argatik egon ziñaden geldirik Kadesbarnen denbora askoan.

BIGARREN KAPITULUA

1. Eta aterarik andikan etorri giñan itsaso gorrira daraman bidetik, Jaunak esan zidan bezela, eta ingurutu genduen Seir mendia denbora luzean.

2. Eta esan zidan Jaunak:

3. Ingururik asko eman diozute mendi oni, zoazte Ifarralderontz.

4. Eta agindu zaiozu erriari, esanaz: iragoko zerate zuen anaien Esaturen semeen, Seirren bizi diradenen mugetatikan, eta zuen beldur izango dirade.

5. Begiratu ezazute bada kontuz etzaitetzela mugitu beren kontra. Zeren ez dizutet emango beren lurretik, ezta oiñ baten aztarnak zapaldu lezaken adiña ere, zeren Esauri eman nion Seirko mendiaren jabetasuna.

6. Erosiko diozkazute bazka-orniak diruarekin, eta jango dituzute, ur eresia aterako dezute, eta edango dezute.

7. Zure Jaun Jainkoak bedeikatu zinduen zure eskuen lan guzian, ezagutu zuen zure bidea nola irago zenduen eremu andi au, berrogei urtean bizi zala zurekin, eta ez zatzu ezer faltatu.

8. Eta irago ginduenean Seirren bizi ziraden gure anaia Esaturen semeak, Elathko eta Asiongaberko landako bidetikan, etorri giñan Moabko eremura daraman bidera.

9. Eta esan zidan Jaunak: Ez ezazu gudatu Moabtarren kontra, eta etzaitte ere sartu berakin batallan, zeren ez dizut emango beren lurretik deusik ere, zeren eman diet Arren jabetasuna Lothen semeai.

10. Bertan lenbizi bizi ziradenak ziran Emimtarrek, erri andia ta sendoa, eta luzeera ain andikoa, non Enazimen jatorrikoa bezela.

11. Ziraden idukiak erraldoitzat, eta Enazimen semeen antzekoak. Atzanean Moabtarrek deitzen diote Emuntarrak.

12. Baña Seirren lenago bizi izan ziraden Hortarrak, zeñ izanik botatuak eta desegiñak, bizi izan ziraden Esaturen semeak, egin zuen bezela Israelek, Jaunak bere jabe izateko eman zion lurrean.

13. Jaikitzen giñala bada iragotzeko Zaredko erreka, etorri giñan bertara.

14. Eta irago genduan denbora ibiltzen Kadesbarnetik Zaredko erreka igarotegiraño, izan zan ogeita emezortzi urte, aitu zan bitartean etzauntzetako gizon gerrarien jatorri guztia, Jaunak juramentu egin zuen bezela.

15. Zeñaen eskua izan zan beren kontra, galdu zitezten etzauntzaren erdian.

16. Eta ill ziraden ezkerro gizon gudari guztiak,

17. Itz egin zidan Jaunak esaten zuela:

18. Zuk iragoko dituzu gaur Moabko mugak, Ar izena duen erri batera.

19. Eta allegatzen zeranean Ammonen semeen aldeetara, kontu ez dezazula gudatu beren kontra, eta etzaitte ere mugitu batallara, zeren ez dizut emango Ammonen semeen lurretik deusik ere, eman nielako Lothen semeai beraren jabetasuna.

20. Erraldoien lurtzat izan da idukia, eta bertan bizi izan ziraden anziña erraldoiak, zeñai Amontarrak deitzen dioten Zomzommim.

21. Erri andia eta ugaria, eta luzeera goratukoa, Enazin bezela, zeñak desegin zituen Jaunak beren aurrean, eta egin zuen bete zezatela lurra beren lekuan,

22. Egin zuen bezela Esaturen seme, Seirren bizi ziradenakin, desegiten zituela Hortarrak, eta ematen ziela beren lurra, zeñaen jabe diraden gaurko eguneraño.

23. Hebetarrak ere, bizi ziradenak Hazerimdik Gazaraño, bota zituzten Kappadozioak. Zeñak aterarik Kappadoziatik desegin zituzten, eta bizi izan ziraden beren lekuan.

24. Jaiki zaitetzte, eta irago ezazute Arnongo erreka, ona non jarri dedan zure eskuan Sehon Amortarra Hesebongo erregea, asi zaitte bada bere lurraren jabe izaten, eta sartu zaitte gudan berarekin.

25. Gaur asiko naiz ipintzen zure beldur eta izua, zeru guztiaren azpian bizi diraden errietan, aditurik zure izena beldurtu ditezen, eta ikaratu aurra egiten ari diraden emakumeen gisara, eta miña berakin jabetu dedin.

26. Bidaldu nituen bada mandatariak Kademothko eremutik Sehon Hesebongo erregeagana pakeko itzakin esanaz:

27. Iragoko gera zure lurretik, ibilliko gera bide agiritik, ez degu alderik egingo ez ezkerre, ez eskuiera.

28. Janariak saldu igutzituz bere prezioan, jan ditzagun, eman iguzu ura diruagatik, eta ala edango degu. Bakarrik dago eman iguzula iragobi-dea,

29. Egin zuten bezela Esaturen seme, Seirren bizi diradenak, eta Moabtar, Arren daudenak, aliketa allegatu gaitezen bitartean Jordanera, eta irago gaitezen bitartean gure Jaun Jainkoak emango digun lurrera.



30. Eta etzigun eman nai izan iragobidea Sehon Hesebongo erregeak, zeren zure Jaun Jainkoak gogortu zuen bere espiritua, eta setartu zuen bere biotza, jarria izan zedin zure eskuetan, orain dakutzun bezela.

31. Eta esan zidan Jaunak: Ona non asi naizan ematen zuri Sehon, eta bere lurra, asi zaitte bere jabe izaten.

32. Eta atera zitzagun bidera Sehon bere erri guziarekin gudatzera Jasan.

33. Eta eman zigun gure Jaun Jainkoak, eta desegin genduan bere semeakin eta bere erri guziarekin.

34. Eta artu giñituen denbora artan erri guztiak, illik bertan bizi ziradenak, gizasemeak eta emakumeak, eta aurrak. Ez ginduen beretan ezer utzi.

35. Arraparien mendera etorri ziraden abereak gabetanik, eta artu giñituen erriai kendutako gauzak,

36. Aroerdikan, zeñ dagoan Arnon errekaaren erriberaren gañean, ibarrean dagoan erria, Galaadraño. Etzan izan erririk, ez iririk gure eskue-tatik iges zuenik, guziak eman zizkigun gure Jaun Jainkoak.

37. Ammonen semeen lurra gabetanik, zeñara ez giñan allegatu, eta Jebok errekaaren aldean daudenak, eta mendietako erriak, eta gure Jaun Jainkoak galerazi zizkigun toki guztiak.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Argatik itzulirik, igo giñan Basango bidetik, eta atera zitzagun bidera Og Basango erregea bere erriarekin gudatzera Edrainen.

2. Eta esan zidan Jaunak: Etzaitte bere beldur izan, zeren zure eskuan jarria dago bere erri, eta bere lur guziarekin, eta egingo diozu egin ziñon bezela Sehon Amorrheo errege Hesebonen bizitu zanari.

3. Jarri zuen bada gure Jaun Jainkoak gure eskuetan Og Basango erregea, eta bere erri guztia ere, eta zauritu giñituen eriotzaraño,

4. Desegiten giñituela denbora batean bere erri guztiak, etzan izan gugandik iges zuen erririk, irurogei erri, Argobko Ojen erreñuko alderri guztia Basanen.

5. Erri guztiak zeuden sendatuak murrutxi altuakin, eta ateakin, eta morrolluakin, murrurik ez zeukaten ezin kontatu adiña erri gabetanik.

6. Eta desegin giñituen, egin giñon bezela Sehon Hesebongo erregeari, galtzen giñituela erri guztia, eta gizasemeak, eta emakumeak, eta aurrak,

7. Eta arrapatu giñituen errietako abereak, eta utzitako gauzak ere.

8. Eta artu genduen denbora artan lurra Jordango beste aldamenean zeuden bi errege Amorreoen eskutik, Amongo errekatik Hermon mendiraño,

9. Zeñi Sidontarrak deitzen dioten sarion, eta Amortarrak Sanir:

10. Lauan dauden erri guztiak, eta Galaadko, eta Basango lur guztia Seltxa, eta Edrairaño Ojen erreñuko erriak Basanen;

11. Zeren erraldioen jatorritik bakarrik gelditu zan Og Basango erregea. Erakusten da bere oe burnizkoa, zeñ dagoan Ammonen semeen Rabbathen, dituela luzeeran bederatzi beso, eta zabaleran lau, gizonaren eskuaren besoaren neurrian.

12. Eta izan giñan denbora artan lurraren jabe Aroer, Arnon errekaaren erriberaren gañean dagoanetik, Galaadko mendiaren erdiraño. Eta bere erriak eman niezten Rubeni, eta Gadi.

13. Eta Galaadko gañerako zatia, eta Og-en erreñuko Basan guztia, eman nion Manassesen tribu erdiari, Argogko alderri guztia, eta Basan guztiari deitzen zaio erraldioen lurra.

14. Jair Manassesen semea izandu zan Argobtikan Jessuri eta Matxatik mugetaraño lur guztiaren jabea. Eta deitu zion Basani bere izenarekin, Haboth Jair, au da, Jairren erriak, gaurko eguneraño.

15. Eman nion Matxirri ere Galaad.

16. Eta Rubenen, eta Gaden tribuai eman nien Galaadko lurretik Arnongo errekaño errekaaren eta mugen erdia Jeboken errekaño, zeñ dan Ammonen semeen atzena.

17. Eta eremuko laua, eta Jordan eta Zenerethko mugak eremuko itsasoraño, zeñ dan txitez gazia, Phasga mendiaren ondoetaraño sortalde-rontz.

18. Eta agindu nizuten denbora artan, esaten nuela: Zuen Jaun Jainkoak ematen dizute lur au sorotzat, arin ibiltzeko armatuta zaudeten gizon sendo guztiak bijoaz zuen anaia Israelko semeen aurretik,

19. Emazterik, ez aurrik, ez abererik gabe. Zeren badakit asko abere dezutela, eta eman nizkizuten errietan gelditu beariko dute,

20. Aliketa Jaunak eman dizaioten bitartean zuen anaia atsedena, zuei eman zizuten bezela: eta izan ditezten bitartean berak ere, Jordango beste aldamenean emango dien lurraren jabe. Orduan itzuliko da bakoitza bere lurraren, eman nizutenaren jabe izatera.

21. Agindu ere nion denbora artan Josueri, esaten niola: Zure begiak ikusi zuten zer egin zioten zuen Jaun Jainkoak errege bi oiei, ala egingo diote, iragoko zeran erreñu guztia.



22. Etzaite beren beldur izan, zeren zuen Jaun Jainkoa gudaduko da zuekgatik.

23. Eta erregutu nion orduan Jaunari, esaten niola:

24. Jaun Jainkoa zu asi zera erakusten zure serbitzariari zure aunditazuna, eta zure esku sendoa. Zeren ez dago beste Jaungoikorik, edo zeruan, edo lurtean, egin ditzakenez zure obrak, eta iruditu lezakenik zure sendotasunari.

25. Iragoko naiz bada, eta ikusiko det lur txit on au Jordango beste aldamenen, eta mendi eder ori, eta Libanoa.

26. Eta aserretu zan Jauna nerekin zuekgatik, eta ez ninduen aditu, baizik esan zidan: Askotatu, ez zadazu onen gañean geiago itzik egin.

27. Igo zaite Phasgaren erpiñera, eta erabili itzatzu inguruan zure begiak sartaldera, eta ifarraldera, eta egoialdera, eta sortaldera, eta begiratu ezazu. Zeren ez dezu iragoko Jordan ori.

28. Eman zaiozkazu Josueri zuri aginteak, eta sendatu ezazu, eta indartu, zeren bera joango da erri onen aurretik, eta berak partituko diote, ikusiko dezun lurra.

29. Eta gelditu giñan ibarrean Jogorren elizaren aurkez.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Orain bada Israel aditu itzatzu, nik irakasten dizkizudan aginteak, eta erabakiak, egiñik berak, bizi zaitez, eta sarturik izan zaitez zuegunen Jaun Jainkoak emango dizuten lurraren jabe.

2. Ez diozute eratxekiko nik esaten dizutedan itzari, ez dezute ere beratatik ezer kenduko, gorde itzatzute zue Jaun Jainkoaren aginte, nik ematen dizkizutedanak.

3. Zue begiak ikusi zituzten Jaunak egin zituen gauza guztiak Beelphegorren kontra, nola puskatu, eta bota zituen zue erditik bere adoratzalle guztiak.

4. Berriz zuek zaudetenok zue Jaun Jainkoaganatuta, bizi zerate guztiok gaurko egunerano.

5. Badakizute nik erakutsi dizkizutedala aginteak eta eskubideak, agindu zidan bezela nere Jaun Jainkoak, ala zaituko dituzute, beraren jabe izango zeraten lurtean,

6. Eta gordeko dituzute, eta bete egitez, zeren au da zue jakinduria, eta adiera errien aurrean, aditurik aginte guzi oiek, esan dezaten: Ona emen erri jakintsu eta aditua, jende aundia.

7. Ez da ere beste erreñu aña andirik, dituenik Jainkoak beragana aña alderatuak, nola dagoan aurrean gure Jainkoa gure erreku guzietara.

8. Zere zueñ beste erreñu da aña argitsua, dituen nik gaur zue begien aurrean ipiñiko ditudan zeremoniak, eta erabaki zuzenak, eta lege guztia?

9. Zaitu zaite bada zu zerori, eta zure anima ajolarekin. Etzaite aztu zure begiak ikusi zituzten itzak, eta ez bitez erori zure biotzetik zure bizitzako egun guzietan. Erakasiko dieztezu zure semeai, eta illobai,

10. Horeben zure Jaun Jainkoaren aurrean egon ziñan egunetik, Jaunak itz egin zidanean esaten zuela: Bildu ezazu erria neregan, aditu ditzaten nere itzak, eta ikasi dezaten nere beldur izaten, lurtean bizitu diraden denbora guzian, eta erakasi dizaioten beren semeai.

11. Eta alderatu ziñaten, zerurano erazekia zegoan mendiaren ondora: eta zuden beratan argigeak, eta odeiak, eta illuntasuna.

12. Eta itz egin zituzten Jaunak suaren erditik. Bere itzen boza aditu zenduten, baña irudirik batere etzenduten ikusi.

13. Eta erakutsi zituzten bere elkartasuna, zue agindu zituzten zaitzeko, eta arrizko ol bitan eskribatu zituen amar itzak.

14. Eta neri agindu zidan denbora artan erakusteko zuei zeremonia eta erabaki, gorde bear zenduztenak, bere jabe egiñik geldituko ziñaten lurtean.

15. Gorde itzatzute bada ajolarekin zue animak. Etzenduten ikusi irudirik batere Jaunak Horeben suaren erditikan itz egin zituzten egunean,

16. Engañaturik egin ez dezazuten zuentzat gizaseme, edo emakumeren irudi otallutu, edo taiuren bat.

17. Ezta lurraren gañean dauden abereren, edo zeruaren azpian egan dabilzan egaztiren irudirik,

18. Ezta lurtean mugitzen diraden arrastakariarik, edo lurraren azpian uretan dauden arraiarik.

19. Altxaturik begiak zerurantz, eta ikusirik eguzkia, eta illargia, eta zeruko izar guztiak, eta utsegiteaz engañaturik adonatu etziñaz, eta gurtu ez ditzazun zure Jaun Jainkoak egin zituen gauzak, zeruaren azpian dauden jende guztien serbitziorako.

20. Baña zuek artu zinduzten Jaunak, eta atera zinduzten Egiptoko labe burnizkotik, idukitzeko erri primuar bat, gaurko egunean dan bezela.

21. Eta aserretu zan Jauna nere kontra zue itzaldeak gatik, eta juramentu egin zue ez nuela nik pasatuko Jordana, eta ez nintzala sartuko, zuei emango dizuten lur txit ederrean.

22. Ona non iltzen naizan lur onetan, ez det iragoko Jordana: zuek iragoko dezute, eta izango zerate lur txit eder baten jabe.



23. Kontu gero etzaitzela aztu, zure Jaun Jainkoaren elkartasun, zurekin egin zuenarekin, eta ez dezazula egin zuretzat, Jaunak egitea galarazi zuen gauzen irudi otalluturik,

24. Zeren zure Jaun Jainkoa su desegitzaldea da, Jaungoiko zelotsua.

25. Baldin egingo baziñituzte semeak, eta illobak, eta bizituko baziñatezte lurtean, eta engañaturik egingo bazendute zuentzat irudiren bat, gaiztakeria egiten dezutela zuen Jaun Jainkoaren aurrean, aserretu erazitzen diozutela.

26. Lekuko jartzen ditut gaur zerua eta lurra, aurki galduko zeratela Jordan iragota idukiko dezuten lurretik. Etzerate bertan biziko denbora luzean, baizik desegingo zaituzte Jaunak,

27. Eta zabalduko zaituzte jende guztien artetik, eta gutxi geldituko zerate, Jaunak eramango zaituzten erreñuetan.

28. Eta an serbituko dituzute gizonen eskuz egiñak izan diraden Jaungoikoak, zura eta arria, zeñak ez duten ikusten, ez aditzen, ez jaten, ez usai egiten.

29. Eta billatzen dezunean an zure Jaun Jainkoa, arkituko dezu: billatzen baldin badezu biotz guztitik, eta zure animako ansia guziarekin.

30. Arkitu ezker aurrez esan diraden gauza guztiak, atzeneko denboran, biurtuko zera zure Jaun Jainkoagana, eta adituko dezu bere boza.

31. Zeren Jaungoiko urrikaritsu bat da zure Jaun Jainkoa: eta etzaitu utziko, eta etzaitu ere guziz galduko, eta ez da ere aztuko zure gurasoai juramentuarekin egin zioten elkartasunarekin.

32. Galde zaiezute anziñako egun, zu baño lenago izan ziradenai, Jaungoikoak gizona lurraren gañean egin zuen egunetik, zeruaren goienetik beraren beeneraraño, noizbait gertatu ote dan onelako gauzarik, edo iñoiz aditua izan dan,

33. Erri batek aditu duela Jaungoikoaren, suaren erditik itz egiten dionaren boza, zuk aditu zenduen bezela, eta bizitu izan zera.

34. Jaungoikoak egin baldin bazuen etortzeko eta artzeko beretzat jende bat erreñuen erditik, ezaugarri, eta señaile, eta mirari, eta guda, eta esku sendo, eta beso zabaldu, eta ikusketa izigarriakin zuen Jaun Jainkoak zuek gatik egin zuen guziaren araura Ejipton, zure begiak ikusten zutela,

35. Jakin zenezan Jauna bera dala Jaungoikoa, eta ez dagoala besterik bera baño.

36. Zerutikan aditu erazi zizun bere boza, zuri irakasteko, eta lurtean erakutsi zizun bere su txit andia, eta aditu ziñituen bere itzak suaren erditik,

37. Maitatu zituelako zure gurasoak, eta autatu zuen beren jatorria beren ondoren. Eta atera zinduen Ejiptotik zure aurretik zijoala bere esku aundiarekin.

38. Desegiteko erreñu txit aundiak eta zu baño sendoagoak zure sarreran, eta zu beretan sartzeko, eta emateko beren lurten jabetasuna, ikusten dezun bezela gaurko egunean.

39. Jakin ezazu bada gaur, eta gogatu ezazu zure biotzean, Jauna hura bera dala Jaungoikoa zeruan goian, eta bean lurtean, eta ez dala besterik.

40. Gorde itzazu bere erabaki eta aginte nik ematen dizkizutedan, ongi joan dakizun zuri, eta zure semeai zure ondoren, eta bizitu zaitez denbora luzean zure Jaun Jainkoak emango dizun lurtean.

41. Orduan berezitu zituen Moisesek iru erri Jordango beste aldamenen sortalderontz,

42. Beretan gordetzeko eznaian bere lagun urkoa iltzen duena, egun bat, edo bi lenago bere etsai izan gabe, eta iges egin dezakean erri oieta-tik batera.

43. Bosor eremuan, zeñ dagoan Rubenen tribuaren landan, eta Ramod Galaaden, zeñ dagoan Gaden tribuan, eta Golan Basanen, zeñ dagoan Manassesen tribuan.

44. Au da Moisesek Israelko semeen aurrean proponitu zuen legea.

45. Eta oiek Israelko semeai esan ziozkaten aginteak, zeremoniak, eta erabakiak, Ejiptotik atera ziradenean,

46. Jordango beste aldamenen ibarrean Fogorren elizaren aurkez, Sehon Amorreo errege, Hoseboren bizi zanaren lurtean, zeñ Moisesek zauritu zuen. Eta Ejiptotik atera ziraden Israelko semeak.

47. Izan ziraden bere lurraren, eta Og Basango erregearen lurraren jabeak, Amorroen bi errege, Jordanen beste aldamenen eguzkiaren irteeran zeudenak:

48. Aroer, Arnon erreken erreberaren gañean dagoanetik, Siongo mendiraño, zeñ ere dan Hermon.

49. Jordanen beste aldameneko lau guzia sortalderontz, itsaso ille-
raño, eta Fasga mendiaren ondoraño.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta ots egin zion Moisesek Israel guziari, eta esan zion: Aditu itzatzu Israel nik gaur zuen belarrietan itz egiten dizkizutedan zeremoniak, eta erabakiak, ikasi itzatzute, eta bete egitez.

2. Gure Jaun Jainkoak egin zuen elkartasuna gurekin Horeben.



3. Etzuen egin elkartasuna gure gurasoakin, baizik gurekin orain geranokin, eta bizirik gaudenokin.
4. Arpegiz arpegi itz egin zigun mendian suaren erditik.
5. Ni izandu nintzan denbora artan azaldaria eta bitartekoa Jaunaren eta zuen artean, adirazteko zuei bere itzak. Zeren suaren beldur izan ziñaten, eta etziñaten igo mendira, eta esan zuen:
6. Ni zure Jaun Jaungoiko atera zindudana Ejiptoko lurretik menpe-tasuneko etxetik.
7. Ez dezu idukiko Jaungoiko arrotzik nere aurrean.
8. Ez dezu egingo zuretzat goian zeruan dauden gauzetatik bataren ere, eta bean lurrean daudenetatik, eta lurraren azpian uretan bizi diranen taiu; eta irudirik batere.
9. Ez zataizka berai gurtuko, eta ez dituzu ere berak adoratuko. Zeren ni naiz zure Jaun Jainkoa, Jainko zelotsu, kastigatzen dedana gurasoen gaiztakeria semeen gañean gorratatzen nautenen irugarren eta lau-garren belauneraño.
10. Eta urrikaritzen naizana milla asko, maitatzen nautenakin, eta nire aginteak gordetzen dituztenakin.
11. Ez dezu alperrik artuko zure Jaun Jainkoaren izena, zeren ez da kastigu gabe geldituko artzen duena bere izena gauza alperrikoren baten gañean.
12. Gorde ezazu larum bateko (sic) eguna, santututzeko bera, zure Jaun Jainkoak agindu zizun bezela.
13. Sei egunean ariko zera lanean, eta egingo dituzu zure obra guz-tiak.
14. Zazpigarren eguna da larunbata, au da, zure Jaun Jainkoaren atse-dena. Ez dezu beratan lanikan batere egingo zuk, ez zure semeak, ez ala-bak, ez morroiak, ez neskameak, ez idiak, ez astoak, ez zure abereetatik batek ere, ez zure ateen barrenen dagoan arrotzek, atsedean dezan zure morroiak, eta zure neskameak, zuk bezela.
15. Oroitu zaite izandu ziñala morroia Ejipton, eta andikan atera zin-duala zure Jaun Jainkoak esku sendoarekin, eta beso zabalduarekin. Argatik agindu dizu gorde dezazula larunbateko eguna...
16. Honratu itzatzu zure aita eta ama, zure Jaun Jainkoak agindu zizun bezela, denbora luzean bizitu zaitezen, eta ongi joan dakizun zure Jaun Jainkoak emango dizun lurrean.
17. Ez dezu ilko.
18. Ez dezu aragizko bekaturikan egingo.
19. Eta ez dezu lapurretarik egingo.

20. Ez dezu esango zure lagun urkoaren kontra testimonio falsorik.
21. Ez dezu idukiko zure lagun urkoaren emaztearen gurarik, ez bere etxearen, ez kanpoaren, ez morroiaren, ez neskamearen, ez idiaren, ez astoaren, ez bereak diraden gauzarenik batenik ere.
22. Itz oiek esan ziozkan Jaunak zuen talde guziari mendian suaren, eta odeiaren, eta illuntasunaren erditik, boz andiarekin, ezerere geiago itsa-tsi gabe, eta eskribatu zituen arrizko ol bitan, zeñak eman zizkidan neri.
23. Eta zuek aditu ezkerro boza illuntasunen erditik, eta ikusirik men-diari bazizekala, alderatu ziñaten nigana tribuen prinzipie guztiak, eta zarrak, eta esan zenduten:
24. Ona non erakutsi digun gure Jaun Jainkoak bere itzal eta andita-suna. Aditu degu bere boza suaren erditik, eta ikusi degu gaur Jaungoiko-ak gizonarekin itz eginda, bizirik gelditu dala gizona.
25. Zergatik bada ilko gera, eta iretsiko gaitu su txit andi onek? Zeren berriz aditzen baldin badegu gure Jaun Jainkoaren boza, ilko gera.
26. Zer da aragi guztia, Jaungoiko biziaren, suaren erditik itz egiten duenaren boza aditzeko, guk aditu degun bezela, eta bizi lezakena?
27. Alderatu zaite zu, eta aditu itzatzu gure Jaun Jainkoak esaten diz-kizun gauza guztiak, eta esango dizkiguzu guri, eta guk aditurik egingo ditugu.
28. Zeñ aditu zuenean Jaunak, esan zidan: Aditu ezazu erri onek esan dizkizun itzen boza: gauza guztietan ongi itz egin du.
29. Nork egin lezakean iduki dezatela alako biotza, non nere beldur izan ditezela, eta gorde ditzatela denbora guztian nere aginte guztiak, zorionekoak izan ditezen beti berak, eta beren semeak?
30. Zoaz eta esan zaiezu: itzuli zaitezte zuen dendetara;
31. Zu berriz egon zaite emen nerekin, eta esango dizkizut nere agin-te guztiak, eta zeremoniak, eta erabakiak, zeñak erakutziko dieztezuen, egin ditzaten emango diedan lurrean beraren jabe izateko.
32. Gorde eta egin itzatzute bada Jaun Jainkoak agindu dizkizuten gauza guztiak, etzerate zeartuko ez eskuiera ez ezkertera.
33. Baizik ibilliko zerate zuen Jaun Jainkoak agindu zizuten bidetik, bizi zaitezten, eta ongi bijoazkizuten, eta luzetu ditezen zuen egunak, zuek jabe zeraten lurrean.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Oiek dirade zuen Jaun Jainkoak eman dizkidan aginteak, eta zere-moniak, eta erabakiak, irakasteko zuei, eta egin ziñitaten jabetzera zoaz-ten lurrean,



2. Zure Jaun Jainkoaren beldur izan zaitezten eta gorde ditzatzun bere mandamentu eta aginte, neronek ... agintzen dizkitzutedanak zuri, eta zure semeai, eta illobai, zure bizitzako egun guztietan luza..tuak izan ditezten.

3. Aditu ezazu Israel, eta zaude kontuan egiteko Jaunak agintzen dizkitzun gauza guztiak, ongi joan dakizun, eta ugaritu zaitezten geiago, zure gurasoen Jaun Jainkoak eskeñi zizun bezela eznea eta eztia darion lurra.

4. Aditu ezazu Israel, gure Jaun Jainkoa, da Jaun bakarra.

5. Maitatuko dezu zure Jaun Jainkoa zure biotz guziarekin, eta zure anima guziarekin, eta zure indar guziarekin.

6. Eta nik gaur agintzen dizkizudan itz oiek, egongo dirade zure biotzean,

7. Eta kontatuko dieztezu zure semeai, eta gogartuko dituzu zure etxean eserita, eta bidean zabiltzanean, lotara zoazenean, eta jaikieran.

8. Eta lotuko dituzu señailea bezela zure eskuan, eta egongo dirade, eta mugituko dirade zure begien artean.

9. Eta eskribatuko dituzu atalburuan, eta zure etxeko atetan,

10. Eta sartzen zaituanean zure Jaun Jainkoak, zure guraso Abraham, Isaak, eta Jakobi juramentuarekin eskeñi zioten lurrean, eta ematen dizkizunean, egin etziñituen erri andi, eta txit ederrak,

11. Egin etziñituen etxe, ondasun mota guziz beteak, aitzurtu etziñituen urpetegiak, ipiñi etziñituen olibadiak,

12. Eta jaten dituzunean, eta asetzen zeranean;

13. Zaude kontuan arretarekin aztu etzaitezten, Ejiptoko lurretik, katiberioko etxetik atera zinduen Jaunarekin. Zure Jaun Jainkoaren beldur izango zera, eta bera bakarrik serbituko dezu, eta beraren izena gatik juramentu egingo dezu.

14. Etzerate joango zuen inguruan dauden jendeen baten ere jainko arrotzen ondoren,

15. Zeren Jaungoiko zelotsu bat zure Jaun Jainkoa dago zure erdian: aserretu ez dedin zure Jaun Jaungoikoaren sumiñtasuna zure kontra, eta kendu etzaitzan lurraren gañetik,

16. Ez dezu tentatuko zure Jaun Jainkoa, tentatu zenduen bezela tentazioko tokian.

17. Gorde itzatzu zure Jaun Jainkoaren aginteak, eta agindu zizkizun lekukotasunak, eta zeremoniak,

18. Eta egin ezazu Jaunaren aurrean gogokoa, eta ona dana, ongi joan dakizun, eta sartu zaitezten izatera lur txit onaren jabe, zeñagatik juramentu egin zioten Jaunak zure gurasoai,

19. Desegiteko zure etsai guziak zure aurrean, itz egin zuen bezela.

20. Eta galdetzen dizunean zure semeak biar, esaten duela: Zer esan nai dute, gure Jaun Jainkoak agindu dizkigun lekukotasun, eta zeremonia, eta erabaki oiek?

21. Esango diozu: Giñan Faraonen menpekoak Ejipton, eta atera ginduen Jaunak Ejiptotik esku sendoarekin.

22. Eta egin zituen gure aurrean señailea eta arrigarri andiak eta txit portitzak Ejipton Faraonen, eta bere etxe guziaren kontra.

23. Eta atera ginduen andikan sartzeko gu, eta emateko guri, gure gurasoai juramentuarekin eskeñi zioten lurra.

24. Eta agindu zigun Jaunak egin ditzagula erabaki guzi oiek, eta gure Jaun Jainkoaren beldur izan gaitezela, ongi joan dakigun gure bizitzako egun guztietan, gaur gertatzen zaigun bezela.

25. Eta izango da gurekin urrikaritsua gordetzen eta egiten baldin baditugu bere aginte guziak gure Jaun Jainkoaren aurrean, agindu zigun bezela.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Sartzen zaituanean zure Jaun Jainkoak sartzera zoazan lurrean bere jabe izateko, eta desegiten dituanean jende asko zure aurrean, Heteoa, eta Jerjeseoa eta Amorreoa, eta Kananekoa eta Ferezeoa, eta Heteoa, eta Jebuseoa, zazpi erreñu zu zeran baño askoz ugariagoak, eta zu baño sendoagoak,

2. Eta ematen dizkizunean zure jaun Jainkoak, guziak ilko dituzu batere bizirik utzi gabe. Ez dezu egingo berakin elkartasunik, eta etzera berakin urrikarituko,

3. Ez dezu ere berakin ezkontzarik egingo. Ez diozu emango zure alaba bere semeari, ez dezu ere artuko bere alaba zure semearentzat.

4. Zeren engañatuko du zure semea, jarraitu ez dizadan, baizik serbitu ditzala Jainko arrotzak. Eta aserretuko da Jaunaren sumiñtasuna, eta desegingo zaitu aurki.

5. Baizik oiek egingo diozkatezute, bota itzatzute beren aldareak, autsi beren taiuak, ebaki beren basoak, eta erre beren idoloak.

6. Zeren zu erri santua zera zure Jaun Jainkoarentzat. Zu autatu zinduen zure Jaun Jainkoak, izan zindezen erri berezia, lurraren gañean dauden erri guztietatik:

7. Etzan bildu zuekin Jauna eta etzinduzten autatu, erreñu guziak zenbatean garaitzen zenduztelako, zeraten ezkeren zenbatean beste erri guziak baño gutxiago,



8. Baizik Jaunak maitatu zinduztelako, eta zaitu zuen, zuen gurasoai egin zioten juramentua, eta atera zinduzten esku sendoarekin, eta askatu zinduzten katiberioko etxetik, Faraon Ejiptoko erregearen eskutik.

9. Eta jakingo dezu zure Jaun Jainkoa, bera dala Jaungoiko sendoa eta itzekoa, zaitzen diotena elkartasuna eta errukia bera maitatzen dutenai, eta bere aginteak gordetzen dituztenai milla gizaldiraño,

10. Eta itzultzen diotena gorrotatzen dutenai berealaxe, alako moduan non desegiten ditu, eta ez du luzatzen geiago, laster ematen diotela diña diradena.

11. Zaitu itzatzu bada nik gaur agintzen dizkizudan aginteak, eta zeremoniak, eta erabakiak, egin ditzatzun berak.

12. Aditu ezker erabaki oiek gordeko eta egingo baldin baziñitu, zure Jaun Jainkoak ere gordeko dizkitzu zure gurasoai juramentuarekin eskeñi ziezten elkartasun eta errukia,

13. Eta maitatu eta ugarituko zaitu, eta bedekatuko du zure sabeleko frutua, eta zure lurreko frutua, zure alea, eta mendaina, olioia, eta bertaldeak, eta zure artaldeak, zure gurasoai juramentuarekin eskeñi zioten lurraren gañean, emango zizula.

14. Bedekatua izango zera erri guztien artean. Ez da zuen artean izango sollik ar emetan, ez gizasemetan, ez zure aberetan.

15. Kenduko du Jaunak zugandikan miñ guzia, eta arako Ejiptoko eritasun txit gaizto, zuk dakizkizunak, ez dizkitzu bidalduko, baizik zure etsai guziaz.

16. Iretsiko dituzu zure Jaun Jainkoak emango dizkizun erri guziaz. Ez diote barkatuko zure begiak, ez dituzu ere serbituko beren jaungoikoak, izan ez ditezten zure galmenerako.

17. Baldin esango bazeneza zure biotzean: Jende oiek ni baño geiago dirade, ¿nola desegin alko ditut?

18. Ez ezazu beldur izan nai; baizik oroitu zaite zer egin zioten zure Jaun Jainkoak Faraoni eta ijito guziaz,

19. Zure begiak ikusi zituzten gaitzet txit andiak, eta señalear, eta mirariak, eta esku sendoa, eta beso luzatua, zu ateratzeko zure Jaun Jainkoak. Ala egingo diote zu beldur zatzaizoten erri guziaz.

20. Gañera bidalduko ere ditu zure Jaun Jainkoak beren kontra eulitzarrak, aliketa desegin eta galdu ditzan bitartean, zugandik iges egin dutenak, eta ezkutatu al izan diradenak.

21. Etzera beren beldur izango, zeren zure Jaun Jainkoa zure erdian dago, Jainko andi eta beldurgarria.

22. Berak desegino ditu erreñu oiek, zure begien aurrean geldika geldika, eta zatika. Ezin desegino dituzu batetan: ugaritu ez ditezten zure kontra lurreko pistiak.

23. Eta zure Jaun Jainkoak jarriko ditu zure aurrean, eta ilko ditu aliketa osotora desegin ditezten bitartean.

24. Eta jarriko ditu beren erregeak zure eskuetan, eta borratuko dituzu beren izenak zeruaren azpitik, ezin jarkiko zaitzu iñor, aliketa txeatu ditzatzun bitartean.

25. Beren idoloak suarekin erreko dituzu, ez dezu idukiko ez zillarraren, ez urrearen, berak egiñak izan diradenen gurarik, ez dezu ere bertatik artuko zuretzat ezer, beaztopatu etzaitzen, zure Jaun Jainkoaren nazka diradelako.

26. Ez dezu ere eramango ezerki idolotikan zure etxera, egin etzaitzen anathema, bera ere dan bezela. Gorrotatuko dezu likiskeria bezela, eta nazkatuko dezu zikinkeria eta urdakeriak bezela, eskomikua dalako.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Kontu andia iduki ezazu egiteko nik gaur agintzen dizudan aginte guzia, bizi zaitezken, eta ugaritu zaitezten, eta sartu zaitezten izatera, Jaunak zuen gurasoai juramentuarekin eskeñi zioten lurraren jabe.

2. Eta oroituko zera zure Jaun Jainkoak berrogei urtean eremutikan ekarri zinduen bide guziarekin, zu nekatu eta tentatzeko, eta ezagutzeko zure gogoan zebiltzan gauzak, gordetzen ote ziñituen beraren aginteak, ala ez.

3. Atsekabetu zinduen gosearekin, eta eman zizun janaritzat Manna, zuk eta zure gurasoak ezagutzen etzendutena, erakusteko zuri, gizona etzala bizi ogi utsarekin, baizik Jaungoikoaren aotik ateratzen dan iz guziarekin.

4. Zure soñekoa, zeñarekin estalitzen ziñan, etzan desegin zartzaz, eta zure oña etzan gastatu, eta ona emen non berrogeigarren urtea dan.

5. Oroitirabiatu dezazun zure biotzean, gizon batek bere semeari ematen diozkan bezela irakatsiak, ala zure Jaun Jainkoak eman dizkitzula zuri,

6. Gorde ditzatzun zure Jaun Jainkoaren aginteak, eta bere bidetan ibilli zaitezten, eta bere beldur izan zaitezten.

7. Zeren zure Jaun Jainkoa dijoakizu sartzera lur on orretan, erreka, eta aintziraz, eta iturritz beteriko lurrean, zeñaen kanpo eta mendia dariozkiten urezko jatorri legortezak.



8. Gariaren, garagarraren, mastien lurra, zeñean egiten diraden pikoak, eta mingranak, eta oliboak, olioaren eta eztiaren lurra.

9. Non urritasunik batere gabe jango dezu zure ogia, non idukiko dituzu ugari gauza guztiak, zeñean arriak burnia diraden, eta bere mendiatatik kobrezko menastak ateratzen diraden.

10. Jaten dezunean eta asetzen zeranean bedekatu dezazun zure Jaun Jainkoa, eman zizun lur txit ona gatik.

11. Zaude ernai, eta begira etzaitzela aztu zure Jaun Jainkoarekin, eta ez ditzatzula mezpreziatu, nik gaur ematen dizkizudan beraren agintek, eta erabakiak, eta zeremoniak,

12. Jan eta ase, eta etxe ederrak egin, eta beretan bizi ezker;

13. Eta idukirik beitaldeak, eta artaldeak, eta zillarraren eta urrearen eta beste gauzen ugartasuna,

14. Arroitu ez dedin zure biotza, eta oroitu etzaitzen zure Jaun Jainko, atera zinduenarekin Ejiptoko lurretik, katiberioko etxetik,

15. Eta zure gialaria izan zanarekin eremu andi eta ikaragarrian, zeñean zeuden suge, asnasarekin erretzen zutenak, arrabioak, eta suge egarri emalleak, eta non etzegoan uraren tantorik, atera zituenarekin erreka arri txit gogorretik,

16. Eta bazkatu zinduen eremuan, zure gurasoak jakin etzuten manarekin. Eta atsekabetu eta probatu zinduen ezker, atzanean errukitu zan zurekin,

17. Esan etzenezan zure biotzean, nere indarrak eta nere eskuko sendotasunak eman zizkidaten gauza guzti oiek.

18. Baizik oroitu zaitzela zure Jaun Jainkoarekin, berak eman zizkizula indarrak, betetzeko bere elkartasuna zeñean gañean juramentu egin zioten zure gurasoai, gaurko egunak adirazten duen bezela.

19. Baña baldin azturik zure Jaun Jainkoarekin, jarraituko baziñoizkate jainko arrotzai, eta egingo baziñizkiote elizkizunak, eta adoratuko baziñitu, ona non oraindandixek lenaz adirazten dizudan, arras galdua izango zerala.

20. Jaunak zure sarreran galdu zituen jendeak bezela, ala zuek ere galduko zerate, desobedienteak izango baldin baziñate zuen Jaun Jainkoaren bozera.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Aditu ezazu Israel: Zuk iragoko dezu gaur Jordana, izateko zu baño erreñu txit ugariagoen eta txit sendoagoen jabe, erri andien eta zeruraño murrutuen,

2. Erri andi eta goratu baten, Enazimen seme, zuk ikusi zenduztenen, eta aditu ziñotenen, zeñai iñor ezin jarki dizaieken aurkez.

3. Gaur bada jakingo dezu zure Jaun Jainkoa bera iragoko dala zure aurretikan, su iretsitzalle eta desegitzallea, zeñak txeatu, eta desegin, eta galduko dituen agudo zure aurrean, itz egin zizun bezela.

4. Ez ezazu esan zure biotzean, zure Jaun Jainkoak desegiten dituean zure aurrean: Nere justizia gatik sartu nau Jaunak, izan nadin lur onen jabe, izanik erreñu oiek desegiñak beren gaiztakeriak gatik.

5. Zeren etzera sartuko, izatera beren lurren jabe zure justiziak gatik, eta zure biotzeko zuzentasuna gatik, baizik berak gaizki egin zutelako, izan dirade desegiñak zure sarreran, eta betetzeko Jaunak bere itz juramentuarekin eman ziotena zure guraso Abraham, Isaak, eta Jakobi.

6. Jakin ezazu bada ez dizula eman zure Jaun Jainkoak lur txit eder au beraren jabe izateko, zure justiziak gatik, bada zera lepo txit gogorreko erria.

7. Oroitu zait, eta etzaitzela aztu nola aserretu eragin ziñon zure Jaun Jainkoari eremuan. Ejiptotikan atera ziñan egunetik toki onetaraño, beti ari zera leian Jaunaren kontra.

8. Zeren Horeben ere aupadaka ari ziñon eta aserreturik desegin nai zinduen.

9. Igo nintzanean mendira arrizko olak artzera, Jaunak zuekin egin zuen elkartasuneko olak, eta iraun nuen mendian berrogei egun eta gautan, ogirik jan gabe, eta urik edan gabe.

10. Eta eman zizkidan Jaunak bi ol arrizko, Jaungoikoaren beatzarekin eskribatuak, zeduzkatenak esan zizkizuten itz guztiak, itz egin zizutean mendian suaren erditik, erriaren batzarrea bildu zanean.

11. Eta irago ziradenean berrogei egun, eta beste ainbeste gau, eman zizkidan Jaunak arrizko ol bi, elkartasuneko olak,

12. Eta esan zidan: Jetxi zait emendikan agudo; zeren Ejiptotik atera zinduen zure erriak, utzi dute arin erakutzi ziñioten bidea, eta egin dute berentzat menast urtuzko idolo bat.

13. Eta berriz esan zidan Jaunak: ikusten det erri hau lepo gogorrekoa dala,

14. utzi zadazu txeatu dezadan, eta borratu bere izena zeruaren azpitik, eta jarriko zaitut au baño andiago, eta sendoago dan Jende baten agintari egiñik.

15. Eta jetxitzen nintzala mendi irazekitik eta neuzkala esku biakin elkartasunak ol biak.



16. Eta ikusi nuenean bekatu egin zendutela zuen Jaun Jainkoaren kontra, eta egin zendutela zuentzat menast urtuzko txal bat, eta utzi zendutela arin erakutzi zizuten bere bidea,

17. Bota nituen olak nere eskuetatik, eta zatitu nituen zuen aurrean.

18. Eta auzpeztu nintzan Jaunaren aurrean len bezela, berrogei egun eta gauean, ogirik jan gabe eta urik edan gabe, Jaunaren kontra egin zenduzten zuen bekatu guztiak gatik, eta aserretu eragin ziñiotelako.

19. Zeren bere sumintasan eta aserrearen beldur izan nintzan; zeñarekin zirikataturik zuen kontra, desegin nai zinduzten. Eta Jaunak aditu nin-duen aldi onetan ere.

20. Txit aserreturik Aaronen kontra ere, txeatu nai zuen, eta era berean beragatik erregutu nuen.

21. Eta arrapaturik egin zenduten zuen bekatua, au da, txala, suan erre nuen, eta zatiturik, eta guztia auts eginik, bota nuen, menditik jetxizten dan erre kara.

22. Erazekialdian ere, eta Tentazioan, eta gurariaren Obietan aserretu eragin ziñioten Jaunari.

23. Eta bidaldu zenduztenean Kadesbarnetik, esaten zuela: igo zaitetze, eta izan zaitetze eman dizutedan lurraren jabe, eta mezpreziatu zenduten zuen Jaun Jainkoaren agintea, eta etziñioten sinistu, eta etzenduten ere aditu nai bere boza,

24. Baizik beti izan ziñaten jarkikorak, zuek ezagutzen asi nintzan egunetik.

25. Eta egon nintzan auzpezturik Jaunaren aurrean berrogei egun eta gautan, zeñean erregutzen nion humiltasunarekin, etzintzatela desegin, zematu zinduzten bezela:

26. Eta erregutzen nuela, esan nuen: Jaun Jainkoa, ez ezazu galdu zure erria, eta zure primez, erosi zinduena zure anditasunarekin, zeñak atera zinduzten Ejiptotik esku sendoarekin.

27. Oroitu zait zure serbitzari Abraham, Isaak, eta Jakobekin, etzaiozu begiratu erri onen gogortasunari, gaiztakeriari, eta bekatuari.

28. Esan ez dezaten atera ginduzun lurrean bizi diradenak, Ezin zituen sartu Jaunak eskeñi zioten lurrean, eta gorrotatzen zituen, argatik atera zituen, iltzeko berak eremuan.

29. Zeñak dirade zure erria, eta zure primez, atera zinduztena zure sendotasun andiarekin, eta zure beso luzatuarekin.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Denbora artan esan zidan Jaunak: Landu itzatzu arrizko ol bi, lenbizikoak ziraden bezela, eta igo zait zure mendira, eta egingo dezuzurezko kutxa bat.

2. Eta eskribatuko ditut oletan, len autsi zinduenetan zeuden itzak, eta ipiñiko dituzu kutxan.

3. Egin nuen bada kutxa bat Seltimgo zurakin. Eta landurik arrizko ol bi lenbizikoen gisara, igo nintzan mendira, berak eskuetan nituela.

4. Eta eskribatu zituen oletan, len eskribatu zuenaren araura, amar itzak, zeñak esan zizkizuten Jaunak mendian suaren erditik, erria bildua zegoanean, eta eman zizkidan neri.

5. Eta itzulirik menditik jetxi nintzan, eta ipiñi nituen olak, egin nuen kutxa batean, zeñak gaurko eguneraño dauden an, Jaunak agindu zidan bezela.

6. Eta Israelko semeak mugitu zituzten etzauntzak, Jakanen semeen Berotik Mosera, non il zan Aaron, eta izan zan obitua, zeñaren lekuan sartu zan apaiztan Eleazar bere semea.

7. Andikan irago ziraden Gadgadera, leku onetatik alde egiñik, jarri zituzten etzauntzak Jeteathan, uren eta erreken lurrean.

8. Denbora artan berezitu zuen Lebiren tribua, eraman zezan Jaunaren elkartasuneko kutxa, eta egoteko bere aurrean lanean, eta emateko bedekazioa bere izenean gaurko eguneraño.

9. Argatik etzuen iduki Lebik parterik, ez ezeren jabetasunik bere anaiakin, zeren Jaunaren joeraren jabe da, zure Jaun Jainkoak eskeñi zion bezela.

10. Ni bada egon nintzan mendian len bezela, berrogei egun, eta gautan, eta aditu ninduen Jaunak aldi onetan ere, eta etzinduen galdu nai izan.

11. Eta esan zidan: zabiltz, eta zoaz erriaren aurretik, sartu dedin, eta izan dedin lur baten jabe, zeñ juramentuarekin eskeñi nio.. beren gurasoai, emango niela.

12. Eta orain Israel: Zer eskatzen dizu zure Jaun Jainkoak, baizik zure Jaun Jainkoaren beldur izan zaitzela, eta bere bideetatik ibilli zaitzela, eta bera maitatu dezazula, eta serbitu dezazula zure Jaun Jainkoa zure biotz guzitik, eta zure anima guziarekin,

13. Eta gorde ditzatzula Jaunaren aginteak, eta bere zeremonia, nik gaur agintzen dizkizudanak, ongi izan zaitzen?

14. Begira zure Jaun Jainkoarena dala zerua, eta zeruaren zerua, lurra, eta bertan dauden gauza guztiak,



15. Eta alaere zure gurasoakin itxekia egon zan Jauna, eta maitatu zituen, eta autu zuen bere jatorria beren ondoren, au da, zuek, jende guztien artetik, gaur egiztaturik ikusten dan bezala.

16. Ebaki itzatzute bada zuen biotzeko gura gaiztoak, eta ez ezazute gogortu zuen lepoa,

17. Zeren zuen Jaun Jainkoa, bera da Jaungoikoen Jaungoikoa, eta Jaunen Jauna, Jaungoiko andia eta altsua, eta ikaragarria, zeñak ez duen inor irakurtzen, eta zeñ ez dan irabazten doñakin.

18. Egiten dio justizia umezurtzari, eta alargunari, maitatzen du arrotza, eta ematen dio janaria eta soñekoa.

19. Eta ala zuek ere maitatu itzatzute arrotzak, zeren zuek ere izan ziñaten erbestekoak Ejiptoko lurlean.

20. Zure Jaun Jainkoaren beldur izango zera, eta bera bakarrik serbituko dezu, berari itsatsiko zatzaio, eta bere izenean juramentu egingo dezu.

21. Bera da zure alabantza, eta zure Jaungoiko egin zizkizuna, zure begiak ikusi zituzten gauza txit andi eta miragarri oiek.

22. Irurogeita amar animarekin jetxi ziran zure gurasoak Ejiptora, eta ona emen non orain ugaritu zaitu zure Jaun Jainkoak zeruko izarrak bezela.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Maitatu ezazu bada zure Jaun Jainkoa, eta gorde itzatzu denbora guzian bere aginteak, eta zeremoniak, erabakiak, eta mandamentuak.

2. Ezagutu itzatzute gaur, zuen semeak ez dakiten gauzak, zeñak etzituzten ikusi zuen Jaun Jainkoaren kastiguak, bere anditasunak, eta esku sendoa eta beso luzatua.

3. Ejiptoren erdian egin zituen señaileak eta egiteak Faraon errege, eta bere lur guztiarekin,

4. Eta ijitoen ejerzitu guztiarekin, eta zaldiakin, eta gurdiakin, nola estali zituzten itsaso gorriko urak, zuek persegitzen zinduztenean, eta desegin zituen Jaunak gaurko eguneraño.

5. Eta zer egin zizuten zuei eremuan aliketa allegatu ziñaten bitartean toki onetara.

6. Eta Eliaben Rubenen semea izan zanaren seme Datan eta Abironi, zeñak iretsi zituen lurra idikirik bere aoa beren etxe eta denda, eta Israelen erdian zeukatzen azienda guztiarekin.

7. Zuen begiak ikusi zituzten, Jaunak egin zituen egite andi guziak,

8. Gorde ziñitzaten bere aginte guzti, nik gaur agintzen dizkizutedanak, eta sartu al zintezkean, eta izan, sartzera zoazten lurraren jabe,

9. Eta bizi zaitetzten beratan denbora luzean, zeñari darion eznia eta eztia, eta zeñ eskiñi zioten Jaunak zure gurasoai, eta beren ondorengoai juramentuarekin.

10. Zeren sartzen zeran lurra bere jabe izateko, ez da Ejiptoko lurra bezelakoa, zeñatetik atera zeran, zeñetan bota ezkerro azia, eramaten dirade urak urtatzeko; baratzen gisara,

11. Baizik da menditsua eta ibartsua, zerutikan euriak itxedotzen dituen.

12. Zeñ zure Jaun Jainkoak beti bisitazen du, eta huraren begiak beti beratan dirade urtearen asieratikan beraren bukaeraraño.

13. Baldin bada obedituko baziñiote, nik gaur ematen dizkizutedan nere aginteai, maitatzen dezutela zuen Jaun Jainkoa, eta serbitzen dezutela zuen biotz guztitik, eta zuen anima guztitik,

14. Emango dio zuen lurrari euri goiztarra eta berandukoa, artu dezazuten garia, eta ardoa, eta olioia,

15. Eta kanpoetako belar luzea abereak bazkatzeko, eta zuek jan dezazuten, eta ase zaitetzten.

16. Gorde zaitetzte gero, zuen biotza izan ez dedin engañatua, eta alde egin ez dezazuten Jaunagandik, eta serbitu ez ditzazuten jaungoiko arrotzak, eta berak adoratu ez ditzazuten.

17. Eta aserreturik Jauna itxi ez dezan zerua, eta euriak jetxi ez ditezten, eta lurra eman ez dezan bere frutua, eta arrotzuak izan etzaitetzten bereala, Jaunak emango dizuten lur txit onetik.

18. Jarri itzatzute nere itz oiek zuen biotzetan, eta zuen animetan, eta jarri itzatzute señaletzat eskuetan, eta ipiñi zuen begien artean.

19. Erakasi zaieztezute zuen semeai, gogoan erabilli ditzaten, zaudeanean zure etxean egotez, eta zabilzanean bidean, eta oeratzean eta jaikieran.

20. Eta eskribatuko dituzu zure etxeko abe, eta ateen gañean.

21. Ugaritu ditezen zure egunak, eta zure semeenak, Jaunak zure gurasoai juramentuarekin eskeñi zioten lurlean, emango ziela, zerua lurraren gañean dagoan arteraño.

22. Zeren gordeko baldin baziñieztee nik ematen dizkizutedan aginteak, eta egingo baziñieztee zuen Jaun Jainkoa maitatuko dezuten eran, eta ibiltzeko bere bide guzietatik, itsatsita berari,

23. Galduko ditu Jaunak jende guzi oiek zuen begien aurrean, eta beren jabe izango zerate, zuek baño andiagoak eta sendoagoak izan arren.



24. Zuen oñak zapaltzen duen lur guztia, zuena izango da. Eremitik, eta Libanotik, eta Eufrates ibai anditik sartaldeko itsasoraño izango dira-
de zuen mugak.

25. Ez da iñor egongo zuen kontra, zuen Jaun Jainkoak ipiñiko du zuen izi eta beldurra, zuek zapaltzen dezuten lur guztiaren gañean, esan dizuten bezela.

26. Ona non ipintzen dedan gaur zuen aurrean bedeikazioa, eta madarikazioa:

27. Bedeikazioa, obeditzen baldin badieztezute zuen Jaun koaren aginte, nik gaur ematen dizkizutedanai:

28. Madarikazioa, baldin obeditu ez baziñiezte zuen Jaun Jainkoaren agintei, eta apartatuko baziñate, nik orain erakusten dizutedan bide-
tik, eta ibilliko baziñate ezagutzen ez dituzuten jainkoen ondoren.

29. Berriz zure Jaun Jainkoak sartzen zaituenean bizitera zoazan lurrean, ipiñiko dezu bedeikazioa Garizim mendiaren gañean, madarika-
zioa Hebal mendiaren gañean.

30. Zeñak dauden Jordango beste aldamenean, eguzkiaren sarrera-
rontz begira dagoan bidearen ostean, kanaantarren lurrean, zeñ bizi dan Galgalako zelaien aurkez, zeñ dagoan, txit urrutian zabaltzen eta sartzen dan ibarraren aldean.

31. Zeren zuek iragoko dezute Jordana, izan zaitezen, zuen Jaun Jain-
koak emango dizuten lurraren jabe, iduki dezazuten, eta izan zaitezen beraren jabe.

32. Begira ezazute bada bete ditzatzutela, nik gaur zuen aurrean ipin-
tzen ditudan zeremonia eta erabakiak.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Oiek dirade aginte eta erabaki, egin bear dituzutenak zure guraso-
en Jaun Jainkoak emango dizun lurrean, izan zaitezen beraren jabe lurre-
an gañean ibilliko zeran egun guztietan.

2. Arrasatu itzatzute, menderatuko dituzuten jendeak beren jaungoi-
koak adoratu zituzten toki guziak mendi goratuen eta muñoen gañean,
eta zuaitz ostotsu guzien azpian.

3. Desegin itzatzute beren aldareak, eta autsi irudiak, basoak erre
suarekin, eta idoloak txeatu, arrotzu itzatzute beren izenak toki aietatik.

4. Ez dezute onela egingo zuen Jaun Jainkoarekin,

5. Baizik joango zerate zuen Jaun Jainkoak zuen tribu guztietatik
aututzen duen tokira, ipintzeko an bere izena, eta an bizitzeko,

6. Eta eskeñiko dituzute toki artan zuen doañak, eta opari biziak,
zuen eskuen amarrenak eta lenbiziak, eta botoak eta emankaiak, beien eta
ardien lenbizisortuak.

7. Eta jango dezute an zuen Jaun Jainkoaren aurrean: eta bozkario-
tuko zerate zuek eta zuen etxeoak eskua ezarri diozuten gauza guztietan,
zeñatan bedeikatu zaitzaten zuen Jaun Jainkoak.

8. Ez dituzute an egingo emen gaur egiten ditugun gauzak, bakoitzak
berari ongi deritzana.

9. Zeren orainartean etzerate allegatu, zuen Jaun Jainkoak emango
dizuten atsedean eta jabetasunera.

10. Iragoko dezute Jordana, eta biziko zerate zuen Jaun Jainkoak
emango dizuten lurrean, atsedean dezazuten ingurutzen zaituzten etsai
guzietatik, eta bizi zaitezten batere beldur gabe.

11. Zuen Jaun Jainkoak aututzen duen lekuan, egon dedin beratan
bere izena. Ara eramango dituzute agintzen ditudan gauza guztiak, eskeñ-
tzak, eta doañak, eta zuen eskuen amarrenak, eta lenbiziak, eta Jaunari
eskeñiko dieztezuten doañetako autu guztia.

12. An jango dezute zuen Jaun Jainkoaren aurrean zuek eta zuen
semeak eta alabak, morroiak eta neskameak, eta zuen errietan bizi dan
Lebitak. Zeren ez du zuen artean beste zatirik, ez jabetasunik.

13. Kontu ez ditzatzula eskeñi zure doañak ikusten dezun toki guz-
tian,

14. Baizik eskeñiko dituzu doañak Jaunak aututzen duen huratan,
zure tribuetatik batean, eta egingo dituzu agintzen dizkizudan gauza guz-
tiak.

15. Baña baldin jan nai bazeneza, eta aragi jakiaren zale baziña, il
ezazu, eta jan zure Jaun Jainkoak eman dizun bendizioaren araura zure
errietan, naiz dala ezgarbia, au da, orbandua eta elbarritua; naiz garbia, au
da, osoa, eta orbanik gabea, eskeñtzea zillegi dana, jango dezu, basautza
eta oreña bezela,

16. Bakarrik odola jan gabe, zeñ isuriko dezun lurraren gañean ura
bezela.

17. Ezin jango dezu zure errietan zure gariaren, eta ardoaren, eta
olioaren amarrenik, ez beien, ez ardien lenbizisorturik, ez botoz ematera
lotzen zeran gauzarik, eta borondatez eskeñi nai dezunik, eta zure eskuen
lenbizirik,

18. Baizik jango dezu zure Jaun Jainkoaren aurrean, zure Jaun Jain-
koak aututzen duen toki huratan zuk, eta zure semeak, eta zure alabak, eta
menpekoak naiz dala gizasemea, naiz emakumea, eta zure errietan bizi



dan Lebitak, eta poztuko eta sendatuko zera zure Jaun Jainkoaren aurrean eskua luzatzen diozuten gauza guztietan.

19. Kontu ezazu ez dezazula desanparatu Lebita lurraren gañean dagoan denbora guztian.

20. Zure Jaun Jainkoak zabaltzen dituen zure mugak, itz egin dizun bezela, eta naiko baziñitu jan zure animak gura dituen aragiak.

21. Urrutian baldin balego, zure Jaun Jainkoak autu duen tokia, ego-teko an bere izena, ilko dituzu daukazun beitalde eta aberetatik, agindu dizudan bezela, eta jango dezu zure errietan, nai dezun bezela.

22. Nola jaten diraden basauntza eta oreña, ala jango dituzu, eta garbiak eta zikiñak berdin jango du beretatik.

23. Baña kontu onekin bakarrik, ez dezazula jan odolik, zeren beren odola dago animaren lekuan, eta argatik ez dezu jan bear anima odolarekin:

24. Baizik lurraren gañera isuriko dezu ura bezela,

25. Ongi joan dakizun zuri eta zure semeai zure ondoan, egiten dezuengan ongi dana Jaunaren aurrean.

26. Santututzen dituzun, eta Jaunari eskeñtzen diozkazun gauzen gañean berriz, artuko dituzu, eta etorriko zera Jaunak aututzen duen lekura.

27. Eta eskeñiko dituzu zure doañak aragia eta odola zure Jaun Jainkoaren aldarearen gañean, eskeñtza bizien odola isuriko dezu aldarean, eta zuk jango dituzu aragiak.

28. Gorde eta aditu itzatu nik agintzen dizkizudan gauza guztiak, ongi joan dakizun zuri eta zure semeai zure ondoan beti, egiten dezunean zure Jaun Jainkoaren aurrean ongia eta gogokoa dana.

29. Galtzen dituen zure Jaun Jainkoak zure aurrean, beretara sartzera zoazan jendeak, beren jabe izateko, eta beren jabe zeranean, eta beren lurrean bizi zeranean,

30. Kontu ez ditzazula imitatu, zure aurrean desegiñak diradenean, eta ez dezazula galdetu ere beren zeremoniak gatik, esaten dezula: Jende oiek adoratu zituzten bezela beren jainkoak, nik ere ala adoratuko ditut.

31. Ez dezu ala egingo zure Jaun Jainkoarekin. Zeren Jaunak gorrotatzen dituen nazkagarri guztiak egin ziozkaten beren jainkoai, eskeñtzen ziozkatela semeak eta alabak, eta erretzen zituztela suarekin.

32. Agintzen dizudana, ori bakarrik egin zaiozu Jaunari, ez ezazu ezer geitu, ez gutxitu.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Jaikiko baldin balitza zure erdian, profetaren bat, edo esaten duena amets bat egin duela, eta lendanaz adiraziko balu señaletan eta miraren bat,

2. Eta gertatuko balitza itz egin duena, eta esango balizu: Goazen, eta jarraitu dizaiegun ezagutzen ez dituzun jainkoai, eta serbitu ditzagun,

3. Ez dituzu adituko profeta, edo ameslari huraren itzak, zeren zuen Jaun Jainkoak tentatzen zaituzte, agertu dedin maitatzen ote dezuten ala ez zuen biotz guztitik, eta zuen anima guztitik.

4. Jarraitu zaiozute zuen Jaun Jainkoari, eta bere beldur izan zaitezte, eta bere aginteak gorde itzatzute, eta aditu ezazute bere boza. Bera serbituko dezute, eta berari itsatsiko zatzakizkio.

5. Eta profeta, edo ametsen asmatzalle hura illa izango da, zeren itz egin zuen alde eragiteko zuei zuen Jaun Jainko, atera zinduztena gandik Ejiptoko lurretik, eta erosi zinduztena gandik katiberioko etxetik, alderagiteko zuri, zure Jaun Jainkoak agindu zizun bidetik, eta kenduko dezu gaitza zure erditik.

6. Baldin sinisteragin nai balizu zure anaia zure amaren semeak, edo zure semeak, edo alabak, edo zure besartean daukazun emazteak, edo zure anima anbat maitatzen dezun adiskideak, ixillean esaten dizula: Goazen, eta serbitu ditzagun zuk, eta zure gurasoak etzekiten jainko arrotzak,

7. Inguruan dauden jende guziena, aldean edo urrutian daudenenak, lurraren asieratik bukaerarañoakoak,

8. Etzaiozu oben egin, ezta aditu ere etzazu, ez bitzaio ere barkatu zure begiak berarekin errukitu eta bera ezkutatuko dezun eran,

9. Baizik bereala ilko dezu. Zure eskua izango da lenbizikoa bere gañean, eta gero erri guztiak ezarri bitzaio eskua.

10. Arriz estalita illa izango da, alde eragin nai izan zizulako, zure Jaun Jainko, atera zinduenagandik Ejiptoko lurretik, katiberioko etxetik,

11. Israel guztiak aditurik bildur izan dedin, eta iñolaere ez dezan berriz egin ezer gauza onen antzekorik.

12. Baldin Jaunak biziteko emango dizkizun erriren baten adituko bazeneza nortzukbait esaten dutela:

13. Zure erditik atera dirade Belialen semeak, eta gaiztotu zituzten beren errian bizi ziradenak, eta esan zuten: Goazen, eta serbitu ditzagun ez dakizuten jainko arrotzak.

14. Jakin ezazu ajolarekin zer ote dan, eta billaturik egia, arkituko bazeneza ziertoa dala esaten dutena, eta onelako gaiztakeria bat egin dala,



15. Bereala zaurituko dituzu erri artan bizi diradenak ezpataren aoa-
rekin, eta desegingo dezu, baita bertan dauden gauza guztiak ere abere-
taraño.

16. Eta dauden tresna guztiak, bilduko dituzu beren plazen erdian,
eta erreko dituzu erriarekin batean, guztia desegiten dezula zure Jaun Jain-
koaren honran, izan dedin beti obi izigarri bat. Ez da berriz egiña izango,

17. Eta etzaio ezer itsatsiko zure eskuari anatema onetatik: aldendu
dedin Jauna bere sumiñtasunaren aserretik, eta errukitu dedin zurekin, eta
ugaritu zaitzan zure gurasoai juramentu egin zioten bezela,

18. Aditzen dezunean zure Jaun Jainkoaren boza gordetzen dituzula
bere aginte guzti, nik gaur ematen dizkizudanak, egin dezazun zure Jaun
Jainkoaren begietan oniritzia dana.

AMALAUAREN KAPITULUA

1. Izan zaitzete zuen Jaun Jainkoaren semeak, etzerate epaituko, ez
dezute ere illea ebakiko illa gatik.

2. Zeren erri santua zera zure Jaun Jainkoarentzat eta zu autu zin-
duen izan zaitezen beretzat berarizko erria, lurraren gañean dauden jende
guztien artean.

3. Ez itzatzute jan, garbiak ez diraden gauzak.

4. Au da jan bear dezuten aberea: idia, eta ardia, eta auntsa,

5. Oreña eta basaintza, idiaketza, auntzoreña, ankaruria, azterkarika,
gameluarrea.

6. Jango dezute, beatzala bi zatitan arrakatua duduen abere guzitik,
eta ausmartzen duena.

7. Baña ez dezute jan bear ausmartzen duten; eta beatzala bi zatitan
arrakatua ez duten oietatik, nola lo diraden gamelua, erbia, txerogriloa:
oiek idukiko dituzute loitzat, ausmartzen dutelako, eta beatzala arrakatua
ez dutelako.

8. Txerria ere izango da loaia, beatzala arrakatua duelako, baña aus-
martzen ez duelako. Ez dituzute jango bere aragiak, eta ez diezute ere uki-
turik egingo beren gorputz illai.

9. Uretan bizi diradenetatik, oiek jango dituzute: Jan itzatzute isatsak
eta ezkatak dituztenak:

10. Baña ez itzatzute jan isats eta ezkata gabe daudenak, loiak dira-
delako.

11. Jan ezazute egazti garbi guzietatik.

12. Ez ezazute jan loietatik: au da, arranoa, eta leoiarranoa, eta mirus-
ka,

13. Antxulunta, eta saia, eta mirua beren moten araura.

14. Eta bele mot (sic) guztia,

15. Eta saiea, eta ontza, eta kaiobeltza, eta mirotza beren moten arau-
ra.

16. Herodiona, eta beltzarga, eta mokitaia,

17. Eta itsasbelea, utxorigorria, eta gaubelea,

18. Astorroa, eta txaradiona, oietatik bakoitza beren moten araura:
basollarra ere, eta sagusiarra.

19. Eta arrastaka dijoan, eta egoak dituen guztia, izango da loaia, eta
ez da jango.

20. Jan ezazute garbia dan guztia.

21. Eta ez dezute jango ilki gauzarik batere. Emango diozu zure
ateen barrenen dagoan arrotzari, jan dezan, edo salduko diozu, zeren zu
zera erri santu, zure Jaun Jainkoarena. Ez dezu egosiko antxumea bere
amaren eznean.

22. Berezituko dezu amarrena, urteoro lurrean ernetzen zaskizun
frutu guztietatik,

23. Eta jango dezu zure Jaun Jainkoaren aurrean aututzen duen
lekuan, bertan bere izena deitua izan dedin, zure gariaren, eta ardoaren,
eta olioaren amarrena, eta zure bei, eta ardi taldeen lenbizisortuak, ikasi
dezazun zure Jaun Jainkoaren beldur izaten denbora guztian.

24. Baña bidea luzea danean, eta urrutian badago zure Jaun Jainkoak
autu duen tokia, eta bedekatu bazaitu, eta ezin eramango bazinduzke ara
gauza guzti oiek,

25. Salduko dituzu guztiak, eta itzuliko dituzu dirura, eta eramango
dezu eskuan, eta joango zera zure Jaun Jainkoak autu duen lekura.

26. Eta diru hurarekin erosiko dezu ongi deritzazuna, edo beiak, edo
ardiak, ardoa ere, eta sagardoa, eta zure animak nai duen guztia, eta jango
dezu zure Jaun Jainkoaren aurrean, eta zuk eta zure etxeak egingo dezute
janedana.

27. Eta begira ez dezazula desanparatu zure ateen barrenen dagoan
Lebita, zeren ez du beste gauzarik zu jabe zeran gauzetan.

28. Iru urterik iru urtera berezituko dezu denbora artan jaiotzen zaz-
kizun gauza guzietatik beste amarren bat, eta gordeko dezu zure ateen
barrenen.

29. Eta etorriko da, zurekin beste gauzatan partill ez dan, eta sororik
ere ez duen Lebita, eta arrotza, eta umezurtza, eta alarguna, zeñak dauden
zure ateen barrenen, eta jango dute, eta aseko dirade, bedekatu zaitzan
zure Jaun Jainkoak, egiten dituzun zure eskuen lan guztietan.



AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Zazpigarren urtean egingo dezu barkazioa,
2. Barkazio au egingo da onela. Bere adiskideak, edo lagunurkoak eta anaiaik zerbait zor dionak, ezin eskatuko dio, dalako Jaunaren barkazioko urtea.
3. Bidaisariari eta arrotzari eskatuko diozu, baña ez dezu idukiko eskurik berriz eskatzeko erritar eta aideari.
4. Beartsurik eta eskalerik batere ez da izango zuen artean: bedeikatu zaitzan zure Jaun Jainkoak, emango dizun lurrean beraren jabe izateko.
5. Baña baldin adituko bazeneza zure Jaun Jainkoaren boza, eta gordeko baziñitu agindu zituen gauza guztiak, eta nik gaur agintzen dizkizudanak, bedeikatuko zaitu, eskeñi zuen bezela.
6. Prestamenak egingo diozkazu jende askori, eta zuk ez dezu artuko iñorgandik prestamenik. Aginduko dieztezu erreñu askori, eta ez dizu iñork aginduko.
7. Baldin zure anaia zure erriko ateen barrenen bizi diradenen bat beartua jarriko balitza, zure Jaun Jainkoak emango dizun lurrean, ez dezu gogortuko zure biotza, ez eta ere itxi zure eskua,
8. Baizik zabalduko diozu beartuari, eta emango diozu, berak bear duela ikusten dezun prestamena.
9. Begira ez dakizula ixillean sartu gogorazio odolgiro bat, eta esan dezazula zure biotzean, alderatzen da barkazioko zazpigarren urtea, eta aldendu ditzazula zure begiak zure anaia beartuagandik, ez diozula eman nai eskatzen dizun prestamena, ez dizaion deadar egin Jaunari zure kontra, eta ez dakizun izan dagokitua pekatuta.
10. Baizik emango diozu, eta ez dezu ezer egingo malmuzkiro sokorritzean bere premiak, bedeikatu zaitzan zure Jaun Jainkoak denbora guzietan, eta eskua ezarten diezun gauza guztietan.
11. Ez dirade faltatuko beartsuak zu bizi zeran tokian. Argatik nik agintzen dizut idiki dizaiozula eskua zure anaia ezeuki, eta beartsu, zurekin lurrean bizi danari.
12. Saltzen zaitzunean zure anaia, edo arreba hebreotarra, eta serbitzen zaituenean sei urtean, zazpigarren urtean ipiñiko dezu bere aukeran,
13. Eta bere aukeran jarri dezunari iñolaere ez diozu utziko joaten utsik.
14. Baizik emango diozu bidornia zure abere, eta zure larrañ, eta zure dolarearekin, zeñakin zure Jaun Jainkoak bedeikatu zaituen.

15. Oroitu zaitte zu ere egon ziñala menpetasunean Ejiptoko lurrean, eta libratu zinduela zure Jaun Jainkoak, eta argatik orain nik agintzen dizut.

16. Baña esango balu: Ez det joan nai, maitatzen zaituelako zu, eta zure etxea, eta ezagutzen duelako ongi dijoakiola zurekin:

17. Artuko dezu ezten bat, eta zulatuko dezu be bere belarria zure etxeko atean, eta sebituko zaitu beti. Orobat egingo dezu neskatx menpekoarekin.

18. Ez itzatzu apartatu berak gandik zure begiak, ipintzen dituzunean aukeran, zeren sei urtean serbitu zaitu, alogereko batek alogera gatik bezela, bedeikatu zaitzan zure Jaun Jainkoak, egiten dituzun lan guzietan.

19. Konsagratuko diozkazu zure Jaun Jainkoari zure beialde eta aritaldeetan jaiotzen diraden lenbizisortu ar guztiak. Ez dezu lanean ipiñiko beiaeren lenbizisortua, eta ez dituzu moztuko ardien lenbizisortuak.

20. Urte guzietan jango dituzu zure Jaun Jainkoaren aurrean zuk eta zure etxeak, Jaunak aututzen duen tokian.

21. Baña balitza orbanik, edo balitza errena, edo itsua, edo erakaitza bizigairen baten, edo elbarritua, etzaio izango eskeñia zure Jaun Jainkoari,

22. Baizik jango dezu zure erriko ateen barrenen: naiz garbiak, naiz loiak berdin jango dute beretatik, basauntz batetik, edo oreñ batetik bezela.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Gorde ezazu frutu berrien illa, eta udaberriaren asiera, zure Jaun Jainkoaren Paskoa egin dezazun, zeren ill onetan atera zinduen zure Jainkoak Ejiptotik gauaz.

2. Eta eskeñiko diozu Paskoa zure Jaun Jainkoari ardiakin eta beiaikin, zure Jaun Jainkoak aututzen duen lekuan, izan dedin an aipatua bere izena.

3. Eta ez dezu jango beratan legamidun ogirik, zazpi egunean jango dezu atsekabeko ogia legamirikan gabe, zeren beldurrarekin atera ziñan Ejiptotikan, oroitu zaitzezen zu Ejiptotik atera ziñan egunarekin, zure bizitzako egun guzietan.

4. Ez da ajertuko legamirikan zure muga guzietan zazpi egunean, eta lenbiziko eguneko arratsaldean eskeñiak izan diraden aragietatik, ez da ezer geldituko biaramon goizerako,

5. Ezin eskeñiko dezu Paskoa, zure Jaun Jainkoak emango dizkizun zure errietatik edozeñean,



6. Baizik zure Jaun Jainkoak aututzen duen tokian, izan dedin aipatua an bere izena, eta eskeñiko dezu Paskoa arratsaldean eguzkiaren sarre-
ra, Ejiptotikan atera ziñanean.

7. Eta egosiko dezu, eta jango dezu, zure Jaun Jainkoak aututzen duen tokian, eta goiz jaikirik, joango zera zure etzauntzetara.

8. Sei egunean jango dituzu legami gabeak, eta zazpigarren egunean zure Jaun Jainkoaren batzarreko eguna dalako, ez dezu lanik egingo.

9. Zazpi aste kontatuko dituzu, uztai igitaia ezarten diezun egunetik.

10. Eta zelebratuko diozu zure Jaun Jainkoari asteen jaia, zure eskua-
ren borondatezko eskeñtza, zeñ eskeñiko dezun zure Jaun Jainkoaren bendizioaren araura,

11. Eta egingo dezu janedana zure Jaun Jainkoaren aurrean, zuk, zure semeak, zure alabak, zure morroiak, eta zure neskameak, eta zure ateen barrenen dagoan Lebitak, arrotzak, eta umezurtzak, eta alargun zuekin bizi diranak, zure Jaun Jainkoak aututzen duen lekuan, an aipatua izateko bere izena.

12. Eta oroituko zera menpekoka izandu ziñala Ejipton, eta gorde eta beteko dituzu aginduak dauden gauzak.

13. Zelebratuko ere dezu Tabernakuloen jaia zazpi egunean, biltzen dituzunean larrañeko, eta dolareko zure frutuak.

14. Eta egingo dezu janedana zure jaian, zuk, zure semeak, eta alabak, zure morroiak eta neskameak, Lebitak ere, eta arrotzak, eta umezurtzak, eta alargun zure etxeen barrenen daudenak.

15. Zazpi egunean zelebratuko diozkazu jaiak zure Jaun Jainkoari, Jaunak aututzen duen tokian, eta bedeikatuko zaitu zure Jaun Jainkoak zure frutu guzietan, eta zure eskuen lan guzian, eta pozik egongo zera.

16. Zure gizaseme guzia ajertuko da urtean iru aldiz zure Jaun Jainkoaren aurrean aututzen duen tokian, legamigabeen jaian, asteen jaian, eta tabernakuloen jaian. Ez da agertuko utsik Jaunaren aurrean,

17. Baizik bakoitzak eskeñiko du duenaren neurrian, bere Jaun Jainkoak eman dion bendizioaren araura.

18. Ipiñiko dituzu juezak, eta irakasleak, zure Jaun Jainkoak ematen dizkizun zure ate guztietan, zure tribu bakoitzean, juzgatu dezaten erria juizio justoarekin,

19. Zeartu gabe aldamen batera, edo bestera. Etzera izango pertso-
neen, ez eskeñtzen artzallea, zeren eskeñtzak itsututzen dituzte jakintsuen begiak, eta aldatzen dituzte justoen itzak.

20. Zuzen egingo dezu justizia bizi zaitezen, eta izan zaitezen zure Jaun Jainkoak ematen dizun lurraren jabe.

21. Ez dezu ipiñiko basorik, ez zuaitzik zure Jaun Jainkoaren alda-
rearen aldean.

22. Ez dezu egingo zuretzat, ezta ere altxatuko irudirik, zeñai gorro-
to dioten zure Jaun Jainkoak.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Ez diozu eskeñiko zure Jaun Jainkoari orbanik, edo errenkuraren bat duen ardirik, edo idirik, zeren gauza nazkagarria da au zure Jaun Jainkoaren aurrean.

2. Arkitzen diradenean zauden tokian, zure Jaun Jainkoak emango dizkitzun zure errien barrenen, gizaseme, edo emakume gauza gaiztoa egiten dutenak zure Jaun Jainkoaren aurrean, eta ausitzen dutenak bere elkartasuna,

3. Joateko serbitzera jainko arrotzak, eta berak adoratzera, eguzkia eta illargia, eta zeruko izar guztiak, zeñak ez ditudan nik agindu,

4. Eta berri au emana izango balitzatzu, eta aditurik egingo bazeneza azterren arretazkoa, eta arkituko bazeneza egia dala, eta gaitzakeria au egiña izan dala Israelen,

5. Aterako dituzu alako gauza txit gaiztoa egin duten gizasemea, eta emakumea, zure erriko ateetara, eta arrika illak izango dirade.

6. Lekuko bi, edo iruen esanera galduko du bizia eriotzaren diña danak. Ez bedi iñor il, lekuko bat bakarra dagoanean bere kontra.

7. Lekukoen eskua izango da ilko duen lendabizia, eta gañerako erriaren eskua izango da atzenean ezarria.

8. Iduki baldin bazeneza zuretzat gauza gaitza, eta zalanazkoa dala erabakia odolaren eta odolaren, gauzaren eta gauzaren, legenaren eta legenaren artean. Eta ikusiko baldin bazeneza zure errian daukazun juezen iritziak desberdiñak diradela, jaiki, eta igo zaitte zure Jaun Jainkoak aututzen duen tokira.

9. Eta joango zera Lebiren jatorriko apaizak gana, eta denbora artan jueza dana gana, eta itunduko zera berakin, eta berak esango dizute nola juzgatuko dezun egia-
ren araura.

10. Eta egingo dezu, Jaunak aututzen duen tokian agintzen dutenak esaten duten guztia, eta irakasten dizuten guztia,

11. Beraren legearen araura, eta jarraituko diozu beren iritziari, eta etzera zeartuko eskuiera, ez ezkerrera.

12. Baña arrotzen dana, ez obeditu nairik, denbora artan zure Jaun Jainkoa serbitzen dagoan apaizaren aginteari, ez juezaren erabakiari, illa izango da gizon hura, eta kenduko dezu gaitza Israeldikan.



13. Eta au aditurik erri guzia beldurtuko da, aurrerakoan inor arrotu ez dedin antustearekin.

14. Sartzen zeranean zure Jaun Jainkoak emango dizun lurrean, eta egiten zeranean beraren jabe, eta bizitzen zeranean bertan, eta esaten dezuean: Jarriko det nere gañean errege bat, inguruan dauden erreñu guziak duten bezela,

15. Jarriko dezu, zure Jaun Jainkoak zure anaien erditikan aututzen duen hura. Ezin egingo dezu errege, beste erreñutako gizon, zure anaia ez danik.

16. Eta jarria danean, ez ditu ugarituko bere zaldiak, ez du ere berriz eramango erria Ejiptora, arroturik bere zaldidiaren ugaritasunarekin, batezere (sic) Jainkoak agindu zizuten ezkerro etzindeztela itzuli bide huratikan beratatikan.

17. Ez ditu idukiko emazte asko, pozkeriakin bere biotzarekin jabetu ez ditezen, ezta ere neurtu ezin dezakean adiña zillar eta urre.

18. Eta eseri ezkerro bere erreñuko jargoian, eskribatuko du beretzat liburu batean lege onen Deuteronomioa, artzen duela liburu bat Lebiako tribuko apaizak gandik.

19. Eta idukiko du berarekin, eta irakurriko du bere bizitzako egun guzietan, ikasi dezan bere Jaun Jainkoaren beldur izaten, eta zaitzen bere itz, eta zeremonia, legean aginduak daudenak.

20. Bere biotza arrotu ez dedin bere anaien gañean, eta ez dezan ere alderik egin eskuiera, edo ezkertera, agindu dezaten berak eta bere semeak denbora luzean Israelen gañean.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Apaizak eta Lebitak, eta tribu artakoak beratakoak diradenak, ez dute idukiko parterik ez primezarik gañerako Israelekin, zeren jango dituzte Jaunaren doañak, eta bere eskeñiak.

2. Eta ez dute artuko beste gauzarikan batere, beren anaiak jabe diradenetikan, zeren Jauna bera da beren primeza, itz egin zioten bezela.

3. Au da apaizak idukiko duten eskua erriagan, eta doañak eskeñitzen dituztenakgan, eskeñitzen baldin badute idia, edo ardia, emango diote apaizari bizkarra, eta sabeltxoa,

4. Gariaren, ardoaren, eta olioaren lendabiziak, eta illeen parte bat ardien mozkintzatik.

5. Zeren bera autu zuen zure Jaun Jainkoak zure tribu guzietatik, egon dedin, eta serbitu dezan Jaunaren izena, berak eta bere semeak beti.

6. Aterako baldin balitza Lebitaren bat bizi dan Israel guziko zure erri guzietatik batetik, eta naiko balu etorri, Jaunak autu duen tokiaren gurarekin,

7. Ariko da bere lanean bere Jaun Jainkoaren izenean, bere anaia Lebita, denbora artan Jaunaren aurrean egongo diradenak bezela.

8. Artuko du besteak bezelako janarien partea hura bera, salbu bere errian aitaren jatorriko semepartetik zor zaion hura.

9. Sartzen zeranean zure Jaun Jainkoak emango dizun lurrean, kontu ez ditzatzula nai imitatu jende aien nazkagarriak;

10. Ez dedilla ere arkitu zuen artean garbitzen duenik bere semea, edo alaba, iragotzen dituztela sutatik, edo aztiai galdetzen dietenik, edo ametsai eta aztinantzai sinistea ematen dionik, ez sorgiña danik,

11. Ez arritzallerik, ez pitonen espiritua dutenakin itutzen danik, ez asmatzallerik, ez illen bitartez egia billatzen duenik.

12. Zeren gauza guzi oiei gorroto diote Jaunak, eta oiek bezelako gaiztakeriak gatik desegingo ditu zure sarreran.

13. Izango zera onosoa, eta norbanik gabea zure Jaun Jainkoarekin.

14. Jende oiek, zeñäen lurrean izango zeran, aditzen dituzte aztiai, eta asmatzalleak: zu berriz bestela zaude zure Jaun Jainkoak irakasia.

15. Zure Jaun Jainkoak irakoriko du zuretzat zure erritik, eta zure anaien artetik ni bezelako Profeta bat, bera adituko dezu,

16. Eskatu ziñon bezela zure Jaun Jainkoari Horeben, bildu zanean erria, eta esan zenduen: Ez det adituko emendikan aurrera nere Jaun Jainkoaren boza, eta ez det ere berriz ikusiko su txit andi au, il ez nadin.

17. Eta Jaunak esan zidan: Guziak ongi itz egin dute.

18. Irakoriko det berentzat zure antzeko Profeta bat beren anaien erditik, eta ipiñiko ditut nere itzak bere aoan, eta esango diozkate nik agintzen diozkadan gauza guziak.

19. Berriz aditu nai ez dituenak nere izenean esango dituen bere itzak, ikusiko du beragan nere aserrea,

20. Baña arrokeriarekin gaiztotuta Profeta, esan nai baldin balitu nere izenean, nik esateko agindu ez diozkadan gauzak, edo itz egingo balu jainko arrotzen izenean, illa izango da.

21. Eta baldin esango bazeneza ixillean zure gogorazioarekin: Nola aditu nezake Jaunak esan ez duen itza?

22. Señale au idukiko dezu: Profeta hurak Jaunaren izenean esan duena lendanaz, egiztatzen ez baldin bada, ez du au Jaunak itz egin, baizikan, profetak bere biotzeko antustearekin asmatu du, eta argatik etzaite beraren beldur izan.



EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Galtzen dituenean zure Jaun Jainkoak jendeak, zeñaien lurra eman-go dizun, eta egiten zeranean beraren jabe, eta bizitutzen zeranean beraren errietan eta etxeetan;

2. Iru erri berezituko dituzu, zure Jaun Jainkoak beraren jabe izateko emango dizun lurraren erdian,

3. Lauturik arretarekin bidea, eta berezituko dezu iru zati berdiñetan zure lurreko probintzia guztia: igesi dabillanak norbait ill duelako, iduki dezan nun ezkutatu.

4. Au izango da eralla igesi dabillanaren, bere bizia salbatua izango danaren legea, zauritzen duenak bere projimua ezjakiñean, eta ongitzen dana ez duela iduki bere kontra gorrotorikan batere atzo, eta erainegun:

5. Baizik joan zala toleskabeto berarekin basora egurra epakitsera, eta egurrak epakitzen ari zala iges egin zitzaiola aizkorak eskutikan, eta aterarik burnia kirtenetik zauritu, eta ill zuela bere adiskidea. Onelakoak goian aipatu diraden errietatik batera iges egingo du, eta biziko da:

6. Odola isuria izan danaren aidereen batek, miñarekin zirikatua izanik, persegitu ez dizaion, eta arrapatu ez dezan, bidea luzea baldin balitza, eta ill ez dezan eriotzaren diña ez dana, ongitzen dan ezker, etzuela lendikan iduki gorrotorik, illa izan zanaren kontra.

7. Argatik agintzen dizut berezitu ditzatzula iru erri urrutitasunean bide berdiñekoak beren artean.

8. Berriz zure Jaun Jainkoak zabaltzen dituenean zure mugak, juramentu egin zioten bezela zure gurasoai, eta ematen dizunean, berai eskeñi zioten lur guztia,

9. Gordetzen baldin badituzu bere aginteak, eta egiten baldin badituzu gaur agintzen dizkizudan gauzak, maitatzeko zure Jaun Jainkoa, eta ibiltzeko bere bideetatik denbora guzian, geituko dituzu beste iru erri, eta goian aipatu diraden iru errien zenbata bibidertuko dezu,

10. Isuria izan ez dedin odol obengabea, ..., zure Jaun Jainkoak beraren jabe izateko emango dizun lurraren erdian, eta izan etzaitzen gizon illaren obendun.

11. Baña baldin norbaitek gorroto izanik bere projimuari, zelatadak jarriko baliozka bere bizitzari, eta jaikirik zaurituko balu, eta ilko balitza, eta iges egingo balu goian aipatu diraden errietatik batera.

12. Bidalduko dituzte bere erriko zaarrak, eta aterako dute gordeta dagoan tokitik, eta jarriko dute odola isuria izan danaren aidearen eskuan, eta illa izango da.

13. Etzera berarekin errukituko, eta kenduko dezu Israeltikan odol obengabea isuri duena, ongi joan dakizun.

14. Ez dituzu artuko, ez iragoko zure projimuaren muga, zu jabe zeran lurrean anziñakoak jarri zituztenak, zeñ zure Jaun Jainkoak emango dizun, beraren jabe izateko, artuko dezun lurrean.

15. Ez du balioko lekuko bakar batek beste baten kontra, dan bezelakoa dala oben, edo gaiztakeria, baizik guzia erabakiko da bi, edo iru lekuko esanarekin.

16. Presentatuko balitza lekuko gezurti bat gizonen baten kontra, salatze nola ausi duen fedea,

17. Auzia duten biak jarriko dirade Jaunaren aurrean, egun aietan juez, eta apaiz diradenean aurrean.

18. Eta egijñik azterrena arreta txit andiarekin, arkituko baldin balute gezurra esan duela bere anaiaren kontra lekuko falsoak.

19. Egingo diote, bere anaiari egitea pensatu zuen bezela, eta kenduko dezu gaitza zure erditik,

20. Aditurik gañerakoak beldur izan ditezten, eta iñolaere ez ditezten ausartatu alako gauzarik egiten.

21. Etzera berarekin urrikarituko, baizik pagatu eragingo diozu begiagatik begia, ortzagatik ortza, eskuagatik eskua, oñagatik oña.

OGEGARREN KAPITULUA

1. Aterako baziña gudara zure etsaien kontra, eta ikusiko bazeneza etsaiak dauzkala zuk dituzun baño zaldidi, eta gurdidi, eta ejerzitu andiagoa, alaere etzera beren beldur izango, zeren zure Jaun Jainko, Ejiptoko lurretikan atera zinduen zurekin da.

2. Eta alderatzen danean batalla, jarriko da apaiza soldadutaldearen aurrean, eta onela itz egingo dio erriari:

3. Aditu ezazu Israel, zuek gaur zoazte gudarzera zuen etsaien kontra, ez bedi erori zuen biotza, etzaitzte beldurtu, ez ezazute oñikan atzera itzuli, ez ezazute iduki beren beldurrik,

4. Zeren zuen Jaun Jainkoa zuen erdian dago, eta gudarzera da zuek gatik etsaien kontra, ateratzeko zuek perilletik.

5. Kapitanak ere bakoitzak bere taldean deadar egingo dute ejerzituak aditzen duela: Zeñ da gizona etxe berriren bat egin duena, eta bertan bizitu izan ez dana?

Bijoa, eta itzuli bedi bere etxera, ill ez dedin gerran, eta beste gizon batek egin ez dezan berari tokatzen zitzaiona.



7. Zeñ da gizona ezkontitzatu dana emakumeren batekin, eta artu ez duena? Bijoia, eta itzuli bedi bere etxera, ill ez dedin gerran, eta beste gizonen batek artu ez dezan.

8. Oiek esanik itsatsiko dituzte gañerakoak, eta onela itz egingo diote erriari. Zeñ da gizon beldurti, eta biotz gutxikoa? Bijoia, eta itzuli bedi bere etxera, beldurrez bete ez ditzan bere anaien biotzak bera ere beldurrez beterik dagoan bezela.

9. Eta ejerzituko kapitanak ixiltzen diradenean, eta bukatzen dute-nean beren izketa, gertutuko ditu bakoitzak bere taldeak gudarako.

10. Alderatuko baldin baziña noizbait erriren bati esestera, aurrena eskeñiko diozu pakea.

11. Artuko baldin balu, eta idikiko baldin balizkizu atea, bertan dagoan erri guztia salbatua izango da, eta serbituko zaitu jarririk zure mendean.

12. Baña ez baldin balu egin nai elkartasunik, eta asiko balu gerra zure kontra, esetsiko diozu.

13. Eta zure Jaun Jainkoak jartzen duenean zure eskuan, iragoko dituzu ezpataren puntarekin bertan dauden gizon guztiak.

14. Baña ez emakumeak, ez aurrak, ez abereak, ez errian dauden beste gauzak. Arrapatu dezun guzia partituko diozu ejerzituari, eta jango dituzu zure etsaia arrapatutako gauza, zure Jaun Jainkoak ematen dizkizunak.

15. Ala egingo diezu zugandikan txit urrutian dauden erri guziaz, eta ez diradenai artuko dituzun erritatikoak beren jabe izateko.

16. Berriz ez diozu bizirik utziko, emango zaskizun errietako bati bakarrik ere,

17. Baizik ilko dituzu ezpataren puntarekin, au da, Heteoa, eta Amoreoa, eta Kananeoa, Fereseoa, eta Hebeoa, eta Jebuseoa, zure Jaun Jainkoak agindu zizun bezela,

18. Irakasi ez ditzatzuten berak beren Jaungoikoai egin diozkaten eskeñtza gaiztoak egiten, eta bekatu egin ez dezazuten zuen Jaun Jainkoaren kontra.

19. Esesten diozunean denbora luzean erriren bati, eta ingurutzen dezunean lutesiak beren arrapatzeko, ez dituzu ebakiko zuaitz, beren fruituak jan litzakenak, ez dituzu ere ondolik ebakiko aizkorakin bere inguruko alderriak, zeren zura da, ta ez gizona, eta ezin lezake geitu zure kontra gerran egiten dutenen zenbata.

20. Baña baldin zuaitzen batzuk ez balirade frutu emaleak, baizik basatiak, eta beste gauza batzuetarako egokiak, ebaki itzatzu, eta egin berarekin gudatresnak, zure kontra gerran ari dan erria artu artean.

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Arkitzen danean zure Jaun Jainkoak emango dizun lurtean gizon illaren gorputzen bat, eta ez baldin balitza jakingo nor dan gizonillaren (sic) obenduna.

2. Aterako dirade zure zaarrak, eta juezak, eta neurtuko dute gizon illa dagoan tokitik inguru guzietako errietako lurra.

3. Eta besteak baño alderago dagoala ezagutzen duten erri artako zarrak, artuko dute beitaldeko txal, uztarririk erabili ez duen, eta goldearekin lurrik urratu ez duen bat,

4. Eta eramango dute ibar latz, eta arritsu, iñoiz landua izan ez danera, ez azirik ereñ ez danera, eta an lepoa ebakiko diote txalari.

5. Eta alderatuko dirade Lebiren seme apaiz, zure Jaun Jainkoak autu zituenak beraren lanetan aritzeko, eta emateko bedekiazioa bere izenean, eta beren itzak erabaki dezala ezbai guzia, eta zer dan garbia, edo zikiña.

6. Eta etorriko dirade erri artako zarrak illagana, eta garbituko dituzte beren eskuak, ibarrean zauritua izan dan txalaren gañean.

7. Eta esango dute: Gure eskuak etzuten isuri odol au, ezta gure begiak ere ikusi.

8. Urrikariz begiratu zaiozu, Jauna, zure Israelko erri, erredimitu zenuenari, eta ez bitzaiozu dagoki odol obengabea, Israelko zure erriaren erdian. Eta kendua izango da berak gandik odolaren miñondorea.

9. Eta zuk ez dezu erantzun bearko, isuria izan dan odol obengabea gatik, egiten dezunean Jaunak agintzen dezuna.

10. Aterako baziña gudara zure etsaien kontra, eta zure Jaun Jainkoak jarriko baldin balitu zure eskuan, eta katibu eramango baziñitu,

11. Eta ikusiko baldin bazeneza katibuen artean emakume ederren bat, eta txit maitatuko bazeneza onelakoren bat, eta emaztetzat artu naiko baldin bazeneza,

12. Eramango dezu zure etxera, arras kenduko du bere illea, eta ebakiko ditu atzalak.

13. Eta utziko du katibu egiña izan zanean iduki zuen jantzia; eta gelditurik egotez zure etxean, negar egingo du illa betean bere aita eta bere amagatik, eta gero sartuko zera beragana, eta lo egingo dezu berarekin, eta izango da zure emaztea.



14. Baña baldin gero iguñaz begiratuko baldin baziñoike, bidalduko dezu lokarrigabe, ezin salduko dezu diruagatik, ez iduki menpean gogortasunaz, desloratu zenduen ezkeru.

15. Gizon batek idukiko baldin balitu bi emazte, bata maite duena eta bestea gorroto diona, eta egingo baldin balitzaiozkate semeak, eta gorroto dionaren semea baldin balitza lenbizisortua,

16. Partitzen duenean hazienda semeen artean, ezin egingo du primu maitearen semea, utzirik aldamen batera maite ez duenaren semea,

17. Baizik ezagutuko du primutzat gaizki nai dionaren semea, eta emango diozka dauzkan gauza guzietatik bialditan anbat, zeren izanik bere semeetatik lenbizia, berari zor zaio primutza.

18. Gizon batek baldin balu seme ezikaitz, eta lotsagalduko, aditzen ez duena aitaren, edo amaren agintea, eta kastigatua izanik ere mezpreezioz obeditu nai ez diotena.

19. Eldu bitzaiote, eta eramane bezate erri artako zarrakgana, eta juzgauko atera:

20. Eta esango diezte: Gure seme au da setatia, eta lotsagaldukoa, mezpreezioaz aditzen ditu gure esanak, eta bizi da janedanetan, nasaikerietan, eta tripontzikerietan,

21. Iriko erriak arriz estaliko du, eta illa izango da, kendu dezazuten gaizta zuen erditik, eta Israel guzia au aditurik beldurtuko da.

22. Gizonen batek egingo baldin balu eriotzaren diña dan bekaturen bat, eta eriotzara kondenaturik izango baldin balitza esekia urkamendian,

23. Ez da geldituko bere gorputza illa zurean, baizik egun huratan berean izango da obiratua, zeren Jaungoikoak madarikatua da zurean esekia dagoena, eta ez dezu iñolaere loituko zure lur, zure Jaun Jainkoak beraren jabe izateko ematen dizuna.

OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Ikusten dezunean zure projimuaren idiren bat, edo ardiren bat galduta dabilzala, etzaite irago malmetitu gabe baizik zuzenduko diozka zure anaiari.

2. Zure anaia ez balitza ere auzokoa, eta ezagutuko ere ez baldin bazeneza, eramango dituzu zure etxera, eta idukiko dituzu zurekin zure anaiak billatu eta berriz artzen dituen bitartean.

3. Orobat egingo dezu astoarekin, eta jantzigaiarekin, eta zure anaiak galtzen duen beste edozeñ gauzarekin. Arkituko baldin bazeneza, ez ezazu bertan bera utzi besterena dalako.

4. Baldin ikusiko bazeneza zure projimuaren asto, edo idiren bat eroria bidean, etzera aurrera iragoko malmelitu gabe, baizik lagunduko diozu jasotzen.

5. Emakumeak ez ditu jantziko gizasemearen soñekoak, ez da gizasemeak ere emakumearen soñekoak, zeren oiek egiten dituen nazkagarria da Jaunaren aurrean.

6. Bidean ibillirik baldin arkitu bazeneza egaztiren baten kabiaren bat zuaitezean, edo lurrean, eta ama datzala umeen, edo arraultzeen gañean, ez dezu atxituko umeakin.

7. Baizik utziko diez joaten, gelditzen zerala arrapatu dituzun umeakin, ongi joan dakizun, eta bizi zaitezen denbora luzean.

8. Etxe berriren bat egiten dezunean, egingo dezu auzparria tellatua inguruan, odola isuria izan ez dededin zure etxean, eta izan etzaitezen odolaren obendun norbait erori, edo amilduko balitza.

9. Ez dituzu ereiño zure mastian bi azi, santutuak izan ez ditezten bai ereiñ zenduen azia, bai mastitik jaiotzen dana.

10. Ez dezu goldeatuko idi, eta astoarekin batean.

11. Ez dezu jantziko illearekin, eta liñoarekin eoa dagoen soñekorik.

12. Jarriko dituzu estalitzen zeran kaparen lau egaletan, estugarritxo batzuek lau ertzetan.

13. Gizon batek artuko balu emaztea, eta gero gorroto izango balio;

14. Eta ibilliko balitza aitzakia billa utziteko, dagokitzen diola gaiztakeria txit itsusi bat, eta esango balu: Nik artu nuen emakume au, eta sarturik beragana, ez nuen arkitu donzella.

15. Artuko dute bere aitak, eta bere amak, eta eramango dituzte berakin bere donzellatasunaren señaileak, atean dauden erriko zarrak gana.

16. Eta esango du aitak: Nik oni eman nion emaztetzat nere alaba, zeñi gorroto diolako,

17. Dagokitzen dio gaiztakeria txit itsusi bat, esaten duela: Ez nuen arkitu donzella zure alaba, eta ona emen non dauden nere alabaren donzellatasunaren señaileak. Zabalduko dute soñekoa erriko zarren aurrean.

18. Eta elduko diote erri artako zarrak senarrari, eta azotatuko dute.

19. Kondenatzen dutela gañera pagatzera zillarrezko eun siklo, zeñiak emango diozkan neskatxaren aitari, zeren desfamatu zuen Israelko donzella bat dagokirik gaiztakeria txit itsusi bat, eta idukiko du emaztetzat, eta ezin utziko du bere bizitzako egun guztietan.

20. Baña egia baldin balitza dagokitzen diona, eta neskatxagan arkitua izan ez balitza donzellatasuna.



21. Botako dute bere aitaren etxeko ateetatikan kanpora, eta arriz estaliko dute erri artako gizonak, eta illa izango da, gauza nazkagarria egin zuelako Israelen, aragizko bekatuan erortzeaz bere aitaren etxean, eta kenduko dezu gaitza zure erditik.

22. Lo egingo balu gizon batek iñoren emaztearekin, biak illak izango dirade, au da, adulterioko bekatua egin duten gizona, eta andrea, eta kenduko dezu gaitza Israeldikan.

23. Baldin mutil bat ezkontizatuko balitza neskatz donzella batekin, eta arkituko balu norbaitek errian, eta berarekin aragizko bekatua egingo balu,

24. Aterako dituzu biak erri artako atera, eta arriz estaliak izango dirade, neskatz, deadar egin etzuelako, egonik errian, gizasemea, lotsatu duelako bere proiektuaren ezkontizatua, eta kenduko dezu gaitza zure erditik.

25. Baña baldin kanpoan arkituko balu gizasemeak neskatz, ezkontizatua, eta eldurik, egingo balu berarekin aragizko bekatua, gizasemea bakarrik izango da illa.

26. Etzaio ezer egingo neskatzari, ez da ere eriotzaren obendun, zeren nola lapur bat jaikitzen dan bere anaiaren kontra, eta kentzen dion bizia, ala neskatz ere izan zan gogorrean artua.

27. Bakarrik zegoan kanpoan, deadar egin zuen, eta etzan egon nork libratu zezakean.

28. Arkituko baldin balu gizaseme batek neskatz donzella ezkontizatu gabea, eta arrapaturik egingo balu berarekin aragizko bekatua, eta gauza au gatik auzitan ariko balira,

29. Emango diozka neskatzarekin lo egin zuenak, neskatzaren aitari berrogeita amar siklo zillarrezko, eta ezkonduko da berarekin, lotsatu zuelako. Ezin utziko du bere bizitzako egun guzietan.

30. Ez du artuko gizonak bere aitaren emaztea, ez du ere agertuko bere estalkia.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Ez da sartuko Jaunaren etxean txikiratu, dituena lotsari zapalduak, zerezenduak, edo ebakiak.

2. Borta, au da, emakume galduagandik jaioa ezin sartuko da Jaunaren Elizan amargarren gizaldiraño.

3. Ammontarra, eta Moabtarra ez dirade iñoiz sartuko Jaunaren Elizan, ez da amargarren gizaldia iragota ere,

4. Ez zitzatzutelako bidera atera nai ogi, eta urarekin, atera ziñate-nean Ejiptotik, eta alogera eman ziotelako zure kontra Baalam Beorren seme, Siria Mesopotamiakoari, madarikatu zintan

5. Eta zure Jaun Jainkoak etzuen aditu nai izan Balaam, eta bere madarikazioa itzuli zuen zure bedeikazioan, maite zinduelako.

6. Ez ezazu egin berakin pakerik, eta etzaiezu ere billatu iñoiz gauza onik zure bizitzako egun guzietan.

7. Ez ezazu iduki nazkan Idumeoa, zure anaia dalako, ezta ijitoa ere, zeren arrotza izan ziñan lurrean.

8. Berakgandik jaiotzen diradenak sartuko dirade Jaunaren elizan irugarren gizaldian.

9. Ateratzen zeranean zure etsaiakin gudatzera, kontu ez dezazula gauza gaiztorik batere egin.

10. Baldin balitza zuen artean loitu danik gaueko ametzen bat gatik, aterako da etzauntzetik kanpora,

11. Eta ez da itzuliko aliketa arratsaldean garbitua izan dedin bitartean urarekin, eta eguzkia sartzen danean itzuliko da etzauntzetara.

12. Izentatuko dezu etzauntzetik kanpora toki bat nora joango zeran berezko premien eskabideak betetzera.

13. Eramaten dezula makilla zorrotz bat gerrian, zeñarekin egingo dezu zulo bat, estalitzen dezula gero lur aterearekin loa.

14. Zeren zure Jaun Jainkoa dabil etzauntzaren erdian zu libratzeko, eta jartzeko zure eskuan etsaiak, eta ala zure etzauntzak egon bear dute garbiak, eta ez da ikusi bear beretan gauza loirik, Jaunak utzi etzaizan.

15. Ez dezu jarriko bere nagusiaren eskuetan, zugana iges egiten duen mendekoa.

16. Biziko da zurekin nai duen tokian, eta atserengo du zure errietik batean, eta etzaiozu ere naigaberik eman.

17. Ez bedi egon Israelko alaben artean bordionik batere; ez gizon emajauslerik Israelko semeen artean.

18. Ez dezu eskeñiko zure Jaun Jainkoaren etxean egin dezun edozeñere boto kunplitzeko bordionkeriaren saria, ez txakurraren balioa, bata ta bestea nazkagarriak diradelako zure Jaun Jainkoaren aurrean.

19. Ez diozu prestatuko zure anaiari lukuruan ez dirua, ez aleak, ez beste gauzarik,

20. Baizik bakarrik arrotzai. Zure anaiari berriz prestatuko diozu bear duena lukururikan gabe, bedeikatu zaitzan zure Jaun Jainkoak zure lan guzietan, sartzeraz zoazan lurrean beraren jabe izateko.



21. Botoren bat egiten diozunean zure Jaungoikoari, ez ezazu luzatu kunplitzea: zeren bere kontua artuko dizu zure Jaun Jainkoak, eta luzatzen baldin badezu, bekatu egingo dezu.

22. Ez baldin badezu nai egin eskintzarik, ez dezu bekatu egingo.

23. Baña bein zure ezpañetatikan ateratzen dana, gorde, eta kunplitu dezu, zure Jaun Jainkoari eskeñi ziñion bezela, eskeñi zenduen ezkerre zure borondatez, eta zure aoz.

24. Sartzen zeranean zure projimuaren mastian, jan itzatzu nai dituzun matz guziak, baña ez ezazu atera matzik zurekin kanpora.

25. Sartuko baldin baziña zure adiskidearen garitzan, artuko dituzu galburuak, eta igortziko dituzu eskuakin, baña ez dituzu ebakiko igaitaia-rekin.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Baldin gizon batek artuko balu emaztea, eta idukiko balu berarekin eta ez balitza izango bere gogokoa ezaintasunen batgatik: eskribatuko du utziaren agiria, eta jarriko du emaztearen eskuan, eta bidalduko du bere etxetik.

2. Eta aterarik, besteren batekin ezkontzen danean,

3. Eta onek ere gorroto izango balio, eta emango balio utziaren agiria, eta bidalduko balu bere etxetik, edo gizona ilko balitza,

4. Ezin artuko du lenbiziko senarrak emaztetzat, zeren loitua izan da, eta nazkagarria egiña Jaunaren aurrean. Etzaiozu bekatu eginerazi, zure Jaun Jainkoak bere jabe izateko ematen dizun lurrari.

5. Eta emaztea artu berri dagoan gizona, ez da joango gerrara, etzaio ere emango erriko lantegirik, baizik bekatu gabe bere etxean ariko da, bere emaztearekin urte betean poztu dedin.

6. Ez dezu artuko prendaren tokian errotarri goikoa, ez beekoa: zeren aurrean jarri dizu bere bizia.

7. Arrapatuko baldin balitza gizonen bat sonsakatzen bere anaia Israelko semeren bat, eta salduri au artuko balu balioa, illa izango da, eta kenduko dezu gaitza zure erditikan.

8. Begiratu ezazu arretarekin egin etzaitezen legenarraren izurriaren diña, baizik egingo dezu Lebiren jatorriko apaizak irakasten dizuten guzia, agindu nienaren araura, eta osaro bete ezazu.

9. Oroitu zaitezte zer egin zuen, zuen Jaun Jainkoak Mariarekin bidean, ateratzen ziñatenean Ejiptotikan.

10. Eskatzen diozunean zure lagun urkoari zor dizun gauzaren bat, etzera sartuko bere etxean, kentzeko prenda,

11. Baizik egongo zera kanpoan, eta berak aterako dizu duena:

12. Baña beartsua baldin balitza, ez du gaurik egingo zure etxean prendak,

13. Baizik bereala itzuliko diozu eguzkia sartu baño lenago: lo egiñik bere arroparekin, bedeikatu zaitzan, eta iduki dezazun irabazia zure Jaun Jainkoaren aurrean.

14. Ez diozu ukatuko alogera zure anaia premiadun eta beartuari, ez zurekin lurrean bizi dan, eta zure ateen barrenen dagoan arrotzari.

15. Baizik egun artan berean itzuliko diozu bere lanaren alogera, eguzkia sartu baño lenago, beartua dalako, eta orrekin bizi dalako, zure kontra Jaunari deadar egin ez dizaion, eta bekatura dagokitu ez dakizun.

16. Ez dirade illak izango gurasoak semeakgatik, ez semeak gurasoak gatik, baizik bakoitza izango da illa bere bekatua gatik.

17. Ez diozu egingo bidegabekeriarik arrotzari, ez umezurtzari, ez diozu ere artuko alargunari bere soñekoa prendatzat.

18. Oroitu zaite menpekora izan ziñala Ejipton, eta zure Jaun Jainkoak atera zinduela andikan. Argatik agintzen dizut egin dezazula gauza au.

19. Igitaitzen dituzunean uztak zure kanpoan, eta utziko bazeneza garibillaren bat aztuta, etzera itzuliko bera artzera, baizik utziko dezu eraman dezan arrotzak, eta umezurtzak, eta alargunak bedeikatu zaitzan zure Jaun Jainkoak zure eskuen lan guzian.

20. Ariko baziña biltzen oliboen frutua, etzera itzuliko artzera zuaitzetan gelditzen dana, baizik utziko diozu arrotzari, umezurtzari eta alargunari.

21. Mendaintzen dezunean zure mastia, ez dituzu bilduko gelditzen diraden mordoak, baizik utzi itzatzu arrotzarentzat, umezurtzarentzat, eta alargunarentzat.

22. Oroitu zaite zu ere menpekora izandu ziñala Ejipton, eta argatik agintzen dizut egin dezazula gauza au.

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Izango baldin balitza auziren bat nortzukbaiten artean, eta joango balirade juezak gana, oiek emango diote zuzentasuneko palma, argiro eza gutzen dutenari diña dala, eta gaiztoa dala ezagutzen dutena kondenatuko dute gaiztakeria gatik.

2. Ikusiko baldin balute berriz bekatu egin duena azoteen diña dala, aginduko diote etziteko lurrean, eta azotatuereziko dute beren aurrean. Bekatuaren neurritza izango da azoteen zenbata ere.



3. Baña ez diteztela inoiz irago berrogeitik, joan ez dedin zure anaia, zure begien aurrean itsusikiro zaurituta.
4. Ez dezu lotuko, larrañean zure uztak traillatzen ari dan idiaren aoa.
5. Bi anaia elkarrekin bizi diradenean, eta beretatik bat aurrik gabe ilko balitza, illaren emaztea ez da besterekin ezkonduko, baizik bere anaia artuko du, eta jasoko dio jatorria bere anaia.
6. Eta beragandik izaten duen seme lenbizi sortuari, ipiñiko dio bere anaia izena, borratu ez dedin bere izena Israeldikan.
7. Baña baldin ez balu artu nai bere anaia emazte, legez zor zaiotza, joango da andrea erriko atera, eta ots egingo diote zarrai, eta esango du: Nere senarraren anaia ez du altxatu nai bere anaia izena Israelen, ezta ere ni artu emaztetzat.
8. Eta bereala otsegin eraziko diote, eta galdetu. Erantzungo baldin balu: Ez det artu nai emaztetzat.
9. Alderatuko da beragana andrea zarren aurrean, eta kenduko du bere oñetik zapata, eta istua botako dio bere arpegira, eta esango du: Onela tratatua izango da bere anaia etxea egin nai ez duen gizona.
10. Eta bere izena izango da deitua Israelen, oñuztuaren Etxea.
11. Baldin balute beren artean ezbairen bat bi gizonak, eta asiko balitza bata bestearen kontra atelekutzen, eta bestearen emazteak atera nairik bere senarra sendoagoaren eskutik, ezarriko balio eskua, eta elduko balio lotsariatatik,
12. Ebakiko diozu eskua, eta ez dezu idukiko berarekin errukirik batere.
13. Ez dituzu idukiko zure zakuan pisu desberdiñak, andiagoa eta txikiagoa.
14. Ez da ere izango zure etxean neurri andiagoa eta txikiagoa.
15. Idukiko dezu pisu zuzen eta egiazkoa, eta idukiko dezu neurri berdiña eta egiazkoa, bizi zaitezen denbora luzean, zure Jaun Jainkoak emango dizun lurraren gañean;
16. Zeren zure Jaun Jainkoak nazkaz begiratzen dio, gauza oiek egin dituenari, eta gorroto dio bidegabekeria guziari.
17. Oroitu zaite zer egin zizun Amalekek bidean, ateratzen ziñanean Ejiptotik,
18. Nola atera zitazun bidera, eta ill zituen zure ejerzituko atzeneko, nekaturik bidean gelditzen ziradenak, zu zeundenean gosez eta nekez aitua, eta etzan izan Jaungoikoaren beldur.

19. Ematen dizunean bada atsedena zure Jaun Jainkoak, eta zure mendean jartzen ditunean inguruko erri guziak, eskeñi zizun lurrean, kenduko dezu bere izena zeruaren azpitikan. Kontu etzaitezela aztu.

OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta sartzen zeranean zure Jaun Jainkoak bere jabe izateko eman dizun lurrean, eta ardiesten dezunean eta bizitutzen zeranean an.
2. Artuko dituzu zure frutu guzien lenbiziak, eta jarriko dituzu saskitxo batean, eta joango zera, zure Jaun Jainkoak aututzen duen tokira, an bere izen santuari ots egiteko.
3. Eta alderatuko zera egun aietan dan apaizagana, eta esango diozu: Aitortzen det gaur zure Jaun Jainkoaren aurrean, sartu naizala gure gurasoai juramentuarekin eskeñi zioten lurrean, emango zigula guri.
4. Eta arturik apaizak saskitxo zure eskutik, jarriko du zure Jaun Jainkoaren aldarearen aurrean,
5. Eta esango dezu zure Jaun Jainkoaren aurrean: Siroak persegitzen zuen nere aita, Ejiptotikan jatxitzen zana eta an arrotza bezela egon zan txit gutxi ziradela, eta azi zan jende andian, eta sendoan eta muga gabeko taldean.
6. Eta ijitoak aflijitu ginduzten, eta persegitu ginduzten ipiñirik gure gañean zama txit astunak.
7. Eta ots egin giñion gure gurasoen Jaun Jainkoari, zeñak aditu ginduen, eta begiratu zion gure beeratzapen, lan eta estutasunari.
8. Eta atera ginduen Ejiptotik esku sendo, eta beso zabalduarekin, izi andiarekin, señaiekin eta mirariakin.
9. Eta sartu ginduen toki onetan, eta eman zigun ezta eta eznea darion lur au.
10. Eta argatik eskeñtzen ditut orain, Jaunak eman zidan lurreko frutuen lenbiziak. Eta utziko dituzu zure Jaun Jainkoaren aurrean, eta adonatu ezker zure Jaun Jainkoa,
11. Jango ere dituzu, zure Jaun Jainkoak eman dizkizun ondasunetik zuri, eta zure etxeari, zuk eta Lebitak eta zurekin dagoan arrotzak.
12. Betetzen dezunean zure frutu guzien amarrena, amarrenen irugarren urtean emango ere diozu Lebitari, eta arrotzari, eta zurtzari eta alargunari, jan dezaten, eta ase ditezten zure ateen barrenen.
13. Eta esango dezu zure Jaun Jainkoaren aurrean: Artu det nere etxetik santutua dagoana, eta eman diot Lebitari, eta arrotzari, eta zurtzari eta alargunari, agindu ziñidan bezela, ez det ausi zure mandamenturik, eta ez naiz ere aztu zure agintearekin.



14. Ez det jan gauza oietatik nere proguan, eta ez ditut berezitu ere loikeriaren baten, eta ez det ere gaztatu beretatiko gauzarik ilkizunetan. Obeditu diot nere Jaun Jainkoaren bozari, eta egin ditut gauza guztiak agindu ziniidan bezela.

15. Begiratu ezazu zure santutokitik, eta zeruetako bizileku goratutik, eta bedekatu ezazu Israel zure erria, eta eman ziniñgun lurra, juramentu egin ziniñioten bezela gure gurasoai, eznea ta ezitia darion lurrari.

16. Gaur zure Jaun Jainkoak agindu dizu egin ditzatzula aginte eta erabaki oiek, eta zaitu ta gorde ditzatzula zure biotz guzitik, eta zure anima guzitik.

17. Jauna autu dezu gaur, izan dedin zure Jaungoikoa, eta ibilli zaitez bere bideetatik, eta gorde ditzatzun bere zeremoniak, eta aginteak eta erabakiak, eta obeditu dizaiozun bere aginteari.

18. Eta Jaunak autu zaitu gaur izan zatzakion bere erri berezia, itz egiñik dizun bezela, eta gorde ditzatzun bere aginte guziak.

19. Eta egin zaitzan, egin dituen erreñu guziak baño goratuagoa, bere alabantza, izen, eta gloriarako, izan zaitezzen zure Jaun Jainkoaren erri santua, esan zuen bezela.

OGETA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta agindu zioten Moisesek, eta Israelko zarrak erriari esaten zute-la: Gorde ezazute nik gaur ematen diizkizutedan aginte guziak.

2. Eta iragotzen dezutenean Jordana, zure Jaun Jainkoak emango dizun lurrera, altxatuko dituzu arri andiak, eta karearekin leunduko dituzu,

3. Eskribatu al ditzakezun beretan lege onen itz guziak, irago ezkeru Jordana, sartu zaitezzen zure Jaun Jainkoak emango dizun lurrian, eznea eta ezitia dariozkan lurrian, juramentu egin zioten bezela zure gurasoai.

4. Iragotzen dezutenean bada Jordana, altxatu itzatzute nik gaur agintzen dizkizutedan arriak Hebalko mendian, eta leunduko dituzu karearekin.

5. Eta egingo diozu an aldare bat zure Jaun Jainkoari, burniari ukitu ez dioten arriakin,

6. Eta arkaitz zatar eta landugabeekin, eta egingo diozkazu bere gañean eskeñiak zure Jaun Jainkoari.

7. Eta ilko dituzu doañ paketsuak, eta jango dezu an, eta egingo dezu janedana zure Jaun Jainkoaren aurrean.

8. Eta eskribatuko dituzu leun eta argiro arrien gañean lege onen itz guziak.

9. Eta esan zioten Moisesek eta Lebiten jatorriko apaizak Israel guziari: Oartu zaite, eta aditu ezazu Israel, gaur egiña zera zure Jaun Jainkoaren erria:

10. Adituko dezu bere boza, eta egingo dituzu, nik gaur agintzen dizkizudan aginte eta legeak.

11. Eta agindu zion Moisesek erriari egun artan esaten zuela:

12. Irago ezkeru Jordana, egongo dirade Garizimgo mendiaren gañean bedekitzeko erria oiek: Simeon, Lebi, Judas, Issakar, Jose eta Benjamin.

13. Eta aurkez egongo dirade Hebalko mendian erria madarikatzeo oiek: Ruben, Gad eta Aser, eta Zabulon, Dan eta Neptali.

14. Eta asiko dirade izketan Lebitak, eta esango diote Israelko giza-
seme guztiai deadar andiarekin:

15. Madarikatua otalluzko, edo menasturtuzko taiuren bat egiten duen gizona, Jaunarentzat nazkagarria, langilleen eskuen obra, eta jartzen duena toki ezkutuan. Eta erri guziak erantzun, eta esango du: Ala izan dedilla.

16. Madarikatua honratzen ez dituen bere aita, eta bere ama. Eta erri guziak esango du: Ala izan dedilla.

17. Madarikatua eramaten dituen arontzago bere lagun urkoaren mugarriak. Eta erri guziak esango du: Ala izan dedilla.

18. Madarikatua uts erazitzen diona itsuari bidean. Eta erri guziak esango du: Ala izan dedilla.

19. Madarikatua zeartzen duena arrotzaren, umezurtzaren eta alargu-
naren eskubidea. Eta erri guziak esango du: Ala izan dedilla.

20. Madarikatua lo egiten duena bere aitaren emaztearekin, eta ager-
tzen duena beraren oearen estalkia. Eta erri guziak esango du: Ala izan dedilla.

21. Madarikatua lo egiten duena edozeñ abererekin. Eta erri guziak esango du: Ala izan dedilla.

22. Madarikatua lo egiten duena bere arrebarekin, bere aitaren, edo bere amaren alabarekin. Eta erri guziak esango du: Ala izan dedilla.

23. Madarikatua lo egiten duena bere amagiarrebarekin. Eta erri guziak esango du: Ala izan dedilla.

24. Madarikatua ezkutuan zauritzen duena bere lagun urkoa. Eta erri guziak esango du: Ala izan dedilla.

25. Madarikatua artzen dituen doañak, zauritzeko anima obenga-
bea. Eta erri guziak esango du: Ala izan dedilla.



26. Madarikatua irauten ez duena lege onen itzetan, eta egitez betetzen ez dituen. Eta erri guziak esango du: Ala izan dedilla.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Baña baldin adituko bazeneza zure Jaun Jainkoaren boza, egiteko eta zaitzeko, nik gaur ematen dizkizudan bere aginte guztiak, jarriko zaitu zure Jaun Jainkoak, lurrean dauden erreñu guziak baño gorago.

2. Eta etorriko dirade zure gañera, eta itsatsiko zazkizu bedekazio guzti oiek, aditzen baldin badituzu bere aginteak.

3. Bedekiatua izango zera zu errian, eta bedekiatua kanpoan.

4. Bedekiatua zure sabeleko frutua, eta zure lurreko frutak, eta zure abereen frutua, zure beien eleak, eta zure ardien taldeak.

5. Bedekiatuak zure aletegiak, eta bedekiatuak zure gañeok.

6. Bedekiatua izango zera sartzen zeranean, eta irtetzen zeranean.

7. Jaunak egingo du erori ditezela zure aurrean zure kontra jaikitzen diraden zure etsaiak, bide batetik etorriko dirade zure kontra, eta zazpi bidetatik iges egingo dute zure aurretik.

8. Bidalduko du Jaunak bedekazioa zure aletegien gañera, eta zure eskuen lan guzian gañera, eta bedekiatuko zaitu artzen dezun lurrean.

9. Altxatuko zaitu Jaunak erri santu bat bezela beretzat, egin zizun juramentuaren araura, gordetzen baldin badituzu zure Jaun Jainkoaren aginteak, eta ibiltzen bazera bere bideetatik.

10. Eta lurreko erri guziak ikusiko dute Jaunaren izena aipatua izan dala zure gañean, eta zure beldur izango dirade.

11. Jaunak egingo du iduki ditzatzula ugari ondasun guztiak, zure sabeleko frutuan, eta zure abereen frutuan, Jaunak zure gurasoai zuri emango zizula juramentu egin zioten zure lurreko frutuan.

12. Jaunak idukiko du bere ondasunetegi txit ederra, zerua, emateko bere denboran euria zure lurrari, eta bedekiatuko ditu zure eskuen lan guziak. Eta prestatuko diozu jende askori, eta zuk ez dezu artuko prestatuak inorgandik.

13. Jaunak jarriko zaitu eginik errien buru, eta ez menpeko, eta egongo zera beti gañean eta ez azpian, aditzen baldin badituzu zure Jaun Jainkoaren aginte, nik gaur ematen dizkizudan, eta zaitu, eta egingo baldin baziñitu,

14. Eta zeartuko ez baldin baziña beretatik ez eskuiera, ez ezkerrena, eta jarraituko ez baziñizkio jainko arrotzai, ezta adoratu ere berak.

15. Baña baldin ez bazeneza aditu nai zure Jaun Jainkoaren boza, zaitu eta egiteko nik gaur ematen dizkizudan bere aginte eta zeremonia

guziak, etorriko dirade zure gañera, eta itsatsiko zazkizu madarikazio guzti oiek.

16. Madarikatua izango zera errian, madarikatua kanpoan.

17. Madarikatua zure aletegia, eta madarikatuak zure gañerakoak.

18. Madarikatua zure sabeleko frutua, eta zure lurreko frutuak, zure beien eleak, eta zure ardien taldeak.

19. Madarikatua izango zera sartzen zeranean, eta madarikatua ateratzen zeranean.

20. Bidalduko du Jaunak zure gañera gosea, eta premia, eta ezarriko du madarikazioa egiten dezun, eta eskuak ipintzen diozkazun gauza guzian gañera; puskatu arteraño, eta arin galdu zaitzan artean, zure obra txit gaiztoak gatik, zeñak gatik utzi izango dezun.

21. Egingo du Jaunak izurria itsatsi dakizula, desegin zaitzan bitartean, bere jabe izateko sartuko zeran lurrean.

22. Jaunak kastigatuko zaitu ezurtearekin, elgaitzarekin, eta otzarekin, beroarekin, eta legortearrekin, aize ustelduarekin, eta gorniarekin, eta persegituko zaitu galdu zaitzan artean.

23. Zure gañean dagoan zerua itzuliko da izatera bronzeko, eta zapatzen dezun lurra, burnizkoa.

24. Eman bizaio Jaunak zure lurrari autsa euriaren lekuan, eta jatxi bedi zerutik errautsa zure gañera, puskatua izan zaitezten bitartean.

25. Egin beza Jaunak erori zaitezela zure etsaien aurrean. Atera zaitezela beren kontra bide batetik, eta iges dezazula zazpitik, eta izan zaitezela barreatua lurreko erreñu guzietatik.

26. Eta zure gorputz illa izan dedilla zeruko egazti guztien, eta lurreko pisti guztien janaritzat, eta ez dedilla izan igeserazi dizaienik.

27. Zauritu zaitzala Jaunak Ejiptoko zauriarekin, eta atz, eta azgalearekin gorputzaren zati loiak botatzen dituen, sendatua izan ezin zenezakean eran,

28. Zauritu zaitzala Jaunak erotasunarekin, eta itsutasunarekin, eta adimeneko sumintasunarekin;

29. Eta ibilli zaitezela itsumuka egerdian, ibilli oi dan bezela itsua illunean, eta oker ibilli zaitezela zure bideetan. Eta denbora guzian iduki dezazula sufritu bearra gezurrezko asmazioak, eta izan zaitezela bortxaz sakatua, eta ez dezazula iduki nork libratu.

30. Artu dezazula emaztea, eta beste batek lo egin dezala berarekin. Etxea egin dezazula, eta etzaitezela beratan bizi. Mastia ipiñi dezazula, eta ez dezazula mendaindu.



31. Zure idia izan dedilla illa zure aurrean, eta ez dezazula beratatik jan. Zure astoa izan dedilla arrapatua zure aurrean, eta ez dizazutela itzuli. Zure ardiak izan ditezela emanak zure etsaiak, eta ez dedilla izan nork zuri lagundu.

32. Zure semeak eta zure alabak izan bekizkiola emanak beste erri bati, zure begiak ikusten dituztela, eta indargabetzen diradela egun guztian berai begira, eta ez dedilla arkitu sendotasunik zure eskuan.

33. Ezagutzen ez dezun erri batek jan ditzala zure lurreko frutuak, eta zure lan guztiak, eta izan zaitezela beti gezurrezko asmazioak sufritzen, eta egon zaitezela estutua egun guztietan,

34. Eta arritua zure begiak ikusiko dituzten gauzen iziarekin.

35. Zauritu zaitzala Jaunak zauri txit gaiztoarekin belaunetan eta zankoetan, eta ezin izan zaitezela sendatua oñaren azpitik zure buruaren gañeraño.

36. Jaunak eraman zaitzala zu, eta zure gañean jartzen dezun zure erregea, zuk eta zure gurasoak ezagutzen ez duten jende batera, eta serbitu ditzatzula an jainko arrotzak, zura eta arria.

37. Eta izango zera galdua egiñik burlagarri eta ipuia, Jaunak eramango zaituen erri guztientzat.

38. Azi asko botako dezu lurrera, eta bilduko dezu gutxi, zeren langostak iretsiko dute guztia.

39. Ipiñiko dezu mastia, eta aitzurtuko dezu, eta ez dezu idukiko ardorik, eta ez dezu ere artuko ezer beratatik, zeren izango da arrak deseña.

40. Idukiko dituzu oliboak zure lur guztietan, eta etzera izango olio zuntatua, zeren erori eta galduko dira.

41. Semeak eta alabak izango dituzu, eta ez dezu idukiko berakin bizitzeko pozik, zeren eramanak izango dirade katiberiora.

42. Gorniak desegingo ditu zure zuaitz guztiak, eta zure lurreko frutuak.

43. Lurrean zurekin bizi dan arrotzak igoko du zure gañera, eta egongo da zu baño gorago; zu berriz jetxiko zera, eta egongo zera beera-go.

44. Berak prestatuko dizu zuri, eta zuk ez diozu prestatuko berari: bera egongo da goian, eta zu bean.

45. Eta etorriko dirade zure gañera madarikazio guzti oiek, eta persegitzen zaituztenak arrapatuko zaituzte, il zaitezen artean, etzenduelako aditu zure Jaun Jainkoaren boza, eta etziñituelako gorde, eman zizkitzun bere aginte eta zeremoniak.

46. Eta ala zugan eta zure jatorriagan egongo dirade beti agirian Jainkoaren aserrearen señaiek eta mirariak.

47. Etzenduela serbitu zure Jaun Jainkoa pozarekin eta biotzeko gozotasunarekin, berak onera mot guziakin zu bete ezkeror.

48. Serbituko dezu zure etsai, Jaunak zure kontra bidalduko duena, gose, eta egarri, eta billostasun, eta premia guzian, eta jarriko du burnizko uztarri bat zure lepoaren gañean, puskatu zaitzan artean.

49. Ekarriko du Jaunak zure gañera jende bat urrutitik eta lurraren atzeneko mugetatik, portizkiro egaka egiten duen agiliaren irudira, zeñaren izketa ezin adituko dezun.

50. Jende txit ausartua, ez diona lotsarik ekarriko zarrari, ez da errukituko ere aurrarekin,

51. Eta iretsiko du zure abereen frutua, eta zure lurraren frutua, il zaitezen artean, eta ez dezazun artean utzi garirik, ardorik, eta oliorik, beien elerik, eta ardien talderik, galdu zaitzan artean,

52. Eta puskatu zure erri guztietan, eta aurtikiak izan ditezten bitartean zure murru sendo eta altuak, zeñatan ipintzen zenduen zure itxedopena zure lur guztian. Izango zera ingurutua zure ateen barrenen, zure jaun Jainkoak emango dizun zure lur guzian.

53. Eta jango dezu zure sabeleko frutua, eta zure Jaun Jainkoak emango dizkitzun zure semeen eta zure alaben aragiak antsia eta galmeen zeñarekin estutuko zaituen zure etsaiak.

54. Zure erriko gizonik kupera eta atsegin zaleena izango da zikoitza bere anaiarekin eta bere besartean lo egiten duen emaztearekin,

55. Ez emateko berai jango dituen bere semeen aragiak: zeren ez du beste gauzarikan batere idukiko, zure ate guzieren barrenen zure etsaiak desegingo zaituzten esi eta bearrean.

56. Emazte samur eta kuperati, pausurik eman ezin zuena, ez jarri oñik lurraren gañean bere kupera ta minberatasun geiegia gatik, ez dio eman naiko bere senar maiteari berari bere semearen eta alabaren aragien zati bat,

57. Ez bere sabeletik ateratzen diraden aurlagunen, ez ordu artan jaino diraden aurrenik, zeren jango dituzte ezkutuan, ez dutelako beste gauzarik zerekin il gose ain gogorra, zure etsaiak zure ateen barrenen estutuko zaituen esi ta ondamenean.

58. Gorde eta betetzen ez baldin badituzu lege onen itz guzi, liburu onetan eskribatuak daudenak, eta bere izen gloriatsu eta ikaragarriaren, au da, zure Jaun Jainkoaren beldur ez bazera,



59. Jaunak geituko ditu zure zauriak, eta zure jatorriarenak, zauri andiak eta iraunkorrak, gaitz txit gaiztoak eta betikoak.

60. Eta itzuliko ditu zure kontra Ejiptoko naigabe guztiak, zeñaien beldur izan ziñan, eta itsatsiko zazkizu,

61. Baitaere bidalduko ditu Jaunak zure gañera, lege onen liburuan eskribatuak ez dauden eritasun eta zauri guztiak, puskatu zaitzan artean.

62. Eta geldituko zerate gutxi batzuek, len ziñenak zeruko izarrak bezela ugaritasunean, etzenduelako aditu zure Jaun Jainkoaren boza.

63. Eta nola len gozatu zan Jauna zuekgan, zuei ongi egiten, eta zuek ugarituzten, ala gozatu da zuek galduten eta desegiten, aurtikiak izan zaitezten sartzera zoazten lurretik bere jabe izateko.

64. Jaunak barreiatuko zaitu erri guzietatik munduaren egal batetik besteraño eta an serbituko dituzu jainko arrotz, zuk ez zure gurasoak eza-gutzen ez dituzutenak, zurak eta arriak.

65. Jende aien artean ere ez dezu atsedenek izango, eta ezin jarriko ere dezu zure oña. Zeren Jaunak emango dizu an biotz beldurti bat, eta begi ezkelak, eta anima bat tristezaz desegina,

66. Eta egongo da zure bizia esekia bezela zure aurrean. Beldur izan-go zera gau ta egun, eta ez diozu sinistuko zure bizia.

67. Goizean esango dezu: Nor allegatu lezakean arratsaldera? eta arratsaldean: Nor allegatu lezakean goizera? zure biotza ikaratuko duen beldurra gatik, eta zure begiak in ikusiko dituzun gauzak gatik,

68. Jaunak berriz eraman eragingo zaitu ontzietan Ejiptora, berriz ez zenezala ikusi esan zizun bidetik. An izango zera saldua zure etsaia, izateko menpekoak gizasemeak eta emakumeak, eta ez da izango nork erosi.

OGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Oiek dirade Jaunak Moisesi agindu zion elkartasuneko itzak, egiteko Israelko semeakin Moabko lurrian, Horeben berakin egin zuen elkartasunaz gañera.

2. Eta ots egin zion Moisesek Israel guztiari, eta esan zioten: Zuek ikusi zenduzten, Jaunak zuen aurrean Ejiptoko lurrian egin ziozkaten gauza guztiak Faraoni, eta bere serbitzari guziaz, eta aren lur guziaz,

3. Zuen begiak ikusi zituzten, zauri andiak, eta arako señale andi eta arrigarriak.

4. Eta gaurko eguneraño ez dizute Jaunak eman, aditzen duen biotzik, ez ikusten duten begirik, ez entzun al dezaken belarririk.

5. Jaunak erabilli zaituzte berrogei urtean eremutik: ez dirade urratu zuen soñekoak, ez zarrez kastatu zuen oñetakoak.

6. Etzenduten jan ogirik, ezta ere edan ardorik, ez sagardorik: jakin ziñituzten ni nintzala zuen Jaun Jainkoa.

7. Eta etorri ziñaten toki onetara, eta atera zatzazkigun bidera gurekin gudatzera Sehon Hesebongo erregea, eta Og Basango erregea. Eta desegin giñituen

8. Eta atxitu genduen beren lurra, eta eman giñon Ruben, eta Gad, eta Manasesen tribu erdiari beraren jabe izateko.

9. Gorde itzatzute bada elkartasun onen itzak, eta bete itzatzute, aditu ditzatzuten egiten dituzuten gauza guziaz.

10. Zuek zaudete gaur guziok zuen Jaun Jainkoaren aurrean, zuen prinzipeak, eta tribuak, eta zarrak, eta irakasleak, Israelko erri guzia,

11. Zuen semeak eta emazteak, eta zurekin etzaintzetan bizi dan arrotza, oien artetikan kendu gabe egurrak epakitzen dituztenak, eta urak ekartzen dituztenak,

12. Sartu zaitezten zure Jaun Jainkoaren elkartasunean, elkartasun bat zure Jaun Jainkoak gaur Zurekin berriz egin eta juramentuarekin sendatzen duenean,

13. Altxatzeko zu bere erritzat, eta izateko bera zure Jaun Jainkoa esan dizun bezela, eta juramentu egin zioten bezela zure guraso Abraham, Isaak, eta Jakobi.

14. Eta ez det nik egiten zuekin bakarrik elkartasun au, eta ez ditut sendatzen juramentu oiek,

15. Baizik oraingo eta geroko guziaz.

16. Zeren zuek ongi dakizute nola bizitu izan giñan Ejiptoko lurrian, eta nola irago giñan erreñuen erditikan, zeñak iragotzen genduztela

17. Ikusi zenduzten nazkagarriak eta zikinkeriak, au da, beren idoloak, zura eta arria, zillarra eta urrea, zeñak adoraten zituzten.

18. Ez dedin arkitu zuen artean gizasemerik, edo emakumerik, familiarik edo triburik, zeñaien biotza dagoan gaur apartaturik zuen Jaun Jainkoagandik, joateko serbitzera jende aien Jainkoak, eta egon dedin zuen artean beztuna eta mingoiztasuna ematen duen sustraia.

19. Eta aditzen dituen juramentu onen itzak, lausengatu ez dedin bere biotzean, esaten duela: Pakea izango det nik, eta ibilliko naiz nere biotzeko gaizakerian, eta akabatu dezan ordiak egarritsua,

20. Eta Jaunak barkatu ez dizaion, baizik bere aserrea eta zeloa irazeki ez ditezten geiago orduan gizon huraren kontra, eta jarri ez ditezten egotez bere gañean liburu onetan eskribatuak dauden madarikazio guztiak, eta borratu dezan Jaunak bere izena zeruaren azpitik,



21. Eta aitu dezan, galdu eta berezitzeko Israelko tribu guzietatik, lege eta elkartasun onetako liburuan dauden madarikazioen araura.

22. Eta esango du darraikon gizaldiak, eta aurrerakoan jaiotzen diraden semeak, eta urrutitikan etortzen diraden arrotzak, ikusirik erri artako zauriak, eta gaitzak, zeñakin aflijitu zuen Jaunak,

23. Erretzen duenean sufrearekin eta gatzaren berotasunarekin, alako moduan non ez dedin geiago erein, ez moteatu gauza berderik, Sodomaren eta Gomorraren, Adamaren eta Seboimen, Jaunak bere aserre eta sumintasunean desegin zituen galmenaren irudira.

24. Eta esango dute jende guziak: Zergatik Jaunak onela egin dio lur oni? Ze aserre eta sumintasun mugagabea da au?

25. Eta erantzungo dute: Utzi zutelako Jaunaren elkartasuna, egin zuena beren gurasoakin, atera zituenean Ejiptoko lurretikan.

26. Eta serbitu zituzten jainko arrotzak, eta adoratu zituzten ezagutzen etzituztenak, eta zeñai etzegokieten.

27. Argatik erazeki zan Jaunaren aserrea lur onen kontra, ezartzen zituela beraren gañera, liburu onetan eskribatuak dauden madarikazio guziak.

28. Eta aurtiki zituen irarekin, eta sumintasunarekin, eta aserre txit andiarekin, erbestetuzten zituela urrutiko errietara, gaur egiztaturik ikusten dan bezela.

29. Gure Jaun Jainkoaren gauza ezkutu, agertuak guri eta gure semeai betiko, egin ditzagun lege onen itz guziak.

OGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Etortzen diradenean bada zure gañera gauza guzi oiek, zure aurrean jarri ditudan bendizioa edo maldizioa, eta damutuzten zeranean zure biotzean jende guzien erdian, zeñatatik barreiatu izango zaituen zure Jaun Jainkoak,

2. Eta biurtzen zeranean beragana, eta obeditzen dituzunean bere aginteak zure semeakin, zure biotz guzitikan, eta zure anima guzitikan, nik gaur agintzen dizudan bezela,

3. Zure Jaun Jainkoak biurtuko zaitu zure katiberiotik, eta urrikarituako da zurekin, eta berriz bilduko zaitu, len barreiatu zinduen erri guzietatik.

4. Munduaren bukaeraraño aurtikia izango baldin baziña ere, andikan ekarriko zaitu zure Jaun Jainkoak,

5. Eta artuko zaitu, eta sartu, zure gurasoak beraren jabe izan ziraden lurrian, eta iritxiko dezu, eta emanik zuri bedeikazioa, ugarituko zaitu, zure gurasoak izan ziraden baño geiago.

6. Eta zirkunzidatuko du zure Jaun Jainkoak zure biotza, eta zure jatorriaren biotza, maitatu dezazun zure Jaun Jainkoa zure biotz guzitikan, eta zure anima guzitikan, bizi zaitezkean.

7. Eta itzuliko ditu madarikazio guzi oiek zure etsai guzien kontra, eta zu gorrotatu eta persegitzen zaituztenen kontra.

8. Baña zu itzuliko zera, eta adituko dezu zure Jaun Jainkoaren boza: eta egingo dituzu nik gaur ematen dizkizudan aginte guziak.

9. Eta zure Jaun Jainkoak ugaritu eragingo dizu zure eskuen lan guzietan, zure sabeleko semeetan, eta zure abereen frutuan, zure lurraren ugaritasunean, eta gauza guzien ugaritasunean. Zeren Jaunak berriz abegi onarekin begiratuko dizu, betetzen zaituela on guziakin, egin zuen bezela zure gurasoakin.

10. Aditzen baldin badezu zure Jaun Jainkoaren boza, eta zaitzen baldin badituzu bere aginte eta zeremonia, lege onetan eskribatuak daudenak, eta biurtzen baldin bazera zure Jaun Jainkoagana zure biotz guzitik, eta zure anima guzitik.

11. Nik gaur ematen dizudan aginte au, ez dago zure gañean, ez jarria zugandik urrutian,

12. Ez ipiñia zeruan, alako moduan non esan dezakezula: Gutatik zeñak igo dezake zerura, ekarri dezan gugana, aditu dezakegun, eta egin agindua dagoena?

13. Ez da ere jarria itsasoaren beste aldamentetikan, aitzakiak ipiñi eta esan dezazun: Gutatik zeñak irago dezake itsasoa, eta ekarri guganaraño, aditu al dezakegun, eta egin agindua dagoena?

14. Baizik zugandik txit aldean dago itza, zure aoan, eta zure biotzean, egin dezazun.

15. Begira ezazu gaur jarri dedala zure aurrean biritza eta ona, eta aurkez eriotza eta gaitza,

16. Maitatu dezazun zure Jaun Jainkoa, eta ibilli zaitezen bere bideetatik, eta gorde ditzatzun bere aginteak, eta zeremoniak, eta erabakiak, eta bizi zaitezen, eta ugaritu zaitzan, eta bedeikatu, beraren jabe izateko sartuko zeran lurrian.

17. Baña baldin zure biotza atzera biurtuko balitza, eta aditu naiko ez bazeneza, eta engañaturik iritzi txarrarekin adoratu baziñitu jainko arrotzak, eta berak serbituko baziñitu,



18. Lendanik esaten dizut gaur, galduko zerala, eta denbora gutxian biziko zerala, Jordan iragota, sartuko zeran lurreen beraren jabe izateko.

19. Ots egiten diotet gaur testigutzat zeruari eta lurrari zuen aukeran ipiñi ditudala bizitza eta eriotza, bedekazioa eta madarikazioa. Autatu ezazu bada bizitza, bizi zaitezten zu eta zure jatorria:

20. Eta maitatu dezazun zure Jaun Jainkoa, eta obeditu dizaiozun bere bozari, eta itsatsi zakizkion berari (zeren bera da zure bizitza eta zure egunen luzeera) bizi zaitezten, Jaunak juramentuarekin zure guraso Abraham, Isaak, eta Jakobi eskeñi zioten lurreen, emango ziotela.

OGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Joan zan bada Moises, eta esan ziozkan itz guzi oiek Israel guziami,

2. Eta esan zioten: Eun eta ogei urtekoa naiz gaur, ezin naiz atera, ez sartu, eta batezere Jaunak esan didan ezker: Ez dezu iragoko Jordan au.

3. Alabada zure Jaun Jainkoa joango da zure aurrean, berak akabatuko ditu jende guzi oiek zure aurrean, eta izango zera beren jabe, eta Josue au iragoko da zure aurrean, Jaunak itz egin zuen bezala.

4. Eta Jaunak egingo diote egin zioten bezala Sehon eta Og Amorreoen erregeai, eta beren lurrari, eta desegingo ditu.

5. Eta ala oiek ere ematen dizkitzutenean, egingo diezute agindu dizutedana.

6. Portatu zaitezte gizonkiro, eta sendatu zaitezte, etzaitezte beldur izan, ezta izitu ere beren aurrean, zeren zure Jaun Jainkoa bera da zure zuzentzalea, eta etzaitu utziko, ezta desanparatuko ere.

7. Eta ots egin zion Moisesek Josueri, eta esan zion Israel guziaren aurrean: indartu zaite, eta izan zaite sendoa, zeren zuk sartuko dezu erri au, Jaunak beren gurasoai juramentuarekin emango ziotela eskeñi zioten lurreen, eta zuk suertean partituko diozu.

8. Eta zuen zuzentzalea dan Jauna bera izango da zurekin, etzaitu utziko, etzaitu ere desanpatatuko, etzaite beldur izan, ezta izitu ere.

9. Eskribatu zuen bada Moisesek lege au, eta eman zioten Lebien (sic) seme apaiz, Jaunaren elkartasuneko kutxa eramaten zutenai, eta Israelko zar guztiai.

10. Eta agindu zioten esaten zuela, zazpi urte irago ezker, barkazio-ko urtean, tabernakuloen jai andian,

11. Biltzen zeratela Israelko guziak, agertu ditezten zure Jaun Jainkoaren aurrean, Jaunak aututzen duen lekuan, irakurriko dituzu lege onen itzak Israel guztiaren aurrean, aditzen dituztela berak,

12. Eta bildurik erri guzia toki batean, bai gizasemeak, bai emakumeak, aurrak, eta zure ateen barrenen dauden arrotzak, aditurik berak, ikasi ditzaten, eta zuen Jaun Jainkoaren beldur izan ditezten, eta gorde ditzaten eta bete lege onen itz guziak.

13. Baitaere beren seme, orain ez dakizkitenak, aditu ditzaketen: eta beren Jaun Jainkoaren beldur izan ditezten, Jordana iragota, iritxitera zoazten lurreen bizi diraden egun guzietan.

14. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Begira aldean daudela zure eriotzako egunak, ots egin zaiozu Josueri, eta zaudete testimonioko tabernakuloan, eman ditzadan aginteak. Joan ziraden bada Moises eta Josue, eta egun ziraden testimonioko tabernakuloan.

15. Eta agertu zan Jauna an odeizko abean, zeñ gelditu zan tabernakuloaren sarreran.

16. Eta esan zion Jaunak Moisesi: Begira, onezkero bazoazala atsedetera zure gurasoakin, eta erri au jaikirik joango da besteen jainkoen ondoren, bertan biziteko sartzera dijoan lurreen, an utziko nau, eta utsera botako du, berarekin egin dedan elkartasuna:

17. Eta irazekiko da bere kontra nere aserrea egun artan: eta utziko det, eta ezkutatuko det nere arpegia beragandik, eta izango da iretsia, arkituko dute gaitz eta naigabe guziak, alako moduan non esango du egun artan: Egiatzki Jaungoikoa nerekin ez dalako arkitu naute gaitz oiek.

18. Eta nik ezkutatu eta estaliko det nere arpegia egun artan, egin zituen gaitz guziak gatik, jarraitu ziotelako besteen jaungoikoai.

19. Orain bada eskribatu ezazute zuentzat kantatxo au, eta irakasi zaiezute Israelko semeai, buruz jakin dezaten, eta aoz kantatu, izan dakidan kantatxo au lekukotzat Israelko semeen artean.

20. Zeren sartuko det bere gurasoai juramentuarekin eskeñi nien lurreznea (sic) eta ezta darionean. Eta jan, eta ase, eta gizendu ezker, itzuliko dirade besteen jaungoikoetara, eta serbituko dituzte, eta gaizki esango dute nigatik, eta utsera jo eraziko diote nere elkartasunari.

21. Gaitz eta naigabe askok bera arkitu ezker, itz egingo du bere kontra lekukoa bezela kantatxo onek, zeñ egonik beren semeen aoan, ezin iñoiz aztuko da. Zeren badakizkit bere gogorazioak, gaur egingo duena, nik sartu dezadan baño lenago eskeñi diodan lurreen.

22. Eskribatu zuen bada Moisesek kantatxoa, eta irakasi zioten Israelko semeai.

23. Eta agindu zion Jaunak Josue Nunen semeari, eta esan zuen: indartu zaite, eta izan zaite sendoa, zeren zuk sartuko dituzu Israelko semeak eskeñi diodan lurreen, eta ni izango naiz zurekin.



24. Eskribatu ezkeru bada Moisesek lege onen itzak liburu batean, eta bukatu zuenean,

25. Agindu zioten, Jaunaren elkartasuneko kutxa eramaten zuten Lebitai, esaten zuela:

26. Artu itzatzute liburu au, eta jarri itzatzute zuen Jaun Jainkoaren elkartasuneko kutxaren aldamen batean, izan dedin an lekukoa zure kontra.

27. Zeren badakit nik zure leikortasuna, eta zure lepo txit gogorra. Oraindikan ni bizitu nintzala eta zuekin itz egiten nuela, beti portatu ziñan ten leiatikiro Jaunaren kontra, zenbat geiago ni il ezkeru?

28. Bildu itzatzute nere aurrean zuen tribuetako zar guziak, eta irakslak, eta esango ditut guziak aditzen dituztela itz oiek, eta ots egingo diet beren kontra zeruari eta lurrari.

29. Zeren badakit ni il ezkeru txit gaizki portatuko zeratela, eta laister alde egingo dezutela agindu nizuten bidetik, eta etorriko zazkizute gaizak atzenengo denboran, egiten dezutenean gaitza Jaunaren aurrean, aserretu erazitzeko zuen eskuen egiteak gatik.

30. Esan zituen bada Moisesek, Israelko batzarre guziak aditzen zuela, kantatxo onen itzak, bere atzen eta bukaera raño.

OGETA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Aditu itzatzute zeruak esaten ditudanak, aditu bitza lurrak nere aoko itzak.

2. Azi bedi euria bezela nere doktriña, isuri bedi nere itza intza bezela, euria belarraren gañean bezela, eta bisutsa askiaren gañean bezela.

3. Zeren ots egingo diot Jaunaren izen santuari: eman zaiozute anditasun goratu gure Jaungoikoari.

4. Jaungoikoaren egiteak dirade osoz onak, eta bere bide guziak zuzentasuna, leiala da Jaungoikoa, eta gaiztakeriarik batere gabetanik, zuzena eta arteza.

5. Bekatu egin zuten beraren kontra, eta etziraden izan bere semeak zikinkeriak gatik, jatorri gaiztoa eta biurria.

6. Oiek itzultzen diozkazu Jaunari, erri txoro eta zentzun gabea? Ez al da bera zure aita, zure jabe izandu zana, eta egin zinduena, eta izatea eman zizuna?

7. Oroitu zaitz zure anizñako denborakin, begiratu zaiezu banan banan gizaldiai, galde zaiozu zure aitari eta adiraziko dizu; zure asabai, eta esango dizute.

8. Txit Altuak berezitzen zituenean jendeak, barreiatzen zituenean Adanen semeak, jarri zituen errien mugak Israelko semeen zenbataren araura.

9. Baña Jaunaren zatia, bere erria: Jakob bere soroaren soka.

10. Arkitu zuen lur eremuan, izi eta bakartasun andiko tokian: erabili zuen inguruan, eta irakasi zion, eta zaitu zuen bere begiko ninia bezela.

11. Agila bere umeak egan egitera zirikatu, eta beren gañean inguruan egan dabillana bezala, ala zabaldu zituen bere egoak eta artu zuen, eta eram zuen bere solbardan.

12. Jauna bakarrik izan zan bere zuzentzalea, eta etzegoan berarekin besteren jainkorik.

13. Jarri zuen lur goratuaren gañean, jan zitza kanpoetako frutuak, miazkau zezan ezta arritik, eta olio aitz txit gogorretik.

14. Beien guria, eta ardiaren eznea, Basanen azitako arkume eta ari gizenak, eta auntzarrak, gariaren muñarekin, eta edateko matsaren odol txit garbia.

15. Gizendu zan maitea, eta bota zituzan ostikoak: gizendu, loditu, zabaldua, utzi zuen Jaungoiko bere egillea, eta alde egin zuen Jaungoiko bere salbagillea gandik.

16. Aupadaka ari zitzaiozkan besteen jainkoekin, eta aserretu eragin zioten beren nazkagarriekin.

17. Eskeñi ziozkaten doañak demonioai, ezagutzen etzituzten jainkoai, berri eta orañagokoak etorri ziran, beren gurasoak adoratu etzituztenak.

18. Utzi zenduen sortu zinduen Jaungoikoa, eta aztu ziñan zure egille Jaunarekin.

19. Ikusi zuen au Jaunak, eta aserrera mugitu zan, zeren bere semeak eta alabak aupadaka ari zitzaiozkan.

20. Eta esan zuen: Ezkutatuko det nere arpegia berakgandikan, eta begiratuko diotet beren atzenai, zeren da jatorri txit biurria eta seme desleialak.

21. Berak aupadaka ari zitzazkidaten Jaungoiko etzan hurarekin, eta aserretu erazi zidaten beren arrokeriakin, eta ni ere aupadaka ariko natzaie nere erria ez dan hurarekin, eta jende barbullarekin aserretu eraziko diotet.

22. Sua izan da irazekia nere sumintasunean, eta egongo da izekia infernuaren ondarreraño, eta iretsiko du lurra beren landarekin, eta erreko ditu mendien zimenduak.



23. Metatuko ditut bere gañera gaitzak eta botado diozkatet nere saeta guziak.

24. Izango dirade desegiñak gosez, eta iretsiko dituzte egaztiak utsi-kiera txit mingoitzarekin, armatuko ditut beren kontra pistien ortzak, eta lurreean arrastaka eta biurka dijoazanen aserrea.

25. Kanpoan desegingo ditu ezpatak, eta barrenen iziak, zalduna donzellarekin batean, aur titikoa eta gizon zarra.

26. Esan nuen: Non dirade? Kenduko det bere oroipena gizonen artetik.

27. Baña luzatu det etsaien arrokeria gatik, antustetu ez ditezten beren etsaiak, eta esan ez dezaten: Gure esku sendoak egin zituen gauza guzi oiek, eta ez Jaunak.

28. Zentzun eta zurtasun gabeko jendea da au,

29. Arren bada balituzte jakinduria eta ezauera, eta lendikan ikusiko balituzte atzenak!

30. Nola batek bakarrik persegitu dizaioke millari, eta bik iges erazi amar millari? Ez al da au beren Jaunak saldu zituelako, eta Jaunak itxian jarri zituelako?

31. Zeren ez da gure Jaungoikoa beren jaungoikoak bezelakoa: eta gure etsaiak dirade juezak.

32. Sodomako mastia da bere mastia, eta Gomorrako iriakurketakoa: bere matsak, beazunezko matsak, eta bere mordoak txit mingoitzak.

33. Sugulmen beazuna bere ardoa, eta suge lotarien pozoi sendaeziña.

34. Ez al dauzkat nik gauza guzi oiek gordeak eta sillutuak nere gordairuetan?

35. Nerea da benganza, eta nik emango diotet saria bere denboran, beren oñak labañ egin dezan, aldean da bere galmeneko eguna, eta epea arin dator.

36. Jaunak juzgatuko du bere erria, eta izango da urrikaritsua bere serbitzariakin, ikusiko du bere eskua erbaldu dala, eta zarratuak ere indargatu diradela, eta gañerakoak desegiñak izan diradela.

37. Eta esango du: Non dirade beren Jaungoikoak, zeñatan zeukaten itxedopena?

38. Zeñaen eskeñtzetatik jaten zituzten gantzak, eta edaten zuten beren libazioetako ardoa, jaiki bitez eta lagundu bitzatzute, eta premian anparatu zaitzatela.

39. Begira ni naizala bakarra, eta ez dala beste Jaungoikorik ni baño: nik ilko det, eta nik piztu eraziko diot, zaurituko det, eta sendatuko det, eta ez da nere eskutik libratu dezakenik.

40. Altxatuko det nere eskua zerura, eta esango det: Ni bizi naiz betiko.

41. Zorroztzen baldin badet oñaztarria bezela nere ezpata, eta nere eskua armatzen baldin bada juizioa egiteko, itzuliko diotet benganza nere etsaiak, eta emango diotet ordaña gorrotatzen nautenai.

42. Ordituko ditut nere saetak odolean, eta nere ezpatak iretsiko ditu aragiak illen odolean, eta katiberioan buru utsik dauden etsaiena.

43. Alabatu ezazute jendeak bere erria, zeren bengatuko du bere serbitzarien odola, eta itzuliko diote benganza bere etsaiak, eta izango du biotz bera bere erriko lurarentzat.

44. Etorri zan bada Moises, eta esan zituen kantatxo onen itz guziak erriak aditzen zituela, berak eta Josue Nunen semeak.

45. Eta bukatu zituen itz guzi oiek, itz egiten ziola Israel guziari.

46. Eta esan zioten: Jarri itzatzute zuen biotzetan gaur, nik esaten dizkizutedan itz guzi oiek, agindu dizaietzetzuten zuen semeai zaitu eta egiteko, eta betetzeko lege onetan eskribatuak dauden gauza guztiak.

47. Zeren ez zatzute izan aginduak alferrikan, baizik bakoitza bizi zaitetzten berakin, zeñak egiñik egon zaitetzten denbora luzean, beraren jabe izateko sartzera zoazten lurreean, iragota Jordana.

48. Eta itz egin zion Jaunak Moisesi egun huratan beratan, esaten zuela:

49. Igo zaitte Abarim mendi onetara, au da, irago tokiena, Nebo mendi, Moabko lurreean Jerikoen aurkez dagoanera, eta ikusi ezazu Kanaango lur, nik Israelko semeai beraren jabe izateko emango diotedana, eta il zaitte mendian.

50. Zeñaen gañera igotzen zeranean, izango zera bildua zure erriakin, il zan bezela zure anaia Aaron Hor mendian, eta batua bere erriakin.

51. Zeren ausi zenduten fedea nere kontra Israelko semeen erdian kontradikzioko Uretan Kadesen Singo eremuan, eta ez ninduzuten santutu Israelko semeen artean.

52. Aurkez ikusiko dezu, Israelko semeai nik emango diedan lurra, eta etzera beratan sartuko.

OGETA AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Au da bedekazioa, zeñarekin bedekatu zituen Moises Jaungoikoren semeak, Israelko semeak bera il baño lenago.



2. Eta esan zuen: Jauna etorri zan Sinaitik, eta Seirtik jaio zan guretzat, agertu zan Farango menditik, eta berarekin santuen millak. Bere eskuiean suzko legea.

3. Maitatu zituen erriak, santu guziak daude bere eskuan: eta bere oñetara alderatzen diradenak, artuko dute bere irakasitik.

4. Moisesek agindu zigun legea, Jakob en taldearen primezatzat.

5. Izango da txit zuzenaren erregea, erriaren buruak daudenean bilduak Israelko tribuakin.

6. Bizi bedi Ruben eta ez bedi il, eta izan bedi txikia zenbatean.

7. Au da Judaren bedekazioa: Aditu ezazu Jauna Judaren boza, eta sartu ezazu bere errian, bere eskuak gudan ariko dirade beragatik eta izango da gordetzalea bere etsaien kontra.

8. Lebiri ere esan zion: Zure onotasuna eta zure irakasia zure gizon santu, probatu zenduenarentzat tentazioan, eta juzgatu zenduenarentzat kontradikziozko uretan.

9. Zeñak esan zioten bere aitari, eta bere amari: Etzaituztet ezagutzen; eta bere anaiari: Ez dakit nor zeraten. eta etzituzten ezagutu beren semeak. Oiek zaitu zuten zure itza, eta gorde zuten zure elkartasuna,

10. Zure erabakiak o Jakob, eta zure legea o Israel, jarriko dute inzensoa zure sumintasunean, eta holokaustoa zure aldarearen gañean.

11. Bedeikatu ezazu Jauna bere sendotasuna, eta artu itzatzu bere eskuen egiteak. Zauritu itzatzu bere etsaien bizkarrak, eta gorrotatzen dutenak ez bitez jaiki.

12. Eta Benjamini esan zion: Jaunaren txit maitea bizituko da bertan itxedopenarekin, egongo da eztoian bezela egun guztian, et atsedengo du bere solbarden artean.

13. Joseri ere esan zion: Bere lurra Jaunaren bedekazioz, zeruko frutuz, eta intzez, eta lurraren azpiko urez bete,

14. Eguzkiak eta illargiak egiten dituzten frutuz.

15. Anziñako mendien erpiñez, betiko muñoen frutuz,

16. Lurreko frutuz eta bere betetasunez. Sasian agertu zitzaionaren bendizioa, etorri bedi Joseren buruaren gañera, eta nazareoaren buruaren gañera bere anaien artean.

17. Bere edertasuna zezenaren lenbisisortuarena bezelakoa, bere adarrak rinozerontearen adarrak bezelakoak, berakin aizatuko ditu jendeak lurraren atzeneko mugetaraño. Oiek dirade Efraimen taldeak. Eta oiek Manassesen millak.

18. Eta Zabuloni esan zion: Gozatu zaitte Zabulon zure irteeran, eta Isakar zure txaoilatxoetan.

19. Deituko dituzte erriak mendira, an eskeñiko dituzte zuzentasuneko doañak. Zeñak miazkauko dute eznea bezela itsasoko aberastasuna, eta ondartzetako gordairu ezkutua.

20. Eta Gadi esan zion: Bedekatua Gad zabaleran: leoiak bezela atsedean zuten, eta arrapatu zuten besoa eta buruaren gaña.

21. Eta ikusi zuten bere nagusitasuna, bere partean zetzalako irakaslea, zeñ joan zan erriko prinzipiakin, eta egin zituen Jaunaren zuzentasunak, eta bere erabakia Israelekin.

22. Dani ere esan zion: Dan leoiaren humea, eta zabalduko da asko Basandik.

23. Eta Neptaliri esan zion: Neptali gozatuko da ugaritasunean, eta izango da Jaunaren bedekazioz bete, izango da itsasoaren eta Egoaldearen jabe.

24. Aserri ere esan zion: Bedekatua Aser semeen artean, izan bekioite oniritzia bere anaiari, eta busti beza olioan bere oña.

25. Burnia eta kobrea bere oñetako. Zure gazte denborako egunak bezela, ala zure zartza ere.

26. Ez da beste Jaungoikorik txit zuzenaren Jaungoikoa bezelakorik. Zeruen gañean eseria dagoena da zure bitartekoa. Bere anditasunagatik dijoaz korrika odeiak aldamen batetik bestera,

27. Bere bizilekua goian, eta emen bean bere beso betikoak, aurtikiko du zure aurretikan etsaia, eta esango du: Gelditu zaitte puskatua.

28. Bizituko da Israel itxedopenarekin eta bakarrik. Jakob en begia gari eta ardozko lurrean, eta zeruak illunduko dirade intzarekin.

29. Doatsua zera zu Israel. Zeñ zure antzekorik o erri, Jaunak salbatua zerana? Bera da zure laguntasunaren ezkutua, eta zure gloriaren ezpata. Zure etsaiak etzaituzte ezagutu naiko, eta zuk zapatuko dituzu beren lepoak.

OGEITA AMALAUAREN KAPITULUA

1. Igo zan bada Moises Moabko landaetatik Nebo mendiaren gañera, Fagaren erpiñera Jerikoren aurkez, eta erakusi zion Jaunak lur guztia Galaadtik Daneraño,

2. Eta Neptali guztia, eta Efraimen eta Manassesen lurra, eta Judako lur guztia atzeneko itsasoraño,

3. Eta egoeko aldamera, eta Jerikoko, palmien erriko kanpoaren zabalera Segorreraño.



4. Eta esan zion Jaunak: Au da lurra zeñgatik juramentu egin zioten Abraham, Isaak eta Jakobi, esaten zuela: Zure jatorriari emango diot. Ikusi dezu zure begiak eta etzera iragoko beratara.

5. Eta il zan an Moises Jaunaren serbitzaria Moabko lurlean Jaunak agindurik.

6. Eta obiatu zuen ibarrean Moabko lurlean Fogorren aurkez, eta etzuen ezagutu gizonek bere obia gaurko eguneraño.

7. Moises zan eun eta ogei urtekoa il zanean, bere begia etzan illundu, eta bere ortzak ere etziraden mugitu.

8. Eta negar egin zuten beragatik Israelko semeak Moabko landetan ogei ta amar egunear, eta bete ziradenean oiek, bukatu zan Moises gatik negar egiten zutenen progua.

9. Eta Josue Nunen semea izan zan jakinduriako doaiez betea, zeren Moisesek jarri zituen bere eskuak bere gañean. Eta obeditu zioten Israelko semeak, eta egin zuten Jaunak Moisesi agindu zion bezela,

10. Eta etzan jaiki berriz Israelen profetarik Moises bezelakorik, zeñarekin Jaunak itz egin zuen arpegiz arpegi,

11. Señale eta arrigarri mot guzietan, zeñak egin zituen bere bitartez, Ejiptoko lurlean, zeñak egitera bidaldu zion Faraoni, eta bere serbitzari guztiai, eta aren lur guztiai.

12. Eta esku sendo guztia, eta mirari andi, Moisesek egin zituenak Israel guztiaren aurrean.

JOSUEREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Eta gertatu zan Moises Jaunaren serbitzaria il ezkeru, itz egitea Jaunak Josue Nunen seme Moisesen ikasleari, eta esan zion:

2. Moises nere serbitzaria il da, jaiki zaite, eta irago ezazu Jordan au zuk, eta erri guztiak zurekin, nik Israelko semeai emango diedan lurrera.

3. Emango dizutet zuen oñaren azpiak zapatzen duen lur guztia, Moisesi esan nion bezela.

4. Eremitik eta Libanotik Eufrates ibai andiraño, Heteoen lur guztia itsaso andiraño eguzkiaren sarrerarontz, izango dirade zuen mugak.

5. Iñor ezin jarkiko zatzute zure bizitzako egun guzietan, izandu nintzan bezela Moisesekin, ala izango naiz zurekin, etzaitut utziko, ez desanparatuko.

6. Indartu zaite, eta izan errutsua, zeren zuk partituko diozu suertez erri oni, beren gurasoai emango niela juramentuarekin eskeñi nien lurra.

7. Indartu zaite bada, eta izan txit errutsua, zaitu eta gorde dezazun, Moises nere serbitzariak agindu zizun lege guzia, ez ezazu beratatik alderikan egin eskuiera, edo ezkerrean, aditu ditzatzun egiten dituzun gauza guztiak.

8. Ez beza alderik egin lege onen liburuak zure aotik, baizik meditatute ezazu beratan gau ta egun, zaitu eta egin ditzatzun beratan eskribatuak dauden gauza guztiak. Orduan zuzenduko dezu zure bidea, eta adituko dezu.

9. Ona non agintzen dizudan, indartu zaite, eta izan errutsua. Etzaitte beldurtu, eta ez ezazu ere iduki beldurrik, zeren zurekin da zure Jaun Jainkoa joaten zeran toki guzietan.

10. Eta agindu zioten Josuek erriko prinziipeai, esaten zuela: irago zaitzete etzauntzen erditikan, eta agindu zaiozute erriari, eta esan:

11. Gertutu itzatzute zuentzat bazkaorniak, zeren iru egunen buruan iragoko dezute Jordana, eta sartuko zerate, zuen Jaun Jainkoak emango dizuten lurlean beraren jabe izateko.

12. Esan ere zioten Rubengoai, Galaadkoai, eta Manasesen tribu erdiari:

13. Oroitu zaitzete Moises Jaunaren serbitzariak eman zizuten agintzarekin, esan zizutenean: Zuen Jaun Jainkoak eman dizute atsedena, eta lur guztia.



14. Zuen emazteak, eta semeak, eta abereak geldituko dirade Moisek eman zizuten lur onetan Jordandik emengo aldetik, baña zuek irago zaitezte armautu zuen anaien aurrean, sendo eta errutsu guztiak, eta guda-tu zaitezte beren alde,

15. Aliketa Jaunak eman ditzaioten bitartean atsedena zuen anaiak, zuei ere eman zizuten bezela, eta berak ere izan ditezten bitartean, zuen Jaun Jainkoak emango dioten lurraren jabe, eta orduan itzuliko zerate zuek jabe zeraten lurrera, eta bizituko zerate an, zeñ eman zizuten Moises Jaunaren serbitzariak Jordanen aldamen onetatik eguzkiaren irteera-rontz.

16. Eta erantzun zioten Josueri, eta esan zuten: Egingo ditugu agin-tzen diguzun gauza guztiak, eta joango gera bidaltzen gaituzun edozeñ tokitara.

17. Nola obeditu giñon Moisesi gauza guztietan, ala obedituko dizu-gu zuri ere, bakarrik izan dedilla zurekin zure Jaun Jainkoa, izan zan beze-la Moisesekin.

18. Jarkitzen zaiona zure itzari, eta obeditzen ez diotena zuk ematen diozkazun aginte guztiak, illa izan bedi. Bakarrik iduki dezazula zuk sen-dotasuna, eta portatu zaitezela gizonkiro.

BIGARREN KAPITULUA

1. Bidaldu zituen bada Josue Nunen semeak ixillean Setimdik bi zela-tari, eta esan zioten: Zoazte, eta aztertu ezazute lurra eta Jerikoko erria. Zeñak joanik, sartu ziraden emakume galots Rahab zeritzan baten etxean, eta egon ziraden an ostatuz.

2. Eta gaztigua emana izan zitzaion Jerikoko erregeari, eta esan zio-ten: Ona non sartu diraden emen Israelko semeetatiko gizon batzuek, lurra aztertzeraz.

3. Eta Jerikoko erregeak bidaldu zion Rahabi esaten: Atera itzatzu kanpora zugana etorri diraden, eta zure etxean sartu diraden gizon oiek, zeren zelatariak dirade, eta etorri dirade lur guztia aztertzeraz.

4. Baña emakumeak arturik gizonak, ezkutatu zituen, eta esan zuen: Aitortzen det etorri ziradela nere etxera, baña ez nekian nik nongoak zira-den,

5. Eta atea itxitean illunean, berak ere batera atera ziraden, eta ez dakit nora joan diraden. Jarraitu zaiezute bereala, eta arrapatuko dituzute.

6. Baña berak igoerazi zioten gizonak bere etxeko ganbarara, eta esta-li zituen, an zegoan liñozko sortakin.

7. Bidalduak izan ziradenak berriz jarraitu ziozkaten Jordango ube-rara daraman bidetik, eta atera ziradenean berak, bereala itxi zuten atea.

8. Oraindik etzituen loak artu ezkutatuak zeudenak, eta ona non emakumea igo zan berakgana, eta esan zuen:

9. Badakit Jaunak eman dizutela lurra, zeren zuen izenaren beldurra erori da gure gañera, eta kordegabetu dirade lurrean bizi diraden guztiak.

10. Aditu degu Jaunak leortu dituela itsaso Gorriko urak zuen sarre-ran, atera ziñatenean Ejiptotikan, eta zer egin ziñioten Amorreen bi errege Jordanen bes aldamenean zeudenai Sehon eta Oji, zeñak il zen-duzten.

11. Eta oiek adituta beldur izan gera, eta kordegabetu da gure biotza, eta ez da gelditu guban asnasarik zuen sarreran, zeren zuen Jaun Jainkoa, bera da Jaungoikoa an goian zeruan, eta emen bean lurrean.

12. Orain bada juramentu egin zadazute Jauna gatik, nola nik iduki dedan errukia zuekin, ala zuek ere idukiko dezutela nere aitaren etxeare-kin, eta eman zadazute señale egiazko bat,

13. Salbatuko dituzutela nere aita eta nere ama, eta nere anaiak, eta aizpak, eta berenak diraden gauza guztiak, eta libratuko gaituzutela erio-tzatik.

14. Zeñak erantzun zuten: Gure biziarekin salbatuko degu zuena, sal-dukeriaren bat egiten ez baldin badiguzu. Eta Jaunak ematen digunean lur au, idukiko degu zurekin errukia, eta egiztatuko degu gure eskeñia.

15. Deseseki zituen bada soka batekin leiotikan, zeren bere etxea murruari itsatsia zegoan.

16. Eta esan zioten: igo zaitezte mendira, bidean arkitu ez ditzatzu-ten itzultzen diradenak, eta zaudete an ezkutatuak iru egunean, aliketa biurtu ditezten bitartean, eta orduan joango zerate zuen bidetik.

17. Berak esan zioten: Guk kunplituko degu zuzenkiro, eskatu digu-zun juramentua,

18. Sartzen geranean lurrean egongo balitza señaleztat eskarlata kolorezko kordoe au, eta lotuko baziño deseseki gaituzun leioari, eta bil-duko baziñitu zure etxean zure aita, eta zure ama, eta zure anaiak, eta zure aide guztiak.

19. Baña aterako balitza norbait zure etxeko atetik kanpora, berari egokiko zaio eta ez guri bere eriotza. Baña zurekin zure etxean dauden guzien odola egokiko zaigu guri, baldin norbaitek ukiturik egingo baliote.

20. Baña baldin zuk salduko baginduzu, eta zabalduko bazeneza elkartasun au, ez gerade lotuak egongo eskatu diguzun juramentu onekin.



21. Eta berak erantzun zuen: Esan dezuten bezela, ala egin bedi. Eta utzirik berai joaten, eseki zuen leiotik eskarlata kolorezko kordoa.

22. Berak berriz ibillita allegatu ziraden mendira, eta an egon ziraden iru egunean, beren billa joan ziradenak itzuli ziraden bitartean, zeren billa-tuta bide guztietatik etzituzten arkitu.

23. Zeñak sartu ziradenean errian, zelatariak jatxi ziraden menditik, eta biurtu ziraden, eta iragota Jordana, etorri ziraden Josue Nunen semea-gana, eta kontatu ziozkaten, gertatu zitzaizkaten gauza guztiak,

24. Eta esan zioten: Jaunak jarri du gure eskuetan lur guzti au, eta beldurrez eroriak daude bertan bizi diraden guztiak.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Josuek bada jaikirik gauaz mugitu zituen etzauntzak: eta Setimdi-kan aterata, etorri ziraden Jordanera bera eta Israelko seme guztiak, eta gelditu ziraden an iru egunean.

2. Zeñak iragota, pregoilariak irago ziraden etzauntzen erditik,

3. Eta deadarrez asi ziraden esaten: ikusten dezutenean zuen Jaun Jainkoaren elkartasuneko kutxa, eta Lebiren jatorriko apaizak daramatela, jaiki zaitezte zuek ere, eta jarraitu zaiezute aurretik dijoazenai.

4. Eta egon bitez zuen eta kutxaren artean bi milla beso: urrutitikan ikusi ditzakezuten, eta jakin zeñ bidetatikan joango zeraten, zergatik len etzerate beratatik ibilli, eta kontu iduki ezazute alderatzeko kutxara.

5. Eta esan zion Josuek erriari: Santutu zaitezte, zeren biar Jaunak egingo ditu zuen artean mirariak.

6. Eta esan zioten apaizai: Artu ezazute elkartasuneko kutxa, eta joan zaitezte erriaren aurretik. Zeñak beterik aginteak, artu zuten, eta ibilli zira-den beren aurretik.

7. Eta esan zion Jaunak Josueri: Gaur asiko naiz zu gora altxatzen Israel guztiaren aurrean, jakin dezaten, Moisesekin izan nintzan bezela, ala naizela zurekin ere.

8. Zuk berriz agindu zaiezu elkartasuneko kutxa daramaten apaizai, eta esan zaiezu: Sartzen zeratenean Jordango uraren parte batera, zaude-te an.

9. Eta esan zioten Josuek Israelko semeai: Alderatu zaitezte onara, eta aditu ezazute zuen Jaun Jainkoaren itza.

10. Eta berriz: Onetan, esan zuen, jakingo dezute Jaun Jainko bizia dagoela zuen erdian, eta galduko dituela zuen aurrean Kanantarra, eta Hethetarra, Hebetarra eta Fereztarra, Jerjestarra ere, eta Jebustarra eta Amortarra.

11. Ona emen non lur guztiko Jaunaren elkartasuneko kutxa joango da zuen aurretik Jordandikan.

12. Gertutu itzatzute amabi gizon Israelko tribuetakoak, tribu bakoitzetik bat.

13. Eta lur guztiko Jaun Jainkoaren kutxa daramaten apaizak jartzen dituztenean beren oñen azpiak Jordango uretan, beeko aldameneko urak jarraituko diote beren bideari eta aituko dirade: goitikan datoztenak berriz geldituko dirade montoituta.

14. Atera zan bada erria bere etzauntzetatik, eta elkartasuneko kutxa zeramaten apaizak, zijoazten bere aurrean.

15. Eta sarturik berak Jordanera, eta asirik bustitzen beren oñak uraen zati baten (Jordango urak berriz azi ziraden bere erriberak ezkuta-tzeraño, zalako igitaitzeko denbora)

16. Goitikan zetozen urak gelditu ziraden toki batean, andituta mendi baten gisara, ikusten ziran urrutitikan Adom deritzan erritik Sar-tango tokiraño; beeko aldamenekoak berriz jatxi ziran eremuko itsasora (zeñi orain deitzen zaion illa) osotero aitu ziraden bitartean.

17. Bitartean erria zijoa Jerikorontz, eta Jaunaren elkartasuneko kutxa zeramaten apaizak, zeuden geldidirik eta Jaunaren agintera, lur leor-raren gañean Jordanen erdian, eta erri guztia zijoa iragoaz ibaiaren aska leorretik.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Zeñak iragota, esan zion Jaunak Josueri:

2. Autu itzatzu amabi gizon tribu bakoitzetik bat,

3. Eta agindu zaiezu, artu ditzatela Jordango askaren erditikan, non egon ziraden geldituta apaizen oñak, amabi arri txit gogorak, zeñak jarri-ko dituzuten etzauntzen tokian, gaurko gauean dendak ipintzen dituzuten lekuan.

4. Eta ots egin zioten Josuek amabi gizon Israelko semeetatik autu zituena, tribu bakoitzetik bat,

5. Eta esan zioten: Zoazte zuen Jaun Jainkoaren kutxaren aurrera Jordanen erdira, eta ekarri ezazute andikan bakoitzak arri bat zuen sor-baldetan, Israelko semeen zenbataren araura,

6. Izan dedin señaleara zuen artean, eta biar galdetzen dizutenean zuen semeak, esaten dutela: Zer adirazten dute arri oiek?

7. Erantzungo diezute: iges zuten Jordango urak Jaunaren elkartasu-neko kutxaren aurretik, bera andikan iragotzen zanean: argatik jarriak izan ziraden arri oiek, Israelko semeen betiko oroipengarrizat.



8. Egin zuten bada Israelko semeak Josuek agindu zioten bezela, eramaten zituztela Jordango askaren erditik amabi arri, Jaunak agindu zion bezela, Israelko semeen zenbataren araura, etzauntzak jarri zituzten toki-raño, eta an ipiñi zituzten.

9. Beste amabi arri ere jarri zituen Josuek Jordango askaren erdian, non egon ziraden geldituta elkartasuneko kutxa zeramaten apaizak, eta an daude gaurko eguneraño.

10. Eta kutxa zeramaten apaizak, zeuden sendoki Jordanen erdian, bete zan artean Jaunak Josueri agindu zion guztia, erriari adirazteko, eta Moisesek esan ziona. Eta erria asi zan arin ibiltzen, eta irago zan.

11. Eta irago ziradenean guztiak, irago zan Jaunaren kutxa ere, eta apaizak zijoazten erriaren aurrean.

12. Rubenen eta Gaden semeak ere, eta Manasesen tribuaren erdia, armakin zijoazten Israelko semeen aurrean, Moisesek agindu zioten bezela:

13. Eta berrogei milla gadari oiek beren talde eta dia andietan zijoazten Jerikoko erriko lau, eta kanpoetatik.

14. Egun artan txit goratu zuen Jaunak Josue Israel guztiaren aurrean; bere beldur izan zitezten, Moisesen beldur izan ziraden bezela, oraindikan bizi zala.

15. Eta esan zion:

16. Agindu zaiezu elkartasuneko kutxa daramaten apaizai, igo ditez-tela Jordandikan.

17. Zeñak agindu zioten, esaten zuela: igo zaitetze Jordandikan.

18. Eta igo ziradenean zeramatela Jaunaren elkartasuneko kutxa, eta asi ziradenean zapaltzen lur leorra, itzuli ziraden urak ibaiaskara, eta zijoazten len oi zuten bezela.

19. Eta erria igo zan Jordandik lenbiziko illaren amargarren egunean, eta jarri zituzten etzauntzak Galgalan Jeriko erriaren sortaldeko aldamenaren aurkez.

20. Ipiñi ere zituen Josuek Galgalan, Jordango askatik artu zituzten amabi arriak,

21. Eta esan zioten Israelko semeai: Galdetzen dietenean zuen semeak biar beren gurasoai, eta esaten dietenean: Zer esan nai dute arri oiek?

22. Irakasiko dituzute, eta esango dezute: Oin leorrez irago zuen Israelek Jordan au,

23. Zuen Jaun Jainkoak sikatuta bere urak zuen aurrean, aliketa irago ziñaten bitartean,

24. Len egin zuen bezela itsaso Gorrian, zeñ leortu zuen irago giñan bitartean,

25. Ezagutu dezaten lurreko erri guztiak Jaunaren esku txit sendoa, eta zuek ere zuen Jaun Jainkoaren beldur izan zaitetzen denbora guztian.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Aditu zutenean bada Amorrheo errege, bitizu ziradenak Jordango beste aldamentean sartalderontz, eta Kanaango errege guztiak, ziradenak itsaso andiaren aldeko tokien jabeak, Jaunak leortu zituela Jordango urak Israelko semeen aurrean irago ziraden bitartean, biotz gabetu ziraden guziak, eta etzan gelditu beretan asnasarik, Israelko semeen sarreraren beldurrez.

2. Denbora artan esan zion Jaunak Josueri: Egin itzatzu zuretzat arrizko kanibetak, eta zirkunzidatu itzatzu bigarrenez Israelko semeak.

3. Egin zuen Jaunak agindu ziona eta zirkunzidatu zituen Israelko semeak ganaisalen muñoan.

4. Bigarren zirkunzizio au izan zan, zeren Ejiptotikan atera zan erri guztia, gizakia, gizon gudari guztiak, il ziraden eremuan bideko inguru txit luzeetan,

5. Zeñak guztiak zirkunzidatuak zeuden. Eremuan jaiio zan erria berriz,

6. Berrogei urteko bidean eremu txit luzetik zirkunzidatu gabe zegoan, akabatu ziran bitartean Jaunaren boza aditu etzutenak, eta zeñai len juramentu egin zioten, etziela erakutsiko eznea eta ezta dariozkan lurak.

7. Oien semeak jarri ziraden gurasoen lekuan, eta Josuek zirkunzidatuak izan ziraden, zeren zeuden ganaisalarekin jaiio ziranean bezela, eta etzituen inork zirkunzidatu bidean.

8. Baña guztiak zirkunzidatuak izan ziraden ezker, egon ziran etzauntzetan toki huratan beratan, sendatu ziran bitartean.

9. Eta esan zion Jaunak Josueri: Gaur kendu det Ejiptoko lotsaria zuek gandik. Eta deitua izan zan toki huraren izena Galgala, gaurko eguneraño.

10. Eta egon ziraden Israelko semeak Galgalan, eta egin zuten Paskoa illaren amalaugarren egunean arratsaldetik Jerikoko landetan.

11. Eta urrengo egunean jan zituzten erriko gariarekin egindako ogi legamigabeak, eta urte artako iriña.

12. Eta aitu zan manna lurreko frutuetatik jan zuten ezker, eta andikan aurrera etzuten berriz jan Israelko semeak janari huratatik, baizik jan zituzten Kanaango lurreko urte artako frutuetatik.



13. Eta zegoala Josue Jerikoko erriko kanpoan, altxatu zituen begiak, ikusi zuen gizon bat zutik zegoala beraren aurkez, zuela ezpata billos bat, eta zuzendu zan beraganontz, eta esan zion: Guretatikoa zera zu, ala etsaieztatikoa?

14. Berak erantzun zuen: Ez: baizik naiz Jaunaren soldaudiaren agintaria, eta orain nator.

15. Josue auzpeztu zan lurrean bere arpegiaren gañean. Eta adoratzen zuela, esan zuen: ¿Zer da nere Jaunak itz egiten diona bere serbitzariari?

16. Kendu ezazu, erantzun zion, zure oñetakoa zure oñetatik: zeren zauden tokia, santua da. Eta egin zuen Josuek agindua izan zitzaion bezela.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta Jeriko zegoan itxia eta ongi murrutua, Israelko semeen beldurra gatik, eta etzan inor benturatzan irtetzen edo sartuten.

2. Eta esan zion Jaunak Josueri: Begira zure eskuan jarri ditudala Jeriko, eta bere erregea, eta bertako gizon sendo guztiak.

3. Jira bat eman zaiozute erriari gerrari guztiak egunean bein, ala egingo dezute sei egunean.

4. Zazpigarren egunean berriz apaizak artu bitzate zazpi tronpeta, jubileorako serbitzen dutenak, eta bijoaz elkartasuneko kutzaren aurretik, eta zazpi aldiz jira egingo diozute erriari, eta apaizak joko dituzte tronpetak.

5. Eta jotzen danean tronpetaren soñu luzeagoa, eta autsia, eta zauritzen dituenen zuten belarriak, erri guziak batean deadar egingo du deadar txit andia, eta eroriko dirade erriko murrak zimenduetaraño, eta bakoitza sartuko da aurrean daukan tokitik.

6. Ots egin zioten bada Josue Nunen semeak apaizai, eta esan zioten: Ar zazute elkartasuneko kutxa, eta beste zazpi apaizek ar ditzatela jubileoetako zazpi tronpetak, eta bijoaz Jaunaren kutzaren aurretik.

7. Erriari ere esan zion: Zoazte, eta eman zaiozute jira erriari, armakin, joaten zeratela Jaunaren kutzaren aurretik.

8. Eta bukatu zituenean Josuek itzak, eta zazpi apaizak jo zituztenean zazpi tronpetak Jaunaren elkartasuneko kutzaren aurrean,

9. Eta zijoala aurretik ejerzitu guztia armakin, gañerako jendeak jarraitzen zion kutzari, eta aldamen guztietatik aditzen ziran tronpeta soñuak.

10. Josuek berriz agindu zion erriari, esaten zuela: Ez dezute deadarrik egingo, ez da ere aditua izango zuten boza, eta ez da ere aterako zuten aotik itz bakar bat, allegatu dedin bitartean eguna, zeñean esango dizutedan: Deadar egin ezazute, eta eman itzatzute bozak.

11. Jira eman zion bada Jaunaren kutzak erriari egunean bein, eta itzulita etzauntzetara, atsedean zuten an.

12. Jaikirik bada Josue gauaz, apaizak artu zuten Jaunaren kutxa,

13. Eta beretatik zazpi tronpeta, zeñak serbitzen zuten jubileoan, eta zijoazen Jaunaren kutzaren aurretik, zebiltzala eta tronpetak jotzen zituztela, eta erria armauta zijoan beren aurretik, gañerako jendeak berriz jarraitzen zion kutzari, eta ots egiten zuten tronpetak.

14. Eta jira eman zioten bein erriari bigarren egunean, eta itzuli ziraden etzauntzetara. Ala egin zuten sei egunean.

15. Zazpigarren egunean berriz, txit goiz jaikitzen ziradela, eman ziozkaten erriari zazpi jira, aginduta zegoan bezela.

16. Eta zazpigarren egunean apaizak tronpetak jotzen zituztela, esan zion Josuek Israel guztiari: Deadar egin ezazute: zeren eman dizute Jaunak erria:

17. Eta izan bitez erri au eta beratan dauden gauza guztiak desegiñak Jaunarentzat. Bakarrik Rahab galotsa berarekin etxean dauden guztiakin gelditu bedi bizirik, zeren ezkutatu zituen bidaldu ginduzten mandatariaik.

18. Zuek berriz kontuan egon zaitezte ez ukiturik egiteko gauza oiek, onela autsiten dezutela emana dagotzuten agintea, eta ez izateko fedeautsiaren obendun, eta Israelko etzauntz guztiak gelditu ez ditezten bekatuaren azpian eta genasiak.

19. Eta dagoan urre, zillar, bronzeko ontzi eta burni guztia, Jaunari konsagratua izan bizaio, gordeta bere tesoretan.

20. Erri guzia bada deadarrez ari zala, eta tronpetak jotzen zituztela, allegatu zanean jende taldearen belarrietara boza eta otsa, bereala erori ziraden murrak, eta igo zan bakoitza bere aurrean zegoan tokitik: eta artu zuten erria,

21. Eta il zituzten bertan zeuden guztiak, gizasemetik emakumeraño, aurretatik zarretaraño. Beiak, eta ardiak, eta astoak ere irago zituzten ezpataren puntatik.

22. Josuek berriz esan zioten bi gizon mandataritzan bidalduak izan ziradenai: Sartu zaitezte emakume galotsaren etxean, eta atera ezazute bera, eta bereak diraden gauza guztiak, eskeñi ziñioten bezela juramentuarekin.



23. Eta sarturik gazteak, atera zituzten Rahab, eta bere gurasoak, anaiak ere, eta bere tresna guztiak, eta bere aideak, eta gelditu erazi ziozkaten Israelko etzauntzetatik kanpora.

24. Erria berriz eta beratan zeuden gauza guztiak, erre zituzten; salbu urrea eta zillarra, eta bronzeko ontziak, eta burnia, zeñak konsagratuak izan ziraden Jaunaren tesorerurako.

25. Baña Josuek bizirik utzi zitzaizoten Rahab galotsari, bere aitaren etxeari, eta zituen gauza guztiak, eta bizi izan ziraden Israelen erdian gaurko eguneraño, ezkutatu zituelako, Jeriko aztertzerantz bidaldu zituen mandataria. Denbora artan egin zuen Josuek birao au, esaten zuela:

26. Madarikatua Jaunaren aurrean, Jerikoko erria jaso eta egiten duen gizona. Ill bedi bere seme lenbisisortua bere zimenduak egiten dituenean, eta jartzen zaiozkanean bere atek atzeneko semea.

27. Jauna bada izandu zan Josuerekin, eta bere izena egin zan ospetsua mundu guztian.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Baña Israelko semeak autsi zuten agintea, eta berenganatu zuten arrapatu zutenetik zerbait. Zeren Akan Karmiren semeak, Zabdiren semearenak, Zareren semearenak Judaren tribukoak, artu zuen madarikiotiko gauzetatik zerbait. Eta aserretu zan Jauna Israelko semeen kontra.

2. Eta bidaldu Josuek Jerikotik gizon batzuek Hairontz, zeñ dagan Bethabenen aldean, Betelgo erriaren sortaldean, esan zioten: igo zaitetze, eta aztertu ezazute lurra. Zeñak betetzen zituztela aginteak, aztertu zuten Hai.

3. Eta itzulita esan zioten: Ez bedi igo erri guztia, baizik joan bitez bi, edo iru milla gizon, eta desegin bitzate erria, zergatik erri guztia alperrik nekatuko da, etsai txit gutxiren kontra?

4. Igo ziran bada iru milla gizon armadun. Zeñak bereala espaldak bihurturik,

5. Izan ziraden Hai erriko gizonak zaurituak, eta il ziran beretatik ogeita amasei gizon. Eta iges erazi zioten etsaiak atetikan Sabarimraño, eta erori ziraden iges egiten zutela aldats beeretatik, eta beldurtu zan erriaren biotza, eta likatu ura bezela.

6. Baña Josuek urratu zituen bere soñekoak, eta egon zan auzpeztuta lurrean Jaunaren kuxaren aurrean arratsalderaño, bai bera eta bai Israelko zar guztiak, eta bota zuten autsa beren buruen gañera,

7. Eta esan zuen Josuek: ¡Ah Jaun Jainkoa! Zergatik nai izan zenduan irago erazi erri oni Jordango erreka, jartzeko gu Amorreoan eskuetan, eta

gu desegiteko? ¡Arren bada gelditu izan bagiña Jordango beste aldameanean, asi giñan bezela!

8. Nere Jaun Jainkoa, zer esango det, ikusirik Israelek itzultzen diozkatala espaldak bere etsaia?

9. Adituko dute Kanaantarrak, eta lurrean bizi diraden guztiak, eta elkarrekin bilduta ingurutuko gaituzte, eta kenduko dute gure izena lurretik, eta zer egingo dezu zure izen andiarekin?

10. Eta esan zion Jaunak Josueri: Jaiki zaitte, ¿zergatik zaude auzpeztuta lurrean?

11. Bekatu egin du Israelek, eta autsi du nere elkartasuna, eta artu dute madarikaziotik, eta ostu dute eta gezurra esan dute, eta ezkutatu dute beren tresnen artean.

12. Ezin egongo da sendo Israel bere etsaien aurrean, eta berakgandik iges egingo du, zikindu dalako madarikazioarekin. Ez naiz berriz zuekin izango, desegin ditzatzuten bitartean gaiztakeria onen obendun dana.

13. Jaiki zaitte, santutu ezazu erria, eta esan zaiezu: Zaudete santutuak biarko, zeren oiek esan ditu Israelko Jaun Jainkoak, madarikazioko gauza dago zure erdian, o Israel, ezin egongo zera zure etsaien aurrean, aliketa desegina izan dedin bitartean zugandik gaiztakeria onekin zikindua izan dana.

14. Eta alderatuko zerate biar bakoitza bere tribuetan, eta suertean tokatzen zaion tribua, alderatuko da bere aideakin, aideak bere etxeakin, eta etxeak bere gizasemeakin.

15. Eta gaiztakeria onen obendun arkitzen dan edozeñ, izango da suan errea dituen gauza guztiakin, zeren autsi du Jaunaren elkartasuna, eta egin du gauza gorrotogarri bat Israelen.

16. Jaikirik bada Josue goizian ekarri zuen bere aurrera Israel bere tribuetan, eta erori zitzaion suertea Judaren tribuari.

17. Eta etorririk au bere familiakin, erori zitzaion suertea Zareren familiari. Etorririk au ere etxe bakoitzekoakin, erori zan Zabdiren gañean.

18. Eta bereziturik banan banan onen etxeko gizonak, erori zan suertea Akan Karmiren semearen, Zabdiren semearen, Zareren semearen Judaren tribukoaren gañera.

19. Eta esan zion Josuek Akani: Ene semea, eman zaiozu gloria Israelko Jaun Jainkoari, aitortu ezazu, eta agertu zadazu neri zer egin dezun, ez ezazu estali.

20. Eta Akanek erantzun zion Josueri, eta esan zion: Egiazki nik bekatu egin det Israelko Jaun Jainkoaren kontra, eta au eta au egin det.



21. Zeren ikusi nituen tresnen artean granazko kapa txit on bat, eta berreun siklo zillarrezko, eta berrogeita amar sikloko meatze urre bat, eta beren gurarekin artu nituen, eta ezkutatu nituen lurreean nere dendaren erdian, eta aitzurtuta lurra, estali nuen dirua.

22. Bidaldu zituen bada Josuek morroiak, zeñak korrika joanik bere dendara, arkitu zituzten toki beratan ezkutauta zeuden gauza guztiak, eta berakin dirua.

23. Eta ateratzen zituztela dendatik eraman ziozkaten Josueri, eta Israelko seme guztiak, eta aurtiki zituzten Jaunaren aurrean.

24. Arturik bada Josuek (eta Israel guztiak berarekin) Akan Zareren semea, eta dirua, eta kapa, eta urrezko meatzea, eta bere semeak, eta alabak eta bere idiak, eta astoak, eta ardiak, eta denda bera, eta zituen gauza guztiak eraman zituzten Akor ibarrera.

25. Lotsariz bete gaituzulako, desegin zaitzala Jaunak egun onetan. Eta arrika il zuen Israel guztiak, eta zuen guztia suaz desegina izan zan.

26. Eta bildu zuten bere gañean arri montoi andi bat, zeñak dirauan gaurko eguneraño. Eta alde egin zuen berakgandik Jaunaren aserreak. Eta gaurko eguneraño ematen zaio toki hurari Akorko Ibarraren izena.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Jaunak Josueri: Etzaite beldur izan, ez koldartu, artu ezazu zurekin gudarien talde guzia, eta jaikita igo zaite Hai errira. Ona non jarri ditudan zure eskuan bere erregea, eta erria, eta iria eta lurra.

2. Eta egingo diezu Hai erriari eta bere erregeari, egin ziñioten bezela Jerikori eta aren erregeari, baña ebaspilla eta abere guziak partituko dituzute zuen artean, jarri zatzazkiozu zelatadak iriari bere ostean.

3. Jaiki zan bada Josue, eta berarekin gudarien ejerzitu guzia, igotzeko Haien kontra, eta bidaldu zituen gauaz ogeita amar milla gizon sendo,

4. Eta agindu zioten, esaten zuela: Jarri itzatzute zelatadak iriaren ostean, etzaitzete asko urrutitu: eta guziok egongo zerate gertuak.

5. Zeren ni, eta nerekin dagoan jende guzia alderatuko gera beste aldamenetik erriaren kontra. Eta ateratzen diradenean gure kontra, igesko degu, eta itzuliko diozkagu espaldak, len bezela.

6. Aliketa gu persegitzen gaituztela joan ditezten bitartean erritik urrutira, zeren usteko dute iges egiten degula guk len bezela.

7. Eta guk iges egiten degun eta berak persegitzen gaituzten bitartean, aterako zerate zelatadatik, eta desegino dezute erria, eta zuen Jaun Jainkoak jarriko du zuen eskuetan.

8. Eta arrapatzen dezutenean, su eman zaiozute, eta gauza guztiak egingo dituzute, agindu dedan bezela.

9. Eta bidaldu zituen eta berak joan ziraden zelataden tokira, eta gelditu ziraden Bethel eta Haien bitartean, Hai erriaren sartaldean, eta Josue gelditu zan gau artan erriaren erdian.

10. Eta goiz jaikita zenbatu zituen lagunak, eta igo zan zarrakin ejerzituaren aurrera, inguruan zaitzen zutela gudari onak.

11. Eta allegatu ziradenean eta igo erriaren aurretik, gelditu ziraden erriaren ifarreko aldamenean, zeñaren eta beren bitartean zegoan ibar bat.

12. Bost milla gizon autu zituen eta jarri zelatadan Bethel eta Haien bitartean, erri huraren beraren sartaldeko aldamenean.

13. Gañerako ejerzitu guztia berriz zijoan gudarako gertutua ifarrentz, alako moduan non talde huraren atzenak allegatzen ziran erriaren sartaldeko aldamenera. Joan zan bada Josue gau artan, eta gelditu zan ibarraren erdian.

14. Ikusi zuenean au Haiko erregeak, atera zan agudo goizean goiz errian zegoan ejerzitu guztiarekin, eta zuzendu zituen bere gudariak eremurontz, ez jakiñik ostetikan zeudela ezkutatuak zelatadak.

15. Josue berriz eta Israel guztia zijoazten utzia tokia, adirazten zutela beldur zeradela, eta iges egiten zutela eremuko bidetik.

16. Eta aiek deadar egiten zutela aldabatera, eta elkar sendatzen zutela, zijoazten berak persegituaz. Eta erritikan urrutira alde egin zutenean,

17. Gelditu gabe Hai eta Bethelko errian bat bakarra ere, atera gabe Israel persegitzera (utziten zituztela idikiak naasian atera ziraden erriko atek)

18. Esan zion Jaunak Josueri: Altxatu ezazu eskuan dezun ezkutarma Hai errirontz, zeren zuri emango dizut.

19. Eta altxatuta ezkutarma errirontz, atera ziraden bereala, zelatadan ezkutatuak zeudenak, eta joanik errirontz, artu zuten eta su eman zioten.

20. Baña erriko gizon, Josue persegitzen zutenak, begiraturik atzerontz, eta ikusirik erriko ke zeruraño igotzen zuena, ezin zuten igesik egin aldamen batera ez bestera, batezere igesi zijoaztela eta eremura zuzentzen ziradela iruditu zutenak, esetsi ziozkaten persegitzen zituztenai.

21. Eta ikusirik Josuek eta Israel guztiak iria arrapatua izan zala, eta erriaren kea igotzen zala, itzulita esetsi zien Haiko gizonai.

22. Zeren erria arrapatu eta su eman ziotenak ere aterarik erritik biltzeko berenakin, asi ziraden zauritzen erdian zeuzkaten etsaiak. Eta nola etsaiak ziraden zaurituak aldamen bietatik, alako moduan non batek baka-rrik ere etzuen igesik egin talde ain anditik.



23. Hai erroko erregea ere arrapatu zuten bizirik, eta eraman zioten Josueri.

24. Illik bada, Israeli eremuetara zijoanari persegitu zioten guztiak, eta erorita ezpataz toki huratan beratan, itzulita Israelko semeak desegin zuten erria.

25. Ziran bada egun onetan il ziraden gizaseme eta emakumeak, amabi milla gizon, guztiak Hai errokoak.

26. Eta Josuek etzuen beeratu gora altxatu zuen eskua, zeukala ezku-tarma, aliketa illak izan ziraden artean Haien bizitu ziraden guztiak.

27. Abereak berriz eta errian arrapatu zutena partitu zuten beren artean Israelko semeak, Jaunak Josueri agindu zion bezela,

28. Zeñak su eman zion erriari, eta egin zuen iltoki betiko bat.

29. Bere erregea ere eseki zuen urkamendi batean arratsalde eta eguzkia sartu artean. Eta agindu zuen Josuek kendu zezatela bere gorputz illa guruzetik, eta aurtiki zuten erroko sarreran bertan, bildurik bere gañean arri muntoi andi, gaurko eguneraño irauten duen bat.

30. Orduan egin zion Josuek aldare bat Israelko Jaun Jainkoari Hebal mendian,

31. Agindu zioten bezela Moises Jaunaren serbitzariak Israelko semeai, eta eskribatua dagoan bezela Moisesen legeko liburuan, aldarea berriz zan arri landu gabe, burniak ukitu etzienezkoa, eta eskeñi ziozkan bere gañean Jaunari doañak, eta sakrifikatu zituen eskeñtza paketsuak.

32. Eta eskribatu zuen arrien gañean Moisesen legeko Deuteronomio, berak Israelko semeai azaldu ziotena.

33. Eta erri guztia eta zarrak eta agintariak, eta juezak zeuden zutik kutxaren aldamen bietatik, Jaunaren elkartasuneko kutxa zeramaten apai-zen aurrean, arrotza bezela, ala erritarra ere. Beren erdiak Garizim mendiaren aldean, eta beste erdiak Hebal mendiaren aldean, Moises Jaunaren serbitzariak agindu zuen bezela. Eta aurrena Josuek bedekatu zuen Israelko erria.

34. Oien ondoan irakurri zituen bedekazioko eta madarikazioko itz guztiak, eta legeko liburuan eskribatuak zeuden gauza guztiak.

35. Etzuen utzi ukitu gabe, Moisesek agindu zituen gauzetatik bate-re, baizik guztiak berriz esan zituen Israelko talde guziaren, beren artean bizi ziraden emakume eta aur eta arrotzen aurrean.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Oiek adituta, Jordango beste aldameneko errege guztiak, bizi ziradenak mendietan eta lauetan, itsasaldetan, eta itsaso andiaren erriberan,

eta bizi ziradenak ere Libanoen aldean, Heteoa eta Amorreo, Kananeo, Ferezeoa, eta Hebeoa, eta Jebuseoa.

2. Bildu ziraden batean gudan aritzeko Josueren kontra eta Israelen kontra, erabaki eta iritzi batekin.

3. Baña Gabaonen bizi ziradenak, aditurik Josuek Jerikori eta Hairi egin ziezten gauza guztiak:

4. Eta marro bat asmatuta artu zituzten berentzat jakiak, eta jarririk beren astoen gañean zaku zar batzuek eta zagi eten eta berriz jositako batzuek,

5. Eta zapata txit anziñako batzuek, zeñak zarrak ziradedelako seña-letzat josita zeuden ipinkiak, eta jantzita soñeko txit erabillikin, berebat biderako zeramazkiten ogiak ere, ziraden gogorak, eta zatietan txikituak.

6. Eta joan ziraden Josuegana, zeñ orduan zegoan Galgalako etzauntzetan, eta esan zioten berari, eta batean Israel guztiari: Toki urrutitan gatoz, pakea zuekin egin nairik. Eta Israelko semeak erantzun zieten eta esan zuten:

7. Etzaitezela gero izan, suertez tokatzen zaigun lurrean bizi zeretena, eta ezin dezakegula egin zuekin elkartasunik.

8. Baña berak erantzun zioten Josueri: Zure serbitzariak gera. Eta Josuek esan zioten: Zeñ zerate zuek? Eta nondikan etorri zerate?

9. Berak erantzun zuten: Lur txit urruti batetik etorri dirade zure serbitzariak zure Jaun Jainkoaren izenean. Zeren aditu degu bere altsutasunaren ospea, Ejipton egin zituen gauza guztiak,

10. Eta Amorreo bi errege Jordango beste aldamenen zeudena-kin, Sehon Hesebongo errege, eta Og Basango errege, Astarothen zego-anarekin.

11. Eta esan ziñiguten zarrak, eta gure errian bizi ziraden guztiak: Artu itzatzute janariak bide luze baterako, eta irten zatzazkiete bidera, eta esan zaiezute: Zuen serbitzariak gera, egin ezazute gurekin elkartasuna.

12. Ona non geure etxeetatik atera giñanean zuek gana etortzeko, beroak artu giñituen ogiak, orain daude leortuta eta puskatuak zarrak diradelako.

13. Ardo zagi berriak bete giñituen, orain daude urratuak eta dese-giñak, jantzita dauzkagun soñekoak, eta oñetako zapatak daude puskatuak eta deseñak izateko zorian bide luze bateko ibilliagatik.

14. Artu zuten bada beren janarietatik, eta etziran itundu Jaunarekin.

15. Eta egin zuen Josuek berakin pakea, eta egiñik elkartasuna eskeñi zioten etziradela izango illak, erroko prinzipeak ere juramentu egin zieten.



16. Baña iragorik iru egun elkartasuna egin zutenetik, aditu zuten an aldean bizi ziradela, eta beren artean biziko ziradela.

17. Eta mugitu zituzten etzauntzak Israelko semeak, eta irugarren egunean allegatu ziraden beren errietara, zeñaien izenak dirade oiek: Gabaon, eta Kafira, eta Berot, eta Kariatiarim.

18. Eta etzizkaten kendu biziak, ala eskeñi ziozkatelako erriko prinzipiak Israelko Jaun Jainkoaren izenean. Gaizki esan zuen bada erri guztiak prinzipioen kontra.

19. Zeñak erantzun zieten: Juramentu egin diegu Israelko Jaun Jainkoaren izenean; argatik ezin dizaiekegu ukitu.

20. Baña au egingo degu berakin: Gelditu bitez ordu onean bizirik, piztu ez dedin Jaunaren aserrea gure kontra, juramentua betetzen ez baldin badegu,

21. Baña bizi bitez, guztientzat egurra epaki eta urak ekartzeko. Agintariak oiek esaten zituzten bitartean,

22. Ots egin zioten Josuek Gabaontarrai, eta esan zioten: Zergatik engañatu nai izan gaituzte marroz, esaten zendutela: Zuek gandik txit urrutian bizi gera, egonik zuek geure artean?

23. Argatik egongo zerate madarikazioaren bean, eta ez da faltatuko zuen jatorritik nork epaki egurra, eta nork ekarri ura nere Jaungoikoaren etxera.

24. Zeñak erantzun zuten: Allegatu zan berria gugana zure serbitzariokgana, zure Jaun Jainkoak eskeñi ziola Moises bere serbitzariari, eman-go zizutela lur guztia, eta desegin-go zituela bertan bizi ziraden guztiak. Txit beldur izan giñan bada, eta begiratu genduen geure animak gatik, eta zuen beldurraz mugituta, erabaki au egin genduen.

25. Baña orain zure eskuan gaude, ongi ta zuzen deritzazuna egin ezazu gurekin.

26. Egin zuen bada Josuek esan zuena, eta libratu zituen Israelko semeen eskutik, etzitezten izan illak.

27. Eta erabaki zuen egun artan berak ari zitezela erri guztia, eta Jaunaren aldarea serbitzen, egurra ebaki eta urak ekartzen zituztela, gaurko egunerano, Jaunak aututzen zuen tokira.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Aditurik oiek Adonisedek Jerusalemgo erregeak, au da, Josuek artu eta desegin zuela Hai (zeren Jerikori eta bere erregeari egin zion bezela, ala egin zion Hai eta bere erregeari ere) eta Gabaontarrak irago ziradela Israelgana eta ziradela Israelarren elkartuak,

2. Txit beldur izan zan. Zeren Gabaon zan erri andia, eta errege errietatik bat, Hai baño andiagoa, eta bere gudari guztiak txit sendoak.

3. Bidaldu zuen bada mandatua Adonisedek Jerusalemgo erregeak Oham Hebrongo erregeagana, eta Faram Jerimotko erregeagana, Jafia Lakisko errekeagana ere, eta Dabir Eglongo erregeagana, esaten zuela:

4. Igo zaitzte nigana, eta lagundu zadazute arrapatzen Gabaon, Josue eta Israelko semeak gana irago dalako.

5. Bildurik bada irago ziraden Amorreen bost erregeak: Jerusalemgo erregea, Hebrongo erregea, Jerimotko erregea, Lakisko erregea, Eglongo erregea beren soldaudiakin batean, eta jarri zituzten etzauntzak Gabaoenen aldean, esesten ziotela.

6. Baña Gabaoenen inguratuta zegoan errian bizi ziranak bidaldu zituzten mandataria Josue, orduan Galgalan etzauntzetan zegoanagana, eta esan zioten: Ez zaiozu utzi arren zure serbitzari oiei laguntzeari, igo zaitte arin, eta libratu gaitzatu, eta ekarri zaguzu laguntasuna, zeren bildu dira gure kontra, mendietan bizi diraden Amorreen errege guztiak.

7. Eta irago zan Josue Galgalatik, eta berarekin gudarien soldaudi guztia, gizon txit errutsuak.

8. Eta esan zion Jaunak Josueri: Etzaitte beren beldur izan; zeren zure eskuetan jarri ditut, beretatik batere ezin jarkiko zatzu.

9. Josuek bada aterarik Galgalatik eta ibillirik gau guztian, erori zan ustekabean beren gañera.

10. Eta Jaunak naasi zituen Israel ikusirik, eta egin zuen triskantza andia Gabaoenen, eta jarraitu zioten berai Betorongo igoerako bidetik, zauritzen zituela Azeka eta Mazedaraño.

11. Eta igesi zijoztenez Israelko semeakgandik, eta zeudenezan Bethorongo jatxieran, Jaunak bidaldu zituen beren gañera zerutik arri andiak Azekaraño. Eta asko geiago il ziraden txingorren arriakin, Israelko semeak ezpatarekin il zituztenak baño.

12. Orduan itz egin zion Josuek Jaunari, Israelko semeen eskuetan Amorreoak jarri zituen egunean; eta esan zuen beren aurrean: Eguzkia, gelditu zaitte Gabaoenen gañean, eta illargia Aialongo ibarraren gañean.

13. Eta gelditu ziran Eguzkia eta illargia, erriak bere etsaien benganza artu zuen bitartean. Ez al dago eskribatua au justoen liburuan? Gelditu zan bada eguzkia zeruaren erdian, eta egon zan sartu gabetanik egun oso bateko denboran.

14. Etzan izan len ez gero egun aiñ luzerik, obeditzen ziola Jaunak gizonaren bozari, eta gudadzen zala Israelen alde.

15. Eta itzuli zan Josue Israel guztiarekin Galgalako etzauntzetara.



16. Zeren iges zuten bost erregeak, eta ezkutatu ziraden Mazedara erriko lizean.
17. Eta adirazi zioten Josueri, arkituak izan ziradela Mazedara erriko lizean ezkutautu zeuden bost erregeak
18. Zeñak agindu zioten lagunai, eta esan zuen: Amildu itzatzute arri andiak lizearen aora, eta jarri itzatzute gizon artatsuak, itxita daudenak zaitzeko:
19. Zuek berriz etzaitzete orrela geldirik egon, baizik persegitu itzatzute etsaiak, eta il itzatzute, igesi dijoztela bidean gelditzen diraden guztiak, eta etzaitzute ere utzi sartzen beren errietako igestokietan, Jaun Jainkoak zuen eskuetan jarri dituenai.
20. Egiñik bada galmen andia etsaietan, eta ozta utzirik biziarekin bat bakarra, Israelarrakgandik iges egin al izan zutenak sartu ziraden erri murrutuetan.
21. Eta itzuli zan ejerzitu guztia Josuegana Mazedara, non orduan zeuden etzaintzak, ongi eta gizon bakar bat galdu gabetanik. Eta etzan iñor benturatu murtik egiten Israelko semeen kontra.
22. Eta agindu zuen Josuek, esaten zuela: idiki ezazute lizearen aora, eta ekarri zazkidazute an ezkutautu dauden bost erregeak.
23. Eta egin zuten morroiak agindua izan zitzaizoten bezela, eta atera zitzaizkaten lizetik bost erregeak, Jerusalemgo erregea, Hebrongo erregea, Jerimotko erregea, Lakisko erregea, Eglongo erregea.
24. Eta ekarriak izan ziradenean beragana, ots egin zioten Israelko gizaseme guztiai, eta esan zioten berarekin zeuden ejerzituko agintari guztiai: Zoazte eta jarri itzatzute oñak errege oien lepoen gañean. Zeñak joanik, eta ipiñirik oñak errege menperatuen lepoen gañean,
25. Berriz esan zioten: Etzaitzete beldur izan, ezta ikaratu ere, sendatu zaitzete eta izan errutsuak, zeren ala egingo diote Jaunak zuen etsai guztiai, zeñaen kontra gudatzen ari zeraten.
26. Eta oien ondoan Josuek otsak eman erazi ziozkaten berai eta bizia kendu zioten eta eseki zituen bost zuretan, eta egon ziraden zinzilika arratsalderaño.
27. Eta eguzkiaren sarreran, agindu zioten lagunai kendu zitzaizkaten urkamendietatik. Zeñak izanik desesekiak, aurtiki zituzten ezkutautu egon ziraden lizera, eta jarri zituzten bere aoren gañean arri andi, gaurko eguneraño daudenak.
28. Egun onetan beronetan artu zuen Josuek Mazedara, eta irago zuen ezpataren puntatik, eta il zuen bere erregea eta bertan bizi ziraden guz-

- tiak, bat bakarra ere bizirik utzi gabe. Eta egin zion Mazedako erregeari, egin zion bezela Jerikoko erregeari.
29. Eta irago zan Israel guztiarekin Mazedatik Lebnara, eta esetsi zion erri oni,
30. Zeñ bere erregearekin jarri zuen Jaunak Israelen eskuetan, eta irago zituzten ezpataren puntatik erria eta bertan bizi ziraden guztiak. Eta etzuten utzi bizirik bat bakarra ere. Eta egin zioten Lebnako erregeari, egin zioten bezela Jerikoko erregeari.
31. Lebnatik irago zan Lakisera Israel guztiarekin, eta jarririk bere inguruan ejerzitua, esetsi zion.
32. Eta jarri zuen Jaunak Lakis Israelen eskuetan, eta artu zuen biamonean, eta irago zuen ezpataren puntatikan bertan zegoan jende guzia, Lebnarekin egin zuen bezela.
33. Denbora artan igo zan Horam Gazerko erregea, laguntzera Lakiskoai, zeñ desegin zuen Josuek bere jende guziarekin, bat bakarra ere bizirik utzi gabe.
34. Eta irago zan Lakistik Eglonera, eta ingurutu zuen.
35. Eta artu zuen egun artan beratan, eta irago zituen ezpataren puntatik, bertan bizi ziraden guztiak, Lakiskoai egin zioten era berean.
36. Igo ere zan Israel guztiarekin Eglondik Hebronera, eta esetsi zion.
37. Artu zuen, eta irago ezpataren puntatik, eta kendu zion bizia bere erregeari, eta orobat egin zuen alderri artako erri guztiakin, eta bertan zegoan jende guziarekin, etzuen utzi bizirik bat bakarra ere. Nola egin zion Egloni, ala egin zion Hebroni ere, desegiten zuela ezpataren puntarekin, bertan arkitu zituen gauza guztiakin.
38. Andikan Dabirra itzulita,
39. Artu eta desegin zuen, eta irago erazi zituen ezpataren puntatik bere erregea, eta inguru artako errietako jende guzia. Etzuen bat bakarra ere bizirik utzi. Nola egin zioten Hebron eta Lebna eta beren erregeai, ala egin zion Dabir eta bere erregeari.
40. Desegin zuen bada Josuek mendietako, eta egoeko, eta landetako alderri guztia, eta Asedoth bere erregeakin. Etzuen utzi bertan bizirik batere, baizik il zuen asnasa zeukan guztia, agindu zion bezela Israelko Jaun Jainkoak,
41. Kadesbarnetik Gazamraño. Gosendik Gabaonraño ko lur guztia,
42. Eta beren errege eta alderri guztiak artu eta desegin zituen esetsi batean. Zeren Israelko Jaun Jainkoa gudatzen zan beraren alde.
43. Eta itzuli zan Israel guztiarekin etzaintzen tokira Galgalara.



AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Aditurik gauza oiek Jabin Asorko erregeak, bidaldu ziozkaten mandataria Joba Madongo erregeari, eta Semerongo erregeari, eta Atsaphko erregeari,

2. Eta Ifarraldeko errege, bizi ziradenai mendietan eta Zenerothko egoe aldameneko ibarrean, eta Dorko Landa eta alderrietan itsasoaren aldean,

3. Eta sortaldeko eta sartaldeko Kananeoai, eta mendietako Amorreoi eta Heteoi eta Ferezeoi eta Jebuseoi, baitaere Hermongo mendiondoetan Masfako lurtean bizi zan Hebeoari.

4. Eta atera ziraden guztiak beren ejerzituakin, jenedi txit andia, itsas bazterrean dagoan ondarra bezela, eta zaldi eta gurdizko talde muga gabeko bat.

5. Eta errege guzi oiek bildu ziran batean Meromgo uretan, Israelen kontra gudatzeko.

6. Eta Jaunak esan zion Josueri: Etzaiten beren beldur izan: zeren biar ordu onetan berean nik emango dizkizut errege guzi oiek ezpataren puntatik iragoak izateko Israelen aurrean, desaztalduko dituzu beren zaldiak, eta suarekin erreko dituzu gurdiak.

7. Eta etorri zan Josue eta berarekin ejerzitu guztia beren kontra Meromgo uretaraño supituan, eta esetsi zioten,

8. Eta jarri zituen Jaunak Israelko eskuetan. Zeñak desegin zituzten, eta jarraitu zioten Sidon andiraño, eta Maserefothko uretaraño, eta Masfeko kanporaño, zeñ dagoan beraren sortaldean. Eta ala zauritu zituen guztiak non beretatik batere etzuen utzi bizirik.

9. Eta egin zuen, Jaunak agindu zion bezela, desaztaldu zituen beren zaldiak, eta gurdiak erre zituen suarekin.

10. Eta jira egiñik laister artu zuen Asor, eta bere erregea zauritu zuen ezpatarekin, zeren anziña Asor, erreñu guzi oien burua zan.

11. Eta ezpataren puntarekin irago erazi zuen an zegoan jende guzia, iñor bizirik utzi gabe, baizik guzia osotoro desegin zuen, eta erria bera auts biurtu zuen.

12. Eta artu zituen inguruko erri guztiak, eta beren erregeak, irago zituen ezpataren puntatik, eta desegin zituen, agindu zion bezela Moises Jaunaren serbitzariak.

13. Salbu muñoetan eta goietan zeuden erriak, erre zituen Israelek gañerakoak; bakarrik Asor erri txit murrutua izan zan errea.

14. Eta Israelko semeak partitu zuten beren artean erri oietan arrapatu zuten guztia, eta abere guztiak, illik gizon guztiak.

15. Jaunak bere serbitzari Moisesi agindu zion bezela, ala Moisesek agindu zion Josueri, eta onek guztia bete zuen. Etzuen utzi ezerere egin gabe aginte guzietatik, ezta Jaunak Moisesi agindu zion itz bakar bat ere.

16. Artu zuen bada Josuek lur menditsu guztia, eta egoekoa, eta Jesengo lurra, eta laua, eta sartaldea, eta Israelko mendia, eta bere aldeerriak.

17. Eta Seirtikan Baalgaderaño Libanoko lautik Hermonko mendiondotik igotzen dan mendiaren zati bat, artu, zauritu eta il zituen beren errege guziak.

18. Denbora luzean ari zan gudan Josue errege oien kontra.

19. Etzan izan erririk, beren Israelko semeen eskuetan jarri zanik, baizik Hebeoa, Gabaonen bizi zana, zeren guziak gerran arrapatu zituen.

20. Zeren Jaunaren erabakia izan zan, gogortu zitezela beren biotzak, eta gudatu zitezela Israelen kontra, eta arrapatuak izan zitezela, eta etzitezela izan errukiaren piskaren diñak, eta galduak izan zitezela, Jaunak Moisesi agindu zion bezela.

21. Denbora artan etorri zan Josue, eta il zituen mendietako Enazimtarak, Hebrongoak, eta Dabirkoak, eta Anabkoak, eta Juda eta Israelko mendi guzietakoak, eta desegin zituen beren erriak.

22. Etzuen batere utzi Enazimen jatorrikorik Israelko semeen lurtean, salbu Gaza, eta Jeth eta Azotoko errietan, zeñatan bakarrik izan ziraden utziak.

23. Artu zuen bada Josuek lur guztia, Jaunak Moisesi itz egin zion bezela, eta eman zioten Israelko semeai beraren jabe izateko, partitzen ziotela tribuen araura. Eta atsedean zuen lurak gerretatik.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Oiek dirade Israelko semeak garaitu zituzten erregeak, eta zeñaren lurraren jabe egin ziraden Jordango beste aldamenean, sortalderontz, Arnongo errekatik Hermongo mendiraño, eta eremura begiratzen duen sortalde guzia.

2. Sehon Amorreoen errege, Hesebonen bizi zanik bazituen bere lurak, Aroer Arnongo erreken erriberan dagoanetik, eta ibarraren erditik, eta Galaaden erdia, Jaboko errekarano, zeñ dan Ammonen semeen muga.



3. Eta eremutik Zenerothko itsasoraño sortalderontz, eta eremuko itsasoraño, zeñ dan itsaso txit gazia, sortalderontz Bethsimothera dijoan bidetik, eta egoeko aldamen, Aseklothen azpian dagoanetik Fasgaraño.

4. Og Basango errege Rafeoetatik gelditu zanaren muga, zeñ bizitu oi zan Astarothen eta Edrain, eta agintzen zuen Hermongo mendian, eta Salekan, eta Basango alderri guztian

5. Jessuriko, eta Matxatik, eta Galaaden erdiko mugetaraño, zeñak ziraden Schon Hesebongo erregearen mugak.

6. Moises Jaunaren serbitzariak eta Israelko semeak desegin zituzten, eta Moisesek eman zioten beren lurren jabetasuna Rebentarrai eta Gad-tarrai, eta Manasesen tribuaren erdiari.

7. Oiek dirade lurreko erregeak, zeñak desegin zituzten Josuek, eta Israelko semeak Jordango beste aldamenean sartaldean, Baalgaditik Libanoko kanpoan mendiraño, zeñaen zati bat igotzen da Seirrerontz. Eta Josuek eman zioten beraren jabetasuna Israelko tribuai, bakoitzari bere zatia,

8. Ala mendietan, nola lauetan eta landetan. Asedothen eta eremuan eta egoerontz bizi ziraden, Heteoa, eta Amorreo, Kananeo, eta Ferezeoa, Hebeoa eta Jebuseoa.

9. Jerikoko erregea bat: Haiko errege, Betelen aldamenean dagoana, beste bat,

10. Jerusalemgo erregea bat, Hebrongo erregea beste bat,

11. Jerimothoko erregea bat, Lakisko erregea beste bat,

12. Eglongo erregea bat, Gazerko erregea beste bat,

13. Dabirko erregea bat, Gaderko erregea beste bat,

14. Hermako erregea bat, Heredko erregea beste bat,

15. Lebnako erregea bat, Odulango erregea beste bat,

16. Mazedako erregea bat, Bethelgo erregea beste bat,

17. Zafuako erregea bat, Oferko erregea beste bat,

18. Afekgo erregea bat, Sarongo erregea beste bat,

19. Madongo erregea bat, Asorko erregea beste bat,

20. Semerongo erregea bat, Atxsafko erregea beste bat,

21. Thenakgo erregea bat, Majeddoko erregea beste bat,

22. Kadesko erregea bat, Jatxango Karmeloko erregea beste bat,

23. Dorko, eta Dorko probinziako erregea bat, eta Galgalgo erreñuen erregea beste bat,

24. Thersako erregea bat, guztiak ogeita amaika errege.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Josue zan zarra eta edade andikoa, eta esan zion Jaunak: Zartu zera, eta egun asko dituzu, eta gelditu da lur txit zabal, oraindikan suertez partitu ez dana:

2. Au da Galilea guztia, Filisteoen lurra, eta Jessuri guztia.

3. Ibai erre, Ejipto erregatzen duenetik Akarongo mugetaraño ifarrerontz: Kanaango lur, zeñ dagoan partitua Filisteoen bost erregetxoan artean, Gazakoa, eta Azotokoa, Askalongoa, Jethkoa, eta Akarongoa.

4. Egoean berriz daude Hebeoak, Kanaango lur guztia, eta Sidonioen Maara Afekaraño, eta Amorreoaren barrutiak,

5. Eta bere mugaurkeak. Baitaere Libanoko alderria sortalderontz, Baalgaddik Hermongo mendiaren ondoan, Emathko sarreraraño.

6. Mendian bizi diraden guztiak, Libanotik Maserefotko uretaraño, eta Sidontar guztiak. Ni naiz desegingo ditudana Israelko semeen arrear. Betor bada Israelko primutzaren partill izatera, agindu nizun bezela.

7. Eta orain partitu ezazu lurra, zeñaen jabe izan bear duten bederatzitri tribuak eta Manasesen tribuaren erdia,

8. Zeñarekin Ruben eta Gad izan ziraden, Moises Jaunaren serbitzariak Jordango errekararen beste aldamenean sortalderontz eman zioten lurraren jabe.

9. Aroer, Arnongo errekararen erriberaren gañean, eta ibarraren erdian dagoanetik, eta Medabako kanpo guztiak Diboneraño,

10. Eta Schon, Amorreoaren erregearen, Hesebonen, Ammon semeen mugetaraño agindu zuenaren, erri guziak,

11. Eta Galaad, eta Jessuri eta Matxatien alderria, eta Hermongo mendi guztia, eta Basan guztia Saletxaraño.

12. Eta Ojen erreñu guztia Basanen, zeñak agindu zuen Astarothen eta Edraien, bera zan gelditu ziraden Rafeoetatikoa. Eta Moisesek zauritu eta desegin zituen.

13. Eta Israelko semeak etzituzten galdu nai Jessuri eta Matxatikoak. Eta gelditu dirade Israelen erdian gaurko eguneraño.

14. Lebiren tribuari ordea etzion eman ezereen jabetasunik: baizik Israelko Jaun Jainkoaren eskeñtza eta doañak, dirade beraren primutza, itz egin zion bezela.

15. Eman zion bada Moisesek Rubenen semeen tribuari bere tokamena bere aideen araura.

16. Eta izan ziraden beren mugak Aroerdik, zeñ dagoan Arnongo errekararen erriberan, eta erreka huraren beraren ibarraren erdian, Medabara dijoan lau guztia,



17. Eta Hesebon, eta alderrietan dauden erritxar guztiak: Dibon ere, eta Bamothbaal, eta Baalmaongo erria,

18. Eta Jassa, eta Zedimoth, eta Mefaath,

19. Eta Kariathaim, eta Sabama, eta Sarathasar ibarreko mendian.

20. Bethphogor, eta Asedoth, Fasga, eta Bethjesimoth,

21. Eta landetako erri guztiak, eta Sheon Amorroeen erregearen, Hesebonen erreñatu zuenaren, erreñu guztiak, zeñ zauritu zuen Moisesek Madiango prinzippeakin, Hebi, eta Rekom, eta Sur, eta Hur, eta Rebe Sheonen agintari lur artan bizi ziradenak.

22. Eta Balaam Beorren seme aztia il zuten ezpataz Israelko semeak, il ziraden besteakin.

23. Eta Jordango erreka izan zan Rubenen semeen muga. Oiek dirade Rubentarrak beren aideen araura iduki zituzten iriak eta erritxarrak.

24. Eta eman zioten Moisesek Gaden tribuari eta beren semeai beren tokamena, zeñaen partizioa da au.

25. Jasergo alderria, eta Galaadko erri guztiak, eta Ammonen semeen lurraren zati erdia, Aroer-raño, zeñ dagoan Rabbaren aurkez.

26. Eta Hesebondik Ramotheraño, Masphe eta Betonim: eta Manaimdik Dabirko mugetaraño.

27. Ibarrean ere Betharan, eta Bethnemra, eta Sokoth, eta Saphon, eta Sheon Hesebongo erregearen erreñuaren gañerako zatia. Bere muga Jordana ere da, Zenerethko itsasoaren atzeneko egaleraño Jordango beste aldamenean sortaldean.

28. Au da Gaden semeak jabe diraden lurra, beren familien, irien eta errien araura.

29. Manassesen tribuaren erdiari, eta bere semeai ere eman zioten beren tokamena beren aideen araura,

30. Zeñaen asiera da au: Manaimdik Basan guztia, eta Og Basango erregearen erreñu guztiak, eta Jairren erri guzti, Basanen daudenak, irurogei erri,

31. Eta Galaaden, eta Astarothen eta Edraien, Ojen erreñuko erri Basangoen erdia, Matxirren Manassesen semearen semeai, au da, Matxirren semeen erdiari beren aideen araura.

32. Tokamen au partitu zuen Moisesek Moabko landetan Jordango beste aldamenean Jerikoren aurkez sortalderontz.

33. Lebiren tribuari berriz etzion eman tokamenik, zeren Israelko Jaun Jainkoa bera da bere tokamena, esan zion bezela.

AMALAUARREN KAPITULUA

1. Au da iduki zutena Israelko semeak Kanaango lurrean, zeñ eman zieten Eleazar apaizak, eta Josue Nunen semeak, eta Israelko tribu bakoitzeko familien buruak.

2. Partitzen zutela guztia suertean, Jaunak Moisesen bitartez agindu zuen bezela, bederatzi tribu eta erdien artean.

3. Zeren bi tribu eta erdiri eman izan zitzaion Moisesek tokamena Jordango beste aldamenean, Lebitak zenbatu gabe, zeñak etzuten lurrik artu beren anaïen artean:

4. Baizik beren lekuan sartu ziraden Joseren semeak, berezituta bi tributan, Manasses eta Efraim, etzuten ere Lebitak iduki lurrean beste tokamenik, baizik erriak biziteko, eta beren usak bazkatzeko beren abere ta zamariak.

5. Jaunak Moisesi agindu zion bezela, ala egin zuten Israelko semeak, eta partitu zuten lurra.

6. Alderatu ziraden bada Josuegana Galgalan Judaren semeak, eta esan zion Kaleb Jefoneren seme Zeneztarrak: Badakizu zer esan zion Jaunak Moises Jaungoikoaren gizonari Kadesbarnen ni eta zu gatik.

7. Berrogei urte nituen nik bidaldu ninduenean Moises Jaunaren serbitzariak Kadesbarnetik, lurra aztertzer, eta adirazi nion egia neritzana.

8. Baña nere anaia, nerekin igo ziradenak kordegabetu zuten erriaren bioletza, eta alaere nik jarraitu nion nere Jaun Jainkoari.

9. Eta juramentu egin zuen Moisesek egun artan, esaten zuela: Zure oñak zapaltzen duen lurraren jabe izango zerate beti zu eta zure semeak, jarraitu ziñiolako nere Jaun Jainkoari,

10. Jaunak bada eman dit neri bizitza gaurko eguneraño, eskeñi zuen bezela. Berrokeita bost urte dirade Jaunak Moisesi itz au esan ziola, zebillanean Israel eremutik, gaur dauzkat larogeita bost urte,

11. Aiñ osasun sendoarekin, nolakoa neukan lurra aztertzer bidaldua izan nintzan denbora artan, denbora artako sendotasunak dirau nigan gaurko eguneraño, ala gudatzeko, nola ibiltzeko.

12. Eman zadazu bada neri mendi au, zeñ eskeñi zidan Jaunak, zuk ere aditzen zenduela, zeñatan dauden Enaktarrak, eta erri andi eta murrutuak, noaski izango da Jauna nerekin, eta desegin alko ditut, eskeñi zidan bezela.

13. Eta bedeikatu zuen Josuek, eta eman zion Hebron beraren jabe izateko.

14. Eta denbora artatik izan zan Hebron Kalek Jefonen seme Zeneztarrarena gaurko eguneraño, jarraitu ziolako Israelko Jaun Jainkoari.



15. Hebronen izena len zan Kariath-Arbe: Adan andiena Enazimen artean an dago obiratua, eta lurak atsedean zuen gerretatik.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Orain bada Judaren semeai suertean tokatu zitzaizoten lur zatia, beren familien araura, au da, Idumeako mugetatik, Singo eremua Egoerontz, eta egerdi aldameneko atzeneraño.

2. Bere asiera da itsaso txit gaziaren puntatik, eta beraren mingaiñ, egoera begiratzan duenetik.

3. Eta luzatzen da Arrabioaren igoerarontz, eta iragotzen da Sina-ña, eta igotzen du Kadesbarnerontz, eta allegatzen da Esoneraño, igotzen dala Addarrerontz, eta ingurutzen duela Karkaa,

4. Eta iragorik andikan Asemonarontz, allegatzen da Ejiptoko erre-karaño, eta bere mugak izango dirade itsaso andia. Oiek izango dirade egoeko aldameneko mugak.

5. Baña sortaldetik bere asiera izango da itsaso txit gazia Jordango atzeneraño, eta ifarrerontz begira dagoana itsasoaren mingañetik Jordango ibai huratarano.

6. Eta igotzen dute mugak Beth-Haglara, eta iragotzen dirade ifarretik Beth-Arabara, igotzen diradela Boen Rubenen semearen arriraño.

7. Eta zabaltzen diradela Deberako mugetaraño Atxorko ibarretik, begiratzan duela ifarraldetik Galgalara, zeñ dagoan Adommimigo igoeraren aurkez errekareren egoeko aldamenetik, eta iragotzen dirade Eguzkiaren iturria deitzen zaioten urak, eta izango dirade bere atzenak Rojelen iturrian.

8. Eta igotzen dirade Ennomen semearen ibarretik Jebuseoen egoeko aldamenetik, au da Jerusalem, eta andikan altxatzen dala, Jeemonen aurkez dagoan mendiaren erpiñeraño sartalderontz Rafaimgo ibarraren gañean ifarralderontz.

9. Eta iragotzen dirade mendiaren erpiñetik Nephtoaren iturriraño, eta allegatzen dirade Efrongo mendiko errietaraño, eta jatxitzen dirade Baalarontz, zeñ dan Kariathiarim, au da, basoen erria.

10. Eta zirku egiten dute Baalatik sartalderontz, Seirko mendiraño, eta iragotzen dirade Jarimgo mendiaren beste aldamenera ifarretik Txeslonerontz, eta jatxitzen dirade Bethsamesera, eta iragotzen dirade Thamaraño.

11. Eta allegatzen dirade Akaronen ifarreko alderaño, eta jatxitzen dirade Setxronarontz, eta iragotzen dute Baala mendia: eta allegatzen dirade Jebneeleraño, eta bukatzen dirade sartaldean itsaso andian.

12. Oiek dirade inguru guztitik Judaren semeen mugak beren familien araura.

13. Eta Kaleb Jefoneren semeari eman zion bere tokamena Judaren semeen erdian, Jaunak agindu zion bezela, Kariath-Arbe Enaken Aitarena, zeñ dan Hebron.

14. Eta Kalebek desegin zituen beratatik Enaken iru semeak, Sesai eta Ahiman, eta Tholmai Enaken jatorrikoak.

15. Eta igorik andik etorri zan Dabirren bizi ziradenak gana, zeñi len deitzen zitzaion Kariath-Sepher, au da, letraen erria.

16. Eta esan zuen Kalebek: Kariath-Sepher zauritu eta berarekin jabetzen danari, emango diot emaztetzat nere alaba Axa.

17. Eta artu zuen Othoniel Zenezen seme Kaleben anaia txikienak, eta eman zion emaztetzat bere alaba Axa.

18. Zeñ, guziak elkarrekin zijoztela, izan zan bere senarrak itundua, eskatzeko bere aitari kanpo bat, eta bere astoan eseria zijoan eran, egin zuen aspirio bat. Eta Kalebek esan zion: Zer dezu?

19. eta berak erantzun zuen: Eman zadazu zure bendizioa, Eman didazu lur bat egoaldean eta leorra, eman zadazu beste bat erregakoa. Eta Kalebek eman zion lur bat erregatzen zana goitik eta beetik.

20. Au da Judaren semeen tribuko tokamena beren familien araura.

21. Eta Judaren semeen erriak egoaldeko egaletan Idumeako mugetatik ziran: Kabseel, eta Eder, eta Jagur,

22. Eta Zina, eta Dimona, eta Adada,

23. Eta Kades, eta Asor, eta Jethnam,

24. Ziph, eta Telem, eta Baloth,

25. Asor berria, eta Karioth, Herrot, zeñ dan Asor,

26. Amam, Sama, eta Molada,

27. Eta Asergadda, eta Hassemom, eta Bethphelet,

28. Eta Hasersual, eta Bersabee, eta Baziothia,

29. Eta Baala, eta Jim eta Esem,

30. Eta Eltholad, eta Zesil, eta Harma,

31. Eta Sizeleg, eta Medemena eta Sensenna,

32. Lebaoth eta Selim eta Aen eta Remon. Guziak ogei ta bederatzi iri, eta beren erriak.

33. Eta landaetan: Estaol eta Sarea eta Asena,

34. Eta Zanoë eta Engannim eta Zaphua eta Enaim,

35. Eta Jerimoth, eta Adullam, Sotxo eta Azeka,

36. Eta Saraim eta Adithaim eta Jedera eta Jederothaim, amalau iri, eta beren erriak.



37. Sanan eta Hadassa eta Magdalgad,
 38. Delean eta Masepha eta Jekthel,
 39. Lakis eta Baskath eta Eglon,
 40. Txebbon eta Leheman eta Zethlis,
 41. Eta Jideroth eta Bethdagon eta Naama eta Mazed: amasei iri, eta beren erriak.
 42. Labana eta Ether eta Asan,
 43. Jephtha eta Esna eta Nesib,
 44. Eta Zeila eta Atxsib eta Maresa, bederatzi iri, eta beren erriak.
 45. Akaron bere erri, eta erritxarrakin.
 46. Akarondik itsasoraño: Azotorontz begira dauden toki guztiak, eta bere erritxoak.
 47. Azoto bere erri eta erritxoakin. Gaza bere erri eta erritxoakin, Ejiptoko errekarano, eta itsaso andia da bere muga.
 48. Eta mendian: Samir eta Jether eta Sokoth,
 49. Eta Danna eta Kariathsenna, au da Dabir:
 50. Anab eta Istemo eta Anim,
 51. Gosen eta Olon eta Jilo, amaika iri, eta beren erriak.
 52. Arab eta Ruma eta Esaan.
 53. Eta Janum eta Beththaphua eta Apheka,
 54. Athmatha eta Kariatharbe, au da Hebron eta Sior, emeretzi iri eta beren erriak.
 55. Maon eta Karmel eta Ziph eta Jota,
 56. Jezrael eta Judakam eta Zanoë,
 57. Akain, Gabaa, eta Thamna, amar iri, eta beren erriak.
 58. Halhul, eta Bessur eta Jedor
 59. Mareth eta Bethanoth, eta Eltekon, sei iri, eta beren erriak.
 60. Kariathbaal, au da Kariathiarim basoen erria, eta Arebba, bi iri, eta beren erriak.
 61. Eremuan: Betharaba, Meddin eta Satxatxa.
 62. Eta Nebsan, eta gatzaen erria, eta Engaddi, sei iri, eta beren erriak
 63. Baña Judaren semeak ezin zuten desegin Jerusalem bizi zan Jebuseoa; eta Jebuseoa bizi izan da Judaren semeakin Jerusalem gaurko eguneraño.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Joseren semeai tokatu ere zitzaieten suertean lur bat Jordandik Jerikoren aurkez eta bere uretatik sortalderonz, Jerikotik Bethelgo mendira igotzen dan eremuraño,
2. Eta Betheldik ateratzen da Luzara, eta iragotzen ditu Artxiko mugak Atharothrontz.
3. Eta jatxitzen da sartaldetik Jephletiko mugen aldean, Bethoron beekoaren, eta Gazerren mugetaraño. Eta bere mugak bukatzen dirade itsaso andian:
4. Eta beraren jabe izan ziraden Joseren seme Manasses eta Ephraim.
5. Eta izan zan Ephraimen semeen muga beren familietatik, eta berak jabe izan ziraden tokia sortalderontz Atharoth-Addar Bethoron-goikoraño.
6. Eta bere mugak ateratzen dirade itsasora, Matxmethathek begirutzen du ifarrera, eta bere mugak jira egiten dute sortaldetik Thanathselorontz, eta iragotzen dirade sortaldetik Janoeraño,
7. Eta jatxiten dirade Janoetik Ataroth eta Naaratharaño, eta allegatzen dirade Jerikoraño, eta bukatzen dirade Jordanen.
8. Taphuatik iragotzen dirade itsasorontz Kañaberadiaren ibarrera, eta allegatzen dirade itsaso gaziraño. Lur onen jabe da Efraimen semeen tribua bere familietatik.
9. Eta berezituak izan ziraden erriak Efraimen semeentzat, Manassen semeak jabe ziraden luraren eta beren errien erdian.
10. Eta Efraimen semeak etzuten il, Gazerren bizi zan Kanaantarra. Eta bizi izan zan Kanaantarra Efraimen erdian gaurko eguneraño mentetasunean.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Erori ere zitzaion suertea Manassesen tribuari (zeñ izan zan Joseren lenbizisortua), Matxir, Manassesen, Galadden aitaren lenbizisortua, zeñ izan zan gizon gudaria, eta iduki zuen Galaadko eta Basango jabetasuna,
2. Eta Manassesen gañerako semeai beren familien araura, Abiezerren semeai, eta Heleken semeai, eta Esrielen semeai, eta Setxemen semeai, eta Hefarren semeai, eta Semidaren semeai. Oiek dirade Manassesen Joseren semearen giza semeak beren aideetatik.



3. Baña Salfad Hefarren seme, Galaaden seme Matxirren seme Manassesen semeak, etzuen semerik, baizikan bakarrik alabak, zeñaen izenak dirade oiek: Maala eta Noa eta Hegla eta Melka eta Thersa.

4. Eta etorri ziraden Eleazar apaizaren, eta Josue Nunen semearen, eta prinzipeen aurrera, esaten zutela: Jaunak agindu zuen Moisesen eskuz, eman zekigula jabetasuna gure anaien erdian. Eta eman zieten lurak Jaunaren agintearen araura beren aitaren anaien erdian.

5. Eta tokatu zitzaizkan Manassesi amar zati Galaadko eta Basango lurra gabetanik, Jordanen ostean.

6. Zeren Manassesen alabak iduki zuten beren primitzaren jabetasuna bere semeen erdian. Eta Galaadko lurra tokatu zitzaizkien suertean, Manassesen gañerako semeai.

7. Eta Manassesen muga Asertik izandu zan Matxmethath, Sikemerontz begirutzen duena, eta luzatzen da eskuietik, Tafuako iturrian bizitu diradenen aldamera.

8. Zeren Manassesi suertean tokatu zitzaion Tafuako lurra, zeñ dagoan Manassesen lurraren aldean, eta da Efraimen semeena.

9. Eta jatxitzen da muga Kañaberadiko ibarretik Efraimgo errietako errekarren Egoerontz, zeñak dauden Manassesen errien erdian, Manassesen muga iragotzen da errekarren ifarrera, eta bere bukaera dijoa itsasora.

10. Alako moduan non Efraimen lurak daude Egoean, eta Manassesen lurren ifarrean, biak bukatzen diradela itsasoan, eta elkartzen dirade Aserren tribuarekin ifarretik, eta Issakarren tribuarekin sortaldetik.

11. Eta Manassesek iduki zuen Issakarren eta Aserren tokamentzat Bethsan bere erritxarrakin, eta Jeblaam bereakin, eta Dorren bizi ziradenak bere erriakin, Endorren bizi ziradenak ere bere erritxarrakin, eta berebat Tenaken bizi ziradenak bere erriakin, eta Magjedon bizi ziradenak bere erriakin, eta Nofet erriaren irugarren zatia.

12. Eta Manassesen semeak ezin izan zituzten desegin erri oiek; baizik Kanaantarrak asi ziraden bizitzen beren lurrean.

13. Baña Israelko semeak indarra artu zutenean, menderatu zituzten Kanaantarrak, eta egin zituzten berentzat tributarioak, baña etzituzten il.

14. Eta itz egin zioten Joserren semeak Josueri, eta esan zuten: Zergatik eman didazu suerte bakar bat eta zati bakat bat, izanik ni erri ain ugaria, eta Jaunak bedekatua?

15. Zeñai Josuek esan zioten: Erri ugaria baldin bazera, igo zaite basora eta egin itzatzu uneak Ferezeoen eta Rafaimtarren lurrean, zeren Efraimgo mendiaren jabetasuna estua da zuretzat.

16. Zeñi erantzun zioten Joserren semeak: Ezin igoko gera mendietara, burnizko gurdiak dituztelako Kanaantar kanpoko lurrean bizi diradenak, zeñean dauden Bethsan bere erritxarrakin, eta Jezrael dagoana ibararren erdian.

17. Eta esan zion Josuek, Jose, Efraim, eta Manassesen etxeari: Erri ugaria zera, eta sendotasun andikoa, ez dezu idukiko suerte bat bakarra,

18. Baizik iragoko zera mendira, eta ebakiko dituzu zuretzat, eta garbituko dituzu tokiak bizitzeko, eta irago alko zera aurrerago desegiten dituzunean Kanaantarrak, zeñak gatik esaten dezun dituztela burnizko gurdiak, eta diradela txit sendoak.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta bildu ziraden Silon Israelko seme guztiak, eta an jarri zuten Testimonioko kutxa, eta lurra zeukaten beren mendean.

2. Baña gelditu ziraden Israelko semeen zazpi tribu, zeñak oraindikan etzituzten artu berai tokatzen zaizkaten lurak.

3. Zeñai Josuek esan zioten: Noizarterano egongo zerate alferrikan, eta etzerate sartzen izatera, zuen gurasoen Jaun Jainkoak eman dizuten lurraren jabe?

4. Autu itzatzute iru gizon tribu bakoitzetik, bidaldu ditzadan, eta joan ditezten ematera jira bat lurrari, eta markatu dezaten bakoitzaren jendearen zenbataren araura, eta adirazi didaten egin duten markazioa.

5. Partitu ezazute lurra zuen artean zazpi zatitan, Juda egongo da bere mugetan egoaldetik, eta Joserren etxea ifarraldetik.

6. Oien artean dagoan lurra markatu ezazute zazpi zatitan: eta etorri zaitezte onera nigana, bota ditzatzutedan emen suerteak zuen Jaun Jainkoaren aurrean,

7. Zeren Lebitak ez dirade partill zuen artean, zeren Jaunaren apaizta da beren tokamena. Gad, eta Ruben eta Manassesen tribuaren erdiak ordea artuak zituzten onezkero beren tokamenak Jordango beste aldean sortaldean, zeñak eman ziozkaten Moises Jaunaren serbitzariak.

8. Eta jaiki ziradenean gizon oiek joateko lurra markatzera, agindu zioten Josuek esaten zuela: ingurutu ezazute lurra, eta markatu ezazute, eta itzuli zaitezte nigana, bota ditzatzutedan suerteak emen Silon Jaunaren aurrean.

9. Onenbesterekin joan ziraden, eta aztertuta, berezitu zuten zazpi zatitan, eskribatzen zituztela liburu batean. Eta itzuli ziraden Josuegana Siloko etzauntzetara.



10. Zeñak bota zituen suerteak Jaunaren aurrean Silon, eta partitu ziozkaten lurra Israelko semeai zazpi zatitan.

11. Eta irten zitzaizoten lenbiziko suertea Benjamimen semeai beren familietatik, izan zitezten lurraren jabeak Judaren semeen eta Joseren semeen artean.

12. Eta izan ziraden beren mugak ifarraldetik Jordandik, zabaltzen ziradela Jerikoren ifarraldearen ondoan, eta igotzen ziradela andikan sartaldetik mendietarontz, eta allegatzen ziradela Bethabengo eremura,

13. Eta iragotzen ziradela Luzaren aldean egoerontz, au da Bethel, eta jatxitzen dirade Bethoron beekoaren egoean dagoan mendirontz.

14. Eta zeartzen dirade jira egiñik itsasorontz, Afrikaren aurkez Berthoronera begira dagoan mendiaren egoera, eta bere bukaerak daude Kariath-baalen, zeñi deitzen ere zaion Kariathiarim, Judaren semeen erria. Au da itsasorontzko aldamera, sartaldetik.

15. Egoetik berriz Kariathiarim aldetik ateratzen dirade mugak itsasorontz, eta allegatzen dirade Neptoako uren iturriraño.

16. Eta jatxitzen dirade, Ennomen semeen ibarrera begiratzen duen mendiaren aldamera, eta dago ifarraldean Rafaimtarren ibarraren atzean. Eta jatxitzen dirade Jeennomera (au da, Ennomen ibarrera) Jebuseoen aldamenaren ondoan egoetik, eta allegatzen dirade Rojelen iturrira,

17. Iragotzen diradela ifarrerontz, eta luzatzen diradela Ensemeseraño: au da, eguzkiaren iturriraño,

18. Eta iragotzen dirade Adomminen igoeraren aurkez dauden muñoteraño, eta jatxitzen dirade Abenboeneraño, au da, Boen Rubenen semearen arriraño, eta iragotzen dirade ifarraldetik landetaraño: eta jatxitzen dirade lauetaraño,

19. Eta iragotzen dirade ifarrerontz Beth-hagla baño arontzago, eta bere bukaerak daude itsaso txit gaziaren ifarraldeko puntan Jordanen sarrera, egoera begiratzen duenean,

20. Zeñ dan bere muga sortaldetik. Lur onen jabe dirade Benjamimen semeak, inguruko beren mugakin, eta bere familien araura.

21. Eta bere erriak izan ziraden Jeriko, eta Beth-hagla, eta Kasisko ibarra,

22. Beth-Araba eta Samaraim eta Bethel,

23. Eta Abim eta Aphara eta Ophera,

24. Emonako erria, eta Ophni eta Gabee, amabi iri, eta beren erriak.

25. Gabaon eta Rama eta Beroth,

26. Eta Mesphe eta Kaphara eta Amosa,

27. Eta Rezem, Jarephel eta Tharela,

28. Eta Sela, Eleph, eta Jebus, zeñ dan Jerusalem, Gabaath eta Kariath, amalau iri, eta beren erriak. Oiek dirade Benjamimen semeen lurrak beren familien araura.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta atera zan Simeonen semeen bigarren suertea, eta izan zan beren lurren

2. Tokamena, Judaren semeak zituenen erdian, Bersabee eta Sabea, eta Molada,

3. Eta Hasersual, Bala eta Asem,

4. Eta Eltholad, Bethul eta Harma,

5. Eta Sizeleg, eta Bethmartxboth eta Hasersusa,

6. Eta Bethlebaoth, eta Sarohen, amairu iri, eta beren erriak

7. Ain eta Remmon, eta Athar eta Asan, lau iri eta beren erriak.

8. Iri guzi oien inguruko erritxar guziak Baalat Beer Ramutheraño egoeko aldamenetik. Oiek dirade Simeonen semeen lurrak beren aideen araura,

9. Judaren semeen lurrarte eta barrutian, zeren zan andiena. Eta argatik Simeonen semeak iduki zuten beren tokamena beren lurraren erdian.

10. Eta irten zan irugarren lekuan Zabulonon semeen suertea beren aideetatik, eta beren lurren mugak izan ziraden Saridraño.

11. Eta igotzen dirade itsasotik eta Meralatik, eta allegatzen dirade Debbasethera, Jekonamren aurkez dagoan errekarano.

12. Eta itzultzen dira Saredtik sortalderontz Zeseleththaborko mugetara, eta ateratzen dira Daberethera, eta igotzen dirade Japhierontz.

13. Eta andikan igarotzen dirade Jethhepher eta Thakasingo sortalderaño, eta zabaltzen dirade Remmon, Amthar eta Noara.

14. Eta jira egiten dute ifarretik Hanathonerontz eta bukatzen dirade Jephtaelko ibarrean,

15. Eta Kateth, eta Naalol eta Semeron eta Jedala, eta Bethel, amabi iri eta beren erriak.

16. Oiek dirade Zabulonon semeen tribuaren lurrak beren aideetatik, beren iriak eta erritxarrak.

17. Laugarren tokian atera zan Issakarren suertea beren aideetatik,

18. Eta izan zan bere tokamena, Jezrael eta Kasaloth eta Sunem,

19. Eta Apharaim eta Seon, eta Anaharath,

20. Eta Rabboth, eta Zesion, Abes,



21. Eta Rameth, eta Engannim eta Enhadda eta Enhadda eta Bethp-
heses.
22. Eta allegatzen dirade bere mugak Thabor, eta Sehesima eta Beth-
samesraño, eta bere bukaerak izango dirade Jordanen, amasei iri eta beren
erriak.
23. Oien jabe izan ziraden Issakarren semeak beren aideetatik, iriak
eta beren erriak.
24. Eta bosgarren tokian erori zitzaion suertea Aserren semeen tri-
buari beren aideetatik,
25. Eta beren mugak izan ziraden Halkath eta Txali eta Beten, eta
Axaph,
26. Eta Elmeletx, eta Amaad, eta Mesal, eta allegatzen dirade itsaso-
ko Karmeloraño, eta Sihor eta Labanathera,
27. Eta itzultzen dirade sortaldetik Bethdagonerontz, eta iragotzen
dirade Zabuloneraño, eta Jephthaelen ibarrera ifarrerontz Bethemek eta
Nehielerano. Eta zabaltzen dirade ezkerretik Kabulerontz,
28. Eta Abran eta Rohob eta Hamon eta Kanarontz, Sidon andiraño.
29. Eta jira egiten dute Hormarontz, Tiro erri txit murruturano, eta
Hosaraño, eta bere bukaerak dirade itsasoan Atxzibaren barrutian,
30. Eta Amma eta Aphek eta Rohob, ogeita bi iri, eta beren erriak.
31. Oiek dirade Aserren semeen lurak beren aideetatik, eta iriak eta
beren erri txarrak.
32. Seigarren suerteak irten zitzaioten Neptaliren semeai beren fami-
lietatik,
33. Eta asitzen dirade beren mugak Eleph eta Elondik Saanim eta
Adamin, zeñ dan Nezeb eta Jebnael Lekumeraño, eta beren bukaerak
dirade Jordanen,
34. Eta itzultzen dirade mugak sartaldetik Azanotthaborrerontz, eta
andikan zabaltzen dirade Hukukarontz, eta iragotzen dirade Zabulonera
egoeko aldetik, eta Aserrerontz sartaldetik eta Judarontz Jordan aldetik
eguzkiaren irteeratik.
35. Bere erri txit murrutuak, Assedim, Ser, eta Emath, eta Rekath, eta
Zenereth,
36. Eta Edema, eta Arama, Asor,
37. Eta Zedes, eta Edrai, Enhasor,
38. Eta Jeron, eta Magdalel, Horem eta Bethanath eta Bethsames,
emeretzi iri, eta beren erriak.
39. Oiek dirade Neptaliren semeen tribuko lurak beren aideetatik,
iriak eta beren erri txarrak.

40. Zazpigarren suerteak irten zitzaion Danen semeen tribuari beren
familietatik,
41. Eta beren lurren mugak izan ziraden Sara eta Esthaol, eta Hirse-
mes, au da, Eguzkiaren erria,
42. Selebin eta Aialon eta Jethela,
43. Elon eta Themna eta Akron,
44. Eltheze, Jebbethon eta Balaath,
45. Eta Jud, eta Bane eta Baratz, eta Jethremmon;
46. Eta Mejarkon eta Arekon, Joppera begiratzen duen mugarekin,
47. Eta emen bukatzen dirade bere mugak. Eta igo ziraden Danen
semeak, eta gudatu ziraden Lesemen kontra, eta arrapatu zuten, eta irago
zuten ezpataren puntatik, eta egin ziraden beraren jabe, eta bizitu ziraden
bertan, deitzen ziotela Danen Lesem, Dan bere aitaren izena gatik.
48. Oiek dirade Danen semeen tribuko lurak, beren aideetatik, iriak
eta beren erritxarrak.
49. Eta bukatu lurra suertez partitza bakoitzari bere tribuetatik,
eman zioten Israelko semeak Josue Nunen semeari bere tokamena beren
erdian,
50. Jaunaren agintearen araura Thamnathsaraako erria Efraimen
mendian, zeñ eskatu zuen, eta egin zuen erri bat, eta bizitu izan zan bera-
tan.
51. Oiek dirade lurak, zeñak partitu zituzten suertean Eleazar apai-
zak eta Josue Nunen semeak, eta Israelko semeen familien eta tribuen
prinzipeak Silon, Jaunaren aurrean testimonioko tabernakuloaren
aurrean, eta partitu zuten lurra.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Jaunak Josueri esaten zuela: itz egin zaiezu Israel-
ko semeai, eta esan zaiezu:
2. Berezitu itzatzute igeslen erriak, zeñak gatik itz egin nizuten Moi-
sesen bitartez,
3. Beretara iges dezan borondaterikan gabe norbait iltzen duen edo-
zeñek, eta libratu dedin, odolaren bengatzallea dan alderengoaren aserre-
tik.
4. Erri oietatik batera iges egiten duenean, jarriko da erriko atean, eta
esango diote erri artako zarrari, bere obengabetasuna ongitzeko dan guzia:
eta onela artuko dute, eta emango diote tokia bizitzeko.



5. Eta baldin odolaren bengatzalleak persegituko balu, ez dute jarriko bere eskuetan, zeren jakin gabe il zuen bere projimua, eta ez da ongi-zen bi egun, edo iru egun lenago izan zala bere etsaia.

6. Eta biziko da erri artan, jarri dedin bitartean juezaren aurrean egin duenaren kontua, eta il dedin bitartean denbora artan dan apaiznagusia, orduan itzuliko da erallea, eta sartuko bere erri eta etxean, zeñatatik iges egin zuen.

7. Eta señalatu zituzten Zedes Galilean Neptaliko mendiaren gañean, eta Sikem Efraimgo mendian, eta Kariath-Arbe, zeñ dan Hebron Judako mendian.

8. Eta Jordango beste aldamenen Jerikoren sortalderontz, señalatu zituzten Bosor, zeñ dagoan Rubenen Tribuko eremuko lauan, eta Ramoth Galaaden, Gaden tribukoa, eta Gaulon Basanen Manassesen tribukoa.

9. Erri oiek izan ziraden señalatuak Israelko seme guzientzat, eta beren artean bizi ziraden arrotzentzat, iges egin zezan beretara jakin gabe gizonen bat iltzen zuenak, eta il etzedin, odol isuriaren benganza artzeko guraz zegoan aidearen eskuz, agertu zedin artean erriaren aurrean bere egiera adiraztera.

OGEITA BAT GARREN KAPITULUA

1. Eta alderatu ziraden Lebiren familien buruak Eleazar apaizagana, eta Josue Nunen semeagana eta Israelko semeen tribu bakoitzaren aideen agintariak gana,

2. Eta itz egin zieten Kanaango lurreko Silon, eta esan zuten: Jaunak agindu zuen Moisesen bitartez, eman zekizkigula erriak bizitzeko, eta beren usak abereak bazkatzeko.

3. Eta eman ziozkaten Israelko semeak beren lurretatik Jaunaren agintearen araura erriak eta beren usak.

4. Eta irten zitzazkion Kaathen Aaron apaizaren familiari amairu erri Judaren, eta Simeonen eta Benjaminen tribuetan,

5. Eta Kaathen beste seme, gelditu ziradenai, au da, Lebitai, amar erri Efraimen eta Danen eta Manassesen tribu erdiaren tribuetatik.

6. Eta Jersonen semeai irten zitzaizoten suerteak, eta tokatu zitzaizokaten amairu erri Issakarren eta Aserren eta Manassesen tribuaren erdiko Basango tribuetatik.

7. Eta Merarien semeai beren aideetatik, amabi erri Rubenen, eta Gaden eta Zabulonon tribuetan.

8. Eta eman ziozkaten Israelko semeak Lebitai erri oiek beren usakin, Jaunak Moisesen bitartez agindu zuen bezela, bakoitzari suertean partitzen ziozkatala.

9. Judaren eta Simeonen semeen tribuetatik eman zituen Josuek erriak, zeñaien izenak dirade oiek:

10. Aaronen seme Kaathen familietako Lebiren jatorrikoai (zeren oiei irten zitzaizoten lenbiziko suerteak)

11. ... Kariath Arbe Enak aitarena, zeñi deitzen zaion Hebron, Judako mendian eta bere usak inguruan.

12. Bere kanpo eta erriak berriz eman izan ziozkan Kaleb Jefoneren semeari izan zedin bere jabe.

13. Eman zituen bada Aaron apaizaren semeai Hebron igestokiko erria, eta bere usak, eta Lobna bere usakin,

14. Eta Jether eta Estemo,

15. Eta Hobon, eta Dabir,

16. Eta Ain eta Jeta eta Bethsames beren usakin, bederatzi erri bi tributan, esan dan bezela.

17. Eta Benjaminen semeen tributik, Gabaon eta Gabae,

18. Eta Anathoth, eta Almon beren usakin, lau erri.

19. Aaron apaizaren semeen erri guziak batean, ziraden amairu, beren usakin.

20. Eta Kaathen semeen Lebiko jatorrikoaren gañerako familiei emana izan zitzaizoten tokamena da au:

21. Efraimen tributik igestokiko erriak ... Sikem bere usakin Efraimgo mendian, eta Gazer,

22. Eta Zibsaim eta Bethoron, beren usakin lau erri.

23. Danen tributik ere Eltheko eta Gabathon,

24. Eta Aialon eta Jethremmon, beren usakin lau erri.

25. Eta Manassesen tribuaren erditik Thanatx, eta Jethremmon beren usakin, bi erri.

26. Guztitan emanak izan zitzazkieten amar erri beren usakin Kaathen seme, malla beeragokoak ziradenai.

27. Orobat eman ziozkaten Manassesen tribuaren erditik Jersonen seme Lebiren jatorrikoai igestokiko erriak, Gaulon Basanen, eta Besra beren usakin, bi erri.

28. Eta Isakarren tributik, Zesion eta Dabereth,

29. Eta Jaramoth, eta Engannim, beren usakin, lau erri.

30. Eta Aserren tributik, Masal eta Abdon,

31. Eta Helkath, eta Rohob, beren usakin, lau erri.



32. Neptaliren tributik ere igestokiko erriak, Zedes Galilean, eta Hammoth-Dor, eta Karthan, beren usakin iru erri.

33. Jersonen familien erri guztiak, amairu, beren usakin.

34. Eta Merarien seme beeragoko mallako Lebitai beren familietatik, emanak izan zitazkioten Zabulonon tributik, Heknam eta Kartha,

35. Eta Damna eta Naalol, lau erri beren usakin.

36. Rubenen tributik Jordango beste aldetik Jerikoren aurkez igestokiko erriak, Bosor Misorko eremuan eta Jaser, eta Jethson eta Mephaath lau erri beren usakin.

37. Gaden tributik igestokiko erriak, Ramoth Galaaden, eta Manaim, eta Hesebon eta Jaser, lau erri beren usakin.

38. Merarien semeen erri guztiak beren familia eta aideetatik, amabi.

39. Ala bada Lebiten erri guztiak Israelko semeen lurraren erdian izan ziraden berrogeita zortzi,

40. Beren usakin partituta bakoitza beren familien araura.

41. Eman zion bada Jaun Jainkoak Israeli, beren gurasoai emango ziotela juramentuarekin eskeñi zioten lur guztia. Eta izan ziraden beraren jabe, eta bizi izan ziran beratan.

42. Eta berak eman zioten pakea inguruko erreñu guziakin, eta etzan izan etsairik jarkitzen benturatu zanik, baizik guztiak gelditu ziraden beren agintearen mendean.

43. Emango ziotela eskeñi zioten gauza guztietatik, itz bakar bat ere etzan gelditu egiztatu gabe, baizik egiteakin bete ziraden guztiak.

OGETA BIGARREN KAPITULUA

1. Denbora beratan ots egin zioten Josuek Rubentarrari, eta Gadtarrai, eta Manassesen tribuaren erdiari,

2. Eta esan zioten: Egin zenduten Moises Jaunaren serbitzariak agindu zizuten guztia, neri ere obeditu didazute gauza guztietan,

3. Eta ez dituzute utzi zuen anaiak denbora luzean gaurko eguneraño, gordetzen dezutela zuen Jaun Jainkoaren agintea.

4. Eta zuen Jaun Jainkoak eman dioten ezkeru zuen anaiari atsedena eta pakea, eskeñi zuen bezela, itzuli zaitetze, eta zoazte zuen dendetara eta Moises Jaunaren serbitzariak Jordango beste aldamenean eman zizuten lurrera, bere jabe izateko,

5. Bakarrik adirazten dizutet zaitu dezazutela ajolarekin, eta egitez bete dezazutela Moises Jaungoikoaren serbitzariak eman zizuten aginte eta legea, maitatu dezazutela zuen Jaun Jainkoa, eta ibilli zaitetzela bere bide guztietatik, eta gorde ditzazutela bere aginteak, eta itsatsi zatzakiz-

kiotela berari, eta serbitu dezazutela zuen biotz guziarekin, eta zuen anima guziarekin.

6. Eta bedekatu zituen Josuek, eta bidaldu zituen. Zeñak biurtu zira-den beren dendetara.

7. Eta Moisesek eman zion Manassesen tribu erdiari, Basanen idukiko zuena, eta argatik Josuek eman zion bere suertea beste erdi, gelditu zanari beste anaien artean Jordango emendiko aldean sartaldean. Eta bidaltzen zituela beren dendetara, eta bedekatzten zituela,

8. Esan zioten: Ondasun askorekin eta aberastasunakin itzultzen zerate zuen etxeetara, zillarrarekin eta urrearekin, kobrearekin, eta burniarekin, eta soñeko mot askorekin: partitu ezazute zuen anaiakin etsaiari arrapatua.

9. Eta biurtu ziraden eta joan ziraden Rubenen semeak, eta Gaden semeak, eta Manassesen tribuaren erdia, Israelko semeak gandik Silotik, zeñ dagoan Kanaan, sartzeko Galaaden, berak jabe ziraden lurrean, zeñ iritxi zuten Moisesen bitartez Jaunaren agintearen araura.

10. Eta allegatu ziradenean Jordango inguruetara Kanaango lurrean, egin zuten Jordanen aldean aldare bat anditasun neurrigabekoa.

11. Aditurik au Israelko semeak, eta esan ziotenean mandatari ziurrak Rubenen eta Gaden semeak eta Manassesen tribuaren erdiak egin zutela aldare bat Kanaango lurrean, Jordanen inguruan, Israelko semeen aurkez.

12. Bildu ziran guziak Silon, igotzeko eta beren kontra gudatzeko.

13. Eta bitartean bidaldu zuten berakgana Galaadko lurrera Finees Eleazar apaizaren semea,

14. Eta berarekin amar prinzipe, tribu bakoitzetik batna.

15. Zeñak etorri ziraden Rubenen eta Gaden semeakgana, eta Manassesen tribuaren erdiagana Galaadko lurrera, eta esan zieten:

16. Oiek esateko agintzen digu Jaunaren erri guztiak: Zer mugauste da au? Zergatik utzi dezute Israelko Jaun Jainkoa, egiten diozutela aldare bat beste jaungoikori, eta alde egiten dezutela beraren adoraziotik?

17. Gutxi bai al deritzazute bekatu egin izatea Beelfegorren, eta gaiztakeria onen natuak iraun dezala guran gaurko eguneraño? Bada argatik galdu ziraden erriko asko.

18. Eta zuek utzi dezute gaur Jauna, eta biar piztuko da bere aserrea Israel guziaren kontra.

19. Eta uste baldin badezute zikiña dala zuek jabe zeraten lurra, irago zaitetze Jaunaren tabernakulua dagoan lurrera, eta bizi zaitetze gure artean, baña ez ezazute alde egin Jaunagandik, eta gure laguntzatik, egiten dezutela gure Jaun Jainkoaren aldarea baño beste aldare bat.



20. Akan Zareren semeak ez al zuen autsi Jaunaren agintea, eta argatik ez al zan etorri bere aserrea Israelko erri guztiaren gañera? Eta hura gizon bakar bat zan, eta arren bada bera bakarrik galdua izan baldin balitza bere gaiztakerian!

21. Eta Rubenen eta Gaden semeak, eta Manassesen tribuaren erdiak erantzun zioten Israelko prinzipe, berakgana bidalduai:

22. Jaun Jainko txit sendoak, Jaun Jainko txit sendoak, berak badaki, eta Israelek ere adituko du, berari jarkitzeko gogoarekin egin baldin badegu aldare au, ez gaitzala zaitu, baizik kastigatu gaitzala oraindandik,

23. Eta egin baldin badegu doñak eta opariak eta abereil paketsuak eskeñtzeko gogoarekin, berak aztertu eta juzgatu dezala,

24. Baizikan gogo eta asmo onekin izan ez baldin bada esateko, biar esango diete zuen semeak gure semeai: Zer dezute zuek zer ikusirikan Israelko Jaun Jainkoarekin?

25. Jaunak jarri zuen Jordango erreka mugatzat zuen artean eta gure artean, o Rubenen semeak eta Gaden semeak, eta argatik etzerate partill Jaunagan. Eta gauza augatik zuen semeak alde eraziko diete gure semeai Jaunaren beldurretik. Argatik uste izan degu obekiago dala,

26. Eta esan degu: Egin dezagun aldare bat, ez eskeñtzeko doñak eta opariak,

27. Baizik adigarritzat gure eta zuen artean, eta gure jatorriaren eta zuenaren artean, serbitzen degula Jauna, eta badegula eskua eskeñtzeko doñak, eta opariak, eta abereil paketsuak, eta iñolaere ez dizaieten esan biar zuen semeak gure semeai: Etzerate zuek Jaunagan partill.

28. Baña au esan nai baldin baliete, erantzungo diete: Ona emen gure gurasoak egin zuten Jaunaren aldarea, ez doñ, eta oparientzat, baizik gure eta zuen adigarritzat.

29. Urrutian gugandik gaiztakeria au, alde egin dezagula Jaunagandik, eta utzi ditzagula bere oñatzak, egiñik aldare bat eskeñtzeko doñak, eta opariak, eta abereillak, baizik gure Jaun Jainkoaren aldare, bere tabernakuloaren aurrean egiña dagoanean.

30. Zeñak adituta, Finees apaiza, eta berarekin zeuden Israelko prinzipe mandatariak, paketu ziran, eta aditu zituzten txit gogotik Rubenen eta Gaden semeen, eta Manassesen tribuaren erdiaren itzak.

31. Eta esan zioten Finees Eleazar apaizaren semeak: Orain dakigu Jauna gurekin dala, gaiztakeria onetatik aldenduak zaudeten ezker, eta libratu dituzuten ezker Israelko semeak Jaunaren aserretik.

32. Eta utzirik Rubenen eta Gaden semeak, bera prinzipeakin itzuli zan Galaadko lur, Kanaango mugan dagoanera, Israelko semeak gana, eta kontatu zioten guztia.

33. Eta guztien gogokoak izan ziraden itzak. Eta alabatu zuten Jaungoikoa Israelko semeak, eta etzuten gero itzik ere egin, beren kontra igo eta gudatzeko, eta desegiteko berak jabe ziran lurra.

34. Eta Rubenen semeak eta Gaden semeak jarri zioten izena egin zuten aldareari, Jauna bere Jaungoikoa danaren gure aitormena.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta iragota denbora asko, Jaunak Israeli pakea eman zion ezker, menderatuta inguruetako erreñu guztiak, eta izanik onezker Josue zarra, eta edade txit andikoa,

2. Ots egin zioten Josuek Israel guztiari, eta zarrai, eta prinzipei, eta irakasleai, eta esan zioten: Ni zartu naiz, eta naiz edade txit andikoa,

3. Eta zuek ikusten dezute zuen Jaunak egin dioten guztia zuen inguruko erreñu guztiai, nola bera gudatu dan zuen alde.

4. Eta orain partitu dizutela lur guztia suertean, Jordango sortaldetik itsaso andiraño, eta oraindikan erreñu asko gelditzen diradela,

5. Zuen Jaun Jaungoikoak galduko ditu eta kenduko ditu zuen aurretik, eta izango zerate lurraren jabe, eskeñi zizuten bezela.

6. Bakarrik izanarekin zuek sendoak eta ajolatsuak gordetzen Moisesen legeko liburuan eskribatuak dauden gauza guztiak, eta ez egiñik zuek alderik beretatik ez eskuiera, ez ezkerera:

7. Sartzen zeraten ezker zuen artean egongo diraden jendeen artean, ez dezazuten juramenturik egin beren jaungoikoen izenean, eta ez ditzazuten berak serbitu, eta ez adoratu,

8. Baizik egon zaitezten itsatsiak zuen Jaun Jainkoari, egin dezuten bezela gaurko eguneraño.

9. Eta orduan desegingo ditu Jaun Jainkoak zuen aurrean jende andi eta txit sendoak, eta ezin jarkiko zatzute iñor.

10. Zuetatiko batek persegituko diozkate etsaien milla gizoni, zeren zuen Jaun Jainkoa zuen alde gudatuko da, eskeñi zuen bezela.

11. Onetan bakarrik ipiñiko dezute arreta txit andi bat, maitatzean zuen Jaun Jainkoa.

12. Baña naiko baldin bazendukete itsatsi zuen artean bizi diraden jende oien gezurrezko sinismenetara, eta berakin egin ezkontzak, eta artu adiskidetasunak,



13. Oraindik jakin ezazute, zuen Jaun Jainkoak ez dituela desegingo zuen aurretik, baizik izango diradela zuentzat zulo bat, lakio bat, beaztopagai bat, idukiko dezutena zuen aldamenean, eta arantza bat zuen begietan, kendu eta desegiten zaituzten bitartean, eman dizuten lur txit eder onetatik.

14. Ona non ni gaur sartzen naizan lur guztiaren bidean, eta biotz guztitik ezagutuko dezute, ez duela Jaunak utzi egiztatu gabe, kunplutuko dituela eskeñi zuen gauza guztietatik itz bakar bat ere.

15. Bada nola bete duen egitez eskeñi zuena, eta guztia gertatu zatzuten doatsukiro, ala ekarriko ditu zuen gañera zematuta dauzkan gaitz guztiak, aliketa kendu zaitzaten bitartean eta galdu, eman zizuten lur txit eder onetatik;

16. Autsi dezutelako zuen Jaun Jainkoak zuekin egin zuen elkartasuna, eta serbitu dituzutelako jainko arrotzak, eta berak adoratu dituzutelako, laster eta bereala jaikiko da zuen kontra Jaunaren aserrea, eta kenduak izango zerate, eman zizuten lur txit eder onetatik.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta bildu zituen Josuek Israelko tribu guztiak Sikemen, eta deitu zituen zarrak, eta prinzipiak eta juezak, eta irakasleak, eta jarri ziran Jaunaren aurrean,

2. Eta itz egin zion erriari onela: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Zuen gurasoak, Thare Abrahamen eta Nakorren aita, bizi izan ziran asieratik ibaiaren beste aldamenean, eta serbitu zituzten jainko arrotzak,

3. Baña nik atera nuen zuen aita Abraham Mesopotamiako mugetatik, eta ekarri nuen Kanaango lurrera, eta ugaritu nuen bere jatorria.

4. Eta eman nion Isaak, eta oni ere eman niozkan Jakob eta Esau. Zeñatetik Esauri eman nion Seirko mendia izan zedin bere jabea; Jakob berriz eta bere semeak jatxi ziraden Ejiptora.

5. Eta bidaldu nituen Moises eta Aaron eta kastigatu nuen Ejipto señale eta arrigarri askorekin.

6. Eta atera zinduztedan zuek eta zuen gurasoak Ejiptotik, eta etorri ziñaten itsasora, eta ijitoak persegitu zituzten zuen gurasoak gurdiakin eta zaldiakin itsaso gorriraño.

7. Baña Israelko semeak deadarrez deitu zioten Jaunari, zeñak jarri zituen illuntasunak zuen eta ijitoen artean, eta eraman zuen beren gañera itsasoa, zeñak estali zituen. Ikusi zituzten zuen begiak, Ejipton egin nituen gauza guztiak, eta bizi izan ziñaten eremuan denbora luzean.

8. Eta sartu zinduztedan Amorreoaren, Jordango beste aldamenean bizi zanaren lurrean. Eta zuen kontra gudatzen ziradela, jarri nituen zuen eskuetan, eta izan ziñaten beren lurraren jabe, eta il zenduzten

9. Eta jaiki zan Balak Seforren Moabko erregearen semea, eta gudatu zan Israelen kontra. Eta bidaldu zuen deitzera Balaam Beorren semea, madarikatu zinzaten,

10. Eta nik ez nion nai aditu, baizikan bestera bere bitartez bedeikatu zinduztedan, eta libratu zinduztedan bere eskutik.

11. Eta irago zenduten Jordana, eta etorri ziñaten Jerikora. Eta gudatu ziraden zuen kontra erri artako gizonak Amorreo, eta Ferezeoa eta Kananeo, eta Heteoa, eta Jerjeseoa, eta Hebeoa eta Jebuseoa, eta jarri nituen zuen eskuetan.

12. Eta bidaldu nituen zuen aurrean eulitzarrak eta bota nituen beren lekuetatik Amorreo bi erregeak, ez ezpatarekin, ez uztaiarekin.

13. Eta eman nizuten aitzurtu etzenduten lurra, eta egin etzenduzten erriak, bizi zinaindezten beretan, jarri etzenduzten mastiak eta olibodiak.

14. Orain bada izan zaitezte Jaunaren beldur, eta serbitu ezazute biotz txit on eta zintzoarekin, eta kendu itzatzute, zuen gurasoak Mesopotamian eta Ejipton serbitu zituzten Jaungoikoak, eta serbitu ezazute Jauna.

15. Baña baldin gaizki baderitzatzute Jauna serbitzea, autakera ematen zatzute, autu ezazute gaur zuen gogoko dana, zeñ berariak serbitu bear dezuten, ala zuen gurasoak Mesopotamian serbitu zituzten jaungoikoak, ala Amorreo jaungoikoak, zeñaen lurrean bizi zeraten, bada nik eta nere etxeak serbituko degu Jauna.

16. Eta erantzun zuen erriak, eta esan zuen: Jaungoikoari ez dakiola nai, guk Jauna utzitea, eta jainko arrotzak serbitzea.

17. Gure Jaun Jainkoak berak atera ginduen gu eta gure gurasoak Ejiptoko lurretik, ... katiberioko etxetik, eta egin zituen mirari andiak gure begien aurrean, eta gorde ginduen ibilli giñan bide guztian, eta irago ginduen erri guztietan.

18. Eta aurtiki zituen jende guztiak, eta Amorreo, gu sartu geran lurrean bizi zana. Serbituko degu bada Jauna, zeren bera da gure Jaungoikoa.

19. Eta esan zion Josuek erriari: Ezin serbituko dezute Jauna, zeren Jaungoikoa santua eta zelatari sendoa da, eta ez ditu barkatuko zuen gaiztakeria eta bekatuak.



20. Utziko baldin bazenezateke Jauna, eta serbituko baziñitzakete jainko arrtzak, itzuliko da zuen kontra, eta atsekabetuko zaituzte eta desegingo, zuek oneraz bete ezkeru.

21. Eta esan zion erriak Josueri: inñolaere ez da izango itz egiten dezun bezela, baizikan Jauna serbituko degu.

22. Eta Josuek erriari: Lekukoak, esan zuen, zerate zuek, nola zuek zerok autu dezuten zuentzat Jauna, bera serbitzeko. Eta erantzun zuten: Lekukoak gera.

23. Orain bada, esan zuen, kendu itzatzute jainko arrotzak zuen erditik, eta eman zaiozkazute zuen biotzak Israelko Jaun Jainkoari.

24. Eta esan zion erriak Josueri: Gure Jaun Jaungoikoa serbituko degu, eta izango gera obedileak bere aginteetara.

25. Egin zuen bada Josuek egun artan elkartasuna, eta proponitu ziozkan erriari aginteak eta legeak Sikemen.

26. Eskribatu ere zituen gauza guzti oiek Jaunaren legeko liburuan, eta artu zuen arri txit andi bat, eta jarri zuen Jaunaren Santuarioan zegoan arte baten azpian.

27. Eta esan zion erri guztiari: Ona emen non arri au izango da zuentzat salatzaile bat, aditu dituela Jaunak esan dizkizuten itz guztiak, gero ukatu nai izan ez ditzatzuten, eta gezurra esan zuen Jaun Jainkoari.

28. Eta bidaldu zuen erria, bakoitza joan zedin jabe zan lurrera.

29. Eta oien ondoan il zan Josue Nunen seme Jaunaren serbitzaria, eun eta amar urtekoa.

30. Eta obiratu zuten bereak izan ziraden lurren mugetan Thamnatharen, zeñ dagoan Efraimgo mendiaren gañean Gaas mendiaren ifarreko aldean.

31. Eta Israelek serbitu zuen Jauna Josueren bizitzako denbora guztian, eta zarrenean Josueren ondoren denbora luzean bizi izan ziradenean, eta ekiezanean Jaunak Israelen egin zituen gauza guztiak.

32. Eta berebat Joseren ezur, Israelko semeak Ejiptotik ekarri zituztenak, obiratu zituzten Sikemen, kanpoko aldamen, Jakobek erosi ziotenean, Hemorren Sikemen aitaren semeai eun arkume emegatik, eta Joseren semeak gelditu ziraden gero beraren jabe.

33. Eleazar Aaronen semea ere il zan, eta obiratu zuten Gabaathen, zeñ zan bere seme Fineesena, emana izan zitzaiona Efraimgo mendian.

JUEZEN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Josue il ezkeru itundu ziraden Israelko semeak Jaunarekin, esaten ziotela: Nor igoko da gure aurretik Kananeoaren kontra, eta izango da gerrako agintaria?

2. Eta esan zuen Jaunak: Juda igoko da: ona non jarri dedan lurra bere eskuan.

3. Eta esan zion Judak Simeon bere anaiari: igo zaite nerekin suer-tean tokatu zitzadan lurrera, eta gudatu zaite Kananeoaren kontra, zeren ni ere joango naiz gero zurekin zure lurrera gudatzera. Eta joan zan berarekin Simeon.

4. Eta igo zan Judas eta jarri zituen Jaunak beren eskuetan Kananeo eta Ferezeoa, eta il zituzten Bezeken amar milla gizon.

5. Eta arkitu zuten Bezeken Adonibezek, eta gudatu ziraden beraren kontra, eta garaitu zituzten Kananeo eta Ferezeoa,

6. Eta iges egin zuen Adonibezek, zeñi jarraitzen ziotela arrapatu zuten, eta ebaki ziozkaten eskuen eta oñen atzenak.

7. Eta esan zuen Adonibezek: irurogeita amar errege, zeñai ebakiak izan ziozkaten eskuen eta oñen kondoak biltzen zituzten nere maiaren azpian nere janariaren kutsuak, nik egin nuen bezela, ala itzuli dit Jaungoikoak. Eta eraman zuten Jerusalem, eta an il zan.

8. Esesten ziotela bada Israelko semeak Jerusalem, artu zuten, eta irago zuten ezpataren puntatik, sua ematen ziotela erri guztiari.

9. Eta jatxitzen ziradela gero gudatu ziran Kananeoaren kontra, zeñ bizi zan mendietan, eta egoaldean, eta landetan.

10. Eta joanik Juda Kananeoaren kontra, zeñ bizi zan Hebron (zeñaen izena zan anziña Kariath-Arbe) desegin zituen Sesai, eta Aiman, eta Tholmai.

11. Eta aterarik andik joan zan Dabirren bizitu ziradenak gana, zeñaen anziñako izena zan Kariath-Sephen, au da, letraen erria.

12. Eta esan zuen Kalebek: Kariath-Seferri esesten dionari eta desegiten duenari emango diot emaztetzat nere alaba Axam.

13. Eta nola artu zuen Othoniel Zenezen seme Kaleben anaia txikiak, eman zion emaztetzat bere alaba Axam.



14. Zeñi bidean zijoala adirazi zion bere senarrak eskatu zitzaioala bere aitari kanpo bat. Zeñak egñik zispirio bat asto gañean eserita zijoala, esan zion Kalebek: Zer dezu?

15. Eta berak erantzun zuen: Eman zadazu zure bendizioa; lur leorra eman ziñidan ezkerro, eman zadazu erregakoi bat ere. Eman zion bada Kalebek lur erregakoi bat goitik eta beetik.

16. Zineoren, Moisesen aidearen semeak berriz igo ziraden palmen erritik, Judaren semeakin tribu onen tokamenaren eremura, zeñ dagoan Araden egoean, eta bizi izan ziran berarekin.

17. Juda bada joan zan Simeon bere anaiarekin, eta batera desegin zuten Sefaten bizi zan Kananeo, eta il zuten. Eta deitua izan zan erri au, Horma, au da, madarikazioa.

18. Eta artu zuen Judak Gaza bere alderriakin, eta Askalon eta Akaron beren alderriakin.

19. Eta Jauna izan zan Judarekin, eta mendien jabe egin zan: baña ezin izan zituen desegin ibarrean bizi ziradenak, zeren zituzten ugari gurdi igitaituak.

20. Eta eman zioten Hebron Kalebi, Moisesek esan zuen bezela, zeñak desegin zituen an Enaken iru semeak.

21. Baña Benjaminen semeak etzuten desegin, Jerusalem bizi zan Jebuseoa, eta Jebuseoa bizi izan zan Jerusalem Benjaminen semeakin gaurko eguneraño.

22. Josereren etxea ere igo zan Bethelen kontra, eta Jauna izan zan berakin.

23. Zeren ingurutua zeukatela, Suza len zeritzan erria,

24. Ikusi zuten gizon bat ateratzen zala erritik, eta esan zioten: Era-kutsi zaguzu errirako sarrera, eta errukituko gera zurekin.

25. Zeñak erakusirik berai, irago zuten erria ezpataren puntatik, baña utzi zioten pakean gizon hurari, eta bere aide guziai.

26. Zeñ jarri bere aukeran, joan zan Hetthimgo lurrera, eta egin zuen an erri bat, eta deitu zion Luza, zeñi ala deitzen zaio gaurko eguneraño.

27. Manassesek ere etzuen desegin Bethsan, ezta ere Thanak bere erriakin, ezta bizi ziradenak Dorren, eta Jeblaamen, eta Majeddin bere erriakin, eta Kananeoak asi ziraden biziten berakin.

28. Baña sendatu zanean Israel, egin zituen kotiztari, eta etzituen desegin nai.

29. Efraimek ere etzuen il, Gazerren bizi zan Kananeo, baizik bizi izan zan berarekin.

30. Zabulonek ere etzituen desegin Zetronen, eta Naalolen bizi ziradenak, baizik Kananeo bizi izan zan bere erdian, eta egñia izan zitzaion kotiztari.

31. Aserrek ere etzituen desegin Akon, eta Sidonen, eta Ahalaben, eta Atxaziben eta Helban eta Afeken eta Rohoben bizi ziradenak.

32. Eta bizi izan zan Kananeoaren lur huratan bizi zanaren erdian, eta etzuen il.

33. Neptalik ere etzituen desegin Bethsamesen eta Bethanathen bizi ziradenak, eta bizi izan zan Kananeoaren lurra betetzen zuenaren artean, eta izan ziraden bere kotiztariak Bethsamesarrak, eta Bethantarrak.

34. Eta Amorrheoak estutu zituen mendian Danen semeak, eta etzioten eman tokirik lauetara jatxitzeko.

35. Eta bizi izan zan Haresko mendian, zeñak esan nai duen lurrontzien mendia, eta Aialonen eta Salebimen. Baña Josereren etxeak esetsi zion, eta egin zuen bere kotiztari.

36. Eta Amorrheoaren mugak izan ziraden Arrabioaren igoeratik, Petra, eta goietako tokiak.

BIGARREN KAPITULUA

1. Eta igo zan Jaunaren aingerua Galgalatik negargillen tokira, eta esan zuen: Atera zinduztedan Ejiptotik, eta sartu zinduztedan zuen gurasoai juramentu egin nien lurrean, eta eskeñi nuen ez nuela iñoiz indargabetuko zuekin egindako elkartasuna,

2. Baña kondizio batekin, zeñ dan etzendutela egingo elkartasunik erri onetan bizi diradenakin, baizik desegingo zinduztela beren aldareak, eta etzenduten aditu nai nere boza, zergatik egin zenduten au?

3. Argatik ez ditut desegin nai izan eta kendu zuen aurretik, iduki ziñitzaten etsaitzat, eta beren jaungoikoak izan zitezen zuen galmenerako.

4. Eta itz oiek esaten ari zala Jaunaren Aingerua Israelko seme guztiai, altxatu zuten oiek beren boza, eta negar egin zuten.

5. Eta deitua izan zan toki huraren izena, negargillen edo malkoen tokia, eta eskeñi ziozkaten an doañak Jaunari.

6. Bidaldu zuen bada Josuek erria, eta joan ziraden Israelko semeak bakoitza bere lurrera, artzeko lurra,

7. eta serbitu zuten Jauna Josueren bizitzako denbora guztian, eta zaarren, bere ondoan denbora luzean bizi ziradenen, eta Jaunak Israeli egin ziozkan gauza guztien berri zekitenean.

8. Eta il zan Josue Nunen semea, Jaunaren serbitzaria, eun eta amar urtekoa,



9. Eta obiatu zuten bera jabe zan lurraren mugetan Thamnathsaren Efraingo mendiaren gañean, Gaas mendiaren ifarreko aldamererontz.

10. Eta gizadi guzti hura izandu zan beren gurasoakin bildua, eta jaiki ziraden, Jauna ezagutzen etzuten, eta Israelekin egin zituen gauzen berri-rik etzeukaten beste batzuek.

11. Eta gaizki egin zuten Israelko semeak Jaunaren aurrean, eta serbitu zituzten Baalak.

12. Eta utzi zuten beren gurasoen Jaun Jaungoiko, Ejiptoko lurretik atera zituena, eta jarraitu zieten jainko arrotzai, eta beren inguruan bizi ziradenean errietako jainkoai, eta adoratu zituzten: eta aserretu eragin zioten Jaunari,

13. Utziten zutela, eta serbitzen zituztela Baal eta Astaroth.

14. Eta aserreturik Jauna Israelen kontra, jarri zituen ebaslen eskue-
tan, zeñak arrapatu zituzten, eta saldu zituzten inguruan bizi ziraden etsai-ai, eta ezin zatzaiozkaten jarki beren etsai-ai,

15. Baizik joan nai zuten edozeñere tokitan, Jaunaren eskua zegoan beren gañean, esan ta juramentu egin zioten bezela, eta txit atsekabetuak izan ziran.

16. Eta Jaunak altxatu zituen juezak, libratu zituzten desegingillen eskuetatik, baña berak ere etzitzuten aditu nai,

17. Baizik naasitzen ziraden jainko arrotzakín, eta adoratzen zituzten. Laster utzi zuten beren gurasoak ibilli ziraden bidea, eta aditu bazituzten ere Jaunaren aginte guztiak, egin zituzten kontrako gauza guztiak.

18. Eta Jaunak altxatzen zituenean juezak, oiek bizi ziraden artean, urrikaritzen zan, eta aditzen zituen naigabetuen zizpuruak. eta libratzen zituen desegingillen ondamenetik.

19. Baña jueza il da laster, itzultzen ziran, eta egiten zituzten bere gurasoak egin zituzten baño gauza asko gaiztoagoak, jarraitzen ziozkate-
la jainko arrotzai, serbitzen zituztela, eta adoratzen zituztela. Etzitzuten utzi beren gogorazioak, ez bide txit gogorra, zeñatetik ibiltzen oitu zira-
den.

20. Eta irazeki zan Jaunaren sumintasuna Israelen kontra, eta esan zuen: Jende onek autsi duen ezkeru beren gurasoakin egin nuen nere elkartasuna, eta mezpreziatu duen ezkeru aditzea nere boza,

21. Nik ere ez ditut desegingo, Josuek utzi zituen jendeak, il zanean.

22. Berakin probatzeko Israel, gordetzen ote duten ala ez Jaunaren bidea, eta ote dabiltzan beratetik, gorde zuten bezela beren gurasoak.

23. Utzi zituen bada Jaunak erreñu guzi oiek, eta etzitzuten nai desegin laster, eta etzitzuten ere jarri Josueren eskuetan.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Oiek dirade Jaunak utzi zituen jendeak, beren bitartez emateko irakasiak Israeli, eta Kanaantarren gerren berririkan etzeukaten guzai;

2. Gero ikasi zezaten beren semeak etsaiakin gerran egiten, eta oitu zitezten gudadzen.

3. Filisteoen bost agintari, eta Kanaantar guztiak, eta Sidontarrak, eta Libanoko mendian bizi ziraden Hebetarrak, Bahal-Hermongo menditik, Emathen sarrerarano.

4. Eta utzi zituen berakin probatzeko Israel, aditzen ote zituen Jaunaren aginte, Moisesen eskuz beren gurasoai eman ziozkatenak, ala ez.

5. Ala bada Israelko semeak bizi izan ziran Kananeoaren, eta Hetheoaren, eta Amorreoaren, eta Ferezeoaren, eta Hebeoaren, eta Jebuseoaren erdian,

6. Eta artu zituzten emaztetzat beren alabak, eta eman ziozkaten beren alabak aien semeai, eta serbitu zituzten beren Jaungoikoak.

7. Eta egin zuten gaizkia Jaunaren aurrean, eta aztu ziraden beren Jaungoikoarekin, serbitzen zituztela Baalakak eta Astarothak.

8. Eta aserreturik Jauna Israelen kontra, jarri zituen Kusan Rasathaim Mesopotamiako erregearen eskuetan, eta serbitu zuten zortzi urtean.

9. Eta deadarrez eskatu zioten Jaunari, zeñak jaso zuen beren artean salbagilla bat, eta libratu zituen, au da, Othoniel Zenezen seme, Kaleben anaia txikiagoa.

10. Eta egon zan beragan Jaunaren Espiritua, eta juzgatu zuen Israel. Eta atera zan gudara, eta jarri zuen Jaunak bere eskuetan Kusan Rasathaim Siriako erregea, eta desegin zuen.

11. Eta pakean gelditu zan lurra berrogei urtean, eta il zan Othoniel Zenezen semea.

12. Baña Israelko semeak itzuli ziraden berriz gaizkia egitera Jaunaren aurrean, zeñak eman zion indarra beren kontra Moab Eglongo erregeari, gaizkia egin zutelako bere aurrean.

13. Eta itsatsi ziozkan berari Ammon eta Amaleken semeak, eta joan zan, eta desegin zuen Israel, eta egin zan palmen erriaren jabe.

14. Eta serbitu zuten Israelko semeak Eglon Moabko erregea emezortzi urtean.

15. Eta gero deadarrez ots egin zioten Jaunari, zeñak jaso zuen beren artean salbagilla bat izenez Aod, Jeraren, Jeminiren semearen semea, zeñ



serbitzen zan esku biakin eskuia bezela. Eta Israelko semeak bidaldu ziozkaten doañak beraren bitartez Eglon Moabko erregeari.

16. Berak egin zuen beretzat ao biko ezpata bat, zuena erdian bere ornimendua, na.eskuaren luzeerakoa, eta lotu zuen saioaren azpian eskuieko isterrean.

17. Eta eskeñi ziozkan doañak Moab Eglongo erregeari. Zan berriz Eglon txit gizena.

18. Eta eskeñi ziozkanean doañak, zijoan jarraituaz, berarekin etorri ziraden lagunai.

19. Eta itzulita Galgalatik, non zeuden idoloak, esan zion erregeri: itz bat det, o Errege, ixillean zuri esateko. Eta berak agindu zion ixillik egoteko, eta aterata kanpora berarekin zeuden guztiak,

20. Sartu zan Aod beragana, zegoan bakarrik eserita udako gelan, eta esan zion: Jaungoikoaren itz bat det zuri esateko. Hura bereala jaiki zan tronutik.

21. Eta Aodek luzatu zuen bere ezkerreko eskua, eta atera zuen traketa bere eskuieko isterretik, eta inkatu zion bere sabelean.

22. Alako indarrarekin non aoa eta ornimendua sartu ziraden zauritiki, eta gelditu zan estutua gantzaren ugaritasunarekin. Eta etzuen atera traketa, baizik zauritu zuen bezela, ala utzi zuen gorputzean, eta bereala sabeleko loiak atera ziraden berezko odietatik.

23. Baña Aod itxita txit ongi gelako atea, eta sendatuta morrolloarekin,

24. Atera zan ostate batetikan. Eta sarturik Erregeren morroiak ikusi zituzten itxita gelako atea, eta esan zuten: Noaski dago sabela garbitzen udako gelan.

25. Eta itxedonik luzaro lotsatu ziraden bitartean, eta ikusirik etzioleta iñork idikitzen, artu zuten giltza, eta idikitzen zutela, arkitu zuten beren Jauna zetzala illa lurrean.

26. Eta berak genasiak zeuden bitartean, Aodek iges zuen, eta irago zuen idoloen tokia, nondik itzuli zan atzera. Eta etorri zan Seirathera.

27. Eta bereala jo zuen tronpeta Efraimgo mendian, eta jetxi ziraden berarekin Israelko semeak, bera aurretik zijoala.

28. Zeñak esan zioten: Jarraidazute zeren Jaunak jarri ditu gure eskuetan Moabtar gure etsaiak. Eta jetxi ziran bere ondoren, eta artu zituzten Jordango uberak nondik iragotzen dan Moabera, eta iñori ere etzioten utzi iragotzen,

29. Baizik zauritu zituzten denbora artan amar milla Moabtar inguru, guztiak gizon sendo ta errutsuak. Beretatik batek ezin izan zuen igesik egin.

30. Eta gelditu zan humillatuta Moab egun artan Israelen eskuaren azpian, eta atsedean zuen lurra larogei urtean.

31. Onen ondoan izan zan Samgar Anathen semea, zeñak il zituen seireun Filisteo goldortz batekin, eta berak zaitu ere zuen Israel.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta Israelko semeak berriz egin zuten gaizkia Jaunaren aurrean Aod il ezkeri,

2. Eta jarri zituen Jaunak, Jabin Kanaango erregearen, Asorren erreinatatu zuenaren eskuetan, eta iduki zuen bere ejerzituaren agintaritzat Sisara zeritzan bat, eta bera bizi oi zan jendeen Harosethen.

3. Eta deadarrez ots egin zioten Jaunari Israelko semeak, zeren zituen bederatzireun gurdi igitaituak, eta ogei urtean txit mendertsitu zituen.

4. Bazan berriz Profetisa bat Debbora zeritzana, Lapidothern emaztea, zeñak juzgatzen zuen erria denbora artan.

5. Eta egon oi zan eserita palma baten, bere izena zuenarenaren azpian Rama eta Bethelen bitartean Efraimgo mendian, eta Israelko semeak igotzen ziran beragana auzi guztietarako.

6. Zeñak bidaldu zuen deitzera Barak Abinoemen seme Neptaliko Sedeseoari, eta esan zion: Israelko Jaun Jainkoak eman dizu aginte au, zoaz, eta eraman ezazu ejerzitua Taborko mendira, eta artuko dituzu zurekin amar milla gudari Neptaliko semeetatik, eta Zabulongo semeetatik,

7. Eta nik ekarriko det zugana Zisongo erreken tokian, Sisara Jabinen ejerzituaren agintaria, eta bere gurdiak, eta bere jende guztia, eta jarriko ditut zure eskuan.

8. Eta esan zion Barakek: Etortzen baldin bazera nerekin, joango naiz, baña baldin ez badezu etorri nai nerekin, ez naiz joango.

9. Zeñak esan zion: Joango naiz zurekin, baña oraingo aldiaren ez zaitzu dagokituko zuri garaitza, zeren emakume baten eskuz izango da entregatua Sisara. Jaiki zan bada Debbora, eta joan zan Barakekin Zedesea.

10. Zeñak, ots egiñik Zabulon eta Neptalekoai, igo zan amar milla gudarirekin, zuela Debbora berarekin.



11. Baña Haber Zeneoa denbora anditik berezitua zegoan beste Zineo bere anaia Hobaben seme Moisesen aideetatik, eta zabalduak zituen bere dendak Sennim deitzen zitzaion ibarreraño, eta zegoan Zedesen aldean.

12. Eta emana izan zitzaion berria Sisarari, Barak Abinoemen semea igoa zala Taboroko mendira,

13. Eta bildu zituen bederatzireun gurdi igitaitu, eta ejerzitu guztia jendeen Harosethik Zisongo errekarano.

14. Eta esan zion Debborak Baraki: Jaiki zaite, zeren au da eguna, zeñean jarri duen Jaunak Sisara zure eskuetan, begira hura bera dala zure zuzentzallee. Jetxi zan bada Barak Taboroko menditik, eta berarekin amar milla gudariak.

15. Eta Jaunak iziz bete zuen Sisara, eta bere gurdi guztiak, eta bere jende guztia, zeñ izan zan iragoa ezpataren puntatik Baraken aurrean. Alako larrian non Sisarak gurditik salto eginik, iges egin zuen oñaz,

16. Eta Barak joan zan jarraituaz igesi zijozzen gurdi eta ejerzituari jendeen Harosethraño, eta etsaien talde guztia galdu zan bat bakarra gelditu gabe.

17. Sisara berriz igesi zijoala allegatu zan Jahelen Haber Zineoaren emaztearen dendara. Zeren pakea zegoan Jabin Asorko erregearen, eta Haber zineoaren etxearen artean.

18. Eta aterarik Jael Sisarari bidera, esan zion: Sartu zaite onara, nere Jauna, sartu zaite, etzaite beldur izan. Zeñ sartu zan bere dendan, eta estali zuenean berak kaparekin,

19. Esan zion: Eman zadazu arren uraren piska bat, zeren egarri txit andia det. Zeñak idiki zuen ezne zagi bat, eta eman zion edaten, eta estali zuen.

20. Eta Sisarak esan zion: Zaude dendako atean, eta baldin etorriko balitza norbait eta galdetuko balizu: Bada iñor emen? Erantzungo dezu: Ez da iñor.

21. Artu zuen bada Jahel Haberren emazteak iltze bat dendatik, eltzen ere ziola mallu bati, eta sarturik ixillean eta otsik egin gabe jarri zuen iltzea bere buruko baldokiaren gañean, eta jorik malluarekin inkatu zion burmuñetik lurreraño, eta elkaturik loa eriotzarekin indargatu ta il zan.

22. Eta ona non Barak zetorren jarraitzen ziola Sisarari, eta aterarik berari bidera Jahel, esan zion: Atoz, eta erakutsiko dizut billatzen dezun gizona. Eta sarturik Jahel zegoan tokira, ikusi zuen Sisara zetzala illik, eta iltzea inkaturik bere baldokian.

23. Humillatu zuen bada Jaungoikoak egun artan Jabin Kanaango erregea Israelko semeen aurrean.

24. Zeñak egunoro azitzen ziraden, eta esku sendoarekin zeukaten mendean Jabin Kanaango erregea, desegin zuten bitartean.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta kantatu zuten Debborak eta Barak Abinoemen semeak egun artan, esaten zutela:

2. Israelko, borondatez jarri zinduztenak zuen animak perillean, bedeikatu ezazute Jauna.

3. Aditu ezazute erregeak, belarriakin entzun ezazute prinzipiak, ni naiz, ni naiz kantatuko diodana Jaunari, kantatuko diot Israelko Jaun Jainkoari.

4. Jauna, ateratzen ziñanean Seirtik, eta iragotzen ziñanean Edomgo alderrietatik, mugitu zan lurra, eta zeruak eta odeiak itoiketu zituzten urak.

5. Mendiak urtu ziraden Jaunaren aurrean, eta Sinai Israelko Jaun Jainkoaren aurrean.

6. Samgar Anathen semearen egunetan, Jaelen egunetan jarri ziran geldirik bideak, eta beretatik zijozzenak ibilli ziran bidetxidior aldenduetatik.

7. Gelditu ziran sendoak Israelen, eta etziran, jaiki zan bitartean Debbora, jaiki zan bitartean ama bat Israelen.

8. Guda berriak autu zituen Jaunak, eta berak bota zituen etsaien atean, etzan ikusi ezkuturik, ez lanzarik Israelko laureun millatan.

9. Nere biotzak maite ditu Israelko prinzipiak, zuen borondatez eskeñi ziñatenak perillera, bedeikatu ezazute Jauna.

10. Ibilli oi zeratenak asto ederren gañean, eta esertzen zeratenak juzgatzeko, eta zabiltzatenak bidetik, itz egin ezazute.

11. Non izan ziraden eraioak gurdiak, eta itoa etsaien ejerzitua, an izan bediz kontatuak Jaunaren zuzentasunak eta bere biotzeko biguñtasuna Israelko sendoakganako. Orduan Jaunaren erria jetxi zan ateetara, eta iritxi zuen agintaritza.

12. Jaiki zaite, jaiki zaite, Debbora, jaiki zaite, jaiki zaite, eta kantatu ezazu kanta bat: jaiki zaite, Barak, eta artu itzatzu zure mendekoak, Abinoemen semea.

13. Salbatu dirade erriko kutsuak, Jauna gudatu zan sendoetan.



14. Efraimgo batek desegin zituen Amaleken, eta bere ondoan Benjamingo batek zure errien kontra, o Amalek, Matxirtik jetxi ziraden prinzipiak, eta Zabulondik zuzendu zutenak ejerzitua gudatzera.

15. Issakargo agintariak izan ziraden Debborarekin, eta jarraitu ziozkaten Baraken aztarnai, zeñ aurtiki zan perillera amiltoki, edo lize batera bezela, Ruben berezituta bere kontra, arkitu ziran elkar bere gizon sendoak.

16. Zergatik bizitu zera muga biren bitartean, aditu ditzatzun artaldean txistuak? Ruben berezituta bere kontra, arkitu ziraden elean bere gizon sendoak.

17. Galaad zegoan atsedenean Jordango beste aldamenean, eta Danek begiratzen zien bere ontziai. Aser bizi zan itsas bazterrean, eta egon oi zan portuetan.

18. Zabulonek eta Neptalik berriz eskeñi ziozkaten beren animak eriotzari Meromeko errian.

19. Etorri ziraden erregeak eta gudatu zuten, gudatu zuten Kanaan-go erregeak Tanaken Majeddoko uren aldean, eta alaere etzuten eraman arrapatutako gauzarik.

20. Zerutik gudatu zan beren kontra, izarrak zegoztela beren errenkada eta ibillian gudatu ziran Sisararen kontra.

21. Zisongo errekek eraman zituen beren gorputz illak, Kadumimgo errekek, Zisongo errekek, zapaldu itzatzu ene anima sendoak.

22. Zaldien apatxak erori ziraden, igesi zijozela ibillialean, eta erortzen ziradela amiltokietatik etsairik errutsuenak.

23. Madarikatu ezazute Merozko lurra, esan zuen Jaunaren Aingeruak, madarikatu itzatzute bertan bizi diradenak, etziradelako etorri Jau-nari laguntzera, bere gudaririk sendoenai laguntzera.

24. Bedeikatua andran artean Jael Haber Zineoaren emaztea, eta bedeikatua izan dedilla bere dendan.

25. Eman zion eznea ura eskatzen zionari, eta prinzipioen edontzian eskeñi zion guria.

26. Eldu zion ezkerreko eskuarekin iltze bati, eta eskuicarekin langillen mallu bati, eta billaturik buruan tokia zauritzeko, eman zion ots bat Sisarari, zulatutzen ziola portizkiro baldoki bat.

27. Erori zan bere oñen artean indargatu eta il zan, zebillan jiran bere oñen aurrean, eta zetzan anima gabe eta urrikigarria.

28. Bere ama ari zan alarauka begiratzen zuela leiotikan, eta bere gelatik esaten zuen: Nola luzatzen da bere gurdiaren etorrera? Nola dirade ain astunak bere lau zaldien oñak?

29. Bere emazteetatik besteak baño jakintsuago batek, oiek erantzun ziozkan bere amagiarrebari:

30. Noaski oraintxe ari da partitzen arrapatu dituen gauzak, eta autatzen zaio berari emakumerik galantena, kolore askotako soñekoak ematen zaiozka Sisarari arrapatuetatik, eta edergarri asko montoitzen dirade lepoa apaintzeko.

31. Onela galdu bediz, Jauna zure etsai guztiak, eta maitatzen zaituztenak ala argi egin bezate, nola argi egiten duen eguzkiak bere irteeran.

32. Eta lurra pakean egon zan berrogei urtean.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Baña Israelko semeak egin zuten gaizkia Jaunaren aurrean, zeñak jarri zituen Madianen eskuan zazpi urtean.

2. Eta Madiantarrak txit mendean iduki zituzten. Eta egin zituzten arzuloak eta kobak berentzat mendietan, eta toki txit sendatuak jarkitzeko.

3. Eta Israeltarrak ereitzen zutenean, igotzen ziran Madiantarrak eta Amalektarrak, eta sortaldeko beste erreiñuak.

4. Eta jarririk dendak beren aldean, desegiten zuten guztia, oraindik belarrean zegoala Gazako sarreraraño, eta etzioten Israeltarrai utziten biziteko bear zan gauzarik batere, ez ardirik, ez idirik, ez astorik.

5. Zeren etortzen ziraden berak beren abere eta denda guztiakin, eta langosten gisara estalitzen zuten guztia gizaseme eta gamelu talde neurri-gabeko batekin desegiten zutela ukitzen zioten guztia.

6. Eta txit humillatua izan zan Israel Madianen aurrean.

7. Eta deadarrez zuzendu zan Jaunagana eskatzen ziola laguntasuna Madiantarren kontra.

8. Eta Jaunak bidaldu zioten gizaseme Profeta bat, zeñak esan zioten: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Nik igoerazi nizuten Ejiptotik, eta atera zinduztedan katiberioko etxetik,

9. Eta libratu zinduztedan ijitoen, eta gaizki tratatzen zinduzten etsai guzien eskutik, eta aurtiki nituen zuen sarreran, eta eman nizuten beren lurra.

10. eta esan nuen: Ni naiz zuen Jaun Jainkoa, etzaitzte Amorroen jainkoen beldur izan, zeñaen lurrean bizi zeraten. Eta etzenduten aditu nai izan nere boza.

11. Etorri zan bada Jaunaren Aingerua, eta eseri zan, Efran zegoan arte baten, eta Joas Ezrien familiaren aitari zegokionaren azpian. Eta nola



Jedeon bere semea ari zan astintzen eta garbitzen alea dolaran, Madiantarrakgandik ezkutatzeko,

12. Agertu zitziaion Jaunaren Aingerua, eta esan zuen: Jauna da zurekin, o gizonik sendoena.

13. Eta esan zion Jedeonek: Erregututzen dizut, nere Jauna, esan zadazula arren, Jauna baldin bada gurekin, zergatik arrapatu zaituzte gaitz oiek? Non dirade bere mirari, gure gurasoak kontatu zizkigutenak esaten zigtela: Jaunak atera ginduen Egiptotik? Orain berriz utzi gaitu Jaunak, eta jarri gaitu Madianen eskuan.

14. Eta begiratu zion Jaunak, eta esan zion: Zoaz zure sendotasun orrekin, eta libratuko dezu Israel Madianen eskutik, jakin ezazu ni naizala bidaltzen zaitudana.

15. Berak erantzun eta esan zuen: Erregututzen dizut, nere Jauna, esan zadazula arren, libratu bai al nezake nik Israel? Begiratu ezazu nere familia dala Manassesen beerengoa, eta ni txikiena nere aitaren etxean.

16. Esan zion Jaunak: Ni izango naiz zurekin, eta desegingo dezu Madian, gizon bakar bat balitza bezela.

17. Eta beraun erantzun zuen: Baldin arkitu badet grazia zure aurrean, eman zadazu, nerekin itz egiten dezu zu zeranaren seña bat.

18. Eta ez ezazu emendikan alderik egin, aliketa itzuli nadin bitartean zugana, eta ekarri dezadan bitartean doña bat, eta eskeñi zuri. Eta ark erantzun zuen: Nik itxedongo det itzuli zaitezen bitartean.

19. Sartu zan bada Jedeon, eta egosi zuen antxume bat, eta iriñ modio batekin egin zituen ogi legami gabeak, eta jarririk aragi saskitxo batean, eta botarik eltze batean aragiaren salda, eraman zuen guztia artearen azpira, eta eskeñi zion.

20. Esan zion Jaunaren Aingeruak: Ar zazu aragia eta ogi legamigabeak, eta jarri ezazu arri huraren gañean, eta isuri ezazu gañean salda. Eta egiñik au ala,

21. Luzatu zuen Jaunaren Aingeruak, eskuan zuen makillaren gaña, eta ukitu zion aragiari, eta legamigabeko ogiai, eta atera zan sua arritik, eta desegin zituen aragi eta ogi legamigabeak, eta Jaunaren Aingerua ezkutatuzan bere begietatik.

22. Eta ikusirik Jedeonek Jaunaren Aingeru bat zala, esan zuen: Ai ene zorigaiztokoa nere Jaun Jainkoa, zeren ikusi det Jaunaren Aingerua arpegiz arpegi.

23. Eta esan zion Jaunak: Pakea izan bedi zurekin, etzaitz beldur izan, etzera ilko.

24. Egin zion bada an Jedeonek aldare bat Jaunari, eta deitu zion Jaunaren pakea, deitzen zaion bezela gaurko eguneraño. Eta oraindik zegoala Efran, zeñ dagokion Ezriren familiari,

25. Esan zion Jaunak gau artan: Ar zazu zure aitaren zezen bat, eta beste zazpi urteko bat, eta desegingo dezu Baalen aldarea, zeñ dan zure aitarena, eta ebaki ezazu aldarearen inguruan dagoan basoa,

26. Eta egingo diozu aldare bat zure Jaun Jainkoari arri onen erpiñean, zeñaen gañean jarri zenduen len doña, eta artuko dezu bigarren zezena, eta eskeñiko dezu doñaen, basoan epaki izango dezun egur sorta baten gañean.

27. Arturik bada Jedeonek bere serbitzarietatik amar, egin zuen Jaunak agindu zion bezela. Baña bere aitaren familiaren, eta erri artako gizonen beldurrez, etzuen nai izan egin egunaz, baizik guztia egin zuen gauaz.

28. Eta goizean jaikirik erri artako gizonak, ikusi zuten desegiña Baalen aldarea, eta basoa epakia, eta beste zezena jarria, orduan egiña izan zan aldarearen gañean.

29. Eta esan zioten elkarri: Nork egin du au? Eta billatzen zutela egitearen egillea, esana izan zitzaizoten: Jedeon Joasen semeak egin ditu gauza guzti oiek.

30. Eta esan zioten Joasi: Atera zaguzu zure semea onara, illa izan dedin, zeren desegin du Baalen aldarea, eta epaki basoa.

31. Zeñai hurak erantzun zioten: Baalen bengatzalleak bai al zerate, bere alde gudatzeko? Beraren etsaia dana, il bedi biarko argia etorri baño lenago, Jaungoikoa baldin bada bengatu bedi bere aldarea desegin duenarekin.

32. Egun artatik deitua izan zan Jedeon, Jerobaal, Joasek esan zuelako: Bengatu bedi Baal bere aldarea desegin duenarekin.

33. Bildu ziraden bada batean Madiantarrak, eta Amalektarrak, eta sortaldeko erriak, eta iragota Jordana jarri zituzten etzauntzak Jezraelen ibarrean.

34. Baña Jaunaren Espirituak jantzi zuen Jedeon, zeñak jorik tronpetatu deitu zion Abiezerren etxeari, jarraitu zekion.

35. Eta bidaldu zituen mandatariak Manasses guztira, zeñak ere jarraitu zion, eta beste mandatari batzuek Aser, eta Zabulon, eta Neptalira, zeñak atera zitzaizkien bidera.

36. Eta esan zion Jedeonek Jaungoikoari: Baldin salbatuko badezu Israel nere eskuz itz egin dizun bezela,



37. Jarriko det illedun larru au larrañean, baldin intza balego illedun larruan bakarrik lur guzia leorra gelditzen dala, jakingo det salbatuko dezula Israel nere eskuz, esan dezun bezala.

38. Eta ala suertatu zan. Eta gauaz jaikita, estuturik illedun larrua, bete zuen ontzi bat intzez.

39. Eta esan zion berriz Jaungoikoari: Ez bedi irazeki zure sumiñtasuna nere kontra oraindikan beste bein tentatzen badet, eskatzen dedala señaie bat illedun barruan. Eskatzen dizut illedun larrua bakarrik gelditu dedilla leorra, eta lur guztia intzez bustia.

40. Eta egin zuen Jaunak gau artan eskatu zuen bezela, eta illedun larruan bakarrik zegoan leortasuna, eta intza lur guztian.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Argatik Jerobaal zeñi deitzen ere zaion Jedeon, gauaz jaikita, eta erri guztia berarekin, etorri zan Harad deritzan iturrira. Eta Madiantarren etzauntzak zeuden ibarrean muño goratu baten ifarreko aldean.

2. Eta esan zion Jaunak Jedeoni: Jende asko dezu zurekin, Madian ez da jarria izango zure eskuetan, gozatu ez dedin nere kontra Israel, eta ez dezan esan: Nere indarrakin libratu naiz.

3. Itz egin zaiozu erriari, eta guziak aditzen dutela esan zaiozu: Bel-durti eta koldarra dana, itzuli bedi. Eta alde egin zuten Galaadko menditik, eta itzuli ziran ogeita bi milla gizon erriko, eta amar milla bakarrik gelditu ziran.

4. Eta esan zion Jaunak Jedeoni: Oraindikan jende asko dago, eraman itzatzu uretara, eta an probatuko ditut: eta nik esaten dizudana joateko zurekin, hura joango da; joatea galerazitzen diodana, itzuli bedi.

5. Eta jetxi zanean erria uretara, esan zion Jaunak Jedeoni: Jarriko dituzu aldamen batean mingañarekin milliskatzen dutenak ura, txakurrak egin oi duten bezela; lurraan belauna jarrita edaten dutenak berriz, egongo dirade beste aldamenean.

6. Eta ura milliskatu zutenak, botarik eskuarekin aora izan ziraden irureun gizon; gañerako jende guziak berriz belaunbiko edan zuen.

7. Eta esan zion Jaunak Jedeoni: irureun gizon, ura milliskatu dutenakin, libratuko zaituztet, eta jarriko det zure eskuan Madian; gañerako jende guzia berriz itzuli bedi bere tokira.

8. Eta arturik janaria eta tronpetak zenbataren araura, agindu zuen gañerako jende guzia joateko bere etzauntzetara: eta bere irureun gizonen gertutu zan gudarako. Madianen etzauntzak berriz zeuden bean ibarrean.

9. Gau artan beratan esan zion Jaunak: Jaiki, eta jetxi zaite etzauntzetara, zeren jarri ditut zure eskuan.

10. Eta baldin beldur bazera bakarrik joaten, jetxi bedi zurekin Fara zure morroia.

11. Eta aditzen dezunean esaten dutena, orduan sendatuko dirade zure eskuak, eta jetxiko zera ziurtasun geiagorekin etsaien etzauntzetara. Jetxi zan bada bera eta bere morroe Fara, ejerzituko bealariak zeuden etzauntzetako aldamerontz.

12. Eta Madiantar eta Amalektarrak eta sortaldeko erri guztiak zabaldua zeuden ibarrean, langosta talde bat bezela, beren gameluak ere ziraden neurrigabeak, itsas bazterrean dagoan ondarra bezela.

13. Eta bazetorrela Jedeon, aietatik batek kontatzen zion bere aldekoari amets bat, eta onela adirazten zion ikusi zuena: Egin det amets bat, eta iruditzen zatan garagarrezko ogi autspean erretako bat zijoala milka, eta zijoala erortzera Madiango etzauntzen gañera, eta allegaturik etzauntz batera jo zuela, desegin zuela, eta osotoro lurrera bota zuela.

14. Erantzun zion hurak, zeñi kontatzen zion, onek ez du beste gauzarik adirazten, baizik Jedeonen Joasen semearen, Israelko gizon baten ezpata, zeren Jaunak bere eskuetan jarri du Madian eta beraren etzauntz guziak.

15. Eta aditu zuenean Jedeonek ametsa, eta bere azaldaera, adoratu zuen (Jauna), eta itzuli zan Israelko etzauntzetara, eta esan zuen: Jaiki zaitetze, zeren jarri ditu Jaunak gure eskuetan Madianen etzauntzak.

16. Eta berezitu zituen irureun gizonak iru zatitan, eta jarri zituen beretatiko bakoitzaren eskuetan tronpetak, eta pegar uts bat, eta argi bat pegar bakoitzaren erdian.

17. Eta esan zioten: Nik egiten dedala ikusten dezutena, egin ezazute zuek ere, ni sartuko naiz etzauntzen aldamen batetik, eta nik egiten dedana egin ezazute.

18. Ots egiten duenean nere eskuan dedan tronpetak, zuek ere jo itzatzute etzauntzen inguruan, eta deadar egin ezazute, Jaunari eta Jedeoni.

19. Eta sartu zan Jedeon eta berarekin zeuden irureun gizonak, etzauntzen aldamen batetik, gauaren erdiko beillaren asieran, eta esnatu rik zaitzalleak asi ziraden tronpetak jotzen eta pegarrak elkar joerazi eta autsitzen.

20. Eta jorik iru toki berezitan etzauntzen inguruan, pegarrak autsi zituztenean, artu zituzten argiak ezkerreko, eskuetan, eta jorik tronpetak eskuieakin, deadar egin zuten: Jaunaren eta Jedeonen ezpata,



21. Zeudela geldiak bakoitza bere tokian etsaien etzauntzen inguruan. Etzauntz guziak bada naasi ziraden, eta deadarrez eta auenka iges zuten.

22. Eta alaere jarraitzen zioten irureun gizonak tronpetak jotzeari. Eta Jaunak egin zuen artu zitzatela ezpatak etzauntz guztietan eta elkar iltzen zuten.

23. Eta iges egiten zutela Bethsetaraño, eta Abelmehulako mugetaraño Tebbuthen. Baña Israelko gizon Neptali, eta Aser eta Manasses guziko tribuetakoak deadarrez jarraitzen zioten Madiantarrari.

24. Eta bidaldu zituen Jedeonek mandariak Efraimgo mendi guzira esaten zuela: Jetxi zaitezte Madiantarrari bidera irtetzera, eta jarri zaitezte uretan Bethbera eta Jordaneraño. Eta asi zan deadarrez Efraim guztia, eta aurreratu zan artzera urak, eta Jordana Bethberaraño.

25. Eta atxaturik bi gizon Madiantar, Oreb, eta Zeb il zituzten. Oreb Orebko aitzean, eta Zeb Zebko dolaran. Eta persegitu zituzten Madiantarrak, zeramazkitela Oreb eta Zebe buruak Jedeongana Jordango ibaia- ren beste aldamera.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zioten Efraimgo gizonak: Zer da egin nai izan diguzun au, ez diguzula deitzen guri, joan zeranean Madianen kontra gudadzera? Kexatzen ziradela portizki, eta eskuartera eltzeko zorian.

2. Zeñai berak erantzun zioten: Nola nik egin nezakean, zuek egin dezuten bezelako gauzarik? Ez al du geiago balio Efraimgo mordo batek, Abiezerko mendaiñak baño?

3. Zuen eskuetan jarri ditu Jaunak Madiango prinzipeak, Oreb, eta Zeb: zer gauza egin nezakean nik, zuek egin dezutena bezelakorik? Oiek esanik, paketu zan beren aserre, beraren kontra erazeki zana.

4. Eta etorririk Jedeon Jordanera, irago zuen, berarekin zeuden irureun gizonekin, eta ezin zituzten persegitu igesi zijozenak, aiek nekatuak zeudelako.

5. Eta esan zioten Sokothko gizonai: Erregututzen dizutet eman zaiozutela arren ogia, nerekin dagoan erriari, zeren txit indargabetua dago. Persegitu dizaiegun Zebee eta Salmana Madiango erregeai.

6. Erantzun zuten Sokothko prinzipeak: Noaski zure eskuan daude Zebee eta Salmanaren eskuen nabak eskatzeko guri eman dizaiegula ogia zure ejerzituari?

7. Zeñai ark esan zien: Jartzen dituenean Jaunak nere eskuetan Zebee eta Salmana, txeatuko ditut zuen aragiak eremuko arantza eta sasilarrakin.

8. Eta igorik andikan, etorri zan Fanuelera, eta esan zieten erri arta- go gizonai itz aiek berak. Zeñari aiek ere eratzun zioten, erantzun zuten bezela Sokothko gizonak.

9. Esan zioten bada aiei ere: itzultzen naizanean garailari pakean, desegingo det dorre au.

10. Zebee eta Salmana berriz zeuden atsedeten beren ejerzitu guzia- rekin. Zeren amabost milla gizon gelditu ziraden sortaldeko errietako talde guztietatik, izanik illak eun eta ogei milla gudari ateratzen zutenak ezpata.

11. Eta igorik Jedeon etzauntzetan bizi ziradenen bidetik Nobe et (sic) Jegbaaren sortaldera desegin zituen etsaien, arreta gabe zeudenen, eta galtzen beldurrik batere etzeukatenen etzauntzak.

12. Eta iges zuten Zebee eta Salmanak zeñak persegitzen zituztela Jedeonek arrapatu zituen, naasita beren ejerzitu guzia.

13. Eta itzultzen zala gudatik eguzkiaren irteera baño lenago,

14. Eldu zion Sokothko gizonetatiko mutil bati eta galdetu ziozkan Sokothko prinzi- pe eta zarren izenak, eta eskribatu zituen irurogeita ama- zazpi gizon,

15. Eta sartu zan Sokothen, eta esan zien: Ona emen Zebee, eta Sal- mana, zeñakgatik lotsagabekeriaz esan ziñidaten: Zebee eta Salmanaren eskuak zure eskuetan bai al daude, eskatzeko guri eman dizaiegula ogia, nekatuak eta indargabetuak dauden zure jendeai?

16. Artu zituen bada erriko zarrak eta eremuko arantza eta sasilarra- kin puskatu eta txeatu zituen Sokothko gizon aiek.

17. Bota ere zuen Fanuelko dorrea, illik errian bizi ziradenak.

18. Eta esan zien Zeberi eta Salmanari: Nolakoak ziraden Taborren il zinduzten gizonak? Berak erantzun zuten: Zure irudikoak, eta beretati- kan bat erregeren semea balitza bezelakoa.

19. Zeñai berak erantzun zioten: Nere anaiak ziraden, nere amaren semeak. Jaungoikoa bizi dan bezela diot, bizirik utzi izan baziniezteen, etzinduztedan ilko.

20. Eta esan zion Jeterrek bere lenbizisortuari: Jaiki zaite eta il itza- tzu. Zeñak etzuen atera ezpatarik; zeren beldur zan, oraindikan aurra zalako.

21. Eta Zebee eta Salmanak esan zioten: Zu jaiki zaite eta esetsi zagu- zu, zeren gizonaren indarra da edadearen araura. Jaiki zan Jedeon, eta il zituen Zebee eta Salmana, eta artu zituen, erregeen gameluen lepoetan apaingarrizat jarri oi diraden edergarri eta illargiak.



22. Eta esan zioten Israelko gizon guziak Jedeoni: izan zaite gure Prinzipea zu, eta zure semea, eta zure illoba, libratu gaituzulako Madianen eskutik.

23. Zeñai berak esan zien: Ez naiz izango zuen Prinzipea ni, ez da izango ere nere semea, baizik Jauna izango da zuen gañean aginduko duena.

24. Eta esan zien: Eskari bat egiten dizutet, eman zaskidazute arrapatu dituzuten zirzilluak. Zeren Ismaeltarrak eraman oi zituzten urrezko zirzilluak.

25. Zeñak erantzun zuten: Txit gogotikan emango dizkizugu. Eta zabaldurik lurraren gañean kapa bat, aurtiki zituzten beratan zirzillu arrapatuak.

26. Eta eskatu zituen urrezko zirzilluen pisua izan zan, milla eta zazpiren urrezko siklo, Madiango erregeak erabili oi zituzten apaingarri eta joiatxo eta purpurazko soñekoak gabe, eta gameluen lepoen urrezko apaingarriak gabe.

27. Eta egin zuen berarekin Jedeonek Efod bat, eta jarri zuen Efra bere errian. Eta Israel guziak adoratu zuen gezurrezko jainkoa Efod augatik, eta izandu zan Jedeonen eta bere etxe guziaren galmena.

28. Eta humillatua izandu zan Madian Israelko semeen aurrean, eta ezin izan zituzten berriz altxatu lepoak, baizik lurra egon zan pakean, Jedeonek agindu zuen berrogei urteetan.

29. Joan zan bada Jerobaal Joasen semea eta bizi izan zan bere etxean.

30. Eta izan zituen irurogeita amar seme, bere isterretik atera ziradenak, asko emazte izandu zituelako.

31. Eta Sikemen zeukan bere emazte azpiko bat gandikan izan zuen seme bat Abimelek zeritzana.

32. Eta il zan Jedeon Joasen semea zartza onean, eta lurpetua izandu zan Joas bere aitaren obian Efran, Ezriren familiari zegokionean.

33. Baña Jedeon ill ezker, alde egin zuten Jaunagandik Israelko semeak, eta adoratu zituzten Baalak. Eta elkartu ziraden Baalekin, izan zedin beren jainkoa.

34. Eta etziraden gomutatu beren Jaun Jainko, atera zituenarekin beren etsai guzien, inguratuak zeuzkatenen eskuetatik:

35. Eta etziraden urrikaritu Jerobaal Jedeonen etxearekin, Israeli egin ziozkan ongi guzien araura.

1. Joan zan bada Abimelek Jerobaalen semea Sikemera bere amaren anaiakgana, eta itz egin zioten berai, eta bere amaren aitaren etxeko aide guziaz, esaten zuela:

2. Esan zaiezute Sikemgo gizaseme guziaz: Zeñ da obegiago zuentzat, agindu bekizutela irurogeita amar gizonak, guziak Jerobaalen semeak, ala gizaseme bat izan dedilla zuen Jauna? Oroitu ere zaitzete, zuen ezurra, eta zuen aragia naizela.

3. Eta esan ziozkaten beraren alde bere amaren anaiak itz guzi oiek Sikemgo gizaseme guziaz, eta Abimelek ganatu zuten beren biotza, esaten zutela: Gure anaia da.

4. Eta eman ziozkaten irurogeita amar siklo zillarrezko Baalberithen elizatik. Zeñakin artu zuen bere kontura jende premiatsu eta alferrezko talde bat, zeñak jarraitu zion.

5. Eta etorri zan bere aitaren etxera Efran, eta il zituen bere anaia Jerobaalen semeak, irurogeita amar gizaseme, arri baten gañean, eta baka-rrik gelditu zan Joatam Jerobaalen seme txikiago, ezkutatua izan zana.

6. Eta bildu ziraden Sikemgo gizaseme guztiak, eta Mello erriko familia guztiak, eta joan ziraden eta jarri zuten erregetzat Abimelek, Sikemen zegoan artearen aldean.

7. Adirazi ziotenean au Joatami, joan zan, eta gelditu zan Garizim mendiaren erpiñean, eta altxaturik boza, deadar egin, eta esan zuen: Aditu nazazute, Sikemgo gizasemeak, ala aditu zaitzatela Jaungoikoak.

8. Joan ziraden zuaitzak untatzera berentzat errege bat, eta esan zioten oliboari: Agintatu ezazu gure gañean.

9. Zeñak erantzun zuen: Utzi bai al dezaket nik nere gizentasuna, zeñatatik usatzen duten jainkoak eta gizonak, eta etorri jarria izatera gañean aritzen artean?

10. Eta esan zioten zuaitzak piko ondoari: Atoz, eta artu ezazu erreñua gure gañean.

11. Zeñak erantzun zioten: Utzi bai al dezaket nik nere gozotasuna, eta nere frutu txit eztiak, eta joan izatera jarria gañean beste zuaitzen artean?

12. Eta zuaitzak esan zioten aienari: Atoz, eta agindu zaguzu.

13. Zeñak erantzun zioten: Utzi bai al dezaket nik nere ardo, Jaungoikoaren eta gizonen poztasuna dana, eta izan jarria gañetik beste zuaitzen artean?

14. Eta esan zioten zuaitz guziak sasiari: Atoz, eta agindu ezazu gure gañean.



15. Zeñak erantzun zioten: Baldin benaz jartzen banazute zuen erregetzat, atozte, eta atsedean zaitezte nere itzalaren azpian: eta baldin ez badezute nai, atera bedi sua sasitikan, eta iretsi bitza Libanoko zedroak.

16. Orain bada, baldin zuzenkiro eta bekaturikan gabe jarri badezute zuen gañean erregetzat Abimelek, eta ongi portatu bazerate Jerobaal, eta bere etxearekin, eta ongi erantzun badiezute, zuen alde gudatu zan huraren mesedeai

17. Eta bere bizia irriskueta jarri zuenarenai, libratzeko zuek Madiannen eskutik,

18. Zuek orain jaiki zeratenok nere aitaren etxearen kontra, eta it dituzutenok bere semeak irurogeita amar gizaseme arri baten gañean, eta jarri dezutenok Sikemen bizi diradenen erregetzat Abimelek bere neska-me baten semea, zuen anaia dalako.

19. Baldin bada portatu bazerate zuzenkiro eta bekaturikan gabe Jerobaal eta bere etxearekin, poztu zaitezte gaur Abimelekin, eta bera poztu bedi zuekin.

20. Baña baldin txit gaizkiro portatu bazerate, atera bedi sua beratitikan, eta iretsi bitza Sikemen bizi diradenak eta Mello erria, eta Sikemgo gizasemeakgandik, eta Mello erritik atera bedi sua, eta iretsi beza Abimelek.

21. Oiek esanik, iges egin zuen, eta joan zan Berara, eta an bizi izan zan bere anaia Abimeleken beldurragatik.

22. Erreinatu zuen bada Abimelekek Israelen gañean iru urtean.

23. Eta bidaldu zuen Jaunak espiritu txit gaizto bat Abimelek eta Sikemen bizi ziradenen artera, zeñak asi ziraden hura gorrotatzen,

24. Eta egotziten Jerobaalen irurogeita amar semeen eriotzaren gaiztakeria, eta beren odolaren isuriera Abimelek beren anaia, eta Sikemtarren beste prinziipe, lagundu ziotenai.

25. Eta jarri zituzten bere kontra zelatadak mendien erpiñean, eta bere etorreraren zai zeudela, egiten zituzten lapurretak, kentzen ziozkate-la bideanteai zeramaten, eta gaztigua emana izan zitzaion Abimeleki.

26. Eta etorri zan Gaal Obeden semea bere anaia, eta irago zan Sikemera. Zeñaen etorreran alaiturik Sikemen bizi ziradenak,

27. Atera ziraden kanpoetara desegiten zituztela mastiak, eta zapaltzen zituztela matsak, eta egiñik kantarien taldeak, sartu ziran beren Jaungoikoren elizan, eta jaten eta edaten zutela, madarikatzen zuten Abimelek,

28. Esaten zuela Gaal Obeden semeak: Zeñ da Abimelek, eta zer da Sikem, guk bera serbitzeko? Ez al da bera Jerobaalen semea, eta jarri du

Zebul bere morroia Emorren Sikemen aitaren gizasemeen gañean? Zergatik bada izango gera bere menpekoak?

29. Arren bada emango balit norbaitek erri onen agintaritzaz, kentzeko bizia Abimeleki! Eta esana izan zitzaion Abimeleki: Bildu ezazu ejerzitu andi bat eta atoz.

30. Zeren Zebul erriko eraentzallea aditurik Gaalen Obeden semearen itzak, txit aserretu zan,

31. Eta bidaldu zizkion ixillean Abimeleki mandatariak esaten zuela: Gaal Obeden semea etorri da Sikemera bere anaia, eta matxiñatu nai du erria zure kontra.

32. Jaiki zaite bada gauaz, zurekin dan jendearekin, eta ezkutatu zaite kanpoan:

33. Eta txit goiz eguzkiaren irteeran, esetsi zaiozu erriari, eta ateratzen danean bera zure kontra bere jendearekin, egin zaiozu nai dezuna.

34. Jaiki zan bada Abimelek bere jende guziarekin gauaz, eta jarri zituen zelatadak Sikemen aldean lau tokitan.

35. Eta atera zan Gaal Obeden semea, eta gelditu zan erriko atearen sarreran. Eta jaiki zan Abimelek, eta ejerzitu guztia berarekin zelataden tokitik.

36. Eta ikusi zuenean Gaalek jende hura, esan zion Zebuli: Begira nolako jende taldea jetxitzen dan mendietatik. Zeñi berak erantzun zion: Mendien itzalak ikusten dituzu gizonen buruak bezela, eta onekin engañatzen zera.

37. Eta berriz esan zion Gaalek: Begira nolako jendedia jetxitzen dan lurraren erditikan, eta talde bat dator, artera begiratzen duen bidetik.

38. Zeñi esan zion Zebulek: Non da orain zure azarkeria hura, zeñarekin esaten zenduan: Zeñ da Abimelek egoteko gu bere mendean? Ez al da au zuk mezpreziatzen zenduan erria? Atera eta gudatu zaite bere kontra.

39. Joan zan bada Gaal Sikemtarren erri guztia begira zegoala, eta gudatu zan Abimeleken kontra,

40. Zeñak persegitu zion igesi zijoala, eta errian sartuerazi zion, eta erori ziran bere aldetik asko erriko ateaño:

41. Eta Abimelek gelditu zan Ruman, eta Zebulek bota zituen Gaal eta bere lagunak erritik, eta etzioten laketu an bizitzen.

42. Biaramonean bada atera zan erria kanpora. Eta berri au emana izan zitzaionean Abimeleki,



43. Artu zuen bere ejerzitua, eta berezitu zuen iru taldetan, jartzen zituela zelatadak kanpoetan. Eta ikusirik ateratzen zala jendea erritik, jaiki zan, eta esetsi zion.

44. Beren jende talde batekin, bazirauntzala, eta ingurutzen zuela erria. Bitartean beste talde biak jarraitzen zieten kanpoan banatuak zebiltzan etsaia.

45. Eta Abimelek ari zan egun guzi artan esesten erriari, zeñ artu zuen, eta illik bertan bizi ziradenak, eta desegiñik bera, alako moduan non zabaldu zuen gatza beratan.

46. Aditu zutenean au Sikemgo dorrean bizi ziradenak, sartu ziraden beren jainko Berithen elizan, non egin zuten elkartasuna berarekin, eta artatik artu zuen izena tokiak, zeñ zan txit murrutua.

47. Abimelekek ere aditurik Sikemgo dorrekoak zeudela an guziak bildurik,

48. Igo zan Selmongo mendira bere jende guziarekin, eta arturik aizkora bat, epaki zuen zuaitz baten adaki bat, eta bazeramala jarrita solbarda gañean, esan zien lagunai: Egin ezazute laister ni egiten ikusten nazatena.

49. Berak bada epakitzen zituztela zuaitzen adakiak elkarren leian, jarraitzen zioten agintariari. Eta inguruturik gaztelua, su eman zioten. Eta onela gertatu zan keaz eta suaz illak izatea milla lagun, bai gizaseme eta bai emakume Sikemgo dorrean bizi ziradenak.

50. Eta Abimelek, joanik andik, etorri zan Tebes errira, zeñi ingurututa esesten zion bere ejerzituarekin.

51. Bazan berriz dorre altu bat erriaren erdian, zeñara iges egin zuten gizasemeak, eta emakumeak, eta erriko andizki guziak, itxita txit sendo atea, eta zeudela dorrearen tellatuaren gañean berak zaitzeko.

52. Eta allegaturik Abimelek dorrearen aldera, ari zan esesten sendaro, eta alderaturik atera, su eman nai zion.

53. Eta ona non emakume batek aurtikirik errota arri baten zati bat, jo zuen Abimelek buruan, eta autsi zion burmuña,

54. Zeñiak bereala ots egin zion ezkutariari, eta esan zion: Atera ezazu zure ezpata eta il nazazu, esan ez dezaten, emakume batek illa izan naizela. Eta ezkutariak egiñik agintzen zitzaiona, il zuen.

55. Eta illik bera, berarekin zeuden Israetar guztiak itzuli ziraden beren etxeetara,

56. Eta Jaunak eman zion Abimeleki, bere aitaren kontra egin zuen gaitzaren ordaña, illik bere irurogeita amar anaiak.

57. Sikemtarrai ere itzulia izan zitzaioten egin zuten gaitzaren ordaña,

eta etorri zan beren gañera Joatan Jerobaalen semearen madarikazioa.



AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta Abimeleken ondoan izandu zan Israelen agintaria Thola Phua-ren Abimeleken osabaren semea, Issakarko gizasemea, bizitu izan zana Samirren Efraimgo mendiaren gañean.

2. Eta juzgatu zuen Israel ogeita iru urtean eta il zan, eta izandu zan obiatua Samirren.

3. Oni jarraitu zion Jair Galaadkoak, zeñak juzgatu zuen Israel ogeita bi urtean,

4. Zeñak zeduzkan ogeita amar seme, zeñak ibilli oi ziran ogeita amar astakumeren gañean, eta ziran ogeita amar erriko prinzippeak, zeñak bere izenetik izan ziran deituak Haboth Jair, au da, Jairren erriak, gaurko eguneraño, Galaadko lurrean.

5. Eta il zan Jair, eta izan zan obiatua, Kamon izena duen toki batean.

6. Israelko semeak berriz itsatsirik bekatu berriak anziñakoai, egin zuten gaizkia Jaunaren aurrean, eta serbitu zituzten idoloak, Baalim eta Astaroth, eta Siriako, eta Sidongo, eta Moabko, eta Ammonen semeen, eta Filisteen jainkoak; eta utzi zuten Jauna, eta etzioten egin elizkizunik.

7. Zeñaen kontra aserretuta Jauna, jarri zituen Filisteen eta Ammonen semeen eskuetan.

8. Eta izan ziraden naigabetuak eta atsekabetuak txit, emezortzi urtean, bizi ziraden guztiak Jordango beste aldamenean, Amorreoaren Galaaden dagoanaren lurrean.

9. Alako moduan non, Ammonen semak, iragorik Jordana desegiten zituzten Judaren eta Benjaminen eta Efraimen tribuak. Eta geiegi atsekabetua izan zan Israel.

10. Eta deadar eginik Jaunari, esan zuten: Bekatu egin degu zure kontra, utzi degulako gure Jaun Jainkoa, eta serbitu degulako Baalim.

11. Zeñai esan zioten Jaunak: Ez al zinduzten atsekabetu ijitoak, eta Amorreoak, eta Ammonen semeak eta Filisteen,

12. Baitaere Sidonioak, eta Amalezitik eta Kananeoak, eta deadarrez eskatu ziñidaten niri, eta atera zinduztedan beren eskuetatik?

13. Eta alaere utzi nazazute, eta adoratu dituzute jainko arrotzak. Argatik etzaitzuet onezkero berriz libratuko.

14. Zoazte eta ots egin zaiezute autu dituzuten jainkoai, berak libratu zaitzatela naigabeko denboran.

15. Eta esan zioten Israelko semeak Jaunari: Bekatu egin degu, egin ezazu zuk gurekin nai dezuna, bakarrik orain libratu gaitzatzula.

16. Zeñak esaten zituztela, bota zituzten beren mugetatik jainko arrotzen idolo guztiak, eta serbitu zuten Jaun Jainkoa, zeñ urrikaritu zan beren argaltasunakin.

17. Ala bada Ammonen semeak pozezko deadarrakin jarri zituzten etzauntzak Galaaden, zeñaen kontra bildurik Israelko semeak jarri zituzten etzauntzak Masfan.

18. Eta Galaadko prinzipheetatik bakoitzak esan zion elkarri: Gutitikan lendabizi asten dana gudatzen Ammonen semeen kontra, izango da Galaadko erriko agintaria.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Bazan denbora artan Galaaden gizon txit sendo eta gudari bat Jephthe zeritzana, Galaaden semea, andre bordion batgandik jaioa.

2. Bazuen ere Galaadek emaztea, zeñagandik izan zituen semeak: zeñak azi ziradenean, bota zuten etxetik Jephthe, esaten zutela: Ezin izango zera primua gure aitaren etxean, zeren beste ama batgandik jaioa zera.

3. Zeñakgandik berak iges egiten zuela eta ezkututzen zala, bizitu izan zan Tobko Lurrean, eta alderatu zituzkion gizaseme beartsu eta ebasleak, eta beren prinzipeari bezela jarraitzen zioten.

4. Egun aietan ari ziraden gudan Ammonen semeak Israelen kontra.

5. Eta nola oiek txit estututzen zituzten, Galaadko zarrak joan ziraden ekartera Jephthe Tobko lurretik berai laguntzeko.

6. Eta esan zioten: Atoz, eta izan zaite gure Prinzipea gudatzeko Ammonen semeen kontra.

7. Zeñai berak erantzun zioten: Ez al zerate zuek gorrotoa iduki ziñidatenak, eta aurtiki ninduzutenak nere aitaren etxetik, eta orain zatozte nigana premiaz beartuta?

8. Eta erantzun zioten Galaadko prinzippeak Jephtheri: Argatik bada gatzoz orain zugana, etorri zaitezen gurekin, eta gudatu zaitezen Ammonen semeen kontra, eta izan zaitezen, Galaaden bizi diraden guzien agintaria.

9. Jephthe ere esan zioten: Baldin egiazki etorri bazerate nigana gudatzeko zuen alde Ammonen semeen kontra, eta jarriko baldin balitu Jaunak nere eskuetan, izango bai al naiz ni zuen prinzipea?

10. Zeñak erantzun zioten: Gauza oiek aditzen dituen Jauna, bera da gure eskeñtza guztiak beteko dituguzanaren bitartekoa eta ikuslea.

11. Joan zan bada Jephthe Galaadko andizkiakin, eta erri guztiak autu zuen bere prinzipetzat. Eta esan zituen Jephthe bere itz guzi oiek Jaunaren aurrean Masfan.



12. Eta bidaldu zituen mandatariak Ammonen semeen erregeagana, esan litzaieten bere izenean: Zer degu zuk eta nik, etortzeko nere kontra, nere lurra soiltzera?

13. Zeñai berak erantzun zioten: Israelek artu zuelako nere lurra Ejiptotik igo zanean Arnongo mugetatik Jabok eta Jordaneraño: orain bada itzuli zadazu pakean.

14. Jephtek berriz bidaldu zituen berak, eta agindu zioten esan litzaioleta Ammongo erregeari:

15. Oiek esaten ditu Jephtek: Etzuen artu Israelek Moabko lurra, ez Ammonen semeen lurra,

16. Baizik atera ziradenean Ejiptotik, ibilli zan eremutik Itsasgorri-
raño, eta etorri zan Kadesera.

17. Eta bidaldu ziozkan mandatariak Edomgo erregeari, esaten ziola: Utzi zadazu iragotzen zure lurretik. Zeñak etzuen nai oben egin huraren erregetara. Berebat bidaldu zituen Moabko erregeagana, zeñak ere ukatu zion meprezioarekin ematea iragopidea. Eta ala gelditu zan Kadesen.

18. Eta inguratu zituen aldamen batetikan Edomgo lurra, eta Moabko lurra, eta etorri zan Moabko lurraren sortalderontz, eta jarri zituen etzauntzak Arnongo beste aldamenean. Etzuen ere sartu nai Moabko mugetan, zeren Arnon da Moabko lurraren muga.

19. Bidaldu zituen bada Israelek mandatariak Sehon Amorrheoen errege, Hesebonen bizi zanagana, eta esan zioten: Utzi zadazu iragotzen zure lurretikan ibairaño.

20. Baña onek ere mepreziatzen zituela Israelen eskariak etzion utzi iragotzen bere mugetatikan: baizik bildurik jende talde neurrigabeko bat, atera zan bere kontra Jasan eta txit sendoki jarki zitzaion.

21. Eta jarri zuen Jaunak Israelen eskuetan bere ejerzitu guziarekin, zeñak desegin zuen, eta jarri zan Amorrheoaren alderri artan bizitu zana-
ren,

22. Eta bere muga guzien jabe eginik, Arnondikan Jabokraño, eta eremutikan Jordaneraño.

23. Israelko Jaun Jainkoak bada desegin zituen Amorrheoak, ari zala gudan beren kontra Israelko bere erria, eta zuk orain nai dezu bere erria-
ren jabe izan?

24. Ez al da egia, legez zor zaitzula zure Jainko txamosek duen guz-
tia? izango gera bada, gure Jaun Jainkoak garaitzaz irabazi zuenaren jabe,

25. Ez baldin bazera Balak Seforren seme Moabko erregea baño obagoa, edo ongitu al baldin badezu, bera elean ari izan zala Israelen kon-
tra, eta gerra egin ziola,

26. Bizitu izan zan bitartean Hesebonen, eta bere erritxarretan, eta Aroerren, eta bere tokitxoetan, edo Jordanen aldeko erri guzietan, irureun urtean. Zergatik ainbeste denboran ez dezute ezer egin, biurrera onen gañean?

27. Ala bada ez det nik zure kontra bekatu egiten, baizik zu zera neri gaizki egiten didazuna, ematen dizkidazula bidezko ez diraden gerrak. Auzirik gabe paketzalea dan Jaunak erabaki beza gaur Israelen artean, eta Ammonen semeen artean.

28. Baña Ammonen semeen erregeak etzituen aditu nai izan, Jeftek mandatarien bitartez esateko bidaldu ziozkan arrazoiak.

29. Sartu zan bada Jeftegan Jaunaren espiritua, eta inguruturik Galaad, eta Manasses, eta Galaadko Masfa, eta iragorik andikan Ammonen semeak gana,

30. Egin zion eskeñtza bat Jaunari, esaten zuela: Jartzen baldin badi-
tuzu nere eskuetan Ammonen semeak,

31. Nere etxeko ateetatikan lenengo ateratzen dana, eta neri bidera irtetzera datorren edozeñ, pakean itzultzen naizanean, Ammonen semeak gandikan, eskeñiko diot Jaunari doañean.

32. Eta irago zan Jefe Ammonen semeakgana, gudatzeko beren kontra, zeñak jarri zituen Jaunak bere eskuetan.

33. Eta egin zuen galmen txit andia ogei erritan, Aroertikan allegatu artean Mennithera, eta Abelraño, zeñean dauden ipiñita mastiak, eta Israelko semeak humillatu zituzten Ammonen semeak.

34. Itzultzen zala bada Jefe Masfan bere etxera, atera zitzaion bide-
ra bere alaba bakarra, zeren etzuen beste semerik, zaldabaitxo ta dantzak-
kin,

35. Eta ikusi zuenean urratu zituen bere soñekoak, eta esan zuen: Ai nere zorigaiztokoa, ene alaba, zuk engañatu nazu, eta zu ere engañatu zera, zeren egin diot eskeñtza bat Jaunari, eta ezin egingo det besterik.

36. Berak erantzun zion: Ene aita, eman baldin badiozu zure itza Jaunari, egin ezazu nerekin eskeñi diozun guzia, eman dizun ezkeru zure etsaiakin bengatzea eta berak garaitzea.

37. Eta esan zion aitari: Bakarrik eskatzen dizut eman zadazula, erreguz eskatzen dizudan au, utzi zadazu ibiltzen jiran mendietatikan bi illa-
betean, eta negar egiten nere donzellatasunagatik nere neskatx lagunakin.

38. Berak erantzun zion: Zoaz. Eta utzi zion joaten bi illabeterako. Eta joanik bere adiskide ta lagun neskatxakin negar egiten zuen bere donzellatasunagatik mendietan.



39. Eta beterik bi illabeteak, itzuli zan bere aitagana, zeñak bete zuen eskeñi zuena, gizasemerik ezagutu etzuenarekin. Ordutikan jarri zan Israelen oitura, eta iraundu usantzak,

40. Biltzeko Israelko alabak urtean bein, eta negar egiteko Galaadko Jefteren alabagatik lau egunean.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta ona emen non Efraimen jaiki zan matxinada bat, zeren iragozten ziradela oiek ifarrerontz, esan zioten Jepteri: Zergatik zijoazenean gudarera Ammonen semeen kontra, ez ginduzun ots egin nai, joan gindezen zurekin? Argatik su emango diogu zure etxeari.

2. Zeñai berak erantzun zien: Ele andi bat genduen nik eta nere erriak Ammonen semeen kontra, eta ots egin nizuten laguntasuna eman ziñazadaten, eta etzenduten egin nai izan.

3. Au ikusita, jarri nintzan irrisku andian, eta atera nintzan Ammonen semeen kontra, eta Jaunak jarri zituen nere eskuetan. Nondik izan naiz ni, zuek nere kontra neri gerra egitera jaikitzeke diña?

4. Ots eginik bada beragana Galaadko gizaseme guziak, ari zan gudan Efraimen kontra. Eta Galaadtarrak desegin zituzten Efraimgoak, zeren esan zuen: Galaad da igeslari bat Efraimgandik, eta bizi da Efraimen eta Manassesen erdian.

5. Eta artu zituzten Galaadtarrak Jordango uberak, zeñatetik itzuliko ziraden Efraimgoak. Eta allegatzen zanean beretara Efraimgoren bat, igesi zijoala, eta esaten ziotenean: Erregututzen dizutet arren utzi zadazutela iragotzen. Esaten zien Galaadtarrak: Efrateoa bai al zera? Eta erantzunik berak: Ez naiz.

6. Esaten zioten: Esan esazu bada Szibboleth, zeñak adirazten duen Galburua. Zeñak erantzuten zuen: Sibboleth, ezin zuela adirazi galburuaren izena tokatzen zitzaion letrak. Eta bereala elduta, lepoa epakitzen zitzaioten Jordango iragoeran bertan. Eta illak izan ziraden denbora artan berrogeita bi milla gizon Efraimgo.

7. Ala bada Jepte Galaadtarrak juzgatu zuen Israel sei urtean, eta il zan, eta izan zan obiatua Galaad bere errian.

8. Onen ondoan juzgatu zuen Israel Abesan Belentarrak,

9. Zeñak izan zituen ogeita amar seme, eta beste anbete alaba, zeñak bidaldurik kanpora ezkondu zituen, eta ekarri zituen kanpotik beste anbete emakume, eta ezkondu zituen bere semeekin. Onek juzgatu zuen Israel zazpi urtean.

10. Eta il zan, eta izan zan obiatua Belenen.

11. Onen lekuan jarri zan Aialon Zabulontarra, eta juzgatu zuen Israel amar urtean.

12. Eta il zan, eta izan zan obiatua Zabulonon.

13. Onen ondoan juzgatu zuen Israel Abdon, illel Faratontarraren semeak,

14. Zeñak izan zituen berrogei seme, eta beretatik ogeita amar illoba, zebiltzanak irurogeita amar astakumeen gañean, eta juzgatu zuen Israel zortzi urtean.

15. Eta il zan, eta izan zan obiatua Efraimgo lurreko Faratonen, Amalekgo mendian.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta berriz ere Israelko semeak gaizki egin zuten Jaunaren aurrean, zeñak jarri zituen Filisteoen eskuetan berrogei urtean.

2. Eta bazan Saraako gizon bat, eta Danen jatorrikoa, manue zeritzana, zuena emazte aurgea.

3. Zeñi agertu zitzaion Jaunaren aingerua eta esan zion: Aurgea zera eta ez dezu aurrikan, baña aurdun jarriko zera eta egingo dezu aur bat.

4. Begira bada ez dezazula edan ardorik, ez sagardorik, eta ez dezazula ere jan gauza zikiñik,

5. Zeren aurdun jarriko zera eta egingo dezu seme bat, zeñaen buruari ez dion ukiturik egingo ganibitak zeren izango da Jaungoikoaren nazarena bere aurderatik, eta amaren sabeletik, eta bera asiko da libratzen Israel Filisteoen eskutik.

6. Zeñ joanik bere senarra billatzera, esan zion: Jaungoikoaren gizon bat etorri da nigana, zuena aingeruaren arpegia, txit izigarria. Zeñi galde-turik nik, zeñ zan, eta nondik etorri dan, eta ze izen zuen, ez dit nai izan esan;

7. Baizik au esan dit: Ona non jarriko zeran aurdun eta egingo dezu seme bat, begira ez dezazula edan ardorik, ez sagardorik, eta ez dezazula ere jan gauza loirik, zeren aura izango da Jaungoikoaren nazarena bere aurderatik, eta bere amaren sabeletik, bere eriotzako eguneraño.

8. Erregutu zion bada Manuek Jaunari, eta esan zion: Erregututzen dizut, Jauna, berriz etorri dedilla, Jaungoikoaren gizon, bidaldu dezuna, eta irakasi dizagula, zer egin bear degun jaioko dan aurrarekin.

9. Eta aditu zuen Jaunak Manueren eskaria, eta Jaungoikoaren aingerua berriz agertu zitzaion bere emazteari, zegoala eserita kanpoan. Manue bere senarra ez zegoan berarekin. Eta ikusi zuenean berak aingerua,



10. Joan zan arin eta korrika bere senarragana, eta adirazi zion esaten ziola: Ona non agertu zaitan neri, len ikusi nuen gizona.

11. Jaiki zan Manue eta jarraitu zion bere emazteari, eta allegaturik gizona zegoan tokira, esan zion: Zu bai al zera itz egin diozuna nere emazteari? Eta berak erantzun zuen: Ni naiz.

12. Zeñi Manuek: Egiztatzan danean, esan zion, zure itza, zer nai dezu aurak egin dezala? Edo zertatik gorde bearko da?

13. Eta Jaunaren aingeruak esan zion Manueri: Gorde dedilla, zure emazteari esan diozkadan gauza guztietatik.

14. Eta ez dezala jan, mastitik jaiotzen dan gauzarik batere, ez dezala edan ardorik, ez sagardorik, ez dezala jan gauza zikiñik, eta bete ta gorde dezala agindu diodana.

15. Erregututzen dizut oben egin dezazula nere eskarietara, eta prestatu dizaguzula antxume bat.

16. Zeñi erantzun zion aingeruak: Baldin gogorrean artzen banazu, ez det jango zure ogirik, baña doaña egin nai baldin badezu, eskeñi zaiozu Jaunari. Eta etziekien Manuek, Jaunaren aingerua zala.

17. Eta esan zion: Nola dezu izena, egiztatzan baldin bada zure itza, honratu zaitzagun?

18. Zeñi berak erantzun zion: Zergatik billatzen dezu nere izena, zeñ dan miragarria?

19. Artu zuen bada Manuek antxume bat, eta libazioak, eta jarri zuen arri baten gañean, eskeñtzen ziola Jaun, mirariak egiten dituzenari, eta bera ta bere emaztea zengozkion begira.

20. Eta aldareko garra igo zanean zerura, Jaunaren aingeru batean igo zan garrean. Au ikusi zutenean Manuek eta bere emazteak, auzpertz ziran lurrean beren arpegiñ gañean.

21. Eta berriz etzitzaioten agertu Jaunaren aingerua, Eta bereala eza-gutu zuen Manuek Jaunaren aingerua zala,

22. Eta esan zion bere emazteari: Laster ilko gera, zeren ikusi degu Jaungoikoa.

23. Zeñi erantzun zion emazteak: Baldin Jaunak il nai izan bagindu, etzituen artuko gure eskuetatik eskeñtzak eta libazioak, etzizkigun ere erakutsiko gauza guzi oiek, eta etzizkigun ere esango gertatuko diraden gauzak.

24. Egin zuen bada seme bat, eta jarri zion izena Samson, eta aurra azi zan, eta Jaunak bedeikatu zuen.

25. Eta Jaunaren espiritua asi zan agertzen beragan Dango etzauntzetan, Saraa eta Estaholen artean.

AMAL AUGARREN KAPITULUA

1. Jetxi zan bada Samson Thamnathara, eta ikusirik an Filisteoen alaba emakume bat,

2. Itzuli zan, eta itz egin zien bere aitari eta amari, esaten zuela: ikusi det Thamnthan Filisteoen alabetatiko emakume bat; eta erregututzen dizutet artu zadazutela emaztetzat.

3. Zeñi esan zioten bere aitak eta amak: Ez al da emakumerik zure anaian alaben artean, eta gure erri guzian, nai izateko zuk artu emaztetzat filisteoen erri, jende zirkunzidatu gabekoa? Eta esan zion Samson bere aitari: Artu zadazu au, zeren gogoia bete dit.

4. Bere gurasoak berriz etziekien Jaunagandik zetorren gauza bat zala au, eta era bat billatzen zuela Filisteoen kontra. Zeren denbora artan Filisteoak agintatzen zioten Israeli.

5. Jetxi zan bada Samson bere aita eta amarekin Thamnatara. Eta allegatu ziradenean erriko mastietara, agertu zan leioikume odolgiro bat orroaka, eta atera zan beragana.

6. Baña Jaunaren espiritua sartu zan Samsonengan, eta zatitu zuen leoia, puskatzen zuela antxume bat balitza bezela, eskuan ezerere etzuela, eta etzien adirazi nai izan au aitari eta amari.

7. Eta jetxi zan, eta itz egin zion, gogoia bete zion emakumeari.

8. Eta egun batzuk igarota itzulirik arekin ezkontzeko, alde egin zuen bidetik ikusteko leoi illaren gorputza, eta ona non zegoan leoiaren aoan erle samalda bat eta ezti abaraska bat.

9. Zeñi arturik eskuetan, jaten zuen bidean, eta allegaturik aita eta ama zeuden tokira, eman zien zati bat, zeñ berak ere jan zuten, baña etzioten adirazi nai, leoiaren gorputzetik artu zuela.

10. Jetxi zan bada bere aita emakumeagana, eta egin zion bere seme Samsoni konbit bat. Zeren ala egin oi zuten gazteak.

11. Ikusi zutenean bada erri artakoak, eman ziozkaten ogeita amar lagun berarekin egoteko.

12. Zeñai esan zien Samsonen: ipiñiko dizutet asmaizu bat, azertatzen badidazute konbiteko zazpi egunen barrenen, emango dizkizutet ogeita amar mandire eta anbat tunika;

13. Baldin berriz ezin azertatuko bazindukete, zuek emango dizkidazute neri ogeita amar maindire eta anbat tunika. Zeñak erantzun zioten: ipiñi ezazu asmaizua, aditu dezagun.



14. Eta esan zioten: «Jaleagandikan atera zan janaria, eta sendoagandikan atera zan gozotasuna». Iru egunean ezin izan zuten azertatu ipiñi zioten asmaizua.

15. Eta nola alderatzen zan zazpigarren eguna, esan zioten Samsonen emazteari: Egin zaiozkazu pozkariak zure senarrari, eta ekarri ezazu adiraztera zuri, zer esan nai duen asmaizua. Eta au egin nai ez badezu, su emango dizugu zuri eta zure aitaren etxeari. Eztaietara ots egin al diguzute, deguna kentzeko?

16. Emakumeak ezartzen zituen malkoak Samsonen aurrean, eta kexatzen zan esaten zuela: Gorrotatzen nazu, eta ez nazu maitatzen, argatik ez didazu adirazi nai, nere erriko semeai ipiñi diezun asmaizua. Baña berak erantzun zion: Nere aitari eta nere amari ez nien esan nai, eta zuri agertu alko dizut?

17. Emakumeak bada negar egiten zuen Samsonen aurrean konbiteko zapi egunean, eta atzenean zazpigarren egunean ain gogaikarria zegoan non agertu zion. Zeñak bereala agertu zien bere errikoai.

18. Eta berak esan zioten zazpigarren egunean, eguzkiaren sarrera baño lenago: Zer gauza gozoagorik ezta baño, eta zer gauza sendoagorik leoia baño? Eta Samsonnek esan zion: Goldeatu ez baldin bazendute nere txal urrisarekin, etzenduten azertatuko nere asmaizua.

19. Sartu zan bada beragan Jaunaren espiritua, eta jetxi zan Askaloneran, eta an il zituen ogeita amar gizon, zeñai kendurik soñekoak eman ziozkaten asmaizua azertatu zutenai. Eta txit aserretuta itzuli zan bere aitaren etxera.

20. Bere emazteak berriz artu zuen senartzat Samsonen adiskide eta eztailagunetatiko bat.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Eta denboratxo bat iragota, garia epakitzeko era aldean zala, etorri zan Samson, ikusi nairik bere emaztea, eta eraman zion antxume bat. Eta nola nai zuen sartu emaztearen gelan oi bezela, galerazi zion emaztearen aitak, esaten zuela:

2. Uste nuen gorrotatzen zendueta, eta argatik eman diot zure adiskide bati, baño badu aizpa bat bera baño gazteagoa eta ederragoa, iduki ezazu emaztetzat huraren lekuan.

3. Zeñi Samsonnek erantzun zion: Egun onetatik ez da nigan obenik izango Filistioen kontra, gaitzik egiten baldin badizutet.

4. Eta joan zan andikan eta atxitu zituen irureun azeri, eta itsatsi zituen bata bestearekin bustanetatik, eta lotu ziozkaten zuziak erdian,

5. Zeñai sua emanik, soltatu zituen, aldamen guzietatik ibilli zitezten. Zeñak bereala joan ziraden Filistioen garitzetara. Zeñak irazekirik, bai gari metatuak, eta bai oraindik zutik zeudenak, erre ziraden, alako moduan non garrak desegin zituen mastiak eta olibodiak ere.

6. Eta esan zuten Filisteoak: Zeñak egin du gauza au? Zeñai esana izan zitzaioten: Samson Thamnatarren suiak egin ditu oiek, kendu diolako bere emaztea, eta beste bati eman diolako. Eta igo ziran Filisteoak; eta erre zuten bai andrea eta bai bere aita.

7. Zeñai esan zioten Samsonnek: Oiek egin badituzute ere, alaire oraindikan jarraituko diot zuekin bengatzeari, eta orduan atsedengo naiz.

8. Egin zuen bada galmen txit andi bat beretan, alako moduan non arrituta esertzen ziraden zanko bata bestearen gañean zutela. Eta jetxiarik bizitu izan zan Etamgo arkaitzeko lizean.

9. Baña Filisteoak sarturik Judako lurrean, jarri zituzten etzauntzak toki baten, zeñi gero deitu zitzaion Letxi, au da, matrallaezurra, non izan zan desegiña beren ejerzitua.

10. Eta esan zieten Judaren tribukoak: Zergatik igo zerate gure kontra? Zeñak erantzun zuten: Etorri gera Samson lotutzerara, eta ordaintzera bera, egin dizkigun gaitzak.

11. Jetxi ziran bada Judako iru milla gizon, Etamgo arkaitzeko leizeira, eta esan zioten Samsoni: Ez al dakizu Filistintarrak agintzen digutela? Zergatik egin ditzazkiozu oiek? Zeñai berak esan zioten: Neri egin zidaten bezala, ala egin nien berai.

12. Zu lotutzerara etorri gera, erantzun zioten, eta jartzera Filistintarren eskuetan. Zeñai Samsonnek; Juramentu egin zadazute, esan zioten, eta eskeñi zadazute ez nazutela ilko,

13. Esan zuten: Etzaitugu ilko, baizik lotuta entregatuko zaitugu. Eta lotu zuten soka berri birekin, eta eraman zuten Etamgo arkaitzetik.

14. Zeñ allegaturik Matrallaezurraren tokira, eta Filistintarrak deadarrez berari bidera aterarik, sartu zan beragan Jaunaren espiritua, eta nola liñoa desegin oi dan suaren usaiera, ala urratu eta desegin zituen lokarriak, zeñakin estuta zegoan.

15. Eta arturik lurrean zegoala arkitu zuen asto baten matrallaezur; edo agintopoa, il zituen berarekin milla gizon,

16. Eta esan zuen: Asto baten matrallaezurrarekin, astokume baten agintoparekin desegin nituen, eta il nituen milla gizon,

17. Eta itz oiek kantatzea bukatu zuenean, aurtiki zuen eskutik agintopoa, eta toki hurari deitu zion Ramathletxi, zeñak esan nai duen, matrallaezurraren altxaera.



18. Eta egarri andi batekin, deadar egin zion Jaunari, eta esan zion: Zuk eman dezu osasun eta garaipen berarizko au zure serbitzari onen eskuz, ona non egarriz iltzen naizan, eta eroriko naiz zirkunzidatu gabeen eskuetan.

19. Jaunak orduan idiki zuen agin bat astoaren matralla ezurrean, eta atera ziraden urak beratatikan. Zeñak edanik, sendotu zan, eta artu zituen indarrak. Argatik izan zan deitua toki huraren izena gaurko eguneraño, otsegiten duenaren Iturri matrallaezurrekoa.

20. Eta juzgatu zuen Israel Filistintarren egunetan ogei urtean.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Joan ere zan Samson Gazara, eta ikusi zuen an emakume bordion bat, eta sartu zan beragana.

2. Aditu zutenean au Filistintarrak, eta zabaldu zanean beren artean, Samson sartu zala errira, ingurutu zuten, jarririk gordetzalleak erriko atean, eta gau guzian ixillik zai egon ziraden an, goiza allegaturik ateratzen zanean iltzeko.

3. Lo egin zuen Samsonek gaberdiraño, eta orduan jaikirik joan zan, eta atera zituen erriko atearen albo biak beren murre eta morrolloakin, eta jarririk bere solbarden gañean, eraman zituen, Hebronerontz begira dagoan mendiaren erpiñera.

4. Oien ondoren adiskidetu zan, Soreko ibarrean bizi zan emakume batekin; eta zeritzan Dalila.

5. Eta etorri ziraden beragana Filistintarren prinzipeak, eta esan zioten: Engañatu ezazu, eta jakin ezazu beragandik, non duen alako indar andia, eta nola menderatuko degun, lotuta kastigatzeko. Au egiten baldin badezu, emango dizugu bakoitzak milla eta eun diru zillarrezko.

6. Dalilak bada esan zion Samsoni: Erregutuzten dizut esan zadazu-la zertan dagoan zure indar aiñ andia, eta zer gauza dagoan zeñarekin lotuta eziñ igesik egingo dezun?

7. Zeñi erantzun zion Samsonek: Lotutzen baldin banaute zazpi ede larru leortu gabe eta oraindikan ezeakin, geldituko naiz beste gizonak bezin indargabea.

8. Eta ekarri ziozkaten berari Filistintarren prinzipeak zazpi sokak, esan zuen bezela, zeñakin lotu zuen,

9. Gelditzen ziradela berak ezkutatuak zelatan etxean gela batean, gertakari onen bukaeraren zai, eta Dalilak deadar egin zion: Samson, Filisteoak zure gañean . Zeñak urratu zituen lokarriak, edozeñek urratuko

lukean bezela mullo illaunezko ari biurtu bat, sentitzen duenean suaren usaia, eta etzan izan ezagutua zertan zegoan bere indarra.

10. Eta Dalilak esan zion: Ona non engañatu nazun, eta gezurra esan didazun, orain bederik esan zadazu, zerekin lotua izan bear dezun.

11. Zeñi berak erantzun zion: Lotua baldin banintza soka berri, lanean iñoiz ari ez diradenakin, geldituko naiz indargabea, eta beste gizonen antzekoa.

12. Zeñakin berriz Dalilak lotu, eta deadar egin zuen: Samson, Filistintarrak zure gañean, zelatariak gertuak zeudela gelan. Zeñak ala autsi zituen lokarriak, nola euten ariak.

13. Eta esan zion Dalilak berriz: Noizarteraño engañatuko nazu, eta esango didazu gezurra? Erakasi zadazu zerekin izan bear dezun lotua. Zeñi erantzun zion Samsonek: Baldin eotzen badituzu nere illeen zazpi txirikordak euteko orraziakin, eta loturik inguruan iltze bati, sartzen badezu au lurrean, geldituko naiz indarrik gabe.

14. Egiñik au Dalilak esan zion: Samson, Filistintarrak zure gañean. Baña berak esnaturik lotatik, atera zuen iltzea ille eta eutarekin.

15. Eta esan zion Dalilak: Nola diozu maite nazula, zure biotza ez baldin bada nerekin? iru alditan gezurra esan didazu, eta ez didazu esan nai izan, zertan dagoan zure sendotasun txit andia.

16. Eta nola zan gogaikarria Samsontzat, eta zegoan beti bere aldean, atsedetzeko ere denborarik eman gabe, bere anima erori zan, eta atsekabetu eriotzaraño.

17. Orduan agerturik egia, esan zion: Ez da igo burnirikan nere buruaren gañera, zeren naiz Nazareoa, au da, Jaunari eskeña nere amaren sabeletik; moistua baldin balitza nere burua, alde egingo du nigandikan nere sendotasunak, eta indargatuko naiz, eta izango naiz beste gizonak bezelakoa.

18. Eta ikusirik Dalilak agertu ziola bere biotz guzia, bidaldurik mandatariak Filistintar prinzipeakgana, esan erazi zioten: Atozte oraingo aldian ere, zeren agertu dit bere biotza. Zeñak etorri ziraden, zeramatela berakin eskeñi zuten dirua.

19. Eta Dalilak lo eragin zion bere belaunen gañean, etzin eragiñik bere altzoan. Eta ots egin zion bizarkiñari, zeñak ebaki ziozkan bere zazpi ille txirikordak, eta asi zitzaion bultzaka, eta beragandik botatzen, zeren bereala alde egin zuen Samsongandikan indarrak.

20. Eta esan zion: Samson, Filistintarrak zure gañean. Zeñ esnaturik bere lotatik esan zuen: Aterako naiz len egin nuen bezela, eta astinduko ditut, ez jakiñik Jaunak beragandik alde egin zuela.



21. Arrapatu zutenean Filistintarrak, bereala atera ziozkaten bere begiak, eta eraman zuten Gazara kateaz lotuta, eta itxirik presoindegian, lo eragin zioten.

22. Eta onezkeru bere illeak asi zitzaizkian berriz jaiotzen,

23. Eta Filistintarren prinzipiak bildu ziraden batean, egiteko beren jainko Dagoni eskeñtza txit andiak, eta egiteko janedanak, esaten zutela: Gure jainkoak jarri du gure eskuetan Samson gure etsaia.

24. Zeñ erriak ere ikusirik, alabatzen zuen bere jainkoa, eta esaten zituen itzak berak: Gure jainkoak jarri du gure eskuetan gure etsai, desegin zuena gure lurra, eta txitez asko il zituena.

25. Eta gozaturik beren jateketan, jan zutenean agindu zuten ots egiteko Samsoni, eta jostatu zedilla beren aurrean. Zeñ izanik ateratua presoindegitik jostaketan ari zan beren aurrean, eta zutik egon eragin zioten arroiñ biren erdian.

26. Berak esan zion zuzentzen zuen itsumutillari: Utzi zadazu ukitu dizaiedan, etxe guzia gañean daukaten arroiñai, etzin nadin beren gañean, eta atsedean nadin piskatxo bat.

27. Etxea berriz zegoan gizasemez eta emakumez betea, eta zeuden an Filistintarren prinzipiak guziak, eta iru milla gizaseme eta emakume inguru, Samsoni egiten ziezten isekai begira tellatutik, eta urubetik.

28. Berak berriz deiturik Jaungoikoari, esan zuen: Jaun jainkoa, gomutatu zaitte nerekin, eta itzuli zadazu orain nere anziñako indarra nere Jaungoikoa, bengatu nadin nere etsaiakin, eta pagatu eragin dizaiedan batetan begi biak ateratzean egin didaten txarkeria.

29. Eta eldurik etxea gañean zeukaten arroiñ biai, eta atxiturik bata eskuiarekin eta bestea ezkerarekin,

30. Esan zuen: il bedi Samson Filistintarrakin. Eta jotzen zituela portizkiro arroiñak, erori zan etxea, an zeuden prinzipiak guztien, eta beste taldearen gañera, eta asko geiago il zituen iltzen zala, len bizirik zegoanean il zituen baño.

31. Eta jatsirik bere anaiak eta aide guziak, eraman zuten bere gorputza, eta lurpetu zuten Saraa eta Esthaolen bitartean bere Aita Manue-ren obian, eta juzgatu zuen Israel ogei urtean.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Bazan denbora artan gizaseme bat Efraimgo mendikoa Mikas zeritzana.

2. Zeñak esan zion bere amari: Zuretzat berezitu zinduen milla eta eun zillarrezko diruak, eta zeñen gañean juramentu egin zenduen neronek

allegaturik Efraimgo mendira, sartu ziraden Mikasen etxean, eta gelditu ziraden an.

3. Eta ezagaturik izketatik Lebita gaztea, ostatus zeuden etxean, esan zioten: Nork onara ekarri zaitu? Zer egiten dezu emen? Zergatik onara etorri nai izan dezu?

4. Zeñak erantzun zioten: Oiek eta oiek egin ditu nerekin Mikasek, eta onenbeste ematen dit, izan nadin bere apaiza.

5. Eta berak erregutu zioten itundu zedilla Jaunarekin, jakin al zeza ten, ongi ibilliko ote ziraden bidean, eta iritxiko ote zuten nai zutena.

6. Berak erantzun zioten: Ongi zoazte, zeren Jaunak zaitzen du daramazuten bidea, eta bere gogokoa da zuen asmoa.

7. Bazijoztela bada bost gizonak etorri ziraden Laisera, eta ikusi zuten erria bizi zala an beldurraren piskarik ere gabe, Sidontarren oituren gisara, pake eta atsedenean, iñork ere esesten etziotela, aberastasun andia-kin, Sidondikan urrutian, eta gizon guzietatikan berezitua.

8. Eta itzuli ziraden beren anaietara Saraa eta Estaolera, eta zer egin zuten galdetuak izanik, erantzun zuten:

9. Jaiki zaitetze, igo gaitezen berakgana, zeren ikusi degu lur txit abe-rats eta ugari bat, etzaitetze izan nagiak, ezta ere denborarik galdu. Goazen, jabetu gaitezen berarekin, ez degu nekerik batere izango.

10. Sartuko gera ajolarikan gabe bizitu dan erri batean, lur txit zabal batean, eta Jaunak emango digu toki bat, zeñean ez dan lurtean azitzen diraden gauza guzieren premiarian batere.

11. Atera ziraden bada Danen jatorritikan, au da, Saraa eta Esthaol-tikan, seireun gizon gudarako armak gerrian zituztela.

12. Eta igo ziradenean gelditu ziraden Judako Kariathiarimen. Toki au denbora artatik izan zan deitua Danen etzauntzen izenarekin, eta dago Kariathiarimen ostean.

13. Andikan irago ziraden Efraimgo mendira. Eta allegatu ziradenean Mikasen etxera,

14. Laisko lurra ezagutzera len bidalduak izan ziraden bost gizonak, esan zien beren beste anaiak: Badakizute etxe oietan ba dala efoda, eta terafima, eta otalluz eta urtuta egindako irudi bat, ikusi ezazute zer nai dezuten.

15. Eta piskatxo bat alde egiñik, sartu ziraden, Mikasen etxean zegoan Lebita gaztearen etxean, eta agur egin zioten itz paketsuakin.

16. Eta seireun gizonak, armakin zeuden bezela, zeuden atean.

17. Gaztearen etxean sartu ziradenak berriz, saiatzen ziraden artzeko otalluzko taiua, eta efoda, eta teraphima, eta urtuz egindako irudia, eta



allegaturik Efraimgo mendira, sartu ziraden Mikasen etxean, eta gelditu ziraden an.

3. Eta ezagaturik izketatik Lebita gaztea, ostatzuz zeuden etxean, esan zioten: Nork onara ekarri zaitu? Zer egiten dezu emen? Zergatik onara etorri nai izan dezu?

4. Zeñak erantzun zioten: Oiek eta oiek egin ditu nerekin Mikasek, eta onenbeste ematen dit, izan nadin bere apaiza.

5. Eta berak erregutu zioten itundu zedilla Jaunarekin, jakin al zeza- ten, ongi ibilliko ote ziraden bidean, eta iritxiko ote zuten nai zutena.

6. Berak erantzun zioten: Ongi zoazte, zeren Jaunak zaitzen du daramazuten bidea, eta bere gogokoa da zuen asmoa.

7. Bazijoaztela bada bost gizonak etorri ziraden Laisera, eta ikusi zuten erria bizi zala an beldurraren piskarik ere gabe, Sidontarren oituren gisara, pake eta atsedenean, inork ere esesten etziotela, aberastasun andia- kin, Sidondikan urrutian, eta gizon guzietatikan berezitua.

8. Eta itzuli ziraden beren anaietara Saraa eta Estaolera, eta zer egin zuten galdetuak izanik, erantzun zuten:

9. Jaiki zaitezte, igo gaitezen berakgana, zeren ikusi degu lur txit abe- rats eta ugari bat, etzaitzete izan nagiak, ezta ere denborarik galdu. Goaz- en, jabetu gaitezen berarekin, ez degu nekerik batere izango.

10. Sartuko gera ajolarikan gabe bizitu dan erri batean, lur txit zabal batean, eta Jaunak emango digu toki bat, zeñean ez dan lurrean azitzen diraden gauza guzien premiarikan batere.

11. Atera ziraden bada Danen jatorritikan, au da, Saraa eta Esthaol- tikan, seireun gizon gudarako armak gerrian zituztela.

12. Eta igo ziradenean gelditu ziraden Judako Kariathiarimen. Toki au denbora artatik izan zan deitua Danen etzauntzen izenarekin, eta dago Kariathiarimen ostean.

13. Andikan irago ziraden Efraimgo mendira. Eta allegatu zirade- nean Mikasen etxera,

14. Laisko lurra ezagutzer a len bidalduak izan ziraden bost gizonak, esan zien beren beste anaiai: Badakizute etxe oietan ba dala efoda, eta terafima, eta otalluz eta urtuta egindako irudi bat, ikusi ezazute zer nai dezuten.

15. Eta piskatxo bat alde egiñik, sartu ziraden, Mikasen etxean zego- an Lebita gaztearen etxean, eta agur egin zioten itz paketsuakin.

16. Eta seireun gizonak, armakin zeuden bezela, zeuden atean.

17. Gaztearen etxean sartu ziradenak berriz, saiatzun ziraden artzeko otalluzko taiua, eta efoda, eta teraphima, eta urtuz egindako irudia, eta

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Bazan Lebita bat, bizi zana Efraimgo mendiaren egjan, zeñean ezkondu zan Judako Belengo emakume batekin.

2. Emakume onek utzi zuen, eta itzuli zan Belenera bere aitaren etxe- ra, eta egon zan berarekin lau illabeteen.

3. Eta jarraitu zion bere senarrak, berarekin pakeak egin eta ongi bizitzeko, eta eramateko berarekin, zeduzkala berarekin morroi bat eta bi asto. Emazteak artu zuen, eta sartu bere aitaren etxean. Au aditu zuenean aitagiarrabak, eta ikusi zuenean, pozez atera zitzaion bidera,

4. Eta laztandu zuen. Eta egon zan sua aitagiarrabaren etxean iru egunean, berarekin jaten eta edaten zuela adiskidetasunean.

5. Eta laugarren egunean gauaz jaikirik, joan nai zuen. Zeñi eldu zion aitagiarrabak eta esan zion: Jan ezazu lenago ogiaren piskatxo bat, eta sen- datu sabela, eta ala joango zera.

6. Eta eseri ziraden batean eta jan eta edan zuten. Eta esan zion nes- katxaren aitak bere suiari: Erregututzen dizut arren gaur emen gelditu zai- tezela, eta batean gozatu gaitetzela.

7. Baña bera jaikirik, asi zan joaten. Baña alaere aitagiarrabak eskariz eldu zion, eta gelditu erazi zion berarekin.

8. Baña eguna zabaldu zanean, prestatzen zan Lebita joateko. Zeñi aitagiarrabak berriz esan zion: Erregututzen dizut janariaren piskatxo bat artu dezazula, sendatu zaitezen, eguna aurreratzen dan bitartean, gero joango zera. Jan zuten bada batean.

9. Eta jaiki zan gaztea joateko bere emazte eta morroiarekin. Zeñi berriz itz egin zion aitagiarrabak: Begira ezazu onezkero eguna aurreratua dala, eta arratsea aldean, gelditu zaite gaur ere nerekin, eta egun gozatsu bat irago ezazu, eta biar joango zera itzultzeko zure etxera.

10. Etzuen nai suiak oben egin bere itzetara, baizik bereala joan zan, eta etorri zan Jebusen aurrera, zeñi beste izen batez deitzen zaion Jerusa- len, eramaten zituela berarekin bi astoak zamakin eta bere emaztea.

11. Eta zeuden onezkero Jebusen aldean, eta egunak utzitzen zion tokia gauari, eta esan zion morroiak bere nagusiari: Erregututzen didizut zeartu dezagula bidea Jebuseoen errira, eta gelditu gaitetzela an.

12. Zeñi erantzun zion nagusiak: Ez naiz sartuko jende arrotzaren erri, Israelko semeena ez danenean, baizik iragoko naiz Gabaaraño:

13. Eta ara eltzen naizenean, geldituko gera an, edo gutxienez Rama- ko errian.

14. Irago zuten bada Jebus, eta jarraitzen zioten asi zuten bideari, eta eguzkia sartu zitzaioten Gabaren aldean, zeñ dagoan Benjaminen tribuan.



EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Bazan Lebita bat, bizi zana Efraimgo mendiaren egian, zeñean ezkondu zan Judako Belengo emakume batekin.
2. Emakume onek utzi zuen, eta itzuli zan Belenera bere aitaren etxera, eta egon zan berarekin lau illabetean.
3. Eta jarraitu zion bere senarrak, berarekin pakeak egin eta ongi bizitzeko, eta eramateko berarekin, zeduzkala berarekin morroi bat eta bi asto. Emazteak artu zuen, eta sartu bere aitaren etxean. Au aditu zuenean aitagiarrabak, eta ikusi zuenean, pozez atera zitzaion bidera,
4. Eta laztandu zuen. Eta egon zan suia aitagiarrabaren etxean iru egunean, berarekin jaten eta edaten zuela adiskidetasunean.
5. Eta laugarren egunean gauaz jaikirik, joan nai zuen. Zeñi eldu zion aitagiarrabak eta esan zion: Jan ezazu lenago ogiaren piskatxo bat, eta sendatu sabela, eta ala joango zera.
6. Eta eseri ziraden batean eta jan eta edan zuten. Eta esan zion neskatxaren aitak bere suiari: Erregututzen dizut arren gaur emen gelditu zaitzela, eta batean gozatu gaitezela.
7. Baña bera jaikirik, asi zan joaten. Baña alaere aitagiarrabak eskariz eldu zion, eta gelditu erazi zion berarekin.
8. Baña eguna zabaldu zanean, prestatzen zan Lebita joateko. Zeñi aitagiarrabak berriz esan zion: Erregututzen dizut janariaren piskatxo bat artu dezazula, sendatu zaitezen, eguna aurreratzen dan bitartean, gero joango zera. Jan zuten bada batean.
9. Eta jaiki zan gaztea joateko bere emazte eta morroiarekin. Zeñi berriz itz egin zion aitagiarrabak: Begira ezazu onezkero eguna aurreratua dala, eta arratsea aldean, gelditu zaite gaur ere nerekin, eta egun gozatsu bat irago ezazu, eta biar joango zera itzultzeko zure etxera.
10. Etzuen nai suiak oben egin bere itzetara, baizik bereala joan zan, eta etorri zan Jebusen aurrera, zeñi beste izen batez deitzen zaion Jerusalem, eramaten zituela berarekin bi astoak zamakin eta bere emaztea.
11. Eta zeuden onezkero Jebusen aldean, eta egunak utzitzen zion tokia gauari, eta esan zion morroiak bere nagusiari: Erregututzen didizut zeartu dezagula bidea Jebuseoen errira, eta gelditu gaitezela an.
12. Zeñi erantzun zion nagusiak: Ez naiz sartuko jende arrotzaren erri, Israelko semeena ez danenean, baizik iragoko naiz Gabaaraño:
13. Eta ara eltzen naizenean, geldituko gera an, edo gutxienez Ramako errian.
14. Irago zuten bada Jebus, eta jarraitzen zioten asi zuten bideari, eta eguzkia sartu zitzaioten Gabaren aldean, zeñ dagoan Benjaminen tribuan.

27. Zabaldurik eguna, jaiki zan gizona, eta idiki zuen atea, jarraitzeko asi zuen bideari, eta ona non bere emaztea zetzan atearen aurrean, eskuak zabalduta atalburuaren gañean.

28. Zeñi berak, usterik lotan zegoala, esaten zion: Jaiki zaite eta goazen. Baña berak ezer ez erantzunik, ezaguturik ilda zegoala, artu zuen, eta jarri zuen astoaren gañean, eta itzuli zan bere etxera.

29. Sartu zanean etxean, artu zuen ganibet bat, eta partiturik emaztearen gorputz illa amabi puska eta zatitan, bidaldu zituen Israelko alde-erri guzietara.

30. Eta au ikusi zutenean, bakoitzak deadar egiten zuen esaten zuela: iñoiz ez da ikusi onelako gauzarik Israelen, gure asabak Ejiptotikan igo ziraden egunetik, oraingo denboraraño. Esan ezazute zuen iritzia, eta batean erabaki ezazute, zer egin bear dan gauza onetan.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Atera ziraden bada Israelko seme guztiak, eta bildu ziran batean, gizaseme bakar bat balitza bezela Dandikan Bersabeeraño eta Galaadko lurra, ituntzeko Jaunarekin Masfan.
2. Eta errietako agintari guztiak, eta Israelko tribu guztiak etorri ziran Jaungoikoaren erriaren biltzarrera laureun milla oñazko armagizon.
3. (Eta etzitzaioten ezkutatu Benjaminen semea, Israelko semeak igo ziradela Masfara). Eta galdeturik Lebita, illa izan zan emakumearen senarra, nola egiña izan zan gaiztakeria ain andi bat,
4. Erantzun zuen: Allegatu nintzan Benjaminen Gabaara nere emaztearekin, eta an gelditu nintzan ostatuz.
5. Eta ona non erri artako gizon batzuek, ingurutu zuten gauaz nen-goan etxea, il nai nindutela, eta isekaturik nere emaztea nabarmenkeriazko sumiñtasun sinisgaitz batekin, atzenean il zan.
6. Zeñ arturik, zatitu nuen, eta bidaldu nituen zatiak zuek bizi zera-ten alderri guzietara, zeren ez da iñoiz egin Israelen gaiztakeria ain andi eta itxusirikan.
7. Emen zaudete Israelko seme guziak, erabaki ezazute zer egin bear dezuten.
8. Eta zegoala zutik erri guzia, gizaseme bakar baten itzarekin bezela erantzun zuen: Ez gera joango gure dendetara, eta ez da ere sartuko iñor bere etxean
9. Aliketa batean egin dezagun bitartean au Gabaren kontra.
10. Autatu bediz Israelko tribu guzietatik eun gizonetatik amar, eta millatik eun, eta amar millatik milla, eraman dizaioten janaria ejerzituari,



eta gudatu dezagun Benjaminen Gabaaren kontra, eta eman dizaiogun gaiztakeriagatik diña dan ordaña.

11. Eta bildu zan Israel guztia erri onen kontra, gizon bakar bat bali-tza bezela, asmo bat batekin, eta erabaki bat batekin.

12. Eta bidaldu zituzten mandatariak Benjaminen tribu guztira, esa-teko berari: Nola egiña izan da zuen artean gaiztakeria ain nazkagarria?

13. Eman zazkiguzute Gabaako gizon, gaiztakeria au egin zutenak, illak izan ditezten, eta kendua izan dedin gaitza Israeldikan. Benjamintar-arak etzuten aditu nai Israelko seme beren anaien mandatua,

14. Baizik bildu ziran Gabaan beren tribuari tokatzen zaiozkan guziak, berai laguntzeko, eta gudatzeko Israelko erri guziaren kontra.

15. Eta zenbatuak izan ziraden ogeita bost milla Benjamintar, ezpata ateratzen zutenak, Gabaan bizi ziradenak gabetanik

16. Zeñak ziraden zazpireun gizon txit sendoak, naiz ezkerrarekin naiz eskuiearekin gudatzen ziradenak, eta ain zuzen arriak jaurtitzen zituztenak, non ille bat ere joko zuten, aldamen batera ez bestera arria zeartu gabe.

17. Eta Israelko jendetik, Benjaminen semeak gabe arkitu ziraden laureun milla gizon ezpata ateratzen zutenak eta gudarako gertutuak.

18. Zeñak jaikitzen ziradela etorri ziraden Jaungoikoaren etxera, au da, Silora, eta itundu ziran Jaunarekin, eta esan zuten: Zein izango da gure ejerzituaren agintaria gudatzeko Benjaminen semeen kontra? Zeñai erant-zun zien Jaunak: Juda izango da zuen agintaria.

19. Eta bereala jaikirik goiz Israelko semeak, jarri zituzten etzauntzak Gabaaren aldean.

20. Eta andikan joaten ziradela gudatzera Benjaminen kontra, asi ziran esesten erriari.

21. Eta ateratzen ziradela Benjaminen semeak Gabaatikan, il zituzten egun artan ogeita bi milla gizon Israelko semeetatik.

22. Israelko semeak itxedoten zutela beren indar eta asko izatean, berriz prestatu zuten ejerzitia toki huratan berean, zeñean len gudatu ziran.

23. Baña lenago joan ziran Jaunaren aurrera negar egitera gabera artean; eta ituntzera berarekin, esaten zutela: Atera bear al naiz berriz gudatzera Benjaminen seme nere anaien kontra, ala ez? Zeñai berak erant-zun zioten: igo zaitzete beren kontra, eta esetsi zaiozute gudari.

24. Eta joanik biaramonean Israelko semeak Benjaminen semeen kontra gudatzera,

25. Atera ziraden Benjaminen semeak Gabaako atetatik, eta irtenik berai bidera ain galmen andia egin zuten berakgan non il zituzten eta eza-rri lurrera emezortzi milla gizon ezpata ateratzen zutenak.

26. Argatik Israelko seme guziak etorri ziraden Jaungoikoaren etxe-
ra, eta eseriak zeudela negar egiten zuten Jaunaren aurrean, eta baru egin zuten egun artan arratsalderaño eta eskeñi ziozkaten opariak eta doañ paketsuak,

27. Eta itundu ziraden beren egoeraren gañean. Denbora artan zego-an an Jaungoikoaren elkartasuneko kutxa,

28. Eta Finees Eleazarren Aaronen semearen semeak agintzen zuen etxean. Itundu ziraden bada Jaunarekin, eta esan zuten: Berriz atera bear al gera gudara Benjaminen seme gure anaien kontra, ala egongo al gera geldirik? Zeñai esan zien Jaunak: igo zaitzete, zeren biar jarriko ditut zuen eskuetan.

29. Eta Israelko semeak jarri zituzten zelatadak Gabaako erriaren inguruan.

30. Eta irugarren aldi onetan gertutu zuten ejerzitia gudatzeko Ben-jaminen kontra, lenbiziko eta bigarren aldian bezela.

31. Baita Benjaminen semeak ere ausarkiro atera ziraden erritik, eta joan ziraden urrutiraño beren etsaien, igesi zijoazenen ondoren. Alako moduan non zauritu zituzten beretatik batzuek lenbiko eta bigarren egu-nean bezela, eta il zituzten ogeitamarren bat gizon, igesi zijoazanak bide bitatik, zeñak zuzentzen ziraden bata Bethelera, eta bestea Gabaara.

32. Zeren uste zuten iltzen zituztela oi zuten bezela. Zeñak agerturik marroz igesi zijoazela, erabaki zuten alde eragitia erritikan, eta igesi joan-go balirade bezela eramatea berak goian aipatu diran bide txigorretara.

33. Israelko seme guziak bada ateratzen ziradela beren tokietatikan, prestatu ziraden gudarako Baalthamar deritzan toki batean. Uriaren ingu-ruan zelatadan zeudenak ere, asi ziraden agertzen geldika geldika,

34. Eta aurreratzen erriaren sartaldetikan. Baitaere Israelko ejerzitu-ko beste amar milla gizon aupadaka ari ziraden errian bizi ziradenai, ate-ratzeko gudara. Onenbesterekin asi ziraden gudan Benjaminen semeen kontra, eta etzuten aditu, aldamen guzietatik zutela beren gañean eriotza.

35. Eta zauritu zituen Jaunak Israelko semeen aurrean, eta il zituzten beretatik egun artan, ogeita bost milla eta eun gizon, guziak gudariak, eta ezpata ateratzen zutenak.

36. Baña Benjaminen semeak ikusirik berak garaituak izan bear zute-la, asi ziraden iges egiten. Au ikusirik Israelko semeak, leku egin zioten



iges egiteko, etorri zitezten prestatuta zeduzkaten zelatadetara, zeñak jarri zituzten erriaren aldean.

37. Zeñak supituan aterarik zelatadetatik, eta Benjaminek biurturik solbardak berak iltzen ari ziradenai, sartu ziraden errian, eta irago zuten ezpataren puntatik.

38. Eta Israelko semeak eman zioten señaletzat zelatadetan jarri zituztenai, sartzen ziradenean errian, su eman zitzaioleta, adirazteko artua zala erria, goira zijoan kearekin.

39. Ikusirik au Israelko seme oraindikan gudan ari ziradenak (zeren Benjaminek semeak uste zuten aiek igesi zijoaztela, eta alderagotikan jarraitzen ziozkaten, beren ejerzituko ogeita amar gizon il zituztelako)

40. Eta ikusirik igotzen erriatik keezko abe bat bezelakoa, eta Benjamintarrak ere berriz begiraturik atzerontz, ikusi zutenean erria arrapatua zala, eta garrak igotzen zutela goira.

41. Orduan len igesi zijoazela marroz adirazten zutenak, biurturik arpegia, sendarago jarkitzen zitzaiozkaten. Au ikusirik Benjaminek semeak, eman zioten igesari

42. Eta asi ziraden joaten eremuko bidera, ara ere jarraitzen ziezteleta etsaiak. Baitaere bidera atera zitzaiozkaten, erriari su eman ziozkatenak.

43. Eta onela gertatu zan aldamen bietatik etsaien eskuz illak izatea, eta etzuten nola iges egiñik eriotzari. Erori ziraden illik eta gelditu ziraden lurrean etzunik Gabaako erriaren sortaldean.

44. Emezortzi milla gizon izan ziraden illak toki artan, guziak gerragizon txit sendoak.

45. Au ikusi zutenean Benjamintarretatik gelditu ziradenak, iges zuten eremura, eta zijoazen Remmon zeritzan aitzera. Eta nola zijoazen barreiatuak eta iges egiten zuten egabanatuak, iges artan ere il zituzten bost milla gizon. Eta joanik aurrera jarraitu ziozkaten, eta oraindikan ere il zituzten beste bi milla.

46. Eta onela gertatu zan, toki askotan il ziraden Benjamintarrak, izatea ogeita bost milla, guztia jende txit gerraria.

47. Onela bakarrik gelditu ziraden Benjaminek jende guztik seireun gizon iges egin al izan zutenak, eta ezkutatu eremuan: eta egon ziraden Remmonko aitzean lau illabeteen.

48. Eta Israelko semeak biurturik gudadatik, irago zituzten ezpataren puntatikan errian zeuden gañerako guziak, gizonetatik abereetaraño, eta Benjamingo uri eta erriaxar guziak izan ziraden gar jaleak iretsiak.

OGEITABATGARREN KAPITULUA

1. Egin ere zuten juramentu Masfan Israelko semeak, eta esan zuten: Gutatiko batek ere ez dio emango bere alabarik emaztetzat Benjaminek semeai.

2. Eta etorri ziraden guztiak Jaungoikoaren etxera. Silora, eta zeudela bere aurrean gaberaño, jaso zuten boza, eta asi ziraden negar egiten oiuri andiakin, esaten zutela:

3. Zergatik Israelko Jaun Jainkoa egiña izan da gaitz au zure errian, kendua izateko gaur gure artetik tribu bat?

4. Eta biaramonean jaikitzen ziradela egun sentian, egin zuten aldarre bat, eta eskeñi zituzten an opariak, eta doan paketsuak, eta esan zuten:

5. Zeñ da Israelko tribu guzien artean irago etzana Jaunaren ejerzituarrekin? Zeren Masfan zeudenean lotu ziraden juramentu andi batekin il eragiteko faltatzen zutenak.

6. Eta damaturik Israelko semeak beren anaia Benjaminekin egin zutenarekin, asi ziraden esaten: Kendua izan zaio tribu bat Israeli,

7. Nondik artuko dituzte emazteak? Zeren guziok batean jaramentu egin degu, ez dieztegula guk berai emango gure alabak.

8. Argatik esan zuten: Zeñ da Israelko tribu guzietatik irago etzana Jaunagana Masfan? Eta ona non arkitu zan Jabes-Galaaden bizi ziradenak etziradela arkitu ejerzitu artan.

9. (Eta gañerakoak Silon egon ziraden denbora artan ere, beretatik bat ere etzan an arkitu).

10. Bidaltu zituzten bada amar milla gizon txit errutsuak eta eman ziozkaten aginte au: Zoazte, eta irago itzatzute ezpataren puntatik Jabes-Galaaden bizi diradenak, naiz andreak naiz beren aurrak.

11. Baña au da kontuz egin bear dezutena: il itzatzute gizaseme guziak, eta gizonik ezagutu duten emakume guziak, baña utzi zaiezute bizirik donzellai.

12. Eta arkituak izan ziraden Jabes-Galaaden laureun donzella, ezagutu etzutenak gizasemereren oerik, eta eraman zituzten Siloko etzauntzetara, Kanaango errian.

13. Eta bidaltu ziozkaten mandatariak Benjaminek seme, Remmongo aitzean zeudenai, eta agindu zieten, pakean berak artu zitatzela.

14. Eta etorri ziraden orduan Benjaminek semeak, eta emanak izan zitzaiozkaten emazteak Jabes-Galaadko alabetatik. Baña etzuten arkitu besterik, modu berean ematekorik.

15. Eta Israel guziak iduki zuen atsakabe andia, eta egin zuen penitentzia Israelko tribuetatik bataren galmenagatik.



16. Eta esan zuten zarragoak: Zer egingo degu emazterik artu ez duten gañerakoakin? Benjamingo emakume guztiak il dirade,

17. Eta ajola andiarekin eta gogo andiarekin begiratu bear degu, ez dedilla izan galdua Israelko tribu bat.

18. Zeren ezin eman giñitzakiegu gure alabak, gaudelako lotuak juramentu eta madarikazioz, esan gendunean: Madarikatua izan dedilla ematen diona Benjamini emaztea bere alabetatik.

19. Eta artu zuten erabaki au eta esan zuten: Ona non aldean dan urteoroko Jaunaren jaia Silon, zeñ dagoan Bethelko erriaren ifarraldean, eta Beteldikan Sikemera dijoan bidearen sortaldean, eta Lebnako erriaren Egoean.

20. Eta agindu zioten Benjaminen semeai, eta esan zioten: Zoazte, eta ezkutatu zaitezte mastietan.

21. Eta ikusten dituzutenean Siloko donzellak ateratzen diradela oi bezela dantzan egitera, atera zaitezte supituan mastietatik, eta ostu ezazute bakoitzak berea emaztetzat, eta zoazte Benjaminen lurrera.

22. Eta etortzen diradenean beren gurasoak eta anaiak, eta azten diradenean zuen kontra ezpak ematen eta kejatzen, esango diegu: Errukitu zaitezte berakin, zeren etzituzten ostu gerrako eskuz, ez garailariak bezela, baizik erreguturik berak zuei emateko, etziñiozkaten eman, eta ala zuekgan dago bekatua.

23. Eta egin zuten Benjaminen semeak agindua izan zitzaioten bezela. Eta beren zenbataren araura ostu zituzten dantzan ari ziradenetatik, bakoitzak emazte bat beretzat, eta joan ziraden beren errira, eta egiñik erriak bizi ziraden beretan.

24. Israelko semeak ere itzuli ziran beren etzauntzetara tribuz eta familiaz. Egun aietan etzan erregerik Israelen, baizik bakoitzak egiten zuen berari ongi zeritzana.

RUTHEN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Juez baten egunetan, Juezak gobernatzen zutenean, izan zan gose-
te andi bat lurrean. Eta joan zan Judako Belengo gizon bat, arrotza be-
zela bizitera Moabko alderrian bere emaztearekin eta bi semeakin.

2. Gizonari zeritzan Elimelek eta bere emazteari Noemi, eta bi
semeai, batari Mahalon eta besteari Txelion Efrateoak Judako Belengoak.
Eta sarturik Moabko errian, bizi ziran an.

3. Eta il zan Elimelek Noemiren senarra, eta gelditu zan bera bere
semeakin.

4. Zeñak ezkondu ziran Moabko emakumeakin, zeñai zeritzen bata-
ri Orfa eta besteari Ruth. Eta egon ziraden an amar urtean,

5. Eta biak il ziran, au da, Mahalon eta Txelion, eta gelditu zan
andrea bi semeak eta senar gabe.

6. Eta jaiki zan bere errañ biakin bere errira itzultzeko, aditu zuelako
esaten, Jaunak begiratu zuela bere errirontz, eta eman ziotela zer jan.

7. Atera zan bada bere arrotz tokitik bere errañ biakin: eta onezkero
zegoala bidean Judako lurrera itzultzeko,

8. Esan zien: Zoazte zuen amaren etxera; Jauna urrikaritu dedilla
zuekin, urrikaritu ziñaten bezela illakin eta nerekin.

9. Eman dizazutela arkitzea atsedena, suertez tokatuko ditzatzuten
senarren etxeetan. Eta musu eman zien. Berak altxaturik boza, eman zio-
ten negarrari,

10. Eta esaten zuten: Zurekin joango gera zure errira.

11. Zeñai berak erantzun zioten: itzuli zaitezte, ene alabak, zergatik
zatozte nerekin? Seme geiago al det nere sabelean, itxedon ditzatzuten
nigandik senarrak?

12. Itzuli zaitezte ene alabak, eta zoazte, zeren onezkero ni zarrez
aitua nago, eta ez naiz egokia ezkontzarako: eta baldin gaurko gabean
semeak sortu eta egin al banituzke ere,

13. Beren zai egon nai baldin bazendukete aliketa azi ditezten bitar-
tean, eta allegatu ezkontzeko edadera, zarrak izango ziñaindezke ezkon-
duak baño lenago. Ez ezazute bada, ene alabak, onelakorik nai izan, zeren
zuen atsekabeak geiago estututzen nau, eta Jaunaren eskua dago altxatua
nere kontra.



14. Eta altxaturik boza, berriz asi ziran negar egiten: Orfak musu eman zion amagiarrabari, eta itzuli zan: baña Ruth gelditu zan bere amagiarrabarekin.

15. Zeñi esan zion Noemik: Begira nola zure koñata itzuli dan bere errira eta bere jainkoetara, zoaz berarekin.

16. Ruthek erantzun zion: Ez zatzakit berriz jarki utzi zatzaidan, eta joan nadin, zeren zoazan edozeñ tokitara, joango naiz; eta zu bizi zeran lekuan, biziko naiz ni ere. Zure erria izango da nire erria, eta zure Jaungoikoa izango da nire Jaungoikoa.

17. Zure eriotzan zu artzen zaituen lurreean, artan ilko naiz ni ere, eta an idukiko det nere obiko tokia. Au eta geiago egin dezala nerekin Jaunak, eriotzak baño beste gauzak alde eragiten badit zugandik.

18. Ikusirik bada Noemik Ruthek alako gogoarekin erabaki zuela joatea berarekin, etzitzaion geiago jarki nai, ezta ere esan itzuli zedilla bereetara.

19. Eta joan ziradean batera eta allegatu ziraden Belenera. Sartu ziradenean errian, agudo barreiatu zan guzien artean ospea, eta esaten zuten emakumeak: Au da Noemi hura?

20. Zeñai esan zioten: Etzadazute deitu Noemi (au da, ederra) baizik deitu zadazute Mara (au da, mingoitza) zeren mingoitzasunez txit bete nau Guziadezakeanak.

21. Atera nintzan betea, eta Jaunak biurtu eragin dit utsa. Zergatik bada deitzen didazute Noemi, Jaunak humillatu nauenari, eta Guziadezakeanak atsekabetu nauenari?

22. Etorri zan bada Noemi, Ruth Moabtar bere errañarekin bere arrotzasuneko lurretik, eta itzuli zan Belenera, garagarra igitaitzen azten ziradenean.

BIGARREN KAPITULUA

1. Eta Elimelek bere senarrak zuen aide bat, gizon altsua, eta txit aberatsa, Booz zeritzana.

2. Eta Ruth Moabtarrak esan zion bere amagiarrabari: Baldin agintzen badezu, joango naiz kanpora, eta bilduko ditut igitarien eskuetatik iges egiten duten galburuak, edozeñ toki arkitzen dedanean arrera ona familiako guraso, nerekin urrikaritsua agertzen duan bategan. Erantzun zion Noemik: Zoaz, ene alaba.

3. Joan zan bada eta asi zan biltzen galburuak igitari batzuen ostean. Eta gertatu zan kanpo hurak idukitzea jabetzat Booz zeritzan bat, zeñ zan Elimeleken aidetakoa.

4. Eta ona non etorri zan bera Belendikan, eta esan zien igitariak: Jauna izan bedi zuekin. Eta berak erantzun zioten: Jaunak bedeikatu zaitzala.

5. Eta esan zion Boozek igitariak zaitzen zituen gazteari: zeñena da neskatz au?

6. Zeñi erantzun zion: Au da arako Moabtar, etorri zana Noemirekin Moabko erritik,

7. Eta erregutu du, utzi ditzaiogula biltzen gelditzen diran galburuak, jarraiturik igitarien aztarnai, eta goizetik orainartean dago kanpoan, eta une baten ere ez da itzuli bere etxera.

8. Eta Boozek esan zion Ruthi: Aditu ezazu, ene alaba, etzaite joan beste kanpotara galburuak biltzera, eta ez ezazu ere alderik egin toki onetatik; baizik bildu zaite nere neskameakin,

9. Eta jarraitu zaiezu igitaitzen duten lekuan. Zeren agindu diet nere morroiak ez dedilla iñor zurekin ezertan sartu, eta egarri zeranean ere, zoaz otamenera, eta edan ezazu nere morroiak ere edaten duten uretikan.

10. Ruthek orduan makurturik arpegia lurreraño, egin zion agurra, eta esan zion: Nondik neri alako zoriona, arkitzeko grazia zure begietan, eta jakiteko nor naizan, izanik ni emakume arrotz bat?

11. Zeñi berak erantzun zion: Esan dizkidate, zure senarra il ezkerok zure amagiarrabari egin ziñiozkan gauza guziak, eta utzi dituzula zure aideak, eta jaiok ziñan lurra, eta etorri zera, len ezagutzen etzenduen erri batera.

12. Sariztatu zaitzala Jaunak zure egiteen araura, eta artu dezazula ordañ oso bat Israelko Jaun Jainkoagandik, zeñgana etorri zeran eta zeñen mendean jarri zeran.

13. Berak esan zuen: Arkitu det grazia, nere jaun, poztu nazuna, eta itz egin dezu zure serbitzariaren biotzera, zeñ ez dan diña zenbatua izateko zure neskameen artean.

14. Esan zion Boozek: Jateko ordua danean, etorri zaite onara, eta jan ezazu ogia, eta busti ezazu zure mokadua ozpiñean. Eseri zan bada igitarien ondoan, eta artu zuen beretzat galburu erreen zati bat, eta jan zuen, eta ase zan, eta artu zituen kondarrak.

15. Eta jaiki zan andik, biltzeko galburuak oi zuen bezela. Eta agindu zien Boozek bere morroiak, esaten ziela: Berak nai balu ere igitaitu zuekin, etzaiozute galarazi.

16. Eta zuen eskumenetatik aurtiki itzatzute berariaz galburu batzuek, eta utzi itzatzute an, bildu ditzan lotsarikan gabe, eta ez bizaio iñork erriertarik egin biltzen dituanen.



17. Egon zan bada kanpoan galburuak biltzen arratsalderarte; eta astindurik eta jorik zigor batekin bildu zuena, arkitu zuen garagar ephi baten neurria bezela, au da, iru modio.

18. Zeñak arturik itzuli zan errira, eta erakutzi ziozkan bere amagiarrabari, eta gañera atera zituen, eta eman ziozkan bazkariko kondarrak, zeñakin bera ase zan.

19. Eta esan zion amagiarrabak: Non bildu dituzu gaur galburuak, eta non ari zera lanean? Bedeikatua izan dedilla zurekin errukitu dana. Eta esan zion Ruthek zeñen kanpoan bildu zituen galburuak, eta esan ere zion Booz zeritzala gizonari.

20. Zeñi esan zion Noemik: Jaunak bedeikatua izan dedilla, bada bizientzat iduki zuen borondate ona, hura bera du illentzat ere. Eta berriz esan zuen: Gure aidea da gizon ori.

21. Eta esan zuen Ruthek: Agindu ere zidan ibilli nendilla igitariakin, bukatu artean igitaitze guzia.

22. Zeñi esan zion amagiarrabak: Obe da, ene alaba, joan zaitezela bere neskameakin igitaitzera, besteren kanpoan norbait jarki ez dakizun.

23. Bildu zan bada Boozen neskameakin, eta berakin ari zan igitaitzan, aliketa garagarak eta garia gordeak izan ziraden artean aletegietan.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta itzuli ezker bere amagiarrabagana, aditu zuen onegandik: Ene alaba, nik billatuko dizut atsedena, eta saiaturko naiz ongi izan zaitezzen,

2. Booz au, zeñaen neskameakin zauden bildua kanpoan, da gure aidea, eta gaurko gabeaen aizatzen du garagarra bere larrañean.

3. Garbitu zaite bada eta okendutu zaite, eta jantzi itzatzu soñekorik ederrenak eta zoaz larrañera. Etzaitzala gizonak ikusi, bukatu ditzan bitartean jatea eta edatea.

4. Eta lotara dijoanean, ajolaz begiratu ezazu zeñ tokitan lo egiten duen, eta joango zera, eta altxatuko diozu kapa, zeñarekin estalitzen dan oñen aldamentikan, eta etzingo zera, eta lo egingo dezu, eta berak esan-go dizu zer egin bear dezun.

5. Erantzun zion Ruthek: Nik egingo det agintzen didazun guztia.

6. Eta joan zan larrañera, eta egin zuen, amagiarrabak agindu zion guzia.

7. Eta Boozek jan zuenean, eta edan zuenean, eta pozago jarri zanean, eta joan zanean lotara eskumen pillá baten aldera, etorri zan Ruth ixiltxorikan, eta altxaturik kapa oñetatik, etzin zan.

8. Eta ona non gaberdian esnaatu zan gizona ikaratu eta arriturik, eta ikusi zuen emakume bat etzinda bere oñetan,

9. Eta esan zion: Nor zera? Eta berak erantzun zuen: Ni naiz Ruth zure serbitzaria, zabaldu ezazu kapa zure serbitzari onen gañean, zeren aidea zaitut.

10. Eta berak esan zion: Ene alaba, Jaunak bedeikatua izan zaitezela, garaitu dezun ori lenbiziko ontasuna oraingoarekin, ez dituzulako billatu gazte beartsu ez aberatsak.

11. Etzaite bada beldur izan, bada nik egingo det zurekin, esaten didazun guzia. Zeren badaki, nere uriko ateen barrenen bizi dan erri guziak, zu zerala emakume birtutetsua.

12. Ez det ere ukatzen zure aidea naizala, baña bada beste bat ni baño alderagokoa dana.

13. Atsedean zaite gaurko gabeaen, eta eguna zabaltzen danean, gelditu nai baldin balu zurekin aidetasunaren eskuz, izan bedi ordu onean, baña baldin berak ez badu nai, Jauna dan bezela, nik dudarikan gabe artuko zaitut. Lo egin ezazu goizeraño.

14. Berak bada lo egin zuen bere oñetan, gaba irago zan bitartean. Eta jaiki zan, gizonak elkar ezagutu al zitezkean baño lenago, eta esan zion Boozek: Kontu, ez dezala iñork jakin onara etorri zerala.

15. Eta berriz: Zabaldu ezazu, esan zuen, mantua, zeñarekin estalitzen zeran, eta eldu zaiozu portizki esku biakin. Ruthek zabaldurik eta berari eldurik, neurtu zituen sei modio garagar, eta jarri zituen bere gañean. Zeñ oiek zeramazkiala sartu zan urian,

16. Eta etorri zan bere amagiarrabagana. Zeñak esan zion: Zer da egin dezuna, ene alaba? Eta kontatu ziozkan, gizonak egin ziozkan gauza guztiak.

17. Eta esan zuen: Ona emen eman dizkidan sei modio garagarak, eta esan du: Ez det nai itzuli zaitezela esku utsakin zure amagiarrabagana.

18. Eta esan zion Noemik: itxedon ezazu, ene alaba, egiteko onen bukaera ikusi dezagun bitartean. Zeren gizon au ez da geldituko, esan duena bete dezan artean.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Igon zan bada Booz atera, eta eseri zan an. Eta ikusirik iragotzen zala aide hura, zeñen gañean len itz egin degun, esan zion: Atoz onara, piska bateko, eta eseri zaite, deitzen ziola bere izenarekin. Zeñ etorri eta eseri zan.



2. Eta arturik Boozek amar gizon erriko zarretatik esan zien: Eseri zaitetze emen.

3. Eta eseri ziradenean esan zion bere aideari: Noemi, itzuli danak Moabko alderritik dauka saltzeko gure anaia Elimeleken kanpoaren zati bat.

4. Nai izan det zuk au aditzea, eta zuri esatea, emen eserita dauden guztien, eta nere erriko zarren aurrean. Nai badezu beraren jabe izan aide-tasuneko eskuz; erosi ezazu eta izan zaite beraren jabe. Ez baldin badezu nai, adirazi zadazu au bera, jakin dezadan zer egin bear dedan. Zeren ez dago beste aiderik zu lenbizikoa zerana, eta ni bigarrena naizana baño besterik. Eta berak erantzun zuen: Nik erosiko det kanpoa.

5. Eta Boozek esan zion: Erosten diozunean kanpoa Noemiri, ezkondu ere bear dezu Ruth Moabtar, ill zanaren emaztea izan zanarekin, altxatu dezazun zure aidearen izena bere primezan.

6. Berak erantzun zuen: utziten diot aidetasunaren eskuari, zeren ez det nik desegin bear nere familiaren etorkizuna. Ar zazu zuk nere eskua, zeñi diodan gogotikan utziten diodala.

7. Bazan Israelen anziñako oitura bat aideen artean, eta zan bataki utziten zionean besteari bere eskua, utzite onek indarra iduki zezan, kentzen zuen ark bere zapata, eta ematen zion bere aideari. Au zan Israelen utziten zanaren ezagugarria.

8. Esan zion bada Boozek bere aideari: Kendu ezazu zapata. Eta berak bereala kendu zuen bere oñetik.

9. Eta Boozek esan zioten zarrari eta erri guztiari: Zuek zerate gaur lekukoak, ni naizala Elimekek, eta Txelionek eta Mahalonek zituzten gauza guzieren jabe, ematen dizkidala Noemik.

10. Eta artzen dedala emaztetzat Ruth Moabtar Mahalonen emaztea izan zana, altxatzeko illa izan zanaren izena bere primezan, izan ez dedin kendua bere izena bere familatik, anaietatik, eta erritik. Zuek, diot berriz, izango zerate gauza onen lekukoak.

11. Erantzun zuen atean zegoan erri guztiak, eta zarrak: Gu gera lekukoak, Jaunak egin dezala zure etxean sartzen dan andre onekin, Rakelekin eta Liarekin bezela, zeñak egin zuten Israelko etxea: izan dedin Efratan birtutearen irudi bat, eta izan dezan izen ospetsu bat Belenen:

12. Eta izan dedilla zure etxea Faresen etxea bezela, zeñ izan zuen Tamargandik Judarentzat, Jaunak neskatx onegandik emango dizkizun ondorengoak gatik.

13. Artu zuen bada Boozek Ruth, eta ezkondu zan berarekin, eta bizitu izan zan berarekin, eta Jaunak eman zion aurdun gelditzea eta egi-tea seme bat.

14. Eta esan zioten emakumeak Noemiri: Bedekatua izan dedilla Jauna, zeñak utzi ez duen egotea zure familia ondorengo baga, bere ize-nak iraun zezan Israelen.

15. Eta iduki dezazun norik poztu dezan zure anima, eta iroso zure zartza. Zeren jaio da zure errañ, maite zaituena gandik, eta zuretzat asko obekiago da, zazpi seme bazenduzka baño.

16. Eta arturik Noemik aurra, jarri zuen bere altzoan, eta berak egi-tzen zituen iñudearen eta umezaiaren lanak.

17. Eta bere auzoko emakumeak poztzen ziradela berarekin, esaten zioten: Noemiri jaio zaio aurseme bat; eta deitu zioten Obed: au da, Isai-ren, Dabiden aita izan zanaren, aita.

18. Oiek dirade Faresen ondorengoak. Faresgandik izan zan sortua Ebron.

19. Esrongandik izan zan sortua, Aram. Aramgandik izan zan sotua Aminadab,

20. Aminadabgandik izan zan sotua Nahasson, Nahassongandik izan zan sotua Salmon,

21. Salmongandik izan zan sortua Booz, Boozgandik izan zan sortua Obed.

22. Obedgandik izan zan sortua Isai, Isaigandik izan zan sortua Dabid.



ERREGEEN LENBIZIKO LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Bazan gizaseme bat Ramathaim Sofimgo errian Efraimgo mendietan, zeñaen izena zan Elkana, Jerohamen, Eliuren semearen, Thohuren semearen, Suphen semearen, semea, Efraimgoa.

2. Eta zituen bi emazte, bataren izena zan Anna, eta bigarrenarena Phenenna. Eta Phenennak zituen semeak; Annak berriz etzuen semerik.

3. Eta igotzen zan gizon au bere erritikan egun izentatueta, adoratzera eta ejerzituena Jaunari doñañ eskeñtzera Silon. Eta zeuden an Heliaren bi seme Ophni eta Phinees, Jaunaren apaizak.

4. Allegatu zan bada eguna, eta Elkanak eskeñi zuen doña, eta eman ziozkaten beren zatiak bere emazte Phenennari eta bere seme eta alaba guziaz;

5. Annari berriz eman zion zati bakar bat, tristerik, zeren maitatzen zuen Anna. Eta Jaunak itxi zuen emasabela.

6. Gañera bere ielostariak atsekabetzen zuen, eta txit ansiatzen; alako moduan non arpegian ematen zion Jaunak itxi zuela bere emasabela.

7. Eta orobat egiten zuen urteoro, allegatuta denbora, igotzen zira-denean Jaunaren Elizara, eta onela lotsatzen zuen. Orduan Annak negar egiten zuen, eta etzuen artzen janaririkan.

8. Elkana bada bere senarrak esan zion: Anna, zergatik negar egiten dezu? Eta zergatik ez dezu jaten? Eta zer gauzagatik atsekabetzen da zure biotza? Ez al naiz ni zuretzat, amar seme baño obeagoa?

9. Eta jaiki zan Anna jan ta edan zuen ezkerro Silon. Eta Heli apaiza zegoala eserita bere sillaren gañean Jaunaren Elizako ateen aurrean,

10. Annak mingoiztasunez beteriko biotz batekin, erregutu zion Jaunari, malko ugariak botatzen zituela,

11. Eta egin zuen boto bat, esaten zuela: Ejerzituena Jauna, itzulita begiraturako baziño zure serbitzari onen estutasunari, eta oroituko baziña nerekin, eta aztuko ez baziña zure serbitzari onekin, eta emango baziño zure serbitzari oni aur seme bat, konsagratuko diot Jaunari bere bizitzako egun guzietarako, eta ez dio ukituko labañak bere buruari.

12. Eta gertatu zan, egiñik berak maiz bere erreguak Jaunaren aurrean, Heli egotea bere aoko mugimenduai begira.

13. Anak berriz itz egiten zuen bere biotzean, eta bakarrik mugitzen ziraden bere ezpañak, itz bat ere ordea etzitzaion aditzen. Uste zuen bada Helik zegoala ordituta.

14. Eta esan zion: Noizarteraño egongo aiz ordituta? Dijeritu ezan piska bat ardoa, zeñarekin betea auden.

15. Anak erantzun zion esaten zuela: Ez da orrela nere jauna, zeren naiz emakume txit zorigaiztoko bat, eta ez det edan ardorik, ez orditu lezakean gauzarik baizik nengoan agertzen nere biotza Jaunaren aurrean.

16. Ez ezazu iduki zure serbitzaria Belialen alaba bat balitza bezela, zeren nere miñaren eta tristezaren ugaritasunagatik itz egin det oraindaño.

17. Helik orduan esan zion: Zoaz ordu onean, eta Israelko Jaungoikoak eman dizazula, egin diozun eskaria.

18. Eta Anak erantzun zion: Arren bada arkituko al du zure serbitzariak abegi ona zure begietan. Eta emakumea joan zan bere bidean, eta jan zuen, eta bere arpegia etzan berriz jarri eroria.

19. Eta jaiki ziraden goiz, eta adoratu zuten Jauna, eta itzuli ziraden, eta etorri ziraden beren etxera Ramathara. Eta Elkanak ezagutu zuen Anna bere emaztea, eta Jauna oroitu zan berarekin.

20. Eta gertatu zan aurki gelditzea aurdun Anna, eta bere denboran egin zuen seme bat, eta jarri zion izena Samuel, Jaunari eskatu ziolako.

21. Igo zan gero Elkana bere senarra bere familia guztiarekin eskeñtzera Jaunari doñañ ospetsu bat, eta kunplitzera bere botoa.

22. Baña Anna etzan igo, zeren esan zion bere senarrari: Ez naiz joango aurra titigetua izan dedin bitartean, eta neronek eramanik jarri dezadan Jaunaren aurrean, eta gelditu dedin an betiko.

23. Eta esan zion Elkana bere senarrak: Egin ezazu ongi deritzazuna, eta gelditu zaite titigetua dezazun bitartean, eta erregututzen diot Jaunari kunplitu dizagula bere itza. Gelditu zan bada andrea, eta eman zion titia semeari, titigetua zuen arteraño.

24. Eta titigetua zuenean, eraman zuen berarekin, iru txalekin, eta iru modio iriñekin, eta pegar bat bete ardorekin, eta ekarri zuen Jaunaren etxera Silon. Eta aurra zan oraindikan txikitxo.

25. Eta eskeñi zuten txal bat, eta eraman zioten aurra Heliri.

26. Eta esan zuen Annak: Aditu nazazu, nere jauna, bizi zeran bezala, ni naiz, nere jauna, arako emakume egon nintzana erregututzen Jaunari zure aurrean.

27. Aur onegatik erregutu nuen, eta Jaunak eman zidan eskatu niona.



28. Argatik nik ere ematen diot Jaunari, Jaunak bizitzeko ematen diozkan egun guzietarako. Eta adoratu zuten an Jauna. Eta erregutu zuen Annak, eta esan zuen:

BIGARREN KAPITULUA

1. Pozez gora goraka ari zan nere biotza Jaunagan, eta goratu da nere eskubidea nere Jaunagan. Orain erantzun niezakie ao betean nere etsaiari, bada nere poz guztia da, o Jauna, zugandik artu dedan mesedeagatik.

2. Ez dago santurik, Jauna dan bezelakorik, zeren ez dago zu baño besterik, eta ez dago sendorik gure Jaungoikoa bezelakorik.

3. Ez ezazute bada itz egin andiuste eta arrokeriarekin: alde bitzate onezkero anziñako itzak zuen aotikan, zeren guzia dakian Jaungoikoa, bera bakarrik da Jauna, eta berak egiztatzen ditu bere asmo goratuak.

4. Autsi zan sendoen uztaia, eta argalak izan dirade indarrez beteak.

5. Len aseak zeudenak, izan dirade osaro aseak. Soilla zana etorri da izatera seme askoren ama, eta semez ingurutua zegoanak galdu zituen bere indarrak.

6. Zeren Jauna da ematen duena eriotza eta ematen duena bizitza: eramaten duena obira, eta andikan ateratzen duena.

7. Jauna da pobretzen duena, eta aberastutzen duena, beeratzen duena eta goratzen duena.

8. Autsetik altxatzen du eskekoa, eta zimaurtzatik goratzen du bear-tua, eseri dedin Prinzipeakin, eta izan dezan gloriako esertoki goratua. Zeren Jaunarenak dirade lurraren zimenduak, eta beren gañean jarri zuen mundua.

9. Zaituko ditu santuen oñak, eta gaiztoak illuntasunetan ixilduko dirade, zeren ez da gizona izango sendoa bere beraren indarreakin.

10. Jaunaren beldur izango dirade bere etsaiak, eta beren gañera botako ditu oñazkarrak zerutikan. Jaunak juzgatuko ditu lurraren mugak, eta emango dio agintaritzza bere erregeari, eta goratuko du bere Kristoaren eskua.

11. Eta itzuli zan Heli Ramathara, bere etxera, eta aurra ari oi zan bere lanean Jaunaren aurrean Heli apaizaren ikusmenean.

12. Baña Heliren semeak ziraden Belialen semeak, Jauna ezagutuzten etzutenak,

13. Ezta ere Apaizen eginberrak erriaganako, baizik edozeñek eskeñtzen zuenean doña, etorri oi zan Apaizaren morroia, aragiak egosten ziraden bitartean, eta iduki oi zuen bere eskuan iru ortzeko eusle bat,

14. Eta sartzen zuen berolean, edo galdarean, edo eltzean, edo tupian. Eta eusleak ateratzen zuen guzia, artzen zuen apaizak beretzat. Au egiten zuten Israeltik Silora zetozten guziakin.

15. Eta berebat gantza erre baño lenago, etorri oi zan apaizaren morroia, eta esaten zion doña eskeñtzen zuenari: Eman zadazu aragia egosi dezadan apaizarentzat, zeren ez det zugandikan artuko aragi egosirik, baizik gordiña.

16. Eta doña eskeñtzen zuenak esaten zion: Erre bedi lenbizi gaur gantza, oi bezala, eta gero artu ezazu nai dezun guzia. Baña berak erantzuten zuen esaten zuela: inñolaere ez, baizikan oraintxe emango didazu, eta bestelan, neronek indarrez artuko det.

17. Zan bada txit andia gazte oien bekatua Jaunaren aurrean, zeren atzeratuzten zuten jendea Jaunari eskeñtzak egitetik.

18. Eta Samuel gaztea ari oi zan bere lanean Jaunaren aurrean, ephod liñozko jantzi batekin.

19. Eta bere amak egiten zion tunika txiki bat, zeñ eramaten zuen egun izentatueta, igotzen zanean bere senarreakin, eskeñtzera doñ ospetsua.

20. Eta bedeikatu zituen Helik Elkana eta bere emaztea, eta esan zion: Eman dizazula Jaunak jatorria andre onegandik, Jaunari egin diozun eskeñtzaren saritzat. Eta itzuli ziraden beren etxera.

21. Bisitatu zuen bada Jaunak Ana, eta aurdun gelditu zan, eta erdi zituen iru seme eta bi alaba. Bitartean Samuel gaztea zijoan andi egiñaz Jaunaren aurrean.

22. Baña Heli zan txit zarra, eta aditu zituen bere semeak Israel guziari egiten ziozkaten gauza guziak, eta nola lo egiten zuten, Elizako atean beillan egon oi ziraden emakumeakin.

23. Eta esan zien: Zergatik egiten dituzute gauza txit gaizto, neronek erri guziari aditzen diozkadanak?

24. Ez orrela, ene semeak, zeren ez da fama ona nik aditzen dedana, Jaunaren erriari fedea autsi eragiten diozutela.

25. Baldin gizaseme batek beste baten kontra bekatu egiten badu, Jaungoikoa berarekin biguñdua izan lezake, baña baldin gizonak bekatu egiten badu Jaunaren kontra, nork erregutuko du beragatik? Eta etzuten aditu beren aitaren boza, zeren Jaunak il nai zituen.

26. Samuel gaztea berriz zijoan aurreratuaz, eta aziaz, eta zan bai Jaunaren, eta bai gizonen gogokoa.



27. Eta etorri zan Jaungoikoaren gizon bat Heligana, eta esan zion: Oiek esan ditu Jaunak: Ez al nintzaion ni argiro agertu zure aitaren etxeari, zeudenean Ejipton Faraonen etxean?

28. Eta autu nuen neretzat apaiztat Israelko tribu guzien artean, igo zedin nere aldarera, eta erre zizadan an inzensoa, eta eraman zezan ephoda nere aurrean, eta eman nion zure aitaren etxeari Israelko semeen eskeñtza guzien anoa.

29. Nola bada ostikoarekin aurtiki dituzute nere doañak, eta elizan neri egiteko agindu nuen eskeñtzak, eta honratu dituzu zure semeak ni baño geiago, jaten zenduztela Israel nere erriaren eskeñtza guzien lenbi-ziak?

30. Argatik Israelko Jaun Jainkoak esaten du: Nik esan eta eskeñi nuen zure familia eta zure aitaren familia ariko ziradela beti apaiz nagusiaren lanean nere aurrean. Baña orain esaten dio Jaunak: Ez da inolaere onelakorik izango, baizik niri gloria ematen didan edozeñi, emango diot, baña mezpreatzen nautenak, izango dirade desonratuak.

31. Ona non allegatzen dan denbora, zeñean ebakiko dedan zure besoa, eta zure aitaren etxeko besoa; alako moduan non egongo ez dan zarrik zure familian.

32. Eta Israel guzia dagoanean ugaritasunean, ikusiko dezu zure etsaia elizan, eta ez da inoiz izango zarrik zure etxean.

33. Alaere ez ditut guziz kenduko zure jatorrikoak nere aldaretikan, baña izango da ezkeldu ditezten zure begiak, eta litxigatu dedin zure anima, eta zure etxekoetatikan zati andi bat ilko da gizaedadera allegatzen danean.

34. Eta idukiko dezun señailea da, gertatuko zaiotena zure bi seme, Ophni eta Phineesi: Egun batean ilko dirade biak.

35. Eta nik billatuko det apaiz leial bat, portatuko dana nere biotza-rena eta nere animaren araura, eta egingo diot etxe leial bat, eta ibiliko da egun guzietan nere Kristoaren aurrean.

36. Eta gertatuko da, zure etxean gelditu dan edozeñ, etortzea erregutu dedin beragatik, eta eskeñiko du zillarrezko diru bat, eta ogi opill bat, eta esango du: Erregututzen dizut artu nazazula apaiz anoren baterako, jan dezadan ogi mokadu bat.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta Samuel gaztea ari oi zan Jaunaren lanean Heliren aurrean, eta Jaunaren itza zan opagarria egun aietan, etzegoan ikuskizun agiririkan.

2. Gertatu zan bada egun batean, Heli zegoan etzinda bere tokian, eta bere begiak illundu ziraden, eta ezin ikusi zuen.

3. Jaungoikoaren lanpara itzalia izan zan baño lenago, Samuelek lo egiten zuen Jaunaren elizan, non zegoan Jaungoikoaren kutxa.

4. Eta ots egin zion Jaunak Samueli. Zeñak erantzunaz esan zuen: Emen naiz.

5. Eta joan zan korrika Heligana, eta esan zuen: Emen naiz, zeren ots egin didazu. Helik esan zion: Ez dizut ots egin, itzuli zaite, eta lo egin ezazu. Eta joan zan, eta lo egin zuen.

6. Eta berriz ere ots egin zion Jaunak Samueli. Eta jaikirik Samuel, joan zan Heligana, eta esan zuen: Emen naiz, zeren ots egin didazu. Helik erantzun zion: Ez dizut ots egin ene semea, itzuli zaite eta lo egin ezazu.

7. Samuelek berriz etzuen oraindik ezagututen Jauna, eta etzizaion oraindik agertua izan Jaunaren itza.

8. Eta berriz ere ots egin zion Jaunak Samueli irugarren aldiz. Zeñ jaikita joan zan Heligana,

9. Eta esan zion: Emen naiz, zeren ots egin didazu. Ezagutu zuen bada Helik Jaunak ots egiten ziola mutillari, eta esan zion Samueli: Zoaz, eta lo egin ezazu, eta berriz ots egingo baldin balizu, erantzungo dezu: itz egin ezazu Jauna, zeren zure serbitzariak aditzen du. Joan zan bada Samuel, eta lo egin zuen bere tokian.

10. Eta etorri zan Jauna, eta gelditu zan, eta ots egin zion, besteetan ots egin zion bezela, Samuel, Samuel. Eta erantzun zion Samuelek: itz egin ezazu, Jauna, bada zure serbitzaria aditzen dago.

11. Eta Jaunak esan zion Samueli: Begira ni noala egitera gauza bat Israelen, aditzen duen guziari belarri biak dunduriatuko diozkana.

12. Egun artan egiztatuko ditut nik Heliren kontra esan ditudan gauza guziak bere etxearen gañean, asiko naiz, eta bukatuko ditut.

13. Zelan lendanaz esan nion kastigatuko nuela betiko bere etxea bere gaiztakeriagatik, zeren baziakien zeñ gaizki egiten zuten bere semeak, eta etzituen kastigatu bear bezela.

14. Argatik juramentu egin diot Heliren etxeari, bere gaiztakeria ez dala izango inoiz garbitua ez doañakin, eta eskeñtzakin.

15. Lo egin zuen bada Samuelek goizeraño, eta idiki zituen Jaunaren etxeko atek, baña beldur zan agertzen Heliri ikusikizuna.

16. Ots egin zion bada Helik, eta esan zion: Samuel, ene semea? Berak erantzun zion: Emen naiz.



17. Eta galdetu zion Helik: zer da Jaunak esan dizuna? Erregututzen dizut, ez zadazula arren ezkutatu. Jaunak garrazki kastigatu zaitzala ezkututzen badidazu esanak izan zaskizun itzetatikan batere.

18. Samuelek bada agertu ziozkan itz guziak, eta etzion ezer ezkutatu. Eta Helik erantzun zuen: Jauna da, egin beza bere begietan ongi dana.

19. Eta Samuel azi zan, eta Jauna zan berarekin, eta berak lendanaz esaniko gauzeetatikan batere etzan gelditu egiztatu gabe.

20. Onekin ezagutu zuen Israel guziak, Dandikan Bersabeeraño, Samuel zala Jaunaren Profeta egiazko bat.

21. Eta Jaunak jarraitu zion agertzeari Silon, zeren Silon agertu zitzaion Jauna Samueli, Jaunaren itzaren araura. Eta kunplitu zan Samuelek Israelko erri guziari esan zion guzia.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan egun aietan, biltzea Filisteoak gerran egiteko, eta atera zan bidera Israel Filistintarrakin gudatzeko, eta jarri zituen etzauntzak Laguntasuneko Arriaren aldean. Eta Filistintarrak etorri ziraden Afe-keran,

2. Eta gertutu zuten beren gudaritaldea Israelen kontra. Eta esetsirik elkarri, Israelek iges zuen Filistintarrakgandikan; eta izan ziraden illak guda artan an eta bestean, lau milla gizon bezelatsu.

3. Eta itzuli zan erria etzauntzetara, eta esan zuten Israelko zarrak: Zergatik zauritu gaitu gaur Jaunak Filistintarren aurrean? Ekarri dezagun gugana Silotikan Jaunaren elkartasuneko kutxa, eta betor gure erdira, salbatu gaitzan gure etsaien eskutikan.

4. Bidaldu zuen bada erriak Silora, eta ekarri zuten andikan, ejerzi-tuen Jaunaren, kerubiñen gañean eserita dagoanaren Elkartasuneko kutxa, eta Heliren bi seme, Ofni eta Fineesek laguntzen zioten Jaunaren elkartasuneko kutxari.

5. Eta allegatu zanean etzauntzetara Jaunaren elkartasuneko kutxa, egin zituen Israelek pozezko deadar andiak, eta oiek zabaldu ziran inguru guzi artatik.

6. Eta aditu zituztenean Filistintarrak, esan zuten: Zer dirade Hebreotarren etzauntzetako deadar andi oiek? Eta ezagutu zuten Jaunaren kutxa etorri zala etzauntzetara.

7. Eta beldurtu ziraden Filistintarrak esaten zutela: Etorri da Jaungoikoa etzauntzetara. Eta alarauka esaten zuten:

8. Ai gure zorigaiztokoak! Etzeuden ez aiñ pozik atzo eta erainegun. Gure zorigaiztokoak! Nork libratuko gaitu Jaungoiko andi orren eskutik?

Ori da arako Jaungoiko kastigatu zuena Ejipto zauri mot guziakin eremuan.

9. Alaitu eta gizonak izan zaitetze, Filistintarrak, eta itzatzute serbitu Hebreotarrak, berak zuek serbitu zinduzten bezala, sendatu zaitetze eta gudatu ezazute.

10. Gudatu ziraden bada Filistintarrak, eta desegiña izan zan Israel, eta iges zuen bakoitzak bere etzauntzera, eta galmen txit andia egiña izan du zan. Eta galdu ziraden Israeltik ogeita amar milla oñazko.

11. Eta Jaungoikoaren kutxa arrapatua izan zan. Il ere ziraden Heliren bi semeak, Ophni eta Finees.

12. Eta Benjamingo gizaseme bat etorri zan korrika gudatikan egun artan Silora, soñekoak urratuta, eta burua autzez beteta.

13. Eta bera allegatu zanean, Heli zegoan eserita esertoki batean biderontz begira. Zeren bere biotza zegoan beldurrez Jaunaren kutxa gatik. Eta sartu zaneko gizon hura, zabaldu zituen berriak errian. Eta erri guzia asi zan alarauka.

14. Eta aditu zuen Helik deadarren ota, eta esan zuen: Ze ots naspillatsu da au? Eta gizona etorri zan arin, eta eman zion berria Heliri.

15. Heli zan orduan larogeita emezortzi urtekoa, eta bere begiak illunduak izan ziraden, eta ezin zuen ikusi.

16. Eta esan zion Heliri: Ni naiz gudatikan etorri naizana, eta ni gaur iges egin dedana esetsitikan. Helik esan zion: Zer gertatu da, ene semea?

17. Eta erantzun zion berria zekarrenak, esaten zuela: iges du Israelek Filistintarren aurretikan, eta galmen txit andi bat egin da errian, gañera zure bi semeak ere illak dirade, Ophni eta Finees, eta Jaungoikoaren kutxa izan da arrapatua.

18. Eta aipatu zuenean gizonak Jaungoikuaren kutxa, erori zan atzerontz esertokitik atearen aldean, eta autsirik lepoa, il zan. Zeren zan gizon zarra eta edade andikoa, eta berak juzgatu zuen Israel berrogei urtean.

19. Eta bere errañ bat, Fineesen emaztea, zegoan aurdun, eta aurra laster egiteko, eta aditu zuenean berria Jaungoikoaren kutxa arrapatua izan zala, eta illak izan ziradela bere aitagiarraba, eta bere senarra, makurtu zan eta egin zuen aurra: zeren ustekabeen artu zuten aurmiñak.

20. Eta iltzen zan une huratan beratan esan zioten bere ingurumaian zeuden emakumeak: Etzaitze beldur izan, zeren egin dezu seme bat. Baña berak etzien erantzun, ezta adirazi ere aditu zuela.

21. Eta jarri zion izena aurrari, itxabod, esaten zuela: iragoa da gloria Israeltikan, zeren Jaungoikoaren kutxa izan da arrapatua, eta bere aitagiarraba eta bere senarra galdu zituelako;



22. Eta esan zuen: iragoa da gloria Israeltikan, arrapatua izan dalako Jaungoikoaren kutxa.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta Filistintarrak artu zuten Jaungoikoaren kutxa, eta eraman zuten laguntasuneko Arritikan Azotora.

2. Eta artu zuten Filistintarrak Jaungoikoaren kutxa, eta sartu zuten Dagonen elizan, eta jarri zuten Dagonen aldean.

3. Eta biaramonean jaikirik goiz Azototarrak, ona emen non Dagon zegoan etzinda auzpez lurrean Jaunaren kutxaren aurrean, eta artu zuten Dagon, eta berriz jarri zuten bere tokian.

4. Eta jaikirik berriz goiz beste biaramonean, arkitu zuten Dagon etzinda lurrean bere arpegien gañean Jaunaren kutxaren aurrean; Dagonen burua berriz eta bere esku biak zeuden ebakita ateburuaren gañean.

5. Eta Dagonen gorputz moistua bakarrik gelditu zan bere tokian. Argatik Dagonen apaizak, eta bere elizan sartzen diraden guztiak, ez dute jartzen onik Dagonen atalburuaren gañean Azoton, gaurko eguneraño.

6. Oien ondoan Jaunak bere eskuarekin esetsi zien txit gogorkiro Azototarrak, eta desegin zituen. Eta zauritu zituen Azoto eta bere alde-riak esergarrien tokirik ezkutuenean. Eta denbora berean lur artako erriak eta kanpoak asi ziraden irakitzen agertu ziraden arratoiz eta erria gelditu zan arritua eriole andiagatik.

7. Ikusirik bada Azotoko gizonak onelako kastigua, esan zuten: Ez bedi gelditu gurekin Israelko Jaungoikoaren kutxa, zeren pisua da bere eskua gure gañean, eta Dagon gure jainkoaren gañean.

8. Eta bidaldurik billatzera Filistintarren agintari guztiak, esan zieten: Zer egingo degu Israelko Jaungoikoaren kutxarekin? Eta erantzun zuten Jethetarrak: Erabili bedi ingurumai Israelko Jaungoikoaren kutxa.

9. Eta berak ala zeramatenean, Jaunaren eskuak egiten zuen eriole txit andi bat erri bakoitzean, eta zauritzen zituen erri bakoitzeko gizasemeak txikienetik andieneraño, eta irteten zitzaizkaten eta usteldu beren odoluzkiak. Eta Jethetarrak egin zuten batzarrea, eta egin zituzten berentzat larruzko esertokiak.

10. Bidaldu zuten bada Jaungoikoaren kutxa Akaronera. Eta allegatu zanean Jaungoikoaren kutxa Akaronera, asi ziraden deadarrez Akarontarrak, esaten zutela: Ekarki digute Israelko Jaungoikoaren kutxa, il gaitzan gu, ta gure erria.

11. Argatik egin zuten bildu zitezela Filistintarren agintari guztiak, zeñak esan zuten: Bidaldu ezazute Israelko Jaungoikoaren kutxa, eta itzuli bedi bere tokira, eta ez gaitzala il gu, eta gure erria.

12. Zeren erri guzietatik barreiatzen zan eriotzaren beldurra, eta Jaungoikoaren eskuak egiten zituen beretan kastigu txit andiak. Iltzen etziradenak ere, ziraden zaurituak epurmamien tokirik ezkutuenean, eta erri bakoitzaren alarauak igotzen ziran zeruraño.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Egon zan bada Jaunaren kutxa Filistintarren errian zazpi illabetean.

2. Eta deitu zituzten Filistintarren apaizak, eta aztiak, esaten zutela: Zer egingo degu Jaunaren kutxarekin? Erakusi zaguzute nola berriz itzuliko degun bere tokira. Zeñak erantzun zuten:

3. Baldin berriz itzultzen badezute Israelko Jaungoikoaren kutxa, ez ezazute bidaldu utsik, baizik pagatu zaiozute, bekatuagatik zor diozuten, eta orduan sendatuko zerate, eta jakingo dezute zergatik ez duen alde egiten bere eskuak zuek gandik.

4. Eta berak esan zuten: Zer da pagatu bear dioguna bekatua gatik.

5. Egingo dituzute bost odoluzki urrezko, eta anbat arratoien irudi, oiek ere urrezkoak, Filistintarren probinzien zenbataren aaura, zeren gaitz bat izan dezute zuek guztiok eta zuen agintariak. Eta egingo dituzute zuen odoluzkien eta lurra desegin duten arratoien irudi batzuek. Eta emango diozute gloria Israelko Jaungoikoari, ikusteko onenbesterekin altxatzen ote duen bere eskua zuekgandik, eta zuen jainkoagandik eta zuen erriagandik.

6. Zergatik gogortzen dituzute zuen biotzak, gogortu zuen bezela Ejiptok eta Faraonek bere biotza? Ez al zioten utzi joaten Israeltarri zauritua izan zan ezkerok?

7. Artu ezazute bada orain, eta egin gurdi berri bat, eta uztartu zaiozkazute gurdiari bi bei umeak egin berri, eta uztarririk erabili ez dutenak, eta itxi itzatzute beren txalak etxean.

8. Eta artuko dezute Jaunaren kutxa, eta jarriko dezute gurdiaren gañean bere aldean kutxatxo batean, bekatuagatik pagatu diezuten urrezko irudiak, eta utziko diozute joaten.

9. Eta zai egongo zerate, eta ikusiko baldin bazendute dijoala bere mugen bidetik Bethsamesrontz, bera da egin diguna gaitz andi au; beste la bada, ez da bera izan, jakingo degu ez dala bere eskua izan zauritu gaituana, baizik izan da berezkoa.



10. Berak bada egin zuten onela. Eta arturik bi bei, beren txalak azitzen zeudenak, uztarturik jarri ziozkaten gurdiari, eta itxi zituzten etxean txalak,

11. Eta jarri zituzten gurdiaren gañean Jaungoikoaren kutxa, eta kutxatxoa, non zijoazen urrezko arratoiak eta odoluzkien irudiak.

12. Eta beiak zijoazen zuzen Bethsamesera dijoan bidetik, eta jarraitzen zioten bide hurari berari zebiltzala eta orroaka ari ziradela, eta etzuten alderik egiten ez eskuiera, ez ezkerrera, eta Filistintarren agintariak zijoazen jarraituaz Bethsamesen mugetaraño.

13. Eta Bethsamesarrak ari ziraden garia ebakitzen ibar batean. Eta altxaturik beren begiak, ikusi zuten kutxa, eta poztu ziraden ikusi zutenean.

14. Eta gurdia allegatu zan Josue Bethsamesarren kanpora, eta gelditu zan an. Zegoan berriz an arri andi bat, eta zatitu zuten gurdiaren zura eta jarri zituzten beiak bere gañean eskeñtzeko Jaunari.

15. Eta Lebitak beeratu zuten Jaungoikoaren kutxa eta bere aldean zegoan kutxatxoa, non zetozten urrezko irudiak, eta jarri zituzten arri andi huraren gañean. Eta Bethsamesarrak eskeñi zituzten egun artan doañak, eta il zituzten abereak Jaunari eskeñtzeko.

16. Eta Filistintarren bost agintariak ikusi zuten, eta itzuli ziraden Akaronera egun huratan beratan.

17. Oiek bada dirade Filistintarrak bekatuagatik Jaunari pagatu ziozkaten urrezko odoluzkiak. Azotok eman zuen bat, Gazak beste bat, Askalonek beste bat, Jethek beste bat, Azkaronek beste bat.

18. Eta urrezko arratoiak, bost probinzietako, Filistintarren errien zenbataren araura, uri murrutuetatik, murrurik etzuten errietaraño, eta Abel andiraño, zeñaen gañean jarri zuten Jaunaren kutxa, zeñ egon zan egun artaraño Josue Bethsamesarraren kanpoan.

19. Eta Jaunak kastigatu zituen Bethsamesko gizonak, Jaunaren kutxari gaizki begiratu ziotelako. Eta il zituen irurogeita amar gizon andizki, eta berrogeita amar milla erriko. Eta negar egin zuten guztiak, ikusirik Jaunak kastigatu zuela erria erioite aiñ andiarekin.

20. Eta esan zuten Bethsamesko gizonak: Zeñ egongo da Jaun Jaungoiko Santu onen aurrean? Eta zeñgana igoko da gugandik?

21. Eta bidaldu ziozkaten mandatariak Kariathiarimen bizi ziradenai, esanarekin: Filistintarrak itzuli dute Jaunaren kutxa, atozte, eta berriz eraman ezazute zuekgana.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Etorri ziraden bada Kariathiarimgoak, eta itzuli zuten Jaunaren kutxa, eta sartu zuten Abinadaben etxean Gabaan, eta santutu zuten Eleazar bere semea, zaitzeko Jaunaren kutxa.

2. Eta gertatu zan, kutxa Kariahharimen gelditu zan egunetik, irago zan denbora asko (zeren zan onezkero ogeigarren urtea) eta iduki zuen pakea Israelko etxeak, jarraiturik Jaunari.

3. Eta Samuelek itz egin zion Israelko etxe guztiari esaten zuela: Baldin biurtzen bazerate Jaunagana zuen biotz guztitik, kendu itzatzute zuen erditik jainko arrotzak: Baalak eta Astharothak, eta gertutu itzatzute zuen biotzak Jaunarentzat, eta serbitu ezazute bera bakarrik, eta libratuko zaituzte Filistintarren eskutik.

4. Kendu zituzten bada berakgandik Israeltarrak Baalak eta Astarothak, eta serbitu zuten Jauna bakarrik.

5. Eta Samuelek esan zuen: Bildu ezazute Masfaten Israel guztia, erregutu dizaiodan zuekgatik Jaunari.

6. Eta bildu ziraden Masfaten, eta atera zuten ura; zeñ isuri zuten Jaunaren aurrean, eta baru egin zuten egun artan, eta esan zuten an: Bekatu egin degu Jaunaren kontra. Eta juzgatu zituen Samuelek Israelko semeak Masfathen.

7. Eta aditu zuten Filistintarrak bildu ziradela Israelko semeak Masfathen, eta atera ziraden Filistintarren agintariak Israelen kontra. Aditurik au Israelko semeak, zeukaten Filistintarrak arkitzeko beldurra.

8. Eta esan zioten Samueli: ari zaite aspertu gabe erregututzen gugatik deadarrez gure Jaun Jainkoari, salbatu gaitzan Filistintarren eskutik.

9. Eta artu zuen Samuelek ezneko arkume bat, eta eskeñi zion osorik doañean Jaunari, eta deadarrez erregutu zion Samuelek Jaunari Israelgatik, eta Jaunak aditu zuen.

10. Eta gertatu zan, Samuelek eskeñtzen zion bitartean doaña Jaunari, asi ziraden Filistintarrak gudatzen Israelen kontra. Baña Jaunak egin zuen egun artan turmoia ots ikaragarriarekin Filistintarren kontra, eta alako moduan beldurtu zituen non izan ziraden Israelek desegñiak.

11. Eta aterarik Masfathetik Israelko gizonak, jarraitu ziozkaten Filistintarrak, eta zijoazen iltzen zituztela, Beththarren azpian zegoan toki bateraño.

12. Eta Samuelek artu zuen arri bat, eta jarri zuen Masfathen artean eta Senen artean. Eta deitu zuen toki hura, Laguntasuneko Arria. Eta esan zuen: Onaraño lagundu digu Jaunak.



13. Eta humillatuak izan ziraden Filistintarrak, eta andikan aurrera etziraden benturatu etortzen Israelko mugetara. Eta onela Jaunaren eskua izan zan Filistintarren kontra Samuelen denbora guztian.

14. Eta itzuliak izan zitzaizkan Israeli, Israeltikan Filistintarrak artu zituzten erriak, Akarondik, Jeth eta bere mugetaraño, eta libratu zuen Israel Filistintarren eskutik, eta pakea zegoan Israel eta Amorrheoaren artean.

15. Eta juzgatu zuen Samuelek Israel bere bizitzako egun guztietan.

16. Eta zijoan urteoro ingurumaitzen zituela Bethel, eta Galgala, eta Masfath, eta juzgatzen zuen Israel goian aipatu diraden tokietan.

17. Eta itzuli oi zan Ramathara, zeren an zegoan bere etxea, eta an juzgatzen zuen Israel. Egin ere zion an aldare bat Jaunari.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan, zarturik Samuel, jarri zituen bere semeak Israelko jueztzat.

2. Eta bere seme lenbizisortuaren izena zan Joel, eta bigarrenaren izena Abia, zeñak ziraden juezak Bersabeen.

3. Eta etziraden ibilli bere semeak bere bideetatik, baizik alde egin zuten zekentasunaren ondoren, eta artu zituzten doañak, eta zeartu zuten zuzentasuna.

4. Bildurik bada Israelko zar guztiak, etorri ziraden Samuelgana Ramathara.

5. Eta esan zioten: Ongi dakutsu onezkero zartu zerala zu, eta zure semeak ez dabiltzala zure bideetatik, jarri zaguzu errege bat juzgatu gaitzan, beste erreñu guztiak ere duten bezela.

6. Etzan izan Samuelen gogokoa izketa au, esan zutelako: Eman zaguzu errege bat juzgatu gaitzan. Eta Samuelek erregutu zion Jaunari.

7. Eta Jaunak esan zion Samueli: Aditu ezazu erriaren itza esaten dizuten guztian, zeren etzaituzte botatzen zu, baizik ni, agintatu ez dezadan beren gañean.

8. Egiten dute, egin dutena beti Egiptotik atera nituen egunetik gaurko eguneraño, ni utzi ninduten bezela jainko arrotzak serbitzeagatik, ala egiten dute zurekin.

9. Orain bada aditu ezazu beren boza, baña lenago adirazi zaiezu eta erakusi, beren gañean agintatuko duen erregearen eskua.

10. Eta ala Samuelek adirazi ziozkan, errege bat eskatu zion erriari, Jaunaren itz guziak,

11. Eta esan zion: Au izango da, zuen gañean aginduko duen erregearen eskua, artuko ditu zuen semeak, eta jarriko ditu bere gurdien zuzentzalle, eta izateko bere zaitzalle zaldiz, eta joateko korrika bere lau zaldizko gurdien aurrean.

12. Beretatik aterako ditu bere tribunoak, eta euntariak, eta bere kanpoen nekazariak, eta bere uzten ebakitzalleak, eta bere armariak eta bere gurdigilleak.

13. Egingo ere du zuen alabak izan ditezela bere lurrinkaigilleak, bere sukaldegiñak eta bere ogigiñak.

14. Artuko ere du zuen kanpoetatik, eta mastietatik, eta olibodietatik ongiena, eta emango dio bere menpekoai.

15. Eta artuko ditu amarrenak zuen uztetatik, eta mastien muskilletatik, emateko bere txikiratuai eta morroiai.

16. Artuko ere ditu zuen menpekoak emakumeak, nai gizasemeak, eta mutillik azkarrenak, eta zuen astoak eta jarriko ditu bere lanetan.

17. Artuko ere ditu zuen artaldien amarrenak, eta zuek izango zerate bere menpekoak.

18. Deadar egingo dezute egun artan autatu dezuten erregeagatik, eta orduan Jaunak ez ditu aditu naiko zuen deadarrak egun artan, eskatu zendutelako erregea zuentzat.

19. Eta etzuen nai izan erriak aditu Samuelen boza, baizik esan zuten: Ez, ez, erregea izango da gure gañean,

20. Eta gu izango gera beste erreñu guziak bezelakoak, eta gure erregeak juzgatuko gaitu, eta aterako da gure aurretik, eta gure gerretan guda-tuko da gurekin.

21. Eta aditu zituen Samuelek erriaren itz guztiak, eta esan zituen Jaunaren belarrietan.

22. Eta Jaunak esan zion Samueli: Aditu det bere boza, eta jarri ezazu erregea beren gañean. Eta esan zioten Samuelek Israelko gizonai: Bijoa bakoitza bere errira.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Bizi zan garai onetan Benjaminen tribuko gizon bat, Zis zeritzana, Abielen, Serorren semearen Bekorathen semearen, Afiaren semearen, Jeminiren semearen semea; gizon sendo eta errutsua.

2. Eta zuen seme bat Saul zeritzana, autatua eta ona. Eta etzan Israelko semeetan bera baño obeagorik, solbardatik gorakoa zan erri guzgia baño andiago.



3. Galdu ziraden berriz Zis Saulen aitaren asto batzuek, eta esan zion Zisek Saul bere semeari: Artu ezazu zurekin morroe bat, eta zoaz, begiratu ezazu, eta billatu itzatzu astoak. Berak iragorik Efraimgo mendia,

4. Eta Salisako alderria arkitu gabe astoak, irago ere ziraden Salimgo lurretik, eta etzeuden an, eta berebat Jeminiko lurretik, eta etzituzten arkitu.

5. Eta allegatu ziradenean Suphko lurrera, esan zion Saulek berarekin zegoan morroiari: Atoz, eta itzuli gaitezen, nere aita, utzirik astoen ajola, gure antsiatz egon ez dedin.

6. Zeñak esan zion: Begira, bada erri onetan Jaungoikoaren gizon bat, gizon ospetsua, berak esaten duen guztia, osoro kunplitzen da. Orain bada goazen ara, ematen ote digun argitasunik, etorri geran gauzaren gañean.

7. Eta esan zion Saulek bere morroiari: Ongi dago, joango gera, baña zer eramango diogu Jaungoikoaren gizonari? Aitu da ogia gure zakutoetan, eta ez degu dirurik, ez beste gauzarik zer eman Jaungoikoaren gizonari.

8. Berriz morroiak erantzun zion Sauli, eta esan zion: Ona emen non ustekabez arkitzen naizan, zillarrezko siklo baten laugarren zatiarekin, emango diogu Jaungoikoaren gizonari, goazenean jakitera beragandik zer egin bear degun.

9. (Anziña Israelen Jaunarekin ituntzera zijoan guztiak, onela itz eginen zuen: Atozte, eta goazen Ikusleagana. Zeren gaur Profeta deritzanari, zeritzan len ikuslea).

10. Eta esan zion Saulek bere morroiari: Txit ongi itz egiten dezue. Atoz, goazen. Eta joan ziraden, Jaungoikoaren gizona zegoan errira.

11. Eta igotzen ziradela erriko aldapatik, arkitu zituzten, uraen billa zijoazen neskatx batzuek, eta esan zien: Emen bai al da Ikuslea?

12. Zeñak erantzuten zutela, esan zioten: Emen da, ona emen zure aurrean, ibilli zaite arin orain, zeren gaur etorri da errira, dalako gaur erriaren eskeñtza toki goian.

13. Sartzen zeratenean errian, bereala arkituko dezute, toki goira jatera igo dedin baño lenago. Zeren erriak ez du jango bera etorri artean, zeren bera da bedeikatzen duena eskeñtza, eta gero jartzen dirade jaten, deituak izan diradenak. Igo zaitezte bada orain, zeren gaur arkituko dezute.

14. Eta igo ziraden errira. Eta zebiltzala berak erriaren erditik, agertu zan Samuel zetorrela berakganontz, toki goira igotzeko.

15. Jaunak berriz, Saul allegatu baño egun bat lenago, itz egin zion Samueli belarrira, esaten ziola:

16. Biar, ordu onetan beronetan bidalduko det zugana Benjaminen lurreko gizon bat, eta unjituko dezue zuzentzalletzat Israel nere erriaren gañean, eta salbatuko du nere erria Filistintarren eskutik, zeren itzuli ditut nere begiak nere erriaganontz, bere deadarrak allegatu diradelako nigana.

17. Eta begiratu zionean Samuelek Sauli, Jaunak esan zion: Ona emen esan nizun gizona, onek agintatuko du nere erriaren gañean.

18. Alderatu zan bada Saul Samuelegana atearen erdian, eta esan zion: Erregututzen dizut, esan zadazula non dagoan Ikuslearen etxea.

19. Eta erantzun zion Samuelek Sauli esaten ziola: Ni naiz Ikuslea. Igo zaite nere aurretik toki goira, jan dezazuten nerekin gaur, eta utziko zaitut biar, eta agertuko dizut zure biotzean dezun guztia.

20. Eta ez ezazu iduki, erainegun galdu zinduen astoen ajolarikan, zeren arkituak izan dirade. Eta zeñenak izango dirade Israelen dauden gauzarik onenak? Ez al dirade izango zuretzat, eta zure aitaren etxe guzientzat?

21. Saulek berriz erantzun zion, esaten ziola: Ez al naiz ni Jeminiren semea, Israelko triburik txikienekoa, eta nere senitartea ez al da atzenengo Benjaminen tribuko familia guztien artean? Zergatik bada esan dizkidazu itz oiek?

22. Artzen zuela bada Samuelek Saul, eta bere morroia, sartu erazi zioten salara, eta eman zien tokia, konbidatuak izan ziradenean buruan, bada ziraden ogeita amar gizon bezelatsu.

23. Eta esan zion Samuelek sukaldegilleari: Ekarri ezazu, eman nizun, eta zugan berezian gordetzeko agindu nizun anoa.

24. Sukaldegilleak bada artu zuen besonda, eta jarri zuen Saulen aurrean. Eta esan zuen Samuelek: Ona emen gelditu dana, jarri ezazu zure aurrean eta jan ezazu, zeren berariatz gorde erazi det zuretzat, erria konbidatu dedanean. Eta Saulek jan zuen Samuelek in egun artan.

25. Eta jetxi ziraden toki goitik errira, eta itz egin zuen Saulekin sabaian, non jarri erazi zuen oe bat Saulentzat, eta lo egin zuen.

26. Eta jaiki ziradenean goizean egunsentian, ots egin zion Samuelek Sauli sabaian, esaten zuela: Jaiki zaite, eta bidalduko zaitut. Eta jaiki zan Saul, eta atera ziraden biak, au da, bera eta Samuel.

27. Eta jetxitzen ziradenean erriaren tokirik beerenera, esan zion Samuelek Sauli: Esan zaiozu morroiari, aurrera dijoala, eta ibilli dedilla; zu berriz gelditu zaite piska batean, adirazi dizazudan Jaunaren itza.



AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta artu zuen Samuelek olio ontzi bat, eta isuri zuen bere buruaren gañean, eta musu eman zion, eta esan zuen: Ona emen non Jaunak unjitu zaituan Prinzipetzat bere primezaren gañean, eta libratuko dezu bere erria, bere etsai, ingurutzen dutenen eskuetatik. Eta au izango da, Jaungoikoak prinzipetzat unjitu zaituenaren señaleara.

2. Joaten zeranean gaur nigandik, arkituko dituzu bi gizon Rakelen obiaren aldean Benjamingo mugetan, egoalderontz, eta esango dizute: Arkituak izan dirade astoak, zeñaen billa joan ziñan, eta beretan pensatu ere gabe zure aitak, zuen ajolarekin dago, eta esaten du: Zer egingo det nere semearekin?

3. Eta andikan joaten zeranean, eta iragotzen zeranean aurrerago, eta etortzen zeranean Taborko artera, arkituko zaituzte iru gizon, igotzen diradenak Jaungoikoagana Bethelera, batek daramazkiala iru antxume, besteak iru opil ogizko, eta besteak pegar bete ardo.

4. Eta agur egin ezkerre zuri, emango dizkizute bi ogi, eta artuko dituzu beren eskutik.

5. Andikan etorriko zera Jaungoikoaren muñora, non dagoan Filistintarren guarnezioa, eta an sartzen zeran ezkerre errian, arkituko dituzu toki goratutikan jetxitzen diraden profeten talde bat, eta beren aurretikan salterioa, eta atabala, eta txilibitua, eta zithara, eta berak profetizatzen ari diradela.

6. Eta etorriko da zure gañera Jaunaren Espiritua, eta profetizatuko dezu berakin, eta aldatua izango zera beste gizon baten.

7. Gertatutuzen zazkitzunean bada gauza guzti oiek, egin ezazu, erara etortzen zaitzun guztia, zeren Jauna zurekin da.

8. Eta jatxiko zera nere aurretik Galgalara (zeren ni jatxiko naiz zugana) egiteko doaña, eta eskeñtzeko opari paketsuak. Itxedongo dezu zazpi egunean, etorri nadin bitartean zugana, eta erakusi dizazudan bitartean zer egingo dezun.

9. Itzuli zueneko bada bere solbarda berezitzeko Samuelgandik, aldatu zion Jaungoikoak biotza beste batean, eta egiztatu ziraden egun artan señaleara guzti oiek.

10. Eta allegatu ziraden len esan dan muñora, eta ona non ateratzen zaion bidera profeta talde bat, eta etorri zan bere gañera Jaunaren Espiritua, eta profetizatu zuen beren erdian.

11. Eta ikusirik ezagutu zutenak zerbait lensheago zegoala profetakin, eta profetizatzen zuela, esan zioten elkarri: Zer gauza gertatu zaio Zisen semeari? Saul ere profeten artean bai al dago?

12. Eta erantzun zion batak besteari esaten zuela: Eta zeñ da beren aita? Argatik gelditu zan esaera: Saul ere profeten artean bai al?

13. Eta utzi zion profetizatzeari eta etorri zan toki goratura.

14. Eta Saulen osaba batek esan zien berari eta bere morroiari: Nora joan zerate? Zeñak erantzun zuten: Astoen billa, zeñak ez ginduenean arkitu, joan giñan Samuelgana.

15. Eta esan zion bere osabak: Esan zadazu zer esan dizun Samuelek.

16. Eta esan zion Saulek bere osabari: Adirazi zigun arkituak izan ziradela astoak. Baña etzion ezerere agertu, Samuelek erreñuaren gañean esan zion gauzarik.

17. Eta bildu zuen Samuelek erria Jaunaren aurrean Masfan.

18. Eta esan zien Israelko semeai: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Nik atera nuen Israel Ejiptotik, eta libratu zinduztedan ijitoen eskutik, eta atsekabetzen zinduzten errege guztien eskutik.

19. Baña zuek bota dezute gaur zuen Jaungoikoa, zeñak bakarrik salbatu zaituzten gaitz guzietatik, eta zuen naigabeetatik, eta esan dezute: Ez da orrelakorik izango: baizik jarri ezazu errege bat gure gañean. Orain bada agertu zaitezte Jaunaren aurrean zuen tribu eta familietatik.

20. Eta sortean zituen Samuelek Israelko tribu guztiak, eta erori zan suertea Benjaminen tribuaren gañera.

21. Eta sortean zituen Benjaminen tribua eta bere familiak, eta erori zan Metriren familian, allegatu zan arteraño Saul Sisen semeagana. Eta billatu zuten, eta etzuten arkitu.

22. Eta itundu ziraden gero Jaunarekin, etorriko ote zan ara. Eta erantzun zuen Jaunak: Begira ezkutatua dagoala bere etxean.

23. Joan ziraden bada korrika, eta ekarri zuten andikan, eta jarri zan erriaren erdian, eta zan erri guztia baño altuago solbaretatik eta gorakoa.

24. Eta esan zion Samuelek erri guztiari: Ongi dakutsute zeñ autatu duen Jaunak, eta ez dagoala bere antzekorik erri guztian. Eta deadar egin zuen erri guztiak, eta esan zuen: Bizi bedi Erregea.

25. Eta adirazi zion Samuelek erriari erreñuko legea, eta eskribatu zuen liburu batean, eta jarri zuen Jaunaren aurrean, eta bidaldu zuen Samuelek erri guztia, bakoitza bere etxera.

26. Eta Saul ere joan zan bere etxera Gabaan, eta joan zan berarekin ejerziaren zati bat, aiek zeñaen biotzai ukitu zien Jaungoikoak.

27. Belialen semeak berriz esan zuten: Salbatu bai alko gaitu onek? Eta mezpreziatu zuten eta etziozkaten ekarri doñañak; berak berriz aditzen etzuelakoa egiten zuen.



AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan illa bete bezelatsu geroago, igotzea Naas Ammon-tarrak, eta asi zan esesten Jabes Galaadi. Eta esan zioten Jabesko gizon guztiak Naasi: iduki gaitzatzu elkartuak, eta serbituko zaitugu.

2. Eta erantzun zien Naas Ammontarrak: Zuekin egingo dedan elkartasuna izango da, ateratzea guztiai eskuiko begia, eta jartzea zuek, Israel guztiko lotsaria izango zeraten eran.

3. Eta esan zioten Jabesko zarrak: Eman zazkiguzu zazpi egun, bidaldu ditzagun mandatariak Israelko alderri guzietara, eta ez baldin badago nor jarri gure alde, jarriko gera zure eskuetan.

4. Etorri ziraden bada mandatariak Saulen Gabaara, eta esan zituzten itz oiek, erriak aditzen zituela, eta erri guztiak altxatu zuen bere boza, eta negar egin zuen.

5. Eta ona emen non bazetorren Saul kanpotik bere idien ondoren, eta esan zuen: Zer du erriak negar egiteko? Eta adirazi ziozkaten Jabesko gizonen itzak.

6. Eta etorri zan Saulgana Jaunaren Espiritua, aditu zituenean itz oiek, eta txit aserretuta

7. Artu zituen idi biak, eta zatitu zituen, eta bidaldu zituen Israelko alderri guztietatik mandatari batzuen eskuz, esaten zuela: au da egingo zaiotena gudara ateratzen ez dan, eta Saul eta Samueli jarraitzen ez dietenen idi guztiai. Sartu zan bada Jaunaren beldurra erri guztian, eta atera ziraden gizon bakar bat balitza bezela.

8. Eta zenbatu zituen Bezetxen eta arkitu ziraden irureun milla Israelko semeetatik, eta ogeita amar milla Judako gizonetatik.

9. Eta esan zieten, etorri ziraden mandatariak: Onela itz egingo diezute Jabes Galaadkoan dauden gizonai, biar izango dezute laguntasuna, eguzkiak berotzen duenean. Joan ziraden bada mandatariak, eta adirazi zioten Jabesko gizonai, zeñak poztu ziraden.

10. Eta esan zuten: Biar aterako gera zuekgana, eta egingo diguzute nai dezuten guztia.

11. Eta gertatu zan, allegaturik biaramona, berezitu zuen Saulek erria iru zatitan, eta sartu zan egunsentian etzauntzen erditik, eta ari zan iltzen Ammontarrak eguzkia berotzen asi zan bitartean; gañerakoak berriz barreiatu ziraden, alako moduan non etziraden gelditu bi batean.

12. Eta esan zion erriak Samueli: Zeñ da esan zuena, Saulek agintatu-koko bai al du gure gañean? Eman zazkiguzute gizon oiek, eta ilko ditugu.

13. Baña Saulek esan zuen: Ez da iñor illa izango egun onetan, zeren gaur salbatu du Jaunak Israel.

14. Eta esan zion Samuelek erriari: Atozte, eta goazen Galgalara, eta berriztatu dezagun an erreñua.

15. Eta zuzendu zan erri guztia Galgalara, eta egin zuten an errege Saul Jaunaren aurrean Galgalan, eta eskeñi zituzten an doañ paketsuak Jaunaren aurrean. Eta txit poztu ziraden an Saul, eta Israelko gizon guztiak.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Samuelek Israel guztiari: Ona non aditu dedan zuen itza, eskatu dizkidazuten gauza guztietan, eta jarri det erregea zuen gañean.

2. Eta onezkero erregea dabil zuen aurretikan; ni berriz zartu naiz, eta illezuritu: nere semeak berriz zuekin daude, ala bada irago dedan ezkerro nere bizitza zuekin nere gazte denboratik egun onetaraño, ona emen non nagoan.

3. Itz egin ezazute nere kontra Jaunaren aurrean, eta bere Kristoaren aurrean, baldin iñoren idirik, edo astorik artu badet; baldin iñori gezurrik asmatu badiot, iñor gaizki erabilli badet; baldin iñoren eskutik doañik artu badet, eta mezprezioso begiratuko dut gaur, eta itzuliko dizutet.

4. Eta erantzun zuten: Ez diguzu gezurrik asmatu, ez gaituzte ere gaizki erabilli, ez dezu ere artu doañik iñoren eskutik.

5. Eta esan zien: Jauna da lekuko zuen kontra, eta bere Kristoa da lekuko egun onetan, ez dezutela ezertxo ere arkitu nere eskuan. Eta esan zuten: Lekuko.

6. Eta esan zion Samuelek erriari: Bai, lekuko zait Moises eta Aaron egin zituen Jauna, eta gure Asabak Egiptoko lurretik atera zituena.

7. Orain bada zaudete, juizioan jarri dezadan eskaria zuen kontra Jaunaren aurrean, zuekin eta zuen Asabakin Jaunak egin zituen errukitasun guztien gañean.

8. Nola Jazeb sartu zan Egipton, eta deadar egin zuten zuen asabak, eskatzen ziotela Jaunari laguntasuna, eta bidaldu zituen Jaunak Moises eta Aaron, eta atera zituen zuen asabak Egiptotik, eta jarri zituen toki onetan.

9. Zeñak aztu ziraden beren Jaun Jainkoarekin, eta jarri zituen Sisara Hasorren ejerzituaren Agintariaren eskuan, eta Filistintarren eskuan, eta Moab erregearen eskuan, zeñak gerra egin zioten.

10. Baña gero deadarrez erregutu zioten Jaunari; eta esan zioten: Bekatu egin degu, utzi genduelako Jauna, eta serbitu giñituelako Baalak



eta Astarothak. Orain bada atera gaitzatu gure etsaien eskutik, eta serbituko zaitugu.

11. Eta bidaldu zituen Jaunak Jerobaal, eta Badan, eta Jephthe, eta Samuel, eta libratu zinduzten, inguruan zenduzkaten etsai guztien eskutik, eta bizitu ziñaten pakean.

12. Baña ikusirik Naas Ammonen semeen erregea etorri zala zuen kontra, esan zidaten: Ez orrelakorik, baizik errege batek aginduko digu, izanik zuen Jaun Jainkoa zuen gañean agintzen zuena.

13. Orain bada badezute, autu eta eskatu dezuten zuen erregea, ona non Jaunak eman dizuten erregea.

14. Baldin izango baziñatezke Jaunaren beldur, eta serbituko bazenezakete, eta bere boza adituko bazenezakete, eta aserretuko ez bazenezakete Jaunaren arpegia; orduan bai zuek eta bai zuek gobernatzen zaituzten erregea izango zerate doatsuak, jarraiturik zuen Jaun Jainkoari.

15. Baña baldin ez bazenezate adituko Jaunaren boza, baizik jarkiko baziñizaiete bere itzai, Jaunaren eskua izango da zuen gañean, izan zan bezela zuen gurasoen gañean.

16. Baña orain zaudete piska batean, eta ikusiko dezute, Jauna zuen aurrean egitera dijoan gauza andi au.

17. Ez al da orain garia ebakitzeko era? Ots egingo diot Jaunari, eta bidalduko ditu turmoiak eta euriak, eta jakingo eta ikusiko dezute gaitz andi bat egin dezutela zuentzat Jaunaren aurrean eskatzean zuentzat errege bat.

18. Ots egin zion bada Samuelek Jaunari, eta Jaunak bidaldu zituen turmoiak, eta euriak egun huratan beratan.

19. Eta erri guztia izan zan Jaunaren eta Samueleen txit beldur, eta esan zion erri guztiak Samueli: Erregutu zaiozu zure serbitzariakgatik zure Jaun Jainkoari, il ez gaitezen, zeren gure bekatu guztiak itsatsi dizaioguz gaitz au, eskatzea errege guretzat.

20. Eta esan zion Samuelek erriari: Etzaitzete beldur izan, zuek egin dezute gaitz andi guzti au. Alaere ez ezazute alderik egin Jaunaren bide-tik, baizik serbitu ezazute Jauna zuen biotz guztitik.

21. Ez ezazute ere alderik egin, ezer balioko ez dizuten gauza utsen ondoren, eta libratuko ere etzaituenen, utsak diradelako.

22. Eta ez du Jaunak utziko bere erria bere izen andiagatik, zeren jurementu egin du Jaunak artuko zaituztela bere erritzat.

23. Jaunari nai ez dakiola berriz nik egitea bere kontra bekatu au, utzitea zuekगतik erregutuzteari, eta erakutsiko dizutet bide on, eta zuzen bat.

24. Izan zaitzete bada Jaunaren beldur, eta serbitu ezazute egiaz eta zuen biotz guztitik, zeren ikusi dituzute zuen artean egin dituen gauza arrigarriak.

25. Baña baldin iraungo bazenezate gaitzean, zuek eta zuen erregea batean galduko zerate.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Urtebeteko semea zan Saul agindutzen asi zanean, eta bi urtean agindu zuen Israelen gañean.

2. Eta autu zituen beretzat Saulek iru milla Israelko, eta zeuden Saulekin bi milla Makmasen, eta Bethelgo mendian, eta milla Jonatasekin Benjamingo Gabaan. Eta erriaren gañerako guztia bidaldu zuen bakoitza bere etzauntzetara.

3. Eta Jonatasek desegin zuen Gabaa gordetzen zegoan Filistintar taldea. Aditu zutenean au Filistintarrak, Saulek adirazi eragin zuen tronpetarekin erri guztian, esaten zuela: Jakin bezate au Hebreotarrak.

4. Eta Israel guztiak aditu zuen berri au: Saulek desegin du Filistintarren talde bat. Eta sendatu zan Israel Filistintarren kontra. Eta erriak deadarrez jarraitu zion Sauli Galgalan.

5. Eta Filistintarrak bildu ziraden gudatzeko Israelen kontra, ogeita amar milla gurdi, eta sei milla zaldizko, eta oñazko jendea ain ugari, nola dan itsasbaterrean dagoan ondarra. Eta igorik jarri zituzten etzauntzak Matxmasen Bethabenren sortaldean.

6. Eta ikusi zutenean Israeltarrak zeudela jarririk estutasunean (zeren erria arkitzen zan beldurtuta) ezkutatu ziraden lizetan, eta lurruspetan, eta aitzartetan, eta aitz zuloetan, eta urpetegietan.

7. Eta Hebreotarrak irago zuten Jordana joateko Gad eta Galaadko lurrera. Eta zegoala oraindikan Saul Galgalan, jarraitzen zion erri guztia txit beldurtu zan.

8. Eta egon zan zai Saul zazpi egunean, Samuelek izentatu zion epearen araura, eta etzan etorri Samuel Galgalara, eta erri guztiak iges egiten zitzaion beragandikan.

9. Esan zuen bada Saulek: Ekarri zaskidazute doña eta paketsuak. Eta eskeñi zuen doña.

10. Eta bukatu zuenean doña eskeñtzea, ona emen non Samuel bazetorren, eta Saul atera zitzaion bidera agur egiteko berari.

11. Eta esan zion Samuelek: Zer egin dezu? Erantzun zuen Saulek: ikusi nuelako erria igesi zijoatala, eta etziñala zu etorri epe izentaturako, eta Filistintarrak bildu ziradela Matxmasen,



12. Esan nuen: Orain jaxkiko dirade Filistintarrak nigana Galgalara, eta ez det bigundu Jaunaren arpegia. Premiaz beartuta, eskeñi det doaña.

13. Eta esan zion Samuelek Sauli: Erokiro egin dezu, eta ez dituzu gorde, zure Jaun Jainkoak eman zizkizun aginteak. Baldin egin ez baze-neza egite au, oraindik sendatuko zuen Jaunak zure erreñua Israelen gañean betiko,

14. Baña ez du zure erreñuak luzaro iraungo. Jaunak billatu du bereztat bere biotzaren erako gizon bat, eta Jaunak agindu dio izan dedilla bere erriaren zuzentzalea, ez dezulako zaitu, Jaunak agindu zizuna.

15. Eta jaiki zan Samuel, eta joan zan Galgalatik Benjamingo Gabaara. Eta erriko gañerakoak igo ziraden Saulen ondoren, bidera irtetzera ari ziradenai esesten, zijoazenai Galgalatikan Gabaara, Benjaminen muñoan. Eta Saulek zenbatu zuen berarekin arkitzen zan jendea, seireun gizon bezelatzu.

16. Eta Saul eta bere seme Jonatas, eta berakin gelditu zan erria, zeuden Benjamingo Gabaan; Filistintarrak berriz jarri zituzten etzauntzak Matxmasen.

17. Eta atera ziraden Filistintarren etzauntzetatik iru eskudroi arrapatzera al zutena. Eskudroi bat zijoan Efrako bidera Sualgo lurrerontz.

18. Eta bestea sartzen zan Beth-horongo bidetik. Eta irugarrena zuzendu zan Seboimgo ibarraren gañean zegoan mugako biderontz, eremuaren aurkez.

19. Eta Israelko lur guztian etzegoan errementaririk. Zeren Filistintarrak artu zuen aurrez neurri au, Hebreotarrak etzegien egin ezpatarik, ez lantzarik.

20. Argatik Israel guztiak joan bear zuen Filistintarrak gana zorroztera bakoitzak bere goldortza, eta aitzurra, eta aizkora, eta jorraia.

21. Argatik zeuden moistuak goldortzen, eta aitzurren, eta urkulloen, eta aizkoren aoak, akullo bat zorrozteko ere berakgana joan bear zuten.

22. Eta etorri zanean gudarako eguna, etzan arkitu ezpatarik ez lantzarik, Saul eta Jonatasekin zegoan erri guztiaren eskuan, salbu Saul eta bere seme Jonathasenean.

23. Eta atera zan Filistintarren goarnizioa, aurreratzeko Makmasko beste aldamera.

AMALAU GARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan egun batean Jonatas Saulen semeak esatea bere ezkutari gazteari: Atoz, eta irago gaitezen Filistintarrak dauden tokira, zeñ dagoan toki hura baño arontzago. Eta etzion adirazi au bere aitari.

2. Eta Saul zegoan Gabaaren egalean, Magronen zegoan mingrana baten azpian, eta berarekin zegoan erria zan irureun gizon bezelatzu.

3. Eta Akias, Akitoben semeak, ikaboden anaiak, Fineesen semeak, zeñ zan Heliren Silon Jaunaren apaizaren semea, zeraman efoda. Eta erriak ere etziekien nora joan zan Jonatas.

4. Eta Jonatasek Filistintarrak zeuden tokira iragotzeko alaitzen zan igoeraren erdian, zeuden arkaitz altu bi aldamen bietatik, eta mutur bi aldamen bietatik ebakiak ortzen gisara, batari zeritzan Boses, eta besteari Sene.

5. Mutur bata jaikitzen zan Ifarraldean Makmasen aurkez, eta bestea Egoealdean Gabaarontz.

6. Eta esan zion Jonatasek bere ezkutari gazteari: Atoz, irago gaitezen zirkunzidatu gabeko oien tokira, noaski gudaduko da Jauna gure alde, zeren ez da gauza gaitza Jaunarentzat salbatzea naiz askorekin, naiz gutxi-ekin.

7. Eta esan zion bere ezkutariak: Egin ezazu, ongi deritzatzun guzia, zoaz nai dezun tokira, eta ni izango naiz zurekin nai dezun edozeñ lekutan.

8. Eta esan zion Jonatasek: Ona non goazen iragotzera gizon oietera. Ikusten gaituztenean

9. Esango baligute: zaudete gu zuekgana joan gaitezen bitartean, egon gaitezen gure tokian, eta ez gaitezen igo berakgana.

10. Baña esango baligute: igo zaitezte gugana: igo gaitezen, zeren Jaunak jarri ditu gure eskuetan, au izango da guretzat señailea.

11. Agertu ziraden bada biak Filistintarren tokiaren aurrean, eta esan zuten Filistintarrak: Ona non ateratzen diraden Hebreotarrak, ezkutatuak zeuden arzuloetatik.

12. Eta Filistintarrak zeuden tokiko gizon batzuek itz egin eta esan zieten Jonatas eta bere ezkutariari: igo zaitezte gugana, eta erakutsiko dizugu gauza bat. Eta esan zion Jonatasek bere ezkutariari: igo gaitezen, arreit niri, zeren Jaunak jarri ditu Israelen eskuetan.

13. Igo zan bada Jonatas esku ta oiñ igatziaz, eta bere ezkutaria bere ondoren. Eta batzuek erortzen ziraden Jonatasen aurrean, eta jarraitzen zion bere ezkutariak iltzen zituen beste batzuek.

14. Eta au zan lenbiziko ondamera, zeñean Jonatasek eta bere ezkutariak il zituzten ogei gizon bezelatzu, idi uztarri batek egun batean goldeatu oi duen golde baten erdian.

15. Eta gertatu zan mirari bat etzauntzetan, kanpoetatik, baitaere arrapatzera atera ziraden gudari taldea, gelditu zan arritua, eta ikaratu zan lurra. Eta gertatu zan Jaungoikoaren mirari bat bezelakoa.



16. Eta Gabaa Benjaminkoan zeuden Saulen gudari aurreratuena begiratu zuten atzerontz, eta ikusi zuten jende talde bat zetzala, eta beste batzuek igesi aldamen guzietatik.

17. Eta esan zion Saulek, berarekin zegoan erriari: Begiratu, eta ikusi ezazute gutatik zeñ joan dan. Eta begiraturik, arkitu zan etzeudela an Jonatas eta bere ezkutaria.

18. Eta esan zion Saulek Akiasi: Alderatu zaite Jaungoikoaren kutxara. (Zeren Jaungoikoaren kutxa zegoan an egun artan Israelko semeakin).

19. Eta Saul apaizarekin izketan ari zala, aditu zan ots naasi bat, naspilla baten gisakoa, zetorrena Filistintarren etzauntzetatik, eta zijoan aziaz geldika geldika, eta geroago obekiago aditzen zan. Eta esan zion Saulek apaizari: Bildu itzatzu zure eskuak.

20. Orduan Saulek eta berarekin zedukan erri guztiak deadar egin zuten, eta etorri ziraden gudako tokira. Eta ona non bakoitzak itzuli zuen bere ezpata bere aldean zuenaren kontra, eta eriotea zan txit andia.

21. Gañera irago ziraden egunetan Filistintarretara joan ziraden, eta berakin etzauntzetan zeuden Hebreotarrak, bildu ziraden berriz Saul eta Jonatasekin zeuden Israeltarrakin.

22. Berebat Efraimgo mendian ezkutatuak zeuden Israeltar guziak, jakiñik Filistintarrak igesi zijoazela, bildu ziraden bereakin gudatzeko. Eta zeuden Saulekin amar milla gizon bezelatzu.

23. Eta salbatu zuen Jaunak egun artian Israel. Eta guda allegatu zan Bethabeneraño.

24. Eta Israeltarrak elkartu ziraden egun artan: baña Saulek juramentu erazi zion erriari, esaten zuela: Madarikatua izan dedilla mokadurik jaten duen gizona gaua baño lenago, aliketa nere etsaien bengaia artu dezadan bitartean. Eta erri guztiak etzuen ezer jan.

25. Allegatu zan bada jende talde guzi hura, kanpoaren gañean ezitia zegoan baso batera.

26. Sartu zan bada erria basoan, eta ikusten zan ezitia jarioan, baña etzion iñork eskua ezarri, eta alderatu bere aora, zeren erria juramentuaren beldur zan.

27. Baña Jonatasek etzuen aditu bere aitak juramentu erazi zionean erriari, eta luzetu zuen eskuan zedukan zigorraren punta, eta busti zuen ezti abaraska batean, eta itzuli zuen eskua bere aorontz, eta argitu zitzaizkion bere begiak.

28. Eta adirazten ziola erriko batek, esan zion: Zure aitak lotu du erria juramentuarekin, esaten duela: Madarikatua, mokadurik gaur jaten duena. (Eta erria zegoan nekatua).

29. Eta esan zuen Jonatasek: Nere aitak galdu du guzia juramentuarekin, zuek zerok ikusi dezute nola argitu diraden nire begiak ezti onetatik piska bat jan dedalako.

30. Bada zenbat geiago, baldin jan balu erriak arkitu zuena bere etsaiari arrapatuan? Ez al zan egiña izango galmen andiagoa Filistintarretan?

31. Joan ziraden bada egun artan illaz Filistintarrak Makmastik Aialonraño. Erria berriz arkitzen zan txit nekatua.

32. Eta asirik arrapatzen, artu zituen ardiak, eta beiak, eta txalak, eta il zituzten lurtean, eta jan zituen erriak odolarekin.

33. Eta adirazi zioten Sauli esaten ziotela, bekatu egin zuela erriak Jaunaren kontra jaten zuela odolarekin. Eta berak esan zuen: Autsi dezute fedea, ekarri zadazute orain onara amilka arri andi bat.

34. Eta esan zuen Saulek: Barreiatu zaitezte jendearen artetik, eta esan zaiezute, ekarri dizadala bakoitzak bere idia, eta bere aria, eta il ezazute arri onen gañean, eta jan ezazute, eta ez dezute bekaturik egingo Jaunaren kontra jaten dezutela odolarekin. Eta erriko bakoitzak eraman zuen bere eskuz bere idia gautu arteraño, eta il zituzten an.

35. Eta Saulek egin zion aldare bat Jaunari. Eta orduan izan zan noiz asi zan egiten aldarea Jaunari.

36. Eta esan zuen Saulek: Esetsi dizaiegun gauaz Filistintarrai, eta ondatu ditzagun eguna argitu arteraño, eta ez dezagun utzi beretatik batera. Eta esan zuen erriak: Egin ezazu ongi deritatzun guztia. Eta esan zuen apaizak: Alderatu gaitezen emen Jaungoikoarekin ituntzera.

37. Eta itundu zan Saul Jaunarekin: Jarraituko bai al diet Filistintarrai? Jarriko bai al dituzu Israelen eskuetan? Eta etzion eman erantzuerrikan egun artan.

38. Eta esan zuen Saulek: Ekarri zaskidazute onara erriko andizki guziak, eta aztertu, eta ikusi ezazute norgatik etorri dan gaur bekatu au.

39. Jaun Israelko salbagillea bizi dan bezala diot baldin nire seme Jonatasgatik etorri bada, ilko dala. Zeñatara erri guzitik batere etzizaion jarki.

40. Eta esan zion Israel guziari: Berezitu zaitezte zuek aldamen batera, eta ni nere seme Jonatasekin egongo naiz beste aldamenean. Eta erantzun zion erriak Sauli: Egin ezazu ongi deritatzuna.

41. Eta esan zion Saulek Israelko Jaun Jainkoari: Israelko Jaun Jainkoa, ezagutu erazi zaguzu, zergatik ez diozu erantzun gaur zure serbitzariari? Baldin gaistakeria au arkitzen bada nigan, edo nire seme Jonatasegan, agertu ezazu, edo baldin gaiztakeria au arkitzen bada zure errian, santutu



ezazu. Eta erori zan suertea Jonatas, eta Saulegan, erria berriz libre atera zan.

42. Eta esan zuen Saulek: Bota ezazute suertea nire eta Jonatas nire semearen artean. Eta erori zitzaion Jonatasi.

43. Esan zion bada Saulek Jonatasi: Esan zadazu zer egin dezun. Eta Jonatasek adirazi zion, eta esan zuen: Jan nuen gogo andiarekin eztiaren pis-katxo bat, nere eskuan nuen zigorraren puntarekin, ona ni emen, ilko naiz.

44. Esan zion Saulek: Jaungoikoak ezarri dezala nire gañera bere zuzentasunaren gogortasun guztia, baldin zu, o Jonatas, illa izaten ez bazera.

45. Eta esan zion erriak Sauli: Beraz Jonatas, salbatu duena Israel era ain arrigarrian ilko bai al da? Esan ere ezin lezake onelako gauzarikan, Jauna bizitu dan bezela, ez da eroriko bere buruko ille bakar bat lurrera, zeren Jaunarekin ari da lanean gaur. Libratu zuen bada erriak Jonatas erioztatikan.

46. Eta alde egin zuen Saulek, eta etzituen persegitu Filistintarrak, eta ala Filistintarrak itzuli ziraden beren errietara.

47. Eta Saul, ikusi zuenean sendatua bere erreñua Israelen, gudatzen zan inguruko etsai guziakin, Moabekin, eta Ammonen semeakin, eta Edonekin, eta Sobako erregekin, eta Filistintarrakin. Eta itzultzen zan edozeñ tokitan, zan garailari.

48. Eta bildurik gudari talde bat, desegin zuen Amalek, eta atera zuen Israel bere ondatzalleen eskutik.

49. Eta Saulen semeak izan ziraden Jonatas, eta Jessui, eta Melkisua, eta bere bi alaben izenak, lenbisisortuaren izena Merob, eta txikiagoaren izena Mikol.

50. Eta Saulen emaztearen izena zan Akinoan Akimaasen alaba, eta bere ejerzituko agintari nagusiaren izena zan Abner, Nerren semea, Saulen lengusua.

51. Zeren Zis izan zan Saulen aita, eta Ner Abnerren aita, Ablelen semea.

52. Gañerakoan Saulen denbora guzian izan zan gerra txit bizi bat Filistintarren kontra. Argatik ezagutzen zuenean Saulek gizon sendo, eta gudarako gai zanen bat, artzen zuen berarekin.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Samuelek Sauli: Jaunak bidaldu ninduen unjitzeko zu erregetzat Israelko bere erriaren gañean, aditu ezazu bada orain Jaunaren boza.

2. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Gogoan ditut Amalekek Israelen kontra egin zituen gauza guziak, nola jarki zitzaion bidean Ejiptotikan igotzen zanean.

3. Zoaz bada orain, eta zauritu ezazu Amalek, eta desegin ezazu duen guzia, etzaiozu barkatu, eta ez ezazu ere iduki bere gauzetatikan baten ere gurarik; baizik il ezazu gizonagandik emakume, eta aur, eta titiko, bei, eta ardi, gamelu, eta astorañoakoa.

4. Eta ala Saulek agindu zion erriari, eta zenbatu zituen arkumeak bezela: berreun milla oñazko, eta amar milla gizon Judako.

5. Eta etorririk Saul Amaleken erriraño, jarri zituen zelatadak errekan.

6. Eta esan zion Saulek Zineoari: Zoazte, alde ezazute, eta berezitu zaitezte Amalekgandikan, noaski naasi etzaitzadan berakin batean. Zeren zu urrikaritu ziñan Israelko seme guziakin igotzen ziradenean Ejiptotik. Eta alde egin zuen Zineoak Amaleken artetik.

7. Eta Saulek zauritu zuen Amalek Hebilatik Surrera allegatu artean, zeñ dagoan Ejiptoko mugaurkean.

8. Eta atxitu zuen bizirik Agag Amalekgo erregea, eta irago zuen ezpataren puntatik erri guztia.

9. Baña Saulek, eta erriak gorde zituzten Agag, eta artalderik eta beitalderik ongienak, eta jantzigaiak, eta ariak eta ederra zan guzia, eta etzizutzen galdu nai izan. Zatarra eta mezpreziogarria zana, ori desegin zuten.

10. Orduan Jaunak itz egin zion Samueli, eta esan zion:

11. Damu det Saul errege egiña, zeren utzi nau, eta ez ditu egitez bete nire itzak. Eta atsekabetu zan Samuel, eta Jaunari deadarrez ari zan gau guztian.

12. Eta jaikirik Samuel gauaz, joateko Saulgana goizean, gaztigua emana izan zitzaion Samueli, Saul etorri zala Karmelora, eta jaso zuela beretzat ganuztai bat, eta itzulirik, irago eta jetxi zala Galgalara. Etorri zan bada Samuel Saulgana, eta Saul ari zan eskeñtzen doña Jaunari, Amalektik ekarri zituen gauza arrapatuen lenbizietatik.

13. Eta allegatu zanean Samuel Saulgana, esan zion Saulek: Jaunak bedekatua izan zaitezela zu, bete det Jaunaren itza.

14. Eta esan zuen Samuelek: Eta ze abereen boz da au nire belarrietan ots egiten duena, eta beiena ni aditzen nagoana?

15. Eta erantzun zuen Saulek: Amalektik ekarri zituzten, zeren erriak barkatu zien ardietatik eta beietatik ongienari zure Jaun Jainkoari eskeñtzeko; gañerakoa berriz il genduen.



16. Eta Samuelek esan zion Sauli: Eman zadazu baia, eta adiraziko dizut Jaunak gau onetan esan didana. Eta esan zion: Esan ezazu.

17. Eta esan zuen Samuelek: Ziñanean txikitxoia zure begietan, ez al ziñan izan egiña Israelko tribuen buru?

18. Eta Jaunak bidaldu zinduen lan onetara, esaten zuela: Zoaz, eta il itzatzu Amalekgo pekatariak, eta gudatuko zera beren kontra arras desegin artean.

19. Zergatik bada ez dezu aditu Jaunaren boza, baizik itzuli zera ebasketara, eta egin dezu gaitza Jaunaren begietan?

20. Eta esan zion Saulek Samueli: Bai aitzitik aditu det Jaunaren boza, eta ibilli naiz Jaunak bidaldu ninduen bidetik, eta ekarri det Agag Amalekgo erregea, eta il ditut Amalektarrak.

21. Baña erriak artu zituen arrapatu zanetik ardiak eta beiak, illak izan ziradenen lenbiziak bezela, eskeñtzeko bere Jaun Jainkoari Galgalan.

22. Eta esan zuen Samuelek: Jaunak nai al ditu doña eta eskeñtzak, eta obekiago ez al obeditu dezakiola Jaunaren bozari? Zeren obeagoa da obediencia, eskeñtzak baño, eta irakaskoia izatea, arien gantza eskeñtzea baño obekiago.

23. Zeren jarkitzea, da aztin bekatua bezelakoa; eta gezurrezko jainkoak adoratzten dituztenen gaiztakeria bezelakoa, oben ez egitea. Jaunaren itza bota dezulako bada, bota zaitu Jaunak izan etzaitzen errege.

24. Eta esan zion Saulek Samueli: Bekatu egin det, autsi dedalako Jaunaren agintea, eta zure itzak, erriaren beldur izanaz, eta obediturik beren bozari.

25. Baña orain erregututzen dizut geiteraman dezazula nire bekatua, eta itzuli zaitte nerekin, adoratu dezadan Jauna.

26. Eta esan zion Samuelek Sauli: Ez naiz itzuliko zurekin, zeren bota dezu Jaunaren itza, eta bota zaitu Jaunak izan etzaitzen errege Israelen gañean.

27. Eta itzuli zan Samuel joateko; ark berriz eldu zion kaparen ertzetik, zeñ urratu zan.

28. Eta esan zion Samuelek: Jaunak urratu eta zugandikan berezitu du gaur Israelko erreñua, eta eman dio zure lagun urko, zu baño obekiago bati.

29. Eta Israelen garaitza zor zaion Jaun hurak, ez dizu barkatuko, ez da ere onekin damutuko, zeren ez da damuaren premia duen gizon bat.

30. Eta ark esan zuen: Bekatu egin det, baña orain onratu nazazu nere erriko zarren aurrean, eta Israelen aurrean, eta itzuli zaitte nerekin, adoratu dezadan zure Jaun Jainkoa.

31. Itzulirik bada Samuel jarraitu zion Sauli, eta adoratu zuen Saulek Jauna.

32. Eta esan zuen Samuelek: Ekarri zadazute onara Agag Amalekgo erregea. Eta eraman zitzaizoten Agag, zeñ zegoan txit gizena, eta ikara. Eta esan zuen Agajek: Beraz onela berezitu nau guzitik eriotza mingoitze batek?

33. Eta esan zuen Samuelek: Nola zure ezpatak utzi zituen semerikan gabe ainbeste andre, ala zure ama andreen artean geldituko da semerikan gabe. Eta Samuelek zaitu zuen Galgalan Jaunaren aurrean.

34. Gero joan zan Samuel Ramathara, eta Saul igo zan bere etxera Gabaan.

35. Eta etzuen Samuelek berriz ikusi Saul bere bizitza guztian. Alaire Samuelek negar egiten zuen Saulgatik, Jaunari damutu zitzaiolako, jarria Saul erregetzat Israelen gañean.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Jaunak Samueli: Noizarteraño negar egingo dezu zuk Saulgatik, bota nuen ezkeroz nik, agindu ez dedan Israelen gañean? Bete ezazu olio zure adarra, eta atoz, bidaldu zaitzadan Isai Belengoagana, zeren bere semeetatik ornitu naiz errege batekin.

2. Eta esan zuen Samuelek: Nola joango naiz? Zeren adituko du Saulek, eta ilko nau. Eta esan zuen Jaunak: Artuko dezu zure eskuan txal bat beitaldetikan, eta esango dezu: Etorri naiz Jaunari doña eskeñtzera.

3. Eta ots egingo diozu Isairi eskeñtzera, eta nik erakutsiko dizut zer egingo dezun, eta igortziko dezu nik adirazten dizudana.

4. Egin zuen bada Samuelek, Jaunak agindu zion bezela. Eta etorri zan Belenera, eta miraritu ziraden erriko zarrak, eta irtenik bidera, esan zioten: Pakea bai al dakazu?

5. Eta erantzun zuen: Pakea dakart, Jaunari doña eskeñtzera etorri naiz; santutu zaitetze, eta atozte nerekin eskeñi dezadan doña. Santutu zituen bada Isai eta bere semeak, eta ots egin zien eskeñtzera.

6. Eta sartu ziradenean, ikusi zuen Eliab, eta esan zuen: Jaunaren aurrean bai al dago bere igortzia?

7. Eta esan zion Jaunak Samueli: Etzaiozu begiratu bere aurkeari, ez bere tallu altuari, zeren bota det, zergatik ez det nik juzgatzen gizonaren begietan agertzen danetikan: zeren gizonak ikusten du agirian dagoana, Jaunak berriz ikusten du biotza.

8. Eta ots egin zion Isaik Abinadabi, eta eraman zuen Samuelen aurrera. Zeñak esan zuen: Au ere ez du autu Jaunak.



9. Eta ekarri zuen Isaik Samma, zeñgatik esan zuen: Ez da au ere ez du autu Jaunak.

10. Onenbesterekin eraman zituen Isaik bere zazpi semeak Samuelen aurrera, eta esan zion Samuelek Isairi: Ez du Jaunak autu oietatikan bate-re.

11. Eta esan zion Samuelek Isairi: Ez al dezu semerik geiago? Berak erantzun zuen: Oraindikan bada beste txiki bat, eta artzantzan dago. Eta esan zion Samuelek Isairi: Bidaldu ezazu norbait bere billa, eta ekarri ezazu zeren ez gera eseriko jateko, bera onara etorri artean.

12. Bidaldu zituen bada, eta ekarri zuen. Zan berriz bekartsua, eta aurke galantekoa, eta arpegi ederrekoa. Eta esan zuen Jaunak: Jaiki zaitte, igortzi ezazu, zeren bera da.

13. Artu zuen bada Samuelek oliodun adarra, eta igortzi zuen bere anaien erdian. Eta egun artatikan aurrera Jaunaren Espiritua zuzendu zan Dabidgana, eta jaikirik Samuel, joan zan Ramathara.

14. Baña Jaunaren Espirituak alde egin zuen Saul gandik, eta espiritu gaizto batek oñazkatzen zuen, Jaunaren baimenarekin.

16. Baldin zuk, gure Jauna, agintzen badezu, aurrean dauzkazun serbitzariak billatuko dute arpa jotzen dakian gizon bat, Jaunak laketzen duenean espiritu gaiztoak oñazkatu zaitzala, jo dezan bere eskuarekin, eta gutxiago sentitu dezazun.

17. Eta esan zion Saulek bere serbitzariari: Billatu zadazute bada neri ongi jotzen duen bat, eta ekarri zadazute.

18. Eta erantzun zion bere morroietatik batek, esaten zuela: Nik ikusi det Isai Belengoaren seme bat jotzen dakiana, galai errutsua, eta gudarako txit gaia, izketan begiratua, eta aurke galantekoa, eta Jauna da berarekin.

19. Bidaldu zituen bada Saulek mandatariak Isaigana, esaten zutela: Bidaldu zadazu zure seme Dabid, zure abereakin dagoana.

20. Artu zituen bada Isaik ogiz zamatutako asto bat, eta pegar bete ardo, eta antxume bat, eta bidaldu ziozkan Sauli bere seme Dabiden eskuz.

21. Eta etorri zan Dabid Saulgana, eta jarri zan bere aurrean. Eta Saulek artu zion txit amorio andia, eta egin zuen bere ezkutari.

22. Eta Saulek bidaldu zituen mandatariak esatera Isairi: Bego Dabid nerekin, zeren arkitu du grazia nere begietan.

23. Espiritu gaiztoak bada oñazkatzen zuenean Saul Jaunaren baimenarekin, Dabidek artzen zuen arpa, eta jotzen zuen bere eskuarekin; eta

gozatzen zan Saul, eta zerbait ongitzen zan, zeren alde egiten zuen bera-gandik espiritu gaiztoak.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Filistintarrak berriz bildurik bere soldadu taldeak gudarako, elkar-tu ziraden Judako Sokon, eta jarri zituzten etzauntzak Soko eta Azekaren artean, Dommingo mugetan.

2. Saul eta Israelko semeak ere bilduta, etorri ziraden Terebintoko ibarrera, eta gertutu zuten beren soldautegia Filistintarren kontra guda-tzeko.

3. Eta Filistintarrak zeuden etzauntzetan mendi baten gañean alda-men batetikan, eta Israel zegoan beste mendi baten gañean beste alda-menetik, eta ordeka bat zegoan beren artean.

4. Eta atera zan Filistintarren etzauntzetatik gizon zentoi bat, Goliath zeritzana, Jethkoa, zituena luzeeran sei beso eta arra bat.

5. Eta zekarren bere buruan kobrezko kapela bat, eta zegoan jantzi-ta loarika ezkatatu batekin, eta bere loarikaren pisua zan bost milla siklo kobrezko;

6. Eta bernazakietan zeduzkan kobrezko bernazatoak, eta estalitzen zituen bere sorbaldak kobrezko ezkutu batekin.

7. Eta bere lanzaren kirtena zan eulen eunsubilla bezelakoa, eta bere lanzaren burniak zeuzkan seireun siklo burni, eta bere ezkutaria zijoa bere aurretik.

8. Eta jarririk zutik ari zan deadarrez aupadaka Israelko gudarien kontra, eta esaten zioten: Zergatik atera zerate gertuak gudarako? Ez al naiz ni Filistintarra, eta zuek Saul mendekoak? Autu ezazute zuetatik norbait, eta jetxi bedi gudatzera nerekin gorputzez gorputz.

9. Nerekin gudatuko al balitza, eta ilko banindu, izango gera zuen mendekoak, baña baldin nik garaitu eta ilko banu, zuek izango zerate gure mendekok, eta serbituko gaituzute.

10. Eta esaten zuen Filistintarrak: Ni gaur aupadaka ari natzaiotek Israelko gudari taldeai, esaten diedala: Betor onara gizon bat, eta gudatu bedi nerekin gorputzez gorputz.

11. Eta adituta Saulek eta Israeltar guztiak Filistintarraren onelako itzak, gelditzen ziraden arrituak, eta txit beldur ziraden.

12. Eta Dabid zan Judako Belengo Efrat-tar baten semea, zeñaen gañean itz egin dan goian, Isai zeritzanarena, zeñak zituen zortzi seme, eta zan gizon zar, eta edade andienetatikoa Saulen denboran.



13. Eta bere iru seme nagusiagoak jarraitu zioten Sauli gerrara, eta gerrara joan ziraden iru semeen izenak, Eliab lenbizi sortua, Abinadab bigarrena, eta Samma irugarrena.

14. Eta Dabid zan txikiena. Nola bada jarritu zioten Sauli iru nagusiagoak,

15. Dabidek utzi zion Sauli, eta itzuli zan Belenera bere aitaren abereak bazkatzera.

16. Agertzen zan bada Filistintarra goiz ta arratsalde, eta ala jarraitu zuen berrogei egunean.

17. Isaik berriz esan zion bere seme Dabidi: artu ezazu anaiantzat garagar iriñaren ephi bat, eta amar ogi oiek, eta zoaz arin zure anaiakgana etzauntzetara.

18. Eramango ere diozkazu amar zumitz gazta oiek agintariari, eta ikusiko dituzu zure anaiak, ongi ote dauden, eta jakin ezazu nolako lagunakin dauden.

19. Eta Saulek, eta berak eta Israelko semeak ari ziraden gudan Filistintarren kontra Terebintoko ordekan.

20. Jaiki zan bada goiz Dabid, eta agindu zion bati abereak zaitzeko. Eta joan zan zamatuta, Isaik agindu zion bezela. Eta allegatu zan Magalako tokira eta soldautegiarenera, zeñ aterarik gudara ari zan aupadaka gudarako.

21. Zeren Israelek zuzendu zituen bere gudariak, eta Filistintarrak zeuden onezkeroz gertuak beste aldamenetikan.

22. Dabid bada utzirik ekarri zuen guzia gordetzalle baten kontura bagakien artean, joan zan arin gudako tokira, eta galdetzen zuen, nola zeuden bere anaiak, eta ongi ote zeuden.

23. Eta oraindikan izketan ari zala berakin onen gañean, agertu zan gizon zentoi hura, Goliath zeritzana, Jethko Filistintar, Filistintarren kanpora ateratzen zana, eta nola esaten zituen itz aiek berak, aditu zituen Dabidek.

24. Eta Israeltar guztiak, ikusirik gizon au, iges zuten bere aurretik, txit bere beldur ziradela.

25. Eta Israeltarretatik batek esan zuen: Ez al dezute ikusi atera dan gizon ori? Israeli aupadak egitera atera da. Gizon hura iltzen duenari bada emango diozka erregek ondasun andiak, eta emango dio bere alaba emaztetzat, eta bere aitaren etxeak ez du izango Israelen kotizikan.

26. Eta itz egin zien Dabidek berarekin zeuden gizonai, esaten ziela: Zer emango diote Filistintar au il, eta Israelko lotsaria kentzen duenari?

Zeren, zeñ da Filistintar zirkunzidatu gabeko, Jaungoiko biziaren gudari taldeai aupadaka ari dan au?

27. Eta erriak esaten zizkion Dabidi itz oiek berak: Oiek emango dizkiote iltzen duen gizonari.

28. Eta besteakin izketan ikusi zuenean Eliab bere anaia nagusiak, aserretu zan Dabiden kontra, eta esan zion: Zertara etorri aiz onara, eta zertarako utzi dituk eremuan ardi gutxi aiek? Ezagutzen ziat nik ire arrokeria, eta ire biotzeko gaiztakeria, etorri aizala guda ikustera.

29. Eta erantzun zion Dabidek: Zer egin det? itz bat baño geiago al da au?

30. Eta alde egin zuen piska bat beragandik beste batgana joateko, eta esan zituen itz aiek berak. Eta jendeak erantzun zion len bezala.

31. Eta adituak izan ziraden Dabidek esan zituen itzak, eta adiraziak Saulen aurrean.

32. Zeñgana eramana izanik, esan zion Dabidek: Ez bedi desalaitu iñoren biotza beragatik, ni zure serbitzaria joango naiz, eta gudaduko naiz Filistintarraren kontra.

33. Eta esan zion Saulek Dabidi: Ezin jarki zenezakioke zu Filistintar orri, ezta ere gudatu beraren kontra, zeren oraindikan gaztea zera zu, au berriz da gerra gizona bere gazte denboratikan.

34. Eta esan zion Dabidek Sauli: Ari zan artzantzan zure serbitzaria bere aitaren ardi taldea zaitzen, eta etortzen zan leoi bat, edo artz bat, eta arapatzen zuen ari bat artaldearen erditikan.

35. Eta ni nijoan beren ondoren, eta iltzen nituen, eta kentzen nien beren aotik, eta berak jaikitzen ziraden nere kontra, eta nik eltzen nien matrallezurretatik, eta ito, eta iltzen nituen.

36. Nik zure serbitzari onek il nituen leoi bat, eta artz bat: Filistintar zirkunzidatu gabeko au ere bada izango da beretatik bat bezela. Joango naiz orain, eta kenduko det erriaren lotsaria, zeren, zeñ da Filistintar zirkunzidatu gabeko, Jaungoiko biziaren gudari taldea madarikatzen ausartatu dan au?

37. Eta gañera esan zuen Dabidek: Leoiaren eskutik eta artzaren eskutik atera ninduen Jaunak, berak libratuko nau Filistintar onen eskutik. Eta Saulek esan zion Dabidi: Zoaz, eta Jauna izan dedilla zurekin.

38. Eta Saulek jantzi ziozkan Dabidi, bere soñekoak, eta jarri zion bere buruaren gañean kobrezko kapela bat, eta jarri zion loarika bat.

39. Eta jarri zuenean Dabidek Saulen ezpata gerrian bere soñekoan gañean, asi zan probatzen ibilli ote zakean ala armatuta, zeren etzegoan



oitua. Eta esan zion Dabidek Sauli: Ezin onela ibilli naiz, zeren ez det usantzarik. Eta utzi zituen.

40. Eta artu zuen bere zaimakilla, bere eskuetan beti zeramana, eta autu zituen errekatik bost arri txit garbi, eta bota zituen berarekin zeukan artzai zorroan, eta artu zuen abailla eskuan, eta joan zan Filistintarraren kontra.

41. Eta Filistintarra bazetorren, eta alderatzen zan Dabidganontz, eta bere aurretikan bere ezkutaria.

42. Eta begiratu zionean Filistintarrak, eta ikusi zuenean Dabid, mezipreziatu zuen. Zeren zan gazte bekartsu eta eder bat.

43. Eta esan zion Filistintarrak Dabidi: Zakurren bat naukala uste al dek, makillarekin niganatzeko? Eta madarikatu zuen Filistintarrak Dabid bere Jaungoikoak gatik.

44. Eta esan zion Dabidi: Atoz nigana, eta emango zetikatet ire aragiak zeruko egaztai eta lurreko aberei.

45. Eta esan zion Dabidek Filistintarrari: ator nigana ezpata, eta lanza eta ezkutuarekin; ni berriz natok igana ejerzituen Jaunaren izenean, Israelko Jaungoikoaren gudari taldeenean, zeñai aupadaka ari aizen gaur.

46. Eta Jaunak jarriko au nire eskuetan, eta ilko aukat, eta kenduko dikat ire burua igandikan, eta emango diozkaket gaur, etzauntzetan dauden Filistintarren gorputz illak zeruko egaztai eta lurreko aberei, jakin dezan lur guztiak, badala Jaungoikoa Israelen.

47. Eta ezagutu beza batzarre guzti onek, Jaunak salbatzen duela ezpata ez lanzarekin, zeren berak nai duenari irabazi erazitzen dio gerra, eta jarriko zaituzte gure eskuetan.

48. Jaiki zanean bada, eta etorri eta alderatu Dabiden kontra, arin gertutu zan Dabid, eta korrika joan zan Filistintarraren kontra.

49. Eta sartu zuen bere eskua zorroan, eta atera zuen arri bat, zeñ aurtiki zuen aballarekin, eta erabillirik jiran, jo zuen Filistintarra kopetan, eta arria gelditu zan inkatua bere kopetan, eta erori zan lurrean bere arpegiaren gañean.

50. Eta garaitu zuen Dabidek Filistintarra aballarekin, eta arriarekin, eta zaurituta ill zuen. Eta nola Dabidek etzuen ezpatarik erara,

51. Joan zan korrika, eta jarri zan Filistintarraren gañean, eta kendu zion ezpata, eta atera zuen magitikan, eta il zuen, eta ebaki zion burua. Eta ikusi zutenean Filistintarrak illa beren artean errutsuena, iges zuten.

52. Eta jaikitzen ziradela Israelko eta Judakoak, asi ziraden deadarrez, eta zijozzen kanibetatuaz ibarrera allegatu arteraño, eta Akarongo ateta-

raño; eta erori ziraden zaurituta Filistintar asko Saraingo bidetik eta Jeth eta Akaronraño.

53. Eta itzulirik Israelko semeak persegitu ezkerro Filistintarrak, arrapatu zuten bere etzauntzetan zegoan guzia.

54. Eta arturik Dabidek Filistintarraren burua, eraman zuen Jerusalem, eta jarri zituen huraren armak bere etzauntzetan.

55. Eta ikusi zuenean Saulek ateratzen zala Dabid Filistintarren kontra, denbora berean, galdetu zion Abner bere gudariaren agintariari: Abner, zeñ familiatatik du jatorria gazte onek? Eta Abnerrek erantzun zuen: Juramentu egiten det zure bizia gatik, o errege, ez dakidala.

56. Eta esan zuen erregek: Galdetu ezazu zuk, zeñaen semea dan gazte ori.

57. Eta itzuli zanean Dabid Filistintarra il ezkerro, eraman zuen Abnerrek, eta jarri zuen Saulen aurrean, bere eskuan zuela Filistintarraren burua.

58. Eta esan zion Saulek: zeñ familiatakoea zera, o gaztea? Eta erantzun zuen Dabidek: Ni naiz zure serbitzari Isai Belengoaren semea.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan bukatu zuenean Saulekin itz egitea. Jonatasen anima itsatsi zitzaion txit sendoki Dabiden animari, eta maitetu zuen Jonatasek bere anima bezela.

2. Eta iduki zuen Saulek berarekin egun artatikan, eta etzion utzi joaten bere aitaren etxera.

3. Eta Dabid ta Jonatasek egin zuten elkertasuna, zeren maitatzen zuen bere anima bezela.

4. Zeren kendu zuen Jonatasek jantzita zeukan tunika, eta eman zion Dabidi, baita gañerako bere soñekoak ere, bere ezpata, eta tiraztai, eta soinarrerañoakoea ere.

5. Ateratzen ere zan Dabid Saulek bialtzen zuen gauza guzietara, eta ibilli oi zan zentzuarekin, eta jarri zuen Saulek gizon gudari batzuen agintari, eta zan erri guziaren gogokoa, eta batezere Saulen morroiarena.

6. Itzultzen zanean bada Dabid Filistintarra zaurituta, atera ziraden Israelko erri guzietako emakumeak, bidera irtetzen ziotela Saul erregeari, kantatzen zutela, dantzari ziradela, eta adirazten zutela beren poza pandero eta dirdabaiaekin.

7. Eta kantatzen zuten emakumeak dantzari egin eta esaten zutela: Saulek il ditu milla, eta Dabidek amar milla.



8. Eta txit aserretu zan Saul, eta higindu zuten itz oiek, eta esan zuen: Eman zizkioten Dabidi amar milla, eta niri eman zizkidaten milla, zer besterik bear du, erreñua bakarrik baño?

9. Egun artatik aurrera bada etzion begiratuten Saulek Dabidi begi onakin.

10. Beste egun batean gertatu zan espiritu gaiztoa, Jainkoak ala nairik, jabetzea Saulekin, zeñ zebillan bere jauregian zorabiatuta bezela. Dabidek jotzen zuen arpa bere aurrean, beste egunetan bezela. Eta nola zuen Saulek eskuan lanza bat,

11. Aurtiki zuen Dabiden kontra, usterik paretari inkatua utziko zuela, baño Dabidek alderazi zion gorputzari bi alditan, eta libratu zan otsetik.

12. Eta Saul zan Dabiden beldur; Jauna berarekin zegoalako, eta alde egin zuelako Saulgandik.

13. Saulek bada urrutitu zuen beragandik, eta egin zuen milla gizonen agintari, eta ateratzen zan eta sartzen erriak ikusten zuela.

14. Bere ibillera guzietan agertzen zuen Dabidek zentzu andia, eta Jaunak laguntzen zion.

15. Ikusi zuen bada Saulek zala txit zurra, eta asi zan bere bildur izaten.

16. Baña Israel eta Juda guziak maitatzen zuen Dabid, zeren bera sartzen zan eta ateratzen zan beren aurrean.

17. Eta esan zion Saulek Dabidi: Ona emen non dezun Merob nere alaba andiagoa, bera emango dizut emaztetzat, baño izan bearko zera gizon sendoa, eta gudatu Jaunaren gerretan. Saulek berriz esaten zuen bere artean: Ez det nik il bear, baizikan Filistintarrak izan ditezela iltzen dutenak.

18. Eta Dabidek erantzun zion Sauli: zeñ naiz ni, edo nolakoak izan da nire bizitza, edo nolakoak nere aitaren aideak Israelen, erregeren suia izatera allegatzeko?

19. Eta allegaturik denbora zeñean Merob Saulen alaba eman bear zitzaion Dabidi, emana izan zitzaion emaztetzat Hadriel Molathtarra.

20. Mikol Saulen beste alabak berriz artu zion oniritzia Dabidi. Eta esana izan zitzaion Sauli, eta ongi iritzi zion.

21. Eta esan zuen Saulek: Emango diot, beraren bitartez galdu dedin, eta il dedin Filistintarren eskuz. Eta ala esan zion Saulek Dabidi: Bi gauza gatik izango zera gaur nere suia.

22. Eta eman zioten Saulek aginte au bere jauregikoai: itz egin zaiozute Dabidi nik ez baneki bezela, eta esan zaiozute: Zu zaude erregeren

oniritzian, eta bere serbitzari guztiak maitatzen zaituzte. Orain bada izan zaite erregeren suia.

23. Eta Saulen serbitzariak esan zituzten itz guzti oiek Dabiden belarrietan. Eta esan zuen Dabidek: Gauza erraza bai al deritzatzute izatea erregeren suia, batezere izanik ni beartua, eta jatorri beeratukoa?

24. Eta adirazi zioten Sauli bere serbitzariak, esaten zutela: Onelako itzak esan ditu Dabidek.

25. Eta Saulek esan zuen: Esan zaiozute Dabidi: Ez du ergek dotearen bearrik bere alabarentzat, bakarrik eskatzen dizkitzu Filistintar zirkunzidatu gabekoen eun buru, onela bengatzeko bere etsai. Baña Saulek nai zuen jarri Dabid Filistintarren eskuetan.

26. Eta Saulen morroiak adirazi ziozkatenean Dabidi Saulek esan zituen itzak, gustatu zitzaion Dabidi erregek eskatzen ziona bere suia izatera allegatzeko.

27. Eta egun batzuen ondoren jaikirik Dabid, joan zan bere agindura zeuzkan gizonakin. Eta il zituen berreun Filistintar, eta eraman zituen beren buruak, eta zenbatuta eman ziozkan erregeri, izateko bere suia. Eta onenbesterekin eman zion Saulek emaztetzat bere alaba Mikol.

28. Eta ikusi zuen Saulek, eta ezagutu zuen Jauna zegoala Dabidekin. Eta Mikol Saulen alabak maitatzen zuen.

29. Eta Saul asi zan Dabidi beldur geiago idukitzen, eta Saul izan zan Dabiden etsaia egun guzietan.

30. Garai onetan atera ziraden gudara Filistintarren agintariak. Eta agertu ziraden unetik, Dabid ari oi zan bere lanean, Saulen serbitzari guztiak baño zurrango, eta egin zan txit ospetsua bere izena.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zion Saulek bere seme Jonatasi, eta bere morroi guziai, il zezatela Dabid. Baña Jonatas Saulen semeak txit maite zuen Dabid.

2. Eta adirazi zion Jonatasek Dabidi, esaten ziola: Nere aita Saul dabil zu il nairik. Ala erregututzen dizut, zaitu zaitezela biar, eta joan zaitezela toki bakar batera, eta ezkutatu zaite,

3. Zeren ni aterako naiz eta egongo nere aitaren aldean kanpoan, zu zauden edozeñ tokitan, eta nik itz egingo diot zugatik nere aitari. Eta adiraziko dizut ikusten dedan guzia.

4. Jonatasek bada itz egin zion bere aita Sauli Dabiden alde, eta esan zion: Ez ezazu pekatu egin, o erregea, zure serbitzari Dabiden kontra, zeren berak ere ez du pekatu egin zure kontra, eta bere egiteak txit onak dirade zuretzat.



5. Berak jarri zuen bizia irriskurik andienean, eta il zuen Filistintarra. Onenbesterekin eman zion Jaunak garaipen andi bat Israel guziari. Zuk ikusi zenduan, eta pozez bete ziñan. Zergatik bada nai dezu orain bekatu egin, isurtzen dezula odol obengabea, iltzen dezula Dabid, zeñ dagoan erru gabetanik?

6. Aditu zuenean au Saulek, biguñdurik Jonatasen itzakin, juramentu egin zuen: Jaungoikoa bizi dan bezela, etzaio bizia kenduko.

7. Ots egin zion bada Jonatasek Dabidi, eta adirazi ziozkan itz guzi oiek, eta Jonatasek sartu zuen Dabid Saulgana, eta egon zan bere aldean len bezela.

8. Asi zan berriz gerra bat, eta aterarik Dabid, gudatu zan Filistintarren kontra. Eta egin zuen beretan galmen andi bat, eta iges zuten bere aurretik.

9. Eta espiritu gaiztoak esetsi zion Sauli, Jaunak ala nairik. Bera bada zegoan eseria bere etxean, eta zeukan lanza bat, eta Dabidek jotzen zuen bere eskuarekin.

10. Eta Dabid arpa jotzen ari zala Saulen aurrean, aurtiki zuen Saulek lanza, Dabid paretean inkatzeko. Baña Dabidek zeartuta iges egin zion otsari, eta lanza, Dabid zauritu gabe joan zan pareta jotzera, eta Dabidek bereala iges zuen, eta libratu zan gau artan.

11. Eta Saulek bidaldu zituen bere gordetzalleak Dabiden etxera, zaitu zezaten, eta illa izan zedin goizean. Adirazirik au Dabidi Mikol bere emazteak, esaten ziola: Jartzen ez baldin bazera seguruan gaurko gabean, biar ilko zera.

12. Jatxi zuen beera leio batetikan, eta bera joan zan, eta iges zuen, eta salbatu zan.

13. Eta Mikolek artu zuen tallu bat, eta jarri zuen oearen gañean, eta ipiñi zion bere buruan auntz baten larru illetsu bat, eta estali zuen soñekoakin.

14. Bidaldu zituen bada Saulek zaidiak arrapatzeko Dabid, eta erantzuna izan zitzaioten eria zegoala.

15. Eta berriz bidaldu zituen mandatariak Saulek, ikusi zezaten Dabid, esaten zuela: Ekarri zadazute onara oean, illa izan dedin.

16. Eta etorri ziradenean mandatariak, arkitu zuten tallua oearen gañean, eta auntzaren larrua ingurutua bere buruan.

17. Eta esan zion Saulek Mikoli: Zergatik onela burla egin didazu, eta utzi diozu nere etsaiari iges egiten? Eta erantzun zion Mikolek Sauli: Zeren berak esan zidan: Utzi nazazu, bestela ilko zaitut.

18. Eta Dabid iges eginda, salbatu zan, eta etorri zan Samuelgana Ramathan, eta adirazi ziozkan, Saulek egin ziozkan gauza guziak. Eta joan ziraden bera eta Samuel, eta bizitu ziraden Naiiothen.

19. Eta gastigua emana izan zitzaion Sauli, eta esan zioten: Ona non Dabid dagoan Ramathako Naiiothen.

20. Bidaldu zituen bada Saulek zaidiak arrapatzeko Dabid, zeñak ikusirik profeta talde bat, profetizatzen ari zala, eta Samuel zala beren zuzentzallea, etorri zan beren gañera ere Jaunaren espiritua, eta berak ere asi ziraden profetizatzen.

21. Eta adirazi zitzaiotenean au Sauli, bidaldu zituen beste mandatariri batzuek ere, eta oiek ere profetizatu zuten. Eta berriz irugarren aldiz bidaldu zituen Saulek mandatariak: zeñaek ere berebat profetizatu zuten. Eta orduan txit aserretuta Saul,

22. Joan zan bera ere Ramathara, eta etorri zan Sokon dagoan urpetegi andiraño, eta galdetu zuen, esaten zuela: Zeñ tokitan daude Samuel eta Dabid? Eta erantzuna izan zitzaion: Ramathako Naiiothen daude.

23. Eta joan zan Ramathako Naiiothera, eta Jaunaren espiritua etorri zan beraren gañera ere, eta bazijoan bidean profetizatuaz, Ramathako Naiiothera allegatu zan bitartean.

24. Eta berak ere utzi zituen bere soñekoak, eta profetizatu zuen besteakin Samuelen aurrean, eta erori zan billosik egun guzi artan eta gauean. Emendikan esangia: Saul ere Profeten artean bai al da?

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta Dabidek iges egin zuen, Ramathan dagoan Naiiohtikan, eta etorririk Jonatasen aurrera, esan zion: Zer egin det? Zeñ da nere gaiztakeria, eta zeñ zure aitaren kontra egin dedan bekatua, ibiltzeko neri bizia kendu nairik?

2. Zeñak erantzun zion: Ez egiazki, etzera ilko, zeren nere aitak ez du egingo gauza andirik ez txikirik lendanaz neri adirazi gabetanik. Au bakarrik izango al da neri ezkutatuko didana? iñolaere ez da au ala izango.

3. Eta berriz juramentu egin zion Dabidi. Eta ark esan zuen: Ongi daki zure aitak arkitu dedala grazia zure begietan, eta esango du: Ez beza jakin au Jonatasek, naigabetu ez dedin. Zeren juramentu egiten dizut Jau-nagatik eta zure biziagatik, pausu bat bakarra dagoala (ala esateko) nigan-dikan eriotzara.

4. Erantzun zion Jonatasek Dabidi: Egingo det zuek esaten didazu guzia.



5. Esan zion Dabidek: Begira ezazu, biar dirade kalendak, eta ni oi bezela eseri oi naiz jateko erregeren aldean. Utzi nazazu bada joaten ezkutazera kanpoan irugarren egunaren arratsalderaño.

6. Zure aitak galdetzen baldin badu nigatik, erantzungo diozu: Erregutu zidan Dabidek utzi nenkiola joaten arin Belen bere errira, zeren bere tribuko guziak eskeñtzen dute an doañ ospetsu bat.

7. Esango baldin balu: Ongi da, ez det zertan beldurrik iduki izango, baña aserretuko balitza, jakin ezazu bere borondate gaiztoa niganako alle-gatu dala gorengo mallara.

8. Egin zaiozu bada mesede au zure serbitzari oni, nai izan zenduan ezkeron nik, zure morroe bat izan arren, egin nezala zurekin elkartasun, Jaunaren izenarekin egindako juramentuarekin sendatua. Eta baldin arkituko balitza nigan gaistakeriarik, il nazazu zerorrek, eta ez nazazu eraman zure aitaren aurrera.

9. Eta esan zuen Jonatasek: Ez ezazu onelakorik gertatuko zaitzun beldurrik iduki, zeren ezin lezake allegatzen banaiz ni ziertoro ezagutzera, nere aitaren gorrotoa zukanako allegatu dala gorengo mallara, zuri adirazi gabe utzitea.

10. Eta erantzun zion Dabidek Jonatasi: Nork adiraziko dit neri, zure aitak nere kontra erantzura garratza emango balizu?

11. Eta erantzun zion Jonatasek Dabidi: Atoz, eta atera gaitezen kanpora. Eta aterarik biak kanpora,

12. Esan zion Jonatasek Dabidi: Israelko Jaun Jainkoa, baldin nik jakingo banu biar edo etzi nere aitaren iritzia, eta balego Dabiden onerako gauzaren bat, eta bidalduko ez banu bereala norbait esatera eta jakin erazitza,

13. Etzaiozu egin, o Jauna, gauza onik Jonatasi, baizikan aski gaitz. Baña baldin iraungo balu nere aitaren borondate gaiztoak zure kontra, adiraziko ere dizut, eta utziko dizut joaten pakean, eta Jauna izan dedilla zurekin, izan zan bezela nere aitarekin.

14. Eta baldin ni biziko banintza, egingo dezu nerekin Jaunaren errukia, ilko baldin banintza berriz,

15. Idukiko dezu beti errukia eta ongi tratatuko dezu nere familia, Jaunak deserrotzen dituanean banan banan lurraren gañetik Dabiden etsai guziak. Bestela egingo banu, kendu beza Jaunak Jonatas bere etxetik, eta eskatu beza Jaunak Dabiden etsaien eskutik.

16. Jonatasek bada egin zuen elkartasuna Dabiden etxearekin; eta Jaunak artu zuen Dabiden etsaien benganza.

17. Eta Jonatasek egin zion Dabidi juramentu berri au zion amorio-agatik, zeren nola bere anima, ala maitatzen zuen.

18. Eta esan zion Jonatasek: Biar kalendak dirade, eta sentituko dute zure falta.

19. Zeren ikusiko da utsa zure esertokia etziraño. Jatxiko zera bada arin, eta joango zera astegunean ezkutatu bear dezun toki huratara, eta eseriko zera, Ezel deritzan arriaren aldean.

20. Eta nik botako ditut bere ondora iru saeta, eta aurtikiko ditut jomugan ariko banintza bezela.

21. Eta bidalduko ere det morroe bat, eta esango diot: oa, eta ekarri zazkidak saietak.

22. Esango banio nik mutillari: Begiratu ezak, saietak zeaudek i auden baño onontzago, artu itzak, zu etorri zaite nigana, zeren pakea dago zuretzat, eta ez dago gaitzik batere, Jaungoikoa dan bezela. Baña baldin esango banio mutillari: Begiratu ezak, saietak zeaudek i auden baño arontzago, zoaz pakean, zeren Jaunak utzi dizu joaten.

23. Zuk eta nik esan degun itzaren gañean berriz, Jauna izango da lekuko beti nere eta zure bitartean.

24. Ezkutatu zan bada Dabid kanpoan, eta etorri ziraden kalendak, eta eseri zan erregea ogia jateko.

25. Eta eseri zanean erregea bere esertokian (oi bezela) zeñ zegoan paretaren aldean, jaiki zan Jonatas, eta eseri zan Abner Saulen aldean, eta utsa agertu zan Dabiden tokia.

26. Eta etzuen ezer esan Saulek egun artan, zeren uste zuen noaski gertatu izango zaiola ez egotea garbia, ez txautua.

27. Eta allegaturik kalendak iragota bigarren eguna, agertu zan berriz utsa Dabiden tokia. Eta esan zion, Saulek bere seme Jonatasi: Zergatik ez da etorri jatera ez atzo, ez gaur Isairen semea?

28. Eta erantzun zion Jonatasek Sauli: Erregu txit andiak egin zizkidan, utzi nizaiola Belenera joaten.

29. Eta esan zuen: Utzi zadazu joaten, zeren eskeñtza ospetsu bat da nere errian. Nere anaietatik batek otsegin dit: orain bada arkitu badet grazia zure begietan, joango naiz arin, eta ikusiko ditut nere anaiak. Gauza augatik ez da etorri erregerekin jatera.

30. Aserreturik orduan Saul Jonatasen kontra, esan zion: Gizaseme billa zeabillan andrearen semea, ez al ziaikit nik maite dekala Isairen semea, ire lotsarirako, eta ire ama galostuaren lotsarirako?



31. Zeren Isairen semea lurraren gañean bizi dan egun guzietan ez aiz i egongo segurik, ez ire erreñua ere. Ala bada oraintxe bidaldu ezak bere billa, eta ekarri ezak nigana, zeren illa izan bear dik.

32. Eta Jonatasek erantzuten ziola bere aita Sauli, esan zuen: Zergatik ilko da? Zer egin du?

33. Eta eldu zion Saulek lantzari trabesatzeko Jonatas berarekin. Eta ezagutu zuen Jonatasek, bere aitak zeukala erabagita, iltzea Dabid.

34. Jaiki zan bada Jonatas maitik aserre eta sumintasunez betea, eta etzuen jan ogirik kalenden bigarren egun onetan. Zeren tristetu zan Dabidgatik, eta bere aitak desonratu zuelako.

35. Eta argitu zanean beste eguna, joan zan Jonatas kanpora, Dabidekin elkartuta gelditu zan bezela, eta eraman zuen berarekin mutil gazte bat.

36. Eta esan zion bere morroiari: Oa, eta ekarri zazkidak botatzera nijoakan saietak. Eta joanik korrika mutilla, bota zuen beste saieta bat hura zegoan baño aurrerago.

37. Allegatu zan bada mutilla, Jonatasek aurtiki zuen lenbiziko saietaren tokira, eta deadar egin zuen Jonatasek bere ondoren, eta esan zuen: Begiratu ezak, saieta zeagoala i baño aurrerago.

38. Eta Jonatasek berriz deadar egin zuen mutillaren ondoren, esaten zuela: ibilli adi arin, ez adi gelditu. Bildu zituen bada mutillak Jonatasen saietak, eta eraman ziozkan bere nagusiari.

39. Baña etziekian iñolaere, zer egiten zan, zeren bakarrik Jonatasek eta Dabidek ziekiten gauza huraren berri.

40. Eman ziozkan bada Jonatasek bere armak mutillari, eta esan zion: Oa, eta eraman itzak errira.

41. Eta joan zanean mutilla, atera zan Dabid Egoera begira zegoan bere tokitikan, eta makurturik lurreraño, egin ziozkan iru agur, eta musu emanik bata besteari, negar egin zuten batean, baño Dabidek geiago.

42. Eta esan zion Jonatasek Dabidi: Zoaz pakean. Biok juramentuarekin eskiñi degun guzia Jaunaren izenean, esaten degula: Jauna lekuko izan bedi zure artean eta nere artean, nere jatorriaren eta zure jatorriaren artean betiko...

43. Eta jaiki zan Dabid eta joan zan; Jonatas berriz sartu zan errian.

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Eta etorri zan Dabid Nobera Akimelek apaizagana, eta arritu zan Akimelek, etorri zalako Dabid. Eta esan zion: Zergatik zatoz zu bakarrik, eta iñor ez zurekin?

2. Eta esan zion Dabidek Akimelek apaizari: Erregek eman zidan aginte bat, eta esan zidan: Ez dezala iñork jakin zergatik bidaldu zaitudan, eta nolako aginteak eman dizkizudan. Argatik esan diot nere jendeari ere itxedon didala onelako eta alako tokian.

3. Orain bada ezer badezu erara, bost ogi bederik, eman zazkidazu, edo arkitzen dezun odezeñ gauza.

4. Eta erantzuten ziola apaizak Dabidi, esan zion: Ez det erara ogi elizkerik, baizikan bakarrik ogi santua, garbiak ote daude zure morroiak, batezere emakumeetatik?

5. Eta erantzun zion Dabidek apaizari, eta esan zion: Egiazki, emakumeak aipatzen badirade, garbi gaude atzo eta erainegundik, atera giñan ezker eta mutillen gorputzak iraun dute orbanikan gabe. Egiazki bide au irrizkukoa da, baño bera ere santutua izango da gaur ontzietan.

6. Eman zion bada apaizak ogi santutua. Zeren etzegoan an beste ogirik, baizik proposizioko ogi, kendu zituztenak Jaunaren aurretik, beste bero batzuek jartzeko.

7. Bazan berriz an egun artan Saulen serbitzariatatiko gizon bat Jaunaren Tabernakuloaren barrenen, eta zeritzan Doeg Idumeatarra, Saulen artzaietatik nagusiena.

8. Eta esan zion Dabidek Akimeleki: Lanza bat, edo ezpata bat bai al dezu emen erara? Zeren ez ditut nerekin ekarri ez nere ezpata, ez nere armak. Zeren erregeren aginteak estututzen zuen.

9. Eta esan zion apaizak: Ona emen non dezun Goliat Filistintarren ezpata, zeñi kendu ziñion bizia Terebintoko ordekan, dago bildua oial batean efodaren atzean: baldin eraman nai badezu, artu ezazu. Zeren emen ez dago besterik au baño. Eta esan zuen Dabidek: Ez dago besterik berau bezelakorik, indazu.

10. Jaiki zan bada Dabid, eta iges egin zuen egun artan Saulen aurretik, eta joan zan Akis Jethko erregeagana.

11. Eta Akisen morroiak ikusi zutenean Dabid, esan zioten beren nagusiari: Ez al da au Dabid lurreko erregea? Ez al da au hura, zeñi kantatzen zioten dantzetan, esaten ziotela: il zituen Saulek milla, eta Dabidek amar milla?

12. Dabidek berriz jarri zituen bere biotzean itz oiek, eta Akis Jethko erregearen txit beldur izan zan.

13. Eta itzuli zuen bere arpegia beren aurrean, eta erortzen zan bere eskuetan, eta ematen zizten otsak buruarekin atei, eta erortzen zitzaion istua kokotzetik.



14. Eta esan zien Akisek bere morroiak: ikusi dezute gizon txoro au, zertarako ekarri dezute nigana?

15. Ez al degu emen txororikan, ekartzeko zuek au txorakeriak egite-
ra nere aurrean? Au sartuko al da nere etxean?

OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Onenbesterekin atera zan Dabid andikan, eta iges egin zuen Odo-
llango kobara. Eta aditu zutenean au bere anaiak, eta bere aitaren etxe
guziak, jatxi ziran beragana ara.

2. Eta bildu ziran beragana estutasunean zeuden guztiak, eta zorrez
beteak, eta biotz mingoitzauek, eta eginzan (sic) beren agintari, eta iduki
zituen berarekin lareun gizon bezelatsu.

3. Eta joan zan andikan Dabid Masfara, zeñ dagoan Moabko lurrian,
eta esan zion Moabko erregeari: Erregututzen dizut arren nere aita eta
nere ama gelditu ditezela zuekin, jakin dezadan bitartean zer egingo duen
Jaungoikoak nerekin.

4. Eta utzi zituen Moabko erregearen kontura, eta egon ziraden
berarekin, Dabid gaztelu huratan egon zan denbora guzian.

5. Eta esan zion Gad profetak Dabidi: Etzaite egon gaztelu orretan,
martxatu zaite eta zoaz Judako lurrera. Eta joan zan Dabid, eta etorri zan
Haretko basora.

6. Eta aditu zuen Saulek agertu zala Dabid, eta berarekin zeuden
gizonak. Eta nola Saul zegoan Gabaan, eta arkitzen zan Raman dagoan
baso batean, eskuan zuela lanza bat, eta bere serbitzari guziak ingurutzen
zutela,

7. Esan zien laguntzen zioten bere serbitzariak: Aditu nazazute orain,
Benjaminen semeak, Isairen semeak emango bai al dizkizute zuei guzioi
kanpoak, eta mastiak, eta egingo bai al zaituzte zuek guziok tribunoak eta
zenturionak,

8. Zeren guziok jaiki zerate nere kontra, eta ez dago zerbait adiraz-
ten didanik, batezere nere semea bera elkartu danean Isairen semearekin?
Ez dago zuen artean nor penatzen dan nere egoerarekin, ez nork eman
neri gaztiguren bat, nere semeak jaso duen ezkerre nere kontra nere ser-
bitzari bat, zeñ gaurko eguneraño ari dan neri zelatadak jartzen.

9. Erantzun zuen orduan Doeg Idumeara, aurrean zegoanak, eta
Saulen serbitzarien artean lenbizikoa zanak, eta esan zuen: Nik ikusi nuen
Isairen semea Noben Akimelek apaiz Akitoben semearekin.

10. Zeñ itundu zan Jaunarekin beragatik, eta eman ziozkan bazkaor-
niak, eta eman ere zion Goliat Filistintarraren ezpata.

11. Bidaldu zituen bada erregeak mandatariak otsegiten Akimelek
apaiz Akitoben semeari, eta bere aitaren etxeko apaiz guzi, Noben zeu-
denai, zeñiak guziak etorri ziraden erregegana.

12. Esan zion orduan Saulek Akimeleki: Aizazu, Akitoben semea.
Zeñiak erantzun zuen: Zer nai du Jauna?

13. Eta esan zion Saulek: Zergatik jarri zerate nere kontra, zu eta Isai-
ren semea, eta eman ziñiozkan ogiak eta ezpata, eta itundu ziñan beraga-
tik Jaungoikoarekin, jaiki zedin nere kontra, irauten duela jartzen neri
zelatadak gaurko eguneraño?

14. Eta erantzuten ziola Akimelekek erregeari, esan zuen: Eta, zeñ da
zure serbitzari guzien artean Dabid bezin leiala, zure agintera dijoana, eta
ain argitsua zure etxean?

15. Gaur asi al naiz ituntzen Jaungoikoarekin beragatik? Urrutian au
nigandik, ez beza sospetxatu erregeak alako gauzarikan ez ni zure serbi-
tzariagatik, ez nere aitaren etxe guzia gatik, zeren zure serbitzariak lanbi-
de onen gañean ez du ezerere jakin, ez gutxi ez aski.

16. Eta esan zuen erregek: illa izan bear dezu Akimelek, zuk eta zure
aitaren etxe guziak.

17. Eta esan zien erregeak bere inguruan zeuden gordetzalleai: Eset-
si zaiezute, eta il itzatzute Jaunaren apaizak, zeren Dabidekin elkartuak
daude, zekitela igesi zijoala, eta etzidaten adirazi. Baña erregeren serbi-
tzariak etzituzten nai luzatu beren eskuak Jaunaren apaizen kontra.

18. Eta esan zion Doejeri erregeak: Esetsi zaiezu zuk, eta aurtiki zaite
Apaizen gañera. Eta esetsirik Doeg Idumeara, aurtiki zan apaizen
gañera, eta il zituen egun artan larogeita bost gizon liñozko Efadarekin
jantziak.

19. Eta irago zuen espataren puntatik Nobe apaiz erria, gizasemeak,
eta emakumeak, eta mutillak eta bularreko aurrak, eta idiak, eta astoak eta
ardiak.

20. Baña iges eginik Akimeleken Akitoben semearen seme batek,
zeñaen izena zan Abiatar, joan zan igesi Dabidgana.

21. Eta adirazi zion nola Saulek il erazi zituen Jaunaren apaizak.

22. Eta esan zion Dabidek Abiatharri: Ongi niekien nik egun artan,
egonik an Doeg Idumeara, adiraziko ziola Sauli: ni naiz zure aitaren
etxeko eriotza guzien errudun.

23. Gelditu zaite nerekin, etzaite beldur izan, iñork billatzen badu
nere bizia, billatuko du zure bizia ere, eta nerekin izango zera zaitua.



OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta eman zioten gaztigua Dabidi, esaten zutela: Begira ezazu Filistintarrak ingurutua dutela Zeila, eta arrapatzen dituzte larrañetako uztak.

2. Itundu zan bada Dabid Jaunarekin, esaten zuela: Aterako ote naiz Filistintar oien kontra, eta garaitu alko ote ditut? Eta erantzun zion Jaunak Dabidi: Zoaz, zeren garaituko dituzu Filistintarrak, eta libratuko dezu Zeila.

3. Eta Dabidekin zeuden gizonak, esan zioten: Badakizu nola gu egonik emen Judean, gauden beldurrarekin, zenbat geiago joango bagiña Zeilara Filistintarren martizdien kontra?

4. Dabid berriz itundu zan Jaunarekin. Zeñak erantzuten ziola, esan zion: Jaiki zaitte, eta zoaz Zeilara, zeren nik jarriko ditut Filistintarrak zure eskuan.

5. Joan zan bada Dabid, eta bere jendea Zeilarontz, eta gudatu zan Filistintarren kontra, eta eraman zituen bere abereak, eta egin zuen bere-tan eriotte andia, eta salbatu zituen Dabidek Zeilan bizi ziradenak.

6. Baña Abiathar Akimeleken semeak Dabidgana Zeilara iges egiten zuen denboran, joan zan zeramala berarekin efoda.

7. Eta gaztigua eman zitzaioten Sauli nola Dabid etorri zan Zeilara, eta esan zuen Saulek: Jaungoikoak jarri du nere eskuetan, eta arrapatua dago, sartu dan ezkeroz atea eta sarrallak dauden erri batean.

8. Eta agindu zion Saulek erri guziari jetxi zedilla Zeilara, eta ingurutzeko Dabid eta bere jendea.

9. Eta jakiñik Dabidek Saulek prestatzen zuela ixiltxorik bere galmena, esan zion Abiathar apaizari: Jarri ezazu efoda.

10. Eta esan zuen Dabidek: Israelko Jaun Jainkoa, zure serbitzariak aditu du esaten Saul prestatzen dala etortzeko Zeilara, desegiten erria nigatik.

11. Zeilako gizasemeak jarriko ote naute bere eskuetan? Eta, jaxkiko ote da Saul, zure serbitzariak aditu duen bezela? Israelko Jaun Janikoa (sic), adirazi zaiozu zure serbitzariari. Eta esan zuen Jaunak: Jaxkiko da.

12. Eta esan zuen Dabidek: Zeilako gizasemeak jarriko ote gaituzte ni eta nirekin dauden gizasemeak Saulen eskuetan? Eta esan zuen Jaunak: Jarriko zaituzte.

13. Jaiki zan orduan Dabid eta bere gizonak seireun bezelatsu, eta aterarik Zeilatik, zebiltzan orron egoleku ziertorikan gabe. Eta gaztigua emana izan zitzaion Sauli iges egin zuela Dabidek Zeilatikan, eta salbatu zala. Argatik irudierazi zuen Saulek etzala mugitzen.

14. Bitartean zegoan Dabid eremuan toki txit sendoetan, eta gelditu zan Zifko eremuko mendian, mendi igargikean; Saulek berriz billatzen zuen egun guzietan, eta Jaungoikoak etzuen jarri bere eskuetan.

15. Eta ikusi zuen Dabidek atera zala Saul berari bizia kentzeko asmoarekin. Baña Dabid zegoan Zifko eremuan baso batean.

16. Eta jaiki zan Jonatas Saulen semea, eta joan zan Dabidgana basora, eta sendatu zuen oroitu erazirik Jaungoikoaren eskeñtzak, eta esaten ziola:

17. Etzaitte beldur izan, zeren nere Aita Saulek ezin arrapatuko zaitu. Zu izango zera Israelko erregea, eta ni izango naiz bigarrena zure erreñoan, eta nere aita Saulek ere badaki au.

18. Egin zuten bada biak elkertasuna Jaunaren aurrean, eta Dabid gelditu zan basoan; Jonatas berriz itzuli zan bere etxera.

19. Igo zuten bada Ziftarrak Saulgana Gabaan, esaten zutela: Ez al dakizu ezkutatua dagoala Dabid gure artean basoko tokirik sendoetan, Hakilako muñoan, zeñ dagoan eremuaren eskuian?

20. Orain bada atxitu nai badezu, ez dezu etortzea baizik, eta gure kontura geldituko da erregeren eskuetan hura jartzea.

21. Eta esan zuen Saulek: Jaunak bedeikatuak izan zaitetzela zuek, bada errukitu zerate nere egoerarekin.

22. Zoazte bada eta artu itzatzute neurri guztiak, eta jakin ezazute marroz, eta begiratu non arkitu oi dan egotez, eta zeñak ikusi duen an, zeren ni narabil bere gogoan, ixiltxorikan jartzen diozkadalako zelatadak.

23. Aztertu eta begiratu itzatzute, bera estali oi dan ezkutatoki guziak, eta itzuli zaitetzte nigana gauza ongi jakinda, joan nadin zuekin. Zeren sartzen bada ere lurraren erraietan, ni joango naiz ara Judako millakada guziakin, eta aterako det.

24. Eta berak jaikitzen ziradela joan ziraden Zifera Saulen aurretikan, baña Dabid eta bereak zeuden Maongo eremuan, lauetan, Jesimonen eskuian.

25. Joan zan bada Saul bere jendearekin Dabiden billa, eta onen gaztigua emana izan zitzaion Dabidi, eta bereala jaxi zan aitzera, eta zebillan Maongo eremuan. Eta aditu zuenean au Saulek, persegitu zion Dabidi Maongo eremuan.

26. Eta bazijoan Saul mendiaren egitikan aldamen batetik; Dabid eta bere jendea berriz zeuden mendiaren egian beste aldamentetik. Eta Dabidek etzuen itxedopenik iges egiteko Saulen eskuetatik, zeren Saulek eta bereak zeukaten Dabid ingurututa bereakin aro baten gisara, arrapatzeko.



27. Eta etorri zitzaion Sauli mandatari bat, esaten ziola: Zabiltza arin, eta atoz, zeren Filistintarrak sartu dirade zure lurrean.

28. Itzuli zan bada Saul, utziten ziola persegitzea Dabid, eta joan zan Filistintarrari bidera irtetzera. Onegatik deitu zioten toki hurari Aitz bere-zitzailea.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Igo zan bada Dabid andikan, eta bizitu izan zan Engaddiko toki-rik sendoenetan.

2. Eta itzuli zanean Saul, Filistintarrak persegitu ezkerro, adirazi zioten esaten ziotela: Ona non Dabid dagoan Engaddiko eremuan.

3. Arturik bada Saulek iru milla gizon Israel guzitik autuak, joan zan Dabiden eta bere jendearen billa, aitzik goituenetara ere, nora basauentzako bakarrik igo daitezken.

4. Eta allegatu zan, bidean arkitu zituen saletxe batzuetara. Bazan an koba bat, non sartu zan Saul, sabela garbitzera, eta Dabid eta bereak zeuden ezkutatuak kobaren barrenen.

5. Eta esan zioten Dabidi bere morroiak: Ona emen eguna, zeñgatik esan zizun Jaunak: Nik jarriko det zure eskuetan zure etsaia, egin dezazun berarekin ongi deritzatzuna. Jaiki zan bada Dabid, eta sentitua izan gabe ebaki zuen Saulen mantuaren ertza.

6. Eta bereala kezkaz jarri zitzaion Dabidi bere biotza ebaki zuelako Saulen mantuaren ertza.

7. Eta esan zien bereai: Jauna izan bedi nerekin; ez dezadan egin onelako gauzarik nere jaunaren kontra, Jaunaren igortzi baten kontra, luzatzea nere eskua bere kontra, zeren bera da Jaunaren igortzia.

8. Eta iduki zituen geldirik Dabidek bereak bere itzakin, eta etzien laketu jaikitzen Saulen kontra. Eta Saulek irtenik kobatik, zerraikion asi zuen bideari.

9. Eta Dabid ere jaiki zan bere ondoren, eta irtenik kobatik, asi zan deadarrez Saulen solbardetatik, esaten zuela: Nere errege eta jauna. Eta Saulek itzuli zuen burua, eta makurturik Dabid lurreraño, adoratu zuen,

10. Eta esan zion Sauli: Zergatik aditzen dituzu Dabid zure gaitzaren billa dabilela, esaten duten gizonen itzak?

11. Ona non gaur ikusi duten zure begiak, Jaunak jarri zaituala nere eskuan koban, eta etorri zitzadan zu iltzeko gogorazioa, baña barkatu nai izan dizut. Zeren esan det: Ez det luzatuko nere eskua neure Jaunaren kontra, zeren Jaunak igortzia da.

12. Baizik obekiago, ene aita, ikusi eta ezagutu ezazu zure mantuaren ertza nere eskuan, eta nola ebaki dedanean zure mantuaren ertza, ez det nai izan luzatu nere eskua zure kontra. Ezagutu ezazu bada eta ikusi nola nere eskuan ez dagoan gaitzik, ez gaitzakeriarik, eta ez det ere bekatu-rik egin zure kontra; zu berriz zabiltza zelatadak jartzen nere biziari kentze-ko asmoarekin.

13. Juzgatu beza Jaunak nere artean eta zure artean, eta bengatu bedi Jauna nerekin zugatik, baña nik iñoizere ez det jarriko eskua zuegan.

14. Anziñako esankian ere esaten dan bezela: Gaiztoena da gaitzake-riak egitea: baña ez det iñoiz jarriko nere eskua zuegan.

15. Zeñ persegitzen dezu, o Israelko erregea? Zeñ persegitzen dezu? Persegitzen dezu txakur il bat, arkakuso bat.

16. Izan bedi juez Jauna, eta eman beza epaia nere artean eta zure artean, aztertu eta juzgatu dezala nere kausa, eta libratu natzala zure eskuetatik.

17. Eta Dabidek bukatu zituen Sauli esaten ziozkan itz oiek, esan zuen Saulek: Zurea bai al da boz au, nere seme Dabid? Eta altxatu zuen Saulek bere boza, eta negar egin zuen.

18. Eta esan zion Dabidi: Justoagoa zera zu ni baño, zeren zuk ez didazu egin ongi baño; nik berriz itzuli dizkitzut zuri gaitzak.

19. Eta zuk adirazi dituzu gaur neri egin dizkidazun gauza onak, nola jarri nuen Jaunak zure eskuan, eta ez didazu bizia kendu.

20. Zeren, zeñ da arkiturik bere etsaia, gaitzik egin gabe joaten utzi-ko diona? Baña Jaunak eman dizazula ordaña nerekin gaur egin dezuna-
gatik.

21. Eta orain txit ziertoro dakidan ezkerroz erreñatuko dezula, eta idukiko dezula zure eskuan Israelko erreñua,

22. Juramentu egin zadazu Jaunagatik; ez dezula desegingo nere jato-
rria nere ondoan, eta ez dezula ere kenduko nere izena nere aitaren etxetik.

23. Eta juramentu egin zion Dabidek Sauli. Eta onenbesterekin joan zan Saul bere etxera, eta Dabid ta bereak igo ziran toki seguruagoetara.

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta il zan Samuel, eta bildu zan Israel guztia, eta negar egin zuten beragatik, eta obiatu zuten bere etxean Ramathan. Eta jaikirik Dabid jatsi zan Farango eremura.

2. Eta bazan gizon bat Maongo eremuan, zeukana bere hazienda Karmelon, eta gizon au zan txit aberatsa, eta zeuskan iru milla ardi, eta



milla auntz. Eta gertatu zan, denbora artan moistzea bere abere taldea Karmelon.

3. Eta gizon onen izena zan Nabal, eta bere emaztearen izena Abigail. Eta zan andre hura txit zurra eta ederra, baña bere senarra zan gizon gogor, txit gaizto, eta malmutsa, eta zan Kaleben jatorrikoa.

4. Aditu zuenean bada Dabidek eremuan Nabalek moistzen zuela bere aberetaldea,

5. Bidaldu zituen amar mutil, eta esan zioten: igo zaitzete Karmelora, eta joan zaitzete Nabalen etxera, eta agur egingo diozute modu onarekin nere izenean.

6. Eta esango diozute: Pakea izan bedi nere anaiakin, eta zurekin, eta pakea zure etxean, eta pakea dituzun gauza guzietan.

7. Aditu det ardiak moisten ari diradela zure artzai, gurekin zeudenak eremuan. Ez diegu iñoizere eman atsekaberik, eta etzaie ere iñoiz ezerere faltatu abereetatik, Karmelon gurekin egon diraden denbora guzian.

8. Galdetu zaiezu zure morroiak eta adirazizo dizute. Orain bada arkitu bezate grazia zure serbitzariak zure begietan, zeren egun onean gatoz. Eman zaiezu zure serbitzariak eta zure seme Dabidi erara dezuna.

9. Eta allegatu ziradenean Dabiden mutillak, esan ziozkaten Nabali itz guzi oiek Dabiden izenean, eta ixildu ziraden.

10. Nabalek berriz erantzun zien Dabiden mutillak, eta esan zien: Zeñ da Dabid? Eta, zeñ da Isaien semea? Gaur ugaritu dirade, beren jabeak-gandik igesi dijoazen mendekoak.

11. Artuko bai al det orain nere ogia, eta nere ura, eta moistzalleentzat ill arazi ditudan ardien aragia, eta emango bai al diot, nongoak diraden ez dakidan gizon batzuei?

12. Itzuli ziraden bada Dabiden mutillak beren bidetik, eta allegatuta kontatu ziozkaten, Nabalek esan zitzen itz guziak.

13. Orduan esan zien Dabidek bere mutillak: Jarri beza bakoitzak bere ezpata gerrian, eta Dabidek ere jarri zuen gerrian bere ezpata, eta jarraitu zioten Dabidi lareun gizonak bezelatsu, eta berreun gelditu ziran bagakietan.

14. Eta eman zion gaztigua Abigail Nabalen emazteari bere morroietatik batek, esaten ziola: Jakin ezazu, Dabidek bidaldu dituala mandatarik batzuek emateko zoriona gure nagusiari, eta berak ez die begiratu ere.

15. Gizon oiek txitez onak izan dirade guretzat, eta ez gogaikarriak, eta ez da beñere ezer galdu, berakin eremuan egon giñan denbora guzian.

16. Murrutzat serbitzen ziguten bai gauaz eta bai egunaz, beren artean artaldeak bazkatzen ibilli giñan egun guztietan.

17. Argatik begiratu ezazu eta oartu zaitte zer egingo dezun, zeren zorigaitz andi batek erori bear du aurki zure senarraren gañean, eta zure etxearen gañean, eta gure nagusia da Belialen seme bat, alako moduan non iñork ezin itzik egin dizaioke.

18. Au adituta, Abigailek artu zituen bereala berreun ogi, eta zagü bi ardo, eta bost ari egosiak, eta grano txigortuzko bost neurri, eta eun bildura maspassa, eta piko legortuzko berreun ogi, eta jarri zituen astoen gañean.

19. Eta esan zien bere morroiak: Zoazte nere aurretik, bada nik jarraituko dizutet ostetik; bere senar Nabali berriz etzion ezer adirazi.

20. Igorik bada asto baten gañera, eta jetxitzen zala mendiaren egira, arkitu zituen Dabid eta bere jendea zetoztela beraganontz, zeñak irten zien berai bidera.

21. Eta esan zuen Dabidek: Egiazki ondo alperrik zaitu det, onek eremuan zeukan guztia, eta ez da galdu berea zan gauzarikan batere, eta itzuli dit gaitza onagatik.

22. Tratatu bitza Jaunak gogortasun guztiarekin Dabiden etsaiak, juramentu egiten dedan bezela nik, ez dedala utziko emendikan biarrera bizirik Nabalena danik batere, ezta txakur bat bederik.

23. Eta Abigailek ikusi zueneko Dabid bereala jatsi zan astotik, eta auzpezturik Dabiden aurrean bere arpegiaren gañean, agur andi bat egin zion lurrean.

24. Eta erori zan bere oñetara, eta esan zuen: Nere gañera betor, ene Jauna, gaiztakeria au, bakarrik erregututzen dizut utzi dizaiozula zure menpeko oni itz egiten zuri, eta aditu ditzatzula zure serbitzari onen itzak.

25. Erregututzen dizut, errege ene Jauna, ez zatzakiola malmetitu Nabali, gizon gaiztakin orri, zeren bere izenaren araura zentzungabeko bat da, eta zentzungabetasuna berarekin da; nik berriz zure serbitzari onek ez nituen ikusi, ene Jauna, bidaldu ziñituen zure morroiak.

26. Orain bada, ene Jauna, bizi da Jaungoikoa eta bizi da zure anima, bada Jauna da galerazi dizuna isuritzea odola, eta gelditu dizu eskua. Orain bada izan ditezela Nabal bezela zure etsaiak, eta gaitz egin nai diotenak nere Jaunari.

27. Argatik artu ezazu, zure serbitzariak zuretzat ene Jauna ekarri duen doañ au, eta eman zaiezu, zuri, nere Jauna, jarraitzen dizuten mutillak.

28. Barkatu zaiozu zure serbitzariari bekatu au; zeren ziertoro egingo du Jaunak zuretzat etxe iraunkor bat; zeren zu, ene jabea, gudatzen zera Jaunagatik, ez bedi bada arkitu zugan obenik batere, zure biziko egun guztietan.



29. Eta baldin iñoiz jaikiko balitza gizonen bat zu persegitzera, eta zuri bizia kendu nairik, izango da zaitu eta gordea nere Jaunaren anima, zure Jaun Jainkoaren aldean bizi diradenen lorapilla bezela, eta kontrara zure etsaien anima izango da birunkatu eta aurtikia bizitzatik, aballarekin botatako arria bezela.

30. Jaunak bada ematen dizkizunean, o nere jabea, zugatik lendanaz esanik dituen gauza on guziak, eta jartzen zaituenean agintari Israelen gañean,

31. Ez dezu idukiko zuk, ene jauna, odol obenikan gabea isuri izanaren, eta zu zurez bengatu izanaren biotzeko damu ta kezkarikan, eta Jaungoikoak onez betetzen zaituanean, oroituko zera, o nere jauna, zure serbitzariarekin.

32. Eta esan zion Dabidek Abigaili: Bedekatua izan dedilla Israelko Jaun Jainko, neri bidera irtetzera bidaldu zaituana, eta bedekatuak izan ditezela zure itzak,

33. Eta bedekatuja zu, galerazi didazuna gaur joatea odola isuritzera, eta bengatzera nere eskuz.

34. Bestela, juramentu egiten det Israelko Jaun Jainkoa gatik, zeñak galerazi didan zuri gaitz egitea, ez etorrienean zu ain laster neri bidera irtetzera, etzan ezer bizirik geldituko Nabalen etxean gaurtik biarrera, ez da txakur bat bederik.

35. Artu zituen bada Dabidek bere eskutik ekarri ziozkan gauza guztiak, eta esan zion: Zoaz ongi zure etxera, ikusten dezu egin dedala eskatu didazuna, eta egin dedala zure begirunez.

36. Eta Abigail itzuli zan Nabalana, eta ona non zuen bere etxean janedan bat, erregeren janedana bezelakoa, eta poz zan Nabalen biotza, zeren zegoan txit moskortua, eta etzion egin itzik txikirik ez andirik goizeraño.

37. Egunsentian berriz txegosi zuenean ardoa Nabalek, adirazi zion bere emazteak irago zana, eta izoztu zitzaion barrendik bere biotza, eta gelditu zan arri bat bezela.

38. Eta irago ziradenean amar egun, zauritu zuen Jaunak Nabal, eta il zan.

39. Eta jakiñik Dabidek il zala Nabal, esan zuen: Bedekatua izan dedilla Jauna bengatu nauena Nabalek egin zidan prestuekeriatikan, eta libratu zuena bere serbitzaria, egitera zijoan gaitzetik, eta erori erazi diona Nabalen gaistakeriari bere beraren buruaren gañera. Bidaldu zituen bada Dabidek mandatariak, eta itzezin zuten Abigailekin, Dabidek bere emaztetzat artzearen gañean.

41. Zeñ jaikita makurtu zan lurreraño, eta esan zuen: Ona emen zure serbitzari, menpeko bat izango dana, nere jaunaren serbitzariai oñak garbitzeko.

40. Eta Dabiden mandatariak etorri ziran Abigailana Karmelora, eta itz egin zioten, esaten zutela: Dabidek bidaldu gaitu zugana, artzeko berak zu bere emaztetzat.

42. Eta arin ibillirik jaiki zan Abigail, eta igo zan asto baten gañera, eta joan ziraden berarekin bost donzella bere neskame, eta jarraitu zien Dabiden mandatariak, eta etorri zan Dabiden emazte izatera.

43. Eta Dabidek gañera artu zuen Akinoam Jezraelgoa, eta biak ziraden bere emazteak.

44. Saulek berriz eman zion bere alaba Mikol, Dabiden emaztea Falti Laisen seme, Galimgoa zanari.

OGETA SEIGARREN KAPITULUA

1. eta etorri ziraden Ziftarrak Saulgana Gabaan, esaten zutela: Begira Dabid dagoala ezkutatua Hakilako muño, eremuaren aurkez dagoanean.

2. Eta jaiki zan Saul, eta berarekin Israelko iru milla gizon autu, billatzeko Dabid Zifko eremuan.

3. Eta Saulek jarri zituen bere etzauntzak Hatxilako Gabaan, zeñ dagoan eremuaren aurkez bidearen gañean, eta Dabid zegoan eremuan. Eta ikusirik etorria zala bere ondoren eremura,

4. Bidaldu zituen zelatariak, eta jakin zuen txit ziertoro allegatua zala ara.

5. Eta jaiki zan Dabid ixiltxorikan, eta joan zan saul zegoan tokira. Eta ikusirik tokia, zeñatan lo egiten zuen Saulek, eta Abner Nerren seme, bere martizdien agintariak, eta Saul zegoala lotan bere etzauntzean, eta bere inguruan gañerako jende guzia,

6. Esan zion Dabidek Akimelek Hetetarrari, eta Abisai Sarbiaren seme, Joaben anaiarenari: Nor jetxiko da nerekin Saulen etzauntzetara? Eta esan zuen Abisaik: Ni jetxiko naiz zurekin.

7. Joan ziraden bada Dabid eta Abisai jende huragana gauaz, eta arkitu zuten Saul etzinik eta lotan bere etzauntzean, eta lanza sarturik lurrean bere buruaren aldamenetik, eta Abner eta beste jendea lotan Saulen inguruan.

8. Eta esan zion Abisaik Dabidi: Jaungoikoak jarri du gaur zure eskuetan zure etsaia. Orain bada banoa jositzera lurrean lanzaren ots batekin, eta bigarrenaren premiarik ez da izango.



9. Baña Dabidek esan zion Abisairi: iñolaere ez ezazu il, zeren zeñak luzatuko du bere eskua, obenik gabe, Jaunaren igortziaren kontra?

10. Eta gañera esan zuen: Jaungoiko biziagatik juramentu egiten det, Jaunak iltzen ez badu, edo iltzen ez bada berez, edo galtzen ez bada guda-
ren batean,

11. Jaunaren laguntasunarekin ez dedala luzatuko nere eskua Jauna-
ren igortziaren kontra. Orain bada artu ezazu, bere oapuruan dagoan
lanza, eta ur ontzia; eta goazen.

12. Artu zuen bada Dabidek lanza, eta Saulen oapuruan zegoan ur
ontzia, eta joan ziraden. Eta etzan izan iñor ikusi zituenik, ez sentitu, eta
etzan ere iñor esnaatu (sic), baizik guziak zeuden lotan, zeren Jaunaren
logalea erori zan beren gañera.

13. Eta irago zanean Dabid beste aldamenera, eta gelditurik urrutian
mendiaren erpiñean, eta zegoala beren artean tokarte andi bat,

14. Deadar egin zien Dabidek jendeari, eta Abner Nerren semeari,
esaten zuela: Ez ote didazu erantzungo, Abner? Eta erantzuten ziola
Abnerrek, esan zion: Zeñ aiz i, deadarrez ari aizana, eta erregea atseka-
betzen dekana?

15. Eta esan zion Dabidek Abnerri: Ez al zera zu gizon sendoa? Eta,
zu bezelako beste bat bai al dago Israelen? Zergatik bada ez dezu zaitu
errege zure jauna? Bada sartu da erriko bat errege zure Jauna iltzera.

16. Ez da au kunplitzea, beartuta zaudena. Jaungoikoa dan bezela
diot, eriotzaren diña zeratela zuek zaitu ez dezutenok zuen jabea, Jaunak
igortzia. Orain bada begiratu ezazu non dagoan erregeren lantza, eta non
dagoan, bere oapuruan zegoan ur ontzia.

17. Eta ezagutu zuen Saulek Dabiden boza, eta esan zuen: Ez al da
zurea boz au, ene seme Dabid? Eta erantzun zuen Dabidek: Nere boza
da, errege ene jauna.

18. Eta esan zuen gañera. Zer gauza gatik nere jaunak persegitzen du
bere serbitzaria? Zer egin det? Edo zer gaitz arkitzen da nere eskuetan?

19. Aditu ditzatzula bada arren orain, erregututzen dizut, nere errege
eta jauna, zure serbitzariaren itzak, Jauna baldin bada igitzen zaituana nere
kontra, oniritzi bizaio doañ onen usaiari, baña gizonak baldin badirade,
madarikatuak izan bediz Jaunaren aurrean, aurtiki nautenak gaur bizi ez
nadin Jaunaren primezan, esaten dutela: Oa, eta serbitu itzak jainko arrotzak.

20. Orain bada ez bedi izan isuria lurrean nere odola Jaunaren
aurrean, atera dalako Israelko erregea arkakuso baten billa, joan oi dan
bezela eper baten ondoren mendietan.

21. Eta esan zuen Saulek: Bekatu egin det, itzuli zaitte, ene seme
Dabid, iñolaere ez dizut aurrerakoan gaitzik egingo, nere bizia izan dala-
ko gaur balio andikoa zure begietan, agiri da zeñ gaizki egin dedan, eta ez
ditudala jakin gauza txit aski.

22. Eta erantzun zuen Dabidek, esaten zuela: Ona emen erregeren
lanza, irago dedilla erregeren morroietatik bat eta eraman dezala.

23. Gañerakoan Jaunak sariztatuko du bakoitza bere zuzentasunaren
eta leialtasunaren araura, zeren Jaunak jarri zaitu gaur nere eskuan, eta ez
det nai izan luzatu nere eskua Jaunak igortzitakoaren gañera.

24. Nola bada zure bizia izan dan gaur estimatua nere begietan, ala
izan ere bedi nere Jaunaren begietan, eta libratu natzala berak edozeñe-
re naigabetatik.

25. Eta Saulek esan zion Dabidi: Bedeikatua izan zaitzela zu, ene
seme Dabid. Dударikan gabe egingo dituzu gauza andiak, eta andia izan-
go da zure eskua. Gero Dabid joan zan bere bidetik, eta Saul itzuli zan
bere etxera.

OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zuen Dabidek bere biotzean: Atzenean ere egunen
batean eroriko naiz Saulen eskuetan. Ez al zait obekiago iges egitea, eta
jartzea toki seguruan Filistintarren lurrean, galdu ditzan Saulek itxedope-
nak, eta utzi ditzaien ni billatzeari Israelko alderri guzietan? igesko det
bada bere eskuetatik.

2. Eta jaiki zan Dabid, eta joan zan bera, eta seireun gizonak berare-
kin Akis Maoken seme, Jethko erregeagana,

3. Eta bizitu izan zan Dabid Akisekin Jethen, bera eta bere jendea;
bakoitza bere familiarekin, eta Dabid bere bi emazterekin, Akinoam Jez-
raelekoa, eta Abigail Karmeloko Nabalen emaztea izan zanarekin.

4. Eta gaztigua eman zaioten Sauli, Dabidek iges zuela Jethera, eta
onenbesterekin etzuen Saulek berriz alegiñikan egin Dabid arrapatzeko.

5. Dabidek berriz esan zion Akisi: Baldin arkitu badet grazia zure
begietan, eman bekita tokia lur onetako errietatik batean bizitzeko an,
zeren zertarako egongo da zure serbitzaria zurekin errege errian?

6. Onenbesterekin Akisek eman zion egun artan Sizeleg; eta onega-
tik izan zan egiña Sizeleg Judako erregeena gaurko eguneraño.

7. Eta Dabid Filistintarren lurrean bizitu izan zan egunen zenbata,
izan zan lau illabete.



8. Zeñatan ateratzen zan Dabid bere jendearekin egitera irtaldiak Jesuri eta Jerziren gañera, eta Amalektarren gañera, zeren erri oietan bizi zan jendea anziñatik lur artan, Surreko bidetik Ejiptoko lurreraño.

9. Eta zauritzen zuen Dabidek lur guztia, utzi gabe bizirik gizasemerik, ez emakumerik, eta zeramazkiala berarekin, ardiak, eta idiak, eta astoak, eta gameluak, eta soñekoak, itzultzen zan, eta etortzen zan Akisgana.

10. Eta esaten zion Akisek: Zeñi esetsi diozu gaur? Erantzuten zion Dabidek: Jadaren egoe aldamenari, eta Jerameelen egoe aldamenari, eta Zeniren egoe aldamenari.

11. Dabidek etzuen utziten bizirik gizasemerik, ez emakumerik, etzietuen ere ekarten Jethera, esaten zuela: Ez dezatela gero itz egin gure kontra. Oiek egin zituen Dabidek, eta au zeukan erabagita; Filistintarren alde rrian bizitu izan zan denbora guztian.

12. Eta Akis Dabiden fiya zan, esaten zuela: Gaitz asko egin ditu Israelko bere erriaren kontra. Argatik geldituko da beti nere serbitzari egiñik.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan egun aietan, Filistintarrak biltzea beren martizdiak, gertutzeko gerran egiteko Israelen kontra, eta esan zion Akisek Dabidi: Jakin ezazu nerekin etorriko zerala gerrara zu eta zure jendea.

2. Eta erantzun zion Dabidek Akisi: Orain jakingo dezu zer egingo duen zure serbitzariak. Eta esan zion Akisek Dabidi: Eta nik jarriko zaitut nere buruaren gordetzalletzat egun guztietan.

3. Eta il zan Samuel, eta negar egin zuen beragatik Israel guztiak, eta lurpetu zuten Ramathan bere errian. Eta Saulek kendu zituen lurretik sorgintzalleak eta aztiak.

4. Eta bildu ziraden Filistintarrak, eta etorri ziran, eta jarri zituzten etzauntzak Sunamen, eta Saulek ere bildu zuen Israel guztia, eta etorri zan Jelboera.

5. Eta ikusi zituen Saulek Filistintarren etzauntzak, eta beldurdu zan, eta bere biotza txit izutu zan.

6. Eta itundu zan Jaunarekin, eta etzion erantzun ez ametzen bitartez, ez apaizen bitartez, ez profeten bitartez.

7. Eta esan zien Saulek bere morroiak: Billatu zadazute pithonen espiritua duen emakume bat, eta joango naiz beragana, eta galdetuko det bere bitartez. Eta esan zioten bere morroiak: Bada Endorren pithonen espiritua duen emakume bat.

8. Aldatu zuen bada bere soñekoa, eta artu zituen beste jantzi batzuek, eta joan zan bera eta bi gizaseme berarekin, eta allegatu ziran gauaz emakumearen etxera, eta esan zion: Aztiatu zadazu Pitongatik, eta egin ezazu agertu dakidala esaten dizudana.

9. Eta esan zion emakumeak: Ongi dakizu Saulek egin duen guztia, eta nola deserritu dituen lurretik sorgintzalleak eta aztiak, zergatik bada jartzen diozkazu zelatadak nere animari, kendu dizadaten bizia?

10. Eta juramentu egin zion Saulek Jaunagatik, esaten zuela: Jauna bizi dan bezela diot, ez zaitzula etorriko gauza augatik gaitzikan batere.

11. Eta esan zion emakumeak: Zeñi agertu eraziko diot zugana? Zeñak erantzun zuen: Samueli agertuerazi zaitozu nigana.

12. Eta ikusi zuenean emakumeak Samuel, egin zuen deadar andi bat, eta esan zion Sauli: Zergatik engañatu nazu? Zeren zu zera Saul.

13. Eta erregeak esan zion: Etzaita beldur izan, zer ikusi dezu? Eta esan zion emakumeak Sauli: ikusi ditut lurretik igotzen diraden jainkoak.

14. Eta esan zion Saulek: Zelakoa da bere irudia? Emakumeak erantzun zuen: igo da gizon zar bat, eta dago mantu batekin estalia. Eta aditu zuen Saulek Samuel zala, eta makurtu zan bere arpegiarekin lurra jotze- raño, eta agur andi bat egin zion.

15. Eta esan zion Samuelek Sauli: Zergatik galdu erazi didazu nere atsedena, agertu eragiten didazula? Eta esan zuen Saulek: Txit estutua nago; zeren Filistintarrak ari dirade gerran nere kontra, eta Jaungoikoak alde egin du nigandik, eta ez nau aditu nai izan, ez profeten bitartez, ez ametsez. Argatik ots egin dizut erakutsi dizadazun zer egingo dedan.

16. Eta esan zuen Samuelek: Zergatik galde egiten didazu, alde egin duen ezkeroz Jaunak zugandik, eta irago zure ielostariagana?

17. Zeren Jaunak egingo du zurekin, nik bere izenean adirazi nizuna. Kenduko du zure eskuetatik erreñua eta emango dio zure lagun urko Dabidi,

18. Etziñiolako obeditu Jaunaren bozari, eta etzenduelako ere egin nai bere aserrearen sumintasanak eskatzen zuena Amalektarren kontra. Gauza augatik egin dizu Jaunak gaur, sufritzen dezuna.

19. Eta gañera Jaunak jarriko zaituzte zu eta Israel Filistintarren eskuetan. Biar zu eta zure semeak egongo zerate nerekin, baita Israelko etzauntzak ere jarriko ditu Jaunak Filistintarren eskuetan.

20. Eta bereala Saul erori zan luze luze lurrean, izututa aditzean Samuelen itzak, eta zegoan indarrikan gabe, etzelako ezer jan egun guzi artan.



21. Emakume hura berriz sartu zan Saul zegoan tokian (zeñ zegoan txit genasia) eta esan zion: Ona non zure serbitzariak obeditu dion zure bozari, eta jarri det nere bizia irriskuan, eta aditu ditut esan dizkidazun itzak.

22. Orain bada aditu ezazu zuk ere zure serbitzariaren boza, eta jarriko dizut aurrean ogi mokadu bat, zuk janik sendatu zaitezzen, eta jarraitu dizaiokezun bideari.

23. Berak etzuen nai izan, eta esan zuen: Ez det jango. Baña bere morroiak eta emakumeak artara igitzen zuten, eta atzenez obena egiñik beren eskarietara, jaiki zan lurretik, eta eseri zan oe baten gañean.

24. Emakume hurak berriz bazuen etxean txal gizendutako bat, eta joan zan arin, eta il zuen, eta arturik iriña, oratu zuen, eta erre zituen legami gabeko ogi batzuek.

25. Eta jarri zituen guztiak Saulen eta bere morroien aurrean. Zeñak jan zutenean, jaiki ziran, eta ibilli ziran bidean gau guzi artan.

OGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Filistintarrak bada bildu zituzten beren martizdi guziak Afeken, baita Israelek ere jarri zituen etzauntzak, Jezrahelen zegoan iturriaren aldean.

2. Eta Filistintarren satrapak zijoazen euneko eta millako taldeetan; Dabid eta bereak berriz zijoazen ostean Akisekin.

3. Eta esan zioten Akisi Filistintarren agintariak: zer egiten dute emen hebreotar oiek? Eta erantzun zien Akisek Filistintarren agintariak: Ez al dezute ezagutzen Dabid, Saul Israelko erregea serbitu zuena, eta egun asko, edo urteetan nerekin dagoana, eta ez det iñoiz arkitu beragan gauza gaiztorikan batere, nigana irago zan egunetik gaurko eguneraño?

4. Eta aserretu ziran bere kontra Filistintarren agintariak, eta esan zioten: itzuli bedi atzera gizon au, eta egon bedi izentatu diozun tokian, eta ez bedi etorri gurekin gudara, gure kontra jarri ez dedin, guda asitzen degunean: zeren, zeñ beste modutara bigundu dezake bere jauna, gure buruakin baizik?

5. Ez al da au arako Dabid, zeñi kantatzen zioten dantzetan, esaten zutela: il zituen Saulek bere millak, eta Dabidek bere amar millak?

6. Ots egin zion bada Akisek Dabidi, eta esan zion: Jaungoikoa bizi dan bezela diot, zu zerala zuzena eta ona nere begietan, eta sartu zerala nere etzauntzetan, eta beretatikan atera zerala, gauza gaitzik nik arkitu gabe zukan, nigana irago ziñan egunetik gaurko eguneraño; baña etzera satrapen gogokoa.

7. Itzuli zaitte bada, eta ongi zoaz, mindu ez ditzatzun satrapen begiak.

8. Eta esan zion Dabidek Akisi: Zer egin ote det bada nik, eta zer arkitu dezu nigan zure serbitzari onegan, zure aurrean jarri nintzan egunetik gaurko eguneraño, ni ez joateko eta gudatzeko errege nere jaunaren etsaien kontra?

9. Eta erantzuten ziola Akisek esan zion Dabidi: Ongi dakit ona zerala zu nere begietan, Jaungoikoaren aingeru bat bezela; baña Filistintarren agintariak esan zuten: Ez da igoko gurekin gudara.

10. Argatik jaiki zaitte zu, eta zurekin etorri ziraden zure jaunaren serbitzariak, eta oraindik gaua dala jaikitzen zeratela, eta asiten danean egun sentia, zoazte.

11. Jaiki zan bada Dabid bere jendearekin oraindikan gaua zala, joateko goizean, eta itzultzeko Filistintarren lurrera, eta Filistintarrak igo ziraden Jezrahelera.

OGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta allegatu ziradenean Dabid eta bereak Sizelejera irugarren egunean, Amalektarrak egin zuten erasoera bat Sizelejera egoe aldamenetikan, eta arrapatu zuten Sizeleg, eta su eman zioten.

2. Eta katibu eraman zituzten ango emakumeak, txikienetik andienarañoak, baña etzuten batere il, baizik eraman zituzten berakin, eta bazijoazen beren bidean.

3. Allegatu ziradenean bada Dabid eta bereak errira, eta arkitu zutenean errea, eta beren emazteak eta beren semeak eta alabak katibu eramanak ziradela,

4. Altxatu zituzten beren bozak Dabidek, eta berarekin zegoan jendeak, eta negar egin zuten aliketa malkoak aitu ziozkaten bitartean.

5. Dabiden emazte biak ere, Akinoam Jezraeltarra, eta Abigail, Karmeloko Nabalen alarguna, izan ziraden katibu eramanak.

6. Eta txit tristetu zan Dabid, zeren erriak arrika egin nai zion, zeren bakoitzaren anima zegoan mingoitza beren seme eta alabak gatik; Dabid berriz sendatu zan bere Jaun Jainkoagan.

7. Eta esan zion Abiatar Akimeleken seme apaizari: Alderatu zadazu efoda. Eta alderatu zion Abiatarrek efoda Dabidi,

8. Eta itundu zan Dabid Jaunarekin, esaten ziola: Jarraituko ote diotet lapurtxo oiei, eta arrapatuko ote ditut, ala ez? Eta Jaunak erantzun zion: Jarraitu zaiezu, dudarikan gabe arrapatuko dituzu, eta kenduko diezu ostuta daramatena.



9. Joan zan bada Dabid bera, eta berarekin zeuden seireun gizonak, eta allegatu ziran Besorgo errekarano, eta beretatik batzuek aulduak gelditu ziraden.

10. Dabid bada eta lareun gizon joan ziraden aurrera, zeren gelditu ziran berreun, zeñak nola zeuden nekatuak, ezin zuten irago Besorko erreka.

11. Eta arkitu zuten kanpoan Ejiptotar gizon bat, eta eraman zuten Dabidgana, eta eman zioten jateko ogia, eta edateko ura,

12. Eta piko legorrezko ogi zati bat, eta maspasazko bi bildura. Zeñak jan zituenean, asnasa artu zuen, eta sendatu zan, zeren iru egunean eta iru gautan etzuen jan ogirik, ez edan urik.

13. Dabidek orduan esan zion: zeñena zera zu? Edo nongoa? Eta nora zoaz? Berak erantzun zuen: Ni naiz Ejiptoko mutil gazte bat, Amalektar baten menpekkoa: eta nere Jaunak utzi ninduen, orain iru egun dala eritzen asi nintzalako.

14. Zeren guk egin ginduen eraso bat Zerethiren egoe aldamentikan, eta Judarontz, eta Kaleben egoerontz eta su eman giñion Sizeleji.

15. Eta esan zion Dabidek: Eraman bai al nazakezu martizdi talde ori dagoan tokira? Berak erantzun zuen: Juramentu egin zadazu Jaungoikoa-gatik, ez nazula ilko, eta ez nazula ere jarriko nere jaunaren eskuetan, eta nik eramango zaitut martizdi talde ori dagoan tokira. Eta Dabidek juramentu egin zion.

16. Eta ijitoak zuzenduta Dabid,ona non arkitu zituzten zeudela etzinda lurrean kanpo guzitik, jaten eta edaten zutela, eta jai eguna bezela zelebratzen, Filistintarren eta Judako errian artu zituzten ebaspilla eta gauzak gatik.

17. Eta zauritu zituen Dabidek arratsalde artatik urrengo eguneko arratsalderano, eta etzuen igesik egin beretatik batek ere, baizik bakarrik lareun gazte, gameluetara igo zutenak. Oiek iges zuten.

18. Dabid bada egin zan, Amalektarrak eraman zuten guziaren jabe, eta kendu ziezten bere bi emazteak.

19. Eta etzan faltatu gauzarik, ez txikirik, ez andirik ez semeetatik, ez alabetatik, ez eraman zutenetik, eta ekarri zuen Dabidek, aiek arrapatu zuten guztia.

20. Eta artu zituen abere talde guziak, eta eleak, eta ibilli erazi zien bere aurretik, eta esan zuten: Oiek dirade Dabidek arrapatuak.

21. Etorri zan bada Dabid aulduta gelditu ziran, eta berari jarraitu ezin izan zioten berreun gizonak gana, zeñai agindu zien egoteko Besorko errekan, zeñak irten zitzaizkaten bidera Dabidi, eta berarekin zeto-

rren jendeari. Eta alderaturik Dabid berak gana, egin zien pakezko agurra.

22. Eta Dabidekin joan ziradenetik gizon gaizto eta biurri guziak, esan zuten: Etziradelako etorri gurekin, ez diegu emango arrapatu ditugun gauzetatik batere, baizik aski zaio bakoitzari bere emaztea eta semeak, oiek artzen dituztenean, bijoaz.

23. Baña Dabidek esan zion: Ez ezazute arren, nere anaiak, onelakorikan egin, Jaunak eman dizkigun gauzakin, berak zaitu gaituan ezkeroz, eta jarri dituen ezkeroz gure eskuetan, gure kontra eraso ziraden lapurtxo aiek.

24. Etzaituzte ere inork adituko itz onen gañean. Zeren ano berdiña izango du gudara dijoanak, eta bagakian gelditzen danak, eta berdiñean partituko dituzte.

25. Eta egin zan egun artan, eta aurrerako erabaki eta agindu zan, eta izan zan lege bat bezela Israelen gaurko egunerano.

26. Etorri zan bada Dabid Sizelejera, eta bidaldu ziozkaten doñak arrapatu zuenetik, Judako zar, bere alderagokoai, esaten ziela: Artu ezazute doñ au Jaunaren etsaia arrapatu diegunetik,

27. Zeudenai Bethelen, eta Ramothen egoerontz, eta Jetherkoai.

28. Eta Aroerkoai, eta Sefamothkoai, eta Estamokoai.

29. Eta Rakalkoai, eta Jeramealko errietakoai, eta Zeniko errietakoai.

30. Eta Aramakoai, eta Asango aintzirakoai, eta Atatxkoai.

31. Eta Hebrongoai, eta Dabid berekin bizitu izan zan toki aietan zeuden gañerakoai.

OGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Filistintarrak berriz gudan ari ziraden Israeltarrakin, eta iges egin zuten Israelkoak Filistintarren aurretik, eta erori ziraden illak Jelboeko mendian.

2. Eta Filistintarrak eraso zieten Sauli eta bere semeai, eta il zituzten Jonatas, eta Abinadab, eta Melkisia Saulen semeak,

3. Eta gudako pisu guztia zuzendu zan Saulgana, eta iritxi zuten ballestariak, eta gelditu zan, berak txit zauritua.

4. Eta esan zion Saulek bere ezkutariari: Atera ezak ire ezpata maginatikan, eta eman zadak estokada bat, allegatu ez ditezkan zirkunzidatu gabeko oiek, eta il ez nazakaten burlatzen ditukala nerekin. Baña ezkutariak etzuen egin nai, zeren zegoan txit izutua. Eta ala artu zuen Saulek bere ezpata, eta erori zan bere gañera.



5. Ikusi zuenean au bere ezkutariak, au da, illa zala Saul, erori zan bera ere bere ezpataren gañera, eta il zan berarekin.

6. Il zan bada egun artan Saul, eta bere iru semeak, eta bere ezkutaria, eta bere aldean zeuden gizaseme guztiak.

7. Ikusirik berriz Israelko gizon, ibarraren beste aldamenean zeudenak, eta Jordanen beste aldamenekoak, Israeltarrak iges egin zutela, eta Saul ta bere semeak illak ziradela, utzi zituzten beren erriak, eta iges egin zuten, eta etorri ziraden Filistintarrak, eta bizitu izan ziraden beretan.

8. Arkitu zanean biaramongo eguna, joan ziraden Filistintarrak, kentzera illai zeukatena, zeñaen artean arkitu zituzten Saul eta bere iru semeak zetzatela Jelboeko mendiaren gañean.

9. Eta ebaki zioten burua Sauli, eta kendu ziozkaten bere armak, eta bidaldu zuten albista Filistintarren erri guzietara adirazi zezaten garaipena ospearekin idoloen elizetan eta errietan.

10. Eta jarri zituzten bere armak Astarothen elizan, bere gorputza berriz eseki zuten Bethsango murruan.

11. Aduu zituztenean Jabes Galaadkoan bizi ziradenak, Filistintarrak Saulekin egin zituzten gauza guztiak,

12. Jaiki ziraden gizonik sendoen guztiak, eta ibilli ziraden gau guztian, eta artu zuten Saulen gorputz illa eta bere semeen gorputz illak Bethsango murrutik, eta etorri ziran Jabes Galaadkora, eta erre zituzten an.

13. Eta artu zituzten bere ezurrak, eta lurpetu zituzten Jabesko basoan, eta baru egin zuten zazpi egunean.

ERREGEEN BIGARREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Eta gertatu zan Saul il ezkeru, itzultzea Dabid Amalektarrak deseginda, eta egotea Sizelejen bi egunean.

2. Eta irugarren egunean agertu zan gizon bat, zetorrena Saulen etzauntzetatik soñeko urratuarekin, eta autsez burua estalita, eta allegatu zanean Dabidgana, etzin zan bere arpegiaren gañean, eta agur andi bat egin zion.

3. Eta esan zion Dabidek: Nondik zatoz? Eta berak erantzun zion: Israelko etzauntzetatik iges egin det.

4. Eta Dabidek galdetu zion: Zer da gertatu dana? Adirazi zadazu. Berak erantzun zuen: Erriak iges zuen gudatik, eta erriko asko erori ziraden eta il ziraden, baita Saul eta Jonatas bere semea ere il dirade.

5. Eta esan zion Dabidek berri au zekarkion gazteari: Nondik dakizu il dala Saul, eta Jonatas bere semea?

6. Eta erantzun zion berria zekarkion gazteak: Ustekabean etorri nintzan Jelboeko mendira, eta Saul zegoan etzinda bere lanzaren gañean; gurdia eta zaldidiak berriz alderatzen ziraden beragana,

7. Eta begiraturik berak atzerontz itzulita, eta ikusi nindueanean ots egin zidan. Eta erantzunik nik berari: Emen naiz.

8. Esan zidan: Zeñ zera zu? Eta esaten diot: Amalektarra naiz ni.

9. Eta berak esan zidan: Jarri zaite nere gañean, eta il nazazu, zeren antsiaz betea arkitzen naiz eta oraindikan nere anima guzia nigan da.

10. Eta bere gañean jarrita, il nuen, zeren nekusan ezin zezakeala bizi alako galmenaren ondoan. Eta artu nuen bere buruan zeukan boillandea, eta bere besoko besakia, eta onara ekarri dizkizut zuri nere jauna

11. Dabidek orduan eldurik bere soñekoai urratu zituen, eta berarekin zeuden gizon guztiak,

12. Eta asi ziran adiaka, eta negar egin zuten, eta baru egin zuten arratsalderaño Saulgatik, eta bere seme Jonatasgaitik, eta Jaunaren erriagatik, ezpataz iragoak izan ziradelako.

13. Eta esan zion Dabidek, berria ekarri zion gazteari: Nongoa zera zu? Berak erantzun zuen: Amalektar gizon arrotz baten semea naiz ni.

14. Eta esan zion Dabidek: Nola ez aiz beldur izan luzatzen eskua Jaunak igortzia iltzeko?



15. Eta otsegiñik Dabidek bere martizetatik bati, esan zion: Alderata, eraso zaiok. Eta ark zauritu zuen, eta il zan.

16. Eta Dabidek esan zion: ire odola izan zeadilla ire buruaren gañera, zeren ire aoak itz egin zian ire kontra, esaten ziakala: Nik il det Jaunak igortzia.

17. Eta Dabidek adiakatu zuen progu kantatxo au Saulen gañean, eta bere seme Jonatasen gañean,

18. (Tiruztaiaren kantatxoa deitzen zaiona, zeñ agindu zuen irakasteko Judako semeai, eskribatua dagoan bezela Justoen liburuan.) Esan zuen bada onela: Begira ezazu, oh Israel, zeñak izan ziraden zaurituak eta il ziraden zure muñoen gañean.

19. Israelko ospetsuak izan ziraden illak zure mendien gañean, nola erori ziraden sendoak?

20. Ez ezazute eman berria Jethen, eta ez ezazute ere adirazi Askalongo karrikaetan, poztu ez ditezen Filistintarren alabak, eta ez ditzaten ere jolasak egin zirkunzidatu gabeen alabak.

21. Jelboeko mendiak, ez intzik, ez euririk ez dedilla etorri zuen gañera, eta ez dedilla ere izan lendabizien kanporik, zeren an izan zan azpiratua errutsuen ezkutua, Saulen ezkutua, olioarekin igortzia izan ez balitza bezala.

22. Illen odolikan gabe, sendoen gantz gabe, etzan iñoiz itzuli atzera Jonatasen gezia, eta Saulen ezpata ere etzan biurtu iñoiz utsa.

23. Saul eta Jonatas aiñ maitagarriak eta gloriak beteak beren bizian, eriotzan ere etziran berezitu, arranoak baño ariñagoak, leoiak baño sendoagoak.

24. Negar egin ezazute bada, o Israelko alabak, negar egin ezazute Saulen gañean, zeñak apaintzen zinduzten granazko soñeko leunakin, eta ematen ziozkatzuten urrezko joiatxoak galantuteko.

25. Baña, nola erori ziraden sendoak gudan? Nola, o Jelboeko mendiak, izan zan illa Jonatas zuen erpiñetan?

26. Zure damuz nago, o Jonatas nere anaia, txit liraña, eta donzellarik maitagarriena baño maitagarriagoa. Nola ama batek maitatzen duen bere seme bakarra, ala nik maitatzen zindudan.

27. Nola erori ziraden sendoak, eta galdu ziraden arma gerrariak?

BIGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoan bada itundu zan Dabid Jaunarekin, esaten zuela: igoko bai al naiz Judako errietatik batera? Eta erantzun zion Jaunak: igo

zaite. Eta esan zuen Dabidek: Nora igoko naiz? Eta erantzun zion: Hebronera.

2. Igo zan bada Dabid eta bere bi emazteak, Akinoam Jezraeltarra, eta Abigail Karmeloko Nabalen emaztea izan zana,

3. Eta eraman ere zituen berarekin Dabidek, berari laguntzen zioten gizonak, bakoitza bere familiarekin: eta bizitu izan ziraren Hebrongo errietan.

4. Eta etorri ziraren Judago tribuko gizonak, eta igortzi zuten an Dabid, erreinatu zezan Judako etxearen gañean. Eta gaztigua emana izan zitzaion Dabidi, nola Galaadko Jabeskoak obiatu zuten Saul.

5. Bidaldu zituen bada Dabidek mandatariak Galaadko Jabeskoak gana, eta esan zien: Jaunak bedeikatuak zuek, egin dezutenak urrikaltasun au zuen Jaun Saulekin, eta obiatu dezutenak.

6. Jauna oraindandik agertu zatzute dudarik gabe urrikaritsu eta leiala, eta nik ere sariztatuko zaituztet egin dezutelako onelako gauza bat.

7. Alaitu zaitezte eta asnasa artu ezazute, zeren baldin il bada ere zuen nagusi Saul, alaere Judako etxeak ni unjitu nau bere erregetzat.

8. Baña Abner Nerren seme, Saulen gudaritegiaren agintari nagusiak, artu zuen Isbo Seth Saulen semea, eta erabili zuen ingurumai etzauntzetatik,

9. Eta jarri zuen Jessuriko, eta Jezraelko, eta Efraimgo, eta Benjaminko, eta Israel guziko errege.

10. Berrogei urte zituen Isbo Seth Saulen semeak, asi zanean agintzen Israelen, eta bi urtean agindu zuen, eta bakarrik Judako etxeak jarraitzen zion Dabidi.

11. Eta Dabid Hebronan, Judako etxearen gañean agintzen, bizitu izan zan denbora da, zazpi urte eta sei illabete.

12. Eta Abner Nerren semea, Isbo sethen Saulen semearen serbitzariakin atera zan etzauntzetatik Gabaonerontz.

13. Eta Joal Sarbiaren semea, eta Dabiden jendea atera zitzaiozkaten bidera Gabaongo putzuaren aldean. Eta allegaturik toki bat batera, jarri zituzten etzauntzak batzuek besteen aurkez, oiek putzuaren aldamen batean, eta aiek bestean.

14. Eta esan zion Abnerrek Joabi: Atera bediz gazte batzuek, eta jostatu bediz gure aurrean. Eta erantzun zuen Joabek: Atera bediz.

15. Atera ziraden bada, eta irago ziraden amabi Benjamintar, Isbo sethen Saulen semearen aldetitikan (sic), eta beste amabi Dabiden jendetik.



16. Eta itsatsirik bakoitza bere etsaiari buruko illeetatik, irago zuen batetik bestera etsaiaren saietza ezpatarekin, eta erori ziraden batean, eta deitua izan zan toki hura: Gabaongo bulardetsuen kanpoa.

17. Eta jazar txit gogor bat izan zan egun artan, eta iges zuten Abnerrek eta Israelko gudariak, Dabiden jendeagandik.

18. Eta zeuden an Sarbiaren iru semeak, Joab, eta Abisai eta Asael, eta Asael zan txit lasterkaria, basoetan dauden basauntzak bezelakoa.

19. Eta Asaelek jarraitzen zion Abnerri, eta etzuen alderik egin eskuiera, ez ezkerrera utziten ziola Abner persegitzeari.

20. Begiratu zuen bada Abnerrek bere bizkarrerontz, eta esan zuen: Asael bai al zera zu? Zeñak erantzun zuen: Ni naiz.

21. Eta esan zion Abnerrek: Zoaz eskuiera edo ezkerrera, eta atxitu ezazu gazteetatik bat, eta artu itzatzu berak dituenak. Baña Asaelek etzion utzi nai bere ondoren joan eta estututzeari.

22. Eta berriz itz egin zion Abnerrek Asaeli: Alde zaitte, utzi zaiozu neri jarraitzeari, ez nazazu jarri zu lurraren kontra jositzeko premian, eta ala ezin altxatuko diot nere arpegia Joab zure anaiari.

23. Zeñak mezprezatu zuen aditzea, eta etzuen alderik egin nai. Abnerrek orduan jo zuen lanzaren azpiarekin istalokian, eta irago zion aldamen batetik bestera, eta il zan toki huratan berean. Eta Asael ilda erori zan toki artatik iragotzen ziraden guziak, gelditzen ziraden.

24. Eta Joabek eta Abisaik jarraitzen zioten bitartean Abner igesi zijoanari, eguzkia sartu zan, eta allegatu ziraden urodiko muñoraño, zeñ dagoan ordearen aurkez eremuko bidetik Gabaonera.

25. Eta Benjaminen semak bildu ziraden Abnerrekin, eta jarririk talde batean gelditu ziraden muño baten erpiñean.

26. Eta Abnerrek deadar egin zion Joabi, eta esan zion: Ez al da aseko zure ezpata, guzien galmenarekin baizik? Ez al dakizu irrizkuko gauza dela etsimendua? Noizarteraño ez diozu esango erriari, utzi dizaio-la bere anaiak persegitzeari?

27. Eta erantzun zuen Joabek: Jainkoa bizi dan bezela diot, itz egin baldin bazeneza orain bezela, goizetik utziko zion erriak bere anaiak persegitzeari.

28. Tronpeta jo erazi zuen bada Joabek, eta gelditu zan martizdi guzia, eta etzien geiago persegitu Israeli, eta etzuten ere izan esetsirikan.

29. Abner eta bere gizonak berriz joan ziraden landaetatik gau guzi artan, eta irago zuten Jordana, eta ibillirik Bethongo alderri guztia, itzulu ziraden etzauntzetara.

30. Eta biurturik Joab, utzita Abner, bildu zuen erri guztia, eta falta-tu ziraden Dabiden mutilletatik emeretzi gizon, Asael gabetanik.

31. Dabiden jendeak berriz zauritu zituzten Benjamintarretatik, eta Abnerrekin zeuden gizonetatik, irureun eta irurogei, zeñak il ere ziraden.

32. Eta eraman zuten Asael, eta lurpetu zuten bere aitaren obian Belenen. Eta ibilli ziraden gau guzian Joab eta berarekin zeuden gizonak, eta egusentian berean allegatu zirana Hebronera.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Izan zan bada ele luze bat Saulen etxearen artean, eta Dabiden etxearen artean, Dabid aurreratuz beti eta sendatuaz geiago eta geiago, eta Saulen etxea eroriaz egunerik egunera.

2. Eta jaio zitzaizkan Dabidi semeak Hebronan, eta bere lendabizisortua izan zan Amnon, zeñ iduki zuen Akinoam Jezraheltarragandik.

3. Eta onen ondoan Txeleab, zeñ iduki zuen Abigail Karmeloko Nabalen emaztea izan zanagandik, irugarrena Absalom, Maatxaren, Tholmai Jessurko erregearen alabaren semea.

4. Eta laugarrena Adonias, Hagjithen semea, eta bosgarrena Saphathia, Abitalen semea.

5. Eta seigarrena Jethraam Eglaren Dabiden emaztearena, Seme oiek jaio zitzaizkan Dabidi Hebronan.

6. Eta nola aurrera zijoan gerra Saulen etxearen eta Dabidenaren artean, Abner Nerren semeak gobernatzan zuen Saulen etxea.

7. Eta Saulek iduki zuen emazte azpiko bat Resfa zeritzana, Aiaren alaba. Eta esan zion Isbosethen Abnerri:

8. Zergatik sartu zera nere aitaren emazte azpikoagana? Zeñak txit aserretua Isbosethen itzakgatik, esan zuen: Txakur zatar batek bezin gutxi balio al det nik Judako tribuaren kontra, urrikaltasuna egin dedalako zure aita Saulen etxearekin, eta bere anaiakin eta aideakin, eta etzaitudalako jarri Dabiden eskuetan, eta zuk billatu dituzu gaur aitzakiak salatzeiko ni emakume bat gatik?

9. Au eta oraindikan geiago egin dezala Jaungoikoak Abnerrekin, egingo ez baldin banu Dabidgatik, Jaunak eskeñi ziona juramentuarekin,

10. Eramana izan dedilla erreñua Saulen etxetik, eta Dabiden esertokia altxatua izan dedilla Israelen gañean, eta Judaren gañean, Dandik Bersebeeraño.

11. Eta ezin zion ezerere erantzun, zeren beldur zitzaion.

12. Bidaldu zituen bada Abnerrek mandatariak Dabidgana, esan zitzaizoten bere izenean: Nori dagokio lur guzi au, baizik zuri? Eta gañera



esan zezatela: Adiskidetu zaite nerekin, zeren nik eskeñtzen dizkizut nere indar guziak, eta ekarriko det zugana Israel guztia.

13. Erantzun zuen Dabidek: Txit ongi dago, ni adiskidetuko naiz zurekin, baña gauza bat eskatzen dizut esaten dedala: Ez dezu ikusiko nere arpegia, lenago ekarten ez badezu Mikol Saulen alaba, orduan etorriko zera eta ikusiko nazu.

14. Eta Dabidek bidaldu ziozkan mandatariak Isboseth Saulen semeari, esaten ziola: itzuli zadazu nere emazte Mikol, zeñarekin ezkondu nintzan Filistintarren eun burugatik.

15. Bidaldu zituen bada Isboseth, eta kendu zion bere senar Faltiel, Laisen semeari.

16. Eta bere senarrak jarraitzen zion negarrez Bahurimraño, eta esan zion Abnerrek: Zoaz eta itzuli zaite. Eta bera itzuli zan.

17. Itz egin ere zien Abnerrek Israelko zarrai, esaten ziela: Denbora da nai zendutela zuek idukitzea Dabid erregetzat.

18. Ezagutu ezazute bada orain aintzakotzat, Jaunak itz egin eta esan duen ezker Dabidgatik: Dabid nere serbitzaren eskuz libratuko det Israel nere erria Filistintarren, eta bere etsai guztien eskutik.

19. Itz egin zion berriz Abnerrek Benjamini ere. Eta joan zan Hebronera esatera Dabidi, Israelkoak eta Benjamingo guztiak erabaki zuten guztia.

20. Eta etorri zan Dabidgana Hebronera ogei gizonekin, eta eman zien Dabidek Abnerri, eta berarekin etorri ziraden gizonai janedana.

21. Eta esan zion Abnerrek Dabidi: Joango naiz eta bilduko det zugana, nere Jauna eta erregea, Israel guztia, eta egingo det elkartasuna zurekin, eta aginduko dezu guztien gañean, zure animak nai duen bezela. Eta Dabidek lagundu zion ezker Dabidek, eta au joanik pakean,

22. Bereala allegatu ziraden Dabiden eta Joaben mutillak, illik lapur batzuek, arrapatu ziozkaten gauza txit askorekin; Abner berriz etzegoan Dabidekin Hebronan, zeren bidaldu zuen, eta bera joan zan pakean.

23. Eta Joab eta berarekin zegoan martizdi guzia, etorri ziraden gero, eta esan zioten Joabi nortzukbait: Abner Nerren semea etorri da erregegana, eta au atera da bialtzera, eta joan da pakean.

24. Eta sartu zan Joab erregegana, eta esan zion: Zer egin dezu? Ona non Abner etorri dan zugana, zergatik utzi diozu, eta joan da eta alde egin du?

25. Ez al dezu ezagutzen Abner Nerren semea, etorri dala zugana zu engañatzeko, eta jakitera zure sarrerak eta irteerak, eta ezagutzera egiten dituzun gauza guztiak?

26. Eta aterarik Joab Dabidgandik, bidaldu zituen mandatariak Abnerren ondoren, eta itzuli erazi zion Sirako putzutik, Dabidek etzekiala.

27. Eta biurturik Abner Hebronera, Joabek eraman zuen berezian atearen erdira, itz egiteko berari marroz, eta zauritu zuen an istaloki batean, eta il zan, bere anaia Asaelen odolaren mendekuan.

28. Eta aditu zuenean Dabidek gauza onezkero egiña zala, esan zuen: Obengabea nago ni, eta nere erreñua Jaunaren aurrean betiko, Abner Nerren semearen odoletik.

29. Eta betor Joaben buruaren gañera, eta bere aitaren etxe guztiaren gañera, ez dedilla ere iñoiz faltatu Joaben etxetik jario lotsagarri, soillak egiten dituen bat, ezta ere legenartiak, eztaere ezpataren lekuan gorua daramaten gizonak, eta beude beti ezpataz iltzen diradenak, eta ogiaren billa eskean dijoazenak.

30. Joabek bada eta Abisai bere anaiak il zuten Abner, il zuelako beren anaia Asael Gabaongo gudan.

31. Eta esan zien Dabidek Joabi, eta berarekin zegoan erri guztiari: Urratu itzatzute zuen soñekoak, eta sakuz jantzi zaitezte, eta egin ezazute progua Abnerren illerrezuetan. Eta Dabid erregeak jarraitzen zion illoeari.

32. Eta obiatu zutenean Abner Hebronan, altxatu zuen Dabidek bere boza, eta negar egin zuen Abnerren obiaren gañean, eta erri guziak ere negar egin zuen.

33. Eta adiaka ta negarrez ari zala erregea Abner gatik, esan zuen: Ez da il Abner, koldarrak oi diraden bezela.

34. Etziraden egon lotuta zure eskuak, ezta zure oñak ere kargatuak zepoakin; baizik nola erortzen diraden onak gaiztakeriako semeen aurrean, ala erori ziñan. Eta erri guziak esanik hura bera jarraitu zion negar egiteari beragatik.

35. Eta etorri zanean talde guzia jatera Dabidekin, oraindikan egun argia zala, juramentu egin zuen Dabidek, esaten zuela: Oiek eta oraindikan geiago egin beza nerekin Jaungoikoak, jango baneza ogirik ez beste gauzarik batere eguzkia sartu dedin baño lenago.

36. Eta erri guziak aditu zuen, eta ongi iritzi zitzaioten erregeak erri guztiaren aurrean egin zuen guziari.

37. Eta ezagutu zuen erriko jende guziak, eta Israel guziak egun artan, erregea etzala partill izan Abnerren Nerren semearen eriotzan.

38. Esan ere zien erregeak bere morroiak: Ez al dakizute noaski, galdu dala gaur Israelen bere prinzipeatatik andienetatiko bat?



39. Ni oraindik naiz argala, erregetzat unjitua banago ere, eta gizon oiek, Sarbiaren semeak dirade gogorrek neretzat, Jaunak eman dizaiola ordaña gaizkigileari bere gaiztakeriaren araura.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Isbo Seth Saulen semeak berriz aditu zuen, Abner illa izan zala Hebronan, eta giltzagetu zitzaizkan bere eskuak, eta Israel guzia izutu zan.

2. Saulen seme onek zituen, gudari ibiltarien agintari bi, bataren izena zan Baana, eta bestearen izena Retxal, Remmon Berothtarraren Benjamingo tribukoaren semeak, zeren Beroth ere zan Benjamingotzat idukia.

3. Eta iges egin zuten Berothtarrak Jetaimera, eta egon ziraden an arrotzak bezela denbora artaraño.

4. Eta Jonatas Saulen semeak zuen seme bat oñetatik erbala, zeren bost urte zituen, etorri zanean Jezraeltik mandataria Saulen eta Jonatasen ilberriarekin. Eta arturik bere iñudeak, iges egin zuen, eta korrika zijoala iges egiteko, erori zan, eta gelditu zan erren eta izan zuen izena Mifiboseth.

5. Bazetoztela bada Remmonen seme Berothtarrak, Rekab eta Baana, sartu ziraden egunaren indarrak andienean Isbosethen etxean, zeñ zegoan lotan bere oaren gañean egerdian. Eta etxeko neskame atezai, garbitzen zegoana, loak artu zuen.

6. Sartu ziraden bada etxean iñork ikusi gabetanik, Rekab eta Baana bere anaia, artzen zituztela galburuak, eta zauritu zuten istaloki batean, eta iges zuten.

7. Zeren etxean sartu ziradenean, bera zegoan lotan bere oaren gañean bere gelan, eta zauritzen zutela il zuten, eta kendurik bere burua, ibilli ziraden gau guzian eremuko bidetik.

8. Eta eraman zuten Isbosethen burua Dabidgana Hebronera, eta esan zioten erregeari: Ona emen Isbosethen, Saulen semearen, zure etsai, zuri bizia kentzeko asmoetan zebillanaren burua, eta Jaunak eman dio gaur nere jaun erregeari benganza Saulgandik eta bere jatorriagandik.

9. Dabidek berriz erantzuten ziotela Rekab eta bere anaia Baana, Remmon Berethtarraren semei, esan zien: Jaun, nere anima naigabe guztitik libratu zuena bizi dan bezela diot.

10. Baldin berria ekarri eta esan zidan hura: Saul il da, uste zuena albista bat zekardala, eldu eta il erazi banuen Sizelejen, zirudianean ordaña eman bear litzaiokeala berri ona gatik:

11. Zenbat geiago orain, gizon gaizto batzuek il dutenean obengabe ko gizon bat bere etxean, bere oaren gañean, ez det eskatuko bere odola zuen eskutik, eta etzaitzuet kenduko lurretik?

12. Agindu zien bada Dabidek bere mutillai, il zitzatela, eta epakitzen zituztela beren eskuak eta oñak, eseki zituzten putzuaren gañean Hebronan; Isbosethen burua berriz eraman zuten eta obiatu Abnerren obian Hebronan.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta etorri ziraden Israelko tribu guziak Dabidgana Hebronera, esaten zutela: Emen gauzkazu, zure ezurra eta zure aragia gera.

2. Gañera denbora da, Saul zanean gure erregea zu ziñan Israelko agintaria, eta zuri esan dizu Jaunak: Zuk zaituko dezu Israelko nere erria, eta zu izango zera Israelko agintaria.

3. Etorri ere ziraden Israelko zarrak erregeagana Hebronera, eta Dabid erregeak egin zuen elkartasuna berakin Hebronan Jaunaren aurrean, eta unjitu zuten Dabid erregetzat Israelen gañean.

4. Ogeita amar urte zituen Dabidek erreinatzen asi zanean, eta erreinatu zuen berrogei urtean.

5. Erreinatu zuen zazpi urtean eta sei illabetean Hebronan Judaren gañean, eta Jerusalemene erreinatu zuen ogeita amairu urtean Israel guztia ren gañean eta Judaren gañean.

6. Eta joan zan erregea berarekin zeuzkan gizon guztiakin, Jerusalemera, an bizi ziraden Jebuseoen kontra, eta berak esan zioten Dabidi: Etzera sartuko onara, baldin botatzen ez badituzu itsuak eta errenak, zeñak dioten: Ez da sartuko Dabid onara.

7. Baña Dabidek artu zuen Siongo gaztelua, au da Dabiden erria.

8. Zeren Dabidek eskeñi zion egun artan saria, Jebustarrak zauritzen zituenari, eta ukitzen zienari tellatuetako urbideai, eta botatzen zituenari, Dabiden animari gorroto zioten itsuak eta errenak. Argatik esaten da esangian: itsurik ez errenik ez da sartuko elizan.

9. Eta bizi izan zan Dabid gazteluan, eta deitu zion Dabiden erria, eta eginerazi zituen etxeak inguruan eta barrerik Mellotik asiten zala.

10. Eta Dabid zijoan sendatu eta aziaz geiago eta geiago, eta martiztien Jaun Jainkoa zan berarekin.

11. Hiram Tiroko erregeak ere bidaldu ziozkan Dabidi mandatariak, eta zedrozko zurak, eta arotzak eta argiñak murruetarako, eta egin zuten Dabiden etxea.



12. Eta ezagutu zuen Dabidek Jaunak sendatu zuela Israelen gañean erregetzat, eta goratu zuela bere erreiña Israelko bere erriaren gañean.

13. Artu zituen bada Dabidek andreazpikoak eta andreak Jerusalem-dik, Hebrondik etorri zan ezker, eta iduki zituen Dabidek beste seme eta alaba batzuek.

14. Eta oiek dirade Jerusalemen jaio zitzaizkanen izenak: Samua, eta Sobab, eta Natham, eta Salomon.

15. Eta Jebahar, eta Elisua, eta Nefek.

16. Eta Jafia, eta Elisama, eta Elioda, eta Elifaleth.

17. Aditu zuten bada Filistintarrak unjitu zutela Dabid erregetzat Israelen gañean, eta igo ziran guziak Dabiden billa, aditu zuenen (sic) au Dabidek, joan zan gaztelu batera.

18. Filistintarrak berriz etortzen ziradela barreiatu ziraden Rafaimko ibarrean.

19. Eta itundu zan Dabid Jaunarekin, esaten zuela: Joango ote naiz Filistintarren kontra? Eta jarriko ote dituzu nere eskuan? Eta esan zion Jaunak Dabidi: igo zaite, zeren ziertoro jarriko ditut zure eskuan.

20. Etorri zan bada Dabid Baal Farasimera; eta desegin zituen an, eta esan zuen: Jaunak barreiatu ditu nere aurrean nere etsaiak, isurtzen dan ura bezela. Argatik izan zan deitua toki hura Baal Farasim.

21. Eta utzi zituzten an beren idoloak, zeñak eraman zituzten Dabidek eta bereak.

22. Eta oraindikan berriz ere igo ziran Filistintarrak, eta zabaldu ziran Rafaimgo ibarretik.

23. Eta Dabid itundu zan Jaunarekin, esaten zuela: igoko ote naiz Filistintarren kontra, eta jarriko ote dituzu nere eskuetan? Zeñak erantzun zion: Etzaite igo beren kontra zuzen; baizik txirku egingo dezu beren ostetikan, eta joango zera berakgana udareen aurketik.

24. Eta aditzen dezunean udareen kopetan dabillan baten otsa, orduan asiko dezu guda, zeren orduan aterako da Jauna zure aurretik erasotzeko Filistintarren etzauntzai.

25. Eta Dabidek egin zuen Jaunak agindu zion bezela, eta desegin zituen Filistintarrak Gabaatik Jeserrera allegatu artean.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta Dabidek bildu zituen berriz Israelko autu guziak, ogeita amar milla.

2. Eta jaiki zan Dabid, eta joan zan, berarekin zegoan Judako gizonen erri guziarekin, ekarri zezaten Jaungoikoaren kutxa, zeñaen gañean

deitzen zitzaion martiztien Jaunaren izenari, zeñak duen bere esertokia beraren gañean Kerubinen artean.

3. Eta jarri zuten Jaungoikoaren kutxa gurdi berri batean, eta eraman zuten Abinadaben etxe Gabaan zegoanera; Ozak berriz eta Ahio Abinadaben semeak zuzentzen zuten gurdi berria.

4. Eta atera zutenean Abinadaben etxetik, zeñ zegoan Gabaan, zaitzen zuela Jaungoikoaren kutxa, Ahio zijoan kutxaren aurretik.

5. Dabid berriz eta Israel guzia dantzan ari ziran Jaunaren aurrean zurezko bolina mot guziarekin, eta zitarakin, eta lirakin eta atabalakin eta sistroakin eta ezkillatxoakin.

6. Berriz Nakonen larrañara etorrita laster, luzatu zuen Ozak eskua Jaungoikoaren kutxarontz eta gelditu zuen, zeren idiak ostikoka ari ziraden, eta ziartu zan kutxa.

7. Eta txit aserretu zan Jauna Ozaren kontra, eta kastigatu zuen bere ausarkeriagatik, eta gelditu zan an illik Jaungoikoaren kutxaren aldean.

8. Eta Dabid atsekabetu zan, Jaunak zauritu zuelako Oza, eta toki huraren izena deitua izan da gaurko eguneraño: Ozaren kastigua.

9. Eta Jaunaren beldur izan zan Dabid egun artan, eta esan zuen: Nola sartuko da nere etxean Jaunaren kutxa?

10. Eta etzuen nai izan eramana izan zedilla Jaunaren kutxa bere etxera Dabiden errian, baizikan eraman erazi zuen Obededon Jethetarraren etxera.

11. Eta egon zan Jaunaren kutxa Obededon Jethetarraren etxean iru illabeteen, eta bedeikatu zuen Jaunak Obededon, eta bere etxe guzia.

12. Eta gaztigua emana izan zitzaion Dabid erregeari Jaunak bedeikatu zituela Obededon, eta bere gauza guziak, Jaungoikoaren kutxagatik. Joan zan bada Dabid, eta ekarri zuen Jaungoikoaren kutxa Obededomen etxetik, Dabiden errira pozezko jostaketa andiak, eta Dabidek zituen berarekin zazpi koru, eta txal bat eskeñtzeko Jaunari.

13. Eta Jaunaren kutxa zeramatenak ibiltzen ziradenean sei pauso, eskeñtzen zizkion Jaunari bei bat, eta ari bat,

14. Eta Dabidek dantzan egiten zuen bere indar guziakin Jaunaren aurrean. Eta Dabid zegoan gañetik jantzita Ephod liñozko batekin.

15. Eta Dabidek eta Israelko etxe guziak zeramaten Jaunaren elkartasuneko kutxa pozez eta tronpeta soñuakin.

16. Eta sartu zanean Jaunaren kutxa Dabiden errian, Mikol Saulen alabak leio batetik begiratzen zuela, ikusi zuen Dabid erregea dantzan ari zala, eta saltoka Jaunaren aurrean, eta mezpreziatu zuen bere biotzean.



17. Eta sartu zuten barrenen Jaunaren kutxa eta jarri zuten bere tokian, Dabidek jaso zion tabernakulo baten erdian, eta eskeñi zituen Dabidek pakezko doañak eta opariak Jaunaren aurrean.

18. Eta bukatu zuenean eskeñitza pakezko doañ eta opariak, bedekatu zuen erria martiztien Jaunaren izenean.

19. Eta eman zion Israelko erri guziari, ala gizasemeai, nola emakumeai, bakoitzari ogi opil bat, eta idiaren aragi erre zati bat, eta iriñ lora oliotan frijitua, eta onenbesterekin joan zan erri guzia bakoitza bere etxera.

20. Eta itzuli zan Dabid bere etxera bedekatzeko bere etxea eta atararik Mikol Saulen alaba Dabidi bidera, esan zuen: Zeñ irudi ederra iduki duen gaur Israelko erregeak, utzirik bere soñekoak bere serbitzari neska-meen aurrean, eta billosten dala txokarrari bat billostuko balitza bezela!

21. Eta Dabidek erantzun zion Mikoli: Jaunaren aurrean, zeñiak autu ninduen zure aita eta bere etxe guzia baño lenago, eta agindu zidan izan nendilla ni agintaria Jaunaren erriaren gañean Israelen,

22. Dantzaz egingo det, eta egingo naiz egin naizan baño ere zatarra, eta izango naiz mezpreziagarria nere begietan, eta agertuko naiz honra geiagorekin, zuk aipatu dituzun neskameen aurrean.

23. Argatik Mikol Saulen alabak etzuen semerik izan bere eriotzako eguneraño.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan zegoala erregea egotez bere etxean, eta emanik Jaunak pakea aldamen guzietatik bere etsaiakin,

2. Esan zion Nathan profetari: Ez dakutsu ni bizi naizala zedrozko etxe batean, eta Jaungoikoaren kutxa dagoala jarria larruen erdian?

3. Eta esan zion Nathan profetak erregeari: Zoaz, eta egin ezazu zure biotzean dagoan guzia.

4. Eta gertatu zan, gau huratan berean itz egitea Jaunak Nathani, esaten zuela:

5. Zoaz, eta esan zaiozu nere serbitzari Dabidi: Zu izango bai al zera egingo didazuna etxea biziitzeko?

6. Ez naizan ezkeroko bizitu etxean, Israelko semeak Egiptoko lurretik atera nituen egun huratatik, gaurko eguneraño, baizik nenbillela tabernakuloan eta etzaintzean.

7. Israelko seme guziakin irago nintzan toki guzietan itz egin bai al diot nik iñoiz triburen bati, zeñi agindu nion bazkatu zezala Israel nere erria, esanarekin: Zergatik ez didazute egin zedrozko etxe bat?

8. Eta orain oiek esango diozkazu nere serbitzari Dabidi: Oiek esaten ditu martiztien Jaunak: Nik artu zindudan bazkaetatik zijoazanean jarraituaz ardiai, izan zindezen agintaria Israelko nere erriaren gañean,

9. Ibilli zeran toki guzietatik zurekin izan naiz, eta il ditut zure aurrean zure etsai guziak, eta egin det ospetsua zure izena, nola dan, lurra- ren gañean dauden andiena.

10. Baitaere jarriko det Israel nere erria toki iraunkor batean, eta ipiñiko det berean, eta berean biziko da, eta ez da berriz atsekabetua izango, eta gaiztakeriako semeak ere ez dute berriz naigabetuko len bezala,

11. Jarri nituen ezkeroko juezak Israelko nere erriaren gañean, eta idukiko zaitut pakean zure etsai guziakin. Gañera Jaunak esaten dizu oraindandik, Jaunak irauneraziko diola zure etxeari.

12. Eta beteak diradenean zure egunak, eta lotan zagozanean zure gurasoakin, nik jasoko det zure ondoan zure seme, zure erraietatik jatorria idukiko duen bat, eta sendatuko det bere erreñua.

13. Onek egingo dio etxe bat nere izenari, eta nik indartuko det betiko bere erreñuko esertokia.

14. Ni izango natzaio berari aita, eta bera izango zatzat neri semea; zeñak baldin egingo balu gauza gaiztorikan, nik kastigatuko det errukiz gizonen zigorrarekin, eta gizonen semeen azoteakin.

15. Baña ez det apartatuko beragandik nere errukitasuna, apartatu nuen bezela Saulgandik, zeñ kendu nuen nere aurretikan.

16. Baizik zure etxea izango da iraunkorra, eta ikusiko dezu dirauala beti zure erreñuak, eta zure eseritokia izango da sendoa betiko.

17. Itz guzti oien araura, eta ikuskera guzti onen araura, ala itz egin zion Nathanek Dabidi.

18. Sartu zan bada Dabid erregea, eta eseri zan Jaunaren aurrean, eta esan zuen: zeñ naiz ni, Jaun Jainkoa, eta nolakoa nere etxea, onaraño ni ekartzeko?

19. Eta oni ere gutxi eritzi diozu zure begietan, Jaun Jainkoa, bada itz egin ere dezu zure serbitzariaren etxearen gañean: zeren au da Adanen legea, Jaun Jainkoa.

20. Zer gauza, bada, oraindikan itsatsi dezake Dabidek, zurekin itz egiteko? Zeren zuk, Jaun Jainkoa, badazauzu zure serbitzaria.

21. Zure itzagatik eta zure biotzaren araura egin dituzu anditasun guzi oiek, zure serbitzariari adituerazi artean.

22. Argatik aunditua izan zera Jaun Jainkoa, zeren ez da zure antzekorikan, eta ez da ere Jainkorikan zuzaz kanpora, gure belarriakin aditu degun guziaren araura.



23. Zeñ erreñu dago lurraren gañean Israelko zure erria bezelakorik, zeñgatik joan zan Jaungoikoa erostera bere erritzat, eta ematera izena, eta egitera bere alde, zure erriaren begien aurrean, zeñ atera zenduan Egip-toko katiberiotik, anditasun eta mirari ikaragarriak, bere erriaren, bere jendearen, eta bere Jainkoaren kontra?

24. Bada zuk sendatu zenduan zuretzat Israelko zure erria erritzat betiko, eta zu, Jaun Jainkoa, izan ziñan berentzat Jainkoa.

25. Orain bada, Jaun Jainkoa, iduki ezazu beti gogoan, zure serbitzariari beretzat eta bere etxearentzat egin diozun eskeñtza, eta egin ezazu esan diozun bezela,

26. Zure izena izan dedin aunditua beti, eta esan dedin: Martiztien Jauna da Jaungoikoa Israelen gañean. Eta zure serbitzari Dabiden etxea izango da sendatua Jaunaren aurrean.

27. Zeren zuk, o martiztien Jauna, Israelko Jainkoa, agertu eta esan ziñion zure serbitzariari: Nik egingo dizut etxe iraunkor bat. Argatik zure serbitzariaren biotza alaitu da egiteko zuri errege au.

28. Orain bada, Jaun Jainkoa, zu zera Jainkoa, eta zure itzak izango dirade egiazkoak, zuk zerorrek bada eskeñi diozkazun ezkerro ondasun guzi oiek zure serbitzariari,

29. Asi zaitte bada, eta bedeikatu ezazu zure serbitzariaren etxea, iraun dezan beti zure aurrean, zeren zu zera, Jaun Jainkoa, itz egin dezuna, eta zure bendizioz izango da beti bedeikatua zure serbitzariaren etxea.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan oien ondoan, Dabidek desegitea Filistintarrak, eta humillatu zituen, eta kendu zuen Dabidek kotizaren brida Filistintarren eskutik.

2. Eta desegin zituen Moabtarrak; eta neurtu zituen sokakin etzin erazita lurrean. Eta bi izan ziraden sokak zeñakin neurtu zituen, bata erioztarako eta bestea bizitzarako, eta Moab gelditu zan Dabiden mendean pagatzen ziola kotiza.

3. Desegin ere zuen Dabidek Adarezer, Mohob Sobako erregearen semea, atera zanean agintzeko Eufrates ibairaño.

4. Eta atxiturik Dabidek bere aldamenetik milla eta zazpireun zaldizko, eta ogei milla oñazko, ebaki ziozkaten oñak gurdien zaldi guztiai, eta oietatik gorde zituen eun gurdientzat.

5. Etorri ere ziraden Damaskoko Sirotarrak laguntzera Adarezer Sobako erregeari. eta Dabidek il zituen ogeita bi milla Sirotar.

6. Eta jarri zituen Dabidek gordetzalleak Damaskoko Sirian, eta bere mendean gelditu zan Siria pagatzen ziola kotiza; eta Jaunak zaitu zuen egin zituen gerrako ibillera guzietan.

7. Eta artu zituen Dabidek, Adarezerren andizkiak zituzten urrezko armak, eta eraman zituen Jerusalemenera.

8. Eta Bete ta Beroth Adarezerren errietatik, artu zuen Dabidek kobre txit asko.

9. Eta Thou Emathko erregeak aditu zuen Dabidek desegin zituela Adarezerren indar guztiak,

10. Eta Thouk bidaldu zuen bere seme Joram Dabid erregeagana agur egitera, poztzen zala berarekin, eta eskerrak emateko, garaitu eta desegin zuelako Adarezer. Zeren Thou zan Adarezerren etsaia, eta beraren eskuan ziraden urrezko, eta zillarezko, eta kobrezko ontziak.

11. Zeñak ere eskeñi ziozkan Dabid erregeak Jaunari menderatu zituen erreñu guzietako zillar eta urre, lendanaz eskeñi zituenekin,

12. Siritatik, eta Moabtik, eta Ammonen semeetatik, eta Filistintarretatik, eta Amalektik, eta Adarezer Rohob Sobako erregearen semeari arrapatutako gauzetatik.

13. Egin ere zan ospetsua Dabiden izena, il zituelako emezortzi milla gizon gatzagen ibarrean, Siria menderatuta itzulieran.

14. Eta jarri zituen eraentzalleak Idumean, eta gordetzalleak, eta Idu-mea guztia gelditu zan Dabiden mendean. Eta Jaunak zaitu zuen Dabidekin zituen gadako ibillera guzietan.

15. Eta agindu zuen Dabidek Israel guztiaren gañean; eta aditzen zion eta ematen ziozkan zuzen erabakiak erri guztiari.

16. Eta Joab Sarbiaren semea zan martiztiaren agintaria. eta Josafat Ahiluden semea zan berrieskribatzallea.

17. Eta Sadok Akitoben semea, eta Akimelek Abiatarren semea, ziraden Apaizak, eta Sarias zan eskribatzallea.

18. Banaia Joidaren semea zan Zerettarren eta Felettarren kapitana: eta Dabiden semeak ziraden apaizak.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Esan ere zuen Dabidek: Gelditu ote da Saulen etxekorik batere, zeñi ongi egin dizaiokekan nik Jonatasen amorioz?

2. Eta bazan Saulen etxeko morroi bat Siba zeritzana, eta otsegiñik erregeak bere aurrera, esan zion: Siba bai al zera zu? Berak erantzun zuen: Bai Jauna agindu nai didazunerako.



3. Eta esan zuen erregeak: Bizi ote da Saulen etxekoren bat, mesede andiak nik egin ditzaiokedan? Erantzun zion Sibak: Bai, bizi da oraindik Jonatasen seme, oñetatik elbarritutako bat.

4. Non dago? Esan zuen Dabidek. Eta Sibak erantzun zion erregeari: Dago, esan zuen Sibak, Lodabarren Makiren Ammielen semearen etxean.

5. Bidaldu zituen bada Dabidek beraren billa, eta etorri erazi zion Lodabartik Makirren Ammielen semearen etxetik.

6. Eta etorri zanean Dabiden aurrera Mifiboseth Jonatasen, Saulen semearen semea, etzin zan bere arpegiaren gañean, egiten ziola gur andi bat. Esan zion orduan Dabidek: Mifiboseth? Zeñak erantzun zuen: Emen naiz zure serbitzaria.

7. Eta esan zion Dabidek: Etzaitze beldur izan, zeren nik erabakita daukat ondasunez betetzea zu, zure aita Jonatasen amorioa gatik, eta itzultzea zuri, zure Aitaon Saulen lur guztiak, eta zuk jango dezu beti nere maian.

8. Berak agur andi bat egiñik, esan zuen: Zeñ naiz ni, zure serbitzaria, ontzat idukitzeko zuk, jartzea begiak txakur il batean, nola naizan ni?

9. Ots egin zion bada erregeak Siba Saulen morroiari, eta esan zion: Eman dizkiot zure nagusiaren semeari, Saulenak ziraden gauza guztiak, eta bere etxeko ondasun guztiak.

10. Zuk bada, eta zure semeak, eta zure morroiak landuko dituzute bere lurak, eta ornituko diozu zure nagusiaren semeari, bera bazkatzeko bear duena; baña Mifoboseth zure nagusiaren semeak jango du beti nire maian. Eta Sibak zituen amabost seme eta ogi (sic) morroi mendeko.

11. Eta esan zion Sibak erregeari: Zuk agindu diozun bezela, ala egingo du, nere errege eta jauna, zure serbitzari onek, eta Mifibosethek jango du nere maian, erregeren semeetatik batek bezela.

12. Eta Mifibosethek zuen seme txikitxo bat Mika zeritzana, eta Sibaren etxeko familia guztiak serbitzen zuen mifiboseth.

13. Eta Mifiboseth bizitu oi zan Jerusalemene, zeren beti jaten zuen erregeren maian: eta zan errena oiñ bietatik.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan oien ondoan, iltzea Ammonen semeen erregea, eta erreinatu zuen bere lekuan Hanon bere semeak.

2. Esan zuen orduan Dabidek: Erakusi nai diot Hanon Naasen semeari nere borondate on eta errukia, bere aita nerekin egin zuen bezela. Bidaldu ziozkan bada Dabidek mandatariak gozatzeko bere aitaren

eriotzan. Baña Dabiden mandatariak Ammonen semeen lurrera allegatuta bereala,

3. Ammonen semeen andizkiak esan zioten Hanon bere jaunari: Uste al dezu, zure aita honratzeagatik bidaldu dizkizula Dabidek gozatzalleak, eta ez obegiago bidaldu dizkizula bere morroiak barruntatu eta eza gutzera nola dagoan erria, eta desegiteko?

4. Onenbesterekin agindu zuen Hanonek eldu zitzaietela Dabiden morroiari, eta kendu bizarraren erdia, eta ebaki soñekoak gerri ondoraño, eta bialdu zituen.

5. Adirazi zitzaientean au Dabidi, bidaldu zituen mandatariak beren billa, zeren gizonak zeuden txit itxusikiro lotsatuak, eta agindu zuen Dabidek esateko onela: Zaudete Jerikon, aliketa zuen bizarra azi dedin bitartean, eta orduan itzuli zaitzete.

6. Ikusirik berriz Ammonen semeak Dabidi egin zioten iraina, bidaldu zituzten Rohobko Sirotarrakana, eta Sobako Sirotarrakana, eta artu zituzten beren kontura ogei milla gizon oñazko, eta Maatxako erregeagandik milla gizon, eta Istobgandik amabi milla.

7. Aditu zuenean au Dabidek, bidaldu zuen Joab eta gerragizonen martizti guzia.

8. Atera ziraden bada Ammonen semeak, eta jarri zuten beren martiztia gudarako gertua, atearen sarreran berean, eta Sobako Sirotarrak, eta Rohobkoak, eta Istobrenak, eta Maasarenak zeuden berezian kanpoan.

9. Ikusirik bada Joabek eraso izan bear zuela aurretik eta ostetik, autu zituen guztietatik Israelko bulardetsuenak, eta jarri zan gudarako gertua Sirotarren kontra.

10. Eta gañerako jendea eman zion bere anaia Abisairi, zeñ joan zan aurkez Ammonen semeen kontra.

11. Eta esan zion Joabek: baldin Sirotarrak geiago egingo balute nere kontra, zu etorriko zatzataz neri laguntzera, eta baldin Ammonen semeak geiago egingo balute zure kontra, nik lagunduko dizut.

12. Auzu biotz on, eta gudatu dezagun gure erria gatik, eta gure jaungoikoaren iria gatik, eta Jaunak egingo du berari ongien deritzana.

13. Asi zuten bada Joabek eta berarekin zijoa jendeak, guda Sirotarren kontra, zeñak bereala iges zuten beraren aurretik.

14. Eta Ammonen semeak ikusi zutenean Sirotarrak iges egin zutela, iges egin zuten berak ere Abisairen aurretik, eta sartu ziraden errian, eta itzuli zan Joab Ammonen semeak gandik, eta etorri zan Jerusalemenera.

15. Ikusirik bada Sirotarrak garaituak izan ziradela Israelen aurrean, berriz bildu ziraden.



16. Eta bidaldu zituen Adarezerrek, eta atera zituen ibaiaren andiko aldamenean zeuden Sioarrak, eta etorri erazi zion beren martiztiari, eta Sobatx Adarezerren martiztiaren burua, zan beren agintaria.

17. Eta emana izan zitzaionean Dabidi gaztigu au, bildu zuen Israel guztia, eta irago zuen Jordana, eta etorri zan Helamera, eta Sioarrak gertutu zuten martiztia Dabiden kontra, eta gudatu zuten beraren kontra.

18. Baña Sioarrak iges egin zuten Israelen aurretik, eta Dabidek desegin zituen zazpireun gurdi Sioarrenak, eta berrogei milla zaldizko; eta zauritu zuen Sobatx martiztiaren agintaria, zeñ berealaxe il zan.

19. Ikusirik bada, Adarezerren alde zeuden errege guztiak, Israelek garaituak izan ziradela, beldurtu ziraden, eta iges egin zuten Israelen aurretik berrogeita emezortzi milla gizonak. Eta egin zituzten pakeak Israelekin, eta menderatu zitzaizkaten, eta beldur izan ziraden Sioarrak berriz laguntasuna ematen Ammonen semeai.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan urte beteren barrenen, erregeak gudatzera atera oi diraden denbora huratan, Dabidek bidaltzea Joab, eta bere agintariak berarekin, eta Israel guztia, eta desegin zituzten Ammonen semeak eta ingurutu zuten Rabba, baña Dabid gelditu zan Jerusalemen.

2. Oiek egiten ziraden bitartean gertatu zan egun batean, jaikitzen zala Dabid bere oetik bazkalondoko loa eginda, ibiltzea bere etxeko sabaiean, eta ikusi zuen aurkez bere sabaiauren gañetik, garbitzen zegoan andre bat: eta zan andre txit ederra.

3. Bidaldu zuen bada erregeak jakitera zeñ zan andre hura. Eta esana izan zitzaion, bera zala Bethsabee, Eliamen alaba, Urias Hetearren emaztea.

4. Bidaldurik bada Dabidek mandatariak, ekarri erazi zuen, zeñ eldu zanean Dabidgana, onek lo egin zuen arekin, eta laster berealaxe garbitu zan andrea bere loikeriatik.

5. Eta itzuli zan aurdun bere etxera, eta bidaldu zuen Dabid gaztigatu eta berari esatera: Aurdun naiz.

6. Eta Dabidek bidaldu zituen mandatariak esatera Joabi: Bidaldu zadazu Urias Hetearra. Eta Joabek bidaldu zuen Urias Dabidgana.

7. Eta etorri zan Urias Dabidgana. Eta Dabidek galdetu zion, nola zeuden Joab eta tropak, eta nola zijoazen gerrako gauzak.

8. Esan zion bada Dabidek Uriasi: Zoaz zure etxera, eta garbitu itzazu zure oñak. Eta atera zan Urias erregeren etxetik, eta bidaldu zion erregeak ondoren janaria bere maitik.

9. Baña Uriasek lo egin zuen jauregiko atearen aurrean bere jaunaren beste morroi batzuekin, eta etzan joan bere etxera.

10. Eta berri au eman zioten Dabidi nortzukbait esaten ziotela: Urias ez da joan bere etxera. Eta esan zion Dabidek Uriasi: Ez al zera etorri bide luzean? Zergatik etzera jatxi zure etxera?

11. Eta esan zion Uriasek Dabidi: Jaungoikoaren kutxa eta Israel eta Juda daude etzauntzetan, eta Joab nere jauna, eta nere nagusiaren serbitzariak lo egiten dute lur gogorrean, eta joango nintzan ni nere etxera jatera eta edatera eta nere emaztearekin lo egitera? Nere erregearen bizitza eta osasunagatik juramentu egiten det ez dedala alako gauzarik egingo.

12. Esan zion orduan Dabidek: Gelditu zaite gaur ere emen, eta biar bidalduko zaitut. Gelditu zan Urias Jerusalemen egun artan eta biaramonean.

13. Eta deitu zion Dabidek berarekin jatera eta edatera, eta orditu zuen, eta aterarik arratsaldean, lo egin zuen bere estraduan bere jaunaren serbitzariakin, eta etzan jetxi bere etxera.

14. Allegatu zan bada biaramon goiza, eta eskribatu zuen Dabidek karta bat Joabentzat, eta bidaldu zuen Uriasen eskuz,

15. Eskribatzen zuela kartan: Jarri ezazute Urias aurrean, gudarik gogorrena dan tokian, eta utzi ezazute izan dedin zauritua eta il dedin.

16. Zeukala bada Joabek ingurutua erria, jarri zuen Urias, etsairik bulardetsuenak zeudela zekian tokiaren aurkez,

17. Zeñak egiñik irteera bat erritik, ari ziraden gudan Joaben kontra, eta il ziraden Dabiden martizdiko batzuek, eta il ere zan Urias Hetearra.

18. Bidaldu zuen bada Joabek, eta eman zion Dabidi gudan irago zan guztiaren berria.

19. Eta agindu zion mandatariari, esaten ziola: Gerrako gauzak erregeari adiraztea bukatzen dezunean,

20. Baldin ikusiko bazeneza berari aserretuten zaiola, eta esango balu: Zergatik alderatu zerate murrura gudatzera? Ez al zenekiten dardu asko aurtikitzen diradela murruren gañetik?

21. Nork zauritu zuen Abimelek Jerobaalen semea? Ez al zan izan emakume bat aurtiki zuena bere gañera murrutik errotarri baten zati bat, eta il zuen Thebesen? Zergatik alderatu zerate murrura? Esango diozu: Urias zure serbitzari Hetearra ere il da.

22. Joan zan bada mandataria, eta allegatu zan, eta kontatu ziozkan Dabidi, Joabek agindu ziozkan gauza guztiak.



23. Eta esan zion mandataria Dabidi: Gu baño geiago izan dirade etsaiak gure kontra, eta atera dirade gure kanpora, baña guk eraso diegu eta eraman ditugu erriko ateraño.

24. Eta ballestariak zuzendu zituzten beren tiroak murruren gañetik zure serbitzarien kontra, eta il ziraden erregeren serbitzarietatik batzuek, baita Urias Hetear zure serbitzia ere il zan.

25. Eta Dabidek esan zion mandatariori: Oiek esango diozkazu Joabi: Etzaitte koldartu zorigaitz au gatik, zeren gerrako gertaerak era askotakoak dirade, eta orain au, gero bestea iltzen ditu ezpatak, alaitu itzatzu zure soldaduak, eta sendatu itzatzu erriaren kontra, desegiteko bera.

26. Eta Uriasen emazteak aditu zuen Urias bere senarra il zala, eta negar egin zuen beragatik.

27. Eta proguko denbora iragota, Dabidek etorri erazi zion jauregira, eta artu zuen emaztetzat eta egin zion aur bat. Eta Dabidek egin zuen gauza au, igingarria izan zan Jaunaren begietan.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Jaunak bada bidaldu zion Natan Dabidi, zeñ beragana etorrita, esan zion: Baziraden bi gizon erri batean, bata aberatsa eta bestea beartsua.

2. Aberatsak zituen ardi eta idi txit asko.

3. Beartsuak berriz etzuen beste gauzarikan batere, baizik ardi txiki bat, zeñ erosi zuen, eta bazkatu, eta zeñ azi zan bere etxean bere semeakin, jaten zuela bere ogitik eta edan bere ontzitik, eta lo egiten zuela bere besartean, eta zan beretzat alaba bat bezala.

4. Eta etorri ostatur arrotz bat aberatsaren etxera, etzien onek ukitu nai bere ardiai, ez bere beiai, jaten emateko etorri zitzaion arrotzari; baizik kendu zion arditxo gizon beartsuari, eta maneatu zuen, jan zezan bere etxera etorri zan gizonak.

5. Txit aserretuta orduan Dabid gizon huraren kontra, esan zion Nathani: Jainkoak barka dagidala, eriotzaren diña da alakorikan egin duen gizona.

6. Ordainduko du ardia lau aldiz anbatean, gaiztakeri au egin duela, eta begiratu ez duelako beartsuagatik.

7. Eta Natanek esan zion Dabidi: Zu zera gizon hura. Begira Israelko Jainko Jaunak zer dion: Nik Israelko erregetzat igortzi zindudan, eta nik Saulen eskuetatik atera zindudan.

8. Eta nik eman nizekizun zure Jaunaren etxea, eta zure Jaunaren emazteak, eta Israel eta Judako etxeko buru ere egin zaitut, eta gauza oiek

txikiak baldin badirade, itsatsiko dizkizut gauza batzuek oraindikan asko andiagoak.

9. Zergatik bada mezpreziatu dezu Jaunaren itza, egiteko gaizkia nere aurrean? Urias Hetearra ganibitaz zauritu dezu, eta bere emaztea artu dezu zure emaztetzat, eta ilerazo dezu Urias Ammonen semeen ezpataz.

10. Argatik ez du iñoiz alderik egingo ezpatak zure etxetik, mezpreziatu nazulako, eta artu dezulako Urias Hetearren emaztea, izan zedin zure emaztea.

11. Ala bada oiek esaten ditu Jaunak: Ona emen non nik irteneraziko diet zerorren etxetik zorigaitzai zure kontra, eta zuk dakusula kenduko dizkizut zure emazteak, eta emango dizkiot beste bati, zeñ etzango dan berakin eguzki onen argitan.

12. Zeren zuk egin zenduan ixillean, baña nik egingo ditut gauza oiek Israel guziaren aurrean, eta eguzkiaren aurrean.

13. Eta esan zion Dabidek Natani: Bekatu egin det Jaunaren kontra. Eta Natanek erantzun zion Dabidi: Jaunak ere barkatu dizu bekatua; etzera ilko.

14. Baña zugatik Jaunaren etsaiak gaizki esan dutelako bere kontra, jaijo zatzun semea, ilko da.

15. Eta itzuli zan Natan bere etxera. Eta Jaunak zauritu zuen, Uriasen emazteak Dabidi egin zion aurra, eta osagilleak desengañatua izan zan.

16. Eta Dabidek erregutu zion Jaunari aurragatik, eta barau egin zuen txit gogorkiro, eta sarturik toki berezi batean, auzpeztu zan lurraren gañe-
raño.

17. Eta etorri ziraden bere etxeko zarrenak, lurretik jaiki erazitze-
ko, baña berak etzuen nai, ezta jan ere berakin.

18. Eta gertatu zan zazpigarren egunean iltzea aurra: eta Dabiden morroiak beldur ziran esaten il zala aurra. Zeren esaten zuten: Oraindikan aurra bizirik zegoala, itz egiten giñion, eta etzuen aditu nai gure boza: bada, zenbat geiago atsekabetuko da, esaten badiogu: Aurra il da?

19. Baña aditurik Dabidek bere morroien murmurrak, ezagutu zuen illa zala aur semea, eta esan zien bere morroiai: illa al da aurra? Berak erantzun zuten: illa da.

20. Orduan jaiki zan Dabid lurretik eta garbitu, eta igortzi zan, eta soñekoak aldatuta, sartu zan Jaunaren etxean, eta adoratu zuen, eta etorri zan bere etxera, eta eskatu zuen, jaten ipiñi zitzaioleta, eta jan zuen.



21. Eta bere morroiak esan zioten: Zer gauza da egin dezuna? Barau-tu ziñan eta negar egin zenduan aurratik, oraindik bizi zala, eta orain il danean jaiki zera, eta jan dezu.

22. Berak erantzun zien: Barau egin nuen eta negar aurratik, oraindikan bizi zanean, zeren esaten nuen: Nork daki Jaunak emango ote didan, eta biziko ote dan aurra?

23. Baña orain il danean, zertarako barautuko naiz? itzuli al ote nitzaioke bizia? Ni bai joango naizala beragana; bera berriz ez da itzuliko nigana.

24. Gero poztu zuen Dabidek bere emazte Betsabee; eta egon eta etzan zan berarekin, zeñak egin zion seme bat, zeñi jarri zion izena Salomon, eta zeñ maitatu zuen Jaunak.

25. Eta Natan profetaren bitartez jarri zion Jaunak maitatuaren izena ere, Jaunak maitatzen zuelako.

26. Bitartean zerraikion Joabek gudatzeari Ammonen semeen Rab-baten kontra, eta zegoan laster artzeko errege erria.

27. Eta bidaldu zituen Joabek mandatariak Dabidgana, esaten zuela: Gudatu naiz Rabbathen kontra, eta laster artua izateko dago uren erria.

28. Orain bada bildu ezazu erriaren gañerako zatia, eta ingurutu ezazu erria, eta artu, nik desegina izanik erria, nere izenari dagoketu ez dizakion garaitza.

29. Bildu zuen bada Dabidek erri guztia, eta joan zan Rabbathen kontra, eta berari eraso ezker, artu zuen.

30. Eta kendu zuen koroa bere erregeren burutik, zeñak pisatzen zuen urrezko talentu bat, eta zituen arri txit balio andikoak, eta jarria izan zan Dabiden buruaren gañean. Eta eraman ere zituen, errian artutako gauza txit asko.

31. Eta ekarririk bertako erriko jendea agindu zuen zerruztua izan zedilla, eta iragoerazi zituen beren gañetik narra ortzdunak, eta zatitu zituen ganibitakin, eta traspasatu adrilluen gisara. Eta itzuli zan Dabid eta bere martizti guzia Jerusalemara.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Gertatu zan gero Amnon Dabiden semea amurustea, Absalonen Dabiden beste seme baten arreba batekin, zeñi zeritzan Thamar, zeñ zan txit ederra;

2. Eta txit azi zan huraganako etsigitasuna, alako moduan non, allegatu zan beraren amorioz eritzera, zeren izanik hura birjiña, iruditzen zitzaion gauza gaitza, egitea berarekin itsuzkeriarik.

3. Bazuen Amnonek adiskide bat, Jonadab zeritzana, Semmaaren Dabiden anaiaren semea, gizon txit malmutza.

4. Zeñak esan zion: Zergatik egunerik egunera zoaz argalduaz, o erregearen semea? Zergatik ez didazu adirazten neri? Eta Amnonek erantzun zion: Tamar Absalonen nere anaiaren arreba maita det.

5. Erantzun zion Jonadabek: Etzin zaite zure oearen gañean, eta sinisterazi ezazu eri zerala, eta datorrenean zure aita zu bisitatzera, esan zaiozu: Erregututzen dizut etorri dedilla nere arreba Tamar, jaten eman dizadan, eta egin dezan gisatu bat, jan dezadan bere eskutik.

6. Etzin zan bada oean Amnon, eta asi zan irudierazten eri zala, eta etorririk erregea bisitatzera, esan zion Amnonek: Erregututzen dizut etorri dedilla nere arreba Tamar, egin ditzan nere aurrean bi zurrutatxo, eta artu dezadan janaria bere eskutik.

7. Dabidek bada bidaldu zuen Tamarren etxera, esaten zuela: Zoaz zure anaia Amnonen etxera, eta egin zaiozu gisatu bat.

8. Joan zan bada Tamar bere anaia Ammonen etxera, eta bera zegoan oean. Tamarrek arturik iriña oratu zuen, eta irabiatuta, egosi zituen bere aurrean zurrutatxo batzuek.

9. Eta arturik egosi zuena, ustu zuen, eta jarri zion aurrean, eta etzuen jan nai. Eta esan zuen Amnonek. Bota itzatzute guziak emendikan kanpora. Eta botarik kanpora guziak,

10. Esan zion Amnonek Tamarri: Sartu ezazu jakia oategian, jan dezadan zure eskutik. Artu zituen bada Tamarrek egin zituen zurrutatxoak, eta eraman zituen oategira bere anaia Amnongana.

11. Eta eskeñi zionean jakia, eldu zion, eta esan zion. Atoz, ene arreba, eta etzin zaite nerekin.

12. Berak erantzun zion: Ez, ene anaia, ez nazazu arren bortxatu, bada ez da au zillegi Israelen, ez ezazu arren egin orrelako txorakeriarikan.

13. Zeren ezin eramango det nik nere lotsaria, eta zu izango zera idukia Israelen zentzungabeko bat bezela, obegiago, itz egin dizaiozula erregeari, zeren ez nau ukatuko zuretzat.

14. Baña Amnonek etzuen oben egin nai bere erregetara, baizik izanik indartsuago bortxatu zuen, eta etzin zan berarekin.

15. Eta artu zion Amnonek gorroto txit andi bat, alako moduan non bere kontra artu zuen gorrotoa andiagoa zan len iduki zion amorioa baño. Eta esan zion Amnonek: Jaiki eta joan adi.

16. Berak erantzun zion: Orain ni aurtikiatz egiten dezun gaitza andi-goa da, len egin didazuna baño. Eta etzion nai aditu,



17. Baizik otsegirik bera serbitzen ari zan morroi bati, esan zion: Aurtiki ezak au nere aurretikan, eta itxi ezak atea bere ondoan.

18. Zeukan Tamarrek jantzita soñeko luze nabar bat, zeren onelakoa zan erregeren alaba donzellak erabilli oi zuten jantzia. Eta huraren morroiak aurtiki zuen kanpora, eta itxi zuen atea bere ondoan.

19. Zeñ botarik autsa bere buruaren gañera, urraturik soñeko luzea, eta jarririk eskuak bere buruaren gañean, bazijoa ibilliaz eta deadar egiñaz.

20. Eta Absalon bere anaiak esan zion: Zure anaia Amnonek galdu al zaitu? Baña orain, arreba, zaude ixilik, zure anaia da, eta ez ezazu atsekabetu zure biotza gauza augatik. Gelditu zan bada Tamar litxigatzen bere anaia Absalonen etxean.

21. Eta aditurik gauza oiek Dabid erregeak, artu zuen naigabe txit andia, baña etzuen atsekabetu nai bere seme Amnonen anima, zeren maite zuen, zuelako lenbizisortua.

22. Eta Absalonek etzion esan Amnoni itzik ez onik ez gaiztorik, bada Absalonek gorroto zion Amnoni, bortxatu zuelako bere arreba Tamar,

23. Eta bi urte iragota gertatu zan Absalonen ardiak moztuak izatea Baathasorren, zeñ dagoan Efraimen aldean. Eta Absalonek konbidatu zituen erregeren seme guziak.

24. Eta etorri zan erregeagana, eta esan zion: Jakin ezazu zure serbitzariaren ardiak moztuak izatera dijoazela, erregututzen det etorri dedilla errege bere serbitzariakin bere serbitzariaren etxera.

25. Eta esan zion erregek Absaloni: Ez, ene semea, ez ezazu eskatu guziok joan gaitezela zeren izango gintzazkezu astunak. Eta errege berriak eginda ere, nola etzuen joan nai, bedeikatu zuen.

26. Eta Absalonek esan zion: Baldin ez badezu etorri nai, erregutuzen dizut, Amnon nere anaia bederik betor gurekin. Eta erregeak erantzun zion: Ez da zurekin joatearen premiarik.

27. Azkenik alako leiarekin erago zion Absalonen non utzi zien bera-ekin joaten Amnoni eta erregeren seme guziaz. Eta Absalonek prestatu erazi zuen janedan bat, erregeren janedana bezelakoa.

28. Eta agindu zien Absalonek bere morroiak, esaten ziela: Kontuan zaudete Amnoni ardoak burua noiz nasten dion, eta nik esaten dizutedanean: Zauritu eta il ezazute, etzaitzte beldur izan, ni naiz agintzen dizutedana, indartu zaitzte eta izan gizon alaituak.

29. Absalonen morroiak bada egin zuten Amnonen kontra Absalonen agindu zien guztia. Eta jaikitzen ziradela erregeren seme guztiak igo zuten bakoitzak bere mandora, eta iges egin zuten.

30. Eta oraindik bidean zeudela, eldu zan otsa Dabidgana, esaten zutela: Absalonek il ditu erregeren seme guztiak, eta ez da gelditu beretik bat bakarra ere.

31. Erregea orduan jaiki zan, eta urratu zituen bere soñekoak, eta erori zan auzpez lurraren gañean, eta bera serbitzen ari ziraden morroi guztiak urratu zituzten beren soñekoak.

32. Baña Jonadab Semmaren Dabiden anaiaren semeak erantzun zuten, esaten zuela: Ez beza uste izan, nere Jaun Erregea, Erregearen seme guztiak izan diradela illak: Amnon bakarrik da illa, zeren Absalonek zeukan eginda juramentua ilteko Amnon, Tamar bere arreba bortxatu zuen egunetik.

33. Argatik ez beza jarri, nere jaun errege, bere biotzean alako gauzarikan, esaten duela: Erregearen seme guziak illak izan dirade, zeren Amnon bakarrik da illa izan dana.

34. Eta Absalonek iges zuen, eta morroi zelatariak altxatu zituen bere begiak, eta begiratu zuen, eta ona non jendetza andi bat zetorren bide txigor galdu batetik mendiarren egian.

35. Eta Jonadabek esan zion erregeari: Begira an erregearen semeak, zure serbitzariaren itzaren araura, ala gertatu da.

36. Eta itzegitea bukatu zuenean, agertu ziraden erregeren semeak ere, eta sartzen ziradela altxatu zuten beren boza eta negar egin zuten, baita erregeak eta bere serbitzari guztiak ere, egin zituzten negar txit andiak.

37. Eta Absalon joan zan igesi Tolomai Ammiuden seme Jessurko erregeagana. Eta Dabidek negar egin zuen bere semeagatik egun guztietan.

38. Eta Absalonek iges eginik, eta allegaturik Jessurrera, egon zan an iru urtean.

39. Eta utzi zion Dabid erregeak Absalon persegitzeari, gutxitu zitzaiolako Amnonen eriotzaren pena.

AMALAUARREN KAPITULUA

1. Ezagaturik Joab Sarbiaren semeak, erregearen biotza etsigia zegoala Absalongana,

2. Bidaldu zuen Thekuara, eta etorri erazi zion andikan emakume soma bati, eta esan zion: iduritu ezazu negar egiten dezula, eta jantzi itza-



tzu lutuzko soñekoak, eta etzaitze igortzi olioarekin, irago zaitezen, denbora luzean illen bat gatik negar egiten duen andretzat.

3. Eta sartuko zera erregeagana, eta esango diozkazu onelako itzak. Eta jarri zituen Joabek itzak beraren aoan.

4. Sartu zanean bada erregeagana Tekuako emakumea, auzpeztu zan lurrean beraren aurrean, eta agur andi bat egiñik, esan zion. Salba nazazu, o erregea.

5. Eta erregeak esan zion: zer dezu? Berak erantzun zuen: Ai, ni naiz andre alargun bat, zeren il zitzadan nere senarra.

6. Eta zure serbitzariak zituen bi seme, zeñak aserretu ziraden elkarren kontra kanpoan, eta etzegoan iñor galerazi lizaiekeanik, eta zauritu zuen batak bestea, eta il zuen.

7. Eta ona non jaikirik nire aide guziak zure serbitzariaren kontra, esaten dute: Eman zaguzu bere anaia zauritu zuena, il dezagun, bere anaia il zuenaren anima gatik, eta kendu dezagun mundutikan primu ori, eta nai dute itzali, gelditu zatan txinparta, ez dezakion gelditu nere senarrari izenik, ez jatorririk lurraren gañean.

8. Eta esan zion erregeak andreari: Zoaz zure etxera, zeren nik emango det erabakia zure alde.

9. Eta Tekuetar emakumeak esan zion erregeari: Nere gañera, o nere errege eta jauna, erori bedi obena, eta nere aitaren etxearen gañera; erregea berriz eta bere esertokia izan bediz obengabeak.

10. Eta esan zuen erregeak: Baldin iñor jarkitzen bazaitzu, ekarri ezazu nigana, eta ez dizu berriz ukiturik egingo.

11. Eta berak esan zuen: Oroitu bedi erregea bere Jaun Jainkoarekin, ugaritu ez ditezten odolaren aldekoak bengatzeko, eta iñolaere ez dezaten il nere semea. Eta erregeak erantzun zion: Jainkoa bizi dan bezela diot ez dala eroriko lurraren gañera zure semearen illeetatik bat.

12. Esan zuen orduan emakumeak: Utzi bizaio nere erregek eta Jaunak itz bat esaten bere serbitzari oni. Esan ezazu, erantzun zuen erregeak.

13. Esan zuen bada emakumeak: Nola pensatu dezu zuk berebat egitea Jaungoikoaren erriaren gaitzean? Eta, zergatik erabagi du erregeak gaitz ori egitea itzuli erazi bearrean bere semeari erbestetikan?

14. Guziok iltzen gera, eta goaz eroriaz lurretikan, isurtzen dan ura bezela, zeñ ez dan iñoiz atzera itzultzen, eta Jainkoak ere ez du nai galtzea gizonik batere; baizik beti dago etsigia aldatzeko erabakia, galdu ez dedin osotero, eroria dagoana.

15. Argatik bada etorri naiz, esateko nere Jaun erregeari itz oiek erriaren aurrean. Eta esan zuen zure serbitzariak: itz egingo diot erregeari ikusteko nolabait egiten ote duen erregeak bere serbitzariak esaten duena.

16. Eta erregeak aitortu dit, libratzen duela bere serbitzaria, ni eta nire semea Jaungoikoaren primutzatik kendu nai genduzten guztien eskuetatik.

17. Utzi zaiozu bada zure serbitzariari esaten, nere jaun erregearen itza kunplitu dedilla eskeñtza bat bezela. Zeren nere jaun erregea da Jaungoikoaren aingeru bat bezelakoa, igitzen ez dana bedeikazioekin ez mada-rikazioekin. Argatik zure Jaun Jaungoikoa da zurekin.

18. Eta erantzuten zuela erregeak, esan zion emakumeari: Ez zadazu arren ezkutatu, galdetzeran noan gauza bat. Eta esan zion emakumeak: itz egin ezazu, nere jaun erregea.

19. Eta esan zuen erregeak: Ez da egia, esan didazun guztia dala Joabek irakasia? Erantzun zuen emakumeak, eta esan zuen: Zure bizia gatik (Jainkoak gorde dezala, o nere erregea eta jauna, bete betean azertatu dezula itua, bada ziertoro zure serbitzari Joab hura bera da agindu didana, eta jarri dituen zure serbitzariaren aoan, esan dizkizudan itz guziak.

20. Zure serbitzari Joab da agindu zidana bestiruditzeke izketa au, baña zu, nere Jaun eta erregea, zera jakintsua, Jaungoikoaren aingeru bat dan bezela, aditzeko gauza guztiak lurraren gañean.

21. Esan zion orduan erregeak Joabi: Aitortzen det eskatzen didazun grazia, zoaz bada, eta etorri erazi zaiozu nere seme Absaloni.

22. Emen Joabek, auzpezturik lurrean bere arpegiaren gañean, egin zion erregeari agur andi bat, eta esan zion: O nere erregea eta Jauna, gaur ezagutu du zure serbitzariak arkitu duela grazia zure begietan, zeren aitortu dezu zure serbitzariaren eskaria.

23. Orduan jaiki zan Joab eta joan zan Jessurrera eta ekarri erazi zuen Absalon Jerusalemenera.

24. Baña erregeak esan zuen: itzuli bedi bere etxera, eta ez beza ikusi nere arpegia. Itzuli zan bada Absalon bere etxera, eta etzuen ikusi erregearen arpegia.

25. Eta etzegoan Israel guzian gizonik Absalon bezin ederrik, eta galantik, oñaren azpitik buruaren garairano etzegoan beragan errenkurarikan batere.

26. Eta ebakitzen zuenean illea (zeñ egiten zuen urtean bein, zeren nekatzen zuten illadatsak) pisatzen zituzten bere buruko illeak berreun siklo, erriko pisuan.



27. Eta zituen Absalonek iru seme, eta alaba bat Tamar zeritzana, txit ederra.

28. Eta egon zan Absalon egotez bi urtean Jerusalemenean, eta etzuen ikusi erregearen arpegia.

29. Eta bidaldu zituen Absalonek Joabgana, bidaltzeko bera erregeagana, zeñak etzuen etorri nai izan Absalongana. Eta bidaldurik bigarren aldiz ots egitera, eta ark ez etorri nairik beragana,

30. Esan zien bere morroiak: Badakizute Joaben kanpoa, zeñ dagoan nerearen aldean, non dituen garagarra itaitzeko, zoazte bada, eta su eman zaiezute. Eta Absalonen morroiak su eman zieten ustai. Eta Joaben serbitzariak etorri ziraden beragana urraturik beren soñekoak, eta esan zioten: Absalonen morroiak su eman diote kanpoaren zati bati.

31. Eta jaiki zan Joab, eta etorri zan Absalongana bere etxera, eta esan zion: Zergatik zure morroiak su eman diete nere uztaiz?

32. Eta erantzun zion Absalonek Joabi: Bidaldu nuen erregututen nizula etorri zindezela nigana, bidaltzeko zu erregeagana, esan zenezai: Zergatik etorri nintzan Jessurtik? Obekiago zan neretzat an egotea, erregutzen det bada ikusi dezadala erregearen arpegia, eta baldin oraindikan oroitzen bada nere gaiztakeriarekin, il natzala.

33. Sarturik bada Joab erregeagana, adirazi ziozkan gauza guztiak, eta deitua izan zan Absalon, eta sartu zan erregea zegoan tokian, eta etziñik bere oñetan adoratu zuen. Eta erregeak eman zion musu bat Absaloni.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoan bada egin zituen Absalonek beretzat, eta jarri zituen zaldizkoak, eta berrogeita hamar gizon zijoazenak bere aurretikan.

2. Eta goiz jaikirik Absalon jarri oi zan atearren sarreraren aldean, eta lanen bat zuen eta erregeagana justizia eskatzera zetorren gizon guztiari, ots egiten zion Absalonek beragana, eta esaten zion: Zeñ erritakoa zera zu? Eta berak erantzuten zuen esaten zuela: Ni zure serbitzari au Israelko alako tributakoa naiz.

3. Eta erantzuten zion Absalonek: Onak eta zuzenak derizkit zure itzak. Baña ez dago iñor erregeak jarria zuri aditzeko. Eta esaten zuen Absalonek:

4. Oh! Nork jarri nintzakean juez lurraren gañean, etorri zitezen nigana ezbaia dituzten guztiak nik zuzen erabakitzeko!

5. Eta allegatzen zanean norbait beragana agur egitera luzetzen zion eskua, eta eldurik muñ egiten zion.

6. Eta berebat egiten zien Israel guztiko, zetoztenai erregeak adituak eta juzgatuak izatera, eta irabazi nai zituen Israelko gizonen biotzak.

7. Berrogei urteren ondoan berriz, esan zion Absalonek Dabid erregeari: Joango naiz, eta itzuliko diozkat Jaunari Hebronon eskeñi niozkan doañak.

8. Zeren zegoanean zure serbitzaria Jessur Siriakoan, egin zuen txit gogotikan eskeñtza au, esaten zuela: Baldin Jaunak itzuliko banindu Jerusalemenera, eskeñiko diot Jaunari doañ bat.

9. Eta esan zion Dabid erregeak: Zoaz ordu onean. Eta jaiki zan, eta joan zan Hebronera.

10. Eta bidaldu zituen Absalonek mandatariak Israelko tribu guzietara, esaten zuela: Tronpetaren otsa adituten dezutenean bereala, esan ezaizute: Absalonek erreñatzen du Hebronon.

11. Eta joan ziraden Absalonekin berreun gizon Jerusalemengo deituak, zeñak jarraitu zioten biotz tolesgabearekin bere asmoen gañean ezerere jakin gabetanik.

12. Ots egin ere zion Absalonek Atxitophel Jilonitar, Dabiden konsejariari bere erri Jilotik. Eta zegoala eskeñtzen doañak, jaiki zan matxiñada sendo bat, eta korrika joanik erria Absalongana ugaritzen zan.

13. Eta etorri zan mandatari bat Dabidgana, esaten zuela. Israel guztiak jarraitzen dio Absaloni biotz guztitikan.

14. Eta esan zien Dabidek berarekin Jerusalemenean zeuden bere serbitzariak: Jaiki zaitezte, iges egin dezagun, zeren bestela erori bear gara Absalonen eskuetan, atera zaitezte agudo, ustekabean etorrita arrapatu ez gaitzan, eta ekarri ez dezan galmena gure gañera, eta irago ez dezan erria ezpataren puntatik.

15. Eta erregearen serbitzariak esan zioten: Guk zure serbitzariok egingo degu gogotikan gure Jaun erregeak agintzen digun guztia.

16. Atera zan bada erregea oñaz bere etxeko guztiakin. eta utzi zituen erregeak bere emazte azpikoetatik hamar etxea zaitzeko.

17. Eta atera ezkerre erregea eta Israel guztia oñaz, gelditu zan etxetik urrutian.

18. Eta bere serbitzari guztiak zijoazen bere aldean, eta Zerethetarren, eta Felothetarren batallona, eta Jethetar guztiak, gerrari sendoak, seireun gizon oñazko, jarraitu ziotenak Jethetik, zijoazen erregeren aurretik.

19. Eta esan zion erregeak Ethai Jethetarrari: Zergatik zatoz gurekin? itzuli zaite eta gelditu erregearekin, zeren arrotza zera, eta atera zera zure lurretik.



20. Atzo etorri zifan, eta gaur izango zera gurekin ateratzen beartua? Ni joango naiz joango naizan tokira; itzuli zaita, eta eraman itzatzu zurekin zure anaiak. Eta leial ta urrikaritsua dan Jaunak sarizatuko du zure esker on eta leialtasuna, zeñakin serbitu nazun.

21. Baña Ethaik erantzun zion: Jaungoikoa bizi dan bezela, eta errege nere jauna bizi dan bezela diot eze, zu, o erregea eta nere jauna, zauden edozeñ tokitan edo iltzeko edo bizitzeko, an egongo dala zure serbitzaria.

22. Eta esan zion Dabidek Ethairi: Atoz eta irago ezazu. Eta irago zuen Ethai Jethetarrak, eta berarekin zeuden gizon guztiak, eta gañerako taldeak.

23. Eta guztiak negar andiak egiten zituzten, eta erri guztia zijoan iragoaz, erregeak ere iragotzen zuen Zedrongo erreka, eta erri guztia zijoan zuzen, eremura begiratzen duen bidetik.

24. Etorri ere zan Apaiz nagusi Sadok, eta berarekin Lebita guztiak, zeramatala Jaungoikoaren elkartasuneko kutxa, eta jarri zuten an, eta igo zan Abiatar, aliketa irago zan bitartean, iritik atera zan erri guztia.

25. Eta esan zion erregeak Sadoki: Eraman ezazu berriz Jaungoikoaren kutxa irira. Baldin arkitzen badet grazia Jaunaren begietan, itzuliko nau ara, eta erakusiko dit, baita bere Tabernakuloa ere.

26. Baña baldin esango balit: Etzera nere gogokoa, gertutua nago egin dezan nerekin ongi deritzana.

27. Eta esan zion erregeak Sadok Apaizari: O Profeta, itzuli zaita pakean zure errira zure seme Akimaasekin, eta Jonatas Abiatarren semearekin, beude zuekin zuen bi seme oiek.

28. Ni noa ezkutatzera eremuko kanpoetan, etorri dakidan bitartean zuekgandik gauzak dauden egoeraren gaztigua.

29. Sadokek bada eta Abiatarrek berriz eraman zuten Jerusalemenera Jaungoikoaren kutxa, eta gelditu ziraden an.

30. Eta Dabid igotzen zan oliboen aldapatik, eta igotzen zan negarrez, zijoala ortozik, eta burua estalita, eta berarekin zegoan erri guztia ere igotzen zan negarrez burua estalita.

31. Eta gaztigua emana izan zitzaion Dabidi, Atxitofel ere zegoala matxiñarien artean Absalonekin, eta esan zuen Dabidek: Erregutuzten dizut, Jauna, arren tontotu dezazula Atxitopelen konsejua.

32. Eta igotzen zanean Dabid mendiaren erpiñera, zeñean adoratuko zuen Jauna, atera zitzaion bidera Kusai Aratxtarra soñeko urratuakin, eta burua lurrez estalita.

33. Eta esan zion Dabidek: Etorriko baldin baziña nerekin, zama izanko zintzaket.

34. Joango baldin baziña berriz errira, eta esango baldin baziño Absaloni: Zure serbitzaria naiz, o erregea, nola izan nintzan zure aitaren serbitzaria, ala izango naiz zure serbitzaria: desegingo dituzu Atxitofelen konsejuak.

35. Eta idukiko dituzu zurekin Sadok eta Abiathar apaizak, eta adituten dezun erregeren etxeko gauza guztia, jakin eraziko diezu Sadok eta Abiathar apaizai.

36. Eta berakin dirade beren bi seme Atximas Sadoken semea, eta Jonatas Abiatharren semea, eta beren bitartez bidalduko didazute esatera aditzen dezuten guztia.

37. Eta Kusai Dabiden adiskidea errira allegatzen zan denbora huratan berean, Absalon ere sartu zan Jerusalemenera.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta irago zuenean Dabidek piska bat mendiaren erpiña, atera zitzaion bidera Siba Mifibosethen morroia bi asto zamatuakin berreun ogirekin, eta eun matspasazko bildurakin, eta eun piku ogirekin, eta ardo zagi batekin.

2. Eta esan zion erregeak Sibari: Zertarako dirade gauza oiek? Eta Sibak erantzun zuen: Astoak erregearen morroientzat, beren gañean joan ditezen, ogiak eta pikuk jan ditzaten zure serbitzariak: eta ardoa, edan dezan eremuan indargatzen danak.

3. Eta esan zion erregeak: Non da zure nagusiaren semea? Eta Sibak erantzun zion erregeari: Jerusalemenera gelditu da, esaten duela: Gaur biur-tuko dit Israelko etxeak nere aitaren erreña.

4. Eta esan zion erregeak Sibari: Zureak izan bediz Mifibosethenak izan ziraden gauza guztiak. Zeñetara erantzun zuen Sibak: Nik eskatzen dedana, o nere erregea eta jauna, da arkitzea grazia zure begietan.

5. Allegatu zan bada Dabid erregea Bahurimraño, eta ona non ateratzen zan andikan Saulen etxeko aideetako gizon bat, Semei zeritzana, Jerraren semea, eta bazijoan alderatuaz, eta madarikatzen zuen.

6. Eta aurtikitzen zituen arriak Dabiden kontra, eta Dabid erregearen serbitzari guztien kontra, eta erri guztia eta gizon gerrari guztiak zijozan erregearen eskuieko edo ezkerreko aldamenetatikan.

7. Eta Semeik madarikatzen zuela erregea, esaten zuen onela: Atera adi, atera adi, odolena gizona, eta Belialen gizona.



8. Jaunak eman dik orain Saulen etxeko odol guziaren ordaña ebatsi iokalako erreñua, eta Jaunak jarri dik ire seme Absalonen eskuetan, eta begiratu ezak nola estututzen aukaten gaitzak, odolena gizona aizakalako.

9. Orduan Abisai Sarbiaren semeak esan zion erregeari: Zergatik txakur il orrek madarikatuko du nere jaun erregea? Joango naiz eta ebakiko diot burua.

10. Eta esan zuen erregeak: Zer det nik zuekin, o Sarbiaren semeak? Utzi zaiozute madarikatu naikala, zeren Jaunak agindu dio madarikatu dezala Dabid, eta zeñ da ausartuko dana esaten, zergatik ala egin duen?

11. Eta esan zien erregeak Abisairi eta bere serbitzari guziaz: ikusten dezute nere semea hura bera, nere erraietatik atera dana dabillela neri bizia kendu nairik, zenbat geiago orain Jeminiaren seme bat? Utzi zaiozute madarikatu naikala Jaunaren agintearen araura,

12. Noaski Jaunak begiratuko dio nere estutasunari, eta Jaunak ongi egingo dit egun onetako madarikazioak gatik.

13. Dabidek bada jarraitzen zion bere bidetara bereak lagun zituela. Eta Semei zijoan aldamenen mendiararen egitikan, madarikatzen zuela, eta aurtikitzen zituela arriak Dabiden kontra, eta autsa zabaltzen zuela.

14. Eta erregea eta erri guztia berarekin allegatu ziraden aulduak, eta atseden ziraden an.

15. Absalon berriz eta bere erri guzia berarekin sartu ziraden Jerusalem, eta Atxitofel ere berarekin.

16. Eta etorriarik Kusai Aratxtar Dabiden adiskidea Absalongana, esan zion: Agur erregea, agur erregea.

17. Zeñi erantzun zion Absalonek: Au da zure adiskideari erakusten diozun esker ona? Zergatik etzera joan zure adiskidearekin?

18. Eta erantzun zion Kusai Absaloni: inolaere ez, zeren izango naiz Jaunak autu zuenarena, eta erri guzi onek, eta Israel guziak, eta berarekin geldituko naiz.

19. Gañera, zeñ serbituko det nik? Erregearen semea ez al? Zure aitari obedezitu nion bezela, ala zuri ere obedezituko dizut.

20. Eta esan zion Absalonek Atxitofeli: Tratatu ezazute bioen artean zer egin bear degun.

21. Eta esan zion Atxitofelek Absaloni: Sartu zaite zure aitaren emazte azpiko, etxea zaitzeko utzi zituenak gana, aditzen duenean Israel guziak ezaindu dezula zure aita, gogo geiagorekin jarraitu dizazuten.

22. Egin zioten bada Absaloni etzauntz bat sabaiean, eta sartu zan bere aitaren emazte azpikoak gana Israel guztiaren aurrean.

23. Eta Atxitofelek egun aietan ematen zituen konsejuak ziraden, Jaungoikoarekin norbait itunduko balitza bezela. Alakoa zan Atxitofelen konseju guztia, bai Dabidekin zegoanean, eta bai Absalonekin zegoanean.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Esan zion bada Atxitofelek Absaloni: Autuko ditut neretzat amar milla gizon, eta aterako naiz gau onetan persegitzera Dabid;

2. Eta erortzen naizela bere gañean, nekatuak eta aulduak dauden bitartean, desegingo det, eta berarekin dagoan jende guziak iges egiten duenean, zaurituko det errege bakarrik gelditua.

3. Eta itzuli eraziko diot erri guziari, gizon bakar bat itzuli oi dan bezela, zeren zuk gizon bakar bat billatzen dezu, eta erri guzia geldituko da pakean.

4. Eta onak iritzi ziozkaten bere itzak Absaloni, eta Israelko zar guziaz.

5. Baña Absalonek esan zuen: Otsegin zaiozute Kusai Aratxtarrari, eta aditu dezagun zer esaten duen berak ere.

6. Eta etorriarik Kusai Absalongana, esan zion Absalonek: Au da Akitofelek esan duena, egin bear degu, ala ez? Zer konseju ematen diguzu?

7. Eta esan zion Kusai Absaloni: Ez da konseju ona Akitofelek orango aldiaren eman duena.

8. Eta gañera esan zuen Kusai: Ongi dakizu zure aita eta berari darraikon jendea diradela txit bulardetsuak, eta daudela biotz mingoitarekin, artz eme bat basoan sututa dagoan bezela bere humeak kendu diozkatelako, gañera zure aita gizon gerraria da, eta ez da geldituko erriarekin.

9. Noaski orain dago ezkutatua arzuloren batean, edo nai duen beste lekuren batean, eta erortzen baldin bada asieran zureetatikoren bat, zabalduko da bereala aldamen guzietatik, Absaloni darraikon martizdi guzia izan dala desegina.

10. Eta bulardetsuenetatik edozeñ, zeñaen biotza dan leoiarena bezelakoa, beldurrez beteko da, zeren badaki Israel guziak sendoa dala zure aita, eta bulardetsuak berarekin dauden guziak.

11. Neri ona deritzadan konsejua da au: bildu bedi zugana Israel guzia, Dandik Bersabeeraño, ezin kontatuala itsasoko ondarraren gisara, eta zu egongo zera beren erdian,

12. Eta erasoko diogu eta erori bere gañera, arkitua dan edozeñ tokitan, eta estaliko degu, intza lurraren gañean erotzen danean bezela, eta ez degu utziko berarekin dauden gizonetatik, ezda bat bakarra ere.



13. Eta baldin sartzen bada erriren batean, ingurutuko du Israel guziak sokakin erri hura, eta arrastaka eramango degu erreka bateraño, arkitu ez dedin beratatik arritxo bat bakarra ere.

14. Eta esan zuen orduan Absalonek Israelko gizon zar guztiakin: Obeagoa da Kusai Aratxtarraren konsejua, Akitofelen konsejua baño. Ala Jaunaren borondatez desegina izan zan Akitofelen konsejua, zeñ zan berentzat mesedegarriagoa, Jaunak etorri erazitzeke gaitz guziari Absalonen gañera.

15. Eta esan zien Kusaik Sadok, eta Abiatar Apaizai: Onelako eta onelako moduan konsejua eman die Akitofelek Absaloni eta Israelko zarrai, eta nik alako eta alako konsejua eman diet.

16. Orain bada bidaldu itzatzute agudo mandataria Dabidgana, esaten diotela: Etzaitz gelditu gau onetan eremuko landaetan, baizik luzape-nikan gabe, irago zaitz beste aldamera, izan ez dedin desegina erregea, eta berarekin dagoan erri guztia.

17. Eta Jonatas eta Akimaas zeuden Rojelen iturriaren aldean, joan zan neskame bat, eta eman zien gaztigua, eta berak joan ziraden adirazte-ra Dabid erregeari; zeren berak ezin sartu zitezkean errian, ikusiak izan etzitezten.

18. Alaere ikusi zituen mutil batek, eta adirazi zion Abaloni, baño berak arin ibillirik, sartu ziran Bahurimgo gizon baten etxean, zeñak zeukan putzu bat etxeurubean, eta ezkutatu ziraden an.

19. Eta artu zuen andreak estalki bat eta zabaldu zuen putzuaren aoren gañean, leortuko balu bezela garagar azala kendua, eta onela gelditu zan estalita gauza.

20. Eta etorririk etxera Absalonen morroiak, esan zioten andreak: Non daude Akimaas eta Jonatas? Eta erantzun zien andreak: igaro ziraden agudo, edan ezuraren piska bat. Beren billa zebiltzatenak berriz, etziztutenean arkitu, itzuli ziraden Jerusalemenera.

21. Eta oiek joan ziradenean, igo ziraden aiek putzutik, eta jarraiturik beren bideari, adirazi ta esan zioten Dabid erregeari: Jaiki zaitezte eta irago ezazute agudo erreka, zeren Akitofelek eman du onelako konseju bat zuen kontra.

22. Jaiki zan bada Dabid, eta berarekin zegoan erri guzia, eta irago zuten Jordana eguna argitu baño lenago, eta etzan gelditu bat bakarra ere erreka irago gabetanik.

23. Ikusirik bada Akitofelek etzietela jarraitu bere konsejuari, gertutu zuen bere astoa, eta jaiki zan, eta joan zan bere etxe ta errira, eta argi-

turik bere etxeko gauzak, urkatu zan eta izan zan lurpetua bere aitaren obian.

24. Eta Dabid allegatu zan gazteluetara, eta Absalonek irago zuen Jordana, eta Israelko gizon guztiak berarekin.

25. Eta Absalonek eman zion Amasari martiztiko agintaritza Joaben lekuan, Amasa bada zan Jezraeliko gizon Jetra zeritzanaren semea, zeñak iduki zuen zer ikusia Abigail, Naasen alaba, Sarbiaren arreba, Joaben ama izandu zanarekin.

26. Eta jarri zituen etzauntzak Israelek Absalonekin Galaadko lurrean.

27. Eta allegatu zanean Dabid Gazteluetara, Sobi Naasen, Rabbat Ammontarkoen semeak, eta Matxir Ammiel Lodabarkoaren semeak, eta Berzellai Galaadtar Rojelimgoak,

28. Eskeñi ziozkaten oak, eta oñazpikoak, eta lurrezko ontziak, garia, eta garagarra, eta iriña, eta garagar txigortuaren iriñaz egindako opilla, eta babak, eta txilisteak, eta garbantzu txigortuak,

29. Eta ezta, eta guria, eta ardiak eta txal gizenak. Eta eman ziozkaten Dabidi, eta berarekin zeudenai, jan zitzaten, bada uste zuten jendea egongo zala gosez illa, eta egarriz itoa eremuan.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Dabidek bada ikuste eta azterren bat egiñik bere jendeari, jarri zituen beren gañean tribunoak eta euntariak.

2. Eta eman zion Joabi martiztiaren irugarren zatiaren agintaritza, eta beste irugarren zatiarena Abisai Sarbiaren, Joaben anaiaren semari, eta beste irugarren zatiarena Ethai Jetkoa zanari, eta esan zion erregeak erriari: Aterako naiz ni ere zuekin.

3. Eta erantzun zuen erriak: etzera aterako, zeren baldin iges egiten badegu ere ez dute gauza andirik iritxiko, eta gutatik erdiak ill arren, ez dirade aseak geldituko zeren zuk bakarrik balio dezu amar millak beste, eta ala obeago da gelditu zaitezela errian guri laguntzeko.

4. Zeñai esan zien erregeak: Ongi deritzatzutena egingo det. Eta gelditu zan erregea atearan aldean, eta erria bazijoa atereaz euneko eta millako taldeetan.

5. Eta agindu zien erregeak Joabi, eta Abisairi, eta Etairi, esaten ziela: Zaitu zadazute Absalon gaztea. Eta aditu zuen erri guztiak, erregeak Absalonen alde agintari guztiak ematen zien agintea.

6. Onenbesterekin atera zan erria kanpora Israelen kontra, eta eraso zioten elkarri Efraimen basoan.



7. Eta Israelko erria izan zan an Dabiden martiztiak desegüña, eta izan zan egun artan galmen andia, ogei millaena.
8. Eta gañerakoak barreiatu ziraden inguru guzi artatik, eta asko geiago izan ziraden galdu ziradenak igesi zijoazela basotikan, ezpataz illak izan ziradenak baño egun artan.
9. Eta gertatu zan zijoala Absalon eserita bere mandoaren gañean, arkitzea Dabiden jendearekin, eta sarturik mandoa arte osiotsu eta andi baten azpitik, nahasi zitzaion burua artean, eta iragorik aurrera, eserita zijoan mandoa, gelditu zan zinzilika zeruaren eta lurraren bitartean.
10. Ikusi zuen au batek, eta adirazi zion Joabi, esaten ziola: ikusi det Absalon zinzilika arte batetikan.
11. Eta esan zion Joabek gaztigu au eman zion gizonari: Zergatik ez dezu josi lurrarekin, eta nik emango nizkizun amar siklo zillarrezko eta gerriko eder bat?
12. Zeñak esan zion Joabi: Jarriko baldin baziñituke ere nere eskue-tan milla diru zillarrezko, iñolaere ez nuke luzatuko nere eskua erregearen semearen kontra, zeren guk aditzen genduala agindu zizuten erregeak zuri eta Abisairi, eta Etairi, esaten zuela: zaitu zadazute Absalon nere seme gaztea.
13. Eta iduki baldin banu ere ausardia au nere animaren irriskuan, ezin ezkutatuko zitzaion au erregeari, eta zu zerori egongo ziñan nere kontra.
14. Eta esan zuen Joabek: Ez da izango zuk nai dezun bezela, baizik nik neronek erasoko diot zure aurrean. Artu zituen bada iru gezi bere eskuan, eta sartu ziozkan Absaloni bere biotzean, eta nola oraindikan tupozka ari zan zinzilika artean,
15. Etorri ziraden korrika Joaben amar ezkutari gazte, eta otska il zuten.
16. Orduan Joabek joerazi zuen tronpeta, eta gelditu zuen erria, persegitu etziztaion igesi zijoan Israeli, barkatu nairik gizataldeari.
17. Eta artu zuten Absalon, eta aurtiki zuten basoan zulo andi bate-ra, eta eraman zuten bere gañera arri muntoi txit andi bat, eta Israel guziak iges zuen bere etzauntzetara.
18. Eta Absalonek egin erazi zuen beretzat oraindikan bizi zala arrizko abe bat, zeñ dagoan erregeren ibarrean, zeren esan zuen: Ez det seme-rikan, eta au izango da nere izenaren oroipengarriztat. Eta jarri zion bere izena arrizko abeari, eta deitzen zaio gaurko eguneraño Absalonen eskua.
19. Eta Akimaas Sadoken Semeak esan zuen: Joango naiz korrika, eta adiraziko diot erregeari, Jaunak bengatu duela bere etsaien eskuetatik.

20. Zeñi Joabek esan zion: Ez dezu eramango gaur gaztigua, baizik beste era batean, ez det nai joan zaitezela zu gaur berria ematera, zeren il da erregearen semea.

21. Eta esan zion Joabek Kusiri: Zoaz, eta adirazi zaiozu erregeari ikusi dezuna. Kusik agur andi bat egin zion Joabi, eta joan zan korrika.

22. Eta Akimaas Sadoken Semeak esan zion berriz Joabi: Ze eragoz-keta dago ni ere korrika joateko Kusiren ondoren? Eta Joabek erantzun zion: Zergatik joan nai dezu korrika, ene semea? Etzera izango berri onen eramatzallea.

23. Zer da ansi erantzun zuen berak, ni korrika joteagatik? Zoaz bada, esan zion Joabek. Joanik bada korrika Akimaas bide txigor batetik, aurrea artu zion Kusiri.

24. Eta Dabid zegoan eserita ate bien artean, eta murrueñ gañean atearen gorengo tokian zegoan zelatariak altxaturik begiak, ikusi zuen gizon bat zetorrela korrika bakarrik.

25. Eta altxaturik boza adirazi zion erregeari, eta esan zuen erregeak: Bakarrik baldin badator, berri onak dakarzki. Eta bazetorrela ura arin baño ariñago, eta alderaturik geiago,

26. Ikusi zuen zelatariak beste gizon bat zetorrela korrika, eta deadar egiñik erpiñetikan, esan zuen: ikusten det beste gizon bat ere datorrela korrikan bakarrik. Eta esan zuen erregeak: Onek ere berri onak dakarzki.

27. Gañera esan zuen zelatariak: Lendabizikoaren korrika joaera idu-ritzen zait, Akimaas Sadoken semearen korrika joaera bezelakoa. Eta esan zuen erregeak: Gizon ona da, eta dator berri onak ekartera.

28. Orduan Akimaasek deadar egin zuen eta esan zion erregeari: Agur, o erregea. Eta auzpeztuta esan zuen: Bedeikatua izan dedilla zure Jaun Jainkoa, zeñak jarri dituen zure eskuetan nere errege eta Jaunaren kontra jaiki diradenak.

29. Eta esan zuen erregeak: Ote dago bizirik, eta osasunarekin nere seme Absalon? Eta erantzun zuen Akimaasek: ikusi det jaikitzen dala nas-pilla andi bat. Joab zure serbitzariak bidaldu nauenean ni zure serbitzaria, o erregea, ez dakit beste gauzarikan.

30. Eta erregeak esan zion: irago zait, eta jarri emen. Eta iragorik bera, eta jarririk bere tokian,

31. Agertu zan Kusi, eta allegatu ta esan zuen: Berri onak dakarzkit, nere jaun eta erregea, zeren Jaunak eman du erabakia gaur zure alde, zure kontra jaiki ziraden guzien eskubidearen kontra.

32. Baña erregeak galdetu zion Kusiri: Ote dago bizirik eta osasuna-rekin nere seme Absalon? Erantzun zion Kusik: Gazte ori bezala jarri



bediz nere jaun erregearen etsaiak, eta beraren kontra berari gaitz egiteko jaikitzen diraden guztiak.

33. Orduan erregea tristezaz beterik igo zan, atearen gañean zegoan sala batera, eta negar egin zuen. Eta zebillala baterik bestera onela esaten zuen: Ene seme Absalon, Absalon ene semea, norik eman lezakedan ni iltzea zure lekuan, Absalon nere semea, nere seme Absalon!

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta gaztigua emana izan zitzaion Joabi, erregea zegoala negarrez eta aubenez bere semeagatik.

2. Eta itzuli zan garaipena negarrean egun artan erri guziarentzat, zeren aditu zuen erriak egun artan esaten, Proguan zegoala erregea bere semeagatik.

3. Eta ala martiztia etzan sartu egun artan errian, egin oi duen beze-la martizti, datorrenak guda batetikan igesi, garaitua izan dalako.

4. Eta erregeak estali zuen bere burua, eta deadar andiarekin esaten zuen: Ene seme Absalon, Absalon ene semea, ene semea.

5. Joabek berriz sarturik erregea zegoan etxean, esan zuen: Lotsariz bete dituzu gaur zure serbitzari, zure bizia, eta zure seme ta alaben bizia, eta zure emazteen bizia, eta zure emazte azpikoen bizia salbatu duten guzien arpegiak.

6. Maitatzen dituzu gorrotatzen zaituztenak, eta gorrotatzen dituzu maitatzen zaituztenak, eta gaur aditzen eman dezu, ez dezula zure agintarien eta zure serbitzien ajolarikan batere, eta egiazki orain ezagutu det, bizi baldin balitza Absalon, eta guziok izan bagiña illak, orduan pozik egongo zintekela.

7. Orain bada jaiki zaite, eta atera kanpora eta itz eginik esan zaiezu zure serbitzariak portatu diradela, bada juramentu egiten dizut Jaunagatik, baldin ateratzen ez bazera, bat bakarra ere ez dala geldituko zurekin gaurko gabea, eta gaizkiago izango da zuretzat au, zure gazte denboratik oraindano zure gañera etorri diraden gaitz guziak baño.

8. Jaiki zan bada erregea, eta eseri zan atean, eta erri guziari adirazia izan zitzaion, errege eserita zegoala atean: eta etorri zan gizon talde guzia erregearen aurrera; Israelek berriz iges zuen bere etzauntzetara.

9. Eta erri guziak Israelko tribu guzietan esaten zuen elkarren leian: Erregeak libratu ginduen gure etsaiyen eskutik, berak salbatu ginduen Filistintarren eskutik, eta orain iges egin du lur onetatik Absalon gatik.

10. Eta bada Absalon, zeñ igortzi genduen gure erregetzat, il da gerran, noiz arteraño zaudete ixillikan eta ez dezute berriz eramaten Erregea?

11. Eta Dabid erregeak bidaldu zituen mandatariak esatera Sadok eta Abiatar apaizai: itz egin zaiezute Judako zarrai, eta esan zaiezute: Zergatik zerate atzenengo zatotzenak itzuli erazitera erregeari bere etxera. (Zeren Israel guziaren itzak allegatu ziraden erregearen belarrietara bere etxean)?

12. Zuek zerate nere anaiak, zuek nere ezurra eta nere aragia, zergatik zerate atzenekoak itzuli erazitzen erregeari?

13. Esan ere zaiozute Amasari. Ez al zera zu nere aragia eta nere odola? Au eta bestea egin dezala Jaunak nerekin, baldin egiten ez bazaitut betiko nere martiztien agintari nagusi Joaben lekuan.

14. Onela irabazi zituen Judako gizaseme guzien biotzak, gizon bakar bat balira bezela, eta bidaldu zituzten mandatariak erregeagana, esaten zutela: itzuli zaite zu eta zure serbitzari guziak.

15. Eta itzuli zan erregea, eta etorri zan Jordaneraño, eta Juda guztia joan zan Galgalariaño, erregeari bidera irtetzera, eta Jordana irago erazitziteko.

16. Baña Semei Bahurimgoa Jeraren, Jeminiren semearen semea ibilli zan arin, eta jetxi zan Judakoakin Dabid erregeari bidera irtetzera

17. Benjamingo milla gizonekin, eta zijoazen berarekin Siba Saulen etxeko serbitzaria, eta amabost bere seme eta ogei morroi, eta sarturik Jordanetik, erregearen aurretik

18. Irago zuten urbera, irago eragiteko erregeren familiari, eta egoteko bere agindura, eta Semei Jeraren semeak, auzpezturik erregearen aurrean irago zuenean Jordana

19. Esan zion: Ez zadazu dagokitu, ene jauna, gaiztakeria, eta etzaite ere oroitu zure serbitzariaren irainakin, errege nere jauna, Jerusalemdik atera ziñan egunean, eta ez itzatzu ere iduki, oh erregea, zure biotzean.

20. Zeren nik zure serbitzariak ezagutzen det nire bekatua, eta argatik etorri naiz gaur Joserren etxe guzitik lenbizikoa, eta jetxi naiz bidera irtetzera nere errege eta jaunari.

21. Erantzunik berriz Abisai Sarbiaren semeak, esan zuen: itz oiek gatik ez al da izango illa Semei, madarikatu zuelako Jaunak igortzia?

22. Eta esan zuen Dabidek: Zer dijoakigu neri eta zuri Sarbiaren semeak? Zergatik egiten zerate gaur nere tentatzalleak? Gaur illa izango bai al da gizon bat Israelen? Ez al dakit, gaur izan naizala egiña errege Israelen gañean?



23. Eta esan zion erregeak Semeiri: Etzera ilko. Eta juramentu egin zion.
24. Mifiboset Saulen semea ere jetxi zan eta irten zitzaion erregeari bidera, oñak garbitu gabe, eta bizarra kendu gabe, eta etzituen garbitu bere soñekoak, erregea atera zan egunetik, beraren itzulierako eguneraño pakean.
25. Eta irtenik bidera erregeari Jerusalemenean, esan zion erregeak: Mifiboset, zergatik etziñan etorri nerekin?
26. Eta erantzuten zuela esan zuen: Nere errege eta Jauna, nere morroiak mezpreziatu ninduen, eta nik zure serbitzariak esan nion gertutu zizadala asto bat gañera igo eta joateko erregearekin, zeren ni zure serbitzaria errena naiz.
27. Eta gañera salatu ninduen ni zure serbitzaria zure aurrean, nere errege eta jauna, baña zu, nere errege eta jauna, zera Jaungoikoaren aingeru bat bezelakoa, egin ezazu nai dezuna.
28. Zeren nere aitaren etxea ez da izan nere errege eta jaunaren aldeetik eriotzaren diña baizik, eta ala ere jarri ninduzun ni zure serbitzaria zure maiean jaten dutenen artean, zer ezpa bidezko bada eman nezake nik? Edo zeren gañean altxatu nezake nik boza erregearen aurrean?
29. Eta erregeak esan zion: Zergatik nekatzen zera itz geiago egiten? Esan dizut: zuk eta Sibak erdiratu itzatzute dituzuten gauzak.
30. Onen gañean erantzun zion Mifibosetek erregeari: Artu beza guzia ere, nere errege eta jauna itzuli dan ezkerre ongi bere etxera.
31. Berzelai Galaadtarrak ere jatsirik Rojelimdik, lagundu zion erregeari Jordana iragotzen, gertuta zegoala jarraitzeko errekaen beste aldamera ere.
32. Eta Berzelai Galaadtarra zan txit zarra, au da, larogei urtekoa, eta berak eman zion jaten erregeari, etzauntzetan zegoanean, zeren zan txit aberatsa,
33. Esan zion bada erregeak: Atoz nerekin bizi zaitezen ongi nerekin Jerusalemenean.
34. Eta esan zion Berzelaik erregeari: Zenbat dirade nere bizitzako urteak, igo nadin erregearekin Jerusalemenera.
35. Larogei urtekoa naiz, nire zentzunak sentikorrek bai al daude jakiteko zer dan gozoa eta zer mingoitza? Edo gozatu bai al dezake zure serbitzaria janariak, edo edariak? Edo bai al nago aditzeko gizaseme, edo emakume kantarien boza? Zergatik zure serbitzaria izango zaio zama nere errege eta jaunari?

36. Lagunduko dizut nik zure serbitzariak piska bat Jordango beste aldamenean, ez det alako aldakuntzaren premiari.

37. Baizik erregututzen dizut itzuli nadilla ni zure serbitzaria, eta il nadilla nere errian, eta izan nadilla lurpetua nere aitaren eta nere amaren obiaren aldean. Emen dago berriz Txamaan zure serbitzaria bijoa, bera zurekin, nere errege eta jauna, eta egin ezazu berarekin ongi deritzatzuna.

38. Eta esan zion erregeak: irago bedi nerekin Txamaan, eta nik egiñgo diot, zuk nai dezun guzia, eta iritxiko dezu nigandik eskatzen didazun guztia.

39. Eta errege eta erri guztiak irago zutenean Jordana, musu eman zion erregeak Berzelairi, eta bedekatu zuen. eta bera itzuli zan bere etxera.

40. Irago zan bada erregea Galgalara, eta Txamaan berarekin. Eta Judako tribu guziak lagundu zion erregeari erreka iragotzen, eta bakarrik arkitu zan an Israelko erriaren erdia.

41. Israelko gizaseme guziak bada joanik batera erregeagana, esan zioten: Zergatik ebatsi zaituzte gure anaia Judako gizasemeak, eta irago erazi diote Jordana erregeari eta bere familiari, eta Dabiden jende guziari berarekin?

42. Eta erantzun zien Judako gizaseme guziak Israelko gizasemei: Erregea alderago dagokigulako, zergatik aserritzen zerate gauza onen gañean? Erregearen gauzaren bat jan bai al degu, edo emanak izan badizkigite doañen batzuek?

43. Eta erantzun zien Israelko gizasemeak Judako gizasemei, eta esan zien: Amar alditan geiago gera gu erregearentzat, eta geiago dagogigu guri Dabid, zuei baño, zergatik egin diguzute irain au, eta ez gaituzte lenago gaitzigu, berriz eraman genezan gure erregea? Eta Judako gizonak erantzun zien garratzasunarekin Israelko gizonai.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Gertatu ere zan egotea an gizon gaizto bat. Beloalen semea, Seba zeritzana, Bokrien semea, Benjamingo tribukoa, zeñak jo zuen tronpeta esaten zuela: Ez degu zereginikan Dabidekin, ez zer itxedon ere ezer Isairen semeagandik, itzuli zaite Israel zure etxera.

2. Eta berezitu zan Israel guzia Dabidgandik, jarraitzen ziola Seba Bokrien semeari. Alaere Judako tribukoak lagundu zioten beren erregeari Jordandik Jerusalemeneraño.

3. Eta allegatu zaneke erregea bere etxera Jerusalemenean, artu zituen bere amar emazte azpiko, utzi zituenak jaurekia zaitzen, eta itxian sartu



erazi zituen, jaten ematen ziela, baña etzan berakgana allegatu, baizik egon ziraden itxian, il ziraden eguneraño, bizi ziradela alargunak bezela.

4. Esan zion gero erregeak Amasari: Bildu zazkidazu Judako gudari guziak irugarren egunerako, eta zu egongo zera berakin.

5. Joan zan bada Amasa biltzera Judakoak, eta gelditu zan denbora geiagoan, erregeak izentatu ziona baño.

6. Eta esan zion Dabidek Abisairi: Seba Bokriren semeak egingo digu orain gaitz geiago Absalonek baño, artu itzatzu bada zure jaunaren serbitzariak, eta persegitu zaiozu, erri murrutuak arkitu, eta iges egin ez datzakigun.

7. Atera ziraden bada berarekin Joaben jendeak eta Zerethtarrak eta Felethtarrak, eta bulardetsu guziak atera ziraden Jerusalendik, persegitze-ko Seba Bokriren semeari.

8. Eta zeudela berak, Gabaonen dagoan arri andiaren aldean, etorri-rik Amasa atera zitzaion bidera. Eta Joab zegoan jantzita tunika estu, bere gorputzaren neurrira egindako batekin, eta beraren gañean zeraman ezpa-ta lotuta zinzilika saiezperaño, bere maginaren barruan, alako moduan egiña, non, mugimendu arin batekin irten eta zauritu zezakean.

9. Joabek bada esan zion Amasari: Agur, ene anaia. Eta eskuiko eskuarekin eldu zion okotzeko bizarretik laztantzeko irudian:

10. Eta Amasa etzan oartu Joabek zeukan ezpatarekin, zeñak sartu zion saietsean, eta erraiak erori zitzaiozkan lurrera, eta bigarren otsik eman gabe, il zan. Joab berriz eta Abisai bere anaia joan ziraden persegi-tzera Seba Bokriren semea.

11. Bitartean Joaben lagunetatiko gizon batzuek, zeudela zutik Ama-saren gorputzillaren aldean, esan zuten: Ona emen, izan nai zuena Dabi-den agintaria Joaben lekuan.

12. Eta Amasa zetzan bidearen erdian, odoldua. Ikusi zuen gizon batek jende guztia gelditzen zala bera ikusteko, eta eraman zuen Amasa bidetik kanpo batera, eta estali zuen arropa batekin, bidean zijoazenak gelditu etzitezen beragatik.

13. Alde eragiñik berari bidetik, iragotzen ziraden aurrera Joabekin zijoazen gizon guziak Seba Bokrien semea persegitzera.

14. Baña onek irago zituen Israelko tribu guziak Abela, eta Beth-maatxaraño, eta bildu zuen berarekin martiztiaren autatuena.

15. Etorri ziraden bada, eta esetsi zioten Abela eta Bethmaatxari, eta inguratu zuten lutesiz erria, eta gelditu zan setiaturik, eta Joabekin zego-an jende guzia ari zan lanean desegiteko murrak.

16. Eta erriko emakume jakintsu batek esan zuen deadarrez: Aditu ezazute, aditu ezazute, esan zaiozute Joabi: Alderatu zaitte onara eta itz egingo det zurekin.

17. Eta alderaturik Joab emakumeagana, esan zion onek: Zu bai al zera Joab? Eta berak erantzun zuen: Ni naiz. Eta emakumeak itz egin zion onela: Aditu itzatzu zure serbitzariaren itzak. Berak erantzun zuen: Aditzen ditut.

18. Eta berriz emakumeak: Anziñako esangi batek dio: Galdetzen dutenak, galdetu bezate Abelan, eta onela iritxitzen zuten nai zutena.

19. Ez al naiz ni, ematen dizkiodana erantzura egiazkoak Israeli, eta zuk nai dezu arrasatu erri bat, eta desegin uri andi bat Israelen? Zergatik aurtikitzen dezu Jaunaren primeza?

20. Eta erantzun zuen Joabek, esaten zuela: Ez, urrutian nigandik orrelako gauza, ez nator ni desegin eta arrasatzera.

21. Gauza ez da orrela, baizik Efraimgo mendiko gizon Seba deriz-tzan bat, Bokriren semea, jaiki da Dabid erregearen kontra, eman zagu-zute au bakarrik, eta alde egingo degu erritik. Eta esan zion emakumeak Joabi: Bereala aurtikiko dizute bere burua murrutik.

22. Emakumea bada joan zan erri guzia zegoan tokira, eta itz egin zien alako jakinduriarekin, non, ebakirik burua Seba Bokriren semeari, aurtiki zioten Joabi. Eta berak joerazi zuen tronpeta, eta alde egin zuten erritik, bakoitza bere etzauntzetara. Eta Joab itzuli zan Jerusalemenera erre-geagana.

23. Joab bada izan zan Israelko martizti guzien agintaria, eta Banaias Joiadaren semea Zerethtar eta Felethtarrena.

24. Aduram zan kotizen begiralea, eta Josafat Ahiluden semea, sillu gordetzallea.

25. Su.a, sekretarioa: Sadok eta Abiatar, apaizak.

26. Eta ira Jairkoa Dabiden apaiza.

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Izan ere zan Dabiden denboran, iru urtean iraun zuen gosete bat, eta itundu zan Dabid Jaunaren orakuloarekin. Eta Jaunak erantzun zion, Saulgatik, eta bere etxe odolkiroagatik, il zituelako Gabaontarrak gerta-tzen zala au.

2. Ots eginik bada erregeak Gabaontarrai, itz egin zuen berakin. (Jakín bear da, Gabaontarrak etziradela Israelko semeetatikoak, baizik Amorrheoen kondar batzuek; eta Israeltarrak juramentuarekin eskeñi zio-



ten etziotela bizia kenduko; baña Saulek il nai zituen, Israelko eta Judako semeen onean zalako aitzakiarekin.

3. Esan zien bada Dabidek Gabaontarrai: Zer nai dezute egin dezadan nik zuekगतिक? Eta zer aski izango dezute, erregutu dezazuten Jaunaren primezagatik?

4. Eta Gabaontarrak esan zioten: Ez da gure arrenkura zillarraren eta urrearen gañean, baizik Saulen kontra eta bere etxearen kontra. Ez degu ere nai galdu dedilla Israelko gizonik. Eta erregeak esan zien: Zer da bada nai dezutena nik zuekगतिक egitea?

5. Zeñak erantzun zioten erregeari: Ain gaizkiro mendean iduki eta arrasatu ginduzten gizona, alako moduan desegin bear degu, non, ez dedilla gelditu bere jatorrikorik bat bakarra ere Israel guzian.

6. Eman bizazkigü bere semeetatik zazpi gizaseme, gurutziltzatu ditzagun Jaunaren honran Gabaa Saulen errian, zeñ izan zan beste denbora batean Jaunaren autua. Esan zuen erregeak: Emango dizkizutet.

7. Alaere barkatu zion erregeak Mifiboset, Jonatasen seme, eta Saulen illobari, Dabid eta Jonatas Saulen semeak egin zuten elkartasun juramentatuगतिक.

8. Artu zituen bada erregeak Resfaren, Aiaren alabaren bi seme, zeñak iduki zituen Saulgandik, au da, Armoni eta Mifiboset, eta Mikolen, Saulen alabaren bost seme, zeñak iduki zituen Hadriel, Berzelairen seme, Molathikoa izandu zanagandik,

9. Eta jarri zituen Gabaontarren eskuetan, zeñak gurutziltzatu zituzten mendian Jaunaren aurrean. Ala galdu ziraden batean zazpi gizaseme oiek, illak uztaren lenbiziko egunetan, garagarraren itaitzearen asieran.

10. Resfa Aiaren alabak berriz arturik ziliziozko oial bat, zabaldu zuen bere oñetan arri baten gañean, itaitzearen asieratik, zerutik ura beren gañera erori zan arteraño, eta etzien utzi egaztai zatiutzen egunaz, ez pistiai gauaz.

11. Eta adirazi zitziotien Dabidi Resfa, Aiaren alaba Saulen emazte azpikoak egin zuena.

12. Eta joan zan Dabid, eta artu zituen Saulen ezurrak, eta bere seme Jonatasenak Jabes Galaadko gizonakgandik, zeñak ostu zituzten Bethsango plazatik, zeñean eseki zituzten Filistintarrak, il zutenean Saul Jelboen.

13. Eta eraman zituen andik Saulen ezurrak eta bere seme Jonatasen ezurrak, eta bildurik gurutziltzatuak izan ziradenean ezurrak,

14. Lurpetu zituzten Saulen, eta bere seme Jonatasen ezurrakin Benjamingo lurrean, aldamen batean, bere aita Zisen obian, eta egin zuten

erregeak agindu zuen guzia, eta bigundu zan Jaungoikoa lurrarekin oien ondoan.

15. Bitartean Filistintarrak berriz asi ziraden gerran Israelen kontra, eta atera zan Dabid bere martiztiarekin gudatzera beren kontra. Eta gertatu zan arkiturik auldua

16. Jesbibenobek, zeñ zan Arafaren jatorrikoa, eta zeñak zeraman lanza bat, zeñean burniak pisatzen zituan irureun ontza, eta zeñak zuen gerrian ezpata berri bat, zauritu nai izan zuen Dabid.

17. Baña Abisai Sarbiaren semeak lagundu zion, eta zauriturik Filistintarra, il zuen. Orduan Dabiden jendeak juramentu egin zuten, esaten zutela: Etzera berriz aterako gurekin gerrara, itzali ez dedin Israelko lanpara.

18. Izan ere zan bigarren gerra bat Goben, Filistintarren kontra, orduan Sobotxai Husatikoak il zuen Saph, Arafaren jatorrikoa, Eraldioen arrazakoa.

19. Irugarren gerra bat ere izandu zan Goben Filistintarren kontra, zeñean Adeodato, Basoko semeak, eotzen zituenak kolorezko eunak Belenen, il zuen Goliath Jethkoa, zeñak zeraman lanza bat, zeñean kirtena zan eulen irazki ardatza bezelakoa.

20. Laugarren gerra izan zan Jethen, non egon zan gizon eskerga bat, zituena sei beatz esku bakoitzean eta oiñ bakoitzean, au da, ogeitalau, eta zan Arafaren jatorrikoa.

21. Eta blasfematu zuen Israelगतिक, eta il zuen, Jonatan Samaaren seme Dabiden anaiak.

22. Lau oiek ziraden jaiok Jethen Arafaren jatorrikoak, eta erori ziraden Dabiden eta bere jendearen eskuz.

OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Kantatu ere ziozkan Dabidek Jaunari kantatxo onen itzak, Jaunak libratu zuen egunean bere etsai guzien eskuetatik, eta Saulen persekuziotik.

2. Eta esan zuen: Jauna da nere baluarte, eta nere sendotasuna, eta bera da nere Salbagillea.

3. Jaungoikoa da nere gordetzallea, beragan itxedongo det, nere ezkutua, eta nere osasunaren ala, nere goratzallea eta nere igestokia, nere Salbagillea, gaiztakeriatik libratuko nazu.

4. Ots egingo diot Jaun alaabagarriari, eta salbatua izango naiz nere etsaietatik.



5. Zeren ingurutu ninduten eriotzako antsiak, Belialen ugoldeak arri-tu ninduten.
6. Infernuko sokak ingurutu ninduten, eriotzako lakioak uste baño lenago arrapatu ninduten.
7. Nere atsekabeen ots egingo diot Jaunari, eta deadar egingo diot nere Jaungoikoari eta adituko du bere elizatik nere boza, eta nere deadarra allegatuko da bere belarrietara.
8. Mugitu eta ikaratu zan lurra, mendien zimenduak izan ziraden astinduak, eta urratuak, zeren aserretu zan berakin.
9. Igo zan kea bere sudurretatik, eta bere aotik iretsiko duen sua: berak irazekiak izan ziraden ikatzak.
10. Zeartu zituen zeruak, eta jetxi zan, eta illuntasuna bere oñen azpian.
11. Eta igo zan kerubiñen gañera, eta egan egin zuen, eta erori zan aizearen egoen gañera.
12. Jarri zituen bere inguruan illuntasunak ezkutatzeko, artzatutzen dituenak zeruetako odeietako urak.
13. Bere presenziaren distiadurak, irazeki zituen suz ikatzak.
14. Turmoatuko du zerutik Jaunak, eta txit altuak emango du bere boza.
15. Aurtiki zituen geziak eta desegin zituen, tximistak, eta higatu zituen.
16. Agertu ziran itxasoko urjatorriak, eta desestali ziran lurraren zimenduak Jaunaren zemaira, bere aserrearen espirituaren asnasara.
17. Bidaldu zuen zerutik, eta artu ninduen, eta atera ninduen ur asko-etatik.
18. Libratu ninduen etsai txit sendo batgandik, eta gorrotatzen ninduen aietatik, ni baño bulardetsuagoak ziradelako.
19. Bera aurreratu zitzadan naigabeko egunean eta Jauna izan zan nere irozgarri sendoa.
20. Eta atera ninduen kanpora zabalerara, libratu ninduen bere gogokoa nintzalako.
21. Jaunak sarizatuko nau nere zuzentasunaren araura, eta itzuliko dit nere eskuen garbitasunaren araura.
22. Zaitu nituelako Jaunaren bideak, eta ez nuelako gaizki egin nere Jaungoikoaren kontra.
23. Nere begien aurrean dauzkadalako bere erabakiak, eta ez diedalako alde erazi nigandik bere agintei.

24. Eta izango naiz osoz ona berarekin, eta zaituko naiz nere gaizta-keriatik.
25. Eta Jaunak pagatuko dit nere zuzentasunaren araura, eta nere eskuen garbitasunaren araura, bere begien aurrean.
26. Santuarekin santua izango zera, eta sendoarekin osoz ona.
27. Autuarekin izango zera autua, eta biurriarekin biurrituko zera.
28. Eta salbatuko dezu erri beartua, eta zure begiakin humillatuko dituzu arroak.
29. Zeren zu, oh Jauna, zera nere zuzia, eta zuk, Jauna, argituko dituzu nere illuntasunak.
30. Zeren zurekin joango naiz korrika armarekin, nere Jaungoikoarekin igoko naiz murrura.
31. Jaungoikoa, bere bidea orbanik gabekoa, Jaunaren itza suan garbitua, beragan itxedoten duten guztien ezkutua da.
32. Zeñ da Jaungoikoa Jaunaz ostean, eta zeñ da sendoa gure Jauna baizik?
33. Jaungoikoa sendotasunez gerrian lotu ninduena, eta ederki lautu zuen nere bidea.
34. Berdintzen dituen nere oñak oreñenakin, eta jartzen nauena nere toki goratuen gañean.
35. Irakasten diotena nere eskuai nola gudatu, eta egiten dituen nere besoak brontzezko uztai bezelakoak.
36. Eman ziñidan zure osasuneko ezkutua, eta zure otsantasunak ugaritu nau.
37. Zabalduko dituzu nere pausuak nere azpian, eta ez dirade indar-gatuko nere orpoak.
38. Persegituko ditut nere etsaiak, eta puskatuko ditut, eta ez naiz itzuliko atzera desegin ditzadan bitartean.
39. Desegin eta zatituko ditut jaikiko ez diraden eran eroriko dirade nere oñazpietan.
40. Sendotasunez lotu ninduzun gerrian gudarako, jarri ziñituen nere azpian jarkitzen zitzazkidanak.
41. Atzeak itzulierazi ziñioten nere etsaiak, eta gorrotatzen nindutenai, eta nik desegingo ditut.
42. Deadar egingo dute, eta ez da izango nork salbatu ditzan, Jaunagana eta ez ditu adituko.
43. Borrauko ditut lurreko autsa bezela, puskatu eta zatituko ditut karriaketako loia bezela.



44. Salbatuko nazu nere erriaren kontradikzioetatik, gordeko nazu izateko jendeen burua, ezagutzen ez dedan erri batek serbituko nau.

45. Besteen semeak jarkiko zazkit, aditzen nautenean obedituko didate.

46. Besteen semeak iges zuten, eta estutuak izango dirade beren itxi-goetan.

47. Bizi da Jauna, eta bedekatua nere Jaungoikoa, eta goratua izango da nere osasunaren Jaungoiko sendoa.

48. Zu, o Jaungoikoa bengatzen zatzatana, eta nere mendean dauz-kazuna erriak.

49. Ateratzen nazuna nere etsaien artetik, eta ipintzen nazuna neri jarkitzen zatzatanen gañetik, gizon gaiztoagandik libratuko nazu.

50. Argatik, o Jauna, alabatuko zaitut jendeen artean, eta kantatuko diot zure izenari.

51. Anditzen dituen bere erregearen osasunak eta urrikaltasuna egi-ten diona Dabid bere kristoari, eta beraren jatorriari betiko.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Oiek dirade Dabiden atzeneko itzak. Esan zuen Dabid Isaien semeak. Esan zuen Jakoben Jaungoikoaren igortziaren itza emana izan zitzaion gizonak, Israelko kantari ederrak,

2. Jaunaren espirituak itz egin zuen nere lekuan, bere itza egon da nere mingañaren gañean.

3. Israelko Jaungoikoa da itz egin didana, Israelko sendoa da itz egi-ten duena, gizonen menpetaria, Jaungoikoaren beldur diradenen menpe-tari zuzena.

4. Berak izango dirade egunsentiaren argi, argi egiten duena bezela-koak goizean, eguzkiak irtetzen duenean odeirikan batere gabe, eta euria-ren ondoan lurrean erretzen dan belarra bezelakoak.

5. Egiazki etzan nere etxea diña Jaungoikoaren begietan, Jaunak nerekin egiteko elkartasun betiko bat, sendoa gauza guztietan eta senda-tua. Zeren bera da nere osasun guztia eta nere borondate guztia, eta ez da gauzarik batere beragandik jatorria ez duenik.

6. Legea austen dutenak berriz izango dirade ateratuak arantzak bezela, zeñai ez dien iñork ukiturik egiten eskuarekin.

7. Eta norbaitek ukitu nai baliote, artuko du burni bat, edo makilla lanzatu bat, eta su emanik, erreak izango dirade auts biurtu arteraño.

8. Oiek dirade Dabiden sendoen izenak. Irakastokian esertzen dana, printze txit jakintsua iruen artean, bera da zuraren artxo samurra bezela-koa, eta bera da eraso bakar batean il zituena zortzireun.

9. Onen ondoan Eleazar Ahohitarra, aitaren aldeko bere osabaren semea, izan zan Dabidekin zeuden iru sendoetatik bat, burla egin zienean Filistintarrai, eta bildu ziradenean an gudarako.

10. Eta igorik Israeltarrak, bera egon zan zutik, eta ari zan zauritzen Filistintarrak, aliketa bere eskua nekatu zan bitartean, eta gelditu zitzaion ezpatari itsatsita. Jaunak eman zigun egun artan garaipen andi bat, eta iges egin zuen erria, itzuli zan, illen gauzak artzeko.

11. Onen ondoan izandu zan Semma, Aje Ararikoaren semea. Eta Filistintarrak bildu ziraden toki adjutu batean, zeren an zegoan dilistaz beteriko kanpo bat. Eta iges egiñik erriak Filistintarren aurretik,

12. Bera jarri zan zutik kanpoaren erdian, eta zaitu zuen, eta desegin zituen Filistintarrak; eta iritxi erazi zion Jaungoikoak garaipen andi bat.

13. Berebat len ere iru oiek, zeñak ziraden lenenak ogeita amarren artean, jatxi ziraden, eta etorri uzten denboran Dabidgana Odollango kobara, eta Filistintarrak jarri zituzten beren etzauntzak Eraldioen ordekan.

14. Eta Dabid zegoan toki sendo batean, eta zegoan era atan Bele-nen egotez, Filistintar talde bat.

15. Esan zuen bada Dabidek gogo biziarekin: Ah! Emango balit nor-baitek edaten Belengo atearen aldean dagoan urpetegiko uretik!

16. Bereala iru bulardetsu oiek irago zituzten Filistintarren etzaun-tzak, joan ziraden ateratzera ura Belengo atearen aldean dagoan urpetegi-tik, eta ekarri zioten Dabidi, baña Dabidek etzuen edan nai izan, baizik eskeñi zion Jaunari,

17. Esaten zuela: Jaungoikoari ez dakiola nai, nik onelako gauzarik egitea, nik edango dedala gizon oien, beren biziak galtzeko irriskuan jarri diradenen odola! Etzuen bada edan nai izan gauza oiek egin zituzten iru txit bulardetsu oiek.

18. Abisai Joaben anaia eta Sarbiaren semea ere, zan iruretatik nagu-siena. Au da altxatu zuena bere lanza irureunen kontra, zeñak il zituen. Zan ospetsua iruren artean,

19. Eta iruren artean eskubiderik geien zuena, eta beretatik lenena, baña etzituen berdindu lenbiziko irurak.

20. Bigarrena izan zan Banaias, Joiadaren semea, gizon txit sendoa eta egitate aundietakoa, berez Kapselgoa. Onak desegin zituen Moabko leoi biak; eta elurte batean jetxi zan urpetegi batera, eta an il zuen leoi bat.



21. Beronek kendu zion bizia ijito bati, luzeera txit andikoa eta ikusgarria, zeñak zuen eskuan lanza bat, eta joanik beragana zigor batekin, indarrez kendu zion ijitoari eskutik lanza, eta il zuen bere beraren lanza-rekin.

22. Oiek egin zituen Banaias Joaiadaren semeak.

23. Eta bera da izendatua iru sendoen artean, zeñak ziraden ogeita amarretatik argitsuenak. Alaere etzan allegatzen iruretara, eta Dabidek egin zuen bere konsejari eta sekretario.

24. Asael Joaben anaia zan ogeita amarretatikoa, Elehanan Belengo, aitaren alde bere osabaren semea,

25. Semma Harodikoa, Elika Harodikoa,

26. Heles Faltikoa, Hira Thekuakoa Akzesen semea,

27. Abiezer Anathothkoa, Mobonnai Husatikoa,

28. Selmon Ahodkoa, Maharai Netophathkoa,

29. Heled Baanaren semea, zeñ ere zan Netophathkoa, ithai Ribairen semea, Gabaadkoa, Benjaminen semeetatikoa,

30. Banaia Farathongoa, Heddai Gaasko Errekakoa,

31. Abialbon Arbathkoa, Azmabeth Beromikoa,

32. Eliaba Salabonikoa, Jonathan Jassenen semeetatikoa,

33. Semma Ororikoa, Aiam Arorkoa, Sararren semea,

34. Eliphelet Aasbairan, Matxatiren semearen semea; Eliam Jelongoa, Atxitopelen semea,

35. Hesrai Karmelokoa, Pharai Aroikoa,

36. Igaal Sobakoa Nathanen semea, Bonni Gadikoa,

37. Seleam Ammonikoa, Naharai Berothkoa, Joaben, Sarbiaren semearen ezkutaria,

38. Ira Jethritkoa, Gared, zeñ ere zan Jethritkoa,

39. Urias Hethkoa. Guztitan ogeita amasei.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Berriz irazeki zan Jaunaren aserrearen sumintasuna Israelen kontra; eta ala laketu zuen bere gaitzerako, Dabidek agindu zezala, kontatzeko Israel eta Juda guzia.

2. Esan zion bada erregeak Joab bere martiztien agintariari: ibilli zaite Israelko tribu guzietatik Dandik Bersabeeraño, eta kontatu ezazu erria, jakin dezadan nik zenbat jende dagoan.

3. Eta esan zion Joabek erregeari: Geitu beza zure Jaun Jainkoak zure erria, orain dan bezelako beste anbat, eta oraindikan eun alditan geiago,

nere errege eta jaunaren begietan, baña zer da nere errege eta jaunak nai duena, onelako gauzarekin?

4. Baña erregearen itzak garaitu zituen Joaben eta bere martiztiko agintarien esanak, eta atera ziraden Joab eta gudarien agintariak erregearen aurretik, zenbatutzera Israelko erria.

5. Eta iragorik Jordana, allegatu ziraden Aroerrera erriaren eskuiera, zeñ dagoan Gaden ibarrean:

6. Eta Jazertik irago ziraden Galaadera, eta Hodsiko erriberara eta etorri ziraden Dango basoetara. Eta jira eginik Sidongo inguruetatik,

7. Irago ziraden Tiroko murruek aldetikan, eta Hebetarren eta Kanaantarren lur guzitan, eta allegatu ziraden Bersabeeraño Judaren Egoealdean.

8. Eta ibillirik lur guzitik, itzuli ziraden Jerusalemenera, bederatzi illabete eta ogei egun iragota.

9. Eta eman zion Joabek erregeari erriaren zenbata, eta arkitu ziraden Israelkoak zortzireun milla gizon sendo, eta gerrarako egokiak, eta Judakoak bosteun milla gudari.

10. Baña erria kontatua izan ezker, kezkatu zitzaion Dabidi bere biotza, eta esan zion Dabidek Jaunari: Bekatu andia egin det egitate onetan, baña alaere erregututzen dizut, o Jauna, barkatu dagizula arren zure serbitzari onen bekatua, zeren txit barbullkiro egin det.

11. Goizean, Dabid jaiki zaneko, itz egin zion Jaunak Gad profeta eta Dabiden ikusleari, esaten zuela:

12. Zoaz, eta esan zaiozu Dabidi: Oiek esaten ditu Jaunak: iru gauzen aukera ematen zatzu, autu ezazu iru gauza oietatik nai dezuna, bidaldu dizazudan.

13. Eta etorririk Gad Dabidgana, adirazi zion, esaten zuela: Edo etorriko zatzu zazpi urteko gosete bat zure lurrera, edo iru illabetean ibilliko zera, persegitzen zaituzten etsaien igesi, edo gutxienez iru egunean izango da izurritea zure errian. Pensatu ezazu bada orain, eta begira zer esango diodan bidaldu nauenari.

14. Eta esan zion Dabidek Gadi: Estutasun andian arkitzen naiz: baña obeago da erori nadilla Jaunaren eskuetan (zeren bere urrikaltasunak aundiak dirade) gizonen eskuetan baño.

15. Eta bidaldu zuen izurritea Israelen gañera, goizetik erabakita zegoan denboraraño, eta il ziraden errikoetatik Dandik Bersabeeraño, irurogeita amar milla gizaseme.

16. Eta luzaturik Jaunaren aingeruak bere eskua Jerusalemenera gañera desegiteko berau, errukitu zan Jauna bere naigabearekin, eta esan zion



erria zauritzen zuen aingeruari: Aski da, iduki ezazu geldirik orain zure eskua. Bada Jaunaren aingerua zegoan Areuna Jebustarraren larrañaren aldean.

17. Eta esan zion Dabidek Jaunari, ikusi zuenean aingerua ari zala erria zauritzen: Ni naiz bekatu egin dedana, ni gaizki egin dedana, ardiak diraden oiek, zer egin dute? Erregututzen dizut, arren itzuli dedilla zure eskua nere kontra, eta nere aitaren etxearen kontra.

18. Eta etorri zan Gad Dabidgana egun artan, eta esan zion: igo zaitte, eta egin zaiozu aldare bat Jaunari Areuna Jebustarraren larrañean.

19. Joan zan bada Dabid ara, betetzera Gadek Jaunaren izenean eman zion agintea.

20. Eta begiraturik Areunak, ikusi zuen erregea eta bere serbitzariak zetoztela beraganontz.

21. Eta irtenik bidera agur andi bat egin zion, auzpezturik arpegia lurreraño, eta esan zuen: Zergatik dator nere errege eta Jauna bere serbitzariaren etxera? Zeñi erantzun zion Dabidek: Nator eroatera larrañ ori, eta egitera beratan aldare bat Jaunari, gelditu dedin, erritik zabalduaz dijoan eriotea.

22. Eta esan zion Areunak Dabidi: Artu beza nere errege eta jaunak, eta eskeñi beza doaña, ongi deritzan eran, emen dituzu idiak eskeñtzarako eta gurdi bat, eta idien uztarriak egurtzat.

23. Eta Areuna erregeak eman zion guzia erregeari, eta esan zion Areunak erregeari: Zure Jaun Jainkoak ontzat artu dezala zure doaña.

24. Erantzun zuen erregeak eta esan zuen: Ez da izango zuk nai dezun bezela, baizik pagatuko dizut balio duena, eta ez diozkat eskeñiko nere Jaun Jainkoari, doako opariak. Erosi zituen bada Dabidek larraña eta idiak zillarrezko berrogeita amar siklotan.

25. Eta egin zion an Dabidek aldare bat Jaunari, eta eskeñi zituen holokaustoak eta pakeko doñañak. Onenbesterekin agertu zion Jaunak lurrari biguñtasuna, eta gelditu zan eriotea Israelen.

ERREGEEN IRUGARREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Eta Dabid erregea zan zarra eta edade andikoa, eta arroparekin estalita ere, etzan berotzen.

2. Argatik esan zioten bere morroiak: Billatu dizaiogun gure errege ta jaunari donzella gaztetxo bat, zeñ izanik bere emaztea, bizi dedin erregearekin, eta oroldu dezan, eta bere aldean lo egin, eta berotu dezan gure errege eta jauna.

3. Billatu zuten bada Israelko alderri guzietan neskatz gazte edertxo bat, eta arkitu zuten Abisag Sunamgoa, eta eraman zioten erregeari.

4. Eta neskata zan txit ederra, eta lo egiten zuen erregearekin, eta serbitzen zuen erregea, baña erregeak etzion ukiturik egin.

5. Eta Adonias Hagjithen semea jaiki zan esaten zuela: Nik erreinatuko det. Eta egin zituen beretzat gurdiak, eta artu zituen zaldizkoak, eta berrogeita amar gizon, ibilli zitezen bere inguruan.

6. Eta bere aitak etzion iñoiz agirakarik egin, ezda esan ere: Zergatik egiten dezu au? Eta au ere zan txit ederra, Absalonen ondoan jaiotzaz bigarrena.

7. Eta zegoan adituta Joab Sarbiaren semearekin, eta Abiatar Apaiz Nagusiarekin, zeñak laguntzen zien Adoniasen aldekoai.

8. Baña Sadok beste Apaiz Nagusi bat, eta Banaias Joiadaren semea, eta Natan profeta, eta Semei, eta Bei, eta Dabiden martiztiaren indarrik geiena, etzeuden Adoniasen alde.

9. Illerazirik bada Adoniasek ariak, txalak, eta abere gizen mot guzia Zoboletko arriaren alboan, zeñ zegoan Rojelen iturritik aldean, deitu zituen bere anaia erregearen seme guziak, eta Judako gizon, erregearen serbitzari guziak.

10. Baña etzituen deitu Natan profeta, ez Banaias, ez bulardetsuenak, ez bere anaia Salomon ere.

11. Argatik Nathanek esan zion Bethsabee Salomonen amari: Ez al dezu aditu, Adonias Hagjithen semeak erreinatzen duela, eta Dabid gure Jaunak ez dakiala?

12. Orain bada atotz, artu ezazu nere konsejua, eta salbatu ezazu zure bizia eta zure seme Salomonena.

13. Zoaz eta sartu zaitte Dabid erregeagana, eta esan zaiozu: Etziñidan juramentu egin zuk, nere errege eta jauna, neri zure serbitzari oni,



esaten ziñidala: Salomon zure semeak erreinatuko du nere ondoan eta bera eseriko da nere tronuan? Nola bada erreinatzen du Adoniasek?

14. Eta oraindikan izketan ari zerala zu an erregearekin, joango naiz ni zure ondoan, eta sendatuko ditut zure arrazoiak.

15. Sartu zan bada Bethsabee erregearen gelara, eta erregea zegoan txit zartuta, eta Abisag Sunamgoak serbitzen zuen.

16. Makurtu zan Bethsabee eta adoratu zuen erregea. Eta erregeak esan zion: Zer da nai dezuna?

17. Berak erantzun zuen, esaten zuela: Nere Jauna, zuk juramentu egin ziñion zure Jaun Jainkoagatik zure serbitzariari, Salomon nere semeak erreinatuko zuela zure ondoan, eta eseriko zala zure tronuan.

18. Eta ona non orain Adoniasek erreinatzen duen, jakin gabe zuk, errege ene jauna.

19. Illerazi ditu idiak, eta abere gizen mot guzia, et ari txit aski, eta ots egin die jatera erregearen seme guziaz, baita Abiatar apaizari ere, eta Joab martiztiaren agintari magusiari, baña ez dio ots egin zure serbitzari Salomoni.

20. Bitartean, nere errege ta jauna, Israel guziaren begiak daude itzuliak zugana, adirazi dizaiozun, nork eseri bear duen zure tronua gañean, nere errege eta jauna, zure ondoan.

21. Eta gertatuko da, dijoaneko nere errege eta jauna atsedetera bere gurasoakin, ni eta nere seme Salomon izango gera tratatuak gaizkigilleak bezela.

22. Oraindikan bera erregearekin izketan ari zala, ona non allegatu zan Natan profeta.

23. Eta adirazi zioten erregeari, esaten ziotela: Emen da Natan profeta. Eta sarturik erregearen aurrean, eta agur egiñik makurtzen zala lurre-raño,

24. Esan zuen Natanek: Nere errege eta jauna, esan bai al dezu zuk, Adoniasek erreinatu beza nere ondoan, eta bera eseri bedi nere tronuan?

25. Zeren gaur jetxi da, eta illerazi ditu idiak, eta abere gizenak, eta ari txit asko, eta ots egin diote jatera erregearen semeai, eta martiztiko agintariari, baita Abiatar apaizari ere, eta zeudela berak jaten eta edaten bere aurrean, eta esaten zutela: Bizi bedi Adonias erregea.

26. Ez dit ots egin jatera neri zure serbitzari oni, ez Sadok apaizari, ez Banaias Joladaren semeari, ez Salomon zure serbitzariari.

27. Nere errege eta jaunak emana izan bai al da aginte au, eta ez dida-zu adirazi neri zure serbitzariari, zeñ eseriko dan nere errege eta jaunaren tronua gañean bere ondoan?

28. Eta erantzun zuen erregeak, esaten zuela: Ots egin zaiozute nigan Bethsabeeri. Eta au sartu zanean eta jarri erregearen aurrean,

29. Juramentu egin zuen erregeak, eta esan zuen: Nere anima irrisku guzitik libratu zuen Jaungoikoa bizi dan bezela diot.

30. Nola juramentu egin nizun Israelko Jaun Jainkoagatik, esaten nuela: Salomon zure semeak erreinatuko du nere ondoan, eta bera eseriko da nere lekuan nere tronua gañean, ala egingo det gaur.

31. Eta Bethsabee makurturik arpegia lurreraño, agur egin zion erregeari, esaten zuela: Bizi bedi beti Dabid nere jauna.

32. Eta esan zuen Dabid erregeak: Ots egin zaiezute nigana Sadok apaizari, eta Nathan profetari, eta Banaias Joiadaren semeari. Zeñak sarturik erregearen aurrean,

33. Esan zion: Artu itzatzute zuekin zuen jaunaren morroiak, eta jarri ezazute nere seme Salomon nere mandoaren gañean: eta eraman ezazute Jihonera.

34. Eta igortzi bezate an Sadok apaizak, eta Natan profetak erregetzat Israelen gañean, eta joko dezute tronpeta, eta esango dezute: Bizi bedi Salomon erregea.

35. Itzuliko zerate gero laguntzen diozutela, eta etorriko da bera esertzera nere tronua gañean, eta erreinatuko du nere lekuan, eta aginduko diot izan dedilla Israelko eta Judako zuzentzallea.

36. Eta Banaias Joiadaren semeak erantzun zion erregeari, esaten ziola: Ala izan dedilla, ala indartu beza nere jabe ta erregearen Jaun Jainkoak.

37. Nola izan zan Jauna nere jabe ta erregearekin, ala izan dedilla Salomonekin, eta goratuago egin beza bere tronua, oraindikan geiago, Dabid nere errege eta jaunaren tronua baño.

38. Joan ziraden bada Sadok apaiza, eta Nathan profeta, eta Banaias Joiadaren semea, eta Zeretharrak, eta Feletharrak: eta jarri zuten Salomon Dabid erregearen mandoaren gañean, eta eraman zuten Jihonera.

39. Sadok apaiz nagusiak artu zuen tabernakulotik olio ontzia, eta igortzi zuen Salomon, eta jo zituzten tronpetak, eta deadar egin zuen erri guziak: Bizi bedi Salomon erregea.

40. Eta mundu guzia joan zan bere ondoren, eta jende talde andi bat, jotzen zituztela txirolak, eta txit andizkiro poztutzen ziraden, eta ikara egin zuen lurak beren deadarrakin.

41. Eta aditu zuen Adoniasek, eta berak jatera ots egin zioten guziak, janedana aitu zanean, eta Joabek aditu zueneko tronpetaren ota, esan zuen: Zer ote da erri naspillatutako onen deadarra?



42. Oraindikan berau izketan ari zala, etorri zan Jonatas Abiatar apaizaren semea, zeñi esan zion Adoniasek: Sartu zaite, zeren gizon sendoa zera eta berri onak dakarzkizu.

43. Eta erantzun zion Jonatasek Adonias: Ez inolaere, zeren gure errege eta jaun Dabidek jarri du erregetzat Salomon.

44. Eta bidaldu ditu berarekin Sadok apaiza, eta Natan profeta, eta Banaia Joiadaren semea, eta Zeretharrak eta Feletharrak, eta jarri dute erregearen mandoaren gañean.

45. Eta Sadok apaizak eta Natan profetak igortzi dute erregetzat Jihonen, eta itzuli dirade andik pozezko deadarretan, zeñak aditzen diraden erri guzian, oiek dirade, aditu dituzuten gozotasunezko bozak,

46. Itz batean, Salomon dago onezkero eseria erreinuko tronua gañean.

47. Eta erregearen morroiak sartu dirade ematera zoriona gure errege eta jaun Dabidi, esaten dutela: Egin beza Jaungoikoak Salomonen izena ospetsuagoa oraindikan zure izena baño, eta goratuago egin beza bere tronua, oraindikan zurea baño geiago. Eta erregeak bere oetik adoratu du.

48. Eta esan zuen: Bedeikatua Israelko Jaun Jainko, ikusierazi didana gaur nere begiak nere tronua gañean esertzen dana.

49. Gelditu ziraden bada beldurturik, eta jaiki ziraden, Adoniasek jatera deituak izan ziraden guztiak, eta bakoitza joan zan bere bidetik.

50. Adonias berriz Salomonen beldur izanik, jaiki ta joan zan, eta eldu zion aldarearen ertzari.

51. Eta adirazi zioten Salomoni, esaten zutela: Ona non Adoniasek, Salomon erregearen beldur izanik, eldu dion aldarearen ertz bati, eta dio: Juramentu egin bizat gaur Salomon erregeak, ez duela ilko ezpataz bere serbitzaria.

52. Eta esan zuen Salomonek: Gizon ona baldin bada, ez da eroriko lurrera bere illeetatik bat bakarra ere, baño gaizki portatzen baldin bada, illa izango da.

53. Bidaldu zituen bada Salomon erregeak mandatariak, eta ateraerazi zuen aldaretik, eta joanik Adonias Salomon erregeagana, agur andi bat egin zion, eta esan zion Salomonek: Zoaz zure etxera.

BIGARREN KAPITULUA

1. Zegoala Dabid bere eriotzako egunaren aldean, eman ziozkan bere seme Salomoni irakatsi oiek, esaten zuela:

2. Ni banoa ilkor guziak oi dijoazen tokira: sendatu zaite, eta izan gizon,

3. Eta gorde itzatzu zure Jaun Jainkoaren aginteak, zabiltzala bere bideetatik, zaitzen dituzula bere zeremoniak, bere agintzak, bere legeak, eta bere erabakiak, Moisesen legean eskribatua dagoan bezela, aditu dezazun, egiten dezun guzia, eta begiratzen diozun guzia.

4. Jaunak sendatu ditzan nigatik esandako itz guziak, esaten duela: Baldin zure semeak ongi bizi badirade, eta ibiltzen baldin badirade nere aurrean egian, beren biotz guzitik, eta beren anima guzitik, zure jatorrikoren bat egongo da beti Israelko tronuan.

5. Badakizu ere zuk zer egin zuen nerekin Joab, sarbiaren semeak, egin zuena Israelko martiztiko agintari nagusi biakin, Abner Nerren seme, eta Amasa Jetherren semearekin, zeñak il zituen, isurtzen zuela beren odola pakeko denboran, gerran egin oi dan bezela, eta odoltzen zuela lotuta zeukan gerrikoa, eta bere oñak estalitzen zituzten zapatak.

6. Zuk bada egingo dezu zure jakituriaren araura, eta ez diozu utziko iltzen pakean, zartuta eta ille zuriakin.

7. Erakusiko ere diezu esker ona Berzellai Galaadkoaren semeai, eta jango dute zure maiean, zeren bidera atera zirtazkidan igesi nijoanean zure anaia Absalongandikan.

8. Zurekin dezu ere Semei, Jeraen, Jemini Bahurimgoaren semearen semea, zeñak madarikatu ninduen madarikazio gaizto batekin, etzauntzetara nijoanean, baño atera zatadalako bidera, Jordana iragotzera nijoanean, juramentu egin nion Jaunagatik, esaten niola: Etzaitut ezpataz ilko.

9. Ez dezu zuk utziko kastigu gabe gelditu dedilla. Gizon jakintsua zera, eta jakingo dezu zer egin berari, eta bidalduko dituzu bere ille zuriak odolarekin obira.

10. Joan zan bada Dabid atsedetzera bere gurasoakin, eta obiatu zuten Dabiden errian.

11. Eta Dabidek Israelen gañean erreinatu zuen denbora izan zan berrogei urte, Hebronon erreinatu zuen zazpi urtean, Jerusalemen ogeita amairuan.

12. Eta Salamon jarri zan erregetzan bere aita Dabiden lekuan, eta bere erreñua txit sendotu zan.

13. Eta Adonias Hagjithen semea joan zan ikustera Bethsabee Salomonen ama. Zeñak esan zion: Pakea bai al dakazu? Pakea, erantzun zuen berak.

14. Eta esan zuen gero: itz bat egin bear det zurekin. Berak erantzun zuen: itz egin ezazu.



15. Eta Adoniasiek esan zuen: Badakizu neri tokatzen zitzadala erreñua, eta Israel guziak naiago ninduela ni bere erregetzat. Alaere aldaturia izan da erreñua, eta emana izan zaio nere anaiari; zeren Jaunak zeukan erabakita berari ematea.

16. Orain bada, gauza bakar bat eskatzen dizut: etzadazu arren ukatu. Bethsabek esan zion: itz egin ezazu.

17. Eta berak esan zuen: Erregututzen dizut esan zaiozula Salomon erregeari (zeren ezin ezer ukatu lezakezu) eman dizadala emaztetzat Abisag Sunamgoa.

18. Eta esan zuen Bethsabeek: Ongi dago, nik itz egingo diot zugatik erregeari.

19. Etorri zan bada Bethsabee Salomon erregeagana, itz egitera erregeari Adoniasgatik, eta jaikirik erregea atera zitzaien bidera, eta txit makurtuta agur egin zion, eta eseri zan bere jargoien gañean, eta ipiñia izan zan beste jargoi bat erregearen amarentzat, zeñ eseri zan bere eskuian.

20. Eta esan zion: Eskari txiki bat egitera natortzu, ez nazazula arren lotsatua utzi, ukatuaz. Eta esan zion erregeak: Eskatu ezazu, ene ama, zeren ezin nik bidaldu zenezaket lotsatua.

21. Esan zuen orduan Betsabek: Eman bizaio zure anaia Adonias Abisag Sunamgoa emaztetzat.

22. Eta erantzun zuen Salomon erregeak, eta esan zion bere amari: Zergatik eskatzen dezu Abisag Sunamgoa Adoniasentzat? Erreñua ere eskatu ezazu beretzat, zeren bera da nere anaia ni baño andiagoa, eta ditu bere aldetikan Abiathar apaiza, eta Joab Sarbiaren semea.

23. Eta Salomonek juramentu egin zuen Jaunagatik, esaten zuela: Gaitz oiek eta andiagoak egin ditzala Jaungoikoak nerekin, baldin egia ez bada, bere biziaren kontra egin duela Adoniasiek eskari au.

24. Eta orain, bizi dan bezala arako Jauna, zeñak sendotu nauen, eta ipiñi eserita nere aita Dabiden jargoien gañean, eta etsea egin didana, diot, esan zuen bezala, gaur izango dala illa Adonias.

25. Bereala agindu zion Salomon erregeak Banaias Joiadaren semea-ri, eta onek kendu zion bizia; onela il zan Adonias.

26. Esan ere zion erregeak Abiathar apaizari: Zoaz Anatothen dezun zure kanpora. Egiatzki eriotzaren diña zera, baño ez dizut nik gaur bizia kenduko, eraman zenduelako Jaun Jainkoaren kutxa nere aita Dabiden aurrean, eta lagundu ziñiolako nere aita aipatuari, irago zituen neke guzie-tan.

27. Onenbesterekin erbestetu zuen Salomonek Abiathar, izan etzedin Jaunaren apaiza, betea izan zedin Jaunak esan zuen itza Silon Heliren etxearen gañean.

28. Eta berri au allegatu zan Joabgana (zeñak jarraitu zien Adoniasenai, eta ez Salomonenai) sartu zan bada Joab Jaunaren Tabernakuloan, eta eldu zion aldarearen ertzari.

29. Eta gaztigua emana izan zitzaien Salomoni, Joab sartu zala Jaunaren Tabernakuloan, eta zegoala aldarearen aldean, eta bidaldu zuen Salomonek Banaias Joiadaren semea, esaten ziola: Oa, eta il ezak.

30. Eta joan zan Banaias Jaunaren Tabernakulora, eta esan zion: Au dio erregeak: Atera adi kanpora. Berak erantzun zuen: Ez naiz aterako, baizikan emen ilko naiz. Adirazi zion Banaiasek erregeari erantzuer, esaten zuela: Oiek esan ditu Joabek, eta oiek erantzun dizkit.

31. Eta esan zion erregeak: Egin ezazu berak esan duen bezela, eta il ezazu, eta lurpetu, eta ala alde eraziko diozu nigandik, eta nere aitaren etxetik, Joabek isuria izan zan odol obengabe bati.

32. Eta Jaunak berriz erori eraziko dio bere odolari bere buruaren gañera, il zituelako bi gizon bera baño justoago, eta obeago; eta il zituen ezpataz, nere aita Dabidek jakin gabe, Abner Nerren semea, Israelko martizti guziaren agintari nagusia, eta Amasa Jetherren seme, Judako martiztiaren burua.

33. Eta oien odola erori bedi berriz Joaben buruaren gañera, eta bere jatorriaren buruaren gañera beti. Baña Dabidentzat, eta bere jatorriarentzat, eta bere etxearentzat, eta tronuarentzat izango da pakea Jaunaren aldetikan.

34. Igo zan bada Banaias Joiadaren semea, eta erasorik il zuen, eta izan zan obiatua bere etxean eremuan.

35. Eta erregeak jarri zuen bere lekuan martiztiaren agintari Banaias Joiadaren semea, eta jarri zuen Sadok apaiz nagusi, Abiatharren lekuan.

36. Bidaldu ere zituen erregeak mandataria ots egitera Semeiri, eta esan zion: Egin ezazu etxe bat Jerusalemene, eta bizitu zaite an, eta etzera aterarko andikan, joateko batera ta bestera.

37. Bada jakiñik iduki ezazu, ateratzen zeran edozeñ egunean, eta iragotzen dezunean Zedrongo erreka, illa izango zerala: zu zerori izango zera zure eriotzaren obendun.

38. Eta Semeik esan zion erregeari: Ongi dago. Errege nere jaunak esan duen bezela, ala egingo du zure serbitzariak. Bizitu izan zan bada Semei Jerusalemene denbora luzean.



39. Baña iru urte iragota gertatu zan, Semeiren menpeko batzuek iges egitea Atxis Maatxaren seme Jethko erregeagana, eta gaztigua emana izan zitzaion Semeiri, bere menpeko morroiak iges zutela Jethera.

40. Eta jaiki zan Semei, eta gertutu zuen bere astoa: eta joan zan Jethera eskatzera Atxisi bere morroe menpekoak, eta ekarri zituen Jethtik.

41. Eta gaztigua emana izan zitzaion Salomoni, nola Semei joan zan Jerusalendik Jethera, eta itzulia zala.

42. Eta ots egiñik esan zion: Ez al nikan esan, Jauna lekukotzat jarrita, eta ez al nikan lendanaz adirazi esaten nikala: Jakiñik iduki ezak, batera naiz bestera ateratzen aizakan edozeñ egunean, illa izango aizakala? Eta erantzun idakan: Ona da, aditu dedan itza.

43. Zergatik bada ez dek zaitu Jaunari egin iokan juramentua, eta nik eman nikan agintea?

44. Eta esan zion erregeak Semeiri: ik badakik, eta ire barrena oroitzen dek, nere aita Dabidi egin ziokan gaitz guziarekin. Jaunak erori erazi zioyak ire buruaren gañera ire gaiztakeriaren kastiguari.

45. Eta Salomon erregea izango dek bedekatu, eta Dabiden tronua iraunkorra beti Jaunaren aurrean.

46. Agindu zion bada erregeak Banaias Joiadaren semeari, zeñak, atearrik, zauritu zuen eta il zan.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Sendatua izan zan bada erreñua Salomonen eskuan, eta aidetu zan Faraon Ejiptoko erregearekin, zeren ezkondu zan onen alaba batekin, eta eraman zuen Dabiden errira, aliketa bukatu zuen bitartean bere etxea, eta Jaunaren etxea, eta murrak Jerusalemengatik.

2. Alaere erriak egiten zituen eskeñtzak goietan: zeren etzitzaion izan egiña eliza Jaunaren izenari egun artaraño.

3. Eta Salomonek maitatu zuen Jauna, bazebillala bere aita Dabiden agintetan, salbu eze, egiten zituela eskeñtzak, eta erretan zuela inzensoa goietan.

4. Joan zan bada Gabaonera eskeñtzera an doañak, zeren hura zan goi guzietatik andiena, milla opari eskeñi zituen Salomonek doañean, aldare huraren gañean, Gabaonen.

5. Eta agertu zitzaion Salomoni Jaunak ametsetan gauaz, esaten ziola: Eskatu zadazu nai dezuna, eman dizazudan.

6. Eta esan zuen Salomonek: Zuk egin zenduen urrikaltasun andia zure serbitzari Dabid nere aitarekin, nola bera ere zebillan zure aurrean egian, eta zuzentasunean, eta biotzeko arteztasunean zurekin, zuk gorde

ziñion zure urrikaltasun andia, eta eman ziñion seme bat, eseri zedin bere tronua gañean, gaur dagoan bezela.

7. Eta orain, Jaun Jainkoa, zuk erreinatu erazi diozu zure serbitzariari nere aita Dabiden lekuan; ni berriz naiz aur txikitxo bat, eta ez dakidana nere irteera, ez nere sarrera.

8. Eta zure serbitzaria dago, zuk autu dezun erri baten erdian, muga gabeko erri batenean, zeñ ezin kontatu, ez zenbatera ekarri lezakean bere ugaritasunagatik.

9. Eman zaiozu bada zure serbitzariari biotz irakaskoi bat, jakin dezan ongi juzgatzen zure erria, eta ezagutzen zeñ dan ona ta zeñ gaiztoa. Zeren nork juzgatu dezake erri au, zure erri andi au?

10. Eskari au bada izan zan Jaunaren gogokoa, Salomonek eskatu zuelako onelako gauza bat.

11. Eta esan zion Jaunak Salomoni: Gauza au eskatu dezulako, eta ez dezulako eskatu zuretzat bizitza luzea, ez aberastasunak, ez zure etsaien eriotza; baizikan eskatu dezulako zuretzat jakinduria, ezagutzeko zeñ dan ona:

12. Ona non egin dedan zure itzen araura, eta eman dizut biotz jakintsu eta adiera ain andikoa non ez dan izan bere antzekorik, zu baño lenago, eta izango ere ez, zure ondoan.

13. Baita eman dizut eskatu ez dezuna ere: au da, aberastasunak eta gloria, alako moduan non, ez da izan izango zure antzekorik, irago diraden denboretako errege guzien artean.

14. Eta baldin ibiltzen bazera nere bidetatik, eta gordetzen badituzu nere itzak, eta nere aginteak, ibilli zan bezela zure aita, luzetuko ditut zure egunak.

15. Salomon orduan esnatu zan, eta ezagutu zuen zala ametsa. Eta etorrikerik Jerusalemengatik, jarri zan zutik Jaunaren elkartasuneko kutzaren aurrean, eta eskeñi zituen doañak, eta egin zituen opari paketsuak, eta eman zioten janedan andia bere serbitzari guziaz.

16. Garai artan etorri ziraden bi emakume galots erregeagana, eta jarri ziraden bere aurrean,

17. Zeñetatik batek esan zuen: Egin bizat mesede, aditzeaz, ene jauna, ni eta emakume au bizitu giñan elkarrekin etxe batean, eta nik egin nuen aur bat, berau zegoan gelan berean.

18. Eta nik aurra eginda iru egun irago ezkeru, egin zuen aur bat onek ere, eta geunden elkarrekin, eta etzegoan besterik batere gurekin etxean, bakar bakarrik biok.

19. Eta emakume onen semea il zan gauaz, zeren lo zetzala, ito zuen.



20. Eta jaikirik berau ixiltxorikan gaueko ordu eragabeko batean, artu zuen nere aurra, zure serbitzari, lo zetzan onen aldamenetik, eta jarri zuen bere besartean: eta bere seme, illik zegoana, jarri zuen nere besartean.

21. Eta eseri nintzanean goizean emateko ugatza nere semeari, arkitu nuen illa, eta begiratu nionean ajola andiagoarekin egun argiz, ezagutu nuen, etzala nere, nik egin nuena.

22. Eta erantzun zuen beste emakumeak: Ez da zuk esaten dezun bezela, baizik zure semea da il dana, eta bizia da nere. Kontrara esaten zuen hurak: Gezurra diozu, zeren nere semea da bizia, eta zurea da illa. Eta honela ari ziraden elean erregearen aurrean.

23. Orduan erregeak esan zuen: Batak dio: Nere semea bizirik dago, eta illa da zure semea. Eta onek erantzuten du: Ez, zure semea da illa, eta nere bizi dana.

24. Esan zuen bada erregeak: Ekarri zadazute ezpata bat. Eta ekarri-rik ezpata bat erregearen aurrera,

25. Esan zuen: Jarri ezazute aur bizia bi zatitan, eta eman zaiozute, erdi bat batari, eta beste erdia besteari.

26. Baña aurra bizirik zeukan emakumeak, esan zion erregeari: (zeren bere erraiak txit mugitu zitazkion bere semearen amorioz) Erregututzen dizut, jauna, arren eman dizaiozula hurari aurra bizirik, eta ez dezazula il. Kontrara besteak esaten zuen: Ez da izango neretzat, ez zuretzat, baizik partitua izan bedi.

27. Erantzun zuen erregeak, eta esan zuen: Eman zaiozute oni aur bizia, eta ez bedi izan illa, zeren au da bere ama.

28. Aditu zuen bada Israel guziak, erregeak eman zuen erabakia, eta erregearen beldur izan ziraden, ikusirik Jaungoikoaren jakinduria zegoala beragan justizia egiteko.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta Salomon erregeak erreinatzen zuen Israel guziaren gañean.

2. Eta oiek ziraden zituen eraentzalleak: Azarias, Sadok apaizaren semea,

3. Elihoreph eta Ahia, Sisaren semeak, eskribariak: Josaphat Ahiluden semea, sillugordetzalea.

4. Banaias, Joiadaren semea, martiztiaren agintaria, eta Sadok ta Abiathar, apaizak.

5. Azarias, Nathanen semea, erregeari laguntzen ziotenen zaitzalea, Zabud Nathanen semea, apaiza, erregearen kutuna.

6. Eta Ahisar morroe nagusia, eta Adoniram kotiz begiratzalea.

7. Eta zituen Salomonek amabi eraenzalle Israel guziaren gañean, zeñak ornitzen zuten janaria erregearentzat, eta bere etxearentzat, zeren urtearen il bakoitzean, beretatik batek ematen zuen bear zana.

8. Eta oiek dirade beren izenak: Benhur, Efraimgo mendian.

9. Bendekar, Makzesen, eta Salebimen, eta Bethsamesen eta Elonen, eta Bethananen.

10. Benhesed Arubothen, berarena zan Sotxo, eta Epherko lur guzia.

11. Benabinadab, zeñaena zan Nephath-dor, Zapheth Salomonen alaba zuen emaztea.

12. Bana Ahiluden semea zan Thanak, eta Majeddo, eta Bethsan guztiko eraenzallea, zeñ dagoan Sartharen aldean Jezraelen azpian, Bethсандikan Abelmehuleraño Jesmaanen aurkez.

13. Bengaber Ramoth Galaadkoan, onek zituen Jairren, Manassesen semearen erriak, Galaaden, bera zan Arbobko lur guziko eraenzallea, zeñ dagoan Basanen, irurogei erri andi, eta murriz ingurutu, zeñaen atek itxiten ziraden bronzeko balenkakin.

14. Ahinadab, Addoren semeak agintzen zuen Munaimen.

15. Atximaasek Nephthalin, eta au ere zegoan ezkondata Basemath Salomonen alabarekin.

16. Baana, Husiren semeak Aserren, eta Balothen.

17. Josaphath, Pharueren semeak, issatxarren.

18. Semei, Helaren semeak, Benjaminen.

19. Gaber, Huriren semeak, Galaadko lurrean, Schon, Amorrheoen erregearen eta Og, Bassango erregearen lurrean, eta zaitzen zuen inguru guzi hura.

20. Juda eta Israel kontatu eziñak itsasoko ondarra bezela, jaten eta edaten zuten eta pozik bizi ziraden.

21. Eta Salomonek zituen bere mendean erreñu guziak, Filistintarren lurreko ibaitikan Ejiptoko mugetaraño, eta eskeñtzen ziozkaten doañak, eta egon zitzaiozkan menderatuak bere bizitzako egun guzietan.

22. Eta Salomonen janaria zan egun bakoitzean ogeita amar koro iriñlora, eta irurogei koro iriñ,

23. Amar idi gizendu, eta amar idi larreko, eta eun txikiro, kontatu gabe oreiñen, basauntzen, eta idiaketzen eiza, eta gizentzen ziraden egaz-tiena.

24. Zeren bera zan, ibaiaren beste aldamenetik zegoan alderri guzi atako jauna, Thaphsatik Gazaraño, eta inguru artako errege guziarena, eta zeukan pakea aldamen guzietatik inguruan.



25. Eta bizitu oi ziraden Juda eta Israel beldurrikan batere gabetanik, bakoitza bere matsarearen azpian, eta bere pikuaeren azpian, Dandikan Bersabeeraño, Salomonen egun guzietan.

26. Eta zituen Salomonek berrogei milla zaldi uztarriko bere oke-lluetan, eta amabi milla zaldi, gañean ibiltzekoak.

27. Eta goian aipatu diraden, erregearen eraenzalleak ematen zien jaten, baitaere ematen zuten bere denboran ajola andiarekin, Salomon erregearen maierako bear zana.

28. Baitaere eramaten zituzten erregea zegoan tokira, garagarra eta lastoa, zamako zaldi eta abereentzat, emana izan zitzaioten agintearen araura.

29. Eman ere zion Jaungoikoak Salomoni jakinduria eta zurtasun txit andia, eta biotzeko zabalera, itsasoaren bazterrean dagoan ondarra bezela.

30. Eta Salomonen jakinduria zan andiagoa eguzkiaren irteerako eta ijito guziena baño,

31. Eta zan jakintsuago gizon guziak baño, Ethan, Ezrahitarra baño jakintsuago; eta Heman, eta Txakol, eta Dorda, Maholen semeak baño. Eta zan izendatua, inguruko jende guzien artean.

32. Esan ere zituen Salomonek iru milla parabola, eta bere kantak izan ziraden milla eta bost.

33. Eman ere zituen irakasiak landare guzien gañean, Libanon azitzen dan zedrotik, paretetan ernetzen dan urdingorriaraño, eta tratatu zuen abereen, eta egaztien, eta arrastakarien, eta arraien gañean.

34. Eta etorri oi ziraden erri guzietatik aditzera Salomonen jakinduria, eta lurreko errege guzietatik, zeñak gana allegatzen zan bere jakinduriaren ospea.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Hiram Tiroko erregeak ere bidaldu zituen bere serbitzariak Salomongana, zeren aditu zuen Salomon izan zala erregetzat igortzia bere aitaren lekuan, zeren Hiram beti izan zan Dabiden adiskidea.

2. Eta Salomonek bidaldu zuen esatera Hirameri:

3. Zuk badakizu nere aita Dabiden borondatea, eta ezin egin izan ziola etxea bere Jaungoikoaren izen santuari, inguruetakoakin zeuzkan gerrak gaitik, aliketa Jaunak jarri zitzaten bitartean bere oñen azpian.

4. Orain berriz nere Jaun Jainkoak eman dit atsedena aldamen guzietatik, eta ez det etsairik, ez eragozketarik batere.

5. Argatik pensatzen det egitea eliza bat nere Jaun Jainkoaren izenari, itz egin zion bezela Jaunak nere aita Dabidi, esaten ziola: Zure lekuan

zure tronuaren gañean jarriko dedan zure semeak, berak egingo dio etxea nere izenari.

6. Agindu ezazu bada ebaki dizazkidatela zure serbitzariak Libanoko zedroak, eta nere serbitzariak egongo dirade zureakin, eta emango dizut zure serbitzarien alogertzat, eskatzen didazuna, zeren badakizu ez dala nere errian gizonik, zurak ebakitzen dakianik Sidontarrak bezela.

7. Aditu zituenean bada Hiramek Salomonen itzak, txit poztu zan, eta esan zuen: Bedeikatua izan dedilla gaur Jaun Jainkoa, eman ziona Dabidi seme bat, txit jakintsua erri txit ugari onen gañean.

8. Eta bidaldu zuen Hiramek esatera Salomoni: Aditu det eskatzen didazun guzia, eta egingo det zuk nai dezun guzia, zedrozko eta abetozko zuren gañean.

9. Nere serbitzariak eramango dituzte Libanotikan itsasaraño, eta nik zuzenduko ditut itsasoz elkarri lotuta, izendatzen didazun tokira, eta an eramango ditut itxasbazterrean, eta zuk artuko dituzu, eta emango didazu bear dedana nere etxeok jateko.

10. Hiramek bada ematen ziozkan Salomoni, onek nai zituen zedrozko eta abetozko zur guziak.

11. Eta Salomonek ematen ziozkan Hirami, bere etxeok jateko, ogei milla koro gari, eta ogei koro olio txit garbizko. Oiek ematen ziozkan Salomonen Hirami urte bakoitzean.

12. Jakinduria ere eman zion Jaunak Salomoni, itz egin zion bezela, eta pakea zegoan Hiram eta Salomonen artean eta egin zuten beren artean elkartasuna.

13. Eta autu zituen Salomonek langilleak Israel guzitikan, eta izan ziraden eskatuak ogeita amar milla gizon.

14. Eta bidaltzen zituen Libanora il bakoitzean amar milla aldizka, alako moduan non, bi illabeteen egon oi ziraden beren etxeetan, eta Adoniramaren kontura zegoan, ematea betetasuna aginte oni.

15. Iduki ere zituen Salomonek irurogeita amar milla gizon, zamak eramateko, eta larogei milla arr... mendian,

16. Kontatu gabe obra bakoitzeko langillezaiak, iru milla eta irureun, zeñak ematen ziezten aginteak erriari, eta lanean ari ziradenai.

17. Eta agindu zuen erregeak artu zitzatela arri andiak, arri baliotsuak elizaren zimendurako, eta laurkatu zitzatela.

18. Eta landu zituzten Salomonen arlantzalleak, eta Hiramen arlantzalleak, baña Jiolitarrak prestatu zituzten zurak eta arriak, etxea egiteko.



SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan, asitzea egiten Jaunaren etxea Israelko semeak Ejiptotik atera ezker, lauren eta larogei garren urtean, Salomonek Israelen gañean erreñatzen zuen laugarren urtean, Zio illean, au da, bigarren illean.

2. Eta Salomon erregeak Jaunarentzat egiten zuen etxeak, zituen irurogei beso luzeeran, ogei zabaleran, eta ogeita amar altueran.

3. Eta bazan elizpe bat elizaren aurrean ogei besokoa luzeeran, elizaren zabaleraren neurriaren araura, eta zituen amar beso zabaleran elizaren aurkean.

4. Eta egin zituen elizan leio zearrak.

5. Eta egin zituen elizaren paretaren aldean olezko tokiak inguruan, etxeko paretetan, elizan eta erregu tokiaren inguruan, eta egin zituen olezko gelak inguruan.

6. Beeko olezko tokiak zituen bost beso zabaleran, eta erdiko olezko tokiak sei beso zabaleran, eta irugarren olezko tokiak zituen zazpi beso zabaleran. Eta jarri zituen abeak etxearen inguruan kanpoko aldamenetikan, elizaren paretai itsatsi gabetanik.

7. Eta egiten zanean etxea, egiña izan zan arri landu eta osoakin, eta etzan aditu etxean, egiten zanean, mallukiaren, ez aizkoraren ez beste burnizko erremientaren otsik.

8. Erdiko aldameneko atea zegoan etxearen eskuiko aldamenean, eta ingurumaila batetik igotzen ziran erdiko alturara, eta erdikotik irugarrenera.

9. Eta egin zuen etxea eta bukatu zuen. Eta estali zuen etxea zedrozko goiaspillatuakin.

10. Eta egin zituen olezko bizilekuak etxe guzitikan, alturan bost besokoak, eta estali zuen etxea zedrozko zurakin.

11. Eta itz egin zion Jaunak Salomoni, esaten zuela:

12. Egin dezun etxe onetan, baldin zuk jarraitzen badiezu nere agintei, eta betetzen badituzu nere erabakiak, eta zaitzen badituzu nere esanak guztiak, beretatik alderik egin gabe, egiztatuko det zugan, zure aita Dabidi egin nion eskeñia;

13. Eta biziko naiz Israelko semeen erdian, eta ez det iñoiz utziko Israel nere erria.

14. Egin zuen bada Salomonek eliza, eta bukatu zuen.

15. Eta jarri ziozkaten gañetik etxeko paretai barrendikan zedrozko olak, etxearen beetik paretaren gueneraño, eta goiaspillatutaraño estali

zituen barrendikan zedrozko zurakin, estali ere zuen etxearen bea abetzoko olakin.

16. Egin ere zituen zedrozko olezko toki ogei besokoak elizaren osteko aldamenean, lurretik toki gueneraño eta egin zuen Erregutokiaren barrendiko etxea Santuen Santuarentzat.

17. Eta elizak zituen Erregutokiko atetik berrogei beso.

18. Eta etxe guztia zegoan barrendik zedroz jantzia, zituela bere otalluak eta juntera eskuz eta poliki egiñak, eta otallu galatzak, guztia zegoan zedrozko olakin estalia, eta ezin zezakean agertu arri bakar bat ere paretan.

19. Eta egin zuen Erregutokia etxearen erdian, barrendiko aldamenean, ipintzeko an Jaunaren elkartasuneko kutxa.

20. Eta Erregutokiak zituen ogei beso luzeeran, eta ogei beso zabaleran, eta ogei beso altueran, eta estali eta jantzi zuen urre txit garbiz, eta aldarea ere jantzi zuen zedroz.

21. Eta Erregutokiaren aurreko etxea ere estali zuen urre txit garbiz, eta josi zituen plantxak urrezko iltzeakin.

22. Eta etzegoan elizan, urrez estalia arkitzen ez zan tokirikan bate-re, baita Erregutokiko aldare guzia ere, urrez estali zuen.

23. Eta egin ere zituen Erregutokian olibozko zurezko bi kerubin, amar besokoak alturan.

24. Kerubinarengo batek zituen bost beso, eta kerubinarengo beste egoak ere zituen bost beso, au da, zituen amar beso ego bataren puntatik beste egoaren puntaraño.

25. Bigarren kerubinak ere zituen amar beso, neurri berdiñean, eta lana zan bat bata kerubin bietan,

26. Au da, lelengo kerubinak zituen amar beso alturan, eta berebat bigarren kerubinak.

27. Eta ipiñi zituen kerubinak barrendiko elizaren aurrean: eta kerubinak zeduzkaten egoak zabalduak, eta ego batak ukitzen zion paretari, eta bigarren kerubinarengoak ukitzen zion beste paretari; eta beste egoak berriz elkarri ukitzen zitzaizkaten elizaren erdian.

28. Kerubinak ere urrez estali zituen.

29. Eta apainduerazi zituen elizako parete (sic) guztiak inguruan, moldeera eta galatz batzuekin, eta egin zituen beretan kerubinak eta palmak, eta irudi mot berezi batzuek, zeñak zirudian salto egiten zutela eta ateratzen ziradela paretetik.

30. Eta etxearen oinpea ere estali zuen urrez, barrendikan eta kanpotikan.



31. Eta Erregutokiaren sarreran egin zituen olibozko zurezko atetxo batzuek, eta beren abeak ziraden bost kantoikoak.

32. Eta ate biak olibozko zurezkoak, eta otallutuerazi zituen beretan kerubinen, eta palmen irudiak, eta galatz txiki txit ederrak, eta urrez estali zituen, eta estali zituen urrez, bai kerubinak, bai palmak eta gañerakoa.

33. Eta egin zituen elizaren sarreran olibozko zur, lau kantoiko abeak,

34. Eta abetozko zurezko bi ate, bata aldamen batetikan, eta bestea bestetikan, eta ate biak ziraden bi ostokoak, eta idikitzen ziraden batak besteari eltzen ziola.

35. Beretan otallutu zituen kerubinak eta palmak, eta apaingarri txit ederrak, eta estali zituen guztiak urrezko plantxa, eskuadrán eta adrean egiñakin.

36. Eta egin zuen barrendiko ataria arri landuzko iru errenkadakin, eta zedrozko zurezko errenkada batekin.

37. Laugarren urtean, Zio illean, jarri ziraden Jaunaren etxearen zimenduak.

38. Eta amaikagarren urtean, Bul illean, (zeñ dan zortzigarren illa) izan zan bukatua etxea bere lan guziakin, eta bere usubear guztiakin, eta egin zuen zazpi urtean.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta Salomonek egin zuen bere etxea amairu urtean, eta bukatu zuen osotoro.

2. Egin ere zuen Libanoko basoko etxea, zituena eun beso luzeeran, eta berrogeita amar zabaleran, eta ogeita amar alturan, eta zeuden lau galeria zedrozko abeen artean, zeren epaki eraso zituen zedrozko zurezko abeak.

3. Eta jantzi zuen zedrozko olakin bobeda guztia, zeñ zegoan berrogeita bost abeen gañean, errenkada bakoitzak zeuzkan amabost abe,

4. Bata bestearen aurkez jarriak.

5. Eta batak besteari begiratzen ziola elkargandik distantzia berdiñean, eta abeen gañean zeuden lau kantoiko zur batzuek, guztian berdiñak.

6. Eta egin zuen abezko atarileorpe bat, zituena berrogeita amar beso luzeeran, eta ogeita amar beso zabaleran, eta beste atarileorpe bat, atari leorpe nagusiagoaren aurkez, eta abeak eta arpaiñbarrenak abeen gañean.

7. Egin ere zuen tronuko atarileorpea, non zegoan tribunala, eta estali zuen zedrozko zurez, lurretik goeneraño.

8. Eta atarileorpearen erdian zegoan etxetxo bat, non esertzen zanjustizia egiteko, lan berdiñekoa. Egin ere zuen etxe bat Faraonen alabarantz, (zeñarekin zegoan ezkontuta Salomon) atarileorpe onen lan huratakoea beratakoea.

9. Lan guzi oiek ziraden arri balio andikozkoak, zeñak izan ziran zerratuak arau eta neurri bat batekin, bai barrendik eta bai kanpotik, zimendutik pareren goeneraño, eta kanpotik atarileorpe andieneraño.

10. Eta zimenduak ziraden arri balio andikozkoak, arri andi amar edo zortzi besokozkoak.

11. Eta andikan goira arri balio andikoak, neurri berdiñaz ebakiak, berebat zedroz estaliak.

12. Eta atarileorpe andiena zegoan biribillean arri landuzko iru errenkadakin, eta zedro landuzko errenkada batekin, eta berebat Jaunaren etxeko atarileorpe barrendikoean, eta etxeko atarileorpean.

13. Bialdu ere zituen Salomon erregeak, eta ekarri erazi zuen Tirotik Hiram,

14. Zeñ zan Nephtaliko tribuko andre alargun baten semea, eta bere aita zan Tirokoa, bear egiten zuen bronzeko gauzaetan, eta zan gizon txit jakintsua, eta aditua, eta artetsua kobrezko lan mot guzia egiteko. Zeñ etorririk Salomon erregeagana, egin zituen bere lan guziak.

15. Eta urtuta egin zituen bronzeko bi abe, abe bakoitza emezortzi besokoea alturan, eta amabi besoko kordoi batek jira egiten zion abe bietatik bakoitzari.

16. Gañera egin zituen bronze urtuzko bi dorre-erpiñ ipintzeko abeen buruen gañean: dorre-erpiñ batak zeuzkan bost beso alturan, eta beste dorre-erpiñak beste bost beso alturan:

17. Eta sarea eta kateak bezelako batzuek, zeñak katigatzen ziran beren artean lan miragarri batekin. Abeen dorre-erpiñ bakoitza zan urtuta egiña: dorre-erpiñ bakoitzean zeuden zazpi errenkada malla, eta beste zazpi bestean.

18. Eta osotzeko abeak, egin zituen mingranazko bi errenkada, malla bakoitzaren inguruan, goian zeuden dorre-erpiñak estalitzeko, eta orobat egin zuen bigarren dorre-erpiñarekin ere.

19. Eta abeen buruetan atarileorpean zeuden dorre-erpiñak, zeuden landuta azuzenaren gisara, eta ziran bost besokoeak.



20. Eta gañera abeen goian, mallen gañean beste dorre-erpiñ batzuek, abearen neurrira dagokituak, eta bigarren dorre-erpiñ onen inguruan, berreun mingrana, bi errenkadatan ipiñiak.

21. Eta jarri zituen abe biak elizaren atarileorpean, eta jarririk zutik eskuiko abea, ipiñi zion izena Jatxin. Orobat jarri zuen zutik bigarren abea, eta ipiñi zion izena Booz.

22. Eta abeen buruen gañean jarri zuen lan bat, azuzenaren irudikoa: eta bukatua izan zan abeen lana.

23. Egin ere zuen urtuta bronzeko itsaso bat, egal batetik bestera amar besokoa, biribilla inguruan, bere altura zan bost besokoa, eta zeukan inguruan ogeita amar besoko kordoe bat.

24. Eta egalaren azpitik inguratzen zuen amar besoko lan otallutu batek, zeñak jira egiten zion itsasoari, otallu oditutako bi errenkada, guzia zan kobre urtuz egiña.

25. Eta zegoan jarria amabi idiren gañean, zeñaetatik iruk begirutzen zuten Ifarrera, eta iruk Sartaldera, eta iruk Egoera, eta iruk Sortaldera, eta itsasoa zegoan beren gañean, zeñaen osteko aldamenak gelditzen ziraden osoz estaliak barrendikan.

26. Eta garbitoki onen lodiera zan iru atzekoa, eta bere egala kopa baten egala bezelakoa, kabitzen zituen bi milla bato.

27. Egin ere zituen amar ondape bronzeko, basa bakoitza lau besokoa luzeeran, eta lau besokoa zabaleran, eta iru besokoa alturan.

28. Eta ondapeen lana bera zan otallartetua, eta otalluak giltzen artean.

29. Eta koroe eta txibisten artean zeuden leoeak, eta idiak, eta kerubinak, eta orobat giltzen gañean, eta leoien eta idien azpian zinzilika bezala kobrezko bridualak bezelako batzuek.

30. Eta ondape bakoitzak zituen lau gurpil beren ardatz bronzekoakin, eta lau kantoietan garbitokiaren azpian urtuz egindako lau gizontxo bezelako, elkarri begirutzen ziotenak.

31. Bazan ere barrenen ondapearen goian utsune bat, garbitokia sartzeko, eta kanpoan agiri zana, zan beso batekoa, guzia biribilla, eta guziak batean zituen beso bat eta erdi, eta abeen kantoietan zeuden mot askotako talluak, eta irozpekoaren artea zan laukia, ez biribilla.

32. Ondapeen lau kantoietan zeuden lau gurpillak zeuden elkarri itsatsiak ondapearen azpitik, gurpil bakoitzak zeukan alturan beso bat eta erdi.

33. Eta gurpillak ziraden gurdi batean egin oi diradenak bezelakoak, eta beren ardatzak, eta besagak, eta gurpil uztaiak, eta kurpoillandak, guziak ziraden urtuta egiñak.

34. Zeren lau gizontxo hurak ere ondape bakoitzeko lau egietan, ziraden urtuta egiñak, eta zeuden ondapeari berari itsatsiak.

35. Eta ondapearen goian zegoan biribiltasun bat beso erdikoa, alako moduan egiña non, ipiñi zezakean gañean garbitokia, eta zituen bere otalluak, eta asko galatz bertan egiñak.

36. Eta egietan, zeñak ere ziraden bronzekoak, eta kantoietan, landuta, egin zituen kerubinak eta leoiak, eta palmak, alako moduan non, etziruditen landuta egiñak, baizik gañean jarriak inguruan, zutik dagoan gizon bat bezela.

37. Gisa onetan egin zituen amar ondapeak, landuak era bat batean, eta neurri ta otallu bat batekoak.

38. Egin ere zituen amar garbileku bronzeko: berrogei bato artzen zituen garbileku bakoitzak, eta zan lau besokoa, eta ipiñi zuen garbileku bat amar ondapeatik bakoitzaren gañean.

39. Eta ipiñi zituen amar ondapeak; bost, elizako eskuiko aldamean, eta bost, ezkerrekoan. Eta ipiñi zuen itsasoa elizako eskuiko aldamean Sortalde eta Egoiaren artean.

40. Egin ere zituen Hiramek putzupaziak, eta lurtizkiak, eta paziatxoak, eta bukatu zuen Salomon erregearen lantegi guztia Jaunaren elizan.

41. Abe biak, eta dorre-erpiñen kordoi biak abeen dorreerpiñen gañean, eta malla biak estalitzeko, abeen goien gañean zeuden kordoi biak.

42. Eta laureun mingrana malla bietan, mingrana errenkada bi, malla bakoitzean, estalitzeko dorre-erpiñen kordoi, abeen buruen gañean zeudenak.

43. Eta amar ondape, eta amar garbitoki ondapeen gañean.

44. Eta itsaso bat, eta amabi idi itsasoaren azpian.

45. Eta putzupaziak, eta lurtizkiak, eta paziatxoak. Hiramek Salomon erregeari Jaunaren etxean egin ziozkan ontzi guziak, ziran latoi fiñezkoak.

46. Eta erregeak urtuta eginerazi zituen Jordango kanpoetan lur kle-ratsu batean, Sotxoth eta Sarthamen bitartean.

47. Eta Salomonek ipiñi zituen ontzi guzti oiek elizan, eta beren ugaritasun geiegiagatik ezin jakin zezakean menastaren pisua.

48. Eta Salomonek egin zituen jaunaren etxeko ontzi guziak, urrezko aldarea, eta urrezko maia, zeñaen gañean ipiñiko ziraden proposizio-ko ogiak,



49. Eta urrezko kandelerok, bost eskuiean, eta bost ezkerrean Erregutokiaren aurrean, urre fiñezkoak, eta gañean azuzenazko lorak bezelakoak, eta urrezko lanparak, eta urrezko kurrikak,

50. Eta tximutxardak, eta garrangaziak, eta edontziak, eta motrairutoak, eta inzentsuontziak, urre txit fiñezkoak, eta Santuen Santuaren barrendiko etxearen ateen opoak, eta elizako etxearen ateenak, ziran urrezkoak.

51. Eta bukatu zuen Salomonek, Jaunaren etxean egiteko agindu zuen lan guzia, eta sartu zuen berean Dabid bere aitak santutu zuena, zillarra, eta urrea eta ontziak, eta ipiñi zuen Jaunaren etxeko gordairuetan.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Orduan bildu ziraden Israelko zar guztiak tribuetako lenenakin, eta Israelko semeen familien buruakin, Salomon erregeagana Jerusalemenean, eramateko Jaunaren elkertasuneko kutxa Dabiden erritik, au da, Siondik.

2. Eta bildu zan Salomon erregeagana Israel guztia Ethanin illean, zeñ dan zazpigarren illa, egun ospetsu batean.

3. Eta etorri ziraden Israelko zar guztiak, eta artu zuten kutxa apaizak,

4. Eta eraman zuten Jaunaren kutxa, eta elkertasuneko tabernakulua, eta tabernakuloan zeuden elizako ontzi guztiak, eta zeramazkiten apaizak eta Lebitak.

5. Salomon erregea berriz, eta beragana etorri zan Israelko talde guztia, zijoan berarekin kutxaren aurrean, eta eskeñtzen ziozkaten Jaunari ardiak eta idiak neurri eta zenbatikan gabe.

6. Eta jarri zuten apaizak Jaunaren elkertasuneko kutxa bere tokian, elizako Erregutokian, Santuen Santuan, kerubinen egoen azpian.

7. Zeren kerubinak zeuzkaten zabaldua egoak kutxaren tokiaren gañean, eta estalitzen zuten kutxa, eta bere zigorrak gañetik.

8. Eta nola ateratzen ziraden zigorrak besteen gañetik, eta agertzen ziraden beren erpiñak Santuarioaz kanpotik Erregutokiaren aurrean, etziraden onezkero agertzen kanpotik, eta gelditu ziraden ala an gaurko eguneraño.

9. Eta kutxan etzegoan beste gauzarik, baizik arrizko ol bi, Moisesek Horeben bertan ipiñi zituenak, Jaunak egin zuenean elkertasuna Israelko semeekin, Egiptoko lurretik aterata laster.

10. Gertatu zan bada, apaizak Santuariotik aterata laster, laño batek bete zuen Jaunaren etxea.

11. Eta apaizak ezin egon zitzaketen, ez ari beren lanean lañoagatik, zeren Jaunaren gloriak bete zuen Jaunaren etxea.

12. Orduan esan zuen Salomonek: Jaunak esan zuen biziko zala lañoan.

13. Txit gogotik egin det etxea zure bizilekutzat, zure jargoi txit iraunkorra betiko.

14. Eta itzulirik erregea Israelko batzarre guztiaganontz, nai izan zion, eta eskatu zuen beretzat zorientasun mot guzia, zeren Israel guzia zegoan an bildurik.

15. Eta esan zuen Salomonek: Bedeikatua Israelko Jaun Jainko, itz egin zuena nere aita Dabiden aoz, eta bere eskuz bete du, esaten duela:

16. Israelko nere erria Egiptotik atera nuen egunetik, ez nuen autu erririk Israelko tribu guztien artean, egiña izan zedin etxe bat, eta egon zedin an nere izena, baizik autu nuen Dabid, izan zedin Israel nere erriaren burua.

17. Eta Dabid nere aitak egin nai izan zion etxe bat Israelko Jaun Jainkoaren izenari,

18. Baña Jaunak esan zion Dabid nere aitari: Ongi egin dezu pentsatzen zure biotzean, egitea etxe bat nere izenari, auberau erabiltzen dezula gogoan.

19. Baña alaere ez didazu egingo zuk etxea, baizik zure seme, zure erraietatik aterako danak, orrek egingo dio etxea nere izenari.

20. Eta Jaunak bete du bere itz, esan zuena: eta ni etorri naiz nere aita Dabiden lekuan, eta eseri naiz Israelko tronua gañean, Jaunak esan zuen bezela, eta egin diot etxea Israelko Jaun Jainkoari.

21. Eta izendatu det an tokia kutxarentzat, zeñean dagoan Jaunaren elkertasun, egin zuena gure gurasoekin, Egiptoko lurretikan atera ziradenean.

22. Salomon bada jarri zan zutik Jaunaren aldarearen aurrean, Israelko batzarrearen ikusmenean, eta luzatu zituen eskuak zerurontz,

23. Eta esan zuen: O Israelko Jaun Jainkoa, ez dago zure antzeko Jaungoikorik ez goian zeruan, ez emen bean lurrean, zuk zaitzen dezu elkertasuna, eta urrikaltzen zera zure serbitzari, dabilzanakin zure aurrean biotz guzitik.

24. Zuk bete diozu Dabid nere aita zure serbitzariari, eman ziñion itza, esan zuen zure aoak, eta egin zuten zure eskuak, adirazten duen bezela egun onek.

25. Orain bada, Israelko Jaun Jainkoa, zaitu zaiozu zure serbitzari Dabid nere aitari eskeñi ziñiona, esanarekin: Ez da izango kendua zure



jatorriko gizon, eseriko dana nere aurrean Israelko tronuaren gañean, zure semeak gordetzen badute beren bidea, ibiltzen diradela nere aurrean, zu ibilli ziñan bezela nere aurrean.

26. Eta orain, Israelko Jaun Jainkoa, sendatu bitez zure itz, esan ziñiozkanak Dabid zure serbitzari nere aitari.

27. Sinistu ote lezake, Jaungoikoa egiaz biziko dala lurraren gañean? Zeren ezin kabitu baldin bazaituzte zeruak, ez zeruen zeruak, zenbat gutxiago, egin dedan etxeak?

28. Baña alaere itzuli itzatzu begiak, nere Jaun Jainkoa, zure serbitzariaren erregura eta bere eskarietara, aditu ezazu zure serbitzariak gaur zure aurrean ematen dizun alabanza eta egiten dizun eskaria.

29. Zure begiak egon ditezela idikiak etxe onen gañean gau ta egun, etxe onen gañean, zeñgatik esan zenduan, an egongo da nere izena, aditu dezazula, zure serbitzariak toki onetan egiten dizun erregua.

30. Aditu ditzatzula zure serbitzariaren eta Israel zure erriaren eskariak, toki onetan eskatzen dizuten guztian, eta adituko dituzu zure bizilekuko tokian zeruan, eta aditzen dituzunean, jarriko zera prest berai on egiteko.

31. Baldin gizonen batek bekatu egingo balu bere lagun urkoaren kontra, eta egin bear baldin balu juramenturen bat, zeñarekin gelditzen dan lotua, eta baldin etorriko balitza zure etxera, zure aldarearen aurrera juramentua gatik.

32. Zuk adituko dezu zeruan, eta egingo diezu justizia zure serbitzariari, botatzen dezula bere buruaren gañera bere gaizki egiñaren kastigua, eta justututzen dezula justoa, eta ematen diozula ordaña bere justiziaren araura.

33. Baldin Israel zure erriak iges egingo balu bere etsaiakgandik (zeren bekatu egingo du zure kontra) eta penitentzia egiten dutela, eta aitortzen dutela zure izen santua, etorriko balirade, eta erregu egingo balizute, eta zuri eskatuko balizute etxe onetan,

34. Aditu itzazu zeruan, eta barkatu ezazu Israel zure erriaren bekatua, eta itzuli itzatzu beren gurasoai eman ziñien lurrera.

35. Zerua balego itxia, eta euririk egingo ez balu beren bekatuakgatik, eta erregututzen dutela toki onetan, egingo balute penitentzia zure izenaren honran, eta beren atsekabeen damutuko balirade beren bekatuakin,

36. Aditu itzatzu zeruan, eta barkatu itzatzu zure serbitzariaren, eta Israel zure erriaren pekatuak, eta erakusi zaiezu bide on bat, zeñatatik ibilli ditezten, eta bidaldu ezazu euria, zure erriari, bere jabe izateko, eman ziñion lurraren gañera.

37. Baletor goseteren bat lurrera, edo izurria, edo aize usteldua, edo gornia, edo larrapotea, edo atsekabetuko balu zure erria bere etsaiak, ingurutzen dituela bere erriak; gaitzete guztia, eritasun guztia,

38. Israel zure erriko edozeñ gizon zugana zuzentzen dan guztian erregu eta eskariakin, eta ezaguturik bere biotzeko zauria, jasoko balitu zugana bere eskuak etxe onetan

39. Zuk adituko dezu zeruan zure bizilekuko tokian, eta barkatuko diozu, eta emango diozu bakoitzari bere egiteen araura, bere biotza ikusten dezun eran (zeren zuk bakarrik ezagutzen dezu gizonen seme guztien biotza);

40. Zure beldur izan ditezten, gure gurasoai eman ziñien lurraren gañean, bizi diraden bitartean.

41. Orobat etortzen danean arrotz, Israel zure errikoa ez danen bat toki urrutitikan zure izen santuagatik (aldamen guztietatik zabalduko dan ezkerko zure izen andiaren ospea, eta zure esku indartsuarena, eta zure beso

42. Luzatuarena toki guztietan), etortzen danean bada, eta toki onetan erregu egiten duenean,

43. Zuk adituko dezu zeruan, zure bizileku sendo huratan, eta emango diozu arrotzak eskatzen dizun guztia; onela munduko erri guztiak ikasi dezaten zure izenaren beldur izaten, Israel zure erriak bezela, eta jakin dezaten berakgan ikusiaren gañera, zure izena izan dala aipatua, egin dedan etxe onen gañean.

44. Aterako balitza zure erria gerran egitera bere etsaien kontra, bidaltzen dezun edozeñ tokitan, erregutuko dizu, zuk autu zenduen Jerusalemengo errira begira, eta nik zure izenari egin diodan etxerontz begira,

45. Eta zuk adituko dituzu zeruan beren eskariak eta erreguak, eta justizia egingo diezu.

46. Eta pekatu egingo balute zure kontra (zeren ez dago gizonik pekatu egiten ez duenik) eta zuk, aserretuta, jarriko baziñitu beren etsaien eskuetan, eta izango balirade eramanak etsaien errira urrutira edo aldera,

47. Eta egingo balute penitentzia biotzetikan beren katiberioko tokian, eta ondurik erregutuko balizute beren katiberioan, esaten dutela: Bekatu egin degu, gaizki egin degu, biurriro bizi izan gera,

48. Eta itzultzen badirade zugana beren biotz guztitik, eta beren anima guztitik beren etsaien lurrean, zeñatara izan ziraden katibu eramanak: eta erregutuko balizute, itzulirik beren gurasoai eman ziñioten beren lurreko biderontz, eta autu dezun errirontz, eta zure izenari egin nion errirontz:



49. Zuk, Jauna, adituko dituzu zerutik, orrako bizileku sendotik, zeñean ipiñi dezun zure tronua, beren erregu eta eskariak, eta jarriko zera beren alde,

50. Eta gertua egongo zera mesede egiteko, zure kontra bekatu egin duen zure erriari, eta parkatuko diozkazu gaiztakeria guztiak, zeñakin izanik zure kontrakoak, alde egin duten zugandik, eta iratsiko dezu urrikaltasuna katibu daukazanetan, urrikaritu ditezen berakin,

51. zeren zure erria da, eta zure primeza, atera zenduana Egiptoko lurretik, burnizko labearen erditik.

52. Zure begiak egon ditezela idikiak zure serbitzariaren, eta Israel zure erriaren eskarietara, eta aditu ditzatzula eskatzen dizkizuten gauza guztietan.

53. Zeren zuk, o Jaun Jainkoa, berezitu ziñituen zuretzat primezatzat, lurreko erri guzien artean, esan zenduen bezela Moises zure serbitzariaren bitartez, atera ziñituenean gure asabak Egiptotik.

54. Gertatu zan bada, bukatu zuenean Salomonek, egitea Jaunari erregu eta eskari au, jaiki zan Jaunaren aldarearen aurrean, zeren ipiñi zituen lurrean belaun biak, eta eskuak zeuzkan zabalduak zerurontz.

55. Jarri zan bada zutik, eta bedeikatu zuen Israelko batzarre guztia, esaten zuela boz altuarekin:

56. Bedeikatua izan dedilla Jauna, eman diona pakea Israel bere erriari, esan zituen gauza guzien araura, ez du utsik egin itz bakar batean ere, bere serbitzari Moisesen aoz berak eskeñi zituen onera guzien gañean.

57. Izan bedi gurekin gure Jaun Jainkoa, izan zan bezela gure gurasoakin, eta ez gaitzala utzi, ez bota.

58. Baizik jaiertatu ditzala beraganontz gure biotzak, ibilli gaitezen bere bide guzietatik zaitzen ditugula bere aginteak, eta zeremoniak, eta gure gurasoai agindu ziezten erabaki guztiak.

59. Eta itz oiek berak, zeñakin erregutu dedan nik Jaunaren aurrean, egon bitez gure Jaun Jaunaren aurrean gau ta egun, denbora guzietan lagundu dizaion bere serbitzari oni, eta Israel bere erriari,

60. Ezagutu dezaten lurreko erri guztiak, Jauna bera dala Jaungoikoa, eta ez dagoala bera baño besterik.

61. Izan ere bedi gure biotza zuzena gure Jaun Jainkoaganako, ibilli gaitezen bere erabakietan, eta zaitu ditzagun bere aginteak, gaur bezela.

62. Erregeak bada eta Israel guztiak berarekin, eskeñtzen zituzten doañ biziak Jaunaren aurrean.

63. Eta il zituen Salomonek, Jaunari eskeñi ziozkan doañ paketsutzat, ogeita bi milla idi, eta eun ta ogei milla ardi, eta onela santutu zuten Jaunaren eliza erregeak eta Israelko semeak.

64. Egun huratan santutuerazi zuen erregeak, Jaunaren etxearen aurrean zegoan atariaren erdia, zeren eskeñi zituen an doañak, eta opariak, eta paketsuen gantza, zeren Jaunaren aurrean zegoan bronzeko aldarea, zan txikia, eta ezin kabitu ziraden berean doañak eta eskeñtzak eta opari paketsuen gantzak.

65. Salomonek bada egin zuen denbora artan jai andi bat, eta Israel guziak berarekin, bildurik ugaritasun andian, Emathen sarreratik Egiptoko errekarano, gure Jaun Jainkoaren aurrean, zazpi egunean, eta zazpi egunean, au da, amalau egunean.

66. Eta zortzigarren egunean bidaldu zituen erriak, zeñak bedeikatzen zutela erregea, joan ziraden beren etxeetara pozik eta biotz gozatsuakin, Jaunak bere serbitzari Dabidi, eta Israel bere erriari egin ziozkan mesede guztiak gatik.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Gertatu zan bada, egin ezker Salomonek Jaunaren etxea, eta errege jauregia, eta egitea erabakita zeuzkan eta egin nai zituen gauza guztiak,
2. Agertu zitzaion Jauna bigarrenez, agertu zitzaion bezela Gabaoenen.

3. Eta esan zion Jaunak: Aditu det, nere aurrean egin dezun zure erregu eta eskaria, santutu det, egin dezun etxe au, ipintzeko an nere izena betiko, eta nere begiak eta nere biotza egongo dirade an egun guzietan.

4. Zuri dagokizunez, ibiltzen baldin bazera zu nere aurrean, zure aita ibilli zan bezela, biotz zuzen eta tolesgabe batekin, eta egiten baldin badezu aginduta dizudan guztia, eta gordetzen badituzu nere legeak eta aginteak

5. Nik iraua eragingo diot beti zure erreñuko tronuari Israelen gañean, eskeñi nion bezela zure aita Dabidi, esaten nuela: Ez da kendua izango zure jatorriko gizona Israelko tronutik.

6. Baña baldin zuek eta zuen semeak mukertasunarekin alde egingo baziñateke nigandik; utzirik neri jarraitzeari, gorde gabe nere aginteak, eta ipiñita dizutedan nere zeremoniak, eta joango baziñateke, egiazkotzat idukitzeko jainko arrotzak, eta berak adoratzeko,

7. Kenduko det Israel, eman nien lurraren gañetik, eta botako det urrutira nere aurretik, nere izenarentzat santutu nuen eliza; eta Israel etorriko da izatera jende guzien lotsaria eta ipuia.



8. Eta auts biurtutako etxe oni begiratuko zaio nere zuzentasunaren irudiari bezela, beratatik iragotzen dan guzia geldituko da arritua, eta txistu egingo du, eta esango du: Zergatik Jaunak egin dio onela lur oni, eta etxe oni?

9. Eta erantzungo dute: Utzi zutelako beren Jaun Jainko, atera zituen beren gurasoak Egiptoko lurretik, eta jarraitu ziotelako jainko arrotzai, eta berak adoratu zituztelako, eta elizkizunak egin zieztelako. Argatik Jaunak ekarri du gaitz guzi au beren gañera.

10. Eta ogei urte iragota Salomonek egin zituen ezkeroko etxe biak, au da, Jaunaren etxea, eta erregeren etxea,

11. (Emanik Salomoni Hiram Tiroko erregeak zedrozko eta abetozko zurak, eta bear izan zuen urre guztia) orduan eman ziozkan Salomonek Hirami ogei erri Galileako lurtean.

12. Eta atera zan Hiram Tirotik ikustera Salomonek eman ziozkan erriak, eta etzitzaiozkan gustatu,

13. Eta esan zuen: Beraz oiek dirade, ene anaia, eman dizkidazun erriak? Eta deitu ziozkaten Txabulko lurra gaurko eguneraño.

14. Bidaldu ere ziozkan Hiramek Salomon erregeari eun eta ogei talentu urrezko.

15. Au da Salomon erregeak gaztatu zuena, egiten Jaunaren etxea, eta bere etxea, eta Mellokoa eta Jerusalemgo, eta Hesserko, eta Majeddoko, eta Gazerko murrak.

16. Faraon Egiptoko erregea igo zan, eta artu zuen Gazer, eta su eman zion, eta irago zituen ezpataren puntatik errian bizi ziraden Kanaantarrak, eta eman zion dotetzat bere alaba Salomonen emazteari.

17. Argatik Salomonek berriz egin zituen Gazer eta Bethoron beekoa.

18. Eta Baalath, eta Palmira eremuko lurtean.

19. Eta zegozkion eta murrak gabe zeuden erri guziak sendatu zituen, baitaere gerrako gurdiak zeuzkan erriak, eta zaldizko jendea zegoan erriak, itz batean, bukatu zuen egin nai izan zuen guztia Jerusalem, eta Libanon, eta bere mendean zeuzkan lur guztietan.

20. Amorrheoetatik eta Heteoetatik, eta Ferezeoetatik, eta Hebeoetatik, eta Jebuseoetatik, zeñak etziraden Israelko semeetatikoak, oietatik gelditu zan guztia,

21. Erri oietako semeak, emen bizi ziradenak, ezin desegin izan zituztelako Israelko semeak, egin zituen Salomonek kotiztariak, gaurko eguneraño diraden bezela.

22. Salomonek berriz agindu zuen, Israelko semeetatik batere etzedilla izan serbitzaria, baizik ziradela gerra gizonak, eta bere ministroak, eta prinzipiak, eta agintariak, eta gurdien eta zaldidien zuzentzalleak.

23. Zeuden bosteun eta berrogeita hamar begirale Salomonen lan guzietan, zeñak zeukaten mendean erria, eta zuzentzen zituzten izentatu ziozkaten lanak.

24. Eta Faraonen alaba igo zan Dabiden erritik bere jauregi, Salomonek egin zionera. Orduan egin zuen Mello.

25. Eskeñtzen ere zituen Salomonek urte bakoitzean iru alditan, doañak eta abere il paketsuak, Jaunari egin zion aldarearen gañean, eta erretzen zuen inzensoa Jaunaren aurrean, eta eliza izan zan bukatua.

26. Egin ere zuen Salomon erregeak ontzidi bat Asiongaberren, zeñ dagoan Ailathen aldean itsaso Gorriaren erriberan, Idumeako lurtean.

27. Eta bidaldu zituen Hiramek ontzidi onetan bere serbitzariak, gizon adituak itsasoko gauzen jakinduria ta ibilleretan, Salomonen serbitzariakin.

28. Zeñak joanik Ophirra, artu zituzten an laureun eta ogei talentu urrezko, eta eraman ziozkaten Salomon erregeari.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Sabako erregiña ere, aditurik Salomonen ospea, Jaunaren izenean, etorri zan Salomon tentatzera galde nahasi illun batzuekin.

2. Eta sarturik Jerusalemen lagun eta aberastasunen ospe andiarekin, gamelu aromaz eta amaigabeko urrez zamatuakin, eta arri baliotsuz, joan zan Salomon erregeagana, eta esan ziozkan bere biotzean zeuzkan gauza guztiak.

3. Eta agertu ziozkan Salomonek, jarri ziozkan itz guziak, etzan izan erregeari ezkutatu zezakion gauzarik, eta erantzun ezin zezakionik.

4. Ikusirik bada Sabako erregiñak Salomonen jakinduria guzia, eta egin zuen etxea,

5. Eta bere maiko janariak, eta bere morroien bizilekuak, eta bere serbitzarien taldeak, eta beren soñekoak, eta edontzizaiak, eta Jaunaren etxean eskeñtzen zituen doañak, gelditu zan arritua.

6. Eta esan zion erregeari: Egiatzkoak dirade nik nere errian aditu ditudan gauzak,

7. Zure itzen gañean, eta zure jakinduriaren gañean, eta ez nien sinisterik ematen kontatzen zizkidatenai aliketa ni nerau etorri naizan artean, eta ikusi dedan artean nere begiak, eta arkitu dedan artean irago zaitza-



danaren gañera, ez didatela esan erdia, andiagoak dirade zure jakinduria eta obrak, aditu dedan ospea baño.

8. Doatsuak zure gizonak, eta doatsuak zure serbitzari, beti daude-nak zure aurrean, eta aditzen dutenak zure jakinduria.

9. Bedeikatua izan dedilla zure Jaun Jainkoa, zeñaien gogoko egiña jarri zeran, eta zeñak ipiñi zaituen Israelko tronuaren gañean, erri oni beti iduki dion amorioagatik, eta ipiñi zaitu errege egiñik, egin dezazun berdintasuna eta justizia.

10. Eman ziozkan bada erregeari eun eta ogei talentu urre, eta likur-ta eta arri baliosu txit asko, etziraden gero ekarri iñoiz ainbeste likurta, nola eman ziozkan Sabako erregeñiak Salomon erregeari.

11. Gañera Hiramen ontzidi, zekarrenak urrea Ophirtikan, ekarri ere zuen Ophirtikan zurbeltz usaitzuzko zur txit asko, eta arri baliosuak.

12. Eta erregeak egin zituen zurbeltz usaitzuzko zurakin Jaunaren etxeak, eta erregearen etxeko barandesteak, eta laudak eta lirak kantarien-tzat; etziraden izan berriz ekarriak onelako zur zurbeltz usaitzuzkoak, ezta ikusiak ere gaurko eguneraño.

13. Salomon erregeak berriz eman zion Sabako erregeñari, nai zuen eta eskatu zion guztia, berak bere borondatez, errege baten gisara, eman ziozkanez gañera. Bera itzuli zan, eta joan zan bere errira bere serbitzariakin.

14. Eta Salomoni urteoro ekartzen ziozkaten urrearen pisua zan, sei-reun eta irurogeita sei talentu urrezko,

15. Kontatu gabe ekartzen ziena kotizbiltzalleak, eta merkataria, eta jakikaizailleak, eta Arabiako errege guztiak, eta bere errietako eraentzalleak.

16. Egin ere zituen Salomon erregeak berreun ezkutu urre txit fiñez-koak, eman zituen seireun siklo urrezko ezkutu bakoitzaren plantxetarako.

17. Eta irureun ezkutarma legeko urrezkoak, irureun urrezko me-atzek estaltzen zuen ezkutarma bakoitza, eta ipiñi zituen erregeak Libano-ko basoko etxean.

18. Egin ere zuen Salomonek marfillezko tronu andi bat, eta goarni-tu zuen urre txit oriarekin,

19. zeñak zituen sei malla, eta tronuaren goia zan biribilla ostetik, eta beso bik, batak aldamen batetik eta besteak bestetik eltzen zioten eserto-kiari, eta bi leoi zeuden beso bakoitzaren aldean.

20. Sei mailen gañean zeuden aldamen batetik eta bestetik, amabi leoitxo: etzan beste erreñutan egin onelako lanik.

21. Eta Salomon erregeak edaten zuen ontzi guztiak ere ziraden urrezkoak, eta Libanoko basoko maiontzi guztiak ziraden urre txit gar-

bizkoak. Etzegoan zillarrik, eta etzitzaion ematen deusen baliorik Salo-monen egunetan,

22. Zeren erregearen ontzidia joan oi zan itsasoz Hiramen ontzidia-rekin iru urtean bein Tharsisera, ekartzera andikan urrea eta zillarra, eta elefanteen letagiñak, eta tximuak, eta egazterrenak.

23. Salomon erregeak bada atzera utzi zituen lurreko errege guztiak ondasunetan eta jakindurian.

24. Eta mundu guztiak ikusi nai zuen Salomon erregearen arpegia, aditzeko Jaungoikoak bere biotzean ipiñi zuen jakinduria.

25. Eta bakoitzak eramaten ziozkan urteoro beren emaitzak, zilla-rrezko eta urrezko ontziak, jantziak, eta gerrako armak, baita likurtak ere, eta zaldiak eta mandoak.

26. Eta bildu zituen Salomonek gurdiak, eta zaldizko jendea, eta iduki zituen milla eta laureun gurdi, eta amabi milla zaldizko; eta ipiñi zituen erri murrutuetan, eta Jerusalemene erregearen aldean.

27. Eta egin zuen ain ugari izan zedilla Jerusalemene zillarra, nola arriak, eta egin zuen ain ugari izan zedilla zedroa, nola pikoar, kanpoetan ernetzen diradenak.

28. Eta ekartzen ziraden zaldiak Salomonentzat Egiptotik eta Koa-tik. Zeren erregearen merkataria, erosten zituzten Koan, eta ekartzen zituzten prezio erabakian.

29. Egiptotik ateratako lau zaldizko talde bat, kostatzen zan seireun siklo zillarrezko; eta zaldi bakoitza eun eta berrogeita amar. Eta onela Heteoen eta Siriako errege guztiak saltzen zituzten beren zaldiak.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta Salomon erregea amurustu zan emakume arrotz askorekin, eta Faraonen alabarekin, eta Moabtarrakin, eta Amontarrakin, eta Idumeata-rrakin, eta Sidontarrakin, eta Hetetarrakin,

2. Jende batzuekin zeñak gatik esan zien Jaunak Israelko semeai: Ez itzatzute artu beretatik emazteak, eta berak ere ez bitzate artu zuen emakumeetik; zeren ziertoro biurrituko dituzte zuen biotzak, jarraitu dizaie-zuten beren jainkoai. Oiekin bada itsatsi zan Salomon amorio txit bero batekin.

3. Alako moduan non iduki zituen zazpireun emazte, zeñak ziraden erregeñiak bezelakoak, eta irureun emazte azpiko, eta emakumeak biurritu zuten bere biotza.

4. Eta onezkero zarra zala, biurritua izandu zan bere biotza emaku-meak gatik, jarraitzeko jainko arrotzai, alako moduan non, bere biotza



etzan garbia ta zintzoa bere Jaun Jainkoarentzat, izan zan bezala bere aita Dabiden biotza.

5. Baizik Salomonek adoratzen zituen Astarthe Sidontarren emakume jainkoa, eta Molok Ammontarren idoloa.

6. Eta Salomonek egin zuen Jaunaren gogokoa ez zana, eta ez zuen irauñ Jaunari jarraitzean, bere aita Dabidek bezela.

7. Orduan egin zion Salomonek eliza bat Txamos Moabko idoloari, Jerusalemen aurkez dagoan mendian, eta Molotx Ammonen semeen idoloari.

8. Eta onela egin zuen bere emazte arrotz guziakin, zeñak erretzen ziezten inzensoak, eta eskeñtzen ziezten koañak beren jainkoai.

9. Argatik aserretu zan Jauna Salomonen kontra, aldendu zuelako bere biotza, Israelko Jaun Jaungoiko, bi alditan agertu zitzaionagandik,

10. Eta agindu zion onen gañean, etzitzaiela jarraitu jainko arrotzai, eta etzuen zaitu Jaunak agindu ziona.

11. Esan zion bada Jaunak Salomoni: Onela egin dezulako eta ez dezulako zaitu nerekin egindako elkertasuna, eta eman nizkizun aginteak, urratu eta berezituko det zure erreñua, eta emango diot zure mendeko bati.

12. Baña alaere ez det egingo zure egunetan, zure aita Dabiden amorioagatik, zatituko det arkitzen danean zure semearen eskuan:

13. Eta ez diot kenduko erreñu guzia, baizik emango diot zure semeari tribu bat zure aita Dabiden amorioagatik, eta Jerusalem, autu dedanagatik.

14. Jaiki zuen bada Jaunak Salomonen etsaitzat Adad, Idumeatarra, errege odolekoa, Edomen zegoana.

15. Zeren gertatu zan, egonik Dabid Idumean, eta joanik ara Joab martiztiaren agintaria, lurpetzera illak izan ziradenak, eta ezpatatzera Idumeako gizaki guzia,

16. (Zeren sei illabetean egon zan an Joab Israel guziarekin, il zuen artean gizon gauza guztia Idumean),

17. Iges egin zuen Adad onek, Idumeako bere aitaren morroe batzuek lagun zituela, eta joan zan ezkutatzera Egiptora. Zan orduan Adad oraindikan urte gutxiko mutilla.

18. Eta ateratzen ziradela Madiandik, etorri ziraden Faranera, eta artu zituzten berakin Farango gizonak, eta sartu ziraden Egipton, Faraon Egiptoko erregeagana, zeñak eman zion Adadi etxea, eta izentatu zion janaria, eta bere mendean ipiñi zituen lurrak.

19. Eta alako moduan sartu zitzaion gogoan Faraoni Adad, non, eman zion emaztetzat, bere emazte Taphnes erregeñaren aizpa bat.

20. Eta Taphnesen aizpa onegandik iduki zuen seme bat, Jenubath zeritzana, eta Taphnesek azi zuen Faraonen etxean, eta Jenubath bizitu oi zan Faraonen jauregian erregearen semeakin.

21. Eta aditu zuenean Adadek Egipton, Dabid joan zala atsedetzera obian bere gurasoakin, eta illa zala Joab bere martiztiaren agintari nagusia ere, esan zion Faraoni: Utzi zadazu joan nadin nere errira.

22. Eta esan zion Faraonek: Zeren premia dezu nere etxean, zure errira joan nai izateko? Eta berak erantzun zion: Ezeren ere ez: baña erre-gututzen dizut utzi zadazula joaten.

23. Iraiki ere zion Jaungoikoak etsaitzat Bazon, Eliadaren semeari, zeñak iges egin zuen Aderezer Sobako errege bere jaunagana.

24. Eta bildu zituen beraren kontra gizon batzuek, eta egin zan lapurren agintari, Dabidek il nai zituenean, eta berak joan ziraden Damaskora, eta bizitu izan ziraden an, eta Razon egin zuten Damaskoko errege.

25. Eta izan zan Israelen etsaia Salomonen egun guzietan, eta augatik dirade Adaden gaitzak, eta Israelen kontrako gorrotoa, eta erreñatzen zuen Sirian.

26. Jeroboam Nabathen seme, Efratkoa, Saredatarra, Salomonen serbitzaria ere, zeñaen ama Sarba zeritzana, zan andre alargun bat, jaiki zan erregearen kontra.

27. Eta gauza augatik jaiki zan beraren kontra, zeren Salomonek egin zuen Mello, eta lurrez bete zuen, Dabid bere aitaren erriko zakonune andia.

28. Eta Jeroboam zan gizon sendo eta errutsu bat, eta ikusirik Salomonek zala gazte, onera etsigia eta egillea, jarri zuen Joseren etxe guziko kotizen begirale.

29. Gertatu zan bada denbora artan, ateratzea Jeroboam Jerusalem-dik, eta Ahas Silontar Profetak, mantu berri batekin estalita, arkitu zuen bidean, eta biak bakarrik zeuden kanpoan.

30. Eta arturik Ahiasek bere mantu berria, zeñarekin zegoan estalita, urratu zuen amabi zatitan.

31. Eta esan zion Jeroboami: Artu itzatzu zuretzat amar zati, zeren au da Israelko Jaun Jainkoak esaten duena: Ona emen ni noan berezitzera erreñua Salomonen eskutik, eta zuri emango dizkizut amar tribu.

32. Eta berari geldituko zaio tribu bakar bat, nere serbitzari Dabiden, eta Israelko tribu guzieren artean autu dedan, Jerusalemgo erriaren amorioz,



33. Utzi nauelako, eta adoratu duelako Astarthe Sidontarren emakume jainkoa, eta Txamos Moabtarren jainkoa, eta Molotx Ammonen semeen jainkoa, eta ibilli ez dalako nere bideetatik, egiteko ongia dana nere aurrean eta gordetzeko nere aginteak eta legeak, bere aita Dabidek bezela.

34. Ez det kenduko erreñu guzia bere eskutik, baizik utziko diot erreñatzen bizi dan arte guzian, nere serbitzari Dabid autu nuenaren amorioz, zeñak zaitu zituen nere aginteak eta esanak.

35. Baña kenduko det erreñua bere semearen eskutik, eta emango dizkizut zuri amar tribu.

36. Eta bere semeari emango diot tribu bakar bat, gelditu dedin beti lanpara bat Dabid nere serbitzariaren Jerusalemene, zeñ autu dedan, egon zedin an nere izena.

37. Eta zu artuko zaitut, eta erreñatuko dezu zure animak nai duen guziaren gañean, eta izango zera erregea Israelen gañean.

38. Baldin bada adituko baziñiztuke, neronek agintzen dizkizudan gauza guziak, eta baldin ibilliko baziña nere bideetatik, eta baldin egingo bazeneza zuzen dana nere aurrean, gordetzen dituzula nere aginteak eta nere esanak, nere serbitzari Dabidek egin zuen bezela, zurekin izango naiz, eta egingo dizut etxe iraunkor bat; egin nion bezela etxe bat Dabidi, eta emango dizut Israel.

39. Eta atsekabetuko det Dabiden jatorria augatik, baña ez betiko.

40. Salomonek bada illerazi nai izan zuen Jeroboam, baña onek iges zuen, eta joan zan Egiptora, Sesak Ejiptoko erregeagana, eta an egon zan Salomon il zan artean.

41. Eta Salomonen beste itzak, eta egin zituen gauza guztiak, eta bere jakinduria, guztiak daude eskribatuak Salomonen egunetako itzen liburuan.

42. Eta Salomonek Jerusalemene Israel guztiaren gañean erreñatu zuen denbora, izandu zan berrogei urte.

43. Eta joan zan Salomon atsedetara bere gurasoakin, eta lurpetu zuten bere aita Dabiden errian, eta bere lekuan erreñatu zuen bere seme Roboamek.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta Roboam etorri zan Sikemera, zeren an bildu zan Israel guztia, bera errege egiteko.

2. Baña Jeroboam Nabathen semea, zegoala oraindikan Egipton, Salomon erregeagandik igesi joanda, iduki zuenean beraren ilberria, bereala itzuli zan Egiptotik.

3. Eta bidaldu zituzten ots egitera, etorri zan bada Jeroboam eta Israelko talde guzia, eta itz egin zioten Roboami, esaten ziotela:

4. Zure aitak ipiñi zigun uztarri txit gogor bat, eta ala zuk orain gutxitu ezazu piska bat zure aitaren agintaritzaren, eta gure gañean ipiñi zuen uztarri txit pisuaren gogortasuna, eta serbituko zaitugu.

5. Berak erantzun zien: Joan zaitezte, eta emendikan iru egunera itzuli zaitezte nigana. Eta joan zanean erria,

6. Iduki zuen batzarre bat Roboam erregeak, bere aita Salomon bizi zanean bere aldean egon oi ziraden zarrakin, eta esan zien: Zer iritzi ematen didazute, erantzun dizaiodan erri oni?

7. Zeñak esan zioten: Baldin aditzen badiozu gaur erri oni, eta serbituko bazeneza, eta oben egiten badezu beren eskarira, eta biguñtasunarekin itz egiten badiozu, izango dirade beti zure serbitzariak.

8. Berak utzi zuen zarrak eman zioten iritzia, eta itundu zan berarekin azi ziraden, eta bere aldamenean zeuden gazteakin,

9. Zer iritzi ematen didazute erantzuteko erri oni, zeñak esan didan: Egin ezazu ariñago, zure aitak gure gañean ipiñi zuen uztarria?

10. Eta erantzun zioten berarekin azi ziraden gazteak: Onela erantzungo diozu, itz egin dizun erri oni, esaten duela: Zure aitak ipiñi zuen gure gañean uztarri pisu bat, arindu zatzakigu zuk. Onela erantzungo diezu: Nere beatzetatik txikiena da juizenago nere aitaren bizkarrezurra baño,

11. Eta baldin nere aitak ipiñi bazuen zuen gañean uztarri pisu bat, nik aziko det oraindikan geiago zuen uztarria, nere aitak azotatu zinduzten ualakin, nik ordea azotatuko zaituztet lupu ualakin.

12. Etorri zan bada Jeroboam eta erri guzia Roboamgana irugarren egunean, erregeak esan zuen bezela, esaten zuela: itzuli zaitezte nigana irugarren egunean.

13. Eta erantzun zion erregeak erriari gogortasunarekin, utzirik zarrak eman zioten iritzia,

14. Eta itz egin zien gazteen iritziaren araura, esaten zuela: Nere aitak ipiñi zuen uztarri pisu bat zuen gañean, nik berriz aziko det oraindikan geiago zuen uztarria, nere aitak azotatu zinduzten ualakin, nik berriz azotatuko zaituztet lupu ualakin.



15. Eta etzion oben egin erregeak erriari, zeren Jaunak alde egin zuen beragandik, betetzeko bere itz, esan ziona Nabathen semeari, Ahias Silontarraren bitartez.

16. Ikusirik bada erriak, etzuela erregeak aditu nai izan, erantzun zion esaten zuela: Zer degu guk zer ikusirikan Dabiden familiarekin? Edo zer gauza on itxedotzen degu Isairen semeagandik? Zoaz, o Israel, zure egolekuetara; eta zuk, o Dabiden semea, eraendu ezazu orain zure etxea. Onenbesterekin joan zan Israel bere egolekuetara.

17. Baña Judako errietan zeuden Israelko seme guziak, ezagutu zuten Roboam erregetzat.

18. Bidaldu zuen bada Roboam erregeak Aduram, zeñ zan kotizbiltzalea, eta Israel guziak arrika egin zion, eta il zan. Eta Roboam erregea igo zan arin bere gurdira, eta iges egin zuen Jerusalemenera.

19. Eta alde egin zuen Israelek Dabiden etxetik, gaurko eguneraño dagoan bezela.

20. Eta gertatu zan, aditu zuenean Israelek, Jeroboam itzuli zala, egiñik batzarrea, bidaldu zituzten berari ots egitera, eta egin zuten Israel guziko errege, eta iñork ere etzion jarraitu Dabiden etxeari baizikan bakarrik Judako tribuak.

21. Etorri zan bada Roboam Jerusalemenera, eta bildu zuen Judako etxe guztia, eta Benjaminen tribua, eun eta larogei milla gerrarako gizon autu, gudatu zezaten Israelko etxearen kontra, eta ekartzeko erreñua Roboam Salomonen semearen mendera.

22. Baña Jaunak itz egin zion Semeias Jaungoikoaren gizonari, esaten zuela:

23. Itz egin zaiozu Roboam Salomonen seme Judako erregeari, eta Judaren eta Benjaminen etxe guztiari, eta erriko gañerakoai, esaten diezula:

24. Oiek esaten ditu Jaunak: Etzerate igoko, eta ez dezute gudatuko Israelko seme, zuen anaien kontra, itzuli bedi bakoitza bere etxera, zeren ni naiz gauza au egin dedana. Aditu zituzten Jaunaren itzak, eta itzuli zira-den bidetikan, Jaunak agindu zien bezela.

25. Eta Jeroboamek egin zuen berriz Siken Efraimgo mendian, eta bizitu izan zan an, eta aterarik andikan egin zuen Fanuel.

26. Eta esan zuen Jeroboamek bere biotzean: Orain itzuliko da erreñua Dabiden etxera,

27. Igotzen bada erri au Jerusalemenera doañak eskeñtzera Jaunaren etxean, eta erri onen biotza itzuliko da Roboam bere jaun, Judako erregegana, eta ilko naute ni, eta itzuliko dirade beragana.

28. Eta ongi pensatu ezkerro, egin zituen bi txal urrezko, eta esan zion erriari: Emendikan aurrera etzaitzete igo Jerusalemenera, emen dauzkazu, Israel, Egiptoko lurretik atera zinduzten zure jainkoak.

29. Eta jarri zituen bata Bethelen eta bestea Danen.

30. Eta gertaera onek eman zuen bekaturako bidea, zeren erria joan oi zan Daneraño txala adoratzera.

31. Egin ere zituen elizak goietan, eta jarri zituen apaiztat erriko atzenekoak, etziradenak Lebiren jatorrikoak.

32. Eta izendatu zuen pesta egun bat zortzigarren illean illaren ama-bostgarren egunean, Judan zelebrazten zan pesta andiaren irudira. Eta igo-tzen zala aldarera, berebat egin zuen Bethelen, eskeñtzeko doañak, egin zituen txalai, eta Bethelen jarri zituen apaizak, egin zituen toki goietan,

33. Zortzigarren illaren amabosgarren egunean, zeñ izendatu zuen bere buruz, igo zan, Bethelen egin zuen aldarearen gañera, eta pesta egin zuen Israelko semeentzat, eta igo zan aldarearen gañera, erretzeko inzensusua.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta ona non Jaungoikoaren gizon bat Jaunaren aginduz etorri zan Judatik Bethelera, zegoanean Jeroboam aldarearen gañean, eta ipintzen zuenean inzensusua.

2. Eta deadar egin zuen aldarearen kontra Jaunaren izenean, aldarea, aditu ezazu jaunak esaten duena: Etorriko da denbora, zeñean jaioko dan Dabiden familian seme bat, zeñi deituko zaion Josias, zeñak illeraziko dituen zure gañean, toki goratuetako apaiz, orain erretzen dituztenak inzensusuak zure gañean, eta berak erreko ditu zure gañean gizonen ezurrak.

3. Eta eman zuen egun artan señaleara, esaten zuela: au izango da Jaunak itz egiten duenaren señaleara, aldare ori puskatuko da, eta bere gañeko autsa zabalduko da.

4. Aditu zitueneko erregeak Jaungoikoaren gizonak boz altuarekin esan zituen itzak Betelko aldarearen kontra, luzatu zuen bere eskua aldaretik, esaten zuela: itsatsi zaiozute. Eta igartu zitzaion bere esku, profetaren kontra luzatu zuena, eta gelditu zan ezin bereganatuz.

5. Aldarea ere puskatu zan, eta aldareko autsa bazterretara banatu, Jaungoikoaren gizonak Jaunaren izenean lendanaz adirazi eta señaleara eman zuen bezela.

6. Orduan esan zion erregeak Jaungoikoaren gizonari: Eskatu zaiozu zure Jaun Jainkoari, eta erregutu ezazu nigatik, sendatu dakidan nere



eskua. Erregutu zion Jaungoikoaren gizonak Jaunari, eta sendatu zitzaion erregeari bere eskua, eta gelditu zitzaion len zeukan bezala.

7. Eta erregeak esan zion Jaungoikoaren gizonari: Atoz nerekin etxera bazkaltzera, eta emango dizkizut eskuerakutsiak.

8. Eta erantzun zion Jaungoikoaren gizonak erregeari: Emango baziñiket ere zere etxearen erdia, ez nintzake zurekin joango, eta ez ogirik jan, ez urik edango nuke toki onetan.

9. Jaunak alabañan onelako agintea eman zidan esaten zidala: Ez dezu jango ogirik, ez edango urikan, eta etzera itzuliko etorri zeran bidetik.

10. Joan zan bada beste bide batetik, eta etzan itzuli, Bethelera etorri zan bidetik.

11. bizi zan garai artan Bethelen profeta zar bat, zeñgana etorri ziran bere semeak, eta esan ziozkaten, Jaungoikoaren gizonak egun artan Bethelen egin zituen gauza guztiak, eta kontatu ziozkaten beren aitari, erregeari esan ziozkan itzak.

12. Eta esan zien beren aitak: Zeñ bidetatik joan da? Erakusi zioten bere semeak, Jaungoikoaren gizon, Judatik etorri zana, itzuli zan bidea.

13. Eta esan zien bere semeai: Prestatu zadazute astoa; eta prestatu ziotenean berak, igo zan bere gañera.

14. Eta joan zan Jaungoikoaren gizonaren billa, eta arkitu zuen eseria terebinto baten azpian, eta esan zion: Zu bai al zera, Judatik etorri dan Jaungoikoaren gizona? Ni naiz, erantzun zion.

15. Eta esan zion: Atoz nerekin etxera, ogia jatera.

16. Baña berak esan zion: Ezin ninteke itzuli, ez joan zurekin, eta ez det ere jango ogirik, ez edango urik toki onetan:

17. Zeren Jaunak berak bere aoz itz egin zidan, esaten zuela: Ez dezu jango ogirik, eta ez dezu edango urik an, eta etzera ere itzuliko joaten zeran bidetik.

18. Besteak esan zion: Ni ere profeta naiz zu bezela, eta aingeru bat etorri zat esatera Jaunaren izenean: Eraman ezazu zurekin zure etxera, jan dezan ogia, eta edan dezan ura. Engañatu zuen,

19. Eta eraman zuen berarekin, jan zuen bada ogia bere etxean, eta edan zuen ura.

20. Eta zeudela maiean eseriak, Jaunak itz egin zion arako profeta, besteari atzera itzulierazi zionari.

21. Eta deadar egin zuen profeta hurak, eta esan zion Judatik etorri zan Jaungoikoaren gizonari: Oiek esaten ditu Jaunak: Ez dezulako egin

Jaunak bere aoz esan zizuna, eta ez dezulako zaitu zure Jaun Jainkoak eman zizun agintea,

22. Baizik itzuli zeralako atzera, eta jan dezulako ogia, eta edan ura, ez ogirik jateko, eta urik ez edateko agindu zizun toki onetan, ez da eramana izango zure gorputz illa zure gurasoen obiara.

23. Eta jan ta edan zuenean, prestatu zion astoa, atzera itzulierazi zion profetari.

24. Eta joanda laster, arkitu zuen bidean leoi batek, eta il zuen, eta bere gorputz illa zetzan bidean. Eta astoa zegoan geldi zutik bere aldean, eta leoia ere zegoan gorputz illaren aldean.

25. Eta ona non bide artatikan zijoazen gizaseme batzuek, ikusi zuten gorputz illa zetzala bidean, eta leoia zegoala geldirik gorputz illaren aldean, eta joan ziraden, eta barreatu zuten au, profeta zar hura bizi zan errian.

26. Aditu zuenean au, bidetik atzera itzulierazi zion profeta hurak, esan zuen: Jaunaren agintea autsi duen Jaungoikoaren gizona da, eta Jaunak jarri du leoi baten mendean, zeñak puskatu eta il du, Jaunak lendanak adirazi zion bezela.

27. Eta esan zien bere semeai: Prestatu zadazute astoa. Berak prestatu zutenean,

28. Eta joanik bera, arkitu zuen bere gorputz illa zetzala bidean, eta astoa eta leoia zeudela geldi zutik gorputz illaren aldean, eta leoiak etzuen jan gorputz illa, eztaere gaitzik egin astoari.

29. Artu zuen bada profetak Jaungoikoaren gizonaren gorputz illa, eta jarri zuen astoaren gañean, eta itzulita eraman zuen profeta zarraren errira progua egiteko.

30. Eta jarri zuen bere gorputz illa bere obian, eta negar egin zuten beragatik esaten zutela: Ai, ai, ene anaia!

31. Eta progua bukatu zanean, esan zioten bere semeai: Ni iltzen naitzanean, obiatu nazazute, Jaungoikoaren gizona obiatua izan dan obian, bere ezurren aldean jarri itzatzute nere ezurrak.

32. Zeren ziertoro egizatuko da, lendanak adirazi zuena Jaunaren izenean, Bethelen dagoan aldarearen kontra, eta Samariako errietan dau-den goietako eliza guzien kontra.

33. Gertakari guzi oien ondoan ere, etzuen Jeroboamek artu bere biziera biurriaren damurikan; baizik kontrara, egin zituen goietako apai-zak erriko atzenekoetatik. Nai zuen guziak betetzen zuen bere eskua, eta gelditzen zan goietako apaiz eginik.



34. Au zan Jeroboamen etxeko pekatua, eta argatik izan zan desegña, eta kendua lurraren gañetikan.

AMALAUAREN KAPITULUA

1. Denbora artan eritu zan Abia Jeroboamen semea.
2. Eta esan zion Jeroboamek bere emazteari: Jaiki zaite eta janzi itzazu beste soñeko batzuek, ezagutu ez zaitzaten Jeroboamen emaztea zerala; eta zoaz Silora, non dagoan Ahias profeta, esan didana erreñatuko nuela erri onen gañean.
3. Artu ere eta eraman itzatzu amar ogi, opill bat, eta ezta ontzi batean, eta joan zaite beragana, eta berak esango dizu zer gertatuko zaion mutill oni.
4. Egin zuen Jeroboamen emazteak ark esan ziona, eta jaikitzen zala joan zan Silora, eta allegatu zan Ahiaren etxera; ark berriz ezin zuen ezer ikusi, zeren lilluratu zitazkion bere begiak bere zartza andiagatik.
5. Jaunak berriz esan zion Ahiasi: Ona non sartzen dan Jeroboamen emaztea ituntzera zurekin bere seme eritua dagoanaren gañean, oiek eta oiek esango diozkazu. Sartzen zala bada bera idurituaz zala zana,
6. Aditu zuen Ahiasak bere oñen otsa atetikan sarreran, eta esan zuen: Sartu zaite, Jeroboamen emaztea; zergatik iduritzen dezu beste bat zerala? Berri txar bat zuri emateko esan didate.
7. Zoaz, eta esan zaiozu Jeroboami: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Nik goratu zindudan erriaren erditik eta egin zindudan Israelko nere erriaren agintari,
8. Nik berezitu nuen Dabiden etxeko erreñua, eta eman nizun zuri; baña zu etzera izan nere serbitzari Dabid bezelakoa, zeñak zaitu zituen nere aginteak, eta jarraitu zidan bere biotz guziarekin, egiten zuela nere gogokoa zana,
9. Baizik izan zera zu baño lenagoko guziak baño gaiztoagoa, eta egin dituzu jainko arrotz eta menasturtuzkoak, neri aserretu erazitzeke, eta ni utzi nazu, eta neri atzea eman didazu.
10. Argatik ona non nik ezarriko ditudan gaitzak Jeroboamen etxearen gañera, eta desegingo ditut Jeroboamen etxetik zakurrerañoakoak, eta Israelko gauza baliotsuak, naiz zatarrak; eta garbituko ditut Jeroboamen etxeko kutsuak, garbitu oi dan bezela zimaurrea, aztarnarik ere gelditu ez dedin bitartean.
11. Jeroboamen etxekoetatik errian iltzen diradenak, izango dirade zakurrak janak; kanpoan iltzen diradenak berriz izango dirade egaztiak iretsiak, zeren Jauna da esan duena.

12. Jaiki zaite bada zu, eta zoaz zure etxera, eta erriaren beraren sarrean oñak ipintzen dituzunean, ilko da semea,
13. Eta Israel guziak beragatik negar egingo du, eta obiatuko du, eta Jeroboamen familiatik au bakarra izango da lurpetua; zeren berau bakarra da Jeroboamen familiatik Jaunak gogo onarekin begiratu diona.
14. Bitartean Jaunak autu du onezkero errege bat Israelentzat, zeñak arras desegingo duen Jeroboamen etxea, gure egunetan, eta bizi geran denboran.
15. Eta Jaun Jainkoak emango diozka otsak Israeli eta jarriko du kañabera bat uretan mugitu oi dan bezela, eta aterako du Israel, bere gurasoi eman zioten lur on onetatikan; eta aizetuko ditu ibaiaren andiko aldamenen, jarri zituztelako idoloak basoetan, aserretu eragiteko Jaunari.
16. Eta utziko du Jaunak Israel Jeroboamen bekatuak gatik, zeñak bekatu egin zuen, eta bekatu eragin zion Israeli.
17. Jaiki zan bada Jeroboamen emaztea, eta joan zan eta allegatu zan Thersara, eta sartzen zala bera etxeko atalburuan, mutilla il zan,
18. Eta obiatu zuten, eta beragatik negar egin zuen Israel guztiak, Jaunak lendanaz adirazi zuen bezela bere serbitzari Ahias profetaren aoz.
19. Jeroboamen gañerako egite guziak berriz, nolako gerrak izan zituen, eta nola erreñatu zuen, guztia arkitzen da eskribatua Israelko erregeen berrietako liburuan.
20. Erreñatu zuen Jeroboamek ogeita bi urtean: eta joan zan atsedetara bere gurasoekin: eta erreñatu zuen bere lekuan bere seme Nadabek.
21. Denbora artan beratan erreñatu zuen Judan, Roboam Salomonen semeak. Berrogeita bat urte zituen Roboamek erreñatzen asi zanean, eta erreñatu zuen amazapzi urtean Jerusalemenean, Jaunak autu zuen erria Israelko tribu guzien artean, egiteko an bere elizkizunak. Bere ama zan Ammontarra, eta zeritzan Naama.
22. Eta Judako tribuak egin zituen gaizkiak Jaunaren aurrean, eta aserretu erazi zioten beren bekatu, asko andiangoakin beren gurasoak egin zituztenak baño beren gaiztakerien erdian.
23. Zeren egin zituen aldareak, eta jainko irudiak, eta izendatu basoak muño eregi guzien gañean, eta zuaitz ostotsu guziaren azpian.
24. Eta izan ere ziraden errian gizon emetu, berriztatu zituztenak, Jaunak Israelen aurrean desegin zituen erri aien gauza nazkagarri guziak.
25. Eta Roboamek erreñatzen zuenetik bosgarren urtean, etorri zan Sesak, Ejiptoko erregea, Jerusalemenera,



26. Eta arrapatu zituen Jaunaren elizako ondasunak, eta erregearen ondasunak, eta atzitu zituen gauza eder guztiak, Salomonek egin zituen urrezko ezkuturanoakoak.

27. Zeñaien lekuan jarri zituen Roboamek kobrezko ezkutua, ipintzen zituela agintari ezkutarien, eta erregearen jauregiko atea zaitzen zutenen kontura.

28. Eta sartzen zanean erregea Jaunaren etxean, eramaten zituzten ezkutu oiek, bere aurretikan joan bear zutenak, eta gero berriz eramaten zituzten ezkutarien armatokira.

29. Roboamen gañerako gauzak, eta egin zuen guzia, dago eskribatua Judako erregeen berrietako liburuan.

30. Eta beti izan zan gerra Roboamen eta Jeroboamen artean.

31. Eta il zan Roboam bere gurasoak bezela, eta izan zan berakin obiatua Dabiden errian. Bere amari zeritzan Naama, zan Ammontarra, eta bere lekuan erreñatu zuen Abiam bere semeak.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Jeroboam Nabathen semeak bada erreñatzen zuenetik emezortzigarren urtean, asi zan erreñatzen Abiam Judan.

2. Iru urtean erreñatu zuen Jerusalem, bere amaren izena zan Maatxa Abessalonen alaba.

3. Ibilli zan bada, bere aitak bera baño lenago egin zituen bekatu guzietatik, etzan ere izan bere biotza toleskabea bere Jaun Jainkoarentzat, bere aitaon Dabiden biotza izandu zan bezela.

4. Baña alaere Dabiden amorioz eman zion bere Jaun Jainkoak zuzi bat Jerusalem, bere lekuan jartzen zala bere seme bat, iraunerazitzeko Jerusalemgo gloriari.

5. Zuzen ibilli zalako Dabid Jaunaren begietan, eta etzan iñoizere zeartu bere bizitzako denbora guzian, agindu ziozkan gauzetatik, salbu Urias hetetarraren gertakaria.

6. Alaere Roboamen bizitzako denbora guzian iraun zuen gerrak, onen eta Roboamen artean.

7. Eta Abiamen gertakari guziak, eta bere egintza guziak, ez al daude eskribatuak Judako erregeen berrietan? izandu ere zan guda izugarri bat Abiamen eta Jeroboamen artean.

8. Eta joan zan Abiam atsedetara bere gurasoakin, eta obiatu zuten Dabiden errian, eta bere seme Asak erreñatu zuen bere lekuan.

9. Jeroboam Israelko erregearen ogeigarren urtean bada, asi zan erreñatzen Asa Judako erregea,

10. Eta erreñatu zuen berrogeita bat urtean Jerusalem. Bere amaren izena zan Maatxa, Abessalonen alaba.

11. Eta egin zuen Asak Jaunaren aurrean ona zana, bere aita Dabidek bezela;

12. Eta kendu zituen lurretik gizaseme emetuak; eta garbitu zuen, bere gurasoak egindako idoloen zikinkeria guztietatik.

13. Eta gañera aurtiki zuen bere aldamenetik bere ama Maaka, etzedin izan Priaporen elizkizutenan lenena, konsagratu zion basoan, eta desegin zuen bere arzuloa, eta zatitu zuen bere irudi txit zikiña, eta erre zuen Zedrongo errekan.

14. Etzituen alaere kendu toki goratueta adoralakuak. Alaere Asaren biotza izandu zan toleskabea Jaungoikoaganako bizitu izan zan denbora guzian.

15. Berebat eraman zituen Jaunaren etxera, bere aitak konsagratu eta botoz eskeñi zituen zillarra, eta urrea eta ontziak.

16. Eta gerra izandu zan Asa, eta Baasa Israelko erregearen artean, biak bizi izan ziraden artean.

17. Igo ere zan Baasa Israelko erregea Judara, eta egin zuen Rama, ezin atera, ez sartu zezakean Asa Judako erregearen aldamenekorik.

18. Orduan Asak arturik Jaunaren etxeko gordairuetan eta erregearen jauregiko gordairuetan gelditu zan zillar eta urre guztia, eman zien guztia bere morroiari, eta bialdu zituen Benadab, Tabremonen seme, eta Hezion Siriako erregearen illoba, Damaskon bizi zana gana, esaten ziola:

19. Badakizu elkartuta gaudela zu eta ni, egon ziran bezela zure aita eta nere aita. Argatik bidaltzen dizkizut doañ oriek, eta eskatzen dizut etorri zaitezela, eta desegin dezazula, Baasa Israelko erregearekin dezun elkartasuna, eta alde dezala nigandik.

20. Oben egiten zuela Benadabek Asa erregearen eskarietara, bidaldu zituen bere martiztiko agintariak Israelko errien kontra, eta artu zituzten Ahion, eta Dan, eta Abeletxe Maaka, eta Zennerothko alderri guztia, au da, Neftaliko lur guztia.

21. Aditu zuenean au Baasak, utzi zion Raama egiteari, eta itzuli zan Thersara.

22. Eta Asa erregeak bidaldu zuen mandatua Juda da guztira, esaten zuela: Ez du zertan iñork aitzakiarik ipiñi. Eta artu zituzten Ramako arriak eta bere zurak, zeñakin egin zuen Baasak, eta berarekin egin zituen Asa erregeak Gabaa Benjamingoa, eta Masfa.

23. Eta Asaren gañerako itz guztiak, eta bere egitate sendo guztiak, eta egin zituen gauza guztiak, eta egin zituen erriak, ez al dago guztia



eskribatua Judako errien berritako liburuan? Alaere bere zartzako denboran oñetako miña iduki zuen.

24. Eta joan zan atsedetara bere gurasoakin, eta obiatua izandu zan berakin, Dabid bere aitaren errian. Eta Josafat bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

25. Asa Judako erregearen bigarren urtean asi zan erreñatzen Israelen Nadab Jeroboamen semea, eta bi urtean erreñatu zuen Israelen gañean.

26. Eta gaizki egin zuen Jaunaren aurrean, eta ibilli zan bere aitaren bideetatik, eta bere bekatuetan, zeñakin bekatu eragin zion Israeli.

27. Eta Baasa Ahiaren seme Issakargo etxeakoak jarri ziozkan zelatadak, eta il zuen Jebbethon Filistintarren errian, Nadab eta Israel guztiak ingurutua zeukatenean Jebbeton.

28. Il zuen bada Baasak, Asa Judako erregearen irugarren urtean, eta erreñatu zuen bere lekuan.

29. Erreñatzen jarri zaneko, desegin zuen Jeroboamen familia guztia, etzuen bizirik utzi bere jatorriko lagun bat bakarra ere, baizik arras desegin zuen, Jaunak lendanaz esan zuen bezela Ahias silontar bere serbitzariaren aoz,

30. Jeroboamek egindako bekatuak gatik, eta Israeli egin erazo ziozkanak gatik, eta idolatriako bekatuagatik, zeñarekin aserretu eragin zion Israelko Jaun Jainkoari.

31. Nadaben gañerako gauzak, eta bere egitate guziak, ez al daude eskribatuak Israelko erregeen urteoroko berrietako liburuan?

32. Izandu zan bada gerra Asa Judako erregearen eta Baasa Israelko erregearen artean, beren egun guztietan.

33. Asa Judako erregearen irugarren urtean asi zan erreñatzen Israel guzian Baasa Ahasen semea, eta erreñatu zuen Thersan ogeitalau urtean.

34. Eta gaizki egin zuen Jaunaren aurrean, eta ibilli zan Jeroboamen bideetatik eta bere bekatuetan, zeñakin bekatu eragin zion Israeli.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoan itz egin zion Jaunak Jehu Bananien semeari, Baasaren kontra, esaten zuela:

2. Esango diozu Baasari: Nik eregi zindudan ezkerreko autsetik egiten zindudala Israel nere erriko agintari, eta zuk jarraitu diozun ezkerreko Jeroboamen bideari, bekatu eragiten diozula Israel nere erriari, aserretu erazitzen ziñidala beren bekatuak gatik.

3. Ona non nik ebakiko ditudan Baasaren ondoreak eta bere etxeo ondoreak; eta egingo det zure etxearekin, egin dedana Jeroboam Nabathen semearenarenakin.

4. Baasaren jatorritik errian iltzen dana, izango da zakurrak jana, eta kanpoan iltzen dana, jango dute zeruko egaztiak.

5. Baasaren gañerako gauzak, eta egin zuen guztia, eta bere gudak, ez al dago guztia eskribatua Israelko erregeen urteoroko berrietako liburuan?

6. Joan zan bada Baasa atsedetera bere gurasoakin, eta izandu zan obiatua Thersan, eta erreñatu zuen bere lekuan bere seme Elak.

7. Baña nola Jehu profeta Ananiren semeak adirazi zuen Jaunaren erabakia Baasaren kontra eta bere etxearen kontra, Jaunaren aurrean egin zituen bekatuak gatik, aserretu eragiten ziola bere eskuen egitateak gatik, onela egiten zala Jeroboamen etxea bezela tratatua izateko diña. Argatik kendu zion berak bizia, au da, Jehu profeta Ananien semeari.

8. Asa Judako erregearen ogeita seigarren urtean, erreñatu zuen Ela, Baasaren semeak Israelen gañean, Thersan bi urtean.

9. Eta jaiki zan bere kontra bere serbitzari Zanbri, zaldidiaren erdiaren agintaria; Ela berriz zegoan Thersan edaten eta moskortuta, Arsa Thersako eraentzallearen etxean.

10. Erorita Zanbri bere gañean aserre andiarekin eta uste gabe, zauritu eta il zuen, Asa Judako erregearen ogeita zazpigarren urtean, eta erreñatu zuen bere lekuan.

11. Jarri zanean agintzen, eta eseri zanean bere tokiaren gañean, desegin zuen Baasaren etxe guztia, eta bere aide guztiak eta adiskideak, zakur bat bederik biziarekin utzi gabe.

12. Eta desegin zuen Zanbrik Baasaren etxe guztia, Jehu profetak Jaunaren izenean Baasari adirazi zion bezela,

13. Baasaren bekatu guztiak gatik, eta Ela bere semearen bekatuak gatik, zeñak bekatu egin zuten, eta bekatu eragin zioten Israeli, aserretu erazitzen ziotela Israelko Jaun Jainkoari beren arrokeriak.

14. Elaren gañerako gauzak eta bere egite guztiak, ez al daude eskribatuak Israelko erregeen urteoroko berrietako liburuan?

15. Asa Judako erregearen ogeita zazpigarren urtean erreñatu zuen Zanbrik zazpi egunean Thersan, Israelko martiztiak zeukala ingurutua Jebbethon Filistintarren erria.

16. Eta aditu zutenean jaiki zala Zanbri, eta il zuela erregea, Israel guztiak artu zuen erregetzat Amri, zeñ garai artan arkitzen zan etzauntzetan Israelko martiztiaren agintari.



17. Joan zan bada Amri eta berarekin Israel guztia Jebbetondikan, eta ingurutu zuten Thersa.

18. Eta ikusirik Zambrik artua izan bear zuela erriak, sartu zan jauregian, eta su emanik, erre zan errege etxe guztiarekin, eta ill zan

19. Egin zituen bere bekatuetan, gaizki bizi zala Jaunaren aurrean, eta jarraitzen ziotela Jeroboamen aztarnai, eta bekatuan, zeñarekin bekatu eragin zion Israeli.

20. Eta Zambriren gañerako egitateak, eta bere jarkiera, eta bere bidegabetasuna, ez al daude oiek eskribatuak Israelko erregeen urteoroko berrien liburuan?

21. Orduan berezitu zan Israelko erria bi zatitan: erriaren erdiak jarraitzen zion Thebni Jinehen semeari erregetzat jartzeko asmoarekin, eta beste erdiak Amriri.

22. Baña indar geiago iduki zuen Amriren alde zegoan jendeak, Thebni Jinehen semearen aldekoak baño, eta Thebni il zan, eta erreñatu zuen Amrik.

23. Asa Judako erregearen ogeita amaika garren urtean erreñatu zuen Amrik Israelen gañean amabi urtean, beretatik sei Thersan.

24. Eta erosi zion Samariako mendia zillarrezko bi talentuan Seme-ri; eta an egin zuen erriari eman zion Samariaren izena, Semer mendia-
ren jabearen izenagatik.

25. Eta gaizki egin zuen Amrik Jaunaren aurrean, eta atzera utzi zituen gaiztakerian bera baño lenagoko guztiak.

26. Eta ibilli zan Jeroboam Nabathen semearen bide guztietatik, eta bere bekatuetatik, zeñakin bekatu eragin zion Israeli; aserretu erazitzen ziola bere Jaun Jainkoari bere arrokeriakin.

27. Amrien gañerako egitateak, eta izan zituen gerrak, ez al dago guztia eskribatua Israelko erregeen urteoroko berrietako liburuan?

28. Eta joan zan Amri atsedetera bere gurasoakin eta izan zan obiatua Samarian, eta Akab bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

29. Asa Judako erregearen ogeita emezortzigarren urtean asi zan erreñatzen Israelen Akab Amrien semea. Eta erreñatu zuen Akab Amrien semeak Israelen gañean, Samarian, ogeita bi urtean.

30. Eta egin zituen Akab Amrien semeak gaizki andiangoak Jaunaren aurrean, bera baño lenago izan ziraden guztiak baño.

31. Etzan ere aspertu ibilliarekin Jeroboam Nabathen semearen bekatuetan, baizik gañera artu zuen emaztetzat Jezabel, Etbaal Sidontarren erregearen alaba, eta emendik etorri zan Baal serbitu eta adoratzera.

32. Eta egin zion aldare bat Baali, Samarian egin zion elizan,

33. Eta ipiñi zuen baso bat. Eta jarraitu zion Akabek bere gaizki egi-teari, aserretu erazitzen ziola Israelko Jaun Jainkoari, bera baño lenagoko Israelko errege guztiak baño geiago.

34. Bere denboran Hiel, berez Betelgoak berriz egin zuen Jeriko, zimenduak jarri zituenean galdu zuen Abiram bere seme lenbisisortua; eta atek jarri zituenean il zan Segub, bere semeetatik atzenekoa, Jaunak lendanaz adirazi zuen bezela Josue, Nunen semearen aoz.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Elias Tesbeko Galaaden bizi zanak berriz, esan zion Akabi: Israelko Jaun Jaungoikoa bizi dan bezela, zeñaen serbitzaria naizan ni, ez da eroriko intzik, ez euririk urte oietan, baizik nik esaten dedanean.

2. Eta itz egin zion Jaunak, esaten ziola:

3. Atera zaite emendikan, eta zuzendu zaite eguzkiaren irteerarontz, eta ezkutatu zaite Karitko errekan, zeñ dagoan Jordanen aurkez.

4. An edango dezu errekatik, eta nik agindu diotet beleai, eraman dezautela jaten ara.

5. Joan zan bada, eta egin zuen Jaunak esan ziona, eta joanik, gelditu zan, Jordanen aurkez dagoan Karithko errekan.

6. Beleak ere eramaten zioten ogia eta aragia goizean, eta berebat ogia eta aragia arratsaldean, eta edaten zuen errekatik.

7. Baña iragorik egun batzuek, agortu zan erreka, zeren etzuen egin euririk lurraren gañean.

8. Itz egin zion bada Jaunak, esaten zuela:

9. Jaiki zaite, eta zoaz Sarepta, Sidongo errira, eta egongo zara an, zeren agindu diot an andre alargun bati, eman dizazula jaten.

10. Jaiki eta joan zan Sareptara, eta allegatu zanean erriko atera agertu zitzaion andre alargun bat egurbiltzen zebillena, eta ots eginda esan zion: Ur piska bat indazu ontzian, edan dezadan.

11. Eta bera zijoala ekartzera, atzetik ots egin zion, esaten zuela: Erregutzen dizut ekar zadazula ogiaren zerra bat zure eskuan.

12. Berak erantzun zuen: Zure Jaun Jainkoa bizi dan bezela diot, ez dedala ogirik, baizik eltze batean, eskuak artu lezakean beste iriñ, eta oliontzian olio apur bat. Ona non emen nabillan egur batzuen billa joateko egostera neretzat eta nere semearentzat jan dezagun, eta il gaitezen.

13. Zeñi Eliasek esan zion: Etzaite ikaratu, baizik zoaz eta egizu esan dezun bezela, baño lenago egin zadazu neri iriñ piska orretatik opiltxo bat, eta ekarri ezazu nigana, eta gero egingo dezu zuretzat eta zure semearentzat.



14. Zeren oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Eltzeko iriña ez da aituko, ez ontziko olioia gutxituko, Jaunak lurraren gañera euria bialtzen duen eguneraño.

15. Joan zan bada emakumea, eta egin zuen Eliasek esan ziona; eta jan zuen Eliasek, emakumeak, eta etxe guztiak. Egun artatik

16. Etzan beñere aitu iriña eltzean, eta etzan ere gutxitu olioia ontzian, Jaunak eskeñi zuen bezela Eliasen aoz.

17. Gertatu zan gero eritzea etxeko andre emakume aren semea, eta eria zan txit andia, alako moduan non, gelditu zan asnasarikan batere gabe.

18. Esan zion bada Eliasi: Zer egin dizut nik, o Jaungoikoaren gizona? Sartu bai al zera nere etxean berritzera nere bekatuen oroipena, eta illerazitzera nere semea?

19. Erantzun zion Eliasek: Zure semea indazu; eta arturik bere altzotik, eraman zuen, bera etzaten zan gelara, eta jarri zuen bere oearen gañean,

20. Eta deadar egin zion Jaunari esaten zuela: Nere Jaun Jainkoa, aii atsekabe andia emango ziñion bada, ni bazkatzen bere egin al guzian ari dan alargun oni bere seme bakarra kenduta?

21. Onen ondoan etzin zan, eta jarri zitzaion gorputz illari gañean iru aldiz, eta deadar egin zion Jaunari esaten ziola: Nere Jaun Jainkoa, erre-gututzen dizut arren itzuli dedilla aur onen anima bere erraietara.

22. Aditu zuen Jaunak Eliasen eskaria, eta aurraren anima berriz sartu zan beragan, eta piztu zan.

23. Eta artu zuen Eliasek aurra, eta eraman zuen bere etzalekutik etxearen beera, eta eman zion bere amari, esaten ziola: Ona non dezun emen bizirik zure semea.

24. Eta esan zion andreak Eliasi: Orain onetan ezagutzen det, Jaungoikoaren gizon bat zerala zu, eta egiaz Jaunaren itza dagoala zure aoan.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Denbora andiaren ondoan itz egin zion Jaunak Eliasi irugarren urtean esaten zuela: Zoaz eta agertu zatzakio Akabi, zeren bialdu nai det euria lurrera.

2. Joan zan bada Elias Akabi agertzera. Bitarte artean gosetea zan txit andia Samarian.

3. Eta Akabek ots egin zion Abdias bere etxeko otseinnagusiari. (Zan bada Abdias Jaungoikoaren txit beldurrekoa.

4. Zeren Jezabelek iltzen zituenean Jaunaren profetak, artu zituen berak eun profeta, eta ezkutatu zituen arzuloetan, berrogeita amar arzulo batean eta berrogeita amar bestean, eta ogi ta urez bazkatu zituen.)

5. Esan zion bada Akabek Abdiasi: Zoaz alderri onetako iturri guzietara, eta ibar guzietara, ikustera arkitzen ote degun belarrik, bizi ditezen zaldiak eta mandoak, il ez ditezen abere guztiak.

6. Eta berezitu zituzten beren artean ibilliko ziraden probinziak. Akab zijoan bide batetik, eta Abdias berezian beste batetik.

7. Zegoala bada Abdias bidean, atera zitzaion bidera Elias, zeñiak ezagutu zuenean, auzpeztu zan bere arpegiaren gañean, eta esan zion: Elias nere Jauna bai al zera zu?

8. Eta erantzun zuen onek: Ni naiz. Zoaz eta esan zaiozu zure nagusiari: Emen da Elias.

9. Erantzun zuen Abdias: Zer bekatu egin det nik, ipintzeko ni zure serbitzaria, Akaben eskuetan, illerazi natzan?

10. Zure Jaun Jainkoa bizi dan bezela diot, ez dagoala jenderik, ez erreñurik, zeñatara ez dituen bialdu nere nagusiak zure billa; eta erantzunik guztiak: Ez dago emen. Berak, ikusirik etziñala agiri, agindu diote banan banan erreñu eta erri guziaz arrapatu zaitzatala.

11. Orain bada, zuk esaten didazu neri: Zoaz, eta esan zaiozu zure nagusiari: Emen da Elias.

12. Eta gertatuko da zugandikan alde egiten dedaneko, Jaunaren espirituak eramango zaitu, nik ez dakidan tokiren batera, eta eman ezkerok nik berria Akabi, etzaituenean arkitzen, kenduko dit neri bizia. Eta zure serbitzaria Jaunaren beldur da gazte denboratik.

13. Ez al dakizu, nere Jauna, nik egin nuena Jezabelek iltzen zituenean Jaunaren profetak; nola ezkutatu nituen profeta oietatik eun, berrogeita amar arzulo batean, eta berrogeita amar beste bestean, ogi eta urez bazkatzen nituela?

14. Eta orain esaten didazu, joan nadilla nere nagusiagana, eta esan dizaiodala: Emen dago Elias, illerazi natzan?

15. Erantzun zuen Eliasek: Ejerzituen Jauna bizi dan bezela, zeñen aurrean nagoan, diot, gaur jarriko naizala bere aurrean.

16. Joan zan bada Abdias Akabi bidera irtetzera, eta eman zion berria. Eta etorri zan Akab Eliasi bidera irtetzera.

17. Eta ikusi zuenean esan zuen: Zu bai al zera, Israel nasia darabilzuna?



18. Eliasek erantzun zuen: Ez det nasi nik Israel; baizik zuk eta zure aitaren etxeak, utzi dituzutelako Jaunaren aginteak, eta jarraitu diezutelako Balaakai.

19. Alaere agindu ezazu orain, bildu dedilla nere aurrean Israel guztia Karmeloko mendian, eta Baalen lareun eta berrogeita amar profetak, eta lareun profeta basoetako, zeñai jaten ematen dien Jezabelek.

20. Bialdu zituen bada Akabek mandatariak ots egitera Israelko seme guztiak, eta bildu zituen profeta guztiak Karmeloko mendian.

21. Orduan Elias alderaturik erri guztiagana, esan zuen: Noizdaño ibilliko zerate errenga bi aldetara? Nere Jainkoa egiazkoa bada, oni zarrakizkio; eta Baal bada, orobat oni jarri zatzakizkio. Erriak berriz etzion erantzun itzikan ere.

22. Eta berriz esan zion Eliasek erriari: Jaunaren profetaetik ni bakarra gelditu naiz, eta Baalek orra lareun da berrogeita amar non dauzkan.

23. Bi idi eman bekizkigute, berak nai dutena artu, zatitu, eta puskak egur gañean su gabe ipiñi bitzate, nik ere bestea artuko det, zatitu, eta puskak egur gañean su gabe ipiñiko ditut.

24. Zuek zuen jainkoai erregutu zaiozute, eta nik erregutuko diot nere Jaungoikoari, eta ofrenda au erretzeko sua bialtzen duena, Jainko egiazkoa izan bedi. Erri guztiak erantzun zuen, esaten zuela: Txit ederki esana da.

25. Esan zien bada Eliasek Baalen profetai: Autu ezazute idi bat, eta egin ezazute lenengo, zeren zuek geiago zerate, eta erregutu zaiezute zuen jainkoai, eta ez ezazute surik ipiñi azpian.

26. Berak, arturik emana izan zitzaioten idia, il zuten, eta aspertu gabe erregututzen zioten Baali goizetik egerdiraño, esaten zutela: Baal entzun zaguzu. Baña etzan aditzen bozik, eta ez zegoan ere nork erantzunik, eta saltoka ari ziradela egin zuten aldarearen gañean, iragotzen ziran aldamen batetik bestera.

27. Eta egerdia eldu zanean, iseka egiten zien Eliasek esaten ziela: Ots egin ezazute deadar andiagorekin, zeren zuen jainko ori noaski dago norbaitekin izketan, edo ostaturen batean, edo bidean dijoa; menturaz lo datza, eta ala esnatu bear da.

28. Berak bada ots andiak egiten zituzten, eta zauritzen ziran, beren elizkizunen erara, ganibita eta eztenakin, odolez bete arteraño.

29. Iragorik berriz eguerdia, eta berak eskariak egiteari jarraitzen ziotela, allegatu zan doña eskeñtzeko denbora, aditu gabetanik bozik bate-

re, ez erantzuerarikan artu gabetanik, eta aditu ere gabetanik erregututzen ari ziradenai.

30. Esan zion orduan Eliasek erri guztiari: Alderatu zaitezte nigana, eta alderaturik beragana erria, berriz egin zuen Jaunaren aldare, arras desegña izan zana.

31. Artu zituen amabi arri Jakoben semeen tribuen zenbataren araura, zeñi itz egin zion Jaunak, esaten zuela: Israel izango da zure izena.

32. Eta arri aiekin egin zuen aldarea Jaunaren izenean, eta egin zuen aldarearen inguruan erreten bat, odia txiki bi bezelakoa,

33. Eta ipiñi zuen egurra, eta zatitu zuen idia, eta jarri zuen egurra gañean.

34. Eta esan zuen: Urez bete itzatzute lau lussul, eta isuri ezazute eskeñtzaren gañean eta egurraren gañean. Eta esan zuen gero: Berriz egin ezazute bigarrenez; eta egin zutenean bigarren aldiz, esan zuen: Egin ezazute au bera irugarren aldiz. Eta egin zuten irugarren aldiz.

35. Eta ura zebillan aldarearen inguruan, eta urez bete zan erretena.

36. Eta doña eskeñtzeko denbora zanean, alderatu zan Elias profeta eta esan zuen: Abraham, Isaak, eta Israelen Jaun Jainkoa, gaur erakutsi ezazu, Israelko Jainkoa zu zerala, eta ni zure serbitzaria, eta zure aginduz egin ditudala gauza guzti oiek.

37. Entzun nazazu, Jauna, entzun nazazu, ikasi dezan erri onek, zu zerala Jaun Jainkoa, eta zuk konbertitu dezula berriz beren biotza.

38. Eta erori zan Jaunaren sua, eta erre zituen doña, eta egurrak, eta arriak, autsa ere, baita erretenean zegoan ura ere.

39. Ikusi zuenean au erri guztiak, auzpeztu zan bere arpegiaren gañean, eta esan zuen: Jauna bera da Jaungoikoa, Jauna bera da Jaungoikoa.

40. Orduan esan zioten Eliasek: Arrapatu itzatzute Baalen profetak, eta beretatik batek ere ez dezala igesik egin. Zeñak arrapatu zituenean, eraman zituen Eliasek Zisongo errekarara, eta an il zituen.

41. Eta esan zion Eliasek Akabi: Zoaz, jan eta edan ezazu, zeren euri andi baten otsa aditzen det.

42. Joan zan Akab jatera eta edatera; Elias berriz igo zan Karmeloren erpiñera, non belaunikaturik lurean, eta jarririk bere arpegia belaurten artean,

43. Esan zion bere morroiari: igo zaitte, eta begiratu ezazu itsasorontz. Igorik bera, eta begiraturik berak, esan zuen: Ez da ezerere agiri. Eta berriz esan zion: itzuli zaitte zazpi alditaraño.



44. Eta zazpigarren aldian ona non odeitxo txiki, gizonaren oñaren aztarna bezelako bat igotzen zan itsasotik. Eta esan zuen: Zoaz, eta esan zaiozu Akabi: Prestatu ezazu zure gurdia, eta zoaz laster, galerazi ez dizazun euriak.

45. Eta zebillala ara ta ona, belztu zan zerua bereala, eta etorri ziraden odeiak eta aizea, eta asi zan erortzen euri andia. Eta igorik Akabek bere gurdira, joan zan Jezrahelera.

46. Orduan Jaunaren eskuak ukitu zion Eliasi, eta soñekoa gerriari lotuta, zijoan korrika Akaben aurrean, Jezrahelera allegatu zan artean.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Akabek kontatu zion Jezabeli Eliasek egin zuen guztia, eta nola il zituen ezpataz profeta guztiak.

2. Eta Jezabelek bialdu zuen mandataria Eliasgana, esaten zuela: Oiek eta besteak egin dagizkidatela jainkoak, biar ordu onetan jartzen ez baldin badet zure anima, beretatiko bakoitzaren anima bezela.

3. Aditurik au beldur izan zan Elias, eta zijoan igesi gogoak ematen edozeñ tokitik. Eta allegatu zanean Judako Bersabeera, utzi zuen an bere morroia.

4. Eta joan zan eremutik egun bateko bidean, eta allegatu zanean ara, eseri zan likabra baten azpian, eta eskatu zion bere animari il zedilla, eta esan zuen: Askot det onezkero Jauna, eraman ezazu nere anima; zeren ez naiz ni nere gurasoak baño obeagoa.

5. Eta etzin zan, eta loak artu zuen likabraren itzalean, eta ona non Jaunaren aingeruak ukitu, eta esan zion: Jaiki zaite, eta jan ezazu.

6. Begiratu zuen atzera, eta ikusi zuen bere buruaren ondoan auts azpian erretako ogi bat, eta pitxar bete ur, jan zuen bada, eta edan zuen, eta beriz loak artu zuen.

7. Baña Jaunaren aingeruak ukitu zion bigarren aldiz, eta esan zion: Jaiki zaite eta jan ezazu, zeren oraindikan bide luzea daukazu ibiltzeko.

8. Jaikirik Elias jan, eta edan zuen, eta sendaturik janari arekin, ibilli zan berrogei egunean eta berrogei gautan, allegatu artean Horeb, Jaungoikoaren mendira.

9. Allegaturik ara bizi izandu zan arzulo batean, eta itz egiten ziola Jaunak, esan zion: Zer egiten dezu or Eliasi?

10. Eta berak erantzun zuen: Zure amorez kiskaltzen nago, o ejerzituen Jaun ta Jainkoa; zeren Israelko semeak utzi dute zure elkertasuna; desegin dituzte zure aldareak; ezpataz il dituzte zure profetak; ni bakarrik gelditu naiz, eta dabilta nere billa bizia kentzeko.

11. Esan zion Jaunak: Atera zaite kanpora, eta jarri zaite mendiaren gañean Jaunaren aurrean; eta ona non iragoko dan Jauna, eta bere aurretik aize andi eta sendo, mendiak nasi, eta aitzak ausitzeko duiñekoa, ez dago Jauna aizean. Aizearen ondoan etorriko da lurrikara bat, lurrikaran ere ez dago Jauna.

12. Lurrikararen ondoan su bat, ez dago Jauna suan, eta suaren ondoan aizetxo gozo, ezti bat.

13. Aditurik au Eliasek, estali zuen arpegia mantu batekin, eta aterarik kanpora, gelditu zan arzuloaren atean, eta ona non aditzen duen boz bat, esaten diona: Zer egiten dezu emen, Eliasi?

14. Zure amorez kiskaltzen nago, erantzun zuen berak, o ejerzituen Jaun Jainkoa, zeren Israelko semeak utzi dute zure elkertasuna, desegin dituzte zure aldareak; ezpataz irago dituzte zure profetak; ni bakarrik gelditu naiz, eta dabilta nere billa bizia kentzeko.

15. Esan zion Jaunak: Zoaz, eta itzuli zaite eremuko lengo bidetik Damaskorontz, eta allegaturik ara, igortziko dezu Hazael Siroako erregetzat,

16. Eta Jehu Namsiren semea igortziko dezu Israelko erregetzat, eta igortziko ere dezu Eliseo, Safathen semea, berez Abelmeulakoa zure ondoko profetatzat.

17. Eta gertatuko da iges egiten duena Hazaelen ezpatatik, Jehuk illa izatea, eta Jehuren ezpatatik iges egiten duena, ilko du Eliseok,

18. Eta utziko ditut neretzat Israelen zazpi milla gizon, zeñaen belaurak ez diran makurtu Baalen aurrean; zeñaetatik batek ere ez duen aduratu, eskuan muñ egiten diola.

19. Joanik bada andik Elias, arkitu zuen Eliseo Safaten semea, arean ari zala amabi uztar idirekin, eta bera zan amabi uztar idirekin areatzen ari ziradenetatik bat, eta allegaturik Elias beragana, bota zion mantua bere gañera.

20. Eliseo bereala utzirik idiak, joan zan korrika Eliasen ondoren, eta esan zion: Utzi zadazu joan nadin laztan bat ematera nere aitari eta nere amari, eta gero jarraituko dizut. Erantzun zion: Zoaz eta itzuli zaite, zeren nik egin det zurekin egin bear nuena.

22. Alde egin zueneko beragandik, artu zuen idi uztarria, il zituen idiak, egosi zituen beren aragiak arearen zurakin, eta eman ziozkan jendeari, jan zezan; eta jaikita joan zan, eta jarraitu zion Eliasi, eta serbitzen zuen.

OGEIGARREN KAPITULUA



1. Gero Benadad Siriako erregea, bildurik bere martizti guztia, bere zaldidi guztia, eta gurdiak, eta berarekin zituela ogeita amabi errege, atera zan gerrara Samariaren kontra, eta ingurutu zuen.

2. Eta bialdu zituen mandatariak errira, esatera Akab Israelko erregeari:

3. Oiek esaten ditu Benadadek: Zure zillarra, eta zure urrea nereak dirade, eta zure emazteak eta zure seme galantak nereak dirade.

4. Eta erantzun zuen Israelko erregeak: Zurea naiz nere errege eta jauna, zuk esaten dezun bezela, eta zureak dirade nere gauza guztiak.

5. Itzulirik berriz mandatariak esan zuten: Oiek esaten ditu Benadad, berriz zugana bialtzen gaituanak: Emango dizkidazu zure zillarra, eta zure urrea, eta zure emazteak, eta zure semeak.

6. Biar, bada, ordu onetan beronetan bialduko ditut zugana nere serbitzariak, zeñak aratuko dituzte zure jauregia, eta zure morroien etxeak, eta artuko dute beren eskuakin gogoak ematen dien guztia, eta eramango dute.

7. Orduan Israelko erregeak ots egin zien bere erriko zar guztiai, eta esan zuen: Begiratu eta ikusi ezazute nola ipiñtzen dizkigun zelatadak, bialdu zidan ezker eskatzera nere emazteak, eta nere semeak, eta urrea eta zillarra, eta ez diot ezetzik esan.

8. Erantzun zioten zar guztiak, eta erri guztiak: Etzaiozu aditu, eta ez ezazu obenikan egin bere eskarietara.

9. Eta ala erantzun zien Benadaden mandatariak: Esan zaiozute errege nere jaunari: Lelengoan eskatu zidan guztia neri zure serbitzari oni, egingo det, baña orain eskatzen didazun au, ezin egin nezake.

10. Itzulirik mandatariak, eraman zioten Benadadi erantzuer a, zeñak bialdu zituen berriz esatera: Jainkoak egin dagidatela ez onik, eta bai gaitz andia, Samariako auts guztia asko izango bada, emanik nere gudariak, bakoitzak esku bete idukiteko.

11. Eta erantzunik Israelko Erregeak, esan zuen: Esan zaiozute, ez dezala iduki irabazitzat garaipena, gudan garaitu gaitzan bitartean.

12. Artu zuenean Benadadek erantzuer a, zegoan edaten bere erregeakin etzauntzetan, eta esan zien bere serbitzariak: Setiatu ezazute erria. Eta setiatu zuten.

13. Eta ona non alderaturik profeta bat Akab Israelko erregeagana, esan zion: Oiek esaten ditu Jaunak: ikusi badezu ongi talde txit andi au? Ona non nik jarriko dedan gaur zure eskuan, jakin dezazun ni naizala Jauna.

14. Eta esan zuen Akabek: Zeñaen bitartez? Eta esan zion profetak: Jaunak dio: Probinzietako prinzipieen oñazko mutillen bitartez. Eta esan zuen Akabek: Nork asiko du guda? Zuk, erantzun zuen profetak.

15. Kontatu zituen bada Akabek prinzipieen oñazko mutillak, eta arkitu zuen zirala berreun eta ogeita amabi. Kontatu zuen gero erria, eta arkitu zituen zazpi milla Israelko semeen artean.

16. Eta atera ziran egerdirontz. Benadad berriz zegoan edaten bere etzauntzean moskortuta, eta berarekin ogeita amabi errege, berari laguntzera etorri ziranak.

17. Atera ziraden bada aurretik probinzietako prinzipieen mutillak. Bialdu zituen Benadadek bidaikusleak, zeñak itzuli ziran esaten zutela: Dira Samariatik atera diraden gizon batzuek.

18. Eta esan zuen Benadadek: Naiz etorri ditezela pakea eskatzera, naiz gudadzera, arrapatu itzatzute bizirik.

19. Atera ziraden bada probinzietako prinzipieen mutillak, eta gañerako martiztiak jarraitzen zien;

20. Eta beretatiko bakoitzak il zuen aurrean jarri zitzaiona; onenbesterekin iges zuten Sirotarrak, eta persegitu zien Israeltarrak. Benadad Siriako erregeak ere iges zuen zaldiz, bere zaldizkoakin.

21. Berebat aterarik Israelko erregea ere, triskatu zituen zaldia eta gurdiak, eta egin zuen galmen andia Sirotarren artean.

22. (Orduan alderaturik profeta bat Israelko erregeagana, esan zion: Zoaz eta sendatu zaite, jakin eta ikusi ezazu zer egiten dezun; zeren datoren urtean itzuliko da zure kontra siriako erregea.)

23. Siriako erregearen serbitzariak esan zioten: Beren jainkoak dira mendietako jainkoak, argatik garaitu gaituzte, ala obekiago da gudan egin dezagula beren kontra ibarretan, eta garaituko ditugu.

24. Zuk berriz artu itzatzu neurri oiek: Kendu itzatzu zure martiztik errege guzti oriek, eta jarri itzatzu berak dauden tokietan agintaririk bulardetsuenak.

25. Il diraden gudarien lekuan beste anbeste berri ipiñi itzatzu, eta zaldidia eta gerrako gurdiak berriz len iduki ziñituen bezela, eta gudaduko gera berakin ibarretan, eta ikusiko dezu nola garaituko ditugun. Sinistu zuen Benadadek beren esana, eta ala egin zuen.

26. Iragorik bada urte bat, ikusi eta zenbatu zituen Benadadek Sirotarrak, eta igo zan Afek-era, Israelen kontra gudadzera.

27. Israelko semeak ere izan ziraden ikusi eta zenbatuak, eta arturik janaria, joan ziraden etsaia bidera irtetzera, eta jarri zituzten etzauntzak



beren aurkez, auntz talde txiki biren gisara; Sirotarrak berriz bete zuten lurra.

28. Eta alderaturik Jaungoikoaren gizon bat, esan zion Israelko erregeari: Oiek esaten ditu Jaunak: Sirotarrak esan dutelako, Jauna mendietako Jaungoikoa da, eta ez da ibarretako Jaungoikoa, argatik beragatik nik jarriko det zure eskuan talde andi guzi ori, eta onela jakingo dezute ni naitzala Jauna.

29. Bitartean martiziti biak egon ziraden aurkez gudarako gertuak zazpi egunean, eta zazpigarren egunean gudatu ziran, eta Israelko semeak il zituzten eun milla Sirotar oñazko egun batean.

30. Bizirik gelditu ziradenak iges egin zuten Afek-ko errira, eta erori zan murrua, gelditu ziran ogeita zazpi milla gizonen gañera. Benadad ere sartu zan igesi errian, eta ezkutatu zan bere jauregiko zoko batean.

31. Eta esan zioten bere morroiak: Guk aditu degu Israelko etxeko erregeak diradela biotz beraak, jantzi gaitezen bada zakuz, jarri ditzagun sokak lepoetan, eta joan gaitezen onela Israelko erregeagana; menturaz utziko digu biziarekin.

32. Jantzi ziran bada zakuz, jartzen zituztela lotuta gerrietan, eta ipiñi zituzten sokak beren lepoetan, eta joan ziraden Israelko erregearen aurre-ra, esaten ziotela: Zure serbitzari Benadadek esaten du: Erregututzen dizut arren utzi zadazula biziarekin. Eta berak erantzun zuen: Oraindikan bizi bada, nere anaia da.

33. Au artu zuten berak lendanaz aditutako berri ontzat; eta bereala eldu zioten itzetik, eta esan zioten: Bai, Benadad zure anaia oraindikan bizi da. Eta berak esan zioten: Zoazte eta ekarri zadazute onara. Joan zan bada bereala Benadad beragana eta Akabek igo erazi zion bere gurdira.

34. Esan zion Benadadek: Nik itzuliko dizkizut, nere aitak zureari kendu ziozkan erriak, eta zuk egingo dituzu plazak Damaskon, nere aitak Samarian egin zituen bezela, eta elkartuta alde egingo det zugandik. Egin zuen bada Akabek berarekin elkartasuna, eta utzi zion joaten.

35. Orduan profeten semeetatik batek esan zion Jaunaren izenean bere lagun bati: Jo nazak. Baña besteak etzuen jo nai.

36. Eta berak esan zion: Ez aukalako nai izan aditu Jaunaren boza, nigandikan alde egiten deikaneko ilko au leoi batek. Eta alde egin zuenean piska bat beragandik, arkitu zuen leoi batek eta il zuen.

37. Arkiturik gero beste gizon bat, esan zion: Jo nazazu, eta onek jo zuen, eta egin zion zauri bat.

38. Joan zan onela profeta, eta irten zitzaion bidera erregeari, itsusiturik autsarekin bere arpegia eta begiak.

39. Eta irago zanean erregea, asi zitzaion deadarrez erregeari esaten ziola: Aurreratu zan zure serbitzaria erasoteko alderagotik etsaiari, eta nola iges egin zuen gizon batek, beste batek ekarri eta esan zidan: Zaitu ezazu gizon ori, iges egiten utziten badiozu, zure biziak erantzungo du bere biziagatik, edo pagatuko didazu zillarrezko talentu bat.

40. Baña nola ni genasia nenbillan aldamen batera eta bestera, bereala iges zuen gizonak. Erantzun zion Israelko erregeak: Zuk zerorrek eman dezu erabakia.

41. Orduan berak garbitu zuen bereala arpegiko autsa, eta ezagutu zuen erregeak zala Israelko profetatik bat.

42. Zeñak esan zion erregeari: Oiek esaten ditu Jaunak: Utzi diozulako iges egiten zure eskuetatik eriotzaren diña zan gizon bati, zure biziak pagatuko du bereagatik, eta zure erriak bere erriagatik.

43. Itzuli zan bada Israelko erregea bere etxera malmetitutu gabe profetak esaten zionari, eta sumintasunez betea sartu zan Samarian.

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Gauza onen buruan jertatu zan denbora artan, Nabot Jezraeltarrak idukitzea Jezrahelen masti bat Samariako errege Akaben jauregiaren aldean.

2. Itz egin zion bada Akabek Naboti esaten ziola: Eman zadazu zure mastia, baratza bat egiteko, dagoalako nere jauregiaren aldean eta urrean, eta bere trukadan emango dizut beste masti obeago bat; edo obekiago baldin baderitzatzu, balio duen dirua.

3. Erantzun zion Nabotek: Jaungoikoari nai ez dakiola ematea nik zuri nere gurasoen soroa.

4. Joan zan Akab bere etxera aserretu eta sumindurik, Nabot Jezraeltarrak eman zion erantzueratik, esaten zuela: Ez dizut nik emango nere gurasoen soroa. Eta etzinik bere oearen gañean, itzuli zuen bere arpegia pareterontz, eta etzuen jan nai ezerere.

5. Sartu zan bera ikustera Jezabel bere emaztea, eta esan zion: Zer da au? Zer dezu triste egoteko? Eta zergatik ez dezu jan nai?

6. Erantzun zion: itz egin diot Nabot Jezraeltarrari, eta esan diot: Eman zadazu zure mastia, arturik dirua; edo nai baldin badezu emango dizut beste masti obeago bat beragatik. Eta berak erantzun diot: Ez dizut emango nere mastia.

7. Orduan esan zion Jezabel bere emazteak: Nonbait eskubide andikoa zera, eta ongi gobernatzen dezu Israelko erreñua. Jaiki zaite, eta jan



ezazu eta zagoz ajolarikan gabe. Nik emango dizut Nabot Jezraeltarraren mastia.

8. Onetarako eskribatu zuen berak txartel bat Akaben izenean, eta jarri zion erregearen sillua, eta bialdu zioten erri artako zar eta andizki, Naboten auzoetakoai.

9. Au zan txartelean esaten zuena: Agindu ezazute, guziak barau egin dezatela, eta eseri erazi zaiozute Naboti erriko andizkien artean;

10. Eta doñakin irabaziko dituzute bi gizon Belialen seme, esango dutenak beraren kontra gezurrezko lekukotasun au: Blasfematu du Jaungoikoaren kontra eta erregearen kontra, gero atera ezazute kanpora, eta arrika egin zaiozute, eta ala il bedi.

11. Erriko zar eta lenen, Naboten auzoetakoak, eta berarekin bizi ziradenak egin zuten osotoro Jezabelek agindu ziena, eta bialdu zioten txartelean eskribatua zegoana.

12. Agindu zuten barau egiteko, eta Naboti eserierazi zioten erriko lenenen artean.

13. Eta ekarririk bi gizon, deabruaren seme, eseri erazi zieten Naboten aurkez, eta berak deabruaren semeen gisara, esan zuten beraren kontra lekukotasuna erriaren aurrean, esaten zutela: Nabotek esan du blasfemia Jaungoikoaren kontra eta erregearen kontra. Argatik atera zuten erri-tik kanpora, eta arrika il zuten.

14. Bialdu zituzten gero esatera Jezabeli: Nabot arrika illa izan da.

15. Jakin zuenean Jezabelek Nabot arrika illa izan zala, esan zion Akabi: Zoaz eta artu ezazu zuretzat Nabot Jezraheltarraren mastia, zeñak etzuen eman nai zuk eskatzen ziñiona, eta saldu diruagatik mastia, zeren ez da bizi Nabot, baizik illa da.

16. Aditu zuenean au Akabek, au da Nabot illa zala, jaiki zan, eta bazijoan Nabot Jezraheltarraren mastira, artzera beretzat.

17. Jaunak berriz itz egin zion Elias Tesbatarrari, esaten zuela:

18. Zoaz, eta atera zatzakio bidera Israelko erregea Akab, Samarian dagoanari, jakin ezazu badijoala Naboten mastira, beretzat artzera,

19. Baña zuk itz egingo diozu onela: Oiek esaten ditu Jaunak: il dezu gizon bat, eta orain zoaz beraren mastia artzera. Eta oien buruan esango dezu: Oiek esaten ditu Jaunak: Txakurrak Naboten odola millizkatu zuten leku berberean, zure odola ere millizkatuko dute.

20. Esan zion Akabek: Zure etsaitzat bai al naukazu? Erantzun zion Eliasek: Bai, zergatik eze saldu zera gaizki dana egiteko Jaunaren aurrean.

21. Ona non nik bidalduko ditudan gaitzak zure gañera, eta desegin-godet zure jatorria, eta ez det utziko Akaben etxean anima bat biziarekin,

ilko ditut txakurrarañoakoak, eta zureak guziak Israelen andienetik txikie-nerañoakoak.

22. Eta jarriko det zure etxea Jeroboam Nabaten semearen etxea bezela, eta Baasa Ahiaren semearen etxea bezela, zeren zuk egin dezuna da, neri aserretu erazitzea, eta bekatuan erorierazi diozu Israeli.

23. Baita Jezabelen gañean ere itz egin du Jaunak esaten duela: Txakurrak jango dute Jezabel Jezrahelko kanpoan.

24. Iltzen baldin bada Akab errian, jango dute txakurrak; iltzen baldin bada kanpoan, iretsiko dute zeruko egaztiak.

25. Etzan bada izan besterik Akab bezelakorik, zeñ saldu zan gaizki egiteko Jaunaren aurrean: zeren bere emazte Jezabelek mugitu zuen,

26. Eta egin zan nazkagarria alako moduan non, zijoan Amorreoak egin zituzten idoloen ondorik, zeñak desegin zituen Jaunak, allegatu zira-denean Israelko semeak.

27. Eta aditu zitueneko Akabek itz oiek, urratu zituen bere soñeko-ak, eta estali zuen bere aragia zilizio batekin, barau egin zuen, eta etzan zan zaku batekin estalita, eta kobillan buruzbeera.

28. Argatik itz egin zion Jaunak Elias Tesbitarrari esaten zuela:

29. Ez dezu ikusi nola humillatu dan Akab nere aurrean? Ala bada, nigatik humillatu dalako, ez diozkat bialduko kastigu aiek bera bizi dan artean; baña bai bialduko ditut bere etxearen gañera bere semearen egu-netan.

OGETA BIGARREN KAPITULUA

1. Irago ziran bada iru urte gerrarik gabe Siria, eta Israelen artean.

2. Baña irugarren urtean jetxi zan Josafat Judako erregea Israelko erregeagana.

3. Eta esan zien Israelko erregeak bere serbitzariari: Ez al dakizute gurea dala Ramot Galaadkoa, eta ez degugula arretarik artzen kentzeko Siriako erregeari?

4. Eta esan zion Josafati: Etorriko zera nerekin gerrara Ramot Galaadkoaren kontra?

5. Erantzun zion Josafatek Israelko erregeari: Gauza bat bata gera biok, eta gauza bat bata dirade zure erria eta nereia, eta zurea da nere zal-didia. Eta esan zion Josafatek Israelko erregeari: Erregutuzten dizut, arren itundu zaitezela Jaunarekin egun onetan, jakin dezagun bere boron-datea.

6. Bildu zituen bada Israelko erregeak profetak, lareun gizon bezela-tsu, eta esan zioten: Joan bear al naiz gerrara Ramot Galaadkoaren kon-



tra, ala egon bear al naiz geldirik? Berak erantzun zuten: Zoaz, eta jarriko du Jaunak zure eskuan.

7. Baña Josafatek esan zuen: Ez al dago emen Jaunaren profetarik, beraren bitartez itundu gaitezen?

8. Erantzun zion Israelko erregeak: Bat gelditu da, zeñaien bitartez itundu gaitzekean Jaunarekin, baña nik iguin det, berri onik beñere ematen ez didalako, baizik gaiztoak, ori da Mikeas, Jemlaren semea. Zeñi Josafatek esan zion: Ez ezazu orrela itz egin, o Errege.

9. Ots egin zion bada Israelko erregeak txikiratu bati, eta esan zion: Zoaz, eta ekarri zadazu laister onara Mikeas Jemlaren semea.

10. Eta Israelko erregea, eta Josafat Judako erregea zeuden eserita bakoitza bere tokian, errege soñekoakin, larrañean Samariako atearen aldean; eta profeta guztiak ari ziraden profetizatzen bien aurrean.

11. Eta Sedezias Kanaanaren semeak eginerazi zituen burnizko adar batzuek, eta esan zuen: Oiek esaten ditu Jaunak: Oiekin aizetuko dezu Siria, beraren aztarnarik ere utzi ez dezazun artean.

12. Eta profeta guztiak berdin profetizatzen zuten, esaten zutela: igo zaite Ramot Galaadkora, zoaz ordu onean, zeren Jaunak jarriko du erregearen eskuetan.

13. Mikeasi ots egitera joan zan mandatariak berriz itz egin zion, esaten zuela: Begira ezazu profeta guztiak ao batez adirazten diozkatela erregeari gertaera onak, izan bedi bada zure izketa beren antzekoa, eta adirazi itzatzu lendanaz gauza onak.

14. Erantzun zion Mikeasek: Jauna bizi dan bezela diot, ez dedala esango beste gauzarik, Jaunak esaten didana baño.

15. Allegatu zan bada erregearen aurrera, zeñak galdetu zion: Mikeas, joan bear algera gerran egitera Ramot Galaadkoaren kontra, ala egongo al gera geldi geldi? Erantzun zion Mikeasek: igo zaite eta zoaz ordu onean, eta jarriko du Jaunak erregearen eskuan.

16. Erantzun zion berriz erregeak: Berriz eta berriz esaten dizut Jaunaren izenean, ez dizadazula beste itzik esan egia baño.

17. Orduan esan zuen berak: Nik ikusi nuen Israel guztia banatua mendietan, ardi artzai gabekoen gisan, eta esan zuen Jaunak: Oiek gidaririk ez dute, itzuli bedi bakoitza pakean bere etxera.

18. Aditzean au Israelko erregeak esan zion Josafati: Ez al nizun esan, beñere ez didala onek berri onik ematen, baizik beti txarrak?

19. Mikeasek berriz gañera esan zuen: Argatik aditu ezazu Jaunaren itza. Ikusi det Jauna eseria bere tokiaren gañean, eta zeruko martizti guztia zegoala bere inguruan ezkerretik eta eskuetik.

20. Eta esan zuen Jaunak: Nork engañatuko du Akab Israelko erregea, joan dedin Ramat Galaadkora eta an il dedin? Eta batak esan zuen bata eta besteak bestea.

21. Eta atera zan leizetik espiritu gaiztoa, eta jarri zan Jaunaren aurrean, esaten zuela: Nik engañatuko det utziten badidazu. Galdetu zion Jaunak: Nola?

22. Eta berak erantzun zuen: Aterako naiz, eta izango naiz espiritu gezurti bat bere profeta guztien aoran. Eta esan zuen Jaunak: Engañatuko dek, eta iritxiko dek nai dekana, oa, eta egin ezak esaten dekana.

23. Begira bada esan zuen Mikeasek, begira Jaunak jarri duela gezuraren espiritua, emen dauden zure profeta guztien aoran; Jaunak berriz dauzka erabakita zure kontra galmenak.

24. Alderatu zan orduan Sedezias, Kanaanaren semea, eta eman zion masallako bat Mikeasi, esaten zuela: Beraz ni utzi al nauk Jaunaren espirituak, eta iri itz egin al dik?

25. Eta esan zuen Mikeasek: Zuk ikusiko dezu egun artan zoazanean igesi zokorik zoko ezkutatzeko.

26. Baña Israelko erregeak esan zuen: Eldu zaiozute Mikeasi, eta egon bedi Amon erriko eraentzallearen, eta Joas Ameleken semearen mendean,

27. Zeñai esango diezute: Oiek esaten ditu erregeak: Sartu ezazute itxian gizon au, eta bazkatu ezazute penazko ogiarekin, eta naigabezko urarekin, itzuli nadin artean garailari.

28. Eta esan zuen Mikeasek: Garaitzarekin itzultzen bazera, Jaunak ez du itz egin nere aoz. Eta gañera esan zuen: Erri guztiak, aditu ezazute.

29. Atera zan bada Israelko erregea gerrara Josafat Judako erregearekin Ramot Galaadkoaren kontra.

30. Eta esan zion Israelko erregeak Josafati: Artu itzatzu zure armak, eta zoaz gudara, zure soñekoakin jantzita. Israelko erregea berriz joan zan gudara bere soñekoak aldatuta.

31. Siriako erregeak berriz agindu zioten ogeita amabi gurdien agintariak, esaten zuela: Etzerate gudaduko txikiren, ez andiren bataren ere kontra, baizik bakarrik Israelko erregearen kontra.

32. Ikusi zutenean bada gurdien agintariak Josafat, uste zuten Israelko erregea zala, eta zuzendurik beragana gudatzen ziran bere kontra. Orduan deadar egin zuen Josafatek.

33. Eta ezagutu zuten gurdien agintariak etzala Israelko erregea, eta utzi zioten.



34. Eta gudari batek gertutu zuen bere uztaia, eta zuzendurik menturara gezia, ustekabean zauritu zuen Israelko erregea urdallaren eta birien bitartean. Argatik erregeak esan zion gurdizaiari: itzuli ezazu zure eskua, eta atera nazazu gudatik, zeren txit zauritua nago.

35. Izan zan bada guda egun artan, eta Israelko erregea zegoan bere gurdian sirotarren kontra, eta il zan arratsaldean, eta zauriaren odola zerion gurdiaren barrena.

36. Eta eguzkia sartu baño lenago jo zuen batek tronpeta martizti guztian, esaten zuela: itzuli zedilla bakoitza bere erri eta etxera.

37. Il zan bada erregea, eta izandu zan eramana Samariara, eta obiatu zuten erregea Samarian.

38. Eta garbitu zituzten bere gurdia, eta zaldien brida ubalak Samariako putzuan; eta txakurrak millizkatu zuten bere odola, Jaunak esan zuen bezela.

39. Akaben gañerako egitateak, eta egin zuen guztia, eta egin zuen marfillezko etxea, eta egin zituen erri guztiak, gauza guzti oiek ez al daude eskribatuak Israelko erregeen urteoroko berrietako liburuan?

40. Joan zan bada Akab atsedetera bere gurasoakin, eta Okozias bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

41. Josafat Asaren semea berriz asi zan erreñatzen Judaren gañean, Akab Israelko erregearen laugarren urtean.

42. Ogeita amabost urte zituen asi zanean erreñatzen, eta erreñatu zuen ogeita bost urtean Jerusalem. Bere amaren izena zan Azuba Salaireren alaba.

43. Eta ibilli zan bere aita Asaren bidetik, eta etzuen andikan alderik egin, eta egin zuen gauza zuzena zana Jaungoikoaren aurrean.

44. Baña etzituen kendu goietako tokiak, bada oraindik erriak eskeñtzen zituen doñak eta inzensoa goietan.

45. Eta bizi izan zan pakean Israelko erregearekin.

46. Josafaten gañerako gauzak, eta bere egiteak, eta gudak, au guzia ez al dago eskribatua Judako erregeen urteoroko berrietako liburuan?

47. Gañera kendu zituen erritik, bere aitaren denboran gelditu ziran emakumetuen kutsuak.

48. Etzegoan orduan erregerik jarrita Idumean.

49. Josafat erregeak egin zuen ontzidi bat, joateko itsasoz Ofirrera, eta ekartzeko andikan urrea, eta ezin joan izan ziran, ondatu ziralako ontziak Asiongaberren.

50. Orduan esan zion Okozias Akaben semeak Josafati: Bijoaz nere serbitzariak zure serbitzariakin ontzietan. Eta etzuen nai izan Josafatek.

51. Eta joan zan Josafat atsedetera bere gurasoakin, eta izan zan obiatu berakin bere aita Dabiden errian. Eta Joram bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

52. Okozias Akazen semea asi zan erreñatzen Israelen gañean Samarian, Josafat Judako erregearen amazapigarren urtean; eta erreñatu zuen Israelen gañean bi urtean.

53. Eta gaizki egin zuen Jaunaren aurrean, eta ibilli zan bere aitaren eta bere amaren bidetik, eta Jeroboam Nabaten semearen bidetik, zeñiak bekatu eragin zion Israeli.

54. Serbitu ere zuen Baal, eta adoratu zuen, eta aserretu eragin zion Israelko Jaun Jainkoari, egiten zuela bere aitak egin zuen gaizki guztia.



ERREGEEN LAUGARREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Akab il ezkeru, jaiki ziran Moabtarrak Israelen kontra.
2. Eta Okozias erori zan, Samarian zeukan gela altu bateko leio bate-tik, eta eritu zan. Eta bialdu zituen mandatari batzuek esaten ziela: Zoaz-te, Galde zaiozute Akarongo jainkori, itundu zaitezte Akarongo jainkoa-rekin, sendatu alko ote naizan gaitz onetatik.
3. Eta Jaunaren aingeruak itz egin zion Elias Tesbearrari, esaten zuela: Jaiki zaite, eta atera zatzakie bidera, Samariako erregearen manda-tariai, eta esango diezu: Ez al dago Jaungoikorik Israelen, joan zaitezen ituntzera Beelzebub Akarongo Jaungoikoarekin?
4. Argatik oiek esaten ditu Jaunak: igo ziñan oetik etzera jaikiko, bai-zik ziertoro ilko zera. Eta Elias joan zan.
5. Eta mandatariak biurtu ziran Okoziasgana. Zeñak esan zien: Zer-gatik biurtu zerate?
6. Eta berak erantzun zien: Gizon batek irten digu bidera, eta esan digu: Zoazte, eta biurtu zaitezte bialdu zaituzten erregeagana, eta esango diozute: Oiek esaten ditu Jaunak: Israelen Jaungoikorik ez dagoalako bial-tzen al dituzu mandatariak, Beelzebub Akarongo Jaungoikoarekin itun-tzera?
7. Eta berak esan zien: Zeñ irudi eta jantzitakoa da bidera irten eta itz oiek esan dizkizuten gizon hura?
8. Eta berak erantzun zuten: Gizon illetsu bat, eta larruzko ubal bat gerrian lotua daramana. Berak erantzun zuen: Elias Tesbearra da.
9. Eta bialdu zuen beragana berrogeita amarren agintaria, bere men-dean zeuden berrogeita amarrakin. Zeñ igo zan beragana: eta arkiturik zegoala eserita mendiaren tontorrean, esan zion: Jaungoikoaren gizona, erregeak agindu du jetxi zaitezela.
10. Eta erantzunik Eliasek esan zion berrogeita amarren agintariari: Ni baldin banaiz Jaungoikoaren gizona, jetxi dedilla sua zerutik, eta iretsi zaitzatela zu, eta zure berrogeita amarrak. Jetxi zan bada sua zerutik, eta iretsi zituen bera, eta berarekin zeuden berrogeita amarrak.
11. Eta berriz bialdu zuen beragana beste berrogeita amarren aginta-ri bat, eta berarekin bere berrogeita amarrak. Zeñak esan zion: Jaungoi-koaren gizona, oiek esaten ditu erregeak: ibilli zaite arin, jetxi zaite:

12. Erantzuten zuela Eliasek esan zuen: Ni baldin banaiz Jaungoiko-aren gizona, jetxi dedilla sua zerutik, eta iretsi zaitzatela zu, eta zure berro-geita amarrak. Jetxi zan bada sua zerutik, eta iretsi zituen bera, eta bere berrogeita amarrak.

13. Irugarren aldiz bialdu zuen berrogeita amarren beste agintari bat, eta berarekin zeuden berrogeita amarrak. Zeñ allegatu zanean, belauni-katu zan Eliasen aurkez, eta erregutu zion, esaten ziola: Jaungoikoaren gizona, utzi zadazu bizirik neri, baita neri laguntzen didaten zure serbi-tzariai ere.

14. Badakit zerutik sua jetxi dala, eta iretsi dituala berrogeita amar gizonen lenbiziko agintari biak, eta bakoitzarekin zeuden berrogeita ama-rrak, baña orain erregutuzten dizut, errukitu zaitezela nerekin.

15. Jaunaren aingeruak berriz itz egin zion Eliasi, esaten zuela: Jatxi zaite berarekin, etzaita beldur izan. Jaiki zan bada, eta jatxi zan, berarekin joateko erregeagana.

16. Zeñi esan zion: Oiek esaten ditu Jaunak: Bialdu ziñituelako man-datariak Beelzebub Akarongo Jaungoikoari galdetzera, ez baldin balitza bezela Israelen Jaungoikorik, zeñari galdetu zintzakiokan, argatik etzera jaikiko etzin ziñan oetik, baizik ziertoro ilko zera.

17. Il zan bada, Eliasek esan zion Jaunaren itzaren araura; eta nola etzuen semerik, erreñatu zuen bere lekuan bere anaia Joramek, beste Joram, Josafaten seme, Judako erregearen bigarren urtean.

18. Okosiasiek egin zituen gañerako gauza guztiak, ez al daude guz-tiak eskribituak Israelko erregeen urteoroko berrien liburuan?

BIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan, Jaunak Elias zerura eraman nai zuenean aize bun-bada batean, zijoazen Elias eta Eliseo Galgalatik.
2. Eta esan zion Eliasek Eliseori: Gelditu zaite emen, zeren Jaunak bialtzen nau Betelera. Zeñi erantzun zion Eliseok: Juramentu egiten dizut Jaunagatik, eta zure biziagatik, etzaitudala utziko. Eta allegatu ziranean Betelera,
3. An zeuden profetasemeak joan ziran Eliseogana, eta esan zioten: Ez al dakizu zuk, nola gaur Jaunak eramango dizun zure nagusia? Bai badakit, erantzun zuen berak, ixillik zaudete.
4. Esan zion berriz Eliasek Eliseori: Gelditu zaite emen, zeren Jau-nak bialtzen nau Jerikoraño. Eta berak erantzun zion: Juramentu egiten dizut Jaunagatik eta zure biziagatik, etzaitudala utziko. Eta allegatu zira-denean Jerikora,



5. Alderatu zitzaizkian Eliseori, an bizi ziraden profetasemeak, eta esan zioten: Ez al dakizu zuk, Jaunak gaur eramango duela zure nagusia? Berak erantzun zuen: Nik ere badakit; ixillik zaudete.

6. Eta Eliasek esan zion: Emen gelditu zaite, zeren Jaunak bialtzen nau Jordaneraño. Erantzun zion Eliseok: Juramentu egiten dizut Jaunagatik, eta zure biziagatik, etzaitudala utziko. Joan ziraden bada biak elkarrekin,

7. Eta jarraitu zieten profeten semeetatik berrogeita amar gizonek, zeñak gelditu ziran urrutian beren aurkez; berak berriz biak gelditu ziran Jordango ertzean.

8. Orduan Eliasek kendu zuen bere kapa, eta tolestatu zuen, eta jo zuen ura, zeñ berezitu zan aldamen batera eta bestera, eta irago ziran biak oiñ leorrez.

9. Eta irago ziradenean, esan zion Eliasek Eliseori: Eskatu zadazu, nik egitea nai dezun guztia, zugandik berezitua izan nadin baño lenago. Eta esan zion Eliseok: Erregututzen dizut, irago ditezela nigana zure bi espirituak.

10. Erantzun zion Eliasek: Gauza gaitza da eskatu dezuna, alaere ikusten banazu zugandik eramana naizanean, idukiko dezu eskatu dezuna, baño baldin ikusten ez banazu, ez dezu idukiko.

11. Eta bazijoazela, eta ibillian elkarrekin izketan ari ziradela, ona non suzko gurdi batek, eta suzko zaldi batzuek berezitu zituen biak, eta Elias irago zan zerura aize bunbada batean.

12. Eliseo zegoan begira, eta deadar egiten zuen: Ene Aita, ene Aita, Israelko gurdi, eta bere itzaia. Eta etzuen berriz ikusi, eta eldu zien bere soñekoai, eta urraturik jarri zituen bi zatitan.

13. Eta jaso zuen Eliasen kapa, erori zitzaiona; eta itzulirik gelditu zan Jordango erriberan,

14. Eta erori zitzaion Eliasen kaparekin, jo zuen ura, eta au etzan berezitu, eta esan zuen: Non da orain ere Eliasen Jaungoikoa? Eta berriz ere jo zuen ura, eta berezitu zan aldamen batera, eta bestera, eta onenbesterekin irago zan Eliseo.

15. Eta ikusirik Jerikotik etorri ziran profetaen seme aurkez zeudenak, esan zuten: Eliasen espiritua gelditu da Eliseoren gañean, eta aterarik bidera agur egin zioten, makurturik lurreraño,

16. Eta esan zioten: Emen zure serbitzarien artean daude berrogeita amar gizon, joan daitezkenak zure nagusiaren billa, Jaunaren spirituak eramana izanda, arkitu ez dedin aurtikia mendiren batean, edo ibarren batean. Berak esan zien: Ez itzatzute bialdu.

17. Eta leiatu ziran berarekin, aliketa beren esanera etorrierazi zioten artean, eta esan zuen: Bialdu itzatzute. Eta bialdu zituzten berrogeita amar gizon, zeñak ibillirik beraren billa iru egunean, etzuten arkitu.

18. Eta itzuli ziran beragana, eta bera bizi zan Jerikon, eta esan zien: Ez al nizuten nik esan, ez bialtzeko?

19. Esan ere zioten Eliseori erriko gizonak: Erri au toki txit onean dago, zuk, Jauna, ongi ezagutzen dezun bezela, baño urak dirade txit gaiztoak, eta lurra elkorra.

20. Eta berak esan zuen: Ekarri zadazute ontzi berri bat, eta bota ezazute bertara gatza. Eta ekarri zitzaiotenean,

21. Joan zan uren jatorrira, eta bota zuen bertan gatza, eta esan zuen: Oiek esaten ditu Jaunak: Sendatu nituen ur oiek, eta emendik aurrera ez da beñere izango beretan eriotzarik, ez elkortasunik.

22. Sendatu ziran bada urak, eta ala diraute gaurko eguneraño, Eliseoren itzaren araura.

23. Eta andik irago zan Betelera, eta bidetik igotzen zala, atera ziran erritik mutil zatar batzuek, eta iseka egiten zioten, esaten zutela: irago adi, buru zuria, irago adi, buru zuria.

24. Berak itzulirik berakganontz, begiratu zien, eta madarikatu zituen Jaunaren izenean: eta atera ziran bi artz basotik, eta triskatu zituzten mutil aietatik berrogeita bi.

25. Eta andik joan zan Karmeloko mendira, eta andik itzuli zan Samariara.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta Joram Akaben semeak erreñatu zuen Israelen gañean, Samarian, Josafat Judako erregearen emezortzigarren urtean. Eta erreñatu zuen amabi urtean.

2. Eta gaizkia egin zuen Jaunaren aurrean, baño ez bere aitak, eta amak bezela, zeren kendu zituen bere aitak egindako Baalen irudiak.

3. Alaere sartu zan Jeroboam Nabaten semearen, Israeli pekatu eragin zionaren, pekatuen lokatzen, eta etzuen alderik egin beretatik.

4. Eta Mesa Moabko erregeak azitzen zuen abere asko, eta pagatzen ziozkan Israelko erregeari eun milla arkume, eta eun milla ari beren larru, eta illeakin.

5. Eta Akab il zanean, autsi zuen Israelko erregearekin zeukan elkartasuna.

6. Argatik Joram erregea irten zan egun artan Samariatik, eta Israel guztia zenbatu, eta aztertu zuen.



7. Eta bialdu zituen esatera Josafat Judako erregeari: Moabko erregeak alde egin du nigandik, atoz nerekin beraren kontra gudatzera. Berak erantzun zuen: igoko naiz, nereana dana zurea da, nere erria zure erria da, eta nere zaldiak zure zaldiak dira.

8. Eta gañera esan zuen: Zeñ bidetatik joango gera? Eta berak erantzun zuen: Idumeako eremutik.

9. Joan ziran bada Israelko erregea, eta Judako erregea, eta Edomgo erregea, eta ibilli ziran ingurumai zazpi eguneko bide batetik, eta etzegin an urik, ez ejerzituarentzat, eta ez ondoren zeramazkiten abereentzat.

10. Eta esan zuen Israelko erregeak: Ai, ai, ai, bildu gaitu Jaunak iru errege, jartzeko Moabtarren eskuetan.

11. Eta esan zuen Josafatek: Ote da emen Jaunaren profetarik, bere bitartez erregutu dizaiogun Jaunari? Eta Israelko erregearen morroietatik batek erantzun zuen: Emen dago Eliseo Safaten seme, Eliasi eskuak garbitzeko ura ematen ziona.

12. Esan zuen Josafatek: Jaunak bere aoz itz egiten du. Joan ziran bada bere billa Israelko erregea, eta Josafat Judako erregea, eta Idumeako erregea.

13. Eta esan zion Eliseok Israelko erregeari: Zer digu zuri eta niri? Zoaz zure aitaren, eta zure amaren profetetara. Eta esan zion Israelko erregeak: Zergatik bildu gaitu Jaunak iru errege oiek, jartzeko Moabtarren eskuetan?

14. Eta esan zion Eliseok: Bizi dan bezela ejerzitzen Jauna, zeñaen aurrean nagoan, diot, ez baldin balitza Josafat Judako erregearen begirunea gatik, ez nizula adituko, ezta begiratuko ere.

15. Baña orain ekarri ezazute onara arpa jotzalle bat. Eta arpa jotzallea kantatzen ari zala, jaunak jarri zuen eskua bere gañean, eta esan zuen:

16. Oiek esaten ditu Jaunak: Erreka onetan erreten zulo batzuek egin itzatzute.

17. Zeren oiek esaten ditu Jaunak: Aizerik, ez euririk ez dezute ikusiko, eta alaere erreka au urez beteko da, eta edango dezute zuek, eta zuen familiak, eta zuen abereak.

18. Eta oraindik gutxi da au Jaunaren begietan; zeren gañera jarriko ere du Moab zuen eskuetan.

19. Eta desegingo dituzute erri murrutu guztiak, eta erririk andienak, eta ebakiko dezute frutadun zuaitz guztia, eta zarratuko dituzute uren jatorri guztiak, eta arriz beteko dituzute kanporik ugarien guztiak.

20. Gertatu zan bada goizean, doña eskeñi oi danean, ona non urak zetozen Edomgo bidetik, eta lurra urez bete zan.

21. Moabtar guztiak berriz aditurik errege aiek igo zirala beren kontra gudatzera, ots egin zieten gerrarako gai ziran gizon guztiai, eta etorri ziran mugetara aiei itxedotzera.

22. Eta jaikitzen ziradela goizean goiz, eguzkiaren argi errañuak uren gañean distiatzen zutenean, iruditu zitzaiezten oiei gorriak, odola bezela.

23. Eta esan zuten: Gudako odola da, noski erregeak bata bestearen kontra gudatu dira, eta elkar il dute. Orain Moab zoaz beren ondasunen billa.

24. Eta aurreratu ziran Israelko etzauntzetarontz, baña jaikitzen ziradela Israeltarrak, eraso zieten Moabtarrai, eta iges eragin zieten. Eta garai-lariak joan ziraden beren ondoren, eta desegin zituzten Moabtarrek,

25. Desegin zituzten beren erriak, bakoitzak botatzen zituen arriakin bete zituzten kanporik ugarienak, itxi zituzten uren jatorri guztiak, eta ebaki zituzten zuaitz frutadun guztiak, alako moduan non bakarrik gelditu ziran adrilluzko murrak; erria berriz izan zan aballariak ingurutua, eta geiena desegina.

26. Ikusirik bada Moabko erregeak, etsaiak geiago egiten ziotela, artu zituen berarekin zazpireun gizon sendo ezpatak eskuetan zeramazkitenak, eraso zion Edomgo erregeari aurrera iragotzeko gogoarekin; eta ezin zuten.

27. Eta arrapaturik bere seme lenbizisortu, bere lekuan erreñatuko zuena, eskeñi zuen ilda doñaen murraren gañean, eta Israeltarrak gauza onekin txit aserretu ziran, eta bereala alde egin zuten beragandik, eta itzuli ziran bakoitza bere etxera.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Profetatik baten emazteak bada deadar egiten zion Eliseori, esaten zuela: Zure serbitzari nere senarra il da, eta zuk badakizu nola zure serbitzaria zan Jaunaren beldurrekoa: eta ona non artzeko daukana datorren nere bi semeak eramatera, eta bere mendeko egitera.

2. Esan zion Eliseok: Zer nai dezu egin dizazudan? Esan zadazu, zer daukazu zure etxean? Eta berak erantzun zuen: Nik zure serbitzari onek, ez det ezertxo ere nere etxean, baizik olioaren piskatxo bat ni igortzitzeko.

3. Berak esan zion: Zoaz, eskatu zaiezu zure auzoetako guztiai, atzera biurtzeko, ontzi uts ez gutxi.

4. Eta sartu zaitte, eta itxi egizu zure atea, barrenen zaudetenean zu, eta zure semeak, eta olio artatik bota ezazu ontzi guzti oietan; eta beteak daudenean, jarriko dituzu berezian.



5. Joan zan bada andrea, eta sarturik bera eta bere semeak, itxi zuen atea, eramaten zizkieten oiek ontziak, eta berak betetzen zituen.
6. Eta ontziak beteak zeudenean, esan zion bere semeari: Ekarriz zadazu beste ontzi bat ere. Eta berak erantzun zuen: Ez daukat. Eta gelditu zan olioia.
7. Joan zan bereala bera eta adirazi zion Jaungoikoaren gizonari. Eta berak esan zion: Zoaz, saldu ezazu olioia, eta pagatu zaiozu zure artzeko-dunari; zu berriz, eta zure semeak bizi zaitezte gañerakoarekin.
8. Iragotzen zan egun batean Eliseo Sunamdik, eta bazan bertan andre andizki bat, zeñak geldituerazi zion bazkaltzeko, eta nola andik sarritan iragotzen zan, gelditu oi zan ostatuz etxe artan ogia jateko.
9. Eta esan zion andreak bere senarrari: ikusita daukat gizon au maiz iragotzen dala gure etxetik, Jaungoikoaren gizon santu bat da.
10. Egin dizaiogun bada gelatxo bat, eta jarri ditzazkiogun bertan oe bat, eta silla bat, eta kandelero bat, gurera datorrenean, an egon dedin.
11. Gertatu zan bada egun batean, eta gelditu zan ostatuz gela artan, eta an atsedan zuen.
12. Eta esan zion bere morroi Jieziri: Ots egin zaiozu Sunamitis andre orri. Ots egin zionean Jiezik, eta bera jarri zanean Eliseoren aurrean,
13. Esan zion bere morroiari: Esan zaiozu, zuk txit ongi artu gaituzu gauza guztietan, zer nai dezu egin dizazudan? Bai al daukazu gauzaren bat, zeñagatik nik itz egin dizaiokedan erregeari, edo ejerzituaren agintariari? Berak erantzun zuen: Ongi bizi naiz ni nire erriaren erdian.
14. Eta esan zuen: Zer nai ote du bada beragatik egitea? Eta erantzun zuen Jiezik: Ez zaiozu galdetu, ez du berak semerik, eta bere senarra zarra da.
15. Agindu zion bada otsegiteko; eta ots egiñik, eta jarririk andrea atean,
16. Esan zion: Denbora onetan, eta ordu onetanxe, Jaungoikoak bizia ematen baldin badizu, idukiko dezu seme bat zure erraieran. Berak erantzun zuen: Erregututzen dizut, ene Jauna, Jaungoikoaren gizona, ez dizaiozula arren, ez dizaiozula arren esan gezurrik zure serbitzariari.
17. Eta sortu zan andreagan, eta egin zuen seme bat, Eliseok esan zion denbora artan beratan, ordu artan beratan.
18. Eta aurra azi zan. Eta aterarik egun batean joateko bere aita, igi-tariakin zegoanagana,
19. Esan zion bere aitari: Buruan min det, buruan min det. Eta berak esan zion morroi bati: Artu ezak, eta eraman zaiok bere amari.

20. Eta arturik berak, eta eramanik bere amari, iduki zuen onek bere belaunen gañean egerdiraño, eta il zan.
21. Bera berriz igo zan, eta jarri zuen Jaungoikoaren gizonaren oearren gañean, eta atea itxi zuen, eta aterarik kanpora,
22. Ots egin zion bere senarrari, eta esan zion: Erregututzen dizut, arren bialdu ditzazula nerekin morroietatikoren bat, eta asto bat, bada joango naiz korrika Jaungoikoaren gizonagana, eta itzuliko naiz.
23. Berak esan zion: Zergatik joan nai zera beragana? Gaur ez da Kalenden eguna, ez larunbata. Berak erantzun zuen: joango naiz.
24. Gertutuerazi zuen bada astoa, eta esan zion morroiari: Goazen, eta arin ibilli zaite, eta ez zadazu geldituerazi bidean: eta egin ezazu agintzen dizudan au.
25. Joan zan bada, eta allegatu zan Jaungoikoaren gizonagana Karmeloko mendian, eta ikusi zuenean Jaungoikoaren gizonak, zetorrela bere billa, esan zion Jiezi bere morroiari: Ona Sunamitis hura.
26. Zoaz bada berari bidera irtetzera, eta esan zaiozu: Ongi bai al zaudete zu, eta zure senarra, eta zure semea? Berak erantzun zuen: ongi.
27. Eta etorri zanean Jaungoikoaren gizonagana mendira, eldu zion bere oñetatik, eta etorri zan Jiezi aldeeragitera. Eta Jaungoikoaren gizonak esan zion: Utzi zaiozu, zeren bere anima samintasunean arkitzen da, eta Jaunak ezkutatu dit, eta ez dit agertu.
28. Berak erantzun zion: Nik eskatu al nizun semerik zuri, ene Jauna? Ez al nizun nik esan, ez zenkidala isekarik egin?
29. Eta berak esan zion Jieziri: Lotu itzatzu magalak gerrian, artu ezazu nere makilla zure eskuan, eta zoaz. Norbaitek arkitzen bazaitu, ez zaiozu agurrik egin, eta baldin iñork agur egiten badizu, ez zaiozu erantzun, eta jarriko dezu nere makilla aurraren arpegiaren gañean.
30. Baña aurraren amak esan zuen: Jaunagatik, eta zure animagatik juramentu egiten dizut, ez naizala joango zu gabe. Onenbesterekin jarri zan bera bidean, eta andreak jarraitzen zion.
31. Jiezi berriz joan zan beren aurretik, eta jarri zuen makilla aurraren arpegiaren gañean, zeñak etzuen itzik egiten, ez ezerere sentitzen, eta itzuli zan Eliseoren billa, eta eman zion gaztigua, esaten zuela: Ez da biztu aurra.
32. Sartu zan bada Eliseo etxean, eta ona non aur illa zetzan bere oean.
33. Sartu zanean, gelditu zan barrenen aurrarekin atea itxita, eta erre-gutu zion Jaunari.



34. Igo zan gero, eta etzin zan aurraren gañean, jartzen zuela bere aoa aren aoaren gañean, eta bere begiak aren begien gañean, eta bere eskuak aren eskuen gañean, eta txuspildu zan bere gañean, eta berotu zan aurraren aragia.

35. Eta bera itzulirik, ibilli zan etxean, bein arontz ta onontz; eta igo zan berriz, eta etzin zan aurraren gañean. Orduan aurrak arrauzi egin zuen zazpi alditan, eta idiki zituen begiak.

36. Eta berak deitu zion Jieziri, eta esan zion: Deitu zaiozu Sunamitis oni. Eta bera izanik deitua, etorri zan, eta sartu zan Eliseogana, zeñak esan zion: Ar zazu zure semea.

37. Eta etorri zan bera, eta erori zan bere oñetan, eta agur egin zion auzpezturik lurtean; eta artu zuen bere semea, eta irten zan,

38. Eta Eliseo biurtu zan Galgalara. Zan denbora artan gosetea lurtean, eta profeten semeak bizi ziran berarekin, eta esan zion bere serbitzarietatik bati: ipiñi ezazu eltze andi bat, eta egosi ezazu baratzalda bat profeten semeentzat.

39. Eta atera zan bat kanpora baso belarrak biltzera, eta arkitu zuen baso aiena bezelako bat, eta artu zituen beragandik kanpoko pillamiñak, eta bete zuen bere kapa, eta itzulirik, txikitu zituen baratzalda eltzerako, baña etziokian zer gauza zan.

40. Eman ziozkaten bada beretatik lagunai, jan zitzaten: eta dastaturik egosi hura, deadar egin zuten, esaten zutela: Eriotzea eltzean Jaungoikoaren gizona. Eta ezin jan izan zuten.

41. Baña berak esan zuen: Ekarri zadazute iriña. Eta ekarririk, eta eramanik berari, sartu zuen eltzean, eta esan zuen: Eman zaiozute jendeari, jan dezan. Eta etzan samintasunik geiago eltzean.

42. Allegatu ere zan Baalsalisako gizon bat, zekarzkiona Jaungoikoaren gizonari lenbizietako ogi batzuek, eta gari berria bere zakutoan. Eta berak esan zuen: Eman zaiozu jendeari jan dezan.

43. Eta erantzun zion serbitzen zuenak: Zer da au guztia, eun gizonen aurrean jartzeko? Berriz berak esan zuen: Eman zaiozu erriari, jan dezan, zeren oiek esaten ditu Jaunak: Jango dute, eta sobratuko da.

44. Jarri zuen bada beren aurrean, eta jan zuten guztiak, eta sobratu zan, Jaunaren itzaren araura.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Naaman Siriako erregearen ejerzituko agintari nagusia, zan bere jaunak txit onratu eta estimatua: zeren bere bitartez salbatu zuen Jaunak Siria: eta zan gizon sendo, eta aberatsa; baña legenartia.

2. Siriatic berriz atera ziran gerrari arin talde batzuek, eta katibu eraman zuten Israelko lurretik neskatxtxo bat, zeñak serbitzen zuen Naamanen emaztea.

3. Zeñak esan zion bere etxeko andreari: Arren bada joan izan baltza nere nagusia, Samarian dagoan profetagana, ziertoro sendatuko zuen daukan lepratik.

4. Aditurik au Naamanek, sartu zan ikustera bere nagusia, eta adirazi zion, esaten zuela: Onela, eta onela itz egin du Israelko erriko neskatx batek.

5. Eta Siriako erregeak esan zion: Zoaz, eta bialduko diot txartel bat Israelko erregeari. Irten zan bada zeramazkiela berarekin amar talentu zillarrezko, sei milla diru urrezko, eta amar soñeko jantzi aldi.

6. Eta eraman zion Israelko erregeari txartel bat, itz oiek zituena: Artzen dezunean txartel au, jakingo dezu, bialdu dizudala Naaman nere serbitzaria, sendatu dezazun bere legenartik.

7. Eta Israelko erregeak leitu zuenean txartela, urratu zituen bere soñekoak, eta esan zuen: Ni bai al naiz Jaungoikoren bat, bizia kendu, eta eman al nezakeana, onek bialdu dezadan esatera, sendatu dezadala gizon au bere legenartik? Oartu zaitezte, eta ezagutu ezazute aitzakia billa dabilela nere kontra.

8. Aditurik au Eliseo Jainkoaren gizonak, au da, Israelko erregeak urratu zituela bere soñekoak, bialdu zuen mandatari bat beragana, esaten zuela: Zergatik urratu dituzu zure soñekoak? Betor nigana, eta jakin beza, badala profeta Israelen.

9. Allegatu zan bada Naaman bere zaldi, eta gurdiakin, eta gelditu zan Eliseoren etxeko atarian.

10. Eta bialdu zuen Eliseok beragana mandatari bat, esatera: Zoaz, eta garbitu zaite zazpi aldiz Jordanen, eta zure aragia geldituko da sendatua, eta zu izango zera garbitua.

11. Aserreturik Naaman, bazijoan, esaten zuela: Uste nuen irtengo zuela nigana, eta jarririk zutik, erregutuko ziola bere Jaun Jainkoari, eta ukituko ziola bere eskuarekin legenarraren tokiari, eta sendatuko ninduela.

12. Zer bada, ez al dirade obeak Abana eta Farfar Damaskoko ibaiak, Israelko ur guztiak baño, beretan garbitua, eta sendatua izateko? Biurtu zanean bada, eta aserretua zijoala,

13. Alderatu ziran beragana bere serbitzariak, eta esan zioten: Aita, gauza gaitz bat profetak agindu balizu ere, ziertoro egin bearko zenduen;



zenbat geiago bada, orain esan dizunean: Garbitu zaitte, eta sendatua izango zera?

14. Joan zan bada, eta garbitu zan zazpi aldiz Jordanen, Jaungoikoaren gizonaren aginduaren araura, eta bere aragia biurtu zan, aur txiki baten aragia bezelakoa, eta sendatua izan zan.

15. Eta itzulirik bere lagun guztiakin Jaungoikoaren gizonagana, joan zan, eta jarri zan bere aurrean, eta esan zuen: Egiaz dakit, ez dala beste Jaungoikorik mundu guztian, baizik bakarrik Israelkoa. Erregututzen dizut bada, artu dezazula zure serbitzariaren doan au.

16. Eta berak erantzun zuen: Bizi dan bezela Jaungoikoa zeñaen aurrean nagoan, ez det artuko. Eta leiatzen bazaitzaion ere, etzion oben egin.

17. Eta esan zuen Naamanek: Nai dezun bezela, baña erregututzen dizut, arren utzi zadazula niri zure serbitzari oni, artzen, bi mandok eramai oi duten adiña lur, zeren onezkero zure serbitzariak ez die berriz egingo eskeñtzarik, ez doañik, jainko arrotzai baizik Jaunari.

18. Baña gauza bat bakarra dago, zeñagatik erregutuko diozun Jaunari zure serbitzariaren alde, eta da, sartzen danean nere nagusia Remmonen elizan bera adoratzera, nere eskuari elduta, nik adoratzan badet Remmonen elizan, berak adoratzan duen artean toki artan beratan, Jaunak barkatu dagoia au niri zure serbitzariari.

19. Erantzun zion Eliseok: Zoaz ordu onean. Joan zan bada Naaman; eta zan orduan urteko sazoerik ederrena.

20. Eta esan zuen Jiezi Jaungoikoaren gizonaren serbitzariak: Gizon txit prestua bezela ibilli da nere nagusia Naaman Siroar onekin, ez artzeko berari ekarri zituenak: Jaungoikoa bizi dan bezela joango naiz korrika bere ondoren, eta artuko diot zerbait.

21. Eta Jiezik jarraitu zion ostetik Naamani, zeñ ikusi zuenean ark, zijoala korrika beragana, salto egin zuen gurditik, irten zitzaion bidera eta esan zion: Guztia ongi bai al dijoa?

22. Eta berak esan zuen: Ongi; nere nagusiak bialdu nau zugana, esaten duela: Orañtxe etorri dira nigana Efraimgo menditik profeten semeetatiko bi mutil gazte, eman zaiezu zillarrezko talentu bat, eta biña soñeko jantzi aldi.

23. Eta esan zuen Naamanek: Obe da artu ditzazula bi talentu. Eta artuerazi ziozkan, eta lotu zituen bi zakutan zillarrezko bi talentuak, eta soñeko jantzi aldi biak, eta jarri bere bi morroien bizkarren gañean, zeñak eramai zituzten bere aurretik.

24. Allegatu zanean illunabarrean, artu zituen beren eskuetatik, eta gorde zituen bere etxean, eta bialdu zituen gizonak, zeñak joan ziran.

25. Sartu zan gero, eta jarri zan bere Jaunaren aurrean. Eta esan zuen Eliseok: Jiezi, nondik zatoz? Zeñak erantzun zuen: Zure serbitzaria ez da iñora ere joan.

26. Eta esan zuen Eliseok: Zer bada, ez al nengoan ni an espirituz, itzuli zanean gizon hura bere gurditik zuri bidera irtetzeko? Orain bada artu dezu zillarra, eta artu dituzu soñekoak, erositzeko olibadiak, eta mas-tiak, eta ardiak; eta idiak, eta morroiak, eta neskameak?

27. Baita Naamanen legendarra ere itsatsiko zatzu zuri eta zure jatorriari betiko. Eta atera zan beragandik elurra bezelako legendarrez betea.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta profeten semeak esan zioten Eliseori: Ongi dakutsu zurekin bizi geran tokia estua dala guretzat.

2. Goazen Jordaneraño, eta artu bitza gutariko bakoitzak basoko zurak, egiteko an biziteko toki bat. Erantzun zuen Eliseok: Zoazte.

3. Eta beretatik batek esan zuen: Atoz zu ere zure serbitzariakin. Erantzun zuen: Joango naiz.

4. Eta joan zan berakin. Eta allegaturik Jordanera, ari ziran zurak ebakitzen.

5. Eta gertatu zan, ari zala bat, zuaitez bat ebakitzen, erori zitzaion uretara aizkoraren burnia; eta deadar egin zuen esaten zuela: Ai, ai, ai, ene Jauna, aizkora au prestatua nuan!

6. Eta Jaungoikoaren gizonak esan zuen: Non erori da? Eta berak erakutsi zion tokia. Ebaki zuen bada Eliseok aga bat, eta bota zuen ara, eta burnia irten zan igerian.

7. Eta esan zion: artu ezazu, eta luzetu zuen eskua, eta artu zuen.

8. Siriako erregea berriz gerran ari zan Israelen kontra, eta iduki zuen konsejua bere serbitzariakin, esaten zuela: Toki onetan eta bestean jarri ditzaiozkagun zelatadak.

9. Jaungoikoaren gizonak berriz bialdu zuen esatera Israelko erregeari, esaten zuela: Kontu, etzaitzela irago toki artatik; zeren Siroarrak daude an zelatan.

10. Argatik Israelko erregeak bialdu zuen jendea, Jaungoikoaren gizonak adirazi zion toki artara, eta lendanaz artu zuen, eta an libratu zan irriskutik sarritan.



11. Eta gertakari onekin genastu zan Siriako erregearen biotza, eta bildurik bere serbitzariak, esan zuen: Zergatik ez didazute adirazten, zeñ dan nere saltzalea Israelko erregeagan?

12. Eta bere serbitzarietatik batek esan zuen: Ez dago orrelakorikan batere, nere errege eta jauna; baizik Israelen dagoan profeta Eliseok, adirazten diozka Israelko erregeari, zure batzarrean esaten dituzun itz guzti guztiak.

13. Eta esan zien: Zoazte, eta jakin ezazute non dagoan, bialdu ditzadan nik, bera arrapatzera. Eta adirazi zioten, esaten zuela: Dotanen dago.

14. Bialdu zituen bada ara zaldiak, eta gurdiak, eta bere ejerzituko soldadurik onenak, zeñak allegaturik gauaz, ingurutu zuten erria.

15. Eta egunsentian, jaiki zanean Jaungoikoaren gizonaren morroia, eta atera zanean kanpora, ikusi zuen ejerzitua erriaren inguruan zaldi eta gerragurdiakin, eta adirazi zion bere nagusiari, esaten zuela: Ai, ai, ai, nere Jauna, zer egingo degu?

16. Baña berak erantzun zuen: Etzaitze beldur izan; zeren geiago dira gurekin daudenak, aiekin baño.

17. Eta Eliseok otoiz egin ezkerok, esan zuen: Jauna, idiki itzatzu onen begiak, ikusi dezan. Eta Jaunak idiki zituen morroiaren begiak, eta begiratu zuen, eta ikusi zuen mendia zaldiz, eta suzko gurdiz beterik, zeñak ingurutzen zuten Eliseo.

18. Etsaiak berriz jetxi ziran beragana, eta Eliseok otoiz egin zion Jaunari, esaten zuela: Erregututzen dizut, arren itsutu dezazula jende au. Eta Jaunak itsutu zituen ez zezaten ikusi, Eliseoren eskariaren araura.

19. Eta Eliseok esan zien: Ez da au bidea, ezta ere au erria, jarraitu zadazute niri, eta erakutsiko dizutet, billatzen dezuten gizona. Eta eraman zituen Samariara.

20. Eta sartu ziranean Samarian, esan zuen Eliseok: Jauna, idiki itzatzu oien begiak, ikusi dezaten. Eta Jaunak idiki ziezten begiak, eta ikusi zuten zeudela Samariaren erdian.

21. Ikusi zitueneko Israelko erregeak, esan zion Eliseori: Ene aita, illeraziko ote ditut?

22. Baña berak erantzun zuen: Ez diezu bizia kenduko, zeren etziñituen arrapatu zure ezpata eta uztaiarekin, bizia kendu al izateko, baizik jarri ezazu beren aurrean ogia, eta ura, jan eta edan dezaten, eta joan ditezen beren jaunagana.

23. Jarri ziozkaten bada janaria txit ugari, eta jan eta edan zuten, eta utzi zien joaten, eta joan ziran beren Jaunagana, eta Siriako lapurrak etziran berriz etorri Israelko errietara.

24. Gertakari oien ondoan, Benadab Siriako erregeak bildu zuen bere ejerzitu guztia, eta joan zan Samaria setiatzera.

25. Eta izan zan gosete andi bat Samarian, eta jarraitu zuen setioak anbesteraño, aliketa saltzen zan artean asto baten burua larogei zillarrezko dirutan, eta palomiñaren kaboaren lauren bat, zillarrezko bost dirutan.

26. Eta iragotzen zala Israelko erregea murrutik, emakume batek deadar egin zion, esaten zuela: Gorde nazazu, o errege nere Jauna.

27. Zeñak erantzun zion: Jaunak etzaitu gordetzen, nola nik gorde zaitzaket? Nik bai al daukat garia aletegietan, eta ardoa upategietan? Esan zion erregeak: Zer da nai dezuna? Berak erantzun zuen:

28. Emakume onek esan zidan: Eman ezazu zuk semea, jan dezagun gaur, eta nere semea jango degu biar.

29. Egosi genduen bada nere semea, eta jan genduen. Urrengo egunean esan nion nik: Eman ezazu zure semea, jan dezagun; baña berak ezkutatu du.

30. Aditu zuenean au erregeak, urratu zituen bere soñekoak, eta iragotzen zan murrutik. Eta ikusi zuen erri guztiak, aragiari itsatsita jantzirik zeraman zilizioa.

31. Eta esan zuen erregeak: Oiek, eta geiago egin dizazkidala Jaungoikoak, Eliseo Safaten semearen burua gelditzen bada gaur bere sorbaldeen gañean.

32. Eliseo berriz zegoan eserita bere etxean, eta zarrak zeuden eserita berarekin. Bialdu zuen bada erregeak gizon bat, eta mandatari au allegatu baño lenago, esan zien zarrari: Ez al dakizute ilgillaren seme onek bialdu duela neri lepoa moztutzera? Begira bada, allegatzen danean mandataria, itxi ezazute atea, eta etzaiozute utzi sartzen, zeren bere nagusiaren oñ otsa da bere ondoren.

33. Oraindik berakin izketan ari zala, agertu zan beragana zetorren mandataria, eta esan zuen: Zuk dakutsu zenbat gaitz bialtzen dizkigun Jaungoikoak, zer daukat onezkerok zer itxedon Jaunagandik?

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zuen Eliseok: aditu ezazute Jaunaren itza, oiek esaten ditu Jaunak: Biar denbora onetan iriñik obenaren lakaria erreal batean salduko da, eta garagar lakari bi salduko dira erreal batean Samariako atean.

2. Erantzun zuen, erregeari eskua laguntzeko ematen zion agintari batek, eta esan zion Jaungoikoaren gizonari: Jaunak zeruan konportak egingo balitu ere, gertatu bai al lezake zuk esaten dezuna? Erantzun zion Eliseok: Zure begiak ikusiko dezu, ez dezu ordea jango beratatik.



3. Bazeuden lau gizon legenarti atearen sarreraren aldean, zeñak esan zioten elkarri: Zergatik egongo gera emen illarteraño?

4. Sartu nai baldin bagiña errian, gosez ilko gera, emen egoten baldin bagera, ilko gera. Goazen bada, eta irago gaitezen Siroarren etzauntzetara, gurekin urrikaltzen baldin badira, biziko gera; eta il naiko bagindute, bestela ere ilko gera.

5. Jaiki ziran bada illunabarrean, Siroarren etzauntzetara joateko, eta allegatu ziranean Siroarren etzauntzen sarrerara, etzuten an inor arkitu.

6. Zeren Jaunak adituerazi zuen Siroarren etzauntzetan, gurdien, eta zaldidien, eta ejerzitu txit andi baten ots ikaragarria, eta esan zioten elkarri: Noaski Israelko erregeak alogerean artu ditu gure kontra Hetearren, eta Ejiptoarren erregeak, eta datoz gure gañera.

7. Jaiki ziran bada, eta iges egin zuten illunbean, eta utzi zituzten etzauntzetan beren dendak, eta zaldiak, eta astoak, eta iges zuten, beren biziak bakarrik salbatu nai zituztela.

8. Allegatu ziranean bada legenarti aiek etzauntzen asierara, sartu ziran denda batean, eta jan zuten eta edan zuten, eta artu zuten andik zillarra, eta urrea, eta soñekoak, eta joan ziran oiek ezkutatzera. Eta berriz itzuli ziran beste denda batera, eta andik ere berebat artzen zituztela, ezkutatu zituzten.

9. Eta esan zioten elkarri: Ez degu ongi egiten, zeren berri oneko eguna da au. Ixillik baldin bagaude, eta ez badegu ematen gaztigua goize-raño, gaizki egin degula esango digute. Goazen bada, eta eraman dezagun albista erregearen jauregira.

10. Allegaturik bada erriko atera, eman zuten berria, esaten zutela: Joan gera Siroarren etzauntzetara, eta ez degu an inor ere arkitu, baizik bakarrik zaldiak, eta astoak lotuta, eta dendak jarriak.

11. Joan ziran bada atezaiak, eta eman zieten berria erregearen jauregiko barrendikoai.

12. Erregea jaiki zan gauaz, eta esan zien bere serbitzariak: Nik esango dizutet, zer egin diguten Siroarrak. Badakite gu goseak illak gaudela, eta argatik atera dira etzauntzetatik, eta daude ezkutatuak kanpoetan, esaten dutela: Ateratzen diranean erritik, arrapatuko ditugu bizirik, eta erduan sartuko gera errian.

13. Baña bere serbitzariatatik batek erantzun zion: Artu ditzagun errian gelditu diran bost zaldiak (zeren bakarrik oiek daude, Israelen zeuden guztietatik, zeren gañerakoak izan dira konsumituak) eta bialtzen ditugula jakingo degu.

14. Ekarki zituzten bada bi zaldi, eta bialdu zituen erregeak Siroarren etzauntzetara, esaten zuela: Zoazte, eta ikusi ezazute.

15. Eta berak joan ziran, jarraitzen zietela Jordaneraño; eta ikusi zuten bide guztia zegoala, Siroarrak arin iges egitearren bota zituzten soñeko, eta ontziz betea, eta bihurturik mandariak, adirazi zioten erregeari.

16. Eta aterarik erria, artu zuen Siroarren etzauntzetan zegoan guztia, eta iriñlora lakari batek balio zuen erreel bat, eta bi lakari garagarrek erreel bat, Jaunaren itzaren araura.

17. Eta erregeak jarri zuen atean, arako agintaria, zeñaen eskuari itsatsita ibilli oi zan, zeñ jendediak bota zuen ostikopera, eta il zan, Jaungoikoaren gizonak esan zuenaren araura, erregea beragana jatsi zanean.

18. Eta gertatu zan Jaungoikoaren gizonaren itzaren araura, zeñ adirazi zion erregeari, esan zionean: Bi lakari garagar egongo dira errial batean, eta iriñlora lakari bat errial batean, denbora onetan beronetan biar Samariako atean;

19. Erantzun zionean agintari hurak Jaungoikoaren gizonari, eta esan zuenean: Jaunak zeruan konportak egingo balitu ere, gertatu ote litzake zuk esaten dezuna? Eta esan zion: ikusiko dezu zure begiak, eta ez dezu andik jango.

20. Lendanaz adirazia izan zitzaion bezela, ala gertatu zitzaion, eta erriak bota zuen ostikopera atean, eta il zan.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eliseok itz egin zion arako emakumeari zeñaen semea biztu zuen, esaten zuela: Jaiki zaite, zoaz zu, eta zure familia zure erritik kanpora, eta bizi zaite ongien deritzazun lekuan, zeren Jaungoikoak deitu dio goseteari eta bera etorriko da lur guztira zazpi urtean.

2. Jaiki zan bera, eta egin zuen Jaungoikoaren gizonak agindu zionaren araura, eta joanik bere familiarekin, bizi izan zan Filistintarren lur arrotzean urte askotan.

3. Eta irago ziranean zazpi urteak, biurtu zan emakumea Filistintarren erritik, eta joan zan erregeagana, itzuli zizazkioten bere etxea, eta bere soroak.

4. Eta erregea zegoan garai artan izketan Jiezi Jaungoikoaren gizonaren morroiarekin, esaten zuela: Kontatu zazkidazu Eliseok egin zituen mirari guztiak.

5. Eta bera ari zala erregeari kontatzen, nola biztu zuen il bat, agertu zan arako emakumea, zeñaen semea biztu zuen, eskatzen ziozkala erre-



geri bere etxea, eta bere soroak. Eta esan zuen Jiezik: Nere errege, eta Jauna, au da emakumea, eta au da bere seme, Eliseok biztu zuena.

6. Eta galdetu zion erregeak emakumeari, zeñak kontatu ziozkan. Eta erregeak bialdu zuen berarekin txikiratu bat, esaten zuela: biurtu zazkiozu berarenak diran guza guztiak, eta bere erritik atera zaneko denboratik oraindañoko erreditu guztiak.

7. Etorri ere zan Eliseo Damaskora, Benadab Siriako erregea eririk zegoan denboran; eta gaztigatu zuten au, esaten zutela: Jaungoikoaren gizona allegatu da onara.

8. Eta esan zion erregeak Hazaeli: Artu itzatzu zurekin doañak, eta zoaz bidera irtetzera Jaungoikoaren gizonari, eta bere bitartez itundu zaite Jaunarekin, galdetzen dezula: Nere gaitz onetatik sendatuko al naiz?

9. Joan zan bada Hazael berari bidera irtetzera, zeramazkiala berarekin, Damaskoko gauzarik ederren guztien doañak, berrogei gamelu zamatueta. Eta jarri zanean bere aurrean, esan zuen: Zure seme Benadab Siriako erregeak bialdu nau zugana, jakitera: Nere gaitz onetatik sendatu bai alko ote naiz?

10. Eta esan zion Eliseok: zoaz, esan zaiozu: Sendatuko zera, baña Jaunak adirazi dit, ziertoro ilko dala.

11. Eta egon zan geldirik berarekin, eta turbatu zan, koloreak arpegi-ra irtetzeraño, eta Jaungoikoaren gizonak negar egin zuen.

12. Eta Hazaelek esan zion: Zergatik negar egiten du nere Jaunak? Eta berak esan zuen: Badakidalako nolako gaitzak egingo dieztezun Israelko semeai. Suaz erreko dituzu bere erri sendoak, eta ezpataz iragoko dituzu bere gazteak, lurraren kontra sendo joeraziko diezu bere aurrari, eta idikiko diezu sabela, egiteko dauden andrai.

13. Zeñi Hazaelek esan zion: Zer bada, txakurren bat al naiz ni zure serbitzari au, gauza aiñ andi au egiteko? Eta esan zuen Eliseok: Jaungoikoak agertu dit zu izango zerala Siriako erregea.

14. Bereziturik Hazael Eliseogandik, biurtu zan bere nagusiagana, zeñak galdetu zion: Zer esan dizu Eliseok? Eta berak erantzun zuen: Esan dit, sendatuko zerala.

15. Allegaturik urrengo eguna, artu zuen oial bat; busti busti egin zuen uretan, eta zabaldu zuen erregearen arpegiaren gañean, zeña il zan, eta Hazaelek erreñatu zuen bere lekuan.

16. Joram, Akab, Israelko erregearen semearen, eta Josafat Judako erregearen bosgarren urtean, sartu zan erreñatzen Joram, Josafaten seme, Judako erregea.

17. Ogeita amabi urte zituen asi zanean erreñatzen, eta zortzi urtean erreñatu zuen Jerusalemen.

18. Eta ibilli zan Israelko erregeen bideetatik, ibilli ziran bezela Akaben etxeoak, zeren Akaben alaba bat zan bere emaztea, eta egin zuen txarra dana Jaunaren aurrean.

19. Eta etzuen nai izan Jaunak galdu Juda, bere serbitzari Dabiden amorioz, eskeñi zion bezela, emango ziola lanpara bat betiko berari, eta bere semeai.

20. Bere denboran jaiki zan Edom, Judaren mendean ez egoteko, eta autu zuen beretzat errege bat.

21. Argatik Joram joan zan Seiraen kontra gerrako bere gurdi guztia-kin, eta atera zan gauaz, eta desegin zituen, ingurutu zuten Idumearrak, eta gerrako gurdien lenenak; erriak berriz iges zuen bere egolekuetara.

22. Alde egin zuen bada Idumeak ez egotearren Judaren mendean gaurko eguneraño. Orduan, denbora artan Lobnak ere alde egin zuen.

23. Joramen beste gauzak, eta egin zuen guztia, ez al da ala, guztia eskribatua dagoala, Judako erregeen urteoroko berrietako liburuan?

24. Eta Joram joan zan lotara bere gurasoakin, eta izan zan obiatua berakin Dabiden errian, eta Okozias bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

25. Joram, Akab Israelko erregearen semearen amabigarren urtean, asi zan erreñatzen Okozias Joram Judako erregearen semea.

26. Ogeita bi urtekoa zan Okozias erreñatzen asi zanean, eta urte batean erreñatu zuen Jerusalemen, bere amaren izena Atalia, Amri Israelko erregearen alaba.

27. Eta ibilli zan Akaben etxeo bideetatik, eta egin zuen txarra dana Jaunaren aurrean, zeren Akaben etxeo suia zan.

28. Joan ere zan, Joram Akaben semearekin, gudatzera Hazael Siriako erregearen kontra, Ramot Galaadkoan; eta zauritu zuten Siroarrak Joram:

29. Zeñ itzuli zan, sendatua izatera Jezrahelera, zeren Siroarrak zauritu zuten Ramoten, gudatzen ari zala Hazael Judako erregearen kontra. Eta Okozias Joram Judako erregearen semea jatxi zan Jezrahelera, ikustera Joram Akaben semea, zeren an zegoan eririk.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta Eliseo profetak ots egin zion profeten seme bati, eta esan zion: Lotu ezazu zure gerria, eta artu ezazu zure eskuan oliontzi au, eta zoaz Ramot Galaadkora.



2. Eta allegatzen zeranean ara, ikusiko dezu Jehu, Josafat Namsiren semearen semea; eta sartzen zeranean, jaikieraziko diozu bere anaien erditik, eta eramango dezu gela ezkutu batera.

3. Eta arturik oliontzitzoa isuriko dezu bere buruaren gañean, esaten dezula: Oiek esaten ditu Jaunak: Nik igortzi zaitut erregetzat Israelen gañean. Eta idikiko dezu atea, eta iges egingo dezu, eta etzera an geldituko.

4. Joan zan bada profetaren morroi gaztea Ramot Galaadkora,

5. Eta sartu zan an, eta zeuden eserita ejerzituko agintaririk andienak, eta esan zuen: itz bat zuri, o prinzipia. Eta Jehuk esan zuen: Gutatiko guztietatik zeñi? Eta berak esan zuen: Zuri, o prinzipia.

6. Eta jaiki zan, eta sartu zan gelan; eta ark isuri zuen olio bere buruaren gañera, eta esan zuen: Oiek esaten ditu Israelko Jaungoikoak: igortzi zaitut erregetzat Israelko Jaunaren erriaren gañean:

7. Eta zaurituko dezu Akab zure jaunaren etxea, eta bengatuko naiz nere serbitzari profeten odolarekin, eta Jaunaren serbitzari guztien odol, Jezabelek isuriarekin.

8. Eta ondatuko det Akaben familia guztia; eta ilko ditut Akaben etxetik txakurrerañoakoak, baliorik andieneko gauzatik zatarrerañoak Israelen.

9. Eta tratatuko det Akaben etxea, Jeroboam Nabaten semearen etxea bezela, eta Baasa Ahiaren semearen etxea bezela.

10. Jezabel ere zakurrak jango dute Jezrahelko kanpoan, eta ez da izango nork obiatu. Eta idiki zuen atea, eta iges egin zuen.

11. Eta Jehu atera zan, bere jaunaren agintariak zeuden tokira, zeñiak esan zioten: Guztia ongi bai al dijoa? Zertara etorri da zoro au zugana? Zeñak esan zien: Zuek ezagutzen dezute gizon ori, eta zer esan zezakean.

12. Berak erantzun zuten: Ez da egia, baña dana dala kontatu zagu-zu. Zeñak esan zien: Oiek, eta oiek esan dizkit, eta esan zuen: Oiek esaten ditu Jaunak: igortzi zaitut erregetzat Israelen gañean.

13. Jaiki ziran orduan txit arin, eta arturik bakoitzak bere kapa, ipiñi zituzten bere oñen azpian, tribunal baten irudira, eta jo zuten tronpeta, eta esan zuten: Jehu da gure erregea.

14. Jehu bada, Josafaten Namsiren semearen semea konjuratu zan Joramena kontra, eta Joramek berak Israel guztiarekin zeukan setiatua Ramot Galaadkoa, Hazael Siriako erregearen kontra.

15. Eta itzuli zan Jezrahelera, sendatzera Siroarrak egin ziozkaten zauriak, gudan ari zala Hazael Siriako erregearen kontra. Eta esan zuen

Jehuk: Baldin baderitzazute ez dedilla iñor atera erritik, eta ez dezala iñork igesik egin, joan ez dedin berria ematera Jezrahelera.

16. Eta igo zan, eta joan zan Jezrahelera, zeren Joram zegoan eririk an, eta Okozias Judako erregea jetxi zan Joram ikustera.

17. Jezrahelko dorrearen gañean zegoan zelatariak bada, ikusi zuen Jehuren jende samalda zetorrena, eta esan zuen: Nik ikusten det jende samalda bat. eta esan zuen Joramek: Ar zazu gurdi bat, eta bialdu ezazu norbait bidera irtetzera; eta dijoanak galdetu dizaiela: Ongi bai al dijoa guztia?

18. Joan zan bada gurdira igo zana, berari bidera irtetzera, eta esan zuen: Oiek esaten ditu erregeak: Guztia al dago pakean? Eta esan zuen Jehuk: Zer dezu zuk zer ikusi pakearekin? Jarri zaite ostean, eta darraidazu. Zelatariak ere adirazi zuen esaten zuela: Allegatu da beragana mandataria, eta ez da itzultzen.

19. Eta bialdu ere zuen bigarren gurdi bat zaldiakin, eta allegatu zan berakgana, eta esan zuen: Oiek esaten ditu erregeak: Pakea bai al degu? Eta Jehuk erantzun zuen: Zer dezu zuk zer ikusi pakearekin? Jarri zaite ostean eta darraidazu.

20. Eta zelatariak adirazi zuen, esaten zuela: Allegatu da berakgana, eta ez da biurtzen, eta datorrenaren ibillerak dirudi Jehu Namsiren semearena, zeren dator arin eta urduriro.

21. Eta Joramek esan zuen: Prestatu ezazute gurdia, eta prestatu zuten bere gurdia, eta atera zan Joram Israelko erregea, Okozias Judako erregea lagun zuela, bakoitza bere gurdian, eta joan ziran Jehuri bidera irtetzera, eta arkitu zuten, Nabot Jezraeltarraren kanpoan.

22. Eta ikusi zuenean Joramek Jehu, esan zuen: Pakea degu, Jehu? Erantzun zuen berak: Zer pake? Zure ama Jezabelen lasakeriak, eta bere sorginkeria ugariak oraindik beren indarrean daude.

23. Joramek orduan itzuli zuen bere eskua, eta igesi zijoala esan zion Okozias: Saldukeria, Okozias.

24. Baña Jehuk zuzendu zuen bere uztaia eskuarekin, eta zauritu zuen Joram bizkarrean, eta atera zan fletxa bere biotzetik, eta bereala erori zan bere gurdian.

25. Eta Jehuk esan zion Badazer agintariari: Artu eta bota ezazu, Nabot Jezraeltarraren kanpoan, zeren oroitzen naiz, ni eta zu eserita geundela gurdian, jarraitzen giñonean Akab onen aitari, Jaunak eman zuen erabaki ikaragarri au bere kontra, esaten zuela:

26. Nik juramentu egiten det, dio Jaunak, kanpo onetan artuko dedala benganza zukan, atzo ikusi nuen Naboten odolarena, eta bere semeen



odolarena, dio, Jaunak. Orain bada artu ezazu, eta bota kanpoan, Jaunaren itzaren araura.

27. Ikusirik au Okozias Judako erregeak, iges egin zuen etxeko baratzako bidetik. Eta korrika joan zan Jehu bere ondoren, esaten zuela: il eza-zute au ere bere gurdiaeren barrenen. Eta zauritu zuten Gaberko aldapan, zeñ dagoan Jeblaamen aldean, eta jarraitu zion iges egiteari Majeddoraño, non il zan.

28. Eta bere morroiak jarri zuten bere gurdiaeren gañean, eta eraman zuten Jerusalemenera, eta obiatu zuten Dabiden errian bere gurasoen obian.

29. Okozias asi zan erreñatzen Judaren gañean, Joram Akazen semearen amaikagarren urtean.

30. Sartu zan bada Jehu Jezraelen. Jezabelek berriz aditu zuenean, hura sartu zala, beluritu zituen begiak, eta apaindu zuen bere burua, eta jarri zan leio batetik begira,

31. Nola sartzen zan Jehu atetik, eta esan zuen: Pakerik iduki bai al ote lezake, Zانبri, bere jauna il duenak?

32. Eta jaso zuen Jehuk bere arpegia leiorontz, eta esan zuen: Zeñ da au? Eta bi, edo iru txikiratuk agur andi bat egin zioten Jehuri.

33. Zeñai esan zien: Aurtiki ezazute ortikan beera; eta aurtiki zuten, eta paretea odoldu zan; eta zaldia zapaldu zuten beren oñakin.

34. Eta Jehu sartu ezkerro jatera, eta edatera esan zuen: Zoazte, eta ikusi ezazute madarikatu hura, eta obiatu ezazute; zeren erregearen alaba da.

35. Eta joanik lurpetzera, etzituzten arkitu buruezura (sic), oñak, eta eskuen atzenak baizik.

36. Eta itzulirik adirazi zioten. Eta esan zuen Jehuk: Jaunaren itz, Elias Tesbear, bere serbitzariaren bitartez egiña da, esaten duela: Txakurrak jango dituzte Jezabelen aragiak Jezraelko kanpoan.

37. Eta Jezabelen aragiak egongo dira Jezraelko kanpoan, zimaurrea lurraren gañean bezela, alako moduan non, iragotzen diranak esango dute: Au ote da arako Jezabel?

AMARGARREN KAPITULUA

1. Akabek bada zeuzkan Samarian irurogeita amar seme, eta eskribatu zuen Jehuk txartel bat, eta bialdu zuen Samariara, erriko andizkia, eta zarrai, eta akaben semeak azitzen zituenai, esaten zuela:

2. Txartel oiek artuta bereala, dauzkazutenak zuen nagusiaren semeak, eta gurdia, eta zaldia, eta erri sendoak, eta armak,

3. Autu ezazute obeena, eta zuen jaunaren semeetatik zuek deritza-zutena, eta bera jarri ezazute zuen aitaren esertoki goratuaren gañean, eta gudatu zaitezte zuen jaunaren etxeagatik.

4. Aiek txit beldurtu ziran, eta esan zuten: Bi erregek ezin izan diote arpegi eman berari, eta nola jarki gintzazkioke gu?

5. Bialdu zituzten bada mandatariak, jauregiko nagusiak, eta erriko buruak, eta zarrak, eta aurzaiak esatera Jehuri: Zure serbitzariak gera, agintzen diguzun guztia egingo degu, eta ez degu jarriko erregerik gure gañean. Egin ezazu nai dezun guztia.

6. Baña berak bigarren aldiz eskribatu zien txartel bat, esaten zela: Baldin nereak bazerate, eta neri obeditzen badidazute, artu itzatzute zuen jaunaren semeen buruak, eta biar ordu onetan beronetan etorri zaitezte nigana Jezrahelera. Irurogeita amar ziran erregearen semeak, zeñak asitzen ziran erri artako andizkien etxeetan.

7. Karta au berakgana allegatuta laster, eldu zieten erregearen irurogeita amar semeai, eta il zituzten, eta jarri zituzten beren buruak saskietan, eta bialdu zituzten beragana Jezrahelera.

8. Allegatu zan bada mandataria, eta eman zion gaztigua, esaten ziola: Ekarrri dituzte erregearen semeen buruak. Eta berak erantzun zuen: Jarri itzatzute bi metatan atearen sarreran biar arteraño.

9. Eta eguna argitu zuenean, atera zan, eta jarririk zutik, esan zion erri guztiari: Justoak zerate, baldin ni jaiki banaiz nere nagusiaren kontra, eta il banuen, nok il ditu oiek guztiok?

10. Ikusi ezazute bada orain, ez dala erori lurrera, Akaben etxearen kontra Jaunak esan zituen itz bat bakarra ere; eta nola bete duen Jaunak, esan zuena, Elias bere serbitzariaren bitartez.

11. Illerazi zituen bada Jehuk, Akaben familiaetik Jezraelen gelditu ziraden guztiak, eta bere andizki guztiak, eta bere etxeak, eta apaizak, kutsurik ere beratatik gelditu etzedin bitartean.

12. Emendik joan zan Samariara, eta allegaturik artzaien kabaña, bidearen aldean dagoanera,



13. Arkitu zituen, Okozias Judako erregearen anaiak, eta esan zien: Zeñak zerate zuek? Berak erantzun zuten: Okoziasen anaiak gera, eta jetxi gera agur egitera erregearen semeai, eta erregeñaren semeai.

14. Jehuk esan zuen: Artu itzatzute bizirik. Eta arturik bizirik, lepoak ebaki ziozkaten, artzaien kabañaren aldeko lupetegi batean, berrogeita bi gizoni, eta beretatik batere etzuten itxi.

15. Eta joan zanean andik, arkitu zuen Jonadab Rekaben semea, bidera irtetzen zitzaiola, eta Jehuk agur egin, eta esan zion: Zure biotza ote da zuzena niganontz, nola dan nere biotza zureganontz? Eta erantzun zuen Jonadabek: Bada. Baldin bada, esan zuen, eman zadazu eskua. Eta berak esan zion eskua. Eta berak igoerazi zion gurdira.

16. Eta esan zion: Atoz nerekin, eta ikusiko dezu nere zeloa Jaunagatik. Eta bere gurdira igoerazirik,

17. Eraman zuen Samariara, non illerazi zituen, Akaben etxetik an gelditu ziran guztiak, bat bakarra ere utzi gabe, Eliasen bitartez Jaunak esan zuen itzaren araura.

18. Bildu ere zuen Jehuk erri guztia, eta esan zion: Akabek gutxi onratu zuen Baal, nik ordea onratuko det asko geiago.

19. Orain bada, ots egin zaiezute nigana Baalen profeta guztiai, eta bere mendeko guztiai, eta bere apaiz guztiai; ez bedi gelditu inor ere etorri gabe, zeren noa eskeñtza andi bat Baali egitera, etorri gabe gelditzen dan guztia, illa izango da. Jehuk ordea egiten zuen au somaz, desegiteko Baalen adoratzalle guztiak.

20. Eta esan zuen: Konsagratu zaiozute egun andi bat Baali, eta bialdu zituen,

21. Israelko alderri guztietatik ots egitera, eta etorri ziran Baalen mendeko guztiak, etzan gelditu bat ere etorri gabe. Eta sartu ziran Baalen elizan, eta bete zan Baalen etxea ertz batetik bestera.

22. Eta esan zien soñekoen gordetzalleai: Atera itzatzute soñekoak Baalen serbitzari guztientzat. Eta atera ziozkaten soñekoak.

23. Eta sartu ziranean Jehu, eta Jonadab Rekaben semea, Baalen elizan, esan zien Baalen adoratzalleai: Aztertu, eta ikusi ezazute ez dedilla egon zuekin Jaunaren adoratzallerik batere, baizik Baalen serbitzariak bakarrik.

24. Sartu ziran bada eskeñtzera doañak, eta ofrendak, baña Jehuk zeuzkan kanpoan gertutuak larogei gizon, zeñai esanda zeukan: Zuen eskuetan jartzen ditudan gizon oietatik bat bakarrik ere iges egiten baldin badu, bere biziarekin pagatuko du, iges egiten duenaren bizia.

25. Eta gertatu zan bukatu zanean eskeñtza, agintzea Jehuk bere soldadu, eta agintariak, esaten ziela: Sartu zaitezte, eta il itzatzute; ez dezala batek ere igesik egin. Eta soldadu, eta agintariak ezpataz irago zituzten, botatzen zituztela kanpora gorputz illak. Emendik joan ziran Baalen elizako errira,

26. Eta atera zuten elizatik kanpora Baalen irudia, eta erre, ta auts biurtu zuten.

27. Berebat desegin zuten Baalen eliza, eta egin zituzten bere lekuan karkabak, zeñak dirauten gaurko eguneraño.

28. Ala arrotzu zuen Jehuk Baal Israeltik.

29. Alaere etzuen alde egin Jeroboam Nabaten semearen bekatuetatik, zeñak bekatuerazi zion Israeli, eta etzituen ere utzi, Betelen eta Danen zeuden urrezko txalak.

30. Eta esan zion Jaunak Jehuri: Zeloarekin egin dezulako zuzena, eta nere begiai oniritzia, eta bete dezulako nere biotzean erabakita neukan guztia Akaben etxearen kontra, zure semeak, laugarren belauneraño, eseriko dira Israelko tronuaren gañean.

31. Jehuk ordea etzuen arretarik iduki ibiltzeko bere biotz guztitik Israelko Jaun Jainkoaren bidetik, zeren etzuen alde egin, Jeroboamen, Israeli bekatuerazi zionaren bekatuetatik.

32. Egun aietan asi zan Jauna aserretzen Israelen kontra; eta ala Hazaelek desegin, eta arrasatu zuen bere alderri guztietan,

33. Jordandik sortalderontz Galaadko, Gadko, eta Rubenen, eta Manasesen lur guztia, Aroerdik, zeñ dagoan Arnongo errekaaren aldean, Galaad eta Basaneraño.

34. Jehuren gañerako itzak, eta egin zuen guztia, eta bere sendotasuna, ez al daude oiek guztiak eskribituak Israelko erregeen egunetako itzen liburuan?

35. Eta joan zan lotara Jehu bere gurasookin, eta lurpetu zuten Samarian, eta erreñatu zuen Joakaz bere semeak bere lekuan.

36. Jehuk Israelen gañean Samarian erreñatu zuen denbora, ogeita zortzi urte izan ziran.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta Atalia Okoziasen ama, ikusirik bere sema illik, jaiki zan, eta il zituen erregeren odoleko guztiak.

2. Josaba, Joram erregearen alaba, Okoziasen arrebak berriz, arturik Joas Okoziasen semea, ostu zuen lotokitik, bera eta bere inudea, erregea-



ren semeen erditik, zeñak illaz zeramazkiten, eta ezkutatu zuen Ataliaren aurretik, il etzetzaten.

3. Eta egon zan sei urtean ezkutatua bere iñudearekin Jaunaren etxean, eta Ataliak erreñatu zuen lurraren gañean.

4. Baña zazpigarren urtean Joiadak, ots egiñik euntariari eta soldaduai, sartu zituen berarekin Jaunaren elizan, eta elkartu zan berakin, eta juramentu erazirik Jaunaren etxean, erakutsi zien erregearen semea,

5. Eta agindu zien, esaten ziela: Au da egin bear dezutena,

6. Zuetatik irugarren partea sartuko da larunbatean, eta egongo da erregearen etxea zaitzen. Eta beste irugarren partea egongo da Egoeko atean, eta beste irugarren parteak zaituko du, ezkutarien bizilekuaren ostean dagoan atea, eta beilla egingo diozute Messaren etxeari.

7. Eta zuetatik bi parte, asteko ateratzen diran guztiak, egongo dira-de beillan Jaunaren etxean erregearen aldean,

8. Eta ingurutuko dezute, zuen eskuetan armak dituzutela, baldin iñor sartuko balitza elizaren barrenen, illa izan dedilla; eta egongo zerate erregearen aldean, naiz sartu dedilla, naiz irten dedilla.

9. Eta euntariak egin zuten Joiada apaizak agindu zien guztia, eta arturik bakoitzak bere jendeak, ala asteko sartzen ziranak, nola ateratzen ziranak, joan ziran Joiada apaizagana,

10. Zeñak eman ziezen, Jaunaren etxean gordetzen ziran, Dabid erregearen lanza eta armak.

11. Eta jarri ziran zituztela bakoitzak armak beren eskuetan, elizaren eskuitik, aldarearen eta elizaren ezkerreraño erregearen inguruan.

12. Eta atera zuen erregearen semea, eta jarri zion bere buruaren gañean erregezinta, eta legeko liburua, eta egin zuten errege, eta igortzi zuten, eta txaloak eginik eskuakin, esan zuten: Bizi bedi erregea.

13. Aditu zituen Ataliak, korrika zijoan erriaren bozak; eta sarturik jendetzagana Jaunaren elizara,

14. Ikusi zuen erregea tronuaren gañean eseria, oi zan bezela, eta kantariak eta sonulariak bere aldean, eta erriko jende guzia pozez betea, jotzen klarinak, eta urratu zituen bere soñekoak, eta deadarrez esan zuen: Saldukeria, saldukeria.

15. Joiadak berriz agindu zien, soldaduai agintzen zieten euntariari, esaten ziela: Atera ezazute elizatik kanpora, eta jarraitzen diona, ezpataz illa izan bedi. Zeren esan zuen apaizak: Ez bedi izan illa Jaunaren elizan.

16. Eta ezarri ziozkaten eskuak, eta eraman zuten bulzaka zaldien sarreraren karrikatik, jauregiaren aldera, eta an il zuten.

17. Egin zuen bada Joiadak elkartasuna Jaunaren, eta erregearen, eta erriaren artean, izan zedin Jaunaren erria, eta erregearen, eta erriaren artean.

18. Eta lurreko erri guztia sartu zan Baalen elizan, eta desegin zituzten bere aldareak, eta txit puskatu zituzten bere irudiak, il ere zuten aldarearen aurrean Matan Baalen apaiza. Eta apezak jarri zituen zaitzalleak Jaunaren etxean.

19. Eta artu zituen euntariak, eta Zereti, eta Feletiko lejiok, eta lurreko erri guztia, eta eraman zuten erregea Jaunaren etxetik, eta etorri ziran jauregira, ezkutarien ateko bidetik, eta eseri zan erregeen tronuaren gañean.

20. Eta bozkariotu zan lurreko erri guztia, eta erriak atsedean zuen; Atalia berriz izan zan ezpataz illa erregearen jauregian.

21. Eta zazpi urtekoa zan Joas, asi zanean erreñatzen.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Jehuren zazpigarren urtean asi zan erreñatzen Joas, eta erreñatu zuen zazpi urtean Jerusalem. Bere amaren izena zan Sebia, Bersabeekoa.

2. Eta Joas ibilli zan zuzen Jaunaren aurrean, Joas apaiz nagusia zuzentzalletzat iduki zuen denbora guztian.

3. Alaere etzituen kendu toki goratuak; zeren oraindik erriak egiten zituen ofrendak, eta eskeñtzen zituen doañak goietan.

4. Eta Joasek esan zien Apaizai: iraitzeko eta arrotzak Jaunaren elizara ekartzen duten diru guztia gauza santuak gatik, eta eskeñtzen dana bakoitzaren erreskatagatik, eta bakoitzak borondatez eta bere biotzaren aukerara ematen duena Jaunaren elizarako,

5. Artuko dute apaizak beren txandaren araura, eta egingo dituzte, etxeak bear dituen lanak, premiarik daukala ikusiko baldin balute.

6. Baña Joas erregearen ogeita irugarren urteraño, etzituzten apaizak egin etxearen premiazko lanak.

7. Eta ots egin zion Joas erregeak Joiada apaiznagusiari eta apaizai, esaten ziela: Zergatik ez dituzte egiten etxearen premiazko lanak? Ez dezute bada emendik aurrera artuko dirua zuen txandetan, baizik eman ezazute elizaren premiazko lanetarako.

8. Eta ala galerazi zitzaien apaizai jarraitzea dirua artzen erriagandik, eta Etxearen premiazko lanak egitea.

9. Orduan Joiada apaiznagusiak, agindu zuen egiteko kutxa bat, eta bere gañean idigitzeko zulo bat, eta jarri zuen aldarearen aldean, Jaunaren



etxean sartzten ziradenen eskuiko eskutik, eta atean beillan zeuden apaizak botaten zuten kutzara, Jaunaren elizan eskeñtzen zan diru guztia.

10. Eta ikusten zutenean diru asko zegoala kutxan, etortzen ziran erregearen sekretario bat, eta apaiz nagusia, eta atera, eta kontatzen zuten, Jaunaren etxeko kutxan arkitzen zan dirua.

11. Eta jartzen zuten bere kontu, eta arrazoiarekin, Jaunaren etxeko langilleen lanarizaien eskuetan, zeñak pagatzen zien berarekin, Jaunaren etxean lanean ari ziran arotz, eta kisuariak,

12. Eta etxean premiazko lanak egiten zituztenai, eta arriak lantzen zituztenai, eta beretzat erosten zituzten berarekin zurak eta landutzen ziran arriak; izan zedin osotoro berriztatua Jaunaren etxea, leengo eran jartzeko kasturen baten premia zegoan toki guztietan.

13. Baña Jaunaren elizari eskeñtzen zitzaion diru onekin, etziran egiten pegarrak, ez irurziak, ez inzenionarioa, ez tronpetak, ez urrezko, eta zillarrezko ontzirik batere,

14. Zeren ematen zitzaien, Jaunaren eliza leengo eran jartzeko lanean ari ziradenai.

15. Eta etzitzaien konturik artzen, ematen zitzaienai dirua langilleentzat, baizik utzitzen zan beren fede onaren kontura.

16. Baña etzan sartzten Jaunaren elizan, ematen zan dirua gaiztakeriak gatik, eta bekatuak gatik, zeren zan apaizena.

17. Denbora artan Hazael Siriako erregea atera zan gerrara, eta ari zan gudan Jeten kontra, eta atzitu zuen, eta zuzendu zuen bere arpegia igotzeko Jerusalemen kontra.

18. Argatik Joas Judako erregeak artu zituen, Josafatek, eta Joramek, eta Okoziasek, bere asabak, eskeñitako ofrenda santu guztiak, eta berberak eskeñi zituenak; eta Jaunaren elizako gordairuetan, eta erregearen jauregian arkitu al izan zan zillar guztia, eta bialdu zion Hazael Siriako erregeari, zeñak onenbesterekin alde egin zuen Jerusalemendik.

19. Eta Joasen gañerako gauza guztiak, eta bere egitate guztiak, ez al daude eskribatuak, Judako erregeen urteoroko berrietako liburuan?

20. Eta jaiki ziran bere serbitzariak, eta juramentuz lotu ziran elkarren artean, eta il zuten Joas Melloren etxean, Sellako jexieran.

21. Bizia kendu zioten morroiak izan ziran Josakar Semaaten semea, eta Josabad Somerren semea; eta illa izan zanean, obiratu zuten bere gurasoakin Dabiden errian, eta bere seme Amasiasek erreñatu zuen bere lekuan.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Joas Okoziasek seme, Judako erregearen ogeita irugarren urtean, erreñatu zuen Joakaz Jehuren semeak Israelen gañean, Samarian, amazpi urtean.

2. Eta gaizki egin zuen Jaunaren aurrean, eta jarraitu zien Jeroboam Nabaten semearen bekatuak, zeñak bekatu erazi zion Israeli, eta etzuen alderik egin beretatik.

3. Eta erazeki zan Jaunaren aserrea Israelen kontra, eta jarri zituen denbora luzean Hazael Siriako erregearen eskuan, eta Benadad Hazaelen semearen eskuan.

4. Baña Joakazek erregutu zuen Jaunaren aurrean, eta aditu zuen Jaunak, ikusirik Israelen antsia, zeren zeatu zituen Siriako erregeak;

5. Eta bialdu zion Jaunak Israeli salbatzalle bat, zeñak libratu zuen Siriako erregearen eskutik; eta Israelko semeak bizi izan ziran beren bizilekuetan, lengo denboretan bezela.

6. Alaere etzuten alderik egin Jeroboamen etxeko bekatuetatik, zeñak bekatuerazi zion Israeli, baizik ibilli ziran beretan, alako moduan, non, Samariako basoa ere oñean gelditu zan.

7. Etzitzaion gelditu Joakazi gerrako jenderik, baizik berrogeita amar soldadu zaldizko, eta amar gurdi, eta amar milla gizon oñazko, zeren Siriako erregeak ezpataz irago zituen, eta desegin, garia jotzen dan larrañean autsa bezela.

8. Joakazen gañerako gauzak, eta bere egite guztiak, eta bere sendotasuna, oiek guztiak ez al daude eskribatuak, Israelko erregeen egunetako berrien liburuan?

9. Eta Joakaz joan zan lotara bere gurasoakin, eta lurpetu zuten Samarian, eta bere seme Joasek erreñatu zuen bere lekuan.

10. Joas Judako erregearen ogeita amazpigarren urtean, erreñatu zuen Joas Joakasen semeak Israelen gañean, Samarian, amasei urtean,

11. Eta gaizki egin zuen Jaunaren aurrean, etzuen alderik egin, Jeroboam Nabaten semearen bekatu guztietatik, zeñak bekatu erazi zion Israeli, baizik ibilli zan beretan.

12. Joasen gañerako gauzak, eta bere egite guztiak, eta bere sendotasuna, eta nola gerran egin zuen Amasiak Judako erregearen kontra, ez al dago guztia eskribatua, Israelko erregeen urteoroko berrietako liburuan?

13. Eta Joas joan zan lotara bere gurasoakin, eta Jeroboam eseri zan bere tronuan gañean. Joas berriz izan zan obiratua Samarian, Israelko erregeekin.



14. Eta Eliseo zegoan eririk, il zan eritasunetik, eta Joas Israelko erregea joan zan ikustera, eta negar egiten zuen bere aurrean, eta esaten zuen: Ene aita, ene aita, Israelko gurdia, eta bere itzaia.

15. Eta esan zion Eliseok: Ekarri itzatzu uztaia, eta fletxak. Eta ekarririk uztaia, eta fletxak,

16. Esan zion Israelko erregeari: Jarri ezazu zure eskua uztaia; jarri zituen Eliseok bere eskuak, erregearen eskuen gainean.

17. Eta esan zuen: idiki ezazu sortaldeko leioa. Eta idiki zuenean, esan zuen Eliseok: Desparatu ezazu saieta bat, eta desparatu zuen. Eta esan zuen Eliseok: Salbazioko saieta da au Jaunagatik, eta salbazioko saieta Siriaren kontra; zeren zuk desegingo dezu Siria Afek-en, arras akabatu artean.

18. Geiago esan zuen: Artu itzatzu saietak. Eta arturik, esan zuen berriz: Jo ezazu lurra dardo batekin, eta jo zuenean iru alditan, gelditu zan.

19. Eta aserretu zan Jaungoikoaren gizona bere kontra, eta esan zuen: Baldin jo bazeneza bost, edo sei, edo zazpi alditan, saurituko zenduen Siria, arras desegin artean; baña orain garaituko dezu iru alditan.

20. Il zan bada Eliseo, eta obiratu zuten. Urte artan beratan sartu ziran erri aietatik Moabko lapurtxoak.

22. Eta il bat lurpetzera zijoazen gizon batzuek, ikusirik lapurtxoak, bota zuten gorputz illa Eliseoren obian, eta ukitu zieneko Eliseoren ezurrai, illa biztu zan, eta jarri zan zutik.

23. Hazael Siriako erregeak bada, naigabetu zuen Israel Joakazen denbora guztian.

24. Eta atzenean il zan Hazael Siriako erregea, eta Benadad bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

25. Orduan Joas Joakazen semeak, berangandu zituen Benadad Hazaelen semearen eskutik, onek bere aita Joakazi gerrako legez artu ziozkan erriak. Iru alditan desegin zuen Joas; eta biurtu ziozkan Israeli erri aiek.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Joas Joakazen seme, Israelko erregearen bigarren urtean, sartu zan erreñatzen Amasias, beste Joas, Judako errege baten semea.

2. Ogeita bost urte zituen erreñatzen asi zanean, eta erreñatu zuen ogeita bederatzita urtean Jerusalemen. Bere amari zeritzan Joadan, berez Jerusalemgoa.

3. Eta egin zuen justoa zana Jaunaren aurrean, baña ez bere aita Dabidek bezela. Egin zuen guztian, bere aita Joasek egin zuena.

4. Salbu bakarrik, etzituela kendu altuak; bada oraindik erriak egiten zituen eskeñtzak, eta erretzen zuen inzensoa altuetan.

5. Eta erreñuarekin jabetuta bereala, kendu erazi zien bizia bere aita erregea il zuten bere morroiai.

6. Baña etzituen il iltzalleen semeak, Moisesen legeko liburuan eskribatua dagoanaren araura, Jaunak agindu zuen bezela: Ez dira ilko gurasoak semeakgatik, ezda semeak ere ez dira ilko gurasoakgatik, baizik bakoitzak ilko da bere bekaturik gatik.

7. Onek beronek desegin zituen amar milla Idumear Gatzagako ibarrean, eta artu zuen indarrez Petra, zeñi ots egin zion Jekthel, gaurko eguneraño irautzen duen izena.

8. Orduan bialdu ziozkan mandatariak Amasiasek, Joas Joakazen seme, Jehuren seme, Israelko erregeari, esaten zuela: Atoz, eta ikusi gaitzen.

9. Eta Joas Israelko erregeak bialdu zion Amasias Judako erregeari erantzura: Libanoko kardaberak bialdu zuen esatera, Libanon dagoan zedroari: Eman zaiozu zure alaba emaztetzat nere semeari, baña Libanon bizi diran basoko abereak irago ziran, eta zapaldu zuten kardua.

10. Nola zuk garaitu, eta desegin dituzun Idumearrak, argatik arrotu da zure biotza. Kontentatu zaitte zure gloriarekin, eta zaude zure etxean, zergatik zabiltza gaitzaren billa, galtzeko zu, eta Juda zurekin?

11. Baña Amasiasek etzitzia ongi iritzi. Argatik Joas Israelko erregea atera zan gerrara, eta elkar ikusi zuten berak, eta Amasias Judako erregeak, Betsames Judako errian.

12. Eta Juda izan zan Israelek desegina, eta iges egin zuten bakoitzak bere dendetara.

13. Eta Joas Israelko erregeak arrapatu zuen Betsamesen Amasias Judako erregea, Joasen semea, Okoziasen semea, eta eraman zuen Jerusalemenera, eta bota zuen Jerusalemgo murraren zati bat, Efraimgo atetik kantoiko ateraño, lareun besoan.

14. Eta artu zituen, Jaunaren elizan eta erregearen gordelekuetan arkitu ziran urre, eta zillar guztia, eta ontzi guztiak, eta ordeazkoak; eta itzuli zan Samariara.

15. Eta Joasen gañerako egitateak, eta nolako sendotasunarekin guduatu zan Amasias Judako erregearen kontra, ez al daude oiek eskribaturik, Israelko erregeen urteoroko berrien liburuan?



16. Atzenean Joas irago zan atsedetera bere gurasoakin, eta obiratua izan zan Samarian, Israelko erregeakin; eta Jeroboam bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

17. Eta Amasias, Joas Judako erregearen semea bizi izan zan, il ezke-ro Joas, Joakaz Israelko erregearen semea, amabost urtean.

18. Amasiasen egiteen gañerakoa, ez al dago eskribatua Judako erregeen urteoroko berrietako liburuan?

19. Onen kontra juramentatu ziran Jerusalemene, eta berak iges egin zuen Lakisera. Eta bialdu zituzten bere ondoren Lakisera, eta an il zuten.

20. Eta eraman zuten zaldiakin, eta obiratu zuten Jerusalemene bere gurasoakin, Dabiden errian.

21. Gero Judako erri guztiak artu zuen Azarias amasei urtekoa, eta jarri zuten erregetzan bere aita Amasiaren lekuan.

22. Onek egin zuen Elat, eta itzuli zion Judari, irago ezke-ro erregea atsedetera bere gurasoakin.

23. Amasias, Joas Judako erregearen semearen amabosgarren urtean, sartu zan erreñatzen samarian Jeroboam, Joas Israelko erregearen semea, eta erreñatu zuen berrogeita bat urtean.

24. Eta gaizki egin zuen Jaunaren aurrean. Etzuen alderik egin, Jeroboam Nabaten semearen bekatuetatik, zeñak bekatu erazi zion Israeli.

25. Berak berriz jarri zituen Israelko mugak asieran bezela, Ematen sarreratik Eremuko itsasoraño, Israelko Jaun Jainkoaren itzaren araura, zeñ esan zuen bere serbitzari Jonas, Amatien seme, Jetkoa zanaren bitartez, Oferren.

26. Zeren ikusi zuen Jaunak Israelko ansia txit mingoitza, eta galduak izan ziradela itxietan sarturik zeudenetarañoakoak, eta atzenerañoakoak, eta etzegoala nork lagundu zizaion Israeli.

27. Etzuen ere erabaki Jaunak borratzea Israelko izena zeruaren azpitik; eta ala libratu zituen, Jeroboam Joasen semearen eskuz.

28. Jeroboamen gañerako gauzak, eta egin zuen guztia, eta zelako sendotasunarekin gudan egin zuen, eta nola biurtu ziozkan Israeli Damasko eta Emat, Judakoa, ez al daude oiek eskribatuak Israelko erregeen urteoroko berrietako liburuan?

29. Atzenean Jeroboam joan zan atsedetera bere guraso Israelko erregeakin, eta Zakarias bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Jeroboam Israelko erregearen ogeita zazpigarren urtean, asi zan erreñatzen Azarias, Amasias Judako erregearen semea.

2. Amasei urte zituen erreñatzen asi zanean, eta erreñatu zuen berrogeita amabi urtean Jerusalemene. Bere amaren izena zan Jekelia Jerusalemengo.

3. Eta egin zuen Jaunaren gogokoa zana, jarraiturik gauza guztietan bere aita Amasiasi.

4. Baña alaere etzituen bota goietako tokiak, bada oraindik erriak egiten zituen eskeñtzak, eta erretzen zuen inzensoa goietan.

5. Baña Jaunak kastigatu zuen erregea, zeñ egon zan legenarrarekin illarteraño, eta bizi izan zan berezituta bakarrekote etxe batean. Bitartean Joatan bere semeak gobernatzan zuen jauregia, eta juzgatzen zuen alderri artako erria.

6. Azariasen gañerako gauzak, eta bere egite guztiak, ez al daude eskribatuak Judako erregeen urteoroko berrietako liburuan?

7. Irago zan atzenean Azarias atsedetzeraz bere gurasoakin, eta obiratu izan zan bere asabakin Dabiden errian, eta Joatam bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

8. Azarias Judako erregearen ogeita emezortzi garren urtean, erreñatu zuen Zakarias Jeroboamen semeak Israelen gañean, Samarian, sei illabetean.

9. Eta gaizki egin zuen Jaunaren aurrean, bere gurasoak egin zuten bezela etzuen alderik egin Jeroboam Nabaten semearen bekatuetatik, zeñak bekatu egin erazi zion Israeli.

10. Eta Selum Jabesen semea konjuratu zan bere kontra, eta zauritu zuen agirian, eta il zuen, eta erreñatu zuen bere lekuan.

11. Eta Zakariasen gañerako gauza guztiak, ez al daude guztiak eskribatuak Israelko erregeen urteoroko berrietako liburuan?

12. Au da Jaunak Jehuri eman zion itza, esaten zuela: Zure semeak laugarren belauneraño eseriko dira Israelko tronuan. Eta ala gertatu zan.

13. Selum bada Jabesen semeak erreñatu zuen Azarias Judako erregearen ogeita emeretzigarren urtean, eta erreñatu zuen il bakar batean Samarian.

14. Zeren Manahen, Gadien semea, joan zan Tersatik, eta etorri zan Samariara, eta zauriturik Selum Jabesen semea, il zuen, eta erreñatu zuen bere lekuan.

15. Selumen gañerako egiteak, eta amarroz irazki zuen konjurazioa, ez al daude oiek eskribatuak Israelko erregeen urteoroko berrien liburuan?



16. Orduan desegin zuen Manahemek Tapsa, eta bertan zeuden guztiak, eta bere alderriak Tersatik. Etziotelako idiki nai izan atea, eta il zituen aurra egiteko zeuden andre guztiak, eta idiki erazi zituen.

17. Azarias Judako erregearen ogeita emeretzi garren urtean erreñatu zuen Manahem, Gadien semeak Israelen gañean amar urtean, Samarian.

18. Eta egin zuen gaizkia zana Jaungoikoaren aurrean, etzuen alderik egin Jeroboam Nabaten semearen bekatuetatik, zeñak bekatu erazi zion Israeli bere denbora guztian.

19. Ful, Asiriarren erregea, etorri zan orduan erri onetara, eta eman ziozkan Manahemek Fuli milla talentu zillarrezko, lagundu zizaion, eta sendotu zezan bere erreñuan.

20. Eta Manahenek pagatu erazi zien diru au Israelko (sic) andizki eta aberatzai emateko Asiriarren erregeari, bakoitzak berrogeita amar siklo zillarrezko, eta biurtu zan Asiriarren erregea, eta etzan gelditu errian.

21. Manahemen gañerako gauzak, eta bere egite guztiak, ez al daude eskribatuak Israelko erregeen urteoroko berrietako liburuan?

22. Atzenean Manahem joan zan atsedetzera bere gurasoakin, eta bere seme Fazeiak erreñatu zuen bere lekuan.

23. Azarias Judako erregearen berrogeita amargarren urtean asi zan erreñatzen Fazeia Manahemen semea, Israelen gañean, Samarian, eta erreñatu zuen amar urtean.

24. Eta egin zuen gaizkia zana Jaunaren begietan, etzuen alderik egin, Jeroboam Nabaten semearen bekatuetatik, zeñak bekatu erazi zion Israeli.

25. Eta konjuratu zan bere kontra Fazei Romeliaren semea, bere agintari nagusia; zeñak eraso zion berrogeita amar gizon, berez Galaadkoakin, Samarian, errege etxeko dorrean, Argob, eta Arieren aldean, eta il zuen, eta erreñatu zuen bere lekuan.

26. Fazeiaren gañerako gauzak, eta bere egite guztiak, ez al daude eskribatuak, Israelko erregeen urteoroko berrietako liburuan?

27. Azarias Judako erregearen berrogeita amabigarren urtean, asi zan erreñatzen Fazei Romeliaren semea Israelen gañean, eta erreñatu zuen ogei urtean.

28. Eta egin zuen gaizkia dana Jaunaren aurrean, etzuen alderik egin, Jeroboam Nabaten semearen bekatuetatik, zeñak bekatu erazi zion Israeli.

29. Fazei Israelko erregearen egunetan etorri zan Theglathphalasar, Asurko erregea, eta artu zituen Aion, eta Abel Maakaren Etxea, eta Jande,

eta Zedes, eta Asor, eta Galaad, eta Galilea, eta Neptaliko lur guztia, eta eramane zituen bertan bizi ziranak Asiriara.

30. Baña Osee, Elaren semea konjuratu zan, Fazei Romeliaren semearen kontra, eta jarri ziozkan zelatadak, eta zauritu, eta il zuen. Eta erreñatu zuen bere lekuan, Joatam Oziasen semearen ogeigarren urtean.

31. Eta Fazeeren gañerako gauzak, eta egin zuen guztia, ez al dago guztia eskribatua, Israelko erregeen urteoroko berrietako liburuan?

32. Fazei Romeliaren seme, Israelko erregearen bigarren urtean, erreñatu zuen Joatam, Ozias Judako erregearen semeak.

33. Ogeita bost urte zituen asi zanean erreñatzen; eta erreñatu zuen amar urtean Jerusalemene, bere amaren izena Jerusa, Sadoken alaba.

34. Eta egin zuen Jaunaren gogokoa zana, eta ibilli zan beti, eta gauza guztietan, Ozias bere aita bezela.

35. Egia da etzituela desegin goietako tokiak. Oraindik erriak egiten zituen eskeñtzak, eta erretzen zuen inzensoa goietan. Berak egin zuen Jaunaren etxeko aterik goratuena.

36. Joatamen gañerako gauzak, eta bere egite guztiak, ez al daude onezkero eskribatuak, Judako erregeen urteoroko berrietako liburuan?

37. Egun aietan asi zan Jauna bialtzen Judaren kontra Rasin Siriako erregea, eta Fazei Romeliaren semea.

38. Irago zan Joatam atsedetzera bere gurasoakin, eta obiratua izan zan berakin, bere aita Dabiden errian. Eta Akaz bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Fazei, Romeliaren semearen amazapigarren urtean, igo zan tronura Akaz, Joatam Judako erregearen semea.

2. Ogei urte zituen Akazek erreñatzen asi zanean, eta erreñatu zuen Jerusalemene amasei urtean. Etzuen egin, bere Jaungoikoaren begien gogokoa zana, Dabid bere aitak bezela.

3. Baizik ibilli zan Israelko erregeen bidetik, eta gañera konsagratu zuen bere semea, irago erazirik sutatik, jentillen idoloen araura; zeñak desegin zituen Jaunak Israelko semeen aurrean.

4. Eskeñtzen ere zituen doañak, eta erretzen zuen izensoa goietan, eta muñatsetan, eta edozeñ zuaitz ostotsuren azpian.

5. Orduan Rasin Siriako erregea, eta Fazei, Romelia Israelko erregearen semea, igo ziran Jerusalem setiatzera, eta setiatua iduki ezkeru Akaz, ezin izan zuten garaitu.



6. Denbora artan Rasin Siriako erregeak berriz elkatu zuen Aila Siria-ekin, eta bota zituen Juduak Ailatik; eta Idumearrak etorri ziran Ailara, eta bizi dirade an gaurko eguneraño.

7. Eta Akazek bialdu zituen mandatariak Theglathfhalasar Asiriarren erregeagana, esaten zuela: Zure serbitzaria naiz, eta zure semea, atoz, eta gorde nazazu Siriako erregearen eskuetatik, eta Israelko erregearen eskue-
tatik, zeñak jaiki diraden nere kontra.

8. Eta bildurik arkitu al zuen zillar, eta urre guztia Jaunaren etxean, eta erregearen gordairuetan, bialdu ziozkan doañak Asiriarren erregeari.

9. Eta onek oben egin zuen bere borondatera, igo zan bada Asiri-
arren erregea Damaskora, eta desegin zuen, eta bertan bizi ziranak eraman
zituen Lirenera, eta il zuen Rasin.

10. Eta joan zan Akaz erregea bidera irtetzera Theglathfhalasar Asi-
riarren erregeari Damaskora, eta ikusirik Damaskoko aldea, bialdu zion
Akaz erregeak Urias apaiz nagusiari bere irudi, txit osotoro adirazten
zituena bere lan guztiak.

11. Eta Urias apaizak egin zuen aldare bat, guztian Akaz erregeak
Damaskotik agindu zionaren araukoa; ala egin zuen Urias apaizak, alike-
ta etorri zan artean Akaz erregea Damaskotik.

12. Eta etorri zanean erregea Damaskotik, ikusi zuen aldea, eta
beneratu zuen; eta igo zan, eta eskeñi zituen opariak, eta bere doña,

13. Eta egin zituen libazioak, eta isuri zuen, aldarearen gañean, illak
izan ziran doñ paketsuen odola.

14. Eta Jaunaren aurrean zegoan aldea eraman zuen elizaren atari-
tik, eta bere lekutik, eta bere toki egokitik Jaunaren elizan, eta jarri zuen
aldare aren aldamen batean, ifarraldean.

15. Agindu ere zion Akaz erregeak Urias apaizari, esaten zuela:
Eskeñiko dezu aldare andi onen gañean goizeko doñ dana errea, eta
arratsaldeko eskeñtza, eta erregearen holokaustoa, eta bere oparia, eta
lurreko erri guztiko holokaustoa, eta beren eskeñtzak, eta beren libazio-
ak. Eta isuriko dezu bere gañean holokaustoaren odol guztia, eta abere
illaren odol guztia; bronzeko aldea berriz egongo da gertua nere era-
bakira.

16. Egin zuen bada Urias apaiz nagusiak, Akaz erregeak agindu zion
guztia.

17. Eta Akaz erregeak kendu zituen ondape otallutuak, eta gañean
zeukaten maskorra; eta kendu ere zuen itsasoa brontzeko idien gañetik,
zeñak irozotzen zuten, eta utzi zuen bean, zeñ zegoan arlosatua.

18. Berebat kendu zuen larunbateko Musak, elizan egin zuena, eta
kanpoan zegoan erregearen iraitzea aldatu zuen Jaunaren elizara, Asiria-
ko erregeagatik.

19. Akazek egin zituen beste gauzak, ez al daude berak eskribituak
Judako erregeen urteoroko berrietako liburuan?

20. Eta Akaz joan zan lotara bere gurasoakin, eta izan zan obiratua
berakin Dabiden errian, eta bere seme Ezekiasek erreñatu zuen bere
lekuan.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Akaz Judako erregearen amabigarren urtean erreñatu zuen Osee
Elaren semeak, Samarian, Israelen gañean, bederatzit urtean.

2. Eta egin zuen gaizkia Jaunaren aurrean, baña ez bera baño lenago
izan ziran Israelko erregeak beste.

3. Onen kontra etorri zan Salmanasar Asiriarren erregea, eta egin
zan Osee bere mendeko, eta pagatzen zion kotiza.

4. Eta jakinik Asiriarren erregeak, Oseek bialdu ziozkala mandata-
riak Sua Ejiptoko erregeari, Asiriako erregearen kontra jaikitzeo asmoa-
rekin, eta kotizik ez pagatzeko, urteoro oi zuen bezela, setiatu zuen, eta
arrapaturik, lotuta presoindegan sartu zuen.

5. Eta egin zituen ibillerak lur guztitik, eta igorik Samariaren kontra,
iduki zuen ingurutua iru urtean;

6. Baña Oseeren bederatzigarren urtean, artu zuen Asiriako erregeak
Samaria, eta eraman zituen Israeltarrak Samariara, eta jarri zituen Halan,
eta Haborren, Medoen errietan, Gozan ibaiaren aldean.

7. Eta au izan zan Israelko semeak pekatu egin zutelako, adoratzen
zituztela jainko arrotzak, beren Jaun Jaungoikoaren kontra, zeñak atera
zituen Ejiptoko lurretik, Faraon Ejiptoko erregearen mendetik;

8. Eta jarraitzen zieztelako Jaunak Israelko semeen aurrean desegin
zituen erreñuen oiturai, eta orobat egin zuten, Israelko erregeen oiturai.

9. Eta ofenditu zuten Israelko semeak beren Jaun Jainkoa egite ez
onakin; eta egin zituzten berentzat toki goratuak beren erri guztietan, zai-
tzallen dorretik asita erri sendoraño.

10. Eta egin zituzten talluak, eta basoak muñats goratu guztian, eta
zuaitz ostotsu guztien azpian.

11. Eta erretzen zuten an inzensoa aldareen gañean, Jaunak beren
aurrean andikan kendu zituen erreñuak bezela, eta egin zituzten gauza txit
gaiztoak, aserretu erazitzen ziotela Jaunari.



12. Eta adoratu zituzten zikinkeriak, zeñakgaitik agindu zien Jaunak ez egiteko alako gauzarik.

13. Onen gañean etzion beñere utzi Jaunak adirazteari, ala Israelen, nola Judan, profeta eta ikusle guztien bitartez, esaten zuela: itzuli zaitzete zuen oitura txit gaiztoetatik, gorde itzatzute nere aginteak eta zeremoniak, zuen gurasoai eman niezten lege guztien araura, eta esatera bialdu dizute-dan bezela nere serbitzari profeten bitartez.

14. Berak etzuten aditu, baizik gogortu zituzten beren lepoak, jarraiturik beren gurasoen gogortasunari, zeñak etzioten obeditu nai izan beren Jaun Jainkoari.

15. Eta bota zituzten bere legeak, eta beren gurasoakin egin zuen elkartasuna, eta beren kontra esan zituen gauzak, eta jarraitu zieten arrokeriari, eta txoratu zitzaizten, eta jarraitu zieten beren inguruan zeuden erreñuari, zeñakgaitik agindu zien Jaunak, ez egiteko berak egiten zutenik.

16. Eta utzi zituzten beren Jaun Jainkoaren aginte guztiak, eta egin (sic) zituzten menast urtuzko bi txal, eta basoak, eta adoratu zuten zeruko ejerzitu guztia, eta serbitu zuten Baal.

17. Eta eskeñi zituzten beren semeak eta beren alabak suaren bitartez, eta ibilli ziran aztinanzetan eta asmaziotean; eta egin zuten gaiztake-ria guztia Jaunaren aurrean, aserretu erazitzeko.

18. Argatik txit aserretu zan Jauna Israelen kontra, eta bota zuen bere aurretik, eta etzan gelditu baizik Judako tribua bakarrik.

19. Judak berak ere etzituen gorde bere Jaun Jainkoaren aginteak, baizik ibilli zan Israelek egin zituen utsegitetan.

20. Eta ala Jaunak bota zuen Israelko jatorri guztia, eta atsekabetu zituen; eta jarri zituen, berak mendean zeuzkatenen eskuetan, bota zituen artean osoz bere aurretik.

21. Denbora artatik, zeñean Israelek, berezitzen zala Dabiden etxetik, autu zuen bere erregetzat Jeroboam Nabaten semea; bada Jeroboam-ek aldeerazi zion Israeli Jaunagandik, eta erori erazi zion pekatu andian.

22. Eta Israelko semeak ibilli ziran, Jeroboam-ek egin zituen pekatu guztietan, eta etzuten alderik egin beretatik,

23. Aliketa kendu zuen artean Jaunak Israel bere aurretik, esan zuen bezela bere serbitzari profeta guztien bitartez, eta izan zan Israel erama-na bere erritik Asiriarretara, non dagoan gaurko eguneraño.

24. Eta Israelko semeen lekuan etorrierazi zien Asiriarren erregeak, Babiloniako, eta Kutako, eta Abahko, eta Ematko, eta Sefarbaimko jendeai, eta jarri zituen Samariako errietan, eta jende oiek izan ziran Samariaren jaubeak, eta bizi izan ziran bere errietan.

25. Eta asi ziradenean bizi izaten an, etzeukaten Jaunaren beldurrik; eta Jaunak bialdu zituen beren kontra leoiak, zeñak iltzen zituzten.

26. Eta eman zioten Asiriarren erregeari gauza onen gastigua, eta esan zioten: Zuk bialdu dituzun jendeak bizitzeko Samariako errietan, ez dakite nola adoratu erri artako Jaungoikoa, eta Jaunak bialdu ditu beren kontra leoiak, zeñak iltzen dituzten, ez dakitelako berak nola adoratu erri artako Jaungoikoa.

27. Eta Asiriarren erregeak agindu zuen esaten zuela: Eraman ezazute ara, andik katibu ekarri zenduzten apaizetatik bat, eta joan bedi berakin bizitera, eta erakutsi bizaiote nola adoratu erri artako Jaungoikoa.

28. Joanik bada ara, Samariatik katibu ekarriak izan ziraden apaizetatik bat, bizi izan zan Betelen, eta erakusten zien nola ondratu Jauna.

29. Alaere, erri aietatiko bakoitzak egin zituen beren Jaungoikoak, zeñak jarri zituzten, Samarian egin zituzten goietako elizetan, erreñu bakoitzak bizi zan errietan.

30. Zeren Babiloniarrak egin zuten Sokotbenot; eta Kutearrak Nerjel, eta Ematkoak Asima.

31. Hebearrak jarri zituzten Nebahaz eta Tartak. Sefarbaimkoak ziradenak berriz, erretzen zituzten beren semeak, Adramelek, eta Anamelek Sefarbaimko jainkoen ondran.

32. Eta alaere adoratzten zuten Jauna. Eta egin zituzten berentzat goietako apaizak zatarrenetatik, eta jartzen zituzten garaietako elizetan.

33. Eta adoratzten zutela Jauna, serbitzen ere zituzten beren jainkoak, erreñu aien araura, zeñatatik izan ziraden eramanak Samariara.

34. Gaurko eguneraño jarraitzen diote anziñako oiturari, ez dute Jaunaren beldurrik, ez dituzte ere gordetzen bere zeremoniak, ez elizkizunak, ez legeak, ezta Jaunak Jakoben semeai jarritako aginteak, zeñi ipiñi zion Israel izengoitizat.

35. Zeñakin egin zuen elkartasuna, eta zeñai agindu zien, esaten zuela: Ez ezazute jainko arrotzen beldurrik iduki, ez itzatzute adoratu, eta etzaiezute egin elizgauzarik batere, eta etzaieztezute eskeñi doañik:

36. Baizik Ejiptoko lurretik sendotasun andiarekin, eta bere beso indartsuarekin atera zinduzten, zuen Jaun Jaungoikoari; orren beldur izango zerate, ori adoratuko dezute, eta orri eskeñiko diozkazute doañik.

37. Berebat zaitu izatzute, eskribuz eman zizkizuten zeremoniak, eta erabakiak, eta legeak, eta aginteak, betetzen dituzutela egun guztietan, eta etzaitezte jainko arrotzen beldur izan.

38. Eta etzaitezte aztu, zuekin egin zuen elkartasunarekin, eta etzaiezute elizkizunik egin jainko arrotzai,



39. Baizik izan zaitezte zuen Jaun Jainkoaren beldur, eta berak atera-ko zaituzte zuen etsai guztien eskuetatik.

40. Berak berriz etzituzten aditu, baizik bizi ziran beren anziñako oituraren araura.

41. Eta ala jende oiek iraun zuten Jaunaren beldur ziradela, baña alae-
re beren idoloak ere serbitzen zituzten, eta beren gurasoak egin zutena,
au bera egiten dute gaurko eguneraño beren semeak, eta illobak.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Osee, Ela Israelko erregearen semearen irugarren urtean, asi zan erreñatzen Ezekias, Akaz Judako erregearen semea.

2. Ogeita bost urtekoa zan asi zanean erreñatzen, eta erreñatu zuen Jerusalem ogeita bederatziz urtean. Bere amaren izena zan Abi, Zakaria-
sen alaba.

3. Eta egin zuen Zakariasek ona zana Jaungoikoaren begietan, Dabid bere aitak egin zituen gauza guztien araura.

4. Berak desegin zituen goiak, eta zatitu jainkoen irudiak, ebaki baso-
ak, eta puskatu, Moisesek egin zuen bronzeko sugea; zeren denbora artaraño Israelko semeak erretzen zioten inzensoa, eta deitu zion Nohes-
tan.

5. Israelko Jaun Jainkoagan itxedon zuen, eta ala bere ondoan etzan izan Judako errege guztien artean bere antzekorik, ezta bera baño lenago izan ziradenetan ere.

6. Eta iraun zuen Jaunari itsatsia; eta etzuen alderik egin bere aztar-
netatik; baizik gorde zituen, Jaunak Moisesi eman ziozkan aginteak.

7. Argatik Jauna ere berarekin zegoan, eta erasotzen zitzaien gauza guztietan, agertzen zuen jakinduria andia.

8. Desegin zituen Filistintarrak Gazaraño, eta arrasatu zuen beren erri guztia, gordetzallen dorreetatik, erri sendotaraño.

9. Ezekiasen laugarren urtean, zeñ zan Osee, Ela Israelko erregearen semearen Zazpigarren urtea, etorri zan Salmasar Asiriarren erregea Samariaren kontra, eta setiatu zuen,

10. Eta artu zuen. Samaria bada izan zan artua iru urteko setio baten ondoan, Ezekias erregearen seigarren urtean, au da, Osee Israelko erre-
gearen bederatzigarren urtean.

11. Eta Asiriarren erregeak eraman zituen Israeltarrak Asiriara, eta ipiñi zituen Halan eta Haborren, Medoen errietan, Gozan ibaiaren aldean,

12. Etzutelako aditu nai izan beren Jaun Jainkoaren boza, baizik autsi-
zutelako bere elkartasuna, eta etzutelako aditu, ez egin, Moises Jaunaren serbitzariak agindu zien gauzarik batere.

13. Ezekias erregearen amalagarren urtean, igo zan Senakerib Asi-
riarren erregea, Judako erri sendo guztien kontra, eta artu zituen.

14. Orduan Ezekias Judako erregeak bialdu zituen mandatariak Asi-
riarren erregeagana Lakisera, esaten zuela: Ez det egin bear nuena, baña alde zaite nigandik, eta nik egingo det agintzen didazun guztia. Agindu zion bada Asiriarren erregeak Ezekias Judako erregeari, eman zizazkiola irureun talentu zillar, eta ogei talentu urre.

15. Eman zion bada Ezekias, Jaunaren etxean, eta erregearen gor-
dairuetan zegoen zillar guztia.

16. Denbora artan zatitu zituen Ezekias Jaunaren elizako atepak, eta urrezko plantxak, zeñakin berak guarnitu zituen, eta eman ziozkan Asi-
riarren erregeari.

17. Asiriarren erregeak berriz bialdu zituen Lakistik Jerusalemera Ezekias erregearen kontra Tartan, eta Rabsaris, eta Rabsazes soldadu askorekin, zeñak igo ziran eta etorri ziran Jerusalemera, eta gelditu ziran goiko putzuaren odiaren aldean, zeñ dagoan Garbitzallearen kanpoaren bidearen gañean.

18. Eta ots egin zioten erregeari, eta atera ziran berak gana Eliazim Helziasen seme, etxeko Buruzagia, eta Sobna sekretarioa, eta Joahe Asa-
fen seme Kanzillerra.

19. Eta Rabsazesek esan zien: Esan zaiozute Ezekiasi, Oiek esaten ditu errege andiak, Asiriarren erregeak: Zer itxedopen da daukazuna?

20. Gudarako prestatzeko asmoa bai al dezu? Zertan daukazu zure esperanza niri gogor egiten ausartzeko?

21. Ejiptogan itxedotzen bai al dezu, zeñ dan kañabera zart eginda-
koaren eskumakilla bat, zeñaen gañean etziten bada gizona, autsirik sar-
tuko zaion eskuan, eta iragoko zaion baterik bestera? Alakoa da Faraon Ejiptoko erregea, beragan itxedotzen duten guztientzat.

22. Eta esaten badidazute: Gure Jaun Jaungoikoagan daukagu itxe-
dopena, ez al da au bera, zeñaen goiak eta aldareak kendu dituen Ezekia-
sek, eta agindu diona Judari eta Jerusalem, Aldare onen aurrean adoratu-
ko dezute Jerusalem?

23. Orain bada irago zaitezte, Asiriarren errege nere Jaunagana, eta emango dizkizute bi milla zaldi, eta ikusi ezazute iduki al badezakezute zeñ jarri beren gañean.



24. Baña nola gogor egin zatzaiozkake nere jaunaren serbitzari txi-kienetatiko satrapa bati ere? Ala Ejipton bai al daukazu zure itxedopena bere gurdi eta zaldizko jendeagatik?

25. Nere jaunaren agindu gabe etorri bai al naiz erri orretara arrasat-za? Zoaz erri orren kontra, esan zidan jaunak, eta arrasatu ezazu.

26. Orduan Eliazim Elziasen semeak, eta Sobnek, eta Joahek esan zioten Rabsazes: Erregutuzten dizugu itz egin dizaguzula guri zure ser-bitzariari Siriako itzkuntzan, zeren aditzen degu izkuntza au, baña ez Hebreoarren izkuntza, zeñ aditzen duen, murruen gañean dagoan erriak.

27. Erantzun zien Rabsazesek, esaten zuela: Nere jaunak bialdu bai al nau zure jaunagana eta zugana, itz oiek esatera, eta ez obegiago murruaren gañean dauden gizonakgana, etorri ez ditezten jatera zuekin beren zikinkeriak, eta edatera beren garnurak?

28. Orduan Rabsazes jarri zan zutik, eta deadar egin zuen boz andia-rekin Hebreoen izkuntzan, eta esan zuen: Aditu itzatzute errege andiaren, Asiriarren erregearen itzak.

29. Oiek esaten ditu erregeak: Etzaitzate la engañatu Ezekiasak, zeren ezin libratuko zaituzte nere eskutik.

30. Ez dizazutela ere itxedon erazi Jaunagan, esaten duela: Ziertoro libratuko gaitu Jaunak, eta ez da izango jarria erri au Asiriako erregearen eskuetan.

31. Ez etzaiozute aditu Ezekiasi, zeren oiek esaten ditu Asiriako erre-geak: Egin ezazute nerekin zuentzat ona dana, eta atera zaitezte nigana, eta zuetatik bakoitzak jango du bere mastitik, eta bere pikutik; eta edan-go dituzute zuen urpetegietako urak,

32. Aliketa etorri nadin artean, eta eraman zaitzatedan artean, zuen lurraren idurikoa dan lur batera, lur frutuemalle batera, eta ardo ugariko-ra, ogiaren eta mastien lurrera, oliboen, eta olioaren, eta eztiaren lurrera, eta biziko zerate, eta etzerate ilko. Etzaiozute aditu Ezekiasi, zeñak engañatzen zaituzten, esaten duela: Jaunak libratuko gaitu.

33. Jendeen jainkoak libratu bai al zuten beren lurra, Asiriako erre-gearen eskutik?

34. Non da Ematko, eta Arfadko jainkoa? Non da Sefarbaim, Ana, eta Abako jainkoa? Libratu bai al zuten Samaria nere eskutik?

35. Zeñak dirade lurreko jainko guztien artean, libratu zutenak beren erria nere eskutik, Jerusalemgo Jaungoikoak libratu al izan dezakean nere eskutik?

36. Ixillik egon zan bada erria, eta etzion ezertxoere erantzun, zeren artu zuten erregearen agintea, etzaotela erantzun.

37. Eta etorri ziran Eliazim Elziaren seme, etxeko buruzagia, eta Sobna sekretarioa, eta Joahe Asafen seme Kanzillera, Ezekiasgana, soñe-koak urratuta, eta adirazi ziozkaten Rabsasiren itzak.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Aditu zituenean oiek Ezekias erregeak, urratu zituen bere soñeko-ak, eta estali zan saio batekin, eta sartu zan Jaunaren etxean.

2. Eta bialdu zituen Eliazim bere etxeko buruzagia, eta Sobna sekre-tarioa, eta apaizetatik zarrenak saioz estaliak, itz egitera Isaias profeta, Amosen semeari.

3. Zeñak esan zioten: ansia, zemai, eta blasfemien eguna da au, alle-gatu ziran semeak jaiotzeko uneraño; baña egiteko dagoanak ez du inda-rrik.

4. Zure Jaun Jainkoak aditu izango ditu Rabsasesen (sic) itz guztiak, zeñ izan dan, bere nagusi Asiriako erregeak bialdua, iseka egitera Jaun-goiko biziari, eta irainez betetzera, zure Jaun Jainkoak aditu dituen itzakin, erregutu ezazu bada, gelditu diran gutxi oiek gatik.

5. Joan ziran bada Ezekias erregearen serbitzariak Isaiasgana.

6. Eta esan zien Isaiasek: Oiek esango diozkazute zuen nagusiari: Oiek esaten ditu Jaunak: Ez dezu zertan iduki, aditu dituzun itzen beldu-rrik, zeñakin blasfematu duten nere kontra Asiriako erregearen morroiak.

7. Ona emen non nik bialduko diodan espiritu bat, eta adituko du berri bat, eta itzuliko da bere errira, eta botako det gañibitaz bere errian.

8. Itzuli zan bada Rabsazes, eta arkitu zuen Asiriarren erregea gudan ari zala Lobnaren kontra, zeren aditu zuen, alde egin zuela Lakistik.

9. Senakeribek berriz, aditurik Taraka Etiopiako erregea atera zala gudadzera bere kontra, errege onen kontra joateko denboran, bialdu zioz-kan mandatariak Ezekiasi, esaten ziotela:

10. Oiek esango diozkazute Ezekias Judako erregeari: Etzaitzate utzi, zure Jaun Jainkoak engañatua izaten, zeñagan jartzen dezun zure itxedo-pena, eta ez ezazu esan: Jerusalem ez da izango jarria Asiriako erregearen eskuan:

11. Zuk zerorrek aditu dezun ezkerro, zer egin duten Asiriako erre-geak beste errietan, eta nola arrasatu dituzten, Zu bakarrik izango bai al zera libratu zaitekeana?

12. Jendeen jainkoak libratu al zuten, nere gurasoak desegindako aie-tatikoren bat, au da, Gozan, eta Haran, eta Resef, eta Thelasarren zeuden Eden semeak?



13. Non da Emat erregea, eta Arfad erregea, eta Sefarbain erriko erregea, eta Ana, eta Aba?

14. Ezekiassek bada artu zuenean txartela mandatarien eskutik, eta irakurri zuenean, igo zan Jaunaren etxera, eta zabaldu zuen Jaunaren aurrean,

15. Eta erregutu zuen bere aurrean, esaten zuela: Israelko Jaun Jainko, Kerubinen gañean eseria zaudena, zu bakarrik zera, lurreko errege guztien Jaungoikoa, zuk egin ziñituen zerua eta lurra.

16. Zeartu itzatzu zure belarriak, eta aditu ezazu, idiki itzatzu, Jauna, zure begiak, eta begiratu ezazu, aditu itzatzu Senakeriben itz guztiak, zeñiak bialdu dituen, Jaungoiko biziagatik blasfematzeraz gure artean.

17. Egia da, Jauna, Asiriako erregeak arras desegin dituztela jendeak, eta beren lurak.

18. Eta bota dituzte sutara beren jainkoak, eta desegin dituzte, zeren etziran Jaungoikoak, baizik gizonen eskuko lanak, zurez eta arriz egiñak.

19. Orain bada, o gure Jaun Jainkoa, gorde gaitzatzu onen eskutik, jakin dezaten lurreko erreñu guztiak, zu bakarrik zerala Jaun Jaungoikoa.

20. Orduan Isaias Amosen semeak bialdu zuen esatera Ezekias: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Aditu det, Senakerib Asiriako erregearen gañean egin didazun otoiza.

21. Ona emen Jaunak bere kontra eman duen erabakia: Siongo alaba donzellak gutxitan iduki zaitu, eta iseka egin dizu. Zure ostein mugitu du burua Jerusalengoa alabak.

22. Zeñ uste dek iñakindu dekala, eta zeñgatik blasfematu dekala? Zeñaen kontra jaso dek boza, eta altxatu dituk ire begiak? Israelko Santuaren kontra.

23. Ire morroien aoz iñakindu dek Jauna, eta esan dek: Nere gurdien ugaritasunarekin igo naiz mendi goratuen gañera, Libanoren erpiñera, eta ebaki ditut bere zedro goratuak, eta bere pagorik obenak, sartu naiz bere atzeneko mugetaraño, eta bere Karmeloren basoraño.

24. Nik ebaki ditut. Nik edan ditut besteen urak, eta leortu ditut nere oñen azpiakin, itxita zeuden ur guztiak.

25. Ez al dek aditu zer egin nikan asieratik? Anziñako egunetatik egin dikat, eta orain etorri erazi ziokat, eta erri sendoak izango dituk, muñats gudan ari ditukanen galmenerako.

26. Eta beretan bizi itukanak, gelditurik indar gabe beren besoetan, izutu eta lotsatu itukan, eta etorri gelditzera kanpoko belarluzea bezela, eta tellatuetako belar berde, bere denborara allegatu baño lenago leortzen dana bezela.

27. Nik lendanaz ikusi nikan ire bizilekua, ire irteerak, eta ire sarre-rak, eta ire bidea, eta ire aserrea nere kontra.

28. Zoratu aiz nere kontra, eta allegatu dek nere belarrietara ire arro-keria. Nik jarriko dikat bada burniarrakzi bat ire sudurretan, eta itzuli era-ziko dikat etorri intzan bidetik.

29. Zuri berriz, o Ezekias, ematen dizut siñale au: Jan ezazu urte onetan, arkitzen dezuna, eta datorren urtean, berez ernetzen dana, baño iru-garren urtean ereiñ eta itaitu ezazute, jarri itzatzute mastiak, eta jan itza-tzute beren frutuak.

30. Eta Judako etxetik gelditzen dan guztiak, botako ditu barrena sustraiak, eta kanpoan emango ditu frutuak;

31. Zeren Jerusalendik aterako dira ondokin batzuek, eta Siongo mendi orretatik aterako da salbatuko dan jendea. Au da egingo duena, ejerzitzen Jaunaren zeloak.

32. Argatik ona emen Jaunak esaten duena Asiriako erregearen gañean: Ez da sartuko erri onetara, ez du ere botako bere kontra saietarik batere, eta ezkuturik ez da an izango, eta lutesiak ez du ingurutuko.

33. Etorri dan bidetik itzuliko da, eta ez da sartuko errian, dio Jaunak.

34. Bada nik anparatuko det erri au, eta gordeko det nere amorioagatik, eta Dabid nere serbitzariaren amorioagatik.

35. Egiaz gau artan, etorri zan Jaunaren aingerua, eta il zituen Asiriarren etzauntzetan, eun eta larogeita bost milla gizon. Eta jaikirik goizean goiz Senakerib Asiriarren erregea, ikusi zituen illen gorputz guztiak, eta alde egiñik, joan zan,

36. Eta itzuli zan Senakerib Asiriarren erregea, eta gelditu zan Nini-ben.

37. Eta ari zala elizan adoratzen Nesrok bere jainkoa, Adramelek eta Sarasar bere semeak ezpataz il zuten, eta iges egin zuten Armenioen lurrera, eta Asaraddon bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

OGEGARREN KAPITULUA

1. Denbora artan eritu zan Ezekias eriotzako eriarekin, eta etorri zan beragana Isaias profeta Amosen semea, eta esan zion: Oiek esaten ditu Jaunak: Zure etxearen erabakia eman ezazu, zeren ilko zera zu, eta etzera biziko.

2. Berak itzuli zuen arpegia paretarontz, eta erregutu zion Jaunari esaten ziola:



3. Ah Jauna, erregututzen dizut, arren oroitu zaitzezela nola ibilli naitzen zure aurrean zintasunarekin, eta biotzeko zuzentasunarekin, eta egin dedala zure begien gogokoa dana. Eta isuri zituen Ezekiassek malko ugarriak.

4. Baña Isaiasek atariaren erdia irago baño lenago, itz egin zion Jaunak, esaten zuela:

5. Itzuli zaitte, eta esan zaiozu Ezekias nere erriaren Gidariari: Oiek esaten ditu, Dabid zure aitaren Jaun Jainkoak: Aditu det zure erregua, eta ikusi ditut zure malkoak, eta ona emen non sendatu zaitudan, emendik iru egunera igoko zera Jaunaren elizara.

6. Eta luzetuko det zure bizia amabost urtean, gañera libratuko zaitut Asiriako erregearen eskutik zu, eta erri au, zeñ anparatuko dedan nere amorioagatik, eta Dabid nere serbitzariaren amorioagatik.

7. Eta esan zuen Isaiasek: Ekarri zadazute piku masa bat. Eta ekarri ziotenean, eta jarri zutenean erregearen zauriaren gañean, sendatua izan zan.

8. Ezekiassek berriz esanik zion Isaiasi: Zeña izango da, Jaunak sendatuko nauen siñalea, eta emendik iru egunera Jaunaren elizara igoko naitzanarena?

9. Isaiasek erantzun zion: Au izango da Jaunaren aldetik, Jaunak emandako itza beteko duenaren siñalea, nai dezu aurreratut dedilla itzala amar erraiatan, edo itzuli dedilla besteanbeste mallatan?

10. Esan zuen Ezekiassek: Gauza erraza da, itzala aurreratzea amar erraiatan; ez det nai ori izatea, baizik biurtu dedilla atzera amar mallatan.

11. Orduan Isaias profetak erregutu zion Jaunari, eta biurtu erazi zion itzalari atzera amar mallatan, Akazen erlojuan, ibillia zegoan amar erraetatik.

12. Denbora artan Berodak Baladan, Baladan Babiloniarren erregearen semeak, bialdu ziozkan txartelak eta doañak Ezekias, zeren aditu zuen eritu zala Ezekias.

13. Eta Ezekias poztu zan beren etorrerarekin, eta erakutsi zien likurten etxea, eta urrea, eta zillarra, eta okenduak, eta bere alajen gordelekua, eta bere gordairuetan zeukan guztia. Ez zegoan ezer bere etxean, ez bere mendean, Ezekiassek erakutsi etzienik.

14. Baña Isaias profeta etorri zan Ezekias erregea ikustera, eta esan zion: Zer esan dute gizon oriek? Edo nondik etorri dira zugana? Ezekiassek erantzun zion: Etorri dira ni ikustera, Babiloniako erri urrutiko batetik.

15. Eta berak erantzun zion: Zer ikusi dute zure etxean? Esan zuen Ezekias: Nere etxean dagoan guztia ikusi dute, ez dago ezer nere gordairuetan, erakutsi ez diedanik.

16. Orduan Isaiasek esan zion Ezekias: Aditu ezazu Jaunaren itza.

17. Ona emen non etorriko dan denbora, zeñean, zure etxean dau den gauza guzti oriek, eta gaurko eguneraño zure gurasoak bildu dituzten guztiak, izango diran eramanak Babiloniara, ez da geldituko gauzarik batere, esaten du Jaunak.

18. Baita zure seme, zugandik irtenak, eta zugandik sortuak izango diradenak ere, izango dirade eramanak, eta izango dirade Babiloniako erregearen jauregiko txikiratuak.

19. Erantzun zion Ezekias Isaiasi: Justoa da Jaunak zure aoz emandako erabakia, agintatu beza nere bizitzan bederik, pakeak, eta egiak.

20. Eta Ezekiasen gañerako egiteak, eta bere sendotasun andia, eta nola egin zuen putzua, eta eraman zuen ura errira, ez al dago au eskribatua, Judako erregeen urteoroko berrietako liburuan?

21. Eta Ezekias joan zan lotara bere gurasoakin, eta bere seme Manasesek erreñatu zuen bere lekuan.

OGEITABAT GARREN KAPITULUA

1. Amabi urtekoa zan Manasses erreñatzen asi zanean, eta erreñatu zuen Jerusalem berrogeita amabost urtean. Bere amaren izena zan Hapsiba.

2. Eta egin zuen gaizkia Jaunaren aurrean, jarraitzen ziela, Jaunak Israelko semeen aurrean desegin zituen jendeen idoloai.

3. Eta berriz egin zituen, bere aita Ezekias desegin zituen goiak, eta egin zituen Baalen aldareak, eta ipiñi zituen basoak, Akab Israelko erregeak egin zuen bezela, eta adoratu zituen zeruko izar guztiak, eta egin ziezten elizkizunak.

4. Eta egin zituen aldareak Jaunaren etxean, zeñagaitik Jaunak esan zuen: Jarriko det nere izena Jerusalem;

5. Eta Jaunaren elizako bi atarietan egin ziezten aldareak zeruko izar guztiak.

6. Eta bere beraren semeari irago erazi zion sutatik; eta eman zan aztiñantzetara, eta egazti sorginkerietara, eta jarri zituen gaizkin mirarigileak, eta ugaritu zituen igarleak, gaizki egiten zuela Jaunaren aurrean, eta aserretu erazitzen ziola.

7. Gañera jarri zuen Jaunaren elizan, basoan ipiñi zuen idoloa, arako elizan, zeñagaitik esan zioten Jaunak Dabidi eta bere seme Salomoni: Eliza



onetan eta Jerusalemen, zeñ daukadan autua Israelko tribu guztien artean, jarriko det nere izena betiko.

8. Eta emendik aurrera ez det utziko, Israeliek mugitu dezala bere oña, beren gurasoai eman nien lurretik; baldin gordetzen badituzte nere aginte guztiak, eta nere serbitzari Moisesen bitartez eman nuen lege guztia.

9. Berak berriz etzuten aditu, baizik izan ziran Manassesek engaña-tuak, egiteko, Jaunak Israelko semeen aurrean desegin zituen jendeak baño gaizki andiagoak.

10. Eta onela itz egin zuen Jaunak bere serbitzari profeten aoz, esaten zuela:

11. Manassek Judako erregeak egin dituelako nazkagarri txit gaizto oiek, bera baño lenago Amorreoak egin zituzten guztiak baño andiagoak, eta Judari ere bekatu erazi diolako bere zikinkeriak;

12. Argatik oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Ona emen non nik ezarriko ditudan Jerusalem eta Judaren gañean alako gaitzak, non, aditzen dituen guztiari, belarri biak dindatuko zaiozkan.

13. Eta neurtuko det Jerusalem, Samaria neurtu nuen lokarriarekin berarekin, eta Akaben etxea egin nuen bezelako berunarekin, eta arradatu det Jerusalem, arradatu oi diran bezela oltxoak; eta arradatuta, itzuli-ko det, eta iragoko det asko alditan bere gañetik eztena.

14. Eta utziko ditut nere soroaren kutsuak, eta jarriko ditut beren etsaien eskuetan, eta izango dirade, bere etsai guztiak arrasatu eta arrapatuak,

15. Gaizki egin zutelako nere aurrean, eta gogorturik jarraitu ziotelako aserretuerazitzeari neri, beren gurasoak Ejiptotik atera ziran egunetik gaurko eguneraño.

16. Gañera Manassesek isuri zituen odol obengabezko errekek Jerusalem gañez erazitzena, zenbatu gabe beste pekatuak, zeñakin pekatu erazi zion Judari, egin zezan gaizkia Jaunaren aurrean.

17. Eta Manassen gañerako egiteak, eta egin zuen guztia, eta egin zuen pekatua, ez al dago au eskribatua Judako erregeen urteoroko berrien liburuan?

18. Eta Manasses joan zan lotara bere gurasoakin, eta izan zan obiratu bere etxeko baratzean, Ozaren baratzean: eta Amon bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

19. Ogeita bi urte zituen Amonek erreñatzen asi zanean; eta bi urtean erreñatu zuen Jerusalemen. Bere amaren izena izan zan Messalemet, Harusen alaba, Jetebakoa.

20. Eta egin zuen gaizkia Jaunaren aurrean, Manasses bere aitak egin zuen bezela.

21. Eta ibilli zan, bere aita ibillitako bide guztitik, eta serbitu zituen, bere aitak serbitutako likizkeriak, eta adoratu zituen.

22. Eta utzi zuen bere gurasoen Jaun Jainkoa, eta etzan ibilli Jaunaren bidetik.

23. Eta bere serbitzariak jarri ziozkaten zelatadak, eta il zuten erregea bere etxean.

24. Eta lurreko erriak illerazi zituen, Amon erregearen kontra jaiki ziran guztiak, eta jarri zuten beren erregetzat bere lekuan Josias bere semea.

25. Eta Amonek egin zituen gañerako egitateak, ez al daude eskribatuak Judako erregeen urteoroko berrietako liburuan?

26. Eta obiratu zuten bere obian, Ozaren baratzean. Eta Josias bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Zortzi urtekoa zan Josias erreñatzen asi zanean, eta erreñatu zuen ogeita amaika urtean Jerusalemen. Bere amaren izena izan zan Idida Hadaiaren alaba Besekatkoa.

2. Eta egin zuen Jaungoikoaren gogokoa zana, eta ibilli zan bere aita Dabiden bide guztietatik. Etzan aldendu ez eskuira, ez ezkerrera.

3. Eta Josias erregearen emezortzi garren urtean bialdu zuen erregeak Safan Asliaren semea, Messulamen semea, Jaunaren elizako eskribaua, esaten ziola:

4. Zoaz Helzias apaiznagusiagana, eta esan zaiozu agindu dezala biltzeko Jaunaren elizan sartu dan dirua, zeñ artu duten erriagandik elizako atezaiak,

5. Eta eman dizaietela langilleai, Jaunaren etxeko lanarizaien eskuz, pagatuaz joan ditezen Jaunaren elizan lanean ari diradenai, ongitzeko eliza.

6. Au da, arotzai eta iyelsariai, eta berriztatzen dutenai gaztatua dagoena; eta erosi ditezen zurak eta arrobietako arriak, ongitzeko Jaunaren eliza.

7. Baña ez bizaiote eskatu, artzen duten diruaren konturik, baizik iduki dezatela berak, eta beren itzaren gañean.

8. Orduan Helzias apaiznagusiak esan zion Safan eskribauari: Arkitu det legeko liburua Jaunaren etxean. Eta Helziasek eman zion liburua Safani, zeñak ere irakurri zuen.



9. Eta Safan eskribaua biurtu zan erregeagana, eta eman zion agindu zionaren kontua, eta esan zuen: Zure serbitzariak bildu dute Jaunaren etxean arkitu dan dirua, eta eman diote, Jaunaren etxeko lanen lanarizaiak eman dizaioten langilleai.

10. Gañera Safan sekretarioak esan zion erregeari: Helzias apaiz nagusiak eman dit liburu au. Eta Safanek irakurri zuen erregearen aurrean.

11. Zeñak aditzean Jaunaren legeko liburuko itzak, urratu zituen bere soñekoak,

12. Eta agindu zien Helzias apaizari, eta Ahikam Safanen semeari, eta Akobor Mikaren semeari, eta Safan Eskribauari, eta Asaias erregearen ministroari:

13. Zoazte, eta itundu zaitezte Jaunarekin nere gañean, eta erriaren gañean, eta Juda guztiaren gañean, arkitu dan liburu onen itzen gañean, zeren andia da Jaunaren aserre, gure kontra erazeki dana; gure gurasoak etzituztelako aditu liburu onetako itzak, egiteko, guretzat eskribatua izan zan guztia.

14. Joan ziran bada Helzias apaiza, eta Ahikam, eta Akobor, eta Safan eta Asaias, billatzera Holda emakume profeta, Selum Tekuaren semearen, Araas soinkaizaren semearen emaztea, zeñ bizi zan Jerusalemene Bigarrean, eta itz egin zuten berarekin.

15. Eta berak erantzun zien: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Esan zaiozute nigana bialdu zaituzten gizonari.

16. Oiek esaten ditu Jaunak: Ona non nik ekarriko ditudan toki onen gañera, eta bertan bizi diradenen gañera, Judako erregeak legeko liburu orretan irakurri dituen gaitzak,

17. Utzi nautelako, eta eskeñi dieztelako doñañak jainko arrotzai, aserretu erazitzen didatela beren egite guztietan, eta erazekiko da nere sumintasuna toki onen kontra, eta ez da itzaliko.

18. Eta Jaunarekin ituntzera bialdu zaituzten Judako erregeari, esango diozute onela: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Aditu dituzulako liburu onen itzak,

19. Eta beldurtu dalako zure biotza, eta umillatu zeralako Jaunaren aurrean, aditurik toki onen kontrako, eta bertan bizi diradenen kontrako zemaia, au da, etorriko ziradela begiratuak izatera izu eta madarikazioarekin, eta urratu ziñituelako zure soñekoak, eta negar egin zenduelako nere aurrean; nik ere adituko zaitut, esaten du Jaunak.

20. Argatik bilduko zaitut zure gurasoakin, eta atsedengo dezu pakean zure obian, ikusi ez ditzaten zure begiak, toki onen gañera ekarriko ditudan gaitz guztiak.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Itzuli ziran bada adiraztera erregeari, emakume profetak esan zuena. Zeñak agindu zuen bereala, eta bildu ziran bere aurrean, Juda eta Jerusalemgo zar guztiak.

2. Eta igo zan erregea elizara, laguntzen ziotela Judako gizon guztiak, eta Jerusalem bizi ziranak, eta apaizak, eta profetak, eta erri guztiak, txikiak eta andiak, eta irakurri zituen beren aurrean, Jaunaren etxean aurkitutako elkartasuneko liburuko itz guztiak.

3. Eta erregea jarri zan zutik bere tronuan, eta egin zuen elkartasuna Jaunaren aurrean, jarraituko ziotela Jaunari, eta zaituko zituztela bere agintek, eta esanak, eta zeremoniak biotz guztiarekin, eta anima guztiarekin, eta berriz anziña bezela gordeko zituztela elkartasun onetako itz, liburu artan eskribituak zeudenak; eta erriak ontzat eman zuen elkartasun au.

4. Eta erregeak agindu zion Helzias apaiznagusiari, eta bigarren mallako apaizai, eta atezai, bota zituztela Jaunaren elizatik, Baalentzat, eta basoko idoloarentzat, eta zeruko izar guztientzat egiñak izan ziran ontziak, eta erre zituen Jerusalemendik kanpora Zedrongo ibarrean, eta beren autsak eraman erazi zituen Betelera.

5. Eta arras desegin zituen, Judako erregeak ipiñi zituzten egazti aztinak Judako errietan, eta Jerusalemgo inguruetan, eskeñtzeko doñañak toki goratuetan; eta inzensoa erretzen zienak Baali, eta Eguzkiari, eta illargiari, eta amabi siñaleai, eta zeruko izar guztiai.

6. Atera erazi ere zuen Jaunaren etxeko Basoko idoloa, eta eramanez zuen Jerusalemendik kanpora, Zedrongo ibarrera, non erre, eta auts biurtu zuen, zeñak zabaldu erazi zituen erriaren obien gañean.

7. Berebat desegin zituen emakumetuen etxetoak, zeñak egin zituzten Jaunaren etxean, zeñaentzat emakumeak eotzen zituzten etzauntzen gisako batzuek Basorako.

8. Eta bildu zituen Judako errietako apaiz guztiak, eta profanatu zituen goiak, non apaizak egiten zituzten eskeñtzak Gabaatik Bersabeeraño, eta desegin zituen ateetako aldareak, Josue erriko Prinzipearen etxeko sarreran, zeñ zegoan erriko atearen ezkerrean.

9. Goietako apaizak berriz etziran igoten Jaunaren aldarera Jerusalemene, baizik bakarrik jaten zituzten legamigabeak beren anaien erdian.

10. Berebat profanatu zuen Tofet, zeñ dagoan Ennomen semearen ibarrean, iñork ere konsagratu etzitzaion bere seme, edo alaba Molok-i.

11. Kendu ere zituen, Judako erregeak eguzkiari konsagratuta zeuzkaten zaldia, Jaunaren elizako sarreran, Natanmelek txikiratua bizi zan



tokiaren aldean, zeñ zegoana Farurimen, eta eguzkiaren gurdiak suaz erre zituen.

12. Orobat desegin zituen erregeak, Akazen gelaren sabaiaren gañean zeuden aldareak, zeñak izan ziran Judako erregeak egiñak; eta Manassek Jaunaren elizako bi atarietan egin zituen aldareak, eta joan zan agudo andik, eta beren autsa zabaldu zuen Zedrongo errekan.

13. Gañera profanatu zituen erregeak Jerusalemgo toki goratuak, zeñak zeuden Eskandaluko mendiaren eskuian, Salomon Israelko erregeak egiñak, Astarot Sidontarren idoloari, eta Kamos, Moabko eskandaluari, eta Melkom, Ammonen semeen lotsariari.

14. Eta desegin zituen irudiak, ebaki eta soilldu zituen basoak, eta illen ezurrez bete zituen toki aiek.

15. Gañera Betelen zegoan aldarea, eta Jeroboam Nabaten seme, Israeli pekatu eragin zionak egindako toki goratua, bata eta bestea desegin, erre, eta auts biurtu zituen; eta basoa ere erre zuen.

16. Eta itzulirik Josiasek begiak, ikusi zituen mendian zeuden obiak, eta bialdu zituen ateratzera obietako ezurrak, eta erre zituen aldarearen gañean, eta onenbesterekin profanatu zuen; Jaunaren itz, Jaungoikoaren gizon, gauza oiek lendanaz adirazi zituenak esandakoaren aurara,

17. Eta esan zuen: Zer monimentu (sic) da, ikusten dedan hura? Eta erantzun zioten erri artakoak: Da Judatik etorri zan Jaungoikoaren gizonaren obia, zeñak lendanaz adirazi zituen, Betelko aldarearen gañean egin dituzun gauza guzti oiek.

18. Eta esan zuen erregeak: Utzi zaiozute, ez ditzala iñork mugitu bere ezurrak; eta ala bere ezurrak gelditu ziran iñork ukitu gabe, Samariatik etorritako profetaren ezurrakin.

19. Azkenik kendu zituen Josiasek, Samariako errian zeuden goietako adoratokiak, Israelko erregeak egiñak, Jaunari aserretu erazitzeko, eta egin zuen berakin Betelen egin zuena hura bera.

20. Eta il zituen goietako apaiz guztiak, zeñak zeuden an aldareak zaitzen, eta aldare onen gañean erre zituen gizaezurrak, eta itzuli zan Jerusalemenera.

21. Azkenik eman zion aginte au erri guztiari: Zelebratu zaiozute Paskoa zuen Jaun Jaungoikoari, elkartasuneko liburu onetan eskribatua dagoan bezela.

22. Beñere ez zan zelebratu Paskoa berdiñik, Israel gobernatu zuten Juezen denboratik, ez Israelko erregeen denbora guzian ere, ez Judako erregeenean,

23. Nolokoa izan zan Paskoa au, zelebratu zana Jaunaren honran Jerusalemenera, Josias erregearen emezortzi garren urtean.

24. Kendu ere zituen Josiasek, gaizkin igarleak, eta aztiak, eta idoloen irudiak, eta Judako eta Jerusalemgo errietan gelditu ziran zikinkeria eta nazkagarriak, berriz jartzeko bere indarrean, Helzias apaiz nagusiak Jaunaren elizan aurkitutako liburuan eskribatuak zeuden legeko itzak.

25. Bera baño lenagokoetan etzan izan erregerik batere, au bezela biurtu zanik Jaunagana bere biotz guztitik, bere anima guztitik, eta bere indar guztiakin, jarraitzen ziola guztian Moisesen legeari. Eta bere ondoran ere etzan jaio besterik bere antzekorik.

26. Alaere etzuen utzi Jaunak, Judaen kontra erazekitako bere aserre sumiña, Manassesek egin ziozkan irañak gatik.

27. Eta ala esan zuen Jaunak: Nik botako det nere aurretik Juda ere, Israel bota nuen bezela; eta botako det Jerusalem, orrako erri nik autu nuena, eta eliza zeñagatik esan nuen: Emen ots egingo zaio nere izenari.

28. Eta Josiasen gañerako egiteak, eta egin zuen guztia, ez al dago au eskribatua Judako erregeen urteoroko berrien liburuan?

29. Bere denboran Faraon Nekaok Ejiptoko erregea, igo zan Asiriarrren erregearen kontra, Eufrates ibairontz, eta Josias erregea irten zitzaion bidera, eta ikusi zueneko, izan zan illa Magjedonen.

30. Eta bere serbitzariak eraman zuten illa Magjedotik, eta eraman zuten Jerusalemenera, eta lurpetu zuten bere obian. Orduan lurreko erriak artu zuen Joakaz Josiasen semea, eta igortzi zuten, eta jarri zuten erregeztat bere aitaren lekuan.

31. Ogeita iru urte zituen Joakazek erreñatzen asi zanean, eta erreñatu zuen iru urtean Jerusalemenera. Bere amaren izena zan Amital, Jeremiasen alaba, Lobnakoa.

32. Eta gaizki egin zuen Jaunaren aurrean, bere gurasoak egin zuten guztiaren aurara.

33. Eta Faraon Nekaok jarri zuen kateetan Reblan, zeñ dagoan Ematko lurrean, erreñatu ez zezan Jerusalemenera, eta erriari bota zion, eun talentu zillarrezkoko, eta urrezko talentu bateko kontribuzio bat.

34. Eta Faraon Nekaok jarri zuen erregeztat Eliazim Josiasen semea, bere aita Josiasen lekuan, eta aldatu zion izena Joakinenean. Eta artu zuen Joakaz, eta eraman zuen Ejiptora, eta an il zan.

35. Eta Joakinek eman zion Faraoni zillarra eta urrea, ipiñirik erriari lagun bakoitzarentzat kotiz bat, ateratzeko Faraonek eskatu zuen anbat, eman erazitzen ziola bere mendeko bakoitzari, ala zillarra, nola urrea, bere ondasunen aurara, emateko Faraon Nekaori.



36. Ogeita bost urtekoa zan Joakin erreñatzen asi zanean, eta erreñatu zuen amaika urtean, Jerusalemen. Bere amaren izena zan Zebida, Fadaiairen alaba, Rumakoa.

37. Eta gaizki egin zuen Jaunaren aurrean, bere gurasoak egin zuten guztiaren araura.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Onen denboran etorri zan Nabukodonosor Babiloniako erregea; eta Joakin egon zan bere mendean iru urtean, zeñak iragota jarki zitzaion.

2. Eta Jaunak bialdu zituen bere kontra Kaldeako lapurtxoak, eta Siriako lapurtxoak, eta Moabko lapurtxoak, eta Amonen semeen lapurtxoak. Eta bialdu zituen Judaren kontra desegin zezaten, Jaunaren itz, bere serbitzari profeten bitartez esandakoaren araura.

3. Eta au gertatu zan Jaunaren itzagatik Judaren kontra, bere aurretik kentzearren, Manassesek egiñiko bekatu guztiak gatik,

4. Eta isuri zuen odol errugabeagatik, betetzen zuela Jerusalem errugabeen odolez, eta argatik etzuen bigundu nai Jaunak.

5. Eta Joakinen gañerako gauzak, eta egin zuen guztia, ez al dago au eskribatua, Judako erregeen urteoroko berrien liburuan? Eta joan zan Joakin lotara bere gurasoakin.

6. Eta Joakin bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

7. Eta Ejiptoko erregea etzan atera andik aurrera bere erritik: zeren Babiloniako erregeak artu zuen Ejiptoko erregearena izan zan guztia, Ejiptoko ibaitik Eufrates ibairaino.

8. Emezortzi urte zituen Joakinek erreñatzen asi zanean, eta erreñatu zuen iru illabetean Jerusalemen. Bere amaren izena zan Nohesta Elnatanen alaba, Jerusalengoa.

9. Eta gaizki egin zuen Joakinek Jaunaren aurrean, jarraitzen ziola gauza guztietan bere aitak egin zuenari.

10. Denbora artan etorri ziran Jerusalemen kontra Nabukodonosor Babiloniako erregearen agintariak, eta ingurutu zuten erria lurrepaikin.

11. Nabukodonosor Babiloniako erregea ere etorri zan erriaren setiora bere agintariakin, erasotzeko erriari.

12. Orduan Joakin Judako erregea atera zan ikustera Babiloniako erregea, bera eta bere ama, eta bere serbitzariak, eta bere prinzipiak, eta bere kutunak. Eta artu zuen Babiloniako erregeak, berak erreñatzen zuenetik zortzigarren urtean.

13. Eta artu zituen Nabukodonosorrek Jaunaren elizako ondasun guztiak, eta Errege-etxeko ondasunak, eta zatitu zituen, Salomon erre-

geak Jaunaren elizarako egin zituen urrezko ontzi guztiak, Jaunak lenda-naz adirazita zeukan bezela.

14. Eta eraman zuen Jerusalem guztia, eta Prinzipa guztiak, eta ejerzitik indar guztia, amar milla katibu, eta langille ta injeniari guztiak, eta etzan ezerere gelditu, salbu lurreko erriko beartsuak.

15. Eraman ere zituen Babiloniara Joakin, eta erregearen ama, eta erregearen emazteak, eta bere kutunak, eta katibu eraman zituen Jerusalem Babiloniara lurreko Juezak.

16. Eta gizon sendo guztiak zaspimillaraño, eta langille ta injeniariak millaraño, guztiak gizon indartsu, eta gerragizonak, eta Babiloniako erregeak eraman zituen katibu Babiloniara.

17. Eta jarri zuen bere lekuan Matanias bere aitaren aldeko osaba, zeñi deitu zion Sedezias.

18. Ogeita bat urte zituen Sedeziasek erreñatzen asi zanean, eta erreñatu zuen amaika urtean Jerusalemen. Bere amaren izena zan Amital Jeremiasen alaba, Lobnakoa

19. Eta gaizki egin zuen Jaunaren aurrean, Joakinek egin zuena baño ez geiago, ta ez gutxiago.

20. Zeren Jaunaren aserrea Jerusalemen konkontra eta Judaren konktra aziaz zijoa, aliketa bota zituen arte bere aurretik. Eta Sedezias jaiki zan Babiloniako erregearen kontra.

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan Sedeziasek agintzen zuenetik bederatzigarren urtean amargarren illean, illaren amargarren egunean, etortzea Babiloniako erregea bera, bere ejerzitu guztiarekin Jerusalemenera, eta setiatu zuten, eta jaso zituzten lurrepaikak bere inguruan,

2. Eta erria egon zan itxia, eta ingurutua, Sedezias erregearen amai-kagarren urteraño,

3. Eta illaren bederatzigarren eguneraño; eta gosea zijoa geituaz errian, alako moduan non, aitu zan ogia erriko jendearentzat.

4. Atzanean gelditu zan bretxa bat idikia errian; eta gerrako jende guziak iges egin zuen gauaz, murruean artean, erregearen jardifaren aldean dagoan ateko bidetik, Kaldearrak erriaren setioa estututzen zuten bitartean. Iges egin zuen bada Sedeziasek, eremuko lauetara dijoan bidetik.

5. Eta Kaldearren ejerzituak jarraitu zion erregeari, eta atzeman zion Jerikoko lauan, eta laguntzen zioten soldadu guztiak izan ziran barreiatuak, eta utzi zuten.



6. Eta izanik arrapatua erregea, eraman zuten Reblatara Babiloniako erregeagana, zeñak eman zuen epaia bere kontra.
7. Eta illerazi zituen Sedeziasen semeak beronen aurrean, eta gero atera ziozkaten begiak, eta kateakin lotuta, eraman zuen berarekin Babiloniara.
8. Bosgarren illean, illaren zazpigarrenean, aurrera zijoala Babiloniako erregearen emeretzigarren urtea, Nabuzardan, errege onen mendekoa, eta bere ejerzituko agintari nagusia sartu zan Jerusalemene.
9. Eta erre zuen Jaunaren etxea, eta erregearen etxea, eta Jerusalemengo etxeak, eta suzko garretan ipiñi zituen etxe guztiak.
10. Eta bere agintari nagusiari jarraitzen zion ejerzitu guztiak, arrasatu zituen alde guztietatik Jerusalemengo murrak.
11. Eta errian gelditu zan gañerako jendea, eta Babiloniako erregeagana irago ziran bandera-uzleak, eta erriko jende beerengoa, eraman zituen Nabuzardan, ejerzituko agintari nagusiak, beste toki batera;
12. Uzten zuela bakarrik erriko jende beartsua, mastiak eta kanpoak lantzeko.
13. Kaldearrak berriz, zatiturik Jaunaren elizan zeuden brontzezko abeak, eta Jaunaren etxean jarritako brontzezko ondapeak eta itsasoa, eraman zuten menasta guzti au Babiloniara.
14. Orobat eraman zituzten kobrezko eltzeak, eta pitxarrak, eta iruortzak, eta edanontziak, eta motraitutxoak, eta elizako lanetan erabili oi ziran pegar guztiak.
15. Eraman ere zituen ejerzituko agintari nagusiak, inzensonarioak, eta katilluak, ala urrezko ontziak, nola zillarrezkoak.
16. Au da, bi abe, itsasoa, eta Salomonek Jaunaren elizarako egin zituen ondapeak, bronzeko ontzi guztien pisua zan neurrigabea.
17. Abe bakoitzak zeuzkan alturan emezortzi beso, eta gañean bronzeko erpiñ, luzeeran iru besoko bat; eta abearen erpiñaren inguruan, sare bat mingranakin, guztia bronzekoa, bigarren abeak ere apainduria berdiña zuen.
18. Gañera eraman zituen ejerzituko agintari nagusiak Saraias lelen-go apaiza, eta Sofonias bigarren apaiza, eta iru atezaitzalle,
19. Baitaere erriko andizki bat, zeñaen kontura zegoan gerrako jendeari begiratzea; eta errian arkitu ziran bost jaun, erregearen etxeko serbitzariak; eta Sofer, ejerzituaren begiralea, zeñak ematen ziezten irakatsiak erriko soldadu berriak, eta erriko irurogei gizon, errian arkitu ziranak.
20. Eta artzen zituela Nabuzardan ejerzituko agintari nagusiak, eraman zituen Babiloniako erregeagana Reblatara.

21. Eta Babiloniako erregeak zauritu, eta il zituen Reblatan, Ematko lurrean. Eta Juda izan zan bere lurretik beste batera eramana.
22. Eta Judako lurrean, Nabukodonosor Babiloniako erregearen aginduz gelditu zan jendea gobernatzeko, izendatu zuen Godolias, Ahikanen semea, Safanen semea.
23. Eta jakiñik au ejerzituko agintari guztiak, eta berakin zegoan jendeak, au da, Babiloniako erregeak jarri zuela eraentzalle Godolias, etorri ziran laster beronegana Masfara, Ismael Nataniasen semea, eta Johanan Kareeren semea, eta Saraias Tanehumet Netofatarren semea, eta Jezonias Maakatiren semea; ala berak, nola beren lagunak.
24. Eta Godoliasek esan zien juramentuarekin berai eta bere lagunai, esaten zuela: Etxatezte Kaldearren mendean egoteko beldur izan; gelditu zaitzte errian, eta obedezitu zaiozute Babiloniako erregeari, eta ongi biziko zerate.
25. Eta gertatu zan zazpigarren illean, etortzea Ismael Nataniasen semea, eta Elisamaren illoba, erregearen jatorrikoa, zeñak zauritu zuten Godolias, eta il zan, baita berarekin Masfan zeuden Judu eta Kaldearrak ere.
26. Argatik erri guztiak, txikiak eta andiak, eta ejerzituko agintariak iges egin zuten Ejiptora Kaldearren beldurrez.
27. Eta Joakin Judako erregea eramana izan zanetik ogeita amazpigarren urtean, amabigarren illean, illaren ogeita zazpian, gertatu zan, Ebilmerodak Babiloniako erregeak, erreñatzen asi zan urtean, altxatzea Joakin Judako erregearen burua, ateratzen zuela itxitik.
28. Eta itz egin zion biguntasunarekin, eta jarri zuen bere tronua, Babilonian berarekin menderatuta zeuzkan beste erregeenen gañean.
29. Eta aldatu erazi ziozkan presoindagian iduki oi zituen soñekoak, eta beti jaten zuen bere maiean, bizi izan zan denbora guztian.
30. Eta izendatu ere zion janaria betiko, zeñ ematen zion egunoro erregeak, bere bizitzako egun guztietan.



PARALIPOMENOEN LENBIZIKO LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Adan, Seth, Enos,
2. Kainan, Malaleel, Jared,
3. Henok, Matusale, Lamek,
4. Noe, Som, Kam, eta Jafet.
5. Jafeten semeak: Gomer, eta Magog, eta Madai, eta Jaolan, Tubal, Mosoe, Thiras.
6. Gomerren semeak: Aszenez, eta Rifat, eta Togorma.
7. Jaolanen semeak: Elisa, eta Tharsis, Zethim, eta Dodanim.
8. Kamen semeak: Kus, eta Mesraim, eta Fut, eta Kanaan.
9. Kusen semeak: Saba eta Hebila; Sabatha eta Rejina; Saba eta Dadan.
10. Kusgandik sortua izan ere zan Nemrod, zeñ asi zan izaten lurrean almentsua.
11. Mesraimgandik izan ere ziran sortuak Ludim, eta Ananim, eta Laabim, eta Neftuim.
12. Baitaere Fetrusim, eta Kasluim, zeñakgandik atera ziran Filistin-tarrak, eta Kaftorearrak.
13. Kanaanek iduki zuen bere lenbizisortutzat Sidon, eta gero bergandik sortuak izan ziran Hetearra,
14. Eta Jebusarra, eta Amorrearra, eta Jerjesearra.
15. Eta Heoearra, eta Arazearra, eta Sinearra,
16. Baitaere Aradiarra, eta Samarearra, eta Hamatearra.
17. Semen Semeak: Elam, eta Asur, eta Arfaxad, eta Lud, eta Aram, eta Hus, eta Hul, eta Jeter, eta Mosok.
18. Arfaxadgandik izan zan sortua Sale, zeñagandik izan zan gero sortua Heber.
19. Heberri jaio zitzazkion bi seme. Bataren izena da Faleg, zeren bere denboran izan zan lurra berezitua, eta bere anaiaren izena zan Jektan.
20. Jektangandik izan ziran sortuak Elmodad, eta Saled, eta Asarmot, eta Jare;
21. Baita ere Adoram, eta Huzal, eta Dekla.
22. Eta orobat Hebal, eta Abimael, eta Saba,

23. Eta Ofir, eta Hebila, eta Jobab. Oiek guztiak izan ziran Jektanen semeak.
24. Sem, Arfaxad, Sale,
25. Heber, Faleg, Ragau,
26. Serug, Nakor, Thare,
27. Abram, Abraham hura bera.
28. Abrahamen semeak: Isaak eta Ismael;
29. Eta oiek dira beren ondokoak. Ismaelen lenbizisortua izan zan Nabaiot, gero Zedar, eta Adbeel, eta Mabsan,
30. Eta Masma, eta Duma, Masa, Adad, eta Thema,
31. Jetur, Nafis, eta Zedma. Oiek dira Ismaelen semeak.
32. Zeturaen, Abrahamen emazte azpikoaren semeak, izan ziran: Zamran, Jeksan, Madan, Madian, Jesbok, eta Sue. Jeksanen semeak: Saba, eta Dadan. Dadanenak: Asurim, eta Latusim, eta Laomim.
33. Madianen semeak izan ziran Efa, Efer, Henok, Abida, eta Hel-daa. Oiek guztiak zetozten Zeturagandik.
34. Berebat Abrahamgandik sortua izan zan Isaak, zeñaien semeak izan ziran Esau eta Israel.
35. Esaturen semeak: Elifaz, Rahuel, Jehuz, ihelom, eta Kore.
36. Elifazen semeak, Theman, Omar, Sefi, Gathan, Zenez. Thamngandik Amalek.
37. Rahuelen semeak: Nahath, Zara, Samma, eta Meza.
38. Seirren semeak: Lotan, Sobal, Sebeon, Ana, Dison, Eser, Disan.
39. Lotanen semeak: Hori, Homam. Lotanen arreba izan zan Tamna.
40. Sobalen semeak: Alian, eta Manahat, eta Hebal, Sefi, eta Onam. Sebeonen semeak: Aia, eta Ana. Anaren semea: Dison.
41. Disonen semeak: Hamran, eta Eseban, eta Fethran, eta Karan.
42. Eserren semeak: Balaan, eta Zaban, eta Jakan. Disanen semeak: Hus, eta Aran.
43. Oiek dira Edomgo lurrean erreñatu zuten erregeak, Israelko semeak erregea iduki zuten baño lenago, Bale Beorren semea, eta bere erriaren izena Denaba.
44. Eta Bale il zan, eta erreñatu zuen bere lekuan Jobab, zareren semeak, Bosrakoak.
45. Eta Jobab ere il zanean, erreñatu zuen bere lekuan Husam, Themango errikoak.
46. Eta berebat il zan Husam, eta erreñatu zuen bere lekuan Adad Badaden semeak, zeñak desegin zituen Madiantarrak Moabko lurrean, eta bere erriaren izena zan Abith.



47. Adad ere il ezkeru, erreñatu zuen bere lekuan semla Masrekako-ak.
48. Eta orobat semla il zan, eta erreñatu zuen bere lekuan Saul Roho-bothkoak, zeñ dagoan ibaiaren aldean.
49. Saul ere illik, erreñatu zuen bere lekuan Balanan Akoborren semeak.
50. Eta au ere il zan, eta erreñatu zuen bere lekuan Adadek, zeñaen erria zan Fau, eta bere emazteari zeritzan Meetabel, Matreden alaba, zeñ zan Mezaaben alaba.
51. Eta illik Adad, agintariak jarri ziran Idumean erregeen lekuan: Thamna agintaria, Alba agintaria, Jeteth agintaria,
52. Oolibama agintaria, Ela agintaria, Finon agintaria.
53. Zenez agintaria, Theman agintaria, Mabsar agintaria,
54. Magdiel agintaria, Hiram agintaria. Oiek izan ziran Idumeako agintariak.

Bigarren kapitulua

1. Israelen semeak izan ziran, Simeon, Lebi, Juda, Isakar eta Zabulon,
2. Dan, Jose, Benjamin, Neftali, Gad, eta Aser.
3. Judaren semeak: Her, Onan, eta Sela. Oiek irurok jaiot zitzaizkan kanaantar sueren alabagandik. Baña Her Judaren lenbizi sortua izan zan gizon gaiztoa Jaunaren aurrean, eta Jaunak kendu zion bizia.
4. Iduki zituen Judak Tamar bere errañagandik Fares, eta Zara. Ala Judaren guztiak ziran bost.
5. Faresen semeak: Hesron, eta Hamur.
6. Zararen semeak: Zamri, eta Ethan, eta Eman, Kalkal ere, eta Dara, guztitan bost.
7. Kamrien semea: Akar, Israel genastu zuena, bekatu egin zuelako, Jaungoikoari konsagratutako gauzen lapurretan.
8. Ethanen semea, Azarias.
9. Hezroni jaiot zitzaizkan semeak izan ziran Jerameel, eta Ram, eta Kalubi.
10. Ramgandik izan zan sortua Aminadab. Aminadabgandik izan zan sortua Naasson, Judaren semeen lenena.
11. Naasongandik izan zan sortua Salma, zeñagandik etorri zan Booz.

12. Boozgandik izan zan sortua Obed, zeñagandik izan zan sortua Isai.
13. Eta Isaik iduki zuen lenbizisortutzat Eliab, bere bigarren semea izan zan Abinadab, irugarrena simmaa.
14. Laugarrena Natanael, bosgarrena Raddai,
15. Seigarrena Asom, zazpigarrena Dabid.
16. Oien arrebak ziran Sarbia eta Abigail. Sarbiaren semeak iru: Abisai, Joab eta Asael.
17. Abigail izan zan Amasaren ama, zeñaen aita izan zan Jether, Ismaeltarra.
18. Kaleb Hesronen semea ezkondu zan Azubarekin, zeñagandik iduki zuen Jerioth, eta beraren semeak izan ziran Jaser eta Sobab, eta Ardon.
19. Il zanean Azuba, ezkondu zan Kaleb Efratarekin, zeñagandik izan zuen Hur.
20. Hur izan zan Urien aita, eta Uri izan zan Bezelzelena.
21. Gero Hesron ezkondu zan, irurogei urte zituenean, Makirren galaaden aitaren alabarekin, zeñagandik izan zuen segub.
22. Segub onegandik izan zan sortua Jair zeñ izan zan ogeita iru errien jabea Galaadko lurrian;
23. Baña Jesur eta Aramek artu zituzten Jair eta Kanaten uriak, beren irurogei erriakin, zeñak guztiak ziran Makir Galaaden aitaren semearenak.
24. Hesron il ezkeru, ezkondu zan Kaleb Efratarekin. Hezronek iduki ere zuen emaztetzat Abia, zeñagandik izan zuen Asur, Tekua egin zuena.
25. Jerameel Hezronen lenbizisortuari, jaiot zitzaizkan seme oiek: Ram lenbizisortua, eta Buna, eta Aram eta Asom, eta Agia.
26. Jerameelek izan zuen beste emazte bat ere, Atara zeritzana, zeñ izan zan Onamen ama.
27. Jerameel Ramen lenbizisortuaren semeak izan ziran Moos, Jamin eta Akar.
28. Onamen semeak izan ziran Semei eta Jada. Semeiren semeak: Nadab, eta Abisur.
29. Abisurren emaztearen izena izan zan Abihail, zeñagandik izan zituen Ahobban, eta Molid.
30. Nadaben semeak izan ziran Saled, eta Afaim. Saled il zan seme-rik gabe.
31. Afaimek iduki zuen semetzat Jesi, zeñagandik sortua izan zan Sesan, eta Sesagandik Oholai.



32. Jadaren, semeiren anaiaren semeak izan ziran Jeter eta Jonatan: Jeter berriz il zan semerik gabe.

33. Jonatangandik berriz izan ziran sortuak Falet eta Ziza. Oien jatorrikoa izan zan Jeramael.

34. Sesanek etzuen semerik iduki, baizik alabak, eta ijito mendeko bat, Jeraa zeritzana,

35. Zeñi eman zion alaba bat emaztetzat, zeñagandik izan zuen Ethei.

36. Etheigandik izan zan sortuta Nathan, eta Nathangandik Zabad.

37. Zabadgandik izan zan sortua Oflal, eta Oflalgandik Obed.

38. Obedgandik izan zan sortua Jehu, eta Jehugandik Azarias.

39. Azariasgandik izan zan sotua Heles, eta Helesgandik Elasa.

40. Elasagandik izan zan sortua Sisamoi, eta Sisamoigandik Selum.

41. Selumgandik izan zan sortua Ikasmias, eta Ikasmiasgandik Elisama.

42. Kaleben, Jerameelen anaiaren semeak: Mesa bere lenbizisortua, eta Zifen aita; eta jatorri onetakoa izan zan Maresa, Hebronon aita.

43. Hebronon semeak: Kore, eta Zafua, eta Rezem, eta Samma.

44. Sammagandik izan zan sortua Raham, Jerkaamen aita; eta Rezemgandik Sammai.

45. Sammaien semea, Maon; eta Maon, Bethsurren aita.

46. Efa, Kaleben emazte azpikoak izan zituen Haran, eta Mosa, eta Jezez. Harangandik izan zan sortua Jezez.

47. Jadaddairen semeak: Regom, eta Joatan, eta Jesam, eta Falet, eta Efa, eta Saaf.

48. Maaka, Kaleben emazte azpikoak, izan zituen Saber, eta Tharana.

49. Saaf, Madmenako prinzipegandik izan zan sortua Sue, zeñ izan zan Makbenako prinzipea, eta Gabaako prinzipea. Berebat Kaleben alaba izan zan Aksa.

50. Kaleben, Ur Efrataren lenbizisortuaren semearen semeak, izan ziran oiek: Sobal, Kariathiarimgo prinzipea:

51. Salma Bethlehengo prinzipea: Harif, Bethgaderko prinzipea.

52. Eta Sobal Kariathiarimgo prinzipea, zeñ zan Atsedenaren tokiko erdiaren jabea, iduki ere zituen semeak.

53. Eta bere familatik Kariathiarimen datoz Jethearrak, eta Afuthearrak, eta Semathearrak, eta Maserearrak, zeñetatik atera ziran Saraiarrak, eta Esthaoltarrak.

54. Salmaren semeak: Bethlehem eta Nethofathi, Joaben etxeko buruak, eta Atsedeneko lurraren erdia izan zan Sarairen jatorriarena.

55. Eta Eskribaen familiak, zeñak bizi ziran Jabesen, eta egon oi ziran etzauntzetan kantatzen eta jotzen. Oiek dira Sinearrak, Kalor Reka-ben aitaren etxeko jatorrikoak.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Oiek dira Dabidek iduki zituen seme, Hebronon jaiok: Amon lenbizi sortua, Akinoam Jezraheltarragandik; bigarrena Daniel, Abigail Karmelokoarena.

2. Irugarrena Absalon, Maakaren semea, zeñ zan Tolmai, Jesurko erregearen alaba. Laugarrena Adonias, Agjithen semea.

3. Bosgarrena Safatia, Abitalen semea. Seigarrena Jetraham, bere emazte Eglagandik.

4. Sei oiek jaiok zitzazkion Hebronon, non erreñatu zuen zazpi urte, eta sei illabetean. Gero erreñatu zuen ogeita amairu urtean Jerusalem.

5. Jerusalemen jaiok zitzazkion semeak dira Simmaa, eta Sobab, eta Natan, eta Salomon, lau oiek Bethsabee Amielen alabarenak.

6. Gañera Jebaar, eta Elisama,

7. Eta Elifalet, eta Noje, eta Nefeg, eta Jafia.

8. Beste Elisama bat, eta Eliada, eta Elifelet, guztitan bederlatzi.

9. Oiek dirade Dabiden seme guztiak, kontatu gabe emazte azpiko-en semeak, eta iduki zuten arreba bat, Tamar zeritzana.

10. Salomonen semea izan zan Roboam, zeñaren seme Abiagandik izan zan sortua Asa. Onegandik ere jaiok zan Josafat,

11. Joramen aita; zeñagandik Joramgandik izan zan sortua Okozias, zeñagandik jaiok zan Joas.

12. Amasias onen semeagandik izan zan sortua Azarias. Azariasen semea izan zan Joatan,

13. Akazen aita, zeñ izan zan Ezekiasena, zeñagandik jaiok zan Manases.

14. Manases izan zan Amonen aita, zeñ izan zan Josiasena.

15. Josiasen semeak izan ziran Johanan lenbizisortua, bigarrena Joakin, irugarrena Sedezias, laugarrena Selum.

16. Joakingandik jaiok ziran Jekonias, eta Sedezias.

17. Jekoniasen semeak izan ziran Asir, Salatiel,

18. Melkiram, Jadaia, Senneser, eta Jezemias, Sama, eta Nadabias.

19. Jadaigandik jaiok ziran Zorobabel, eta Semei. Zorobabel izan zan Mosolamen Hanaiasen, eta Salomit, oien arrebaren aita,



20. Eta beste bostenak oiek dira: Hasaban, eta Ohol, eta Barakias, eta Hasadias, eta Josabhased.

21. Hananiasen semea izan zan Faltias, Jeseiasen aita, zeñaren semea izan zan Rafaias. Rafaias onen semea izan zan Arnan, zeñagandik jaio zan Obdia, zeñaen semea izan zan Sekenias.

22. Sekeniasen semea izan zan Semeia, zeñagandik jaio ziran Hattus, eta Jegaal, Baria, Naaria, eta Safar, zeñak diran sei.

23. Naariaren semeak izan ziran iru oiek: Elioenai, eta Ezekias, eta Ezrikan.

24. Elioenaien semeak izan ziran zazpi oiek: Odbia, Eliasub, eta Feleia, eta Akub, eta Joanan, eta Dalaia eta Anani.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Judaren semeak: Fares, Hesron, eta Karmi, eta Hur, eta Sobal.

2. Raias Sobalen semeagandik izan zan sortua Jahath, zeñagandik jaio ziran Ahumai, eta Laad. Oien jatorrikoak dira Saratearrak.

3. Etamen jatorria ere au da: Jezrahel, eta Jesema, eta Jedebos, zeñak iduki zuten arrebata bat Asalefuni zeritzana.

4. Eta Fanuel izan zan Fedorren aita, eta Ezer Hosaren aita. Oiek dirade Hur, Efrataren lenbizisortu, Bethlehem aitarene semeak.

5. Asur, Tekuaren aitak iduki zituen bi emazte Halaa, eta Naara.

6. Eta Naarak egin ziozkan Oozam, Hefer, Themani, eta Ahasthari, oiek guztiok Nahararen semeak.

7. Halaaren semeak: Sereth, Isaar, eta Ethnan.

8. Kos izan zan Anoben, eta Soboharen aita, eta Aharehel, Arumen semearen familiarena.

9. Baña Jabes izan zan bere anaia guztien artean argitsuena, zeñi bere amak jarri zion izentzat Jabes, esaten zuela: Oñazez egin nuelako.

10. Jabes onek erregutu zion Israelko Jaungoikoari, esaten zuela: Oh, eta bedekazioz beteko baninduzu! Zabalduko bazinduzke nere mugak, eta zure eskuak zaituko banindu, eta libratuko baninduzu gaitz guzitik! Eta eman zion Jaunak eskatu zuena.

11. Kaleb Suaren anaiagandik izan zan sortua Mahir, zeñ izan zan Estonen aita.

12. Estongandik izan ziran sortuak Betrafa, eta Fese, eta Tehinna, Naasen erriko aita. Oiek dirade Reka bizilariz bete zutenak.

13. Zenezen semeak: Othoniel, eta Saraia. Othonielen semeak Hat-hat, eta Maonathi.

14. Maonatigandik izan zan sortua Ofra; eta Saraigandik izan zan sortua Joab, Langilleen ibarreko prinzipeak; zeren an bizi ziraden langilleak.

15. Kaleben, Jefoneren semearen semeak izan ziran: Hir, eta Ela, eta Naham. Elaren semea, Zenez.

16. Berebat Jaleleelen semeak: Zif, eta Zifa, Thiria eta Asrael.

17. Ezraen semeak, Jeter, eta Mered, eta Efer, eta Jalon. Beragandik sortu ere ziran Maria, eta Sammai, eta Jesba, Estamon bizi diranen aita.

18. Izan zan ere bere emaztea Judaia, zeñak egin zituen Jared Jedorren aita, eta Heber Sokoren aita, eta Ikutiel Zanoeren aita. Oiek dirade Bethia, Faraonen alabaren semeak, zeñarekin ezkondu zan Mered.

19. Odaia Nahamen arrebaren, Zeilaren aitarene semeak izan ziran: Garmi, eta Esthamo, zeñ izan zan Makathiena.

20. Simonen semeak, Ammon, eta Rinna Hananen semea, eta Thilon. Jesiren semeak: Zoheth, eta Benzoheth.

21. Sela, Judaren semearen semeak: Her, Lekaren aita, eta Laada, Maresaren aita, eta juramentuko etxean liño fiñ gillan ari diradene etxe-ko aideak.

22. Eta eguzkiari gelditu erazi ziona, eta Gezurraren gizonak, eta Bel-durgabea, eta Irazekaria, zeñak izan ziran Prinzipeak Moaben, eta gero itzuli ziran Lahemera. Oiek anziñako gauzak dirade.

23. Oiek dira lurrezko ontziak egiten zituztenak, Mintegietan, eta Esituetan bizitu oi ziranak, Erregeen etxeetan, beren lanetarako, eta an egon ziran.

24. Simeonen semeak izan ziran Namuel, eta Jamin, Jarib, Zara, eta Saul.

25. Onen semea zan Selum, zeñagandik izan zan sortua Mapsan, zeñagandik jaio zan Masma.

26. Masmaren semea izan zan Hamuel, onen semea Zakur; eta Zakurren semea, Semei.

27. Semeik iduki zituen amasei seme, eta sei alaba, baña bere anaiak etzuten seme askorik izan, eta bere jatorri guztiak ezin izan zuen berdin-du, Judaren ondoreen zenbata.

28. Bere bizilekua izan zan Bersabeen, eta Moladan, eta Hasarsualen,

29. Eta Balan, eta Asonen, eta Tholaden,

30. Eta Bathuelen, eta Horman, eta Sizelejen,

31. Eta Bethmarkabothan, eta Hasarsusimen, eta Bethberaien, eta Saarimen. Oiek izan ziran beren erriak Dabidek erreñatu zuen arteraño.



32. Beren erriak izan ere ziran Etam, eta Aen, Remmon, eta Thoken, eta Asan, bost erri.

33. Eta beren errixar guztiak, uri oien inguruan Baaleraño. Au da beren bizilekua, eta beren egotaldien egiera.

34. Berdin Mosobab, eta Jemlext, eta Josa Amasiaren semea,

35. Eta Joel, eta Jehu, Josabiasen, Saraiaren semearen semea, zeñ izan zan Asielena;

36. Eta Elioenai, eta Jakoba, eta Isuhaia, eta Asaia, eta Adiel, eta Ismiel, eta Banaia.

37. Gañera Ziza, Sefeiren, Alonen semearen semea, zeñ izan zan Idaiaren, Semrien semearen, Samaiaren semearena.

38. Oiek dira beren aideen artean Prinzipe ospatsuak, zeñak txit ugaritu ziran beren aideen etxeetan.

39. Eta atera ziran sartzeko Gadorren, ibarraren sortaldeko aldame-neraño, eta beren abereentzat larreten billan.

40. Eta arkitu zituzten larrete ugariak, eta txit onak, toki txit zabal, paketsu, eta oparo bat, non len bizi izan ziran Kamen jatorrikoak.

41. Goian beren izenakin siñalatu ditugun oiek bada, etorri ziran erreñatzen zuela Ezekias Judako erregeak, eta desegin zituzten beren etzauntzak, eta an bizi zirala arkitu zituztenak, eta iñor gabe gelditu ziran toki aiek gaurko eguneraño. Eta bizi izan ziran beren lekuan, zeren an arkitu zituzten larrete txit ugariak.

42. Berebat Simeonen semeetatik bost eun gizon ere, irago ziran Seirko mendira, zeramazkitela gidaritzat Falthias, eta Naarias, eta Rafaias, eta Oziel, Jesiren semeak.

43. Eta desegin zituzten Amalektarren kutsu, iges egin al izan zutenak, eta bizitu izan ziran an beren lekuan gaurko eguneraño.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Ona emen Rubenen, Israelen lenbizisortuaren semeak. (Egiaz au izan zan lenbizisortua; baña bere aitaren eztaioea kutsutu zuelako, Jose Israelen semari eman zitzaiozkan lenbizisortutzaren zuzen ta eskubideak, eta hura etzan izan idukia lenbizisortutzat.

2. Judagandik, zeñ zan bere anaia guztien artean aldunena, iduki zuten jatorria Prinzipeak; baña lenbizisortutza izan zitzaion beretua Jose-ri).

3. Rubenen, Israelen lenbizisortuaren semeak bada izan ziran Enok, eta Falu, Esron, eta Karmi.

4. Joelen semea izan zan Samia. Samiaren semea, Gog. Gogen semea, Semei.

5. Semeiren semea, Mika. Mikaren semea izan zan Reia. Reiarena, Baal.

6. Onen semea izan zan Beera, Rubenen tribuko prinzipeatatik bat, eta zeñ katibu eraman zuen Thelgathfalnasar Asiriarren erregeak.

7. Bere anaiak, eta aideera guztiak, zenbatuak izan ziranean beren familiak, zeuzkaten prinzipetzat Jehiel, eta Zakarias.

8. Bala, Azazen seme, Sammaren seme, Joelen semearen gañean, au bizi izan zan Aroerren, luzetzen zala Nebo eta Beelmeonraño.

9. Bizitu ere zan sortalderontz Eremuaren sarrereraño, eta Eufrates ibairaño; ziradelako abere txit askoren jabeak Galaadko lurtean.

10. Eta Saulen denboran gudatu ziran agarenoen kontra, ezpataz irago zituzten, eta bizi izan ziran beren lekuan beren etzauntzetan, Galaaden sortaldera begiratzan duen alderri guztian.

11. Baña Gaden semeak bizi izan ziran beren aurkez Basango lurtean Selkaraño;

12. Joel lenbizia, eta Safan bigarrena, Janai gero, eta Safat Basanen.

13. Eta beren anaiak, beren aideeren etxeen araura, Mikael, eta Mosolam, eta Sebe, eta Jorai, eta Jakan, eta Zie, eta Heber, zazpi.

14. Oiek dira Abihailen, Hurien semearen, Jaraen semearen, Galaaden semearen, Mikaelen semearen, Jesesien semearen, Jeddoen semearen, Buzen semearen semeak.

15. Orobat beren anaiak Abdielen, Gunien semearen semeak, izan ziran beren familia, eta aideetako buruak.

16. Zeñak bizi izan ziran Galaaden, eta Basanen, eta beren errixoetan, eta Sarongo uriaurre guztietan atzen batetik beste atzenara.

17. Oiek guztiak izan ziran kontatuak, Joatan Judako erregearen egunetan, eta Jeroboam Israelko erregearen egunetan.

18. Rubenen, eta Gaden, eta Manasesen tribuaren erdiaren semeak, izan ziran gizon gerrariak, ezkutuak eta ezpatak zerabiltzatenak, uztai elean sendoak, eta gudetarako trebetuak, ziran berrogeita lau milla eta zazpireun eta irurogei, zeñak ateratzen ziran gerrara.

19. Iduki zuten gerra Agarearrakin, baña Iturearrak, eta Nafistarrak, eta Nodabtarrak

20. Etorri ziran oiei laguntzera. Eta Agarearrak, eta berakin izan ziran guztiak, izan ziran jarriak beren eskuetan, Jaungoikoari ots egin ziotelako, gudan ari ziradenean, eta aditu zituen, beragan sinistu zutelako.



21. Eta artu zieten zeukaten guztia: berrogeita amar milla gamelu, berreun eta berrogeita amar milla ardi, bi milla asto, eun milla katiburekin.

22. Eta zaurituak izan ziranetatik asko il ziran, zeren Jaunaren gerra izan zan. Eta bizi izan ziran beren lekuan errialdaeraraño.

23. Berebat Manasesen tribu erdiko semeak jarri ziran Basanen mugetatik Baal-Hermon, eta Sanir, eta Hermongo mendiraño dagoan lurrean, zeren txit asko ziran.

24. Eta beren aideen etxeetako Prinzipeak izan ziran oiek: Efer, eta Jesi, eta Eliel, eta Ezriel, eta Jeremias, eta Odoias, eta Jediel, gizon txit bulardetsu eta aldunak, eta Gidari ospatsuak beren familietan.

25. Baña utzi zuten beren gurasoen Jaungoikoa, eta adoratu zituzten idoloak, zijoazela arako erreñuetako jainkoen ondoren, zeñak Jaungoikoak berak kendu zituen beren aurretik.

26. Eta Israelko Jaungoikoak esnatu zuen Ful Asiriako erregearen espiritua, eta Thelgathfalnasar Asurko erregearen espiritua, eta errialdairatu zituen Ruben eta Gad, eta Manasesen tribuaren erdia, eta eraman zituen Lahelara, eta Haborrera, eta Arara, eta Gozan ibaiaren erriberetara, non dauden gaurko eguneraño.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Lebien semeak: Jerson, Kaath eta Merari.
2. Kaathen semeak: Amran, Isaar, Hebron, eta Oziel.
3. Amramen semeak: Aaron, Moises, eta Maria. Aaronen semeak: Nadab, eta Abiu, Eleazar, eta Ithamar.
4. Eleazargandik izan zan sortua Finees; eta Fineesgandik Abisue.
5. Abisuegandik izan zan sortua Bokzi, eta Bokzigandik Ozi.
6. Ozigandik izan zan sortua Zaraia, eta Zaraigandik Meraioth.
7. Meraiothgandik izan zan sortua Amarias, eta Amariasgandik Akitob.
8. Akitobgandik izan zan sortua Sadok, eta Sadokgandik Akimaas.
9. Akimaasgandik izan zan sortua Azarias, eta Azariasgandik Johanan.
10. Johanangandik izan zan sortua Azarias. Au da apaiz lanetan ari zana, Salomonek Jerusalemene egin zuen elizan.
11. Azariasgandik izan zan sortua Amarias, eta Amariasgandik Akitob.
12. Akitobgandik izan zan sortua Sadok, eta Sadokgandik Selum.
13. Selumgandik izan zan sortua Helzias, eta Helziasgandik Azarias.

14. Azariasgandik izan zan sortua Saraias, eta Saraiasgandik Josedek.
15. Josedek utzi zuen bere erria, Jaunak aldatu zituenean Judako eta Jerusalemgo erriak Nabukodonosorren bitartez.

16. Lebiren semeak bada izan ziran: Jerson, Kaath, eta Merari.

17. Eta Jersonen semeen izenak dira oiek: Lobni, eta Semei.

18. Kaathen semeak: Amram, eta Isaar, eta Hebron, eta Oziel.

19. Merarien semeak: Moholi eta Musi. Oiek dira Lebiren aideak, beren familien araura.

20. Jersonen semea izan zan Lobni. Jahath izan zan onena Jahatena izan zan Zamma. Zammaren semea izan zan Joah.

21. Joahen semea izan zan Addo: Addoena, Zara; eta Zaraena Jetrai.

22. Kaathen semeak: Aminadab bere semea. Kore izan zan Aminadabena. Asir, Korereña.

23. Asirren semea izan zan Elkana. Elkanarena, Abiasaf. Abiasafena izan zan Asir.

24. Asirrena Thahath. Thahath izan zan Orielen semea. Onena Ozias. Oziasena izan zan Saul.

25. Elkanaren semeak: Amasai eta Akimoth.

26. Eta Elkana. Elkanaren semea izan zan Sofai. Onena, Nahath,

27. Eta Nahathena, Eliab. Onena Jeroham, eta Jerohamena, Elkana.

28. Samuelen semeak: Baseni bere lenbizisortua, eta Abia.

29. Merarien semeak: Moholi, zeñaen semea izan zan Lobni. Onena, Semei. Semeireña, Oza.

30. Ozarena izan zan Sammaa, Sammaarena, Hagjia, eta Hagjiarena, Asaia.

31. Oiek dira jarri zituenak Dabidek kantarien gidaritzat Jaunaren elizan, kutxa ipiñia izan zan ezkerro.

32. Eta ari oi ziran beren lanean, kantatzen zutela Testimonioko Tabernakuloaren aurrean, Salomonek egin zuen artean Jaunaren Eliza Jerusalemene, eta egin oi zituzten beren lanak beren familien txanden araura.

33. Ona emen, beren semeekin batean serbitzen zutenen izenak: Kahathen semeetatik Hemam zan kantaria, Johelen semea, Samuelen semea.

34. Elkanaren semea, Jerohamen semea, Elielen semea, Thohuen semea.

35. Sufen semea, Elkanaren semea, Mahathen semea, Amasaien semea.



36. Elkanaren semea, Johelen semea, Azariasen semea, Sofoniasen semea.
37. Thahathen semea, Asirren semea, Abiasafen semea, Koreren semea.
38. Isaarren semea, Kaathen semea, Lebiren semea, Israelen semea.
39. Gañera Asaf, anaia, bere eskuitik zegoana. Zan Asaf Barakiasen semea, Samaaren semea.
40. Mikaelen semea, Basaiaren semea, Melkiaren semea,
41. Athanairren semea, Zararen semea, Adaiaren semea.
42. Ethanen semea, Zammaren semea, Semeiren semea.
43. Jethen semea, Jersonen semea, Lebiren semea.
44. Eta bere anaia, Merarien semeak, zeuden ezkerretara, Ethan, Kusiren semea, Abdiren semea, Maloken semea.
45. Hasabiasen semea, Amasiasen semea, Elziasen semea.
46. Amasairren semea, Boniren semea, Somerren semea.
47. Moholiren semea, Musiren semea, Merarien semea, Lebiren semea.
48. Beste Lebita oien anaiak, izan ziran jarriak Jaunaren etxeko Tabernakuloko gañerako lan guztietan.
49. Baña Aaron, eta bere semeak jartzen zituzten erretzen abere illak holokaustoen aldarearen gañean, eta inzensoa lurriñen aldarearen gañean, ari ziradela Santuen Santuari zegokion guztian, eta otoiz egiten Israelgatik, Moises Jaungoikoaren serbitzariak agindutako guztiaren araura.
50. Eta Aaronen semeak dira oiek: Eleazar bere semea, Finees bere semea, Abisue bere semea.
51. Bokzi, Abisuen; Ozi, Bokziren semea; Zaraia, Ozirena.
52. Meraioth, Zaraiaren semea; Amaria Meraiothena; Akitob, Amariarena.
53. Sadok, Akitobena; Akimaas, Sadokena.
54. Eta ona emen Aaronen seme oiek bizi izan ziran tokiak, au da, suertez tokatu zitzaizkaten leku eta alderriak, Kaathen familietatik asita.
55. Izentatu zitzaizkaten bada oiei Judako lurrean Hebron, eta bere inguruak.
56. Baña uriko kanpoak, eta erriak izan ziran Kaleb, Jefoneren semearenak.
57. Eman ziozkaten bada Aaronen semeai erri oiek: Hebron (igesto-kiko erria), eta Lobna, eta beren inguruak.
58. Eta berebat Jether, eta Esthemo beren inguruakin, baitaere Helon eta Dabir bereakin.

59. Orobat Asan, eta Bethsabee, eta beren inguruak.
60. Benjaminen tributik eman ziezten Gabee eta bere inguruak, eta Almath bere inguruakin, eta Anatoth bere inguruakin. Guztitan amairu erri, beren familien artean partituak.
61. Eta Kaathen seme, bere familatik gelditu ziranai, eman ziozkaten amar erri, Manasesen tribu erdikoak.
62. Berebat Jersonen seme, beren familietatik berezituai, eman ziezten amairu erri Isakarren, eta Aserren, eta Neftaliren, eta Manasesen tributik, Basango lurrean.
63. Berdin Merarien seme, beren familietan berezituai eman ziezten suertean amabi erri Rubenen tributik, eta Gaden tributik, eta Zabulonon tributik.
64. Eman ere ziozkaten Israelko semeak lebitai erri batzuek beren inguruakin.
65. Eman ziezten suertean erri oiek Judaren semeen tributik, Simeonen semeen tributik, eta Benjaminen semeen tributik, zeñai jarri ziozkaten bakoitzaren beren izenak.
66. Eta berebat Kaaten semeen aideen artekoak ziranai, eta iduki zituzten beren mugapetan Efraimen tribuko erriak.
67. Eman ziozkaten bada erriak gordelekutzat, Sikemgoa bere inguruakin Efraimgo mendian, eta Gazer bere inguruakin.
68. Eta Jekmaan bere inguruakin, eta orobat Bethoron,
69. Baita Helon ere bere inguruakin, eta berdin Jethremmon.
70. Eta Manasesen tribu erditik Aner bere inguruakin, eta Baalam, eta bere inguruak, au da, Kaathen semeen aideen arteatik gelditu ziranai.
71. Eta Jersonen semeai, Manasesen familiaren tribuaren erditik, Gaulon Basanen bere inguruakin, eta Astharoth bere inguruakin.
72. Isakarren tributik, Zedes, eta bere inguruak, eta Dabereh bereakin.
73. Orobat Ramoth bere inguruakin, eta Anem bereakin.
74. Aserren tribuan: Masal bere inguruakin, eta Abdon bereakin.
75. Baita Hukak bere inguruakin, eta Rohob bereakin.
76. Neftaliren tribuan: Zedes Galilean bere inguruakin, eta Amon bereakin eta Kariathaim bereakin.
77. Eta Merarien jatorriko gañerakoai eman ziezten Zabulonon tribuan, Remmono bere inguruakin, eta Thabor bereakin.
78. Eta Jordango beste aldean, Jerikoren aurkez, Jordanen sortalde-rontz, Rubenen tribuan, Bosor eremuan bere inguruakin, eta Jasa bereakin.



79. Orobat Kademoth, eta bere inguruak, eta Mefaat bereakin.

80. Eta onezaz gañera Gaden tribuan, Ramoth Galaaden bere inguruakin, eta Manaim bereakin.

81. Baita Hesebon ere bere inguruakin, eta Jezer bere inguruakin.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Isakarren semeak, lau: Thola eta Fua, Jasub, eta Simeron.

2. Tholaren semeak: Ozi, eta Rafaia, eta Jeriel, eta Jemai, eta Jepsen, eta Samuel, aide eta familia batzuen buruak. Tholaren jatorritik kontatu ziran Dabiden denboran ogeita bi milla, eta zazpireun gizon txit sendoak.

3. Oziren semea: izraia; zeñgandik jaio ziran Mikael, eta Abadia, eta Johel, eta Jesia, bost oiek Prinzipeak.

4. Eta berakin zeuden beren errama eta familietan ogeita amalau milla gizon txit bulardetsuak, eta gudarako trebeak, zeren iduki zituzten emazte eta seme asko.

5. Eta beren anaiak Isakarren aideera guztian gudari txit sendoak, izan ziran kontatuak larogeita zazpi milla.

6. Benjaminen semeak iru: Bela, Bekor, eta Jadiel.

7. Belaen semeak: Esbon, eta Ozi, eta Oziel, eta Jerimoth, eta Urai; familien bost Prinzipe, eta txit sendoak gudarako, eta zeñaen zenbata izan zan ogeita bi milla eta ogeita amalau.

8. Bekorren semeak: Zamira, eta Joas, Eliezer, eta Elioenai, eta Amri, eta Jerimoth, eta Abia, eta Anathoth, eta Almath: guztiak Bekorren semeak.

9. Eta izan ziran kontatuak beren familietan; zeñak ziran beren aideeren ondoak, ogei milla eta berreun gizon, txit sendoak gerrarako.

10. Jadielen semea izan zan Balan. Balanen semeak: Jehus, eta Benjamin, eta Aod, eta Kanana, eta Zethan, eta Tharsis, eta Ahisahar.

11. Oiek guztiak izan ziran Jadihelen jatorrikoak, beren familien buruak, zeñaetan kontatu ziran amazazpi milla eta berreun gizon, gudari errutsuak.

12. Eta Sefam, eta Hafam Hisen semeak, eta Hasim Aherren semea.

13. Neftaliren semeak izan ziran Jasiel, eta Guni, eta Jeser, eta Selum, Balaren semeak.

14. Manasesen semea izan zan, Esriel, eta Sirako. Emazte azpiko batgandik izan zuen Makir, Galaaden aita.

15. Eta Makirrek artu zituen emazteak bere semeentzat Hafim, eta Safan, eta iduki zuen arreba bat Maaka zeritzana, eta bigarrenaren izena izan zan Salfaad, eta alabak jaio zituzkion Salfaadi.

16. Eta Maaka Makirren emazteak egin zuen seme bat, zeñi deitu zion, Fares, eta bere anaiaren izena, Sares, eta onen semeak, Ulam, eta Rezen.

17. Eta Ulamen semea, Badan. Oiek dira Galaad, Makirren semearen, Manasesen semearen semeak.

18. Eta bere arreba Rejinak egin zuen Gizon ederra, eta Abiezer, eta Mohola.

19. Semidaren semeak ziran Ahin, eta Sekem, eta Lezi, eta Aniam.

20. Efraimen semeak, Suthala, Bared bere semea, Thahath bere semea, Elada bere semea, Thahath bere semea, Zabad bere semea,

21. Eta Sutala onen semea, zeñaen semeak izan ziran Ezer, eta Elad; baña Jethen errian bizi ziranak il zituzten, jetxi ziralako beren lurretan sartzera.

22. Argatik Efraim beren aitak negar egin zuen berak gatik denbora andian, eta etorri ziran beren anaiak bera gozatzera.

23. Eta alderatu zan bere emazteagana, zeñ jarri zan aurra egiteko, eta egin zuen seme bat, eta jarri zion bere izena Beria, bere etxeko naigabeen artean jaio zalako.

24. Bere alaba izan zan Sara, zeñak egin zituen Bethoron beekoa, eta goikoa, eta Ozensara.

25. Izan ere ziran bere semeak Rafa, eta Resef, eta Thale, zeñagandik jaio zan Tahan;

26. Zeñagandik izan zan sortua Laadan, zeñaen semea izan zan Ammiud, zeñ izan zan Elizamaren aita,

27. Zeñagandik jaio zan Nun, zeñak iduki zuen semetzat Josue.

28. Berak jabe izan ziran toki eta bizilekua izan zan Betel bere erritxoakin, eta Noram sortalderontz, eta sartalderontz Gazer bere erritxoakin, eta orobat Sikem bereakin, Azako erriraño bereakin.

29. Eta Manasesen semeen tribuaren aldean iduki zuten Betsan bere erritxoakin, eta Thanak bereakin, Majeddo bereakin, Dor bereakin. Toki oietan bizi izan ziran Jose Israelen semearen semeak.

30. Aserren semeak: Jemma, eta Jesua, eta Jesui, eta Baria, eta Sara oien arreba.

31. Eta Bariaren semeak: Heber, eta Melkiel. Au da Barsaithen aita.

32. Eta Hebergandik izan ziran sortuak Jeflat, eta Somer, eta Hotam, eta Suaa oien arreba.

33. Jeflaten semeak Fosek, Kamaal, eta Asoth. Oiek dirade Jeflaten semeak.

34. Eta Somerren semeak: Ahi, eta Roaga, eta Haba, eta Aram.



35. Eta bere anaia Helemen semeak: Sufa, eta Jemna, eta Seles, eta Amal.

36. Sufaen semeak: Suk, Harnafer, eta Sual, eta Beri, eta Jemra,

37. Bosor, eta Hod, eta Samma, eta Salusa, eta Jetran, eta Bera.

38. Jeterren semeak: Jefone, eta Fasfa, eta Ara.

39. Olaren semeak: Aree, eta Haniel, eta Resia.

40. Seme guzti oiek dira Aserrenak, familien buruak, lenbiziko gida-riak, autuak, eta txit sendoak, eta armetarako edade egokian zeudenen zenbata, ogeita sei milla.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Benjamingandik izan zan sortua bere lenbizisortu Bale, bigarrena Asbel, irugarrena Ahara,

2. Laugarrena Nohaa, eta bosgarrena Rafa.

3. Eta Baleren semeak izan ziran: Addar, eta Jera, eta Abiud,

4. Abisue ere, Naaman, eta Ahoe,

5. Eta gañera Jera, eta Sefufan, eta Huram.

6. Oiek dira Ahoden semeak, Gabaan bizi diraden familien buruak, eramanak izan ziradenak Manahathera,

7. Au da, Naaman, eta Akia, eta Jera, eraman zituen hura bera; eta zeñagandik izan ziran sortuak Oza eta Ahiud.

8. Eta Saharaimak iduki zituen semeak Moabko lurtean, utzi ezkeru Husim eta Bara, bere emazteak.

9. Eta bere emazte Hodesgandik iduki zituen Jobab, eta Sebia, eta Mosa, eta Molkom;

10. Eta berebat Jehus, eta Sekia, eta Marma. Oiek dirade bere semeak, beren familien buruak.

11. Mehusingandik izan ziran sortuak Abitob, eta Elfaal.

12. Elfaalen semeak: Heber, eta Misaam, eta Samad. Oiek egin zituen Ono, eta Lod, eta beren erritxoak.

13. Baria eta Sama izan ziran Aialonen bizi ziradenen familien buruak. Oiek bota zituzten Jethen bizi ziradenak.

14. Ahio, eta Sesak, eta Jerimoth,

15. Eta Zabadia, eta Arod, eta Heder,

16. Baitaere Mikael, eta Jesfa eta Joha, Bariaren semeak;

17. Eta Zabadia, eta Mosolam, eta Hezezi, eta Heber,

18. Eta Jesamari, eta Jezlia, eta Jobab, Elfaalen semeak,

19. Jazim, eta Zekri, eta Zabdi,

20. Eta Elioenai, eta Seletai, eta Eliel.

21. Eta Adaia, eta Baraia, eta Samarath, Semeiren semeak.

22. Eta Jesfam, eta Heber, eta Eliel,

23. Eta Abdon, eta Zekri, eta Hanan,

24. Eta Anania, eta Elam, eta Anathothia,

25. Eta Jefdaia, eta Fanuel, Sesaken semeak.

26. Eta Samsari, eta Sohoria, eta Otholia,

27. Eta Jersia, eta Elia, eta Zekri, Jerohamen semeak.

28. Oiek dira, Jerusalem bizi ziraden familien patriarka eta prinzi-peak.

29. Gabaonen bizi izan ziran Abigabaon (zeñaen emaztearen izena izan zan Maaka),

30. Eta Abdon bere seme lenbizisortua, eta Sur, eta Zis, eta Baal, eta Nadab;

31. Baitaere Jedor, eta Ahio, eta Zaker, eta Mazeloth.

32. Mazelothgandik izan zan sortua Samaa, eta oiek bizi izan ziran beren anaiakin Jerusalem, beste beren anaien aurkez.

33. Nergandik izan zan sortua Zis, eta Zisgandik Saul, eta Saulgan-dik izan ziran sortuak Jonatas, eta Melkisua, eta Abinadab, eta Esbaal.

34. Jonatasen semea izan zan Meribbaal, zeñaena izan zan Mika.

35. Mikaelen semeak izan ziran Fiton, eta Melek, eta Taraa, eta Ahaz.

36. Eta Ahazgandik izan zan sortua Joadab, eta Joadagandik izan ziran sortuak Alamat, eta Azmot, eta Zamri; eta Zamrigandik izan zan sortua Mosa.

37. Mosagandik izan zan sotua Banaa, zeñaen semea izan zan Rafa, zeñagandik jaio zan Elasa, zeñagandik izan zan sortua Asel.

38. Aselek izan zituen sei seme, zeñaen izenak diran: Ezrikan, Bokru, Ismahel, Saria, Obdia, eta Hanan, oiek guztiak Aselen semeak.

39. Esek bere anaiaren semeak izan ziran: Ulam lenbizisortua, Jehus bigarrena, Elifalet irugarrena.

40. Eta Ulamen semeak izan ziran gizon txit sendoak eta indar andi-koak, eta fletxari trebeak, seme eta illoba asko iduki zituztenak, eun eta berrogeita amarreraño. Oiek guztiak izan ziran Benjaminen semeak.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Israel guztia bada izan zan kontatua. Zenbat izan ziran berak, eskribatua dago Israel eta Judako erregeen liburuan, eta Israelarrak izan ziran Babiloniara eramanak beren bekatuak gatik.

2. Gero lenbiziak bizi izaten beren lurretan, eta beren errietan, izan ziran: Israelarrak, Apaizak, Lebitak, eta Nathinearrak.



3. Jarri ziran Jerusalem Judaren seme batzuek, eta Benjaminenak, baita Efraim, eta Manasesen semeak ere.
4. Otei Ammiuden semea, Amrien semea, Omraien semea, Bonnien semea, Fares Judako semeen semeetatik.
5. Eta Silonirenak: Asia lenbizisortua, eta bere semeak.
6. Eta Zaraen semeetatik: Jehuel, eta oien anaiak, seireun eta laro-geita amar.
7. Eta Benjaminen semeetatik: Salo Mosolamen semea, Odbiaren semea, Asanaren semea,
8. Eta Jobania, Jerohamen semea, eta Ela, Oziren semea, Mokorien semea, eta Mosolam Safatiasen semea, Rahuelen semea, Jebaniasen semea,
9. Eta oien anaiak beren familietatik, bederatzireun eta berrogeita amasei. Oiek guztiak ziran beren jatorriko familia batzuen buruak.
10. Apaizetatik berriz izan ziran Jedaia, Joiarib, eta Jakin,
11. Berebat Azarias, Helziasen semea, Mosolamen semea, Sadoken semea, Maraioten semea, Akitob Jaungoikoaren etxeko apaiznagusien semea.
12. Gañera Adaias Jerohamen semea, Fasurren semea, Melkiasen semea, eta Mahasai, Adielen semea, Jezraen semea, Mosolamen semea, Mosolamiten semea, Emerren semea.
13. Beren familien printze oien aideakin batean, zeñak ziran milla zazpireun, eta irurogi, (sic) gizon sendo, eta bulardetsuak iragotzeko Jaungoikoaren etxeko lanen nekeak.
14. Lebitetatik izan ziran Semeia, Asuben semea, Ezrikamen semea, Hasebiaren, Merarien semeetatik bataren semea;
15. Eta Bakbakar arotza, eta Galal, eta Matanias Mikaen semea, Zekrien semea, Asafen semea;
16. Eta Obdias Semeiaren semea, Galalen semea, iditunen semea, eta Barakia Asaren semea, Elkana, Netofatiko erritxoetan bizitu izan zanaren semea.
17. Eta Atezaiak: Selum, eta Akub, eta Telmon, eta Ahimam: eta Selum beren anaia zan nagusiena.
18. Denbora onetaraño Lebiten parte batek bere txandaka bella egin oi zuen, sortalderontz dagoan elizako ate, erregearena deitzen zitzaionean.
19. Selum Koreren semea, Abiasafen semea, Kore zarraren semea, egoten zan an bere anaiarekin eta bere aitaren familiarekin; au da Koritak, zeñak dauden lantegiko obren gañean, eta gordetzen dituzten tabernaku-

- loko atariak, eta beren familiak, zeñak beren txandaka, bella egiten duten Jaunaren etzauntzeko sarreran.
20. Eta Finees Eleazarren semea zan bere Gidaria Jaunaren aurrean.
21. Eta Zakarias Mosolamiaren semea zan, Testimonioko Tabernakuloko ateko atezaiak.
22. Oiek guztiak autuak atek zaitzeko, ziran berreun eta amabi, eta zeuden eskribatuak beren erritxoetan, zeñak jarri zituzten Dabidek eta Samuel Ikusleak, beren leialtasunagatik,
23. Ala berak, nola beren semeak, zaitzeko beren txandetan Jaunaren etxeko atek, eta Tabernakulokoak.
24. Zeuden atezaiak lau aizetara, au da, sortaldera, eta sartaldera, eta ifarrera, eta egoera.
25. Baña beren anaiak bizi ziran erritxoetan, eta etorri oi ziran beren larunbatetan denborarik denborara.
26. Lau Lebita oien mendean zeuden atezai guztiak, eta begiratzen zuten bizilekuak gatik, eta Jaunaren elizako gauzakgatik.
27. Bakoitzak zeukan bere bizilekua Jaunaren elizaren inguruan, eta idikitzen zituzten goizean bere denboran atek.
28. Oien jatorrikoak ere ziran, elizlanetako ontzien ardura zeukatenak, zeren beren kontura sartu eta ateratzen ziran ontziak.
29. Oietatikoak ere ziran, elizako gauza usubearrak beren kontura zeukatenak, eta iduki oi zuten iriñloraren, eta ardoaren, eta olioaren, eta inzensoaren, eta aromaen kontua.
30. Apaizen semeak ordea ziran egiten zituztenak okenduak aromakin.
31. Eta Matatias Lebita, Selumen lenbizisortu, Koritak, zeukan, zar-taginean frijitzen ziran gauzen kontua.
32. Kaaten seme, oien anaietatiko batzuen kontura zeuden proposizio oikiak, prestatzeko beti eginberriak larunbat bakoitzean.
33. Oiek dira, Lebiten familietako kantarien arteko nagusienak, zeñak bizitu oi ziran elizari itsatsiak zeuden tokietan, aritzeko beti gau ta egun beren lanean.
34. Lebiten agintari, beren familietan printzeak, zeuden Jerusalem.
35. Eta Gabaonen bizi izan zan Jehiel, Gabaonen berriztatzalea, eta bere emaztearen izena zan Maaka,
36. Abdon bere seme lenbizisortua, eta Sur, eta Zis, eta Baal, eta Ner, eta Nadab,
37. Baitaere Jedor, Ahio, eta Zakarias, eta Mazelot.



38. Eta Mazelotgandik izan zan sortua Samaan. Oiek bizi izan ziran beren anaiakin Jerusalem, beren anaien aurkez.

39. Eta Nergandik izan zan sortua Zis, eta Zisgandik izan zan sortua Saul, eta Saulgandik izan ziran sortuak Jonatas, eta Melkisia, eta Abinadab, eta Esbaal.

40. Jonatasen semea izan zan Meribbaal. Meribbaalena izan zan Mika.

41. Mikaen semeak izan ziran Fiton, eta Melek, eta Tarea, eta Ahaz.

42. Ahazgandik izan zan sortua Jara, eta Jaragandik izan ziran sortuak Alamat, eta Azmot, eta Zamri. Zamrigandik izan zan sortua Mosa.

43. Mosagandik izan zan sortua Banaa, zeñaen seme Rafaiagandik izan zan sortua Elasa, zeñagandik jaio zan Asel.

44. Aselek iduki zituen sei seme, zeñaen izenak izan ziran: Ezrikan, Bokru, Ismahel, Saria, Obdia, Hanan: oiek dirade Aselen semeak.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta Filistintarrak gudatu ziran Israelen kontra, eta Israeltarrak iges egin zuten Palestinakoagandik, eta erori ziran zaurituak, Jelboeko mendian.

2. Eta zijoazela aurrera Filistintarrak, Saul eta bere semeen ondoren, il zituzten Jonatas, eta Abinadab, eta Melkisia, Saulen semeak.

3. Eta agizturik guda Saulen inguruan, arkitu zuten fletxariak, eta zauritu zuten beren fletxakin.

4. Eta esan zion Saulek bere ezkutariari: Atera ezak ire ezpata zorrotik, eta il nazak, etorri ez ditezten zirkunzidatu gabeko oriek, eta iseka egin ez dizadaten. Baña bere ezkutariak beldurrez ikaturik, etzuen nai egin au. Orduan Saulek atera zuen bere ezpata, eta etzin zan bere gañean.

5. Ikusirik au bere ezkutariak, au da, illa zala Saul, etzin zan bera ere bere ezpataren gañean, eta il zan.

6. Il zan bada Saul, eta bere iru semeak, eta orobat bere etxe guztia ere galdu zan.

7. Ikusi zutenean au Israelko seme, kanpoetan bizi ziranak, iges egin zuten, eta illik onezkero Saul, eta bere semeak, utzi zituzten beren erriak, eta barreiatu ziran batera eta bestera, eta etorri ziran Filistintarrak, eta bizi izan ziran beretan.

8. Biaramonean bada, zebiltzala Filistintarrak, illak zeuzkaten gauzak arrapatzen, arkitu zituzten Saul, eta bere semeak zetzatela Jelboeko mendian.

9. Eta arturik berak zeukana, eta ebakirik lepoa, eta kendurik armak, eraman zuten beren errira erabilteko alde guztietatik, eta izateko erakutsia jende guztiari idoloen elizetan.

10. Eta bere armak konsagratu ziozkaten beren jainkoez elizari, eta bere burua iltzatuta jarri zuten Dagonen elizan.

11. Aditu zutenean Jabes Galaadko gizon batzuek, Filistintarrak Saulen gorputzarekin egin zuten guztia,

12. Joan ziran batean beretatik bulardetsuenak, eta atzitu zituzten Saul eta bere semeen gorputz illak, eta ekarri zituzten Jabesera, eta obiratu zituzten beren ezurak, Jabesen zegoan arte baten azpian; eta zazpi egunean barau egin zuten.

13. Il zan bada Saul bere bekatuen kastiguan, autsi zuelako Jaunak emondako agintea, eta gorde etzuelako, eta gañera pitonisarekin itundu zalako,

14. Eta Jaunagan itxedon etzuelako. Argatik kendu zion bizia, eta irago zuen bere erreña Dabid Isairen semeagana.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Bildu zan bada Israel guztia Dabidgana Hebronon, esaten zuela: Zure aragia eta ezurra gera.

2. Len ere, oraindikan Saul bizi zala, zu ziñan ateratzen zenduena Israel gudatzera, eta itzulierazitzen ziñiona etxera; zeren zuri esan zizun zure Jainkoak: Zu izango zera nere erriaren artzaia, eta zu izango zera bere prinzipia.

3. Etorri ziran bada Israelko zar guztiak erregeagana Hebronon, eta Dabidek egin zuen berakin elkartasuna, Jaunaren aurrean; eta igortzi zuten Israelko erregetzat, Samuelen bitartez Jaunak esandako itzaren araura.

4. Eta joan zan Dabid Israel guztiarekin Jerusalemenera, au da Jebus, non zeuden Jebustar, lurrean bizi ziranak.

5. Eta Jebusen bizi ziranak esan zioten Dabidi: Ez aiz emen sartuko. Baña Dabidek artu zuen Siongo gaztelua, zeñi gero deitu zitzaion Dabiden erria.

6. Esan zuen lenago: Lenbizia dana Jebustarrak garaitzen, izango da prinzipia eta agintari nagusi egiña. Lenbizia bada erasotzean izan zan Joab, Sarbiaren semea, eta gelditu zan prinzipia eginik.

7. Eta Dabid bizi izan zan gazteluan, eta argatik izan zan deitua Dabiden erria.



8. Eta egin zuen erria inguruan, Melotik beste alderaño, eta erriaren gañerakoa berritu zuen Joabek.
9. Dabid zijoan egiñaz aurrerapenak, eta indarra artuaz, eta ejerzituena Jauna zegoan berarekin.
10. Oiek dira, Dabiden sendoen artean nagusienak, zeñak lagundu zioten, ezagutua izan zedin Israel guztiko erregetzat, Jaunaren itz, Israeli adirazia izan zitzaionaren araura.
11. Eta au da Dabiden sendoen zenbata: Jesbaam Hekamoniren semea, ogeita amarren gidaria, onek jaso zuen bere lanza irureunen gidarean, zeñak zauritu zituen guda bakar batean.
12. Onen ondoan Eleazar Ahohitarra, aitaren aldeko bere osabaren semea, zeñ zan iru sendoenetik bat.
13. Au arkitu zan Dabidekin Fesdomimen, Filistintarrak bildu zira-nean gudatzera toki artan, eta erri artako kanpoak zeuden garagarrez beteak, eta erriak iges egin zuen Filistintarren aurretik.
14. Oiek sendo gelditu ziran kanpoaren erdian, eta zaitu zuten, eta deseginik Filistintarrak, Jaunak egin zion mesede andi bat erriari.
15. Iru oiek, ogeita amar gidarien artean, izan ziran jetxi ziranak Dabid zegoan aitzera Odolamgo kobaren aldean, Filistintarrak jarri zituztenean etzauntzak Rafaimgo ibarrean.
16. Dabid bada zegoan toki sendatu batean, eta Filistintarren talde bat Belenen.
17. Etorri zitzaion orduan Dabidi gurari bat, eta esan zuen: O nork eman lezakedan, Belengo atearen aldean dagoan putzuko ura!
18. Orduan iru oiek irago ziran Filistintarren kanpoaren erditik, eta aterarik ura, Belengo atean dagoan putzutik, eraman zioten Dabidi, edan zezan; zeñak etzuen nai izan, baizik eskeñi zion doañean Jaunari,
19. Esaten zuela: Ez dezala utzi Jaungoikoak, nik au egitea bere aurrean, eta edatea gizon oien odola, zeren beren bizien irriskuarekin, ekarri didate ura. Eta argatik etzuen edan nai izan. Au egin zuten iru gizon txit sendo aiek.
20. Berebat Abisai Joaben anaia zan iruen Prinzipea, eta berak altxatu zuen bere lanza irureunen kontra, zeñak zauritu zituen; eta bera zan iruen artean izenik ospatsuenekoa,
21. Bigarren irurpillako iruen artean argitsuena eta beren Prinzipea; baña etzituen berdindu lenbiziko iruak.
22. Banaias Joiadaren, gizon txit sendo, egitate andiak egin zituena-ren semea, zan Kabseelgoa. Berak il zituen Moabko bi arielak, eta hura

bera da sartu zana urpetegi baten barrenen, eta beraren erdian il zuen leoi bat, elurtza batean.

23. Il ere zuen ark berak ijito bat, zeñaen luzeera zan bost besokoa, eta zeukana lanza bat, eutegi baten zur, irazkibiltzallearen irudikoa. Esetsi zion bada berari makilla batekin, eta kendu zion bere eskuan zeukan lanza, eta lanza onekin beronekin il zuen.
24. Oiek egin zituen Banaias Joiadaren semeak, zeñ zan iru bulardetsuen artean izenik otpatsuenekoa;
25. Ogeita amarren artean lenbizia, baña etzituen berdindu iruak, eta Dabidek egin zuen bere konsejari kutun.
26. Ejerzituena sendoenak ziran Asahel Joaben anaia, eta Elkanan, zeñ zan Belengoa, aitaren aldeko bere osabaren semea,
27. Sammot Aroriena, Heles Falonena.
28. Ira Tekuakoa Akzesen semea, Abiezer Anatotena,
29. Sobbokai Husatena, ilai Ahotena,
30. Maharai Netofatena, Helet Netofatkoa, Baanaren semea.
31. Eta Ribaien semea Gabaatkoa Benjaminen semeetatikoa, Banaia Faratoniarra.
32. Hurai Gaas errekkakoa, Abiel Arbatiarra, Azmot Bauramiarra, Eliaba Salaboniarra.
33. Asem Jezoniarraren semeak, Jonatan Arariar, Sajeren semea.
34. Ahiam Sakar Arariarraren semea,
35. Elifal Urren semea,
36. Hefer Mokeratiarra, Ahia Feloniarra,
37. Hesro Karmeloarra, Naarai Asbaireren semea,
38. Joel Natanen anaia, Mibahar Agaraien semea.
39. Seleke Amoniarra, Naarai Berotiarra, Joab Sarbiaren semearen ezkutaria.
40. Ira Jetrearra, Gareb Jetrearra.
41. Urias Hetearra, Zabad Oholiren semea,
42. Adina Sisaren semea Rubeniarra, Rubeniarren Prinzipea, eta berarekin ogeita amar.
43. Hanan Maakaren semea, eta Josafat Mataniarra,
44. Ozia Astoritarrak, Samma, eta Jehiel Hotam Aroritarraren semeak,
45. Jedihel Samrien semea, eta Joha bere anaia Tosaitarra,
46. Eliel Mahumitarra, eta Jeribai eta Josai Elnaemen semeak, eta Jetma Moabtarra, Eliel eta Obed, eta Jasiel Masobiakoak.



1. Oiek ere etorri ziran Dabidgana Sizelejera, oraindikan Saul Zisen semearen igesi zebillala, zeñak ziran txit sendoak, eta gerrari galantak,
2. Uztai aurtikitzalle trebeak, esku biakin botatzen zituztenak arriak aballakin, eta zuzendu fletxak, Saulen aideak, Benjaminen tribukoak.
3. Nagusiena zan Ahiezer, eta gero Joas, biak Sammaa Gabaatkoaren semeak, eta Jaziel eta Falet Azmoten semeak, eta Baraka eta Jehu Anato-toak.
4. Berebat Samaias Gabaongoa, ogeita amarretatik errutsuena, eta ogeita amarren burua, Jeremias, eta Jeheziel, eta Johanan, eta Jezabad Gaderotkoak,
5. Eluzai, eta Jerimut, eta Baalia, eta Samaria, eta Safatia Arufkoak.
6. Elkana, eta Jesia, eta Azareel, eta Joezer, eta Jesbaam Karehingoa-ak.
7. Joela, eta Zabadia, Jerohamen semeak Jedorkoak.
8. Baita Gadditik ere irago ziran Dabidgana, mortuan ezkutatua zegoanean gizon txit sendo, eta soldadu guztiz onak, ezkutu eta lanzakin, beren arpegiak leioen arpegiak bezelakoak, eta ariñak mendietan basauntzak bezela.
9. Ezer lenbizikoa, Obdias bigarrena, Eliab irugarrena,
10. Masmana laugarrena, Jeremias bosgarrena,
11. Eti seigarrena, Eliel zazpigarrena,
12. Johanan zortzigarrena, Elzebab bederatzigarrena,
13. Jeremias amargarrena, Makbanai amaikagarrena,
14. Gaden semeetatik oiek ziran ejerzituko agintariak, txikienak agintzen zien eun soldaduri, eta andienak millari.
15. Oiek dira Jordana irago zutenak lenbiziko illean, goaitik irtetzen danean, eta urez betetzen ditueneari erriberak, eta iges erazi zieten, bizi ziran guztiai ibarretan sortaldean eta sartaldean.
16. Eta berebat etorri ziran Benjamindik eta Judatik, Dabid egon oi zan gaztelura.
17. Eta Dabid atera zitzaizoten bidera, eta esan zuen: Baldin etorri bazerate nigana pakez, niri laguntzeko gogoarekin, nere biotza batuko da zuekin, baña baldin jartzen badizkidazute zelatadaren batzuek, nere etsaien alde, ez dagoan ezkerreko gaiztakeriarik nere eskuetan, ikusi eta juzgatu beza gure gurasoen Jaungoikoak.
18. Orduan Amasai, ogeita amarren gidariak, espirituak mugitua izanik, esan zuen: Zureak gera, o Dabid, eta zurekin gaude, o Isairen semea, pakea, pakea zuri, eta pakea zuri laguntzen dizuten guztiai, bada zuri

laguntzen dizu zure Jaun Jainkoak. Artu zituen bada Dabidek eta egin zituen bere ejerzituko agintari.

19. Manasesen tributik ere irago ziran Dabidgana, zijoanean au Filisteoakin gudatzera Saulen kontra gudu ez bazan ere berakin, zeren Filisteoen prinzipiak iduririk batzarrea, itzulierazi zioten, esaten zutela: Gure biziaren irriskuarekin itzuliko da bere jaun Saulgana.

20. Biurtu zanean bada Sizelegtik, irago ziran beragana Manasesenatik, Ednas, eta Jozabad, eta Jedihel, eta Mikael, eta Ednas, eta Jozadab, eta Eliu, eta Salati, zeñak agintzen zieten milla gizon Manasesenai.

21. Oiek lagundu zioten Dabidi lapurtxoaren kontra, zeren ziran gizon txit sendoak, eta izan ziran egiñak ejerzituko agintari.

22. Eta onela egun bakoitzean zetozten Dabidgana berari laguntzera, aliketa txit asko bildu ziran artean, Jaungoikoaren ejerzitu bat bezela.

23. Au da ere, Dabidgana etorri ziran ejerzituko Prinzipeen zenbata, Hebronren zegoanean, iragotzeko beragana Saulen erreñua, Jaunaren itzaren araura.

24. Judaren semeetatik, ezkutu eta lanzaz armatuak eta gudarako gertuak, sei milla eta zortzireun.

25. Simeonen semeetatik, gizon txit sendoak gerrarako, zazpi milla, eta eun.

26. Lebien semeetatik, laumilla eta zazpireun.

27. Berebat Joiada, Aaronen jatorriko Prinzipea, eta berarekin iru milla, eta zazpireun.

28. Etorri ere zan Sadok, ekarrai txit oneko gaztea, ogeita bi familietako buru, bere aitaren etxeko jatorrikoakin.

29. Eta Benjamingo seme, Saulen anaietatik, iru milla, zeren oietatiko zati andi batek oraindikan jarraitzen zion Saulen etxeari.

30. Eta Efraimen semeetatik ogei milla, eta zortzireun, gizon txit sendo, eta otpatsuak beren aideen artean.

31. Eta Manasesen tribuaren erditik, emezortzi milla, guztiak beren izenak eskribatuta etorri ziran Dabid errege egitera.

32. Eta Isakarren semeetatik, berreun nagusietatikoak, gizon adituak, zeukatenak denbora bakoitzaren ezagera, adirazteko zer egin bear zuen Israelek, eta tribuko gañerako guztiak jarraitzen zieten beren iritziari.

33. Orobat Zabalondik etorri ziran berari laguntzera, biotz tolesgabeakin berrogeita amar milla, gudara irtetzeko gertuak, eta armaz ongi ornituak.

34. Eta Neftalitik milla nagusietatiko, eta berakin ogeita amazazpi milla gizon; ezkutu eta lanzaz armatuak.



35. Berebat Dandik gudarako gertuak, ogeita zortzi milla eta seireun.
36. Eta Asertik, gerrarako unean, eta esesteko gertuak, berrogei milla.
37. Atzenean Ruben eta Gaden tribuetatik, eta Manasesen tribuaren erditik, Jordango beste aldetik, eun eta ogei milla ongi armatuak.
38. Gerra gizon guzti oiek, gudarako gertuak, biotz men batekin etorri ziran Hebronera, jartzera Dabid Israel guztiko erregetzat, eta Israelen gañerako guztiak ere nai zuen, Dabid errege egitea.
39. Eta egon ziran an Dabidekin iru egunean jaten eta edaten: zeren beren anaiak egin ziozkaten orniak.
40. Eta gañera auzoetako erriak, Isakar, Zabulon eta Neftalirañokoak, ekartzen ziozkaten ogiak astoetan, eta Gameluetan, eta mandoetan, eta idiakin, berak jan zitzaten, iriña, piku ogiak, maspasak, ardoa, olioak, idiak, ariak txit ugari, zeren Israel poztan.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Dabidek bada iduki zuen batzarrea tribunoakin, eta zenturionakin, eta nagusi guztiakin,
2. Eta esan zion Israelko batzarre guztiari: Ongi baderitzazute, eta badatoz gure Jaun Jainkoagandik esaten ditudan itzak: bialdu ditzagun ots egitera, Israelko probinzia guztietan gelditu diran gure anaiak, eta erri inguruetan bizi diran apaiz, eta lebitai, bildu ditezen gurekin,
3. Eta ekarri dezagun gugana gure Jaungoikoaren kutxa, zeren ez degu billatu Saulen egunetan.
4. Eta erantzun zuen talde guztiak, ala egin zedilla, zeren erri guztiari ongi iritzi zitzaion esan zuena.
5. Bildu zuen bada Dabidek Israel guztia Ejiptoko Sihortik Ematen sarreraraño, eramateko Jaungoikoaren kutxa Kariatiarimdik.
6. Eta igo ziran Dabid, eta Israelko gizon guztiak Kariatiarimgo muñatzera, zeñ dagoan Judan, eramateko andik Jaun Jainkoaren kutxa, zeñ dagoan eseria Kerubinen gañean, non ots egiten zaion bere izenari.
7. Eta jarri zuten Jaungoikoaren kutxa gurdi berri baten gañean, Abinadaben etxetik, eta Oza eta bere anaiak zuzentzen zuten gurdia.
8. Eta Dabid eta Israel guztiak ematen zituzten pozaren siñaleak Jaungoikoaren aurrean beren indar guztiakin, kantakin, eta zitarakin, eta salterioakin, eta panderoakin, eta zimbaloakin, eta tronpetakin.
9. Allegatu ziradenean berriz Kidonen larrañara, luzatu zuen Ozak bere eskua, kutxa irozteko, zeren idi batek pozez saltoka ari zala, piska bat zeartu zuen.

10. Argatik Jauna aserretu zan Ozaren kontra, ukitu ziolako kutxari, eta il zan an Jaunaren aurrean.
11. Eta tristetu zan Dabid, Jaunak berezitu zuelako Oza, eta deitu zion toki ari, Ozaren berezituera, gaurko eguneraño irautzen duen izena.
12. Eta Jaungoikoaren beldur izan zan denbora artan, esaten zuela: Nola sartu nezake nere etxean Jaungoikoaren kutxa?
13. Eta argatik etzuen eraman bere etxera, au da, Dabiden errira; baizik eramanerazi zuen Obededon Jetkoaren etxera.
14. Egon zan bada Jaungoikoaren kutxa iru illabetean Obededonen etxean, eta Jaunak bedeikatu zuen bere etxea, eta zituen gauza guztiak.

AMALUGARREN KAPITULUA

1. Hiram Tiroko erregeak ere bialdu zituen mandatariak Dabidgana, eta zedrozko zurak, eta ijelsariak, eta arotzak, egin zitzaioten etxe bat.
2. Eta ezagutu zuen Dabidek, Jaunak sendatu zuela Israelko erregetzat, eta bere erreñua izan zala goratua Israel bere erriaren onerako.
3. Artu ere bazituen Dabidek beste emazte batzuek Jerusalemen, eta berakgandik izan zituen semeak eta alabak.
4. Jerusalemen jaio zitzaiozkanen izenak dira oiek: Samua, eta Sobad, Natan, eta Salomon,
5. Jebahar, eta Elisua, eta Elifalet,
6. Eta Noga, eta Nafeg, eta Jafia,
7. Elisama, eta Baaliada, eta Elifalet.
8. Aditurik berriz Filistintarrak, Dabid izan zala igortzia Israel guztiko erregetzat, igo ziran guztiak bere billan, eta aditurik au Dabidek, atera zitzaian bidera.
9. Eta etorririk Filistintarrak, zabaldu ziran Rafaimgo ibarrean.
10. Eta itundu zan Dabid Jaunarekin, esaten zuela: igoko ote naiz Filistintarren kontra, eta jarriko bai al dituzu nere eskuan? Eta erantzun zion Jaunak: igo zaite, eta jarriko ditut zure eskuan.
11. Eta igorik berak Baalfarasimera, an desegin zituen Dabidek, eta esan zuen: Berezitu ditu Jaungoikoak nere etsaiak nere eskuz, urak berezitu oi diraden bezela, eta argatik toki aren izena izan zan deitua Baalfarasim.
12. Eta an utzi zituzten beren jainkoak, eta Dabidek agindu zuen erretzeko.
13. Filistintarrak egin zuten oraindik beste erasotze bat, eta zabaldu ziran ibarretik.



14. Eta Dabid berriz itundu zan Jaungoikoarekin, eta esan zion Jaungoikoak: Etzaite igo beren ondoren, alde zaitte berakgandik, eta etorriko zera beren kontra udarien aurretik.

15. Eta aditzen dezunean, udarien kopan dabillan baten otsa, orduan aterako zera gudara. Zeren Jaungoikoa dijoa zure aurretik, zauritzeko Filistintarren etzauntzak.

16. Egin zuen bada Dabidek Jaungoikoak agindu ziona, eta desegin zituen Filistintarren etzauntzak, Gabaondik Gazeraraño.

17. Eta barreiatu zan Dabiden ospea alderri aietatik, eta Jaunak egin zuen jende guztien beldurgarri.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Egin ere zituen etxeak beretzat Dabiden errian; eta Jaungoikoaren kuxtarentzat egin zuen toki egoki bat, eta egin zion Tabernakulo bat.

2. Dabidek orduan esan zuen: Ez da zillegi, Jaungoikoaren kutxa bestek eramana izatea, Lebitak baizik, zeñiak autu zituen Jaunak eramateko, eta izateko beti bere ministroak.

3. Eta bildu zuen Israel guztia Jerusalemenean, Jaungoikoaren kutxa eramana izan zedin, gertutua zeukaion tokira.

4. Baitaere Aaronen semeak, eta Lebitak.

5. Kaaten semeetatik, Uriel izan zan Prinzipea, eta bere anaiak eun eta ogei.

6. Merarien semeetatik, Asaia zan nagusiena, eta bere anaiak berreun eta ogei.

7. Jersonen semeetatik, Joel zan nagusiena, eta bere anaiak eun eta ogeita amar.

8. Elisafanen semeetatik Semeias zan Prinzipea, eta bere anaiak berreun.

9. Hebronen semeetatik, Eliel zan Prinzipea, eta bere anaiak larogei.

10. Ozielen semeetatik, Aminadab zan Prinzipea, eta bere anaiak eun eta amabi.

11. Eta ots egin zien Dabidek Sadok eta Abiatar Apaizai, eta Uriel, Asaia, Joel, Semeia, Eliel, eta Aminadab Lebitai,

12. Eta esan zuen: Zuek Lebiten familien Prinzipeak zeratenok, santutu zaitzete zuen anaiakin, eta ekarri ezazute Israelko Jaun Jainkoaren kutxa, gertutua dagokion tokira,

13. Lenbiziko aldian bezela, etzeundetelako zuek an, nola Jaunak zauritu ginduen, ala gertatu dedin orain ere, zillegi ez dan gauzaren bat egiten badegu.

14. Apaizak bada, eta Lebitak santutu ziran, Israelko Jaun Jainkoaren kutxa eramateko.

15. Eta Lebiren semeak eraman zuten Jaungoikoaren kutxa beren sorbaldeen gañean zigorretan, Moisesek agindu zuen bezela, Jaunaren itzaren araura.

16. Eta Dabidek esan zien Lebiten Prinzipeai, siñalatu zitzatela beren anaien artean kantariak, eta bolin soñu jotzalleak, au da, nabloak, lirak, eta zinbaloak; pozezko soñuak allegatu zitezzen zeruraño.

17. Eta Lebitetatik siñalatu zituzten, Hemam Joelen semea, eta bere anaietatik, Asaf Barakiasen semea, eta Merarien seme, beren anaietatik Etan Kasaiaren semea.

18. Eta berakin bere anaiak, bigarren txandan Zakarias, eta Ben, eta Jaziel, eta Semiramot, eta Jahiel, eta Ani, Eliab, eta Banaia, eta Maasias, eta Matatias, eta Elifalu, eta Maziarias, eta Obededom, eta Jehiel, zeñiak ziran atezaiak.

19. Eta Heman, Asaf, eta Etan kantariak jotzen zituzten bronzeko zinbaloak.

20. Eta Zakariasek, eta Ozielek, eta Semiramotek, eta Jahielek, eta Anik, eta Eliabek, eta Maasiasek, eta Banaiasek, kantatzen zituzten kanta estaliak nabloakin.

21. Eta Matatiasek, eta Elifaluk, eta Maziariasek, eta Obededomek, eta Jehielek, eta Ozaziuk kantatzen zituzten garaipen kantak zortzi soka-ko harpakin.

22. Eta Komenias Lebiten Prinzipea, zan kapillako maesua, tonua emateko kantari, zeren zan txit aditua.

23. Eta Barakias, eta Elkana ziran kuxtaren atezaiak.

24. Eta Sebenias, Josafat, eta Natanael, eta Amasai, eta Zakarias, eta Banaias, eta Eliezer Apaizak, jotzen zituzten tronpetak Jaungoikoaren kuxtaren aurrean; eta Obededom eta Jehias ziran kuxtaren atezaiak.

25. Dabid bada, eta Israelko zar guztiak, eta tribunoak joan ziran aldatzera Jaunaren elkertasuneko kutxa Obededomen etxetik pozkarioekin.

26. Eta lagundurik Jaungoikoak, Jaunaren elkertasuneko kutxa zeramaten Lebitai, zazpi zezen, eta zazpi ari ziran il, eta eskeñiak.

27. Eta Dabid zegoan jantzita liño fiñezko tunika batekin, baita kutxa zeramaten Lebita guztiak, eta kantariak, eta Komenias kapillako maesua, kantarien artean, eta Dabid zijoa ere efod liñozko batekin jantzia.



28. Eta Israel guztiak laguntzen zion Jaunaren elkartasuneko kuxari pozezko deadarrakin, eta bozinen, eta tronpeten, eta zinbaloen, eta nabloen, eta zitaren otsarekin.

29. Eta Jaunaren elkartasuneko kutxa allegatu zanean Dabiden erri-
raño, Mikol Saulen alabak leio batetik begiratuta, ikusi zuen Dabid erre-
gea saltoka eta dantzan, eta mezpreziatu zuen bere biotzean.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eraman zuten bada Jaungoikoaren kutxa, eta jarri zuten, Dabidek egin zion Tabernakuloaren erdian, eta eskeñi zituzten holokaustoak, eta doañ paketsuak Jaunaren aurrean.

2. Eta Dabidek bukatu zuenean eskeñtzea holokaustoak, eta doañ paketsuak, bedeikatu zuen erria Jaunaren izenean.

3. Eta eman zien guztiak eta bakoitzari gizasemeai eta emakumeai, ogi opil bat, eta bei aragi errearen ano bat, eta iriñlora, oliotan frijitua.

4. Eta siñalatu zituen Lebiten artetik, zeñak ariko ziran elizlanetan Jaunaren kuxaren aurrean, zeñak oroituko ziran bere obrakin, eta zeñak goratu eta alabatuko zuten Israelko Jaun Jainkoa:

5. Izentatu zuen nagusizat Asaf, eta bere bigarrentzat Zakarias. Jarraitzen zuten gero Jahiel, eta Semiramot, eta Jehiel, eta Matatias, eta Eliab, eta Banaias, eta Obededom, Jahiel salterio eta liraen erremientata-
rako; eta Asaf zinbaloak jotzeko.

6. Eta Banaias eta Jaziel apaizak, jotzeko beti tronpeta Jaunaren elkartasuneko kuxaren aurrean.

7. Egun artan Dabidek egin zuen Asaf lenbiziko kantaria, kantatu zitzaen Jaunaren alabanzak bere anaiakin.

8. Alabatu ezazute, Jauna, eta dei egin zaiozute bere izenari, ezagu-
tuerazi itzazute errietan bere asmazioak.

9. Kantatu zaiozute, eta salmoak esan zaiozkazute, eta kontatu itza-
tzute bere mirari guztiak.

10. Alabatu ezazute bere izen santua, poztu bedi, Jauna billatzen dutenen biotza.

11. Billatu ezazute Jauna, eta bere sendotasuna, billatu ezazute beti bere arpegia.

12. Oroitu zaitetze, egin zituen mirariakin, bere obra arrigarri, eta bere aoko erabakiakin.

13. Bere serbitzari Israelen jatorria gera, Jakob bere autuaren semeak.

14. Bera da gure Jaun Jainkoa, bera da mundu guztia juzgatzen duena.

15. Oroitu zaitetze beti bere elkartasunarekin, milla gizaldira emaniko itzarekin.

16. Elkartu zana Abrahamekin, eta bere juramentua Isaak-ekin.

17. Eta sendotu zion Jakobi erabakia bezela, eta Israeli betiko elkar-
tasuna bezela.

18. Esaten zuela: Nik emango dizut Kanaango lurra, zuen ondadea-
ren lokarria.

19. Izanik gutxi zenbatean; beartsuak, eta maizterrak berean.

20. Eta irago ziran jenderik jende, eta erreñu batetik beste erri bate-
ra.

21. Etzion utzi iñori berai gaitzik egiten; baizik beren amorioz agira-
ka egin zien erregeai.

22. Etzaiezute ukitu nere igortziaz, eta etzaiezute gaitzik egin nere
profetai.

23. Kantatu Jaunari lur guztia, adirazi egunetik egunera bere salba-
zioa.

24. Kantatu bere gloria jendeen artean, bere mirariak erri guztien
artean.

25. Zeren andia da Jauna, eta txit alabagarria, eta beldurgarriago jain-
ko guztiak baño.

26. Zeren errietako jainko guztiak dira idoloak, baño Jaunak egin
zituen zeruak.

27. Alabanza eta anditasuna bere aurrean, sendotasuna eta poza
beraren tokian.

28. Eman zaskiozute Jaunari, o errietako familiak, eman zaskiozute
Jaunari gloria eta agintaritza.

29. Eman zaiozute Jaunari gloria bere izenarentzat, altxatu ezazute
eskeñtza, eta etorri zaitetze bere aurrera, eta adoratu ezazute Jauna bere
edertasun santuan.

30. Mugitu bedi bere arpegiaren aurrean lur guztia, zeren berak
zimendatu zuen mundua, mugitu eziña.

31. Alegatu bediz zeruak, eta pozez salto egin beza lurrak: eta esan
bezate erreñuen artean: Jaunak erreñatu du.

32. Turmoaka ari bedi itsasoa, eta bertan daukan guztia, poztu bediz
kanpoak eta beretan dauden gauza guztiak.

33. Orduan alabatuko dute basoko zuaitzak Jaunaren aurrean, etorri
zalako juzgatzaera lurra.

34. Eman zaiozute gloria Jaunari, zeren ona dan, zeren bere urrikal-
tasuna betikoa dan.



35. Eta esan ezazute: Salba gaitzazu, Jaungoiko gure Salbatzalea, eta bildu gaitzazu, eta atera jendeen artetik, eman dizaiogun gloria zure izen santuari, eta poztu gaitezen zure kantetan.

36. Bedeikatua Israelko Jaun Jainkoa betiraundetik beriraundera, eta esan beza erri guztiak: Ala izan dedilla, eta himnoa Jaunari.

37. Onenbesterekin utzi zituen an Jaunaren elkartasuneko kutzaren aurrean Asaf, eta bere anaiak, ari zitezen beti elizlanetan kutzaren aurrean egun guztietan, eta beren txandaka,

38. Baita Obededom, eta bere anaiak ere, zeñak ziran irurogeita zortzi, eta atezaitzat jarri zituen Obededom, idithumen semea, eta Hosa.

39. Eta Sadok apaiza, eta bere anaia apaizak, Jaunaren Tabernakuloren aurrean, Gabaonen zegoan altuan,

40. Aspertu gabe eskeñi zizaiozkateen holokaustoak Jaunari, holokaustoen aldarearen gañean, Israeli agindu zitzaion Jaunaren legean eskribatuak dauden gauza guztien araura.

41. Eta bere ondoren Emath, eta Idithun, eta beste autuak, bakoitza bere izenez, Jaunari gloria emateko, zeren bere urrikaltasuna betiko dan.

42. Baitaere Heman, eta Idithun, zeñak jotzen zituzten tronpeta, eta zinbaloak, eta soñularien erremienta guztiak Jaungoikoari kantatzeko, eta iditunen semeak egin zituen atezai.

43. Eta erri guztia itzuli zan bere etxera, eta Dabid ere bai, bedeikatzaera etxea.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta Dabid bere etxean bizi zala, esan zion Natan profetari: Ona emen non ni bizi naizan zedrozko etxe batean, eta Jaunaren elkartasuneko kutxa dago larruzko estali baten azpian.

2. Eta esan zion Natanek Dabidi: Egin ezazu zure biotzean dagoan guztia, zeren Jaungoikoa dago zurekin.

3. Baña gau artan bertan Jaungoikoak itz egin zion Natani, esaten zuela:

4. Zoaz, eta esan zaiozu nere serbitzari Dabidi: Oiek esaten ditu Jaunak: Ez didazu egingo zuk etxea bizitzeko.

5. Egiaz ez det nik iduki etxerik toki batean, Israel Ejiptotik atera nuen denbora artatik gaurko eguneraño, baizik beti ibilli naiz etzauntzeko tokiak aldatzen, eta denda baten azpian,

6. Egiten ditudala egotaldiak Israel guztiarekin. Alaere esan bai al nion nik itzik ere Israelko Juezen bati, zeñai agindu nien nere erria gobernatzeko, esaten niela: Zergatik ez didazute egin zedrozko etxe bat?

7. Orain bada esango diozu nere serbitzari Dabidi: Ona zer esaten duen ejerzituen Jaunak: Nik autu zindudan, zuk bazkatzen ziñituenean artaldeak, izan zindezen Israel nere erriaren Gidaria.

8. Eta egon naiz zurekin ibilli zeran toki guztietan; eta zure etsai guztiak zure aurrean desegin ditut, eta egin det zure izena, lurrean zelebratuak diran andizkietatik batena bezelakoa.

9. Eta Israel nere erriari ere bizileku izentatua eman diot, zeñean botako dituen sustraiak eta iraungo duen, eta zeñatetik ez dan izango kendua, eta gaiztakeriako semeak ere ez dituzte gaizki erabilliko len bezela,

10. Israel nere erriari Juezak eman niozkan denbora artatik, eta umillatu nituen zure etsai guztiak. Jakin erazitzen dizut bada, Jaunak egingo dizula etxea.

11. Eta zure egunak kunplitzen dituzunetik laster, joateko zure gurasoak gana, irakoriko det zure ondoan, zure odoleko bat, zeñ izango dan zure semeetatikoa, eta egingo det bere erreñua iraunkorra.

12. Onek egingo dit etxea, eta nik sendotuko det bere tronua betiko.

13. Ni izango natzaio aitatat, eta bera izango zatat semetzat, eta ez det kenduko beragandik nere urrikaltasuna, ez nuen bezela kendu, zu baño lenago izan zan argandik.

14. Eta ipiñiko det nere etxean eta nere erreñuan betiko, eta bere tronua izango da beti txit sendoa.

15. Natanek adirazi ziozkan Dabidi itz guzti oiek, eta ikusketa guzti au.

16. Eta sarturik Dabid erregea barrena, eta jarririk Jaunaren aurrean, esan zuen: Zeñ naiz ni, o Jaun Jainkoa, eta zeñ da nere etxea, egiteko nigatik alako gauzak?

17. Eta oni ere gutxi iritzi diozu zure aurrean, eta argatik itz egin dezu zure serbitzariaren etxearen gañean geroko ere, eta egin nazu, beste gizon guztiak baño argitsuago, o Jaun Jainkoa.

18. Zer geiago nai izan lezake Dabidek, anbesteraño goratu dezun ezkeroko zuk zure serbitzaria, eta ontzat ezagutu?

19. O Jauna, zure serbitzariaren amorioz egin dezu zure biotzaren araura anditasun guzti au, eta nai izan dezu, ezagutuak izan ditezela anditasun guzti oiek.

20. Jauna, ez dago zure antzekorik, eta ez dago beste Jaungoikoarik zu baño, gure belarriakin aditu ditugun guztien artean.

21. Zeren, zeñ beste erririk dago Israelko zure erria bezelakorik, erri bakarra lurraren gañean, zeñ libratzaera eta bere erri egitera etorri izan dan



Jaungoikoa, botatzen zituela bere eskubide eta mirari arrigarriakin erreñuak, berak Ejiptotik atera zuenaren aurretik?

22. Eta jarri dezu zure erritzat betiko Israel zure erria, eta zu, Jauna, egin zera bere Jaungoikoa.

23. Orain bada, Jauna, gelditu bedi betiko sendoturik, zure serbitzariari, eta bere etxearen gañean eman diozun itza, eta egin ezazu, esan dezun bezela.

24. Eta orain beti iraua beza, eta izan bedi goratua beti zure izena, eta esan bedi: Israelko Jaungoikoa da ejerzituen Jauna, eta Dabid bere serbitzariaren etxeak irautzen du beti bere aurrean.

25. Zuk, nere Jaun Jainkoa, esan ziñiolako zure serbitzariari bere belarrira, egingo ziñiola etxea. Argatik zure serbitzaria atrebitu da eskari au zuri egiten.

26. Orain bada, o Jauna, zu zera Jaungoikoa, eta zuk eskeñi diozka zure serbitzariari mesede añ andiak,

27. Eta asi zera bedekitzen zure serbitzariaren etxea, iraua dezan beti zure aurrean, zeren zuk, o Jauna bedekiatu ezkeru, beti izango da bedekiatua.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Irago ezkeru gauza oiek, Dabidek desegin, eta humillatu zituen Filistintarrak, eta beren mendetik atera, eta beretu zituen Gad, eta bere erritxoak.

2. Desegin ere zituen Moabtarrak, eta gelditu ziran Dabiden mendean, zeñi pagatzen zioten kotiza.

3. Denbora artan beratan garaitu zuen berebat Dabidek Adazerer Sobako erregea, Emathko lurrean, atera zanean zabaltzeko bere agintari-tza Eufrates ibairaño.

4. Artu ziozkan bada Dabidek milla gurdi, bakoitza lau zaldiko, eta zazpi milla soldadu zaldizko, eta ogei milla oñazko, eta gurdien zaldi guztiai ebaki ziezten aztalak, salbu, beretzat gorde zituen eun gurdi launa zaldikoai.

5. Eta etorri zan geroago Siro Damaskokoa, Adazerer Sobako erregeari laguntzera, baña Dabidek il ziozkan oni ere ogeita bi milla gizon.

6. Eta ipiñi zituen soldaduak Damaskon, Siria ere bere mendean egon zedin, eta kotiza pagatu zizaion. Eta Jaunak lagundu zion, asi zituen gauza ta lanbide irriskuko guztietan.

7. Arrapatu ere zituen Dabidek, Adazererren agintariak iduki zituzten urrezko fletxategiak, eta eraman zituen Jerusalemenera.

8. Baitaere Thebath, eta Kun, Adazererren errietakoai, bronze txit asko, zeñatatik egin zituen Salomonek bronzeko itsasoa, eta abeak, eta bronzeko ontziak.

9. Aditu zuenean au Thou Emathko erregeak, au da, desegin zuela Dabidek Adazerer Sobako erregearen ejerzitu guztia,

10. Bialdu zuen Adoram bere semea Dabid erregeagana, pakea eskatzera, eta elkarrekin gozatzera, garaitu eta menderatu zuelako Adazerer; zeren Thou zan Adazererren etsaia.

11. Eta Dabid erregeak ere konsagratu ziozkan Jaunari urrezko, eta zillarrezko, eta bronzeko ontzi guztiak, jende guztiai artu zien zillar eta urrearekin, ala Idumeakoai, eta Moabkoai eta Ammonen semeai, nola Filistintarrak eta Amalektarrak.

12. Eta Abisai Sarbiaren semeak desegin zituen emezortzi milla Idu-meo Gatzagen ibarrean.

13. Eta utzi zuen Idumean soldadu talde bat, egon zedin Idumea Dabiden mendean, eta Jaunak salbatu zuen Dabid, egin zituen gerretako ibillera guztietan.

14. Dabidek bada erreñatu zuen Israel guztiaren gañean; eta juzgatzun zuen zuzentasunarekin, eta egiten zion justizia erri guztiari.

15. Eta Joab Sarbiaren semea zan ejerzituko agintari nagusia, eta Josafat Ahiluden semea Kanzillera.

16. Eta Sadok Akitoben semea, eta Ahimelek Abiatarren semea, apezak, eta Susa sekretarioa.

17. Eta Banaias Joiadaren semea, Zerethi eta Felethiko lejioren agintaria.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta Naas Ammonen semeen erregea il zan, zeñaen lekuan erreñatu zuen bere semeak.

2. Eta esan zuen Dabidek: Agertuko diot artzen dedan pena Hanon Naaasen semeari, zeren bere aitak mesedeak egin zizkidan. Eta bialdu zituen Dabidek mandatarriak gozatzeko semea bere aitaren eriotzan. Zeñiak allegaturik Ammonen semeen lurrera poztutzeko Hanon,

3. Esan zioten Hanoni Ammontarren Prinzipeak: Zuk noaski uste dezu, Dabidek bialdu dituela gizonak zure aitaren oroipena honratu, eta zu poztutzera, eta ez dezu ikusten aren morroi oiek etorri dirala, zure erria ikusi, esamiñatu, eta aztertzeraz.



4. Aditurik au, kenduerazi zien Hanonek Dabidek bialduai buruko illea eta bizarra, eta ebakierazi ziezten tunikak esertokietatik oñetaraño, eta bialdu zituen.

5. Zeñak alde egiñik eta emanik Dabidi gertari onen gaztigua, bialdu zituen berai bidera irtetzera (zeren andia zan beren lotsaria) eta agindu zien gelditu zitezela Jerikon, eta etzitezela itzuli, bizarra azi zekioten artean.

6. Ammonen semeak berriz, ikusirik Dabidi egin zioten bidegabea, ala Hanonek, nola erri guztiak, bialdu zituzten milla talentu zillarrezko, alogorean artzeko Mesopotamiako, eta Maaka Siriako, eta Sobako gurdiak, eta zaldizko jendea.

7. Eta artu zituzten alogorean ogeita amabi milla gurdi, eta Maakako erregea bere erriarekin. Eta mugiturik oiek, jarri zituzten etzauntzak Medabaren aurkez. Eta Ammonen semeak ere bildurik beren errietatik, atera ziran gudatzera.

8. Aditurik au Dabidek, bialdu zuen Joab, gizon sendozko ejerzitu guztiarekin.

9. Eta aterarik Ammonen semeak, gertutu ziran gudarako erriko atearen aldean, berai laguntzera etorri ziran erregeak gelditzen ziran bitartean berezituak kanpoan.

10. Joabek bada ezagaturik eraso nai ziotela aurkez eta ostetik, autu zituen Israel guztiko sendoenak, eta joan zan Siroarren kontra.

11. Eta gañerako ejerzituaren agintaritza eman zion bere anaia Abisairi; eta joan ziran Ammonen semeen kontra.

12. Eta esan zuen: Siroak garaituaz eramango banindute, lagunduko didazu, eta Ammonen semeak garaitzen bazaituzte, ni joango naiz zuri laguntzera.

13. Zaude sendo, eta gудatu gaitezen gizonkiro, gure erriagatik, eta gure Jaungoikoaren uriak gatik; eta Jaunak egin dezala bere gogokoen dana.

14. Joan zan bada Joab, eta berarekin zegoan jendea Siroarren kontra gudatzera, eta igeserazi zien.

15. Eta Ammonen semeak, ikusirik Siroarrak iges egin zutela, iges egin zuten berak ere, bere anaia Abisaigandik, eta sartu ziran errian, eta Joab ere itzuli zan Jerusalemenera.

16. Baña ikusirik Siroarrak, Israelek garaituak izan zirala, bialdu zituen mandatariak, eta etorri erazi zien, ibaiaren beste aldetik zeuden Siroarrai, eta zeukaten gidaritzat Sofak, Adarezerren ejerzituko agintari nagusia.

17. Eta emanik Dabidi onen abisua, bildu zuen Israel guztia, eta irago zuen Jordana, eta eraso zien aurkez bere ejerzitu, gudarako prestatuarekin, gudatzen zirala sendo aiek onen kontra.

18. Baña gero ere Siroarrak iges egin zuen Israelgandik, eta Dabidek il ziezten Siroarrai zazpi milla gizon gurdizko, eta berrogei milla oñazko, eta Sofak ejerzituko agintari nagusia.

19. Ikusirik orduan Adarezerren serbitzariak, Israelek garaituak izan zirala, irago ziran Dabidgana, eta jarri ziran bere mendean, eta Siriak etzien eman nai izan berriz beñere laguntasunik Ammonen semeai.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Urte beteren buruan, erregeak gerrara ateratzen diran garaiean, bildu zuen Joabek ejerzitua, eta tropen lora, eta arrasatu zuen Ammontarren erria, eta joanik aurrera, setiatu zuen Rabba. Dabid berriz gelditu zan Jerusalemenean, Joabek Rabbari esetsi zionean, eta desegin zuenean.

2. Orduan kendu zion Dabidek Melkomgo idoloari koroea bere burutik, eta berean arkitu zituen urrezko talentu baten pisua, eta arri txit baliotsuak, eta berakin egin zuen beretzat koroe bat, eta gañera artu zituen errian ondasun andiak.

3. Eta atera zuen kanpora bertan zegoan jendea, eta irago erazi zituen beren gañetik tralluak, eta lerak, eta narrak burniak, alako moduan non, gelditzen ziran zatiturik, eta zeaturik. Orobat egin zuen Dabidek Ammonen semeen erri guztiakin, eta itzuli zan bere ejerzitu guztiarekin Jerusalemenera.

4. Asi zan gero gerra Filistintarren kontra Gazerren; zeñean Sokobai Husatikoak il zuen Safai Rafaimen jatorrikoa, eta umillatu zituen.

5. Izan zan beste gerra bat ere Filistintarren kontra, zeñean Adeodato, Saltoren seme, berez Belengoak, il zuen Goliat Jethkoaren anaia bat, zeñak zekarren lanza bat, zeñaen kirtena zan, eulen zur, irazki ardatza bezelakoa.

6. Beste gerra bat ere izan zan Jethen, zeñean arkitu zan luzeera txit andiko gizon bat, zeñak zituen esku eta oñ bakoitzean seiná beatz, au da, guztitan ogeita lau beatz, zeñ ere zan Rafaen jatorrikoa.

7. Au ari zitzaion aupadaka Israeli, baña il zuen Jonathan Samaaren seme, Dabiden anaia. Oiek dirade Rafaren seme, Jethkoak, illak izan ziranak Dabiden eta bere serbitzarien eskuz.



OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Baña jaiki zan Satanask Israelen kontra, eta akullutu zuen Dabid, Israel kontatzera.

2. Eta esan zien Dabidek Joabi, eta erriko Prinzipeai: Zoazte, eta kontatu ezazute Israel Bersabeetik Daneraño, eta ekarri zadazute zenbat diranen berria, jakin dezadan.

3. Eta Joabek erantzun zion: Geitu beza Jaunak bere erria, dan baño eun bidar geiago, baño, ez al dira guztiak, o nere errege eta jauna, zure serbitzariak? Zertarako nai du nere jaunak egitea gauza bat, Israelentzat kaltegarria izango dana?

4. Alaere indar geiago iduki zuen erregearen itzak, eta atera zan Joab, eta jira egin zion Israel guztiari; eta itzuli zan Jerusalemenera,

5. Eta esan zion Dabidi zenbat ziran ibilli zan tokietakoak, eta arkitu zan zirala Israeltar guztiak milloek bat, eta eun milla armagizon, eta Judatarrek lareun, eta irurogei milla gerrarakoak.

6. Bada etzituen kontatu Joabek Lebi, ez Benjamin, zeren gogo txarrek egiten zuen erregeak agindu ziona.

7. Eta etzan izan Jaungoikoaren gogokoa agindu zana, eta argatik kastigatu zuen Israel.

8. Eta esan zion Dabidek Jaungoikoari: Txit andia izan da, onetan egin dedan bekatua, barkatu ezazu, o Jauna, zure serbitzariaren gaiztakeria, zeren ezjakiñez egin det.

9. Itz egin zion bada Jaunak Gad, Dabiden profetari, esaten zuela:

10. Zoaz, itz egin zaiozu Dabidi, eta esan: Oiek esaten ditu Jaunak: iru gauzaetik bat ipintzen det zure aukeran autu ezazu bat, nai dezuna, eta egingo det zurekin.

11. Eta etorriarik Gad Dabidgana, esan zion: Oiek esaten ditu Jaunak: Autu ezazu nai dezuna,

12. Edo iru urteko gosetea; edo ibiltzea iru illabetearen zure etsaien igesi, beren ezpatak beti aldean dituzula; edo iru egunean Jaunaren ezpatak eman ditzala bere otsak, zabaldurik izurritea erritik, eta Jaunaren aingerua joan dedilla galmenak egiñaz Israelko alderri guztietatik. Orain bada begira ezazu zer erantzungo diodan bialdu nauenari.

13. Erantzun zion Dabidek Gadi: Alde guztietatik estututzen naute antsiak, baño obe zat erortzea Jaunaren eskuetan, ezagaturik andia dala bere urrikaltasuna, gizonen eskuetan baño.

14. Bialdu zuen bada Jaunak izurritea Israelera, eta il ziran Israelkoak irurogeita amar milla.

15. Berebat bialdu zuen bere aingerua Jerusalemenera zauritu zezan, eta zauritzen ari zala, begiratu zion Jaunak, eta iduki zuen galmen ain andiaren errukia, eta eman zion aingeru arrasatzalleari aginte au: Asko da, atzeratu ezazu onezkero zure eskua. Jaunaren aingerua zegoan garai artan, Ornan Jebustarraren larrañaren gañean.

16. Eta jasorik Dabidek bere begiak, ikusi zuen Jaunaren aingerua, zegoala zeruaren eta lurraren bitartean, eta bere eskuan ezpata billos bat, eta itzulia Jerusalemenera kontra, eta ala bera, nola Zarrak, zilizioz jantzita, auzpeztu ziran lurreraño.

17. Eta Dabidek esan zion Jaungoikoari: Ez al naiz ni agindu dedana erria kontatzeko? Ni naiz bekatu egin dedana, ni gaiztakeria egin dedana, erri au zer kastiguren diña da? Nere Jaun Jainkoa, erregututzen dizut, arren, itzuli dedilla zure eskua nere kontra, eta nere aitaren etxearen kontra, baño ez bedi izan kastigatua zure erria.

18. Eta Jaunaren aingeruak agindu zion Gadi, esan zizaiola Dabidi, igo zedilla, eta egin zizaiola aldare bat Jaun Jainkoari Ornan Jebustarraren larrañean.

19. Igo zan bada Dabid, Gadek Jaunaren izenian esan zion itzaren araura.

20. Baña Ornan, eta berarekin zeuden lau semeak, jasorik begiak, eta ikusirik Aingerua, ezkutatu ziran, bada garai artan zegoan larrañean gariak jotzen.

21. Eta alderaturik Dabid Ornangana, Ornanek ikusi zuen, eta aterarik larrañetik irten zitzaion berari bidera, eta makurturik lurreraño, agur andi bat egin zion.

22. Eta esan zion Dabidek: Eman zadazu zure larrañaren tokia, artzen dezula eskuan, balio duen dirua, egiteko berean aldare bat Jaunari, paratu dedin erriaren azotea.

23. Eta Ornanek erantzun zion Dabidi: Artu ezazu, eta errege nere Jaunak egin beza ongi deritzana, eta idiak ere ematen ditut holokaustorako, eta irabiurak sua egiteko, eta garia eskeñtzarako. Guztia emango dizut gogotikan.

24. Eta Dabid erregeak esan zion: Ez da orrela izango, baizik emango dizut balio duen dirua, zeren ez dizut kendu bear zuri, eta eskeñi ala Jaunari, ezerere kostatzen etzazkidan holokaustoak.

25. Eman ziozkan bada Dabidek Ornani tokiगतिक, seireun siklo urrezko; pisu txit doi doiko.



26. Eta egin zion an aldare bat Jaunari, eta eskeñi zituen holokaustoa, eta doña paketsuak, eta ots egin zion Jaunari, zeñak aditu zion, bialtzen ziola zerutik sua holokaustoaren aldarearen gañera.

27. Eta agindurik Jaunak aingeruari, sartu zuen onek zorroan bere ezpata.

28. Eta berebereala Dabidek, ikusirik Jaunak aditu zuela Ornan Jebustarraren larrañean, eskeñi zituen an doñañak.

29. Egia da garai artan Jaunaren tabernakulo, Moisesek eremuan egiña, eta holokaustoen aldarea zeudela Gabaongo alturan.

30. Eta Dabidek etzuen iduki indarririk joateko aldarera, an Jaungoikoari erregututzero, zeren gelditu zan izuz txit beldurtua, ikusirik Jaunaren aingeruaren ezpata.

OGEITABIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zuen Dabidek: Au da Jaungoikoaren etxea, eta au holokaustoko aldarea Israelentzat.

2. Eta agindu zuen bildu zitezela Israelko lurrean fedea aldatuta zeuden guztiak, eta izentatu zituen beretatik argiñak, arriak atera eta landu zituzaten, Jaungoikoaren etxea egiteko.

3. Orobat bildu zuen Dabidek burni txit asko ateen iltzedietarako, eta itsatsiera eta giltzetarako, eta ezin neurtu adiña kobre.

4. Ezin jakin ere zezakean, zenbat zedrozko zur ekarri ziozkaten Dabidi Sidontarrak eta Tiroarrak.

5. Eta esan zuen Dabidek: Salomon nere semea da oraindik gazte txiki eta samurra; Jaunari egin nai diodan etxeak berriz izan bear du aita-tu eta otpatsua erreñu guztietan: joango naiz bada prestatuaz bear dana. Argatik bera il baño lenago egin zituen lendanaz gastu guztiak.

6. Eta ots egin zion bere seme Salomoni, eta agindu zion egin zizaio-
la etxea Israelko Jaun Jaungoikoari.

7. Eta esan zion Dabidek Salomoni: Ene semea, nere borondatea zan egitea etxe bat nere Jaun Jainkoaren izenari.

8. Baña Jaunak itz egin zidan, eta esan: Odol asko isuri dezu, eta gerra asko egin dezu, ezin egingo diozu etxerik nere izenari, isuri ezker-
o anbeste odol nere aurrean.

9. Jaioko zatzun semea izango da pake gizona, bada egingo det egon dedilla pakean, inguruan dauden bere etsai guztiakin, eta argatik deituko zaio Paketsua, eta pakea eta atsedena emango diot nik Israeli bere bizi-
tzako denbora gubtian.

10. Berak egingo dio etxea nere izenari, eta bera izango zat neri semetzat, eta ni izango natzaio berari aitatizat, eta sendotuko det bere erreñuaren tronua Israelen gañean betiko.

11. Orain bada, ene semea, Jauna izan bedi zurekin, eta izan zaite zorionekoa, eta egin zaiozu etxea zure Jaun Jainkoari, zugatik lendanaz esanik daukan bezela.

12. Berebat Jaunak eman bizakizula jakinduria eta zentzua, gobernatu al izan dezakezun Israel, eta gorde zure Jaun Jainkoaren legea.

13. Zeren orduan on asko egin alko dezu, gordetzen badituzu, Jaunak Moisesi, Israeli erakusteko, eman ziozkan aginte eta erabakiak. Sendotu zaite, eta portatu gizonkiro, etzaite beldurtu, ez koldartu.

14. Ikusten dezu nola nik nere premian prestatu ditudan Jaunaren etxeko gastuetarako eun milla talentu urre, eta millo bat talentu zillar; bronzeta eta burnia berriz ain da asko, non, ezin jakin dezakete zenbat, daukat prestatu-
turik zura eta arria, bear diran lan guztietarako.

15. Badituzu ere alogerari, argin, ielsari, eta arotz txit asko, eta bear-lari mota guzia, txit trebeak lanak egitean,

16. Urrean, zillarrean, bronzean, edo burnian, zeñ zenbat dan ezin lezake jakin. Alaitu zaite bada, eta ekin lanari, eta Jauna izango da zurekin.

17. Agindu ere zien Dabidek Israelko prinzi-
pe guztiai, lagundu zizaioleta bere seme Salomoni.

18. Ikusten dezute, esan zien, zuen Jaun Jainkoa dagoala zuekin, eta eman dituzela pakea alde guztietatik, eta jarri dituela zuen eskuetan zuen etsai guztiak, eta lurra dagoala Jaunaren, eta bere erriaren mendean.

19. Gertatu itzatzute bada zuen biotzak, prestatu zuen animak, eta billatu ezazute zuen Jaun Jainkoa. Jaiki zaitezte, eta egin zaiozute Santuarioa Jaun Jainkoari, Jaunaren elkartasuneko kutxa, eta Jaunari konsagratu-
tako ontziak, izan ditezen aldatuak, Jaunaren izenari egitera dijoakion etxera.

OGEITAIRUGARREN KAPITULUA

1. Dabidek bada izanik zarra, eta egunetz bete, jarri zuen Israelko erregetzat Salomon bere semea.

2. Eta bildu zituen Israelko prinzi-
pe guztiak, eta apaizak, eta Lebitak.

3. Eta kontatuak izanik ogeita amar urteko, eta gorako Lebitak, arkitu ziran ogeita emezortzi milla gizon.

4. Oietatik izan ziran autuak, eta jarriak bakoitza bere lekuan Jaunaren etxeko lanetan, ogeita lau milla, agintari eta jueztzat sei milla.



5. Lau milla atezai, eta beste anbeste salmolari, zeñak kantatzen zituzten Jaunaren alabantzak, soñuak jotzeko eginerazi zituen aizezko erremientakin.

6. Eta berezitu zituen Dabidek beren txandetan, Lebiren semeen familien araura, zeñak diran Jerson, Kaath, eta Merari.

7. Jersonen semeak izan ziran Leedan, eta Semei.

8. Leedanen semeak iru: lenbisisortua Jahiel, eta Zethan, eta Joel.

9. Semeiren semeak iru: Salomith, eta Hosiel, eta Aran. Oiek ziran Leedanen familietako prinzipiak.

10. Eta beste Semei baten semeak, Leheth, eta Ziza, eta Jaus, eta Baria. Lau oiek dira Semeiren semeak.

11. Eta Lehet zan lenbizikoa, Ziza bigarrena; Jaus eta Bariak berriz etzituzten iduki seme asko, eta argatik izan ziran kontatuak familia bakar bat, eta etxe bakar bat bezela.

12. Kaathen semeak, lau: Amram, eta Isakar, Hebron, eta Hoziel.

13. Amramen semeak: Aaron eta Moises. Eta Aaron izan zan berezitu aritzeko Santuen Santuaren lanetan, bera eta bere semeak betiko, eta Jaunari inzensoa erretzeko beren elizlegeen araura, eta alabatzeko beti bere izena.

14. Moises Jaungoikoaren gizonaren semeak ere izan ziran kontatuak Lebiren tribuan.

15. Moisesen semeak: Jersom, eta Eliezer.

16. Jersomen semeak: Sabuel lenbisisortua.

17. Eta Heliezerren semea izan zan Rohobias lenbisisortua, eta etzuen iduki Eliezerrek beste semerik. Rohobiasen semeak berriz txit ugaritu ziran.

18. Isaarren semeak: Salomith lenbizikoa.

19. Hebronan semeak: Jeriau lenbizikoa, Amarias bigarrena, Jahaziel irugarrena, Jekmaan laugarrena.

20. Ozielen semeak: Mika lenbizikoa, Jesia bigarrena.

21. Merarien semeak: Moholi, eta Musi. Moholien semeak: Eleazar, eta Zis.

22. Eta il zan Eleazar, eta etzuen iduki semerik, baizik alabak, eta Zisen seme, beren anaiak, artu zituzten.

23. Musien semeak, iru: Moholi, eta Eder, eta Jerimoth.

24. Oiek dira Lebiren semeak, beren jatorri eta familien buruak, banan banan kontatuak; zeñak txandaka egiten zituzten, Jaunaren etxeko elizgauzetako beren lanak, ogei urtetik gora.

25. Zeren esan zuen Dabidek: Israelko Jaun Jainkoak eman dio bere erriari atsedena, eta bizilekua Jerusalemene betiko.

26. Eta emendik aurrera ez da izango Lebiten lana, eramatea batetik bestera tabernakulua, eta beren lanetako ontzi guztiak.

27. Eta Dabiden atzeneko erabakien araura, Lebiren semeen artean kontatuko dira ogei urtetik gorakoak.

28. Eta egongo dira Aaronen semeen eskuaren azpian Jaunaren etxeko elizkizunetarako, atarietan, eta bizitokietan, eta garbituzeko lekuan, eta Santuarioran, eta Jaunaren etxeko elizgauzetako lan guztietan.

29. Baña apaizen kontura egongo dira proposizioko ogiak, eta iriñ loraren ezkeñtza, legami gabeko opillak, eta zartagiñan frijitzen dana, eta pisu eta neurri guztiak.

30. Eta Lebitak joango dira goizean Jaunaren alabanzak kantatzera, eta orobat arratsaldean,

31. Ala Jaunaren holokaustoen eskeñtza, nola larunbatetan, eta Kalendetan, eta beste jai andietan, izentaturiko zenbataren araura, gorde-tzen dituztela beti Jaunaren aurrean, gauza bakoitzari dagozkion zeremoniak.

32. Eta gordeko dituzte elkartasuneko tabernakuloko legeak, eta Santuarioko zuzengarriak, eta beren anaia Aaronen semeen aginteak, Jaunaren etxeko lanetan aritzeko.

OGEITALAUGARREN KAPITULUA

1. Eta Aaronen semeak onela partituak izan ziran: Aaronek iduki zituen semeak izan ziran: Nadab, eta Abiu, eta Eleazar, eta Ithamar.

2. Baña Nadab, eta Abiu il ziran beren aita baño lenago semerik utzi gabe, eta Eleazar eta Ithamarrek egin zituzten apaizen lanak.

3. Eta Dabidek berezitu zituen, au da, Sadok Eleazarren semeetatik, eta Ahimelek Ithamarren semeetatik, beren txanda eta lanen araura.

4. Eta arkitu zan, asko geiago zirala, Eleazarren jatorriko familien buruak, Ithamarrenak baño. Argatik Eleazarren jatorrikoak berezitu zituen amasei familiatan, familia bakoitzarentzat buru batekin, eta Ithamarrenak zortzi familiatan.

5. Eta familia biak berezitu zituen beren artean suerteakin, bada zeuden Santuarioko Prinzipiak, eta Jaungoikoaren Prinzipiak, ala Eleazarren semeetatik, nola Ithamarren semeetatik.

6. Eta Semeias, Nathanaelen semeak, Lebiren tribukoak, Sekretarioak, eskribatuta jarri zuen zenbat ziran, Erregearen, eta Prinzipeen, eta Sadok apaizaren, eta Ahimelek Abiatarren semearen aurrean, baita ere



apaizen eta Lebiten familien Prinzipeean; artzen zituela aldizka, Eleazarren etxe, besteen gañekoa zanetik, eta Ithamarren etxetik, zeñak ere bazituen beste batzuk bere mendean.

7. Lenbiziko suerteak bada irten zitzaion Joariberi, bigarrenak Jedeiri,

8. Irugarrenak Harimeri, laugarrenak Seorimeri,

9. Bosgarrenak Melkiari, seigarrenak Maimaneri,

10. Zazpigarrenak Akoseri, zortzigarrenak Abiari,

11. Bederatzigarrenak Jesuari, amargarrenak Sekeniasi,

12. Amaikagarrenak Eliasiberi, amabigarrenak Jazimeri,

13. Amairugarrenak Hofari, amalaugarrenak Isbaaberi,

14. Amabosgarrenak Belgari, amaseigarrenak Emmerreri,

15. Amazazpigarrenak Hezirreri, emezortzigarrenak Afseseri,

16. Emeretzigarrenak Feteiari, ogeigarrenak Hezekieleri,

17. Ogeita batgarrenak Jatxineri, ogeita bigarrenak Gamuleri,

18. Ogeita irugarrenak Dalairi, ogeitalaugarrenak Maaziari.

19. Oiek dira beren txandak beren lanen araura, Jaunaren etxean sartzeko, eta beren elizlegeen araura, Aaron beren aitaren eskuaren azpian, Israelko Jainkoak agindu zion bezela.

20. Lebiren beste semeak ziran Subael Amramen semeetatik, eta Jedeia Subaelen semeetatik.

21. Rohobiasen semeetatik prinzipia zan Jesias.

22. Eta Isaarien semea zan Salemoth, eta Salemothensemea Jahath,

23. Eta bere seme Jeriau lenbizikoa, Amarias bigarrena, Jahasiel irugarrena, Jekmaan laugarrena.

24. Ozielen semea, Mika, Mikaren semea, Samir.

25. Mikaren anaia, Jesia, Jesiaren semea, Zakarias.

26. Merarien semeak: Moholi eta Musi. Oziauen semea Benno.

27. Merarien semeak ere, Oziau, eta Soam, eta Zakur, eta Hebri.

28. Eta Moholien semea: Eleazar, zeñak etzuen izan semerik.

29. Eta Zisen semea, Jerameel.

30. Musien semeak: Moholi, Eder, eta Jerimoth. Oiek dira Lebien semeak, beren familietako etxeen araura.

31. Eta oiek ere, beren anaia Aaronen semeen gisara, bota zituzten suerteak Dabid erregearen, eta Sadoken, eta Ahimeleken, eta apaizen eta Lebiten familietako prinzipieen aurrean, andienetik txikieneraño, guztiak berdin izan ziran suertean berezituak.

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Dabidek bada, eta jende taldearen buruak, berezitu zituzten Asafen, eta Hemanen eta Idithunen semeak, Jaungoikoaren alabantzak kantatzeko lanerako zitarakin, eta psalterioekin, eta zinbaloekin, serbitzen zutelara bear zan bestek, emana izan zitzaizoten lanean.

2. Asafen semeetatik izan ziran Zakur; eta Jose, eta Nathanas, eta Asarela, zuzentzen zituela Asafek, zeñak kantatzen zuen erregearen aldean.

3. Idithunen semeak, sei: Idithun, Godolias, Sori, Jeseias, eta Asabias, eta Mathathias, zeñak zuzentzen zituen Idithun beren aitak, zeñak kantatzen zuen zitararen soñuan, jarririk Jauna zelebratu eta alabatzen zutenen aurkez.

4. Berebat Heman, zeñaen semeak ziran Bokziau, Mathaniau, Oziel, Subuel, eta Jerimoth, Hananias, Hanani, Eliatha, Jeddethi, eta Romentziezer, eta Jesbakasa, Melothi, Othir, Mahazioth.

5. Guztiak Hemanen semeak, zeñ zan erregearen profeta, Jaungoikoaren kanta, bere eskubidea goratutekoetan, eta Jaungoikoak Hemaneri eman ziozkan amalau seme, eta iru alaba.

6. Guztiak zeuden partituak, beren aitak zuzentzen zituela, kantatzeko Jaunaren elizan zinbaloekin, eta psalterioekin, eta zitarakin Jaunaren etxeko lanerako erregearen aldean, au da, Asafenak, Idithunenak, eta Hemanenak.

7. Eta oiek guztiak beren anaiakin, guztiak maisu, Jaunaren alabantzak kantetan erakusten zutenak, ziran berreun eta larogeita zortzi.

8. Eta bota zituzten suerteak beren berezieretatik, sartzen ziradela ala andiak, nola txikiak; ala erakusleak, nola ikasleak.

9. Irten zitzaion bada lenbiziko suerteak Joseri, zeñ zan Asafen etxekoa. Bigarrenak Godoliaseri, berari eta bere seme, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

10. Irugarrenak Zakurreri, bere seme eta anaiai, zeñak ziran amabi.

11. Laugarrenak Isariri, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

12. Bosgarrenak Nataniaseri, bere semeai eta anaiai, zeñak ziran amabi.

13. Seigarrenak Bokziauri, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

14. Zazpigarrenak Isreelari, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

15. Zortzigarrenak Jesaiari, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.



16. Bederatzigarrenak Mathianseri, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

17. Amargarrenak Semeiaseri, bere semeai eta anaiai, zeñak ziran amabi.

18. Amaikagarrenak Azareeli, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

19. Amabigarrenak Hasabiasi, bere semiai (sic) eta anaiai, zeñak ziran amabi.

20. Amairugarrenak Subaeleri, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

21. Amalaugarrenak Mathianseri, bere semeai eta anaiai, zeñak ziran amabi.

22. Amabosgarrenak Jerimotheri, bere semeai eta anaiai, zeñak ziran amabi.

23. Amaseigarrenak Anianseri, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

24. Amazazpigarrenak Jesbakassari, bere semeai eta anaiai, zeñak ziran amabi.

25. Emezortzigarrenak Hananiri, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

26. Emeretzigarrenak Melothiri, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

27. Ogeigarrenak Eliathari, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

28. Ogeitabatgarrenak Othirrerri, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

29. Ogeitabigarrenak Jeddethiri, bere semeai eta anaiai, zeñak ziran amabi.

30. Ogeita irugarrenak Mahaziotheri, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

31. Ogeita laugarrenak Romemthiezerrri, bere semeai, eta anaiai, zeñak ziran amabi.

OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Oiek izan ziran atezaien partizioak. Kororen etxeokak: Meselemias, Koreren jatorrikoa, Asafen semeetatikoa.

2. Meselemiasen semeak: Zakarias lenbizisortua, Jadhil bigarrena, Zabadias irugarrena, Jathanael laugarrena.

3. Eliam bosgarrena, Johanan seigarrena, Elioenai zazpigarren.

4. Eta Obededomen semeak: Semeias lenbizisortua, Jozabad bigarrena, Joaha irugarrena, Sakar laugarrena, Nathanael bosgarrena,

5. Ammiel seigarrena, Isakar zazpigarren, Folathi zortzigarren, zeren Jaungoikoak bedekatu zuen.

6. Eta Semei bere semeak iduki zituen, beren familien buruak izan ziran semeak, zeren ziran gizon txit indartsuak.

7. Eta Semeiasen semeak: Othni, eta Rafael, eta Obed, Elzabad, eta bere anaia, gizon txit bulardetsuak, baitaere Eliu eta Samakias.

8. Oiek guztiak Obededomen semeetatik, oiek, eta beren semeak, eta beren anaia, sendotasunik andienekoak beren lanetarako, irurogeita bi Obededomen etxeokak.

9. Meselemiasen semeak, beren anaia, txit sendoak, ziran emezortzi.

10. Hosarenak, au da, Merarien semeetatikoa, Semri nagusia (zeren bere aitak etzuen iduki lenbizisorturik, eta argatik jarri zuen nagusitzat).

11. Helzias bigarrena, Tabelias irugarrena, Zakarias laugarrena. Oiek guztiak Hosaren semeak, eta anaia, ziran amairu.

12. Oiek izan ziran ipiñiak atezaitzat, alako moduan non, begiraleen agintariak, nola beren anaia ere, ari zitezela beti Jaunaren etxeko lanetan.

13. Bota ziran bada suerteak familietatik, berdintasunarekin, txiki-tzat, eta andientzat, ate bakoitzerako.

14. Erori zitzaion bada suertean sortaldeko atea Selemias. Eta Zakarias bere seme, gizon zentzu txit andiko, eta jakintsuari, ifarraldekoa.

15. Obedom, eta bere semeai egoekoa, etxearen alde artan zegoan zarren batzartokia.

16. Sefun eta Hosari sartaldekoko, igoerako bidera dijoan atearan aldean, begiraleak begiraleen kontra.

17. Sortaldean bada sei Lebita, eta ifarraldean lau egunaz, eta egoaldian orobat lau egunaz, eta Batzartokia zegoan lekuan bina binaka.

18. Eta sartaldean atezaien bizilekuan, lau bidean, eta bi geletan.

19. Oiek dira Kore eta Merariren seme atezaien partizioak.

20. Eta Akias zan Jaunaren etxeko dirutoki, eta ontzi sagraduen begiralea.

21. Ledan, Jersonen semearen semeak: Ledan, Jersonen semeagandik datoz familien buru oiek: Ledan, Jersonni, eta Jehieli.

22. Eta Jehieliren semeak: Zathan eta Joel, bere anaia, Jaunaren etxeko dirugordezalleak,

23. Amramen, eta Isaarren, eta Hebronon, eta Ozielen familiakoekin.



24. Eta Subael, Jersomen, Moisesen semearen semea zan dirugordetzallean agintaria.

25. Eta berebat bere anaia Eliezer, zeñaen semea izan zan Rahabias, eta onen semea Isaias, eta onen semea Joram, eta onen semea Zekri, eta onen semea Zelemith.

26. Selemithek berak, eta bere anaiak zeuzkaten beren kontura santuarioko diru gordeak, zeñak konsagratu ziozkaten Jaungoikoari Dabid erregeak, eta familien Prinzipeak, eta Tribunoak, eta Zenturionak, eta ejerzituko agintariak,

27. Gerretakoak, eta irabazitako gudetan arrapatuak, zeñak konsagratu zituzten, Jaunaren etxea berritu eta tresnatzeko.

28. Gauza guzti oiek konsagratu zituzten Samuel profetak, eta Saul Zisen semeak, eta Abner Nerren semeak, eta Joab Sarbiaren semeak. Gauza oiek konsagratzen zituzten guztiak, egiten zuten Silemith eta bere anaiei eskuz.

29. Baña Isaarriarrai agintzen zien Koneniasek bere semeakin, eta zeukaten kanpoko gauza, Israeli zegozkionen kontua, erriari irakatsi eta bera juzgatzeko.

30. Hasabias, Hebrontarren familiakoak, eta bere anaiak, zeñak ziran milla eta zazpireun, gizon txit sendoak, gobernatzen zuten, Jordango beste aldean sortalderontz zegoan Israelko parte, Jaunari eta erregeari zegozkien gauza guztietan.

31. Eta Jeria izan zan Hebrontar, beren familia eta aideetan berezitutakoen Prinzipea. Dabidek erreñatzen zuenetik berrogeigarren urtean izan ziran kontatu eta aztertuak Jazer Galaadkoan; eta gizon txit sendo oietatik,

32. Eta beren anaiak edaderik sendoenekoak, arkitu ziran bi milla eta zazpireun familietako buru. Eta Dabid erregeak eman zien agintea Rubentarren eta Gadtarren, eta Manasesen tribuaren erdiaren gañean, Jaungoikoaren eta erregearen serbizoari zegokion guztian.

OGEITAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Israelko semeak, zeñak beren familietako agintarien, tribunoen, eta zenturionen, eta prefektoen agindura serbitzen zuten erregea, bereziturik taldeetan, aldatzen ziradela urteko il guztietan, ziran ogeita lau milla gizon, eta talde bakoitzak zeukan bere agintaria.

2. Lenbiziko illeko lenengo taldearen agintaria zan Jesboam Zabdielen semea, eta zeuzkan bere agindura ogeita lau milla,

3. Zan Faresen jatorrikoa, eta lenbiziko illean ejerzitu guztiko agintari guzien agintaria.

4. Bigarren illeko taldearen agintaria zan Dudia Ahohtarra, eta onen mendean zegoan beste bat Mazeloth zeritzana, zeñak agintzen zion, ogeita lau millako talde onen zati bati.

5. Berebat irugarren illeko irugarren taldearen agintaria zan Banaias apaiza, Joiadaren semea, eta bere taldeak zeuzkan ogeita lau milla.

6. Au da arako Banaias ogeita amarren artean bulardetsuena, eta ogeita amarren gañekoa. Eta bere seme Amizadabek agintzen zion bere taldeari.

7. Laugarren agintaria, laugarren illean zan Asahel, Joaben anaia, eta bere ondoren Zabadias bere semea. Bere taldeak zeuzkan ogeita lau milla gizon.

8. Bosgarren agintaria bosgarrean illean zan Samaoth Jezerkoa, eta bere taldeak zeuzkan ogeita lau milla.

9. Seigarrena seigarren illerako zan Hira, Akzes Thekuakoaren semea. Bere taldea zan ogeita lau millakoa.

10. Zazpigarrena zazpigarren illerako zan Heles Falonikoa, Efraimgo tribukoa, zeñak zeuzkan bere agindura ogeita lau milla.

11. Zortzigarrena zortzigarren illerako zan Sobokai Husatikoa, Zarahiren jatorrikoa, eta bere taldea zan ogeita lau millakoa.

12. Bederatzigarrena bederatzigarren illerako Abiezer Anathothkoa, Jeminiren semeetatikoa. Bere taldeak zituen ogeita lau milla.

13. Amargarrena amargarren illerako zan Marai Nethofathkoa, Zarahiren jatorrikoa, eta bere taldea zan ogeita lau millakoa.

14. Amaikagarrena amaikagarren illerako zan Banaias Faratongoa, Efraimen tribukoa, eta bere taldeak zituen ogeita lau milla.

15. Amabigarrena amabigarren illerako zan Holdai Nethofathkoa Gothonielen jatorrikoa. Bere taldeak zituen ogeita lau milla gizon.

16. Berebat Israelko tribuak ere zeuzkaten beren agintariak. Rubengo agintaria zan Eliezer, Zekriren semea. Simeonen tribukoa Safatias Maakaren semea.

17. Lebizikoarena Hasabias Kamuelen semea; baña Sadok zan Aaronen jatorrikoen agintaria.

18. Judakoena, Eliu Dabiden anaia. Isakarkoena, Amri, Mikaelen semea.

19. Zabulongoena, Jesmaias Abdiasen semea. Neptalikoena, Jerimoth Ozielen semea.



20. Efraimen semeena, Osee Ozaziuren semea. Manasesen tribuaren erdiarena, Joel Fadaiaren semea.

21. Eta Manasesen tribuaren erdiarena Galaaden, Jaddo Zakariasen semea, eta Benjamingoena, Jasiel Abnerren semea.

22. Eta Dangoena, Ezrihel Jerohamen semea, oiek dira Israelko semeen Prinzipeak.

23. Dabidek berriz etzituen kontatu nai izan ogei urtez beerakoak, zeren Jaunak esan zion ugarituko zuela Israel zeruko izarrak bezela.

24. Joab Sarbiaren semea asi zan lista artzen, baña etzuen bukatu. Bada argatik etorri zan Jaunaren aserrea Israelen gañera: eta argatik etzan ipiñi Dabid erregearen berrietako liburuan, kontatuak izan ziranen zentzua.

25. Azmoth Adielen semea izan zan erregearen tesoroen begirale nagusia. Baña Jonatan Oziasen semea zan, urietan, eta errietan, eta dorreetan zeuden tesoroen begirale nagusia.

26. Eta Ezri Keluben semearen kontura zeuden kanpoko lanak, eta lurra landutzen zuten nekazariak.

27. Eta Semeias Romatkoak begiratzen zuen, mastiak lantzen zituztenak gatik, eta Zabdias Afontarrak upategiakgatik.

28. Eta Balanan Jedertarraren kontura zeuden landaetako olibodiak, eta pikodiak. Eta Joasenera, olioaren azokak.

29. Eta Letrai Sarontarraren kontura zeuden, Saronen bazkatzen ziran leak, eta Safat Adlien semeak, ibarretan zeuden beiak.

30. Eta Ubil Ismaheltarrenera, gameluak, eta Jadaias Meronatarrenera, astoak.

31. Eta Jaziz Agartarrenera, ardiak. Oiek guztiak ziran Dabid erregearen aziendaren begiratzalleak.

32. Baña Jonatan, Dabiden aitaren aldeko osaba, gizon zentzu andiko eta jakintsua, zan bere konsejaria. Au bera, eta Jahiel Hakamoniren semea, zeuden erregearen semeakin.

33. Akitofel ere zan erregearen konsejaria, eta Kusai Araktarra erregearen adiskidea.

34. Akitofelen ondoren izan ziran Joiada Banaiasen semea, eta Abiatar. Eta erregearen ejerzituko agintaririk nagusia zan Joab.

OGETA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Dabid erregeak bada bildu zituen Jerusalemen Israelko Prinzipe guztiak, tribuen buruak, eta erregea serbitzen zuten soldadu taldeen agintariak; baitaere tribunoak eta zenturionak, eta erregearen aziendaren, eta

jabe zan gauzen begiratzalleak, eta beren semeak andizkiakin, eta ejerzituko sendoen eta bulardetsuenak.

2. Eta jaikirik erregea, eta jarririk zutik, esan zuen: Aditu nazazute, o nere anaiak, eta nere erria. Nik nuen eliza bat egiteko gogoia, zeñean izango zan ipiñia Jaunaren testamentuko kutxa, zeñ dan gure Jaungoikoaren oiñen azpirako oiezko aulkia bezela, eta dauzkat prestatuak etxea egiteko bear diran gauza guztiak.

3. Baña Jaungoikoak esan zidan: Ez diozu egingo zuk etxea nere ize-nari; zeren gizon gerrari bat zeran, eta odola isuri dezun.

4. Baña Israelko Jaun Jainkoak autu ninduen nere aitaren etxe guztiak, izan nendin beti erregea Israelen gañean, zeren Judatik autu zituen prinzipeak, Judako familietatik, nere aitaren familia, eta nere aitaren semeen artean ontzat iduki zuen aututzea ni Israel guztiko erregetzat.

5. Eta nere semeetatik (zeren Jaunak asko seme eman dizkit) autu du nere seme Salomon eseri zedin Jaunaren erreñuko tronuan Israelen gañean.

6. Eta esan zidan: Salomon zure semeak egingo ditu nere etxea, eta nere atariak, zeren bera autu det semetzat, eta ni izango natzaio aitatatzat.

7. Eta sendotuko det bere erreñua betiko, irautzen baldin badu betetzen nere aginteak eta erabakiak, orain egiten duen bezela.

8. Orain bada, Israelko batzarre guztiaren aurrean, eta aditzen dagoan gure Jaungoikoaren aurrean, esaten dizutet: Gorde eta ikasi ditzatzutela gure Jaun Jainkoaren aginte guztiak, izan zaitezten lur on onen jabeak, eta zuen semeai zuen ondoren betiko utzi dizaiezuten.

9. Eta zuk, Salomon ene semea, ezagutu ezazu zure aitaren Jaungoikoa, eta serbitu ezazu biotz osoarekin eta borondate onarekin; zeren Jaunak azterten ditu biotz guztiak, eta ezagututzen ditu adimentuko gogorazio guztiak. Baldin billatzen badezu, arkituko dezu; baña utzitzen badezu, betiko botako zaitu.

10. Orain bada, Jaungoikoak autu zaituen ezker bere santuarioko etxea egiteko, alaitu zaite, eta egin ezazu.

11. Eta Dabidek eman zion Salomon bere semeari elizpearen, eta elizaren, eta ostetikako gelen, eta zenakuloaren, eta barrendiko gelen, eta Propiziatorioko tokiaren irudi bat,

12. Baita irudidetuak zeuzkan atari guztiena ere, eta inguruetako bizilekuena Jaunaren etxeko tesoruentzat, eta Elizari konsagratutako gauzen gordelekutzat,

13. Eta apaizen eta Lebiten tokien partizioena, Jaunaren etxeko lan guzietarako, eta Jaunaren elizan serbitu bear zuten ontzi guzientzat.



14. Eman zion urrea elizlanetako ontzietatik bakoitzak idukiko zuen pisuaren araura. Eta zillarrezko pisuak, nolakoak ziran ontziak eta itxurak, aien araura.

15. Gañera urrezko kandeleroentzat, eta beren metxeroentzat eman zuen, kandelero bakoitzaren, eta metxeroen neurriari zegokion urrea, eta berebat, bear zan zillarrezko pisua eman zuen, zillarrezko kandeleroentzat eta beren metxerotzat, beren anditxikieraren araura.

16. Eman ere zuen urrea proposizioko maientzat, maien anditxikiaren araura, eta orobat zillarra, zillarrezko beste mai batzuentzat.

17. Iruortzentzat ere, eta garbiontzientzat, eta urre uts utsezko inzen-sarioentzat, eta urrezko leoitxoentzat izentatu zuen pisua, leoitxo bata-rentzat eta bestearentzat, beren anditxikien araura. Eta era berean, zilla-rezko leoitxoentzat berezitu zuen zegokioten adiña zillar.

18. Eta inzensoa erretzen dan aldarerako eman zuen urrerik garbie-netik, eta berarekin egiteko lau kerubin, gurdi baten itxurea egiten zute-nak, zeñak zabaldurik beren egoak, estali zezaten Jaunaren elkartasuneko kutxa.

19. Gauza guzti oiek, esan zuen, etorri zitazkidan neri Jaunaren eskuz eskribatuak, aditu nezan obra guztien irudia.

20. Esan ere zion Dabidek bere seme Salomoni: Gizonkiro eta sendo portatu zaite, eta ekin gogotikan. Ez beldurtu ez koldartu; zeren nere Jaun Jainkoa egongo da zurekin, eta etzaitu utziko, ez desanparatuko, ali-keta bukatu ditzazun artean, Jaunaren etxeko serbizerako bear diran lan guztiak.

21. Emen dauzkazu apaizak eta Lebitak beren errenkadetan jarriak, gertu eta prestatuak egiteko, Jaunaren etxeko lanetarako bear dan guztia, eta ala Prinzipeak, nola erriak jakingo dute kunplitzen zure aginduak.

OGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Dabid erregeak bada onela itz egin zion batzarre guztiari: Jaun-goikoak autu du beste guztien artean nere seme Salomon, zeñ dan orain-dikan gaztea, eta samurra; lana berriz andia da, zeren etzaio prestatzen bizilekua gizon bati, baizik Jaungoiko bati.

2. Nik bada nere indar guztiakin dauzkat prestatuak nere Jaungoiko-aren etxerako bear diran gaiak. Urrea urrezko ontzietarako, eta zillarra zillarrezkoetarako, bronzea bronzekoetarako, burnia burnizkoetarako, zura zurezkoetarako, eta arri beltzurikak, eta burnarriaren irudikoak, eta arri nabarrak, eta arri baliotsu mota guziaz, eta Parosko marmola txit ugari.

3. Eta nere Jaungoikoaren etxerako emana dedanez gañera, ematen ditut nere dirutik urrea eta zillarra, nere Jaungoikoaren elizarako, Santua-riorako berezian ipiñi dedanez gañera,

4. Ofirreko urrezko iru milla talentu, eta zillar txit garbizko zazpi milla talentu, elizako pareteak urrezteko,

5. Alako moduan non, bear dan toki guztietan langilleak egin deza-keteala urrez, urrez egingo dana; eta zillarrez, zillarrez egingo dana, eta baldin iñork borondatez egin nai badu eskeñtzarik, ekarri beza gaur bere eskuz, eta eskeñi bizaio Jaunari nai duena.

6. Familietako prinzipeak bada, eta Israelko tribuetako andizkiak tri-bunoakin, eta zenturionakin, eta erregearen azienden begiratzalleakin, eskeñi zituzten,

7. Eta eman zituzten Jaungoikoaren etxeko lanetarako bost milla talentu urre, eta amar milla sueldo, eta amar milla talentu zillar, eta eme-zortzi milla kobre, eun milla talentu burnirekin.

8. Eta arri baliotsuak zeuzkaten guztiak eman ziozkaten Jahiel Jer-sontarrari, Jaunaren etxeko tesoroetan jartzeko.

9. Eta erriak agertu zuen bere poza, eskeñtzean borondatez ofrenda oiek, zeren egiten zaiozkan Jaunari bere biotz guztitik. Argatik Dabid erregea bera ere pozez bete zan.

10. Eta bedekatu zuen Jauna jende talde guztiaren aurrean, eta esan zuen: Bedekatua zera, Israelko Jaun Jaungoiko gure aita, mendez mende.

11. Zurea da, Jauna, anditasuna, eskubidea, gloria, eta garaipena: eta zuri zor zatzu alabantza, zeren zureak dira zeruan eta lurtean dauden gauza guztiak. Zurea, o Jauna, da erreñua, eta zu zera errege guztien gañe-tikoa.

12. Zureak dira aberastasunak, eta zurea da gloria. Zu zera gauza guz-tien Jauna. Zure eskuan daude indarra eta eskubidea: zure eskuan andita-suna, eta guztien agintaritzia.

13. Orain bada, o gure Jaungoikoa, guk eskerrak ematen dizkizugu, eta alabatzen degu zure izen argitsua.

14. Zeñ naiz ni, eta zeñ da nere erria, eskeñi ditzazkizukegun gauza guzti oiek? Zureak dirade gauza guztiak, eta zure eskutik artu deguna, ori da eman dizuguna.

15. Bada zure aurrean gera arrotzak, eta etorkiak, gure guraso guztiak bezela. Gure egunak iragotzen dira itzala bezela lurraren gañean, eta ez dago iraunkiderik batere.



16. Gure Jaun Jainkoa, gertutu degun ugaritasun guzti au, zure izen santuari etxe bat egiteko, zure eskutik dator, eta zureak dirade gauza guztiak.

17. Badakit, ene Jaungoikoa, sartzen zerala biotzetako zundetan, eta maitatzen dezula tolesgabetasuna, eta argatik nik biotzeko tolesgabetasunarekin pozik eskeñi ditut gauza guzti oiek, eta ikusi det zure erriak, bildurik toki onetan, poz andiarekin eskeñi dizkizula bere doñiak.

18. Abraham, Isaak, eta Israel, gure gurasoen, Jaun Jaungoikoa, egin ezazu, arren, bere biotzeko borondate onek beti iraun dezala, eta izan dedilla betikoa erabaki au, zure elizkizunetarontz.

19. Nere seme Salomoni ere eman zaiozu biotz on oso bat, gorde ditzan zure aginteak, eta zure legeak, eta zure zeremoniak, eta egitez bete dezala guztia, eta egin dezala etxea, zeñaen gaiak dauzkadan nik prestatuak.

20. Dabidek gero esan zion batzarre guztiari: Bedeikatu ezazute gure Jaun Jaungoikoa. Eta batzarre guztiak bedeikatu zuen beren gurasoen Jaun Jaungoikoa, eta auzpezturik adoratu zuten Jaungoikoa, eta ondoren egin zioten erregeari bere agur eta begirunea.

21. Eta il zituzten abereak, Jaunari doñean eskeñtzeko; eta biaramonean eskeñi zituzten holokaustoan milla zezen, milla ari, milla arkume, beren libazioekin, elizledeen araura, ugaritasun andian Israel guztiarentzat.

22. Eta egun artan poz andiarekin jan eta edan zuten Jaunaren aurrean. Gero bigarren aldiz igortzi zuten Salomon Dabiden semea. Eta Jaungoikoaren aginduz erregetzat igortzi zuten; eta Sadok apaiz nagusitzat.

23. Eta Salomon, erregea bezela, eseri zan Jaunaren tronua gañean bere aita Dabiden lekuan, eta izan zan guztien gogokoa: eta Israel guztiak obeditu zion.

24. Eta Prinzipe guztiak, eta andizkiak, eta Dabid erregearen seme guztiak, juramentuarekin, eskeñi zioten leialtasuna, eta jarri ziran Salomon erregearen mendean.

25. Jaunak bada jaso zuen Salomon Israel guztiaren gañera, eta erreñuan bete zuen alako gloriarekin, nolakoa etzuen iduki bera baño lenago Israelko errege batek ere.

26. Erreñatu zuen bada Dabid Isairen semeak Israel guztiaren gañean.

27. Israelen gañean erreñatu zuen denbora, izan zan berrogei urte, Hebronon erreñatu zuen zazpi urtean, eta ogeita amairuan Jerusalem.

28. Il zan zartza onean, egunez, ondasunez, eta gloriuz beterik, eta Salomon bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

29. Dabiden egite guztiak, ala lenbizikoak nola atzenekoak, eskribatuak daude Samuel profetaren liburuan, eta Natan profetaren liburuan, eta Gad profetaren liburuan:

30. Nola ere, erreñatu zuen denbora guztikoak, eta bere sendotasuna, eta bere denboran irago ziran gertaerak, ala Israelen, nola ingurueta-ko erreñu guztietan.



PARALIPOMENOEN BIGARREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Salomon Dabiden semea bada, sendo gelditu zan bere erreñuan, eta bere Jaun Jaungoikoa zegoan berarekin, eta txit goratu zuen onek.
2. Orduan Salomonek bildu zuen Israel guztia, tribunoak, eta zenturionak, eta agintariak, eta Israelko juez guztiak, eta familietako buruak.
3. Eta joan zan talde guzti onekin Gabaongo goira, non zegoan, Moises Jaungoikoaren serbitzariak eremuan egin zuen Jaungoikoaren testamentuko tabernakuloa.
4. Eta Dabidek eraman zuen Jaungoikoaren kutxa, prestatua zeukaion tokira, eta non jarria zeukaion tabernakulo bat, au da, Jerusalemenera.
5. Berebat Beseleel Urien, Hurren semearen semeak, egin izan zuen bronzeko aldea, zegoan an Jaunaren tabernakuloaren aurrean, eta Salomon batzarre guztiarekin ara joan zan billatzera.
6. Eta igo zan Salomon bronzeko aldarera, Jaunaren elkartasuneko tabernakuloaren aurrean, eta eskeñi zituen berean milla doañ.
7. Eta ona emen non gau artan berean agertu zitzaion Jaungoikoa esaten zuela: Eskatu ezazu, nik zuri ematea nai dezuna.
8. Eta Salomonek esan zion Jaungoikoari: Zuk egin dezu urrikaltasun andia nere aita Dabidekin, eta ni jarri nazu erregetzat bere lekuan.
9. Orain bada, Jaun Jainkoa, kunplitu bedi, nere aita Dabidi eman ziñion itza, zeren zuk egin nazu, lurreko autsa bezela kontatu ezin lezakean erri andi bateko errege.
10. Eman zaskidazu jakinduria eta argia, zure erri au ongi gobernatu dezadan, zeren nork diñaro gobernatu dezake zure erri au, izanik, dan bezela, ain andia?
11. Orduan Jaungoikoak esan zion Salomoni: Au izan dan ezkeru zure biotzeko gauzarik gogokoena, eta ez dituzun ezkeru eskatu aberastan, ez atzienda, ez izen ospatsua, ez gorroto dizutenen eriotza, eztaere bizitza luzea, baizik eskatu dituzun ezkeru jakinduria eta adiera, juzgatu al izateko nere erria, zeñaen gañean erregetzat jarri zaitudan.
12. Jakinduria eta adiera emanak zaskizu, gañera emango dizkizut aberastan, eta atzienda, eta izen ospatsua, alako moduan non, ez zatzu izango zu berdintzekorik, ez zure aurretiko, ez zure ostetiko erregerikan batere.

13. Itzuli zan bada Salomon Jerusalemenera Gabaongo toki goratutik, testamentuko tabernakuloaren aurretik, eta erreñatu zuen Israelen gañean.

14. Eta bildu zituen gurdiak, eta zaldizko jendea, eta iduki zituen milla, eta laureun gurdi, eta amabi milla gizon zaldizko, eta egonerazi zien gurdierrietan, eta erregearekin Jerusalemenera.

15. Eta erregeak egin zuen, urrea eta zillarza izan zitezela Jerusalemenera ariki bezela, eta zedroak, kanpoetan txit ugari ernetzen diran pikoarrak bezela.

16. Eta ekartzen ziozkaten zaldiak Egiptotik, eta Koatik erregearen tratariak, zeñak joan oi ziran, eta erosten zituzten balio zutenean.

17. Lau zaldizko taldea zillarrezko seireun siklotan, eta zaldi bat eun eta berrogeita amarrean: eta era berean erosten ziran Hetearren, eta Siria-ko erregeen erreñu guztietan.

BIGARREN KAPITULUA

1. Erabaki zuen bada Salomonek egitea Eliza Jaunaren izenari, eta jauregi bat beretzat.
2. Eta jarri zituen irurogeita amar milla gizon eramatzeko zamak bizkarrean, eta larogei milla, ariki atera eta landutzeko mendietan, eta ipiñi ziezten iru milla, eta seirun begirale.
3. Eta bialdu zituen mandatariak esatera Hiram Tiroko erregeari, Nere aita Dabidekin egin zenduen bezela, bialtzen ziñiozkala zedrozko zurak, bera bizi izan zan etxea egiteko;
4. Nerekin ere ala egin ezazu, egin dizaiodan etxe bat nere Jaun eta Jainkoaren izenari, eta konsagratu dizaiodan inzensoa bere aurrean erretzeko, eta aromen kea zabaltzeko, eta bere aurrean beti agirian egon dituzten proposiziooko ogiak, eta goizeko eta arratsaldeko holokaustoetarako, eta larunbatetan, eta illargiberrietan, eta gure Jaun Jainkoaren jai andietan betiko, Israeli agindua dagoan bezela.
5. Zeren egin nai dedan etxea, izango da andia, zeren andia da gure Jaungoikoa jainko guztien gañean.
6. Zeñ bada izango da, beraren diña dan etxe bat egiteko gai? Baldin zeruak, eta zeruen zeruak ezin badute kabitua, zeñ naiz ni, berari etxe bat egin al izateko? Baña ez det beste gauzatarako egiten, baizik eskeñtzeko bertan inzensoa bere aurrean.
7. Bialdu zadazu bada gizon trebe bat, ongi dakiana lanak egiten urrean, eta zillarrean, eta bronzean, eta burnian, purpuran, eskarlatan, eta jazintoan, eta jakin dezala moldeerak otallutzen, lanean ari dedin, Judea-



tik eta Jerusalem, nere aita Dabidek aututa, artu ditudan, nere langille oiekin batean.

8. Bialdu ere zazkidazu zedrozko, eta enebrozkoko eta pinuzko zurak, Libanotik; zeren badakit zure serbitzariak ongi dakitela ebakitzen Libanoko zurak, eta nere serbitzariak ariko dira lanean zureakin,

9. Zura txit ugari ornitu dezadaten. Zeren egin nai dedan etxea izango da txit andia, eta ospetsua.

10. Eta zurak ebakitzen dituzten langille zure serbitzariak jateko, nik emango dieztet ogei milla koro gari, beste anbat koro garagar, eta ogei milla metreta ardo, baitaere ogei milla sato olio.

11. Eta Hiram Tiroko erregeak Salomoni bialdu zion txartelean, esaten zuen onela: Jaunak bere erria maitatu duelako, argatik egin du zuk erreñatu dezazula bere gañean;

12. Eta gañera esaten zuen: Bedeikatua Israelko Jaun Jaungoiko, zerua eta lurra egin zituen, zeñak eman dion Dabidi seme jakintsu, aditu, zentzuti, eta zur bat, egin zezan Eliza bat Jaunarentzat, eta jauregi bat beretzat.

13. Bialtzen dizut bada gizon aditu eta txit jakintsu bat, zeñ dan Hiram, nere aita bezela honratzen dedana,

14. Dango alabaetatiko andre baten semea, zeñaen aita izan zan Tiroarra, lanean dakiana urrean, eta zillarrean, bronzean, eta burnian, eta marmolean, eta zuretan, eta orobat purpuran, eta jazintoan, eta lino fiñean, eta eskarlatan, eta dakiana egiten otallu lan guztia, eta txit trebea asmatzen lan guztirako bear dana, eta egongo da zure langilleekin, eta zure aita nere jaun Dabidenakin.

15. Bialdu ezazu bada, ene jauna, zure serbitzariarentzat, eskeñi dezun garia, eta garagarra, eta olio, eta ardoa.

16. Bada guk ebakieraziko ditugu bear dituzun Libanoko zur guztiak, eta elkarri itsatsiko dieztegu zurdietan, eramateko itsasoz Joppera, eta zure kontura geldituko da, andikan Jerusalemenera eramatea.

17. Onenbesterekin Salomonek kontatuerazi zituen, Israelko lurrean zeuden gizon konbertitu berri guztiak, bere aita Dabidek artuerazi zuen listatik aurrera, eta arkitu zan zirala eun eta berrogeita amairu milla, eta seireun.

18. Eta oietatik irurogeita amar milla berezitu zituen, sorbalda gañean kargak ekartzeko, eta larogei milla mendietan arriak atera, eta lantzeko, eta jarri zituen iru milla eta seireun jendearen lanen begirale.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta asi zan Salomon, Jaunaren etxea egiten Jerusalemenera Moriak mendian, zeñ erakutsia izan zitzaion bere aita Dabidi, Dabidek prestatua zeukan tokian, Ornan Jebustarraren larranean.

2. Eta eman zion asiera etxeari bigarren illean; berak erreñatzen zuenetik laugarren urtean.

3. Eta oiek dira, Salomonek Jaungoikoaren etxea egiteko jarri zituen zimenduak: luzeera zan irurogei besokoa anziñako neurrian; zabalera ogei besokoa.

4. Eta aurkez zegoan elizpeak zeuzkan luzeeran, elizaren zabalera neurriaren araura, ogei beso; altuera berriz zan eun eta ogei besokoa, eta urte txit fiñez estalierazi zuen barrendiko aldetik.

5. Elizaren zati nagusia ere estali zuen abetozko zurezko olakin; josten zituela iltzeekin alde guztietatik urte txit garbizko plantzak, eta otallutuerazi zituen bertan palmak, eta katetxoak bezelako batzuek, itsatsiak batzuek besteekin.

6. Eta marmol balio guziz andikozko arriekin arlosatu zuen elizako oruea txit ederki.

7. Eta zan txit garbia urrea, zeñaren plantzakin estalierazi zituen eliza eta bere abeak, eta pillarrak, eta pareteak, eta atek. Paretetan otallutuerazi zituen kerubiñak.

8. Berebat, egin zuen Santuen Santuaren tokia, zeñaen luzeera zan ogei besokoa, elizaren zabalera bezela, eta orobat zabalera ogei besokoa; eta estali zuen urrezko plantxa, seireun talentu bezelatsu pisatzen zutenekin.

9. Eginerazi ere zituen urrezko iltzeak, zeñaetatik bakoitzak pisatzen zituen berrogeita amar siklo, eta tellatuko goiaspillatuak ere urrez estali zituen.

10. Baitaere Santuen Santuaren etxean egin zituen kerubinen bi irudi otalluzko, zeñak ere urrez estali zituen.

11. Kerubinen egoak zabaltzen ziran ogei besoan, alako moduan non, ego batek zeuzkan bost beso, eta elizako paretari ukitzen zion, eta besteak, zeñak ere zituen bost beso, ukitzen zion beste kerubinen egoari.

12. Orobat beste kerubinen egoak zeuzkan bost beso, eta paretari ukitzen zion; eta beronen beste ego, bost besokoak ukitzen zion beste kerubinen egoari.

13. Kerubin batoren eta bestearen egoak bada zeuden zabalduak, eta luzetzen ziran ogei besoan; berak berriz zeuden zutik zuzen, eta beren arpegiak kanpoko etxerontz itzuliak.



14. Egin ere zuen jazintozko, purpurazko, eskarlatazko, eta lino txit fiñezko estalki bat, eta bordatuerazi zituen berean kerubinak.

15. Baitaere elizako ateen aurrean bi abearri, zeuzkatenak alturan ogeita amabost beso, eta beren erpiñak ziran bost besokoak.

16. Egin ere zituen katetxo batzuek, santuariokoak bezelakoak, zeñak jarri zituen abearrien erpiñen gañean, baita eun mingrana, zeñak jarri zituen kateetxoen (sic) artean.

17. Eta ipiñi zituen abearri oiek elizako atarian, bata ezkerreara eta bestea eskuiera, eta eskuiean zegoanari deitu zion Jakin, eta ezkerrekoari Booz.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Egin ere zuen bronzeko aldare bat, ogei beso luzeerakoa, ogei beso zabalerakoa, eta ogei beso altuerakoa.

2. Baitaere bronzetako urtuzko itsaso bat, ertz batetik bestera ogei besokoa, biribilla inguruan. Bost beso zeuzkan altueran, eta ogeita amar besoko kordoitxo batek jira egiten zion bere inguruari.

3. Eta bere azpian zeuden idien irudiak, eta amar besoan kanpoko aldetik otalluera batzuek, zeñak jarririk errenkada bitan, jira egiten zuten itsasoaren zabalenetik. Eta idiak ziran bronzetako urtuzkoak.

4. Eta itsasoa bera zegoan jarria amabi idien gañean, zeñatatik iruk begiratutzen zuten ifarrerontz, eta beste iruk sartalderontz, beste iruk egoerontz, eta gañerako beste iruak sortalderontz, zeukatela gañean itsasoa, zeñaen pisua zetorren beren gañera; idien atze aldeak berriz zeuden barrerontz itsasoaren azpian.

5. Eta itsasoaren lodiera zan arra baten neurrikoa, eta bere ertza zan kopa baten, edo azuzena idiki baten ertza bezelakoa, eta iru milla metreta kabitzen zituen.

6. Egin ere zituen amar kontxa, eta jarri zituen bost eskuiean, eta bost ezkerrean, beretan garbitu zezaten, holokaustoa eskeñi bear zan guztia, eta apezak itsasoan garbitzen ziran.

7. Berebat egin zituen amar kandelero urrezko, aginduta zegoan irudiaren araura, eta ipiñi zituen elizan, bost eskuiean, eta bost ezkerrean.

8. Baita amar mai ere, eta jarri zituen elizan, bost eskuiean, eta bost ezkerrean, baitaere urrezko eun edanontzi.

9. Egin ere zituen apaizen ataria, eta elizpe andia, eta atea elizpean, zeñak bronzetako estali zituen.

10. Eta jarri zuen itsasoa eskuieko aldean, sortalderontz begiratzen duenaren egoerontz.

11. Baitaere egin zituen Hiramek pertzak, eta iruortzak, eta txarroak. Eta bukatu zituen, Jaungoikoaren elizan egiteko erregeak agindu zituen obra guztiak.

12. Au da, abe biak beren arpaindeta eta erpiñakin, eta mallak bezelako batzuek, alako mañarekin non elkartzen zituzten arpaindeten gañeko erpiñak.

13. Berdin lareun granada eta bi malla, alako eran non, granaden bi errenkada biltzen zitzaizkaten, arpaindetak, eta abeen erpiñak estalitzen zituzten mallatetik bakoitzari.

14. Egin ere zituen ondopeak eta kontxak, zeñak jarri zituen ondopeen gañean,

15. Itsaso bat, eta amabi idi itsasoaren azpian,

16. Eta pertzak, eta iruortzak eta txarroak. Ontzi guztiak egin zituzkan Salomoni bere aita Hiramek Jaunaren etxerako kobretako garbizkoak.

17. Erregeak agindu zuen urtu zitezela Jordango erriberan, lur gre-datsu batean, Sokoth eta Saredatharen artean.

18. Ontzi taldea zan kontatu ezin zezakeana, alako moduan non, etziakien inork zenbat bronzetako gaztatu zan.

19. Eta Salomonek egin zituen Jaungoikoaren etxeko ontzi guzti oiek, eta urrezko aldarea, eta maieak, zeñaen gañean jartzen ziran proposizioko ogiak.

20. Berebat kandeleroak beren metxeroekin urte txit garbizkoak, argi egin zezaten orakuloaren aurrean, elizlekeen araura;

21. Eta lora apaingarri batzuek, eta metxeroak, eta kurrikatxoak urrezkoak. Guztia egin zan urrerik garbienarekin.

22. Lurrinkaien brasontzitxoak ere, eta inzenarioak, eta edontziak, eta motraitutxoak urte txit garbizkoak. Eta zizelatuerazi zituen barrendiko elizako atea, au da, Santuen Santuarenak, eta elizako atea ziran urrezkoak kanpotik. Onela bukatu ziran Salomonek Jaunaren etxean egin zituen obrak.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Salomonek bada ekarrierazi eta gordeerazi zuen Jaungoikoaren etxeko gordeleketuan, bere aita Dabidek eskeñi zuen guztia: zillarra, eta urrea, eta ontzi guztiak.

2. Onen ondoren bildu zituen Israelko zarrak, eta tribuetako prinzipiak, eta Israelko semeen familietako buru guztiak, Jerusalemen, eramateko Jaunaren testamentuko kutxa, Dabiden erri, beste izen batez, Siondik.



3. Israelko gizon guztiak bada etorri ziran erregeagana zazpigarren illaren egun andian.

4. Eta etorriarik Israelko zar guztiak, Lebitak eraman zuten kutxa.

5. Eta sartu zuten barrunen, tabernakuloko apaingarri guztiarekin. Eta apaizak Lebitakin batean eraman zituzten, tabernakuloan zeuden santuarioko ontziak.

6. Eta Salomon erregeak, eta Israelko batzarre guztiak, eta kutxaren aurrean bildu ziran guztiak, eskeñtzen zituzten ari, eta idi illak zenbatu ezin zezakean adiñan, ain zan andia abere illen taldea.

7. Eta apaizak sartu zuten Jaunaren elkartasuneko kutxa bere tokian, au da, tenploko orakuloan, Santuen Santuan, kerubinen egoen azpian,

8. Alako moduan non, kerubinak zabaltzen zituzten beren egoak, kutxa ipiñia izan zan tokiaren gañean, eta estaltzen zituzten kutxa bera, eta bere agak.

9. Baña nola kutxa eramaten zan agak, ziran zerbait luzeagoak, agertzen ziran orakuloen aurrean, baña zerbait kanpora zegoanak ezin ikusi litzakean. Eta an egon da kutxa gaurko eguneraño.

10. Eta etzegoan beste gauzarik kutxan. Moisesek Horeben ipiñi zituen ol biak baizik, Jaunak eman zienean legea Israelko semeai beren irteeran Ejiptotik.

11. Eta apaizak atera ziranean santuariotik (zeren an arkitu al ziran guztiak izan ziran santutuak; denbora artan etzeundelako oraindik beren artean partituak beren elizkizunetarako txanda, eta egiteko erak).

12. Ala Lebitak, nola kantariak, au da, Asafen agindura zeudenak, eta Emanenera zeudenak, eta Idithunenera zeudenak, beren semeak eta anaiak, lino txit fiñezko soñekoakin jantziak, jotzen zituzten zinbaloak, eta salterioak eta zitarak, jarririk zutik aldarean sortaldean, eta berakin eun eta ogei apaiz, tronpetak jotzen zituztenak.

13. Ala bada guztiak batean kantatzen zutela tronpetakin, eta bozakin, eta zinbaloakin, eta organuakin eta soñulari mota askorekin, eta altxatzen zituztela gora bozak, urrutitikan aditzen zan otsa; eta asi ziranean kantatzen, eta esaten: Bedeikatu ezazute Jauna, zeren ona dan, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan. Odei batez bete zan Jaungoikoaren etxea,

14. Alako moduan, non, apaizak ezin egon al ziran, ezta ari beren lanetan illuntasunagatik. Zeren Jaunaren gloriak bete zuen Jaungoikoaren etxea.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Orduan Salomonek esan zuen, Jaunak eskeñi zuen illuntasunean biziko zala,

2. Eta nik egin diot etxe bat bere izenari, an beti bizi zedin.

3. Eta erregeak itzuli zuen bere arpegia, eta bedeikatu zuen Israelko talde guztia (zeren talde guztia zegoan zutik zur, eta adi) eta esan zuen:

4. Bedeikatua izan dedilla Israelko Jaun Jaungoiko, kunplitu duena, nere aita Dabidi eskeñi ziona, esaten zuela:

5. Nere erria Ejiptotik atera nuen egunetik, ez nuen autu erririk batere Israelko tribu guztietatik, non egin zizaion etxe bat nere izenari; eta ez nuen ere autu beste gizonik batere, gobernatu zezan Israel nere erria.

6. Baizik autu nuen Jerusalem, berean egon zedin nere izena, eta autu nuen Dabid, ipintzeko Israel nere erriaren gañean.

7. Eta izanik nere aita Dabiden borondatea, egitea etxea Israelko Jaun Jainkoaren izenari,

8. Jaunak esan zion: idukitzean zuk borondate ori, egiteko etxea nere izenari, egiaz ongi egin dezu, zure guraria ona izan da.

9. Baña etzera zu izango etxea egingo dezuna, baizik zure semea, zeñ aterako dan zure erraietatik, berak egingo dio etxea nere izenari.

10. Jaunak bada kunplitu du, eman zuen itza: eta ni jarri naiz nere aita Dabiden lekuan, eta eseri naiz Israelko tronuaren gañean, Jaunak esan zuen bezela, eta egin diot etxea Israelko Jaun Jaungoikoaren izenari,

11. Eta bertan jarri det kutxa, zeñaen barrenen dagoan, Israelko semeakin Jaunak egin zuen elkartasuna.

12. Jarri zan bada zutik Jaunaren aldarearen aurrean, Israelko jende talde guztiaren aurkez, eta zabaldu zituen bere eskuak.

13. Zeren Salomonek egin zuen bronzeko oñpeko bat, eta jarri zuen atariaren erdian, zeñak zeuzkan bost beso luzeeran, eta bost beso zabaleran, eta iru beso altueran, eta jarri zan zutik bere gañean, eta belaunikaturik gero Israelko jende talde guztiari begira, eta eskuak zerurontz altxaturik,

14. Esan zuen: Israelko Jaun Jainkoa, ez dago zure antzeko Jainkorik zeruan ez lurrean, gordetzen dituzuna elkartasuna eta errukia zure serbitzariakin, zure bideai beren biotz guztitik jarraitzen diezteenakin,

15. Kunplitu diozkazuna zure serbitzari, nere aita Dabidi, eman ziñozkan itz guztiak, zeren itzez eskeñi ziñiona, obraz egin dezu, gaur erakusten dan bezela.

16. Orain bada Israelko Jaun Jainkoa, kunplitu zaiozu nere aita Dabid zure serbitzariari itz egin ziñion guztia, esaten zenduela: Ez da faltatuko zure jatorrikorik, zeñ eseri nere aurrean Israelko tronuaren gañean, zure



semeak ibiltzen badira zure bideetatik, eta gordetzen badute nere legea, zuk egin dezun bezela nere aurrean.

17. Eta orain Israelko Jaun Jainkoa, sendotu bedi zure serbitzari Dabidi eman ziñion itza.

18. Sinistu bai ote lezake Jaungoikoa bizi dala gizonakin lurraren gañean? Baldin zeruak, eta zeruen zeruak ezin kabitu bazaituzte, zenbat gutxiago, nik egin dedan etxe onek?

19. Baña onetarako bakarrik izan da egiña, zuk ene Jaun Jainkoa, itzuli ditzazun begiak zure serbitzariaren otoitzera, eta bere eskarietara, eta aditu ditzazun zure serbitzariak zure aurrean egiten dituen erreguak:

20. Iduki ditzazun idikiak zure begiak gau ta egun etxe onen gañean, zure izenari ots egingo zizaiola eskeñi zenduen tokiaren gañean,

21. Eta aditu zenezan, zure serbitzariak bertan egiten dizun otoiza, eta entzun ditzazun zure serbitzariaren, eta Israel zure erriaren erreguak. Toki onetan erregututzen dizun guztiari, aditu zaiozu zure bizilekutik, au da, zeruetatik, eta erakutsi zatzakio beraa.

22. Baldin norbaitek bekatu egingo balu bere projimuaren kontra, eta etorriko balitza juramentu egiteko garrarekin bere kontra, eta lotuko balitza madarikazioarekin aldarearen aurrean etxe onetan,

23. Zuk adituko diozu zerutik, eta egingo diezu justizia zure serbitzariari, erorierazitzen diozula gaiztoaren buruaren gañera, beraren gaiztakeriari berari, eta bengatzen zatzakiola justoari, eta ordañtzen dezula bere justiziaren araura.

24. Baldin Israelko zure erria izango balitza bere etsaiak garaitua (zere bekatu egingo du zure kontra) eta konbertiturik, penitentzia egingo balute, eta ots egingo baliote zure izenari, eta orazio egingo balute toki onetan;

25. Zuk adituko dituzu zerutik, eta barkatuko diozu Israel zure erriari bere bekatua, eta itzuliko dituzu, berai eta bere gurasoai eman ziñien lurrera.

26. Baldin itxirik zerua ez balu euririk egingo erriaren bekatuak gatik, eta erregutuko balizute toki onetan, eta aitortzen dutela zure izena, konbertituko balira beren bekatuetatik, atsekabetzen dituzunean,

27. Aditu itzatzu, Jauna, zerutik, eta barkatu itzatzu zure serbitzariaren, eta Israel zure erriaren bekatuak; eta erakutsi zaiezu bide ona, zeñatatik joan bear duten: eta eman zaiozu euria lur bati, zeñaen jabetasuna eman ziñion zure erriari.

28. Etorriko baldin balitza gero lurrera gosetea, edo izurritea; gorriña, eta erdoia, edo langosta, edo beldarra, edo etsaiak arrasatu ezke-

ro kanpoak, idukiko balituzte setiatuak erriko atea, edo beste edozeñ naigabe, edo gaitzek estutuko balituzte,

29. Israel zure erriko edozeñek, ezagaturik bere naigabe eta gaitzak, erregutuko balizu, eta altxatuko balitu zugana bere eskuak etxe onetan,

30. Zuk adituko dezu zerutik, zure bizileku goratu orretatik, eta beraa erakutsiko zatzakio, ordañtzen dezula bakoitza diña danaren araura, eta bere biotzean ikusten dezun bezela (bada zuk bakarrik ezagutzen dituzu gizonen biotzak)

31. Zure beldur izan ditezen eta ibilli ditezen zure bideetatik, beren gurasoai eman ziñien lurraren gañean bizi diran egun guztietan.

32. Berebat etorriko balitza toki urrutietatik arrotzen bat, Israel zure errikoa ez dana, aditu duelako zeñ andia dan zure izena, zeñ sendoa zure eskua, eta zeñ zabala zure besoa, eta adoratuko bazindu toki onetan,

33. Zuk adituko dezu zerutik, zure bizileku txit sendotik, eta eman-go diozkazu arrotzari eskatzen dizkizun gauza guztiak, zure izena izan dedin lurreko erri guztiak ezagutua, Israel zure erriak egiten duen bezela, eta ezagutu dezaten zure izenari ots egiten zaiola, egin dedan etxe onetan.

34. Aterako balitza gudara zure erria bere etsaien kontra, zuk bialtzen dezun bidetik, eta adoratuko bazindute itzulirik toki auganontz, zeñean dagoan autu zenduen erri au, eta zure izenari egin diodan etxea,

35. Zuk adituko dituzu zerutik beren eskari, eta erreguak, eta bengatuko zatzai.

36. Eta baldin bekatu egingo balute zure kontra (zere ez dago gizonik, bekatu egiten ez duenik) eta aserretuko baziña beren kontra, eta jarriko baziñitu beren etsaien eskuetan, eta eramango balituzte katibu toki urrutikoren batera, edo aldean dagoanera,

37. Eta katibu eramanak diran erriak konbertituko balira biotzez, eta penitentzia egingo balute, eta beren katiberioko lurrean barka eskatuko balizute esaten dutela: Bekatu egin degu, gaizki egin degu, bidegabeak izan dira gure obrak,

38. Eta biurteko balirade zugana beren biotz guztitik, eta beren anima guztitik, eramanak izan diran beren katiberioko lurrean, eta adoratuko bazindute itzulirik beren gurasoai eman ziñien beren lurreko, eta zuk autu zenduen erriko, eta nik zure izenari egin nion etxe biderontz.

39. Zuk adituko dituzu zerutik, au da, zure bizileku sendotik, beren erreguak, eta jarriko zera beren alde, eta barkatuko diozu zure erriari, bekataria bederik.



40. Zu zeran ezkeron nere Jaungoikoa, erregututzen dizut, arren, iduki ditzatzula idikiak zure begiak, eta zur zure belarriak, toki onetan egingo zaskizun erregetara.

41. Orain bada, o Jaun Jainkoa, jaiki zaite, eta atoz zure atsedenera, zu eta zure sendotasuneko kutxa, zure apaizak ikusi bezate berakgan zure laguntasuna, o Jaun Jainkoa, eta zure santuak poztu bediz zure mesedee-tan.

42. Jaun Jainkoa, ez ezazu arren apartatu zure arpegia, zure igortzi onegandik, oroitu zaite zure serbitzari Dabiden urrikaltasunakin.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Salomonek bukatu zituenean bere erreguak, jetxi zan sua zerutik, zeñak iretsi zituen holokaustoak, eta biktimak; eta Jaunaren anditasunak bete zuen etxea.

2. Eta apaizak ezin ziran sartu Jaunaren elizan, zergatik eze Jaunaren anditasunak bete zuen Jaunaren eliza.

3. Eta Israelko seme guztiak ere ikusten zuten nola jetxitzen zan sua zerutik, eta Jaunaren gloria etxearen gañean, eta auzpezturik arpekiak lurreraño arlosazko bearen gañean, adoratu eta bedeikatu zuten Jauna, zeren ona dan, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

4. Eta erregeak eta erri guztiak, abereak il, eta eskeñtzen zituzten Jaunaren aurrean.

5. Salomon erregeak eskeñi zituen doañean ogeitabi milla idi, eta eun eta ogei milla txikiro. Onela zelebratu zuen erregeak erri guztiarekin Jaungoikoaeren etxearen dedikazioa.

6. Apaizak ari ziran arretaz beren lanetan, eta Lebitak soñuakin batean, kantatzen zituzten, Dabid erregeak Jauna alabatzeko jarri zituen salmoak, esaten zutela: Zeren bere errukia betikoa dan. Oiek kantatzen zituzten Dabiden himnoak beren soñuakin batean; eta apaizak beren aurkez jotzen zituzten tronpetak; eta Israel guztia zegoan zutik.

7. Santutu ere zuen Salomonek apaizen atariaren erdia, Jaunaren elizaren aurkez; an eskeñi zituelako holokaustoak, eta doañ paketsuen gantz. Egin zuen bronzeko aldarea etzalako gai anbeste holokausto, eta eskeñtzentzat, eta doañ paketsuen gantzarentzat.

8. Zelebratu zuen orduan Salomonek beste zazpi egunean tabernakuloen jai andia, eta berarekin Israel guztiak, jendetza txit andia bilduta, Emathko sarreratik Egiptoko errekerano.

9. Eta zortzigarren egunean izan zan jende talde guztiaren jai andia, zazpi egunean izan zalako aldarearen dedikaziokoa, eta beste zazpi egunean tabernakuloen jai.

10. Eta onenbesterekin zazpigarren illaren ogeita irugarren egunean, bialdu zuen jende guztia beren etxeetara pozik eta gozotasunez beterik, Jaungoikoak egin ziezten mesedeakgatik Dabidi eta Salomoni, eta Israel bere erriari.

11. Eta Salomonek bukatu zituen Jaunaren etxea, eta erregearen etxea, eta bere biotzean erabaki zuen guztia, egitea Jaunaren etxean, eta bere etxean, eta doatsua izan zan.

12. Eta Jauna gauaz agertu zitzaion, eta esan zion: Aditu det zure erregua, eta autu det toki au eskeñtzako etxetzat.

13. Itxiko baldin banu nik zerua, eta ez balu euririk egingo, eta agindu eta esango banio langostari iretsi dezala lurra; izurritea nere errira bialduko banu,

14. Eta nere erriak, zeñaren gañera ots egin zaion nere izenari, konbertiturik barka eskatuko balit, eta egingo balu alegiña ni biguñtzeko, bere bizitza gaiztoaren penitentzia egiten duela; nik ere zerutik adituko det, eta barkatuko diozkat bere bekatuak, eta libratuko det gaitzetatik bere erria.

15. Eta nere begiak egongo dira idikiak, eta nere belarriak zurrak, toki onetan erregututzen duenaren otoitzera.

16. Zeren toki au autu, eta santutu det, nere izena egon dedin an betiko, eta nere begiak, eta nere biotza egon ditezen josiak bere gañean denpora guztian.

17. Zu ere, ibilliko baziña nere aurrean, zure aita Dabid ibilli zan bezela, eta egingo bazeneza nik agindu dizudan guztia, eta gordeko baziñitu nere aginteak, eta legeak,

18. Jasoko det zure erreñuko tronua, zure aita Dabidi eskeñi diodan bezela, esaten dedala: Ez da faltatuko beñere zure jatorrian, Israelko Prinzipe izango dan gizonik.

19. Baña baldin bizkarrak itzuliko baziñizkidate, eta jarri dizkizutedan nere legeak, eta nere aginteak utziko baziñituzke, eta joango baziñiate jainko arrotzak serbitzera, eta adoratuko baziñituzke,

20. Aterako zaituztet eman nizuten nere lurretik, eta nere izenari konsagratu diodan etxe au, botako det nere aurretik, eta egingo det izan dedilla jende guztien ipuia, eta erakutsia.

21. Eta iragotzen diran guztiak, etxe oni farra egingo diote, eta arri-tuak esango dute: Zergatik au egin dio Jaunak erri oni, eta etxe oni?



22. Eta erantzungo diete: Utzi zutelako beren gurasoen Jaun Jaun-goiko, atera zituena Egiptoko lurretik, eta artu dituztelako jainko arrotzak, eta adoratu, eta elizkizunak egin dieztelako. Argatik etorri dira beren gañera gaitz guzti oiek.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta iragorik ogei urte Salomonek Jaunaren etxea, eta bere etxea egin zituen ezkeru,

2. Egin zituen, Hiramek Salomoni eman ziozkan erriak, eta Israelko semeai beretan bizituerazi zien.

3. Joan ere zan Emath Subakora, eta artu zuen.

4. Eta berritu zuen Palmira eremuan, eta Emathko lurlean beste erri sendo batzuek.

5. Berebat berritu zituen Bethoron goikoa, eta Bethoron bekoa, erri murrutuak, zituztenak atepak, eta morrolloak, eta sarrallak,

6. Baita Balaath ere, baita Salomonenak izan ziran erririk sendoen guztiak, eta gurdien erri guztiak, eta zaldizko jendearen erriak. Egin zuen Salomonek nai eta irudidetu zuen guztia, ala Jerusalem, nola Libanon, eta berak agintzen zuen guztian.

7. Hetearretatik, eta Amortarretatik, eta Fereztarretatik, eta Hebearetatik, eta Jebustarretatik gelditu zan jende guztia;

8. Eta Israeltarrak biziarekin utzi zituztenen semeak eta jatorrikoak, Salomonek egin zituen kotiztari gaurko eguneraño.

9. Baña Israelko semeak etzituen jarri erregearen lanetan, zeren berak ziran gizon gerrariak, eta lenbiziko agintariak, eta gurdidiaren eta zaldidiaren gidariak.

10. Salomon erregearen ejerzituko agintari guztiak izan ziran berreun eta berrogeita amar, zeñak erakusten zioten erriari.

11. Eta Faraonen alabari iragoerazi zion Dabiden etxetik, egin zion etxera. Zeren erregeak esan zuen: Ez da biziko nere emaztea, Dabid Israelko erregearen etxean, zeren santutua izan dan, bada bertan sartu da Jaunaren kutxa.

12. Orduan Salomonek eskeñi ziozkan holokaustoak Jaunari, atariaren aurrean egin zuen Jaunaren aldarearen gañean.

13. Egun guztietan egin zitezen eskeñtzak Moisesen aginduaren araura, larunbatetan, neomenietan, eta urteko iru jai andietan, au da, Azimone jai andian, Astean jai andian, eta Tabernakuloen jai andian.

14. Eta jarri zituen, bere aita Dabiden erabakien araura, apaizen egin-kizunak beren lanetan, eta Lebitak egin bear zutena, kantatzen zutenean,

eta apaizen aurrean serbitzen zutenean, egun bakoitzeko elizledeen araura, eta ate bakoitzean egon bear ziran atezaiak, zeren ala agindu zuen Dabid Jaungoikoaren gizonak.

15. Eta etziran atera erregearen agintetatik, ala apaizak nola Lebitak, agindua izan zaioten guztian, eta tesoroak gordetzearen gañean.

16. Salomonek iduki zituen lendaaz prestatuak gastu guztiak, Jaunaren etxeko zimenduak jarri zituen egunetik, bukatu zuen arteko eguneraño.

17. Orduan joan zan Salomon Asiongaberrera, eta Ailathera, itsaso gorriaren erriberara, zeñ dagoan Edomgo lurlean.

18. Eta Hiram erregeak bialdu ziozkan bere serbitzarien bitartez ontziak, eta itsasgizon itsasoan adituak, eta joan ziran Salomonen serbitzariakin Ofirrerera, eta andik eraman zituzten lareun eta berrogeita amar talentu urre, eta ekarri ziozkatzen Salomon erregeari.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Sabako erregiña, aditurik onek ere Salomonen ospea, etorri zan Jerusalem probatzera Salomon galde nasiakin, zekarzkiela berarekin aberastasun andiak, eta gamelu zamatuak aromaz, urre txit ugariz, eta arri baliotsuz. Eta allegatu zanean Salomonen aurrera, ipiñi ziozkan, bere biotzean zeuzkan galde nasi eta gaitz guztiak.

2. Eta Salomonek azaldu zuen, erregiñak ipiñi zion gauza illun guztia, eta ezerere etzan gelditu argitu gabe,

3. Ikusiirik bada Sabako erregiñak Salomonen jakinduria, eta egin zuen etxea;

4. Eta bere maieko jakiak, eta bere jauregiaren bizilekuak, eta zeñ ederki serbitzen zuten bere morroiak; eta beren soñekoak, eta koperuak eta beren jantziak, eta Jaunaren etxean eskeñtzen zituen abere illak, gelditu zan arriturik, eta beregandik irtenda bezela.

5. Eta esan zion erregeari: Egia da nere errian aditu nuena zure bertute eta zure jakinduriaren gañean.

6. Ez nien sinisterik ematen kontzatzan zidatenai alik eta nerau etorri naizan artean, eta ikusi dedan artean nere begiak, eta arkitu det egitez, ozta kontatu didatela zure jakinduriaren erdia, andiangoak dira zure bertuteak beren ospea baño.

7. Zorionekoak zure jendeak, eta zorionekoak zure morroiak, zure aurrean denbora guztian daudenak, eta aditzen dutenak zure jakinduria.

8. Bedeikatua izan dedilla zure Jaun Jainkoa, nai izan zinduena jarri bere tronua gañean, zure Jaun Jainkoaren erregetzat. Nola Jaungoiko-



ak maitatzen duen Israel, eta nai duen beti iraun dezala, argatik jarri zaitu bere erregetzat, gobernatu dezazun, eta egin justizia.

9. Eta eman ziozkan erregeari eun eta ogei talentu urre, eta aroma txit asko, eta arri txit baliosoak. Etzan iñoiz izan alako aromarik, Sabako erregiñak Salomon erregeari eman ziozkanak bezelakorik.

10. Eta Hiramen serbitzariak Salomonen serbitzariakin ekarri ere zuten urrea Ofirtik, eta Thinoko zurak, eta arri txit baliotsuak.

11. Eta Thinoko zur oiekin agindu zuen erregeak ekiteko Jaunaren etxeko, eta erregearen etxeko eskallerak, eta zitarak eta salterioak kantarietzat, etzan beñere ikusi Judako lurrean alako zurik.

12. Eta Salomon erregeak eman zion Sabako erregiñari nai izan zuen, eta eskatu zuen guztia, eta berak ekarri zuen baño asko geiago, zeñ itzulirik joan zan bere errira bere serbitzariakin.

13. Eta Salomoni urteoro ekartzen zien urreak, pisatzen zituen sei-reun eta irurogeita sei talentu,

14. Kontuan sartu gabe ekartzen ziotena erreñu askotako mandatarik, eta merkatariak, eta Arabiako errege guztiak, eta Salomoni urrea eta zilarra ekartzen zien probinzietako agintariak.

15. Egin ere zituen Salomon erregeak berreun pika urrezko, seireun siklo pisatzen zituztenak, bada au zan pika bakoitzari ipintzen zitzaiona.

16. Eta berebat irureun ezkutu urrezko, irureun siklo urrezkoak, zeñakin estaltzen zan ezkutu bakoitza, eta erregeak jarri zituen, Basoko jauregian zegoan armategian.

17. Egin ere zuen erregeak marfillezko tronu andi bat, eta urre txit garbiz estali zuen.

18. Baitaere sei malla, zeñæetatik igotzen zan tronura, eta urrezko oinpeko bat, eta bi beso, alde bakoitzetik bat, eta bi leoi, zeñak zeuden besoen aldean.

19. Gañera amabi leoitxo, zeudenak sei mallen gañean, alde batetik eta bestetik. Etzan beste erreñutan onelako tronurik.

20. Orobat erregearen maieko maiontzi guztiak ziran urrezkoak, eta Libanoko basoko jauregiko maiontziak ere ziran urre txit garbizkoak, zeren zillarrak denbora artan deus etzuen balio.

21. Zeren erregearen ontziak iru urtetik iru urtera joan oi ziran Thar-sisera Hiramen serbitzariakin, eta ekartzen zituzten andik urrea, eta zilarra, eta marfilla, eta tximuak, eta antzarrak.

22. Salomonek bada iduki zuen, lurreko errege guztiak baño aberas-tasun, eta gloria geiago.

23. Eta lurreko errege guztiak ikusi nai zuten Salomonen arpegia, aditzeko, Jaungoikoak bere biotzean ipiñi zuen jakinduria.

24. Eta eramaten ziozkatzen doañak urte guztietan, zillarrezko eta urrezko ontziak, eta soñekoak, eta armak, eta aromak, zaldiak, eta mandoak.

25. Iduki ere zituen Salomonek berrogei milla zaldi abere estalpeetan, eta amabi milla gurdi, eta amabi milla zaldizko, eta ipiñi zituen gurdien errietan, eta Jerusalemenean, non zegoan erregea.

26. Iduki ere zuen agintaritza errege guztien gañean, Eufrates ibaie-tik Filistintarren lurreraño, eta Egiptoko mugetaraño.

27. Eta egin zuen, zilarra izan zedilla Jerusalemenean, arria bezin ugaria, eta ain ugari zegoan zedroa, nola kanpoetan azitzen dan pikoarra.

28. Eta ekartzen ziozkatzen zaldiak Egiptotik, eta probinzia guztietatik.

29. Salomonen gañerako egiteak, ala lendabizikoak, nola atzenekoak, eskribatuak daude Nathan profetaren liburuetan, eta Ahias silontarrarenetan, baitaere Addoren ikusketan, zeñak profetizatu zuen Jeroboam, Nabathen semearen kontra.

30. Salomonek erreñatu zuen Jerusalemenean Israel guztiaren gañean berrogei urtean.

31. Eta joan zan atsedetera bere gurasoakin, eta obiatu zuten Dabi-den errian, eta Roboam bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta Roboam joan zan Sikemera, zeren Israel guztia bildu zan an bera errege egiteko.

2. Aditurik au Jeroboam Nabathen seme, Ejipton zegoanak, (bada ara iges egin zuen Salomongandik) bereala itzuli zan.

3. Eta ots egin zioten, eta etorri zan Israel guztiarekin, eta itz egin zioten Roboami, esaten zutela:

4. Zure aitak iduki ginduen mendean uztarri txit astun batekin, gobernatu gaitzatzu, zure aitak baño biguñago, zeñak ipiñi zigun mendetasuna zan txit pisua, eta arindu zaguzu piska bat zama, eta izango gera zure serbitzariak.

5. Berak esan zien: itzuli zaitetze nigana emendik iru egunera. Eta erria joanik,

6. Iduki zuen batzarrea, Salomon bere aita bizi zanean oni laguntzen zien zarrakin, eta esan zien: Zer konseju ematen didazute, erriari erantzuteko?



7. Zeñak esan zioten: Erri onek eskatzen duena egiten badezu, eta biguñtzen badituzu itz gozoakin, beti zure serbitzariak izango dira.

8. Baña berak utzi zuen zarren konsejua, eta asi zan tratatzen, berarekin azi ziran, eta berarekin ibilli oi ziran lagun gazteakin.

9. Eta esan zien: Zer deritzazute? Edo zer erantzun bear diot erri oni, etorri zadan oni, esatera: Arindu zaguzu, zure aitak gure gañean ipiñi zuen uztarri pisua?

10. Berak berriz erantzun zioten gazteak bezela, eta gozotasunetan aziak bezela, eta esan zioten: Erri orri, zeñak esan dizun: Zure aitak ipiñi zigun uztarri pisu bat, zuk arindu zaguzu; onela itz egingo diozu, eta emango diozu erantzuer a: Nere beatzik txikiena gizenago da, nere aitarren bizkarrak baño.

11. Nere aitak ipiñi zuen, zuen gañean uztarri pisu bat, nik ipiñiko dizutet pisu andiagoa. Nere aitak azotatu zinduzten zigorrakin, nik berriz azotatuko zaituztet lupu-ualakin.

12. Jeroboam bada etorri zan erri guztiarekin Roboamgana irugarren egunean, berak agindu zien bezela.

13. Eta erregeak, utzirik zarren konsejua, erantzun zien gogortasunarekin.

14. Eta itz egin gazteen iritziaren araura: Nere aitak ipiñi zizuten gañean uztarri pisu bat, eta nik pisuago egingo det. Nere aitak azotatu zinduzten zigorrakin, nik azotatuko zaituztet lupu ugalakin.

15. Eta etzion eman erriari erreguz eskatzen zuena, zeren Jaungoikoaren borondatea zan, kunplitu zedilla, Jeroboam Nabathen semeari, Ahias Silontarraren aoz eman zion itza.

16. Eta erri guztiak, erregearen erantzuer a garratza gatik, onela itz egin zion: Ez degu guk zer ikusirikan Dabiden etxearekin; ezta deusik zer itxedon Isairen semeagandik. Itzuli zaite, o Israel, zure bizilekuetara, eta zuk Roboam Dabiden semea, gobernatu ezazu zure etxea. Eta itzuli zan Israel bere bizilekuetara.

17. Eta erreñatu zuen Roboamek, Judako errietan bizi ziran Israelko semeen gañean.

18. Eta erregeak bialdu zion Roboami Aduramera kotizbiltzaleen agintaria, eta Israelko semeak arrika egin zioten, eta il zan, eta Roboam erregea agudo igo zan gurdira, eta iges egin zuen Jerusalemenera.

19. Eta berezitu zan Israel Dabiden etxegandik gaurko eguneraño.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Etorri zan bada Roboam Jerusalemenera, eta bildu zituen Judako, eta Benjamingo etxeetako guztiak, eun eta larogei milla gizon autuak eta gerrarakoak, Israelen kontra gudatu, eta bere mendera erakartzeko.

2. Baña Jaunak itz egin zion Semeias Jaungoikoaren gizonari, esaten zuela:

3. Itz egin zaiozu Roboam Salomonen seme Judako erregeari, eta Judan eta Benjaminen dagoan Israel guztiari.

4. Oiek esaten ditu Jaunak: Etzerate igoko, eta etzerate ere gudatuko zuen anaien kontra. Itzuli bedi bakoitza bere etxera, zeren nere borondatez egiña izan da au. Berak aditu zutenean Jaunaren itza, biurtu ziran, eta etziran joan Jeroboamen kontra.

5. Eta Roboam bizi izan zan Jerusalemenean, eta egin zituen erri murrutuak Judan.

6. Eta murrutu zituen Belen, eta Etan, eta Thekue,

7. Baitaere Bethsur, eta Soko, eta Odolam,

8. Berebat Jeth, eta Maresa, eta Zif.

9. Eta gañera Aduram, eta Lakis, eta Azeka,

10. Baita Saraa, eta Aialon, eta Hebron ere, zeñak zeuden Judan eta Benjaminen, erri txit sendoak.

11. Eta murruz inguratuta, jarri zituen beretan agintariak gobernatzeko, eta bazka ornien azokak, au da, olioarena, eta ardoarena.

12. Eta erri bakoitzean egin zuen ezkutuen eta piken armatoki bat, eta alegin andiak egin zituen erri aiek sendotzeko, eta erreñatu zuen Juda eta Benjaminen gañean.

13. Eta Israel guztian zeuden apaiz eta Lebitak etorri ziran beragana, bizi ziran toki guztietatik,

14. Utziten zituztela beren usetako bizilekuak, eta beren ondasunak, eta iragotzen zirala Judara eta Jerusalemenera, zeren Jeroboamek eta bere semeak bota zituzten, ari etzitezen Jaunaren apaiztzako lanetan.

15. Eta berak egin zituen goietako apaizak, eta demonioenak, eta egin zituen txalenak.

16. Eta berebat Israelko tribu guztietatik, erabaki zuten guztiak beren biotzetan Israelko Jaun Jainkoa billatzea, etorri ziran Jerusalemenera eskeñtzera beren doañak, beren gurasoen Jaun Jainkoaren aurrean.

17. Eta murrutu zuten Judako erreñua, eta sendotu zuten Roboam Salomonen semearen erregetza iru urtean, zeren bakarrik iru urtean ibilli ziran Dabid eta Salomonen bideetatik.



18. Eta Roboam ezkondu zan Mahalath, Jerimothén, Dabiden semearen alabarekin, baitaere Abihail Eliaben Isairen semearen alabarekin,

19. Zeñagandik iduki zituen semeak Jehus, eta Somorias, eta Zoom.

20. Onen ondoren ezkondu ere zan Maaka Absolonén alabarekin, zeñak egin ziozkan Abia, eta Ethai, eta Ziza, eta Salomith.

21. Roboamek berriz maitatu zuen Maaka Absalonén alaba, bere emazte, eta emazte azpiko guztiak baño geiago, zeren artu zituen emezortzi emazte, eta irurogei emazte azpiko, eta izan zituen ogeita zortzi seme, eta irurogei alaba.

22. Eta Abia Maakaren semea jarri zuen bere anaia guztien buru eta prinzipetzat, zeren errege egiteko asmoak zituen,

23. Zeren zan bere seme guzietatik jakintsuena eta sendoena, eta onetarako barreatu zituen oiek Judako, eta Benjamingo inguru guztietan, eta erri murrutu guztietan, eta eman zien janaria ugari, eta billatu ziezten emakume asko.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta Roboamek, sendotu eta aseguratu zanean erreñuan, utzi zuen Jaunaren legea, eta berarekin Israel guztiak.

2. Eta Roboamek erreñatzen zuenetik bosgarren urtean, Sesak Ejiptoko erregea igo zan Jerusalemenera (bekatu egin zutelako Jaunaren kontra).

3. Milla eta berreun gurdi, eta irurogei milla zaldizkoakin; eta ezin kontatu zezakean berarekin etorri zan jendea Ejiptotik, au da, Libiakoak, Troglodiarrak, eta Etiopiakoak.

4. Eta artu zituen Judako erririk sendoenak, eta eldu zan Jerusalemeara.

5. Orduan Semeias profeta joan zan Roboam eta Judako prinzipdeen aurrera, zeñak bildu ziran Jerusalemén Sesak-en igesi, eta esan zien: Oiek esaten ditu Jaunak: Zuek utzi nazute, bada nik ere utziten zaituztet Sesak-en eskuetan.

6. Eta izaturik Israelko prinzipideak, eta erregea, esan zuten: Justoa da Jauna.

7. Baña ikusirik Jaunak umillatu zirala, itz egin zion Semeiasi, esaten zuela: Humillatu diran ezkerok, ez ditut desegingo, baizik emango diet laguntasunaren piska bat, eta ez da eroriko nere aserrea Jerusalemén gañera Sesak-en eskuz.

8. Alaere serbituko dute, jakin dezaten nolako desberdintasuna dagoan ni serbitzetik, lurreko erregeak serbitzera.

9. Alde egin zuen bada Sesak Ejiptoko erregeak Jerusalemén, zera-mazkiala Jaunaren etxeko, eta erregearen etxeko tesoroak, eta guztia eraman zuen berarekin, baita Salomonek egin zituen urrezko ezkututxoak ere.

10. Beren lekuan egin zituen erregeak bronzekoak, eta eman ziezten, jauregiko ataria zaitzen zuten ezkutarién agintariari.

11. Eta erregea sartzen zanean Jaunaren etxean, etortzen ziran ezkutariak, eta artzen zituzten, eta gero biurtzen zituzten beren armategira.

12. Baña humillatu ziralako, Jaunak aldeerazi zion beragandik bere aserrearri, eta etziran izan osotoro desegñiak, zeren Judan ere arkitu ziran obra onak.

13. Sendotu zan bada Roboam erregea Jerusalemén, eta erreñatu zuen. Berrogeita bat urte zituen erreñatzen asi zanean, eta amazapi urtean erreñatu zuen Jerusalemén, Israelko tribu guztien artean Jaunak autu zuen erria, jartzeko an bere izena: eta bere amaren izena zan Naama Amontarra.

14. Baña gaizkia egin zuen, eta etzuen prestatu bere biotza Jauna billatzeko.

15. Eta Roboamen egiteak, lenbizikoak, eta atzenekoak eskribatuak daude Semeias profetaren, eta Addo profetaren liburuetan, zeñak adirazten dituzten txit zearo. Roboam eta Jeroboam beti egon ziran elkarrekin gerran.

16. Eta joan zan Roboam bere gurasoakin atsedetera, eta obiatu zuten Dabiden errian. Eta Abia bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Jeroboamek erreñatzen zuenetik emezortzigarren urtean, erreñatu zuen Abiak Judaren gañean.

2. Iru urtean erreñatu zuen Jerusalemén, eta bere amaren izena zan Mikaia, Uriel Gabaakoaren alaba, eta gerran zeuden Abia eta Jeroboam.

3. Aterarik bada Abia gudatzera lareun milla gizon autu, eta sendorekin, Jeroboamek bere aldetik prestatu zituen zortzireun milla gizon, zeñak ere ziran autuak, eta indar andikoak gudarako.

4. Gelditu zan bada Abias Semerongo mendiaren gañean, zeñ, zegoan Efraimen, eta esan zuen: Aditu ezazu zuk, Jeroboam, eta Israel guztia.

5. Ez al dakizute, Israelko Jaun Jainkoak eman ziola betiko Israelko erreñua Dabidi, eta bere semeai betiko elkartasunarekin?

6. Eta Jeroboam Nabathen semea, Salomon Dabiden semearen mendekoa, jaiki zan, eta jarri bere jaunaren kontra.



7. Eta berarekin bildu zirala, zentzuaren piskarik gabeko gizon batzuek, eta Belialen semeak, eta garaitu zutela Roboam Salomonen semea, Roboamek etzekielako ezer, eta zalako beldurtia, eta ezin arpegi eman zitzaielako?

8. Eta orain zuek esaten dezute, badaukazutela indarra Jaunaren erreñuari gogor egiteko, zeñaen jabea dan bera, Dabiden semeen bitartez; eta daukazute jende talde txit andi bat, eta Jeroboamek egin dizkizuten urrezko txalak, zuen jainkoak izan ditezen;

9. Eta bota dituzute Jaunaren apaiz, Aaronen semeak, eta Lebitak, eta egin dituzute beste apaiz batzuek, urreko beste errien gisara, etortzen dan edozeñ, eta konsagratzen duena bere eskua iltzen dituela idisko bat, eta zazpi txikiro, gelditzen da, jainko ez diran aien apaiz egirik.

10. Baña gure Jauna da Jaungoikoa, zeñ ez degun guk utzi, eta Aaronen jatorriko apaizak dira, Jauna serbitzen dutenak, baitaere Lebitak beren lanetan;

11. Eta eskeñtzen diozkate holokaustoak Jaunari egun guztietan goiz eta arratsalde, eta lurrinkai, prestatuak legean aginduaren araura, eta ipintzen dira ogiak, mai txit garbi baten gañean, eta guk dauzkagu urrezko kandeleroa, eta bere metxeroak, zeñak erazekitzen diran beti arratsaldetan, zeren guk gordetzen ditugu gure Jaun Jainkoaren aginteak, zeñ zuek utzi dezuten.

12. Eta ala gure ejerzituaren Gidaria da Jaungoikoa, eta bere apaizak dira tronpetak jotzen dituztenak, eta ots eginerazitzen diete zuen kontra. Israelko semeak, etzaitte gudatu, zuen gurasoen Jaun Jainkoaren kontra, zeren ez dijoakizute ongi.

13. Zegoala bera itz oiek esaten, Jeroboamek jartzen ziozkan zelatadak ostetik. Eta etsaien aurretik alderik egin gabe, zijoan ingurutuaz bere ejerzituarekin Juda, zeñ etzan oartzen.

14. Zeñak begiraturik, ikusi zuen bere gañean zeukala gerra aurretik, eta ostetik, eta deadarrez ots egin zion Jaunari: eta apaizak asi ziran tronpetak jotzen.

15. Eta Judako guztiak asi ziran deadar andiak egiten, eta ona non, berak deadarrez ari ziranean, Jaungoikoak izutu zuen Jeroboam, eta Abiaren eta Judaren aurkez zegoan Israel guztia.

16. Eta Israelko semeak iges egin zuten Judagandik, eta Jaunak jarri zituen bere eskuan.

17. Abiak bada, eta bere jendeak egin zuten beretan galmen andi bat: eta Israelen aldetik il ziran zaurituta bosteun milla gizon sendo.

18. Eta Israelko semeak izan ziran humillatuak denbora artan, eta Judako semeak txit alaitu ziran, itxedon zutelako beren gurasoen Jaun Jaungoikoagan.

19. Eta Abiak jarraitu zion Jeroboam, igesi zijoanari, eta artu ziozkan erri asko, Bethel bere erritxoakin, eta Jesana bereakin, eta Efron ere bereakin.

20. Eta Jeroboamek ezin izan zuen berriz gogor egin, Abiaren egunetan: eta Jaunak zauritu zuen, eta il zan.

21. Sendotu zanean Abia bere tronuan, artu zituen amalau emazte: eta izan zituen ogeita bi seme, eta amasei alaba.

22. Abiaren gañerako egiteak, eta bere biziera, eta bere obrak, eskribatuak daude doi doi Addo profetaren liburuan.

AMALUGARREN KAPITULUA

1. Irago zan atzanean Abia atsedetera bere gurasoakin, eta obiatua izan zan Dabiden errian, eta Asa bere semeak erreñatu zuen bere lekuan, zeñaen denboran izan zan pakea lurrean amar urtean.

2. Eta Asak egin zuen bere Jaungoikoaren begietan ona, eta gogokoa zana, eta beera bota zituen elizkizun arrotzeko aldareak, eta goiak,

3. Eta autsi zituen talluak, eta arrasatu basoak,

4. Eta agindu zion Judari, billatu zezala bere gurasoen Jaun Jainkoa, eta gorde zitzala legea, eta aginte guztiak.

5. Eta kendu zituen Judako erri guztietatik aldareak eta elizak; eta erreñatu zuen pakean.

6. Berriztu ere zituen erri sendo guztiak Judan, zeren pakean zegoan, eta etzan izan gerrarik batere bere denboran, ematen ziola Jaunak pakea.

7. Eta esan zion Judari: Berriztu ditzagun erri oiek, eta murriz ingurutu ditzagun, eta sendotu ditzagun dorreakin, eta atearin, eta esiak, orain alde guztietatik gerrarik gabe gaudenean, billatu degulako gure gurasoen Jaun Jainkoa, eta berak inguru guztietatik pakea eman digulako. Ekin zioten bada lanari, berak berriz egiteko eragozketarik batere arkitu gabe, eta bukatu zituzten.

8. Eta Asak bere ejerzitan iduki zituen irureun milla Judako, ezkutuz eta pikaz armatuak, eta berreun eta larogei milla Benjamingo ezkutari eta saietariak, oiek guztiak gizon txit alaiak.

9. Eta oien kontra atera zan gudara Zara Etiopiako erregea bere ejerzitu, milloi bat gizonarekin, eta irureun gurdirekin: eta Maresaraño allegatu zan.



10. Eta Asa bidera irten zizaion, eta bere ejerzitua gudarako gertutu zuen Sefatako ibarrean, zeñ dagoan Maresaren aldean.

11. Eta ots egin zion Jaun Jainkoari, eta esan zuen: Jauna, zuretzat berdin da laguntasuna ematea gutxiren, zeñ askoren bitartez: lagundu zaguzu, gure Jaun Jainkoa, zeren zugar eta zure izenian itxedopena idukirik, etorri gera jende talde onen kontra. Jauna, gure Jaungoikoa zu zera, gizonak zure kontra ez beza geiago egin.

12. Eta onekin Jaunak izutu zituen Etiopiarrek Asaren eta Judaren aurrean, eta Etiopiarrek iges egin zuten.

13. Eta Asa eta berarekin zegoan jendeak jarraitu zitzaizen Jerararaño, eta Etiopiarrek izan ziran desegiñak, gizonik bizirik gelditu gabe, izanik Jaunak zatituak, zeñak zauritzen zituen, eta bere ejerzituak, zeñ gudan ari zan. Arrapatu ziozkaten bada ondasun andiak.

14. Eta Jerararen inguruko erreñu guztiak desegin zituzten, zeren guztiak txit izutu ziran, eta artu zuten errietan zegoana, eta eraman zuten gauza txit asko.

15. Eta berebat desegiñik arditegiak, eraman zuten abere, eta gamelu talde neurri gabeko bat.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Orduan Azarias Obeden semea, Jaungoikoaren espirituak mugiturik,

2. Joan zan bidera irtetzera Asari, eta esan zion: Aditu nazazute zuk, o Asa, eta Juda eta Benjamingo erri guztiak. Jauna egon da zuekin, zuek berarekin egon zeratelako. Baldin zuek billatzen badezute, arkituko dezute, baña baldin utziten badezute, utziko zaituzte.

3. Israelek denbora andia iragoko du Jaungoiko egiazko gabe, apaiz gabe, erakusle gabe, eta lege gabe.

4. Eta beren atsekabearen erdian biurtzen diranean Israelko Jaun Jainkoagana, eta billatzen dutenean, arkituko dute.

5. Denbora artan ez da pakarik izango irtetzen danarentzat, ez sartzan danarentzat, baizik izuak alde guztietatik lurrean bizi diran guztietan,

6. Zeren erreñu bat jaikiko da beste baten kontra, eta erri bat beste baten kontra, bada Jaunak idukiko ditu atsedetik gabe, eta atsekabe mota guztietan.

7. Argatik zuek alaitu zaitetzte, eta zuen eskuak ez bediz lasaitu, artuko dezuten ezkeru zuen lanen ordaña.

8. Aditurik Asak, Azarias Obeden seme profetaren itzak, eta profetia, alaitu zan, eta kendu zituen, Juda eta Benjaminen erri guztietako ido-

loak, eta Efraimgo mendian artu zituen errietakoak, eta konsagratu zuen, Jaunaren atariaren aurrean zegoan Jaunaren aldarea.

9. Eta bildu zuen Juda eta Benjamin guztia, eta berakin Efraimgo, eta Manasesko, eta Simeongo arrotzak; zeren Israelko asko irago ziran beragana, ikusirik bere Jaun Jainkoa berarekin zegoala.

10. Eta etorrikerik Jerusalemenera irugarren illean, Asak erreñatzen zuenetik amabosgarren urtean,

11. Eskeñi ziozkaten egun artan Jaunari zazpireun idi, eta zazpi milla txikiro, ekarri zituzten gauza arrapatuetatik.

12. Eta sartu zan, oi bezela, berriz ontzat ematera elkartasuna, beren gurasoen Jaun Jainkoa, beren biotz guztitik, eta beren anima guztitik billatuko zutela.

13. Baldin norbaitek, esan zuen, ez balio jarraituko Israelko Jaun Jainkoari, illa izan bedi dana dalakoa, naiz txikia, naiz andia, gizasemea, edo emakumea.

14. Eta juramentu egin zioten Jaunari boz altuan eta pozarren, eta tronpeten eta klarimen otsera,

15. Judan zeuden guztiak birauakin, bada juramentu au beren biotz guztitik egin zuten, eta borondate osoarekin Jauna billatu zuten, eta ala arkitu zuten, eta Jaunak emanda, inguruan pakea iduki zuten.

16. Kendu ere zion erregeak bere ama Maakari, zeukan erregearen eskubidia, baso batean Priaporen idoloa jarri zuelako; zeñ Asak autsi zuen, egiten zuela milla zati, eta Zedrongo errekan erre zuen.

17. Alaere Israelen toki altuak gelditu ziran: baña Asaren biotza bere egun guztietan on osoa izan zan.

18. Eta bere aitak eta hurak berak botoz eskeñi zutena, Jaunaren elizara eraman zuen, zillarra eta urrea, eta ontzi mota asko.

19. Eta Asak erreñatzen zuenetik ogeita amabosgarren urteraño, gerrarik etzan izan.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Baña Asak erreñatzen zuenetik ogeita amaseigarren urtean, Baasa Israelko erregea sartu zan Judako lurrean, eta asi zan sendotutzen Rama, Asaren erreñuko batere sartu, ez irten etzedin bere aukeran.

2. Orduan Asak atera zuen Jaunaren etxeko tesoroetatik, eta erregearen tesoroetatik zillarra eta urrea, eta bialdu ziozkan Benadab Siriako errege, Damaskon bizi zanari, esaten zuela:

3. Zure eta nere artean elkartasuna dago, eta nere aita eta zure aita adiskideak izan ziran. Argatik bialdu dizut zillarra eta urrea, urratirik



Baasa Israelko erregearekin egiña dezun elkartasuna, joanerazi dizaiozun nere erritik.

4. Onenbesterekin Benadabek bialdu zituen bere ejerzituko agintariak Israelko errietara, zeñak desegin zituzten Ahion, eta Dan, eta Abelmaim, eta Neftaliko erri murrutu guztiak.

5. Aditurik au Baasak, utzi zion Rama sendotzeari, eta gelditu zan lana bukatu gabe.

6. Eta Asa erregeak artu zuen berarekin Judako jende guztia, eta eraman zituzten Ramatik, Baasak Rama egiteko bildu zituen arri, eta zur guztiak, eta berakin Gabaa eta Masfa sendotu zituen.

7. Denbora artan Hanani profeta jarri zitzaion aurrean Asa Judako erregeari, eta esan zion: ipiñi dezulako zure itxedopena Siriako erregeagan, eta ez zure Jaun Jaungoikoagan, argatik Siriako erregearen ejerzituak iges egin du zure eskuetatik.

8. Etiopiakoak eta Libiakoak ez al ziran asko geiago gurdietan, zaldidian, eta jende talde ain andietan; eta alaere ez al zituen jarri Jaunak zure eskuetan, zure itxedopena beragan jarri zenduelako?

9. Zeren Jaunaren begiak, lur guztiari begira daude, eta indarra ematen die, biotz osoarekin beragan sinistzen dutenai. Eta ala, bidegabero portatu zera; eta argatik emendik aurrera, zure kontra gerrak jaikiko dira.

10. Eta aserreturik Asa profetaren kontra, zepo batean au sartzeko agindu zuen, zeren sutu zan gauza augatik, eta denbora artan, erriko txit asko il zituen.

11. Asaren egiteak berriz, asieratik atzenerañoakoak, eskribatuak daude Juda eta Israelko erregeen liburuan.

12. Eritu zan gero Asa, erreñatzen asi zanetik ogeita amabosgarren urtean; bere gaitza zan oñetako miñ txit bizi bat, eta bere gaitzean ere etzuen Jauna billatu, baizik itxedon zuen geiago sendatzallean jakindurian.

13. Joan zan bada atsedetera bere gurasoakin, eta il zan berak erreñatzen zuenetik berrogeibatgarren urtean.

14. Eta lurpetu zuten, beretzat idikitzeke agindu zuen obian, Dabiden errian, eta jarri zuten bere oe, aromaz eta okendurik ederren, lurrin-kaigilleak artez prestatutakoz beteriko baten gañean, eta erre zituzten bere gañean ospe geiegirekin.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta Josafat bere semeak erreñatu zuen bere lekuan, eta Israelen kontra beti geiago izan zan.

2. Eta murriz ingurutuak zeuden Judako erri guztietarako, izentatu zuen onenbeste, edo arenbeste soldadu. Eta ipiñi zituen egotez soldadu taldeak Judako lurrean, eta bere aita Asak artu zituen Efraimgo errietan.

3. Eta Jauna egon zan Josafatekin, bere aita Dabiden lemdabiziko (sic) bideetatik ibilli zalako. Eta Baaletan etzuen itxedon,

4. Baizik bere aitaren Jaungoikoagan, eta ibilli zan bere aginduetako bideetatik, eta Israelko bekatuetatik alde egiten zuela.

5. Onenbesterekin Jaunak sendotu zuen bere erreñuaren jabetasunean, eta Juda guztiak Josafati doañak eskeñtzen ziozkan, alako moduan, non etorri zan idukitzera neurrigabeko ondasunak, eta izatera txit maitatua.

6. Eta irazekirik bere biotza Jaunaren legeak gordetzeko zeloa, kendu zituen Judako erritik, toki goietako adoralekuak, eta basoak ere.

7. Eta berak erreñatzen zuenetik irugarren urtean, bialdu zituen bere erreñuko andizkietatik Benhail, eta Obdias, eta Zakarias, eta Nathanael, eman zituzten erakutsiak Judako errietan.

8. Eta berakin batean Semeias, eta Nathanas, eta Zabadias, eta Asael, eta Semiramoth, eta Jonathan, eta Adonias, eta Thobias, eta Thobadonias, Lebitak; eta berakin Elisama eta Joran apaizak.

9. Eta ematen ziezten erakutsiak erriari Judan, eramaten zutela berakin Jaunaren legeko liburua, eta ingurututzen zituzten Judako erri guztiak, ematen ziezitela erakutsiak erriari.

10. Onenbesterekin Judaren inguruetan zeuden lurretako erreñu guztiak artu zioten beldur andi bat Jaunari, eta etziran atrebitzen Josafaten kontra gerra egiten.

11. Eta Filistintarrak ere Josafati eskuerakutsiak eramaten ziozkaten, eta zillar kotiz bat; eta Arabeak ere ekartzen ziozkaten abereak, zazpi milla eta zazpireun txikiro, eta beste anbete aket.

12. Josafat bada azi zan, eta bere anditasuna igo zan txit goira, eta egin zituen Judan etxeak dorreen gisara, eta erri murrutuak.

13. Eta egin zituen beste obra asko Judako errietan, bazeuzkan ere Jerusalem gizon gerrari eta sendoak,

14. Zeñaen zenbata bakoitzaren etxe eta familietatik, zan onela, Judan ejerzituaren agintariak ziran, Ednas agintaria, zeñak zeuzkan bere agindura irureun milla gizon txit bulardetsu.

15. Onen ondoren Johanan agintaria, zeñak zeuzkan bere mendean berreun eta larogei milla gizon.

16. Gero zetorren Amasias Zekriren semea, Jaunari konsagratua, zeñak agintzen zien berreun milla gizon errutsuri.



17. Oni zerraikion Eliada alai eta gerrariak, zeñak zeuzkan bere agin-dura berreun milla, uztaz eta ezkutuz armatuak.

18. Eta onen ondoren Jozabad, eta bere agindura eun eta larogei mila soldadu ibiltari.

19. Oiek guztiak zeuden gertuak erregearen agindura; erri murrutuetan eta Juda guztian ipiñi zituenak kontatu gabe.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Josafat bada guztiz aberatsa izan zan, eta ospe andikoa, eta Akabekin aidetasuna artu zuen.

2. Eta urte batzuek iragota jatxi zan beragana Samariara, zeñaen etorreran illerazi zituen Akabek txikiro eta idi txit asko beretzat, eta berarekin joan zan jendearentzat, eta arrazoiak ipiñi ziozkan Ramoth Galaadkora igotzeko.

3. Eta Akab Israelko erregeak, Josafat Judako erregeari esan zion: Atoz nerekin Ramoth Galaadkora. Zeñi erantzun zion Josafatek: Zu eta ni gauza bat bata gera; eta gauza bat bata zure erria eta nereia; eta ala zurekin gerrara joango gera.

4. Eta Josafatek Israelko erregeari esan zion: Erregututzen dizut arren konsultatu zaitezela orain, zer esaten duen Jaunak.

5. Israelko erregeak bada lareun profeta bildu zituen, eta esan zien: Atera bear ote gera Ramoth Galaadkoaren kontra gerra egitera, ala geldirik egon bear ote gera? Eta berak erantzun zioten: Atera zaite, eta Jaungoikoak erregearen eskuetan jarriko du.

6. Eta Josafatek esan zuen: Zer bada, ez al da emen Jaunaren profetik, ari ere galdetu dizaiogun?

7. Eta Israelko erregeak Josafati erantzun zion: Bada emen gizon bat, zeñaen bitartez ezagutu genzakean Jaunaren borondatea, baña ni gorroto natzaio, zeren beñere gauza onik ez dit profetizatzen, baizik beti gaiztoak. Au Mikeas Jemlaren semea da. Eta Josafatek esan zion: Ez ezazu, o errege, orrela itz egin.

8. Israelko erregeak bada ots egin zion txikiratu bati, eta esan zion: Mikeas Jemlaren semeari bereala otsegin zaiok.

9. Eta Israelko erregea eta Josafat Judako erregea, bakoitza bere tronuan errege jantziakin zeuden eseriak, eta larrañean, Samariako atearen aldean zeuden eseriak, eta profeta guztiak beren aurrean profetizatzen ari ziran.

10. Sedezias Kanaanaren semeak berriz burnizko adar batzuek egin zituen, eta esan zuen: Oiek esaten ditu Jaunak: Oiekin Siria aizetuko dezu, desegin dezazun bitartean.

11. Eta profeta guztiak era berean profetizatzen zuten, eta esaten zuten: Ramoth Galaadkora igo zaite, eta txit ongi irtengo zera; Jaunak erregearen eskuan jarriko du.

12. Argatik Mikeasi ots egitera joan zan mandatariak, berari lendaraz esan zion: Begiratu ezazu, profeta guztiak ao batez gertakari doatsuak erregeari adirazten dieztela. Argatik erregututzen dizut, zure izkuntza aien erakoa izan dedilla, eta etorkizun onak adirazi ditzatzula.

13. Zeñi Mikeasek erantzun zion: Jauna bizi dan bezela diot, Jaungoikoak esaten didan guztia, hura esango det.

14. Allegatu zan bada erregeagana; eta erregeak esan zion: Mikeas, Ramoth Galaadkoaren kontra gudatzera atera bear ote gera, ala geldirik egon? Mikeasek erantzun zion: Zoazte; zeren guztia txit ongi gertatuko zazute, eta etsaiak zuen eskuetan jarriak izango dirade.

15. Eta esan zuen erregeak: Berriz, eta berriz Jaunaren izenean esaten dizut, arren egia baizik ez dizadazula esan.

16. Berak orduan esan zuen: Ikusi det Israel guztia mendietatik banatua, artzai gabeko ardiak bezela, eta esan du Jaunak: Oiek nork agindurik ez dute, bakoitza bere etxera pakean itzuli dedilla.

17. Eta Israelko erregeak Josafati esan zion: Ez al nizun nik esan, onek gauza onik ez zidala adiraziko, baizik bakarrik zorigaitzak?

18. Eta Mikeasek orduan esan zuen: Aditu ezazute bada Jaunaren itza. Ikusi nuen Jauna bere tronuan eseria, eta zeruko aingeru talde guztiak zeudela berari laguntzen ezker eskuetik.

19. Eta Jaunak esan zuen: Zeñek engañatuko du Akab Israelko erregea, atera dedin gudatzera eta galdu dedin Ramoth Galaadkoan? Eta esanik batak gauza bat, besteak beste bat,

20. Aurreratu zan espiritu bat, eta jarririk Jaunaren aurrean, esan zuen: Nik engañatuko det. Esan zion Jaunak oni: Nola engañatuko dezu?

21. Eta berak erantzun zuen: Aterako naiz, eta izango naiz gezurraren espiritua bere profeta guztien aoran. Eta Jaunak esan zion: Engañatuko dezu, eta zurearekin irtengo zera. Atera zaite, eta ala egin ezazu.

22. Begira bada, nola Jaunak jarri duen orain gezurraren espiritua, zure profeta guztien aoran, eta Jaunak berak adirazi ditu zuri etorriko zazkizun gaitzak.



23. Eta Sedezias Kanaanaren semea alderatu zan, eta Mikeasi masa-
lleko bat eman zion, eta esan zuen: Zeñ bidetatik irago dek nigandik Jau-
naren Espiritua, iri itz egiteko?

24. Eta Mikeasek esan zion: Zerorrek ikusiko dezu egun artan,
zeñean joango zeran igesi gelatik gelara ezkutatzeko.

25. Baña Israelko erregeak agindu zuen, esaten zuela: Arrapatu eza-
zute Mikeas, eta eraman zaiezute Amon erriko gobernariari, eta Joas
Amelek-en semeari,

26. Eta esango diezute: Au da erregeak agintzen duena: sartu ezazu-
te presondegian, eta eman zaiozute ogi piska bat, eta ur piska bat, nire
itzuliera doatsurartean.

27. Eta Mikeasek esan zuen: Doatsua baldin bada zure itzuliera, ez
da egia izango Jaunak nire aoz itz egin duela. Eta gañera esan zuen: Erri
guztiak aditu ezazute.

28. Alaere Israelko erregea, eta Josafat Judako erregea joan ziran
Ramoht Galaadkoaren kontra.

29. Eta Israelko erregeak Josafati esan zion: Nik aldatuko ditut soñe-
koak, eta ala sartuko naiz gudan; zuk berriz eraman itzatzu zure jantziak.
Eta Israelko erregea aldaturik soñekoak gudan sartu zan.

30. Eta Siriako erregeak agindu zien bere zaldidiko agintariari, esaten
ziela: Etzaitzete gudatu txikiren kontra, ez andiren kontra, baizik bakarrik
Israelko erregearen kontra.

31. Eta ala zaldidiaren agintariak, Josafat ikusi zutenean, esaten
zuten: Israelko erregea au da. Eta ingurutu zuten, erasotzen ziotela bera-
ri, baña berak deadarrez ots egin zion Jaunari, zeñak lagundu zion, eta
alde erazi zien beragandik.

32. Zeren zaldidiaren agintariak ikusirik, Israelko erregea etzala, utzi
zioten.

33. Baña gertatu zan tropako batek menturara botatzea saieta bat, eta
zauritu zuen Israelko erregea lepoaren eta sorbalden artean. Orduan
berak bere kotxeruari esan zion: itzuli zaite atzerontz, eta gudatik atera
nazazu, zeren zauritua nago.

34. Eta egun artan guda bukatu zan, eta Israelko erregea egon zan
gurdian Siroarren aurkez arratsalderaño, eta eguzkiaren sarreran il zan.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta Josafat Judako erregea pakean itzuli zan bere etxera Jerusale-
nera.

2. Zeñi Jehu profeta, Hananiren semeak bidera irten zitzaion, eta
esan zion: Zuk gaizto bati laguntasuna ematen diozu, eta Jaunari gorroto
diotenakin adiskidetutzen zera. Argatik ziertoro Jaunaren aserrearen diña
ziñan,

3. Baña zugar obra onak arkitu dira, Judako lurretik basoak kendu
zinduelako, eta zure biotza prestatu zinduelako zure gurasoen Jaun Jain-
koa billatzeko.

4. Josafat bada Jerusalem bizi izan zan, eta irten zan berriz, bere
erria bisitatzera, Bersabeetik Efraimgo mendiraño, eta ekarri zituen beren
gurasoen Jaun Jainkoagana.

5. Gañera Judako erri sendo guztietan, eta toki guztietan juezak jarri
zituen.

6. Eta juezai bere aginteak ematen ziezuela, begiratu ezazute, esan
zien, zer egiten dezuten, zeren zuen lana ez da gizon batena, baizik Jaun-
goikoarena, eta juzgatzen dezuten guztia, zuen gañera itzuliko da.

7. Jaunaren beldurra zuekin egon bedi, eta arretarekin gauza guztiak
egin itzatzute, zeren gure Jaun Jainkoagan ez da arkitzen bidegabeko gau-
zarik, ez iñorganako etsigitasunik, ez doañen gutziarik.

8. Jarri ere zituen Josafatek Jerusalem lebitak, eta apaizak, eta
Israelko familien prinzipeak, bertan bizi ziradenai justizia egin zizaieten,
eta juzgatu zituzten Jaunaren gauzak.

9. Eta agindu zien, esaten zuela: Leialtasunarekin eta biotz onarekin
Jaunaren beldurrean portatu bear zerate.

10. Zuekgana datorren edozeñ auzitan, beren errietan bizi diran
familiaren eta familiaren artean, baldin bada legearen gañean, aginduen
gañean, zeremonien gañean, eta erabakien gañean; argitu zaiezute, Jauna-
ren kontra bekatu egin ez dezaten, eta zuen gañera eta zuen anaien gañe-
ra bere aserrea etorri ez dedin.

11. Eta Amarias zuen apaiz eta pontifizea izango da buru, Jaungoi-
koari dagozkion gauzetan, eta Zabadias Ismahelen seme, Judako etxe-
ko gudaria dana, izango da erregearen serbizoari dagozkion gauza guztietan,
eta zuen artean daukazute erakuletzat lebitak: alai bada, eta izan ardura-
tsuak, eta Jaunak onez beteko zaituzte.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Gauza oien ondoren Moaben semeak, eta Ammonen semeak, eta
berakin Ammontar batzuek bildu ziran Josafaten kontra, bere kontra
gudatzeko.



2. Eta mandatariak etorri ziran, eta gaztigatu zuten Josafat, esaten ziotela: Zure kontra dator jende talde andi bat, itsasoaren beste aldetik dauden tokietatik, eta Siriatic, eta begira, etzauntzak jarri dituztela, eta gelditu dirala Asasonthamarren, zeñ dan Engaddi.

3. Josafatek orduan izu ikaraz beterik, bere gogo guztia jarri zuen Jaunari erregututzean, eta agindu zuen Judako erri guztiak barau bat egin zezala.

4. Eta bildu zan Juda Jaunari laguntasuna eskatzeko, eta jende guztia zetorren beren errietatik beren erreguak eskeñtzeraz.

5. Eta jarririk zutik Josafat Judako, eta Jerusalemgo batzarrearen erdian, Jaunaren etxean, atari berriaren aurrean,

6. Esan zuen: Gure gurasoen Jaun Jainkoa, zu zera zeruko Jainkoa, eta lurreko erreñu guztien jabea, zure eskuan daude indarra eta eskubidea, eta iñork ezin gogor egin lezakezu.

7. Zuk, gure Jaungoikoa, ez al ziñituen illerazi, erri onetan bizi ziran guztiak Israel zure erriaren aurrean, eta ez al ziñion betiko eman Abraham zure adiskidearen jatorriari?

8. Eta emen bizi izan dira, eta bertan zure izenari Eliza bat egin diote, esaten dutela:

9. Etorriko balira gure gañera gaitzak, ezpata bengatzallea, edo izurritea, edo gosetea, jarriko gera zure aurrean etxe onetan, zeñean ots egin zaion zure izenari, eta deadarrez ots egingo dizugu gure atsekabetan, eta zuk adituko gaituzu, eta salbatuko gaituzu.

10. Orain bada, begiratu ezazu nola datozen Ammonen semeak, eta Moabkoak, eta Seirko mendikoak, zeñaen lurretatik etziñien utzi iragotzen Israeltarri, baizik beretatik alde egin zuten, eta etzituzten il.

11. Berak kontrara egiten dute, eta egiten dituzte alegin guztiak, botatzeko gu erri batetik, zeñaen jabetasuna eman ziñigun.

12. O gure Jaungoikoa, eta zuk ez al dituzu kastigatuko jende oiek? Gugan ziertoro ez dago bear degun indarririk, gogor egiteko, erasotzen digun jende talde andi orri. Baña nola ez dakigun zer egin bear degun, ez zagu gelditzen beste biderik, gure begiak zugana zuzentzea baizik.

13. Eta Juda guztia zutik zegoan Jaunaren aurrean, beren aur, eta emazte, eta beren semeakin.

14. Eta arkitzen zan an Jahaziel Zakariasen semea, Banaiasen semea, Jehielen semea, Mataniasen semea, Asafen semeetatiko lebita, zeñaren gañera etorri zan Jaunaren Espiritua jende taldearen erdian,

15. Eta esan zuen: Aditu ezazute Judako guztiak, eta Jerusalemen bizi zeratenak, eta zuk, o Josafat erregea. Oiek esaten ditu Jaunak: Etzaitezte

beldur izan, ez koldartu jende talde andi ori ikusiagatik, zeren guda ez da zuena, Jaungoikoarena baizik.

16. Biar jatxiko zerate beren kontra, zeren Sis deritzan aldapatik igoko dira, eta arkituko dituzute, Jeruelko eremuaren aurkez dagoan erre-karen ertzean.

17. Etzerate zuek izango gudatuko zeratenak, baizik bakarrik, zaude te sendo itxedopenarekin, eta Jaunaren laguntasuna zuen gañean ikusiko dezute, o Juda, eta Jerusalem: etzaitezte beldur izan, ez koldartu. Biar beren kontra aterako zerate, eta Jauna zuekin egongo da.

18. Josafat bada eta Juda, eta Jerusalemen bizi ziran guztiak auzpeztu ziran arpegiakin lurra jotzeraño Jaunaren aurrean, eta adoratu zuten.

19. Eta Kaathen semeen eta Koreren semeen lebitak, alabaten zuten Israelko Jaun Jainkoa zeruraño bozakina.

20. Eta jaikitzen ziradela goizean, Thekueko eremutik atera ziran, eta bidean jarri ziraretik laster, zutik zegoala Josafat beren erdian, esan zuen: Aditu nazazute, o Judako gizonak, eta Jerusalemen bizi zeraten guztiak. Zuen Jaun Jainkoagan itxedon ezazute, eta seguru egongo zerate. Bere profetai sinistu zaiezute, eta guztia ongi etorriko zazute.

21. Eta erakutsiak erriari eman ziozkan, eta Jaunaren kantariak izentatu zituen, taldeetan jarrita bere alabantzak kantatu zituzten, eta ejerzitua aurretik zijoala, guztiak batera esan zezaten: Alabatu ezazute Jauna, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

22. Eta alabanza oiek kantatzen asi ziraretik laster, Jaunak itzuli zituen beren zelatadak beren kontra, au da, Ammonen, eta Moabkoen, eta Seirko mendiko semeen kontra, zeñak etorri ziran Judaren kontra gudatzera, eta desegiañak izan ziran.

23. Zeren Ammonen, eta Moabko semeak jaiki ziran Seirko mendian bizi ziranen kontra, il, eta akabatzeko. Eta au eginik, biurturik gero armak beren kontra, elkar zauritu eta il zuten.

24. Judakoak, allegatu ziraneke eremua agiri dan alturara, ikusi zuten urrutitikan kanpo zabal guzti hura gorputz illez betea, eta batek bakarrak ere etzuela ilkintzatik igesik egin.

25. Josafat bada bere ejerzitu guztiarekin, illen gauzak artzera allegatu zan; eta gorputz illen artean arkitu zituzten alaja asko, eta soñekoak, eta ontzi balio txit andikoak, eta artu zituzten; alako moduan, non, ezin guztia eraman zuten, ez iru egunean bildu gauzak, ain asko ziradelako.

26. Eta laugarren egunean Bendizioko Ibarren bildu ziran, zeren Jauna an bedeikatu zutelako, toki ari gaurko eguneraño, Bendizioko Ibarra deitu zioten.



27. Eta Judako guztiak, eta Jerusalem bizi ziranak, eta Josafat beren aurrean, poz andiarekin Jerusalem itzuli ziran, Jaunaren laguntasunarekin beren etsaietatik garai atera ziradelako.

28. Eta Jerusalemen sartu ziran salterioakin, eta zitarakin, eta tronpetakin Jaunaren etxean.

29. Eta Jaunaren izua inguruetakoa erreñu guztien gañera erori zan, aditu zutenean Israelko etsaien kontra Jauna gudatu zala.

30. Eta Josafaten erreñua atsedenean gelditu zan, eta Jaungoikoak inguruetan pakea eman zion.

31. Josafatek bada Judaren gañean erreñatu zuen, eta ogeita amabost urte zituen erreñatzen asi zanean, eta ogeita bost urtean Jerusalem erreñatu zuen, eta bere amaren izena zan Azuba Selahiren alaba.

32. Eta Asa bere aitaren bidetik ibilli zan, eta etzuen beratetik alderik egin, egiten zuela Jaunaren aurrean bere gogoko zana.

33. Baña goiak etzituen kendu, eta erriak oraindik etzuen bere biotza zuzendu gurasoen Jaun Jainkoagana.

34. Josafaten gañerako egiteak asieratik atzeneraño daude eskribatuak Jehu Hananiren semearen liburuan, zeñak jarri zituen Israelko erregeen liburuan.

35. Gauza oien ondoren Josafat Judako erregea adiskidetu zan Okozias Israelko erregearekin, zeñaen obrak txit gaiztoak ziran.

36. Eta elkartu zan berakin egiteko ontzi, Tharsisera joango ziranak, eta egin zuten gerrako ontzidi bat Asion-gaborren.

37. Baña Eliezer, Dodau Maresakoaren semeak profetizatu zion Josafati, esaten zuela: Okoziasekin elkartu zeralako, Jaunak desegin ditu zure obrak, eta ontziak zatituak izan ziran, eta Tharsisera ezin joan izan ziran.

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Eta Josafat joan zan bere gurasoekin atsedetera, eta izan zan obiatua berakin Dabiden errian, eta bere seme Joramek erreñatu zuen bere lekuan.

2. Eta bere anaiak, Josafaten semeak, izan ziran Azarias, eta Jehiel, eta Zakarias, eta Azarias, eta Mikael, eta Safatias. Oiek guztiak Josafat Judako erregearen semeak.

3. Eta bere aitak eman zien urre eta zillar txit asko, eta gauza balio txit andikoak, eta erri, ongi sendotuak Judan; baña erreñua Jorami eman zion, lenbizisortua zalako.

4. Egin zan bada Joram bere aitaren erreñuaren jabe, eta berean sendotu zanean, bere anaiak eta Israelko nagusienetatiko batzuek ezpataz irago zituen.

5. Ogeitabi urte zituen Joramek erreñatzen asi zanean, eta zortzi urtean Jerusalem agindu zuen.

6. Eta Israelko erregeen bideetatik ibilli zan, Akaben etxeak egin zuen bezela; zeren bere emaztea Akaben alaba zan, eta egin zuen gaizkia Jaunaren aurrean.

7. Eta Jaunak etzuen nai izan desegin Dabiden etxea, berarekin egin zuen elkartasunagatik; eta eskeñi zuelako itxiko ziela berari eta bere semeai lanpara bat, denbora guztian.

8. Egun aietan Idumea jaiki zan, etzuelako egon nai Judaren mendean, eta egin zuen errege bat beretzat.

9. Eta iragorik bertara Joram bere agintariakin, eta berarekin zeukan zaldidi guztiarekin, gauaz atera zan, eta desegin zituen Idumearrak, eta bere zaldidiko agintari guztiak, zeñak ingurutu zuten.

10. Alaere Idumeak gogor iraun zuen, Judaren mendean egon nai etzuela gaurko egunerako. Denbora artan Lobna ere berezitu zan, bere mendean egon nai etzuela, Joramek bere gurasoen Jaun Jainkoa utzi zuelako.

11. Gañera egin zituen adoratokiak Judako errietako leku goratuetan, eta idoloak adoratuerazi ziezten Jerusalem bizi ziranai, eta Judari fedea autsierazi.

12. Eta ekarria izan zitzaion Elias profetaren txartel bat, zeñean zegoan eskribatua: Zure aita Dabiden Jainkoak oiek esaten ditu: Etzeralako ibilli zure aita Josafaten bideetatik, ez Asa Judako erregearen bideetatik,

13. Baizik joan zeralako Israelko erregeen bidetik, eta Judari eta Jerusalem bizi diranai idoloak adoratuerazi dieztezulako, jarraiturik Akaben etxeko gaiztakeriari, gañera il dituzulako zure anaiak; zure aitaren jatorria, zeñak zu baño obeak ziran;

14. Jaunak azote ikaragarri batekin zaurituko zaituzte zu, eta zure semeak, eta emazteak, eta zure gauza guztiak.

15. Zuk berriz izango dezu zure sabelean gaitz bat ain gaiztoa, non, geldika geldika, egunetik egunera botaeraziko dizkizu erraiak.

16. Jaunak bada jarri zituen Joramen kontra Filistintarrak, eta Etiopiaren mugetako Arabeak.

17. Eta Judako lurrera igo ziran, eta arrasatu zuten, eta arrapatu zuten erregearen etxean arkitu zuten guztia, eta gañera bere seme eta emazteak



ere eraman zituzten, eta etzizaion beste semerik gelditu, baizik Joakaz, zeñ zan guztien artean gazteena.

18. Eta gañera Jaunak zauritu zuen, ezin sendatu zatekean gaitz batekin sabelean.

19. Onela eguna joan, eguna etorri, denbora joan denbora etorri, irago ziran bi urte; eta geldika geldika ezererezera bihurturik usteltasunarekin, bere erraiak botatzeraño, bere penak eta bizia batean bukatu zituen. Eta gaitz txit gaiztoarekin il zan, eta erriak etzion egin progua, oi bezela, lurrinkaiak erretzen ziozkala, bere asabakin egin zuen bezela.

20. Ogeita amabi urte zituen, asi zanean erreñatzen, eta zortzi urtean erreñatu zuen Jerusalem. Eta etzan zuzen ibilli, eta Dabiden errian obiatu zuten, baña ez erregeen obian.

OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Eta Jerusalem bizi ziranak jarri zuten erregetzat Okozias bere seme txikiena bere lekuan, zeren bera baño lenagoko, edade andiko guztiak izan ziran, Arabiako lapur, etzauntzetan sartu ziranak illak, eta Okozias, Joram Judako erregearen semeak erreñatu zuen.

2. Okoziazek erreñatzen asi zanean berrogeita bi urte zituen, eta urte batean erreñatu zuen Jerusalem, eta bere amaren izena zan Athalia Amrien alaba.

3. Eta onek ere Akaben etxeko bideai jarraitu zien, zeren bere amak eraman zuen gaitzera.

4. Egin zuen bada gaizkia Jaunaren aurrean, Akaben etxeak bezela, zeren etxe onetakoak ziran bere konsejariak bere aita il ezker, bere galmenerako.

5. Eta beren konsejuai jarraitu zien. Eta Joram, Akab Israelko erregearen semearekin atera zan gerrara Hazael Siriako erregearen kontra Ramoth Galaadkoan, eta Siroarrak zauritu zuten Joram.

6. Zeñ itzuli zan Jezrahelera sendatzera, zeren aitatu dan erasoan zauri asko artu zituen. Okozias bada, Joram Judako erregearen semea jatxi zan bisitatzera Joram Akaben semea, zeñ zegoan eririk Jezrahelen.

7. Zeren Jaungoikoaren, Okoziasen kontra aserretuaren, borondatea izan zan, au joatea Joram bisitatzera, eta allegatuta laster, atera zedilla berarekin, Jehu Namsiren semearen kontra, zeñ igortzi zuen Jaunak Akaben etxea arras desgiteko.

8. Eta Jehuk desegiten zuenean Akaben etxea, arkitu zituen Judako prinzipeak, eta Okoziasen anaien semeak, bere serbizoan zeudela, eta il zituen.

9. Eta ibilirik Okoziasen billa, zeñ zegoan Samarian ezkutatua, eldu zion, eta bere aurrera eramanerazirik, il zuen, eta obiatu zuten; Josafaten, bere biotz guztitik Jauna billatu zuenaren semea zalako. Eta etzan onezkerok gelditzen Okoziasen jatorrikoa erreñatu zezakean itxedopenik.

10. Zeren Athalia bere ama, ikusirik bere semea il zala, jaiki zan, eta Joram etxeko errege jatorri guztia il zuen.

11. Baña Josabeth erregearen alabak, artu zuen Joas Okoziasen semea, eta ostu zuen erregearen semeen erditik iltzen zituztenean, eta ezkutatu zuen bere inudearekin batean lotokiko egonlekuan. Eta Josabeth ezkutatu zuena, zan Joram erregearen alaba, Joiada apaiz nagusiaren emaztea, Okoziasen arreba, eta argatik Ataliak etzuen il.

12. Egon zan bada berakin ezkutatua Jaunaren etxean, Ataliak lurrean erreñatu zuen sei urteetan.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta zazpigarren urtean alaiturik Joiada, artu zituen berarekin zenturionak, au da, Azarias Jerohamen semea, eta Ismael Johananen semea, eta Azarias Obeden semea, eta Maasias Adaiaren semea, eta Elisafat Zekriren semea. Eta egin zuen berakin elkartasuna.

2. Zeñak inguruturik Juda, bildu zituzten Judako erri guztietako lebitak, eta Israelko familietako prinzipeak, eta etorri ziran Jerusalem.era.

3. Eta jende talde guzti onek Jaungoikoaren etxean erregearekin egin zuen elkartasuna, eta Joiadak esan zien: Ona emen erregearen seme erreñatuko duena, Jaunak Dabiden semeakgatik esan zuen bezela.

4. Au da bada zuek egin bear dezutena:

5. Zuetatik irugarren parte, asteko sartzen dana, apezak, lebitak, eta atezaia, egongo da ateetan, eta beste irugarren parte bat, erregearen etxean, eta beste irugarren parte Fundamentukoa deitzen zaion atean. Eta erriaren gañerako jende guztia, Jaunaren etxeko atarietan egongo da.

6. Eta ez da besterik batere Jaunaren etxean sartuko, serbizoan dauden apaiz eta lebitak baizik, oiek bakarrik sartuko dira, zeren santutuak daude: eta gañerako erri guztiak Jaunari bella egingo dio.

7. Lebitak berriz erregearen inguruan egongo dirade, bakoitzak bere armak dauzkala (eta baldin besterik elizan sartuko balitza, il:) eta erregeari lagundu bizaiote sartzen danean, edo ateratzen danean.

8. Lebitak bada eta Juda guztiak egin zuten, Joiada apaiz nagusiak eman ziezten aginteen araura, eta artu zituen bakoitzak bere agindura zeuzkanak, eta txandaz asteko sartzen ziranak, kunplitu zeukaten, eta



irten bear ziradenakin. Zeren Joiada apaiz nagusiak, etzuen utzi alde egin zezatela, aste guztietan batzuek irten, eta besteak sartzen ziran taldeak.

9. Eta Joiada apaizak eman ziezten zenturionai, Dabid erregearen lanzak, ezkutuak, eta errodelak, zeñak Jaunaren etxean konsagratu zituen.

10. Eta jarri zuen jende guztia puñalakin, elizaren eskuiko aldean, elizaren ezkerreko alderaño, aldarearen eta elizaren aurrean, erregearen inguruan.

11. Eta atera zuten erregearen semea, eta jarri ziozkaten buruan koroea, eta testimonioa, eta eman zioten legea, eskuan iduki zezan, eta jarri zuten erregetzat; eta Joiada apaiz nagusiak bere semeakin igortzi zuen, eta erregetzat ezagutuaz deadar egin zuten, esaten zutela: Bizi bedi erregea.

12. Aditurik au Ataliak, au da, korrika zijoazenen, eta deadarrez erregetzat ezagutzen zutenen arazoa, joan zan erriaren aurrera Jaunaren elizan;

13. Eta ikusirik sartu zanean, erregea zegoala tronuaen gañean, eta prinzipeak eta soldaduak ingurutzen zutela, eta lurreko erri guztia jostatzen, eta tronpetak jotzen, eta kantatzen soñu mota askoren otsean, eta erregetzat ezagutzen zutenen bozak, urratu zituen bere soñekoak, eta esan zuen: Saldukeria, saldukeria.

14. Baña Joiada apaiznagusiak ateratzen zala Zenturionak eta ejerztuko agintariak zeuden tokira, esan zien: Atera ezazute elizaren barrendik, eta an kanpoan ezpataz il ezazute. Eta apaiz nagusiak agindu zuen etzedilla izan illa Jaunaren etxean.

15. Eta eldu zioten lepotik, eta sartu zanean erregearen etxeko zaldien atetik, an il zuten.

16. Eta Joiadak egin zuen elkertasuna, bere, eta erri guztiaren, eta erregearen artean, Jaunaren erria izango zirala.

17. Onen ondoren erri guztia sartu zan Baalen etxean, eta desegin zuten, eta bere aldareak eta talluak zatitu zituzten, eta Matan Baalen apaiza ere il zuten aldareen aurrean.

18. Eta Joiadak izentatu zituen agintariak Jaunaren etxean, apaizen eta lebiten agindura egoteko, Dabidek Jaunaren etxean berezituta jarri zituen bezela, Jaunari holokaustoak eskeñi zizaiezteen, Moisesen legean eskribatuak dagoen bezela, pozarekin eta kantakin, Dabidek erabaki zuen bezela.

19. Berebat jarri zituen atezaiak Jaunaren etxeko ateetan, etzedin berean sartu, edozeñere gauzogatik kutsutua zegoena.

20. Eta bildurik berarekin zenturionak, eta soldadurik sendoenak, eta erriko prinzipeak, eta lurreko jende guztia, erabaki zuten jetxi zedilla erregea Jaunaren etxetik, eta sartu zuten goiko atetik erregearen jauregian, eta jarri zuten erregearen tronuan.

21. Eta lurreko erri guztia poztu zan, eta erria pakean gelditu zan, Athalia ezpataz illa izanik.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Zazpi urtekoa zan Joas asi zanean erreñatzen, eta berrogei urtean erreñatu zuen Jerusalemene. Bere amaren izena zan Sebia Bersabeekoa.

2. Eta egin zuen Jaunaren aurrean ona dana, Joiada apez nagusiaren egun guztietan.

3. Eta Joiadak artu zituen beretzat bi emazte, zeñagandik izan zituen semeak, eta alabak.

4. Onen ondoren nai izan zuen Joasek Jaunaren etxea berritu.

5. Eta bildu zituen apaizak eta lebitak, eta esan zien: Atera zaitetze Judako errietara, eta bildu ezazute Israel guztitik dirua zuen Jaungoikoaren etxea berritzeko, urte guztietan; eta agudo egin ezazute. Baña lebitak ajola gabe egin zuten.

6. Eta erregeak otsegin zion Joiada Prinzipearri, eta esan zion: Zergatik ez dezu iduki arreta, ekarrierazitzeko lebitai Juda eta Jerusalemendik, Moises Jaunaren serbitzariak izendatu zuen dirua, zeñ eman bear zuen Israelko jende talde guziak, elkartasuneko tabernakulorako?

7. Zeren Atalia txit gaitoak, eta bere semeak desegin zuten Jaungoikoaren etxea, eta Jaunaren elizan bildua izan zan guztiarekin, Baalen eliza apaindu zuten.

8. Erregeak bada agindu zuen, eta kutxa bat egin zuten, eta Jaunaren etxeko atean kanpoko aldetik jarri zuten.

9. Eta adirazi zan Judan eta Jerusalemene, bakoitzak ekarri zizaiola Jaunari, Moises Jaungoikoaren serbitzariak Israel guztiari eremuan izendatu ziona.

10. Eta prinzipeak guztiak, eta erri guztia poztu ziran, eta joan ziran eramatera dirua Jaunaren kutxara, eta anbeste bota zuten, non, bete zuten.

11. Eta denbora zanean lebiten eskuz erregearen aurrera kutxa eramateko (zeren ikusten zuten diru asko zegoala) erregearen sekretarioa sartzen zan, eta apaiznagusiak jarrita zegoana, eta utsituzten zuten kutxan zegoan dirua, eta berriz kutxa bere tokira eramaten zuten: eta egun guztietan ala egiten zuten, eta neurrigabeko diru talde bat bildu zan.



12. Zeñ erregeak eta Joiadak eman zieten Jaunaren etxeko lanen begirale nagusiri, eta oiek berarekin pagatzen zien argiñai, eta Jaunaren etxea berritzen ari ziran obra bakoitzaren langilleai, eta erortzeko zorian zegoana sendotzeko, burnizko eta bronzeko lanetan ari ziradenai.

13. Eta lanean ari ziranak txit ongi egin zuten, eta beren eskuakin itxiten zituzten paretetako zirrituak, eta Jaunaren etxea bere anziñako egoerara itzuli zuten, eta sendo jarri zuten.

14. Eta lan guztiak bikatu zituztenean, erregeari eta Joiadari eraman zieten gelditu zan dirua. Zeñarekin egin ziran ontziak elizako serbizorako, eta holokaustoetarako, eta edontziak, eta urrezko eta zillarrezko gañerako ontziak, eta eskeñtzen ziran aspertu gabe holokaustoak Jaunaren etxean Joiadaren egun guztietan.

15. Baña Joiada zarturik, eta egunez beterik, il zan, eun eta ogeita amar urte zituela.

16. Eta obiatu zuten Dabiden errian erregeakin, Israeli eta bere etxeari ongi egin ziolako.

17. Baña Joiada il ezkeru, sartu ziran Judako prinzipeak erregearen oñetan auzpeztzera, eta beren losentxakin lilluraturik, ekarri zuten berai jarraitzera.

18. Eta beren gurasoen Jaun Jainkoaren eliza utzi zuten, eta serbitu zituzten basoak eta otalluak, eta bekatu augatik etorri zan aserrea Judaren gañera, eta Jerusalemen gañera.

19. Bitartean Jaunak bialtzen ziezten profetak, beragana biurtu zitezten, zeñak Jaungoikoaren izenean itz egiten bazien ere, etzituzten aditu nai.

20. Atzenean Jaungoikoak bere espirituz bete zuen Zakarias apaiz nagusi, Joiadaren semea, eta erriaren aurrean jarririk, onela itz egin zuen: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zergatik billatzen dezute zuen galmena, autsirik Jaunaren aginteak, eta utzi dezute, berak utziak izan zaitezten?

21. Berak bere kontra bilduta, arrika egin zioten erregearen aginduz, Jaunaren etxeko atarian.

22. Eta etzan oroitu Joas, Zakarias Joiadaren aitak berarekin iduki zuen errukimenduarekin, baizik bere semea il zuen. Zeñak iltzen zegoala, esan zuen: Jaunak ikusi beza, eta egin beza justizia.

23. Eta iragorik urte bete, Siriako ejerzitua igo zan bere kontra; eta Judara eta Jerusalemenera etorri zan, eta erriko prinzipe guziai bizia kendu zien, eta arrapatu zuten guztia, erregeari Damaskora bidaldu zioten.

24. Eta egiaz, txit gutxi baziran ere joan ziran Siroarrak, Jaunak beren eskuetan jarri zuen jende talde neurrigabeko bat, beren gurasoen Jaun

Jainkoa utzi zutelako. Joas ere izan zan berak gaizki tratatua era lotsagarri batean;

25. Eta alde egiten zutela, pena andietan utzi zuten. Atzenean, bere morroiak jaiki ziran bere kontra, Joiadaren seme apaiz nagusiaren odola bengatzeko, eta zauritu zuten bere oian, eta il zan. Eta Dabiden errian obiatu zuten, baña ez erregeen obietan.

26. Bere kontra jaiki ziranak izan ziran Zabad Semmaath Ammontarraren semea, eta Jozabad Semarith Moabtarraren semea.

27. Eta iduki zituen semeak, eta zenbat zan bere erregetzan batu zan dirua, eta Jaungoikoaren etxearen berritazioa, zearoago daude eskribatuak erregeen liburuan. Eta Amasias bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Ogeita bost urtekoa zan Amasias erreñatzen asi zanean, eta ogeita bederatzita urtean erreñatu zuen Jerusalemen. Bere amaren izena zan Joandan Jerusalemgoa.

2. Eta egin zuen ona dana Jaunaren aurrean; baña ez biotz oso batekin.

3. Eta ikusi zuenean bere erreñua sendotua, illerazi zituen, bere aita erregeari bizia kendu zioten morroiak.

4. Baña oien semeak etzituen il, Moisesen legeko liburuan eskribatua dagoan bezela, non, Jaunak agindu zuen, esaten zuela: Ez dirade illak izango gurasoak semeagatik, ez semeak gurasoagatik, baizik bakoitza bere bekatuagatik ilko da.

5. Amasiasek bada bildu zuen Juda, eta jarri zituen beren taldetan familietatik, tribunoetatik, eta zenturionetatik Juda eta Benjamin guztian, eta ogeita bost urtez gorakoak kontatu zituen, eta arkitu zituen irureun milla gazte, gudatzera atera litezkenak, eta pika eta ezkutua eraman litza-ketenak.

6. Artu ere zituen bere kontura eun milla sendo Israelko, eun talentu zillarrezkogatik.

7. Baña etorri zan beragana Jaungoikoaren gizon bat, eta esan zion: O erregea, Israelko ejerzitua ez bedi zurekin atera; zeren Jauna ez dago Israelekin, ez Efraimgo semeetatik batekin ere:

8. Eta uste baldin badezu gerretan guztia dagoela ejerzituaren indarrean, Jaungoikoak egingo du, etsaiak garaiatuak izan zaitezela, zeren Jaungoikoaren eskuan dago laguntasuna ematea, edo igesi jartzea.



9. Eta Amasiasek erantzun zion Jaungoikoaren gizonari: Eta zer izango da Israelko soldaduai eman dieztedan eun talentuakin? Eta Jaungoikoaren gizonak erantzun zion: Badu Jaunak nondik eman zuri, ori baño asko geiago.

10. Amasiasek bada berezitu zuen Efraimdik etorri zitzaion ejerzitua, bere errira itzuli zedin, baño berak biurtu ziran beren errira, Judaren kontra txit aserretuak.

11. Eta Amasiasek itxedopen andi batekin, atera zuen bere jendea, eta joan zan Gatzagen ibarrera, non desegin zituen amar milla Seirren seme.

12. Eta Judako semeak katibu artu zituzten beste amar milla gizon, eta eraman zituzten aitaz baten amiltokira, eta goitik beera bota zituzten, eta guztiak eztanda egin zuten.

13. Baña Amasiasek bialdu zuen ejerzitua, berarekin gerrara joan etzedin, zabaldu zan Judako errietatik, Samariatik Bethoroneraño, eta iru milla lagun ezpataz iragorik, gauza asko arrapatu zituen.

14. Baña Amasiasek Idumeoak desegin, eta Seirren semeen Jaungoikoak ekarri ezkerro, bere Jaungoikotzat artu zituen, eta adoratzen zituen, eta inzensoa eskeñtzen zien.

15. Argatik aserreturik Jauna Amasiasek kontra, bialdu zion profeta bat, esan zizaion: Zergatik adoratu dituzu, zure eskutik beren erria libratu ezin izan duten jainko batzuek?

16. Eta profetak au esan zionean, erantzun zion: Erregearen konsejariren bat al zera zu? Zaude ixillik, ez badezu nai bizia kenduerazi dizazudan. Eta profetak alde egitean, esan zuen: Badakit Jaunak erabaki duela zu iltzea, gaitz au egin dezulako, eta nik bere gañean eman dizudan konsejua, ez dezulako nai izan aditu.

17. Eta Amasias Judako erregeak erabaki txit gaizto bat artu zuen, eta bialdu zituen esatera Joas, Joakasen seme, Jehu Israelko erregearen semeari: Atoz, eta elkar ikusi dezagun.

18. Baña onek bialdu ziozkan atzera mandatariak, esaten zutela: Libanon azitzen dan kardaberak bialdu zion esatera Libanoko zedroari: Eman zaiozu ene semeari emaztetzat zure alaba, eta ona non Libanoko basoetan zeuden abereak irago ziran, eta kardabera zapaldu zuten.

19. Zuk esan dezu: Nik desegin ditut Idumearrak, eta argatik urgulleriaz arrotzen da zure biotza: zaude geldirik zure etxean, zergatik deitzen diozu gaitzari zure kontra, zu eta zurekin Juda galdu zaitezen?

20. Etzuen aditu nai izan Amasiasek, zeren Jaunaren borondatea zan, etsaien eskuetan jarria izan zedilla, Edomgo jainkoakgatik.

21. Onenbesterekin atera zan gudara Joas Israelko erregea, eta jarri ziran bata bestearen aurkez. Eta Amasias Judako erregea zegoan Bethsames Judakoan.

22. Eta beldurtu zan Juda Israelen aurrean, eta bere egolekuetara iges egin zuen.

23. Eta Amasias Judako errege, Joasen Joakasen semearen semea, izan zan Joas Israelko erregeak arrapatua Bethsamesen, eta eraman zuen Jerusalemenera. Eta erriko murrua bota zuen Efraimgo atetik kantoeko ataraño lareun besoan.

24. Eta Samariara eraman zuen urre eta zillar guztia, eta Jaungoikoaren etxean, eta Obededonenean, eta erregearen etxeko tesoruetan arkitu zituen ontzi guztiak, eta berebat fianzan zeudenen semeak.

25. Eta Amasias, Joas Judako erregearen semea, bizi izan zan amabost urtean, Joas Joakaz Israeleko erregearen semea il ezkerro.

26. Amasiasek gañerako egiteak asieratik bukaerarañoakoak, eskribatuak daude Judako, eta Israelko erregeen liburuan.

27. Jaunagandik alde egin ezkerro, elkartu ziran batzuek Jerusalemen bere kontra; eta Lakisera iges eginik, bialdu zituzten mandatariak, an il zezaten.

28. Eta zaldiz ekarririk, obiatu zuten bere gurasoakin Dabiden errian.

OGETA SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta Judako erri guztiak jarri zuen erregetzat Ozias Amasiasek semea bere aitaren lekuan, amasei urte zituenean.

2. Onek berriro egin zuen Ailath, bihurturik Judaren mendera, Amasias erregea bere gurasoakin atsedetera joan ezkerro.

3. Amasei urte zituen Oziasek, erreñatzen asi zanean, eta berrogeita amabi urtean erreñatu zuen Jerusalemen. Bere amaren izena zan Jekelia Jerusalengoa.

4. Eta egin zuen, Jaunaren begietan zuzena zana, jarraiturik gauza guztietan bere aita Amasias.

5. Eta billatu zuen Jauna, Zakarias gizon zentzutu, eta Jaungoikoaren profeta bizitu izan zan artean, eta nola berak Jauna billatzen zuen, gauza guztietan Jaunak ere ongi zuzendu zuen.

6. Atzenean atera zan Filistintarren kontra gudatzera, eta beera bota zituen Jethko murrak, eta Jabniako murrak, eta Azotoko murrak, berebat, egin zituen erriak Azoton, eta Filistintarren lurrean.

7. Eta Jaungoikoak lagundu zion Filistintarren kontra, eta Gurbaalen bizi ziran Arabeen kontra, eta Ammontarren kontra.



8. Eta Ammontarrak Oziasek kotiza pagatzen zioten, eta bere izena-
ren ospea zabaldu zan Egiptoko sarreraraño bere garaipen ugariakgatik.

9. Eta egin zituen Oziasek dorreak Jerusalemenean, kantoeko atearen
gañean, eta ibarreko atearen gañean, eta beste batzuek murruren aldean,
eta sendotu zituen.

10. Jaso ere zituen dorreak eremuan, eta egin zituen aitzututa pozu
toki txit asko, zeren abere asko zeukan, ala landaetan, nola eremuko zaba-
leran. Iduki ere zituen mastiak eta mastilantzalleak mendietan, eta Kar-
melon: zeren zan lurantzera emaniko gizona.

11. Eta bere gerrari, gudatzera ateratzen ziradenean ejerzitua, zegoan
Jehiel sekretarioaren, eta Maasias legejakintsuaren aginduaren bean, eta
Hananiazen agindura, zeñ zan erregearen agintari nagusietatik bat.

12. Eta familietakozko prinzipio guztiak, gizon sendoak, ziran bi milla, eta
seireun.

13. Eta beren agindura zegoan ejerzitu guztia zan, irureun eta zazpi
milla, eta bost eun gizon, zeñak ziran gerrarako onak, eta gudatzen ziran
erregeagatik etsaien kontra.

14. Eta ejerzitu guzti oni eman ziozkan Oziasek ezkutuak, eta pikak,
eta soldadu kapelak, eta loarikak, eta uztaiak, eta aballak arriak botatzeko.

15. Eta egin zituen Jerusalemenean makina mota asko, zeñak jarri zituen
dorreetan, eta murruren egietan, botatzeko saietak, eta arri andiak. Eta
bere izena urrutiraño zabaldu zan; zeren Jaunak laguntzen zion, eta ema-
ten ziozkan indarrak.

16. Baña altsu ikusi zanean, bere biotza arrotu zan bere galmenera-
ko, eta bere Jaun Jainkoa mezipreziatu zuen. Eta sarturik Jaunaren elizan,
erre nai zuen inzensoa lurrinkaien aldarearen gañean.

17. Eta sarturik bereala bere ondoren Azarias apaiz nagusia, eta bera-
rekin larogei Jaunaren apaiz, sendotasunik andieneko gizonak,

18. Aurkeztu zitzaiozkan erregeari, eta esan zioten: O Oziasek, ez dago-
kizu zuri, Jaunari inzensoa erretzea; baizik apaizai, au da, Aaronen seme,
lan onetarako konsagratuak izan diranai. Atera zaite santuariotik; ez ezazu
mezpreziatu gure esana; zeren egite au ez da izango zuretzat mesedega-
rria Jaun Jainkoaren aurrean.

19. Baña aserreturik Oziasek, inzensoa erretzeko inzensoarioa eskuan
zuela, keñatzen zituen apaizak. Eta batbatean agertu zitzaion legendarra
bere kopetan, apaizen aurrean, Jaunaren etxean, lurrinkaien aldarearen
gañean.

20. Eta begiraturik Azarias apaiznagusiak, eta beste apaiz guztiak,
ikusi zuten legendarra bere kopetan, eta bereala irtenerazi zitzaioten. Eta

bera ere arriturik, arin irten nai zan, zeren laster ezagutu zuen Jaunak bial-
du zion kastigua.

21. Okozias erregea bada izan zan legendarria illarteraño, eta bizi izan
zan etxe banakatu batean, legendarrez beterik, zeñagaitik izan zan botatua
Jaunaren etxetik.

22. Oziasek gañerako egiteak asieratik bukaerarañoakoak eskribatu
zituen Isaias profeta Amosen semeak.

23. Eta Oziasek joan zan bere gurasoakin atsedetera, eta obiatsu zuten
erregeen obien kanpoan, legendarria zalako. Eta Joathan bere semeak
erreñatu zuen bere lekuan.

OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Ogeita bost urtekoa zan Joatham erreñatzen asi zanean, eta ama-
sei urtean erreñatu zuen Jerusalemenean. Bere amaren izena zan Jerusa Sado-
ken alaba.

2. Eta egin zuen zuzena dana Jaunaren aurrean, Oziasek bere aitak egin
zuen guztiaren araura, salbu etzala sartu Jaunaren elizan, baña erriak
oraindik bekatu egiten zuen.

3. Onek egin zuen Jaunaren etxeko goiko atea, eta egin zuen obra
asko Ofelko murruetan.

4. Orobat, egin zituen erriak Judako mendietan, eta gazteluak, eta
dorreak basoetan.

5. Onek gerra egin zion Ammonen semeen erregeari, eta garaitu
zituen, eta Ammonen semeak eman zioten denbora artan, eun talentu
zillar; eta amar milla koro gari, eta beste anbeste garagar. Au bera eman
zioten Ammontarrak bigarren, eta irugarren urtean.

6. Eta txit sendotu zan Joatham, zuzen ibilli zalako bere Jaun Jain-
koaren begietan.

7. Joathamene beste egiteak berriz, eta bere guda guztiak, eta obrak,
eskribatuak daude Israel eta Judako erregeen liburuan.

8. Ogeita bost urte zituen erreñatzen asi zanean, eta amasei urtean
erreñatu zuen Jerusalemenean.

9. Eta Joatham joan zan atsedetera bere gurasoakin, eta obiatsu zuten
Dabiden errian. Akaz bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Ogei urtekoa zan Akaz erreñatzen asi zanean, eta amasei urtean
erreñatu zuen Jerusalemenean. Etzan ongi portatu Jaunaren aurrean, bere aita
Dabid bezela,



2. Baizik ibilli zan Israelko erregeen bideetatik, eta egin ziezten Baalai menast urtzuko otalluak.
3. Au da Benennomgo ibarrean inzensoa erre zuena, eta bere semeai sutatik iragoerazi ziena, Jaunak Israelko semeen allegatueran desegin zituen erreñuetako elizkizunen araura.
4. Berebat eskeñtzen zituen ofrendak, eta erretzen zituen lurrinkaiak goietan, eta muñoetan, eta zuaitz ostotsu guztien azpian.
5. Eta bere Jaun Jainkoak jarri zuen Siriako erregearen eskuetan, zeñak desegin zuen, eta gauza txit asko arrapatu ziezten bere mendekoai, eta Damaskora eraman zituen. Izan ere zan jarria Israelko erregearen eskuetan, eta ilkintza andi batekin zauritua.
6. Eta Fazek, Romeliaren semeak il zituen egun batean, eun eta ogei milla Judatar, guztiak gizon sendoak, beren gurasoen Jaun Jainkoa utzi zutelako.
7. Denbora berean zekri, Efraimgo gizon almentsu batek, il zituen Maasias erregearen semea, eta Ezrika bere otsein nagusia, eta Elkana, zeñak zeukan bigarren tokia erregearen aldean.
8. Eta Israelko semeak artu zituzten katibu beren anaia, emazte, aurre, eta auralabetatik berreun milla, baitaere arrapatu ziezten gauza txit asko, eta Samariara eraman zituzten.
9. Bazegoan an garai artan Jaunaren profeta bat, Oded zeritzana, zeñ aterarik bidera Samariara zetorren ejerzituari, esan zien: Begiratu ezazute, aserreturik zuen gurasoen Jaun Jainkoa Judaren kontra, zuen eskuetan jarri dituela, zuek berriz il dituzute portizkiro, alako moduan non, zuen odolgirotasuna igo da zerurano.
10. Gañera jarri nai dituzute zuen azpian, Judako eta Jerusalemgo semeak, zuen mendeko gizaseme eta emakume batzuek bezela, gauza bat iñolaere egin bear ez dezutena: bada onetan zuen Jaun Jainkoaren kontra bekatu egin dezute.
11. Aditu ezazute bada orain nere konsejua: Bialdu itzatzute zuen anaia, katibu ekarri dituzutenak, zeren Jaunaren aserre andia zuen gañean dago.
12. Onenbesterekin Efraimgo semeetatiko Prinzipe batzuek, Azarias Johanen semea, Barakbias Mosolamothin semea, Ezekias Selumen semea, eta Amasa Adaliren semea, jarri ziran gudatik zetoztenen aurkez.
13. Eta esan zieten: Ez dituzute sartuko onara barruna katibuak, Jaunaren kontra bekatu egin ez dezagun. Zergatik geitu nai dituzute gure bekatuak, eta bete anziñako gaiztakerien neurria, ori bekatu andi bat dan

- ezkero, eta Jauna botatzera dijoan ezkero Israelen gañera, bere aserre ikaragarria?
14. Eta gizon gerrari aiek utzi zuten arrapatu zutena, eta artu zuten guztia, Prinzipeen eta jende talde guztiaren aurrean.
15. Eta len aitatu ditugun gizonak, artzen zituztela katibuak, eta billosik zeuden guztiak, jantzi zituzten arrapatuta ekarri zutenetik; eta eman ezkero soñekoak eta oñetakoak, eta sendotu janariarekin eta edariarekin, eta igortzi nekea arintzeko, eta arreta andi batekin berakgatik begiratu ezkero; ezin ibilli ziran, eta gorputz erbalak zeuzkaten guztiak, zamarietan igoerazi zieten, eta Jerikora, palmen errira, eraman zituzten, beren anaiak-gana, eta berak Samariara itzuli ziran.
16. Denbora artan Akaz erregeak bialdu zituen Asiriarren erregeagana laguntasuna eskatzera.
17. Eta etorri ziran Idumearrak, eta Judako asko ezpataz irago zituzten, eta gauza asko arrapatu zuten.
18. Filistintarrak ere zabaldu ziran kanpoetako errietatik, eta Judako egoerontz, eta artu zituzten Bethsames, eta Aialon, eta Gaderoth, eta Soko, eta Thamnan, eta Gamzo beren erritxarrakin, eta beretan bizi izan ziran.
19. Zeren Jaunak humillatu zuen Juda, Akaz Judako erregeatik, zeñ utzi zuen laguntasunik batere gabe, Jauna mezipreziatu zuelako.
20. Eta ekarri zuen berarekin Thelgathfalnasar Asiriako erregea, zeñak ere atsekabetu zuen, eta soildu erria, iñork gogor egin gabe.
21. Akazek bada arturik Jaunaren etxean, eta erregeen etxean, eta prinzipeen etxean zegoana, eskeñi ziozkan doañak Asiriako erregeari, baña alaere etzion ezerere balio izan.
22. Gañera bere atsekabeko denbora berean, geitu zituen Jaunaren ofensak; alako moduan non, Akaz erregeak berak bere eskuz,
23. Egin ziezten eskeñtzak Damaskoko jainkoai, zeñak atsekabetzen zuten, eta esan zuen: Siriako erregearen jainkoa laguntzen diete oie; nik bigunduko ditut eskeñtzakin, eta lagunduko didate, kontrara, beretatik zetorreanean bere, eta Israel guztiaren galmena.
24. Akazek bada, kendurik Jaungoikoaren etxeko ontzi guztiak, eta zatiturik, Jaungoikoaren elizako atean itxi zituen, eta Jerusalemgo kantoe guztietan aldareak egin zituen.
25. Orobat egin zituen aldareak, Judako erri guztietan, inzensoa erretzeko, eta bere gurasoen Jaun Jainkoaren aserrea biztu zuen.



26. Bere egiteen gañerakoa berriz, eta bere obra guztiak lenbizikoak, eta atzenekoak, eskribatuak daude guztiak Judako eta Israelko erregeen liburuan.

27. Eta irago zan Akaz bere gurasoakin atsedetera, eta Jerusalemgo errian obiatu zuten; zeren etzioten eman lekurik Israelko erregeen obietan. Eta Ezekias bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

OGEITA BEDERATZIGARRREN KAPITULUA

1. Ezekias bada sartu zan erreñatzen, ogeita bost urte zituenean, eta erreñatu zuen ogeita bederatzi urtean Jerusalemen. Bere amaren izena zan Abia Zakariasen alaba.

2. Eta egin zuen Jaunaren aurrean bere gogokoa zana, guztian bere aita Dabidek egin zuenaren araura.

3. Onek bere erregetzaren lenbiziko urtean eta illean, Jaunaren etxe-ko atea idiki zituen, eta berritu.

4. Eta apaizai eta lebitai itzulierazi zien, eta sortaldeko plazan bildu zituen.

5. Eta esan zien: Lebitak, aditu nazazute, eta santutu zaitzete, zuen gurasoen Jaun Jainkoaren etxea garbitu ezazute, eta zikinkeria guztia elizatik kendu ezazute.

6. Gure gurasoak bekatu egin zuten, eta gaizkia egin zuten gure Jaun Jainkoaren aurrean, utziten zutela. Apartatu zituzten beren arpegiak Jaunaren tabernakulotik, eta sorbaldak itzuli ziozkaten.

7. Atarian zeuden atea itxi zituzten; eta lanparak itzali zituzten, eta etzuten erre inzensoa, ezta eskeñi ere holokaustoak santuarioan Israelko Jaungoikoari.

8. Argatik Jaunaren aserrea erazeki da Judaren, eta Jerusalemen kontra, eta utzi ditu genasi, galmen eta lotsarian, zerok zuen begiak in ikusten dezuten bezela.

9. Ikusi ezazute nola gure gurasoak ezpataz illak izan diran, gure semeak, eta gure alabak, eta emazteak, gaiztakeria augatik, izan dira kati-bu eramanak.

10. Orain bada ongi deritzat, egin dezagula elkertasuna Israelko Jaun Jainkoarekin, eta bere aserrearen sumintasuna gugandik apartatuko du.

11. Ene semeak, etzaitzete nagiak izan. Jaunak autu zaituzte egon zaitezen bere aurrean, eta serbitu dezazuten, eta eman dizazkiozuten elizkizunak, eta erre dizaiozuten inzensoa.

12. Orduan lebitak jaiki ziran, Mahath Amasairen semea, eta Joel Azariasen semea Kaathen semeetatik. Eta Merariren semeetatik, Zis

Abdiren semea, eta Azarias Jalaleelen semea. Eta Jersomen semeetatik, Joah Semmaren semea, eta Eden Joahen semea.

13. Eta Elisafanen semeetatik, Samri, eta Jahiel. Eta Asafen semeetatik, Zakarias eta Matanias,

14. Berebat, Hemanen semeetatik Jahiel eta Semei, eta Idithunen semeetatik, Semeias eta Oziel.

15. Eta ots egin zieten beren anaiai, eta santutu ziran, eta sartu ziran erregearen agintearen eta Jaunaren mandamentuaren araura, Jaungoikoaren etxea garbitzera.

16. Apaizak ere sarturik Jaunaren elizan, santututzeko, atera zituzten Jaunaren etxe-ko atarira, barrunen arkitu zituzten loikeria guztiak, eta artu zituzten an dik lebitak, eta eraman zituzten kanpora zedrongo errekarara.

17. Eta asi ziran garbitzen lenbiziko illaren lenbiziko egunean, eta il berean zortzigarren egunean sartu ziran Jaunaren elizako atarian, eta zortzi egunean egon ziran eliza garbitzen, eta aitatu dan illaren amaseigarren egunean bukatu zuten, asi zuten lana.

18. Sartu ere ziran Ezekias erregeari itz egitera, eta esan zioten: Santutu degu, Jaunaren etxe guztia, eta holokaustoaren aldarea, eta bere ontziak, baita ere proposizioko maiea bere ontzi guztiakin,

19. Eta elizako tresna guztiak, zeñak profanatu zituen Akaz erregeak erreñatu zuen denboran, fedea autsi ezkerro. Eta ona emen non guztia dagoan ipiñirik Jaunaren aldarearen aurrean.

20. Eta jaikitzen zala goizean goiz Ezekias erregea, erriko Prinzipe guztiak bildu zituen, eta Jaunaren etxera igo zan.

21. Eta guztiak batean eskeñi zituzten zazpi zezen, eta zazpi txikiro, zazpi arkume, eta zazpi aker, bekatuagatik, erreñuagatik, santuarioagatik, Judagatik, eta esan zien Aaronen seme apaizai, eskeñi zitzatela Jaunaren aldarearen gañean.

22. Il zituzten bada zezenak, eta apaizak odola bildu zuten, eta aldarearen gañean isuri zuten; il zituzten txikiroak ere, eta isuri zuten beren odola aldarearen gañean, eta il zituzten arkumeak, eta isuri zuten odola aldarearen gañean.

23. Bekatuagatik eskiñitako akerrren gañean berriz, eraman zituzten, eta alderatu erregearen, eta erri guztiaren aurrera, eta beren eskuak beren gañean jarri zituzten.

24. Eta apaizak il zituzten abereak, eta beren odolarekin intzatu zuten aldarea, Israel guztia Jainkoarekin paketu zedin, zeren erregeak agindu zuen, eskeñi zedilla holokaustoa Israel guztiagatik, eta bekatuagatik.



25. Jarri ere zituen Lebitak Jaunaren etxean zinbaloetarako, eta salterioetarako, eta zitaretarako, Dabid erregearen, eta Gad profetaren, eta Natan profetaren erabakiaren araura, zeren au Jaunaren agindu, profeten bitartez adirazi bat zan.

26. Eta Lebitak jarri ziran zutik, eskuan zeuzkatela Dabiden erremienta, soñua jotzekoak, eta apaizak tronpetak.

27. Eta agindu zuen Ezekiasak, eskeñi zitzatela holokaustoak alda-rearen gañean, eta holokaustoak eskeñitzen ziran bitartean, asi ziran Jaunari alabanzak kantatzen, eta tronpetak jotzen, eta laguntzen kantari, Dabid Israelko erregeak jarri zituzten musikako erremienta batzuekin.

28. Eta erri guztia adoratzten zegoan artean, kantariak eta tronpetak zeuzkatenak, kunplitzen zuten beren lana, holokaustoa bukatu zedin artean.

29. Eta bukatu zanean ofrenda, makurtu zan erregea, eta berarekin zeuden guztiak, eta Jauna adoratu zuten.

30. Eta Ezekiasak eta Prinzipeak agindu zieten Lebitai, Jauna alabatu zezatela Dabiden, eta Asaf profetaren itzak, zeñak alabatu zuten poz andiarekin, eta belaunikaturik lurrean, Jauna adoratu zuten.

31. Gañera, esan zuen Ezekiasak: Zuek izan zerate Jaunari konsagratuak. Atozte bada, eta eskeñi itzatzute doañak, eta alabanzak Jaunaren etxean. Eta jende talde guziak eskeñi zituen doañak, eta alabanzak eta holokaustoak biotz debotoarekin.

32. Eta jende taldeak eskeñi zituen holokaustoen zenbata, au da, irurogeita amar zezen, eun txikiro, berreun arkume.

33. Eta seireun idi, eta iru milla ardi Jaunari konsagratu ziozkaten.

34. Baña apaizak gutxi ziran, eta berak bakarrik etziran, holokaustotako abereai larruak kentzeko adiña; argatik beren anaia lebitak lagundu zieten, lana bukatu zan artean, eta apaizak santutu ziran artean; zeren lebitak zeremonia gutxiagorekin santututzen dira, apaizak baño.

35. Izan zan bada holokaustoen talde andia, eta paketsuen gantzarena, eta holokaustoen libazioena, eta gelditu ziran berriz ipiñirik Jaunaren tenpluko elizkizunak.

36. Eta poztu zan Ezekias, eta erri guztia, ikusirik berriz jarria, Jauna alabatzeke era. Zeren erabaki au izan zan batbatean egiña.

OGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Bialdu ere zituen Ezekiasak Israel eta Juda guztitik, eta txartelak eskribatu zituen Efraim eta Manasesera, etorri zitezen Jaunaren etxera Jerusalemenera, eta zelebratu zezaten Israelko Jaun Jainkoaren Paskoa.

2. Idukirik bada batzarrea erregeak Prinzipeekin eta erri guztiarekin Jerusalemenera, bigarren illean Paskoa zelebratzea erabaki zuten.

3. Zeren ezin izan zuten bere denboran zelebratu, etziralako santutu bear izan litezkean apaizak, eta etzan oraindikan erri guztia Jerusalemenera bildu.

4. Eta erregeari eta jende talde guztiari ongi iritzi zitzaien erabakia.

5. Eta erabaki zuten bidaltzea mandatariak Israel guztira Bersabeetik Daneraño, etorri zitezen Paskoa zelebratzea Israelko Jaun Jainkoari Jerusalemenera, zeren askok etzuten zelebratu, legeak agindua dagoen bezela.

6. Eta erregearen eta bere Prinzipeen aginduz, joan ziran mandatariak txartelakin Israel eta Juda guztiarentzat, erregeak agindu zuenaren araura, esaten zuela: Israelko semeak, itzuli zaitezte Abrahamen, eta Isaaken, eta Israelen Jaun Jainkoagana, eta bera itzuliko da, Asiriako erregearen eskutik iges egin duten piskakgana.

7. Etzaitzete izan zuen guraso eta anaiak bezela, zeñak alde egin zuten beren gurasoen Jaun Jainkoagandik, eta Jaunak utzi zituen eriotzaren eskuan, zerok ikusten dezuten bezela.

8. Ez itzatzute gogortu zuen biotzak, zuen gurasoak bezela. Jarri zaitzete Jaunaren mendean, eta etorri zaitzete, betiko santutu zuen santuariora. Zuen gurasoen Jaun Jainkoa serbitu ezazute, eta alde egingo du zuekgandik bere sumintasanaren aserreak.

9. Zeren zuek biurtzen bazerate Jaunagana, zuen anaiak, eta semeak arkituko dute urrukimendua, katibu eraman zituzten beren nagusien aurrean, eta itzuliko dira lur onetara, zeren zuen Jaun Jainkoa biguña eta beraa da, eta bere aurpegia ez du zuekgandik apartatuko, beragana itzultzen bazerate.

10. Mandatariak bada bazebiltzan arin erritik erri Efraim eta Manasesen lurretik Zabuloneraño, aiek farra egiten zutela, eta iseka egiten zietela.

11. Alaere Aser, eta Manases, eta Zabulongo gizon batzuek, arturik konsejua, Jerusalemenera etorri ziran.

12. Judaren gañean ibilli zan Jaunaren eskua, biotz bakar bat ematen ziela, Jaunaren itza kunplitzeko erregearen eta prinzipeen agintearen araura.

13. Eta erri asko bildu zan Jerusalemenera, legamigabekoena jaia zelebratzea bigarren illean.

14. Eta jaikitzen ziradela, desegin zituzten Jerusalemenera zeuden alda-reak, eta botarik toki guztiak, zeñatan idoloai inzensoa erretzen zitzaien, Zedrongo errekarara aurtiki zuten guztia.



15. Eta il, eta eskeñi zuten paskoako bildotsa, bigarren illaren ama-lugarren egunean. Eta apaiz eta Lebita, atzanean ere santutu ziranak, eskeñi zituzten holokaustoak Jaunaren etxean.

16. Eta kunplitu zituzten beren lanak, Moises Jaungoikoaren gizonak adirazi zuen bezela, eta apaizak artzen zuten Lebiten eskutik odola, isuritzeko,

17. Zeren jende talde andi bat etzan oraindik santutu, argatik lebitak il zuten paskoako bildotsa, Jaunaren aurrean, garbitzera denboraz etorri etziranakgatik.

18. Eta Efraimgo, eta Manasesko, eta Isakargo, eta Zabulongo errien zati andi batek, garbitu gabe zegoanak, jan zuten bildotsa, ez eskribatua dagoanaren araura: eta Ezekiassek erregutu zuen Berakgatik esaten zuela: Jauna, zein dan neurrigabe ona, errukituko da

19. Beren gurasoen Jaun Jainkoa biotz guztitik billatzen duten guzti aiekin; eta bekatutzat ez die artuko, ongi garbituak ez egotearen utsegitea.

20. Zeñ aditu zuen Jaunak, eta erriarekin errukitu zan.

21. Eta Jerusalemene arkitu ziran Israelko semeak zelegatu zuten legamigabeen jaiak, zazpi egunean, poz andiakin, egun guztietan Jauna alabatzen zutela, baita Lebitak, eta Apaizak ere, beren lanari zegozkien musika soñuzko erremientakin.

22. Ezekiassek bere aldetik eskerrak eman ziezten lebitai, zeñak eza-gera andia zeukaten Jaunaren gauzetan; eta jaiak iraun zuen zapi egunetan jan zuten, iltzen zituztela doñ paketsuak, eta beren gurasoen Jaun Jainkoa alabatzen zutela.

23. Eta jende talde guztiak erabaki zuen, oraindik beste zazpi egunean ere zelegatzea, eta poz txit andiarekin au ere egin zuten.

24. Zeren Ezekias Judako erregeak eman ziozkan jende taldeari milla zezen, eta zazpi milla ardi, eta prinzipiak eman ziozkatene erriari, milla zezen eta amar milla ardi; argatik apaiz txit asko santutu zan.

25. Ala bada, pozez gañez eginda zegoan Judako jende guztia, apaiz eta lebitakin, eta ez gutxiago Israeltik etorri zan jende guztia, baita ere Juduetara biurtu ziranak, ala Israelko errikoak, nola Judako lurrean bizi ziradenak.

26. Eta andia izan zan, Jerusalemene zelegatu zan jai au, eta erri artan bere antzekorik ikusi ez zan bezelakoa, Salomon Dabiden seme, Israelko erregearen denboratik.

27. Eta apaizak eta lebitak jaiki ziran, erria bedeikatzeko, eta beren boza izan zan aditua, eta beren otoiza zeruko bizileku santurano allegatu zan.

OGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta zelegatu ezkeroko gauza oiek, aginduta dagoanaren araura, Judako errietan zegoan Israel guztia atera zan, eta zatitu zituen tajuak, eta arrasatu basoak, bota altuak, eta desegin aldareak, ez bakarrik Juda eta Benjamin guztian, baitaere Efraim eta Manasesen, guztia soilldu artean. Eta gero Israelko seme guztiak itzuli ziran beren etxe eta errietara.

2. Eta Ezekiassek berriz jarri zituen apaizen eta Lebiten txandak, beren berezieren araura, jartzen zuela bakoitza, ala apaizetatikoa, nola lebitetatikoa bakoitzari zegokion lanean, eskeñi zituzten holokaustoak eta doñ paketsuak, Jaungoikoa serbitu eta alabatu zezaten, Jaunaren etzauntzeko atetan.

3. Eta erregearen kontura zegoan ematea bear zana, goiz ta arratsalde, beti eskeñtzen dan holokaustorako; baitaere eskeñtzen diranetako larunbatetan, eta kalendetan, eta beste jai andietan, Moisesen legean eskribatua dagoan bezela.

4. Agindu ere zion Jerusalemene bizi zan erriari, eman zizaiez tala apaizai eta lebitai beren tokamenak, Jaunaren legeko gauzetan ari al zitezten.

5. Allegatu zanean au jende taldearen belarrietara, Israelko semeak eskeñi zuten gariaren, ardoaren, eta olioaren, baita eztiaren ere primizia txit asko. Eta eskeñi zituzten lurak ematen dituen gauza guztien amarrenak.

6. Eta Israelko eta Judako seme, Judako errietan bizi ziranak ere, eskeñi zituzten idien, eta ardien amarrenak, eta gauza santutu, beren Jaun Jainkoari botoz eskeñi ziozkatene amarrenak. Eta eramanik guztia, egin zituzten muntoi txit andiak.

7. Irugarren illean asi ziran orni oiek egiten, eta zapigarrenean bukatu zituzten.

8. Eta sartzen ziradela Ezekias eta bere jauregikoak, ikusi zituzten muntoiak, eta bedeikatu zuten Jauna, eta Israelko erria.

9. Eta Ezekiassek galdetu zien apaizai eta lebitai, zergatik zeuden ala lurrean muntoiak.

10. Azarias lenbiziko apaiz Sadok-en jatorrikoak, erantzun zion: Asi ziran ezkeroko primiziak eskeñtzen Jaunaren etxean, jan degu, eta ase gera, eta txit asko gelditu da, zeren Jaunak bere erriari bendizioa eman dio, eta sobratu zanetikoa da, ikusten dezun ugaritasuna.

11. Agindu zuen bada Ezekias, ipiñi zituztela aletokiak Jaunaren etxean. Eta eginik au



12. Sartu zituzten barrunen leialki, ala primiziak, nola amarrenak, eta botoz eskeñi zuten guztia. Eta onen agintaritzaz nagusia eman zitzaion Konenias lebitari, eta Semei bere anaiari, zeñ zan bigarrena,

13. Eta onen ondoren Jahieli, eta Azariasi, eta Nahathi, eta Asaeli, eta Jerimothi, eta Jozabadi, eta Elieli, eta Jesmakiasi, eta Mahathi, eta Banaia-si, zeñaen kontura zegoan au, Komeniasen eta bere anaia Semeiren agintean bean; Ezekias erregearen, eta Azarias Jaungoikoaren etxeko apaiz nagusiaren aginduz, zeñai zegokien guztia.

14. Kore berriz Jemna lebitaren semearen, eta sortaldeko atearen ate-zaiaren kontura zegoan Jaunari borondatez eskeñtzen zitzaiona, eta txit santuak izateko konsagratuak zeuden gauzak eta primiziak.

15. Eta beren aginduetara Eden, eta Benjamin, eta Semeias, eta Amarias, eta Sekenias apaizen errietan, emateko fielki tokamenak beren anaiai, ala txikiai, nola andiai.

16. Eta iru urtetik gorako aursemeez gañera, Jaunaren elizan sartzen ziran guztiak, eta egunoro bear zan guztia lan eta ofizio guztietarako beren berezituereen erara,

17. Apaizak beren familietatik, eta ogei urtetik eta gorako lebitak beren errenkada eta taldeetatik

18. Eta jende talde guztiari, ala emakumeai, nola beren semeai, naiz aursemeai, naiz aur alabai, ematen zitzaien fielkiro janaria, eskeñiak izan ziran gauza aietatik.

19. Eta Aaronen semeetatik erri bakoitzaren kanpoetan eta erriaurreetan, zeuden izendatuta gizonak, eman zitzaizten tokamenak, apaizetatikoak eta lebitetatikoak ziran gizaseme guztiak.

20. Egin zituen bada Ezekiasak, esan ditugun gauza guztiak, Juda guztian. Eta egin zuen bere Jaun Jainkoaren aurrean ona, zuzena eta egiazkoa zana

21. Jaunaren etxeko lanak eskatzen zuten guztian, legearen eta zereemonien araura, bere biotz guztiarekin bere Jaungoikoa billatzeko borondatearekin, ala egin zuen, eta guztiak ederki irten zitzaion.

OGETA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Gauza oien, eta Ezekiasen leialtasun ain andiaren buruan, Sennakerib Asiriako erregea etorri zan, eta sarturik Judan, setiatu zituen erri sendoak, berak artzeko asmoz.

2. Ikusirik au Ezekiasak, au da, Sennakerib alderatzen zala, eta gerraren indar guztia Jerusalemen kontra zuzentzen zala.

3. Idukirik batzarrea andizkiakin, eta gizonik sendoenakin, eta izanik guztien iritzia itxi bear ziradela, erritik kanpora zeuden iturrien jatorriak,

4. Jende txit asko bildu zuen, eta itxi zituzten iturri guztiak, eta lurra-aren erditik zijoan erreka, esaten zutela: Etorri ez ditezen Asiriako erregeak, eta arkitu ez dezaten ura ugari.

5. Eta ipiñirik ardurarik andiena, sendotu zuen, desegina izan zan murru guztia, eta egin zituen dorreak gañean, eta beste murru bat kanporago. Eta berriztu zuen Melo Dabiden errian, eta egin zituen arma eta ezkutu mota guztiak.

6. Eta izendatu zituen ejerzituaren agintariak, eta bildu zituen guztiak erriko ateko plazan, eta itz egin zien biotzera, esaten zuela:

7. Gizonkiro portatu zaitezte, eta auzute biotz on. Ez beldurtu, ez ikaratu Asiriako erregeagatik, ez berarekin dagoan jende talde guztiagatik, zeren asko geiago daude gurekin, berarekin baño.

8. Zeren berak dauka berarekin aragizko beso bat, gurekin dago gure Jaun Jaungoikoa, zeñ dan gure laguntzalea, eta gudatzen da gugatik. Eta Ezekias Judako erregearen itz oiekin erria alaitu zan.

9. Iragorik gauza oiek, Sennakerib Asiriarren erregeak bialdu zituen bere mandatariak Jerusalemenera, (zeren bera bere ejerzitu guztiarekin zegoan Lakis setiatzen) esaten zietela Ezekias Judako erregeari, eta errian zegoan jende guztiari:

10. Oiek esaten ditu Senakerib Asiriarren erregeak: Zeñgan jartzen dezute zuen itxedopena, egoteko orrela setiatuak Jerusalemen?

11. Engañatzen al zaituzte Ezekiasak, gosez eta egarriz illerazitzeko, esaten dizutela, zuen Jaun Jainkoak libratuko zaituztela Asiriarren erregearen eskuetatik?

12. Ezekias ori ez al da desegin zituena bere goiak, eta aldareak, eta agindu ziona Judari eta Jerusalem, esaten zuela: Aldare bakar baten aurrean adoratuko dezute, eta an berean inzensoa erreko dezute?

13. Ez al dakizute nik eta nire gurasoak egin deguna lurreko erri guztiakin? iduki al zuten eskubiderik jendeen, eta lur guztiko Jainkoak, beren erriak nere eskutik libratzeko?

14. Zeñ jainko da, nere gurasoak desegin zituzten jendeen guztien artean, nere eskutik bere erria libratu al izan duenik, zuen Jainkoak ere salbatu al zaitzaten nere eskutik?

15. Etzaitzate bada Ezekiasak engañatu, etzaitzate ere burlatu arrazoe utsakin, ez dizaiozute ere sinistu. Zeren jende eta erreñu guztietako jainko batek ere ezin izan bazuen libratu bere erria nere eskutik, eta



nere gurasoen eskutik, emendik dator, zuen Jainkoak ere nere eskutik ezin libratuko zaituztela.

16. Beste gauza asko ere oraindikan esan zituzten Sennakeriben morroiak Jaun Jainkoaren kontra, eta bere serbitzari Ezekiasen kontra.

17. Berebat eskribitu zituen txartel batzuek blasfemiaz beteak, Israelko Jaun Jainkoaren kontra, eta bere kontra esan zuen: Nola beste jendeen jainkoak ezin izan zuten libratu beren erria nere eskutik, Ezekiasen Jaungoikoak ere ezin salbatuko du bere erria esku onetatik.

18. Eta gañera boz txit altuarekin, Hebreoko izkuntzan, deadar egiten zion, Jerusalemgo murrueen gañean zegoan jendetzari, ikaratuerazi nairik, eta erria arrapatu.

19. Eta Jerusalemgo Jaungoikoaren kontra itz egin zuen, lurreko errietako Jaungoiko, gizonen eskuen lanen kontra bezela.

20. Ezekias erregeak bada, eta Isaias Amos profetaren semeak, otoiz egin zuten blasfemia onen kontra, eta deadarra zerurano altxatu zuten.

21. Eta bialdu zuen Jaungoikoak aingeru bat, zeñak il zuen gizon sendo eta bulardetsu guztia, eta Asiriarren erregeren ejerzituko agintari nagusia, eta itzuli zuen bere errira lotsariz betea. Eta sarturik bere jainkoaren etxean, bere erraetatik ateratako semeak ezpatatz il zuten.

22. Eta Jaunak salbatu zituen Ezekias, eta Jerusalemen bizi ziranak Sennakerib Asiriako erregearen eskutik, eta guztien eskutik, eta inguruan pakea eman zien.

23. Eta askok eskeñtzen ere zituzten ofrendak Jaunaren doañetarako Jerusalemenean, eta opariak Ezekias Judako erregearentzat, zeñ onen ondoren txit anditzat zeukaten erreñu guztiak.

24. Egun aietan eritu zuen Ezekias eriotzako gaitzarekin, eta Jaunari erregutu zion, eta aditu zuen, eta siñale bat eman zion.

25. Baña etzien erantzun esker onarekin, artu zituen mesedeai; zeren bere biotza arrotu zuen, eta etorri zuen aserrea bere kontra, eta Judaren kontra, eta Jerusalemenean kontra.

26. Baña gero humillatu zuen, bere biotza arrotu zalako, ala bera, nola Jerusalemenean bizi ziranak. Eta argatik Jaunaren aserrea etzan etorri beren gañera Ezekiasen egunetan.

27. Eta Ezekias izan zuen aberatsa, eta argitsua, eta bildu zuen zillar eta urre txit asko, eta arri baliotsuak, eta aromak, eta arma mota guztiak, eta balio andiko gauzak.

28. Egin ere zituen gariarentzat aletokiak; ardo, eta olioarentzat azokak, eta estalpeak zamari mota guztientzat, eta abeletxeak aberentzat.

29. Eta egin ere zituen erriak beretzat; zeren zeuzkan ardi, eta ele taldeak neurri gabe, zeren Jaunak eman ziozkan ondasunak txit ugari.

30. Au da arako Ezekias, itxi zuena Jihongo uren goiko iturria, eta zuzendu zituen lurraren azpitik Dabiden erriaren sartaldetontz. Asi zituen lan guztiak ongi irten zitzaiozkan, berak nai zuen eran.

31. Egia da, bialduak izan zitzaiozkalako Babiloniatik andizki mandariak, jakin zezaten, nolako izan zuen beragatik lurrean gertatu zuen miraria, Jaunak bere eskutik utzi zuela; probatzeko, eta agertu zezan bere biotzen zeukan guztia

32. Eta Ezekiasen beste egitateak, eta bere errukizko obrak, eskribatuak daude Isaias Amos profetaren semearen ikusketan, eta Judako eta Israelko erregeen liburuan.

33. Eta joan zuen Ezekias atsedetera bere gurasoekin, eta obiratu zuten Dabiden semeen obien gañean. Eta egin zituen progua Juda guztiak, eta Jerusalemenean bizi ziran guztiak. Eta bere seme Manasesek bere lekuan erreñatu zuen.

OGEITA AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Amabi urtekoa zuen Manases erreñatzen asi zanean, eta berrogeita amabost urtean erreñatu zuen Jerusalemenean.

2. Baña Jaunaren aurrean gaizkia egin zuen, Israelko semeen aurrean Jaunak desegin zituen jendeen nazkagarrien araura.

3. Eta berriz jarri zituen, bere aita Ezekiasek bota zituen altuak. Eta altxatu ziozkaten aldareak Baalai, eta ipiñi zituen basoak, eta adoratu zuen zeruko milizia guztia, eta egin ziozkan elizkizunak.

4. Egin ere zituen aldareak Jaunaren etxean, zeñagatik Jaunak esan izan zuen: Nere izena beti egongo da Jerusalemenean.

5. Eta egin ziozkan zeruko ejerzitu guztiari Jaunaren etxeke bi atarrietan.

6. Eta bere semeai iragoerazi zuen sutatik Benennomgo ibarrean. Zuan amets asmatzalea, jarraitzen zuen aztiai, zuen sorginkerietara emana, zeuzkan berarekin mirarikinde beltzak, eta sorgiñak, eta Jaunaren aurrean gaitz andiak egin zituen, aserretu erazitzen ziola.

7. Orobat, jarri zuen idolo bat, eta menasturtuzko tallua Jaunaren etxean, zeñagatik Jaungoikoak Dabidi itz egin zion, eta bere seme Salomoni, esaten zuela: Etxe onetan eta Jerusalemenean, zeñ Israelko tribu guztien artean autu dedan, jarriko det nere izena betiko.

8. Eta egingo det, Israelen oña ez dedilla mugitua izan, bere gurasoai eman nien lurretik, saiatzun badirade kunplitzen, aginduta diezteedan



gauzak, eta Moisesen bitartez adirazitako lege guztia, eta zeremoniak, eta erabakiak.

9. Manasesek bada engañatu zituen Juda eta Jerusalem bizi ziranak, egin zezaten gaizki geiago, Israelko semeen aurrean Jaunak desegin zituen jende guztiak baño.

10. Eta Jaunak berari, eta bere erriari itz egin zien, eta etzuten aditu nai.

11. Argatik egin zuen etorri zitezela beren gañera Asiriako erregearen ejerzituko agintariak. Eta Manases katibu artu zuten, eta kateez eta girgi-luz lotuta, Babiloniara eramán zuten.

12. Zeñak ikusirik bere burua antsiatua, erregutu zion bere Jaun Jaungoikoari, eta penitentzia andia egin zuen, bere gurasoen Jaungoikoa-
ren aurrean

13. Eta eskatu eta erregutu zion txit gogotikan, eta bere otoiza aditu zuen, eta Jerusalem bere erreñura itzulierazi zion, eta Manasesek eza-
gutu zuen, Jauna bera dala Jaungoikoa.

14. Oiek iragota, Dabiden erriko kanpoko murrua egin zuen, Jihonen sartaldean ibarrean, arraien atearen sarreratik, inguruan, Ofeleraño, eta altxatu zuen txit goira, eta Judako gaztelu erri guztietan, ejerzituko agin-
tariak jarri zituen.

15. Eta Jainko arrotzak kendu zituen, eta Jaunaren etxeko tajua, eta Jaunaren etxeko mendian, eta Jerusalem egin zituen aldareak, eta guztia erri-
tik kanpora botazerazi zuen.

16. Eta berriz jarri zuen Jaunaren aldarea, eta eskeñi ziozkan bere gañean abere illak, eta doñ paketsuak, eta alabanzazkoak, eta agindu zion Judari, Israelko Jaun Jaungoikoa serbitu zezala.

17. Baña alaere erriak oraindik egiten ziozkan eskeñtzak bere Jaun Jainkoari goietan.

18. Manasesen gañerako egiteak, eta bere Jaungoikoari egin zion otoiza, baita ere Israelko Jaun Jaungoikoaren izenean itz egiten zioten profeten itzak, Israelko erregeen liburuetan arkitzen dira.

19. Berak egin zuen otoiza, eta nola izan zan aditua, eta bere bekatu guztiak, eta fedearen ukamena, goiak egin zituen tokiak ere, eta ipiñi zituen basoak eta otalluak, penitentzia egin baño lenago, Hozairen libu-
ruetan daude eskribatuak.

20. Irago zan bada Manases bere gurasoakin atsedetera, eta bere etxean obiratu zuten, eta Amon bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

21. Ogeita bi urtekoa zan Amon erreñatzen asi zanean, eta bi urtean erreñatu zuen Jerusalem.

22. Eta Jaunaren aurrean gaizkia egin zuen, bere aita Manasesek egin zuen bezela. Eta egin ziozkatzen eskeñtzak, eta serbitu zituen, Manasesek egin zituen idolo guztiak.

23. Eta etzan humillatu Jaunaren aurrean, bere aita Manasesek egin zuen bezela, eta egin zituen gaiztakeria asko andiangoak.

24. Eta jaikirik bere kontra bere morroiak, bere etxean il zuten.

25. Baña erriaren gañerakoak, bizia kenduerazirik Amon il zutenai, jarri zuen erregetzat Josias bere semea.

OGETA AMALAUAREN KAPITULUA

1. Zortzi urtekoa zan Josias erreñatzen asi zanean, eta ogeita amaika urtean erreñatu zuen Jerusalem.

2. Eta egin zuen zuzena zana Jaunaren aurrean, eta bere aita Dabiden bidetik ibilli zan. Etzan zeartu ez eskuiera, ez ezkererra.

3. Eta bere erregetzatik zortzigarren urtean, oraindikan gaztetxoa zala, asi zan bere aita Dabiden Jaungoikoa billatzen, eta erreñatzen asi zanetik amabigarren urtean, garbitu zituen Juda eta Jerusalem goietatik, eta basoetatik, eta idolo eta tajuetatik.

4. Eta bere aurrean desegin zituzten Baalen aldareak, eta zatitu zituzten gañean zeuden idoloak. Eta arrasatu zituen basoak, eta puskatu jainko irudiak; Eta bota zituen zatiak, doñak eskeñtzeko oitura iduki zuten obien gañera.

5. Gañera erre zituen apaizen ezurrak idoloen aldaretan, eta garbitu zituen Juda eta Jerusalem.

6. Baitaere Manases, eta Efraim, eta Simeonen errietan Neptaliraño, desegin zuen au guztia.

7. Eta desegin ezkerre aldareak, eta basoak, eta zatitu ezkerre jainko irudiak, eta beera bota ezkerre Israelko lur guztiko eliza guztiak, jerusalem-
era itzuli zan.

8. Bere erregetzatik emezortzigarren urtean bada, garbiturik onezkerro lurra, eta Jaunaren eliza, bialdu zituen Safan Ezeliasen semea, eta Maasias erriko andizkia, eta Joha Joakazen seme kanzillera, leengo moduan ipiñi zezaten beren Jaun Jainkoaren eliza.

9. Zeñak etorri ziran Helzias apaiz nagusiagana, eta arturik beragandik Jaunaren etxean gordeta zegoan dirua, eta zeñ lebitak, eta atezaiak bildu zuten Manases eta Efraimgo tribuetan, eta gañerako Israel guztian, baita Juda guztian ere, eta Benjaminen, eta Jerusalem bizi ziranen artean;

10. Jarri zuten, Jaunaren etxean lanean ari ziradenen begiraleen eskuetan, eliza berriztatzeko, eta bere arraka guztiak ongitzeko.



11. Eta berak eman zieten langilleai eta kisuari, erosi zitzaten arlanduak, eta zurak lanaren itsatsieretako, eta zurezatzeko, Judako erregeak desegin zituzten etxeak.

12. Berak fielkiro guztia egiten zuten. Eta langilleen begiraleak ziran Johath, eta Abdias, Merariren semeak; Zakarias, eta Mosolam Kaathen semeetatikoak, zeñak arin egin nai zuten obra, guztiak lebitak, trebeak soñuak jotzen.

13. Gauza batzuetarako bear zana ekartzen zutenen begiraleak ziran eskribak, eta lebiten arteko atezai nagusiak.

14. Eta Jaunaren etxean ipiñia izan zan dirua ateratzeko denboran, arkitu zuen Helzias apaizak, Moisesen eskuz eskribatua izan zan Jaunaren legeko liburua.

15. Eta esan zion Safan eskribuari: Arkitu det legeko liburua Jaunaren etxean. Eta eman zion.

16. Onek eraman zion liburua erregeari, eta kontu ematen ziola, esan zuen: Zure serbitzarien kontura jarri dezun guztia, bukatuaz dijoa.

17. Jaunaren etxean arkitu dan zillarra bildu dute, eta eman zaie langilleen begiraleai, eta beste lan batzuetan ari diradenai.

18. Gañera Helzias apaizak eman dit liburu au. Eta irakurrik berak erregearen aurrean,

19. Eta aditurik onek legeko itzak, urratu zituen bere soñekoak,

20. Eta agindu zien Helzias, eta Ahikam Safanen semeari, eta Abdon Mikaren semeari, eta Safan sekretarioari, eta Asaas erregearen morroiar, esaten zuela:

21. Zoazte, eta erregutu zaiozute Jaunari nigatik, eta Israelko eta Judako erlikiakgatik, arkitu dan liburu onetako itz guztien gañean, zeren andia da Jaunaren sumintasun, gure gañera ezarri bear duena; gure gurasoak ez dituztelako gorde Jaunaren itzak, ezta ere kunplitu, liburu onetan eskribatua dagoan guztia.

22. Joan ziran bada Helzias, eta berarekin erregeak bialduak izan ziranak Olda emakume profeta, Selum Theakathen semearen, Hasra soñeko gordetzallearen semearen emazteagana; zeñ bizi zan Jerusalemenean, eta adirazi ziezten, goian aitatu ditugun itzak.

23. Eta berak erantzun zien: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Esan zaiozute, nigana bialdu zaituzten gizonari;

24. Oiek esaten ditu Jaunak: Ona emen non nik bialduko ditudan toki onen gañera, eta bertan bizi diranen gañera, Judako erregearen aurrean irakurri zuten liburu onetan eskribatuak dauden doakabe eta madarikazio guztiak:

25. Utzi nindutelako, eta egin zieztelako eskeñtzak jainko arrotzai, aserretu erazitzen zidatela beren eskuen obra guztiakin, argatik nere aserrea joango da eroriaz tantoka toki onen gañera, eta ez da itzaliko.

26. Baña Judako errege, bialdu zaituztenari, Jaunari nik erregutu dizaiodan, esango diozute: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Liburuko itzak aditu dituzulako,

27. Eta zure biotza samurtu dalako, eta Jaungoikoaren aurrean humillatu zeralako, berean eskribatua dagoanaren gañean toki onen kontra, eta Jerusalemene bizi diradenen kontra, eta nere anditasunarekin beldurturik, zure soñekoak urratu dituzulako, eta negar egin dezulako nere aurrean, nik ere aditu zaitut, esaten du Jaunak.

28. Zeren laster zure gurasoakin bilduko zaitut, eta izango zera zure obian pakean jarria. Eta zure begiak ez dituzte ikusiko, toki onen gañera eta bertan bizi diranen gañera ekartzera noan gaitz guztiak. Itzuli ziran bada, emakumeak esan zien guztiaren kontua erregeari ematera.

29. Eta bera, otsegiñik Juda eta Jerusalemengo zar guztiai,

30. Igo zan Jaunaren etxera, eta berarekin Judako gizaseme guztiak, eta Jerusalemene bizi ziranak, eta apaizak eta lebitak, eta erri guztia txikienetik andienara. Eta Jaunaren etxean berak aditzen zutela, liburuko itz guztiak erregeak leitu zituen.

31. Eta zutik jarri bere tronuan, eskeñi zuen Jaunaren aurrean, jarraitzea berari, eta gordetzea bere aginduak, eta legeak, eta zeremoniak, bere biotz guztitik, eta bere anima guztitik, eta kunplitzea, orduanxe irakurri zuen liburuan eskribatuak zeuden gauza guztiak.

32. Eta juramentuerazi zien gauza onen gañean Jerusalemene eta Benjaminen arkitu ziran guztiai, eta Jerusalemene bizi ziranak, kunplitu zuten, beren gurasoen Jaun Jainkoarekin egindako elkartasunaren araura.

33. Josiasek bada kendu zituen Israelko semeen lur guztietako nazkagarriak, eta egin zuen Israelen gelditu ziran guztiak, serbitu zezatela beren Jaun Jainkoa. Bera bizi izan zan denbora guztian, beren gurasoen Jaun Jainkoagandik etzuten alderik egin.

OGEITA AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Zelebratu ere zuen Josiasek Jerusalemene Jaunaren Paskua, zeñ izan zan eskeñia lenbiziko illaren amalaugarren egunean,

2. Eta jarri zituen apaizak beren lanetan, eta itz egin zien, Jaunaren etxean serbituerazitzeko.

3. Esan ere zien Lebitai, zeñaen erakutsiak Israel guztia santutuzten zan Jaunarentzat: Jarri ezazute kutxa, Salomon Dabiden seme, Israel-



ko erregeak egin zuen elizako santuarioan, zeren onezkero emendik aurrera ez dezute eramango; orain bada zuen Jaun Jainkoa, eta Israel bere erria serbitu ezazute.

4. Eta zaudete gertuak zuen etxe eta familietatik bakoitzaren berezieretan, Dabid Israelko erregeak agindu, eta Salomon bere semeak eskribatuta utzi zuen bezela.

5. Eta serbitu ezazute santuarioan familien eta lebiten taldeen berezieraren araura.

6. Eta zuek santutu ezkeru, eskeñi ezazute Paskua, gertutu itzatzute ere zuen anaiak, zebratu dezaten, Jaunak Moisesen bitartez egitea agindu zuen bezela.

7. Gañera eman ziozkan Josiasek, Paskoako jai andian an arkitu zan erri guztiari, arkumeak eta antxumeak taldeetatik, eta beste abere batzuek, ogeita amar millaraño, baitaere iru milla idi. Au guztia erregearen atzientatik.

8. Bere andizkiak ere ekarri zuten borondatez eskeñi zutena, ala erriarentzat, nola apaiz eta lebitentzat. Eta Helziasek, eta Zakariasek, eta Jahielek, Jaunaren etxeko Prinzipeak, eman ziezten apaizai Paskoa zebratzeko, batzuen eta besteen artean bi milla eta seireun abere txiki, eta irureun idi.

9. Komeniasek berriz, eta Semeias, eta Natanael bere anaiak, eta berebat Asabias, eta Jehiel, eta Jozabad Lebiten Prinzipeak, eman ziezten beste Lebitai Paskoa zebratzeko, bost milla abere txiki, eta bosteun idi.

10. Gertutu zan bada bear zan guztia funziorako, eta apaizak prestatuak zeuden beren lanerako, eta orobat lebitak beren taldetan, erregearen aginduaren araura.

11. Eta eskeñia izan zan Paskoa, eta apaizak beren eskuz isuri zuten odola, eta lebitak kentzen ziozkaten larruak, eskeñiak izango ziran abereai.

12. Eta berezitu zituzten partitzeko bakoitzaren etxe eta familietatik, eta Jaunari eskeñitzeko, Moisesen liburuan eskribatua dagoen bezela, eta orobat egin zuten idiakin.

13. Eta sutan erre zuten Paskoa, legean eskribatua dagoanaren araura, eta doañ paketsuak egosi zituzten pertzetan, eta tupietan, eta eltzeetan, eta bereala partitu zioten jende guztiari.

14. Eta berentzat, eta apaizentzat gero prestatu zituzten, zeren apaizak ari ziran lanean gabera artean, holokaustoen eta gantzen ofrendan. Argatik lebitak prestatu zuten atzanean berentzat, eta Aaronen seme apaizentzat.

15. Eta Asafen seme kantariak, zeuden beren tokian, Dabiden, eta Asafen, eta Hemanen, eta Idithun erregearen profeten aginduaren araura. Eta atezaiak zeuden bellan ate bakoitzean, alako moduan non, etzuten alderik egiten ezta une bakar batean ere beren lanetik. Argatik beren anaia lebitak prestatu zieten ere jatekoa.

16. Kunplituak izan ziran bada egun artan Jaunaren elizkizunak, aginduaren araura, Paskoa zebratzean, eta eskeñtzean holokaustoak Jaunaren aldarearen gañean, Josias erregearen agintearen araura.

17. Eta an arkitu ziran Israelko semeak, zebratu zuten Paskoa denbora artan, eta legamigabeen jai andia zazpi egunean.

18. Etzan izan Israelen, onen irudiko Paskoarik Samuel profetaren denboratik. Eta Israelko errege guztietatik batek ere etzuen zebratu Paskoa, Josiasek bezela apaizakin, eta lebitakin, eta Juda guztiarekin, eta arkitu zan Israelekin, eta Jerusalem bizi ziranakin.

19. Josiasen erregetzaren emezortzigarren urtean zebratu zan Paskoa au.

20. Josiasek eliza berriztu ezkeru, Nekaio Egiptoko erregea atera zan gudara Karkamis Eufratesen aldekoa setiatzera; eta Josias bere kontra joan zan.

21. Baña ark, bialdurik bere mandatariak esan zion: Zer dago gure artean, o Judako erregea? Ez nator gaur zure kontra, baizik noa gudatzera beste etxe baten kontra, zeñaen kontra luzapenik gabe joateko, Jaungoikoak agindu didan. Ez zatzakio aurkeztu nerekin dagoan jaungoikoari, bizia kendu ez dizazun.

22. Josiasek etzuen itzuli nai izan, baizik prestatu zan bere kontra gudatzeko, aditu gabe Nekaoren itz, Jaungoikoagandik zetoztenak, baizik joan zan erasotzera Majeddoko kanpoan.

23. Eta izanik an fletxariak zauritua, bere morroiai esan zion: Atera nazazute gudatik, zeren zauri andi batekin arkitzen naiz.

24. Berak irago zuten gurdi batetik beste gurdi, erregeai oi bezela jarraitzen zionera, eta Jerusalem era eman zuten, eta il zan, eta obiatua izan zan bere gurasoen obian. Eta Juda eta Jerusalem guztiak negar egin zioten,

25. Batezere Jeremiasek, zeñaen lamentazioak Josiasen gañean kantatzen dituzten gizaseme eta emakume kantari guztiak gaurko eguneraño, alako moduan non, oitura au etorri da Israelen lege bat bezela izatera. Gauza oiek eskribatuak daude lamentazioen artean

26. Josiasen gañerako egiteak, eta bere errukizko obrak, Jaunak bere legean aginduta daukanaren araura.



27. Bere egitateak lenbizikoak eta atzenekoak, eskribatuak daude Judako eta Israelko erregeen liburuan.

OGEITA AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Artu zuen bada lurreko erriak Joakaz Josiasen semea, eta jarri zuen erregetzat bere aitaren lekuan Jerusalem.

2. Ogeita iru urtekoa zan Joakaz erreñatzen asi zanean, eta iru illa-betearen erreñatu zuen Jerusalem.

3. Baña etorriarik Jerusalemenera Egiptoko erregea, kendu zuen, eta bota zion erriari eun talentu zillarrezko; eta urrezko talentu baten multa.

4. Eta bere lekuan jarri zuen erregetzat Judaren gañean, eta Jerusalem gañean Eliakim bere anaia, ipintzen ziola izena Joakin. Eta Joakaz berarekin artu zuen, eta Egiptora eraman zuen.

5. Ogeita bost urtekoa zan Joakin erreñatzen asi zanean, eta amaika urtearen erreñatu zuen Jerusalem. Eta egin zuen gaizkia bere Jaun Jaungoikoren aurrean.

6. Onen kontra igo zan Nabukodonosor Kaldearren erregea, eta kateakin lotuta, Babiloniara eraman zuen;

7. Ara eraman zituen Jaunaren ontziak ere, eta bere elizan jarri zituen.

8. Joakinen gañerako egiteak berriz, eta egin zituen gauza nazkagariak, eta beragan arkitu ziran gaiztakeriak, Judako eta Israelko erregeen liburuan arkitzen dira. Eta Joakin bere semeak erreñatu zuen bere lekuan.

9. Zortzi urtekoa zan Joakin erreñatzen asi zanean, eta iru illabete eta amar egunean erreñatu zuen Jerusalem, eta egin zuen gaizkia Jaunaren aurrean.

10. Eta urte bete barru, Nabukodonosor erregeak bialdu zuen jendea, zeñak babiloniara eraman zuen, zeramazkiala batean Jaunaren etxeko ontzirik baliotsuenak. Eta jarri zuen erregetzat Juda eta Jerusalem gañean Sedezias aitaren aldeko bere osaba.

11. Ogei urtekoa zan Sedezias erreñatzen asi zanean, eta amaika urtearen erreñatu zuen Jerusalem.

12. Eta egin zuen gaizkia bere Jaun Jainko begi begietan; eta etzion aditu, ez arpegira begiratu ere Josias profetak Jaungoikoren izenean itz egiten zionari.

13. Jaiki ere zan Nabukodonosor erregearen kontra, zeñak juramentuerazi zion Jaungoikoagatik, eta gogortu zituen bere lepota eta bere biotza, ez biurtzeko Israelko Jaun Jainkoagana.

14. Baita apaizen prinzepe (sic) guztiak, eta erriak ere alde egin zuten txit gaizkiro beren fedetik jarraitzen zietela jendeen nazkagarri guztiak, eta profanatu zuten Jaunaren etxe, beretzat Jerusalem santutu zuena.

15. Bitartean beren gurasoen Jaun Jainkoak itz egiten zien, berak bialtzen ziezten profeten bitartez, erasotzen zietela aspertu gabe gau ta egun; bada barkatu nai zion bere erriari, eta bere bizilekuari.

16. Baña berak iseka egiten zien Jaunaren mandatariak, etzituzten aditu nai beren itzak, eta profetai erasotzen zien, alik eta igo zan artean Jaunaren aserrea, eta onezkero ez zegoan sendagarririk.

17. Zeren ekarri zuen beren gañera Kaldearren erregea, zeñak ezpatatz irago zituen bere gazteak santuarioko etxean, etzuen iduki ez mutil gaztearen, ez donzellaren, ez zarraren errukirik, ezta atso agurenik ere, baizik guztiak jarri zituen bere eskuetan.

18. Eta Babiloniara eraman zituen Jaunaren etxeko ontzi guztiak, ala andiak, nola txikiak, eta elizako, eta erregearen, eta prinzipeen tesoroak.

19. Etsaiak Jaunaren etxeari su eman zioten, eta Jerusalem murrua bota zuten, dorre guztiak erre zituzten, eta desegin zuten zegoan gauza baliotsu guztia.

20. Inork ezpatari iges egin bazion, izanik Babiloniara eramana, izan zan erregearen eta bere semeen mendekoa, Persiako erregeak agintaritza iduki zuen artean.

21. Eta kunplitu zan Jaunak Jeremiasen aoz esandako itza, eta lurrak zelebratu zituen bere larunbatak, zeren bere antsiako egun guztietan zelebratu zuen larunbata, irurogeita amar urteak kunplitu ziran artean.

22. Baña Ziro Persiako erregearen lenbiziko urtean, Jeremiasen aoz Jaunak eman zuen itza kunplitu zedin, mugitu zuen Jaunak Ziro Persiako erregearen biotza, zeñak agindu zuen bere erreñuan publikatzeko, eskribuz ere, esaten zuela:

23. Oiek esaten ditu Ziro Persiako erregeak: Zeruko Jaun Jainkoak eman dizkit lurreko erreñu guztiak, eta berak agindu dit, egin dizaiodala etxe bat, Judean dagoan Jerusalem. Zeñ dago zuen artean bere erriari dagokiona? Bere Jaun Jainkoa berarekin izan bedi, eta bere errirako bidean jarri bedi.